EUSKALERRIKO

EDESTIAREN

IX-XIII ATALAK

DAKIGUNETIK

GAUR ARTE

ZENBAKIAK

786-1288

EUSKALERRIAREN EDESTIKO IXn. ATALAREN AURKI BIDEA.

I. ZATIAN.

GAIAK ***ORRIA***

1. Aurki bidea.....786 - 787
3. Atarikoa.....788 - 790
4. Aurkezpena.....791 - 792
5. Euskalerriaren edestian, IXn atalaren sarrera.....792 - 792
6. Frantziko Orleans´tar I Luis Felipe erregea edo ta Portugaleko errege I Karlos´en semeentzat, Braganzako I Luis Felipe erregea.....792 - 794
7. I Luis Felipe´en bizi kondaira.....794 - 794
8. Frantziko Iraultza.....794 - 795
9. 1.793-1.815eko urte bitartean, I Luis Felipeen erbesteratzea.....795 - 796
10. I Luis Felipeen ezkontza eta euki ebazan seme-alabak.....796 - 797
11. I Luis Felipeen erregetza.....797 - 799
12. Frantziko IIn Errepublika.....799 - 802
13. IIn Isabel erregiña lez, bere erregetzazko aurkezpenaren sarrera.....802 - 811
14. Oar txiki bat emen.....811 - 813
15. IIn Isabel´en ume-aldia.....813 - 814
16. Karlistadako guda onen, Ondoriozko aurkeztaldi laburra.....814 - 815
17. Euskalerrian, karlistadako gudaren asiera.....815 - 820
18. 1.833-1.839ko urte bitartean, karlistadaren lenengo guda.....820 - 820
19. Europak.....820 - 833
20. Oarpena.....833 - 834
21. Karlistaren aldetik aukeratu ziran gudal nagusiak.....834 - 834
22. Zumalakarregi ta Imaz´tar Tomas.....834 - 836
23. Merino´tar Jeronimo apaiza.....836 - 838
24. Isern ta Maroto´tar Rafael.....838 - 841
25. Orbe ta Elio´tar Jose Maria, Baldespinako IIIn Markesa.....841 - 843
26. Egia´tar Nazario.....843 - 844
27. Gerge ta Yaniz´tar Juan Antonio.....844 - 845
28. Kabrera eta Goñi´tar Ramon, Morellako lenengo kondea.....845 -846
29. Gomez ta Damas´tar Migel Santxo.....846 - 847
30. Gartzia ta Montoya´tar Jose Maria.....847 - 848
31. Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio.....848 - 850
32. Uranga´tar Jose Inazio, tenient gudal-nagusia.....850 - 850

33. Gonzalez ta Moreno´tar Bizente.....850 - 850
34. Alzaa.....850 - 850
35. O´Donnell´tar Juan koronela.....850 - 850
36. O´Donnell´tar Karlos, Juanen anaia.....850 - 851
37. Barres ta Molard´tar Alonso prantzeza.....851 - 851
38. Sabatier´tar Alexis prantzeza.....851 - 851
39. Ferdinand Enningsen´tar Karl Eskoziakoa, Nafarroako Zaldunen kapitaiña.....851 - 852
40. Litxnowski´tar Felix Maria Bizente Andres, Alemana.....852 - 852
41. Bon Goeben´tar Augusto, Alemana.....853 - 853
42. Loning´tar Adolfo, Alemana.....853 - 853
43. Karlistaren gudal nagusiak, jerenal lez aurkeztuta.....853 - 854
44. Kadizeko konstituzio edo jaurgo barriaren liberal kristino aldetik, aukeratu ziran gudal nagusiak.....854 - 854
45. Kastañon´tar Federico.....854 - 855
46. Oraa ta Lekunberri´tar Martzeliño.....855 - 856
47. Baldes eta Noriega´tar Jeronimo.....856 - 856
48. Kesada´tar Bizente Jenaro, Monkadako markesa.....856 - 858
49. O´Donnell´tar Leopoldo.....858 - 858
50. Fernandez eta Espartero´tar Baldomero, Bitoriako dukea.....858 - 861
51. Rodil eta Galloso´tar Jose Ramon, Rodilleko markesa.....861 -861
52. Manzanedo ta Gonzalez de la Tejada´tar Juan Manuel.....861 - 862
53. Espoz eta Illundai ta Mina´tar Franzizko.....862 - 867
54. Jáuregui ta Jauregi´tar Gaspar, "Gipuzkoako Biriato" ta "Artzai" ez izenakaz esagutu zana.....867 - 869
55. Fernando de Kordoba´tar Luis.....869 - 870
56. Narbaez´tar Ramon Maria.....870 - 871
57. Eta zerrenda lez aipatuko dodazanak.....871 - 871
58. Alde bietatik, nortasun edo norkeriz ibili ziran gudal nagusi onein bidetik, berez jaiotzezko erri edo aberriaren "baitazko eritzian", ondore lez agertzen diran ulermenak.....871 -874
59. 1.835eko urtean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria artuta.....874 - 881
60. 1.837ko urtean Iraillaren 14an, Andoaingo borroka.....881 - 889
61. IIn Isabelek, 16 urte euki ebazanean.....889 - 890
62. IIn Isabelen ezkontza.....890 - 892

2.018-1, EUSKERAZAINTZAREN ATARIKOA

"ATARIKO"

Berbak: lekua, tokia, gunea, aterpea, portalea, itzaurre..... prologoa..., aurkezpena... esangure deuskunaren izena da. Bidean ibilli aurretik, bidea zelangoa dan ikustea lez. Esate baterako Atutxa jaunak Euskalerriaren edestiari buruz egindako lanari begiratzea edo zelanbaiten aztertzea edo ta bertatik atara leikezan ondorioak argitutea.

Lenengo ta bein esan bear dot garrantzizko gaia azaltzen dala Atutxa Paulo Jaunaren idazlan onetan.

Euskalerria, Erri bat da eta edozein. Munduan egondako ta dagozan Erri artean, zarrena dala baiestatu leikenean.

Garrantzizkoa ez ezik, Pauloren lanaren erabilkera edo idazkerea dotoretasunez jantzita agertuten da. Mamintsua da gaiñera: gertaera, gudaketak, joan etorri, berbaldi, eta agiriz ornituta.

Gertaerazko eta erantzun andikoak diranez, zeaztasun zorrotzez, noz eta zelan osatuten diran, argi ta garbi dagoz ipinita. Nastu barik, eginkizun bakoitza bere jasokun iturriagaz lagunduta dator.

Atutxa jaunak aurkibide trinko ta eder batez zati bitan banatuten dau bere idazlan istoriduna.

Aurkezpen edo sarrera laburtxu baten ostean ekiten deutso. Lenengo zatiari: erdi aroko kontakizunari. Bigarren zatian Errege-Jaun bakoitzaren bizia eta eginkizunari.

Txalo beroak emonaz Atutxa´tar Paulo lanaren egilleari, edozein irakurleari eskatuko neuskio, irakurriaz batera, ausnartu eta aztertu dagiala bere kautan, EUSKALERRIAREN nortasuna gero eta ezagunago ta maiteago izan dagian.

2.017ko urtean LORTUKOAK, eta 2.018ko urtean LORTZEKOAK

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire idaz lan au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta 18koan zer egin bear dogun.
Bi milla ta amazortzigarren urtean gagoz.
Loraillak lau daukozala.
Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku.
Begiradatxu bat egingo dautsogu batutako orreri.
Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer, zelan jokatu geinken aurrerantzean.
Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

LORTUAK:

Euskerazaleak Alkarteak daukan etxean eta Aguraiñeko Klaretarren lekaretxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz.
Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz.
Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da.
Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta igaz be alantxe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta.
Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez litzakela sartuko daukoguzan eskutitz azaletan.
Alan da be esan bear, 100 orrialde gitxitzat joten dogula.
Interneteko lana be aitau bear dogu. Lan bikaiña zalantza barik.
Or agertzen doguz Euskerazaintzaren aldizkari guztiak.
Kardaberaz´en bilduma, Arrinda´tar Anes´en idazkiak eta liburuak, San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Latxaga) ta Latiegi´tar Bizentek Euskalerri ta eleizaren buruz idatzi dauzan liburuak, baita Umandiren Asmo Iztegia, iztegigintzan sartuta daukaguz, eta Goikoetxea´tar Iñakiren idaz-lanak be sartu genduzan.
Bizkaiko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz.
Eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin

Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, ZER eta Euskerazaintzaren aldizkariak eta abar.
Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da.
Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan Euskerazaleen biztanleak 1.660.000 biztale baiño geiagorekin eta Euskerazaintzarenak 590.000tik gora direzela.

LORTZEKOAK:

1º-Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezean, urtean bitan.
2º-Euskerazaleak Alkartearen etxean eta Aguraiñeko Klaretar lekaretxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrak egiten jarraituko dogu.
Batzar agirien ardurea Atutxatar Paulok daroa.
3º-Interneteko lanakaz be jarraituko dogu.
4º-Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaurlaritzan.

Amorrortu ta Barroeta'tar Klaudio

EUSKALERRIKO EDESTIAREN IXn ATALA.

4. *Aurkezpena.*

Euskalerriko edestiaren VIIIn atalako sarreraño, ta sarrera orreitan gogoratzeko be, len:

-Euskalerriaren demokrazizko Batzar legeak, nundik jaio ta zelangoak izan ziran ikusten doguz.

-Geroago eta IVn gizaldian, zelan I Konstantinok, Erromatar Kaisertzaren maldaberea ikusita, ta Izadi onen giza ardi-talde lez bideratzeko, Kristau eleiztarrakaz katolikotasunean batzangotzeko aberkidetuz, dogmaren arauz zinpetu zirala asmatu ebezan norkerizko lege guzti orreik, arik eta Godo´ak Vn gizaldian Erromatar kaisertza menperatu ondoren, katolikotasunezko erlijio orregaz jabetu zirala, Mauritarrak agertu ziran arte, ikusten dogu.

-Bai, Europako mendebal onetan bereala, Erromatar-Godo oneik katoliko aberkuntzaren erlijio barriagaz, euren etsai aundi Mauritarrak kanporatu edo baztartzeko alegiñetan:

"Godo auek ariñautik erromatarren ordegotza artu, eta Toledon ezarri eben kaisertzagaz, erromatarren ari orretatik, Europa, katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzen asi zirala, arik eta Mauritarrak agertu ziran arte.

Frantziren lurraldeko Normandiaren ingurutan, keltiar-frankoen sarrerako erregetzaz gaiñ, Naparroako erregetza sortu zala, eta erdiugarte onetan Naparroagaz batera Asturiaseko erregetza sortuz, ezagutzen zan Mundu au, katoliko erlijioan ezartzeko ari bidetik, zelan sortuko ziran, Leon, Gaztela ta Aragoiko erregetzak koloziaziozko legeakaz, katolikotasun al-osokerizko menperatzaille edo goitik berako mende erazko legeakaz, gure Euskal Demokraziaren Askatasunezko legeakaz berdinkatzeko, gaurko egunerarte egin daben antzera"(1).

-Bai VIIIn atalean bide batez, ta Kondaño´n omenez, berak ikertutako ***"Las Confirmaciones y el Pase Foral"***aren lan ederra aurkeztu dogula, gure Batzarraren Lege Zarrak, argitasun geiagoagaz ikusi dagiguzan. Eta bai euskal lege Zar orreik daukien argi ta indar guztiagaz, Europa osorako ezarri gure zan aberkideko lege mendean batzangotuta, katolikotasunezko erlijio ori bere norkerizko barnetik agertzen diran, menperatzail eritzizko lege orreikaz, berdinkatzeko lagundu zedin. ***Ia noiz ezartzen garan, berezko ta benetako demokrazi baten zentzunezko itxuran, Europa ta Munduak eskatzen dauskuzenak zentzututzeko.***

-Foru Baimena edo zergaitik sortu zan Pase Forala be argitu gendun, Aragoiko IIn Fernando eta bere emazte I Isabel katolikuak gero, Bizkaiko Jauntza edo Bizkaitarren Artekaritza artu ebenean, jakiteko zergaitik egin bear izan eben ainbesteko ziñezpen edo zinkunde, Bizkaiko Jauntzaren ardurak erabilteko. Bai eta, nungo bidetik eta zergaitik agertu ziran gure Euskalerrira, atzerritar-jauntzazko lotura orreik.

-Argitasun orreik eginda, eta ikusita Europaren orokortasunean, katolikotasunezko aberkuntz ori ez zala lortzen iñundik iñora, erabilten ziran kolonizaziozko menperatzail legeak, euren almenezko mugaraiño elduta, ibilgaitzezkoak biurtzen ziralako, guzur orreik, politikazko arazoak baiño besterik ez ebalako sortzen.

(1) Mendebaleko Europa osoaren eritzia orduko denboratan, Euskalerriarena izanda, Askatasunezko Demokraziarena izan zan.

Eta alderantziz, erri-jaurkintzaren etorkizunerako denborak argi geiago bear ebazalako, Frantziko Iraultzan sartu giñan: ***"ez etenbageko odoljarioaren gudakaz, ez bakezko alegiñakin al zan era bidez erabagitzeko, lortzen zana"***, katolikotasunaren sasi-jainko menperatzail lege orreik, ainbeste guzur utsagaz, lokaztu egiten ebena.

Eta Frantziko iraultzan sartu ondoren, lege zar guztiak kendu ta ainbeste gizon-emakumeai lepoak moztu ***"Egia, Askatasun eta Bardintasun"*** idazpuruzko izenean, alegiñ guzti orreik giza seme-alabaren eskubide guztien gaiñetik egin ziralako, ez zan lortu ezer.

Napoleon agertu zanean, leenengo errepublikea ezereztu ta legezko gauza guztiak leen erregeen alosokerizko agintaritzan eta katolikoen erlijiozko menperatzail legeetan ostera ezarri ebazalako.

5. *Euskalerriaren Edestian, IXn atalaren Sarrera.*

Garrantzi aundiak euki ebazan Frantzian sortzen ziran gauzak, Europa, ta obeto esanda, munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako(1).

"Edestian zear, ainbeste millaka biderrez saioak egin eta gero", aldi onetan Mundu au katolikotasunezko eritzi orreikaz bideratzen ebazan jakintsu aundiak(2), frantzez gizarteagaz saiatu ziran: ***"Ia nundik batzangotu, ta artalde lez bideratu, Europako gizarte guztia, euren katolikotasunezko agindutara".***

Euskalerriarentzat zer ezanik ez, milla urte askotan demokrazien askatasunezko zentzua bere Baitan oituratuta sinis-bete orreik eukinda, Euskalerriaren gizartea izan dalako, euren menpetasunezko saio orren aurkako etsai aundiena. Edo bakarra ?.

Katolikotasunaren aberkidetasunezko norkeriaren guzurrak Euskalerrian, kalte aundiak egin dabez. ***"Norkerizko aberkuntz orrein guzurrak, sasi-jaintasunezko maitetasun lez sartuta, ainbat maltzurrezko guzurraren lokatz artetik urten ezinik gabiltzalako".***

Badagoz errigizartearen maillan be, katoliko edo edozein menpetasunezko batzango eritziaren aurka, berez prestatzen gaituen gauzak, nor-beraren gandik asi ta, bakotzaren ardurazko guzak diran: Aitaren-etxea, nor beren ezkon-etxea, seme-alabak, auzotasuna, erria, lurralde, ta norberen aberriko askatasunen zentzuzko arrazoiak zapaltzen dabezanean. Nai eta edestiko etorkizunean, or ibili bear odoljariozko ekintza gogor baten, goitik berako menpe eritzi orreik, ezarri gure dabenaren aurka.

Ez da txarrena ori.

Txarrena, 1.693ko urtetan konturatu ez egitea, JAUNGOIKO IRASLEAK Izadi oneri ipini eutsozan legearen aurka dabizela.

Orregaitik, eta gure Euskalerriko Edestiagaz aurrera egiteko:

-Frantziko I Felipetik asiko gara.

-Gero espainitarren IIn Isabel erregiñagaz sortu ziranak ikertu ondoren, karlistadako gudatan sartzeko.

5. *Frantziko Orleans'tar I Luis Felipe erregea edo ta Portugaleko errege I Karlos'en semeentzat, Braganzako I Luis Felipe erregea.*

(1) Munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako = Europako Mendebal eta Ekialdeko lurraldetan beintzat, dan guztia edo erri guztien erregeak "Katolikotasunezko Aberkuntz orregaz lotuta geratu zalako. (2) Jakintsu Aundiak = euren ustez.

1773ko urtean Urrillaren 6an jaio zan Parisen, Frantziko erregetzan asken errege izango zan I Luis Felipe au. Iraultzaren ekintzakaz, Frantzia Laterritu eben frantzezaren konstituzio barriekin, ***"frantzezaren errege"*** izenburuagaz ipini ebena.

1.773ko urtetik 1.793ko urteraiño, Txantreseko Dukea izan zan.

1.785eko urteraiño izan zan Baloiseko Dukea.

1.789ko iraultzaren urtetan I Luis Felipe ***"Ègalitè"*** au, ***"Txantres Uritar"*** izenagaz be esagutu zan, Txantreseko Dukadoaren izen burua be eroaten ebalako, edo ***"Ègalitè Fils"*** ez izena be eroaten ebalako.

Eta 1.793ko urtetik, bere aita il zanean 1.830eko urterarte, Orleanseko Dukea, IIIn Luis Felipe´ren izenagaz.

1.830eko Uztaillaren 31tik, 1.830eko Dagonillaren 9rarte izan zan frantzezen orokorrezko bigarren arduraduna.

Eta 1.830eko Dagonillaren 9tik 1.848ko Otsaillaren 25ko bitartean, bere aurreko alosokerizko errege Xn Karlos´eri, iraultzaren arduradunak Frantziko erregetza iztea beartu eutsoenenan, I Felipe izan zan frantzezaren konstituziozko erregea, Andorrako Printzearen





Frantziko I Luis Felipe erregea, bere armaría eta bere izenpea.

izen buruagaz batera. Erregetza orreri, Uztaillaren erregetza deituta, ille orren 30ean igon ebelako frantzezaren erregetzara.

I Felipe onen denboran, lantegi-gintza laster edo azkar ugarituteagaitik, aundikien(1) igoeragaitik, eta ezer-gabeko aiton-ume(2) edo ta langilletzak(3) sortutakoagaitik, ezagutuko zan bere erregetza.

I Luis Felipe onek bere erregetzan, izen-goitiko auekas ezagutu zan: ***"Uritar Errege"*** (4),

(1) Andikien = burguesia. (2) Ezer-gabeko aiton-ume = proletario. (3) Languilleria edo languilletza = proletariado. (4) Uritar-Errege = rey ciudadano.

"Diru Etxe Ardurdunaren Erregea"(1) edo ta ***"Kale Zoztor edo Kupel-Babes´eko Erregea"***(2).

1.850eko urtean Dagonillaren 26an, Ingalaterrako ego aldean dauan Surrey´eko konderrian 76 urte eukazala il zan.

I Luis Feleipe, frantzez konstituzioaren barriko erregeen aita, ***"Philippe Ègalitè"***en izen buruagaz esagutu zan IIn Luis Felipe Orleanseko dukea, XVIn Luis Frantziko erregearen leen maillako lengusua zan, eta ama, IIn Luis Feleipeen emazte, Borbon´tar Luisa Maria Adelaida.

7. *I Luis Felipe´en bizi-kondaira*(3).

I Luis Felipe au, XIIIn Luisetik etorten zan leiñukua zan, eta Orleanseko IIn Felipe aita ta Borboneko Luisa Maria Adelaidaren semea. Luisa Maria Adelaida au XIVn Luisen leiñukua izanda.

Baloiseko I Luis Felipe onek, bere jaiotzatik euki eban ondorengotasunezko Jaun aundiaren izen buru ori, 1.785eko urtean bere aitite Orleanseko I Luis Felipe il zan arte. Ordutik aurrera Txantreseko Dukearen izen burua artuta.

1.781eko urtean, bere aita Orleanseko Duke IIn Luis Felipek, bere maitale izan zan Jenlis´eko Felizite idazlari eta jakin aundiko emakumearen eskuetan itzi eban, I Felipe semearen ikasketak bideratu egiezan.

Emakume onek, I Luis Felipeen errege seme au, irakaspidezko eraikera gogor baten ezarrita, arroztasunezko izkuntzak ikasten ipini eban leenengo ikasketetan.

Eta I Luis Felipe au, bere artu emoneko izketetan, Aleman, Ingeles, Italiano ta Gaztelatar izkuntzazko arloetan, ondo baiño obetoko jabetza artuta egoan.

Jenlis´eko andereaurre onek, bere Felipe ikasleagaitik esaten eban:

Printzea zan, eta gizona egin dot berarekin.

Traketsa(4) zan, eta gizon trebe bat egin dot beragaz.

Aspergarri eta gogaikarri bat izan(5) zan, eta bioztun´ezko(6) gizon baten biurtu dot.

Zeken eta zurkaitzezko(7) gizona zan, eta ezin izan dot biotz-oneko gizonean biurtu.

Politika maillan, nor berak gura dauan beste ezku-zabalekoa(8) izango da, baiña biotz oneko(9) gizona ez.

8. *Frantziko Iraultza.*

1.789ko urtean Frantziko Iraultzaren asikeragaz asi zan I Felipe´ren ikas bidea.

Bere aitaren antzera, iraultzaren babesle edo aldegille amorratua zan.

1.791ko urtean eta koronelaren guda-maillagaz, guda-dragoien 14n taldean elkartu zan.

1.792ko urtean guda asi zanean, General ordearen maillara igon eban, eta François ta Dumouriez´tar Txarlesek aginduten eban Iparraldeko gudaloztera bialduz, Balmy eta Jemappes´eko borrokatan egon zan.

(1) Diru-Etxe Arduradunaren Erregea = rey de los banqueros. (2) Kale-zoztro edo Kupel-Babes´en Erregea = rey de las barricadas. Azkeneko izen au, 1.830ko urtearen iraultzan eta 1.848ko urtearen iraultzan, igon eta kendu ebelako erregetzazko aulkitik ipini eutsoen. (3) I Luis Felipe´en bizi-kondaira = Biografía de Luis Felipe I. (4) Traketsa = holgazan, torpe, grosero, tosco. (5) Aspergarri eta gogaikarri = Vengable, molesto, inoportuno, pelmazo, nauseabundo. (6) Bioztun = valiente, animoso, magnànimo, noble. (7) Zeken edo Zurkaitzezko gizona = avaro, roñoso, duro, insensible, insumiso. (8) Ezku-zabaleko = liberal y todo lo que se quiera. (9) Baiña biotz oneko gizona, ez ¡! = pero generoso no.

1.792ko urtean Iraillaren 21etik aurrera antolatuz, 1.793ko Urtarrillaren 17an XVIn Luis iltera zigortuz, eta 27ko egunean lepoa moztu eutsoenetik aurrera, sortu zan Frantzezaren Igo Errepublikeari: ***"Urte-egun onetatik, 1.804ko urtearen Loraillan 18garren egun bitartean, egon ziran iru biltzar, eta errepublika antzeko gobernu ezberdiñari"*** deitzen jako.

1.793ko urtearen Jorraillan, XVIn Luiseri lepoa moztu eutsoen ostean, Dumouriez Jenerala alde egin eban aurkaritzaren gudalozteetara, eta bere lagun I Luis Felipe joan zan lez, onek atzerrian egingo ebazan 1go Errepublika(1) ta Napoleonen kaisertza denborak, arik eta 1.815eko urtean amaitu ziran arte.

9. *1.793-1.815eko urte bitartean, I Luis Felipe'en erbesteratzea.*

I Luis Felipeen atzerritartasuneko denborak, estutasun aundikoak izan ziran diruen aldetik, errege sendi lez Frantzian euki zituzen ondasunak, baituta euki ebazalako. Bai eta bada ezpadan, bere izena iñundik agertu bage.

1.793ko urtearen Azillan, eta bere arreba Adelaida ta Jenlis'eko andere aurreneagaz, alkarrezko barriak eukin eta gero, Suiza aurrean, Rin-goiko Reitxenau'ko erritxoaren eskolan egon zan irakasle lez.

Ikastetxe orren sukaldaria zan Banzori'tar Mariannegaz maite mindu zan, eta beragaz seme bat eukinda, berton jakin eban bere aita Orleanseko II Luis Feliperi, lepoa moztu eutsela.

1.795eko urtean, Eskandinabiatik egin eban bidai bat txangolari, eta orren ostean, onartu eban Ameriketara joatea, atxilotuta euki ebazan Antonio Felipe eta Luis Karlos anaiak askatzen ba ebazan.

Iru urte egin ebazan Ameriketako lurraldeetatik:

Leen aldiz Filadelfiara joan zan, askatu ebazan bere anaiakaz alkartuta.

Gero, Nueba-York eta Boston'etik be ibili zan Frantzez irakasle lez, bai ta gaur jatetxe zaarrena dan ***"Union Oyster House"***ko ostatuan, bizi toki lez artuta.

1.797ko urtean Koz'eko lur muturra(2) ikustera joan zan, eta bertan ikusi eban, zelan Eastman erria udaletxe bitan banandu zan. Udal batek, baleiteke bere omenez izatea, Orleanseko izena artu ebala.

Esan leike be, berton ezagutu ebala Orleanseko(3) Snowtar Isaak, Ingeles txalupa-espetxe batetik iges eginda, Ameriketaren askatasunezko guda denboratan.

1.797ko urtean I Luis Felipe Boston'en egoala, Frantziko Laterrien aurka, fruktidorraren 18n(4) eguneko matxinada egon zala jakin eban, eta bere ama erdiugarte onetara atzerritu ebela jakin ebanean, bereala arduratu zan Europara itzultzen, bere anaiakaz batera.

Ameriketako Orleansera joan ziran, gero Abanara joan, eta ortik peninsula onetara etorteko asmotan. Nai asmo orreik, beste erabagi bat artu bear izanda, frantzezak espaintarrakin gudan egon ziralako.

Abanara eldu ziranean, Ingeles itsas-ontzi baten erasoa artu eta gero, urte bete baiño geiago egon ziran iru anaiak ontzi-txartelak aurkitu ezinik Europara etorteko, arik eta

(1) Igo Errepublikaren denbora = 1.792ko urtean Iraillaren 21etik, 1.804ko urtean Loraillaren 18raiño iraun eban. (2) Koz Lur muturra = Cabo cod. (3) Orleáns = Frantziren Orleanseko Uri ta Dukearen lurraldea. (4) 18 de Fructidor = duodècimo (12) mes del calendario Republicano francès y tercero del verano. Bere leen eta askeneko egunak, Dagonillaren 18 eta Iraillaren 16ko egunakaz bateratu egiten ziran.

espainitar agintariak, Abanatik bota arte.

Ori ikusita, Baamas´erantza joan ziran, Eskozi-Barrira joateko, eta bertan, Ingalaterrako IIIn Jorje´en seme Kent´eko Dukeagaitik onartuak izanda, Ingalaterraraiño joan ziran gero, 1.800eko urtearen Urtarrillan elduta.

10. *I Luis Felipe´en ezkontza.*

1.808ko urtean, Palermoko kaian lurreratu zan Orleans´eko Dukea, Napoleonen gudako erasoaren ekintzagaitik, Bi Siziliko I Fernando erregeak, bere erregetza ezarri eban lekuan.

Nápoles artu eben Napoleonen gudalozteak, eta Napoleonek, Borbon´tar leiñuaren amaiera aldarrikatu ondoren, bere anai I Bonaparte´tar Jose ezarri eban lenengo Napoleseko errege le zeta gero espainitarren errege aulkian(1).

1.809ko urtean Azillaren 25ean Palermon, I Luis Felipek, bere emaztea izango zan Bi-Siziliako Borbon´tar Maria Amelia Printzea ezagutu eban, I Fernandoren alaba zana, eta urte-egun oneitan ezkondu ziran.

Eta ezkontza onetatik 10 seme-alaba jaio ziran:

-1.810eko urtean Iraillaren 3an, Orleanseko ***Fernando Felipe Dukea***, 1.842ko urtean Uztaillaren 13an il zana. Bere seme Orleanseko Felipe Pariseko Kondea izango zan, frantzezaren erregetzarako eukiko eban errege-naia.

-1.812ko urtean Jorraillaren 3an, ***Orleanseko Luisa Maria*** jaioko zan, Beljikako I Leopoldo erregearen emaztea izango zana, eta Beljikako IIn Leopoldo ta Mexiko´ko Kaiser-Andrea izango zan Karlotaren ama zana. 1.850eko urtean Urrillaren 11n il zan Orleanseko Luisa Maria au.

-1.813ko urtean Jorraillaren 12an ***Orleanseko Maria*** jaio zan, Württenberg´eko Alejandrogaz ezkonduta, Württenberg´eko Alejandroren (1.804-1.881) ama izango zana. 1.839ko urtean Bagillaren 6an il zan Orleanseko Maria au.

-1.814ko urtean Urrillaren 25ean jaio zan ***Nemourseko Dukea Luis Karlos Felipe Rafael,*** Bitoriako Sajonia-Koburgo-Gotha´gaz (1.822-1.857) ezkondu zana, eta Eu´ko Konde, Brasil´eko Kaiser Orleanseko Gastonen aita izango zana. 1.896ko urtean Bagillaren 26an il zan.

-1.816ko urtean Epaillaren 28an jaio zan ***Orleanseko Frantzizka***, eta 1.818ko urtean il.

-1.817ko urtean Bagillaren 3an, ***Orleanseko Klementina*** jaio zan, Sajoniako Augusto Koburgo-Gotha´gaz ezkonduta Bulgariako I Fernandoren ama izango zana.

-1.818ko urtean Dagonillaren 14an, ***Orleanseko Frantzizko Joinbilleko Printzea izango zana*** jaioko zan, 1.900eko urtean, Brasilleko I Pedroren alaba Frantzizkagaz (1.824-1.898) ezkonduko zana, eta Orleanseko Frantzizka alaba eukinda, au bere lengusu Orleanseko Roberto, Txantreseko Dukeagaz ezkondu zana.

-1.820ko urtean Urtarrillaren 1ean, ***Penthiebre Dukea Karlos*** jaio zan, ta 1.828ko urtean il.

-1.822ko urtean Bagillaren 16an ***Aumaleko Dukea Enrike*** jaio zan, eta Salermoko

(1) Bonaparte´tar I Jose = nacido en Corte y muerto en Florencia. Su hermano Napoleòn le hizo rey de Nápoles entre los años de 1.806-1.808, y rey de España entre los años 1.808-1.813 con el sobrenombre de Pepe Botella. Se exiliò en Suiza a la caida del imperio Napoleònico, volviendo durante los cien dias de Napoleón, y exilarse después de Waterloo en los E.U., donde viviò entre los años de 1.815-1.832 bajo el nombre del conde de Survilliers.

Printzea Leopoldoren alabeagaz, Bi Siziliako Borbon´tar Karolina Augustagaz (1.822-1.869) ezkonduta, euki zituzen semeak bera baiño ariñago il zirenak. Bera 1.897ko urtean Loraillaren 7an il zan.


-1.824ko urtean Uztaillaren 31n ***Montpensier´eko Dukea Antonio*** jaio zan, espainitar VIIn Fernando eta onen alaba IIn Isabel´en aizta Luisa Fernandagaz (1.832-1.897) ezkondu ta gero, espainitarren errege-seme izendatuko ebena(1). Euki eban lenengo alaba Orleanseko Maria Isabel, Pariseko Kondea izan zan Orleanseko Felipegaz ezkonduta, bere bostgarren alaba, Orleanseko Maria de las Merzedes´ek, irugarrena neskaren artean zana, IIn Isabel espainitar erregiñaren seme XIIn Alfonso, bere lengusuagaz ezkonduko zan.

11. *I Luis Feleipe´en erregetza.*

Uztaillako erregetza, eta 1.848ko Iraultza edo Kupel-babesak(2):

1.814ko urtean Napoleon atxilotu ondoren eta XVIIIn Luis frantzezaren errege aulkian ostera ezarri ondoren, I Luis Felipe au Frantzira itzuli zan.

I Luis Felipe onen erregetza, bere aurreko errege Xn Karlosek, alosokerizko erregearena



1.810eko urtean Royal Paris´eko Jauregia.
1.814ko urtean I Luis Felipe erregeak, bere etxe bizitza lez Artuko ebena.

jaurri ebana baiño, frantzezaren konstituzio barriko erregetzarena jaurri eban.

Lenengoetan dirudunen laguntza euki eban, frantzezaren diru arloa zabaltzen ta gorantza joan zalako, guztiz langintzazko iraultza gogor baten sartuta, dirudun ta langilleen arteko aldakuntzak, gero ta aundiagoak izan ziralako.

Iraultzazko illea zalako, Uztaillako izena emon eutsoen matxinatuak erregetza oneri, nai bera erregetzara igon ebenean, Dagonillako 9a izan.

Europako beste errege guztiak orregaitik, ***"Kale Zoztor"*** edo ***"Kupel Babeseko erregea"***(3) deituko eutsoen I Luis Feliperi.

Eta 1.848ko kupel babesaren iraultzak, baztartuko eban I Luis Felipe bere erregetzatik, IIn Errepublikaren bideak zabaltzeko.

Bera ikuspegi orren aurrean, nai aginduteari zaletasun aundia erakutsi arren, zentzudun eta ixilkoi agertu zan bere erregetza guztian. Jakin ebalako dirudunen eta diruak egiten eban aurrerakuntzazko zabaltasunaren laguntza euki ebalako, goian esan dogun lez.

I Luis Felipe a ta guzti baiña, apurka apurka, erregetzaren aldeko laguntzaren eske ibili

(1) Erregearen seme izendatuko ebena = al que nombrarian hijo de rey. (2) Kupel babesak = barricadas en las calles de Paris. (3) Kupel babeseko erregea = rey de las barricadas.

zanetik, 1.840ko urtetik aurrera, Guizot´en(1) laguntza eske ibili zan.

Ingalaterraren aldera urbildu zan erritarren arteko politikan, bildurra euki ebalako ango ugarteetatik agertuko jakon erasoari, eta orregaitik bide ortatik sinatu eban "Primera Entente Cordiale" Ingalaterragaz, Lur-Arteko Itsasoan frantzez ta ingelesak euki eben eztabaidakaz amaitu ebena.

I Luis Felipek emon eban urrengo urrats edo oinkada, Bienako erregetzagaz urbiltzea zan, garrantzi aundia euki ebalako bere erregetasunarentzat, Europaren alosokerizko erregeagaitik onartua izan zedin.

1.846ko urtean I Luis Felipe Frantziko errege onek baleiteke, Ekuador jaurpidetzeko an egon ziran errege leiñuekaz, zeozer eukitea.

Mitxelena ta Rojas´tar Frantzizkok(2), Londresen, Ekuador´eko Lendakari ordezkoak egiten egoala esaten eban lez: ***"Flores´tar Juan Jose ariñauko lendakariak, asmatzen egoala erregetzazko jaurkintz bat Ekuador´entzak"***. Europako errege askoren artean, onartua izan zana, Ameriketan euki ebazan kolonizaziozko lurraldeak errege leiñu edo eritziagaz jaurritzeko.

Mitxelenak, Frantziari salatzen eutson ekintza orren errudun lez, Ameriketan euki ebazan lurraldeen jabetasunak aurrera eroateko, jaurkintzaren era ezberdiñakin saiatzen ibili zalako.

Frantzezak, Ameriketan euki ebazan kolonozaziozko jabetza orreik aurrera eroateko, alde batetik: ***"Eukezan printzeak eskeintzen ebazan aundikeriz"***. Eta gauza al-guzidun lez: ***"Amerikarren arteko ezkontzakin"***, zaindaritz edo jaurkintza orreik aurrera eroatea gura eben.

Eskeintza orreikaz, amerikarren lurralde ezberdiñak, euren nortasunezko sinismenetan jaurritzeko euki ebazan askatasunezko gogoak, leen moztuteko. Baita gazteak euki zituzen aberritasunezko gogo barrien itxaropenak, apaldu, makurtu, edo ezereztu zitezen.

Eta bigarren, asmatutako ekintza orreik aurrera eroateko bear zan dirua, I Luis Felipek emoten ebazan diruakin egiteko.

Londresen, Arjentinako lendakariaren ordezkoak beteten egon zan Moreno´tar Manuelek beste aldetik, susmoa eukan: Ekuadorren frantzezak egiten ebazanak itzurazkoak zirala bakarrik. Berak, Bi-Siziliaseko Borbon´tar Maria Kristinaren bigarren ezkontzako irugarren seme, Muñoz ta Borbon´tar Agustiñeri eskaiñi eutson Ekuadorreko erregetza, bitarteko edo itxurazkoa bakarrik zala, uste ebalako.

Asken baten, Frantziko errege I Luis Felipe aldetik bideratuta egoala dana, Utretx´eko ongundean sinatu zan beste zatiagaz amaitzeko, eta denboreagaz, Orleanseko etxea Ispano Ameriketarantza urbiltzeko.

Arjentinako lendakariaren ordezko Moreno onek euki ebazan susmotik, Orleanseko Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko I Luis Felipe erregearen bederatzigarren semea

(1) Gizot´tar François P.G. = 1.787ko urtean Nimes´en jaioa, eta 1.874ko urtean Normandiako lurraldetan, Bal-Ritxer errian il. 1.83oeko urtean dipitadua izan zan, eta 1.840-1.848ko urte bitartean leen ministrua. 1.848ko urtean berak Thiers´ekin euki ebana aurkaritzaren erruz, urte onen iraultza beartu eban, bera Ingalaterrara iges egin bear izanda. "Rebue Française" irasi eban. 1.826-27ko urte bitartean, "Ingalaterrako Iraultzaren edestia idatzi eban". 1.828ko urtean Europaren Jendekuntzazko edestia be idatzi eban. 1.830ean Frantziko Jendekuntzaren edestia. 1.849ko urtean "Frantziaren demokrazia". 1.863ko urtean Frantziko Biltzarraren edestia idatzi eban. Eta abar. (2) Mitxelena ta Rojas´tar Frantzizko au 1.830ko urtean diputadua izan zan; eta 1.840-1.848ko urte bitartean Frantziako leen ministrua. Guizot´ek Thiers´ekin euki eban aurkaritza sortu eban 1.848ko iraultza, Guizot´ek Ingalaterrara iges egin bear izanda. "Revue Française" irasi eban; 1.826-1.827ko urte bitartean: "Historie de la rèvolution d' Angletèrre; 1.828ko urtean: "Histoire de la civilisation en Europe"; 1.830: En France"; 1.849: "De la Dèmocratie en france"; 1.863ko urtean: "Historia parlamentaire de France"; eta abar.

izan zana, espainitarren Maria Kristinaren alaba, eta IIn Isabelen aizta zan Borbon´tar Luisa Fernandagaz ezkondu ondoren, Ekuadorren bidetik, Ameriketan Borboi´tar erregetza ezartzeko agertzen jakon.

Flores´en egitamu oneik asken baten, arrazoi askoagaitik ez ziran bete.

Frantziko I Luis Felipeen erregetza bere asken illonetan, orokorrez sortutako lanik-eza ta diruaren ezagaz marratuta egoan, erria ezin ebalako aurrera urten, aurkitu zan larritasunezko egoera orren bidetik.

Estutasunezko aldi orreik, ez ziran diruagaitik bakarrik, arlo orreri: política, diru-legeak, ordezkaritza, erri-ondasun, eta Ekanduzko arloetara zabalduta egon ziralako.

Eta dan guzti ori, I Luis Felipeen erruagaitik sortu zan, onek Guizot´en alosokerizko politikari jarraituteagaitik, ez ebalako ikusi, zelango arrizkuan izten eban bere erregetzazko leiñua.

Bere erregetzaren uzte-agirian I Luis Felipek esan eban, 1.848ko urterarte Loubreko espainitar gela nagusian, batuta egon ziran liburu bildumak, margozki, eta margoial´ak, bereak zirala.

Eta onartuta I Felipe´en eskabide ori, 1.853ko urtean saldu zan norgeiagoko enkante baten(1).

12. *Frantziko IIn Errepublikea.*

Frantziko IIn Errepublika, 1.848ko urtearen Otsaillako 25ean, eta 1.852ko Abenduaren 2ko urte-egun bitartean, ezarri zan politikazko agintaritza izan zan.

Eta nai denbora laburra izan arren politikazko jaurkintza ori, erabagi aundien denbora izan zan, denbora onetan: ***"Gizon guzien autarkia"*** legeztu, ta ***"Joputza edo etsaimende edo menpetasunak"*** ezereztu ziralako, bai langilleentzat, ***"Lantegiak ugaritu"***, guztientzat ogi bideak zabaldu zitezen.

Lenago sortu ziranak.

Xn Karlosen aurka egin zan iraultzaren ostean, Orleanseko I Luis Felipek euki eban gaiñeko izen askoren artean ***"Jauntxoa"*** izenagaz deitzen eutsoenagaz igon eban frantzez erregetzara.

I Luis Felipek errege aulkira igonda, ***"Anditasunezko Eskutitza"*** ostera berrezkuratuta, egin bear eban jaurkintzan, esku luzeko neurriak artu bear ebazan.

Ezan konturatu baiña, neurri orreik, dirudunai laguntzen eutsela bakarrik, langille, jakintsu, eta diru gitxiko giza taldeen gaitz edo guztiz aurkakoa zalako.

Ez eban gizon guztien autarkia askatzen, ori izan zalako be maillako giza auek itxaroten ebana, autarki osoa dirudunen ta aundikien eskuetan egonda, zerga geienak, bemaillakoak ordaintzen ebazalako.

1.845eko urtetik aurrera, Frantzian diru-urri(2) ta lanen-eza ondatsua edo sakona egoan, lantegiak sarratuz, lan-eza ta gosea, nunai zabaldu ziralako, Frantziko lurralde guztian.

(1) Norgeiagoko enkante baten saldu zan = se vendió en una subasta. (2) Diru-urri = crisis, escasez de dinero.

Diru gitxi eukenak eta ikasleak, langillearen jazarraldira alkartu ziran, eta gobernuko agintariak konturatu ziran orduko, Erri-Zaiñak ez eben gura matxinatu gazte arei ertsaldiko indarrik egin, eta ekintza orreitan sartuta, I Luis Felipek itzi bear izan eban bere erregetza, bigarren errepubikari ate guztiak zabalduz.

Errepublika biak.

IIn Errepublika, ezberdintasun aundia euki eban, ekitaldi bien artean sortu zanagaz.

1.848ko urtean Otsaillatik, Jorraillaren 23ko egunerarte, frantzez barrien aberriaren batzarretan, errepublikaren bein-beiñeko edo aldiko batzarra, zentzudun errepublikanoakin osotuta egoan: ***("Alphonse de Lamartine, Garnier-Pagès, Arago, Crèmieux eta Marie").***

Errepublikar ertzeko: ***("Ledru-Rollin, Marrast, Flocon").***

Eta Sozialistak edo Gizartekoak ***("Louis Blanc eta Albert").***

Ia bi illabete eskas edo laburretan gizon oneik, Frantziko lurraldean politika arloari, iñoz emon jakon aurrerakuntza emon eutsoen. ***"Gizarte edo ta Demokraziaren Errepublika"***ko lez deituta batzorde oneri.



1.848ko urtean Pariseko kupel matxintasuna.

Gizon guztiaren orokorrezko lenengo autarkian lurraren jabedunak, euren serbitzura euki ebazan nekazarien bozka edo autarkia kontrolatuz, lortu eben frantzez aberritar barrikoak, eskumako politikara eroatea.

Eta ertzezko errepublikano, ta gizartekerizko edo sozialistak jaurkintzatik kenduta, bost lagunekin osotu eben gobernua: ***"Arago, Lamartine, Ledru-Rollin, Marieta, ta Garnier Pages´ekin".***

1.848ko urtean Bagillaren 23tik-26rarte, eskumatar gobernuko arduradun oneik, artu ebazan neurriakaz, Pariseko erritarrak aurka urten eutsoen, eta bereala artu ebezan kaleak, kale-zoztor edo kupel-babesean ipinita.

Laster ipini ebazan gobernuaren eskumatar oneik erria guda-legean, Kabaignak jeneralaren agindupean, Bagillako matxintasunak deitu ziran borroka oneik geratzeko.

Bideak zabaldu ebazanak gordetzaille ta agintaritzazko Errepublika batera.

Bigarren Errepublikatik, bigarren Kaisertzara.

1.848ko urtean Abenduaren 10ean, gizonaren orokorrezko autarkiagaz aukeratu eben Bonapartetar Luis Napoleon(1) Errepublikaren Lendakaritzarako, Bonapartetar I Napoleonen loba zana. Eta ***"Lendakari-Printzea"***ren izenagaz deitzen eutsoenai.

Konstituziozko legearen aginduz, lau urteko lendakaritza euki ebena, eta urte orreik bete ondoren, ezin ebena ostera aukeratu, beste lau urteko agintaritzarik beteteko.

1.850eko urtetik aurrera, Bonaparte´tar Luis Napoleon onek, etenbageko ikusketak asi zan egiten Frantziko lurraldeetara, bera ostera aukeratu egien Errepublikako Lendakari lez.

Bonaparte au izan zan. 1.808ko urtean Jorraillaren 20an jaio zana, eta Italiar matxinatuekin ibili zana Aita Santuaren aurka.

Espetxera be sartu eben I Luis Felipe´en aurka egitearren, eta Suiza´ra erbesteratu zan bere sendi guztiagaz, Borboiak sartu ziranean.

1.848ko urtean Frantzira itzuli zan I Luis Felipe kendu ebenean, eta berak irabazi ebazan 1.848ko Abenduaren 10ean ospatu ziran erri-autarkiak, alde aundiz.

1.851ko urtean Abenduaren 2an, konstituzio ori aldatzeko egoala eta batzarkidearen ezetza ikusi ondoren, laterrizko matxintasun aundi bat antolatu eban, urte-egun onetan eroan ebana aurrera, frantzez lurraldeko toki arriskutsuak, guda mutillakaz artuta.



1.848ko urtean frantzezaren matxinadak.

Oso gogorra izan zan, Luis Napoleon onek egin eutsoen erasoa bere aurkakoari.

Eta 1.851ko urtean Abenduaren 21ean ostera baieztu eben Luis Napoleonen agindua, urte ta egun onetan berak egin eban beste maltzurrezko erri-autarki bategaz, erritar geienak autarki barik itzi ondoren.

Eta dirudunek bakarrik emon ebelako euren bozka, auteskunde ori batzuen autarkian biurtu zan(2), erlijio katolikuaren ikas-bideak zabaldu ebazanak, ta Aita Santu agintaritzaren aurkako matxinadak geratzeko, orko aldetik artu eban laguntzagaz lortu ebena.

(1) Bonaparte´tar Luis Napoleon onen izen osoa = Txarles Louis Napoleón. (2) Batzuen autarkia = plebiscito censitario, donde sòlo votaban las clases adineradas.

1.852ko urtean Urtarrillaren 14an, Konstituzioa aldatu eban, Lendakariaren agintea 10 urteraiño zabalduta, eta Laterriko batzarkideen eskubideak murriztu ondoren, agintaritza, jaurkintzaren ekintzazko(2) ardurapean ipini eban.

1.852ko urtean Azillaren 7an, beste erri-autarki bategaz emon eutsoen amaiera bigarren Errepublikeari, bigarren Kaisertzazko agindua sortuz.

Eta 1.852ko urtean Abenduaren 2an, dirudun eta erritarrak bere alde euki ebazalako, bai ta Austerlitz´eko borroka eta I Napoleonen koroatzea gogoratzeko, "III Bonaparte´tar Luis Napoleon" izendatu eben frantzezen Kaiserra 10 urterako, eta berriz aukeratzeko be, eskubide osoagaz.

13. *IIn Isabel erregiña lez, bere erregetzazko Aurkezspenaren sarrera.*

1.713an Loraillaren 10ean Vn Felipek, emakumezkoak errege ondorego jarraipenetik kanpo izten eban Salikako legea agertu eban.

1.789an IVn Karlosek ezereztu eban Salikako lege ori, nai ta aldarrikatu barik geratu.

VIIn Fernando lengo iru ezkontzatik ondorengo barik egonda, Napoleseko Maria Kristinagaz laugarrenez ezkondu zanean, aurdun geratu zan au.

1.808ko urtean Loraillaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VIIn Fernando Balenzaiko



IIn Isabel espainitarren erregiña – bere armaría – eta bere idazpea.

gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Bonapartetar I Jose, espainitarren errege aulkian ipinteko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezko ministrua, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministrua izendatu ebazan, eta Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, I Bonapartetar Josek, itz eta izenpea emon eban Bizkaiko Jaun lez.

(1) Ekintzazko arduradunen artean geratu egian = para que el poder quedase en manos del ejecutivo.

Napoleonentzat baiña, gauzak, okertzen asi jakozan ortik aurrera, eta Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, Europako Laterritasunari begituta, berak Euskal izaera, Frantzez biurtu gura eban.

Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpiko zaletasunean marratuta, katolikotasunaren aberrikuntzan menpetu ta batzangotzeko eritzi ori. Asmo oiekaz gura izan ebelako, Munduaren ekandua, Kaizar baten agindupean elburutu zedin.

1.810eko urtean Iraillaren 24an espainitar gudal nagusiak, Europa guztirako Aita katolikoen aolku bidez, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoak egiten egon zirala, ta Frantziko iraultzari begituz, ***"espainitar konstituziozko jaurgo barri ori"*** sortu eben, eurak aitu edo gura eben espainiar guztientzako, Galicia, Kataluña eta Euskalerriak goiko Jaungoikuaren bidetik, Bereztasunen azturazko erri lez lortu genduzan Euskal Lege, Nortasun, izkuntza, izatasuna ta eskubideko askatasunak kontuan artu barik. Eta guda bidez ezartzea erabagitu eben.

Gudalburu nagusiak emen, guda indarragaz arrotuz, eta erregearen gaiñetik kokatuta, irasitako jaurgo barri ori sasi-jainko bat lez, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer agertzen da emen: "espainitar gudal nagusiak, erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela".

Gudal nagusi aiek, zelan egin ebazan gauza areik, erregearen gaiñetik, eurak ez ba ziran iñor, lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori Europan, azpiko aolku orrekaz, laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekerien aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik Europaren aolkulari nagusi ta bakarra 1.693 urtetan.

Gudal nagusiak, erregeari gaiñean ipini jakozan antzera baiña, Aita Santuari diru gordetzaille aldekoak ipini ote jakoz gaiñean?.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerri eta Bizkaiarentzat batez be menpeko lege orreik.

Baiña leen espainiar gudataldeakaz, eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan gure Euskalerri maite onetan: ***"Batzuk Frantzez zale, eta beste batzuk espain zale egin zirala"***, euskal gizarteen Baita naspildu ebana, gero espainitar jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

Orregaitik, Kadizen egoan espainitar gudal gorte edo guda yaurlari(1) agindupean sortu zan konstituzioaren sasi-legezko jaurgo barri ori, Mendizabalek(2), Bizkaian ipini gura eban, Euskalerriarentzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainitarren beste lurralde bat geiago izan zedin. Eta orretaz alegindu zan.

Espainitarren gizarte guztia emendik aurrera, alderdikidetu egingo zan, espainiar konstituzioaren alde edo jaurgo barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritza gura eben artean.

(1) Guda yaurlaria = gobierno militar. (2) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa judutar sendi baten.

Wellingtonek, Rodrigoko Uria artu ebenetik, Salamankara joan zan, Frantzezaren gudalozteai bideak ebagitzeko, Madrid eta muga bitartean.

1.812ko urtearen Uztaillaren 22an Wellington dukeak, bere 7 talde Ingeles gudari aundi, espainitar ta Portugez talde bi nagusiekin, sasigudako lanean lagunduta egon zana Portugaletik asita, Arapiles(1) erriko mendietan aurkitu ebazan Marmont Frantzez mariskalaren gudalozteak, ta borroka orreitan irabazi ta gero menperatu ebazanean, Andaluzitik bota ebazan.

1.812ko urtean Urrillaren 17an, indar eta maltzurkeri aundi auteskundean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainitarren jaurpidezko agiri orreik izenpetzeko.

1.812ko urtean Azaroaren 1erako antolatu ziran, espainitarren jaurgoko agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero sinatu zitezen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812ko urtean Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskalerriaren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako, espainitarren eritziko ordezkariak aukeratu egiezala.

Euskalerri ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartu ebana. ***Eta Espainitarren gudal nagusien artean, guzur eta maltzurtasunezko norkeri alegiñak, goratzen joan ziran ezin besterarte.***

1.812ko urtean Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

1.813ko urtean Bagillako illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813ko urtean Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen menperatzen dauz Napoleonen gudalozteak, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, espainitarren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñalari esaten, ***"espainitar ordezkariagaitik iñork ez egiela txarto berbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezen".***

Eta orretarako, espainitarren eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an, ***"Te Deun"***ak abestu egiela agindu eben, ***"espainitarren jaurgo zaleak ekarten eban askatasun omenez" ?.***

Nora begira daukie eleiztar katolikuak jendekuntzazko ekanduak ?. Goiko Jaungoikuak bereztu euskuzan legeari, edo eurak irasita daukien ***"urrezko zekor"***ari ?

1.813ko urtean Abenduaren 11n, Frantziko lurraldean eta I Napoleonek, VIIn Fernando atxilotuta eukan Talleyrand´en gazteluan ospatu zan Balenzay´ko ongundean, onartu bear izan eban VIIn Fernando´ren erregetza, espainitarren askatasunezko borrokari amaiera emonda.

1.814ko urtean Epaillaren 7an askatu eban Napoleonek VIIn Fernando, berentzat Muga txartela emonda, Balenzay´etik urteteko.

1.814ko urtean Epaillaren 13an VIIn Fernandok espainierantza urten eban, I Jose Frantzirantza joan zan bitartean. Eta Toulouse ta Perpiñan´era joanda, Epaillaren 22ko egunean Figerasen, espainitar Kopons gudal nagusia urten eutson bidera.

(1) Arapiles = Salamanca ondean daua Arapiles erritxoa.

1.814ko urtean Otsaillaren 2an Kadizeko gortetik gudal nagusiaren aginduz: eurak egin eben konstituzioaren legezko, 173ko lege gaiaren gora beran, ***"VIIn Fernando erregea, iñork ez egiala ontzat artu, ez obedigarri be, arik eta 173ko gai lege orreri ariñago, ez badautso ziñez itz emoten"*** aldarrikatu eben.

VIIn Fernandok ez eban onartu, gudal nagusiak beren gaiñetik, emoten ebazan agindu orreik eurengana joateko, eta Palafoxek deituta, Jerona, Tarragona, ta Reus´etik Zaragozara joan zan, Aste Santua berton ospatzeko.

1.814ko urtean Jorraillaren 16an Terueletik joanda, Balentzian sartu zan VIIn Fernando.

Berton euki ebazan itxaroten Borbon´tar Luis kardinala eta Toledoko artx-apezpikua, errege ondorengo taldearen lendakaria, eta 1.812ko urtean aldarrikatu ziran askatasunezko neurriaren zalea zana. Bai ta, Madrilleko Rosales ta Mozo´tar Bernardo gortearen arduradunak, alosokerizko eritziaren aldeko 69 diputadu bideratzen ebazanakaz, berari agiri bat emoteko.

Manifiesto de los Persas deitu jakon agiri orreri, VIIn Fernandok kadizeko gorteak ezereztuz, alosokerizko legeak berrezkuratu gura ebazalako.

1.814ko urtean Jorraillaren 17an Elio gudal nagusiak, Bigarren gudaloztea ipini eban erregearen serbitzura, bere eskubideak berrezkuratu egiezen.

1.814ko Loraillaren 4an VIIn Fernandok Balentziatik, espainitar jaurgo zale gudal nagusi ordezkari orreik, Kadizetik guda-keiñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, Perez Billamil ta Lardizabal´tar Migelek idatzi ebazan agiriakaz, eta gure Foru Legeak, ostera ezarri ziran betiko eredutasunean.

1.814ko Urrillaren 15ean VIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

Eta, 1.814ko Abenduaren 14an Napartarrai beste agindu batekin, euren erregetzazko eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.814ko urtean Loraillaren 5ean VIIn Fernandok, bere ankan oin-zainar gaixotasunaren eraso gogor bat eukin eta gero urten eban Madrillerantza, leen eta bere aurretik joan zedin, Egia´tar Prantxisko Gaztela Barriaren orokorrezko kapitaiñ gudal nagusia lez izendatuta, bideak garbitu egiazan aurkari ta etsaien erasoetatik.

1.814ko urtean Loraillaren 11ko gauan egin zan Laterrizko matxinada ori, Egia´tar Frantzizkok gortearen ezereztasuna eskatuz, eta Perez´tar Antonio Joakin lendakariak, ezeren arazo barik egin ebana.

1.814ko urtean Loraillaren 10etik 13rarte, VIIn Fernando Aranjuezen egoan itxaroten, bideko arazo guzti orreik garbitu egiezen, eta Madrillerantza urten eban, bere erregezko aulkian jartzeko.

1.819ko urtean IVn Karlosek(1), Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, erdiugarte edo peninsulara itzuli barik, Erromara joan zan, eta bertan bizi zan, il zan arte.

1.819ko urtearen Abenduan, Bonaparte´tar I Jose´k, erakus-toki eder bat egiteko euken asmoari, VIIn Fernandok oratuz emon eutson erantzuna, ***"El Prado"***ko(2) erakustoki ederra zabaldu, ta ***"Ekialdeko Jáureguia"***(3), ***"Eguzkiaren Ateagaz"***(4) batera egin ebazalako. Askeneko Eguzkiaren ate au, amaitu barik geratu zan.

(1) VIIn Fernandoren aita. (2) El Prado´ko Erakustokia = Museo del Prado. (3) Ekialdeko Jauregia = Palacio de Oriente. (4) Eguzkiaren Ateagaz = Puerta del Sol.

VIIn Fernandoren eskuetatik be ***"Espainitarren Aberriko Masoi Biltzar Andia"***(1) berrirotu zan, bera izanda bere lenengo Maisu Aundia(2).

VIIn Fernandok, 1.814ko urtetik 1.820ko urterarte Kadizeko gorteak atara eben konstituzioa kendu eban, eta ostera ezarri eban lenauko erregeen alosokerizko jaurkintza, liberalkerizkoai erasotuta.

1.820ko urtean, ostera azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorrak, guzur, maltzur eta indarrezko bidetik, Euskal gizartearen Arrazoizko Baita lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketako bidean Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegira bideratuko dauana.

1.820ko urtean, iru urteko gudarien matxinada bat asi zan, ekintza orregaz Laterriaren konstituziozko barrien legeak eta Kadizeko aginduak ostera ezarri ta, ondasunak askatuz(3).

Eta buru beroko liberalak edo askatasunezkoak alboratu egiten ziran neurrian, VIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren legeak ontzat artzen ebazala itzurak eginda, bere alososkerizko legearen atzean ibili zan, geroago San Luisen 100.000 gudariekaz(4) lortuta.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIn Fernandok, 1.812an espainitar gudal nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako:

Riegotar Rafael koronel ordezko gudal nagusiak, San Juaneko Buru edo Kabezas´etik, 1.812an Epaillaren 19an Kadizen gudal nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta gudal nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz indar asko artzen joanda, euren adierazpeneko Foru Itza(5) bidez, eraso aldi gogorrak egin ebazan, gure Foruko lege Zarraren aurka.

Edestilari batzuk esaten dabe, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdi Ugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako.

Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egian, laguntza eskatu geuntzelako.

Borrokaldi andi ta geienak, Euskalerrian egin ziran, euren batzango mende asmotan, emen egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko arazoaren ardatza.

IVn Karlos eta VIIn Fernando Napoleonengandik atxilotuta egon ziranean, gudal agintariak asi ziran indarra artzen, eta gure Euskalerrian gudu antzez(6), euren gizon jaurgo zaleak ezartzen.

1.820ko Epaillaren 7an espainitar gudal nagusiak beartuta lortu eben, 1.812an Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik, VIIn Fernandok izenpetzea.

Eta 1.820ko urtean Epaillaren 18an, Gernikako Batzarkidei Epaillaren 24an batzartzeko agindu eutsen, gure Foru edo Euskal Legeak, 1.812an Urrillaren 18an euskal ordezkari gezur zaleak, Kadizen ziñatu ebezan espainitar lege barriekaz egokitzeko.

(1) Espainitarren Aberriko Masoi Biltzar Aundia = Gran Lojia Nacional de España. (2) Bera izanda leen Maisu Aundia = siendo Fernando VII el primer gran maestre. (3) Ondasunak askatuz = desamortización de Mendizábal. (4) San Luisen 100.000 gudariak = gudalozte au Frantziko XVIIIn Luisena izan zan. (5) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. para los españoles privilegios. (6) Gudu antzez = estrategia militar, estratègikamente.

Espainitarrak, Euskaldunai ainbeste amurru eukinda, mende joku orrein bitartez, bere lurretan ereiten ez ziran obariagaitik be, zergapetu gura ebezan, adibidez: Garagar, zikirio edo zekale(1), olo(2), ilar nabar edo txitxirioagaitik(3), eta ez edozer gauza, 14.000.838 erleko diru kopurua izan zalako.

Maltzurrezko joku orretan baiña, espainitarrak zerga orreik ezin ebezan aurrera eroan, Bizkaiak, lenago bere Jaun erregeari antolabidezko lanagaitik ordaintzen ebazanak, ezereztu barik euki ebezalako.

1.820ko urtean Epaillaren 25eko denbora onetan, espainitarrak mogimendu larregi egin ebezan gure Euskal Legeak, euren jaurgo Santu barriaren barruan urtuaz, espainitar lurralde guztietan nortasunezko ezberdintasunak aienatzeko, eta Euskaldunak euren izatasunezko Nortasuna galduta, espainitar biurtu zitezen.

1.820ko urtean Jorraillaren 1etik aurrera, Bilboko Udalak lankidetasun aundia erakutsi eban espainitar jaurgo zale gudal agintariekin, Udal arduradunak ziñatuta euki eben espainitar ***jaurgo politikua*** Jorraillaren 2a aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsoenean, Bilbaotarrak espainitar biurtu zitezen.

Bilbaok urte onetan, 587 gogozko edo oldezko gudari euki ebazan.

1.820ko urtean Bagillaren 17an Mendiolatar Bizente Antonio lege gizonak, au esaten eban, askatasunaren gora beran: Jaurgo barri ori(4), politikaren askatasuna, gizartearen askatasuna, eta askatasunezko gogoetagaitik(5) berba egiten zanean, erri gizonen kasketaldi edo naikeriaren(6) eskuetan itxita, atsegiñezko ipuin bat izango zala geien.

1.821eko urtean Urtarrillaren 1ean, Bilbon egon ziran naitazko edo oldezko guda mutillak(7), espainitarren gudalozte biurtu ziran, eta orduan Bizkaiko zenbatzaille zanak, Bentadestar Pablo koronelak, gudalozte ori bideratzeko aurreratuta, Urtarrillaren 2an urten eban Gezalaren aginduan, Bizkaiko errietatik egon ziran ainbat matxinatuak atxilotzeko.

1.821eko urtean Urtarrillaren 16an, Bediatar Lorenzo Antonio ordezko koronelak, iñor ezin zala bere lurraldean mugatxartel edo igaro-txartel(8) barik ibili, eta bera barik arrapetan ziranak, 10 erleko nekepean zigortuta geratuko zirala agindu eban.

1.821eko urtean Urtarrillaren 26an, agindu baten bidez, sendagille ta irakasleen kontrol aundia egin eben, eta gogorkerizko zigorraren keiñaduragaz zemaitu(9), euren agindutik kanpo ez zitezen ibili.

1.821eko urtean Epaillaren 19 ta Jorraillaren 10eko jaiak ospatzeko, Bizkaiko agintari Bediatar Lorentzo Antonio ordezko koronelak, etxeetan, bakotzak bere neurrian argitu edo apaindu egiazala agindu eban, eta beste ainbeste espainitar askatasunezko Loraillaren 2garren eguna ospatzeko.

1.821eko urtean Iraillaren 24an gudal nagusi liberalak, gudarien agerketa aundi bat egin eben, espainitar jaurgo barriaren berregintzak lortu ebezalako(10).

Nundik nora eta zer lortu, gaur ia 200 urte beranduago arazo bardiñaren aurrean aurkezten garanean ?.

Gaur argi ikusten dogu, zapaltzaillezko asmo orreik, katoliko kaizertzaren asierako gogo bardiñean daukiezala.

(1) Zikirio edo zekale = centeno. (2) Olo = avena. (3) Ilar nabar edo txitxirioak = garbanzos. (4) Jaurgo-Barri = nueva contituciòn. (5) askatasunezko gogoetagaitik = ideas liberales. (6) Erri-gizon´en kasketaldi edo naikeriari = arbitrariedad de los hombres pùblicos. (7) Naitazko edo oldezko guda-mutilak = milicianos voluntarios. (8) Muga-txartel edo igaro-txartel = pasaporte. (9) Zemaitu = amenazar. (10) Espainol jaurgo-barria´ren berregintza lortu ebazalako = el logro en la reconquista e implantación, de las nuevas leyes o derechos constitucionales españoles.

Ez dakit zertarako baiña, euren goitik berako aberri katoliko jabetasunean, jaurritu gura dabezan nortasun aundiko errigizarteetan kalte aundiak egiñez gain, daukien berezko eritzi demokratikoaren aurkakoak diralako, sekula euren etxeko jaurkintzan ezin dabenean ezer burutu edo zuzendu, dan guztia euren kontrolpean eukiteko, danak lapurrak biurtzen direlako ?.

A ta guzti: nai ta Burgos, Leon, ta Sebillatik guda indar geiago ekarri, legeak indarrez euren aldera aldatu, Euskal gizartearen ibilteko bideak igaro txartelakaz kontrolatuta euki, eta gure artean euren guda zerrendak erakusten dauan lez, beartasunezko premiñak bultzatuta edo zaltzaille asko egon ziralako, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan, ezin eben gauza aundirik euren mendetasunezko asmakuntzara burutu, erri geienak matxinatuta egon ziralako.

1.822an Epaillaren 1ean Bizkaiko gudal agintari Bediatar Lorentzo Antoniok, agindu au bialdu eutsen Bizkaiko Udal guztiari: ***1.820ko Epaillaren 19an espainitar jaurgoa ziñatu zan eguna, eta 1.808ko Loraillaren 2an espainitarren askatasunezko egun biak ospatu egiezala.***

1.822ko urte guztia, matxinatuakaz zeregin bardiña eukin da, Bilbao babesteko arresiz inguratzen asi ziran, diruaren ezagaitik amaitu barik geratu zana.

1.822ko urte onen Abenduko illean, Seoanetar Antonio gudal agintariak, arrapetan ziran matxinatuak ez egiezala tiroz il agindu eban, eta ille orren barruan urkamendi edo garrote billean il ebazan mutil bi.

1.823ko urtean Otsaillaren 24an, Seoanetar Antonio gudal agintaria Bilbotik, agiri gogor bat zabaldu eban, erregetzaren legezko iraspena berrezkuratuaren aurka.

Artean, Frantzezaren aurka egitekoen aitzakiagaz, euskal gizartea keiñadura bidez kikildu gura ebana, eta bere aldarriketa ori ***¡ Viva la constituciòn ! ¡ Viva la uniòn !*** berbakaz amaitu eban.

1.823ko urtean Epaillaren 8an Saldubako(1) gudaltegitik Ballesterosek, bere aginduan egoan bostgarren guda lurraldeari, Frantzez eta erregezko lege zarren adizkideai beste ainbeste agertu eutsen. Bilbaoko Euskaldunentzat, Seoanetar Antoniok meatxuzko keiñu bardiñakaz egin eban antzera.

1.823ko urtean Jorraillaren 2an Prantziako XVIIIn Luisen gudalozteak, Borbontar Luis Angulemako dukearen agintean Baionan egon zirala: ***"Erregearen legezko iraspena berrezkuratzeko, 100.000 gudariekin Auñamendiak igaro ta espainitar lurraldetara aldatuko zala agindu eban"***. Jorraillaren 22an Foru Aldundiak, Bizkaiko erri guztietatik zabaldu ebana.

1.823ko Jorraillaren 9an Zumarragan egoan orokorrezko gudaltegitik Zaldun taldeari, oarrezko agindu bat bialdu(2) eutsoen, agertuko zan eraso orren kontura.

Eta Bilbaon egoan Euskalerriko gudal nagusi Kesadatar Bizenteri: VIIn Fernando erregeagaz batera, Angulemako dukea beren 100.000 gudariakaz espainitar lurraldeetan sartuko zala, eta ez egiala Bilbo arrizkuan ipini, alperreko alegiña izango zala ta, agindu eutsoen.

1.823ko Jorraillan, Borbontar Luis Angulemako dukeen aginduan sartu ziran peninsula

(1) Saldubako o nombre eusquèrico de Zaragoza. (2) Agindu bat bialdu eutsoen = que no se inmiscuyeran para nada, al inminente ataque de los 100.000 hijos de San Luis.

edo Erdiugarte onetara, Frantziko San Luisen 100.000 seme gudariak.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintaritza aldarrikatu eban, eta ararte Kadizetik gudal nagusiak agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu ebazan.

1.823ko urtean Azillaren 13an, eta Riego il ebenetik egun bi beranduago, VIIn Fernando Madrillen sartu zan.

Eta espainitarrentzat emen asiko zan, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudal agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko urtean VIIn. Fernandok, gudalburu jaurgozaleak beartuta, espainitarren jaurgo barriari, ziñezko itza emon bear eutson. ***"Eta emen ikusten da, zelango saio pilla egin ebazan Batikanoko aolkulariak, Europa ta Mundu au katolikotasunaren erlijiozko aberkidetzan batzangotzeko".***

1.823ko urtean Urrillaren 30ean urten eben Prantzezak Bilbotik, eta euren ordez oiñezko iru txanberga(1) eta zaldun talde bat(2) etorri ziran.

1.823ko urte onen askenetan, VIIn Fernandok, espainitar gudalburu jaurgo barri zaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari ziñez itz eman bear eutson, ***"Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquia"*** esaten ebana, eta gero, ***"Sin detrimento de la unidad constitucional Española biurtuko zana".***

VIIn Fernando ortik aurrera ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ta.

Eta gudal agintariak beartuta, erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziran batzangotasunezko jaurgo aldera urbiltzeko.

Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, onein asmakuntza, erri ezbardiñeko Foru Legeen gaiñetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orrein bidetik, aukeratuko ebezan barriro, Fueroaren edo Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

Eta 1.823ko urte orretatik aurrera, espainita´rren Laterriak dauka, "Estado Catòlico Español´en izena".

"Euskalerria, Kataluña ta Galiziak, berezko azturaren eskubidez daukien jendekuntzazko Aberri ta izkuntzak, kontuan artu bage".

Norkeriaren, Erromatar-Godo-Espain-Katoliko-Merkantil-Aberkide oneik, euren asmakuntz barri onetan, Goiko Jainkoaren baimena eukiko ote eben ba, Berak irasitako Lege´en aurka joan, eta eurak nai ebena egiteko ?.

1.824ko urtean Urtarrillaren 6an, 5garren gudu taldearen ordez, 800´eko gudari taldetan banandutakoai, beste 600eko gudari batalloi bat bialdu eutsoen Bilbora.

1.824ko urtean Epaillaren 3an, guda amaitutzat emon ebelako, liberal gudu agintari nagusiak Bizkaiko batalloiaren guda mutilak azkatu egiezala agindu eban.

Euskalerrian eta Bizkaian batez be, eskeko asko ugaritu ziran urte onetan.

1.824ko urtean Loraillaren 7an, Alonso ta Baldenebrotar Eladio izendatu eben Bizkaiko zuzentzaille(3).

(1) Iru txanberga = tres batallones. (2) Zaldun-talde bat = un escuadròn de caballeria. (3) Zuzentzaille = corregidor.

1.829ko urtean Urrillaren 21-22ko egun bitarteko gauan, azpi joko bat agertu zan Gazteizen, egon ziran gudutalde armatuak matxinatzeko, ta Santander inguruan matxinatuta ibili zan Lastratar koronelari botaten eutsoezan erruak.

Antza, Euskalerriko legearen aurka, Auñamendietara aldatutako mugak, ostera Ebro ibaira aldatzeko mogimendua izan zan.

1.829ko urtean Abenduaren 9an VIIn Fernandok, Napolesen jaioa eta bere loba zan Borbontar Maria Kristinagaz, laugarrenez ezkondu zan.

1.830eko urtean Epaillaren 5ean VIIn Fernandok baiña, 1.823an gudal nagusiak beartuta espainitar jaurgoari ziñ egin eutson ostean, ***"ez zala beren borondatea, muga orreik ostera aldatzea, erantzun eban".***

Eta guzurraren bidez, gure Euskal Legeak ezereztuteko alegiñetan emendik aurrera, gero ta nabariago ikusiko doguz gudal buruak ibili eben maltzurkerizko indarrak.

1.830eko urtean Jorraillaren 3an Madrileko la Gaceta aldizkarian agertu zan, VIIn Fernandok, Ley Sàlica zelan ezereztu eban.

Eta espainiar ondorengo guda sortuta, gure Euskalerriarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.830ko urtean Epaillaren 31n VIIn Fernandok, bere alaba IIn Isabel izango zana, sei illabete jaio aurretik, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713ko urtean Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztuteko onartuta, emakumezkoai ortik aurrera, baimena emon eutsen, erregetzazko aulkian ezarri zitezen.

Karlos Maria Isidro izan zan, VIIn Fernando bere anaiaren ondorengoa ia onen errege denbora guztian, arik eta VIIn Fernandok lege ori aldarrikatu arte.

1.830eko urtean Urrillaren 10ean jaio zan Madrillen IIn Isabel, VIIn Fernandoren alaba, gero bere bizitzan ***"Betillun etorkizunezko erregiña"*** edo ***"Umetxo Erregiña"***(1) deituko ebena.

1.832ko urtearen Iraillan VIIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egoanean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak, espainitar agintaritza artzeko, eta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko espainitar ministruak, Fernandoren eskutik lortu eban izenpetzea, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria.

1.832ko urtean Urrillaren 1ean baiña, Fernando ostera bizkortu zanean, Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatik kenduta, ezereztu eban sinatu ebana, eta eskubideak ostera joan ziran IIn Isabelen alde.

1.833ko urtearen Epaillan Karlos Maria Isidrok, bere anaia VIIn Fernando ez ebala euki nagusitasunik Sàlikako lege ori ezereztuteko aldarrikatzen eban, 1.713ko Loraillaren 10ean Vn Felipek ezarri eben Ley Sàlica ori, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako, eta bere loba IIn Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalako on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833ko urtean Iraillaren 29ko arratsaldean il zan VIIn Fernando, eta bere alaba IIn Isabelen izenarekin, egun berean egin eben espainitarren erregiña, bere ama, Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzan.

Eta Euskaldunentzat, VIIn Fernandorekin joan ziran betirako, ararte ugarterdi onetako

(1) "Betillun etorkizunezko erregiña au" edo "Umetsu Erregiña au" = "La de los tristes destinos", edo "La reina castiza".

erregeakaz euki gendun epai edo antolamenduzko artekaritza, espainitar gudal buru nagusien maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari, ate guztiak zabalduta.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIn Fernando il zanean, Vn Karlos Maria Isidro bere anaiak, IIn Isabel bere lobaren Asturiaseko erregin gai izatea ez ebalako on artzen, ez eta urte ta egun orreitan, IIn Isabel erregiña izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak, erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago, Vn Karlosek Abarkatar Joakin, guztientzako ministrua izendatuta, gudalozte eta gudal nagusiaren laguntza eskatu eban.

Gudal nagusien artean ez eban euki aipameneko laguntasunik, nai ta Portugaleko errege I Migelen onespena euki.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak, Karlos Maria Isidro VIIn Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu eban espainitarren errege, eta oldezko gudariakaz(1) Logroño artu ta gero, Nafarroara aldatu zan, euren aldekoakin bat egiteko(2). Eta emen asten dira karlistadako ondorengo borrokak, nai espaitarren artean, nai Euskalerri ta Kataluñan.

Karlistaren guda asieratik Bizkaian, lurraldeko baltzu edo batzar bi egon ziran: Bilboko lurraldearen Aldundia eta espainol jaurgo zaleakaz egon ziran erriak.

Eta Durangon egoan gudu Aldundian, Karlosekin egon ziran erriak.

Eta urte onetan argitaratu eben espainitar gudal nagusiak, Peninsula onen lurralde guztien eskubideak bardinduko eban antolamena.

Erromatar-Godo-katoliko aberkuntz lez, nortasun bereziko gizakiak batzangotuz, zorro baten sartzeko arauak asmatuta.

Egiko arauekaz batera, estandaka etorriko direnak edesti guztian, ikusten dogun lez, leerkailluak ezin dabelako poxpolloakaz batera Juan, eta gitziago, poxpoilloak suapiztuta eroaten ba dabe.

1.833ko urtean Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgo edo konstituzio barriaren agindua.

1.833ko urtetik 1.868ko urteraiño izan zan IIn Isabel espainitar erregeiña, Vn Felipek 1.713ko urtean asmatuta, ezarri eban Salikako legea. VIIn Fernandok konstituzio barri orren laguntzan, Salikako lege ori ezereztu ebalako esker. VIIn Fernandoren anai Vn Karlos Maria Isidrori, Frantziko iraultzaren baiño lenautik alosokeriaren erregetzazko taldekoaz lagunduta egoanari, erregetzaren bide guztiak moztuta.

1.904ko urtean Jorraillaren 16an il zan Paris´en IIn Isabel.

14. *Oar txiki bat emen.*

325eko urtetik aurrera emen eta Europaren edesti guztiko etorkizunean Nizeako eleiz batzar orretatik, frantzez barriaren iraultzara arte, eta iraultzaren ostean Europa ta Amerika guztian, egin ziran odoljariozkoaren amaibako saio gaiñetik, zenbat saio egin bear ote dira, Jaungoikuak Izadi ta giza au bereztu eban aurka, beste au, eta gaur arte egin diran saioak egiteko ?.

(1) Oldezko gudariakaz = soldados voluntarios. (2) Euren aldekoakin bat egiteko = reorganizar sus ejèrcitos.

Astoak, saio bategaz bakarrik erabagitzen dabe, leku baten baten miñ artu ezkero, bere bizi guztian, andik joan edo aldatu ez egiteko.

Eta astoak edo belarri luzekoak, ulermen ori euki ezkero, gu Omosapiens´en izena euki ?.

Nabari da, bizitz onen arrazoizko antolamenduan, izen guztiak ez dagozela eurak bear daben lekuan ipinita.

Eta dan guztia, Jaungoikuak ezarritako Berezko legearen kanpotik beti, asmatu ziran konstituzio barrien legeak, Europa ta Mundua katolikotasunaren aberkidetzan biurtzeko.

Frantziko iraultzan, erregearen alosokerizko legeak kendu ziran ainbeste lepo moztu ta gero, Napoleonek bere kaisertzarako ostera berrezkuratu ebazanak.

Eta bere maldaberan, ta oraindiño arrokeri guztiagaz, berak sortu ebazan legezko berrizkuntzak or geratu ziran, norkeriaren katolikotasunezko alosokeri ori, aurrera joan zedin.

Argi ikusten da, katolikotasunaren aberkidetasunerako, norkeriz asmatu ziran lege ta etenbageko saio guzti oneik, 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean sasijaintasunezko legeak asmatu ta ziñezkintzatu egin ziranetik, nai zoritxar aundiak ekarri arren edesti guztitik, ez dirala ikutu, eta giza ta errigizarteko eskubidearen gaiñetik egiñaz gain, aurrera egin dabela ezerezko begirun barik, Goiko Jaungoikuak gai´agaz batera, erritartzeko bereztu ginduzan lege guztiakin kontuan euki barik, edo obeto ezanda, zapalduz joan arren.

Bereztasunaren kanpoko norkerizko arrazoien asmo orreik, guztiz guzurrezkoak dira, eta Nizeatik ona guzur oiek aurrera eroateko, beste aibeste ziñezkintzazko guzurrakin aurrera



IIn Isabel ume zala.

egin bear izan dogu, ***"Guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako"***.

Orregaitik esaten eban Zelaia eta Ibarra´tar Adrianek: ***"la verdad està sepultada bajo montañas de mentira"***.

Emen Laterritu ginduzan, bakotzak euki genduzen nortasunetik kanpo, Europa ta Amerikako lurraldearen errigizarteak, gaur daukaguzan maltzur ta guzurrezko "Estados"en agindupean bizitzeko, ezeren ardura barik, eta nortasunik-bage morroi lez, euren agindutara.

Eta txarrena ez da ori: ***"Txarrena, guzurrean bizitzea beartzen gaituela da".***

"OMOSAPIENS ete al gara ?.

Ludi onetan, bereztasunaren legezko arrazoiak, edozein lekutik ikusi leikiezan, aurpegi aurrean daukaguz beintzat !.

Nire aldetik gaur dakitena, zentzuz bizi gura ba dogu: ***"Nizean aita santuaren irudia arduratu ebelako Munduko giza-seme´en ardurakaz, arduragabetu egin ziran Mundu, Europa, eta Ameriketako gizarteak, ostera euren berezko arduratan ezarri bear direla. Mundu onetan zentzuz, eta ganoraz bizi gura ba dogu".***

"BEREZTASUNAREN EKANDUZKO LEGEETAN: EZ DAGOELAKO BESTE ORDEZKO BIDERIK".

Gizaren arteko artu-emoneko ordezkaritzak konpondu edo bide zuzenetik eroateko, ez dagoelako beste biderik, Goiko Jainkoak ipini euskuzan lege bidetik joatea baiño.

BERA DALAKO IZADI ONEN SORTZAILLEA!.

Eta ez, erromatar I Konstantino, I silvestre aita santua, Osio gotzaiña, Rekaredo godotar, eta Napoleon, Hitler, Mussolini, Franko, ta Mola bezelakoak.

15. *IIn Isabelen ume aldia.*

IIn Isabel, VIIn Fernando espainitar erregea ta bere emazte Bi-Siziliako Borbon´tar Maria Kristinaren alaba izan zan.

VIIn Fernando bere aita, Maria Kristinakin ezkondu orduko, iru bider egon zan ezkonduta, baiña bera ilten zan ordurako, iñoregaz ez eban lez euki ondorengotasunik, beartuta agertu zan beste saio bat egiten, Maria Kristinagaz ezkonduta.

1.830eko urtean Isabel jaio zanean VIIn Fernandok, bere alaba ainbaten itxaropenezkoa zala ikusita, 1.830eko urtean Salika´ko legea aldatu eban bere alaba isabelen alde, eta bere anai Vn Karlos Maria Isdroren kalterako.

1.830eko lege au, 1.789ko gorteak baieztu eben legea baiño besterik ez eban ekarten legearen baimeneko aldetik, eta 1.789ko legeen izen berorregaz ezagutu zan.

Espainitarren aldetik lege ori aurrera eroanda, IIn Isabeleri ate guztiak zabaldu eutsoezan erregiña izateko, VIIn Fernandok ez ba eban beste seme alabarik eukiten.

1.832ko urtean jaio zan Luisa Fernanda izan zan IIn Isabelek euki eban aizta.

Eta 1.833ko urtean Iraillaren 29an bere aita VIIn Fernando ilda, iru urte bete barik eukazala igon eban IIn Isabel eregetzazko aulkira, bere ama Maria Kristinaren errege ordegotzazko ardurean.

IIn Isabelen jaio ta ergetzara igoteak, VIIn Fernandoren anai Borbon´tar Karlos Maria Isidroren aurkaoa zan, eta bera izan zan IIn Isabel Asturiaseko Printzea lez izendatze debekatu ebena, bai ta gero erregiña egien aurkakoa be. Karlos Maria Isidrori aurkaritza orrek, erbesteratzea beartu eutsona. Bereala asi ebena, IIn Isabeli eta Karlistaren aurkako ondorengo guda zital ori.

Maria Kristinak eroan eban errege ordegotzaren ardurea, leenengo Karlistaren gudan.

IIn Isabelek, ez eban ikasketarik euki bere gaztetasunezko urteetan, bere ama Maria Kristinak eukan ardura nagusia erregeen ordego lez, naikoa izan zalako bere maitale Muñoz´tar Fernando sarjentoa zaintzea, ta urtero eukiten ebazan sabelaldi edo aurbideakaz, bere alabeagaz arduratzeko.

1.840ko urtean Urrillaren 17tik, Baldomero Esparterok artu eban errege ordegoen ardura ori, arik eta 1.840ko urtean Uztaillaren 23an kendu eutsoen arte.

Eta irugarren errege ordegotza ez dagian sortu, IIn Isabeleri, adintsu izateko urteak beratu eutsoezan, 14 urtetik berak euki zituzen 13 urtera, 1.833ko urtean Azillaren 8an ekintza onegaz, Isabel adintsua zala aldarrikatuta.

Azillaren 10ean emon eutson ziñezko itza konstituziozko legeari.

16. *Karlistadako guda onen Ondoriozko aurkeztaldi laburra.*

Emen argi ikusten da goian aipatu dodana, guda-mendeko batzangotasun asmo orren aurka, ez ebela balio ezerk.

Kristautasuna, eskubitarren kaisar katoliko aberkide fazista biurtu ta alderdikidetu ebenean, munduko gizarteari, izan dan lapurketarik aundiena egin eutsoelako.

Europan ortik aurrera, amaibako irudietan izan leikezan ordezko agintariak aukeratzeko arloak, Jaun erregezko erakundeak irasi ziran Munduko gizartearen antolaketarako, eta bereztasunaren arrazoizko legeak, katolikotasunaren norkerizko zentzura aldatu ebenetik, mendetasunezko batzango asmo orren aurka, ez ebalako balio ezerk !(1).

Mendeko asmo orreik, Munduko gizartearen eskubideen gaiñetik ezarri, eta Izadian bizitzeko aukeratu bear doguzan mozkin guztien kontrola euren eskuetan artuta, gudal agintariak asmo orren serbitzura indartu ziran, norkerizko batzango mende elburu orreik, garaipenduz geratuta gaurko egunerarte, Europa eta Munduaren berezko errietan eta Euskalerri ta Kataluñagaz ikusten dogun lez.

Edesti guztiko gudal buru nagusi orreik, katolikotasunaren erlijioa ***"urrezko txekor" edo "ikur lez artuta"***, batzangotasunaren merkataritzazko ondasundun serbitzura agindu ba dabe, VIIn Fernandoren agintaritzan gaiñeratu ziran, eta ostean daukaguzan laterrietan naiz errege edo lendakariarenak euki, ostonduta dabiltzan katolikuen aolkularitzazko alegiñakaz agindu dabe gaur arte.

Kontuan jausi bear geunke, Europa, ta Erdiugarte onetan Euskalerriak, espainitarrakin ortik aurrera, borroka asko euki ba-doguzela, danak izan direla, norkeriaren asmo zikiñ mende orreri buruz.

Eta nabarmenekoa, Frankok odoljariozko gurutzada santuaren izenean, Erdiugarte onetan egin ebana, menperatasunezko Nacional Katolicismo ori indarrez ezartzeko.

Sozialistak zer dira gaur egunean. Ez ziran jaio... zapaltasunezko eritziaren aurka?.

Dana dala, egia da, Mundu onen gizarteko dan guztiak, Baitan lokaztuta gagozela, Berezko Gai ta Gizaren eskubideen gaiñetik, merkataritzaren ondasunezko eritziak ezarri gurean(2) dabizelako, bizitzarako bear dan guztia, asmo orren Laterritutako kontrolpean

(1)Ni las leyes de arbitraje que se crearon para la funciòn de los reyes, señores, o, cualquier otra figura de direcciòn que las posibilidades nos facilitasen valen nada, ante la imposiciòn de esas ideas amorales e imperialistas amparadas con la fuerza de las armas. Pues se hicieron con la direcciòn moral y el poder del mundo. (2) Nai ta,menperatzaille orreik gudalozte ta diru pilla andienak euki, eta eten barik ibilita be, sekula ez dabelako lortu ezeren menpekotasunik, Jaungoikuak bialtzen dabezan giza-semeak, askatasunaren eskubideko legeekin bialtzen dabezalako Izadi onetara.

eukiteko.

Zer esan nai dau orrek, Morroitasunduta, diruaren serbitzura bizi bear garela ?.

Gure bizitzan ekintza orrek, Ankaz gora bizi bear garela esan nai dau.

Egi ote da ?.

Gaur, Europan daukaguzan Laterriak dira, geratzen diran menpekotasun orren erakusle edo agertzaille nabarienetakoak, euren barneak oraindiño, Ludi onen Kaisergotzazko asmo elburuakaz irasita dagozelako.

Eta Munduko gizarteak gaur, daukan jakintzaren aurrean barre egitekoa izanez gain, mingarria izaten bada, ez gara konturatuko antzerki arrunt edo trakets joko bat aurkezten gabiltzala ?.

Ez ziñeztekoa da, gaurko belaun aldiaren arrazoizko gizak, ikuskizun au emon leikenik.

Nobel saria merecí ote dabe ?.

Ni, enintzen arrituko.

17. *Euskalerrian, karlistadako gudaren asiera.*

Euskalerrian, Kataluñan, eta Bizkaian batez be, ezin da esan Katalan ta Euskal Legearen aurkako borrokak dirala, bai eta Bizkaitarrak Jaunagaz, edo gero espainitar erregeakaz ongundean euki genduzan artekaritzaren ezereztuteko alegiñak, 1.833ko urtean asi zirala.

Mundu onetan, katolikotasuna irasi zan aberkidetasunezko ziñezkintzan, dogma edo norkeriaren zentzuan oiñarritzeko legeakin, IVn gizaldiko asieratik ekarten daualako, katolikotasunean kolonizatuta batzangotzeko alegiñ ori.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIn Fernandok, 1.812ko urtean espainitar gudal nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako.

1.812ko urtean Epaillaren 19an, Riegotar Rafael koronel ordezko gudal nagusiak Kabezas de San Juanetik, Kadizen gudal nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta gudal nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz, indar asko artzen joanda, euren adierazpeneko Foru Itza(1) bidez, eraso aldi gogorrak egin ebazan gure Lege Zarraren aurka, eta espainitar erregeakaz euki gendun artekaritzagaz.

Edestilari batzuk esaten dabe, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdiugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako.

Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egiazan, laguntza eskatu geuntselako.

Borrokaldi andi ta geienak, Euskalerrian ta Kataluñan egin ziran, euren batzango mende asmotan, nortasunezko lurralde orreitan egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko, arazoen ardatza. Eurak izan ziralako Demokraziaren askatasunezko arloetan zentzunduenak, menperatzail kaisertzaren eritziak ezarri zitezen gure lurraldeetan.

(1) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. Para los españoles privilegios.

IVn Karlos eta VIIn Fernando Napoleonen aldetik atxilotuta egon ziranean, gudal agintariak asi ziran indarra artzen, ta gure Euskalerrian gudu antzez(1), euren jaurgo gizonak ezartzen.

1.820ko urtean Epaillaren 7an espainitar gudal nagusiak, VIIn Fernando beartuz lortu eben, 1.812ko urtean Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik izenpetzea.

Eta 1.820ko urtean Epaillaren 18an, espainitar gudal nagusiak Gernikako Batzarkidei, Epaillaren 24an batzartzeko agindu eutsen, 1.812ko urtean Urrillaren 18an euskal ordezkari saltzailleak azpikeriz, Kadizen ziñatu ebezan Foru edo Euskal Lege barriak espainitarren lege barriekaz adoxtuteko.

1.820ko Epaillaren 25eko denbora onetan, mogimendu larregi egin ebezan espainitarrak, gure Euskal Legeak, euren konstituziozko jaurgo Santu barriaren barruan urtu egiezen, eta euren ustezko katoliko espainitar lurralde osoan, desberdintasunak ezereztu ebazan, Katalan eta euskaldunak euren izaerazko nortasunak galduta, espainitar biurtu zitezen.

1.820ko Jorraillaren 1etik aurrera, Bilboko Udalak lankidetasun aundia erakutsi eban espainitar jaurgo zale gudal agintariekin, Udalak ziñatuta euki eben espainitar jaurgo politikua Jorraillaren bian aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsoenean, Bilbaotarrak espainitar biurtu zitezen.

1.821eko Urtarrillaren 1ean, Bilbon egon ziran naitazko edo oldezko guda mutillak(2), espainitarren gudalozte biurtu ziran, eta orduan Bizkaiko zenbatzaille zanak Bentadestar Pablo koronela, gudalozte ori bideratzeko aurreratuz, Urtarrillaren 2an urten eban Gezalaren aginduan Bizkaiko errietatik, matxinatuta egon ziran ainbat mutil atxilotzeko.

1.821eko Urtarrillaren 16an, Bediatar Lorenzo Antonio ordezko koronelak, iñor ezin zala bere lurraldean mugatxartel edo igarotxartel(3) barik ibili, eta bera barik arrapatzen ziranak, 10 erleko nekepean zigortuta geratuko zirala agindu eban.

1.821eko Urtarrillaren 26an, agindu baten bidez, sendagille ta irakasleen kontrol aundia egin eben, gogorkerizko zigorraren keiñaduragaz zemaituta, euren agindutik kanpo ez zitezen ibili.

1.821eko urtean Epaillaren 19 ta Jorraillaren 10eko jaiak ospatzeko, Bizkaiko agintari Bediatar Lorentzo Antonio ordezko koronelak, etxeak, bakotzak bere neurrian argitu egiazala agindu eban, eta beste ainbeste espainitarren askatasunezko Loraillaren 2garren eguna ospatzeko. Zer ote gendun guk, Loraillaren biko egun orregaz ?.

1.821eko Iraillaren 24an gudal nagusi liberalak, gudari agerketa aundi bat egin eben, espainitar jaurgo barriaren berregintzak lortu ebezalako(4).

Nundik nora eta zer lortu, gaur ia 200 urte beranduago, arazo bardiñen aurrean aurkezten garanean ?.

Gaur argi ikusten dogu, zapaltzaillezko asmo orreik, kaizertzaren asierazko gogo bardiñean daukiezala. Ez dakit zertarako baiña, sekula euren etxeko jaurkintza ezin dabenean burutu edo ta zuzendu.

A ta guzti: Nai ta Burgos, Leon, eta Sebillatik, guda indar geiago ekarri; legeak indarka euren aldera aldatu; Euskal gizartea igaro bideko txartelakaz kontrolatuta euki; eta gure

(1) Gudu antzez = estrategia militar de guerrillas, estratègikamente. (2) Oldezko mutillak = solados voluntarios. (3) Muga-txartel edo igaro-txartel = pasaporte. (4) Espainol jaurgo-barria'ren berregintza lortu ebazalako = el logro en la reconquista de los nuevos derechos constitucionales españoles.

artean, euren guda zerrendak erakusten dauan lez, beartasunezko premiñak bultzatuta edo zaltzaille asko egon ziralako, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan, ezin eben gauza aundirik euren mende asmakuntzara burutu, erri geienak matxinatuta egon ziralako.

1.822ko Epaillaren 1ean Bizkaiko gudal agintari Bediatar Lorentzo Antoniok, agindu au bialdu eutsen Bizkaiko Udal guztiari: ***"1.820ko urtean Epaillako 19an espainitar jaurgoa ziñatu zan eguna, eta 1.808ko urtearen Loraillako 2an espainitarren askatasunezko egunagaz, biak ospatu egiezala".***

Guk, zer ote eukiko gendun, beartasunezko agindu orrekaz ?.

1.822ko urte guztia, matxinatuakaz zeregin bardiña eukin da, Bilbao babestuteko arresiz inguratzen asi ziran, diruaren ezagaitik amaitu barik geratu zana.

1.822ko Urte onen Abenduko illean, Seoanetar Antonio gudal agintariak, arrapetan ziran matxinatuak(2), ez egiezala tiroz il agindu eban, eta ille orren barruan, urkamendi edo garrotebillean il ebazan mutil bi.

1.823ko Otsaillaren 24an, Seoanetar Antonio gudal agintariak, agiri gogor bat zabaldu eban Bilbotik: erregeen legezko iraspena, berrezkuratzearen aurka. Artean, Frantzezaren aurka egitekoen aitzakiagaz, euskal gizartea keiñadura bidez kikildu gura ebana, eta bere aldarriketa ori ***¡ Viva la constituciòn ! ¡ Viva la uniòn !*** berbakaz amaitu eban.

1.823ko Epaillaren 8an Saldubako(3) gudaltegitik Ballesterosek, bere aginduan egoan bostgarren guda lurraldeari, Frantzez eta erregezko lege zarren aurkako beste ainbeste agertu eban. Seoanetar Antoniok Bilbaoko euskaldunentzat, meatxuzko keiñu bardiñakaz egin eban antzera.

1.823ko Jorraillaren 2an Prantziako XVIIIn Luisen gudalozteak, Borbontar Luis Angulemako dukearen agintean Baionan egon zirala: ***"Erregearen legezko iraspena berrezkuratzeko, 100.000 gudariekin Auñamendiak igarota Espainara aldatuko zala agindu eban"***. Foru Aldundiak Jorraillaren 22an, Bizkaiko erri guztietatik zabaldu ebana.

1.823ko urtearen Jorraillan, Borbontar Luis Angulemako dukearen aginduan sartu ziran Erdiugarte onetan, Frantziko San Luisen 100.000 gudari semeak.

1.823ko urtean Jorraillaren 9an Zumarragan egoan orokorrezko gudaltegitik, agindu bat bialdu eutsoen Bilbaon egoan Euskalerriko gudal nagusi Kesadatar Bizenteri: ***"Fernando erregeagaz batera, Angulemako dukea beren 100.000 gudariakaz espainitar lurraldean sartu zala, eta ez egiala Bilbo arrizkuan ipini, alperreko alegiña izango zala ta"***.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintza aldarrikatu eban, eta gudal nagusiak ararte Kadizetik agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu eban.

Espainitarrentzat emen asiko zan, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudal agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko Urrillaren 30ean urten eben Prantzezak Bilbotik, eta euren ordez, oiñezko iru txanberga(4) ta zaldun talde bat(5) etorri ziran.

1.823ko urte onen askenetan VIIn Fernandok, espainitarren gudalburu jaurgozaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari, ziñez itz eman bear eutson(6).

(1) Orduan Matxinatuari be, eurak diran izenagaz Fazistak zirala esaten eutsoen. (2) Saldubako = desde Zaragoza, porque ese era su verdadero nombre en Euskera. (3) Ziñez itz eman bear eutson = le hicieron jurar a la fuerza la constitución de Cadiz de 1.812. (4) Txanberga = batallòn. (5) Zaldun-talde bat = un escuadròn de caballeria. (6) Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquia esaten ebana. Y que luego se convertiria en = Sin detrimento de la unidad constitucional Española.

VIIn Fernando ortik aurrera, ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ebazalako. Bai euskaldun Bizkaitarrakaz be, espainitarren kanpo euki eban artekaritza bertan itzi bear izanda, gudal nagusiak ortik arrera Bizkaitarrai, espaintarrak izango bagiñan lez beartuz.

Eta gudal agintariak beartuta, erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziran batzangotasunezko jaurgo aldera urbiltzeko. Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, onein asmakuntza, erri ezbardiñeko Foru Legeen gaiñetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko gizaren bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orrein bidetik, aukeratuko ebezan barriro, Fuero edo Katalan ta Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

1.824ko urtean Urtarrillaren 6an, 5garren gudu taldearen ordez, 8 euneko gudari taldetan bananduta 600 gudari euki eban beste batalloi bat etorri zan Bilbora.

1.824ko Epaillaren 3an, guda amaitutzat emon ebelako, liberal gudu agintari nagusiak Bizkaiko batalloiaren guda mutilak azkatu egiezala agindu eban.

1.824ko urtearen Loraillako 7an, Alonso Baldenebrotar Eladio izendatu eben Bizkaiko zuzentzaille(1).

1.833an Iraillaren 29an IIn Isabelek iru urte eukezala, VIIn Fernando bere aita il zan, eta bertan izendatu eben erregiña lez IIn Isabelen izenarekin, 1.833-1.840 urte bitartean, bere ama Maria Kristinaren errege ordezkotzaren jaurkintzan.

1.829ko Urrillaren 21-22ko egun bitarteko gauan, azpi joko bat agertu zan Gazteizen, egon ziran gudu-talde armatuak matxinatzeko, eta Santander inguruan matxinatuta ibili zan Lastratar koronelari bota eutsoezan erruak.

Euskalerriko legearen aurka, Auñamendietara aldatutako mugak, ostera, Ebro ibaira aldatzeko mogimendua izan zan antza.

1.829ko Abenduaren 9an VIIn Fernandok, Napoles´en jaioa eta bere loba zan Borbontar Maria Kristinagaz, laugarrenez ezkondu zan.

1.830eko Epaillaren 5ean VIIn Fernando bildur, 1.823ko urtean gudal nagusiak beartuta, espainitarren jaurgoari ziñ egin eutson bidetik, ***"ez zala beren borondatea muga orreik ostera aldatzea, erantzun eban".***

Euskal Legeak guzurraren bidez ezereztuteko alegiñak, eta gudal buruen indarrezko maltzurkeriak emendik aurrera, gero ta ugariagoak ta nabaritasunezkoak ikusiko doguz.

1.830eko Jorraillaren 3an Madrileko la Gaceta aldizkarian agertu zan, Fernandok Ley Sàlica zelan ezereztu eban.

1.830eko Urrillaren 10ean jaio zan Isabel, VIIn Fernandoren alaba.

1.832ko Iraillan VIIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egon zanean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak, espainitarren agintaritza artzeko, eta nai ta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko espainitar ministruak, Fernandoren eskutik lortu eban izenpetzea, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria.

1.832ko Urrillaren 1ean baiña, Fernando ostera bizkortu zan, ta Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatik kenduta, ezereztu eban berak sinatu ebana, eta gauzak ostera joan ziran IIn Isabelen alde.

(1) Zuzentzaille = corregidor.

1.833ko Iraillaren 29ko arratsaldean il zan VIIn Fernando, eta egun berean bere alaba, IIn Isabelen izenarekin egin eben espainitar erregiña, ama Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzazko ardurean.

Eta VIIn Fernandorekin joan ziran betirako, ararte espainitar erregeak Bizkaiakin euki eban artekaritzazko epaiketaren antolamendua, maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari ate guztiak zabalduta.

1.833ko Urrillaren 1ean VIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro Molinako kondea, Portugaleko I Migel printzea bere adiskidea zanagaz egoala, Abrantesetik, bera izendatu zan espainitarren errege.

1.833ko Urrillaren 2an Arabako ordezkari Uhagontar Pedro Paskualek Madrilletik oarpena bialduta, gabeko ordubi ta laurenak ziranean eldu zan Bilbora, VIIn Fernando il zanaren berria, eta zer egiteko premiñ aundian aurkitu ziran Bizkaitar Aldundi ta erritar guztiak.

1.833ko Urrillaren 4an Bizkaitarrak, Karlos Maria isidro izendatu eben Bizkaiko Jauna, eta Foruak berrezkuratzeko errege barriaren aldeko ordezkarien orokorrezko batzarra antolatu zan, Orbe ta Eliotar Jose mari Baldespinako Markesa zuzendari zala.

1.833ko Urrillaren 4an, Inglaterra ta Frantziko kontsuladuetatik, Bilbaoko Udaletxera bialdu ebezan agiri bi, euren menpekoak eta eukezan etxeak babestu egiezan.

1.833ko Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak, Karlos Maria Isidro VIIn Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu eben espainitar errege, eta oldezko gudariakaz Logroño artu ta gero, eurakaz Nafarroara aldatu zan euren aldekoakin bat egiteko(1).

Eta emen asten dira karlistadako ondorengo borrokak, nai Espainan, nai Euskalerrian.

Karlistaren guda asieratik Bizkaian, lurraldeko baltzu edo batzar bi egon ziran: ***"Bilboko lurraldearen Aldundi ta espainol jaurgozaleakaz egon ziran erriak. Eta Durangon egoan gudu Aldundian, Karlosekin egon ziran erriak.***

Eta Erdiugarte onen lurralde guztiak zorro baten sartzeko, urte onetan eta Laterriaren izen buruagaz jaio ziran, espainitarren lurraldeak edo probintziaren antolamendua.

Errege bi batera ezin, eta gaiñera, eritzizko sinismenean aurkakoak izanda gitxiago, anai arteko guda piztu zan, Katalan eta Euskaldunak, anaien arteko guda orren zorroan sartuta.

Euskalerriaren batzarrak euren biltzarkideakin, Vn Karlosen alde sartu ba ziran borroka oneitan, Karlosek, beste erribatekoak giñela jakin ebalako zan, eta gure Demokraziaren Askatasunezko Lege Zarrak babestuko ebazala ziñ eginda, beragaz joan ziran karlista edo ondorengotasunezko borroka onetara.

1.833ko urtean Urrillaren 7an Bilbaon baiña, Frantzizkotar Aita Negretek, beltz izkribu(2) bat argitaratu eban gure Foruakaz ez ebena euki zer ikusirik, erlijioa eta leialtasunaren izenean: ***"gudarako Jainkoaren babesa gura ezkero, Karlos Maria Isidroren atzean joan zitezen"*** esaten ebana.

Jakin gura neuke, aita Negrete Prantzizko orrek, noren aolkua eukan edo zer gura eban, gure eskubideko jauntza alboratuz, errege ta erlijiozko katolikotasun naste borraste orreikaz euskal gizartearen sinismena geiago nastuz, berezko legearen aurka ta zentzunbageko aberri

(1) Gero, oldezko-gudari auek Nafartar kideakaz batera izango zan Zumalakarregiren asierako gudaloztea. (2) Beltz-izkribu = panfleto, libelo, escrito en el que se denigra o infama a personas o cosas.

asmakuntzan barria zan, espainitar Laterriaren katoliko aberkuntz lokatzetara bideratzeko.

1.833ko urtean Azaroaren 2an Zumalakarregi ta Imaztar Tomasek, espainitar gudal nagusi liberalak, beragaz zalantza asko eukinda ez ebelako jakin ze alderditan egoan, iges egiten dau Iruñako gudaltegitik.

1.833ko urtean Azaroaren 14an Zumakarregi, Nafar karlistaren gudal nagusi izendatu eben, eta Zumalakarregik alde bietatik gauzak argi geratu zitezen, Vn Karloseri eskatuz, bertan ziñatu ebazan onek, Nafarroako Foru, Bizkaitar Jauntza eta erregezko legeak.

1.833ko urtean Abenduaren 5ean, konstituzio barriaren gudal nagusiak, gudal-karlista nagusiak atxilotu gura ebazalako, Aldundiko jaurkintzaren ordezkoak, Iturralde koronelaren Agilarreko etxean batu ziran, eta Nafarroako 1go Karlistaren batzar lez izendatuta geratu zan batzar au.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben Zumalakarregiren gudal nagusitasuna.

1.833an Abenduaren 7an Zumalakarregi ipini eban Araba ta Bizkaitarren lurraldeko gudal nagusi lez. Eta erabagi onegaz Zumalakarregi, Ego Euskalerriko lau lurraldearen gudalburu nagusi geratuta, Nafarroa egokitu eban, bere orokorrezko gudal agintaritza lez.

18. *1.833-1.839ko urte bitartean, karlistadaren lenengo guda.*

19. *Europak:*

Europako lurraldea, katolikotasunean aberritzeko batzango zaleak, urduritasun aundiz begitzen eban karlistaren aurkako borroka au, Napoleonek porrot egin ondoren, euki ebezan batzangotasunezko asmoak, urrun geratzen ziralako, Europaren Berezko Errigizarteen alde.

Eta borroka auek nai ta Europa Laterrietan batzangotzeko alde ibili ziranak irabazita, Laterri zatizka orreik geiegi zirala usten ebalako, Hitlerregaz, Europa osoa menderatzen joan ziran beren lurralde guztia agintaritza baten batzeko.

Baiña, Berezko Legearen aurka diralako eritzi orreik, Europan gaur ainbeste gizaseme ilda gero, asieran euki genduzan bardiñezko arazoen aurrean kokatuta gagoz.

2.010eko urtean Ekaiñaren gaurko egunetan, Sitges´en batzartu diran jakintsu orrein eritzian, Europaren lurraldeko jaurkintza, Berezko edo Jendekuntzazko errien gaiñetik, daukaguzan menpetzailletasunezko laterrietan iraun egian alde dagoz.

Jakintsu orreik ez dabe gura ba, danok arduradunak izan gindezan ?.

Noren ardurak gurako ote baiña, Nortasunezkoarenak ala Norkerizkoarenak ?.

Noiz argitu, edo noiz arte, betiko zentzugabekeri orregaz ?.

Izadi au merkantil lez artuta, irabazteko leku bat lez ikusten dabenentzat, ala, berezko edo Jaungoikuaren legeditasunak erakusten daben bidetik, Izadi au, gizaren ekanduzko banakuntza lez edo bardintasunezko ordezkaritz bat bezela ikusten dabenentzat ?.

Europa, Afrika, eta Ekialdekoak katolikotasunean batzangotzeko eritzikoentzat, euren aberastasunezko batzango arloetan, berdintasunezko ordezkaritza bategaz, nortasunezko asmakuntzaren gora beran, asko jokatzen ebelako, asi ziran erri ezberdiñ borondateen aurka, katolikotasunean batzangotzeko borroka oneik.

Orregaitik, Erdiugarte au euren ustez, espainitar katolikoarena bakarrik izanda ¿?, oneik, katoliko aberkidetzan batzeko, irabaziko mozkin guztiak euren eskuetan bear dabez, aberri katolikoen kontrola, euren eskuetan egon zedin.

Eta idazlan onen zentzuan ezartzeko, Zumalakarregi il zan arte, beren eraso aldiko borrokatan sartuta, alde bietatik aukeratu ziran gudal nagusiaren bizitza aurkeztuko dautsuet. Bai eta, alde biak, zelako laguntza euki ebezan Europaren Laterrizko errien aldetik.

Konturatu gaitezen, Europaren lurralde guztia katolikotasunezko erlijioaren zentzuz, eta asmatu eben konstituziozko erri barrien laterrizko jaurkintzan antolatzeko, zelako nasteak egon edo sortu ziran, errigizarte ezberdin eritzizko zentzuetan, Peninsula onen gizaseme alabak alde baten edo bestean jokatu egien.

Kontuan artu bear geunke, oraiñarte egin diran menperatzailletasunezko ekintza guztiak, katolikotasunaren aberkerizko norkeriagaz, gudal nagusiak euki eben guda indar, eta sal-erosle merkantil liberalaren diru bidez egin dirala. Europa osoan erlijiotik asita, nagusi orreik gaur lez, euren eskuetan euki dabelako, bizitzeko bear doguzan tresneri guzti orreik.

Nortzuk eta noren alde egin zan borroka au ?:

-Europan, IIn Isabelen buruz: nortasun bageko edo norkeri barri aldeko katolikoan aberkidetuz batzeko zaleen, espainitarrak, Prantzia, Britania Aundia, eta Portugal izan ziran.

-Frantzia ta Britania Aundia, orduko lantegi zalekerian(1) ta diru gosean(2) aurreratuen artean egon ziranak, Portugaleri be diru laguntza emon eutsoen, denbora orreitan espanitarren antzera ibili zalako.

-Frantzia, Portugal eta Britaña aundiak bialdu eben laguntza: espainitar erri-dirutzaren iraspenari dirua emonda, prestamen edo baikuntzaren eran(3), ta guda mutillakaz.

-Britania Aundiak: Jorje Lazi Ebans gudal nagusiaren agindutara, oldezko gudariekaz osotutako Britaniako laguntzaille taldea(4), eta Royal Nabik beren itsas ontziekaz, itsas bazterretatik inguratzeko laguntzarekin.

-Prantzezak: Atzerritar Talde edo Legioa. Eta orrez gain, Auñamendiko muga eta espainitar itsas bazterrak zainduz.

-Portugalek: Das Antaseko Baroi gudal nagusiaren agindupean, laguntzalle talde bat.

-Eta Vn Karlos Maria Isidroren alde: Errusia, Austria, Prusia, Napoles eta Aita Santua Eleizaren Laterriagaz(5).

Zelako jokoa euki eban emen, eleiz katolikuak, bera izanda katolikotasunean aberkidetzeko batzango zale?.

Eta gero ikusiko dan lez, Karloseri laguntza aundia emon arren, geien itxurazkoa zala esaten dabe edestilariak. Goitik ostonduta agintzen eben katolikotasunaren batzango zaleen erpeak, luzeak izan ziralako, gudal nagusi batzuk saldukeri asko egiezen.

1.833ko urtean Iraillaren 29an bere alaba Isabelek iru urte eukezala, VIIn Fernando il

(1)Lantegi zalekerian = industrialismo. (2) Diru gose edo zalekeria = merkantilismo. (3) Prestamen edo baikuraren eran = en forma de crèditos para el tesoro. (4) Britaniako Laguntzaille Taldea = la legiòn auxiliar Britanica. (5) Eta Aita Santua ta Eleizaren laterriagaz = y el Papa con el estado pontificio. Y esto difícilmente se entiende, por que la iglesia católica, es la les organizò a los nuevos constitucionalistas, y tambien a las viejas leyes de las todopoderosas monarquias, con lo que optò por las dos hasta que una quedase vencedora, pata volcarse por entero a esa nuena constitutiva, con la que amparar el sempiterno Nacional catolicismo.

zan, eta bertan izendatu eben erregiña lez IIn Isabelen izenarekin, 1.833 1.840 urte bitartean, bere ama Maria Kristinaren errege ordezkotzaren jaurkintzan.

1.833ko urtean Urrillaren 1ean VIIn Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro Molinako kondeak, Portugalen I Migel printzea, ta bere adiskidea zanagaz egoala, Abrantesetik, bera izendatu zan espainitarren errege.

1.833ko urtean Urrillaren 1ean eldu zan Euskalerrira, VIIn Fernando il zanaren barria, eta Donosti ta Iruñako Uri nagusiak geratu ziran II Isabelen alde, espainitar gudalozte indartsuak euki ebezalako gudaltegiratuta.

1.833ko urtean Urrillaren 2an Arabako ordezkari Uhagon´tar Pedro Paskualek Madrilletik oarpena bialduta, gabeko ordubi ta laurenak ziranean eldu zan Bilbora VIIn Fernando il zanaren berria, eta zer egiteko premiñ aundian aurkitu ziran Bizkaitar Aldundi ta erritar guztiak.

1.833ko urtean Urrillaren 3an, Gazteiz eta Bilbaoko Uriak gudu indar gitzi euki ebezalako, Vn Karlosen alde geratu ziran, eta Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Bilboko matxinatuak eta Aldundiko batzar kideak bideratu ebazanakaz, Mota zuzendaria(1) eta Aldundiko Uhagon ordezkaiak baitu edo atxilotu ebazan. Eta Bilboko erria izan zan Vn Karlosen ikurra leen goraldu ebana.

1.833ko urtean Urrillaren 4an Bizkaitarrak, Karlos Maria Isidro izendatu eben Bizkaiko Jaun lez, eta Foruak berrezkuratzeko, errege barriaren aldeko ordezkarien orokorrezko batzarra antolatu zan, Orbe ta Eliotar Jose Mari Baldespinako Markesa, zuzendari zala.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Inglaterra ta Frantziko kontsuladuetatik, Bilboko Udaletxera bialdu ebezan agiri bi, euren menpekoak eta eukezan etxeak babestu egiezan.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Zea ta Bermudeztar Franzizkok aldarrikatu eban IIn Isabelen aldeko agerkaia, Vn Karlos Maria Isidrorentzat eragozpen andienetarikoa izango zana, errege aulkian ezartzeko.

1.833ko urtean Urrillaren 4an, Orduña ta Balmaseda matxinatu ziran, eta iges egin eban Portugalete´tik, euki zituzen agintariak.

1.833ko urtean Urrillaren 5an Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Karlosen aldeko Aldundia sortzen dau Bilbon.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak, Karlos Maria Isidro izendatu eban errege Vn Karlosen izenarekin.

Errege bi batera ezin konpondu, eta gaiñera, eritzizko sinismenean aurkakoak izanda gitxiago, anai arteko guda piztu zan.

Eta Euskalerriaren batzarrak, biltzarkide ta bai Foru Aldundikoak, Vn Karlosen alde borroka oneitan kokatu ba ziran, Karlosek, euskaldunak beste erri ezberdin batekoak garela jakinda, gure Askatasunezko Lege Zarrak babestuko ebazala ziñ egin ebalako, beragaz joan ziran euskaldunak, karlista ta isabelinoaren arteko borroka onetara.

1.833ko urtean Urrillaren 6an, Lorentzotar Manuel, IIn Isabel´en gudal nagusiak, Nafarroaren Arkoseko lenengo borrokaldian, karlistaren gudal nagusi Ladron de Zegamatar Santos, eta beste 30 lagun atxilotu ebazan.

1.833ko urtean Urrillaren 7an Bilbaon baiña, Frantzizkotar Aita Negretek beltz izkribu(1)

(1) Zuzendaria = corregidor. (2) Beltz-izkribu = panfleto, libelo, escrito en el que se denigra o infama a personas o cosas.

bat argitaratu eban, gure Foruakaz ez ebena zer ikusirik, erlijioa eta leialtasunaren izenean, gudarako Jainkoaren babesa gura ezkero, Karlos Maria Isidroren atzean joan zitezen.

Jakin gura neuke, Aita Negrete Prantzizko orrek, noren aolkua eukan edo zer gura eban, gure euskal jabetasuna alboratuz, errege ta erlijiozko katolikotasun naste borraste orreikaz, gure Euskal gizartearen sinismena ainbat nastezko lokatzetara bideratzeko.

1.833ko urtean Urrillaren 7an, Berastegitar Balentinen aginduan, Bernedo, Badayoz, Laguardia eta Baldegobiako guda mutillakaz Gazteizeko ateetara joanda, an egon ziran Isabelen guda indarrak Donostira iges egin bear izan eben, eta bera sartu zan Urian Vn Karlosen ikurra goralduta.

1.833ko urtearen Urrillan, Gipuzkoako Aldundia Azpeitian egon zan, zer gertatuko zanaren zai.

1.833ko urtean Urrillaren 8an, Oñatin lenengo txinpartak biztuten dira, matxinatuak Alzaa gudal nagusiak bideratuta.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Lardizabaltar Inazio saiatzen da Seguran.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Iruñako Aldundia Vn Karlosen alde egoan, baiña Uriaren ormatik kanpo liberalaren guda indar asko egon ziralako, Uriaren gizarteari, bakea eta agindupea bakarrik agindu al eutsen, nai ta Aldundiak eukezan 8 arduradunetik 3 bakarrik Isabelen aldekoak izan.

IIn Isabel´en aldeko liberalak, Donostia, euren Euskalerriko gudaltegi kapitain nagusi lez izenduta euki eban, eta bera izan zan liberalaren zaindoki indartsuena.

Gertakizun oneik sortu ziranean, laster asi ziran Donostiko dendari, aberats eta liberal merkatariak, Sagastitar Joakin agindupean Uriaren babesa antolatzen. Ez geienak IIn Isabelen aldekoak ziralako, bildurrez, an egon ziranak, Nafartar Karlosen aldekoak ziralako baizik.

Beste Uri nagusiak be laster asi ziran antolatzen, urte onen Azaroan Iruñak, erritarren guda talde bat antolatuta.

Bai Bizkaiko Aldundiak 200 edo 300 erritar, Aranatar Antonio, Orbegozotar Gabriel eta Lizarratar Migelen agindupean. Gazteizen, Baldes gudal buru liberalak aginduta, beste erri talde bat izkillatuz, Uranga karlistaren erasotatik babesteko.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Kastañontar Federiko gudal nagusi kapitaiñak, gudaltegi nagusia Donostitik, Tolosara aldatzen dau, eta Azpeitiko erria, Iturriagatar Karlos Bernardoren aginduan, Vn Karlosen alde kokatzen da.

1.833ko urtean Urrillaren 10ean, Nafarroako Sola´tar Antonio errege ordeak, Ladron de Zegamatar Santos, tiros il egiela agindu eban.

Kontuan euki bear dogu, IIn Isabelen aldekoak denbora oneitan, uritarrak zirela eta Karlosen aldekoak nekazariak geien.

Eta karlistak nai ta saio aundiak egin, iñoz ez ebazan Uri nagusirik menperatu.

1.833ko urtean Urrillaren 11n, matxintasuna Bilbotik asi, ta Santander, Araba eta Gipuzkoara zabaltzen doala, Oñatin, Alzaaren agindupean "Jainkoa, Lege Zaar edo Foruak eta Aberri ta Erregea"ren izenean matxinatu ziran.

1.833ko urtean Urrillaren 12an Irunen, Urtizberea gudal nagusiak karlistaren beste saio bat egiten dau.

1.833ko urtean Urrillaren 14an, Nafarroako Solatar Antonio liberal errege ordeak, guda legea aldarrikatzen dau, eta Karlosen aldeko gudal nagusi Ladron eta Zegamatar Santos, Iruñan tiros il eban, guda onen leenengo odol aitorle izan da.

1.833ko urtean Urrillaren 17an, Madrilleko jaurkintzatik Vn Karlos Maria Isidrok euki ebazan jabetasunezko lurrak eta diruak liberalaren legez kendu eutsoezanean, bere erantzunean iru gauza oneik esan ebazan: ***"Jakiñean geratzen naz"***; ***"Ikusiko dogu nork daukazan eskubide geiago"***; ***"Nik, neureak erabiliko dodaz"***.

1.833ko urtean Urrillaren 18an, karlisten leenengo batzarra eratu egiten da Azpeitian, eta Gipuzkoako agintari lez, Lardizabaltar Inazio Koronela izendatzen dabe.

1.833ko urtean Urrillaren 20an, Erasotar Benito Frantzisko karlista gudal nagusiak, Iruña mendetu gurean porrot eginda, Frantzira iges egiten dau.

1.833ko urtean Urrillaren 22an, lenengo gudaloztearen mogimenduak azten dira eta Vn Karlos´en aldeko 3.600 gudarien talde batek, liberalaren aurkako lenengo borroka eukiten dau Tolosan.

1.833ko urtean Urrillaren 22an, Nafarroako Aldundiak, Iturralde gudal nagusiaren gudalozteari adierazi eutson: ***"Nafarroan, sekula ez zala egon Salikako legerik".***

1.833ko urtean Urrillaren 25ean, Altamirako kondeak erregetzaren ikurra eroala izendatu eben IIn Isabel, espainitarren erregiña lez.

Arauko-jai onen ekitaldi au ospatu zanean, nai ta batzuk onartu arren, Europaren Iparraldeko errien ordezkari guztiak urten eben espainitarren lurraldetik, eta Zea ministruak, Austriaren Metternitzeko printzea alegindu ebanean, IIn Isabel baieztu egien, onen erantzuna: ***"gogoratuko zala, Urrillaren 4an berak aldarrikatuko agerkaiak emoten ebazan emaitzak ikusi ondoren"*** erantsun eutson.

1.833ko urtean Urrillaren 30ean Donostiko liberalak, IIn Isabel, erregiña lez izendatzen dabe, Aldundiko ordezkariak oiualdi orretan agertu barik. Ordezkarien ustean beti lez, leen, erregearen il otoizketak ospatu bear ziralako.

A ta guzti, Donosti izan zan lenengoa, IIn Isabeleri, leialtasuna eskaiñi eutsona.

1.833ko urtean Urrillaren borrokak asi zirenetik, Isabelen liberalak karlistai, fazizta lez euki ebezan, eta arrapatzen ebezan gudari guztiak, tiroka iltzen ebezan, karlistak mendeku edo ordain lez bardin eginda. Barrundiko Eredia errian izan ziran, odolkoiezko fusilamendu orreik.

1.833ko urtean Azaroaren 1ean, Errenterin sartzen dira 40 karlista, eta aurkitu ebazan janari ta zaldiak eroan ebezan.

1.833ko urtean Azaroaren 2an espainitar liberal gudal nagusiak ez ebelako jakin, Zumalakarregi ta Imaztar Tomas, ze alderditan egoan jokatzen, eta beragaz zalantza asko euki ebela jakin ebelako Tomas´ek, iges egiten dau Iruñako gudaltegitik.

1.833ko urtean Azaroaren 5ean karlistak, Iruñako Aldundiari euken Uri ordegotzari jaramon egin barik, Agilarreko Iturraldetar Franzizko koronelaren etxean egiten dabe lenengo batzarra, karlistak uste ebalako Aldundiko batzarkideak, liberal gudalozteagaitik baituta egon zirala.

1.833ko urtean Azaroaren 14an Zumakarregi, Nafarroako karlistaren gudal nagusi izendatu eben, eta bertan Vn Karloseri, baldintza onen eskaera bidez: ***"Nafarroako erregetzaren Foru ta Legeak zaindu egiazan"*** ziñez itz emoten premiatu eban.

1.833ko urtean Azaroaren 15ean Lizarra´ko uria karlistak, Nafarroako erreñuaren jaurlaritza lez izendatu eban.

1.833ko urtean Azaroaren 21ean, Lorentzotar Manuel´ek, liberal gudal nagusiaren agindupean egoan Sarsfieltar Pedro gudal nagusia, Urizarreko be-aldean Karlosen aldeko Merinotar Jeronimo apaizaren gudu indarrak aurkitu ta ezereztuta, Gazteizen sartzen da, eta nai ta agintariak tiroz il, garaipeneko parkazioaren ondorioz, Gazteizeko guda taldea(1), Burgos, Ribabellosa, Aiala eta Billanuebako batalloi talde karlistak, liberalaren gudaloztean geratu ziran.

1.833ko urtean Azaroaren 25ean, liberalaren aldeko Sarsfieldtar Pedro gudal nagusiak, Bilbo menperatzen dau.

Eta Sarsfield´ek, bere Erdiugarte onen Iparraldeko nagusitasunetik egindu eban parkamena, Madrillen txarto artuta, ta gaiñera, Bizkaia menperatzeko 80.000 gudari geiago eskatu ebalako, agintaritzatik kendu eta Baldestar Jeronimori emon eutsoen agintaritza ori, Sarsfield, Nafarroako erregearen ordezkoa izendatuz.

Eta Gazteiz ta Bilbaoko Uriak liberalaren agindupean jausita, Kastañon gudal nagusia oillartuta, Gipuzkoaren Foruak izan ezik, Nafarroa, Araba ta Bizkaiko Foru edo Lege Zarrak ezereztu egiten dauz.

Onen ostean espainitarrak, Ugarteerdi onen lurraldea, 49 lurraldeetan banandu ebenean, Nafarroa, espainitar beste lurralde bat lez geratu zan. Eta emen asten dira Euskaldunentzat, Foru edo Lege Zaarraren leentasunak guda onetan.

1.833ko urtean Azaroaren 30ean Federiko Kastañon gudal nagusi kapitañak Tolosatik, Urrillaren 14ko gudu legearen bidez, Bizkaia ta Araba guda legepean ezarri ebazan.

1.833ko urtean Abenduaren 5ean, gudal konstituzionalak atxilotu gura ebazalako, Aldundiko jaurkintzaren ordezkoak, Iturralde koronelaren Agilarreko etxean batu ziran, eta Nafarroako 1go Karlistaren batzar lez izendatuta geratu zan, batzar au.

1.833ko urtean Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eben Zumalakarregiren gudal nagusitasuna.

Eta erabagi onegaz Zumalakarregik, Ego Euskalerriko lau lurraldeen gudalburu nagusi geratuz, Nafarroa egokitu eban orokorrezko gudal agintaritza lez.

1.833ko urtean Abenduaren 14an, Donostiko batzarkide batek, IIn Isabel izendatu eban erregiña lez, Errenteriko batzarra, Olañeta zinegotziagaz ordezkatuta egonda.

1.833ko urtean Abenduan Zumalakarregik bere gudalozteakaz, zabaltasunera urten barik, bere gudako indarragaz, trebetasunezko almen edo egokitasuna(2) emoten dau, eta eraso txiki aldiak ugaritu ondoren, liberalaren Kastañon gudal nagusiak bere asarre bizian idazten dau: ***"Euskal lurralde onetan ez dagoela euren aldeko zintzotasunik, Donostia eta Eibarrek erakusten dauana baiño"***.

1.833ko urtean Abenduaren 21ean Sarsfield´eri ordezkatu eutson Baldes´ek gudal agintaritzan, eta Noriegatar Jeronimok, Gazteizeko gazteen arteko batalloi bat izkillatzeko agindu eban.

1.833ko urtean Abenduaren 24an Bizkaiaren Foru Aldundiko liberalak, euren atsekabea agertu eben, erriko Udalak ez eutsielako emoten laguntzarik.

(1) Guda taldea = regimiento, equivalente al "tercio". (2) Almen edo egokitasuna = aptitud, idoneidad, habilidad, competencia, acomodación.

1.833ko urtean Abenduaren 29an Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean, Nazar eta Asartako erritxoetan Zumalakarregik, borrokazko leenengo saioa egin eban liberalaren Lorentzo, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño gudal nagusiaren aurka, eta bala edo tiroin gitxi euki ebazalako, aldendu bear izan eban.

Baiña pozik, bere guda mutillai nai ta borroka baiño ariñago, ***"etsaiari lepoa emoten eutsonai, berak tiroka ilgo ebazala esaneko agiñak erakutsi ba eutsezan"***, ondo baiño obeto borrokatu ziran, liberalaren 350 guda mutil il eta besteak iges aldian ipini ebazalako, Lorentzo eta Oraaren gudu indarrak.

Tomasek, garaipen onen ostean, Lizarrako merindadean Ameskoazeko ibarrean txokoratzen da, eta ortik sasi gudan ainbat irteera eginda, 1.835erako Euskalerri osoagaz egin zan.

1.834ko urtean Urtarrillaren 8an Eibarko Udaletxeak, karlistak egin eben eraso ostetik, 14-70 urte bitarteko erri gizonak ta 100 emakume izkillatu ebazan.

Eta Jauregi ta Jauregitar Gaspar´ek Nafarroan, liberalaren gudal nagusi izan zanarentzat, 180 gazte gudari izkillatuak antolatu ebazan.

1.834ko urtean Urtarrillaren 15ean Maria kristina erregiñak, Zea ta Bermudeztar Franzizko kentzen dauz jaurkintzatik eta bere ordez Martinez de la Rosatar Franzizko ipini eban.

1.834ko urtean Urtarrillaren 17an, Zumalakarregik, Aezkoa ta Orreagako lurraldeakaz egin zan, eta gero Zalazar eta Erronkarin sartzen da.

1.834ko urtean Urtarrillaren 22an: Karlistaren garaipen auek, guda gogortu egiten dau, eta liberalak erregezko agindu bategaz, erritarrak bildurtu gurean, au esaten eban: Arrapetan ziran fazizta guztiak, Afrika, Filipinas eta Kubako kolonietara bialduko ebazala.

1.834ko urtean Urtarrillaren 24an, Nafarroako Solatar Antonio erregearen ordezkoak: ***"Etsaiaren aldaketa edo mogimenduak, ez ebazanak salatzen, Alkate, zuzendari edo ta apaizak atxilotu egingo ebazala"*** agindu eban".

1.834ko urtean Urtarrillaren 27an karlistak, Orbaizetako izkilluen lantegiekaz egiten dira, eta Donostia inguratzen dabe, postaren mezuak ebagita.

1.834ko urtean Urtarrillaren 27an, Kastañon gudal nagusiak euskaldunak, ***"Gizatxar lez"***(1) zelakotu ebazan.

1.834ko urtean Otsaillaren 11n Zumalakarregi keiñatsu, Nafar Aldundikoak eriopetu ebazan.

1.834ko urtean Epaillaren 2an, Kesadatar Bizente Jenaro kristinoa, ordain edo mendekuaren(2) politikan azten da.

1.834ko urtean Epaillaren 2an Oñatin, Esparteroren indarrak zirikitzen dabez.

1.834ko urtean Epaillaren 16an karlistak, Gazteiz erasotzen dabe, eta Zumalakarregik Urian sartuta, Jauregitar Gasparren 118 txapelgorri tiroka il ebazan ordain.

Baiña Esparteroren gudaloztea Gazteiz askatzeko urbiltzen egoala jakin ondoren, alde egiten dau Gazteizetik.

1.834ko urtean Epaillaren 22an karlistak, Portugalete inguratzen dabe.

1.834ko urtean Epaillaren 29an Zumalakarregi oartuta, Espartero urbiltzen egoala,

(1) Gizatxar = canalla. (2) Mendekuaren = Venganzas.

Gazteizetik urten eta Muro ta Abarzuzaren bitartean menderatzen dauz Kristino liberalaren indarrak, auek Lizarrarantza alboratu bear izanda.

Zumalakarregik emendik aurrera, zaldun guda edo sasi gudako guduxkak(1), amaibakoak ugaritzen asi zan, Liberalaren gudalozteentzat oso galbidetsu edo arriskukoak biurtuz ibilbideak, eta ortik aurrera emon jakon asiera benetako borrokari.

1.834ko urtean Jorraillaren 10ean, espainitar gortekoen aginduz, Martinez de la Rosatar Franzizko antzerkillea bialdu eben Euskalerrira argitu ebazan erregetzazko araudi barriakaz, eta Euskaldunak, Frantziko iraultzaren batzangotasun eritzi edo mendeko araudien eragipenak, espainitarrren oikuntzagaz(2) alkartzen ebazala ikusita, Euskalerriko lurraldeetan ez ziran onartu lege orreik, gure oiturazko Lege Zarrak alboratzen ebezalako.

Eta Donostiakoak izan ezik, Euskalerriaren iñungo Aldundi edo ta Udaletxerik ez ebelako lege orreik onartzen, diruaren zigor gogorrakaz, beartu ebezan erritarrak, araudi orreik ez ebazan sinatzen edo ziñezpena emoten, bai ta ordezkariai, euren biltzarretara ez ba ebezan bialtzen.

1.834ko urtean Loraillaren 20an Bizkaia ta Nafarroako Aldundiak ez dabe onartzen, erregezko agindu orreik, ordezkarien auteskunde gora beran agintzen ebana, eta Uztaillaren lenengo egunetan ostera, zigor gogorraren diruakaz eta Kadizeko araudi barri ori sinatuazota, beartuta geratu ziran euren lege batzarretara ordezkoak bialtzen, nai ta euskaldunak, euskal batzarretara joan bear ziran ordezkariak, aukeratzea lortu.

Eta beartutako ekintza oneik izan ziran, Euskaldunak gogortu ebazanak, lau lurraldeak Karlosen aldean geratu zitezen. Lau Uri nagusi, Getariko San Anton eta Beobiko gaztelu erriak izan ezik.

1.834ko urtean Loraillaren 20-26 egun bitartean Zumalakarregik, Kesada liberal gudal buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, eta Agurain erri inguruko Opakuan, O´Donnell gudal nagusia atxilotuta, Altsasu ta Urbasapean, ainbat guda tresneri lortu eban. Urrengo egunetan, Araba ta Nafarroako Udalak, karlosen aldera aldatu ziran.

1.834ko urtean Uztaillaren 9ko arratsaldean Vn Karlos Inglaterratik iges eginda, Frantzitik sartzen da Euskalerriko Egoaldean, Zugarramurdiko bidetik.

Eta egun berean, Kesadatar Bizente Jenaro Kubatarra kenduten dabe espainitarren gudal agintari nagusitik, Jorraillaren 21 eta 22an Altsasun, Loraillaren 26an Muez, eta Bagillaren 19an Dallon, Zumalakarregik astindu ederrak emon eutsozelako, Rodil ta Gallosotar Jose Ramonengaitik aldatuta.

Lukurreri ta gogorkeri baten biurtu zan gudaren nor geiagoko ordainketa au, Dagonilla ta Iraillan Arantzasu ta Berako lekaidetxeak erre ebazanean. Bai Zumalakarregik, Etxarri Aranazen bildur ziran gudariai aurrera egiteko, tiroz iltzeko agindu ebanean. Eta Urrillaren 14an Lorentzo gudal nagusi liberalak, karlistaren alde egon ziran alkateai tiroz iltzeko keñuak eginda, karlista gudarien gurasoak erbesteratu egingo ebazala eta abar.

1.834ko Uztailaren 12an Vn Karlos Elizondora etorri zan, Auñamendiak Dantxarineako mugatik aldatuta.

1.834ko Uztaillaren 12an Zumalakarregi´tar Tomasek, Baztaneko Elizondon Vn Karlosegaz batzartuta, Euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu ebazan

(1) Zaldun gudak edo sasi-gudako guduxkak = escaramuzas en guerra de guerrillas. (2) Oikuntzagaz = al uso, costumbre, o tradición española.

Zumalakarregik eskatzen eutsona, Vn Karlosek Zumalakarregiri, bere gudalozteen aintzindari(1) nagusi izendatuta.

1.834ko urtean Uztaillaren 26an Zabala Vn Karlosen gudal nagusiak, Eibarreri, Donostikoak lez liberalaren eritzikua zalako, erasotzen dautso, eta Eibartarrak euki eben gizon izkilludunez gain, oldezko edo gogozko emakumearen batalloi bat antolatu eban, Zabalari aurre egiteko.

1.834ko Uztaillaren 30ean Zumalakarregik Artazako mendatean, Rodil, Karrera, Espartero, Manzanedo eta Lorentzo espainitar Kristinatarren gudal buruzagiai, astindu ederra emon eutsen.

1.834ko urtean espainitarrak, Zumalakarregiren aurka ezin ebelako ezer egin, ta ainbeste astiñaldi artuta bildur, Ingalaterra, Frantzia eta Portugaltarrai laguntza eskatuz, laukoteko baltzu bat egin eben, Europako errege liberal aldetik laguntza aundiak artuz, Euskalerria ta Kataluniako erriak, galzorian eukezalako.

Orregaitik ikusten da argi emen, liberalak, katoliko aberkideen izenean batzangotzeko berezko errien menpekotasun oiek, Europa ta Mundu osorako, arazo gogorrak izan zirala, alosokerizko, liberal edo aberats eritzikoak diruen billa edo ta nai berezko errigizarteak menperatzeko, Goiko Jaungoikuaren lege guztiak zapaldu arren, beti jaurkitu gura izan dabelako berezko errigizarteen eskubide gaiñetik gaur lez.

Ekintza fazizta auek aurrera eroateko gaiñera, K.o.325eko urtetik antolatu eben Katoliko aberkidearen erlijio orregaz, euren aldeko sasi-jainkoaren agindu lez biurtu ebazan egiten ebazanak, eskubidearen jabedun lez agertzeko, norkeriz asmatzen dabezan guztiak.

Mundu onen edestitik zear guda txiki ta nagusiakaz, ainbat odoljariozko sarraskiak egin dabez eten bage, ezeren lotsa barik.

1.834ko Dagonillan, karlistak Bermeo erasotzen dabe.

1.834ko urtean Dagonillaren 9tik Azaroaren 4rarte Vn Karlosek, guda gogorrean asten da espainitarren lurraldetatik, Rusia, Prusia eta Austroungaro kaizartzaren laguntzagaz.

1.834ko urtean Dagonillaren 19an Zumalakarregik, San Faustoko arkaitz mendateetan, Karondolet baroi gudal nagusiaren indarrak menderatuz gain, 6.000 ogorleko, 3.000 izkillu inguru, ta espainitarren jaurlaritzatik edo gudal agintaritzatik mezuak emoteko, ibilten eben itz berezien liburua(2) lortu eban.

1.834ko Iraillaren 5ean karlistak, Bergara erasotzen dabe.

1.834ko Iraillaren 14an Bianan, Vn Karlos Euskalerriko Ego aldera aldatu zanetik, Rodil eta Gallosotar Jose Ramon IIn Isabelen gudal nagusia, bere atzetik ibili zan noz arrapauko eban, eta Zumalakarregiri parebako aukera agertu jakon euki ebazan 240 zaldun gudariakin saiatu ta talde ori atonduteko.

Karondolet baroi gudal nagusi liberalak, jakinda Bianan egoala Zumalakarregiren zaldun talde ori, bere 300 zaldun eta 6oo gudariekin bertara joan zan, eta emem borrokatu ziran lenengoz, karlistaren zaldunak, kristino liberalaren zaldunakaz.

Karlistak 200 zaldun liberal il ondoren, garaipen aundia lortu eben.

Eta Tomasek, emen egiztu eban bera gai zala, egizko gudalozte bat antolatzeko.

1.834ko urtean Iraillaren 18an Andetxaga, Sopelana ta Marrasa karlosen gudal nagusiak,

(1) Bere gudalozteen aintzindari nagusi = jefe supremo de los ejercitos karlistas. (2) Itz berezien liburua = libreto con las palabras codificadas en clave.

Burgosen sartuta, Billarkaioraiño eldu ziran.

1.834ko urtean Iraillaren 28an Liberalak, Kesada gudal nagusiari ordeztu eutson Rodil eta Gallosotar Jose Ramon gudal nagusia kentzen dabe agintaritzatik, Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebazalako. Lorenzotar Manueleri emonda kristinoen agintaritza ori.

1.834ko urtean Dagonil eta Iraillako ille oneitan, gudako borroka oneik lukurreri ta mendekuak izatera biurtu edo gogortu ziran, eta kristino liberalak, Arantzazu ta Berako lekaretxeak erre ebezan.

1.834ko urtean Urrillaren 14an, Lorentzotar Manuel liberalaren gudal nagusiak, karlistaren alde egiten eben alkateari, eriotzera zigortu ebazan, eta Vn Karlosen taldetan borrokatzen ziran mutillen gurasoai, erbezteratzeko zigorra agindu eutsen.

Eta zigortasun orreik gitxi ba ziran, beazun edo gibeleko ur beltzak(1) zabaldu ziran Euskalerriko lurraldeetatik.

1.834ko urtean Urrillaren 21ean Zumalakarregik, Burgosetik Logroñora guda tresneriekin beteta joan zan sugurdiari eraso eutson, eta eroan eban guztiagaz geratu zan.

1.834ko urtean Urrillaren 27an Arabako Alegria erritxoan, Txintxetruko zelaikadan Zumalakarregik, Rodil eta Gallosotar Jose Ramonen agindupean egoan O´Doyle´tar Manuel liberalen gudal nagusiari, astindu ederra emon eutson. Alde bietatik 600 gudari inguru il eta O´Doyle gudal nagusia, atxilotuta.

1.834ko urtean urtean Urrillaren 28an Zumalakarregik, Osma´tar Joakin gudal nagusiari, Elizondoko Etxebarriaren bidean, ostatu inguruko lekuan, astindu ederra emonda, onek ez eban euki denborarik, zaldiari bira egiteko be, eta iges egin bear izan eban.

Kesada berak ezarri ebazan guda lege bidetik, arrapetan ebazan gudariak nai oiñezkoak edo agintariak izan, danak tiros ilten ebazan, eta lege orreri erantzuna edo ordezkoak emoteko Zumalakarregik, Uztaillaren 29an O´Doyle´tar Manuel tiros il eban.

1.834ko urtean Azaroaren 4an, espainitarren jaurlaritzak, Espoz eta Illundain ta Minatar Franzisko naparrari agindu eutson, Zumalakarregiren aurka joan zedin, ia geratzen ebazan Tomasen gudako trebetasunak.

Eta Espoz eta Illundai ta Minatar Franzisko naparra, bere gudaloztea antolatzen asita, bere aginpean beste napar agintari batzuk artu ebazan: Jauregi ***"Artzaia"*** ta Oraa ***"Otso buru zuria"*** esaten eutsoenai, bai Goienetxe, Iriarte, Gurrea eta abar.

1.834ko urtean Azaroaren 16an, Frantziaren Orleanseko I Luis Felipe erregearen itsas ministrua Hyde de Neubilleri, Lataillade moxorrotuak bialdu eutson mezua aipatu bear dogu: ***"Auñamendiren mugako mendikateak babestu egiazala, Euskaldunen betiko askatasuna begirunez artuta".***

1.834ko Abenduaren 12an Fernandez eta Kordobatar Luis gudal nagusiak baiña, geiago bere agindupean egon zan Beriaingo Oraa ta Lekumberritar Martzelinori esker, onek, Espoz eta illundain ta Minatar Franzizkorekin Napoleonen aurka ibilita, sasi gudako guduxkan jakintsua zalako, eta euki eben gudalozte sendoagaz, Zumalakarregiri irabazi eutson Berruezako ibarrean, Mendaza ta Asarta erritxoen bitartean kalte aundi barik, Tomasek iges egin ebalako.

(1) Beazun edo gibeleko ur beltzak = còlera.

1834ko urtean Abenduaren 15ean Arkijaseko leenengo borrokan, guda indar asko egon ziran alde bietatik.

Zumalakarregik baiña, Fernandez ta Kordobatar Luis, eta Oraa ta Lekunberritar Martzeliñoren guda indar aundiak, Ega ibaiaren baztarretik Arkijaseko basartera jakin ebazalako eroaten, berak urten eban garaipen aundiagorekin. Ekintza orregaz, Espoz ta Mina´tar Franzizkori erakutsita, nogaz borrokatzen ibili zan.

1.835eko urtean Urtarrillaren 1ean Zumalakarregik, Lekaroz, Irurita ta Elbetean sartuta, liberalak Elizondo babesteko euki ebezan indar ingurura urbildu zan.

1.835eko Urtarrillaren 2-3ko egunetan Zumalakarregik, Jauregitar Gaspar ***"Artzaia"*** esaten eutsoen liberalen gudal nagusiaren aurka, nai ta jakin arren onek Karratala espainitar gudal nagusiaren laguntza euki ebela, lortu eban Ormaiztegiko Zelaietan geratzea.

Zumalakarregik ekintza orregaz, Jauregi ta beren txapel gorriaren ibillaldiak ebagiz gain, Espoz ta Minaren joan etorriko amarrukeriak moztu ebazan, ostean Baztaneko lurraldeagaz geratzeko.

1.835eko urtean Otsaillaren 4an Zumalakarregi azten da Elizondo inguratzen.

1.835eko urtean Otsaillaren 5ean Zumalakarregik, Lorenzotar Manuelen liberal gudu indarrak, oarkabetuta(1) euki ebazan Arkijaseko zubian.

1.835eko urtean Otsaillaren 6an Mina liberalaren gudal nagusiak, Okaña gudal nagusia bialdu eban Elizondo babesten, karlistak egin eutsen zelatakin baiña, Ziga errian babestu bear izan eban.

1.835eko urtean Otsaillaren 12an Zumalakarregik, elur aundiak egon arren, Ziga artzera joan zan, eta jakinda Espoz ta Mina´tar Frantzizko urbiltzen egoala, bertan itxi eban.

1.835eko urtean Epaillaren 12an Zumalakarregik, Espoz ta Mina´tar Frantzizkok bere naparrakin, Baztaneko ibarra artuta eukazanaren aurka joan zan, eta Gipuzkoatik asi ta Espoz ta Mina´tar Franzizkok zabalduta euki ebazan gudal nagusiak, banan banan menperatzen joan da, Espozegaz, Etxarri Aranazeko Larremiar mendian aurkeztu zan, Tomasek bere aundienetariko garaipena lortuz.

1.835eko urtean Epaillaren 14an Espozek bere iges aldian, Elizondoko karlistaren ingurutasuna apurtzea lortzen dau, eta bere asarre bizian erritarrat bosgarrenka berezitu ta tiros il da, Lekarozeko erria erre eban.

1.835eko urtean Epaillaren 19an Zumalakarregik, bere gudaloztearen indarrakaz babesteko, Etxarri Aranazera eldu zan, eta ariñago astindu ebazan gudalozteak, ostera aurkezten dauz Etxarrigaz geratu naian, eta gudalozte oneik menderatu ondoren, bere gudaltegira joan zan.

1.835eko urtean Epaillaren 21ean Frantzez Latailladeren zati biko bigarren mezuak:

1ª- ***"Euskalerriko lurraldeak espainitarren erregetzatik kanpo, beti izan dirala Nortasunezko askatasunekoak".***

2ª- Eta ***"Euskal erritarrengandik, Aldundiren orokorrezko diputaduen aginduak beti izaten dirala onartuak, Euskal Foru Legean lan egiten daben bitartean"*** esaten eban.

1.835eko urtean Epaillaren 28an Esparterok, Bizkaiko Miraballes erria menderatu ondoren, Luyandoko erria erre eban.

(1) Oarkabean edo oarkabetuz = distraidos.

1.835eko urtean Jorraillaren 6an Karnizer frantzez karlista gudal nagusia, Mirandako zubian liberalagaitik arrapauta, bereala tiros il eben.

1.835eko urtean Jorraillaren 7an Vn Karloseri bere ingurukoak zirikituta, ta erregetzazko agindu bategaz, Txao´tar Joseph Agustinek beartuta amaitzen dauz, Nafarroatik zear bi illabetetan karlistaren lurraldeetatik aolkulari ta ikerlari egin ebazan ibilbideak.

1.835eko urtean Jorraillaren 8an, Espoz ta Minatar Franziskok, bere gudal agintaritza uztea aurkeztu eutsen, espainitar gudal nagusiai.

1.835eko urtean Jorraillaren 20-22 eguneko bitartean ***"Artazako borrokan"*** Zumalakarregiren gudal nagusiak, Baldestar Jeronimori irabasten dautsoe.

Eta Zumalakarregik, Arkijas eta Auñamenditik Espoz ta Minaren aurka neguko guda gogorretan ibilita, berak Ameskoaseko Ega, Berrueza ta Lanaren ibarretan euki eban gudaltegira txokoratu zan.

Zumalakarregik, ez eban ibar onen auzuneak kaltetu gura, eta gudal liberalak bere billa agertzen ziranean, Ultzama ta Burundako mendarteak joko baten antzera ibilten ebazan gudaltegi lez, eurengandik iges egiteko.

Atzerritar asko izan ziran lerrokatu ziranak karlistaren taldeetan, gero guda onen gertakizunak, idatzita argitaratu egin ebezanak, eta aipatuenak: K. F. Henningsen Inglesa, Alfonso Barres de Molard, Alexis Sabatier frantziarrak ziran, bai ta Augusto von Goeben, Adolfo Loning, Felix Lichnowsky eta Gillermo von Rahden alemanenak.

Karl Ferdinand Henningsen liberalen aldeko Inglesak, denbora onetan esaten eban, IIn Isabelen gudalozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren aztar edo asperkeriz egindako sarraskiak.

Eta 1.835eko Jorrail onetan, espainitarren gudako ministru Baldestar Jeronimok ikusita, Kesada, Rodil eta Espoz ta Minatar Franzizkok, ez zirala izan gai Zumalakarregi geratzeko, berak artu eban Iparraldeko gudaloztearen agintaritza.

Baldestar Jeronimo ministruak, Jorraillaren 14an Logroñotik Gazteizera elduta, 18an, Euskalerriaren Egoaldeko lau lurraldeai agindu bat aldarrikatu eutsen: ***"Zuen onerako, eta zuek osatuten dozuen espainitarren Laterri osoaren lasaitasunerako, bearrezko eta barka ezinezkoa da, anai iltzaille ta biotz gogorkerizko borroka au amaitutea...."***, esaten ebana.

Eta limurtzaille lez, parkamena agindu eban amabost egun barruan, Zumalakarregiren gudaloztetik alde egiten ebanai.

Baiña keiñalari amaitu eban bere aldarriketazko itzaldia:

"Suaren eskuetara botako dodaz, matxin zaleak babesten dabezan ibar batzuen erriak zalantza barik, eta babestu, gure aldera etorten diran sendien etxe ta lurrak. Neurri au mingarria da, baiña gizartearen sentipen guztiak ixildu bear dira, nazioaren onak berba egiten dauanean"(1). (Noren aberria edo ta aberriaren onak ?. Nundik Laterria, Aberri ?).

1.835eko urtean Jorraillaren 19an Gazteizetik urten eban Baldestar Jeronimok 22.000 gudariekin, 34 batalloietan bananduta.

1.835eko urtean Jorraillaren 20an batzartu ebazan Zumalakarregik, bere aginpean egon ziran gudal agintariak, eta 5.000 gudari 10 batalloietan bananduta naikoa zirala Jeronimoren

(1) Nazioaren onak berba egiten dauanean = cuando habla el bien de la naciòn Española. De què naciòn hablamos, de la surjida con la constitución impuesta por la fuerza de las armas en 1.808, 1.812, 1.823 ?. Y donde estan el padre y la madre de ese sucedido o al menos cultural nacimiento ?. Jamàs ha sucedido tal cosa con naturalidad por ser impositiva. Y Jamàs lo ha hecho, por basarse en el imperativo romano-godo nacional catòlico invento que jamàs ha sido aceptado, por ser contrario a la ley natural, partiendo del s.IV en el concilio de Nicea, para colonizar o reunir la vida de èste mundo a la idea de un imperio global catòlico.

indar aundiari aurre egiteko basati lur aietan esanda, borroka orren antolaketak asi zan prestatzen.

1.835eko urtean Jorraillaren 19tik-24ra Zumalakarregik, Ameskoaseko Artaza erri inguruan ezereztu eban Baldesen gudalozte andia, eta onek bere guda indarren babeserako Maeztu, Alsasua, Elizondo, Santesteban, Urdax eta abarreko gudaltegiak utsik itzita, lau Uri nagusienak eta itsas bazterreko toki batzuk izan ezik, Ebro ibaiko Ego aldearen bazterreko mugara aldatu bear izan ebezan bere gudalozteak.

1.835eko urtean Jorraillaren 25eko inguruan, Lord Edward Granbille Elliot liberalaren aldetik jakinda, Zumalakarregi Ameskoasetik Berroezako ibarrera aldatu zala, bertara joan zan, eta Jorraillaren 27an Tomasegaz, egiune edo elkargo bat sinatu eban baldintza onegaz: ***"Arrapatutako gudarien bizitza, nai kristino edo ta karlista izan, lotsean artu bear zala, gero eurokaz trukeak egiteko".*** Iru egun beranduago Baldes gudal nagusiak Logroñon sinatu ebena.

Karlistek ekintza orregaz beste garaipen bat lortu eben: ***"Orraño liberalaren ustez, karlista gudariak, Fazizta lez itxuratuta euki ba ebazan, ortik aurrera, araupedunezko gudariak izatera aldatu ziralako".***

1.834 eta 1.835eko urtearen Udabarri bitartean, Tomasek bere garaipen asko ta sendo bidetik, eukezan gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bekaizkeri(1) aundiak sortu ziralako bai beintzat, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban bere gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu, eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835eko urtean Loraillaren 1ean Sarasatar Juan Manuel karlista gudal nagusiak Gernikan, liberalaren Iriarte napar gudal nagusia menperatzen dau.

1.835eko urtean Loraillaren 15ean Zumalakarregik, Lizarran ezarri eban bere gudaltegi nagusia.

1.835eko urtean Loraillaren 25ean Zumalakarregik, Ordizia inguratzen dau, bertoko liberalak, euren gogortasun aundia erakutsita.

1.835eko urtean Bagillaren 2an, Zumalakarregiren Bizkaiko aizta-makil edo lantzadun zaldunak, Eraso gudal buru nagusiaren agindupean egon ziranak, Deskargako mendatearen bidean zer egoan ikustera joanda, Esparteroren guda indarrak ikusi ebazan, eta astindu ederra emonda gero, 2.000 liberal gudari ta amaibako guda tresneri arrapatuta, karlistak bereala jabetu ziran, Ordizia, Tolosa, Bergara, Eibar, Otxandio eta Durangoko erriakaz.

1.835eko urtean Bagillaren 8an espainitar gobernuak, Frantzia ta Ingalaterrari eskatu eutsen, egin eben egiunegaz arduratu zitezela, eurak, Euskalerriko karlisten aurka bakarrik, ezin ebalako ezer egin.

Nork esaten dau karlistadako borroka au, ez zala Europarena ?.

1.835eko Bagillaren 10ean, Vn Karlos ainbeste guda garaipen bidetik biztuta, Europaren erri artekoetan onartu egiezan, eta bere bide orretatik dirua lortzeko, Zumalakarregiri, Bilbo inguratu ta artzea agindu eutson.

Zumalakarregi ez zan orren eritzikoa baiña, garaipen eta erreztasun aundiagoak ikusten ebazalako Gazteiz artuta, Madrillerantza bideratu bere indarrak, Madril errez menperatu leukelako. Baiña on artu bear izan eban Vn Karlosen eritzia.

(1)Eziñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias.

Eta Bilbora joateko artu eben erabagia, obeto ezin asi, Zumalakarregik deskargako mendatean Esparteroren indarrak ezereztu ebazalako.

1.835eko urtean Bagillaren 10ean, Zumalakarregik, Lutxana, Banderas, Abando, Deusto, Mirabilla ta mendateen bizkarrak artu ondoren, Durangora joan da, euki eban gudalozte indartsuari azkeneko ikustaldia emon eutson, eta Bilbo inguratzera joan zan.

1.835eko urtean Bagillaren 12an karlistaren lau batalloien artean Bilboko ate guztiak inguratuta euki ebezan, eta Zumalakarregik Bilboko Uriari etsaimendu edo errenditzeko aukerea emonda, Bilbaoko gudal nagusi Mirasol kondeak, ezetzezko erantzuna bialdu eutson.

1.835eko urtean Bagillaren 14an asi ziran karlistak Bilbo bonbakin erasotzen, baiña liberalaren kañoiak sendoagoak izanda, kalte geiago egin ebezan karlisteren artean Bilbotarren artean baiño.

1.835eko urtean Bagillaren 15ean karlistek, Baztaneko gudaltegiak, Bergarara aldatzen dabez.

1.835eko urtearen Bagillako 15ean Zumalakarregi Bilbo inguruan egonda, ikusi gura ebazan Mirasol kondeak Uriari egin eutsozan arresizko sendokuntzak(1), eta Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuiñean dauan lenengo etxean, Kintana jauregiko bigarren solairura igonda, balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egon zan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek ?, saldukeri bidez izatea, tiro ori jaurtin eutsona.

1.835eko urtean Bagillaren 16an Zumalakarregiren aginduz, Karlisten indarrak Erasoren gudal nagusi agindupean geratu ziran, eta onek Bilbo bonbakatzen iraun eban.

1.835eko urtean Bagillaren 17an, Zumalakarregi Zegamara joanda, Gerediaga, Gelos, Beloki, Hurgess ingles sendagilleakaz, eta Telleriatar Franzizko "Petrikillo" esaten eutsoen sasi sendagilleagaitik sendatzeko ardurapean egon zan bitartean, Bagillaren 18 eta 24ko egun bitartean, liberalak, Bilboko gudarientzak eroaten ebazan itsasontzi batzuk, ibaiaren aotik sartu gurean ibili ziran, karlistak baiña, ibaiaren agoa arriz betetako kabarrakaz zarratuta euki eban lez, atzera egin bear izan eben.

1.835eko urtean Bagillaren 19an Ingalaterrako gobernukoak espainitarrakin egindako ongundearen bidez, eta espaintarren gorteko gudaloztearen eskaerari erantzuteko, Lanzy Ewanseri agindu eutson britaniako lejiño bat antolatu egian.

1.835eko urtean Bagillaren 25ean il zan Zumalakarregi'tar Tomas, liberal gudal nagusien poztasun aundienagaz.

20. *OARPENA.*

Orain, alde bietatik borrokatzen ibili ziran ospe aundiko gudal nagusiak euren bizi kondairagaz, eta besteak aipatuta bakarrik aurkeztuko dodaz. 1.835eko Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik aurrera, ikusi dagiguzan, orduko gudal nagusi oneik, euren sari

(1)Arrezizko sendokuntzak = fortificaciòn de la ciudad.

guda izaeraren bizi bidetik(1), zelako azpikeri ta saldukerietan sartu ziran, Berezko Euskalerria ta Kataluniako errigizarteak, Europa eta espainitarren arauzko mende zaleen morroiketara edo zerbitzura aldatu egiezan.

21. *Karlistaren Aldetik, aukeratu ziran gudal-nagusiak.*

Tomasen bizitza, Merinotar Jeronimo Apaiza, Marototar Rafael, Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako IIIn markesa, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Kabrera ta Griñotar Ramon, eta Garzia ta Montoyaren bizi kondairak bakarrik aipatuko dodaz, besteen izenak nai ta garrantzizkoak izan, aitatu txiker bategaz zerrenda baten idatzita bakarrik, bestela lar luzeegi geratuko da idaz lan au.

22. *ZUMALAKARREGI ta IMAZ'tar TOMAS.*

Emen, Zumalakarregiren bizi kondaira labur bat egingo dogu, jakin degun zelako aztura(2) ta sinismenakaz lortu eban, bere gudal nagusitasunezko trebetasun aundi ori.

1.788ko urtean Abenduaren 29an Ormaiztegin jaio zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas.

Bere aita, Zumalakarregitar Frantzisko Antoniok, ondo baiño obeto ezagutzen ebazan Foru edo Euskal Legeak, lotsagizun eta maitasunezko ustego edo sentipen aundian euki ebazanak, Euskal aberkoi aundia zalako.

Zumalakarregitar Frantzisko Antonio, Imaz ta Altolagirretar Maria Anagaz bigarrenez ezkonduta, amaika seme alaba euki zituzen, Zumalakarregi ta Imaztar Tomas, zazpigarren jaiota.

Sendi jakituna zan, eta anaien artetik lau, apaiz eta legezko ikasketak egin ba ebazan, Tomasek legezko ikasketak eginda, berak gudaren ikasketak egiteko borondaterik euki ez arren, aitaren alegiñetik sartuko zan, gudu arlo orrein ikasketak egitera.

1.804ko urtean Iruñara joan zan, eta Ollotar Frantzisko Jabierren bulegoan asi zan lanean.

1.808ko urtean, Napoleonen aurkako borrokak asi ziran, eta Tomasek ogei urte eukazanean, Saldubako(3) gudaltegira joan zan, Portilloren batalloian, Napoleonen aurka borrokatzeko.

1.808ko urtean Bagillaren 8an Lefevre, Napoleonen gudal nagusiren bidez Tuteran, zigor aundia artu ta gero, ainbat borrokalditan kide izanda mendira joan zan Jauregitar Gaspar ***"Artzaia"*** deritsonaren agindutara borrokatzeko, eta or egin zan basa-gerlari edo gudari(4).

Basa gerlariaren idazkari lez, zeaztasun aundiagaz idazten ebazan, gudaldiko agiri guzti orreikaz bere bizkar ganean ibili barik, erri ezberdiñeko apaiz kide artean banatzen ebazan.

Eta basa gerlari taldea egokitasunean indartzeko, ezkutuan eroan bear ebazan antolazko idatz lan orreikaz, eta eurak emoten eutsoezan jakintza ta trebetasunagaitik, miretsi ta maisutasun aundia lortu eban gudarien artean.

Ainbat ekiñaldietan borrokatu zan, Azpiroz, Oiartzun, Kanpezuko Done Kurutzean eta

(1) Sari-guda izaeraren bizi bidetik = en su condición de soldados mercenarios. (2) Aztura = crecimiento del conocimiento, conocimiento empirico. (3) Salduba = Zaragoza. (4) Basa-gudari edo gerlari = guerrillero.

Abariz mendikateetan(1), teniente ordearen gudal mailla artuta.

1.812ko urtean, gudalbasa talde ori, Gipuzkoako gudari menpean ezarri eben ***"ointalde"*** izenagaz, Jauregitar Gaspar, koronel barria izendatu eben agindutara, ta bera teniente mailla artuta, ainbat borrokalditan ibili zan: Zumarraga, Urretxun, Belaskoaingo Subian, Unzue, Ataun, Urrestilla, Irurzun, Aretxabaleta, Bergara eta Loiolan.

1.813ko urtean Zumalakarregi, kapitan guda agintari egin eben, eta Deskarga, Sasiola, Mendaro ta Salinaseko borrokaldietan ibili ta gero, Freire gudal nagusiaren agindutara aldatu zan, San Martzialeko borrokan artukizun aundia eukin da.

Guda amaituz, gudalozte ortan geratu zan kapitaiñezko agintaritzagaz, agirien zaiñezko ardurakin, eta gudarako bear ebazan ikasketak osotzen.

Zumalakarregitar Tomas, Euskal Lege edo Furuen aldeko sinisle sutsua izan zan.

Eta orduko gudal agintari geienak 1.812ko jaurgo barri baltzuaren(2) aldekoak izan da, Riegotar Rafael gudal nagusia 1.820an VIIn Fernando erregearen aurka matxinatu zanean eta ***"Cabezas de San Juan"***etik 1.812ko konstituzio edo jaurgo barria aldarrikatu ebanean, Tomas euren aurkako susmopean eukielako, 34 urte euki ebazala guda zerbitzutik alboratu eban, eta bakearen billa, Ormaiztegiko bere etxera joan zan.

1.822ko urtean Dagonillaren 22an Tomas Almandozen, Monkaioko markezagaz batzartzen da, eta onek Nafarroako taldearen bigarren batalloiko agintari lez izendatuta, Tabuenka liberal gudal nagusiaren eskuetan egoan Benafarroako Karbas askatzera joanda, 600 gudari atxilotu ebazan.

Ortik, Ladron de Zegamatar Santosen agindupean ipini eben, eta ainbat garaipen lortu ebazan.

1.829ko urtean Otsaillaren 10ean VIIn Fernando erregeak, Koronel maillara igoten dautso, eta gudal nagusien artean beragandik sortu ziran zurrumurruzko susmoagaitik, Balentzia eta Extremadurako gudalozteak antolatzen bialduta, ortik, Ferrolera aberkoi gudarien jaurlari lez(3) bialdu eben, Galiziako mendi bideak lapurretatik askatzeko.

Gudal nagusi liberalakin ez zalako ondo konpontzen, espainitar jaurlaritzagaz asarratu zan, eta 45 urte eukezala Iruñako gudaltegira aldatu egien eskatuz, Karmengo kalean, gaur 33ko zenbakia daukanak, 21garren zenbakiko etxean bizi zan bere sendi zai, ta ain gogoko euki ebazan eizak egiten.

Gudal buruak, bera erregetzaren aldeko ez zan izena ipini eutsoen, eta VIIn Fernandoren eriotza gertatu zanean, Zumalakarregik jakinda, Nafartarrak Vn Karlos, VIIn fernandoren anaia erregetzat artuko ebela beldur, Iruñatik alde egin eban baserritar jantzita. Eta Sarasako errira joanda, gobernuaren aurka matxinatuta egoan izkilludun talde bategaz aurkeztuta, eurei beren ezagutza emonda, agintari lez artu eban.

Uarte Arakilera joan da, Iturralde koronelagaz aurkitzen da, eta Ladron de Zegamatar Santos gudal nagusiaren ondamenak jakin ebazanean, Iturralde bera baiño zarragoa izan arren, beren gaiñetik ipini eban gudaloztearen agintari.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIn Fernando erregea il zan.

1.833ko urtean Azaroen 2an Zumalakarregitar Tomasek, gudal nagusi liberalak, beragaitk susmo aundiak euki ebazalako, gabaz, alde egiten dau Iruñatik.

(1) Abariz- mendikateetan = cordillera del Carrascal. (2) Jaurgo barri baltzuaren = sociedad, alianza constitucionalista. (3) Aberkoi gudarien jaurlari lez = como gobernador civico militar.

1.833ko Azaroaren 14an Nafarroako karlisten gudal nagusi izendatu eben.

1.833ko Abenduaren 7an Etxarri Aranazen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be, onartu eben bere gudal nagusitasuna.

1.834ko urtean Uztaillaren 12an Tomasek Baztanen Vn Karlosegaz batzartuta, euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu eban Zumalakarregik eskatzen eutsona, bere gudaloztearen gudal nagusi izendatuta.

1.834 eta 1.835eko urtearen Udabarri bitartean, Tomasen garaipen asko ta sendo bidetik, beren taldeko gudal nagusi artean, eziñ ikusi edo bikaizkeri(1) aundietan sartu ziralako, Zumalakarregik, birriten uztea erabagi eban beren gudal nagusitasuna, Vn Karlosek baiña, ez eutson onartu, eta sendotu egin eban bere agintaritzan.

1.835eko urtean Bagillako 12an karlistek, lau batalloien artean, Bilboko ate guztiak inguratuta euki ebazan, ta urrengo egunean Zumalakarregi Bilbora joan da, ikusi gura ebazan lez, Mirasol kondeak Bilbon egin ebazan arresizko(2) sendokuntzak, Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuiñean dauan lenengo etxearen bigarren solairura igon eban, eta balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egoan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek saldukeriz izatea, tiro egin eutsona.

Berak ez eban gura ankarik ebagitea, eta lenengo sendabideak eginda berak lendik ezagutzen eban Zegamako Telleriatar Franzizko ***"Petrikillo"***rena joan ziran tiroiña atara egian, baiña tiroiña baleike kota, zaborraldi edo tetanoserako prestuta egoalako, gorputzatik zabaldu jakon kota edo zaborraldi ori.

Zumalakarregitar Tomasen ikurra, ***"Jaungoikoa ta Foru edo Lege Zarrak izan ziran"***.

Eta 1.835eko urtean Bagillaren 25ean Zegaman il zan Zumalakarregi ta Imaztar Tomas Abertzale sutsua.

Karlistadako gudan, bere anai Zumalakarregitar Migelek, bera baiño 15 urte zarragoa izan zanak, itxuraz, konstituziozko alderdiekin bere aurka jokatu ba eban gudal nagusi lez, 1.841eko urtean liberal lerrotan egon ziran ainbat euskal gudariekaz batera, Esparterori alegindu eutsen lez, Euskal Foru legearen alde egin egian, Tomaseri be, ainbat itxaropen emon eutson arlo orreitan.

1.846ko urtean il zan baiña Zumalakarregitar Migel, eta Gipuzkoako Aldundia Elgoibarren batzartuta, bien irudiakaz oroikarri bat eraikiteko erabagitu eben, baiña orduko denboran dirurik ez egolako, gaur oraindiño erabagi ori bete barik daukagu.

23. *Merino´tar Jeronimo Apaiza.*

1.769ko urtean, Burgoseko Billobiado erritxoan jaio zan Merinotar Jeronimo gaztelar apaiza au, eta 1.844an Frantziako Lanon errian il.

Beren aita-amak nekazariak izan ziran, eta anai arrebaren artean bigarrena izan zan.

Lermara bialdu eben latiña ikastera, baiña anai zarrena il jakon lez, ostera etxera itzuli

(1)Eziñ ikusi edo bikaizkeriak = envidias. (2) Arresizko sendokuntzak = amurallamiento, fortificaciòn de Bilbao.

bear izan eban, nakazaritzaren lanetan laguntzeko.

1.790eko urtean berak 21 urte eukezala, Billobiadoko apaiza bere lagun aundiena il zan, eta Kobarrubiaseko erretorearen laguntzarekin, lortu eban abadetzaren ikasketak amaitu, eta lenengo Meza Santua Billobiadon emon ondoren, bertan apaiz lez geratu zan.

1.808ko urtean Urtarrillaren 16an Billobiadon, Napoleonen gudari bereziak agertuz, bera erritarren artean dala, eta ikusi erritar guztiei zelako galarazoekin beartu eutsen gudal tresneriak Lermara eroan zedin, bere bizitza, guztiz aldatu zan.

Merinotar Jeronimok, bere esaneko atzalburuen artean: ***"Jainkoak, Gizona zutik sortu ebala, eta iñoren aurrean ez ebala zetan bururik makurtu bear"*** esaten eban.

Jeronimok, ziñez itz emon eban, geikeri orren aurka borrokatuko ebala, eta lenengoetan bere serbitzailleakaz erregearen ibilbidetatik Frantzezari erasotzen, gero bere lobagaz, eta apurka apurka inguruko erriakaz alderdikidetuta, bere gudaloztea bear eban agintariekaz antolatu ondoren, sasi gudako trebetasunean, aipatuenetariko bat biurtu zan.

Berrogei urte beteteko eukezala, eta ***"Burugogor"*** deitzen eutsoen izenaren aipu edo baietza emonez, Roan egon ziran Frantzezak bota ebazan, euren inguruko lurretan sua, trebetasun aundiz erabilita.

Geroago, Kobarrubiasen batu ebazan sasi gudan ibili ziran gidari guztiak, gaztelanian zelango jokoa eroan bear eben, jakin arazian ipinteko.

Roa, Aranda, eta Lermako udal batzarrak, ainbat gazte bialdu eutsoezan borrokan gudari lez laguntzeko, eta eurokaz ustekabean, Rodrigo Urira joanda, suburdi bateri eraso eutsen Kintanako Zubi parean, eta eroan ebazan lerrauts edo bolbora, kañoi eta bonba askogaz geratuta, arrapau ebazan zaldi ta euren tresneriak, nekazariaren artean banandu ebazan.

Demandako mendikateetan babestuta egon zan lekutik, ainbat eraso egin eutsoezan frantzezai, eta len "Gurutze Gorria"ren xingola emon ba eutsoen, orain koronel gudu maillara igon eban.

1.809ko urtean Bagillaren 9an Jeronimo bere taldeagaz, Tordomarreko erritxoan dagoela, Burgosetik urtengo eben Frantzez guda talde bat Lermara joateko jakin eban, eta bertara joan da, Dukearen etxea erasota, frantzezak azpiratu ebazan.

Ostean eta inguruko errietatik, ainbat ikasle lerrokatuko ziran beren guda taldean, aien gazteen artean gero, espainitarren diruaren arduraduna eta Banketxearen lenengo jaurlari izango zan, Santillantar Ramon egoala.

1.809ko urtearen Uztaillatik aurrera, Burgos eta Balladolizen bitarteko ibilbideakaz arduratuko zan.

1.810eko urtean Urtarrillaren 22an Dueñaseko erri inguruan, 1.500eko Frantzez guda talde bateri eraso eutson, eta 200 frantzez gudari baiño ez eben lortu iges egiterik.

1.811ko urtean, Burgoseko "Usaresen Zaldiko" taldea irasi eban, eta 1.812ko urterarte Duero ta Lerma bitartean ibilita, Padilla eta Printze laguntzarekin, mugak babesteko lerro bat eraikita. Ortik, Kataluñara bialdu eben, brigadier gudal nagusien agintaritzagaz.

1.814ko urtean, Burgoseko gudategira gudal buru yaurlari lez joan zanean, eta VIIn Fernando espainitar lurraldeetara itzuli zanean, Balentziako kalonjetza(1) emon eutsoen, eta bertan Gudal Kapitan nagusiak ***"San Fernandoren Laureada eta IIIn Karlosen Gurutz***

(1) Balentziako kalonjetza = canonigo de Valencia.

Andiagaz" xingolatu ondoren, bere eritzizko zuzentasunagaitik, ango apaizakaz ez zalako ondo konpontzen, bere Billabodioren erriko apaiz ardurak ostera artu ebazan.

1.820ko urtean, Riegok egin eban matxintasunaren aurka agertuta, VIIn Fernandok bere guda taldea ezereztutea erabagi eban, eta Jeronimo, Fernandoren anai Vn Karlosen taldekoa egin zan.

1.833-1.839ko urte bitartean, Vn Karlosen aldeko borrokan ibili zan, gudal nagusi lez.

Eta 1.839ko Dagonillaren 31n Bergaran, Espartero ta Marotok lotsagabeko besarkada egin eben ostetik Frantziara iges eginda, Alenzonen biziko zan bost urtean, 1.844ko urtean 75 urte eukezala il zan arte.

1.962ko urtean ekarri ebezan beren gorputzaren ondarrak Erdiugarte onetara, eta Burgoseko Arlanza ta Solaranako ibar erdian dauan Lerma errian, Santa Klara lekaretxe aurrean illobiratu ebazan bere ezur ondarrak.

24. *Isern ta Maroto´tar Rafael.*

1.783ko urtean Murtziaren Lorkako erritxoan jaio zan, gizon guzurti, maltzurkerizko azpikerietan, eta saltzailletasunezko ekintzatan ibilten zan, Maroto ta Isern´tar Rafael au.

Napoleonen borrokan asi eban bere gudal ikaskuntza, eta Zalduban borrokan egoala, zauritu ta atxilotu ondoren, iges egitea lortu eban.

1.813ko urtean Talaberako guda taldearen buru zala, Perura joan zan, 1.810etik askatuta egon zan Txile, ostera menperatzeko.

1.814ko urtean Rankaguako borrokan irabazle urten eban, eta Txileko Santiago uri nagusian garaille sartuta, Abaskal errege ordearen eskutik gudal agintari maillan, koronelaren maillatik gora izendatu(1) eben.

Bertan, Kortes eta Garziatar Antonia oso aberatza izan zan emakumeagaz ezkondu zan.

1.817ko urtean Otsaillaren 10ean, Txileko gudal kapitan nagusiak, Marotoren eskuetan ipini ebazan Txileko gudal indarrak, eta Otsaillaren 17an, San Martin askatzaille gudal nagusiak, Txakabukoko aldapan menderatu ebazanean Marotoren gudalozte orreik, Maroto zauritu, Markel Elorreaga il, eta bere lagun San Bruno gudal nagusia atxilotu ondoren. Txilek ortik aurrera, bere betiko askatasuna lortuko eban.

1.817ko urtean Marotok, Uetxurabako erritik laguntza eskatzen eban, baiña Santiagora joateko agindua artu eban.

1.817ko urtean Otsaillaren 13an arratsaldeko ordu biak zirala, Santiagoko diru-etxe aurrean, 190.000 urrezko ta zillarrezko ogerlekoakaz zorroak beteta, mando gaiñetan ipini ebezan, ta 6.000 ogerleko(2) zillarrezko trozkoetan(3) egon ziranak ezin ebalako geiago eroan bertan itzita, urten eban Santiagotik.

Diru guzti au, eraso baten bidez, bidean galdu zala esan eben.

1.817ko urtean Otsaillaren 13ko gaba erdian Santiagon, gudal nagusien batzarra egin zan, eta berton Marotoren eritzia on artuta, Balparaisoko itsas portura joatea erabagi eben, itsas ontzietan igonda Perura joateko.

Maroto, Punoko(4) jaurlari arduradun nagusi lez izendatu eben, eta De la Serna errege

(1)Koronel baiño geiago = brigadier. (2) Ogerleko = pesos. (3)Trozko = lingote en bruto. (4) Puno = Peruko Uria Bolibiako mugan, Titikaka ur geldiko aintziraren ertzean erri bien bitartean kokatuta dagoena.

ordeagaz lagun eginda, onek ez eutsolako jaramonik egiten Puno babesteko egiten eutsoezàn eskaerari, bertan itxi bear ebazan alkarrizketa orreik.

1.824ko urtean Dagonillaren 6an Marotok, De la Serna errege ordearen aginduan egon ziran liberal gudalozteak, bere aginduatara artuz, Peruko Juninen zelai zabaletan, Bolibartar Simonen aginduan egon ziran Amerikar errepublikako indarraren aurka egin eban borronea, galdu eban, eta bereala asi ziran biok antolatzen, andik bost illabetera euren artean izango zan azkeneko borroka nagusia.

Maroto, Fernandez ta Esparterotar Baldomerogaz euren saripeko gudal mailla aundiagotzeko, Ameriketaren kolonizaziozko gudatan ainbeste espainitarren gudal nagusi askogaz ibilita, lagun aundiak egin ziran, Euskaldunak konturatu gindezan nondik etorten jakien euken adiskidetasuna, 1.839ko urtean, Bergaran egin zan saldukerizko besarkadari adierazpena emoteko.

Orduko ta gaurko kolonizazioaren batzango, eta diru-zalekeri denboratan, gudal-buruak, saripekoak izanez gain, goian aipatu dogun aolkularitzazko bidetik, eurak ezartzen ebazan konstituzioaren norkerizko lege orreik gure berezko errietan guda-indarrez, daukaguzan morroitasunaren Laterrizko aberri barri oneitan egokitu gindezan, eta Europan eurak izan ziralako indartsuenak, beregandiko(1) Nortasun bereziaren eskubidekoak, gaurko morroilpe(2) onetan aurkitzen gara.

1.824ko urtean Abenduaren 9an egin zan Ayakutxoko azken borroka nagusia, espainitar mende-zaleen gudalozteak De la Serna errege ordeak bideratuta, eta Amerikarren Errepublikako indarrak Bolibarren aginduz, Sukretar Antonio Joseren eskuetan itxi ondoren, espainitarrak menderatu ebazan, eta Laserna gudal nagusia, 15 gudal buru, 16 koronel eta 3.000 guda mutil atxilotu ondoren, Sukre gudal nagusiak Bolibarreri esan eutson guda amaituta: ***"Peru´ren askatasun osoa zala".***

Eta 1.825eko urtearen Urtarrillan, espainitar gudalozteak itsas ontzietan igonda, espainitar lurrealdera itzuli ziran.

Maroto, ***"Ernestina"*** frantzez itsas ontzi aundian itzuli zan, eta VIIn Fernando erregearen Asturias ta Toledoko guda mutillak antolatzen egon ostean, Iruñako gudaltegira etorri zan.

Vn Karlosekin berba egin ebalako, Sebilla eta geroago Granadako espetxetan egonda, Portugalera iges eban, eta Karlosengana joanda, ez zan karlistaren gudalozteetan 1.835eko urterarte lerrokatu.

1.836ko urtearen Dagonillako 30ean Maroto, Kataluniako gudal nagusia izanda, Auñamendiko Nuriatik aldatu zan, eta ainbeste bider galtzaille urten ondoren, gudalozteak Royo gudal nagusiaren eskuetan itzita, Frantzira aldatu zan, Vn Karloseri, Kataluñaren egoera txarra adierazteko´en aitzakiagaz.

1.836ko urtean Urrillaren 5ean Maroto, Frantzira aldatu zan, baiña Eynako erritxoan 21 oiñezko gudari talde azkarrak arrapau eben, eta Tourseko espetxean atxilotu ta iges egin ondoren Burdeosera eldu zan.

1.836ko urtean Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosen ministru Erro´ri idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala jarriko zala bidean karlistaren gudaltegi nagusira joateko.

(1) Beregandiko = originalez en el derecho de èsta naturalización. (2) Morroilpe = carcel, prision, reclusiòn, criado.

1.836ko urtean Azaroaren 14an, Erro ministruak Durangotik, Marotori erantzun eutson: ***"Karlosen agindua zala, egon zan leku bertan iraun egiala, arik eta Katalunian sortu ziran gauzak, eta bera Frantziaren lurraldera zergaitik aldatu zan, argitu arte"***.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gudal nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek, Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838ko urtean Loraillaren 15ean Karlosek, deitzen dautso Marotori etorteko.

1.838ko urtean Bagillaren 20an Gerge gudal nagusiak, Urizarreko(1) mendi katearen ezarpenak galtzen dauz, eta Vn Karlosek, Maroto izendatzen dau Iparraldeko gudaloztearen nagusi.

1.839ko urtean, Maroto asten da berba egiten IIn Isabelen gudal nagusiakaz.

1.839ko Urtarrillatik erregearen gudaltegian, Tejeiroren aldekoak ziranak, Marotoren aldekoarekin asten dira, gero ta biziago izango ziran eztaibadak, marotistak, Isabelen gudal nagusiakaz alkar izketan azteko zaleak izan ziralako.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok, antolatzen asi ziran 1.839ko egiuneen alkarrizketak.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an Marotok, gudal nagusi Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia, Sanztar Pablo, Karmona jeneral ordezko edo brigadierra eta Uriztar intendenziako arduradunari, Lizarrara joateko deitu eutsen, eta izketaldi orrein aurkakoak izan ziralako, Marotok, bostak tiroz il egiezala, agindua eban.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako ***"PUY"*** Baselizaren osteko orman: ***"Gerge, Garzia, Sanz, Karmona eta Uriz Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan"***.

Bertan dago, burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean Vn Karlos asarre, Maroto kendu eban bere agintaritzatik, azpi-suge edo saltzaille bat zala salatuz. Maroto Baiña, egoera orren nagusia zan, eta Karlosek ez eban almenik euki, Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez, ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, ta onek beren aurka egon ziranak, Frantzira erbesteratu ebazanean, zalantzak gogortzen asi ziran.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Marotok, Diego de Leon karlista gudal nagusiak, Ellioten ituna apurtu ebalako aitzakiarekin, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren Kapitañagaz berba egiten dau, Maroto, gudalozte bien artean, Ingelesaren artekaritza billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an sortu zan Espartero eta Lord Hayen´en arteko elkarrizketa, eta Lord Hayenek, Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak, Esparterok, on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña berak, espainitarren jaurkintzan aurkeztu ta gero, karlosen gudalozteak, Isabelen ama Kristinaren agindupean geratzen ba ziran erantzun eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 24an Maroto ta liberalaren gudal nagusi Zabala alkartzen dira, Marotok aurkeztuta, Esparterorekin berba egin gura ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an Abadiñoko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Maroto ta Esparterok.

(1) Urizaarra = peñacerrada.

Eta urrengo egunetan, ongundearen baldintzen idatzia, 1.839ko urtean Bergaran egingo zan saldukerizko egiunaren aurrerapena izango zana.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta judaskeriko besarkada emon ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebazanaren itzagaz.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto, ostera artu eben kristino gudalozteetan, gudal buru nagusi lez, Maroto´ren etxeko kondea izendatuz.

1.847ko urtean Maroto eta Iserntar Rafael onek, Txilera aldatzeko baimena lortuta, bertokoak, goian aipatu doguzan 190.000 ogerleko ostu ebazanagaitik berbetan asi ziran arren, Salaketa orreik, ez ziran iñoz argitu.

Eta bera bere emaztegaz, Santiagoko Umezurtz Kalean euki eban jabetzazko etxea, eta Konkonen euki eban beste etxearen bazterrak garbitu egiotzezan eskatu ta lortuta, txandaka bizi zan Konkon eta Santiagoko etxe artetan, arik eta 1.853ko urtean Dagonillaren 4an il eta 5ean illobiratu zan arte.

25. *Orbe ta Elio´tar Jose Maria Baldespinako IIIn Markesa.*

1.766ko urtean Iraillaren 6an Irunen jaio zan Orbe ta Eliotar Jose Maria ***"Ermuko Mantxuelo"*** ez izenarekin esagutu zana.

Zaldubako ikastetxe nagusian egin ebazan Gizartezko ikasketak, eta gero beren gudal bizibideari asiera emoteko, Santiago gudu taldean Kadete Gizatsuen ikastetxean(1) lerrokatu zan matematikas ikasten.

1.793ko urtean Frantzeraren aurkako guda asi orduko, Bergarako andikien errege ikastetxera joan zan, gero Gipuzkoako gudu taldean lerrokatuta, kapitaiñaren maillarekin.

1.794ko urtean San Martzialeko borrokan, eskumako eskuan zauritu eben, eta txarto osatuta, beso osoa kendu bear eutsoen.

Basileako bakea sinatu zanean, kapitaiñ maillarekin urten eban gudaltegietatik, eta naita beso bategaz geratuta, kikildu barik, esku ezkerragaz idazten ikasteko, Bizkaiko Jauntzaren edestiko ikasketetan asi zan, bere gurasoen ondorengo diru-zain ardureakaz batera.

1.797ko urtean, guztien baimenakin a utatua izan zalako, 1.802ko urtean joan zan lenengoz Ermuko ordezkari lez, Gernikan ospatzen ziran orokorrezko batzarretara, bertan ordezkari nagusi lez izendatuta. Eta urte orreitan, Zamakolatar Simon Bernardorekin joan zan espainitar gortetara, Bilbaoko "Askatasunezko Portu" barriaren gora beran berba egiten.

Zamakolada biztu zanean, iges egin bear izan eban, eta Nafarroako Zamakolaren elkartean ostondu.

Zamakolada amaituta, bere Ermuko etxera joan zan, eta bertatik matxinatuari laguntzen, ainbatetik lortzen ebazan izkilluak banatzen ibiliteagaitik, frantzezak eta prantzez zaleen aldetik oso zelatuta ibili zan, sarritan diru ta espetxeagaz zigortuta.

Eta Bizkaiko 7garren gudaloztea antolatu zanean, bigarren taldean lerrokatu zan koronel agintari maillagaz.

(1) Kadete Gizatsuen Ikastetxea = academia militar de caballeros cadetes.

1.820-1.823ko urte bitartean, jaurgo barri edo konstituzioaren denboretan espetxeratu eban, espainitar zalearen ustean, Egiatar Nazario gudal nagusiarekin azpikari ibilten zalako, eta epaiketan fiskalak ilteko zigorra eskatuta, askenez, urte biko zigorragaz Burgoseko espetxean atxilotu eben, auzipeko ordaiñak, berak ordaindu bear izan ebala.

Burgoseko espetxetik Bilbaoko espetxera eroanda gero, Kadizera atzerriratu eben, eta iges eginda, VIIn Fernando´rengana joan zan, onek 1.823an jaurgo barri ori ezereztu ebanean, ostera Ermura itzulita.

Gernikako batzarretan, orokorrezko ordezkari edo diputadu nagusi autatu eban ostera, eta bere senide Nobia de Salzedogaz batera, erregearen aldeko, gogoko guda mutillaren taldeak antolatzen ibili ziran, bera laugarren guda taldeko koronel nagusia izendatuta.

1.825-1.827ko urte bitartean Nobia de Salzedogaz batera, Bizkaiko trenbidearen aurrerapideko antolakuntzan ibili ziran bera buru zala. Eta Espoz Illundai ta Minatar Franzizko espainitarrekin sartu zanean konstituzioa aldarrikatzen, gure Orbe, guda talde bategaz ibilteagaitik, atzerrira joan bear izan eban.

1.833ko urtean irugarrenez autatu eben Gernikaren orokorrezko Batzarraren ordezkari nagusi lez, eta politikatik aldenduta bizi zan, arik eta karlistada asi zan arte.

Karlistadako guda asi zanean, bera izan zan Bilbon, Karlosen ikurra goratu ebana, eta ez bakarrik Bizkaian, Araba, Gipuzkoa, Santander eta Gaztela Zarraren jazargoko batzarretara be, bialtzen ibili zalako, gudarako bear ziran izkillu, diru, ta guda mutillak.

Sarsfield liberalaren gudal nagusia agertu zanean, eta Gaztela ta Arabako Vn Karlosen indarrak sakabanatu(1) ziranean, berez banandu ziran Bizkaia eta Gipuzkoakoak, Orbe bera, Nafarroara izkutatzen joanda, karlista Foru Aldundiarekin.

1.833ko urtean Abenduaren 7an, Etxarri Aranazen Zumalakarregitar Tomas izendatu eban Euskalerriko gudal buru nagusi lez, eta egon ziran borroka guztietan eskuartze aundia eukinda, Bizkaiara etorri zan, Bizkaitarrak matxinatzeko alegiñean.

Vn Karlosek lan guzti ori ikusita, bere ondora deitu autson, eta bere erregezko itun batzarretara aolkulari lez izendatuta, beste gudal nagusien bekaizkerien bidetik 1.834ko urte askenetan, agintz-ausle(2) izatearen salaketagaz auzipetu eben.

Nafarroako gudaltegira bialdu eben euki ebazan aginte guztiak kenduta, eta Zumalakarregigaz batera ibili zan, onen borroka guztietan.

1.836ko urtean bere errugabetasuna argituz, Vn Karlosek, ostera deitu eutson bere ondora, eta bere itaunezko errege batzarrera ministru lez izendatuz, Bizkaiko errigizartearen zaintzazko ordezkari nagusia(3) be izendatu eban, bere on-zentzuzko ulermenaren Nortasun aundia, dirdiratsu erakutsiz, Kastrejana, Bilboko bi, ta irugarren inguratzeko gudaldietan be, egon zana.

1.838ko Dagonillan bere borondatearen aurka, gudal ministrua izendatzen dabe.

Eta Lizarran egin ziran bost gudal nagusien tiro ilketaren bidetik, Marotogaz asarratuta, alde egin eban ministruaren agintaritzatik.

Zelaiko Mariskala izanda, eta ain omentsu ta ainbeste bider xingolatuta egon arren, Bergaran Marotok Esparterogaz egin eban saldukerizko besarkada bidetik, Frantzira atzerriratu bear izan eban txakur-txiki bat barik, euki ebazan diru guztiak gudalozteentzat

(1) Sakabanatuta = deshacer al enemigo, vencer, dispersar.(2) Agintz-ausle = inobediente, desobediente. (3)Bizkaiko errigizartearen zaintzazko ordezkari nagusia = comisario regio de la vigilancia pùblica de Vizkaia.

emonda eukazalako.

Berak, Bergarako besarkada ori ez ebalako onartzen, atzerritasunean be beti zainduta egon zan, eta ata guzti, beste karlista gudal nagusiakaz, danak ostondutako izenakaz ibili ba ziran, berak, beste matxintasun bat antolatzen ibili zan.

1.847ko urtean bere emaztea oso gaixorik egoalako, bere seme Nepomuzenotar Juan etorri zan Erdiugarte onetara, bide batez galdu ziran etxeko jabetzak berrezkuratzeko.

1.850eko urtean Uztaillaren 21ean, Burdeosen il zan gure Orbe ta Eliotar Jose Maria ***"Ermuko Mantxuelo"*** Euskal abertzale goragarria.

26. *Egia´tar Nazario.*

1.777ko urtean Uztaillaren 28an Durangon jaio zan.

Egiatar Franzisko gudal nagusiaren loba izan zan.

Nazario bere osaba lez, erregearen al osokerizko zalea izan zan.

1.794-1.795garrenengo urtetan berak 16 urte eukezala, Frantzezaren aurka ibili zan, Franzisko bere osabaren agindupean, egiuneko(1) borrokatan.

1.797ko urtean Zamorako injineruaren gudu ikastetxean sartu zan, urte bi geroago tenientearen gudu maillakin urteteko.

Askatasunezko gudan ibilita, ainbat bider goratu eben gudari maillan, eta gudal nagusiagaitik deituta, Kadizeko Uria ta Leon(2) ugartearen sendokuntzak bideratu ebazan.

Erregetzazko al osotasunaren aldekoa izan da, VIIn Fernandoren uste osoa euki eban, eta onek 37 urte bete barik eukezanean zelaiko mariskala izendatu eban, ta geroago Galiziaren orokorrezko kapitaiña.

1.829ko urtean izakera gogorrekua izan da, bere ondoan ibili ziranetatik, ainbatek, alde egin bear izan ebelako, ilteko gaiztakeria egin eutsoen, zorionez, ezker ta eskubiko eskuetatik atzamar batzuk bakarrik kenduta.

1.830eko urtean VIIn Fernandok, Egia etxearen kondea, izendatu eban.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIn Fernando il zanean, Karlosen alde kokatu zalako, Frantzira atzerriratu bear izan eban, eta Euskalerrian ordurarte, Moreno´en agindupean, egon ziran karlisten gudalozteko 25.000 gudarien buru, ipini eban.

1.835eko urtean Gebaran, eta 1.836an Arlabanen, Fernandez Kordobatar Luisen aurka borrokatu zan.

Balmaseda ta Merkadilloko liberal indarrak menperatu ebazan, eta errien babespideko arresiak ezereztu ondoren, Durangora aldatu zan bere gudaloztearekin.

Nazariok, aurrerakuntza aundia emon eutsen erasoko ekiñaldiai, baiña ez eben asko balio, gudal nagusien artean, bekaizkeri ta adi-ezin askotan ibili ziralako.

1.835eko urtean Urrillaren 8an Nafarroako errege ordezkoa izendatu eben, eta gudal nagusien artean jazarraldi asko egon zalako, Vn Karlosek, desegin eban erabagi ori.

1.836ko urtearen Loraillan Vn Karlosek, diru ordainketa bageko, IIIn Karlosen Gurutzeagaz xingolatu eban, eta beren erregeari eskertu ondoren, bere agintaritzatik alde egin eban, bere kide gudal nagusi artean, mii-gaizto edo murmurikari asko egon zalako.

(1) Egiune = pacto, covenio, convenciòn, contrato. Egiuneko borrokatan = guerras de la covenciòn. (2) Leon ugartea = Ugarte txiki bi dira are ondarrakin alkartuta dagozenak, euren gaiñean Kadiz eta San Fernandoko Uriak daukazela. Santi Petri itsas-besoa ta zubi bi urbiltzen dabe erdiugarte onen itsas-bazterragaz.

1.836ko urtearen Uztaillako 10ean bere borondate ona erakustearren, aldarrikapen bat agertu eban, bere emaitzakin ainbat liberal gudari, karlistaren gudalozteetara aldatuta. Bere agintaritzan, gudaloztearen indarrak, 10.000 gudariakaz geiagotuta.

1.839ko urtean Bergarako egiunean, Marotoren alde kokatu zan.

1.840-1.849ko urte bitartean Frantzian atzerrituta bizi zan. eta ostean Egiaren Etxeko kondea izena ta jeneral ordezko guda mailla onartuazo eutsoenetik, Tolosara joan zan bizitzen.

1.849-1.853ko urte bitartean, senatore egin eben.

1.865ean Tolosan il zan Egiatar Nazario.

27. *Gerge ta Yaniz´tar Juan Antonio.*

1.789ko urtean Bagillaren 26an Agilar de Kodesen jaioa.

1.809ko urtean Otsaillaren 18an Napoleonen eraso bidetik, eta bere osabaren eredua artuta, sartu zan soldautzara, oiñezko gudari lez.

1.810eko urtean, Sansol, Tarazona eta Arnedilloko borroketan ibili zan.

1.811ko urtean, Kornago, Yerga, Urduñan ta Bilbon. Eta aurreratxoago, Salinas de Añana, Nanklares eta abar, Napoleonen aurkako gudak teniente maillagaz amaitu arte.

Napoleonen borrokak amaituta, eta pakezko zortzi urtearen ostean, Riegok, 1.812ko konstituzioren aldarrikapena eginda, eta VIIn Fernando erregeen alosokerizko jaurgoaren artean, sortu ziran eztaibada bidetik, 1.822ko urtean, konstituziozko liberalaren aurkakoa agertu zan, ta urte orreitan 33 urte ebazala, erregearen gudalozteetan kapitain lez lerrokatzea erabagi eban.

1.824ko urtean Napar Euskalerritik ainbat borrokatan ibilita, koronel ordezko maillara igon eben.

1.827ko urtean Dagonillaren 12an, Brioneseko Legariaren Jauregiko alaba, Ita ta Murillestar Franzizka Paulagaz ezkontzen da, eta bere emaztea ain laster ilda, 1.831ko urtean berak 42 urte eukezala, bere koiñata Ramonagaz ezkondu zan.

1.833ko urtean VIIn Fernando il zanean, bera Fueroen alde jokatutearren, Vn Karlosekin lerrokatu zan, eta Zumalakarregitar Tomas euki eban lenengo agintari nagusi lez.

1.835eko urtean, Kataluñarako gudaldi bat antolatu eban, uts galanta egin ebana.

1.837ko urtean, Zelaiko Mariskala eta Bizkaiaren orokorrezko gudal nagusi jenerala izendatu eben.

1.838ko urtean, Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztearen buru izendatu eben.

1.838ko urtean Bagillaren 20-22ko egun bitartean, Esparterok, Urizar mendietako(1) borrokan irabazi eutson, eta agintaritzatik kenduta, bere ordez Marototar Rafael izendatu eben.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Marotok jakinda, Esparterogaz antolatzen asi zan egiunearen aurkakoak izan zirala, ta bere aurka Gerge beste lagun batzuekaz elkarganatzen ibili zala, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Gartzia ta Sanztar Pablo gudal karlista nagusia, Karmona koronel ordezko edo brigadierra, eta Uriz intendentzi edo buruzpidearen arduradunagaz batera, Lizarrara joan egiezan agindu eutsen, eta eurokaz berba eginda gero,

(1) Urizar mendietako = cordillera de Peñacerrada.

Marotok, bostak tiros il egiezala agindu eban.

Eta 1.839ko urtean Otsaillaren 18an, Gerge ta Yaniz Juan Antonio beste lau karlista nagusiekin tiros il ebazan, Puy Santutegiaren orma ostean. Bertan dago euren oroimenezko burni xafla.

Euren gorpuak, lizarrako illerriaren gudal nagusien erri illobian obiratuta dagoz, bere ereñoztutako gurutzen azpian: ***"Dios, Patria, Rey. A los generales Carlistas Garzia, Sanz, Guergue, Carmona, y Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839, dedican este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I.P.".***

28. *Kabrera eta Griño´tar Ramon, Morellako lenengo kondea.*

Kabrera ta Griñotar Ramoneri ***"Zaldun-erri edo Nausi-erriaren(1) odol zaleko Katamotza"***(2) esaten eutsen, bere eskuetan jausten ziranak, espainitar mende zaleak egiten eben antzera, liberal agintari eta gudariak tiros il egiten ebazalako.

1.806ko urtean Kataluñako Tortosa errian jaio zan, eta 1.877ko urtean Inglaterrako Wentworth´enen il.

1.833ko urtean espainitarren ondorengo guda asi zanean, apaiz gaitegia itxi eban eta Karlistarekin lerrokatu zan.

1.835eko urtean, gudal nagusia izatera eldu zan.

Nogeras liberaltarren gudal nagusia aldi onetan, asarre bizian egoan, Kabreratar Ramonek, euren aldeko gudari liberalak arrapetan ebazananean, eurak karlistarekin egiten eben antzera, tiroz il egiten ebazalako.

Nogeras bera, espainitarren kaizargo-mende agintariaren kide izanda, nai ta, gauza orreik baiño geiago egiten ba ebazan be, ez eben garrantzizko ardurean artzen eurak egiten ebazanak, gaurko egunetan sortzen dan lez, euren ustean, Nizeako eleiz batzarretik eta sakratuzko gurutzadaren jaun aundiak izateagaitik, euren jabetasunezkoa izatez gain, egiten eban dan guztia, parkatuta euki ebalako.

Orregaitik, kaisar edo konstituzioaren mendetzaille agintarien ustean, matxinatu fazizta batek, nai ta berezko Jaungoikuaren lege bidetik, zentzunezko arrazoi guztiak euki, ez eben onartzen nagusiekaz sarraski orreik egin leikezala, eta Nogerasek eritzi orren bidez, Espoz ta Minatar Franzisko zirikitu eban, Kabreraren ama, ordez il egian, eta bere iru arrebak atxilotu egiezala, inguru guztiko errietan aldarrikatuta erritarrak eredu lez artu egien.

Nogerasen aolku ori ez zan geratu or, Aragoian sasi-gudan ibilten ziran agintarien emazte ta semeak ilteko aolku bardiña emon ebalako ***(espaintarren orokorrezko edestiaren egille D.VICTOR GEBHARDT seigarren atalean 895 896 orrialdean esaten dauan lez)***.

Minak, Nogeraseri baietza emonda, bere gudariai agindu eutsen, nazkagarrizko ilketa ori egien.

1.834ko urtean atxilotu eben Kabrerasen ama, Griñotar Maria, eta liberal agintariak erakusteko eurak euki eben aierkunde edo gorroto aundia, ezeren salaketa eukinez gain: ***"Kabrerasen ama Griño´tar Mariari, ez eutsen bere alabari besarkatzen itxi, ez azkenairik egin, ez buru-estalkirik ipini, eta bera ain ereduzko Kristaua izanda, eleizakorik artzen be".***

(1) Zaldun-erri edo Nausi-erri = maestrazgo. (2) Odol zaleko katamotza = tigre aficionado a la sangre.

1.836ko urtean Otsaillaen 16an liberalak, Kabreraren ama tiroz il ebenean, berak artu ebazan mendeku edo ordain bidetik: ***"Zaldun erriko odol zale katamotza lez"*** esaten eutsoen antzera, arrapau egiten ebazan gudari ta agintari guztiak, ilten ebazan.

1.838ko urtean Vn Karlosek, Morellako kondea izendatu eban.

1.840ko urtean berak, 1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukerizko egiune ez ebalako on artzen, Frantzira atzerritu zan.

1.848ko urtean Kataluñara itzuli ondoren, matxinatuakaz alkartzen da, eta karlistaren bigarren gudako buru egiten dabe.

1.849ko urtean Kabrera, ostera atzerriratzenda Frantzia ta Inglaterrara, eta emen Katherine Ritxard Marianne ingelesagaz ezkontzen da.

1.875eko urtean Kabrerak, ontzat artu eban XIIn Alfonso erregea.

29. *Gomez ta Damas'tar Migel Santxo.*

1.785eko urtean Bagilaren 5ean, Jaeneko Torredonjimenon jaio zan.

1.808ko urtean Bagillaren 9an sartu zan, tenient ordezko lez, espainitarren gudaloztean, Baileneko borrokan egonda.

1.812ko urtean Uztaillaren 21ean ainbat borrokan ibilita, frantzezak Kastallaneko errian arrapau eban, eta Frantziko Autuneko espetxera bialduta, lortu eben iges egitea, eta ostera joan zan bere guda taldera.

1.812ko urtearen Iraillan, kapitan egin eban, eta 1.815eko urtean Madrillen ezkondu zan Paradatar Bizentarekin.

1.816ko urtearen Loraillako 8an, gudaritzari izten dautso.

1.820ko urtean Migelek, Riegotar Rafaelen konstituzio edo jaurgoaren guztiz aurkakoa izanda, Jaeneko gudaltegiaren agintariak eskuratu gura dauz, eta porrot eginda, Jaenetik alde egin bear izan eban.

1.823ko urtean VIIn Fernando erregeak, bere alosokeriaren jabetza ostera berrezkuratu ondoren, Andaluzira joan zan, eta Algeziraseko agintaritza lortuz, Maria Kristinaren errege ordezkotza kendu eban, erregetzazko alosokeriaren eritzikoa zalako.

1.833ko urtean Madrillen egoala, karlistadako guda sortu zan, eta bereala joan zan Nafarroara Zumalakarregiren agindupean lerrokatzeko.

Zumalakarregik, bere gudaloztearen aintzindari(1) nagusi izendatu eban, eta ainbat borroka nagusietan egon zan.

1.834ko urtean Vn Karloseri laguntzen ibili zan, ta Bizkaiko gudal buru nagusi izendatu eban.

Gernika ta Tolosako borrokatan ibilita, Zelaiko Mariskala egin eban.

1.834ko urte orreitan, Orbaizetako markesaren aundiki izena emon eutsoen.

1.836ko Bagillan, gure Euskalerri onetan karlistaren gudalozteak, liberalaren aldetik euki ebezan larritasunezko eraso bidetik lasaitzeko, Vn Karlosek, Asturias eta Galiziatik zirikituzko ibillaldia(2) egin egian agindu eutson, lurralde aiek bide batez, karlistaren aldera urbildu egiezen.

(1) Aintzindari = jefe, cabecilla, administrador. (2) Zirikituzko ibillaldiak = expediciones guereras que se hacian por el exterior, para deskongestionar las provincias vaskongadas y crear adeptos para la causa carlista.

Amurriotik, 2.700 oinezko ta 180 zaldunezko gudariekin urten da, Riaño, Obiedo, Lugo, Akoruña, eta Konpostelako Santiago artu ebazan.

Eta emendik beren erabagiagaz Andaluziko bidea artuta, Leon, Palentzia, Balladoliz, Rekena, Albazete, Billarrobledo, Baeza, Kordoba, Pozoblanko, Almaden, Kazeres, Ezija, Alkantara, Osuna, Ronda, Arkos de la Fronterako erriak artuz, Euskalerrira itzulkeran, Ziudad Realeko Pedro Muñoz ta Segobian Burgo de Osmako erriak artu ebazan.

Uri ta erri guztietatik alde bear izan eban baiña, Rodil eta Narbaezen 25.000ko gudarien gudalozteak atzetik eukezalako.

Eta borroka asko irabazien artean, porrot batzuk euki arren, zirikitasunezko ibilaldi orrek, ez eban garaipenik lortu, iñon ez ebalako lortu karlistaren alde sendotasunezko zaletasunik.

3.000 gudarikaz sartu zan Euskalerrian, baiña artu eban aginduzko arduratik, ez ebalako bete agindu eutsoen baldintzakin, epaitu ta espetxeratu eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n, Bergaran Marotok egin eban saldukeria ikusita, bere emazteagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.846-1.849ko urte bitartean, karlistaren bigarrengo gudan ibili zan, eta Andaluziko gudal buru nagusia izan da, karlistaren utsegiteagaitik, ostera Frantzira atzerriratu zan.

Gomez ta Damastar Migel Santxo, Orbaizetako markesa, edestian sartzen bada baiña, ez da goi aldian oraiñarte esan doguzan gauza gaitik, 1.836ko urtean Amurriotik urtenda, Asturias, Galizia eta Andaluzitik bere kabuz egin eban zirikituzko ibilbideagaitik baiño.

1.864ko urtean Bagillaren 11n Burdeosen il zan, gure Gomez ta Damas´tar Migel Santxo au.

30. *Gartzia ta Montoya´tar Jose Maria.*

1.811ko urtean Dagonillaren 15ean, Lantziegon jaio zan.

1.833ko urtean karlista gudari lez lerrokatu zan.

1.834ko urtearen Otsaillan, gudarien sarjentu maillara igon eben, eta illabete batzuk geroago, alferezeko maillara igon eban. Orren ostean, eta Vn Karlosegaz ainbat lekutik borrokan ibilita, komandante agintari egin eben.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergarako egiune ostetik, Frantzira atzerritzen da Vn Karlosegaz.

1.841eko urtean konstituzionalistak barkamendua agindu ebenean, itzultzen da bere errira, eta Dagonillaren 23an, Gil eta Urartetar Petragaz ezkontzen da.

1.870eko urtean Dagonillaren 27an egin zan matxinadan be egon zan, eta 30ean 8 urterako atxilotuta, urte orren kopurutik, bat bakarrik bete eban.

1.871ko urtean, karlistarekin azpi jokoan asten da, Lopeztar Eusebio(1) lagun eukela.

1.872ko urtean irugarren guda asten danean, Karlistaren gudaloztean lerrokatzen da koronel ordezko agintaritzarekin, gero Lapoblazioneko koronel jaurlari lez, eta guda amaitzen joan zanean, koronel maillatik goragokoa.

1.874ko urtean Uztaillaren 26an, bera ilteko txarkeria euki eban, bizirik urten da.

(1) Lopez´tar Eusebio = 1.846-1.939ko urte bitartean bizi zana.

1.875eko urtean Jorraillaren 30ean karlista porrokatuakaz alkartuta ibili zan.

1.876ko urtean Otsaillaren 2an, guda amaitu zanean Frantzira atzerritu zan, eta erriratu ondoren, beti ibili zan bere karlistaren gudari jantziakaz.

1.900eko urtean Epaillaren 10ean 90 urte euki ebanean il zan, bere Gazteizeko ***"los Arkillos´eko"*** etxean.

31. *Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio.*

1.794ko urtean Jorrailaren 2an goizeko 6retan jaio zan Muñagorri ta Otaegi´tar Jose Antonio, Berastegiren Elutseneko etxean.

Muñagorri ta Larburutar Jose Mateo bere aita, eta Muñagorri ta Tapiatar Juan Bautista bere aitonak, baratari edo agiri-idazleak izan ziran lez, bera izango zan gero, arik eta 1.838ko urtean gudaren gora beran, bere ***"Bake ta Foru"***en adierazpena aldarrikatu arte.

Jakituna izan zan Foruko Legetan, eta orrez gain, Ameraun, Ollokiegi, Plazaola, Urto eta Zumarristako burni-olaren maizter edo etxatiar(1) be izan zan Berastegin, Areso, eta Eratsun´en. Eta batzuetan lan-artzaille lez, Irurtzun ta Gazteizko erregearen bidea egin bear izan eban.

Muñagorrik egin ebazan ikasketak, eta euki ebazan lagun bidetik, liberalaren aldekoa zan, Gipuzkoako liberalaren zuzendari Zabalatar Jose Manuel Billafuerteseko kondearen semeakaz euki ebazan arremanak, erakusten dauan lez.

Guda sortuta, erritar inguru ori baiña, karlistaren alde edo eragipenekoa izan zan lez, bere burni-olakaz ez eban beste aukerarik, karlistaren serbitzura ipini baiño, Zumalakarregi bera be, ainbat bider ikustera joanda.

Guda luzatu egin zan, eta karlista buruzpidearen zaingoak, gero ta atzerago ibilten ziran lez ordainketetan, bera gero ta estuago agertu zan, bere ola-gizon, aizkolari, mandazain, abelzain, eta euki ebazan langilleai ordaintzeko.

Eta egoera au izan zan beartu ebena, ***"Bakea ta Foruen"*** izenean egin eban matxintasun antzeko ori, aldarrikatzeko.

Muñagorri, Nafarroako Iturmendi Udalerrian karlistarekin batzartuta, guda amaitu bear zala ta, euren buruak limurtzen ibili zan, baiña ez eban balio ezertarako.

1.837ko Azaroan Madrillera joanda, bardin egin gura eban liberalarekin, eta Bardají Azara lendakaria izan zanak, onartuta Muñagorriren ***"Bakea ta Foruen"*** eritzizko saioa, guda amaituten bazan, 1.000.000 lauerlekokin sarituko ebala agindu eutson, aurrera egian.

1.838ko urtean Jorraillaren 18an Berastegitik, guda amaitzeko alegiñean aldarrikatu eban bere ***"Bake ta Foruen"*** asmakuntza Giputz ta Nafartarrai. Bere adierazpeneko asken ekintzazko berbakaz, Euskaldun guztiai aleginduz: ***"Gorputz bat lez, izkillatu gindezan, Bakea, Askatasun ta Jabetasunak lortzeko, konstituziozko agintari barrien agindupean".***

Batera, Vn Karloseri be bialdu eutson eskutitz bat esaten: ***"Euskalerritik alde egiela, eta beren erregezko asmakuntzak borrokatu egiezala, errege onartu leukien lurraldeetan, jabetasunezko lurraldeak bakean itxita".***

Karlistak, bereala bialdu eben Iturbe koronela, Muñagorrik bere alde euki ebazan langillearen aurka, eta laster bakeztu edo banandu ebazan.

(1) Maizter edo etxatiar = arrendatario.

Euskalerriko Nortasunean, agerkuntzari abestutea berezkoa zan, eta bereala agertu ziran bertsoetako kantak, bertso au txapel-gorrien artean begiko zana artuta:

"Muñagorriren jendiak
ez dira gerran trebiak
billatu leizke obiak
beñere ez du gauza onik egin
gizon bururik gabiak
diru billa ateriak
aitu bear dizkit beriak".

Muñagorrik, bere bakezko aldarrikapena Euskalerri guztitik zabaldu naian, bertso paperetan agertu ebazan 37 zortziko txikiak baiño geiago. Artean, erritarren begiko onek esaten dauana:

"Muñagorrik diona
bere proklamian
gerra ondatzen gaitu
bostgarren urtian
igaz jarri zan Karlos
Madrilko bidian
bultza zuten atzera
gerra bere oñian".

Saran, babestu ziran muñagorritarrak, Bidasoa ibaiaren ezkerreko aldean, Bera ta Irunen arteko Lastaolan, euren guda kanpaldi oial-txabolak ezartzeko, eta bertatik, Jauregitar Gaspar "Artzaia" eta Lord Hay liberalaren gudal nagusiai deituta, bertora joan ziran, euki ebazan langille indarrak gudan trebetzeko. Ekintza orrekaz, argi agertu ziran Muñagorriren zaletasunak, ta noren alde edo zelako bakearen billa ibili zan.

Madrilleko jaurlaritzazkoak baiña, nai Muñagorrigaz itzarmenduta egon arren, liberalen gudal agintariak ez eben ontzat artzen Muñagorriren aldarrizketa ori, euren lerroetako gudarien artean eukiko ebazan aldaketagaitik beldur ziralako, ta Muñagorriri, O´Donnelek debekatu eutson, Balkarloseko Luzaiden sartzea.

1.838ko urtean Azaroaren 5ean egin eben Muñagorriren taldekoak lenengo irteera, Endara, Biandiz eta Artikutzatik Goizuetaraño, ezeren eragozpide barik.

Muñagorrik bigarren irteeran, Dantxarineatik sartuta, Urdazubira eldu zan, Olaburun egon ziran Nafarroako karlistaren IIn taldetik batzuk atxilotuta.

Muñagorrik orduan agiri bat sinatu eban, bere barruan au esaten ebana: ***"Atxilotuta geratzen ziran muñagorritarrak, askatu egiezala ezeren baldintzazko eragozpenik bage, berak egiten eban antzera".***

Muñagorrik, arrapatuta eukezan karlista guztiai, Foruen alde eta gudaren aurkako mintzaldia emon ostean, danak aske izten ebazan.

Muñagorri ba egoan be, Vn Karlos Azkoitin atrapetako gogoagaz, bere Betelu´ko gazte lagun, Elorrio ta Soroeta´tar Ramon karlista sarjentoarekin, baiña txarto urtenda, onek Berastegiko agiri idazleari bota eutsozan erruak, eta baleike salaketa ori izatea errudun, agiri idazleak bere burua il egien.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n, Bergaran egin zan saldukerizko besarkada ostean Muñagorrik, bere taldekoak askatu ebazan, eta bera, eukazan Berastegiko zeregiñetara joan zan.

1.841eko urtean Urrillaren 7an Esparterok, Gazteizen sartu zanean O´Donnellen asmoak ezereztuteko, Muñagorriren gazte laguna, Elorrio ta Soroetatar Ramon teniente karlistea, bere billa joan zan Zumarriztako burdin olategira, eta 1.841eko Urrillaren 14an aurkitu ondoren, tiros il eban Muñagorri Eratsungo errian, bere emazte Labaientar Joakina, aurrean egoala.

Bere gorputza, Eratsungo eleizan illobiratu zan, eta bertan dagoz oraindiño bere ezur ondarrak.

32. *Uranga´tar Jose Inazio tenient guda-nagusia.*

1.837ko urtean Iraillaren 29an, Peraltako erriari eraso eutson, eta iru agintari nagusi ta 90 gudari arrapatu ebazan.

33. *Gonzalez ta Moreno´tar Bizente.*

Fernandez de Kordobatar Luis liberala urbiltzen egon zanean, Bilboko ingurutasunetik alde egin ebana, eta Mendigorriko borrokan, Kordobak ostera menperatu ebana.

34. *Alzaa.*

Gizon ospagarria, 1.833ko urtean Urrillaren 11n, Oñatin matxinatu zana: "Jaungoikua, Fueroak, Aberria ta Erregearen" izenean.

35. *O´Donnell´tar Juan koronela.*

Bartzelonan tiros il eben, eta egun orreitan Atarazana eta Kanaletas´eko espetxetan, bai gaisotegietan zaurituta egon ziran beste 140 karlista gudariak, baitegiko oetatik atara, ta tiros il ebazan.

36. *O´Donnell´tar Karlos, Juanen anaia.*

Onen esanetatik dator, eukezan lagun gudal alper nagusi batzuei, eta Vn Karlosen gortekoai ipini eutsen ***"Ojalateros"*** izena. Borroka baten batetik agertzen zanean aolku lez, danok banan banan esaten eutsoelako: ***"Ojala si hubieses atacado por este u otro lugar"***, berak ainbeste ***"Ojalà"*** entzun ondoren: ***"Son Vds. ojalateros ?"*** erantzunda.

Gero izen au, Vn Karlos errege-naiaren gortekoen artean zabaldu zan, borrokako zelaietetan ibilten ez ziranak, ainbat kalte egin ebelako gure Euskal Foru Legeai.

37. *Barres ta Molard´tar Alfonso, prantzeza.*

1.830eko urtean Portugaleko I Migel erregearen gudaloztean lerrokatu zan.

1.833ko urtean espainitar lurraldean egon zan, eta guda asi zan orduan, frantzira aldatu zan.

1.834ko urtearen Uztaillan frantzitik, Sabatier´tar Alexis´egaz itzulita, Zumalakaregiren gudaloztean lerrokatu zan, oiñezko tenient maillarekin, bere anai Karlos eta Amadeogaz.

Koronela izatera eldu zan, San Fernandoren xingolagaz(1) sarituta.

1.842ko urtean "Memoires sur la guerre de la Navarre et des Privinces Basques" liburua argitaratu eban.

38. *Sabatier´tar Alexis, prantzeza.*

Zumalakarregiren gogokoa izan zan mutil au, eta gudari maillan kapitain eginda, Mendazako borrokan zauritu zan, eta Frantzira iges egitea lortuz, zauriak osatzen egoala, ***"Tio Tomàs"***en liburua idatzi eban.

1.835eko Loraillan asi zan borrokan ostera.

39. *Ferdinand Henningsen´tar Karl Eskoziarra, Nafarroako zaldunen kapitaña.*

1.815eko urtean jaio eta 1.877ko urtean il zan.

Urdaxetik sartu zan gure ingurura, eta Ormaiztegiko borrokan San Fernandoren gurutzeagaz xingolatu ondoren, tenient ordekoa izendatu eben.

1.835eko urtean Joraillaren 24an, Zumalakarregiren gudategian, liberalaren laguntzaille Lord Granbille ta Elliot´tar Edward´ekin berba egiten egoala, Zumalakarregi, arrituta geratu zan, ainbeste izkuntzetan berba egiten eban Aleman sorterriz, eskoziatar gazte ura, karlistaren gudal nagusien artean ikustea.

1.835eko urtean Jorraillaren 25ean Zumalakarregi il zanean, Ferdinand Henningsenek, bere ereduzko gudaria il zalako, amaitutzat emon eban emengo zeregiña.

1.835eko urtearen Uztaillako 14an, Mendigorriko borrokaren egun bi ariñago aldatu zan mugatik.

1.836ko urtean Ferdinand Henningsen´tar Karlek, Granbille ta Elliot´tar Edwar Lord´eri eskainita, aleman, italiano, frantzez eta gaztelerara itzulitako liburu bat, argitaratu eban: ***"Zumalakarregi ta bere gudal nagusiekin, amabi illabete Euskalerriko lau lurraldetan"*** egin ebazanaren edestiko zeaztasunak azaldu egiten dabenak.

Eta Zumalakarregiri, liburuaren aurrerako marraztu eutson argazkia, danak esaten eben, antza geien emoten dautsona zala.

(1)Xingola = condecoraciòn.

1.837ko urtearen Dagonillan bere izena, Zurita ta Miranbelen arteko gudaldian agertzen da, eta emen orokorrezko karlistaren gudaltegian agertuta, ***"Torys"***en alderdiko agintarien eskutitz batzuk aurkeztu ebazan, bertan Durangoko agindua ezeztatzea eskatzen ebana, Ellioten egiunetik, atzerritar lejionarioak alderatzen ebazalako.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n lenengo guda amaitu zanean, Kaukasora aldatu zan, Stxamyl igarlearen ikurrapean leiñu guztiak batuta, Errusiaren aurka borrokatzeko.

1.849ko urtean Kossuthen alde, Ungriako jaurkintzaren aurka borrokatu zan, eta guda ura amaituta Ameriketaren Alkartutako Laterrietara joan zan, bertan Gudal Nagusi lez, Walker itsas lapurragaz espainitarren aurka borrokatzeko. Eta Ameriketan bereizketako guda agertu zanean, Elkartasunekoakaz(1) borrokatu zan.

Karl Ferdinand Henningsenek Eskozia´tar karlista kapitaiñ onek esaten eban, liberalaren aldeko Inglesak denbora onetan esaten ebala: ***IIn Isabelen gudalozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak.***

Gure Euskalerriko errietan, orduko gizaseme emakumearen artean: ***bildur, ogibide, jende mea, edo ta nortasunaren eritzizko izaeran ainbat naste egon zalako,*** sinismeneko eritziaren arloetan naste aundiak egon ziran liberal edo karlisten alde bietan, eta geienak abertzaleak izaten ba ziran be, salaketaren bildur aundiak egon ziran, liberalaren zigorrez gain, Zumalakarregik berak be, ainbat eriopeko zigorrak aginduten ebazalako, euren aurkako zelatan ibilten ziranai.

40. *Litxnowsky´tar Felix Maria Bizente Andres, Alemana.*

1.814ko urtean Jorraillaren 5ean jaio zan ***"Litxnowsky printze au"***, Eduardo printzea eta Werdenberg´eko konde eta Wostxutzeko Jaunaren seme nagusiena.

Kutxelna, Grabowka, Krzyzanowtz eta Bolatizeko erro ondare edo erro yarauntsien(2) jabeduna.

Gudu bizitzan egin zan gizon, eta orrez gain, erti oitura ta ele ederretan osotu ebazan bere ikasketak. Beethobenek, bere bigarren sinfonia eta iruko eres taldentzak idatzi ebazan ereski batzuk eskaiñi eutsozan.

1.837ko urtean, berak 23 urte euki ebazala, Vn Karlosen gudaltegi nagusira aurreratuta, ***"Prusseko La Gazzette de I´Etat"***eko berri idazle lez aurkeztu zan, eta bere jakintzaren joeragaitik laster egin eben gudal buru nagusi.

1.839ko urtean Bergarako saldukeria ikusi ondoren eta bere errira joanda, Vn Karlosen alde iraun eban lanean.

1.842ko Dagonillan Bartzelonara joan zan, eta espainitar gudal nagusiak, Karlosen gudal matxin-zaleak ezereztuteko naian etorten egon zirala, errigizarte artean zabalduz, euki ebazan lagunari esker, iges egitea lortu eban.

1.848ko urtean Iraillaren 17an 34 urte euki ebazala, Alemaniako matxinada baten il zan.

Lau liburu idatzi ebazan karlista borrokaren gora beran, eta Azkonatar Jose Marik itzuli eban ***"Karlistaren 1.837-1.839ren urte arteko Borrokaren Oroipenak"*** lenengo liburua gaztelerara.

(1)Elkartasunekoakaz = con los confederados. (2) Erro-yarauntsiaren jabeduna = señor de mayorazgos heredados por primogenitura.

41. *Bon Goeben´tar Augusto, alemana.*

1.816ko urtean Hannoberreko Elba Staden jaio zan, Aleman gudal nagusi au.

1.833ko urtean Prusiako gudaloztetan lerrokatzen da, 1.836ko urterarte.

1.836ko Udabarrian eta baserritar jantzita, Frantzitik Auñamendiko muga aldatzen dau, Zugarramurdira elduta.

1.836ko urtean Loraillaren azkenerantza, Ordiziara joaten da, Vn Karlosen gudaloztetan lerrokatzeko.

1.836ko Bagillan liberalak, Ondarribin arrapatu eben, eta Esparteroren mendean egonda, Ebro ibaitik uger eginda lortzen dau Lizarrara iges egitea.

Kadizen ostera atxilotu eben, eta ortik be ostera aske geratuta, Kabrera gudal nagusiaren gudalozteagaz asi zan, gero espainitar konde bategaz Kataluñatik ibilita, gudari maillan koronel orde lez amaitu eban.

1.840ko urtean Alemaniara oiñez itzuli zan, eta Euskalerri, Kataluña ta espainitarren lurraldeetatik karlistaren gudalozteetan lau urtetan lerrokatuta, egin eban guztia idatzi eban: ***"Karlistaren sorkuntza" "Borrokak" eta "Maldaberea"***ren izenagaz, 1.841ean Hannoberren argitaratu egin zana.

1.842ko urtean Prusiako gudalozteetan ostera lerrokatzen da, eta gudal aintzindaritzarako(1) aukeratuta, 1.849ko urtean, Badeneko gudaldia egiten dau Prusiako printzeagaz.

1.860ko urtean VIIIn gudu aintzindaritzaren gudal nagusi lez, O´Donellen orokorrezko gudaltegian egokituta espainitarrakin egin eban Marruekoseko gudaldia.

1.864ko urtean Düppel eta Alseneko gudaldian ibili zan, eta 1.866ko urtean Austriaren aurkako gudaldian.

1.870-1.871ko urte bitartean, Frantziaren aurkako gudaldian egon zan.

Eta 1.880ko urtean Koblenzan il zanean, ospe aundiko goragarriekaz inguratu ondoren, Aleman guda itsas ontzi aundi bateri ipini eutsoen bere izena.

42. *Loning´tar Adolfo Alemana.*

1.843ko urtean Nafarroa eta Euskal lurraldearen lege edo Foruaren liburu bat argitaratu eban, eta 1.844ko urtean, bere artu emonak karlistaren lenengo borrokan.

43. *Karlistaren gudal nagusiak, zerrenda lez aurkeztuta.*

Danen aurkezpena aurkeztu ezinda, nai ta oraindiño askoren gabetasunean geratu, onek guztiok zerrenda lez argituko dodaz.

****-Borbon ta Braganza´tar Sebastian Gabriel, Vn Karlosen bigarren semea.***
****-Billarreal eta Ruiz de Alegria´tar Bruno, karlistaren oneneitariko gudal Nagusia.***

(1) Aintzindaritza = jefatura, estado mayor.

*-*August de Saint Sylbain´tar Louis Xabier prantzesa, Karlosen idazkaria.*
*-*Karnizer frantzez gudal nagusia 1.835eko Jorraillan tiros il eben liberalak.*
*-*Ladron de Zegama´tar Santos.*
*-*Uriz gudal nagusia*
*-*Gartzia gudal nagusia.*
*-*Sanz gudal nagusia.*
*-*Karmona gudal nagusia.*
*-*Iturralde´tar Franzizko koronela.*
*-*Berastegi´tar Balentin.*
*-*Lardizana´tar Inazio koronela.*
*-*Iturriaga´tar Karlos Bernardo.*
*-*Urtizberea (Irun).*
*-*Eraso´tar Benito Franzizko gudal nagusia.*
*-*Zabala.*
*-*Gurrea´tar Manuel.*
*-*Zaratiegi´tar Juan Antonio, Zumalakarregiren idazkaria.*
*-*Gomez ta Damas´tar Migel andaluztarra.*

*-*Wilhelm Bon Rahder´tar Gillermo Aleman koronela, Prusiako guda taldeko injeneru zana.*

*-*Schwarzemberg Aleman printzea.*
*-*Boos-Waldezk ¡, Aleman kondea.*
*-*Stolberg, Aleman printzea.*
*-*Von Vaerst, Aleman diplomatikua.*
*-*Von Rappard Alemana, Ulano taldearen kapitaña.*
*-*Plesseneko Bernardo baroia.*
*-*Das Antaseko baroia, Portugaleko gudari taldearen gudal agintaria eta abar.*

44. *Kadizeko konstituzio edo jaurgo barriaren liberal kristino aldetik aukeratu ziran gudal nagusiak.*

45. *Kastañon´tar Federiko.*

Ez daukat bere bizitzaren kondairatik ezer, bakarrik Euskalerriko lau lurraldearen gudal agintari nagusia izan zala, baiña beren aginduak aipatuko dodaz, gitxi gora bera jakiteko, zelako gizona izan zan.

1.833ko urtean Urrillaren 8an Kastañoñ´tar Fedriko gudal nagusi onek Tolosatik, Iruneko gudal ta errigizarteko liberal agintari guztieri, eskutitz bat bialdu eutsen, Bilbon gertatu zanagaitik oartuz egon zitezen, eta euren aldeko sinismendunak izkillutu egiezala, Tolosara bialtzeko. Agindu ori, bete egiten ez ebenentzat, eriotzazko zigorra aginduta.

Eta egun berean, beste antzeko eskutitz bat gipuztar guztiei, Gaztelaniatik meatxuz etorten zan guda indar aundiagaitik.

1.833ko urtean Urrillaren 14an Kastañonek Tolosan, gudu legez aldarrikatu eban agindu bat: ***"Euren eritzizko aurkakoak tiroz il egiezala"***, edo ta ***"Erritarrak, meatxatu egiezala, gudako itsas-ontzietara bialdu egingo dabezala atxerriratzeko"***. Eta gizartearen edozein maillako seme alabak, euren alde zalatari jokatzen ba eben, saritu egiezala.

Naikoa dala uste dot, maltzurrezko kaisar itxuran eta odol zale gizon iltzaille lez jokatzen eban elementu au ezagutzeko.

46. *Oraa ta Lekunberri'tar Martzeliño.*

1.788ko urtean Jorraillaren 28an Nafarroako Beriainen jaio zan.

Lege gizonen ikasketak egiten egon zanean, osasun aldetik ez ebalako laguntza aundirik euki, ikasteari iztea erabagi eban.

1.808ko urtean Loraillaren 2an Madrillen gertatu zanagaz biotzean ikututa, Kataluñara joan zan gudari lerrokatzeko, eta ezinean, 1.810eko urtean bere gurasoen laguntzagaz, Kuenkako batalloiaren taldean tiralari lerrokatu zan kadete lez, eta borroka askotan ibili ondoren, Erdi Ugarte onen Iparraldeko 3garren gogozko batalloian, sarjentu maillara igon eban.

1.829ko urtean koronel eginda, 1.831ko urtean, erregeen oroiz aurreko(1) taldean, gudal buru koronela izendatu eben.

1.833ko urtean Azaroaren 29an, Lizarrako Merindadearen Berruezako ibarrean, Nazar eta Asartako errietan Zumalakarregiren aurka egin ebanagaitik, koronel baiño mailla bat geiago, brigadier izatera igon eben, aurrerantzean San Fernando Gurutzea eta I Isabel katolikaren Gurutz andiaren xingolakaz sarituta.

Eta berak, gudalozteagaz aruntz onutz ibilteko euki eban azkartasun bidetik ***"Ule Zurizko Otsoa"*** deitu eutsoen.

1.836ko urtean Dagonillaren 24tik 1.836ko Iraillaren 24ra, Kordobak bere gudal buru agintzari uztea erabagi ebalako, ta Espartero oraindiño eldu barik egon zalako, bera izan zan liberal gudaloztearen buru, arik eta Lutxanako borroka bideratzen egon zanetik, Espartero agertu arte.

Bere irabazpidearen bidetik jeneral ordezkoa izendatu eben, eta Morellan, Kabrera ta Griñotar Ramon Morellako kondearen aurka, artu eban astiñaldi bidez, eukezan gudal buruaren agindu guztietatik baztartu eutsoen, geroago, bere len gudal buruko agintaritzan ostera ipinita.

1.840ko urtean Nafarroako senatore aukeratua izan zanean, Filipinaseko gobernari ta gudal nagusi kapitaña izendatu eben, eta 1.841eko urtean Otsaillaren 14an elduzan bertara, ordezko agindu orreik aurrera eroateko.

Filipinaseko gizarteari, laster erakutsi eutsen bere goi mallako jakintza ta zuzenezko ardura, Manilako jendeartean ekanduzko gizabideakaz aleginduta, itsas portuaren araudiak antolatu, gaizkillearen ekin txarrak geratu, eta ikas bideak bizkortu ebazanean, erritarrai al eben on guztia egiten.

A ta guzti bere izena, apur bat loituz geratu zan, agindupean euki ebazan gudal nagusiak egin ebazan ertsaldi(2) biekaz, askok atsekabetuta, asarre agertu ziralako.

(1) Oroiz aurreko = inmemorial. (2) Ertsaldi = presiòn, forzamiento.

1.843ko urtean Urtarrillaren 12an espainitarren jaurlaritzakoak, bere Filipinaseko agintaritzatik aldatuz, 1.844ko Bagillan Kadizen lurreratu zan eta bereala izendatu eben itsas andiko zeregiñetan, ordezko arduraduna.

1.846ko Urtarrillan Madrillen, Pradoko gela nagusian eta aunditasunezko ospean, Txibako borroka irabazteagaitik, San Fernandoren ereñotz koroatutako gurutz andia emon eutsoen, eta 1.847ko Otsaillan beste ereñotzezko xingola bat, Morellan egin eban atzerakadagaitik.

1.847ko Otsail berean, gudaren orokorreko lan gelagaz arduratu zan, bere osasun txarragaitik, denbora gitxi barruan itxi bear izan ebena.

Nafarroako bere Beriaingo errira itzulita, bertan il zan 1.851ko urtearen Azaroko 24an, 63 urte eukazala.

47. *Baldes eta Noriegatar Jeronimo.*

1.784ko urtean Loraillaren 6an Asturiaseko Billarin errian jaio zan.

Obiedoko ikastetxe nagusian ikasten egoala, gogoko gudari lerrokatu zan frantzezaren aurka, eta koronel ordesko gudal mailla lortu eban.

1.816ko urtean Perura joan zan, eta mariskalgo gudal mailla emon eutsen.

1.823ko urtean Peruko gudatean, ez eban onartu, emon eutsen jeneral ordezko agintaritza.

Eta 1.824ko urtean Ayakutxon kendu eben bere agintaritzatik.

1.825-1.827ko urte bitartean, Gazteizeko gudaltegiaren buru izendatu eban.

Kartajenako gudu jaurlari ta politikako agintaria izan zanean, IIn Isabel aldarrikatu eban erregiña lez.

1.833ko urtean Jeneral ordezko gudal nagusi izendatu eben, eta Erdiugarte onen Iparraldeko gudal buru nagusitasunean ipini eben.

1.834ko urtean Nafarroako erregearen ordezko agintaritza emon eutsen.

1.835eko urtean peninsula(1) onen Iparraldeko gudal buru izanez gain, gudako ministrua izendatu eben.

Urte berean, Britania Aundiko erregiñak, Lord Elliot bialdu eban mezulari lez Zumalakarregitar Tomasen gana, arrapatu egiten ziran alde bietako gudarien bizitzak, begirunez edo lotsean artu egiezala gero trukatzeko, eta aurkeztu eutsen agiria bien artean sinatu ondoren, Baldestar Jeronimok, Logroñon egoala siñatu eban agiri ori askenez.

1.841-1.843 urte bitartean, Peruko jaurlari ta gudal buru izan zan.

Bere bizitzan, xingola asko, eta andigarrizko Jaun Izenak emon eutsezan.

1.855eko urtean Obiedon il zan, Baldes ta Noriegatar Jeronimo au.

48. *Kesada´tar Bizente Jenaro, Monkaioko markesa.*

Jaeneko Kesadatar Juan Nepomuzeno, Nikaraguako agintaria izan zana denbora orreitan, eta La Abanako Arango ta Kastillotar Maria Josefaren semea izan zan.

(1) Peninsula = Erdiugartea.

1.782ko urtean Iraillaren 19an Kubako Abanan jaio zan, eta Urrillaren 3an bateatu La Abanako Aingeru Zaindariaren eleizan.

1.794ko urtean bere aitak aginduta, Kubako gudaltegiaren IIIn oinezko gudari taldean sartu zan kadete lez, 1.796ko urterarte bertan egonda. Eta urte orretan erregeak, espainitar erregearen gudari-zain taldeko kadete izendatu eban

1.808ko urtean Loraillaren 2an Murat frantzezaren aurka, Madrilleko borrokan egon zan, eta Badajozera iges eginda, beste espainitar gudari batzukin alkartuta, ordezko koronela izendatu eben.

1.808ko urtean Azaroaren 10ean Burgoseko borrokan zauritu ta atxilotu eben Frantziko Dijonera eroanda, eta andik iges egitea lortu ebanean, Kataluñara joan zan, ortik itsasoz Kadizera joateko, azkenik Santanderreko gudu ta gizarteko jaurlari izendatzeko.

VIIn Fernando Napoleonengandik aske geratu zanean, koronel baiño mailla bat goragokoa(1) izendatu eban, eta geroago Zelaiko Mariskala(2).

1.812ko urtean Kadizeko jaurgo barriaren aurkakoa izateagaitik Frantzira iges egin bear izan eban. Bertan erregearen aldeko mogimenduetan ibilita, eta Frantziako gudalozteekin Erdiugarte onen lurraldeetara aldatu zanean, Nafarroako gudaloztearen gudal buru nagusi izendatu eben.

Eta VIIn Fernando bere errege aulkian ostera ezarri zanean, Granada, Balentzia, Murtzia ta Gipuzkoako gudal agintaritzak euki ebazanetik, 1.825eko urtean Andaluziko Gudal buru nagusien kapitaiña izendatu eban.

1.814ko urtean, Santanderreko lau Uri nagusien agintaritzan ipini eban.

1.820ko urtean Kesada, konstituzio barriaren iru urte gaizto orretan, bera erregetzazko alosokeriaren aldekoa zalako, agintaritzatik kenduta atxilotuz, gero Frantzian atzerritu zan.

1.821eko urtean Erdiugarte onetara itzuli zan, eta konstituzio barriaren aurka borrokatu zan Nafarroako taldearen gudal nagusi lez.

1.822ko urtean Kesadak, gudal nagusi batzuen bekaizkeriko eragipen bidetik, Egiatar Ramon Franzizko gudal buru nagusia, agintaritzatik baztartu eban, nai ta Gergetar Juan Bautista, eta Ladron de Zegamatar Santos gudal nagusiak, bere alde euki.

Eta bere agintaritza, Ladron de Zegamatar Santos´en eskuetan itzi bear izan eban.

1.823ko urtean Egia´tar Ramon Franzizko gudal nagusiak deituta, Parisetik Baionara aldatu zan, eta emendik, Angulemako dukearen agindupean egon ziran 100.000 San Luisen semeakaz aldatu zan Erdiugarte onetara, espainitar gudaloztearen agintari izateko, erregearen al-osokerizko jaurkintza ostera berrezkuratuta.

Kesadak, VIIn Fernando ezereztu eban Kadizeko konstituzio edo jaurgo barri ori, kendu gure eban gudal nagusien eskuetatik, erregeak gudal nagusiaren ordezko izendatuta, eta 1.833urterarte, leku ezberdiñaren agintaritzetan ibili zan gudal nagusi lez.

1.831ko urtean VIIn Fernandok, erregearen oiñezko gudarien gudal buru ta espainitarren oinezko azkar gudalozteen arduraduna izendatu eban.

1.833ko urtean VIIn Fernando il zanean, kristinaren aldeko politikuak, nai ta Kesadak IIn Isabeleri lagundu, Vn Karlosen aldekoa zala susmoa euki ebalako, Andaluziko gudal nagusi kapitaña izendatu eben, eta berak atzerriratzea lez artu ebalako, Zea Bermudezeko

(1) Coronel baiño goragoko mailla bat = Brigadier. (2) Zelaiko Mariskala = Mariscal de Campo.

jaurkintzari sinistuazo eutzen, bera konstituzio barriaren aldekoa zala, eta Gaztela Zarraren Kapitaiñ gudal buru nagusia izendatu eben, Balladolizen egokituta.

Merinotar Jeronimo apaizaren gudalozteak geratu ebazan, eta sari lez Monkaioko markesaren izena emon eutsen.

1.834ko urtearen Otsaillan Baldestar Jeronimok, Zumalakarregiren aurka ainbat bider galtzaille urten ebalako, Kesada izendatu eben, Euskalerri edo Erdiugarte onen Iparraldeko gudal buru.

1.835eko urtean Iraillaren 1´erarte Kesada, erregiñaren al osokerizko jaurkintzaren aldekoa zan, ta Madrilleko eguras-etxean(1) konstituzionalisten matxintasun bidetik, 1.812ko jaurgo barriaren legeak ostera ezarrita, Kesada atzerritzeko iges egiten egoala, Madrilleko lurraldearen Ortalezako erritxoan, Kinto kondearen soloan aurkitu eben matxinatuak.

Eta 1.836ko urtean Dagonillaren 15ean konstituzio barriaren aldeko matxinatuak, Kesadatar Bizente Jenaro Monkaioko markes ori, Ortalezako erritxoan, Kinto kondearen soloan aurkitu eben lekuan, il eben.

49. *O´Donnell´tar Leopoldo.*

1.809ko urtean Tenerifeko Kurutz Santuan jaio zan eta 1.867an Biarritzen il.

Narbaezekin bera izan zan IIn Isabelen erregetza babestu ebana.

1.833-1.839ko urteetan karlistaren aurka borrokatu zan liberalarekin, eta bera izan zan Kabrera karlista gudal nagusiaren aurka, Luzenako ingurutasuna ezereztu ebana. Ekintza orren gaitik, Luzenako kondea izendatu eben.

1.840ko urtean Maria Kristinagaz Frantzira atzerriratu zan.

1.843ko urtean Esparteroren aurka borrokatu zan.

1.844-1.848ko urte bitartean Kubako gudal buru kapitain nagusia izan zan.

1.856-1.858ko urte bitartean, Esparterogaz gudako ministrua izan ondoren, Espartero ordez ipini eben lendakaritzan, liberal batuen agintari lez.

1.859ko urtean Afrikako gudak bideratu ebazan, Tetuaneko Duke izena artuta.

1.863ko urtean lenengo ministrua. Eta 1.865-1.866ko urte bitartean be bai, Bagillako matxintasunaren ostetik.

1.866ko urtean Narbaezeri emon bear eutson agintaritza, eta Frantzira atzerriratuz, berton il zan 1.867ko urtean.

50. *Fernandez ta Espartero´tar Baldomero, Bitoriako dukea.*

1.793ko urtean mantxako gaztelan, Erregearen Uriko lurraldearen Granatulako erritxoan, nekazari, ta bere aitak orrez gain, zalgurdiak egiten ebazan sendi baten jaio zan, eta beren gurasoak eleizkizunezko ikasketak egitera bialduta, Almagron filosofia edo eraman onaren ikasketat bete ebazan.

1.808ko urtean frantzezaren gudatean, 1.809ko urtean apaiz ikasketak baztartuta, gudari lerrokatu zan, gero Leoneko Isla gudu ikastetxean sartuta, gudu ikasketak osotzeko.

°(1) Madrilleko Eguras-Etxean = La Granja.

1.815eko urtean kapitañaren mailla lortu ondoren, Amerikara aldatu zan, Morilloren gudaloztean lerrokatuta.

1.823ko urtean gudal nagusi egin eben.

1.824ko urtean Abenduaren 9an, Ayakutxoko borrokan atxilotu eben.

1.831ko urtean itzuli zan erdiugarte onetara, eta Iruña, Bartzelona, ta Baleares Ugarteetarako emon eutsoen, gudaren antolamenduzko zeregiñak.

1.834ko urtean Bizkaiko gudal buru ta jaurlari nagusia izendatu eban.

1.836ko urtean Zumalakarregi bizirik egon zan bitartean, ainbat uts eginda, eta bera ilda gero garaipentzen asita, Euskalerriaren Iparraldeko gudal buru izendatu eben, Nafarroako erregetzaren ordezkoagaz batera.

1.836ko urtean Abenduaren 16an, Egia karlisten gudal nagusiaren aurka euki eban beren lenengo borroka gudal buru nagusi lez, uts galanta eginda.

1.836ko urtean Abenduaren 24an, garaipen andia lortu eban, Bilbo, karlistaren inguratasunetik askatu ebanean.

1.836ko urtean Abenduaren 25ean Asuako erreka aldatu ondoren, goizeko 9retan sartzen da Bilbora, ta Lutxanako zubia mendetu ebanagaitik, Lutxanako kondea izendatu eben.

1.837ko urtearen Jorraillako asken egunetan, Bilbao ondo babestuta itxi ondoren, Donostira bideratu ebazan bere gudalozteok, eta Lorailleko lenengo egunetan Muñagorrigaz egonda, Donostitik agindu eutsoen bere gudalozteai, Ernani askatu egien karlistaren mendetasunetik.

1.837ko urtean Loraillaren 19an Espartero Ernanin egoala, Bizkaiko Aldundian irarrita zabaldu eban, karlista gudariak eukezan gudu agintari mailla guztikoaren parkamena, ta lotsaren itzuraz beintzat, onartu ebazan Euskal Foru legeen agiriak.

1.837ko urtean Loraillaren 30ean baiña, Madrilleko ***"El Eco del Comercio"*** aldizkaritik, parkamen eta Foruen babes aginte orreik ezereztuta, Lemonauriatar Pedro, Zarrabeitiatar Juan Jose, Egañatar Julian, eta ainbat Foruen alde ta aurka egon ziranen artean, eztaibada gogorrak sortu ziran.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Esparterok, Iriartetar Leon eta Barrikat´tar Pablo, Iruñan tiroz il egiezala agindu eban, Nafarroaren askatasuna aldarrikatzen ausartu ziralako.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Abadiñoko izketaldian euki eben lenengo alkar ikuste Espartero ta Marotok.

Eta urrengo egunetan idatzi ziran elkargoaren baldintzak, 1.839ko Dagonillaren 31ko egunean, Bergaran egin zan saldukerizko egiunearen, aurrerapenezko egunak izango ziran.

Esparterok alkargo orren bidez, beartuta geratu zan Madrilleko jaurlaritzakoak onartu egiezan berak siñatzen ebazanak. Artean baiña, Euskaldunai: ***"Euskal Foru Legeen arazoak euki ebazan lez"***, itxi edo ta aldatzeko oarkuntzagaz idatzita, emoten eutsoezan.

Ekintza onein bidez Esparterori: ***"Gazteizko dukea izatea"***, ***"Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari nagusia"***, eta ***"Arabatarren aita izendatuz gain"***, erregeen eritziko politika barrian, eta orokorrezko politikaren ateak, alde batetik bestera zabaldu eutsezan, aurrerakoi taldearen alderdia, bere agindupean artuta.

1.840ko urtean Urrillako 12an IIn Isabelen ama Maria Kristinak, bere maitaleen eta aurdun ugaritasunen ardura aundian, ez ebalako egiten bere alaba Isabelen ikasketagaitik ezer, Esparterok, Maria Kristina beartu eban, bere alaba IIn Isabelen izenean euki ebazan

erregetzaren ordezko almen guztiak bere eskuetara aldatzea, eta bere eskuetan orokorrezko agintaritz ori artuta asi zan, espainitar lurraldea jaurkintzen.

Abesti bat be atara eutsoen IIn Isabelen ama Maria Kristina erregiñari:

Clamaban los liberales
Que la reina no paría
¡Y ha parido más muñecones
Que liberales había!

1.841eko urtean Urrillaren 2an Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak lagunduta, O´Donnell Iruñan, eta Pikerok Gazteizen matxinatu ziran, Espartero berak bakeztuta, indar gitxiko eztaibada orreik.

Eta 1.841eko urtean Urrillaren 29an, Esparterok bere ezpatea atarata, len Bizkaia, Gipuzkoa, eta Arabako lurraldearen Euskal Foruak babesteko agindua emon ba eben be, espata edo aizto ori atara ebanean, Foru Legeen buru guztiak ebagi ebazan, Euskal eskubideak ezereztuz. Euskaldunak, espainitar beste lurralde lez, bardiñeko legeakaz geratu gindezan.

1.843ko urtean Bagillaren 23an Narbaezek, kendu eban Espartero agintaritzatik, eta Espartero, erbestera joan bear izan eban.

1.843ko urtean Azaroaren 8an Esparterok, Maria Kristinaren ainbesteko galbide bidetik, eta IIn Isabel beste batzuen eskuetan izteko, aurreratu eban Isabelen adiñeko nagusitasuna 14 urtetik 13ra.

1.844ko urtean Euskaldunak, lortu gendun Foruen Lege batzuk berrezkuratzea, baiña ortik aurrera sekula ez, milla urte asko Euskal erri lez, askatasunezko Demokrazian lortu genduzanak, eta gaur oraindiño baituta daukaguzen Ekanduaren Nortasun Aundiko eta bakarrak direnak Europa ontan, gure "LEGE ZAR GUZTIAK".

1.854-1.855eko urte bi onen artean, O´Donnellen aurrekuntzazko jaurkintzaren aldia deitu eutsoen, ta Espartero atzerritasunetik ostera agertuz, espainitar politikagaz kidetu zan.

1.854-1.855eko urte bitartetan Espartero, leen ministrua izan zan IIn Isabelen erregiñ jaurkintzan, eta bera izan zan ***"Kataluña, 50 urteko epeetan, bonbakin erasotu egin bear zala"*** esan ebana, Katalanak, Galicia ta Euskaldunak, zor jakien nortasunezko demokrazien askatasunak eskatzen ebazalako.

1.870eko urtean, espainitarren matxintasunean, IIn Isabel kendu eban erregeen ezar aulkitik, eta Saboyatar I Amadeo ezarri.

I Amadeo au, bereala gogoratu zan Esparterorekin, eta deitu ondoren, Bergarako Printzea izendatu eban erregearen zuketzarekin(1). Bilboko Udaletxeak zoriondu ebena.

Espartero, Martinez eta Siziliatar Maria Jazintagaz ezkonduta, politikatik baztartu zan, andik aurrera Logroñon, bere ezkon bizitza egiteko.

1.871ko urtearen Iraillako 11n Logroñoko Udalak Esparterori, gaur Espoloneko Ibil lekuan dagon oroitzarri aundia eraiki eutsoen, Bilbaoko Udalak 1.500eko pestaren laguntza emonda.

Alan, Bilbaoko alkate ta zinegotzi faziztak, 1.841eko urtean Urrillaren 29an lenengoz,

(1) Zuketz = tratamiento de cortesia.

Euskal Foruak ezereztu ebazanai zorionduz, esker onak be emon eutsezan.

Eta 1.876ko urtean Uztaillaren 21ean espainitarren gorteak, baieztu ta osotu ebazan Esparterok agindu ebazan menperatzail lege orreik.

1.879ko urtean Urtarrillaren 8an II zan Espartero, Bergarako Printze, Lutxanako kondea, eta Garaipeneko dukearen aundiki izen guzti orreikaz, eta Logroñon Santa Maria de la Redondako eleiz nagusian dago illobiratuta bere emazteagaz batera.

51. *Rodil eta Galloso'tar Jose Ramon, Rodilleko markesa.*

1.789ko urtean Lugoko lurraldean, Santa Maria de Trobo errian jaioa.

Konpostelako Santiagon bete ebazan bere ikasketak.

Napoleonen aurka borrokatu eban.

1.825eko urtean Perura aldatuta, El Kallaoko borroka gogorretan ibili zan, ospe aundia artuta.

1.834ko urtean Portugalen matxinatutako erritarren alde borrokatu zan, Portugaleko I Migel erregearen aurka.

1.834ko urtean Kesadak, Zumalakarregiren aurka euki ebazan utsegiteagaitik, aldatu eben gudal agintaritzatik, eta Nafarroako errege ordezkoa izendatuta, Iparraldeko gudal buru nagusiko agintaritzan ipini eben.

1.834ko urte berean, berak be, Karrera, Espartero, Manzanedo ta Lorentzoren laguntza euki arren, San Faustuko atxartetan, Biana eta Gazteizen Zumalakarregiren aurka utsegite asko euki ebalako, Espoz ta Ilundaitar Minagaitik aldatu eben.

Rodil'tar Jose Ramon au, Mendizabal eta Kalatrabarekin, Gudal ministrua izan zan, eta bigarreneko aldi onetan, Gomez karlista gudal nagusiaren atzetik ibili bear izan eban, onek espainitarren lurraldeetatik, zirikituzko ibillaldearen guda egin ebalako.

1.836ko urtean Esparterorekin euki ebazan eztabaida bidez, eta azken gaizto asko euki ebazalako, kendu eben gudal agintaritzatik, nai ta beranduago, bere gudal agintari mailla eta izen ona berrezkuratu.

1.842ko Bagillatik 1.843ko Loraillerarte Esparteroren errege ordetzan, espainitarren aolkularitzazko lendakaria izan zan, eta Esparteroren "Los Ayakutxos" esaten eutsen gudal agintarien alkartekoakin, batera egon zan.

Espainitarren gorteko ordezkoa izanez gain, Extremadura, Balentzia, Aragon, ta Gaztela Barriaren gudal buru nagusia izan zan.

1.853ko urtean, Madrillen II zan.

52. *Manzanedo eta Gonzalez de la Teja'tar Juan Manuel.*

1.803ko urtean Epaillaren 8an Santoñako Darsena Kalean jaio zan.

Gitxiagora joan zan, Aundiki Sendi baten semea zan, eta VIIn Fernandoren erregetzazko asken denboratan, bera ume zala, gurasoak Kubara eroan eben.

1.842ko urtean Maria Kristina oraindiño erregezko ordeak egiten egoala, itzuli zan Erdiugarte onetara, bere ondasunlari(1) ta jopuen sal-erosketako(2) lan bidetik, diruz beteta etorri zana.

(1) Ondasunlari = financiero. (2) Jopuen sal-erozketako = trata de esclavos.

1.845eko urtean Manzanedo ta de la Teja´tar Manuel, Madrillen kokatuta, betiko geratu zan bertan bizitzen.

Diru-etxetan guztiz sartuta, bere eragipenaren bidez, Madrilleko Urigintzaren egitamu askotan sartu ebazan eskuak, eta O´Donelltar Leopoldo, Liberal aberkide katoikoen Batzangotasunezko egitamuaren diru-etxeetan, kidea be izan zan.

1.864ko urtean IIn Isabel erregiñak, Manzanedoko markesaren jaun izena emon eutson.

1.875eko urtean Epaillaren 20an eta erregetzazko lege-aginduen bidetik, bere izena goralduta, XIIn Alfonsok, Santoñako dukearen jaun izenagaz aundiagotu eban.

Bere aberastasuna, muga barik geiagotu eban, salerosketa ta etxe-gintza bidez. Bai ta, Paris ta Londreseko diru-etxetan egin ebazan txaubidezko salerosle arreman(1) bidetik.

Berak, txantxa lez esaten eban, Madrilleko ***Eguzkien Atea,*** bere etxearen baila gibela(2) zala.

"Txori Galanta" benetan. Baiña zeozerren edo alango ***"Biotz-aldi"*** antzeko bat be euki eban, bere Santoñako jaioterrian, ikasketak ordaindu ezin eben gazteentzat, San Juan Bautistaren Ikastetxea eraiki ebalako.

1.882ko urtean Dagonillaren 19an Madrillen il zan.

"Gizon au ez zan izan goian aipatzen dogun Manzanedo gudal nagusia, baiña ustegabean urten dauan lez, eta aldi onentan bereztasunaren aurkako diru ta jopukerizko batzangotasunaren jokua adierazpentzeko, berak emoten dabezalako argi zabalak, ori da arrazoi bakarra, nik argitaratu dagidan".

53. *Espoz eta Illundai ta Mina´tar Franzizko.*

1.781eko urtean Bagillaren 17an Nafarroaren Ibargoitiko ibarrean, Iruña ta Sanguesaren bitartean dagoan Idozin erritxoan jaio zan Espoz ta Minatar Franzizko au.

Bere gurasoak, Espoz eta Minatar Juan Esteban, eta Ilundai ta Ardaiztar Maria Teresa nekazariak ziran, eta ezin ebelako bere semeari ikasketa nagusirik emon, Franzizkok, oiñarrizko ikasketak bakarrik bete ebazan.

1.795eko urtean berak 14 urte eukezala, il jakon aita, eta bera arduratu bear izan eban baserriaren zeregiñekaz.

Bera baserritar abarkakin eta txapelagaz jantzita ibilten zalako, frantzezak gero, iseka edo txantxa lez, ***"Idazineko Laiaria"***(3) deituko eutsoen.

1.808ko urtean Otsaillaren 9an Ezposek 27 urte bete barik eukazala, Napoleonen gudariak D´Armagñanen agindutara ikusi ebazan, Iruñan sartzen zirala.

Iruñan zer gertatu zanagaz, eta eukan eritzizko nasketatik, matxinatuen taldeak nun nai sortzen zirala ikusiz, bera, Rostolang gudal nagusi frantzezaren guda taldean lerrokatu zan, eta talde orreitan bete ebazan lenengo iru illabete, gudari lez.

1.809ko urtearen Otsaillan, bere loba, Mina ta Larreatar Jabier ***"El Mozo"*** esaten eutsoenai, Areizagatar Juan Karlos koronelaren agindupean, lerrokatzeko gazteak aurkezten egon zala, Zalduba edo Zaragoza Napoleonen gudaloztetik bigarrenez babesteko, Espoz ta Minatar Franzizko, O´Doyle gudal nagusiaren taldean lerrokatu zan, beragaz izkilluaren erabilketak ikasten asita.

(1) Txaubidezko sal-erosle arreman bidetik = transaciones comercialistas de inversiòn. (2) Madrilleko ***Eguzkiaren Atea edo Gazteleraz Puerta del Sol: bere etxearen "baila-gibel" zala*** = que la Puerta del Sol, era patio interior de su casa. (3) Idaziñeko laiaria = El labrador de Idazin. Laiaria = layador.

1.809ko urtean Otsaillaren 2an Napoleonen indarrak, Fabre gudal nagusiaen agindupean, Aragoiko Iparraldea menderatzen asi ziran.

1.809ko urtean Epaillaren 21ean Prantzezak Jaka menderatu eben, eta Espoz ta bere taldeko beste lagun batzuk, Uriaren ormatik beratuta, Nafarroara iges egin eban.

1.809ko urtean Uztaillaren 20an Espoz bere loba ***Mozorekin***, batera ibili ziran Ekisoain´eko borrokan.

1.810eko urtean Otsaillaren 20an Mozo, Espoz´en loba atxilotu ebenean, Espoz bere lobaren taldeagaz, Berruete eta Lunbierreko borroketan ibili zan.

Espozek, trebetasun aundia lortu eban, Nafarroa, Gipuzkoa, Aragoi, Araba eta Errioxa aldetik sasi-gudan ibili zanean, eta garrantzi andiko gauza bat, ondo ikasi be: ***"Borrokan ibili bear ebazan lekuak, ariñautik ondo azterkatzen"***.

Ortik aurrera, beti egingo ebena. Eta aurrerantzean: ***"Nafarroako errege txikerra"*** deituko eutsoen.

Eta Ezpoz´ek, jakin ebenean, ***Mozo*** bere loba, Baionako gaztelu zarrean frantzezagaitik atxilotuta egoela, Espoz ta Mina´tar Franzizkok, bere taldeagaz buru ibili zala, eskutitz bat bialdu eutsen ***"Korso Terrestre"***ko lagun guztiei, bere agindupean ipini zitezen.

1.810eko urtean baiña, Korso Terrestre talde ori ezereztu egin zan.

Eta 1.810eko Jorraillan, Korso talde orren bananduta egon ziran gudari guztiak ostera batuta, Espoz ta Minatar Franzizko ipini eben taldearen buru. Bere bigarren Mina abizena Illundairen ordez artuta, danak jakin egien Mozoren osaba zala.

Aragon eta Gaztelako gudal batzarrak, on artu eben Espoz ta Minatar Franzizko ***"Nafarroaren Lurretiko Korso"*** talde orren gudal nagusia izan edin, eta berak eurei aginte orren onespena egiztatuz batera, Gurrutxagatar Gregorio bere ordezkoa izan egian eskatu eban.

1.810eko urtean Loraillaren 13an eldu jakon onespen ori, eta Loraillaren azkenetarako 900 gudari euki ebazan bere agindupean.

1.810eko urtean Uztaillaren 13an Espozek, ***"Lizarrako Azpikeria"*** esaten jakon bidez, Nafarroako sasi gudu talde andienaren agintaria izan zan Etxebarriatar Paskual, ***"Korellako Aragizale"*** esaten eutsoenai, bere gudal nagusi guztiakaz, tiroz il ebazan, Nafarroako erri ta auzunetatik ondatzaille ibilten ziralako.

1.811ko urtean Loraillaren 25ean, frantzez zai-talde batek, espainitar 1.000 gudari ta beste ainbat Ingles gudari atxilotuak eroaten ebanari eraso eutsen, eta 800 frantzez gudari il ondoren, atxilotuta eroan ebezan gudariak, askatu ebazan.

1.811ko urtearen Dagonillan Napoleon artegatuta, 20.000 gudari zazpi gudal nagusien agindupean ipini ebazan, Erdi Ugarte onen Iparraldeko lurraldea, sasi gudarien ekintzatik garbitzeko.

Eta Espozek, frantzezaren gudu indar nagusi orreik isekatzeko(1), bere gudariak Aragoi eta gaztelatik banandu ebazan, bera 1.500 gudarigaz geratu ondoren, sasi guda bidez frantzezak artegatzeko.

Frantzezak guztiz etsituta(2), gogoko guda mutillaren sendikoei, jabetasunezko eskubide, lur ta eukezan abere ta ondasunak asi ziran kentzen, eurakaz Iruña, Olite, Tafalla, Aibar,

(1) Isekatzeko, Iseka = para burlarse, burla tzanza, tomar el pelo. (2) Frantzezak guztiz etsituta = y desesperados los franceses.

Sangotza, Lizarra ta beste erri batzuen espetxe guztiak beteta, eta orren ondoren, asko tiroz il, eta ainbat Frantzira atzerriratzen asi ziran.

1.811ko urtean Dagonillaren 2an Reille gudal nagusi frantzez kondeak, Lerinen lortu eben garaipena, eta atxilotu ebazan 200 gudaritik asko, guda zelai orretan, espatakin il ebazan.

Nafartar errikoiak, zigorraldi orren aurrean bildurtu barik, suztatu edo arrotu egin ziran, eta Espozen taldea gero ta aundiagoa egin zan.

Espoz bera be kikildu barik arrotuz, Reilleri eskutitz bat idatzi eutson, bertan, 1.811ko Dagonillaren 5ean aldarrikatu eban agindua ez ba eben kentzen, bera be, bere antzera asiko zala, gudal nagusi eta euren sendiak ilten. Eta Reillek ikusi ondoren, Minak arrapetan ebazan gudariak urkatu egiten ebazala, beren mendekuak gitxiagotu ebazan.

1.811ren urrengo illabetetan Espozen taldeai ***"Zomorro Gudaloztea"***ren izena ipiniko eutsen, zomorroen antzera, agertu ta aldendu edo suntsitu egiten zalako, len Arlabanen Loraillaren 25ean egin eban antzera.

1.812ko Jorraillan Espozek, beste garaipen andi bat lortu eban, 2.000 frantzez gudariagaz zainduta joan zan ainbat bagoi eukezan su-gurdi gudal-jarraigo bateri(1) bidera urtenda, 600 il, 900 zauritu, 150 atxilotu eta 300 iges aldian ipini ondoren, balio andiko guda tresneriekin geratu zanean.

Bai Bonapartetar I Josek su-gurdi orretan, bere anai I Napoleoni bialdu eutson eskutitz bategaz be geratuz, I Josek erreguz, espainitar erregetzatik alde egiten itxi eutsola eskatzen. ***"Kadizeko Gazeta"*** aldizkarian agertu zana.

1.812ko urtean Bagillaren 5etik aurrera, amaitu ziran Nafarroako sasi gudak, Kadizeko erregearen ordezko gudal jaurkintzalleen aginduz, ***"Nafarroaren Lurretiko Korso"*** taldea espainitarren gudalozte lez arautu ebenean, Espoz, Nafarroako guda taldearen oiñezko ta zaldun buru izendatuta, eta denbora gitxi barru, Bartzelonako Rokaforten garaipena lortu ebanean, gudu zelaiaren Mariskala egin ebenean.

1.813ko urtean Napoleonen gudalozteak, Errusian astiñaldi ederrak artu ondoren, asko makaldu ziran, eta Espozek, inglesak emon eutsoezan kañoi bien laguntzagaz, frantzezak Tafallan euki eben gudu buruzpide(2) aundienagaz geratu zan.

Napoleonek ez eban bakerik euki Mina ezereztuarte, eta Portugaleko Klausel gudal nagusiaren laguntza eskatu eban.

Eta Espoz ta Minatar Franzizkori eskertu bear jako Gazteizeko garaipena, Klausel gudal nagusia denboraz Gazteizera ez daiten eldu I Napoleonen laguntzan, Espozek, bere sasi gudako trebetasunagaz, atzera ta aurrera ibili ondoren, Klausel´en gudalozte orrei, denbora asko galduazo eutsolako, Wellington ta Wellesleytar Arthur Ingles dukeak, bere garaipen aundiagaz urten egian.

1.814ko urtean VIIn Fernando espainitar lurraldeetara itzuli zanean, Erdi Ugarte onetan, Napoleonen aurkako gudak amaituta egon ziran, eta Minak erregeari 12.000 gudarien laguntza eskeiñita, bera absolutismoaren aldekoa zala aldarrikatzeko, Kadizeko Kontituzioa fusilatu eban.

Minak, Nafarroako erregearen ordezkotza gura eban berentzat, baita berak euki eban

(1)Ainbat bagoi eukezan gudal-jarraigoa = covoy militar de gran longitud por sus muchas unidades. (2) Gudu buruzpidearen aundienagaz geratu zan = Centro mayor de inteligencia militar que Napoleón tenia.

guda taldea legeztutea, baiña ez eutsoen jaramonik egin.

1.814ko urtearen Iraillan erregeak, ezereztu ebazan gudalozte orreik, ta Mina bere gudal arduratik kenduta, gudalozte orren gudariak, Aragoiko guda taldetan banandu ebazan.

Minak, agintaritzatik baztartu ebalako asarre, bere guda talde bategaz Garesetik urtenda, Iruña artu gure eban, eta Iruñara urbiltzen egon zirala, eroan ebazan gudariak oartuta, zeren atzean ibili zan, lenengo agintariak eta gero gudariak ez eben ontzat artu, eta ostera joan ziran euren lekuetara.

Mina, Frantzira atzerritu zan, eta XVIIIn Luisek, illeroko 500 frankoakaz saritu eban.

Napoleonek Elbako ugartetik iges ebenean, Minaren laguntza gura eban lortu, eta Mina Suizara aldatu zan.

Minak emendik aurrera il arte, liberalkeriaren alde jokatuko eban.

1.816ko urtean Napoleon, Waterlooko borrokan menderatu ebenean, Mina Frantzira itzuli zan, eta Parisen egoala, frantzezak atxilotu eben, Riegotar Rafael, Diaz eta Porlier´tar Juan, Lazi ta Gautier´tar Luis, eta Bidalek espainitar erregearen aurka, len egin eben antzera ibiltearren.

Baleiteke goian aipatu dodazenak Espozegaz batera, eta Ritxard´tar Bizente masoi talde frantzeza bideratzen ebanagaz, VIIn Fernando erregea baitzeko ibili zirala, eta beartuz, Kadizeko konstituzioa sinatu egian.

1.820ko urtean Urtarrillaren 1ean espainitar lurraldeetan, Riego gudal komandantea matxinatu zan, Kadizen 1.812ko urtean aldarrikatu ziran jaurgo barri edo konstituzioaren legeak ostera ezarri egiezan, Minak aukerea eukinda frantziko atzerritik itzultzeko.

Eta Minak, lege orreik len aurkakoak lez euki ba ebazan be, oraingoan Santestebanen berak aldarrikatu ebazan Kadizetik agindu ziran konstituziozko lege orreik, bertan Nafarroako gudal nagusien kapitaiña ostera izendatuta.

Naparrak baiña, konstituzioaren aurkakoak ziran, eta Minak jakinda karlistaren matxintasuna antolatzen egoala, beren erritarren aurka ez egitearren, Galiziako agintaritza eskatu eban.

1.821eko urtean emon eutsoen Galiziako agintaritza, eta urte ortan, 16 urte eukezan liberal aberats baten alabarekin, de la Begatar Juana Mariagaz ezkondu zan.

1.821eko urtean, iraingarrizko(1) agerkai bat zabaldu eban espainitar jaurkintzaren aurka, eta onen erantzun bidez, agintaritzatik kendu ta Leonera atzerriratu eban.

1.822ko urtean VIIn Fernandok deitu eutson, eta Kataluñara bialdu eban karlistaren aurka borrokatzen.

Kataluñan, garaipen andiak lortu ba ebazan, Kastellfullit´en egin ebana baiña, ez eukan arrazoizko izenik.

Eta erria inguratzen egoala karlistak, iges egin eben erritarren laguntzarekin.

Minak jakinda zer egin eben erritarrak, etxe guztiak erretzeko agindua emon eban, eta zutik geratu zan orma zati baten iragarki au ipini eban: ***"Erriok, eredu lez artu. Aberrien etsairik ez estapeldu"***(2). NOREN ABERRIA ?.

Berak, Jakingo eban noren aberri edo ta espainitarren artean sortu ziran eritzi bietik, zeiñen edo noren erriagaitik borrokatzen ibili zan ?.

(1) Iraingarrizko agerkai bat = un panfleto, o hoja informativo injuriosa contra el gobierno de España. (2) Estapeldu, zaindu = proteger.

Nik uste dot, goian aipatu dogunagaitik konturatuko zala baiña, bera Nafarroako errege ordezkotzaren billa ibili, eta espainitar gudal nagusiak Leonera atzerritu ebenean.

1.823ko urtearen Jorraillan, San Luisen 100.000 gudari semeak Angulemako aginduan Erdiugarte onetara aldatu ziranean, Mina euren aurka ez zalako ezer, Auñamendietan sasi eraso aldi bat egin eban, eta borrokatzen egoala, bere sasi gudarako eukan jakituri andia erakutsiz, erasoko alegin baten Frantzira sartuz, zalditik jausi ta oso larri zauritu zan.

Bartzelonara aldatu eben, eta Uriaren babesa antolatu eban karlistaren aurka.

VIIn Fernando baiña, al osokerizko legean ostera erregetzazko aulkian ezarri zan lez, ez eban euki zentzurik aurrera egiteak, eta Monkay Mariskalari sinatu bear izan eutson menperatuen agiria, Inglaterrara atzerriratuta.

Inglesak, espainitar liberalaren askatasunezko gizandi lez artuta, Inglaterran egon ziran VIIn Fernandoren aurkako matxinatu guztien agintari biurtu zan, eta Frantziko errege aulkian, Orleanseko I Luis Felipe ezarri zanean, espainitarren lurraldeak indarka artu gure ebazan, Nafarroa, Aragon eta Kataluñatik sartuta.

1.830eko urtean Minak, Inglaterra itzita, lenengo Parisera eta gero Baionara joan zan.

1.830eko urtean Azaroaren 18an, Baionan egoala alde bietatik zirikatuta, Berako Nafar errian sartu zan, eta errealistaren eraso gogorrakaz, Auñamendiak ostera aldatu bear izan ebazan, Kanbo, Burdeos ta askenean, Frantziko agintarien begirapean, Parisen bizitzen geratuta.

1.832ko urtean iges egin eban ostera Inglaterrara, bertatik itsas ontzi baten Kadizera joanda.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIn Fernando il zan, eta Maria Kristinak, liberalarentzat sarritan agindu ebazan parkamenetik alboratuta geratzen zan lez, Inglaterrara atzerriratu zan barriro be.

1.834ko urtearen udegoian, ostera deitu eutsoen espainitar gortetik, Nafarroako errege ordezkoa izendatu ta Iparraldeko gudal nagusi lez, Zumalakarregiren aurka borrokatzeko, eta goian ikusi dogu zelako astiñaldiak artu ebazan.

1.835eko urtean Jorraillaren 13an Mina gaixorik eta oso nekatuta, bere agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.835eko urtearen Urrillan Minak, Zumalakarregiren aurka artu ebazan astiñaldiak, zakelean euken minbiziagaz makal, eta bera gudal agintaritzatik baztertuta egonda, askatasunez ibili arren, Mendizabalen jaurkintza denboran, ostera deitzen dautso Maria Kristinak, karlistaren aurka egin dagien, eta gudal nagusi kapitain lez, Kataluñako gudalozteakaz arduratu eben.

1.835eko urtearen Abenduan, Kataluñan arresiz ondo babestuta egoan Santa Maria del Hort santutegia inguratu eban, eta kañoiakin lortu eban menperatzea.

Gudako ekitaldi onetan, Nogeras gudal nagusiak zirikituta il eban, goian aipatu dogun Kabrera karlista gudal nagusiaren ama.

Eta 1.836ko urtean Jorraillaren 1ean Minak, bere agintaritza guztiaren uzte edo yaregitea eskatu eban.

1.836ko urtean Abenduaren 14an bere borondatez, Frantzira atzerriratzeko bidea antolatzen egoan bitartean, 24ko Gabon egunaren gabaz il zan Espoz eta Illundai ta Minatar Franzizko au.

Esparteroren errege ordegotzan, Minaren emazte Begatar Juana Maria, bera baiño askoz gazteago izan zanai, Espoz ta Minako kondesa izendatu eben, eta IIn Isabelen ume zaintzarako laguntzaille egin eben.

Begatar Juana Maria arduratu zan, bere senar Minaren izena bizirik aurrera eroaten, 1.872ko urtean il zan arte.

Minaren izena, diputaduen lege etxean dago idatzita beste izen batzuen artean ***"Askatasunezko Gizandi lez".***

Bearrezkoa da emen itandu bat egitea:

Espozen edesti au ikusita, berak eta bere Nortasunaren gora beran, jakingo eban, zelako edo nungo ABERRITARRA izango ote zan ?.

54. *Jauregi ta Jauregitar Gaspar "Gipuzkoako Biriato" ta "Artzaia"ren ez izenakaz ezagutu zana.*

1.791ko urtean Iraillaren 15ean Gipuzkoako lurraldean, Urretxuko Billarrealen jaio zan.

1.807ko urtean Urrillaren 27an Fontainebleaun egin zan egiune bidetik, espainitarrak, Napoleoneri emon eutsoen baimena, bere gudalozteak, Erdiugarte ontatik aldatu zitezen, Portugalen aurka borrokatzeko, eta Portugal mendetu ondoren iru zatitan bananduta, bat, Godoy "bakezko Printzeentzat" izan zedin.

Espainitar ta Frantzezaren gudalozteak bereala mendetu eben Portugal, baiña prantzezak, egiune orren aitzakiarekin, Bartzelona, Iruña ta Donostirekin geratu ziran.

1.808ko urtean Epaillaren 17an Aranjuezeko erritarrak, Godoyren aurka matxinatu ziran.

1.808ko urtean Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda, lortu eban, IVn Karlosek beren erregetza, bere seme VIIn Fernandoren eskuetan iztea.

Eta Murat prantzez gudal nagusia, bere gudalozteagaz Madrillen sartzen egoala, VIIn Fernando madrillen sartu zan.

1.808ko urtean Loraillaren 2an gudal agintari batzuk guzti au ikusita, erritarrak alegindu ebazan matxinatu zitezen, eta or emon jakon asiera espainitarren askatasunezko gudari.

1.808ko urtean Loraillaren 2-5eko bitartean Muratek, VIIn Fernando alegindu eban Baionara joan zedin Napoleonegaz alkartzeko, eta Napoleonek VIIn Fernando atxilotu ondoren, beartu eban, espainitarren erregetza bere aita IVn Karlosen eskuetan ostera itzi egian. Eta Napoleonek ori lortuta, IVn Karlos beartu eban bardin, bere anai Bonapartetar I Jose, espainitarren errege aulkian ezarri zedin.

1.810eko urtean Jauregitar Gasparrek maltzurkerizko gauza guzti oneik ikusita, beste sei lagunekin etxekoari agur eginda, eiz-izkillu zar bi, zizpa edo zizpolet bat(1), aiztamakil bi, eta artzai makil baten muturrean labana lotuta euki ebanagaz, asi ziran prantzezak zirikitzen sasi-gudari lez.

Gero ta aundiagotzen asi zan Gasparren taldea, eta Kantabro taldearen Azedo agintaria, Zumalakarregitar Tomas, eta Etxaluzetar Bernardorekin alkartu ziran. Zumalakarregi, sasi gudaren idazkari lez, eurakaz eroanda.

Jauregik, ezagutu gure ebazan Euskalerriko lurraldeetan basa-gerlari lez ibili ziran

(1) Zizpa edo zizpolet = pistola.

taldeak, eta bere lagunarekin Espoz ta Ilundaitar Minarengana joan zan.

Jauregik, prantzez kapitan bateri kendutako ezpata oker eder bat emon eutson Espozeri, eta onek Jauregiren ekintzakaz lilluratuta, bere gizonai agindu eutsen lerrokatu zitezen, Jauregiri esanda, gudari talde orreik ikustatzeko.

1.812ko urtean, Jáuregui, Bizkaiko lurraldeetatik ibili zan, frantzezak itsas ertzean euki ebazan kañoiak ezereztuten.

1.812ko urtearen Bagillan, itsas ertzea zaintzen ibili zan Douglas Ingles gudal nagusiak, Jauregiri eskatu eutson laguntza, prantzezak Lekeitioko kai ingurutik botateko, Minarentzat, guda tresneriz beteta eroaten ebazan itsasontziak, kaian ustu al egiezan.

Jáuregui, Lekeitioko Uriaren inguruagaz egin zan, ta korbet ontzi batetik kañoi bat atara ta gaztelua ondo zigortu ondoren, bere kiputzekaz eraso eginda, lekuagaz geratuz gain, sei kañoi eta gaztelua zaintzen egon ziran 400 frantzez gudariekaz geratu zan.

Jáuregui, egun batzuk geroago oartuta, prantzezak berreun gudari atxilotuta eroaten ebazala Billafrankara, eta atxilotuta eroaten ebazanak euren tiroakaz zauritu ez zitezen, labanakaz erasotuz, askatu ebazan amalau izan ezik, gudari aiek, prantzezak il ebazalako borroka bitartean.

Jauregi, ogeitabat urtegaz ta iru urtean sasi gudan ibili ondoren, koronel izendatuta euki eben, Gaztelako gortekoak.

Iru bider zauritu eban Jauregi, lenengoa esku muturrean, eta beste zauri biak bularrean, bietatik bat, gero Zumalakarregitar Tomaseri anka osatzen ibili zan Telleriatar Franzizko ***"Petrikillok"*** osatuko eutsona.

1.813ko urtean Jauregik, Prantzez gudari, mezuaren eroan-ekarle bat arrapau eban, eta eroan ebazan mezuaren artean, Kaparelli gudal nagusiak Bonapartetar Joseri 25.000 gudari eskatzen eutson eskutitzagaz geratu zan, Kaparellik gudari orreik bear ebazala Espoz ta Mina Nafarroatik aldendu gura izan ezkero, esaten ebana.

1.813ko urteko Dagonillan Jauregik, bigarrenez zaurituta egon zalako, ez zan egon San Marzialeko borrokan, nai ta bere mutillak, goresmeneko merezimenduak irabazi.

1.813ko urtean Azaroaren 5ean, Jauregi oraindiño guztiz osatu barik egoala, Bergarako Uria mendetu eban.

1.814ko urtean amaitu zan Napoleonen aurkako borroka, eta danak gogoratu arren VIIn Fernando erregeak Jauregiri gudal nagusi egingo ebala, onek sasi gudan ibili ziran guztiak saritu ondoren, ez eutson jaramonik egin Jauregiren merezimenduari, VIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren aldekoa zala jakin ebalako.

1.815eko urtean liberalak eraginda, gudal nagusien ixil-joko ta matxintasun ugari sortu ziran VIIn Fernandoren al-osokerizko jaurkintzaren aurka, 1.812ko urtean Epaillaren 19an gudal nagusiak Kadizeko gortean atara ebezan konstituziozko legeak ezarri gura ebazalako.

Lenengoa, Minaren aldarriketa, Jauregi beragaz bat eginda egoala; 1.815eko urtean Iraillaren 19an Koruñako Erteyo erritik, Diaz eta Parliertar Juanek egin ebena; Eta ostean Bidal ta Lazy gudal nagusiak egindakoa.

Ortik aurrera, erregearen al osokerizko aldekoak, Jauregiren atzean jarraikille ibilita, onek atzerrira joan bear izan eban.

1.820ko urtearen matxintasunean, Jauregi ostera itzuli zan, Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.0000 seme gudarien aurka, sasi gudan borrokatzeko. Bere betiko basa-gerlariaren trebetasuna erakutsiz.

1.823ko urtean Giputz guda-talde mobilkor bat ipini eutsoen bere agindupean, eta Gipuzkoa ta Koruñatik borrokan ibili ondoren, Jáuregui menperatuz, bere guda taldeko agintariekaz batera, Frantzira atzerriratzeko aukerea emon eutsen, guda-atxillo lez.

Jauregi, Mina eta beste gudal nagusiak, Frantzian atzerriratuta egon ziranean, ainbat matxintasunezko azpi-joko asmatu ebezan, VIIn Fernando, bere errege aulkitik kentzeko.

1.830eko urtearen Urrillan, Mina ta Jáuregui, erdiugarte edo peninsula onetan sartu ziran, Irun, Oiartzun eta Ernaniko erriaren mendiakaz geratuta, baiña euken aurkako erasoa gogorra izan zan lez, ostera atzerriratu bear izan eben Frantzira.

1.833ko urtean Iraillaren 29an VIIn Fernando il zanean, espainitarren lurraldea, alderdi bitan bananduta geratu zan, liberalak Maria Kristinaren ordegoan ***"Askatasuna eta Isabel erregiña"***ren ikurragaz, eta karlistak ***"Jaungoikua, Aberria eta Foruen"*** ikurragaz.

Liberalak, Jauregiri deitu eutsoen Gipuzkoaren gogoko taldea, bere agindupean artu egien, eta sarritan ikusi dogu Minagaz batera, Zumalakarregiren aurka.

1.834ko urtean Maria Kristinak bere garaipenaren merezimenduak ikusita, koronel baiño beste goragoko mailla bat (brigadier) izendatu eban.

1.840ko Uztaillan, 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergarako saldukeritik ostean, liberalak garaipenduta, Jáuregui, Zelaiko Mariskala izendatuta euki eban.

1.844ko urtean Abenduaren 19an Gazteizen il zan, ***"Artzaia"*** ta Gipuzkoako ***"Biriato"*** ez izenakaz esagutzen zan Jauregi ta Jauregitar Gaspar au, 53 urte eukezala.

Gipuzkoako Aldundiak urte batzuk geroago, Billarrealeko eliz nagusian illobiratu ebazan bere azurrak, espainitarren aberritasunari egin eutsozan serbitzuagaitik.

Gudal-Nagusiak ta Europako diru zale aldekoak, Noren Aberri izenean Laterritu gura ote eben Aberri barri au ?. Ortik aurrera dauko Erdiugarte onek ***espainitar Laterritasunaren izena***.

"Ez beti danik, eurak esaten daben lez. Espainitar katolikotasunezko guzurrezko izen ori sartzeko, eurak K.o. 325eko urteen gura ebenetik, asken edestiaren 1.498 odoljariozko urteak bear izan dabezalako".

Eta 1.893ko urtean Donostiko Udalak, kale bat ipini eban bere izenean.

55. *Fernandez ta Kordobatar Luis.*

1.798ko urtean Argentinako Buenos Airesen jaio zan.

1.820ko urtean Riegoren matxintasun aurka borrokatu eban.

Guda ikasketak egin ebazan eta 1.822ko urtean konstituzionalaren aurka borrokatu ondoren, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

Bertan egoala, Angulemaren gudalozteetan lerrokatu zan.

1.823ko urtean Angulemako dukearen agindupean egon ziran San Luisen 100.000 semeen gudariekaz etorri zan erdiugarte onetara.

Espainitarren zori gaiztoko amarkadan, Paris, Kopenage, Berlin ta Lisboatik ibili zan diplomazizko ardurakaz. Eta denborako inguru onetan, diruaren lapurketak edo eurakaz

txarto ibiltearren, salakuntz gogorrak euki ebazan.

1.834ko urtean espainitarren ondorengo gudan, liberalaren alde lerrokatuta, Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztean, zelaiko mariskalaren gudal nagusi arduratan ipini eban.

Gero, Euskalerriko gudal nagusi jaurlari kapitaiña Nafarroako erregearen ordezkoagaz izendatuta, 1.835 eta 1.836ko urtetan Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztearen aginduan ipini eben eta Mendigorrian egin zan borroka latza irabazi ebalako, Mendigorriko markesaren izena emon eutsoen.

1.836ko urtean Madrilleko eguras-etxean sortu ziran eztabaidagaitik, agintaritza itxita, Frantzira aldatu zan, eta bertan egoala, konstituzionalista ta karlistaren arteko irugarren alderdi bat antolatzen ibili zan.

1.840ko urtean, Lisboan il zan.

56. *Narbaez´tar Ramon Maria.*

1.800eko urtean, Granadako Loja erritxoan jaio zan.

VIIn Fernando il zan arte, ez eban gura artu ezeren agintaritzarik.

1.834ko urtean liberalaren gudalozteetan lerrokatu zan, eta karlistaren aurkako borroka askotan ibili zan.

1.836ko urtean Majazeite erriko borrokan, Gomez ta Damas´tar Migel Santxori irabazi eutson, Mendigorria ta Arlabaneko borroketan be ospe aundia artuta.

1.838ko urterarte, política arloan Narbaezek, sortu ziran burudun edo zentzunezko jaurkintz alde ibili zalako Esparteroren aurka, onek euken agintaritzari uko egin bear izan eutson eta erbestera joan bear izan eban.

1.843ko urtean neurriz-gaiñeko matxinatuen iraultzak bakeztuta, burutsu edo zentzundunezko jaurkintzaren itzulkera eta guardia zibillaren antolaketak egin ebazan.

1.844ko urtean gobernuko aolkularitzaren lendakaria egin eben.

Eta 1.845eko urtean konstituzio barria aldarrikatu ebanean, espainitarren Andia eta Balenziako Dukearen izen aundiakaz saritu eban.

1.844-1.851ko urte bitartean Narbaezek jaurkitu eban Erdiugarte au, eta ipini eutsoen ***"El Espadon de la Loja"*** ko izena, eroan bear izan eban aurrerantzean.

Narbaez´tar onek, 1.848, 1.857, ta 1.866ko urtetan artu eban espainitarren jaurkintzazko lendakaritza.

1.854-1.856ko urte bi onen aurrerakuntzazko jaurkintza ostetik, beste politikazko aldi barri bat zabaldu zan 1.868ko urterarte: ***"zentzundunkeriraren itzulera, gudari agintearen goraldia, jauntxukeriaren agerpena, ta jaurkintzan, Narbaezek O´Donnelekin aldizkatuta egin ebazan txandak".***

1.865eko urtean Jorraillaren 10ean Narbaezek, jaurkintza gogortu eban, ta berak bultzatu eban San Danielen gabeko ertsalditasuna(1), aldizkarien gaitzespena(2) eta diputaduaren atxilotasuna.

1.868an bera izan zan zentzudunen alderdiko lendakaria eta bere politikazko gogortasunak izan ziran errudun, sortu zan iraultzagaz IIn Isabel erregetzatik kendu egien.

(1) San Danielen gabeko ertsalditasuna (ertsaldi) = presiòn, urgencia, represiòn, forzamiento. (2) Gaitzespena = censura.

1.868an Madrillen il zan Narbaeztar Ramon Maria.

57. *Eta zerrenda lez aipatuko dodazenak.*

*-Lorenzotar Manuel.
*-Sole Figeras ta de Benet ta de Fiballertar Antonio (Sola). Nafarroako errege ordea izan zana.
*-Sarsfiel´tar Pedro gudal nagusia.
*-Karondolet, kristino edo liberal gudal nagusia,
*-O´Doyle´tar Manuel,
*-Osma´tar Joakin.
*-Goienetxe.
*-Iriarte.
*-Gurrea.
*-Karratala.
*-Lord Edwar ta Granbille´tar Elliot.
*-Latre.
*-Klemente eta abar.

58. *Alde bietatik nortasun edo norkeriz ibili ziran gudal nagusi onein bidetik, berez jaiotzezko erri edo aberriaren "baitazko eritzietan", ondore lez agertzen diran ulermenak.*

Karlista guda onen edestiko zeaztasunak ikusita, eta berezko errigizartearen ulermenak sikologiko arloaren azterbidetik ikertu ezkero, nastezko eginkizun oneik daukien eragipen bidetik nortasunezko arrazoi edo eritzietan, oldozmen asko dira Nortasunaren ulermeneko ***"Baitan"*** eritxitu(1) ta gero, okerrezko asmakuntzan agertzen diranak, iñork ez dakielako asken baten, zer edo zein dan egi, edo zentzunezko arrazoi bat.

Bai arrazoi orren sorburua ikertuz, norkeriaren sasi jainko aldekoak, guzurraren eragiteagaz(2), berezko errigizartearen ***"Baitak nastuta"***, munduko giza seme alaba guztiak Nortasunik bage, menpekotasun edo yopu batzango eritziagaz asmatu eben katoliko aberri barrien Laterritasunetan, ardi talde lez beste norkeri baten biurtu gindezan, edesti guztiko alegin gogorretan dabizela.

Kontuan artu bear dogu, menderatzailletasunezko ulermen ori eritzi lez artzen badogu, sasi jainko mende zale indartsuen eskuetan geratzen garela, ta beti ibiliko giñakela ***Aberriak aldatzen***, sasi jainko mende zale bakoitzak, eurak sasi jainkotasunezko norkerian daukien ikurraren ametsa, bete egin gura dabelako.

Mundu onen bizitza on bideratzeko, baleiteke asmakuntz orrein artean, batzuk borondate onagaz egiten dabizela, zentzuzko edo berezko ekanduaren ustea galdu dabelako. ***Baiña, Jaungoikuak Izadi oneri bereztuta ipini eutsoezan legearen aurka ?.***

Norkerizko okerkuntza orreik ain indartzu agertu orduko, munduko giza seme alabaren

(1) Eritxitu edo erstxitu = concienciar o tomar como bueno. (2) Guzurraren eragiteagaz = haciendo circular la mentira con eficacia, o el iflujo de la mentira para coaccionar o apremiar en interès de egoismos inconfesables, a conciencias a las que se las quiere confundir.

Baitak, ulermenduta egon ziran, eta gagozanak ainbeste milla urte ariñagotik, konturatu bear giñake, ordua dala, daukagun gaiezko bizitza au, ez dala lur onetan beti irauteko, eta nai ta naiez, zor eskubidearen neurrizko epe labur bat daukiela, bizitz onetara agertu gintzazanetik zor-eskubideko ardura orreik ekanduz beteteko.

Orduan, zergaitik onartu ez, Jaungoikuak bereztu ebazan legeak, jakinda aberetasunezko Gizan, Lur, Aize ta Uraren ordezko eskubideetan erperatuta gaudela ?.

Europa ta Munduan, norkeriaren sasi jainkotasunezko guzur au, erromatarren kaizar ametsaren gandik datorrena da, eta maldaberan ekarten eban guzurra aurrera atarateko, K.o. laugarren gizaldian, Kristau sinismeneko erlijioagaz katoliko alderdikidetuz, eta erromatar kaisertzagaz biak norkerizko legean baieztu ebenetik, guzurrezko lokatzartetan sartuta gatoz gaur arte.

Bai ariñautik be bai, baiña Napoleon eta Karlistadako gudak sortuta, zeintzuk izan ziran gaztearen ulermeneko baldintzak, Euskal ta Gaztelar edo espainitar gazteak gudal nagusitasunera elduta, ainbat ezberdintasunaren ustezko eritzietan agertu zitezen ?:

a).-Norkeriaren maltzurtasuna garaipentzeko alegiñez, karlista guda orreitara eldu orduko, amaitu ezin dan odoljariozko gudan ekarri dogu edesti guztia, gizaren ulermeneko ikuspegia ongaizkatu ostean, gorriz margoztu egin ebana.

Orren esanaia, eskubidearen egia ta mendetasunezko guzurraren artean, borroka ugari ta latzak ekarri doguzela da, berezko nortasuna eta norkerizko eritzi bi orreik zorro baten sartuta egon ezkero, amaibako eztanda utsa baiño besterik ez dabelako sortzen.

b).-Yopuzko kolonigille denborak izanda, ta Frantziko iraultzaren bidetik, berezko errien nortasunezko eskubideak ezereztuteko, artu ziran erabagi gogor orrein bidez, Europa edo Munduko asken guda nagusi bi orreik, ez ziran izan, opil gozo baten amaieran, gaiñean ipiniten jakon ginda baiño besterik, Europan indarrez, joputasunezko mendetasun ori ezarri, ta danok norkerizko erabagiaren agindupean bizi gindezan.

Egia da, Munduan egin diran borroka nagusiaren ostean, damu aundiak egon direla eritzi bien aldetik, egin diran sarraskiak ain gogorrak izanda, danak billurtuta, nor guztien baitak garbitasuna eskatzen dauskuelako, eta atsekabetasunean errudun sendituz, Giza ta Berezko Erriaren eskubideak eskatu doguzelako.

Antza baiña, borroka guzti orreik ez dabe erabakitzen eta gitxiago argitzen ezer, atsekabetasun oiek aienatu edo suntsitu egiten diranean, diru ta on biziaren lilluratasunezko eragipen bidetik, ostera joaten garalako norkerizko ekintzatara, eta danak jakin bear geunke, ***"lapurren"*** bizitza dala ori.

d).-Inguru begi zabal ori, begien aurrean eukinda, baten batek esango daust, zer egingo eban orduko nekazari gazte batek, bere onbeartasunezko ogibidea leen, alderatu ezin ebena egin, Napoleonen aurkako borrokan lerrokatu, eta au amaitu ostean bere ogibidea lortzeko, leen guda amaitu barik egon zana, ondorengo gudan ostera lerrokatu baiño ?. Bai baituta geratzen zanean, etsai edo lagunen taldean aurrrera egin baiño, bizirik iraun gura ba eben ?.

Erabagi oneri zentzun apurbat emotearren, gure orduko gizarte osoa kontuan artu bear geunke, norkeriaren menperatzailleagaitik indarrez kontrolatuta egonez gain, eurak egi lez aurkeztuten euskuezan guzurrezko arrazoien eragipenakaz nortasunean naastuz, gizartearen antolamendurako gaur lez, bananduta agertzen giñelako, jakintsu, gidari, maisu, lege gizon, emakumeen artean, erlijioaren gotzai, apaiz lekaide lekaime artetan eta gizarte maillatan.

Geiago izan giñan eta gara, bealdekoak garela esaten dauskuenai, Goiko Jainkoaren ekanduzko zaletasunen mailla guztietan, baiña goikoak norkeriaren maltzurkeri bidez, guda tresneritik asita, bear dogun on guztia kontrolatzen dabe, eta bizitz oneitan oraiñarte, gaiak aurkeztu egiten dauskuzan aldakuntzaren kontrola daukenak, norkeriz jokatzeko sasi-irabazte osoa eukiten dabe.

Guzti au ikusita, Euskaldun gudal nagusi bi aurkeztuko dotzuedaz, ikusteko, eurak zelan erantzun eutsoen JAINKO seme lez euken BAITARI.

a).-Zumalakarregi ta Imaztar Tomas izan zan bat : ***Onek ez ebalako euki bildurrik, Jainkoa ta Euskal Aberriko egiaren alde jokatuz aurrera egiteko.***

Jakin ebalako zer jokatzen zan an, eta borrokara eldu orduko irabazle urtetan eban, bere guda talde osoa Nortasunduta joaten zalako borrokara, naita etsai gudalozteak aundiagoak izan.

b).-Bestea, Espoz ta Illundai ta Mina´tar Franzizko, lenengo Napoleonen aurkako aldian: ***"Garaipenduta urtetan ebalako ia borroka guztietatik, Euskaldunakaz Eusko Nortasunaren sinismenean borrokatzen ebalako".***

"Beste gauza bat agertzen jakon, bere Aberriko Nortasunaren aurka, konstituzioaren atzerritar maltzurrekin borrokatzen ebanean".

Len, bialtzen ebazan gudalozte aundi orrein gudariak, borrokan ibili ziran atzerritar lurraldea ezagutu ez gain, ez ziralako euren Nortasunaren egizko lurraldeak babesten ibili.

Eta gudaloztearen agintariak egi lez esaten eutsezanak, gudariek ikusten ebenagaz geinetariko baitan ez ziralako egokitzen, ardura gitxigaz borrokatzen ebelako.

Bigarren, Espozek bere ogibidea aurrera eroatearren, jakinda atzerritarrakaz bere anaiaren aurkako borrokan ibili zala, bere baitaren lotsak minduta, espainitar gortekoari Nafarroan borrokatu barik, Akoruñara borrokatzen bialdu egiela eskatu ebenean.

A ta guzti, Espainako agintaritzak, Espoz ostera ekarri eban Euskalerrira, eurak ez ziralako gai izan Euskaldunak menperatzeko, eta atzerritarrakaz bere anaiaren aurka borrokatu zanean, nai ta Jauregi Artzaia esaten eutsoena ta beste Euskaldun batzuk lagun euki, emen zikindu ebazan ararte irabaziko ospe guztiak, bere ulermeneko baitan aitu ezinik asarratuta, Lekarozeko erritarrak bosgarrenka berezitu ta tiros ilda, erria erre, ta Karrera karlista gudal nagusiaren ama tiros ildako astokeriak egin ebazalako.

Egia da ***JAINKOAK BEREZTU EGIN EBAZAN LEGEAK*** etsai asko ta aundiak daukezala, Europa ta Mundu au katolikotasunean batzangotzeko, berezko esku bidetik kanpo aberkidetu ebenetik, eta borroka orretan norkerizko zaleak euren egizko arrazoiakaz sortzen dabezan naste borrasteko lege bidetik, bizirik irauteko edo ta ogibidearen billa, ez gara arritu bear, gazteak alde baten edo bestean jokatzeagaz, beartuta egiten ebalako.

Borrokan ibilten ziranean, alde bat edo besteen gazte gudariak arrapau egiten ebazanean, euren etsaien taldetan ipinten ebazalako borrokalari. Eta euren egoera ori, saltzailleak izan ote ziralako zan ?.

Gure Batzarraren jabetasunezko denboratan, askatasunean bizi bagiñan be, norkerizko maltzurtasunari alboratu ezinean, eta Euskalerriko Ego aldean gure jabetzak espainitar erregearen eskuetan ustegabez geratu ziranetik, berarekin egiune bidetik egiten genduzan itzarmen orreikaz, Euskaldunak Jaun-errege bikoteko naste orrekin, beti ibili gara anai arteko borrokan.

Orregaitik ez gara arritu bear, gizonak norkeriz edo ogi bidez beartuta bizirik irauteko, alango aldaketak egiten dabezenean.

Eta gitxiago apentza edo asperkunde lez artu, basakerietan ez gindezan ibili.

Bizitz onetan, gaur ikusten dogun lez, euskaldun guztien nortasunaren sinismeneko egokitasunak ez dira bardiñak.

Gure azkeneko 2.000 urteak edestiko ibilkeran Euskalerri-lez daukaguzan eskubidearen etsaiak, guda-indarrez eta guzurrezko arrazoi-maltzurrakaz, euren zauriak egin dabezelako gure nortasunezko gorpuan.

Ortxe dago gure sinis-bidearen arrazoizko lana, gure euskal gorputzan nortasunezko zauriak sendatzeko.

Eta etsaiaren guzurrezko lege bidetik, gaur alderdikerietan banatuta aurkitzen ba gara be, euskal nortasunaren egia ipini bear dogu ***"elburu"*** danon ulermenetan, naste edo okerrezko zauri orreik osasundu egiezen.

Ni baiño euskal nortasun aundiagoko zarragoari, askotan entzun dautsiet esaten : ***"egiak askatuko zaitue"*** eta berba orreik, euren berezko esanetan artu bear doguzenak dira.

Zumalakarregigaz ikusi dogun lez, euskaldunak, sinesmeneko elburu bidez alkartuko ba giñan, laster lortuko geunke euskadiren askatasuna.

Euskaldun bakotzak bere neurrizko ulermenetan, maite dogulako gure nortasunaren izatasunezko euskalerria.

Gaiak, aurkezten dauskuezan aukeratan, norkerizko indar aundienetan dabiltzanak ibilita be, ez daukielako indarrik eta gitxiago zer egiñik, maitasunezko egiaren arrazoiagaz lortzen diranen aurka.

Gai bereztutako Mundu onetan, Jaungoikuak nortasundutako legeen aurka, ez dauelako aurkakorik, eta gitxiago eragille on-lez, euskal ardurak maitasunezko zentzunean erabilten badoguz.

Geiago: gaurko gizaldi onetan amiltegiaren aurrean kokatuta gagozan zorian egonda, zor-eskubideko arduretan guzurrez, sama edo kokoteraiño lokaztuta gagozelako aurrera egin ezinik, nai-ta nai-ez, gaia, giza ta errigizartearen eskubideak berrezkuratzeko denborak eldu diralako da, aurrera egin ezkero norkeriaren maltzurrezko guzur onekin, guzurragaitik pozoituta il egingo garelako, edo arrazoitik kanpo, aberetuta guztiz bizi bai beintzat.

Gizaren eragilletasunezko arduran beartuta, norkeriaren zentzun bako lapurkeritik urten bearrean aurkitzen gara, eta orren itzulpena : ***"nortasunaren zentzun aundiko aldian kokatuta gagozela"*** esan nai dau.

Euskalduntasunak, nortasunezko jabetasunik ez daukala esaten dabe espainitarrak.

Bai ?.

Atzean geratuko ote gara ?.

59. *1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria ostera artuta.*

1.835eko urtean Bagillaren 26an Vn Karlos, Bilbora urbildu zan, gertatzen zana ikusteko, eta urrengo lau egunetan be iraun eben, Bilbo bonbakaz erasotzen.

Vn Karlosek, Zumalakarregi il zanetik, Gonzalez ta Morenotar Bizente izendatu eban Euskalerriko gudal buru nagusi lez.

1.835eko urtean Bagillaren 28an Frantziko errege Orleanseko Luis Felipek, espainitarren egiuneari erantzuteko, Argelian egon zan atzerritar lejiñoari peninsula onetara aldatu zedin agindu eutson.

Talde bietatik, Inglesarena izan zan andiena.

1.835eko urtean Bagillaren 30ean, Portugaleten egon ziran liberal kristino gudal nagusiak, Latre, Espartero, Klemente, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño, La Hera eta beste batzuk batzartuta, espainitar goiko aginduari jaramon egin barik, eurak erabagi eben legor bidetik, Bilbon inguratuta egon ziranai, laguntzen joatea.

1.835eko urtean Uztaillaren 1ean Erasotar Bizente Franzizko karlistaren gudal nagusiak, bilboko ingurutasunari izten dautso, Esparteroren agindupean agertu ziran Latre ta La Erasoren liberal guda indarrak, aundiak ziralako.

1.835eko urtean Uztaillaren 4an Fernandez de Kordobatar Luis, oraingoan Erdiugarte onen Iparraldeko liberalaren gudal buru nagusi lez, Bilbon sartzen da.

1.835eko urtean Uztaillaren 16an, Erriberriko merindadean Arga ibaiaren ezkerraldean dauan Mendigorriko erriaren Egoaldean, ararte ezagutu zan aundienetariko borrokea egin zan, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren agindupean egon ziran 36.000 gudariak, astindu gogorra emon eutsezelako Gonzalez ta Morenotar Bizenteen 18.000 gudari karlistai, Vn Karlos bera be estukuntza aundiekin iges eginda.

Zumalakarregiren eriotzetik asi eta borroka onen ostetik geiago, Karlistak maldaberan asi ziran, Vn Karlosen gudaloztea banatzen asi zalako.

Karlosen gortekoek, Gonzalez ta Morenotar Bizente gura eben agintari lez, eta gudariek Eraso edo Maroto gudal nagusikoak lez.

Eta aurrerantzean, sortutako naste onen bidetik amaituko zan Euskal Foru Legearen borroka.

Bai eta edozein gauza guztiaren gaiñetik, Euskal lurraren babesa eta Euskal gudariak euren lurretatik ez urtetea.

Ortik aurrera karlisten ekintzak, beste Euskal arazo barik, euren espainitar erara aldatu ziran ***"Antziñatar Alderdia"***ren izen barria artuta ***(Comuniòn Tradicionalista)***, eta Euskal gudarien biotzak nai ta guda gogorrak emendik aurrera euki, galduta lez ibili ziran, arik eta 1.839ko urtean Dagonillaren 31ko ondamenera eldu arte.

Erdiugarte onen Iparraldeko Liberalaren gudaloztea une onetan, 120.000 gudarien kopurukoa izan zan, euren gudalozte ordeakin gainditu ebalako.

1.835eko urtean Dagonillaren 11n Marotok Arrigorriagan, Esparteroren gudalozteari irabazten dautso.

1.835eko urtean Iraillaren 2an karlistak, La Puebla inguratu eben eta ortizik Gazteizen sartzeko Los Arkosen egin zan borrokea, Fernandez de Kordobatar Luis liberalak irabazi eban, il asko egonda alde bietatik.

1.835ko urtearen Urrillan karlistak, Egiatar Nazario egin eben Euskalerriko gudal buru nagusia, Gonzalez ta Morenotar Bizenteren ordez. Maroto ta Egiatar Nazarioren artean eztaibadak gogortzen asita.

1.835eko urtean Urrillaren 27an Urizarreko mendi katearen azpian, Gebaratar gazteluaren iguruan egin zan borrokan, il asko egon arren, ez eban irabazi iñork.

Karlistaren indarrak, Egiatar Nazariok bideratzen ebazan. Eta liberalaren indarrak Fernandez de Kordobatar Luis.

1.835eko urtean Azaroaren 15ean Kordobak, ostera sartzen da Zirauki ta Mañerun.

1.835eko urtean Abenduaren 10ean Fernandez de Kordobak, Arabako Ariñez errian asita, 250 kilometruetan 60 babes arresiakin, bata besteagaz lotuta egongo ziran esparru baten barruan, anbartu(1) gura ebazan karlisten indarrak, Gazteizek euki ebazan 20.000 gudariak apurka apurka, Auñamendi ta itsasorantza baztartzeko.

Baiña, guda bidez agertu ziran ekintzakaz, ezerezean geratu zan arresizko ingurutasun ori.

1.835eko urtean Abenduaren 17an Egiatar Nazario karlista gudal nagusiak, Getaria inguratzen dau.

1.836ko urtean Urtarrillaren 3an Kordobak lortu eban, txapelgorriak artuta eukezan Elorriaga, Arkaute ta Ilarraza erriakaz geratzea, eta pozez beterik Arlabanerantza joan zan.

1.836ko urtean Urtarrillaren 16-17ko egunen artean, Arlabaneko borrokea egin zan.

Araba ta Gipuzkoa bitartean, Arlabango mendia dago, Egiatar Nazarioren agindupean ta Billarrealtar Brunoren laguntzagaz, karlistaren mende egoana, eta nabarmeneko leku ortatik karlistak aldentzeko, Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren gudal buru nagusia asi zan prestuten bere gudaloztea, Britaniaren ordezko lejioa Lazy Ewansen agindupean, Frantziko lejioa Bernell´en aginduan,ta geratzen ziran beste batalloiak, Esparteroen aginduan ipinita.

Liberalak, banandutako iru lekutik, eraso egin eben, eta mendiaren bizkarrekin geratuz, 18ko egunean alde egin bear izan eben, euren lerroetan Espartero zaurituz gain, 600 il euki ebazalako, eta karlistak 300.

1.836ko urtean Loraillaren 5ean Donostiko borroka.

1.835eko urtearen askenetan asi ziran Sagaztibeltzaren karlistak, Donostia inguratzen.

Donostiarrak, Fernandez de Kordobatar Luiseri eskatu eutsoen guda indarrak, Donosti karlistatik babesteko, eta onek ingelesaren lejioa bialdu eutsoen.

1.836ko urtearen Loraillako 22an, Fernandez de Kordobatar Luis Esparteroren laguntzagaz, ostera saiatu ziran Egiatar Nazariok eta Billarrealtar Brunok artuta euki eben Arlabaneko mendi ori kentzen, baiña 26an ostera itxi bear izan eben alegiñ ori, euren lerroetan ikaragarrizko zarraskia euki ondoren, Narbaeztar Ramon Maria koronela, politikan gero Esparteroren aurkakoa izango zan gudal nagusia bertan zauritu zalako.

Iñork ez eban irabazi borroka au, alde bietan il asko egonda.

Egiatar Nazariok borroka orren ostean, Balmaseda ta Merkadilloko errien babesak ezereztuz, askatu ebazan an egon ziran ***karlistak edo Comunión Tradicionalista***'koak liberalaren menpetasunetik, eta Durangora joan zan bere gudalozteagaz.

Sagaztibeltzak, Egiatar Nazariori eskatu eutsozan guda indarrak, baiña goian ikusi dogun lez, Arlabaneko ingurutan 26rarte Fernandez de Kordobagaz borrokan ibilita, ezin eutson laguntzarik bialdu.

Ingelesak arrotuta, itsas ontziren kañoiakaz eraso eutsen karlistari, eta auek zabaldu bear izan eben, egiten egon ziran ingurutasuna.

(1) Anbartu = acotar, delimitar, cercar, asediar, etc.

Iñok, ez eban irabazi borroka au, karlistak baiña, borroka onetan asko galdu eben, Sagaztibeltza Euskaldun gudal nagusia il ebelako.

Emen saiatu ziran, Tutor´tar Franztzezak asmatu ebazan ***"Karkazak"***(1) esaten eutsen lerkai-tresneriai, muturrean bonbak eroaten ebazan lenengo misil edo bolanderakaz(2).

1.836an Uztaillaren 2an Kordobak azkenean, Ondarribia berrezkuratzen saiatu zan, uts galanta eginda.

1.836ko urtean Uztaillaren 19an, Fernandez de Kordobatar Luisek, ainbeste alegin ustel eginda gero, beren agintaritzaren uztea eskatu eban.

1.836ko urtean Dagonillaren 12ko gauan Madrilleko eguras etxean(3), eta Barrios´tar Manuelek, Mendizabal gudal nagusien itxurara(4) antolatuta euki ebazan indarrak sargento ta lerro-buru gudariakaz, Garzia´tar Ijinio, Gomez´tar Alejandro, eta Lukas´tar Juan sarjentoak bideratuta, matxinatu ziran, eta Maria Kristinaren gelatan sartuta, onek bildurrez, aurkeztu eutsezan agiriak siñatu ebazan, eta ekintza orregaz ostera aldarrikatzen da 1.812ko urtean Kadizen ezarri zan konstituzioa. Gure Euskalerriaren Foru Aldudiko Euskal agintaritzak ezereztu ebazanak, eta euren konstituziozko legeak ezarri.

Matxintasun ostean, Maria kristinak bere koiñatu Vn Karlosegaz berba egiten dau, eta guda orreri irten bide bat emoteko, bere alaba Isabel, Karlos´en ondorengo semeagaz ezkontzea aurkeztu eutson. Bai eta izen zerrenda bat, bere alabari laguntzen ibili ziranai parkamena emoteko.

1.836ko urtean Dagonillaren 30erako Vn Karlosek, Maroto izendatuta euki eban Kataluñako gudal nagusi lez, eta agintaritza artzeko, Nuriatik aldatu ebazan Auñamendiak.

Marotok, ainbeste bider galtzaille urten ondoren, gudalozteak Royo gudal nagusiaren eskuetan itzi ebazan, bera Frantzira aldatuta, Vn Karloseri Kataluñaren egoera txarra adierazteko aitzakiagaz.

1.836ko urtean Urrillaren 5ean Maroto, Frantzira aldatu zan, eta Eynako erritxoan 21n oiñezko gudari talde azkarrak arrapatu ta Toursen atxilotuta, iges egitea lortu eban, Burdeosera elduta.

1.836ko urtean Urrillaren 15ean, beste errege agindu bategaz, 1.823ko konstituzioaren legeak ezartzen dabez erdiugarte onen lurralde guztietan, Portugalen izan ezik.

1.836ko urtean Urrillaren 28an Marotok, Vn Karlosen ministru Erro´ri idazten dautso eskutitz bat esaten, zelan, bereala ipiniko zala bidean karlistaren gudaltegi nagusira joateko.

1.836ko urte onetan, karlistaren gudak, Kataluña, Aragon eta batez be Vn Karlosen jaurkintza Euskalerrian kokatuta egoalako, emen egin ziran ia geieneko borrokaldiak, eta estukuntza au apur bat lazaitzeko, Vn Karlosek erdiugarte onen lurralde guztietatik zabaldu zitezen borrokak, gud-aldi edo zirikituzko ibilaldiak egiezan agindu eutsezan bere gudal nagusiai, ta guztietatik luzeena ta aipatuena Gomez ta Damastar Migel Santxok egin ebena.

Bederatzi zirikituzko ibilladi egin ziran lenengo karlista borroka onetan:

1.834ko urtean lenengoa, Garziatar Basiliok egin ebena.

1.835eko urtean, Garziatar basiliok egin eban bigarrena.

1.835eko urtean, Gerge ta Yaniztar Juan Antoniok egin eban irugarrena.

1.836ko Bagillan, Garziatar Basiliok egin eban laugarrena.

(1) Karkazak = su-lerkai baten antzekoa. (2) Gaur, misil ugari jaurtitzeko dagozan tresnaren antzekoa. (3) Eguras-etxean = La Granja. (4) Biok izan ziran Kadizekoak eta masoi-biltzar batekoak.

1.836ko urtean Iraillaren 20an Gomez ta Damastar Migel Santxok egin eban seigarrena.

1.837ko urtean Loraillaren 24an Vn Karlos erregeak egin eban zirikituzko ibilaldia.

1.837ko urtean Uztaillaren 24an Zaratiegik egin eben zazpigarrena.

1.837-1.838ko urte bitartean, Garziatar Basiliok egin eben zortzigarrena.

1.839ko urtearen Epaillan Negrik egin eben bederatzigarrena.

Zirikituzko ibillaldi guzti oneik, azpiko berdintasun bat euki eben, ibili ziran Uri guztietatik, atzetik eukezala liberalaren gudalozteak, alegiñ guztiak ezerezean geldituta.

1.836ko urtean Iraillaren 20an, Gomez ta Damastar Migel Santxo karlista gudal nagusia, Bagillako illean Amurriotik 2.700 gudari ta 180 zaldunekin urtenda, Asturias, Galizia, Andaluziatik(1) agindu eutsoen zirikituzko ibilaldia(2) egien, ta itzulkeran Mantxako Gaztelan San Kristobaleko ibarrean, Billarrobledoko errira eldu zanean, liberalakaz aurkitu ondoren, beren bizitzako astindu aundiena artuta, Euskalerrira itzuli zan.

Gomez ta Damastar Migelek borroka orretan, 2.000 su izkillu, tiroiñ asko eta ia zaldunezko guztiak galdu ebazan, eta Andaluziatik, aginduz kanpo egin eben ibilbideagaitik epaituta, epaiketa ori luzatu egin zalako lenengo karlistaren guda amaituarte, ez eben artu iñungo zigorrik.

1.836ko urtean Urrillaren 15ean, erregearen agindu baten bidez, 1.823ko gobernuaren erabagia ezartzen da, gure Foru Legearen askatasunak barriro ezereztuko ebazanak.

1.836ko urtean Urrillaren 23an karlistak, bigarrenez inguratzen dabe Bilbo.

1.836ko urtean Azaroaren 2an liberalak, Portugaletetik urtenda, alegiñ zitalak egiten dabez Bilbon sartzeko.

1.836ko urtean Azaroaren 7an, Egiatar Nazariok, Desierto, Lutxana, Arriaga, Banderas, Kaputxinos, San Mames eta Burtzeña artzen dauz.

1.836ko urtean Azaroaren 7-16 eguneko bitartean, Egiatar Nazarioren indarrak, Esparteroenai atzeratuazo egiten dautse, arik eta 25ean Esparterok Lutxanakoa irabazi arte.

1.836ko urtean Azaroaren 14an Vn Karlosen Erro ministruak, Marotori Durangotik erantzun eutson: ***Karlosen agindua zala, ta egon zan leku bertan iraun egiala, arik eta Katalunian sortu ziran gauzak ta bera Frantziako lurraldera zergaitik aldatu zan, argitu arte.***

1.836ko urtean Abenduaren 1-25eguneko bitartean, liberalak Esparteroren agindupean, Potugaleteko gudaltegietatik asi ta Bilbo bigarreneko inguratuaren aldiz karlistatik askatu ebanean, esaten jako ***"Lutxanako"*** borroka zala.

Denboraldi txarragaitik, borroka luze ta latzak izan ziran oneik, liberalak 3.700 gudari eta karlistaren aldetik 2.300 illak eukinda. Askenez, Esparteroren agindupean egon ziran liberal gudalozteak, Bilbon sartu ziran goizeko 9etan.

Esparterori borroka au irabazteagaitik, ***"Lutxanako kondea"*** izendatu eben.

1.836ko urtean Abenduaren 29an karlistak, Borbon ta Braganzatar Sebastian Gabriel errege semea izendatu eben gudal buru nagusi lez, Billarrealtar Brunoren ordez.

1.837ko urtean Epaillaren 10-16 egun bitartean, Sebastiantar Gabriel errege semeak, bere aginduan egon ziran karlistaren indarrakin, Lazy Ewans ingles liberalaren indarrak, ainbat borroka latz bitartean menperatzen dauz Oriamendiko borroketan.

Emen il ziran gudari ta agintari inglesak, Urgulleko mendian ***"Ingelesaren Ortu Santuan"*** illobiratuta dagoz.

1.837ko urtearen Jorrail onetan karlistak, Zumalakarregik 1.835eko urterarte lortu ebazan lurraldeetan baiño ez eben agintzen.

1.837ko urtearen Jorraillatik, Karlosen egoerak larrituten joan ziran, Europako diru etxetatik ebagi eutsezelako diru-iturriak, eta liberalak Bizkaia, Gipuzkoa ta Arabako trenbideai marra baten antzera, moztu egiten eutsezalako bideak, bere gudarien janari eta gudarako bear ebazan tresneribage geratzen zalako.

Eta aurkeztu jakon estutasunezko egoera larri onen arrazoia, Vn Karlosek antolatuz eta Loraillaren 15ean asita, espainitarren lurraldeetatik egingo eban erregearen gud-aldi edo zirikituzko ibillaldia izan zan, Iparraldeko lurrak gudu indar gitxigaz itzi ebazalako.

1.837ko urtean Loraillaren 15ean asi zan antolakuntza onegaz, eta 16-17ko egunetan Vn Karlosek 12.000 gudariekin Arga ibaia aldatu, ta Aragoiko bidea artu ondoren, Kabreraren gudalozteakaz bere indarrak aundiagotuz, 24an goizeko 10etan Ueskan egon ziran, bere itxaropenean gero Kataluña, Balenzia ta askenean Madrillen sartuta, IIn Isabel erregetzatik kendu, ta bera errege aulki orretan ezarrita, zirikitasunezko errege ibiltasun ori amaitutzat emoteko.

Vn Karlos Ueskan egonda, guda indarrak bere seme-ordearen Sebastiantar Gabrielen agindupean euki ebazala, agertu ziran liberalaren indarrak, eta karlistak borrokan gogor asita, liberalaren Frantziko atzerritar lejioa ezereztu eben 1.000 liberal gudari il ta ainbat zaurituen artean amaituta borroka au karlistaren alde. Karlistak guztiz, 400 inguruko zauritu ta il eukiko ebezan borroka onetan.

Arrigarrizkoa emen ikustea da, alde bat edo besteko gudariei oiuka limurkerizko berbak esan, eta zelan aldatzen ziran gudalozte batetik bestera, bai atxilotuta geratzen ziran gudariak be, len euren gudalozteak ziranaren aurka, zelan borrokatzen ziran.

Euskalerri ta Kataluñan izan ezik, zalantzazko gauza oneik sortu zitezen, aldaketako ekintza oneik ez dabe esango, nor beren eritziz gaiñ, espainitarren gudari artean, iñork ez ebala jakin nun egoan arrazoia?.

Vn Karlosek, Ueskako borroka onen ostetik, eliz-trozel edo zerupean sartu eben eleizara, eta ***"Te Deuna"*** abestuta Barbastrorantza urten eban.

Argi ikusten da emen, jakinen artean, iru eritzi ezberdiñ egon zirala borroka onetan:

-Espainitar Liberalaren konstituzio barriagaz "Eleiz katoliko Aberkidetasunean Laterrituz batzangotzeko ibili ziranak".

-Espainitar Erregeen al-osokerizko "katolikoen aberkidetasunera oraindiño eldu barik, Erregearen katolikotasunezko al-osokerien alde, Batikanokoakin ibili ziranak".

-Eta nai Katolikuen Aita Santuagaz, Aita nagusi lez artuta egon zirala oldoztu arren: "Berezko errigizartearen aberkuntz alde egon ziran Katalan, Euskaldun, eta Frantzez Apaiz, Lekaide, ta Lekaimeak".

Euren ustez, Eleiz bat izan arren: "Iruretik nungo eleizari sinistu?".

Argi dago eleiztar eritzi bi, guzurreakoak dirala, eta Goiko Jaungoikuak bereztu ebazan legeakaz ibilten ziranak, ibili zirala zuzenezko bidetik. Euren azturaren bidez lortu eben jendekuntzan, Nortasundutako izkuntzagaz antolatu ziralako, Izadi onetatik zentzuz edo betik-gora egiten diran gauzak Jaungoikuaren legeari begira bizitzeko.

Katolikotasunean Aberkidetuz batzangotzko zale oneik, ez ote dabe arrazoi naikoa eukingo, jakin egien, Berezko edo Benetako Eleiz-Kanpo dabizela jokatzen ?.

1.837ko urtean Loraillaren 16an Vn Karlosek zirikitasunezko ibillaldi orregaz, bertoko indarrak murriztuta itxi ebazalako, Espartero Oiartzunen sartzen da.

1.837ko urtean Loraillaren 17an Esparterok, Irun artzen dau.

1.837ko urtean Loraillaren 18an Esparterok, Ondarribi artzen dau.

1.837ko urtean Loraillaren 24an Esparterok, Ernanin sartu zan.

1.837ko urtean Lorailaren 24an Ueskan, Borbon eta Parmatar Sebastian Gabriel errege seme karlista gudal nagusiak, Iribarreneri irabazten dautso, Iribarren liberal gudal nagusia bertan ilda.

1.837ko urtean Loraillaren 29an Esparterok, Andoain artzen dau.

Baiña alde biak emen geraldi bat egin bear izan eben, ainbeste borrokari eusteko diru ta janarien ezean agertuta, gudarien matxintasunak agertu ziralako

1.837ko urtean Bagillaren 2an, Sebastiantar Gabriel karlistak bere gudalozteagaz, Oraatar Martzelinoren liberal indarrak menperatzen dauz Barbastron.

1.837ko urtean Bagillaren 4an eskozezak matxinatzen dira, eta Ernanin sartuta, matxintasun ori Ingeles ta espainitar gudalozteetan be zabaldu zan. Euskal Aldundiko indarretan bardin antzeko bat sortuta, gudarien artean, ezin ebazalako janari, jantzi ta tresneriak banandu, bear ebezan neurrian.

1.837ko urtean Bagillaren 4an liberalaren jaurkintzazko ministruak antolatuta, beste azpikarizko antzezlari bat sartzen da karlistaren antzokian, Abinaretatar Eujenio, eta bera arduratuko zan Baionatik azpiko mezuetan, karlisten erabakiak, liberalen aldera bialtzen.

1.837ko urtean Bagillaren 28an liberalaren ustez, aurrerakuntzazko konstituzioa zana, aldarrikatzen dabe Bartzelonatik, bere mamian ez ebana ekarten beste gauzarik, 1.812ko urtean Kadizen egin ziran, menpetasunezko arau sorta orreik Fueroakaz eraberritu edo mozorrotuta agertu baiño.

Eta Konstituzio barri orren gudal aurrerakoiak esaten eutsienai, ortik aurrera asten dira Erdiugarte oneri, Portugal izan ezik, orokorrezko edo Laterrizko aberri edo espainitar nazioaren izenagaz deituten.

1.837ko urtean Uztaillaren 15ean Txibako borrokan, Oraatar Martzelino liberalaren indarrak, Sebastiantar Gabriel, errege seme-ordearen agindupeko karlisten guda indarrak menperatu ebazan.

Karlistak, euren etzauntza edo karpapeko lotalditik urten ebenean, antolamenduzko prestakuntzan ardura gitxi edo antola-bagean asi ebelako eguna, Zinka ibaia aldatzen egon ziranean, estukuntzaren premiñagaz kañoiak, ibaiaren beste aldean itxi, eta aurrera egin bear izan ebalako.

1.837ko urtean Dagonillaren 17an, Almansako guda taldea, ta Zurbanoren basa gerlari liberalak matxinatu ziran, eta Gazteizko Urian sartuta: Gonzaleztar Liborio orokorrezko agintari komandantea, Royotar Blan kapitaiña, Lopeztar Ramon gudal agintari nagusia bere agintariekaz, Kanotar Diego Aldundiaren orokorrezko diputadua, Arandiatar Manuel diputadua, eta Aldamatar Jose lege gizona, gobernuko aldizkariaren zuzendaria izan zana, il ebazan.

Emen amaitu bear eben guda au, baiña iñork ez zan ausartu alangorik egiten.

1.837ko urtean Dagonillaren 24an Uranga karlista gudal nagusiak, Urizarreko mendi kateak menperatzen dauz, mendikate onek eukazan bideak, Errioxako erri ibilbidearen

ardatzak izan da, garrantzi andikoak ziralako.

1.837ko urtean Dagonillaren 24an ***"Villar de los Navarros"*** erritxoan, Borbon eta Braganzatar Sebastian Gabrielen indarrak, Buerensen liberal indarrak menperatzen dauz.

1.837ko urtean Dagonillaren 26an Iruñan, Uriaren babes liberal gudariak matxinatxen dira, Sarsfieldtar Pedro ta Mendibil gudal nagusiak ilda.

1.837ko urtean Iraillaren 12an erregearen zirikituzko ibillaldia Madrillera eldu zan, baiña baleiteke Espartero urbil egoalako, edo ta Maria Kristinak len, Vn Karlosekin egiune baten billa ibilita, ta orain ez ebalako orren bearrik, Vn Karlosek Iraillaren 14an, Madrilleko erria ganora barik iztea, eta 1.837ko Urrillan Euskalerrira itzulita, zirikituzko ibilbide ori amaitutzat emon eban.

Karlista gudariak, ondamen lez artu eban ekintza au, eta erritar ta nai gudari artean, eztaibadak sortu ba ziran be, danak, itxitasunera bideratuta geratu ziran, guda amaitu arte.

60. *1.837ko urtean Iraillaren 14an Andoaingo borroka.*

1.837ko urtean Iraillaren 12an Vn Karlos, Madrilleko ateetan zirikituzko ibillaldian egoala, O´Donnellek Donostitik urten da, Ernani ta Urnieta erasotu ebazan, karlistak Orio ibaia aldatuta, Andoainen ingurura joateko.

Liberal indarraren aurrerakuntzan, ingelesaren ordezko lejiñoak, 120 baserri baiño geiago erre ebezan.

1.837ko urtean Iraillaren 9 eta 13garren egun bitartean, talde biak ibili ziran bata besteari zaintzen, eta karlistaren Uranga gudal nagusia oartuta, Nafarroatik urten eban bere gudaloztea babesteko.

1.837ko urtean Iraillaren 14an Noainen borrokatu ziran, eta borroka orreitan sarraski aundia egon bazan be, andiagotu egin zan, baserritarrak karlista gudariekin nastean, inglesak ilten asi ziran orduan. O´Donnell bera be, ozta ozta iges eginda.

1.837ko urtean Urrillaren 25ean Vn Karlosek, Artzeniegako aldarrikapenagaz amaitu eban zirikituzko ibillaldi ori, eta bere alde egon ziran jakintsuen artean, artegatasun edo giro-txarrean geratu ziran.

Geiago artegatuko ziran, Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak Artzeniegako espetxean atxilotu ebazanean, Kabañas, Karlosen guda-ministrua agintaritzatik kendu, Billar gudal nagusia erbesteratu, Morenotar Gonzalez orokorrezko gudaloztearen buruzko agintaritzatik kendu, eta Borbon ta Parmatar Sebastian Gabriel erregearen seme ordea baztartuta, euren ordez Negri´tar kondea, Granadako dukea, eta Etxebarriatar Juan apaiza ipini ebazanean agintari.

Erregearen zirikitasunezko ibilbide orreik, gudal agintari nagusien artean, ez eban sortu edo zabaldu: ***"banaketak, iskanbillak eta bekaizkeriak baiño besterik ez"***, gero 1.839ko urtean Marotoren saldukeriagaz, Puy eleizaren ostean, bost gudal nagusien tiros ilketetan amaituko zana.

1.837ko urtean Urrillaren 28an Esparterok Bribieskatik, espainitar gortekoai jakin arazian ipini eutsen, gudarien egoera txarra zala, diru, janari eta jantzirik ez ebalako euki, Ebroko Miranda errian geratuta.

Eta gudarien artean zuzentasunezko araupea ezarri eban, 30eko egunean Zeballos eta

Eskalera gudal nagusien ilketan, kide izan ziren artean, 10 gudari artu, ta tiros il ebazanean.

Egun batzuk geroago Iruñan, Sarsfield gudal nagusia il ebelako, ordain edo mendekaldi lez, Iriartetar Leon koronela, Barrikat tar Pablo komandantea, eta beste 8 sarjentu tiros il ebazan, Nafarroako askatasuna aldarrikatzen alegindu ziran aitzakiarekin.

1.837ko Azaroan Muñagorrik bere ***"Bake ta Foruen"*** asmoak aurkezten, espainitar gobernuko lendakari Bardajì Azararengana joan zan Madrillera, eta onartu ondoren, Bardajìk, lauerleko milloi baten saria emon eutson, asmo ori aurrera eroateko.

1.838ko urtean Urtarrillaren 26an Kabrera ta Griñotar Ramon karlista gudal Nagusiak, ostera berrezkuratzen dabe Morella, Portillotar Bruno liberal jaurlarien eskuetatik.

1.838ko urtearen asi onetan, Menkos liberal gudu nagusiak, bideak zabaldu eutsozan Muñagorriri, Toreno kondeak ezagutu egian bere ***"Foru ta Bakezko"*** asmo ori.

1.838ko urtean Otsaillaren 3an errege agindu batek, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak lengoratu egiten dauz. Amarrukeria edo azpiko joko bat baiño besterik ez zana izan, Euskalerrian egoan gizarteko naste borrastea, bertakoak konpondu egiezan(1). Eurak, munduko indar eta denbora gustia euki ebalako, fazizta mendeku orreik ezartzeko gure Euskalerrian.

1.838ko urtean Jorraillaren 18an Muñagorri Berastegitik, Giputz eta Nafartarrentzat bere ***"Bake ta Foruen"*** aldarrikapena egiten dau, Euskaldun Foruak Vn Karlosen ondorengo inguruetatik banandu egiezan, eta agintari barri mendean, Euskal Foruak zaindu zitezen.

Muñagorriren aldirrikapen onek, urduritu ebazan karlistak eta liberalak, bere nastezko mezu orrek, karlistarengandik aldentzea eskatzen ebalako, eta liberalai, eurak ezereztu gure ebazan Euskal Foruak, eukezan Lege Zarreko izatasunean iztea, eskatzen eutselako.

Muñagorri liberala izan zan, eta Euskaldunai eskeiñi euskun ***"Bake ta Foru"*** ori, nastezko sare-arteko txebera bat baiño ez zan izan, guda amaituta, bera bere aberasteko aukeran aurrera egiteko, ta Euskaldunak ezeren aukera barik, espainitar menperatzailleekin konpondu gindezan.

Dana dala, Euskaldunentzat biak izan ziran sare-arteko txebera aundiak, Europako liberalagaitik, bereztasunezko gizartearen eskubide guztiak ezereztuteko, erabakia artuta egon zalako, eta eurak, ezeren eragozpenik bage, Erroma-Godo kaisar diruaren arauzko beartasunagaz, bai ta, diru ta eginkizun orren jabetza katoliko erlijioaren dojmakin legeztu ondoren, Norkeriz katoliko aberkuntzan batzangotuz, sasi-jainkotasunez edo URREZKO-TZEKORRAREN GURTASUNEAN irauteko.

Ala gaur, besterik ikusten al da ?.

1.838ko urtean Loraillaren 7an, karlistaren gudalozteetan matxinatzen asita, Uranga karlistaren gudal nagusiak idatzi eban: ***"Lizarrako 5º taldean, aurrerantza doaz matxintasunezko surmurruak, eta gudu alkarteari, ordaindu dagiotzezala zor jakiezan lan sariak eskatzen dautse, gudal elkartea ilteko keiñuan".***

"Talde guztiak egoera bardiñean dagoz eta Lizarrara etorri gura izan dabe, gauza berberaren alegiñean. Naspildutasunezko ausardi oneik, seiko egunean asita datoz".

1.838ko urtean Loraillaren 10ean Zaratiegi ta Elioren epaiketakaz batera Lizarran, guda

(1) Euskaldunak konpondu egiezan = eta emen beartu genduzan izkilluaren keiñuakaz, gure diruen zuzenbideak konpontzen. Gero dirubide orretatik 1.873ko urtean izkillu indarrez beartu euskuen CONCIERTO ECONÔMICO ori EGITEN.

alkartea batzen zan etxea, arrapaka saskildu eben matxinatuak.

1.838ko urte onetan, liberalaren gudalozteak egon ziran errietan, urduritasun aundiak sortuta egon ziran, espainitar gobernuaren ordaindu eziña betikoa zalako, eta beste aldetik, liberalaren gudal nagusiak indarkeriz, erriko Udalai sekula ez ebazan ordainduko diruak kentzen eutsezelako, gudarien janari ta sariak ordaintzeko. O´Donnel, Donostiko liberal agintari gogor edo sutsuai, tiros ilko ebela keiñatuz.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gudal nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek, Marotori deitzea erabagi eban.

Eta 1.838an Loraillaren 15ean Karlosek, Marotori deitzen dautso etorteko.

1.838an Loraillaren 19an Esparterok, Muñagorrigaz adoz geratzeko egon naian, eta berari esateko, oraindiño ez zala aukerarik egon, bere *"Foru ta Bakezko"* asmoa ezartzeko.

Ernanin aldarrikapen bat zabaltzen dau:***"Liberalaren aldera joaten ziran karlista gudal nagusi ta edozein lerroko gudarien maillakoak, begirunez artuko ebazala" esaten ebana.***

Eta emen bere guzur aundiena: ***"Euskalerriko Foruak begirune aundiekin zainduko ebazala".***

Zelan zaindu edo babestu gure Foru Legeak, 1.836an Dagonillaren 13an, Madrilleko eguras etxean sarjentoren matxinadakin, euren legez ezereztuta egon ba ziran.

1.838an Loraillaren 21ean karlisten matxintasunak, Oñate ta Andoainera zabaltzen dira, gudal alkarte ta gobernuko ***"ojalateruen"*** aurka.

Emen gauza bat argitu bear dogu baiña, Vn Karlosen gobernuko gotzain eta ministruak, ***"ojalateruek"*** esaten eutsenai, ez eutsela emoten garrantzi aundirik, gudariak egiten eban lanari, euren eritzizko Jainkoak, garaipenakaz sarituko ebazalakoan. Bai ?.

1.838ko urtearen Lorail onetan Baionan, Euskalerriko lurralde bakotzatik, ordezkari bat eukiko eban batzar bat antolatu zan, Gonzalez ta Arnaotar Bizenteen lendakaritzapean: Araba´tik Alamedako markesa, Bizkaitik Uhagontar Paskual, Gipuzkoatik Billafuerteseko kondea, eta Nafarroatik Bidartegaz osotuten zana.

Eta batzar onen ariak izango ziran Muñagorrik erabiliko ebazanak, karlistaren aldean nastualdi edo matxintasunak sortu zitezen. Liberalak, 1.839ko Urtarrillan Muñagorri alboratuta ezereztu ebena, espainitarrak ***"Forubageko Bake Gizona"*** ta azpikari trebeagoa aurkitu ebelako, Abinaretagaz.

1.838ko urtean Bagillaren 20tik 22ra, Urizarreko mendikateetan(1) Espartero liberalak, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio karlista gudal buru nagusiaren indarrak menperatzen dauz, eta Bagillaren 25ean Vn Karlosek, Gerge karlisten gudal nagusia agintaritzatik kenduta, Maroto izendatu eban.

Emen banandu ziran Karlistak, sortu ziran alde bi onein erdian, gorroto edo ezin ikus aundiak sortuta.

Elio, Zaratiegi, Gomez, Urbiztondo, Billarreal, Ramirez ta Igeritegitar(2) Aita Zirillo, Erro eta Borbon ta Parmatar Sebastian errege semea egon ziran Marotoren alde.

Eta Marotoren aurka, Fray Domingo Leongo gotzaiña, Aita Larraga, Etxebarria, Arias Teijeiro, Labandero ta Montero, Garzia, Gerge, Moreno, Sanz eta Kabrera gudal nagusiak.

(1)Urizarreko mendi-kateetan = cordillera de Peñacerrada. (2) Igeritegitar = de la Piscina. (3) Zalduba = antiguo nombre Euskeriko de Zaragoza.

Maroto ta Esparterok artu emon onak euki ebezan, Amerikaren kolonizaziozko gudatan alkar ibili ziralako, eta alde bietan sal-erosle ibilten zan Borgotako mandazai Etzaidetar Martin alde batetik, eta Bilboko ingeles guda itsasontziren abia-lekuan egon ziran Hay eta Wilson gudal nagusien bitartez bestetik, asi ziran Maroto ta Esparteroren guda amaitzeko alkar izketak.

Iñork ez eban igarri, Marotok erabilten eban azpiko joko ori, Vn Karlosek, gudalozteen agintaritza emon eutson orduan, karlisten gudalozteak, ezin obeto era berritu ebazalako, gudariak len euki eben indar ta kementasunak aldatuz.

Muñagorrik, bere bizi kondairan esan dogun lez, bigarren alegiñetan asiko zan emen, dana alperrik baiña, espainitarrak, bera baiño saltzaille obiagoa aurkitu ebelako.

Espainitarrentzat, Abinareta izan zan benetako gizon saltzaillea, ***"Foru-bageko Bakea"*** eskeintzen eutselako eurei, eta len bere azpi jokoa aipatu barik geratu dan lez, salatari onek erabilten ebazan Baionatik bere azpiko-mezuak erabilteko: ***"Donostiko Udaletxearen idazkari Alzatetar Lorentzo, Gipuzkoako lurraldean politikako buru, Amilibiatar Eustasio, Ernaniko Alkate Goikoetxeatar Inazio, karlistaren lurraldean bizi zan Arizmenditar Mariano, ta olako agintea euki eben judas edo Euskal gizon saltzailleak erabilten ebazalako, espainitarrai bere ixil jokoan saltzaillezko mezu orreik emoteko".***

1.838ko urtean Uztaillaren 15ean Espartero, Biana ta Lodosaren errien arteko, Labraza erritxoan sartzen da.

1.838ko urtean Uztaillaren 24tik Dagonillaren 24ra Morellan, Kabrera ta Griñotar Ramon karlistak, Oraa ta Lekunberritar Martzeliño liberalari irabazten dautsoe.

1.838ko urtean Urrillaren 1ean Zaldubako(3) Maella erritxoan Kabrera ta Griñotar Ramonek, Pardiñas liberalaren gudal nagusia menperatzen dau, liberalaren talde aundiena ezereztuta, Pardiñas bera be il eta geratu ziran 1.300 gudariak ozta ozta Kaspera elduta, eurei laguntzera etorri ziran Albareztar Paskual koronela, eta Blaser ta San Martintar Anselmo Zigako markesari esker.

Kabreraren esanetan 3.115 gudari euren agintariekaz atxilotu ebazan.

1.839ko urte onetan Maroto ariñago ez bazan asi, Isabelen gudal nagusiakaz asten da berba egiten.

1.839ko urtearen Urtarrillatik, Vn Karlos erregearen gudaltegian, Tejeiro gudal nagusiaren aldekoak ziranak, eta Maroto zaleen artean asten dira, gero ta biziago izango ziran eztabaidak, marotistak Isabelen gudal nagusiekin alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839ko urtean Urtarrillaren 15ean Marotok, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipini eban Garzia ta Orejon-tar Jose´en bidez, Esparteroren bigarrenagaz berba egiten dau, alkar izketa orreitan urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita. Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin, Esparterogaz artu emon aundia euki eban.

1.839ko urtearen Otsailan, Maroto beren gudalozteagaz Tolosara joan da, Gartzia ta Sanz´tar Pablo gudal nagusia eta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralako. Uriz eta Karmona, Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste gudal nagusiekaz alkartu zitezen, eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839ko urtean Otsaillako 14an Maroto ta Esparterok, 1.839ko egiunaren alkarrizketak

antolatzen asi ziran.

1.839ko urtean Otsaillaren 17an Maroto Lizarran sartu zan bere gudalozteakaz, eta gaba orretan, Garzia gudal karlista nagusia arrapau eban Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra eta Uriz intendentziako arduradun karlista gudal nagusiak, Esparterogaz eukezan izketaldi orrein aurkakoak ziralako, eta gudalozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz, bostak tiroz il egien agindua emon eban.

Marotok, Vn Karloseri bere maltzurrezko jokoa ostonduteko, ez eutson esan ezer ilketa orreik egiten joan zala, bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori, jakin ebalako agirian geratuko zala, eta gudal nagusiak aske itxiz gain, bere lagun aundia Esparterogaz, espainitarren alde saldukeriz ibili ziran egiten bakezko alegiñak, utsean geratu ziran, bere bizia be dangilizka geratzen zalako.

Orregaitik, ta Vn Karlosen bigunkeriaren aurrean jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: ***Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak***.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta lis´eko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergè, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedican este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I. P.".

1.839ko urtean Otsaillaren 20an Marotok, eskutitz bat bialdu eutson Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak, beren erara ulertu egizan.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean, Vn Karlosek, azpi-suge edo saltzaille bat zala asarre bizian salatuz, kendu eban Maroto bere agintaritzatik. Maroto baiña, egoeraren nausia zan, eta Vn Karlos, ez zan gauza izan, Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Vn Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran gudal nagusiak, Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrerako zalantzak, gogortzen asi ziran.

1.839ko urtean Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora bera ezer aitatu barik.

1.839ko urtean Epaillaren 3an Marotok, ostera salatzen dauz erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, bertan be eukezan bere aurka asita egon ziran gudal nagusiak. ***Gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zan.***

1.839ko urtean Jorraillaren 17tik Loraillaren 13ko egun bitartean Kantabrian, Ramaleseko borrokea.

Maroto izan zan karlista gudaloztearen agintari, eta Liberal gudaloztearena Espartero.

Liberalaren indarrak, bikoiztu egiten ebazan gaiñetik karlistarena, eta laukotu egin ebazan Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, Guardaminoko gaztelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok borrokan asi orduko, etsaimentzeko agindu eutsonean.

1.839ko urtean Jorraillaren 27an karlistentzat, ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok, aurkako alegin aundi barik itzi eutsezan liberalai.

Gero borrokatu ziran gogor euren gazteluak zaintzeko, baiña atzeratu bear izan eben kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839ko urtean Loraillaren 8an Esparterok goizetik, Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko lenengo orduetan barrura sartuta, berton egon ziranak baiña, sua emon eta iges eginda, utzik aurkitu ebazan gaztelu orreik.

1.839ko urtean Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaiaren Karrantzako ibarrean euken aurkako borrokatik alde egin eben.

Gudari karlistak bitartean, saldukeria egon zala asi ziran gogoratzen, eta gaur badakigu, egia zala gudari karlistak susmatzen ebana.

A ta guzti borroka gogorra egin eben, alde bietatik 2.000 il egon ziralako, karlistentzat borroka au asko esan gura eban baiña, Guriezon, kañoitegiko labak galdu ziralako, eta Kantabriako bideak moztu.

1.839ko urtean Loraillaren 13an Guardaminoko gaztelua inguratuta geratu zan, eta Marotok, bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu eutsen gaztelua, eukezan guda tresneri guztiagaz, eta liberalak arrapau ebezan gudariak karlisten aldera bialdu ebazan, baldintza onegaz: ***Ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak eukezan gudari liberalakaz, beste ainbesteko gudarien truke egin arte.***

Karlistek Gordejuelan, galdu ebezan Molinarreko gaztelu eta Guriezoko kañoigintzak.

Espainitar gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik ***"Garaipeneko Dukea"*** (1) izendatu eban.

1.839ko urtean Loraillaren 19an Muñagorrik, Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen da denboraldi baten.

1.839ko urtean Loraillaren 22an Maroto, antolaketak egiten asi zan, Frantziako gobernuek, artekaritzazko ardurak artu egiazan gudalozte bien artean, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesen billa asi zan. Uztaillaren 20an Lord Hay´ekin lortuta artekaritza ori.

1.839ko urtean Loraillaren 29an Espartero Balmasedan sartzen da.

Argi dago emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek bere gudalozteetan indar aundia eukela ikusita, eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebazalako bere barnean.

1.839ko urtean Bagillaren 28an, Luis Felipe erregearen izenean, Soult Frantzez mariskala ipini eben artekari lez, Vn Karlos eta bere emazte Beirako Dukesa, espainitar erregetzari ukatuz, eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, espainitar kondea ta Kabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

(1) "Garaipeneko Dukea" = Duque de la Vitoria" Espartero.

Beste iru txatal be euki eban agiri onek:

a) Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba IIn Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkonduta, espainitar errege zitezen.

b) Euskalerriko Foru Legeak, 1.830aren urte orduko, euki ebazan jabetasunean beti lez itxi.

d) Eta gudari karlistai euren maillakin, espainitar gudalozteetan lerrokatzeko almena emoten ebana.

Elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez eben euki aurrerakuntzarik, Espartero lenengo, eta espainitar gortekoak, Euskalerriaren menpetasun atzean ibili ziralako.

Eta egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik alan gertatu zan, indarkeriaren keiñuagaz eta guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerria menperatu ebalako.

Gaurko Euskaldunak, gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori da, Europaren aurpegian egia aurkeztuta, argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Marotok, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay´k itsas untziren kapitaiñagaz berba egiten dau, Diego de Leon karlista gudal nagusiak, Ellioten ituna apurtu ebala aitzakiarekin, gudalozte bien artean, Ingelesaren bitartekoa billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dau, karlistai atzeratuazota.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hay´en arteko elkarrizketa, onek Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak.

Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok, espainitarren jaurkintzan aurkeztu eta gero esan eutson. Eta espainitar gortekoak, Karlosen gudalozteak Isabelen ama Kristinaren agindupean geratzen ba ziran, erantzun da.

Alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziran, eta Bera, Lezaka ta Urdaxen, Marotoren aurka matxinatu ziran.

1.839ko urtean Dagonillaren 19an Vn Karlos bera be salduta, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dau.

1.839ko urtean Dagonillaren 22an Espartero, Durangon sartzen da, eta alkarizketak azten dira alde bietako gudal nagusien artean.

1.839ko urtean Dagonillaren 24an Maroto, liberalaren gudal nagusi Zabalagaz alkartzen da, Esparterorekin berba egin gura ebala ta. Eta Marotok bere gudal nagusiekaz berba eginda, Vn Karloseri esan eutson zelako asmoak euki ebazan.

1.839ko urtean Dagonillaren 25ean, Elgetan erri agintari eta gudal nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai lenengo gazteleraz, eta gero beste bateri aginduta euskerara itzuli egien, berba egin ebanean, Marotok gudariai keiñua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Vn Karlos laguntza barik ikusi zan ezkero, Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an, Abadiñoko San Antolin baselizaren izketaldian, euki eben lenengo ikustea Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura, Maroto izan ezik.

Espainitar agiri oneik gure Lege Foruak baieztatzeko, euren menpeko zentzuan esaten ebena, espainitarren aberriko legearen adoztasunean etorten ba ziran baldintzagaz lotuta

geratu ziran: ***"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"*** esan gura ebana.

1.839ko urtean Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta, Marotok, parkamena eskatu eutson Vn Karloseri, eta gudaloztearen prestakuntza agindu eban kristino gudaloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen gudal nagusiak ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan gudaren amaiera.

1.839ko urtean Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimenik bage, de la Torretar Simon gudal nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebazala eskeintzagaz.

Baitzezko berba orrekaz, gure ***"Foru Lege"*** edo ***"Lege Zarrak"*** espainitar gortekoaren naikerizko borondatepean geratuta, Espartero bera izan zan lenengoa bere espateagaz, Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839ko urtean Iraillaren 3an Bizkaiko Aldundia, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora joan zan, Aretxabala gudal nagusiaz Foruen gora beran berba egiteko.

1.839ko urtean Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoko errian errendatu edo etsaimendu zan, Bergarako egiune derrigorrez onartuta.

1.839ko urtean Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egiten dau, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezen, garaitzaille gudal nagusi(1) ***"Garaipenaren Dukea"***(2), espainitar jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dau, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Araba ta Napar gudariekin, Auñamendiko mugatik Frantzira aldatu zan.

1.839ko urtean Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, Gebaratarren gaztelua errendatu edo etsaimendu zanean amaitu zan, Euskalerri ta karlistaren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Eta Katalanak izan ziran Karlosen ikurra aurrera eroan ebena, 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

1.839ko urtearen Urrillan, Euskalerria gudariz beteta itzi ondoren, Espartero 44.000 gudarigaz Zalduba edo Zaragoza´ra joan zan, bere gudaltegia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako "Foru Legeak" bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: ***"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia".***

Eta beren bigarren idazkunean, gure ***"Foruak, espainitar erreiñuaren orokorrezko***

(1) Garaitzaille gudal nagusi = invicto general. (2) Espartero.

konstituzio edo iraspenagaz egokituta" esaten ebana.

1.840ko urtean Urrillaren 12an Esparterok, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, espainitarren jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera asiko dira zabaltzen, gure Euskal Lege Zarraren zauriak.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure ***"Foru Pasaia"***(3), ezereztuten dau, espainitarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urtean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak, Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarrizko ***"Ley Paccionada"*** ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak, O´Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen Esparteroren aurka.

Bere goiko kondairan esan doten lez, Muñagorri be ilda, eta Espartero garaipenduta, onek ez eban galdu, aurkeztu jakon aukerea, eta ***1.841eko urtean Urtarrillaren 29an gure Foru Legeak*** ezereztu ebazan.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gudalozteetan, gudal buru nagusi lez, eta Marotoren etxeko kondea izendatu eben.

Marotoren saldukeria eta Esparteroren maltzurkeriak, lenengoetatik argi ikusten diranak dira.

61. *IIn Isabel, 16 urte euki ebazanean.*



97ko ur-margoko laukia, isekari, "Borboiak billuzik" erakusten dauena. Jakin degun, orduko denboran, zelan ikusten eben erritarrak Borboi´en senditasuna. Eta IIn Isabel ta bere senar, Borbo´tar Asiseko Frantzizko, eskumako argazkian.

(3) Euskaldunen legean Foru Pasaia = pase foral, por la cual los mandatos del señor si no eran acordes con nuestras Leyes Forales, se recibian pero no se cumplian.

Goian aipatu dogu, IIn Isabelek umeetan ez ebala euki azkuntza onik, bere ama naikoa euki ebalako bere maitaleekin.

Nai ikasketarako, Arguelles´tar Agustin irakasle nagusia lez; Bentosa´tar Jose Bizente orokorrezko irakasle; Fontela´tar Fernando eresi irakaslari; Balldemosa ta Olozaga´tar Sebastián lege gizon aundiak euki arren.

Erlijio, etxekotasunezko ikasketak, eta pianoa joten irakatsi eutsoen geien, politikako arloa ta edozein eratako umanismu edo elerti-ikasketak alboratuta.

Eta Irakasle oneik egon ziran Isabelekin, emakumezko kundetasunetan(1) artu egiezan goi maillako trebetasunak:

Bentosa´tar Jose Bizente, bota ebena errege jauregitik, gauza astunak egin ebazalako; Fontela´tar Franzizko, Isabelen maitale lez ezagutu zana, Isabelek, IIIn karlos erregearen gurutzeagaz xingolatu ebena; eta Olozaga´tar Salustiano izan zan erregiña mintz-urratu ebana, ta maitekotasunezko trebetasunetan erperatu ebena.

IIn Isabelek baeukan be, IXn Pio Aita Santaren baimenakin, Narbaez´tar gudal nagusi jenerala, bere aitorle Klaret´tar Antonio Maria artx-apezpikua, ta sor Patronizinio lekaimeen aolkua, erlijiozko gauzaren gaiñetik, maitale bategaz ez zedin maite mindu, eurak aolkuratuz, maitale orreik jai lagunen artean aukeratu egiezen.

62. *IIn Isabelen ezkontza.*

1.846ko urtean IIn Isabelek 16 urte euki ebazanean, espainitar gobernuak ezkontzea antolatu eutson, bere bi aldeetako leen maillako legusua zan Borbon ta Asis´tar Frantzizko Kadizeko dukeagaz. Mutillen aita Paulado Franzizko, VIIn Fernandoren anaia zalako, eta bere ama, Bi Siziliako Borbon´tar Luisa Karlota, Maria Kristinaren aizta zalako.

IIn Isabel´en ezkontza onegaz, nai ta seme alaba asko eukin, ezkontzaren leenengo egunetik, ez eban ezagutuko zorionik.

Ortik aurrera bere bizitza, eten bageko jai bat izan zan, goizeko 5etan ogeratuz eta arratsaldeko 3retan jagi, bere gogoko maitale ugariekaz ibili ta gero.

Ezkon-gai edo senar-gai asko euki ebazan, Europan urdurik egon ziralako ezkontza orrek euki eban garantzi aundiagaz.

Gauza bategaitik edo besteagaitik baiña, danak baztertu ziran, arik eta bere alde bietako leen maillako legusua, Borbon´eko Asis´tar Frantzizko aurkeztu arte.

1.846ko urtean Urrillaren 10ean Madrillen ospatu zan euren ezkontza, errege jauregiaren jaur-alkiren gela aundian, IIn Isabelek 16 urte eukazala. Bai egun orretan eta leku bardiñean, bere aizta Borbon´tar Luisa Fernandaren ezkontza be, Orleans´tar Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko errege izan zan I Luis Felipe erregeen semearekin,

IIn Isabelek, ez eban ikusten bere senarra begi onekin, idazle batzuk esaten daben lez, maritxu antzeko bat izan zalako.

Gaiñera, alako aldikada baten, IIn Isabel berak esan eban: ***"Zelako itxaropena eukiko ote eban bere senarragaz, ezkontzako gauan, berak baiño aurrenezko-xerrak(1) eroaten ba ebazan?.***

(1) Xerrak = encajes, puntillas.

Nai ta Borboi´tar Asis´eko Frantzizko onen denborako idazleak esan arren, ezkontzatik kanpoko seme alabak euki ebazala, eta ezagunak zirala berak euki ebazan maitale batzuk ezkontzatik kanpo. Bere bizi denboran, lagun min bat ezagutu jakon, Meneses´ta Antonio Ramon deituten zana.

Dana dala, IIn Isabel eta bere senar Borbon eta Asis´eko Frantzizko izenean, amabi alaba semeak euki zituzen, nai batzuk aur-galtze ta jaio barri ildakoak euki:

-1.849ko urtean Loraillaren 20an ***Luis Fernando*** ilda jaio zana. Seme au, Bendar markesaren semea izan zan.

-1.850ko urtean Uztaillaren 12n ***Fernando Franzizko***, jaio tai il zana. IIn Isabelen senar ezkontzako errege Asis ta Borbon´tar Franzizko semearen semea zana.

-1.851ko urtean Abenduaren 20an ***Maria Isabel*** Girgentiko kondesa eta Asturiaseko printzea arik eta XIIn Alfonso jaio zan arte. Eta ***"Sudur-motz edo La Chata deitzen ebana" Ruiz ta Arana´tar Kapitaiñaren alaba izan zalako***, Bi Siziliako Borbon´tar Kayetanogaz ezkondu zana, eta 1.931ko urtean Jorraillaren 23an il zana.

-1.854ko Urtarrillaren 5ean ***Maria Kristina***, jaio ta egun bira il zana, Eskorialean illobiratu ebena. Iñok ez daki noren alaba izan zan.

-1.855eko urtean Azillaren 24an ***Margarita*** egun bat bakarrik bizi zana. Iñok be ez dakiena,noren alaba izan zan.

-1.856ko urtean Bagillaren 20an, ilda jaio zan seme bat. Onen aita be, iñok ez ebena jakin nor zan.

-1.857ko urtean Azillaren 28an ***Alfonso*** Asturiaseko printzea, eta errege izango zana XIIn Alfonso izenarekin, 1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan arte. Bere aita, gudal injenieruen kapitaiña zan Puij ta Molto´tar Enrike izan zan, izen-gaizto lez ***"Ollar Erregea"*** deituten eutsoenai.

Isabel bere ama, umea argitzeko egon zanean, bere osagille Oña ta del Korral´tar Tomas Eustakio´ri itandu eutson, ia neska edo mutilla zan, eta mutilla zala esan eutsolako, ***"erregeen igarkuntzazko markesa"***(1) izendatu eban.

IIn Isabelek badauka beste esan bat be, bere seme XIIn Alfonsogaz berbetan egon zanean, auxe esa eutsoenean : ***"Bere sanetatik , ez zala ibilten beste Borboi odolik, berak eukena baiño".***

-1.859ko urtean Abenduaren 26an, ***Asis´tar Sorkunde Franzizka***(2), 1.861eko Urrillaren 21ean il zana. IIn Isabel senarraren alaba zana.

-1.861eko urtean Bagillaren 4an ***Berengela´tar Maria Pilar***, ezkondubage bizi zana arik eta 1.879ko urtean Dagonillaren 5ean18 urte eukezala il zan arte.

-1.862ko urtean Bagillaren 23an, ***Maria de la Paz***, Gallierako dukesa, eta Babierako Luis Fernandorekin ezkonduta egon zana, arik eta 1.946ko urtean Abenduaren 4an il zan arte.

-1.964ko urtean Otsaillaren 12an ***Maria Eulalia***, Gallierako dukesa, eta Orleáns eta Borbon´tar Antoniorekin ezkonduta, 1.958ko urtean Epaillaren 8rarte bizi zana.

-1.866ko urtean Urtarrillaren 24an, ***Asis´tar Leopoldo Frantzizko***, 1.866ko urtean Otsaillaren 14an il zana.

(1) Marquès del real acierto. (2) Sorkunde Franzizka = Maria de la Concepción Francisca de Asis

IIn Isabelen erregetza, espaintarrak edesti guztian euki dabe usteltasunezko jaurkintza lez erroldatu leikela ***diñoe***. Kostako jako oraindiño baiña, gaurko ***Rajoi´en*** gobernuak daukan jaurkintzazko usteltasun mailla gainditzen

Aldizkari onetan, leku geiago ez dogulako, amargarrenean asiko gara IIn Isabelen erregetzarekin.

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.18ko urtean Urtarrillaren 10´ean.

EUSKALERRIAREN EDESTIKO Xn. ATALAREN AURKI BIDEA.

I. ZATIAN.

GAIAK		ORRIA
1. 1.	Aurki bidea.....	893 - 895
1. 2.	Sarreraren aurkezpena.....	896 - 896
1. 3.	VIIIn atalerarte eta beren sarreratik, argi ikusten dogu.....	896 - 896
1. 4.	Bai, Europako mendebal onetan, Erromatar eritzizko Godo oneik katolikotasunezko erlijioa, ezartzeko alegiñean zer egin eben.....	896 - 898
1. 5.	IXn ataleko sarreran ikusi gendun.....	898 - 899
1. 6.	IXn atalean gero.....	899 - 900
1. 7.	Frantziko Iraultzan, leenengo Errepublikea.....	900 - 901
1. 8.	II Isabel espainitar erregiñaren aurkezpenean.....	901 - 903
1. 9.	1.823ko urtetik aurrera, espainitar Laterriak, zelan dauka "Estado Espaiñol´en izena, aberria izan balitz bezela.....	903 - 903
1. 10.	1.830eko urtetik, 1.833-1.839ko urte bitartean, leenengo karlistadaren gertakizunak ikusteko.....	903 -910
2.	Aurkezpen oneik ikusi ondoren, Xn atal onen Euskalerriko edestien kondaira onetan: Bigaren ZATIA.....	910 - 910
2. 1.	IIn Isabelen erregetza.....	910 - 912
2. 2.	1.840-1.844ko urte bitartetan, Euskalerriak bakearen ordez, menpeko legeekin, ordaindu bear ebazanak.....	912 - 913
2. 3.	Lau urte onen Ondorioa.....	913 - 915
2. 4.	Espainitarren edestiko liburuetatik artutakoa.....	915 - 915
2. 5.	Liburuaren XXIV-XXV´eko txataletik asita.....	915 - 916
2. 6.	Denbora orreitan, espainitarrak, "Aberri lez egiztatu egiten dabe, euren espainitar katolikotasuna".....	916 - 916
2. 7.	Iru azalpen edo adierazpen onei eratzuna emoteko, len jakin bear doguna.....	916 - 917
2. 8.	Lenengo azalpenari erantzunda.....	917 - 918
2. 9.	Bigarren azalpenari erantzunda.....	918 - 918
2. 10.	Irugarren azalpenari erantzunda.....	918 - 918
2. 11.	Toledoko kaisertza, edo Toledoko kaisarkeria.....	918 - 920
1. 12.	Euskalerriko edestia ostera berrezkuratuz, 1.844-1.860ko urte bitartean, edestilariak esaten daben IIn guda karlista asi ta amaitu zala.....	920 - 926
2. 13. (1)	1.865eko urtean Dagonillaren 25ean jaio zan Arana ta Goiri´tar Koldobika, Arana ta Goiri´tar Sabinoren baiño, iru	

urte zarragoa izan zana, eta abertzaletasunaren arloan,
Sabino´ri begiak zabaldu eutsoenak.....926 - 927
2. 14. (2) Arana ta Goiri´tar Sabinoren jaiotza.....927 - 928
2. 15. 1.841-1.875eko urte bitartekoak aipatu bear doguz, karlista alderdiaren era barritze edo antola barria lez.....928 - 928
2. 16. IIn Isabelen erbesteratzea..... 929 - 929
2. 17. Karlista alderdiarren era berritze edo antola barriari ostera ebatuta.....929 - 932
2. 18. Oarpena.....932 - 932
2. 19. Ostera, karlisten 1.841 - 1.875eko urteen arteko berriztaren aria berrezkuratuta.....932 - 937
2. 20. Saboya´tar I Amadeo dukearen, bizi kondaira laburra.....937 - 937
2. 21. Saboyako Amadeo´ren erregetzak euki eban aurkaritza.....937 - 937
2. 22. Saboyako I Amadeo dukeak, emon ebazan pausoak espainitarren erregetzan ezartzeko.....937 - 940
2. 23. (3) Sabino´ren leen ikasketak.....940 - 940
2. 24. I Amadeoren aria ostera artuta.....940 - 941
2. 25. Erregeak, ertzerakoiekaz euki eban estutasuna.....941 - 942
2. 26. (4) Sabinoren leen ikasketak.....942 - 942
2. 27. Ostera edestiaren aria artuta.....942 - 943
2. 28. VIIn Karlos erregenai onen bizi kondaira.....943 - 944
2. 29. 1.872ko matxintasunaren aria, ostera berreskuratuz.....944 - 945
2. 30. (5) Sabino´ren bizitza artuta.....945 - 945
2. 31. 1.872ko matxintasunaren aria ostera berrezkuratuz.....945 - 947
2. 32. Dorronsoro´tar Migeleen bizi kondaira laburra.....947 - 948
2. 33. Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira.....948 - 950
2. 34. (6) Arana ta Goiri´tar Sabino.....950 - 950
2. 35. Ostera, Santa Kurtz apaizaren aria artuta.....950 - 952
2. 36. (7) Arana ta Goiri´tar Sabinoren bizitzari ostera oratuta.....952 - 953
2. 37. Santa Kurtz´en aria ostera artuz.....953 - 953
2. 38. Lizarraga eta Eskiroz´tar Antonioren bizi kondaira.....953 - 955
2. 39. Dorregarai eta Domingera´tar Antonioren bizi kondaira laburra955 - 957
2. 40. Euskalerriko edesti onetan karlistaren guda ostera oratuz.....957 - 957
2. 41. (8) Sabino´ren aita Santiago.....957 - 959
2. 42. Ondorio labur bat.....959 - 961
2. 43. Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.....961 - 962
2. 44. (9). Arana ta Goiri´tar Sabino´ren aita Arana´tar Santiago.....962 - 962
2. 45. Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.....962 - 964
2. 46. Ondorengo oarkizun txiki bat.....964 - 964
2. 47. Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.....964 - 964
2. 48. Oarpen txiki bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun...964 - 965
2. 49. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....965 - 966
2. 50. Karlisten arteko gertaera oneik.....966 - 966

2. 51. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....966 - 967
2. 52. (10) Arana ta Goiri´tar Sabin.....967 - 967
2. 53. Karlisten guda ostera berrezkuratuz.....967 - 970
2. 54. (11) Arana ta Goiri´tar Sendia.....970 - 971
2. 55. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....971 - 971
2. 56. Ondorengo oarpen labur bat.....971 - 972
2. 57. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....972 - 972
2. 58. 1.874ko urtean, agertutako aldizkariak.....972 - 972
2. 59. Karlisten guda ostera berrezkuratuz.....972 - 973
2. 60. Gogora ekarteko, oar txiki bat.....973 - 973
2. 61. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....973 - 977
2. 62. 1.874ko zati onen oarpena.....977 - 978
2. 63. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....978 - 979
2. 64. (12) Arana´tar Santiago, Sabino´ren aita.....979 - 979
2. 65. Karlisten gudak ostera berreskuratuz.....979 - 981
2. 66. Karlisten gudak Kataluniako ekitaldietan.....981 - 982
2. 67. Karlisten gudak Euskalerriaren ekitaldietan.....982 - 982
2. 68. (13) Merindadearen arduradunak.....982 - 983
2. 69. Karlistak, Euskalerriko ekitaldietan berreskuratuta.....983 - 984
2. 70. Karlistek euki ebazan indarrak denbora onetan, alan zenbatu leikez.....984 - 984
2. 71. Gudarako tresnerien lantegiak.....984 - 985
2. 72. Gudarien ikasketarako.....985 - 985
2. 73. Onen oarpen laburra.....985 - 986
2. 74. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....986 - 986
2. 75. Onen oar laburra.....986 - 987
2. 76. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....987 - 989
2. 77. Oarkuntza.....989 - 990
2. 78. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....990 - 990
2. 79. (14) Arana ta Goiri´tar Sabino.....990 - 991
2. 80. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....991 - 993
2. 81. Arabaren galduera.....993 - 994
2. 82. (15) Arana Goiri´tarren, sendi ta anaiak.....994 - 994
2. 83. Karlisten guda ostera oratuta.....994 - 994
2. 84. Azkeneko oarra.....995 - 995

Oar txiki bat emen:

Atal onetan, izki etzan edo (kurtsiban) idazten diran zatiak, nire eritzi edo neure oarkizunak izango dira.

Eta izki etzan baltzetan idazten diranak, ataltxoen izen buru, ta Arana ta Gori´tar Sabinoren sendiari egokitzen jakozenak izango dira, Sabino´ren bizitza ta bere sendiaren kontakizunak, gure dauazanak, errezago batu egiezen.

1. 2. *Sarreraren aurkezpena.*

Euskerazaintzaren Xn ataleko Euskalerriaren edesti onetan, eldu gara, euskaldunentzat garrantzi aindiena daukien XVIII, XIX, ta XXn gizaldiko urteetara.

Katolikotasunaren aberkuntzazko eritzikoak, emen baiezten dabezalako, laugarren gizalditik asita, edesti guztian nai ta ziñezkintza guztiekaz ezin izan dabezanak baiestu.

Txarrena baiña, Erromatar-Godoen kaisar-menperatzaille legeakaz, aberri-katoliko erlijioaren eragipenagaz gaiñeratuta, aurrera egiten dabela kolonizaziozko lapurketakaz.

Ulermeneko zentzu onez ezinean, gudaloztearen indarrezko lapurketara bideratu ebazan alegiñ orreik, eta asmatu eben katolikotasunezko erlijioaren eritzi orren bidez, Mundu osoa erlijio ortan aberriz-batzangotzeko itxaropenean, sasi-legeztu egiten dabez erritar sinisteak.

Eta ortik agertzen jakie, jabetasunazko arloetan eurak daukien maltzur-guzurrezko ta lapurrezko eskubide ori, eurena izan balitz bezela, legunean Kospedalek telebistan eta euren (PP) batzar nagusian esan eban antzera, *"tenemos que defender lo nuestro"*.

Zer ete da eurena ?.

Mundu onetan geurea edo neurea, "ARDUREA DA", ortik aurrera iñork edo Aita Santuak be, ez daukolako jabetasunik edo ezerezko nerekotasunetik ezer.

Emen, erlijio bidez legeztu egin ziran lapurketa orreikaz, Europa osoa, zentzunbageko Laterrietan aberkuntzatu eben, Goiko Jaungoiko Egilleak, Giza-Abere, Arraiñ, Gai-Lur-Aize-Urak, Berak bereztasundutako legeakaz eskubidetuta Daukazanen aurka.

Orregaitik, VIIIn ataleko sarreratik asiko naz aurkezten Xn Atal au, esan bear doguzenak, danon ulermenerako, ondo marraztuta izteko edesti lez.

1. 3. *VIIIn Atalerarte eta beren sarreratik asita, argi ikusten dogu:*

Euskalerriaren jendekuntz aundiko legegille biltzar demokratikoak, nundik jaio, ta zelangoak ziran, ainbeste milla azturazko urte bidez, lortu ta gaur arte irauteko.

Europako Mendebal onetan, Euskerea aztu barik, euskaldunak Eskoziatik Kadizeraiño, eta Atlant Itsasotik Alemania erdirañoko lur orreitan, ainbeste milla urtetan bakarrak izanda, euken berezitasunezko zabalkunde aundia kontuan artu bear dalako.

Bai euskerea be, gure nortasunezko izen-buru lez artu gendunetik, bizitzaren ekintzako alkar babesean artu genduzan senidetasunezko zentzuak, ondo baiño obetoko kontuan artu bear dirala, orduan be eta gaur baiño obeto, euki gendun erlijiozko ulermenetik, GOIKO Jaungoikuari eskeintzen geuntsezalako eguneroko eginkizun guztiak.

Geroago eta IVn gizaldian, zelan I Konstantinok, Erromatar Kaisertzaren maldaberea ikusi, ta Izadi onen giza, arditalde lez bideratzeko, Kristau eleiztar I Silvestre Aita Santu ta Osio Kordubako gotzaiagaz alkartu ondoren, zelan siñis-egi lez, ziñezkintzatu eben asmatu ebezan Aberri-katolikotasuneko lege baldintzak, aberkidetasun orreitan, munduko giza osoa batzangotu zedin. Arik eta Godoak Vn gizaldian, Erromako kaisertza menperatu ondoren, eta katolikotasunezko erlijio orregaz jabetu, euren txanda artu, Mauritarrak agertu ziran arte.

1. 4. *Bai, Europako mendebal onetan, Erromatar eritzizko Godo oneik, katolikotasunezko erlijioa, ezartzeko alegiñean zer egin eben:*

Godo auek, erromatarren ordegotza artu ebenetik, ta Toledon ezarri eben kaisertzagaz, euren zabaldunezko asmakuntzakin, Euskalerriaren giza semeakaz, beti borrokan agertuz gaiñ, erromatar kaisertzazko lengo ari ortatik, Europa, katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzen asi zirala, arik eta Mauritarrak agertu ziran arte.

K.a. 2.000 urte, Alemaniako lurraldean keltiarrak agertuta, eta K.a. 800 urte, Keltiarren zabalkundean Europatik zear, Frantziaren lurraldeko Normandiaren ingurutan keltiar frankoak euren banaketazko antolamentuagaz agertu ostean, eta Klodobeok K.o. Vn gizaldian leiñu orreik batu ebazala erregezko antolamentuan, eurekin erri bat lez asteko.

Asturiaseko erregetza Pelayorekin sortu zala, bere Erroma, Godotar, ta Kristau erlijio zentzuagaz batera, Mundu au, aberri katoliko erlijioan ezartzeko asmakuntzaren bidetik.

Eta erreiñu orreik sortuta, zelan sortu zan Napar erregetza, eta nai ta katolikotasunezko erlijiokoakaz batera ibili eta errege erregiñaren artean, Europa osoa senidetasunean nastu arren, beti ibili zala bere Batzar-Zaarren agindu demokratikoetara, eta erdiugarte onetan geroko mapa osotzeko, zelan Napar ari bidetik sortu ziran Gaztela ta Aragoiko erregetzak, eta batera Leongo erregetza, katolikoen menperatzaillezko legean ezarrita, Frankoen eta Asturias´eko erregetzak lez.

Edestitik zear eta guda indarrez, gure Euskal Demokraziaren Askatasunezko legeakaz berdinkatzen ibili diranak, gaurko egunetan egiten daben antzera"(1).

Ez dira konturatzen, berezko jendekuntz bide, edo berezko nortasunaren azturazko ikas bidetik, gure legezko egarriak azetzeko, Izadiak daukazan legeetatik atara edo berdinkatuz, sortu edo agertzen direzan legeak, ez direla bardiñ edo antzekoak be, norkeri bidetik asmatzen edo egiten direnakaz.

Norkeriz edo guzur bidetik egiten direzan legeak, guzurrara bideratzen gaituelako. Izadi onetan, ezin dalako asmatu legerik, Izadiak daukazan legeakaz jokatu baiño.

Bai VIIIn atalean bide batez, eta Kondaño´n omenez, berak ikertutako *"Las Confirmaciones y el Pase Foral"*eko lan ederra aurkezten dogula, gure Batzarraren Lege Zarrak, argitasun geiagoagaz ikusi dagiguzan.

Eta euskal Lege Zar orreik daukien zentzunezko argi ta indar guztien gaiñ, Europa eta Mundu osoa katoliko erlijio orren mende batzangotuz aberkidetzeko, norkeriz asmatutako ziñezkintzazko edo dojmatikasko menperatzail legeak ezarri dabezala, gure edo berezko legeakaz, berdinkatzen be ez dabezanak izten.

Katolikotasunean batzangotzeko, aberkidetasunezko lege orreri esker, Jaungoikuak Berak sortutako edo bereztutako Izadari, ipini Eutsoezan legeen aurka igeriten gabiltz.

Ia noiz eltzen dan eguna, bereztasunezko demokrazian zentzunduta, mai inguru baten ezartzea, Europa ta Mundu onen arazoak konpondu ginduzen.

Foru Baimena edo zergaitik sortu zan Pase Forala be argitu gendun, Aragoiko IIn Fernando eta bere emazte I Isabel katolikuak gero, Bizkaiko Jauntza edo Bizkaitarren Artekaritza artu ebenean, jakin degun zergaitik egin bear izan eben ainbesteko ziñezpen edo zinkunde, Bizkaiko Jauntzaren ardurak, artekari lez erabilteko.

Bai ta nungo bidetik, eta zergaitik agertu ziran gure Euskalerrira, atzerritar jauntzazko edo Gaztelarrakin erregezko lotura orreik.

(1) Munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako = Europako Mendebal eta Ekialdeko lurraldetan beintzat, dan guztia edo erri guztien erregeak "Katolikotasunezko Aberkuntz orregaz lotuta geratu zalako.

Argitasun orreik eginda, eta ikusita Europaren orokortasunean, erri-jaurkintzaren etorkizunezko denborak, argi ta garbitasun geiago bear ebazala, eta katolikoen aberkuntz ori ez zala lortzen iñundik iñora, erabiltzen ziran kolonizaziozko menperatzail legeak, euren guzurkerizko almenaren mugaraiño eldu ondoren, politikazko arazoak baiño besterik ez ebezalako sortzen, errigizartearen bizitzazko artu emonak ibilgaitzezkoak biurtzen asi ziran, eta Frantziko Iraultzan sartu giñela, beste zuzenbide barik.

Bizitzazko ekanduaren zor-eskubideetan, oker-xautzezko muga edo bide-gabetara eldu giñan: *"Etenbageko odoljarioaren gudakaz bakezko alegiñakin, eta al zan zentzunezko on bidearen erabagiakaz", ez zalako lortzen eskubideen berdintasunik, ez eta gitxiago, bakerik.*

Katolikotasunezko aberkidetasunaren sasijainko menperatzail lege orreik, ekarten daben orokorrezko guzurrakin, dan guztiko giza bazterrak, guzurrez lokaztuta geratu ziran.

Eta Frantziko iraultzan sartuta: "al-osokerizko lege zar guztiak kendu", eta "ainbeste gizon emakumeai: *Egia, Askatasun, ta Bardintasunezko idazburuaren izenagaz,* lepoak moztu arren", alegiñ guzti orreik, giza seme-alabaren eskubide guztien gaiñetik egin ziralako, ez eben balio ezer, norkerien legezko asmo orreik, ez daukielako zentzurik.

Eta Napoleon agertu zanean, leenengo errepublikea ezereztu, ta legezko gauza guztiak, erregeen alosokerizko legeakaz, aberkuntz katolikoen erlijiozko menperatzail batzangoan ezarri ziran barriro, iraultzagaz kendu ziran lege guztiak, Napoleonek berreskuratuta.

Orain, VIIIn ataleko edesti orren ari bidetik, IXn atalean idatzi genduzanak aurkeztuko dautsuet, Xn ataleko edestia, argi geiagoaz ikusi degun.

1. 5. *IXn ataleko sarreran ikusi gendun:*

Argi geratu zan, garrantzi aundiak euki ebezala Frantzian sortzen ziran gauzak, Europa, ta obeto esanda, munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako(1).

Eta Edestitik zear, ainbeste milla bider, alperrezko saioak egin eta gero, aldi onetan jakintsu aundi(2) orreik, frantzez gizarteagaz saiatu zirala: *"Ia nundik batzangotu ta artalde lez bideratu, Europako gizarte guztia, asmatu eben menperatzaillezko katolikotasunaren aberkidetzan batzangotzeko, goitik berako aginduan".*

Euskalerriarentzat zer ezanik ez, milla urte asko bidean demokraziaren askatasunezko zentzuak bere Baitan oituratuz eukinda, Euskalerriko gizartea izan dalako, euren menpeko saio orren aurka, etsai aundiena.

Edo bakarra ?.

Kontuan artu bear da, milla urte askotan, Atlant-Itsasotik Alemaniaraiño, eta Eskoziatik Kadiz´eraiñoko lurralde guzti orreitan, ez zala egon beste giza semerik, Euskaldunak euken Euskerearen jendekuntzatik eta Askatasunezko demokrazitik kanpo ezer, eta eurak erabilten ebazan lurraldeak izan ziralako, or, barneratu ziran askatasunez, lortu eben euskal demokrazizko sinismenakin.

Orregaitik, arrittuko ote gara ba: "Euskal demokrazizko jendekuntzaren aurka izan dirala edesti guztian, katoliko fazizta orrein aberriko eraso guztiak" Europaren Mendebal lurralde auek, zentzuz euki ebazan Askatasunezko Demokraziak ezereztuteko alegiñez ?.

(1) Euskalerriko edesti onen saioa geien egiztatu egiten dauanak, edestia bera da, 325eko urtean Nizean egin zan batzarretik ona, arazo bardiñak daukaguzelako bereizgarritasunezko Mundu onetan. (2) Jakintsu Aundiak = euren ustez.

Besterik ez zan egon Europaren Mendebaleko lur onetan, K.a. 2.000 urte Keltiarrak etorri ta Alemania inguruan kokatuz, K.a.800 urte ingurutik, Europatik zabaltzen asi arte.

Bai, K.a. 753ko urtean irasita, 510eko urtetik aurrera erromatar menperatzaille asmoak be zabaltzen asi arte. Eta K.a.200 urte, Ekialdetik Jermaniako Godo leiñuak, Danubio ibai inguruan kokatuz euren zabalkuntza lortu arte.

Gero, K.o. 5n gizaldian agertu ziran Suebo, Bandalo eta Alaman Jermano leiñukoak.

Gaur Europako lurraldetan ikusten dan lez, lurralde asko galdu ebazan gure euskal leiñu edo sinismenekuak, eta askatasunezko demokraziaren siñezle aundiak lez, sekula ez gendun aurkakorik agertu lurralde orreik galdu arren. Guri geien arduratu egiten dozkunak, Egizko Demokraziaren askatasunak galtzea izan dalako beti. Galdutako zentzu berezi orreik beti, Jaungoikuaren Legetik kanpora ataraten dauskuelako.

Eta nai ta, katolikoen aberkidetasunezko norkeriaren guzurrak Euskalerrian, kalte aundiak egiten ba dabe: *"Norkerizko aberkuntz katoliko orrein guzurrak, sasi-jaintasunezko maitetasun lez sartuta, ainbat maltzurrezko guzurraren lokatz artetik urten ezinik izten gaituelako da"*.

Badagoz errigizartearen maillan be, katoliko edo edozein menpetasunezko batzango eritziaren aurka, berez prestatzen gaituen gauzak, nor-beraren gandik asi ta, bakotzaren ardurazko guzak diran: *ezkontzarako etxea, seme-alabak, bear dogun diru ta mozkiñak, auzotasuna, erria, lurralde, eta aberriko askatasunaren zentzuzko arrazoiak, zapaltzen dauskuenean.*

Nai ta edestiko etorkizunean, or ibili bear, odoljariozko ekintza gogor baten, goitik berako menpe eritzi orreik, ezarri gure dabenaren aurka.

Begitu ba, gure Euskal-Demokraziaren-Askatasunezko borrokak, zelako lurralde txikian mugatu dauskuen.

Baiña begitu beste aldetik be, Jaungoikuak parebageko aukera emoten dauskula, gaurko egunetan oraindiño, gure Arbasoak milla urte askotako ekintzan Euskal Demokrazizko Askatasunean lortu ebezanak, gaurko egunean guk, euren Aitorle lez, Munduaren giza-semei erakusteko.

Ori da ederrena.

Txarrena baiña, katolikotasunezko asmakizun orreik, eten barik Diru-Iturri, edo sasi-jainkoaren Urrezko-Txekor lez gurtuta, 1.693ko urtetan konturatu ez egitea, JAUNGOIKO IRASLEAK Izadi oneri, ipini eutsozan legearen aurka gabizela.

1. 6. *IXn Atalean gero.*

Frantziko I Felipegaz asi giñan. Iraultza ostetik bera izanda Frantzian, konstituziozko leen erregea.

I Luis Felipe *Egalite* onek bere erregetzan, izengoitiko auekas ezagutu zan: *Uritar Errege*(1), *Diru Etxe Arduradunaren Erregea*(2) edo ta *Kale Zoztor edo Kupel-Babes'eko Erregea*(3), *Txantres Uritar erregea*(4), eta abar.

I Felipe onen denboran, lantegigintzak laster edo azkar ugarituteagaitik, aundikien(5)

(1) Uritar-Errege = rey ciudadano. (2) Diru etxeko arduradunaren erregea (3) Kale zoztor edo kupel babeseko erregea = rey de las barrikadas. (4) Txantres uritar erregea = Txantreseko dukadoaren izena be eroaten ebalako. (5) Andikien igoeragaitik = con la ayuda que recibiò de los adinerados, puesto que la evolución del campo monetario fuè grande.

igoeragaitik, eta ezergabeko aiton ume(1) edo ta langilletzak(2) sortutakoagaitik ezagutuko zan bere erregetza.

1. 7. *Frantziko iraultzan, Leenengo Errepublikea.*

1.785eko urtean, lenago Karakas elkartea izan zan Filipinaseko elkartea desagertzen da.

1.789ko urtean asi zan iraultzatik, *zelan deitu jakon Leenengo Errepublikea*: 1.792ko urtean, XVIn Luis atxilotu, ta gero 1.793ko urtean Urtarrillaren 21ean lepoa moztu eutsoen egun artean, 1.792ko urtean Iraillaren 21ean sortu zan Frantzezen Igo Errepublikatik, 1.804ko urteen Loraillaren 18garreneko egun bitartean, egon ziran iru lege biltzar, eta errepublika antzeko gobernu ezberdiñari.

1.790eko urtean Urtarrillaren 12an, zelan sortarazi zan Auñamendiren Beko Lurralde edo Eskualdea(3), Bear eta Euskalerria alkartuz, Pau eukinda Uri nagusi lez.

1.793-1.815eko urte bitartean, zelan I Luis Felipe erbesteratu eben.

1.794ko urtean Urtarrillaren 27an, zelan agertu eben *"Barrere"* legea, Frantziko lurraldean egon ziran beste izkuntzak, euskerea bezela, aienatu zitezen, konstituzio barriaren frantzez izkuntza indartzeko.

1.794ko urtearen Uztaillan zelan, Frantziaren egiuneko gudalozteak bidasoa aldatuz, Giputzen lurraldean sartzen dirala, eta Donostia etsaimendu ondoren, Mitxelena alkateak zelan emoten dautsoz frantzezaren Monzey gudal nagusiai, Uriaren giltzak.

Gipuzkoako Aldundikoak Getariatik, zelan Mozeyri eskeiñi eutsoen guda-eten bat egitea, eukezan asmoak berari aurkezteko.

Asmo onen baldintzak, auek izan ziran: "Gure Foru-Legeak, erlijo katolikoa, ta euskal Lurralde orreik euki ebazan oiturak, ta beste izaerazko gauzak, aurreko 1.200 urteak lez izan dagiezala, eta Giputz´tarrak ez egiezala beartu, guda serbitzurik egiten.

1.794ko urtean dagonillaren 14an, ongunde onek baieztetzea bear ebelako, Getarian batzartu ziran, eta Pinet ta Kabaignak´ek euren berbalditan ia zapuztu ba eben Giputzak aurkezte eutsoena, Mozey gudal nagusiak, ongundeen alde agertu zan, eta orokorrezko batzar orrek, onartu eban Gipuzkoakin errepublika bat egitea, espainitarren banazean, edo kanpo.

Banakuntzazko batzorde bat irasi eben orretarako, Giputzen aldetik Etxabe´tar Jose F., Zuaznabar´tar Joakin, eta beste Frantziko lurraldearen euskal Diustegi.

Euskalerriaren edestiko saio onetan, garrantzi andi eta euskal gertakizun asko geratzen dira aipamen barik. Orretarako baiña, 10 urte ariñago asi bear izan neban saio onegaz, eta orretarako ez dot euki denborarik.

1.795eko urtean Uztaillaren 15ean sartzen dira Frantzezak Gazteizen, Mozey´en agindutara.

Euskalerria ezan leike, Frantzez errepublikaren alde edo laguntzagaz, beren aberritar errepublikea sortuko ebela, baiña Basileako egiune edo ongundea ziñatu eben Frantzezak espainitarrekin, eta orren bidetik desagertu zan Frantzezaren laguntza Giputztarrai.

1.795eko urtean Uztaillaren 22an ikusi gendun be, zelan izenpetu eben espainitarrak ta konstituzioaren frantzez barriak, Basileako ituna, euskaldunen errepublikazko emetsak

(1) Ezer-gabeko aiton-ume = proletario. (2) Languilleria edo languilletza = proletariado. (3) Eskualdea = regiòn, territorio, pais, al alcance de la mano. Eskualde guztieran = en todas las latitudes.

ezereztuz.

1.804ko urtean zelan agertu zan Zamakola bere Bakezko Kai´en antolamenduagaz.

1.808ko urtean Jorrail-Loraillaren ille bitartean, zelan Napoleonek IVn Karlos eta bere seme VIIn Fernando atxilotzen dauz, bere anai I Jose espainitarren errege ipinteko.

1.809ko urtean Azillaren 25ean zelan ezkondu zan I Felipe Bi-Siziliako Borbon´tar Maria Ameliagaz, eta euki zituzen 10 alaba-semeak.

1.810eko urtean Iraillaren 24an Kadizen ikusi gendun, gudal nagusiak egin eben konstituzio barriaren lege-baldintzak, zelan onartu ziran espainitarrren artean, 1.812ko urtean amaitu ebena.

Eta euskaldunak emendik aurrera, zelan 20 urtetan ez zirala konturatuko, gure Foru Legeen alde ez zala ezer egingo, espainitarren artean ainbeste alosokekerizko agintaritzatik konstituzioaren alde egin ziran ainbesteko aldaketakaz.

1.812ko urtean, ainbesteko sasiguda bitartez, zelan lurreko eraiketaren itzitasunak, amaibako gose edo zabel zorriak ekarriko ebazan, euskal gizarte artera.

1.813ko urtean Ingelesak eta Portugesak Donostia erretan dabe. Gero, eta errearen ostean, andinaiaren lapurketazko ekitaldi sakon baten, zelan dirudun jauntxo barri batzuk sortu ziran, Donostiaren berreskuntz orretan.

1.814ko urtean eta Napoleon atxilotuta, zelan joan zan Frantzira ostera be, bere erregezko zeregiñakaz arduratzeko.

1.814ko urtean Uztaillaren 29an, ostera berrezkuratu ebazan euskaldunak euren Foru Legeak, Nafarroak be, bere erregetzazko legeak berreskuratuta.

-1.817ko urtean Urriaren 21eko egunean espainitarrak, gure Foru Legeak eurenak izan ba ziran lez, zelan: *"Onartzen zirala esan eban, sin perjuicio de los intereses de la naciòn"*.

Noren Aberria baiña.

Izadi onetan, ezeren guraso barik egiten dira alaba-semeak ?.

1.848ko urtean zelan "Kupel-Babesaren" ostean baztartu eben erregetzatik I Luis Felipe, IIn Errepublikearen bideak zabaltzeko.

Eta zelan 1.848ko urtean Otsaillaren 25eko egunetik, 1.852ko urtearen Abenduko 2n egun artean, frantzez barriak ibili eben jaurkintzagaz, bete ebela IIn Errepublikako epe aldi ori.

1. 8. *IIn Isabel espainitar erregiñaren aurkezpenean.*

1.814ko urtean eta Napoleonek bere anai Bonaparte´tar Jose espainitar errege lez ipini eban ostetik, zelan VIIn Fernando erregea bere espainitar errege aulkian ezarrita, Kadizeko gudal nagusiak agertu ebezan konstituzio barriaren legeak ezereztu ebazala, bere alosokerizko legeak ostera berrezkuratuz.

1.820ko urtetik aurrera, zelan azten dira eraso gogorrak Euskal Foru Legearen aurka.

1.820ko urtean, zelan iru urteko gudarien matxinada bat asi ondoren, konstituziozko Laterri barrien legeak eta Kadizeko aginduak ostera ezarrita, ondasunak askatu(1) ebezala.

Eta buru beroko liberalak edo konstituzionalistak alboratu egiten ziran neurrian, VIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren legeak ontzat artzen eban itzurak eginda, bere

(1) Ondasunak askatuz = desamortización de Mendizábal.

alososkerizko legearen atzean ibili zala, geroago San Luisen 100.000 gudariekaz(1) lortuko ebena.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIn Fernandok, 1.812an espainitar gudal nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako:

Riegotar Rafael koronel ordezko gudal nagusiak, San Juaneko Buru edo Kabezas´etik, 1.812ko Epaillaren 19an Kadizen gudal nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaurgo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta gudal nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz indar asko artzen joanda, zelan euren adierazpeneko Foru Itza(2) bidez, eraso aldi gogorrak egin ebazala, gure Foruko Lege Zarraren aurka.

Zelan edestilari batzuk esaten dabela, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdi Ugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako. Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egian, laguntza eskatu geuntzelako.

Eta orregaitik, borrokaldi andi ta geienak, Kataluña ta Euskalerrian egin zirala, euren batzango mende asmotan, emen egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko arazoaren ardatza.

IVn Karlos eta VIIn Fernando Napoleonengandik atxilotuta egon ziranean, gudal agintariak asi zirala indarra artzen, eta gure Euskalerrian gudu antzez(3), euren gizon jaurgo zaleak ezartzen.

1.820ko Epaillaren 7an, zelan espainitar gudal nagusiak beartuta, lortu ebela, 1.812ko Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik, VIIn Fernandok izenpetzea.

1.820ko urtean Epaillako 18an, zelan Gernikako Batzarkidei Epaillen 24an batzartzeko agindu eutsela, 1.812ko urtean Urrillaren 18an euskal ordezkari gezur zaleak, gure Foru edo Euskal Legeak, Kadizen ziñatu ebezan espainitar lege barriekaz egokitu egiezan.

Espainitarrak, Euskaldunai ainbeste amurru eukinda, mende joku orrein bitartez, bere lurretan ereiten ez ziran obariagaitik be, zergapetu gura ebazala, adibidez: Garagar, zikirio edo zekale(4), olo(5), ilar nabar edo txitxirioagaitik(6), eta ez edozer gauzakin, 14.000.838 erleko diru kopurua ordaindu bear zalako.

Maltzurrezko joku orretan baiña, espainitarrak zelan zerga orreik ezin ebezan aurrera eroan, Bizkaiak, lenago bere Jaun erregeari antolabidezko lanagaitik ordaintzen ebazanak, ezereztu barik euki ebazalako.

1.820ko urtean Epaillaren 25eko denbora onetan, zelan espainitarrak mogimendu larregi egin ebela, gure Euskal Legeak, euren jaurgo Santu barriaren barruan gesaltzeko(7), espainitar lurralde guztietan nortasunezko ezberdintasunak aienatzeko, ta Euskaldunak euren izatasunezko Nortasuna galduta, espainitar biurtu zitezen.

(1) San Luisen 100.000 gudariak = gudalozte au Frantziko XVIIIn Luisena izan zan. (2) Foru itza = Gurentzat Euskal Legea da. para los españoles privilegios. (3) Gudu antzez = estrategia militar, estratègikamente. (4) Zikirio edo zekale = centeno. (5) Olo = avena. (6) Ilar nabar edo txitxirioak = garbanzos. (7) Gesaltzeko = diluir.

1.820ko urtean Jorraillaren 1etik aurrera, zelan Bilboko Udalak espainitar jaurgo zale gudal agintariekin lankidetasun aundia erakutsi ebala, Udal arduradunak ziñatuta euki eben espainitar *jaurgo politikua* Jorraillaren 2a aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsoenean, Bilbotarrak espainitar biurtu zitezen.

1.823ko Jorraillan, zelan Borbontar Luis Angulemako dukeen aginduan sartu zirala peninsula edo Erdiugarte onetara, Frantziko San Luisen 100.000 seme gudariak.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintaritza aldarrikatu ebala, eta ararte Kadizetik gudal nagusiak agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu ebazala.

Eta zelan espainitarrentzat emen asiko zala, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudal agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko urtean zelan VIIn. Fernandok, gudalburu jaurgozaleak beartuta, espainitarren jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutson. *"Eta emen ikusten da, zelango saio pilla egin ebazan Batikanoko aolkulariak, Europa ta Mundu au katolikotasunaren erlijiozko aberkidetzan batzangotzeko"*.

1.823ko urtean Urrillaren 30ean zelan Prantzezak urten eben Bilbotik, eta euren ordez, espainitar oiñezko iru txanberga(1) eta zaldun talde bat(2) etorri zirala.

1.823ko urte onen askenetan, zelan VIIn Fernandok, espainitar gudalburu jaurgo barri zaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari ziñez itz eman bear eutson, *"Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquia"* esaten ebana, eta gero, *"Sin detrimento de la unidad constitucional Española biurtuko zana"*.

Eta orregaitik, zelan VIIn Fernandok ortik aurrera ez ebala inkizizio barririk ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ostean.

Eta gudal agintariak beartuta, zelan erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan zirala batzangotasunezko jaurgo aldera urbiltzeko.

Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?.

Kontuan eukin bear da orregaitik, katoliko onein asmakuntza, erri ezbardiñeko Foru Legeen gaiñetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orrein bidetik aukeratuko ebezan barriro, berezko Foru edo Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

1. 9. *1.823ko urtetik aurrera, espainitar Laterriak zelan dauka "Estado Español´en izena", aberria izan balitz bezela.*

"Euskalerri, Kataluña ta Galiziaren berezko eta jendekuntzazko Aberriak kontuan artu bage".

1. 10. *1.830eko urtetik, 1.833-1.839ko urte bitartean, Leenengo karlistadaren gertakizunak ikusteko.*

1.830eko urtean Jorraillaren 3an, zelan agertu zan Madrileko la Gaceta aldizkarian, VIIn

(1) Txanberga = batallòn. (2) Zaldun talde bat = un escuadròn de caballeria.

Fernandok, Ley Salica ezereztu ebala.

Eta espainitar ondorengo guda sortuz, gure Euskalerriarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazala, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

Ez zan ustegabeko gauza, aberkuntz-katoliko orren batzangotzeko barruan sartuta geratzea, katolikotasunean batzangotzeko amets orrek, Izadi osoa arrapetan ebalako, eta oraindiño ez dabezelako, norkeriz asmatutako lege orreik gure gaiñetik kendu, or daukaguz lepo gaiñean, len damudunak(1), zorroen oial sardagaz eta zorriz beteta soiñean eroaten ebazan jantzi zar lez.

1.830eko urtean Epaillaren 31n, VIIn Fernandok bere alaba IIn Isabel izango zana, sei illabete jaio aurretik, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713ko urtean Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztu egiten eban lez, debekatuko lege orregaz, emakumezkoai bere alabagandik asita, zelan baimena emoten eutsoen, erregetzazko aulkian ezarri zitezen.

Baita, zelan Karlos Maria Isidro izan zala, VIIn Fernando bere anaiaren ondorengoa ia onen errege denbora guztian, arik eta VIIn Fernandok lege ori aldarrikatu arte.

1.830eko urtean Urrillaren 10ean Madrillen jaio zala Isabel, VIIn Fernandoren alaba, gero bere bizitzan *"Betillun etorkizunezko erregiña"* edo *Umetxo Erregiña"*(2) deituko ebena.

1.833ko urtearen Epaillan, zelan Karlos Maria Isidrok esaten ebala: bere anaia VIIn Fernandok ez ebala euki nagusitasunik Salikako lege ori ezereztuteko, 1.713ko Loraillaren 10ean Vn Felipek ezarri eben Ley Sàlica ori, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako. Eta bere loba IIn Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalako on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833ko urtean Iraillaren 29ko arratsaldean il zala VIIn Fernando, eta bere alaba IIn Isabelen izenarekin, egun berean egin ebela espainitarren erregiña, bere ama, Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzan.

Bai, zelan Euskaldunentzat, VIIn Fernandorekin joan zirala betirako, ararte Ugarterdi onetako erregeakaz euki gendun epai edo antolamenduzko artekaritza, espainitar gudal buru nagusien maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari, ate guztiak zabalduta.

1.833ko urtean Iraillaren 29an zelan VIIn Fernando il zanean, Vn Karlos Maria Isidro bere anaiak, IIn Isabel bere lobaren Asturiaseko erregiñ gai izatea ez ebalako on artzen, ez eta urte ta egun orreitan IIn Isabel erregiña izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak, erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago, Vn Karlosek, Abarkatar Joakin, guztientzako ministrua izendatuta, gudalozte eta gudal nagusiaren laguntza eskatu ebala.

Eta gudal nagusien artean ez ebalako euki aipameneko laguntasunik, Portugaleko errege I Migelen onespena bakarrik artu ondoren, zelan VIIn Fernandoren anai Vn Karlos Maria Isidrori, Frantziko iraultzaren baiño lenautik alosokeriaren erregetzazko taldekoaz lagunduta egoanari, erregetzaren bide guztiak moztu eutsezala.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak, zelan Karlos Maria Isidro, VIIn Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu

(1) Damudunen jantzi latzak = como la ropa de saco llena piojos que los penitentes usaban para su perdòn. (2) "Betillun etorkizunezko erregiña au" edo "Umetsu Erregiña au" = "La de los tristes destinos", edo "La reina castiza".

ebala espainitarren errege, eta oldezko gudariakaz(1) Logroño artu ta gero, Nafarroara aldatu zala, euren aldekoakin bat egiteko(2). Eta ekintza orregaz, emen asi zirala karlistadako ondorengo borrokak, nai espainitar artean, nai Euskalerri ta bai Kataluñan be.

Eta zelan Bizkai ta Durangaldeko gudu Aldundiko erriak, Vn Karlosekin egon zirala.

1.833ko urtean Urrillaren 27an, zelan Donostiko Uriak aldarrikatzen dau IIn Isabel eregiña lez, kontuan euki barik gure Foru Legeak.

Eta urte onetan argitaratu eben espainitar gudal nagusiak, Peninsula onen lurralde guztien eskubideak bardinduko eban antolamendua.

Erromatar-Godo-katoliko aberkuntz lez, nortasun bereziko giza guztia batzangotuz, zorro baten sartzeko arauak asmatuta.

Egiko arauekaz batera, estandaka etorriko direnak edesti guztian, ikusten dogun lez, leerkailluak ezin dabelako poxpolloakaz batera juan, eta gitziago, poxpoilloak sua-piztuta eroaten ba dabe.

1.833ko urtean Azaroaren 30ean, zelan aldarrikatu zan, erregetzaren jaurgo edo konstituzio barria, ezarri zanetik.

1.833ko urtean Azaroaren 14an, zelan izendatzen dabe Zumalakarregi, euskal gudaloztearen agintari nagusi lez.

1.835eko urtean Uztaillaren 10ean, zelan lurreratu zan Donostiako urian Ingelesaren lejiño taldea, Ebans´en agindupean, eta Donostiko gordetzaille edo diru zaleak, zelan erretzen dabe gure Foruko Legearen liburua. Bai ta zelan Donosti ta Irun geratzen dira Gipukoatik kanpo, 1.841eko urterarte.

1.837ko urtean Espartero espainitar gudal nagusiak, zelan ezereztu egiten dauz Euskal Foru Lege guztiak.

1.838ko urtearen asieran, zelan gure Foru Legeak, alde bietatik zapaltzen ziralako, Lizarrako erritarrak matxinatzen dira *"gaztelarrak eta euren batzarrak il egiezen"* aldarriketakaz.

1.838ko urtean Otsaillaren 3an, zelan errege agindu batek, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak lengoratu egiten dabezala. Amarrukeria edo azpiko joko bat baiño besterik ez zana izan. Euskalerrian zergako diru batuetan egoan gizarteko naste borrastea, bertakoak konpondu egiezen(3). Eurak, munduko indar eta denbora gustia euki ebalako, fazizta mendeku orreik ezartzeko gure Euskalerrian.

Marotoren saldukeria zelan amaitzen dan ikusiko dogu, gertakizun oneikaz, ta karlisten ondamena ikusi ondoren, Euskalerriko Edesti onegaz aurrera egin degun.

1.839ko urte onetan, zelan Maroto ariñago ez bazan asi, Isabelen gudal nagusiakaz asten dala berba egiten.

1.839ko Urtarrillatik, zelan Vn Karlos erregearen gudaltegian Tejeiro gudal nagusiaren aldekoak ziranak, eta Maroto zaleen artean asten dirala, gero ta biziago izango ziran eztabaidak. Marotistak Isabelen gudal nagusiekin alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839ko urtean Urtarrillaren 15ean Marotok zelan, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipini eban Garzia ta Orejontar Jose, Esparteroren bigarrenagaz berba egiteko, alkar izketa orreitan

(1) Oldezko gudariak = soldados voluntarios. (2) Euren aldekoakin bat egiteko = para reunirse con los suyos y reorganizar sus ejèrcitos. (3) Euskaldunak konpondu egiezan = eta emen beartu genduzan izkilluaren keiñuakaz, gure diruen zuzenbideak konpontzen. Gero dirubide orretatik 1.873ko urtean izkillu indarrez beartuko euskuen "Diruen antolabide" ori edo CONCIERTO ECONÔMICO ori EGITEN. Que fuè el preludio de nuestros conciertos econòmicos de hoy.

urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita. Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin, Esparterogaz, artu emon aundia euki ebalako.

1.839ko Otsaillan Marotok, beren gudalozteagaz Tolosara joan da, Gartzia ta Sanztar Pablo gudal nagusia, bai ta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralakoen aitzakiagaz.

Uriz eta Karmona Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste gudal nagusiekaz alkartu zitezen, eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok antolatzen asi zirala 1.839ko ongundearen alkarrizketak.

1.839ko urtean Otsaillaren 17an, zelan Maroto, Lizarran sartu zala bere gudalozteakaz eta gaba orretan, Garzia gudal karlista nagusia arrapau ebala Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok zelan, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra, eta Uriz intendentziako arduradun karlista gudal nagusiak, bera Esparterogaz izkutuko izketaldietan ibiltearen aurkakoak ziralako, eta bere aldetik guzurragaz, gudalozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz salatu ostean, bostak tiroz ilteko egiezan agindua emon ebala.

Marotok zelan, Vn Karloseri beren maltzurrezko jokoa ostonduteko, ez eutsola ilketa orreik egiteko zala gora beran, ezer esan. Bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori agiriko argian geratuz, eta gudal nagusiak aske itxi bearrez gain, bere lagun aundia zan Esparterogaz, eta espainitarren aldeko saldukeriz ibili zan bakezko alegiñak egiten, utsean geratuta, bere bizitza be dangilizka geratzen zalako.

Marotok orregaitik, eta Vn Karlosen bigunkerigaitik, bere aurrean, jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

Eta 1.839ko urtean Otsaillaren 18an zelan Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona, Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta liseko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergè, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedican este piadoso recuerdo, los tradicionalistas de Navarra. R.I. P.".

1.839ko urtean Otsaillaren 20an Marotok, zelan bialdu eutson eskutitz bat Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak, beren erara oartu egiezan.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean, zelan Vn Karlosek, azpisuge edo saltzaille bat zala, asarre salatu ondoren, Maroto kendu ebala bere agintaritzatik. Marotok baiña, egoeraren nausia zan, eta Vn Karlos ez zan gauza izan Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren

aurka egon ziran gudal nagusiak, Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrera, zalantzak gogortzen asita.

1.839ko urtean Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora beran, ezer aitatu barik.

1.839ko urtean Epaillaren 3an zelan Marotok, ostera salatzen dabezala erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, zelan bertan be eukezan bere aurka asita, egon ziran gudal nagusien artetik. Eta gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zala.

1.839ko urtean Jorraillaren 17tik Loraillaren 13ko egun bitartean Kantabrian, zelan gertatu zan Ramaleseko borroka, Maroto izanda karlisten gudalozteko gidari, eta Espartero Liberal gudaloztearena.

Liberalen indarrak, zelan bikoiztu egiten ebazala gaiñetik karlistarena, eta laukotu egin ebazala Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, zelan Guardaminoko gaztelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok etsaimentzeko agindua emon eutsola, borrokan asi orduko.

1.839ko urtean Jorraillaren 27an zelan, karlistentzako ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok aurkako alegin barik itzi eutsezala liberalai.

Eta bai gero zelan borrokatu ziran aiñ gogor, euren gazteluak zaintzeko, karlistak baiña atzeratu bear izan eben kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839ko urtean Loraillaren 8an Esparterok goizetik, zelan Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko leen orduetan barrura sartuta, berton egon ziranak baiña, sua emon eta iges eginda, utzirik egon ziranak.

1.839ko urtean Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaian Karrantzako ibarrean euken aurkako mugatik, zelan alde egin eben.

Gudari karlisten artean, zelan saldukeria egon zala asi zirala gogoratzen, eta gaur badakigu egia zala, gudari karlistak susmatzen ebana.

A ta guzti, zelako borroka gogorrak egin ebezan, alde bietatik 2.000 illak egoteko, karlistentzat baiña borroka onek, asko esan gura ebala, Guriezon kañoitegiko labak galdu ziralako eta Kantabriako bideak moztu eutsezelako.

1.839ko urtean Loraillaren 13an zelan Guardaminoko gaztelua geratu zan inguratuta, eta Marotok bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu zediñ gazteluak eukezan guda tresneri guztiakaz. Zelan liberalak arrapau ebezan gudariak, karlisten aldera bialdu ebazala baldintza onegaz: Ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak, beste ainbeste gudariekin truke egin arte.

Karlistek Gordejuelan, galdu eben Molinarreko gaztelu ta Guriezoko kañoigintzak.

Eta zelan espainitar gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik *"Garaipeneko Dukea"* izendatu ebela.

1.839ko urtean Loraillaren 19an zelan Muñagorrik Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen dala denboraldi baterako.

1.839ko urtean Loraillaren 22an Marotok, zelan asi zan antolaketak egiten, Frantziko gobernukoak, artekaritzazko ardurak artu egiazan gudalozte bien artean, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesen billa asi zala, Uztaillaren 20an Lord Hay´ekin lortuta, bera artekaritza ori artu zedin.

1.839ko urtean Loraillaren 29an, zelan Esparterok, Balmasedan sartzen dala.

Eta zelan argi dagoela, emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek bere gudalozteetan uste aundia euki arren, eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebazalako bere barnean.

1.839ko urtean Bagillaren 28an, zelan I Luis Felipe erregearen izenean, Soult Frantzez mariskala ipini ebela artekari lez, Vn Karlos eta bere emazte Beirako Dukesa espainitar erregetzari ukatu egien, ta eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, espainitarren kondea ta Kabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Zelan beste txatal batzuk be euki ebazala agiri orrek, Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba IIn Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkondu, espainitarren errege izan zitezen; Euskalerriko Foru Legeak 1.830n urte arte orduko euki ebazan jabetasunean beti lez itxi egiezen; eta gudari karlistai euren maillakin, espainitar gudalozteetan lerrokatzeko almena emoten ebana.

Eta zelan elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez ebela euki aurrerakuntzarik, Esparterok leen, eta espainitar gortekoak Euskalerriaren menpetasun atzean ibili ziralako.

Zelan egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik, alan gertatu zala, indarraren keiñuagaz, guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerria menperatu ebalako.

Eta zelan gaurko Euskaldunak, gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori dala, Europaren aurpegian egia aurkezteko argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an, zelan Marotok, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren kapitaiñagaz berba egin ebala, Diego de Leon karlista gudal nagusiak Elliot´en ituna apurtu ebalakoan aitzakiarekin, gudalozte bien artean, Ingelesaren bitarteko billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an zelan Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dauala, karlistai atzeratuazota.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an, zelan sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko elkarrizketa, onek Esparterori aurkezteko Marotoren adierazpenak.

Zelan Esparterok on artu ebazala Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok espainitar jaurkintzan aurkeztu ta gero erantzungo eutzala esan eutson. Eta espainitar gortekoak, Karlosen gudalozteak, Isabelen ama Kristinaren aginpean geratzen ba ziran, erantzun da.

Zelan alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziranean, Bera, Lezaka ta Urdaxen, Marotoren aurka matxinatu zirala.

1.839ko urtean Dagonillaren 19an, zelan Vn Karlos bera be salduta aurkitu zanean, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dabela.

1.839ko urtean Dagonillaren 22an, zelan Espartero Durangon sartuta, alkarizketak azten dirala alde bietako gudal nagusien artean.

1.839ko urtean Dagonillako 24an, zelan Maroto, liberalaren gudal nagusi Zabalagaz alkartzen dala, Esparterorekin berba egin gura ebala esateko. Eta Marotok bere gudal nagusiekaz berba eginda, Vn Karloseri esan eutsola zelako asmoak euki ebazan.

1.839ko urtean Dagonillaren 25ean Elgetan, zelan erri agintari eta gudal nagusiekaz egin zan batzarrean egon zala Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai lenengo gazteleraz

eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko berba egin ebanean, Marotok gudariai keiñua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi zirala aldarrikatzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkero, Lekunberrirantza iges egin ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an, zelan Abadiñoko San Antolin baselizaren izketan euki ebala lenengo ikustea Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez ebala siñatu gura, Maroto ezik. Zelan agiri onen zentzuak, Foruen baieztatzea barik, espainitar aberriko legearen adoztasunean etorrita: *"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"* esaten ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta Marotok, zelan eskatzen eutson parkamena Vn Karloseri, eta ori egiztatzeko gudaloztearen prestakuntza agindu ebala kristino gudaloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen gudal nagusiak, ez ebalako onartu agindu ori, or erabagi zala gudaren amaiera.

1.839ko urtean Dagonillaren 28an, zelan Marotok, iñoren laguntza edo baimenikgabe, de la Torretar Simon gudal nagusiarena izan ezik, ontzat artu ebala Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean zelan Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, zelan alkartzen dirala Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezala gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebala eskeintzagaz.

Eta zelan baitzezko berba orreikaz, gure *"Foru Lege"* edo *"Lege Zarrak"* espainitar gortekoaren naikerizko borondatean geratu zirala, Espartero bera izanda lenengoa, bere espateagaz, Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839ko urtean Iraillaren 3an, zelan Bizkaiko Aldundikoak, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zirala, Aretxabala gudal nagusiaz Foruaren gora beran berba egiteko.

1.839ko urtean Iraillaren 4an, zelan Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoko errian errendatu edo etsaimendu zala, Bergarako egiune derrigorrez onartuta.

1.839ko urtean Iraillaren 10ean, zelan Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egin ebala, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezen, garaitzaille gudal nagusi(1) *"Garaipenaren Dukea"*(2), Espainako jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an, zelan Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dabela, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Arabatar eta Napar gudariekin, Auñamendiko mugatik Frantzira aldatu zala.

1.839ko urtean Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, zelan errendatu edo etsaimendu zanean Gebaratarren gaztelua, amaitu zala Euskalerri ta karlisten alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Zelan izan ziran Katalanak, Karlosen ikurra aurrera eroan ebena 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

(1) Garaitzaille gudal nagusi = invicto general. (2) Espartero.

Eta 1.839ko Urrillan Euskalerria gudariz beteta itzi ondoren, zelan Espartero 44.000 gudarigaz, Zaldubara joan zala, bere gudaltegia Mas de las Matasen ezarrita.

Eta 1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu zirala Euskalerrira gure eraberritutako "Foru Legeak" bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: *"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"*.

Eta 1.839ko urtean Azaroaren 16an, gure Foru legeak guztiz ezereztuteko, zelan betiko diruaren Zuzendariak, Zuzendari Politikoagaitik aldatu(1) ebazala, eta euren diputadu ta senatoreen auteskundeak Euskalerrira luzetu ebazala, gure Foruen antolaketak guztiz aienatu zitezen.

Bai zelan, euren konstituziozko bigarren idazkunean, gure *"Foruak, espainiako erreiñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta"* esaten eban.

Eta gogoramen oneikaz sartzen gara IIn Isabelen erregetzara.

2. *-Aurkezpen oneik ikusi ondoren, Xn atal onen Euskalerriko edestien kondaira onetan: Bigarren ZATIA.*

2. 1. *IIn Isabelen erregetza.*

VIIn Fernandoren jaurkintzapean egin zan lantegi-gintza(2), erria ankaz gora egon zanean egin zan, eta gaiñera bere inguru aldetik geien: Kataluña, Malaga, Sebilla, Balladoliz, Bejar, Alkoi eta abar.

Lanerako euki ebazan buruzagi edo arduradunak(3), auek begi txarrez ikusten ebezalako gobernuko ministruak, ez eben artu emon onak euki.

"Ministruak, bildur izando ote ziran, edo eukiko eben, eurentzako gura ebezan diruak, lanen arduradun langilleak eroan egiezen ?".

-1.833ko urtetik 1.868ko urteraiño izan zan IIn Isabel espainitar erregeiña, Vn Felipek 1.713ko urtean asmatuta, ezarri eban Salikako legea, VIIn Fernandok konstituzio barri orren laguntzan, Salikako lege ori ezereztu ebalakoai esker.

IXn alean aipatu gendun, IIn Isabelek umeetan ez ebala euki azkuntza onik, bere ama naikoa euki ebalako bere maitaleekin.

Erlijio, etxekotasunezko ikasketak, eta pianoa joten irakatsi eutsoen geien, politikazko arloa ta edozein eratako umanismu edo elerti-ikasketak alboratuta.

Nai ta IIn Isabelek, IXn Pio Aita Santuaren baimenakin, Narbaez´tar gudal nagusi jenerala, bere aitorle Klaret´tar Antonio Maria artx-apezpikua(4), eta sor Patrozinioren aolkua euki.

IIn Isabelen jaurkintzazko gudal nagusiak, erregetzazko almen político geienak emon eutsoezan lege-biltzarrekoai, bitarte orretan, errigizarteen berezko eskubideak murriztuz, indarrezko jaurbideen gauzako gora beratan, sakonago sartu zitezen.

1.834ko urtean eta IIn Isabel erregetzazko aulkira igon barri egon zanean, espainitarrek, ia ez eben euki itsasontzidi edo gudaontzirik, bost korbet-ontzi eta ogei ontzi laguntzaille

(1) Zuzendari Politikuak = los gobernadores civiles de hoy. (2) Lantegi-gintza = industrialización. (3) Lanerako Buruzagi edo arduradunak = empresarios. (4) Bere aitorlari Antonio Maria Klaret artx-apezpikua, bere senarraren aitorlari Fuljenzio aita, eta sor Patrocinio lekaimeak, IIn Isabelek asko ziñezten eutsoenai.

baiño. 1.820ko urtean aleginduta lurriñ-ontzi on bat(1) egiten, ez ziran izan gauza baiña, alango ontzirik egiteko.

IIn Isabel erregiñaren denporan aldatuko ziran, itsas-ontzi oialetik, lurriñ-ontzi edo itsas-ontzi mekanikuetara. Biur edo biribil dabiltzen tresneri mekanikuekaz(2) edo arraun tresnekoari oratuz, oialezko tresneriak guztiz baztertzeko.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean Marotok, saldukerizko aldarrikapenagaz, karlisten guda amaitu eban.

1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako "Foru Legeak" bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: *"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"*.

1.839ko urtean Azaroaren 16an, gure Foru legeak guztiz ezereztuteko, betiko diruaren Zuzendariak, Zuzendari Politikoagaitik aldatu ebazan, eta euren diputadu ta senotoreen auteskundeak Euskalerrira luzetuz, gure Foru antolaketak guztiz ezereztu ebazan.

Eta konstituzio orren bere bigarren idazkunean, gure *"Foruak, espainiako erreiñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta"* esaten ebana.

1.840ko Bagillan, Balmasedako alegiñak porrot egin eben orduan, Kataluñako guda gogorrak be amaitu ziran.

1.840ko urtean "El Vascongado" izparrangia agertu zan, bere aldizkariko lanetan, "politiko ta merkantil" arloko barriak, zabaldu zitezen.

1.840ko urtean Urrillaren 12an, 1.810-1.813ko urtetan, Kadizen gudal nagusiak sortarazita, ta eurentzat aurrerakoiezko konstituzioa izan zana, Esparteroren eskuetan ipini gurean, onek Maria Kristina beren errege ordegotzatik kendu eban, eta espainitarren jaurkintza artuten dauenean, ortik aurrera asiko dira gure Euskal Foru Legezko zauriak zabaltzen.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure *"Foru Pasaia"*(3), ezereztu egiten dau, Euskalerria, espainitarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urterako eleizak: 1.835eko urtetik Mendizabal eta Madozek asi eben "esku illetan" esan jakonai, edo ta eleizako ondasunaren salgai ipinteko askatasunak(4), apurtuta euki ba ebazan diruaren kontrolezko antolaketa guztiak, eleiztarrak, euren ordainketarako euki eben jabetza edo eskubidetik, espainitarren gobernu menpe edo eskuetarara aldatu ziran, euki ebazan ondasun edo aberaskiak, eleiztarren eleizkizunezko(5) ordainketakaz.

1.841ko urteean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure *"Foru Pasaia"* ezereztu egiten dau, espainiarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urtean Urtarrillaren 10ean, espainitar gobernutik agindu bat atara zan, Foru Pasaia desagertuta dagoela esateko.

1.841eko urtean Jorraillaren 23an ostera ezartzen dira, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eta espainitarrak egiten ebazan aldakuntza guzti oneik, 1.839ko urtean Urrillaren 25eko legeak, lurralde bakotzaren arduradunakaz alkartuta egin bear zirala esaten ebana, kontuan

(1) Lurriñ-ontzia = Barco de vapor. (2) Biur edo biribil dabiltzen tresneriakaz = con hèlices o palas propulsoras como los remos, abandonando para siempre las velas. (3) Foru pasaia = pase Foral. (4) Eleizaren ondasunak salgai ipinteko askatasunak = desamortización. (5) Eleiztarren elizkisunak = culto y clero.

artu barik egiten ebazan.

1.841eko urtean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak, Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839ko urtean Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarrizko *"Ley Paccionada"* ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Esparteroren aurka, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen, Muñagorri be, bertan ilda, bere goiko kondairan esan doten lez, eta Espartero garaipenduz, ez eban galdu aurkeztu jakon aukera ori, *1.841eko Urtearen Urrillako 20 eta 29an, gure Foru Legeen antolaketa guztiak* ezereztuteko.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gudalozteetan, gudal buru nagusi lez, eta gaiñera Marotoren etxeko kondea izendatuz.

Lenengoetatik argi ikusten diranak dira, Marotoren saldukeriak eta Esparteroren maltzurkeriak,

2. 2. 1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerriak "Bakearen ordez", menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak.

1.840ko urtean "El Vascongado" izparrangia agertu zan, bere aldizkarizko lana "polìtico eta mercantil" arloetan azalkatzeko.

1.840ko urtean Urrillaren 12an Esparterok, 1.810/1.813an Kadizen gudal nagusiak sortarazi eben aurrerakoiezko konstituzioaren buruzagi biurtu gurean, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, espainitarren jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Legearen zauriak zabaltzen asiko dira, goian esan doten lez.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz, Pasajes eta Donostiako kayak zabalduta, zerga-arauekin ordaintzeko(1).

1.841en urterako eleizak: 1.835eko urtetik Mendizabal eta Madozek asi eben "esku illetan" esan jakonai, edo ta eleizako ondasunaren salgai ipinteko askatasunak(2), apurtuta euki ba ebazan diruaren kontrolezko antolaketa guztiak, eleiztarrak, euren ordainketarako euki eben jabetza edo eskubidetik, espainitarren gobernu menpe edo eskuetarara aldatu ziran, euki ebazan ondasun edo aberaskiak, eleiztarren eleizkizunezko(3) ordainketakaz, goian esanda dagon lez.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure *"Foru Pasaia"*, ezereztuten dau, espainiarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urtean Jorraillaren 23an ostera ezartzen dira, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eta espainiarrak egiten ebazan aldakuntza guzti oneik, 1.839an Urrillaren 25eko legeak *lurralde bakotzaren arduradunakaz alkartuta egin bear zirala esaten ebana*, kontuan artu barik egiten ebazan.

1.841eko urtean Urtarrillaren 10ean, espainitar gobernutik agindu bat agertu zan, Foru Pasaia desagertuta dagoela esateko.

1.841ean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak Nafarroako Aldundiaren baimen

(1) Zerga-arauekin ordaintzeko = aranceles, o tarifa especial para la percepción de ciertos derechos, impuestos, etc. (2) Eleizaren ondasunak zalgai ipinteko askatasuna = libertad para vender los bienes de la iglesia. (3) Eleiztarren eleizkizunezko ordainketakaz = el abono de los diezmos y primicias.

edo ta laguntzagaz, Nafarroan lotsagarrizko *Ley Paccionada* ezarri eban, 1.839ko urtean Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari, ezeren jaramonik egin barik.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarrak Esparteroren aurka jokatutearren, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen.

Eta Espartero garaipenduta, beronek ez eban galdu aurkeztu jakon *1.841ean Urrillaren 29ko* aukera eder ori, *gure "Foru Legeak"* ezereztuteko, Bergaran ziñatu ebanari jaramon egin barik.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, espainitar gudalozteetan gudal buru nagusi lez, Maroto "etxeko kondea" izendatuta.

Euskalerriaren aurkako, Marotoren saldukeri eta Esparteroren maltzurkeriak, asieratik argi ikusten ziran.

1.842ko urtean, 1.810-1.813ko urteetan agertu ta legeztu zan konstituzio edo jaurgo barria, espainitar menperatzailleen artean "aurrerakoia" zala esaten eutsoenari, aldatu edo ta eraberritu zan, menpekotasunaren arloa erindu edo guztiz argituta.

1.842ko urtean Uztaillaren 1ean de Luna´tar Julian´ek, Euskalerriko gizarte ta lurrak beti danik espainitarrenak izan ba ziran lez, gure Foruaren legezko jarduntasuna barregarritu gurean ibili zan, euskal oligarka batzuen onerako ta espainitarren anai arrebakaz borrokan bakarrik ibilteko, balio ebala esanda, eta abar.

1.842ko urtean Iraillaren 11n, Espartero *Garaipeneko Dukeak*, gure Foruak babestu egingo ebazala esan arren, bere ezpatea atarata, gure euskal legearen buruak moztu ebazan leen, ekintza orregaz, gure goi maillako ikastetxearen zeregiñak, bigarren maillara beratuta.

1.843ko urtearen Bagillan Foruen gora berako leian ibilita, Esparteroren aurkako matxintasuna sortu zan, eta Euskalerrian, ia Esparteroren eritzizko lege orreik ezereztuten ba ziran itxaropentsu agertuta, Foru legeak berrezkuratzeko lanetan asi giñan, aukera ona zalako.

Alegiñ guztiak, alper biurtu jakuzan, espainitar geienak, 1.812ko urtean gudal buru nagusiak sortu ebezan, menpearen legezko eritzi orreikaz, adoz egon ziralako.

1.843ko urtean Urrillaren 10ean IIn Isabelek 13 urte bete ebazanean, eta 14 urte baiño len adiñetan nagusi lez aldarrikatuta, Azaroaren 10ean konstituzioari ziñ eginda asi zan bere erregiñezko antolamenduaren epaiketetan.

1.843ko urtean Abenduaren 1ean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak, gure Foru legeak berrezkuratzeko alegiñ gogorrean ibilita, eta espainitarren gorteko jaurkintzan aurkeztu eben jazarraldiekin, bat egin eben, IIn Isabeleri, ezkutuzko meatxuan idatzitako eskutitz bat bialduta.

Eta erantzun ona esan leike euki ebala eskutitz orrek, 1.843ko urtean Uztaillaren 4an, ostera berrezkuratu egin genduzelako Foruaren Araudiak, neurri aundi baten beintzat.

1.844ko urtean Epaillaren 20an Jiron eta Ezpeletatar Franzizko Jabier Ahumadako dukea, ta Nafartar gudal nagusien alegiñakiñ, *guardi zibillaren taldea sortarazi eban*, eta Iruñan dauka oroikarria: "Navarra al duque de Ahumada" esaten dauana.

2. 3. ***Lau urte onein ondorioa.***

1.839ko urtean Urrillaren 25ean ikusi dogun lez, saldukeri barragarri baten guda amaituta gero, Madrilleko gobernutik Euskalerrira bialdu ebezan eraberritutako gure Foru Legeak,

bere txatal baten: *"sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"* esaten eban, eta beste idazkunean: *"Euskal Foruak, espainitar erreiñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta"*.

XVIn gizaldeko amaieran gaztelar gobernukoak esaten eben: *"Los vascos no entran en la càmara de nuestro gobierno, porque son jentes de otra naciòn"*.

Jakingo eben Gaztelarrak, zer esaten eben ?.

A la noz esaten dabe egia: Len, a la Gaur?.

Ala iñoz ez dabe jakin, egia ta guzurra zer direzan ?.

Erritarrak ez, eleiztar nagusi ta politikako aundiki batzuk bai beintzat.

XIXn gizaldean espaintarrak baiña, euskaldunai euren gauza edo euren jabetasunezkoak izan bagiñan bezela artzen gaituez, ezeren begirun barik.

Argi ikusten dogu, euren menpeko edo norkerizko lege orreik, benetako sasi-jainko lege lez sinistuta euki ebezala denbora orreitan, *(eta gaur ere, ikusten dan lez)*.

Itsukeriaren zentzunezko indar, edo indarkerien itsuzko siniste orreik, menperatzail ta erlijioaren alkar bidetik agertu leikezelako bakarrik.

Orregaitik, Erroma-Godo Kaisartzen indarra, erlijio maillara igonda katolikotasunezko aberkuntz ikurragaz, eta ziñezkintzatutako itsu bidetik eroanda, norkeri aundiko asmamen orretatik ezin leike beste gauzarik agertu, *Guzurraren ikurragaz agertzen direzanak, eta norkerien Urrezko Tzekorraren gurtasunetik agertu leikezanak baiño, ez jakuz agertzen*.

1.840ko urtean Urrillaren 12an guda amaitu zanean Esparterok, Maria Kristina bere alabaren errege ordegotzatik kendu ebanean, liberal eritzizko gudal nagusiak ezarri ebazan jaurgo barriaren menpeko legeen jaurkintzan, bera agintari nagusiko ardurean ezarrita. Eta ortik aurrera gure jabetasunezko Foru Legeak ibili ziran alde batetik bestera, jantzan ibili ba ziran lez.

Esparterok ondo baiño obeto jakin eban, Euskalerrian guda indar bidez lortu ebezan garaipenak, ez ebela euki baliozko legetasunik, alan ta guzti baiña, aurrera egin eban ezeren adeitasun barik, Euskalerria euren jabetasunezkoa izan balitz bezela.

Orregaitik ikusten doguz, gure euskal edestiaren jabetasunezko erabagian lortutako *Foru Pasaiaren* legea ezereztuten, Nafarroako Aldundiaren baimenagaz *ley paccionada ezartzen*, eta gure *Foru Legearen euskal zentzuak ezereztuten*, ta abar.

Gure euskal bereztasunezko oituragaz sorturiko legeak baiña, euren norkeriagaz asmatzen dabezan menpetzail legeen aurkakoak diran lez, daukien maltzurrezko guda indar guztiagaz eta sasikatoliko ikurra elburu daroiela, nai ta ariñago asi, elkarte oker-gaizto au, K.o. IVn gizalditik dabiz Euskalerria kolonizatu gurean.

Orregaitik, gure oiturazko lege gorputza aldatzeko, gogo guztiagaz egiten dabezan indarrezko epaikeri, ebaiketa edo moztaldiak, euren menperatzaillezko legeakaz ordezkatu gure dabez, egia guzurragaz naastuta.

Noz ulertu, guzurra egiagaz zorro baten sartuta, eztanda egiten dauela ?.

Ez dira konturatuten: Jainkoak bereztutako gai-Ludi onetan bizi gindezan, eta jantzi lez daukagun aragizko gorputz au, gure ARIMAren mozorroitasuna dala, bizitz onetan ikusi ta aurpegiz berba egiteko al izan gindezan, bai gizak daukan almen eta indar guztiagaz bizitzan, jan eta lan egiteko bear dauazanak tresneri biurtuz.

Orregaitik dira bardiñak, aldi guztiko denborak, nai gizarte artean, norkeriaren arrera aundiko itzurak ibili arren, gure gizatasunezko eginbear guztia *"Ekanduzko arloan amaitzen dalako"*.

"Gai-Ludi onetan, gizaren denbora guztietako eginkizun bakarra, bear bearrezko zor-eskubidearen ordezko ardurak, orekan bete, eta ondo zaintzea dalako".

Euskaldunak eta Europan bizi diran berezko erriak gure demokrazizko izakereagaitik ondo dakigun gauza da.

Europa ta espainitar menperatzail batzangoaren zaletasunezko abertzale katolikuak, elduko ote dira mailla orreitara ?.

Leia ori, eurak konturatu arte izango da zalantzarik gabe.

Badagoz espainitar edestiari buruz, betikoa izan balitz legean, eta gaiñera, garaipenaren guzur aundiko zentzuan, idatzitako liburu asko.

Gauza oneik ziurtzeko baiña, nik Aguraiñeko Klaretiarren liburutegitik baimenagaz artuta, aurrean daukaten liburutik artuko doaz bear dodazan zeaztasunak: D. VICTOR GEBHARDTk idatzita eta 1.863ko urtean irarritako "Historia General de España y de Sus Indias" VIn atalean eta 1.013ko orrialdean asita esaten dauanakaz.

2. 4. ***Espainitarren edestiko liburuetatik artutakoa.***

Biktorren liburu au, oso argi ta ondo zeaztuta dagon liburua da, espainitarren edesti ta izaeraren gora beran.

Bereztasun arloaren zabaleko Legeak, norkerian asmatutako legeakaz parean ezartzen doguzanean, oldozmen edo ta itzaren mugak, aukera argi ta garbiak emoten dauskue, espainitarren siniskera aberri lez, uste okerra dala adierazteko.

2. 5. ***Liburuaren XXIV-XXV'eko txataletatik asita:***

-1.134ko orrialdera: IVn gizalditik asi ziralako, euskaldun, katalan, galiziar eta menperatzeko gure ebazan errigizartearen lurrak, espainitarren zaku edo zorro bardiñean sartzen dabez, alan izan balitz bezala.

-1.277 orrialdera: Apostoluengandiko, katoliko, eta erromatar erlijioa izango dala betirako egizko erlijio bakarra. Bai?.

-1.294 orrialdea: Nai eta erregea, 1.812ko urtean Kadizen aldarrikatu zan konstituzioa edo jaurgo barriaren legepean ipini arren, Erromatar katolikotasun agintari maillan, aundienetarikoa zala beren arrerazko zuketan(1) adierazten dau. Baiña, ainbeste borroka egin eta gero, iñoz lortu ote dabe ?.

-1.312 orrialdera: zelan 1.810/1.813 urteko bitartetik aurrera asten dira Laterritasun itzagaz berba egiten.

Itz barri orregaz argi ikusten da, eurok be ez ebela jakin batzangotasunezko merkataritz ta katoliko asmo orren jaurkintzari zelan deitu edo esan: Aberri, nazio, laterri, katoliko aberri, edo ta abar.

-1.320 orrialdera: Arbasoen aitalen erri, sorterri edo *"patria"* ta *"patria catòlica"*ren izenagaz asten dira berba egiten.

(1) Zuketan = en el trato de usted.

Gizaren edestian berba orreik, erri baten len-guraso sorkuntzatik edo arbasoen belaun askoko alditik etorten diranak dira, eta itz orreik norkeriz mugatuta, edestia eurena bakarrik izan balitz bezala aurkezten dabe.

Geiagorik bear ote dabe, edo ta noz asetuko dira, *"maltzurrezko fazizta lapur"* edo ta asmatutako *"sasijainko kaisar"* orreik, bereztutakoen aztura bideko oituran ondo ipinitako izenagaz geratu zitezen ?.

Ez dira asmamen orreik txarrenak: euren norkerian, iñork ez dabezan ulertzen sasi legeak, Jainkoaren berezko Legeakaz sortzen dabezan txinpartakin gure dabez nastu, eta orretarako, gudaindar laguntzagaz baliatzen dira, nai ta odoljariozko zarraski baten izanda be, aurrera gure dabelako egin.

Gudal nagusi orreik, erregearen gaiñetik ezarrita, eta legezko arloari, egizko itxura apur bat emon gurean, erregea gura dabe izan daitela gizarteko maillan, nagusienaren itxurak egin bear dabezanak, eta okerrezko utsaldiak lenego ministruai leporatu. Baiña zelan izan lei ori, eurak ministruak ba dira ?. *Ikusi gura neuke antzerki ori.*

-1.364 orrialdera: IXn Pio Aita Santuak IIn Isabelekin ospatutako eleiz ongunde edo itunean, katoliko erlijioagaz nastu egiten da dan guztia, eta ez edozelan, Jainkoaren izenean egiten dabelako, argi ikusi dagigun, espainitarrak, katolikotasun aberkidetasunagaz daukien itsukeria.

Naste guzti au ikusita, arritu egiten gara, Frankok, Giputz ta Bizkaitarrai judas edo saltzaillearen izen gaiztoagaz zigortzea ?.

2. 6. ***Denbora orreitan espainitarrak: "aberri lez egiztatu egiten dabe euren espainitar katolikotasuna".***

1.-Biktorrek: espainitar izen ta izaerazko asmamenari buruz, euren erri-biozkada azaldukerean, espainitar Laterria, espainitar aberri katoliko lez aurkezten dauskue.

2.- *Espainitarremtzat*: Laterritasunaren adimuga(1) ori, guztiz jauntzarra(2) dala esaten dau Bittorrek, bere adierazpenetan.

Espainitarrentzat *Laterritasunezko* itz orrek, iruntsi egiten dabezelako eurak daukien aberri katolikuaren eskualdiak(3).

3.- *Biktorrek gaiñera:* espainitarrak minduta geratzen dirala esaten dau, Laterritasunak eurei, ezaren edo ukapeneko(4) ziurtza aurkezten dautseelako daukien katolikotasunaren aberkidetasunezko asmoetan.

2. 7. ***Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:***

a) IVn gizaldian, Europa Asia ta Afrika guztia, aberri-katolikotasunean batzangotzeko asmakuntz fazizta eritzi ori abiadan ipini ebenetik XIXn gizarteraiño, nai ta indarkeri asko ibili arren, azken gaiztoa edo porrokatuta ibili dala beti.

-Berezko lege, eta asmatzen ziran menpeko legeakaz sortzen zan naste gogor orreitan, batu baiño, zati geiagotan banatzen ebazalako erri ta izkuntzak.

(1) Laterritasunaren adimuga = cualidad o sentido moral que se le da a la palabra ESTADO. (2) Jauntxar = dèspota, tirano. (3) Eskualdi edo Esku-artekoak = bienes, recursos, medios de subsistencia. (4) Ezaren edo ukapen = acciòn o efecto de negaciòn.

-Bizitzaren bereztasunezko ekintzatik sortutako izkuntzezko errigizarteak: erromatarren basakerizko borroka bidetik menperatuta, erriak zatitu ondoren, ainbat latin kume edo ta zentzunbako izkuntz agertu ziralako.

-Jainkoaren Legeetatik alda eziñean, eta daukiezan asmoak beteteko, beti ibiliko dira, Erroma ta katolikotasunen norkerizko menpekotasunakaz, errietan sortzen diran nasteakaz baliatzeko.

-Gure zuzentasunezko ekintzagaz, beti garbitu egin bear doguzenak, euren zentzuzko lekuetan ezartzeko, Jainkoari begira eta bereztasunezko ekintzan sortuta daukaguzan izaerazko nortasunakin aurrera egin gura ba dogu.

-Ez dira konturatuten, bereztasunaren zentzuz kanpo dabilzan gauzak, berezko legeetan baieztu bear direzala, lege orreik ez dabelako onartzen ainbeste maltzurrezko guzur ta okerkerizko lege-asmorik, maltzurkerizko eran egindako lege orreik guzurrezkoak eta lapurrak izanda, naikerizko edo norkeriaren arrazoi txepeletan biurtzen diralako.

b) XIXn gizaldirarte, Europa edo ta Ludi au batzangotezko, aberri katolikotasunezko asmakuntzan porrot eginda gero, orrarteko erromatar menpeko legeakaz diruaren domu zaleen, edo merkantil kapitalkerizko asmakuntz ori aienatu edo ezereztu ez egien(1), mundu osoko batzangotasuna alboratuta, gaur daukaguzan laterritutako lurralde txikerretan joan ziran Europa batzangotzen, gizaren nortasuna ta izatasunaren eskubideari iñoz begitu barik.

Eta 1.789ko urtean ori lortzeko, katolikoaren aolkularitzagaz fazizta indarrak batuta, Frantzia iraultzatu eben, beste lurraldetara zabaldu egiezan batzangotasunaren indarrezko alegiñ orreik.

d) *Bai ta orduko errietan, epaiketaren lanak norkeriz erabagitzeko, berezko errien nortasunezko bizitzak, jaun ta erregearen antolamenduzko ongundepean egon ba ziran lez:*

-Sasi katoliko espainitar, frantziar, ingelesdar, alemandar, eta Europako eritzi katoliko fazizta orreik euki ebezanak, munduko lurrak kolonizazioaren gudu indarrezko ekintzan menperatu ebezan antzera, kolonizaziozko laterri orreitan banandu ebazan Europako lurraldeak, errigizarteen diru ta ardurak, sasikatolikoen batzangotasunezko araudipean aurrera eroateko, eta bereztasunezko erri ta erri orrein nortasunezko eskubideak zapalduz, sasi-asmakizun orren zalegarrikerian nortasundu gindezan, egiten dabez alegiñ guztiak.

Orreik dira gaur egun, Europarrak, Nortasunezko arduratik kanpo daukaguzan arauak(2), ezer aldatu barik. Laugarren gizalditik gaur arte, ez dalako aldatu eritzi orren ezerezko ekintzarik.

2. 8. ***Lenengo azalpenari erantzunda:***

Katoliko itza nundik nora da berezko erri edo ta aberri baten adierazle. Ala mundu onetan, ankaz gora ibili geinke?.

Izadi ontan, AITAREN ondorengotasuna, asmatutako edozein itz baragarriekin mugatu leikena ote da?.

Berezko erri ta izkuntzakaz, lendik daukaguz naste ta banakuntza naiko eginda, oraiñ izkuntzaren iztegiakaz azteko.

(1) diruaren domu-zale = aficionado a capitalizar dinero. Edo, mercantil kapitalkerizko asmakuntz ori, aienatu edo ezereztu ez egien = para que no desaparezca, o se deshaga ese sistema capitalizador que tanto ansian algunos. (2) Arauak = conjunto de leyes, o, sistema de gobierno, fuera de la personal peculiaridad de los hombres-mjujerez que habitan èsta Europa y Mundo.

Laterriak, aberriak ote dira ?. Laterrizko itz orrek, *EGOKERA* edo *EGOERA* esangura dau, bai *EZARPENA* edo *JARKERA* be(1) bakarrik.

Espainitar faziztak, *"Nacional catolicismo del estado Español"* edo *"estado catolico nacional espaiñol"*, euren gurutzada santuaren bidetik esaten dabe dala ao zabalagaz.

Eta esaera ori, nortasunezko aberritasunaren adierazpena ote da?.

1.789ko urte ezkeroztik esaera ori, 1.810/1.813ko urte bitartean espainitarren izenean, konstituzio barritik sortuta, aurrerakoiezko jaurgo barria zala esaten eutsien euren ustez espainitarrak ziranai, eta 1.823ko urtetik VIIn Fernandori konstituzio ori, indarrez sinatzen beartu ebenetik ona da.

Esaera ta asmo orreik, adiñezko lengotasunaren ezean aurkezten ba dira, zer dira eurak aberriko senditasunean, millaka urteak daukiezan izkuntz ta errien aurrean ?.

Berezkotasunaren bizi ekintzan eraikita, edo ta sorturiko izkuntzagaz nortasundutako errigizartearen aurka, asmakuntzan sorturiko erriak aurrerakoiezkoak dirala esaten ba dautsoe be, jaurgo edo konstituziozko erri edo ta aberri maltzur barri orrein arteko bitartea, Nortasuna eta norkerien artean dauan bitarte lakoa da.

2. 9. ***Bigarren azalpenari erantzunda:***

Espainitarrak, laterritasuna eurentzat, jauntxarra dala esaten dabe. Laterritasunak iruntsi egiten dabezelako eurak daukiezan aberri katolikoaren eskualdiak(2).

Mundu fisiko onetan, sagarrak meloiak ote dira ?.

"Laterritasunaren" itza iztegian begituta: Gizaki edo gauza baten ezarpen edo egoerea esangura dau, beren izaera, egin leiken edozein aldaketara lotuta dagoelako.

Eta adimuga orrek, ze ikusmen ete dauka, jaioterri edo ta Aitaren ondorengotik etorten diranakaz ?.

Argi dago, *laterritasunak* ez daukala ezer ikusirik *nortasunezko aberritasunagaz.*

2. 10. ***Irugarren azalpenari erantzunda:***

-Espainitarrak, minduta geratzen dirala esaten dau Bitorrek. Eurak, katolikotasunezko aberritasunean daukien asmoari, Laterritasunak, ziurtzaren eza aurkezten dautseelako.

-Orduan, umeak edozer gauzagaitik asarratzen diranean egiten jakien antzera, *"piruli"* edo gozokitxo bat emon bear ote jakie ?.

-Laterritasunak, Aberriarekin ez badauka ezer ikusirik, espainitarrek, zergaitik eskatzen dabe: sua, lerrauts edo bolboragaz alkartzea lez bezala dana, euren esangureko mugaketan oso ezberdin diran itz bi orreik esangura baten alkartzeko ?.

-Mundu onen goimaillako jakintsuenak, edestian ainbeste norkerizko nasteekin, baitazko zentzuan ganorabakotu ote dira ?.

-Nik badaukat lagun bat, amamari iletargia eskatzen eutsona.

2. 11. ***Toledoko kaisartza edo Toledoren kaiserkeria.***

(1) Estado, o situaciòn = egokera edo egoera, eta jarkera edo ezarpena. (2) Eskualdiak = amplitud de recursos.

Espainitarrak antza, daukien aberritasunezko katolikotasun ori, naiz ta erromatar godoen katoliko asmakuntzatik etorri, PPko alderdiaren Kospedaltar andreak euren gazteai ta telebistan esaten eutsoen lez: "*eurak badaukiela uri edo toki sakratu bat, aztu bear ez dabena: "Toledoko Kaizartza" edo "Kaizertzazko Toledo"*.

-*Toledo*, erromatarrengandik izan zan ardurazko Uria, bere inguruko erritxoen artean.

-*Garrantzi aundikoa baiña*, Leobijildok Bisigodo erregetzaren Uri Nagusi lez izendatu ebanetik aurrera da, ta baita, 589an I Rekaredok, IIIn Eleiz Batzar Nagusia ospatu ebanean, Toledo erreiñu lez izendatuta geratu zanetik.

-*Bere erritik*, edestian aldatu diran jendekuntz guztiak itzi dabez euren etxegintz lanak berton.

-*Orregaitik da* etxe bikain askogaz beteta dagoen Uria. Eta baleiteke, beste alango Uririk munduan ez egotea.

-*Bisigodoak*, ainbat Eleiz Batzar Nagusi ospatu ebezan Uri orreitan, 932ko urtean IIIn Abderramanek menperatuarte. Eta 1.085eko urtean VIn Alfonsok moruengandik askatuta, orduko denboretatik iraun ebana bere Uri nagusitasunean, I Karlos´ek gobernua Madrillera aldatu arte.

-*17 izan ziran Toledon ospatu ziran Eleiz Batzar Nagusiak*, erromatar deboratik 400 eta 527ko urtetan katoliko-aberritasunaren eleizarenak bakarrik izanda, eta 589ko urtean I Rekaredok ospatu eban irugarren eleiz-batzarretik, garrantzi aundiago euki ebezanak.

-*1.520-1.522 urte bitartean, Toledo izan zan I Karlosen aurka,* erkidegoaren gudak(1) bideratu ebazanak.

-*Eta I Karlosek arrezkeroztik,* Toledo, ia bere bizi guztian eukinda katolikotasunaren aberriko kaisertza lez. Bere maldabera, I Karlos´en gorteak, Madrillera aldatu ebazanean asi zan.

-*Orregaitik,* Toledo naita arberatutako(2) izatasunean egon arren, eleike arritzekoa izan bear iñorentzat, espainitar-katoliko-aberri lez asmatutako batzangoaren menpetasunezko irudi ori Toledon eukitea gaur be, euren jabetasunezko(3) kaisargoaren irudi lez.

Katoliku edo espainitarrak, ezer zuzendu barik edestitik zear ekarten dabezan ainbat maltzurrezko guzur lodiai, oraindiño menperatzail ta aberats faziztaren artean, indar guztia emoten dautsoelako.

-*Euskaldunak.*

Euskaldunak edesti guztitik oraiñarte, zazpi lurraldeetan murriztuta geratu bagara be, iñork ez dauskue izaeraren nortasunetik ezer kendu, eta gitxiago eskubidearen jabetzatik, euren eskuetan ez dagolako alango almenik.

Eta naita frantziar eta espainitarrak euren lurraldeak dirala esan arren, or erdian daukie Euskalerria, bere eskubideak aldarrikatuz gain, bere jabetasunagaz begirunea eukitea eskatzen dauana. Euskalerria eskubidearen jabeduna dalako, euren naiaren aurka.

Laster izango dana, giza bizitza amiltegiaren ertz edo ta leze bazterrean kokatu egin ondoren, gure mundu onetako eginkizunak beartuta agertzen dira aldaketa sakonak egitera, ertz edo leze bazter orretatik urruntzeko.

Eta "*bereztasun*" orretara itzultzeagaz, gai-gizaren eskubideetara itzultzea esan gura

(1) Erkidegoaren gudak = guerra de las comunidades o de los comuneros. (2) Arberatutako = agusanizado. (3) Euren jabetasunezko = que lo consideran como de su propiedad. Cuando en èste Mundo, nada puede ser de nadie, cuando la responsabilidad debe de imperar como ley que emana la Creación.

dauan lez, adi egonda, or berrezkuratuko doguz ostera, gure berezko eskubideak.

2. 12. *Euskalerriko edestiaren aria ostera berrezkuratuz, 1.844-1.860ko urte bitartean, edestilariak esaten daben IIn guda karlista asi ta amaitu zala.*

1.844ko urtearen Loraillan, Narbaeztar Ramon Maria izendatzen dabe espainitarren jaurlariko lendakari, eta ortik aurrera asi zan, espainiatrren gortean burudunezko amarkada esaten jakonari ?.

Maltzurrezko lapurretan egiteko izan ezik, iñoz euki ote dabe, zentzunezko gauza bat egiteko bururik ?.

1.844ko urtean Uztaillaren 4an espainitar jaurkintzaren erregetzazko agindu bategaz, ostera lengoratu egiten dira Foruen lege batzuk.

Argi ikusten da aldi onetan, gure Foru Legeak, espainitarren apetaldi ta naikerira ibili zirala, espainitar gobernukoak menpeko legeen zentzu orreik guzurrezkoak izanda, ez ebelako jakin zelan ezarri. Guzurra, norkeriaren maltzurtasuneko gauza izanda, gatz edo ezinezkoa dalako egiaren artean ezartzea.

Antza, eurei be begirune andia emoten eutsen maltzur ta guzurrezko arrazoi galantakin ibiltea, euskal nortasunaren izatasunezko oituran daukaguzan legearen aurka.

Eta 1.845eko urte oneitan asten da bigarren guda esaten eutsoenari, guda bat baiño, ainbat basoetatik edo bas-guduxkako borrokaldiak izan ziranai.

Kataluñan egin ziran geien, lenengo txandan, Kabrera ta Griñotar Ramon, eta bigarren ekitaldian, Tristany Ros de Eroles, Borjes eta Billela buru izan zirela, euki ebezan 70.000 gudariakaz, liberalaren gudalozte andiaren aurka.

1.845eko urtean Urtarrillako 1ean espainitar Konstituzio edo jaurgo barria antolatu zan.

1.845eko urtean Vn Karlos Maria Isidrok, bere seme Borbon eta Braganzatar Karlos Luis(1) Montemolineko kondearen eskuetan itzi ebazan bere erregetzazko eskubide guztiak, onek VIn Karlosen izena artuta.

1.845/1.849ko urte bitartean, VIn Karlos Luis onek, 1.846ko urtean IIn isabel bere lengusiñagaz egon ziran ezkontzeko asmoak apurtu ondoren, Kabrera ta Griñotar Ramon karlista gudal nagusiagaz Kataluñan matxinatzen da.

1.846ko Iraillan karlistak itxaropentzu, Kataluñan matxinatzen dira *matinersen guda*(2) izendu zanagaz.

1.846ko urtean Iraillaren 14an VIn Karlosek, Euskaldunak matxinatu zitezen alegindu zan, baiña ez eban artu erantzunik.

1.846ko urtean espainitar gobernukoak IIn Isabeleri 16 urte euki ebazanean, ezkontza antolatu eutsoen, bere bi aldeetako len maillako legusua zan Borbon ta Asis´tar Frantzizko Kadizeko dukeagaz. Mutillen aita Paulado Franzizko, VIIn Fernandoren anaia zalako, eta bere ama, Bi Siziliako Borbon´tar Luisa Karlota, Maria Kristinaren aizta zalako.

IIn Isabel´ek ezkontza onegaz, nai ta seme alaba asko eukin, ezkontzaren leenengo egunetik, ez eban ezagutuko zorionik, artu eban senarra, omo-seksukoi edo ema-gizona zalako.

(1) Borbon eta Braganza´tar Karlos Luis, 1.818an Madrillen jaioa eta 1.861eko Urtarrillaren 13an Brouséen il. VIn Karlosen izenagaz esagutu zana. (2) Matiners´en guda = guerra de los madrugadores.

Eta ortik aurrera bere bizitza, eten bageko jai bat izan zan, goizeko 5etan ogeratuz eta arratsaldeko 3retan jagi, bere gogoko maitale ugariekaz ibili ta gero.

Ezkon-gai edo senar-gai asko euki ebazan, Europan, urdurik egon ziralako ezkontza orrek euki eban garantzi aundiagaz.

Gauza bategaitik edo besteagaitik baiña, danak baztertu ziran, arik eta bere alde bietako leen maillako legusua, Borbon´eko Asis´tar Frantzizko aurkeztu arte.

1.846ko urtean Urrillaren 10ean ospatu zan Madrillen ezkontza ori, errege jauregiaren jaur-alkiren gela aundian, IIn Isabelek 16 urte eukazala. Bai egun orretan eta leku bardiñean, bere aizta Borbon´tar Luisa Fernandaren ezkontza be, Orleans´tar Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko errege izan zan I Luis Felipe erregeen semearekin,

IIn Isabelek, ez eban ikusten bere senarra begi onekin, idazle batzuk esaten daben lez, maritxu antzeko bat izan zalako.

Eta lenengoetatik erakutsi eben biak, bata bestearen arteko etsaigo edo eziñ-ikusi antz bat.

Dana dala, IIn Isabel eta bere senar Borbon eta Asis´eko Frantzizko izenean, amabi alaba semeak euki zituzen, nai izan naiezko seme alaba batzuk, aurgaltze ta jaio barri ildakoak euki. Aurbide edo sabelaldi geienak, gaueko jaialdikoak izan zirenak.

Amaren alaba-semeetatik, lau baiño besterik ez ziran eldu euren adiñetara: Isabel; XIIn Alfonso; Maria de la Paz; eta Eulalia.

Aurretiko ekintza auek eukinda, erriaren askatasunezko demokraziaren arloetan bere jaurkintza, porrot aundi bat baiño besterik ez zan izan, erakundeak maltzurtu ondoren eta auteskundeen antolakuntzak, usteltasunezko gaiztakeriz goralduta ezin besteraiño, beti irabazten ebazalako antolatzen ziran auteskundeak.

II Isabelen erregetza, Gaztelar edo espainitarren jaurkintzazko edestian, usteltasunezko gaiztakeriz, kirats aundiena emon dauen gobernua izan dala esaten dabe. Nire baitari, lan aundia emoten dautsona sinisten, 2.018ko gaurko urte onetan, PP´koen jaurkintza ikusiz.

Eta jaurkintzazko arduradunetan aldakuntzak egoten ba ziran, beti izaten ziran gaurko lez, jazarraldi edo gudal nagusien matxinadarekin, edo ezpatakaz ataraten zan zaratarekin.

Gaiñera, erregiñeko gorteen jaurkintzazko ministru ta erlijiokoak ondo erabili ondoren euren zirikitasunak, gobernuaren barren-barreneraiño ibilten ebazan, eta IIn Isabelek, askotan sartzen zalako gobernuko gauzatan, bera leen ministru lez aurkeztu ondoren, maldaberan joan zan IIn Isabelen jaurkintza ori, arik eta jaurlarikoen asarre bidetik, 1.868ko "La Gloriosa"ren iraultza agertu zan arte.

1.848ko urtean Bartzelona Mataroko trenbidea zabaldu zan.

1.848ko Bagillan, Kabrera gudal nagusia Kataluñan sartzen da, eta guda bizkortu eban.

1.848ko urtean Uztaillaren 2an Alzaa´tar J.J.ek, euskaldunak matxinatzeko alegiñetan etorri zanari, mikelete eta guardi zibillek arrapatu eben, eta len karlista ta orain jaurgo edo konstituzioaren alde egon zan Urbiztondo gudal nagusiak aginduta, Uztaillaren 3an tiroz il eben.

1.848-1.849ko urte oneitan, ainbat alegiñ egin eben euskaldunak gudarako antolatuten, baiña eziñean geratu jakiezan alegiñ orreik, eta Billalonga ta Urbiztondo espainitarren gudal nagusiak izan ziran, gudaloztearen antolaketa bardiñ orreitan ibilita, odol askoko fusilamendu ta itsas osteko erbestaraldiekaz, ezereztu ebezanak matxintasun orreik.

1.848-1.851eko urte artean, eta 1.853-1.855ko urte bitartean, Mariano Roka de Togores´tar Karrasko, zama-ontzi ta itsas-gudarien ministrua zanak, itsas-ontziren antolan sartuta, egitamu gogor baten sartu zan, guztiz ez zana bete, baiña beste ministruak arduratu zitezen balio ebela esan eben, egon ziran itsas-ontzidiren itxitasun aunditik urteteko.

1.849ko urtean Jorraillaren 7an Urbiztondok, Euskalerriari ezarri eutsozan guda legeak amaitutzat emon ebazan. Eta ia batera, Kataluñako *matinersen guda* amaitu zan.

1.851ko urtean Bilbon, Eustakio ta Delmastar Juanek "Irurac Bat" aldizkari politikua sortu edo irasi eban.

1.852ko urtean Otsaillaren 2an Madrillen Atotxako eleizan IIn Isabelek, bere jaio barriko alabea aurkeztu eutson Ama Birjiñari, eta urteeran 63 urteko Merinotar Manuel Martin apaiza, bere aurrean belaunikotuta, ta ezker eskuegaz agiri bat erakutsita, eskoiagaz aizto batekin zauritu eban IIn Isabel, eta atxilotu ondoren, Otsaillaren 7an ukamendian urkatzeko garroteagaz il eben.

Merino apaiz onek, ez eukan ezer ikusirik Merinotar Jeronimo apaiz basa gerlariagaz.

1.853ko urtean Bilbon "El Avisador Bilbaino" izparrangia agertu zan, Bilbaoko etorkizunakaz arduratzeko.

1.853ko urtean espainitarren erregetzazko agindu batekin, ostera itzultzen dira Euskalerriko Udaletxetara 1.841eko urtean baiño ariñago euki ebezan legeak.

1.853-1.854ko urte oneitan, IIn Isabelen erregetza, zar-berritze edo berrikuntza arloetan, bultzakada aundia artu eban, tren edo su-gurdiaren bideak zabaltzen asita, erdiugarte onen Uri arteko urruntasunak, murrizten asi ebazanean.

1.855eko urtean, emaitza txarrak emon ebazan, Madoztar Paskualen azkeneko "ondasunaren askatasunagaz"(1): laterriaren zorrak ez ebalako garbitu, Udaletxeak ondatu edo lurreratu, eta nekazarien itxaropenezko erriko lurrak andikien eskuetara aldatu ebazalako.

1.855eko urtean IIn Isabelek, bere aitak ertsi edo giltzatu ebazan goi maillako ikastegiak, zabaldu ebazan. A ta guzti, aurrera begira ikusten zana, negar egitekoa zan, urte oneitan espainitar lurraldean, 6.000 erri egon ziralako eskola barik.

1.855eko urtean aldarrikatu zan, burnibide edo trenbideak egiteko legea. Eta urte berean egin ziran antolaketak, trenbide ori, Madrilletik Irunera egiteko.

1.855eko urtean Bagillaren 3an, trenbidea, Gazteizera eroateko gogoratu ziran, azkenean baiña, Ebroko Mirandara eroan eben.

1.855eko urtean Bilbon, "El Boletin del Comercio"ren izparrangia agertu zan.

1.855eko urtean Epaillaren 10ean Triesten il zan Borbontar Karlos Maria Isidro, Molinako kondea, Vn Karlos izenakin ezagutu zana.

1.856ko urtean, "espainiar diru etxea" sortu zan, San Fernando diru etxearen ordez.

1.856ko urtean Bilbaon, "El Liberal Vizcaino"ren izparrangia agertu zan, bere ostean Diario de Anuncios agertuta, gai´ezko(2) ta ekanduzko arloetan arduratuko zana.

Orduko denboran, nagusien arteko asmakuntzaren arloetan, aberastuteko euki zituzen berotasunezko gogoak, ez eban euki zerikusirik erritarren artean sortzen zanagaz.

1.856ko urterarte egin ziran gauzak: 1.848ko urtean Bartzelona-Mataro suburdien bidea;

(1)Ondasunaren askatasuna = desamortización. (2) Gaiezko eta Ekanduzko gauzatan arduratuko zana = que se preocuparia de las cosas materiales y morales.

Salamankako markesak Madrilletik Aranjuezeraiño egin eben su-gurdien bidea; Maria Kristinaren gizona Riansareseko Dukeak egindako Jijon-Langreo trenbidea, Balentziaren Jatibakoagaz batera.

Baita gauza okerrak egin be, bide auek euki eben mendizka okerragaitik, egin eben su-gurdiaren bideen zabaltasunak, Europaren neurritk kanpo egin bear izan ebezalako, eta su-gurdien geltokietarako bideak bertan itzi bear izan ebazan, diru arlo orreitan, irabazpide lanetatik, ondameneko lanetara aldatuta.

Garrantzi aundiko ur-zapailluak(1) be egin ziran, Juan Bravo Murillo eta Manuel Alonso Martinez IIn Isabel ministruetatik asita, IIn Isabel ur-askatik(2) egin ebenagaz.

IIn Isabelen erregetzan, errilanetan egin ziran alegiñak, nai buru askorekin egin barik eginda be, aundiak ziran: bideen egikerarako egin ziran antolaketak, mendien alboetatik errekak aldatzeko zubiak, eta itsas-ertzeko bideak euren kokamenakaz egitea, gaiztoak ziralako.

1.858-1.863ko urte bitartean, IIn Isabelen atzerrirako politikea, oso artega edo eziñ egonekoa biurtu jakien, euken Liberal Batzangoen gobernuagaz.

Afrikako gudan eta bere Iparraldean, eureganatu egin ebazalako Marrokuen lurraldeak, Ifni ta Tetuan bezelakoak. Eta XIXn gizaldian edo ta 1.843ko urtetik, jabetasun barik egon ziran Ginearen ur-kolkoko Fernando Poo, ta Annoboneko ugarteakaz geratzeko.

1.858ko urtean, atzerrian egon ziran espainitarrai, gobernari edo agintari bat bialdu eutsoen, eta Afrikako Ginearen ugarte orreikaz batera, Afrikaren Beko-Sajararen lurraldeekin be jabetu ziran, 1.960ko amarkadararte iraun ebena, lotsabageko ongunde bategaz, bereztasunezko jabetasunekoai emon barik, marrokotarrai emonda, laterritasunen arteko lege-lapur eta fazizta bitartez.

Kontxitxinan edo gaurko Bietnan´en bertoko giza-semeak, espainitarren lurraldeetatik bialdutako *mixiolari, eleiz-izlari edo ta predikari batzuk il ebezan,* Frantzia ta espainitarrak gudalozteakaz erantzun ebena, eta *Kontxintxinan, Frantzia ta espainitarren guda* izenagaz ezagutu zana, Saigon menperatu eben.

Espainitarrak, Filipinaseko gudariakaz borrokatu ziran, eta guda sari lez: Tuloj, Balaj, eta Kuanjan´eko kai´en salerosketako eskubideak artu ebazan, gudarako erabili ebezanak gastu-kontuen ordaiketak egiteko, eta erlijioaren arloetarako, elizkizunen askatasunak baiño besterik ez eutsen emon. Frantzezari, iru lurraldeen jabetasuna(3) emonda, gero, Indotxinagaz jabetzeko, aukerea emon eutsena.

1.858ko urtean eta erdiugarte onetan, etorkizun illuna ikusten zan ikasteko maillatan, bigarren maillako ikasketetan, 53 ikastegi egon ziralako bakarrik, danetan 10.000 ikasle eukinda. (Frantziak, erdiugarte onek baiño, erdi erritar baiño gutxiago euki zituzenarekin, 5 bider ikastegi geiagoko kopurua euki eban).

Espainitar goi maillako 10 ikastegietan 6.104ko ikasle euki zituzen: Oviedo-Salamanka 100, euren lau ikas-sailletan. 3.472ko erdiak baiño geiago lege-jakintza ikasten egon ziran.

Ikasleak ikasteko euki zituzen jendekuntzazko tresneriak beargorritasunezkoak ziran.

Ikasteko egin ziran alegiñak, Julian Sanz del Rioko esanetan, Krausismoaren zentzuz(4)

(1) IIn Isabelen ur-askatik asita = comenzando por el canal de Isabel II. (2) IIn Isabelen ur-askatik = canal de Isabel II. (3)Iru lurraldearen jabetasuna = el dominio de tres provincias, que diò comienzo a la consolidación francesa en Indotxina. (1) Krausismo = corriente filosòfica que se desarrollò en la segunda mitad del S.XIX tomada del pensamiento de F. Krause. Con J. Sanz del Riogaz se construyò un comportamiento ilustrado. Que resurgiò con Giner de los Rios, y terminò con la fundaciòn de la institución Libre de Enseñanza.

asmatuta egon ziran ikasketak, debekatu ebazan.

1.859ko urte inguruak, zorigaiztoko urteak izan ziran Jendekuntz maillan, espainitarren lurraldean 56 erriko liburutegi egon ziralako bakarrik: Bilbokoa 854 idatzitako liburuekin; Santanderrekoa 610 liburuekin; Segobiakoa, 194 liburuekin; eta Uelbakoak 60 liburuekin.

1.859ko urtean egin zan Tudela-Bilboko su-gurdi bidea.

1.859ko urtean ainbat alegiñ egiten dira, atzerritik karlistaren gudal nagusiak matxinatu zitezen, eta 1.860ko urterako epetu zan erabagi au.

1.959ko urtean, Afrikako gudan, Marruekosek, Melilla ta Zeuta erasotzen ebazalako, O'Donell'tar Leopoldok, espainitar gudalozteko agintariai geldirik egon zitezen esanda, ainbat igon ebazan euren gudalozteko agintari maillan, beste ainbat zingolatu(1), aundiki izenakaz saritu(2), eta abar.

Espainitar gudalozteak, txarto jantzi ta tresnatuta egon ziran, eta gudarako izkillu ta eukezan tresneri guztiak txarrak euki ebazalako esku artean, txarto ikasitakoak ziran.

Emoten eutsoen janari txarragaitik, 8.000 gudarien kopurutik, 5.000tik gora il ziran, beazun edo gibel-ur beltz(3) eta ugari agertzen jakiezan gaixoakaz.

Gudalozteko agintarien artean be, ez ebelako ezagutzen ango lurraldeen denborako goraberak, ainbat anka sartzea euki eben. A ta guzti, garaille urten eban.

1.860ko urtearen asieran Bilbok, 20.000 biztanle euki ebazan, eta amarkada ori amaitu orduko 28.000.

1.860ko urtean Boluetan, Santa Anaren burdiñolan, 2 eta 3garren labak eraikiten dira.

1.860ko Otsaillan Elio karlista zarrak, alperrezko lanak egin ebazalako naparrak ostera mantxinatu zitezen, 1.860ko Epaillan, Urangatar Koronela izendatu eben, Nafarroako gudal nagusi lez.

1.860ko Jorraillan VIn Karlosek, porrot aundia euki eban *San Karlos de la Rapidako* legorreratzean(4), eta espetxeratu eben.

Eta 1.860an Jorraillaren 23an VIn Karlos Monte-molineko Konde oneri, espainitarren gortekoak, espainiar erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiai uko egitea galazo eutsen.

1.860ko Loraillaren 22an, "Euskalduna" aldizkariko 62n zenbakia agertu zan.

1.860an Uztaillaren 7ko erregearen agindu batek, guda-jaurlariaren baimena bear ebela esaten eban, Euskalerriko Foru Aldundikoak batzartu zitezen.

1.860ko urtean espainitarrak, lege bat atara eban, itsas-gudarako bear ebezan itsas-ontziak ugaritzeko, eta oraindar edo denbora orretako lurrin-indarragaz(5) indartutako guda-ontzidi antzeko bat egitea lortuta, geienak, zurezko azalagaz eginda egon ba ziran be, zortzi korbet-ontzi(6): *Tetuan, Almansa, Gerona, Numancia, Vitoria, Zaragoza, Arapiles eta Sagunto* izenak euki ebazan itsas-ontziak egin ebazan.

Geroago, burdiñezko azala euki eben gudarako itsas-ontzi nagusiak edo kurtzer-ontziak(7) egin ebezan: Fernando el Catòlico, Santzez Barkaiztegi, eta Jorge Juan'en izena euki ebenak.

1.861eko urtean Urtarrillaren 13an Austriako Brousèen il zan izurri gaixotasunagaz(8), VIn Karlosen izenagaz ezagutu zan Borbon eta Braganzatar Karlos Luis.

Ekintza onegaz, bere anai Juanek liberal eritzikoa agertuta, euren aldetik espainitar

(1) Zingolaztatu = condecorar. (2) Aundiki izen =tìtulos nobiliarios. (3) Beazun edo gibel-ur beltz, eta beste gaisotasunakaz = Enfermedad del còlera y otras enfermedades. (4) San Karlos de la Rapida'ko legorreratzea = la toma de tierra en San Karlos de la Rapida. (5) Lurrin-indarragaz = barcos movidos por la fuerza del vapor. (6) Zortzi korbet-ontzi = escuadra de 8 fragatas ligeras. (7) kurtzer-ontzi aundiak = grandes cruceros. (8) Izurri = peste, epidemia.

erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiak berton itzi ondoren, karlisten itxaropen guztiak pikutara joan ziran, karlistaren eskubide guztiak noraezeko bide barik geratu ziralako.

Emen amaitu zan, edestilari batzuk esaten daben, karlistaren bigarren guda zana.

1.841eko urtetik 1.875eko urte bitartekoak, Euskalerriko aberatsen buruz aipatu bear dogu zeozer, euskaldun gordetzailleak ainbat diru egin ebelako aldi orreitan.

Diru orregaz, Euskalerriaren lantegi ta langintzako tresnerien iraulketa egin ebalako, bigarren karlista guda amaitu zanetik aurrera.

1.823ko urtean, Ibarrak euki ebazan Itsasontziak egiteko lantegi txikerrak, Andaluziara zabaldu ebazan, zeregiñ orretan.

1.841eko urtean, Boluetako "Santa Ana" irasi zan, 1.848ko urtean bere leen laba nagusia eginda.

1.848ko urtetik aurrera, eta espainitar gobernuaren laguntzagaz 1.859ko urterarte, bultzakada aundia artu eben Bizkaiko itsasontziren lantegiak, Nerbioi Itsas-ontziren lantegiak bera bakarrik urtero, 12 itsasontzi eginda.

1.850-1.853ko urte bitartean, eta *"Iparagirreri"* esker, Euskalerri osoan zabaldu zan gure Foruaren zaletasuna, bere *"Gernikako Arbola"* ta berak eukezan beste abesti bidez.

Eta Donostiko aberats batzuk ori ikusi ebenean alkartuz, arriskutsuko gauza izan zala ta, Iparagirre atxilotzeko salatu eban. Eta espetxetik atara ebenean, guarda zibillak alboetan eroan ebazala atara eban, Euskalerritik atzerritzeko.

1.854ko urtean, Barakaldon irasi zan, "Karmengo Amaren, bigarren laba nagusia".

1.855eko urtean "Ibarraren alkarteak" giputz´tar aberats batzukaz batera, izen gabeko baltzu edo "Bera-Iraeta´ko Burdiñ lantegiko elkargoa"(1) irasi eban.

1.856ko urterarte egin ziran, 1.848ko urtean asi zan Bartzelonatik Mataroraiñoko su-gurdiaren trenbidea. Salamankako markesak egin ebana Aranjuezetik Madrillera. Eta Maria Kristina erregiñaren senar, Riansareseko dukeak egin ebazan Gijon Langreo, ta Balentzia Jatibako su-gurdiaren trenbideak, eta abar.

Diru arloetan, ostuko okerkeriak egon arren, gauza guztien gaiñetik, bultzakada aundia emon eutson IIn Isabelen jaurkintzari, aurrerakuntz aundia zalako.

1.857ko urtean, Ibarra, Epalza, Zabalburu eta beste dirudun kideakaz: "Bilboko Diru-Etxea" irasi eben, zortzi milloi lau-erlekoen diru kopuruagaz.

1.857ko urtean Euskalerriko Aldundien arduradunak, euren jazar aundiena aurkeztu eutsoen IIn Isabeleri, Erritarrentzat Irakaskintzazko legea(2) atara ebalako, Irakaskintz orrek espainitar lurraldeakaz bardinduz, danak espainitar gobernu eragillearen(3) eskuetan ipinten ebazalako.

Gure Aldundiko arduradunak IIn Isabeleri eskatzen eutsena: erritarrai euren euskerazko izkuntzan irakasteko, ez eutsela irakasle arrotzik ekarri, galbidezkoa izanez gaiñ, erritarrak urrundu egiten ebazalako ikasketako bideetatik. IIn Isabelek, edo beren aolkularitzazko eleiztar aberkide katolikoak baiña, ez eutsoen jaramonik egiñ.

(1) Iraeta´ko burdiñ lantegi alkargoa = fàbrica de hierro Iraeta S.A. (2) Erritarrentzat irakazkintzazko legea = ley de instrucción pùblica. (3) Gobernuko eragillearen eskuetan = dejaba todo y a todos, a expensas del edepartamento de fomento Español.

1.859ko urtean Barakaldoko lantegian irasi ebazan zortzi laba, burdiñezko-belaki edo txuperazko burdiña egiteko(1).

1.860ko urtean, "Ibarra anaien baltzuko edo aginkideko Elkarteak" "Karmengo Ama" lantegien ugazaba zirenak, andiagotu eben lantegia, Billalonga, Murrieta eta Uribarren´eko dirudun kide barriekaz.

1.860ko urtean Ibarra´tar Jose Mariak, Sebillan euken kokamena "Andaluzia-Euskal lantegia irasi eban, bere agintegiko arduradunak Bizkaian kokatuta egon zirala. Gero Ibarra´ren semeak "Ibarra-Elakartea"ren izena ipini eutsen, eta izen orregaz "Lurrarteko-Itsasoaren"(2) itsas-bazterretan zabaldu eben euren zeregiñ ugaria.

Lenengo zabaldu eben su-gurdi bidea, Mataro Bartzelona arteko trenbideena izan zan.

Ortik aurrera, erdiugarte onetan egin ziran trenbide guztiak, jauntzuak aberastuteko egin ziran.

Adibidez: IIn Isabelen ama Maria Kristinagaz, edo 1.853-1.854ko urte artean Malagako diru-etxe baten ugazaba izan zan Salamankako markesagaz sortu zan lez, errege ta lege biltzarraren baimenagaz ainbat mesede artean, 129 milloi diru laguntza gobernutik atara ta batera, Madrill-Aranjuezeko trenbidea gobernu berari saldu 60 milloi baiño geiagoagaitik, berak ostera trenbide ori enkante barik(3), eta iñoiz ez eban ordainduko, urtean milloibat ta erdien maizterkuntzan edo akuran(4) artuta.

A ta guzti, IIn Isabelen jaurkintzan egon zan salerosketako sukar orrek, ez eukan zer ikusirik Laterriaren egoeragaz.

1.861eko urtean Dominikako Errepeublikeak ostera espainitarrakin elkartzea erabagita.

A ta guzti, Dominikar lengoratzaillearen aurka sortu ziran borroka ugarien bidetik, espainitarrentzat diruen ordainketa aundiak izanez gain, alperrezkoak ziralako, 1.865eko urtean IIn Isabelek, indargabetu edo ezereztu eban Dominikarrekin euken jabetasuna, Aiti ta Dominikako erriekaz osotzen dan karibeko ugarte oneri, bere Dominikar Errepublikaren askatasuna emon, eta México, Peru, ta Txilerantza egin ziran urrengo gud-aldiak.

Espainitarrak ainbat lurraldeen jabetasunak itzi ondoren, aurrera begira ta Ameriketako lurraldean: Karibean Kuba ta Aberats-Kaia(5); Asian Filipinas, ta Mikronesiaren Karolinako ugarteak, bai ta Marianas´eko Ugarteetan, euki ebazan jabetzak sendotu ebazan.

1.861eko urtean Iraillaren 15ean Braganzatar Maria Teresa Beirako errege alabeak, "Liberal karlistarekin ez ebalako jakin gura ezer", bere seme Juaneri eskatu eutson: bere billoba VIIn Karlosen eskuetan itzi egiezala beren erregetzazko eskubideak. Juanek euki ebezan beste semeakaz, eztabaida gogorrak sortu ebena.

Eta emen asi ziran karlistak ostera, bidea aurkitzen.

2. 13. ***(1).- 1.862ko urtean Dagonillaren 25ean jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, Arana ta Goiri´tar Sabinoren baiño iru urte zarragoa izan zana, eta abertzaletasunaren arloan Sabinori begiak zabaldu eutsoezanak.***

1.864ko urtean Dagonillaren 7an espainitar gorteko Santzez Silbaren bidez, zalantzan ipinten dira alegin gogorrakaz, gure "Foruen Legeak".

(1) Burdiñezko belaki edo txuperazko burdita egiteko = para fabricar esponja de hierro. (2) Lurrarteko Itsasoa = Mar Mediterraneo. (3) Enkante barik = sin licitaciòn alguna. (4) Berak ostera artuta trenbide ori Maizterkuntza edo akuran = el mismo coger de nuevo en arrendamiento la linea del tren. (5) Aberats kaia = Puerto Rico.

1.864ko urtean Iraillaren 29an Unamunotar Migel jaiotzen da Bilboko Txakur kalean, gaur 16garren zenbakia altzetan dan lekuan.

1.864ko urtean Vn Karlosen emaztea zan Braganzako Maria Teresa, Beirako erregearen alabea zana, arduratuko zan karlistak ostera bideratzen, eta bere illobaso edo billoba Borbon eta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VIIn Karlos izenarekin ezagutuko zana, izendatu eban ondorengo karlisten agintaritzarako.

1.865eko urtean Urtarrillaren 1ean, Nobia Salzedo ta Kastañostar Pedro il zan Bilbaon.

1.865eko urtean be asi zan lan egiten "Triano"ko su-gurdia.

2. 14. (2). - *Arana eta Goiri´tar Sabino´ren jaiotza.*

1.865eko urtean Urtarrillaren 25-26n eguneko bitartean, Aranatar Santiago ta Goiritar Paskualaren zortzigarrena ta euki eben azkeneko semea izango zanak, gabeko 12ak eta 25 minutuetan jaiotzen asi zan: Arana ta Goiri´tar Sabino Aundia izango zana.

Eta San Sabinoren jaia ospatzen zan lez, Sabino ipini eutsoen lenengo izena, baiña 26ko egunaren lenengo minutuetan izan zan lez bizitzara agertu zanean, San Polikarporen eguna izanda, Polikarpo bigarren izen lez.

Gaba orretan, il zorian egon zan bere anai Koldobika gaisorik.

Sabino, Abandoko eleiz aldean, Ibañez kaleko 10n zenbakian (len Albiako etxea izan zana) eta 1.857ko urtean bere aitak, egiteko agindua emon eban etxean jaio zan, 1.863ko urtean, Arana ta Goiritar sendia etxe ortara, bizitzen joanda.

Arana ta Goiritar Sabino jaio zan, gaur "SABIN ETXEA" dauan Bilboko Ibañez kalearen lekuan, aranatarrak euki eben etxe ederrean.

Kontuan artu bear da, Sabinoren aita, Arana ta Ansotegitar Santiagok, Ripan, La Salben, Allende Salazarren alokatuteko lurretan, eta Zorrozan euki ebazala iru itsasontziren lantegi ederrak.

Arana eta Ansotegitar Santiago, Bizkaiko itsas ontziren egille andiena zan, eta bere aita ta anai Andresekin, euren biziko denbora ezberdiñetan, Gernikako Batzar nagusiaren ordezkariak be izan ziran, Abandoko Udaletxea, Gernikako Batzar Nagusira, ordezkari lez lotuta egon zalako.

Abandok, Gernikako Batzarraren ogeita amalau ezar lekuakin lotuta euki eban bere Udaleko alkatetza.

Arana ta Goiri´tar Koldobika eta Sabino seme txikerraren abertzaletasunezko bizi kondaira ulertu daigun, sendiko laugarren alaba, Paulina zanaren esanetatik, labur artuko dogu:

-"Arana ta Goiri´tar Santiago ta Goiri´tar Paskualaren etxeko abertzaletasuna, oso sakona zan, Euskal Nortasun andiko ta sinismendun zintzoak izan zirelako".

-"Karlistaren matxintasunerako asko lagundu eban nire aita Santiagok".

-"Denbora gitxi barruan itzi eban itxas-ontziren egiteari".

-"Uribarri gudal nagusia, bere etxean euki eban ostonduta".

-"Aita, Ingalaterrara joan zan, su-izkilluak erostera, eta bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu ebazan, karlista gudari gazteak izkilluz prestuteko".

-"Zelan zabaldu zan, gu atzerrira joanda egon giñela, etxetik urten barik egon giñelako, eta urtetan bagenuen, egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendula, goizean, lenengo Meza Santuetan otoitz egitera".

-Aita, Abandoko alkatea izan zan, eta Gernikako batzarretan eskubidedun bertatik".

Sabinorentzat ikusten dan lez, etxean euki eban abertzaletasunezko giroen arnasa, obeagoa ezin izan, eta or berentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau ta nai abertzale lez.

Denbora oneitan Kantabroak, euskaldun eta bizkaitarrak senditzen ziran.

1.865eko urtean "Euskalduna" aldizkaria "K" itzarekin agertzen da.

2. 15. *1.841eko urtetik 1.875eko urte bitartekoak aipatu bear doguz, Karlista alderdiaren era berritze edo antola barria lez.*

1.866ko urtean Prin eta Prast´tar Juan espainitar gudal nagusia matxinatu zan, eta 66 mailla ezberdiñeko gudari, tiroz il ebazan.

1.866ko urtean Bilbaon, oikuntza lez ezarri zan, iraurri, saltzarri edo etxegintzarako karebaltza(1).

1.867ko urtean, Manuel Orobio Etxagüe ministruak, erakastegiko askatasunari ipini eutsezan oztopoagaitik, eta bai ta, mailla aundiko ikastegiren ikasleak erregiñaren alde egon zitezen, asko kanpora bota egin ebazanaean, katolikuaren eraso gogorra euki eben bidetik, eta bakeak lortzeko, IXn Pio Aita Santuen artekaritza bear izan eben, bere *"Syllabus" eskutitzagaz bakeztu bear izan ebena.*

1.867ko urtean Parisen egingo zan Munduko guztiaren Erakusketarako, del Balle´tar Luzio injinierue ibili zan argi, berak arduratu ebezalako Jeant Laurent eta Josè Martinez Santzez, erdiugarte onen lurraldeko Uri ta gauza aurrerakoieri, argazkiak atara egiotziezan, Pariseko erakustoki aretan, Mundu zabaleko gizonak ikusi egien.

1.868ko urtean Epaillaren 16an, Bizkaian neurkintza lez, amarkadako metrika ezartzen da. Eta urte berean espainitarrak, pesetea sortzen dabe diru arloetan, "Erdi Ugarte au irudi lez, osotasunezko espainitar aberri lez agertu zediñ".

1.868ko urtean Uztaillaren 7an, politikako gauzak txarto joan ziran IIn Isabelentzat, eta beren aldeko gobernutik eskutitz bat artzen dau, bere sendiagaz Frantziara atzerriratu zedin.

1.868ko urtean Uztaillaren 24an Kabreratar Ramon gaisorik egon zalako, VIIn Karlosek, onen Ingalaterrako etxean batzartu zan beste karlista gudal nagusiekin, eta Kabrerak bertan, ez eutson bere erregetza ontzat artu, areik eta ondorengo gauzak konpondu arte, batzar orreitan beren karlista ardurak itzita, euken gaixotasunagaz ezin ebalako ainbeste ardurazko lan andiagaz aurrera egin.

Batzar au izan zan VIIn Karlosek egin ebana lenengo aldiz, karlistaren errege lez.

1.868ko urtean Iraillaren 17an, Kadizeko urgolkora urreratu ziran Prim, Serrano, Topete ta Karballotar Juan Bautista liberalen gudal nagusiak, Zaragoza deitzen zan itsas-guda ontzian, eta IIn Isabel errege aulkitik kendu gura eban lez, iraultzazko agiri bat idatzi eben, 1.810-1.813ko urtetan Kadizeko jaurgo barriaren arauak argitaratu ziranakaz, zuzendu ta jaurkitu egingo ebela espainitarren lurraldea. Iraillaren 19an aldarrikatuko ebena.

(1) Iraurri, saltzarri, edo karebaltza = cemento. Eta burnidun saltzarri = cemento armado.

2. 16.- *IIn Isabelen erbezteratzea.*

1.868ko urtean sortu zan *"la Gloriosa'ren Matxintasuna"* IIn Isabeleri, Donostiako Urian, uda igaroten egon zan lekutik, Paris'era erbezteratuazo egin eutsona, IIIn Napoleon eta bere emazte Montijo'tar Eujeniaren babesa artuta.

Eta espainitarren erregetza itzi ebanetik, bananduta bizi zan bere senarragaz, au Èpinay-sur-Seine'ra bizitzen aldatuta, 1.902ko urtean il zan arte.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean izenpetu eban IIn Isabelek, bere erregiñazko utzieraren agiria, eukan ondorengo seme XIIn Alfonso izango zanaren alde.

IIn Isabel, Parisen bizi zan geratu jakon amaierarteko bizitza, eta bertatik jakin eban: leen Errepublikaren sortarazia; 1.885eko urtean, bere seme XIIn Alfonsoren erregetza ta ilkera; bere errain Habsburgo-Lorena'tar Maria Kristinaren errege-ordegotza eukan seme XIIIn Alfonsorekin; eta bai XIIIn Alfonsoren errege asiera.

1.904ko urtean il san Paris'en IIn Isabel, eta Eskorial'eko lekaidetxera ekarri eben, bere gizonen ilobi aurrean illobiratzeko.

2. 17. *Karlista alderdiaren era berritze edo antola barriari ostera ebatuta.*

1.868ko urtean Iraillaren 18an Prim ta Prast'tar Juan, Serrano ta Domingeztar Franzizko, eta Topetetar Juan Bautistaren iraulketa bidez, IIn Isabel bere erregetzazko ezar lekutik kendu eta Frantziara erbesteratuazo ondoren, karlistek, parebako aukerea ikusi eben euren eskubideak ostera berrezkuratzeko, eta prestakuntza orrekaz asi ziran arduratzen.

Espainitarren gobernua, aldarrikapen auengandik indartu baiño, makaldu egin zan, naiz konstituzio barriaren sendotasunean, eta baita aberri edo naziño lez sendotu edo gogortzen ibili arren, gudaloztearen indarragaz.

Demokrazizko jokuan emon gura ebezan askatasunezko itxurak, ez eukelako iñungo zentzun eta aukerarik, aberri-katolikoaren menpetasunezko txebera orreik ostonduteko.

Espainitar aldekoak aldi oneitan, politikaren eritzizko naste andiagotan asi ziran sartzen, adibidez: aurrerakoiezko jaurgo barriaren kide orreik, ezker eskuin alderditan banatzen asi ziralako.

Eta ezker aldekoak, errepublikako gobernu baten eritzira aldatzen asita, Saboyatar Amadeoren erregetza sakastatu edo ziligardatu(1) egingo eben, erregetzazko jaurkintzarik ostera, ez egian ezarri.

Euskaldunok, itxaropen andiegaz besarkatu genduzan, nai errepublikako eritziak, eta bai gizartekeri edo sozialismuaren arrazoiak, bide ortatik, gure erriaren askatasuna ikusten gendulako.

Eta erri lez lilluratuz, mogimendu orreik Giza ta Erri-eskubidera bidetu ginduzelakoan, ez gintzazan konturatu, egikera orreik, Europako liberal merkantilismu ta katolikosunaren eritzizko batzangoak, egokitzeko mogimenduak zirela, eurak be ez ebelako jakin, ain guzur andi orreik, zelan "Egi" biurtu.

Gitxiago, erkaldar edo errepublikanu ta errigizarte zale edo sozialistak, erri ta gizaren

(1) Sakastatu edo ziligardatu = echar aperder, malograr chapucear, deteriorar, estropear.

eskubideko aldekoak zirela esaten ebelako, nortasunbageko espainitar katolikoen batzango zaleak izango zirela, gure Euskalerriko gizarteetan, nortasunezko arrazoiaren eritzizko zentzuak, zoritxarreko naspiltasun geiagotan sartuta.

Euskaldunok, bereztasunaren zentzunezko aztura bidetik, egi lez baituta daukaguzan askatasun demokratikoak, eta beste erriak espainitarrak bezela oldozmen bardiñean ezarrita dagozelakoan, sarritan gertatu jakuz alango anka sartzeak, euskal zentzuzko gizarte eritzian naaste sakonetan sartzen gaituena, eta larregi kosta egiten jakuzenak zuzentzen.

Gure euskal gogoetan egizkoak izanda, ez gendulako ulertzen, eta gitxiago sinistu eta orregaitik konturatu, Jainkoaren izenean, zelan katoliko, bai sozialista edo ta errepublikano demokratak izanda, ibiliko zirala alango maltzur, guzur, lapurti ta menperatzailletasunezko jokuakaz.

Jainkoak bizitz oneri oiñarritu Eutsoezan legeen bidetik, bereztasunezko oiturean azi ta ezitako jokabidez bete bear dabez bere seme-alabak lege orreik, nortasun eta zentzunezko baitan ulermenduz, bereztasunezko ezaubidean ezarri egiezen.

Oso ezberdiñak dira baiña, Jainkoaren Legeari kanpotik, gizonaren norkerizko gogo legean bakanduz, sasiarrazoietan baitu gure egitea, mundu onetako faziztek, dirua ta agintaritza sasijainkotzazko maillan ipini ebazanetik, Goiko Jainko Irazaleak bereztutako legeak, ez dabezelako ikusi nai. Orregaitik euren arlo guztietan, guzurragaz jokatu bear dabe beti.

Ez dodaz nire gogoan oraindiño aiztuten, abertzale zar batek gure askeneko gudagaitik esaten eustena: "Ez gogoratu Paulo, borroka au sozialistak edo ta errepublikanoak irabazi ba eben, gure erriaren askatasuna ortik agertuko zala".

Ondoren, gu menperatzeko asmoa euki ebelako, gaur ikusten dan lez.

1.868ko urtean Iraillaren 19an Lekeition egoala arrapatu eutson IIn Isabeleri, ospagarri(1) izenagaz deitu eutsoen mantxintasun orrek.

1.868ko urtean Iraillaren 28an, Kordobatik 11 kilometrura egon zan Alkoleako zubian, liberalak irabazi eutsen gobernuko gudalozteai, eta 29an IIn Isabelek Frantzira atzerriratu zan.

1.868ko urtean Iraillaren 30ean IIn Isabel Frantziko atzerritasunera urten ebenetik, 1.904rarte edo beren eriotzararte iraungo eban atzerritasun orrek.

1.868ko urtean Urrillaren 3an, Borbon ta Braganzatar Juan, Parisen egon zan egun orreitan, eta jakinda bere seme VIIn Karlos an egoala be, beragana urbildu zan, jakin gurean egon zalako bere semeak ainbeste urtetan ikusi barik, zelako itxura euki eban, eta baita errege gai lez, egin ebazan aurrerakuntzak.

Arrituta geratu zan Borbontar Juan, bere semean ikusi ebazanean, alango gorpuzkeraren itxurak, askatasunezko ausardian euken zentzutasunezko burubide, ta kemenagaz, eta bertan emon eutsoezan erregetzaren eskubide guztiak, ararte bera liberalaren eritzizkoa izatearren, ainbeste bider ukatu edo ezeztu eutsolako.

1.868ko urtean Urrillaren 8an espainitarrak, bitarteko gobernu bat antolatzen dabe.

1.868ko urtean Urrillaren 10ean Kuban, Zespedestar Karlos Manuel matxinatu zan "Yara"

(1) Deituko zan Ospagarriko matxintasun orrek = gloriosa, glorificable revoluciòn.

erri izenaren irrintziagaz espainitarren aurka, 1.878ko urtean Otsaillaren 10eraiño iraun ebena.

1.868ko urtearen Urrillan, espainitarren politikako nasteak, eta Kuba matxinatu egin zala ikusi ondoren, karlistaren alderdia bizkortu ta atonduten asten da, bere barnetik alderdi bi sortuta: bata, lege zalea, Aparisi, Gijarro ta Nozedaltar Kandidok bideratzen ebena; eta bestea, espainitarren artean geientsuak guda zale sutsu ta barkagaitzezkoak(1) ziranak.

Araban: "El Escudo Catòliko" eta "La Buena Causa"ren aldizkariak sortzen dira.

Nafarroan: "La Voz de España"ren aldizkaria.

Gipuzkoan: "Boina Blanca" aldizkaria. Len Bilboko "Euskalduna" eta Gazteizen "Seminario Vasco Navarro" egon ziran aldizkariakin ezarri ziranak.

1.868ko urtean Urrillaren 22an VIIn Karlosek, Europako errege guztiai deitzen dautse esaten, bera prest egoala espainitarren jaurkintza aurrera eroateko, eta betirako ezarri eban, orokorrezko gorteakaz, askatasunezko legeak aukeratuko ebazala.

Inguruko denbora oneitan, espainitar gortekoak gudal nagusiakaz batera, kendu gura ebazan Borboiak erregetzatik, eurekaz ezin ebelako 1.810/1.812ko urte bitartean Kadizen irasi ebezan batzangotasunaren menpeko legeak ezarri, ta leen Montpensiertar Felipe Louis Orleanseko dukea, Potugaleko errege I Fernando, ta Esparterotar Baldomero garaipeneko dukearen atzean ibili ziran, espainitar errege izan zedin.

1.869ko urtean Epaillaren 22an Ranzes espainitar ministrua, Prusiako erregearengana joan zan bere urte beteratzean zorionduteko, eta Bismarktar Otto, Eduard Leopold kondea, eta Prusiako ministru izan zanagaz egonda, onek lenengoz esan eutson, espainitar erregeen ezar aulkian, Hohenzollerntar Leopoldo printzea ezarri bear ebela.

1.869ko urtean Loraillaren 1ean Tafallan, liberal eta karlistaren arteko eztabaida gogor bidez, borrokan asteko prest agertu ziran.

1.869ko urtean Bagillaren 1ean karlistak, ariñauko urtean Kabrerazen aolku bidez eta Londreseko batzarrean erabagita, espainitar orokorrezko araudi batzarrrak aukeratzeko egon ziran auteskundeak, Bagillaren 6ra aldatu ziran.

Orokorrezko auteskunde orretan, Euskalerriaren lau lurraldeko ordezkari karlistek, irabazi eben.

Espainitarren lurraldeetan ez zan gertatu bardiñ, eta IIn Isabelekin ministrua izandako Nozedalek, Epailleko antolamenduetan zeozer lortu ba eban gitxiengo taldeakaz, bide ori ez zalako izan VIIn Karloseri espainitarren erregetzan ezarriko ebena, ostera asi ziran prestuten guda zaleak.

1.869ko urtean Bagillaren 30ean VIIn Karlosek, Kataluña, Balentzia eta Aragoiko karlistai argi ezarri eutsen idatzitako agirian, beren gogoak: "menpeko batzangotasunaren aurkakoak zirala".

1.869ko urteen inguru oneitan, alegiñ asko egin eben espainitarrak, gure meaztegi ta euki genduzan legeak, euskal jabetzatik aienatu, ta bai ta berezko ardurapetik egokitzen jakuzan eskubideak be, suntsitu zitezen(2).

Eta ekintza orreik egiztatzeko, ez da begitu baiño bear, urte onetan espainitarren gortekoak, zergaitik atara ebazan ainbeste lege, zergak, askatasunezko aldaketa osoan ibili

(1) Barkagaitzezkoak = imperdonables, o que no tenian costumbre de perdonar nada. (2) Suntsitu zitezen = para que desaparezcan.

zitezen(1), 1.868ko urtean Epaillaren 14an ezarrita euki ebezan oñarrizko legeakaz alkartu ziranean, gure meaztegiak, ia betiko geratu jakiezalako atzerritarrezko aberritarrai.

Figerola ta Ballestertar Laureano ministruak, 1.836, 1.855 eta 1.856koaren urteentzako, Erdiugarte onen meatzezko ondasun aberatsak eskaiñi eutsezanean atzerritar merkantilistai, espainitar gorteko auek agindu ebezan legeakaz, erriaren lurrak salgai ipiniaz batera, ta euskal jabetzatik ondasun guztiak kenduz gaiñ, lapurketaren leiazko ariñeketa baten asi ziran danak, zeiñek ariñago ostu ta ustu, egon ziran burdiñezko meaztegi guztiak ainbeste atzerritar elkarte barri sortarazita.

Edozein motako menperatzailleak daukien diru-zalekeriagaz, egundo ez dira izan gai ezer sortarazteko, eta euren bete ezinean, beti joan dira guda-indarrekin gauza guztiak lapurtzera, gure euskal lurrak saldu ta euki genduzan meagunezko aberastasunak lapurtu egin eban lez.

Mundu onen aberastasuna baiña, ez dago bereztutako gai onetan, gai'a Jainkoaren aginduz, beti egongo dalako, egon bear dauan lekuan.

Gure gaitutako arimak dira aberastu bear doguzenak, bizitzeko bear dabezan gauzak, gaiak orokorrezko aukerean eskeintzen dauskun almenarekin, mundu onetan egin bear doguzanak, demokraziaren ekanduzko askatasunean bete dagiguzan.

Nor ote da FAZIZTA, mundu onetan ?.

2. 18. ***Oarpena:***

Emendik aurrera, Antonio Piralak idatzitako liburuetatik: *"Historia contemporànea" segunda parte de la guerra civil española , anales desde 1.843 hasta el fallecimiento de Alfonso XII, eta Labairuk idatzitako "Bizkaiaren Orokorrezko Edestitik" ta Ikas Mailla Nausienetik artuko dodaz, geien bear dodazan zeaztasunak.*

Bigarren atalean, 297ko orrialdetik aurrera, eta Auñamendiko enziklopeditik, artuko dodaz Euskalerriko guda au argitzeko bear dodazan osagarrizko zeaztasunak, Euskalerriko karlistadaren edestiko kondaira au, al dodan zentzu aundienean ezartzeko.

2. 19. ***Ostera, karlisten 1.841-1.875eko urteen arteko berriztearen aria berrezkuratuta:***

1.869an Uztaillaren 14an Berlingo diru etxeko buru batek, eskutitz bat idatzi eutson Serrano espainitar ministru ta gudal nagusiari esaten, Hohenzollerntar Leopoldo printzea izan zala egokiena, espainitar errege aulkian ezartzeko.

1.869ko urte berean Prim gudal nagusia, Antonia errege alabagaz ezkonduta egon zan Hohenzollerntar Leopoldo aleman printzearengana joan zan erregetzaren eskeintza egiten, Zorrillak, dana ezereztu eban asken baten baiña, bear zan denbora baiño ariñago emon ebalako ezagutzera, errege barria izango zanaren izena.

1.869ko urtean Urrillaren 4an IIn Isabelek Frantziatik, erregetzazko arduratik kanpo

(1) Zergak, askatasunezko aldaketa osoan ibili zitezen = aranceles librecambistas.

egonda, Lersundi gudal nagusiari eskutitz baten bidez eskatzen dautso, bakeztu ta menderatu egiezala itxas-aindiko kolonien matxintasunak.

1.869ko urtearen denborak, oso naas denborak izan ziran, Itsas-osteko Kolonitarren askatasunezko alegiñagaitik.

Bestetik, espainitarren gobernuan sortu ziran eztabaidakaz, batzango edo ta aurrerakoi liberalak eta errepublikano edo demokrazizko zaleen arteko atondukeran, errepublikano eta liberal, edo ta progresista eta unionistas taldeetan bananduta geratu ziran.

-Karlisten antolakuntzazko zirikitasun gogorrakaz, liberal eta errepublikanoen artean, zentzuzko gobernu bat atondu ezinik ibili ziran.

-Eta eleizak, liburu ta apain gauzatan euki ebezan aberastasunak, liburutegi ta erakus tokietan gorde gurean, eta abar.

1.869ko urtean errepublikanoen artean osotasunezko barritasun bat sortu naian, Errepublikaren alde egon ziran taldeen banaketak batu, eta leenengo oinkadak emon ziran, sozialismu edo gizartearen antolakuntzazko talde barri bat sortzeko.

Europa guztian bardin antzekoa izan zan egoera larri au, gogorrak izan ziralako aginduten ebezanak, menperatzailleen aldetik.

1.869ko urtean Urrillaren 4an Kabreratar Ramonek, naita oso gaisorik egon arren, baietza emon eutson VIIn Karloseri, onek antolatzaillezko erabagietan aurkeztu eutsoen, gudaloztearen orokorrezko agintaritza eroan egien, VIIn Karlos´en besteko neurri maillara igonda.

1.869ko urtean Azaroaren 7an Ingalaterrako Wentworth erritxotik, Kabreratar Ramonek, ostera baiestatzen dautso VIIn Karloseri, onek arduratu gura eutson agintaritzagaz.

1.869ko urtean Azaroaren 29an Iruñako liberalak, karlisten matxinadako azpi joko bat ezereztuten dabe, eta orokorrezko gudal nagusien kapitaiñak Allende Zalazartar Josek, bere aldarrikapenean esaten dautse erritarrai: "karlistak, Foruaren gora beran esaten ebezanak, kontu bat baiño ez zala izan, Foruak ez ziralako egon zemakuntzatuta"(1).

1.869ko urte inguru onetan, VIIn Karlosen benetako laguntzaille andiena, Bianako Nabarro ta Billosladatar Franzizko, euskaltzale sutsua izan zan.

1.869/1.870 urte onetan IXn Pio Aita Santuak, Batikanoko lenengo Eleiz Batzarra egin eban, siniskai edo ta oituraren gora beran berba egiten ebenean, Aita Santuaren "uts ezintasuna"(2) adierazteko.

1.870eko urtean Urtarrillaren 16an Madrillen, asteroko aldizkari bat sortu eben iru euskal lurralde eta Nafartarrai eskaiñita, "El Pais Vasco Nabarro" deitu eutsoenai.

1.870eko urtearen Otsaillan, Kabrera karlista gudal nagusiak VIIn Karloseri, euren artean egon ziran eztabadagaitik, gudal agintaritzaren uztziera aurkeztu eutson.

1.870eko urtean Jorraillaren 18an, VIIn Karlosek Kabreraren ezetza artu ebanean, Suizako Bebey errian, karlistaren orokorrezko batzarra egin eban, eta bera arduratu zan alderdiaren zuzendaritzagaz.

1.870eko urtean Epaillaren 31n Kabreratar Ramon Morellako kondeak, Wentworth´eko erritik oso nekatuz, euki eban gaisotasun ta egiten eban atsedenbako lanagaitik alde batetik.

-Bestetik, karlista gudal nagusien artean ez zalako egon bekaizkeria eta zelataritza baiño, Madrilltarrak ondo oartu zitezen euren artean gertatzen zanagaitik.

(1) Zemaitu, larderiatu, meatxatu, ukabillea jaso = amenazar. Zemankutzatuta = amenazados. (2) Uts-ezintasuna adierazteko = explicar la infalibilidad del papa.

-Eta gudaloztearen antolakuntzarako diru arloetan, bear zan iturria, ez zalako agertzen iñundik.

-Kabrerak, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutson VIIn Karloseri, eta onek, Suizako Bebey erritxoan karlistak batzar nagusian batuta, berak artu eban karlisten agintaritzazko ardura nagusi ori.

1.870eko urtean Loraillaren 9an Ebroko Mirandan, karlisten matxindutasunezko talde bat sortzen egoala jakin eben liberalak, eta auek, Uztaillaren askenean Oskabarte(1) ta Aroko erasoarekin atxilotu ebazan karlistak, ez ebazan askatu, arik eta Dagonillaren 16an parkamena agertu zan arte.

1.870eko urtean Loraillaren 13an Madoztar Paskualek, eskutitz bat bialdu eutson Esparterotar Baldomero gudal nagusi ta garaipenaren dukeari, espainitarren errege izan zedin.

1.870eko urtean Loraillaren 20an, Esparterotar Baldomerok beste eskutitz bategaz erantzun eutson esaten, beragaz ez zitezela gogoratu geiago, adiñ asko eukinez gain, oso gaisorik egoalako.

-Eta Esparterok beste eskutitz bategaz aolku au emon eutson, "Aostako I Amedeotar Saboyako dukea eta Italiako printzea artu egiela, espainiar erregetzaren aulkirako".

1.870eko urtean Bagillaren 25ean IIn Isabelek, bere ondorengo seme XIIn Alfonsoen eskuetan izten dauz espainitarren erregetzazko eskubide guztiak.

1.870eko urtean Uztaillaren 13an Bilbaon, *Bizkaiko Goi Ikastetxe Katolikoa* sortzen da.

1.870eko urtean Iraillaren 1ean espainitar gobernuak, gudaren egokitasuna aldarrikatzen dau.

1.870eko urtean Iraillaren 5ean Rada ta Diaztar Eustakio karlista nagusiak, Erdiugarte onen karlista guztiei matxinatzeko agindua emon eutsen.

1.870eko urtean Iraillaren 4an Aldundiko ertzaiñak: "antziñaren zaletasunezko, edo tradizionalistak eta liberalaren artean, gero ta amurratuagoak izan zirela euren arteko arazo ta erasoak, indar gitxirekin bakezteko" adierazi eben.

1.870eko urtearen Irailla ta Urrillako illaren artean, espainitar jaurkintzazkoak Prim buru zala, Hohenzollerntar Leopoldo alemanaren billa ibili ziran, "Hispano Prusiano" itun edo ongunde bat egiteko, bera aukeratu gura ebelako, espainitarren errege lez.

Eta denbora orretan Esparterotar Baldomero bere adiskideakaz, Ingalaterran 25 urtegaz ikasten egoala, Saboyatar Amadeo Aostako dukea aurkitzen ibili ziran, espainitarren errege izan zedin.

1.870eko urtean Urrillaren 10ean, on artu eban I Saboyako Amadeok, espainitarren errege izatea.

1.870eko urtean Urrillaren 19an, 16 urtegaz Ingalaterran ikasten egon zan Jenobako dukearen billa be ibili ziran, baiña ezerezean geratu ziran egin ebezan egipide guztiak.

1.870eko urtean Urrillaren 31n eldu zan espainitarren gortera, zelan onartu ebala I Amadeok, espainitarren errege izatea.

1.870eko urtean Azaroaren 3an Prim eta Prastar Juan espainitarren gobernuko lenengo ministruak, jaurlariko arduradunai jakin arazi eutsoen, berak, zelan eukela aurkituta erregea, espainitarren errege aulkian ezartzeko.

(1) Oskabarte = Nombre primitivo de Santo Domingo de la Calzada "en Euskera".

1.870eko urtean Azaroaren 16an egon ziran autespenak espainitar gortean, erregea aukeratzeko: I Amadeok, 191 autarki artuta; 60 autarki alkartasunezko errepublikeak(1); 27 Montpensierreko dukeak; Espartero zarrak 8; 2 batu zaleen errepublikeak(2); 2 Borbontar XIIn Alfonsok; 1 Errepublikako elkartearen jaurkintza bategaitik(3); eta 1, Montpensierreko Dukesa Maria Luisa Fernanda, IIn Isabelen aizta zanak.

1.870eko urtean Azaroaren 16an Esparterok, espainitar errege izateari emon eutson ezetzagaitik, Saboyako Amadeo aukeratu eben espainitarren errege lez.

Eta espainitarrak, IIn Isabel eta karlistak aurkezten eutsezan konponketari ezetza emon ondoren, karlistak aurka egiteko prest agertu ziran.

1.870eko urtean Azaroaren 19an espainitarren gortekoak, I Saboyatar Amadeo, Aostako dukea aukeratu eben errege lez.

XVIII-XIX- ta XXko gizaldi onetan argi ikusten dogu, orduko eta gaurko Europaren liberalak euki eben burubidea(4), Europako lurralde guztien giza, menperatasunezko leterritasunaren aberri katolikoan batzangotuta ezartzea zala, Europaren katoliko liberalen arteko laguntza, diru, ta gudarako bear ziran indarrak, erabagi orren serbitzura daukiezelako.

Europa edo ta Mundu osoa, katolikuaren erlijiozko aberrian batzangotzeko, laterritzea ezin lortu, eta aberri katoliko zatiketetan batzangotzeko, norkerizko zoraldi bardiña izan arren, espainitar liberalen laterritasunezko asmo-gogoak ikusi ta kontuan euki bear doguz, zelango jaurgo(5) edo ta jaurkintzagaz(6) lortu gura eben, argi ikusi dagigun, esku-joku ori.

-Samaraiño daukagun guzurrezko maltzurkeri edo kakanaste oneri, gure azterraldi bidetik, argitzeko zeaztuz, eta zentzunezko adierazpen bat emonda:

IVn gizaldian Erroma-godo menperatzaille eta merkatil'tar auek, Kristau eleiztarrakin, bereztasunezko legeak kontuan euki barik, eta asmatu eben, katolikotasunezko aberritar erlijioan batzangotzeko.

Jaungoikuak irasitako Ludi onen gai'a beti, aberasgarri edo mozkin-egille lez artu ta biurtu dabe, ostean, giza guztien kontrola eukiteko.

Orregaitik Norberkerizko geikerien alegiñekaz ibili bear izan dabe beti, euren atzerrizko erriak menperatzeko edo kolonizetako asmoan, lurrak emoten dauazan obari guztiakaz geratuz.

-Jaungoikuak bialduta, orretarako ote gara etorri, lur onetara ?.

-"Omosapiens garela esaten dabe jakintsu batzuk". Uste dot ez garela eldu mailla orretara oraindiño, "abereak erakusten dabenagaitik, EKANDUZ, gure aurretik doazela erakusten dauzkuelako". Guk, asmakeri orreikaz, gezurra irakatsi nai edo ziñeskintzatu(1) egin arren.

-Eta menpe edo euren kolonizaziozko alegiñetan, ibili bear daben jokoa jaun lez agertzeko: "Berezko atzerritar orreik daukien jendekuntzazko barnetik atara, eta eurak eroaten dabezan guzurrezko sasijendekuntza ori indarkeriz, sartu bear dabe euren buruetan".

Bai lurrak eukezan aberats mozkin ta baliozko gauzaren kontrola euki, atzerritar gizaren

(1) Alkartasunezko erepublikeak = Repùblica Federal. (2) Batu zaleen Errepublikeak = Repùblica Unitaria. (3) Errepublikako Alkarteen jaurkintza bategaitik = una repùblica sin definir. (4) Burubidea = decisión, resoluciòn. E idea que venia del año 325 en que se celebrò el concilio de Nicea. (5) Jaurgoaren = modo de gobierno. (6) Jaurkintza = gobierno, acciòn de gobernar.

kontrola eukiteko, eta lur aiek zaintzeko bear eben tresneri eta gudari gazteakaz, ostutako urre guztiak baiño geiago balio izan arren, atzerriko erritar orreik, zorigaitz edo ondore txar bateko menpean euki, eurak sasijainko lez agertu egiezan".

-"Bereztasunaren kanpoko aberastasun ori, ameskeri uts bat baiño besterik ez da, jaiotakoak daukaguzan ardurak, zor-eskubidearen Ekanduarenak diralako".

-"Legezko erregiña atzerriratuta eukinez gain, ondoriozko guda karlistarekin, eta gudal nagusiak ezarri gura eben batzangotasunezko jaurgo barri orren erasoakaz, Europatik asi ziran erregea aurkitzen, erdiugarte au, liberalen aberri katoliko orretan jaurkitzeko".

-"Euskalerri eta Kataluñaren lurraldeak, euren ametsezko kaisargo barruan euki gurean ibili dira beti, bereztasunezko erritarren eskubideak kontuan artu barik".

-Eurak, arrazoi bakarrekoak izan ba ziran lez, eta Erdiugarte au 1.823ko urte ezkeroztik, espainitar jaurkintza lez, euren jabetzazko erki gobernu(2) antzeko baten biurtu gurean ibili dira beti, Galicia, Kataluña, ta Euskalerriaren nortasunezko eskubideak ostonduteko.

-"1.839ko urtean Iraillaren 25ean, espainitar gudal nagusiak Bergaran, azpikerizko besarkada zikin baten ostean, Euskal Nortasunezko Izatasunari egin eutsoen lez.

-Eta aundiena, euren erritarrai mundu onetan esan leikezan guzur aundienakaz, eta bakezko egillearen itxuraz gaiñ, orduko Europaren fazizten ardatzagaz kide, eta guda indarka, Frankok egin eban gurutzada sakratu ta santuagaz, "Nacional Catolicismo" eritzian ezarri gura izan dabe beti, gure bereztasunaren askatasunezko demokraziak.

Gaur be aurrera egiten dauana, ameskerizko Erroma ta Godotar legeakin katoliko ta merkantilkeriaren batzangotasunean mundu au bideratzeko, or daukiezelako oraindiño bizi bizi lege orreik, indarrezko ekintzan eroaten dabezanak, ezerezko eten bage.

Orregaitik, guzur utsaren adierazpeneko aldarriketetan, eta gudaloztearen indarragaz eragozpidetuta daukiez peninsula onen lurraldean bizi diran, euskaldun, katalan, ta galiziarrak, euren Nortasunezko izatasunean daukiezan eskubideko arrazoiak zapalduz.

Zer geiago jakin edo ta ikusi gura dogu, gaur, 1643 urte geroago Europa ta Mundu osoan, aiek batu zaleen antolamenduzko erabagi txarrak artu ziran bidetik, katietuta agertzen garanean, antolakuntza orreik goitik bera "diru zaleentzat eginda egonez gaiñ, sasikatoliko jainkotasunaren serbitzura" IVn gizalditik eginda dagozenean ?.

Antolakuntza orreik ikusita, ez gara arritu bear, gaur diru arloetan zer sortzen danagaz, kopuru guztia esku gitxitan geratzen bada be, norkerizko asmakuntza orreik euren sasiko legeen arrazoikaz, lan bikaiñean erantzunda beteta agertzen diralako.

Bereztasundutako mundu Fisiko onetan, Egiñak, EGILLEA daukielako len, sortzen dira gauza oneik.

Sekula ez da sortuko maltzurrezko guzurrik, aurretiko oiñarriak egizkoak izaten ba dira, "EGIAK, EGIA BAKARRIK EKARRI LEIKELAKO".

Izadi edo Bizi onek daukan egi aundiena: "Fisiko´ki ta Jaungoikuaren Berezko lege bidean, gizatu ta baitazko azturan Jendekuntzatuta jaioten diran oldozmenak daukiela bakarrik "Aberri, Abertzale, edo Aberkoizko Izen-Buru orren Jabetza", baita Goiko Jaungoikuaren Lege Bidez, egiten diran, eta egin bear diran Gizaren Asmamenak.

Leenengoak: Eurak diralako jaioten diranak ezerezko asmamen barik.

(1) Guk, gezurra irakatsi edo ziñeskintzatu egin arren = aunque nosotros lo dogmaticemos las enseñanzas. (2) Erki gobernua = sistema de gobierno político que aspira a dividir el estado en cantones con cierta independencia.

Eta Bigarren: "Jaungoikuaren Lege bidez oldozmenduta dagozelako, Jendekuntzazko oituran egiten doguzan asmamen guzti orreik.

Zer egin ?.

Berezko Errigizartearen Eskubideak, ardura andiagoagaz elkarteko lanean ordezkatu, Jainkoak gu Gai-Ludi onetara bereztuta bialtzen gaitueneko, zor dautzagun egia dalako.

2. 20. *Saboyatar I Amadeo Aostako dukearen bizi kondaira laburra.*

1.845eko urtean Loraillaren 30ean Turiñen jaio zan, Aostako duke Saboyatar I Amadeo printze au.

Italiako IIn Bitor Manuel eta bere emazte Austriako Raniero artxidukearen alaba, Maria Adelaida Franzizkaren semea izan zan.

1.867ko urtean, 20 urte euki eban del Pozo de la Zisternatar Maria Biktoria printzeagaz ezkondu zan.

1.870eko urtean Abenduaren 4an espainiar gortekoak aukeratu eben errege lez.

1.872an Uztaillaren 18an gabaz bere emazteagaz doiala, bera ilteko eraso gogor bat euki eben Madrilleko Arenal kalean.

1.873ko urtean Otsaillaren 14an espainitarren gobernuan asko euki ebazan aurka, eta bertan itzi eban espainitar errege izateari.

1.890eko urtean il zan Saboyatar I Amadeo au Turiñen.

2. 21. *I Amadeo´ren erregetzak euki eban aurkaritza.*

Espainitar andikiak eta eleiztar-nagusiak, ez eben onartu I Amadeoren erregetza.

Leen, eurak ondo baiño obeto ibilita IIn Isabelen jaurkintz ganorabakoagaz, ez ebalako ontzat artzen 1.868ko iraultzak ezereztu eban IIn Isabelen erregetza, eta batera bildur ziralako, polítika barri orrekin euren erakundeak ezereztutea, Aberri katolikoen Laterri(1) ta jabetzaren aurkari ziran errepublika ta gizartekerizko politikari, jaurkintzazko ate guztiak zabaldu ondoren.

Eleiza ta andiki oneik, euren alegiñ guztiak IIn Isabel leiñuaren alde eginda, I Amadeoren aurka kokatu ziran.

Gertakizun aundienetariko bat, bur-estalkiren matxintasun(2) edo iraultza izan zan, Koloma´tar Luis apaizak idatzi ebana, "Txikartasunezko" liburutxoan(3).

2. 22. *Saboyako I Amadeo dukeak, emon ebazan lenengo pausoak espainitar erregetzan ezartzeko.*

Serrano gudal nagusiaren jaurbidea, eta "Adiskidetasunezko ongundearen" porrot edo uts egitea.

Prin jenerala il ebenetik, Topete almirantea saiatu zan, Prin bera il zorian egon zanean berari eskatuta, sortu eben "alkartezko" jaurkintza aurrera eroan egian.

(1) Aberri katolikuen Laterria = Estado y su confesionalidad con el nacional catolicismo. (2) Bur-estalkia = mantilla, toca. Revoluciòn de las mantillas. (3) "Txikartasunezko" liburua = la novela "Pequeñeces".

Eta I Amadeo era berdiñean, Serrano jeneral batu zalea, aurkeztu eutsoen gortekoari, ministru batzarraren lendakaria izateko, eta bai "alkartezko" gobernu bat irasi egian, 1.869ko konstituzioa ezarri ebenetik I Amadeo errege izendu arte, bera izan zalako erregearen ordezko ardurea eroan ebena.

Serranok, ondo bete eban espainitar I Amadeo erregeak agindu eutsona, barri sortu zan demokrazizko errege-zaleen talderako: Praxedes´tar Mateo "Sagasta"ren izenagaz ezagutu zana, aurrera zaleen aldetik, jaurpidearen ministeritzarako; eta Ruiz Zorrilla´tar Manuel, pizkortzearen(1) politikarako ipinteagaz. Bai ta Itsas-osterako, Kristino´tar Markos "Zinbrio", ta Lopez de Ayala´tar Abelardo batzango zaleak, aukeratu ziranakaz.

Leen egin ebena, erregetza barriaren lenengo auteskundeak, lurralde nagusien legean izan barik, erri-alde edo auzunaren(2) lege zarrarekin antolatzea zan, gobernua euren alde egokitzeko.

1.869ko konstituzioa sortu edo irasi ebenetik, lege orrekaz egin ebazalako auteskunde guztiak.

Alan lortu eben autarki geienak, naita alkar-zaleko errepublikanoak eta karlistak, diputadu asko lortu.

235eko ezar leku lortu ebazan gobernuko elkarteak; 130 aurrera-zaleenak; 80 batu zale, ta muga edo Aosta´tar aldekoak; 20 errege-demokrataren aldekoak; 52 errepublikanoak; 51 karlistak; eta 18 burudun edo zentzuzkoarenak; De los Rios eta Rosas´tar Antonioren aurkako eritzi berrikoak, Montpensier dukearen errege-naia zaintzen ebezanak, 7 autarki lortu eben; eta Kanobas del Kastillo´tar Antoniorenak, IIn Isabele´en seme XIIn Alfonsoren alde egon ziranak 9 autarki.

Serrano beren gobernu ta gorteagaz, 1.869ko konstituzioaren lege aginteak zabaldu bear izan ebazanean, "Eleiza ta Laterriaren baneketa" bezala, "gudarien lerrotzea" ezereztu, edo Kubako borroka eta ainbeste diru emoten eban gizakien joputza ezereztuteakaz(3), iskanbil asko sortu ebazan langille ta beargilleen artean(4).

Muga aldeko batu zale, eta Sagastatar aurrera zaleak, oldozten eben: 1.869ko konstituzioa orekatu ondoren, I Amadeo Saboyako leiñuagaz, jaurri maillan, iraun-arazle edo euslarien(5) politikea egin bear zala, lortu ziranari zurkaiztu edo eutsiteko.

Ruiz Zorrillaren aldekoak alderantziz, lortu zanari eutsiteko, bereala asi bear zala gizarteko, diru edo erri-aberaskiaren, eta politikazko arazoak eraberritzen.

Dana dala, eta baliteke eurak konturatu barik, artu ziran erabagi geienak, Erroma ta Godo´tar menperatzaille aberri katoliko batzangoaren alde artu zirala, eta or langilleen eskubide gain, berezko erritarren naigabe edo atsekabeak agertzen ziran, artu ziran neurri guztiak, giza ta errigizarte ezberdiñaren eskubideen gaiñetik ezarri ziralako. Gaur bertan sortzen jakun lez, tak edo ta arrasta bat kendu barik.

1.870eko urtean Abenduaren 4an Italiako gortekoak, on artu eben I Amadeo espainitar errege aulkian ezartzea.

1.870eko urtean Abenduaren 27an Martinez Pedragosa, eta Angulotar Jose Paulek, beste batzuen laguntzarekin, Prim eta Prats´tar Juan gudal nagusiaren aurka egin eben tentuzko(1)

(1) Pizkortzearen politikarako = Fomento. (2) Lurralde Nagusienak izan barik, Erri-alde edo auzunaren lege zarrarekin egiteko = Votaciones que en vez de realizarlas con las circunscripciones provinciales, realaizarlas con las antiguas leyes electorales de distritos. (3) Joputza ezereztu = abolición de esclavitud. (4) Langille eta bear-gilleen artean = fricciones entre obreros y jornaleros. (5) Iraunzale edo euslarien politika = que tenian que llevar una politica conservadora o sustentativa de lo logrado. (6) Tentuzko astakeriagaz = prudencial, hecho con tiento. Astakeria = animalada, asnada.

gaiztakeriagaz, Prim oso txarto zaurituta, lupuak(1) jota itzi eben, eta 30ean gabeko 9etan il zan, I Amadeo erregea Kartajenako itxas portura eldu zan egunean.

Espainitarren jaurri edo jaurpidea urte oneitan eta 1.936ko urterarte, erdiugarte onen errigizarteko jaurkintza, bereztasunezko legearen kanpo edo guzur aundi beten gaiñean ipini gura ebelako, konstituziozko guzur andi ori egistuteko ekintzan ezarrita, euren gauz eza erakutsiz gaiñ, zoroetxe baten biurtu eben gauza baiño besterik ez zan izan, gudal nagusi guztiak bata bestearen aurka, gudaloztearen keiñada edo meatxuarekin ibilten ziralako, aberkide katolikotasunaren aurka ta alde, ezer lortu ezinik.

Orregaitik antolatu eben orduko Europaren erlijiozko-guda au eztabaida onetan, eta Europaren ardatzak izan ziranakaz: Hitler, Mussolini, Batikanoko Eleiztar Katolikuak, eta Erdiugarte onen gudal nagusiekaz, Franko eta Molak bideratu eben "Gurutzadaren Sakratuzko guda, Aberri Katolikoen izenagaz".

Erdiugarte onen bereztasunaren jendekuntzazko eta benetan Goiko Jainkoaren Egi Bidetik egizko aberrien jabedunak diran Euskal, Katalan eta Galleguak bezela, gorri ta inpernuko diabru lez, ager-araziazota edo salatu ondoren, gero ezeren begirun barik tiros ilteko, gauza txarrak izan ba ziran lez.

Noren eskuetan ote dago "Urregaz-Zekortutako-Sasi-Jainko Ori ?.

*Eta ez dagiezala iñor guzurtu: "**Erdiugarte oneri espainitar izena ipinteko**, eurak egin daben guztia, demokrazizko egian egin dabela esaten dabenean, guzur utsa dalako". Egin daben guztia, gudalozte eta izkilluaren meatxuagaz egin dabelako beti, eta bada ez badan, 1.936ko katoliko aberkidearen sakratuzko gurutzadaren guda, eredu lez ipinita, ez gaitezan aaztu.*

1.870eko Abenduaren 30ean eldu zan Kartajenara Saboyatar I Amadeo Aostako dukea, eta egun berean gaueko 9etan il zan Prim eta Prast´tar Juan, espainitar gudal nagusia. I Amadeori esanda, zelan iru egun ariñago gaiztakeri(2) bat euki ondoren il zala.

1.871ko urtean Urtarrillaren 2an eldu zan Madrillera Saboyatar I Amadeo, espainitar erregetzazko zuzendaritza artzeko. Eta egun berean ziñ egin eutson 1.869ko konstituzioari.

Geroago Atotxako Amabirjiñaren eleizara joan zan, Prin´en gorputzari agurra emoteko.

Eta espainitarren politikazko eztabaida oneitan, Saboyatar I Amadeo aukeratuta euren erregea izan zedin, IIn Isabel eta beren loba Borbon ta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VIIn Karlos izenagaz ezagutuko zana aurkari agertu ziran, eta jaramonik ez eutsielako egiten, VIIn Karlosek indarrezko jazarraldiz, gud aurkeztu eutsoen, bere Borbon leiñuaren erregezko eskubideak barriz ezarri gurean.

Aurkari guztiak batu ziran I Amadeoren aurka, eta Kastelar ta Ripoll´tar Emiliok, I Amadeo erregea batzarrean egoala esan eutsoena, au izan zan: *"Eritzizko egoera onetan ikusten dogunagaitik, obe izando litzake espainitar erregetzatik alde egingo ba zenun, Hohenzollern-Sigmaringen´tar Leopoldo Beljikako erregeak espainitar errege izan bazan, egingo eban lez, ez badozu asken baragarri bat euki, Mexikon I Maximilinok euki eben antzera... ".*

1.870, 1.871ko urte oneitan, karlistak matxinatzeko alegiñetan ibili ziran beti, baiña

(1) Lupuak jota itxi eben = herido de muerte. Lupu, lupus = ponzoña, veneno. (2) Gaiztakeri bat = un atentado contra su vida.

antolamenduzko gorputzan beti agertzen ziran zeozeren utsaldi baten.

2. 23 (3) ***1.871ko urte onetan, Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiritar Sabinoren aitak, beren itsas ontziko lantegia zaintzen eban yagole etxean, Uribarritar Franzizko karlistaren gudal nagusia euki eban ostonduta, guda azten zanerako bere gudal taldeakaz arduratu zedin.***

Sabino denbora onetan, Errepublikako eskoletan asi zan bere lenengo ikasketarekin.

1.871ko urtean karlistak euren gobernurako egin ebezan auteskundetan: Nobia de Salzedotar Alejo, Aranatar Santiago, Oruetar Juan E., Garrotar Jose, Basozabaltar Juan, Ingunzatar Tomas ta Praderatar Gregorio, Aranatar Santiagoren garazkideagaz(1) batera, guda izkillu edo guda tresnaren eta erribabesaren batzar nagusiko kideak izendatu ebezan.

2. 24. *I Amadeoren aria ostera artuta.*

Arazo larregi euki ebazan, politika arloa aldakor edo alaberakoa zalako, adibidez: "Juan Prin´ek alkartu eban gobernua, bere il ostetik apurtu zalako; Serrano´tar Franzizko izan ezik, Liberalaren Batasunezkoak, Borboi´tar leiñuaren alde kokatu ziralako; aurrekoiak, Zorrillatar Ruizegaitik bideratuta; eta konstituzionalen Sagasta buru zala, eskubi-ertzekoen taldean biurtu ziralako.

Sei ministeritza aldatu ziran I Amadeoren urte biko-jaurri labur denboran, autapenetan gero ta andiagoa izanda euki eban utziera edo gabetasunezkoa.

1.871ko urtean Uztaillaren 15ean Zorrilla ta Ruiz´tar Manuelen leenengo gobernua sortu zan, I Amadeo erregeak ez ebelako beste aukerarik. Aurrekoiak ziran Martos, Zorrilla ta Ruiz´tar Manuel, Berenger eta Moret´ek eukezan ardurai uko egin eutsoenean, Serranogaz euki eben adiskideko gobernuagaz bakarrik geratzen zalako.

1.871eko urtean Urrillaren 5etik, Abenduko 21erarte iraun eban almirante ordearen aurreko almirante(2) Malkanpo´en gobernua.

Erregeak, Espartero´tar Baldomeroren ezetza artu ondoren, bera zarra zalako gobernua osotzeko, eta Zorrillak ez ebalako gura beren eritzitik urten nai, Sagastari eskatu eutson gobernuaren antolamendua, eta onek be, ez ebelako gura, Zorrillak oldoztu egian berari aurkaritzarik egiten eutsela, beste bat aukeratu egiala esan eutson, eta erregeak orduan, 1.868ko iraultzan Topetek euken gobernuaren kide arteko Malkanpori emon eutson ardura ori, denbora gitzi euki ebana, ezer egiteko.

1.871ko urtean Azillaren 10eko ingurutan "Erriarteko Langillearen Alkartea" apurtzeko alegiñean ibili ziran euren indar guztiagaz, eta urte onen gorteko auteskundeetan lortu eben ezereztutea, batzango zale, aurrerakoi "sagastinoak" ta karlistak, 192 autarki lortu ebenean, alkartuko errepublikanoak lortu eben 38ren aurka.

A ta guzti, "Erriarteko Langillearen Elkarte" ori, ez zan debekatu, Goiko Epaitegiaren salatariak(3), 1.869ko konstituzioak, baliatu edo babespetu egiten ba ebazan baltzu edo lagundi orreik, "Erriarteko Langillearen Elkarte" ori be legeztu egiten ebalako.

(1) Garazkideagaz = accionista, cointeresado. (2) Almirante ordearen aurreko almirante Malkanpo = contraalmirante Malcampo. Vicealmirante anterior al almirantazgo. Y anterior a vicealmirante = contraalmirante. (3) Goiko Epaitegiaren salatariak = fiscal del tribunal supremo.

Eta Erriarteko Langillearen Elkarte orrek bere zeregiñakin aurrera egin eban 1.872ko urtearen Jorraillan Kataluña, Andaluzia, Balentzia eta Murtziako esku-langilleak, orokorrezko langilleakaz, Zaragozako bigarren biltzarra egin eben arte. Gero Kordubako biltzarrean baieztu zana 1.872ko urtean Abenduaren 25etik, 1.873ko urtean Urtarrillako 3´en bitartean.

1.871ko urtean Abenduaren 21ean artu eban Sagastak aurrekoiezko gobernu ori, zati bitan laster apurtu zana: Praxedez´tar Mateo Sagastak bideratzen eban gordetzailleen "Liberal Batasuna", ta ori baiño aurrerakoi ziran gordetzailleen arloetan "Demokrazizko Aurrerakoiak" deitzen ziranak, Ruiz eta Zorrilla´tar Manuel´ek bideratzen ebana alde batetik, eta bestetik, "Sustraiko alderdi(1)" edo errege aldeko Demokrazizko Monarkikoak "Zinbrio" edo deituz, Martos´tar Kristino eta Maria Ribero´tar Nikolasek bideratzen ebana.

Amaika alegiñ egin ebazan, danak baiña, ezerezean geratu ziran.

1.872ko urtean Uztaillaren 19an I Amadeok, gaiztakeri bat euki eban bere aurka, eta berba auek esan ebazan aukera orretan: *"Ezer ez dot aituten", au baiña, "Kirkir edo txirritegi baten antzekoa da"*(2).

Gauzak, gero ta okerragoak biurtu ziran Karlisten irugarren borroka eta Kubako 10 urteko borrokeagaz.

Eta jazar edo etsaitasun orreitan, 1.872ko urtean asten da irugarreneko karlisten guda.

1.873ko urte asieran gaiñera, euren artean egon ziran eztabaidagaitik, Jaurkintzaren elkartea banandu egin zan, itxura orregaz aurkeztuta euki ebazan autespenetan.

Eta opil-garratz orren gaiñ ipini zan ginda, Zorrilla´tar Ruizek aukeratu eban, kañoidun taldeakin euki eban eztabaidakaz, ezereztu gura ebalako kañoilarien taldea, bere ardurazko zeregiñak itzi edo ukatukoen keiñadagaz.

Eta guzti au ikusita, gudalozteen agintariak I Amadeori eskatu eutsoen, *"gorteak albora itzita, Nagusikeriz jaurritu egiala espainitarren erregetza"*.

2. 25. *Erregeak, ertzerakoiezkoakin euki eban estutasuna.*

1.873ko urtean Urtarrillaren 29an I Amadeo erregeak, bere emaztearen aurgintza oso gogorra zalako eta egun bat atzeratu ebelako bere ondorengo semeen bataio edo izena ezartzea, ondo jantzita eta ainbeste denboran zutik egon ziran gobernukoak, narda antzeko baten sartuta, txartxat artu edo, ertzerakoiezko-geikerizkoak erregeagaz eztabaidakatzeko, asarre antzeko bat asmatu eben, erregeak gobernuko agintariak kendu gura ebazalakoen aitzakiagaz, konstituzioaren zaleak ipinteko alegiñean.

Bide orretatik iraunda, gobernuko ertzerazkoiak jakin eben, erregea, Serrano gudal agintari nagusiagaz alkartu edo egon zala jauretxean, au, bere semearen bataiora joan zediñ.

Erregeak baiña, bere konstituziozko talde agintariakaz egonda, ta jakinda zer gertatzen zan, Serranori egin eutson deia, eukan gaisoa ezereztu ebalakoen aitzakiagaz, eta aurkariari bildur euki eutsolakoen surmurrezko asmo orreik itxur-gabetzeko, gorteen ardurazkoak etenbageko kidetasun edo egokitasunezko(3) batzarraldian batu dagiezan erabagi eben.

Gobernuak egin eban ariñezko agerkereagaz bakarrik, geratu al ebana.

Gortekoak baiña, jakin-arazi eban, eurak guztiz jakitun egon zirala errege semearen

(1) Sustraiko Alberdi = partido radical. (2) Kirkir edo txirritegi baten antzekoa da = màs parecido a una jaula de grillos. (3) Kidetasun edo egokitasunezko batzarraldian batu zitezen = que se reunieran en convenciòn de sesiòn permanente.

jaiotzagaz, eta ezeren itzaldi ta solasaldibage ospatu zan, errege-seme orren agerkera.

Erregeak, Zorrilla´tar Ruizeri, berak gerta zan guztiagaitik euken atsekabetasunezko egoera aurkeztuta: "ez ebala artuko iñoren menpekotasunik, ta gertu egoala bere aolkuzko baitan, agertzen ziran gauza guztien gora berarako" esan eutson.

1.873ko urtean Otsaillaren 10ean aurkeztu eban I Amadeok bere agiri-uztea espainitarren gortean.

Madriltarren esanetan ziurtatzen dana baiña: 1.873ko urtean Otsaillaren 11ko eguerdian esan eutsoela I Amadeo erregeari, "erregetza utzi bear ebela", eta bazkaria eskatuta eukelako Fornoseko Kafetegian, eskatuta eukena ez atarateko agindu ostean, *Grappa* eskatu ebala ariñezko gauzea jatearren, eta bere sendi edo etxeakoak batu ondoren, yeregin edo uko egin eutson bere erregezko zeregiñari, Italiako arduradunen ordezkaritzan babespetuta.

Eta bere espainitarren errege legezko amaiera aurkezteko, eskutitz bat idatzi eban, bere emazteak irakurri eutsena espainitar ordezkoari. Bere luzeragaitik ez dodana argitzen.

1.873ko urtean Otsaillaren 11 orretan, Zorrilla´tar Ruizek egin ebazan alegiñak, erregea ostera itzuli egian bere zeregiñetara, alperrezkoak ziran, Errepublikatarren arteko alkarte batek, ontzat artu ebalako I Amadeoren uztea. Eta bertan aldarrikatu edo oiztatu zan espainitarren Igo Errepublikea.

Au izan zan espainitarrek egin eben leenengo saioa *Konstituzioaren biltzarrezko-errege* ipinteko, edo *Demokraziazko-erregetza,* bere osteko denboratan esan jakon lez.

3. 26. (4) ***Sabinoren leen ikasketak.***

Sabinok, bere ikasketak Abandon bertan asi arren, 1.873ko urtean, 8 urte euki ebala, Lapurdiko euskal lurraldeetan, eta Donibane Loitzunaren kantonamenduko Getari erritxora joan zan bere ama ta anai bigaz, aita aurretik Ingalaterra aldera karlisten gudarako izkillu ta bear ziran tresneriak erostera joanda, bera Laburdiko euskal Iparrean atzerrituta egon zan lekuan, ostera agertzen zanean beragaz aurkitzeko.

1.873-1.874ko urtetan, Baionan bete zituzen urte onen arteko ikasketak.

1.875-76 urte arteko denboran barriz, Donibane Loitzunenko ikasketak osotu, azken azterketak, Ondarribin osotuaz.

2. 27. *Ostera edestiaren ariari ebatuta:*

1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, 258ko autarki, 32 autarkiren aurka irabazita, 1.874ko urtearen Urtarrillako 3an Pabia gudal nagusiak laterrizko matxinada egin arte iraun ebena, eta Abenduaren 29an Kanpos´tar Martinezek, Borboien erregetza berrezkuratzeko agindua emon eban arte.

Zortzi jaurbide aldatu ziran: 1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, 1.874ko urtean Urtarrillaren 3rarte, bost jaurbide aldatuz. Eta 1.874ko urtean Urtarrillaren 4ko egunetik, 1.874ko urtean Abenduaren 29rarte beste iru aldatuta.

1.874ko urtean Urtarrillaren 3ko egunerarte, Pabiatarrak matxinatu ziran bitartean, lau lendakari aldatu ziran, leenengo elkartasunezko errepublika labur orretan: leena, Serrano gudal nagusiaren agindupean, konstituzionalen alderdiko buru zana, eta iru gauza onengaitik

porrot egin ebana: "irugarren karlistaren guda", "erki-zaleen(1) matxintasuna", eta "Kuban sortu zan 10 urteko gudagaitik". Kanpos´tar Martinezek Sagunton egin eben aldarriketagaz amaituta.

Gero 1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, Bagillaren 11karaiño Figeras´tar Estanislao´ren jaurkintzazko lendakaritzara aldatuz.

1.873ko urtean Bagillaren 1ean "Elkartasunezko Errepublikaren Aldarrikapena", eta Figeras´tar Estanislaoren iges edo ies-egitea.

Pi ta Margall´tar Franzizko´ren, Errepublikako 2garren lendakaritza, bere jaurkintzazko egitarauagaz ezagutu zan: "Karlisten guda amaitu", "Eleiza ta Laterrien arteko berezketa", eta "Gizaren joputza ta menpekotasunak ezereztuteagaz", 1.873ko urtean Bagillaren 11tik, Uztaillaren 18rarte iraun ebena.

Erki-zaleen matxintasuna eta Pi ta Margal´tar Franzizkoren utziera.

1.873ko urtean Salmeron´tar Nikolasen jaurkintza eta erki-zaleei egin eutson ertsaldi edo atxikidura(2). Uztaillaren 18tik, Iraillaren 7raiño iraun ebena.

1.873ko urtean Kastelar´tar Emilio´ren jaurkintzazko lendakaritza, Iraillaren 3tik, 1.874ko urtean Urtarrillaren 3rarte.

Eta 1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabia gudal nagusiak egin eban Laterrizko matxintasuna.



Borbon ta Austria-Este´tar Karlos Maria.
VIIn Karlos´en izenakin ezagutu zana.

1.848ko urtean Epaillaren 30ean, Vn Karlosen birseme, Madrilleko duke ta Dikastilloko kondea, VIIn Karlos onek: len Austria antziñeko Lenbatx, gaur Yugoslabiako Liubliana Uri zoriontsuan jaio zan.

2. 28. *VIIn Karlos erregenai onen bizi kondaira.*

Beren gurasoak: Borbon ta Braganzatar Juan, eta Ekialdeko Austriatar Beatrizen semea izan zan.

(1) Erki zaleen = comarca, regiòn, pais, provincia. (2) Ertsaldi edo atxikidura = represiòn.

1.859ko urtean: Italiako gudaltegi baten lerrokatu zan kañodun taldeko kapitain ordezko edo teniente maillagaz.

1.864ko urtean, Bere aita Juanek: naita espainiarren erregetzari uzkundea egin arren, bere amama Beirako erregearen alabea izan zanak, 1.864an agiri bat argitaratu eban bere billobaren alde, "Carta a los españoles", Juan bere aitak 1.868rarte ez ebena onartu.

1.867ko urtean Otsaillaren 4an: Biena inguruko Frohsdrffeko Urian, Borbon ta Parmatar Margarita Parmako dukearen alabeagaz ezkondu zan.

1.868ko urtean Iraillaren 7an Grazt Urian, bere lenengo alaba "Blanca de Castilla" jaio jakon.

1.868ko urtean Urrillaren 3an bere aitak IIIn Juan liberal eritzikoa zalako, eta karlisten leiñuzko eskubideak ukatzen ebazalako, askenean VIIn Karlosen eskuetan itzi ebazan, espainiarren errege izateko euki ebezan eskubide guztiak.

1.869eko urtean Bagillaren 3an, 1.868ko urtean espainiarren gizarteko gudatik(1) berentzat onura atara gurean, karlistaren aldeko agiri bat aldarrikatu edo zabaldu eban, denbora onetan berak Madrilleko dukearen izena artuta.

1.870eko urtean Jorrailaren 18an, VIn Karlos bere osabaren karlista eskubidea eskuratu, eta karlisten gobernuko zuzendaritza artu eban.

1.870eko urtean Bagillaren 27an Suizako Bebey urian, bere bigarren seme IIIn Jaime jaio zan, bere aitaren ondorengo eskubidekoa izanda.

1.871ko Uztaillaren 28an Jinebran, bere irugarren alaba Elbira jaio zan.

1.872ko urtean Loraillaren 2an Auñamendiak igaro ta Larruneko Egoaldean *Txapatar Karlos'*en baserrian lo eginda, Beratik sartu zan garaitsuki Nafarroara, sasigudan ibili ziran 1.500 gudari txarto izkillotutako taldearen zuzendaritza berak eroateko.

1.874ko urtean Epaillaren 21ean Frantziako Pau Urian, bere laugarren alaba Beatriz jaio zan.

1.876ko urtean Otsailaren 27an, gudako ekintzan alfonsinoak menperatuta, ostera igaro bear izan ebazan Auñamendiak, Frantziko lurraldeetara iges egiteko.

1.876ko urtean Bagillaren 29an Frantziako Pau Urian, bere bostgarren alaba Alizia jaio zan.

1.880ko urtean, espainitarrak euren zentzuzko jaurgoa lortu ebenean alde batetik, eta bestetik, Kanobasen politikagaz apur apurka, bere politikaren oiñarrizko zentzuan azpiratuten edo menderatuta geratzen asi zalako, VIIn Karlos frantzitik be, alde egin bear izan eban.

1.893ko urtean Urtarrillaren 21ean, Biareggion il jakon bere emazte Margarita.

1.894ko urtean Joraillaren 28an Pragan, Rohaneko Urian bigarrenez, Mª Bertagaz ezkondu zan.

1.900ko urtean, ostera alegintzen da Badalonan beste iraultzaren ekintza bategaz.

1.909ko urtean Uztaillaren 18an, Italiako Barese urian il zan VIIn Karlos, 61 urte euki ebazala. Beren erregetzazko naikundeak, bere seme Borbon eta Parmatar IIIn Jaime Txalbeteko dukeak eskuratuta.

2. 29. *1.872ko matxintasuna.*

(1) Espainiarren gizarteko guda oneri, la "gloriosa" esan eutsoen.

1.872ko urtean Jorraillaren 2an egin ziran auteskundetan, espainitar jaurlaritzaren gobernuko ministruak euren norkeriaren maltzur naikeriagaz liberalaren alde geiegi ibili ebena, euskaldunak ostera artegatu ziran, eta ixil jokoaren sasigudak antolatzen asi ziran.

Ez zan arritzekoa euskaldunen asarrea, auteskunde orreitan ministruaren maltzurrezko eragintasunagaitik, ainbat ilda egon ziran gizonak, bozka edo autarkia emon ebalako.

Espainitar gorte orreri "Lazaroen" gorteko izena ipini eutsoen.

Euskaldunak ariñautik jakin eben ministru orreik, norkerizko maltzurkeriaren jokoagaz zer gura eben, 79 ordezkaritik 10 edo 12 bakarrik joan ziralako.

Karlistak, ille orretan amaitu ebezan matxintasunaren prestakuntzak.

1.872ko urtean Jorraillaren 8an VIIn Karlosen idazkari Arjonatar Emiliok, oldoztu edo asmatu ebazan matxinadaren arauzko aginduak emon ebazan:

a) Jerona, Figeras, Seoko Urjel, eta Iruñako gudaltegietan orokorrezko matxintasuna.

b) Denbora bardin orreitan, Bilbao erasotu.

d) Euskalerriko lau lurralde, eta Kataluñako lau lurraldearen orokorrezko matxintasuna.

e) Donosti, inguratuko erasoan ezarri.

Eta Euskalerriaren lurraldeko agintaritzan, Nafarroa be kontuan artuta, Diaz de Radatar Eustakio, gudal nugusitasunezko arduratan ipintea.

1.872ko urtean Jorraillaren 15ean VIIn Karlosek Jinebratik, Nafarroa, Aragoi, eta Kataluñaren mugako agintaritzan egon zan Diaz de Rada gudal nagusiari agindu au emon eutson: Jorraillaren 21eko egunean, espainitarren lurralde guztian matxinatu zitezela aldarrikapen onegaz, "Abajo el Extranjero" "Viva España" eta "Dios, Patria y Rey" karlistaren ikurragaz.

1.872ko urtean Jorrailaren 21ean espainitar liberalak be, gudaren aldarrikapena sortuz.

2. 30. (5) *Sabino´ren bizitza artuta.*

1.872ko urtean, Arana ta Goiritar Sabino 7 urte euki ebazala, Errepublikako etxean egon ziran Abandoko Udalaren mutil neskaren eskoletako batean, asi ebazan bere ikasketak.

1.872ko urtean Jorraillaren 21ean Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiriar Sabinoren aita izan zanak, aurregunean sendia agurtuta, eta iges egiten atzerrira joan bear izan bazan lez, lenengo Sukarrieta eta gero Mundakara joan zan ostonduten, lurralde ori jakinda, Goiriena Josu lagun apaiza euskal abertzalea, eta berak aginduten eban taldearengaitik kontrolatuta egoala.

2. 31. *1.872ko matxintasunaren aria ostera berrezkuratuz.*

1.872ko urtean Jorraillaren 21erako gertatu zan matxintasuna baiño ariñago, VIIn Karlosek Europako kantzillergokoari mezu au bialtzea erabagi eban, bertan esanda: "berak ezin ebala norkerizko guzur, maltzur, eta legegabekeri geiago onartu, auteskundeetan egiz aukeratuak ziranak, gorteko aulkietan ezarri zitezen".

1.872ko urtean Jorraillaren 21eko egun orreitan, Radatar Eustakio karlistaren gudal nagusia, Beratik sartu zan Nafarroara.

Ollotar Nikolas, matxinada onetan indartsuena izango zanak, Etxaurin eunbat gazte batu ebazan, VIIn Karlos, errege lez aldarrikatuz.

Karasatar Fulgenziok, Nafarroako Iguzkitzaren ibarrean, eta Jurramendi mendiaren ondoan dagoeneko Morentin errian, bardiñ egiten dau 1.000 gazteekin.

Nafarroako matxinada osotzeko ibili ziranen artean, Zunzarren, Perula ta Miranda izan ziran.

Bizkaian: Abadiño, Arratia, Markina, Gernika, Bilbao, Enkarterria, Mungia, Berriatua, eta Ondarroan, askeneko erri au Udaleko alkatearen aginduan egon zana, matxinatuta egon ziran erriko gazteakaz, eta gero jende geiagorekin indar orreik andiagotuta, Bizkaia izan zan lau euskal lurraldetatik, Euskal Foru edo "Lege Zaarraren" sinismenakin bere baitan ardura aundienean agertu zana.

Begitu bestela, zelango alegiñakin ibili ziran dirua euki eben Bizkaitarrak, Sabino Aranaren aita Aranatar Santiago bezala, bere itsas ontziak VIIn Karlosen agindutara ipiniz gain, bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu izkilluak erosteko.

Eta gaiñera tresneri orreik ekarten arduratu, karlisten gazteak izkilluz tresnatzeko.

Araban: Kareagatar Ezekiel, Kalle, eta Martinez de Belasko, Aldundiko miñoiak eta bidekariakin batera, euki eben tresneri guztiakaz aldatu ziran karlisten aldera.

Gipuzkoako Ataunen: Rekondo matxinatuen buru zanak, 800 gizon inguru bategaz osotu eban gudu talde bat, Dorronsorotar Migel politikari karlista eta Santa kurtz´tar Manuel apaiza artean zirala.

Ordizian: Ayastuyren agintaritzan, eta Zaldibia ta Lazkaoko apaizakaz lagun zala, 400 gizonezko talde bat atondu zan.

Azpeitian: Amilibiaren taldea, Izarraitz menditik asi zan sasigudan 500 gizonekin.

Eta Saboiatar Amadeo, espainitar errege barria izan zanagaz, bakean egon ba ziran peninsula onen lurraldeak, Kataluñakoak izan ezik, karlistek, espainitar lurraldeentzako atondu eban egitarauari, iñork ez eutsolako jaramon eginik, izan zan.

Karlistak egin eben egitarauzko burupidetik, ez ziralako matxinatu agindu ziran Aragon, Balentzia, Guadalajara, Kuenka eta Andaluziaren gudaltegiak, txinparta makal batzukaz izan ezik, asi ziran.

Baiña alderantziz Fernandez ta Almagrotar Meltxorrek esan eban lez, Foru Legezko errien erritarrak emon ebela garrantzizko erantzun aundi ta ederrena karlistaren alde, euren askatasunezko Foru Legeak ardura andiz berrezkuratu gura ebazalako.

1.872ko urtean Jorraillaren 22an Basozabalek, Urkiolan euki eben gudaren lenengo borroka, euren 30 guardia zibillaren taldeagaz liberalaren aurka, astintasun ederra artuta.

1.872ko urtean Jorraillaren 22an Bilbaon: Laguntzaillearen gudal talde bat antolatzen da, lenengo edo 1.832-1.839ren artean egin zan, zazpi urteko gudaren gizonakin.

1.872ko urtean Jorraillaren 23 ta 24ko egunetan, karlista gazteen lenengo garaipenean, Gueñeseko Kuebillasen taldeak, 23 erriko-mutillak(1) menperatu ebazan.

Nafarroan, Lizarra ta Tafallako erri aldetik joanda, Abarzuzako erritxoan batuta egon ziran 2.500 gudariak, Amadeo erregearen gudalozteari, Arizalararte atzeratuazo eutsoen.

Askenean, VIIn Karlosek, garaipenak lortzeko euki eban artegatasunean, beragaz batera gudariak izkilluakaz tresnatzeko, amaiezko ezean aurkezten zan lez, baldintza orreik izando

(1) Erriko-mutillak = para los españoles la guardia civil. Euskaldunentzat = Ertzaiñak, edo Udalekoak izaten ba dira, Udalzaiñak.

ziran lardazkatu edo lorrindu egingo ebezanak, karlistak, Nafarroako lurraldeetan lortzen ebazan garaipen txiki orreik zaindu edo eutsiteko, baita ondoren Euskalerri osoan.

1.872ko urtean Jorraillaren 27an, Diaz de Radatar Eustakio karlistaren gudal nagusiak, kontuan eukiten ebalako VIIn Karlosen egoera, eskutitz bat idatzi eutson: "Auñamendiak ez egiazala aldatu peninsulan sartzeko" esaten eutsona.

1.872ko urtean Loraillaren 1erako Uribarritar Franzizko karlistaren gudal nagusiak, denbora gitxian, 400 guda mutilleko 7 talde sort arazi ebazan, Gernikan egon ziranak, Guda Aldundia irasteko.

1.872ko urtean Loraillaren 1eko inguruetan, Diaz de Rada bera, ibili zan zai, eta beren gudalozteakaz begira Mendebaleko Auñamendietatik, ia VIIn Karlosek Auñamendiko mendiak aldatzen ba ebazan.

1.872ko urtean Lorailaren 1ean VIIn Karlosek baiña: Auñamendiak igaro ta Larruneko Ego aldean *"Txapatar Karlos"*en baserrian lo egin eban.

1.872ko urtean Loraillaren 2an, Beratik sartu zan VIIn Karlos garaitsuki Nafarroara, 1.500 gudari txarto jantzi ta izkillotutako sasigudan ibili ziran taldearen zuzendaritza bere agindupean artzeko, eta agiri bat zabaldu eban euskal ta espainitar jendeari esaten, bera euren artean egongo zala borroka ori irabazteko.

Eta 1.872ko urtean Loraillaen 2an asten dira espainiar liberal gudalozteak, Lesaka, Artikutza, eta Labaieneko mendietatik karlistaren aurka, eraso amorratu baten.

1.872ko urtean Loraillaren 4an Morionesen liberal guda indarrak, ustekabean arrapatu ebazan izkillu ta araubide barik guztiz nekatuta egon ziran karlisten gudariak, Orokieta eta bere inguruetan edozein modutara ibili ziranak.

VIIn Karlos bera be, larritasun aundiagaz iges egin bear izanda, Ultzamatik Kinto Realera igarotzeko, eta Loraillaren 5ean Frantziko lurraldetan sartzeko.

Borroka onetan, 700 gudari karlistatik gora atxilotu, 38 il eta 49 itsas ostera atzerritu ondoren, espainiar liberalaren Gortekoak, Moriones gudal nagusia, jeneralaren ordezko eta Orokietako markes izenagaz dotoretuz, ondo jantzi eben.

Nafarroako matxinadaren lenengo porrota, eta bereala Arabakoa gertatu zanean, Karasa ta Perula liberalen gudal nagusiak, Aranako San Bizenteraiño sartu ziran.

Eta zentzun orretan porrokatuta, edo azken gaizto orretan amaitu zan Nafarroan lenengo matxintasuna.

Ortik denbora gitxi barru Arabako lurraldean, Perusa ta Karasa karlista gudal nagusiak, Aranako San Bizenteraiño sartu ziran.

Eta izendun aundiak izan ziralako, Dorronsorotar Migel, Santa Kurtz apaiza, Lizarragatar Antonio, eta Dorregarairen bizi kondairak aurkeztuko dautsuedaz.

2. 32. ***Dorronsorotar Migelen bizi kondaira laburra:***

Ataunen, 1.812ko urtean jaio zan Gipuzkoako euskal politikari karlista entzutetsu au, eta Oñatin bete ebazan bere zuzenbiderako ikasketak.

1.854-56-62-1.864ko urteetan izan zan Gipuzkoako Aldundiaren ordezkaria.

1.873ko urtean Oiartzunen, itzaldi aipagarria emon eutsen gipuztarrai.

1.862ko urtean "San Martin de la Ascensiòn con Martin Loinaz"en liburua argitaratu eban.

1.896ko urtean, "Amunabarro" Beasaingo semearen liburua.

Eta berea da, "Lo que fueron los reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los fueros de Gipuzkoa" izeneko idazlana.

2. 33. *Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira:*

1.842ko urtean Epaillaren 23an jaio zan Santa Kurtz eta Loiditar Manuel Inazio apaiza, Gipuzkoako Leizaran ibaiaren ondoan dauan, Elduayen errixkako sendi apal baten.

Oso gazte zala umezurtz geratuta, bere osaba Sasiain eta Santa Kurtz´tar Patxi lekaideak artu eban bere ardurapean, lenengo latin eta Gizatasunaren ikasketak berak emonda.

Gazteizeko apaizgaitegian sartu zan gero, eta ikasketaren azterraldietan, azter-agiri aundienak ataraten ebazan ikasgai guztietan.

1.866ko urtean apaiztu zan, eta urte bi geroago, Tolosaren urbil dagoan Ernialdeko parrokian ipini eben zuzendari.

Denbora orreik, bigarrengo karlistadaren antolakuntzazko denborak ziran, eta berak ez eban ostondu karlisten aldekoa zala, karlista gudariak izkillutzeko, berak izkilluaren mugausteko lanetan ibilita(1).

1.870eko neguan edo udazkenean, bera Ernialden goizetik, Meza Santua emoten egoala agertu jakozan espainiarren gudariak atxilotzen, eta Meza Santua amaitu ebanean, gudari orreik maitakortasun edo begiramen aundienean artu ondoren, eurekaz joan baiño len gosari txiki bat artzea eskatu eutsen.

Eta gudariak kanpoko atean ezarrita itxaroten egon ziran bitartean, berak gosaldu barik, bere abade jantziak erantzi, baserritarrenak jantzi, eta eleizgelako leiotik iges egin eban.

1.872ko urtean, berak 30 urte euki ebala asi zan basa gerlariko lanetan.

-Lenengo, Gipuzkoako karlista gudarien kapellau. Eta alango borroka baten, karlisten guda indar orreik porrokatuta, Segura erritik alde eginda, iges egiten egon ziranean mendi barrenetik, Santa Kurtz apaizak, liberalen gudu indarrak zirikatzen ibili zan Segurako erria ostera berrezkuratzeko.

-Karlisten gudal nagusiak, zentzugabekeri bat lez artzen ebazan Santa Kurtz apaizak egiten ebazanak.

-Ekaiñan baiña, bera saminduta egoan espainitarrakin bere arreba il ebelako(2), eta Azkoitiko odol aitorle edo martirien tokian 24 karlista gudari gazte ta bioztsuakin topo eginda, eta eurak bideratzeko eskatu eutsoenean, basa gudan asi zan, talde orren buru zala.

Ille bi beranduago, beren belarrira eldu zan, Arrasateko bidetik, gudal jarraigo edo suburdi luze bat, izkillu, eurentzako tiroiñak, eta aldean eroateko larruzko tiroin ontziz beterik joan zala.

Sarearte edo zelata bat antolatuta, gudal jarraigo aberats ori, oso osoan arrapatu eban, eta bereala ostondu ziran mendietatik Aramaxora lepoan eroanda, laguntzen joan ziran liberal gudariak agertu baiño len.

(1) Mugausteko lanetan = trabajo de contrabandista. (2) Beren borrokako zaletasuna, Liberalak, beren arreba tiros il ebelako izan zala ?. Ez da egia ori, ariñautik arduratuta egon zalako.

Izkilluak aztertzen ibili ziranean baiña, izkillu batek tiro eginda, gazte bateri eskuan zauritu eutson, eta Santa Kurtz berak baserri ezagun batera eroan eban zauritu ori osagille batek sendatu egian, eta ostera itzultzen egoala, liberal gudari batzuekaz topo eginda atxilotu eban.

Aramayonako Udalaren espetxean sartu eben ainbat salaketakaz leporatuta, urrengo goizean tiroz iltzeko asmoz, baiña jatekoak egotzi edo motxalak botateko ainbat bider goranai alegiñean, txarto egoala itxura aundiak emonda, gabaz botaka egin eban batean balkoiaren sapailotik beren lepoko estalkia lotuta, urrengo botaka egin ebenean eskegita egoan lepo estalkitik beratu ta igez egin eban, eta bertoko errekan guztiz sartuta agoa eta sudurra ezin ezik arnasa artzeko, bere billa joan ziran guariak ez eben aurkitu.

-Denborak aurrera doazela, lenengo ekitaldearen porrotari begituta, karlistak ostera gura eben, galdu ebezanak berrezkuratu, eta Zornotza edo Amorebietako elkargo edo egiunegaz amaitu zan.

1.872ko urtean Loraillaren 24an siñatu zan egiune au, VIIn Karlos eta karlistaren gudal nagusiakaz Santa Kurtz apaiza artean egoala, eta auek ez ebelako sinatu gura antolatu zan elkargoa, Aldundiko ordezkariak bakarrik sinatu eben.

1.872ko urtean Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen Gipuzkoako lurraldean.

-Santa Kurtzen irudi ingurua, ospe ta surmur aundiko entzuera asi zan artzen, bere taldeagaz liberalaren aurka, iñork igerri barik, ostondu, agertu, iges eta sasigudan lortu ta egiten ebazanak, danentzat gauargi, zomorro edo ta kilimarroen gauzak izaten ziralako.

Beren borrokaren zaletasuna, liberalak beren arreba tiros il ebelako saminduta izan zala ? Ez da egia ori, ariñautik arduratuta egon zalako.

-Eta berak ikusten ebenean bere taldeko mutillak atseden bat bear ebela, uste osoko errietara eroaten ebazan, jan eta geldialdi orregaz mutillaren buruak argitu ta indartu eigiezen.

-Bere soiñeko jantziak, txamarra ta barneko motx(1) baltzak, berna erdiko urdinabar praka illunak, zangozorro edo galtzerdi motz abarketakin, saman zapia eta buruan txapela baltzagaz ibilten zan.

-Sekula tiro bat ez ebala jaurti esaten dabe, naita berak 500 edo 600 guda mutillaren aginduan ibili.

-Beren izkillu bakarrak, makilla bat, ibiltzeko asko laguntzen eutsona, apaizaren otoi egiteko liburua, eta berak agintzen ebazan mutillak, beragaitik euki eben sinismena ta arritasun itsuak ziran.

-Berak antolatutako gudaren erestalde guztia, txistua ta tanboliña izan ziran, errietan sartzen ziranean eta mendietatik ibilten ziranean, berak atsegintasunean euki eban Oriamendiko abestiaren doiñuagaz alai ibilteko.

Berak, basagerlari lez ibili zan bederatzi illabete inguruetan, oge baten, sekula lo egin barik, bere gorputza beti longaiña edo jantzigaiñekoagaz bilduta, zelaian lo egiten eban, eta askotan jarleku baten ezarrita arri astun bat eskuetan eukiten ebala, loak artzen ebenean eta arria eskuetatik zelaira jausi, itzartu egian.

(1) Barneko motx = chaleco.

-Bere zuzentasuna lar gogorra izanda, ez eban edaten ardorik, ez eta kebelarrik erre, taldean ezin zan ernegurik egin, ez berba txarrik esan, eta errietara joaten ziranean, bere gazteak ezin eben neskatillakaz jantzan eta gitxiago txantxetan ibili.

2. 34. (6) *Arana ta Goiri´tar Sabino:*

Arana ta Goiri´tar Sabino bere ama eta anai bigaz, karlisten guda asi zala eta bere aitak iges egin bear izanda, Ingalaterran karlistentzako izkilluak erosteko joanda, Laburdiko Getarira joan ziran 1.873-1.874ko urtearen ikasketak, Baionako San Luis Gonzagaren ikastetxean osotzeko.

2. 35. *Ostera, Santa Kurtz apaizaren aria artuta:*

-1.873ko urtean Urtarrillaren 19an Lizarraga karlista gudal nagusia Bergaran aurkezten da, Moriones eta Primo Riberak, liberalen gudal nagusiek euki ebezan indarrak, berak eukazanakaz neurtzeko.

-1.873ko urtean Urtarrillaren 19an, Santa Kurtz apaizaren ekintzari esker, sartu zan Frantzitik Gipuzkoara Lizarragatar Antonio Gipuzkoako gudal nagusia, eta onek azken gaizto batetik, bai ta bestetik txarto urtetan ebalako, eukiten ebazan borroka geienetietatik, karlistaren aldeko gudari eta erritar guztiak esaten eben: "Santa Kurtz, gudal agintari nagusia izan bear zala, ta Lizarraga apaiz".

1.873ko Epaillan Lizarragatar Antoniok, Santa Kurtzek egiten ebazan ausartasunezko gauza guztiagaitik, ondamu, eziñ ikusi, iñartsi edo ta bekaitz euki ebalako, matxino lez salatu eban, eta tiros ilteko agindua emon eban, topetan zan lekuan.

Lizarraga gudal nagusiak agindu orregaz, karlista gudariak artegatu ebazan ezin beste, bide batez liberalak bizkortuta, eta egoera orretan aurrera begira, almenean murriztuta agertzen zan lez, ez eban egokiro, aukerazko biderik zuzendu.

-1.873ko urtean Epaillaren 12an karlisten gudal nagusiak, Santa Kurtz apaizagaz, Ezkuruneko bordan batzartu ziran, ia biak adizkiditzen ba ziran, elkar izketaren ostean, ondoren, Santa Kurtz apaiza Lizarragaren agindupean ipinita.

1.873ko urtean Loraillaren 11n Lizarragak baiña, ez eban ezereztu Santa Kurtzen aurka ariñago agindu eben zigorra, eta euki eben lengo arazo bardiñetara itzuli ziran biak.

1.873ko urtean Loraillaren lenengo egunetan, karlistaren gudalozteak atonduta egon ziran borrokan asteko.

-1.873ko Uztaillaren erdirako, Eraul, Udabe, Beramendi, eta beste inguruetako mendiak, lenengo borroketatik karlistaren aldekoak izanda, bideak zabalik egon ziran VIIn Karlosek Dantzarineatik, Nafarroan sartu zedin.

-Santa Kurtz apaizak, guda onen bere gora berako lenengo ekiñaldiakaz, liberal etsaien artean bildur apur bat sartuta eukelako, alegiñ andiak egin ebazan karlistaren arteko adore, kemena, ta biotzeko berotasunak biztuta euki egiezen.

-Bere bare aldi ta ekiñaldiko ausartasunak euki eban bildurrezagaz bezela, arrigarrizkoak izan ziran.

-Zeaztasunezko salatarien sare zabala ta bizkorra antolatuta euki eban, bere argibideakaz gudaloztearen izkutuko mugialdian eraso gogorrak egiteko, eta liberalaren txeberetatik iges egiteko.

-Santa Kurtz apaiza, bere borondate guztiagaz borrokatzen ibili zan, karlistaren aldeko borrokabide orretatik, Euskal Foru ta Erlijioaren babes alde ebillela ziñesten ebalako, eta bere gudariak beti esan eben: "eurei sekula ez eutsela itzi VIIn Karlos izena goralduten, "Erlijioa eta Fueroaren" aipamenetik kanpo.

1.873ko urtean Urtarrillaren 14an Gipuzkoako liberal Aldundien orokorrezko ardura euki eban Agirretar Maximo Manuelek, Santa Kurtz apaiza, ezin ebalako arrapau, Tolosan agindu baten bidez, 10.000 pesta agindu edo eskeiñi ebazan ilda edo ta bizirik arrapatuta beragana eroaten ebanai, Azpeitiatik bide batez, Iturriotztar Lojendioren batalloi taldeko 40 mikelete Bidaniara, ta beste erdia Aiara´ra bialduta, Santa Kurtz apaiza arrapatzeko.

-1.873ko urtean Bagillaren 3an Santa Kurtzek, Endarlazako bidean egon zan mikeleteen gudaltegia artzen dau, eta bide batez egon zan zubia ezereztu.

Mikeleten gudaltegi orrek, Iruneko karlistaren agindupean egon zan, eta euki eban aginduzko lana, karlistaren gaulana edo zamaritzazko(1) ekintzak ezereztutea zan, bide batez Nafarroakin artu emoneko bidea zabalik eukiteko.

-1.873ko urtean Bagillaren 7an Santa Kurtzek, bere erlijiozko ustean espainitar lurralde osotik, bide galduko emakumeak kanporatu egin bear zirala, agindu gogor bat aldarrikatu eban.

Erdiugarte edo peninsula onen lurralde osoan, bai ta Ingalaterra ta Frantzian Endarlazako gudaltegian egin ebanagaz be, euki eban oiartzun andia Santa Kurtzek, Lizarraga gudal nagusia bekaitz(2), salatari agertu jakon, apaizak egiten ebazan eriotzezko epaiketagaitik, VIIn Karloseri esanda.

VIIn Karlosek, ez eban onartzen ezertako zigorrik Santa Kurtzen aurka, eta Lizarragak bere agintaritzazko ardura uztea aurkeztuta VIIn Karloseri, onek, ez eutson onartu.

Lizarragak, Santa Kurtzeri egiten eutsozan zalataren aurka, Xabalok, Santa Kurtzek euki eban ertzai baltzaren kide, eta bere uste osoko laguntzaille izan zanak, esaten eban: "Zelatariak iltzen genduzela?. Bearkoa !! Bestela danok garbituko ginduzan ?".

"Ezin gendun atsedenik artu, gudalozte ta mikeleteak(3) denbora guztian atzetik euki genduzelako, zelata orren emaitzak liberal gudal nagusieri emoteko, eta bearrezkoa biurtu jakun zentzaldi(4) orreik artzea".

1.873ko urtean Uztaillaren 9an, Baldespinoko Markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, Ermuko semea eta karlistaren gudal nagusiak, Santa Kurtz apaizaren billa joan zan bere gudari taldeagaz, Santa Kurtzek eukezan guda indarraren agintaritza ta guda tresneriak emon eiotsezan.

Eta Santa Kurtzek, etsaien bekaizkeriko eragipenak, oiartzunezko indar andia artu eban lez, bere gudaloztearen agintaritza, ta euki ebazan kañoi tresneriak emon bear izan ebazan, bera Frantzira atzerriratuta, VIIn Karlosek egin eutson zemankuntzagaz(5).

A ta guzti, beren aurkako zalakuntzaz gain, jente askok, gizandi lez eta maitasun andian

(1) Zamari, patari, mugausle = contrabandista, gau-lan, muga uste, zimardika = contrabando. (2) Bekaitz = envidioso. (3) Mikelete = Miguelete, antiguo fusilero de montaña en Cataluña, de Miquelet del prast, que luchò contra los franceses en 1.647. Individuo de la milicia foral de Giouzkoa. (4) Zentzaldi = escarmiento. (5) Zemakuntza = amenaza.

euki eban Santa Kurtz abadea, eta beste gauzen artean, beren taldean ibilitako gizonak karlista agintariak tiros ilten ebazalako, ostera aldatzen da Ego Euskalerrira.

Santa Kurtz´ek muga aldatuta, izkutuki, Lizarraga gudal nagusiaren agintaritzan egon ziran Gipuzko taldearen karlista gudariak matxinatzen alegintzen da, eta lortu be lenengo gudari taldea bere agindupean geratzea, bai eta 2ª, 3ª, eta 5n gudari taldekoak.

Guda indar onekaz saiatzen da gure Santa Kurtz jauna, Lizarragaren aurka joateko.

-Lizarraga aurrean euki ebanean baiña, onek bere gudariai euskeraz berba batzuk esanda geldirik geratu ziran, eta Lizarragak aukera orren egoerean, bere leialtasuneko gudariak bialdu ebazan Santa Kurtzek euki ebazan agintariak arrapatzeko, eta bere aurrean egon ziranai banan banan lerrotuta, joateko agindu ta euki ebezan guda izkilluak orma ondoan itxiazo eutsezan.

Santa Kurtz apaiza ori ikusi ondoren arrituta, lenengo taldearen gudariak eta beste gogoko taldeak artuta Zeztoara joan zan, mendi bidez ostera itzultzean, mugako mendiak igarotzeko.

1.873ko urtearen Abenduan amaitu ebazan Santa Kurtz apaizak basako gudak, azkeneko atzerritasunaren bidea artuta.

1.874ko Iraillan, Frantziaren Iparraldean Lilleko erritxoan Josulagunaren lekaretxean zokoratu zan, eta andik egin ebazan egipide guztiak, bere apaiz bizitzan ostera jarraitzeko.

1.875eko urtean Bagillaren 9an emon eban ostera bere lenengo Mezea, guda ostean.

2. 36. (7). *Arana ta Goiri´tar Sabino´ren bizitzari ostera oratuta.*

-Eta jakin naian, Arana eta Goiri´tarren etxeko abertsaletasunaren giroa nolakoa izan zan, euren seme alabak ain arnas sakona artzeko euskal abertzaletasunaren arlo orretan, joan gaitezan ia zer esaten dauan bere arreba Paulinak, idatzi ebazan oroimenezko idatz lanetan, iru lau gauza artuaz:

"Nire aitak karlisten matxinadarako, asko lagundu eban, bere lanez gaiñ, euken zarpeletik ainbat diru emonda".

"Denbora gitxi barruan itzi eban itsas-untzien egiteari".

"Uribar´tar jenerala, bere etxean euki eban ostonduta".

"Aita bera, joan zan Ingalaterrara izkilluak eta gudarako bear zana erostera, bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordainduta karlisten borrokarako".

"Zelan zabaldu zan, danok atzerrira joan giñela, etxetik urten barik egon giñelako".

"Esan bear dot(1): nire aita, Abandoko alkatea izan zala, eta Gernikako batzarretan eskubidedun bertatik".

Ikusten dogun lez, etxeko arnasa obeagoa ezin izan, eta or berarentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau, nai abertzale lez.

1.875-76ko urte bitartean Arana ta Goiritar Sabino bere anaiakaz, Donibane Loitzun´en egin ebazan bere ikasketak, azken azterketak Ondarribi´n osotuaz.

Amaika urtedun Bilboratu eta 1.876´garren urteko ikastaroa, Orduña´ko Jesuitetan asten dau, batxillerrezko arloetan egin bear ebazan bost ikastaldiak(2) beteteko.

Eta emen, 1.881´an azkeneko ikastaroa amaitzen egolarik, oso txarto gertatu zan osasunez, azkeneko sakramentuak artuta, il-zorian egon zalako.

(1) Esan bear dot = lo que dice Paulina. (2) Bost ikastaldiak = cinco cursos de bachiller.

Emengo azterketak, ogean dauela egin bear zituzen.
Eta urrengo urte bietan ez eban ezertxo be ikasi, bere sorterria maitatzen, eta umetatik ez ekian euskerea ikasten jardun baiño.
Eta 1.882ko urtean, berak amazazpi urte eukezala, aita ta anai bat il jakozan.

2. 37. *Santa Kurtz´en aria ostera artuz:*

1.876ko Urtarrillan Londresera joan zan eta karmeldarren lekaretxean bizi zan.

Bertan egonda, VIIn Karlos agertu jakon bigarren guda karlista galdu ondoren, eta espainitar erregetzan XIIn Alfonso izan zala errege, berak emoneko Meza Santuan Karlos eta onek eroan ebazan gudal nagusiak Jauna artu ondoren, biok barriketan egon zirala, Karlosek au esan eutson: *"Badakit nire onenetariko morroi bat izan zarela"*. Eta Santa Kurtzen erantzuna: *"Ba orain, ez dauka zuzenbiderik"*.

-Jamaikara joan zan Josulagunaren babespean, eta bertan egin ebazan 15 urte.

1.891ko urtearen askenetan, Kolonbiako Pasto Urian, Josulagunak euki eben mixio errira joan zan, eta erri txiki bat irasi eben gure Iñaki Deunaren izenagaz, Pasto Uriaren 6/7 leko(1) edo 39 kilometru ingurura egon zan lurretan.

Pastoko umiari eskola emoten ebanerako, oso ospatsu zan ezitako loro berritxu antzeko txori bat euki eban, umeak berbetan asten ziranean, mokoakin buruan pikokatu egiten ebazanak izildu zitezen.

Eta errira joaten zanean, turuta bategaz oartzen ebazan erritarrak, Meza Santua eta errosario edo agurtza, otoizketara joaten zanean.

Turuta orren ekintza, espainitar errege XIIIn Alfonsoren belarrietara be eldu zan, eta turuta bat bialdu eutson, Santa Kurtz il da gero eldu zana.

Eta Santa Kurtz´ek bere azkeneko basa gudaldia, Mata´tar Jose Felix galbidetsu matxinzaleak bere taldeagaz, Tukerreseko errira, eraso egiten joan zanean, egin eban.

Tukerres erriko agintariak, ez eben ezer euki matxinatu orrei aurka egiteko, eta Santa Kurtzek ango nagusiari, bide ondoan egon ziran zuaitzak bota eta bidean zabaldu egiezala agindu eutsonean, Matatar matxinzale gogor orrek, txebera txar bat zalakoan, bertan itzi eban erri orren erasotzeari.

Amerikako mixiñoetan, Aita Loidi lez ezagutzen eben danak, bere amaren abizenagaz aurkezten zalako, eta iñork ez eben jakin ia bere eriotzerarte, buru-ukazale(2), umil ta apaiz ixil ura izango zanik, leku guztietan aipatzen eben euskal basa gerlari andia.

Urte askotan ibili zan eskatzen Josulagunaren lekaidetzan sartzeko, eta lortu eban bera il baño lau urte ariñago.

Bera, irasitako San Inazio errian egon zanean, larritasun andian gaisotu zan, eta erritar batzuk anda, edo bideko oe baten ipini eben Pastoko Urira eroateko. 1.926ko urtean Dagonillaren 10ean eta 84 urte eukazanean, mendiko leku txarrenetik joan ziranean baiña, azken arnasa emon eban.

2. 38. *Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonioren bizi kondaira.*

(1) 7/6 leko = 6/7 leguas equivaliendo cada legua itineraria a = 5.572´7 ms.. Legua de posta, la que tiene 4 km. Y la legua marina o maritima, equivalente a = 5555´55ms. (2) Buru ukazale = abnegado, sacrificado, mortificado.

1.817ko urtean Urtarrillaren 22an, Iruñan jaio zan.

1.833ko urtean Abenduaren 27an, karlisten gudaloztetan lerrokatzen da oiñezko gudari lez.

1.834ko urtearen lenengo illetan, karlistek, Amezkoako ibarrean egon ziran liberal gudariai izkilluak kendu eutsezanean, Orbaizetako erria artu ta beste borroka batzuetan be egonda, bigarren lerro buru lez izendatu eben.

1.834ko urtean Bagillaren 18an, Gunillako karlistaren garaipenean be egon zan, eta bertan zaurituz, lenengo lerro buru(1) lez izendatu eban.

1.834ko urtean Uztaillaren 31an, Artezan zauritu eben, eta bigarren sarjentu lez izendatu eban.

1.835eko urtean Urtarrillaren 13an lenengo sarjentu karlista lez izendatu ondoren, Maeztuko ingurutasunean, Arrijas, ta Larragako zubien borroketan, Ziga inguratu ebenean, Etxarri Aranaz inguratutako garaipenean, Arroniz, Billafranka, Bilbao inguratu ebenean, eta beste borroka batzuetan be ibili zan.

1.835eko urtean Iraillaren 2an teniente ordezko izendatzen dabe.

1.836ko urtean, Garzia, karlisten gudal nagusiaren gudaloztean be borrokatzen ibili zan, erasoko ekintza guztietan egonda.

1.837ko urtean Loraillaren 24an, Ueskako ekitaldean egin ebanagaitik teniente maillakoa izendatzen dabe, ta urtea amaitzeko geratzen ziran illeak Barbastro ta Gisonako borroketan egonda, askeneko erri onetan larri zauritu bazan be, Abenduan Torrezilla artzeko ibili ziranen artean be egon zan.

1.838ko urtean, Abarisketa(2), Allo, Dikastillo, Biurrun, Arroniz, eta Belaskoaineko borroketan ibili zan.

1.839ko urtean, Ramales eta Guardamino, Arratia, eta Arabako Billarrealen borroketan egon zan, Bergarako egiunean teniente lez egonda.

1.840-1.842ko urteetan, Aragoi ta Kataluñako bekoaldean, abere ta tresnerien arduradun lez ibili zan.

1.843ko urtean, Tarragonako elkarteak egin eben matxintasunagaz alkartu zan, eta Bagillan, ango lurraldea, lapurrengandik garbitzeko agindu eutsoen.

1.843ko urtean Iraillaren 17an, batuzaleen aurka ibili zanean, isekatu(3) ebezan, sare artekoa antolatu eutsenai.

1.843ko urtean Urrillaren 6an, Eskoda liberal taldeari irabazi eutson, orren ekiñagaitik zingola(4) ezarri ta kapitan maillakoa izendatu eban.

1.844ko urtean Jorraillaren 7an, Madrillera aldatuta, gobernuak teniente maillan baieztu eban.

1.847/1.848ko urteetan Maestrazgo ta Kataluñan ibili zan montemolinistaren aurka, eta onen ekintzagaitik, lenengo maillako San Fernandoren gurutzeagaz zingolatu eban.

1.853ko urtean, San Ermenejildoren gurutzerako urte bateko diru kopurua ordaindu eutsoen, IIn Isabelek alaba bat euki ebalako, eta zarrenetariko lerrotik kontuan artuta, kapitaiñezko maillara igon eban.

1.854ko urtearen Jorraillan, gudari ordaingoz Sebillara aldatu zan, eta bertan komandate

(1) Lenengo lerro buru lezs izendatuta = cabo primero, en la milicia. (2) Abarisketa = carrascal. (3) Isekatu = burlarse. (4) Zingolatu = condecorar.

agintari maillara igon eban, Urrillan Asturiasen, oiñezko gudarien agintaritzan ipinita.

1.855eko urtean Malagan gudari ordain egon zan.

1.856ko urtean, Granadan sortu eben Antekeraseko eiztarien talde barrira bialdu eben.

1.857ko urtearen Abenduan, Zeutara bialdu eben, eta berton egoala San Ermenejildoren urte biko soldata ordaindu eutsoen, XIIn Alfonso errege izango zana jaio zalako.

1.861eko urtean, espainiar gortekoak komandate agintarizko maillan baieztu eban.

1.862ko urtearen Loraillatik Iraillararte, Arapileseko eiztarien taldean egon zan agintari lez.

1.866ko urtean Madrillen egon zanean, Tajo ibaiaren ekintzatan be egon zan Etxaguen agindutara, Prim gudal nagusia arrapetako.

1.866ko urtean Bagillaren 22an, Madrillen sortu zan matxintasuna bakezten bialdu eban, eta koronel ordezko maillara igon eban.

Bertan ordezko lez geratuta, Urrillan, Murtziara bialdu eban, andik ostera Madrillera bialduta, Arapiles guda taldea zuzentzeko.

1.867ko urtean Kataluñara bialdu eben, Lerida ta Tarragonan matxinatu ziranai erasotzeko, emen ostera be zingolatuta, bigarren maillako gurutzeagaz.

1.868ko urtean Iraillaren 29ko aldarriketagaitik, koronel maillara igon eban, eta Urrillaren 23an espainitar gorteko aginduarekin, Iruñara aldatu eban ordezko lez.

1.868ko urtean, bera baiño gudal agintari nagusien alkarrizketa bat entzun ebalako, bada ezbako 24 orduren atxilotasuna euki eban, gudaltegiko zain gelan.

Aurrerantzean, eta bere izatasun ta sinismenak karlistaren aldekoak ziralako, Madrilleko alkartasuneko batzarrera aurreratu zan, eta VIIn Karlosek, Logroñoko lurraldeen agintari nagusi lez izendatu eban, Uri nagusi ori matxinatzeko aginduagaz.

Ez eban lortu matxintasun ori, eta Euskalerrira etorri zan bere idazkari Perez ta Najeratar Juan, eta Rokes laguntzailleagaz.

Karasaren taldean sartuta, Abalos eta Urbasaren mendikateetako ekintzatan egon zan, eta Bagillaren amaieran basa gudarien talde orreik ezereztuta, Frantzira aldatu zan.

1.873ko urtean Urtarrillaren 1ean Irun eta Frantziko Euskalerritik aldatu zan, erdi ugarte edo peninsula onen Iparraldeko Euskalerrira, Imaz eta Perez ta Najeratar Juanen laguntzan. Ille orren 6an Dorregaraik karlistaren gudal nagusiak agindu eutson lez, trenbidearen aurkako aldarrikapena zabalduz.

1.873-74ko urteetan, Gipuzkoako gudal agintari nagusia izan zan.

1.874ko urtean Aragoi eta Kataluñako gudal agintari nagusia izanda, Martinez Kanposek Seo de Urgeleri gogorrezko ingurutasuna egin eutsonean, liberalak garaipena lortu eben, eta Lizarraga bera atxilotuta geratu zan.

1.875eko urtean karlistek guda galduta, Karloseri lagundu eutson erbesteratzen.

1.877ko urtean, Erroman il zan gure Lizarraga ta Eskiroztar Antonio.

2. 39. *Dorregarai eta Domingeratar Antonioren bizi kondaira laburra:*

1.823ko urtean Uztaillaren 11n, Zeutan jaio zan Dorregarai ta Domingeratar Antonio au.

1.835eko urtean Vn Karlosen gudalozteetan lerrokatu zan oiñezko gudari lez, eta Gebara ta Arlabaneko borrokaren ostean, teniente ordezkoa egin eben.

1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukeri ostean, espainitar gudalozteetan lerrokatu zan, euken tenientearen ordezko maillagaz.

1.840ko urtean espainitar gudalozteak, Kastellote ta Morella menperatu ebezanean egon zan, baita Kataluñan be, eta Bergako gazteluak ta leen ondorengo borrokak amaitzeko egin ziran ekintza guztietan.

1.843ko urtean, Seoane espainitar gudal nagusiaren gudaloztean egon zan Torrejon de Ardoz bakeztu ebenean, eta Abenduko illean teniente maillakoa egin eben.

1.845eko urtean, egiztu eben teniente mailla orretan.

1.849/1.853ko urte bitarteetan, Madril eta Donostian egon zan gudal agintari lez.

1.854ko urtean espainitar gudal nagusiak zabaldu eben aldarrikapenagaz alkartu zan, eta O'Donnell agindutara, Bikalbaroko erasoan lenengo, eta Sebilla ta Madrilletik ibilita, lenengo kapitan egin eben, gero komandante gudal agintarira igonda, Madrillen geratu zan bere ordezko serbitzuan.

1.856ko urtean Uztaillako matxintasunean egin ebenagaitik, leen maillako San Fernando zingola emon eutsoen, Murziako gudalozteetara aldatuz.

1.858ko urtean Uztaillaren 1ean, Dorregarai, Euskalerriko lurraldean VIn Karlos Montemolin kondearen aurka, guda amaituarte ibili zalako, espainitar gudal nagusiak kapitaiñezko maillara igon eban, eta Murtzian egoala, itxasontzietan igonda Melillara eroan eban ango lurraldeak bakezten.

1.858ko urtean Dagonillaren 25ean, bere taldeko 34 gudari eta atxilotuta egon ziran beste 20 gudariekin urten eban moruen zelaietara, eta lortu be, moruen karabo(1) bat eta gordetegi baten eukezan lergailluak arrapatzea.

1.858ko urtean Iraillaren 5ean Zeballostar Franzizkoren agindutara, moruen zelai bertara urten da, lortu eben euken kañoi bat kentzea.

1.859ko urtean Urtarrillaren 13an, Malagara aldatu eben ostera, Bagillan Alkantara eiztariren taldera aldatuta, eta beragaz Afrikako gudan egonda, infernuko mendi bitarte eta angherako sarbide estueneko ekintzatan be egon zan, iru marrauzko(2) eraso gogorrak eginda, moruek igesean ipinteko.

Bertan, lepo gibelean(3) zauritu ta ekintza orren gaitik, ordezko komandate lez arduratuta.

Kastillejoseko borrokan, ta inguruetan egin ziran beste ekitaldietan be egon zan, eta bere gudu taldea itxi barik, atxilotutako gudarien taldeko agintaritza eskatu eban.

Ille bi barru, Lasaussaye gudal nagusiaren agindutara, zelaiko laguntzaille lez egon zan.

Eta 1.860ko urtean Epaillaren 10ean, 11 egun orretan egin ebenagaitik koronel ordezko mailla emon eutsoen.

Wad-Raseko borrokatan egonda egin ebazanagaitik, jeneral ordezko izendatu eben, eta ostean, Madrillen egon zan gudal agintarien ordez.

1.862ko urtean, Santiagoren soiñeko ordenaren saria emon eutsoen, eta orren ostean bigarrenez, zelaiko laguntzaillea izanetik, bere taldera bialdu eban.

1.866ko urtean, Asturiaseko taldera aldatu eban, eta urte orren Jorraillean, atzerriko gudalozteetara bialdu eban, koronel ordezko gudal maillakin.

1.868ko urtean, denbora guzti au Lersundiren agindutara egonda, Frantzira aldatu zan, eta

(1) Karabo = moruak itasontzi txiker bateri esaten dautsoe, baita eizako txakur bateri, eta autillo deitzen jakon arrapakoi edo lapur txoriari. (2) Marrauzko iru eraso gogorrak eginda = tres cargas durisimas a la bayoneta. (3) Lepo-gibelean zaurituta = herido en la parte posterior del cuello, pescuezo, occipucio, nuca.

bertan VIIn Karlosegaz egonda, onek bere zelaiko laguntzaille lez izendatu eban, eta Radika edo Diaz de Radarekin Eskodako borrokan uts galanta egin ondoren, Frantzira aldatu zan.

1.871ko urtean Urtarrillaren 2an ostonduta egon zan lekura VIIn Karlosek deituta, Balentziako erreiñuaren gudal agintari nagusia egin eban, eta Uri ortara joanda, egon ziran arrizkuko arazoari aurre egin ostean, ainbat denboran ostonduta egon bear izan eban.

1.833-1.839, 1.872/1.876 urte bitartekoak izan ziran espainitarren ondorengotasunaren borroka gogorrak.

1.874ko urtean Karlisten gudal nagusia izanda, Muru mendi edo Abarzuzako borrokan, danon gaiñetik nabarmendu zan. Borroka orretan il zan, espainitar Kontxa gudal nagusia.

1.876ko urtean guda amaitu zanean VIIn Karloseri lagundu eutson Ingalaterrara, eta orren ostean beragandik, iñork ez daki ezer.

1.882ko urtean Zalduban(1) il zan, Dorregarai ta Domingeratar Antonio.

2. 40. *Euskalerriko edesti onetan, karlistaren guda ostera artuz.*

1.872ko urtean Loraillaren 7ko egun onetan, Uribarritar Franzizkok, Zeberion euki eban bere gudaltegian kokatuta, eta liberal gudaloztearen talde bateri aurre eginda, ia Bilboko ateetaraiño eroan ebezan erasoka, ortik, Mañarirantza joan da.

1.872ko urtean Loraillaren 7an karlistek, Orokietan artu eben astiñ alditik iru egun barru, bizkaitar karlistek, liberalak bota ebezan Arrigorriagatik, Bilboko Uria babesten joatea beartuazota, Arratia ta Bilboko karlista taldearen eraso bidez.

Eraso orren ostean karlistek, Billaron ipinten dabe gudaltegi nagusia, eta ikusita Gipuzkoako lurraldeetan ez zala piztuten gudarik, gudaltegi ori, Gipuzkoara eroatea erabagitzen dabe.

Arabako lurraldean, De Belaskotar Martinez karlisten gudal nagusiak, Nazarrera bideratzen dauz bere mutillak, gero Bizkaira joateko, lurralde orreitan jokatzen zalako gudaren geroko bizia.

Eta alan izan zan, Serrano liberal gudal nagusia, erdi ugarte edo euren ustean espainitar Iparraldeko euskal lurrarekin arduratzen zanak, Durangoko ibarrean sartu zalako.

1.872an Loraillaren 14an Serrano espainiar gudal nagusiari, Uribarritar Franzizko gudal nagusi karlistak urten eutson Mañariko atxarteetara, karlistak astindu ederra artuta.

Asko galdu eben Bizkaitar karlistak borroka orretan, ildako askoren artean Ayastuy ta Altubetar Manuel be egon ziralako.

1.872ko urtean Loraillaren 16an, 14n eguneko borroka orren ostean karlistak, Mondragoira joan ziran, eta egun onetan Oñate erasotu eben.

2. 41. (8) *Sabino´ren Aita Santiago.*

Emen Uribarritar Franzizko Bizkaiko Jauntzaren gudal nagusi agintaria, Aranatar Santiago, Sabinoren aitak, bere itxaso ontziren lantegiko zaintzalearen etxean ostonduta euki eban, eta egun batzuk geroago, borroka orretan artu ebazan zauri larriakaz, il zan.

(1) Zalduba = Zaragozak euki eben leenengo euskal izena.

Borroka bi oneitan, karlista gazteak asierako prestakuntza gitxi euki ebelako, eta gure anai artearen berezko etsai ekintzagaz gipuzkoako "txapelgorri"ak espainitar gudariai laguntzen eutsielako, alde andiak egon ziran bata ta besteen indarren joku artean.

1.872ko urtean Loraillaren 20an, Orokietako porrotaren gora beran karlistek, errudun bat aurkezten ibili ziran, eta begirada guztiak, Diaz de Radatar Eustakiorentzat izan ziran.

Radatar onek, bere arduraren egipidezko ekintzan egin ebazan gauza guztiaren agiriak agertuz gain, beste karlista gudal nagusiai aurpegira bota eutsen, eurak erdi kilikolo ibili zirala borrokan, oraindiño euretatik iñork ez ebelako egiztu Karloseri emoneko zin itza.

1.872ko urtean Loraillaren 20an txikiagotasun ori ikusita karlistak, Orozkoren Zaloako apaiz etxean batzartzen dira, euki eben egoera larriagaitik berba egiteko, eta euren eziña ikusita ondoren, Dorreko duke Serrano espainiar gudal nagusiagaz berba egitea erabagi eben, euren menpetasunezko eskeintza egiteko, barkamenaren ordez.

1.872ko urtean Loraillaren 24an Bizkaian matxinatutako karlistak Jorraillaren askenetan, guda izkillu ta gudarako euken tresneri gitxigaz Gernikan batuta, Urkiza, Orue ta Arginzoniz Aldundiaren arduradunak, Amorebieta edo Zornontzako Belaustegiren etxera bialdu ebazan, espainiar gudal nagusiekaz batzartzeko.

Eta bertan sinatu zan Amorebietako egiune ori, espainiar aldetik Serranotar Franzizko Dorreko dukea, eta karlistaren aldetik, Arginzoniztar Antonio, Urkizutar Fausto, eta Orue ta Artiñanoko Aristidestar Juan B.

Itun orren bidetik karlista guztieri parkamena emoten eutsoen, eta gure ebanarentzat, gudal agintarien baimena espainitar gudaloztetan lerrokatzeko euki eben guda maillakin.

Bizkaiko Aldundiari be baimena emon eutsoen, Foruak agintzen eban legera batzartu zitezen, gudaren arloa bakarrik aipatuta baiña, egin ziran zorren ordaintzak bakarrik aipatu ziralako.

Olan amaitu bazan Loraillaren 21eko egunean asitako matxintasun au, VIIn Karlosetik asita, Baldespinako Markesa, Kareagatar Ezekiel, Kubillas gudal nagusia, Santa Kurtz apaiza eta beste gudal nagusi batzuk, aurka egon ziran.

Eta euskal lurraldeko asken karlista guztien taldeak Dagonillako illean amaituta egon ba ziran, karlista guda, Kataluñako lurraldeetan iraun eban bizi bizirik.

Alde bietatik baiña, iñork ez eban zalantzarik euki, egiune ori borrokaren eten bat baiño besterik ez zala izan, eta lenengo borroka baiño gogorragoa izango zala urrengoan egingo zana.

1.872ko urtean Bagillaren 1ean Zumarragako Billarrealen, erdiugarte edo peninsula onen Iparraldeko gudalozteak Etxaguetar Rafaelen(1) agindutara geratu ziran.

1.872ko urtean Bagillaren 3an, Serrano espainitar gudal agintari nagusiak Zornotzako itzarmen orren erabagia, naita jarraian egin zan orduan, Loraillaren 24an Madrillera bialdu, ez zan eldu ministruen etxera, Madrilleko gobernukoak bakarrik jakinda ongunde ori egin zala, Serrano bera, ministeritzara eldu zanean.

Madrillera egun berean eldu zana baiña, 26an birridatzi zan ongunde orren agiri bat. Serranoren etsai baten eskuetara eldu zana zan.

Asarre andiak egon ziran liberalaren artean, eurak gure eben menpetasuna ez ebelako ezartzen, eta erdi Ugarte edo peninsula onetarako gura ebezan menpekotasunezko

(1)Etxague ta Berminghantar Rafael = 1.815-1.887, Donostin jaiotakoa eta Madrillen il.

batzangoak lortzeko, lenengoko gudaren antzera, beste guda gogor bat ikusten eben, aurrerantza begituten ebenean.

Karlistaren agintariak, ostera asi ziran antolatzen euki ebezan tresneri ta indarrak gudal nagusietatik asita, Diaz de Radatar Eustakio kendu eta Dorregarai lau euskal lurraldeko gudal buru nagusia izendatuta.

Dorregaraik, Ollo izendatu eban Nafarroako gudal nagusi lez, Gipuzkoarako Lizarraga, Bizkaiarako Martinez de Belasko, eta Arabarako Llorentetar Eustakio, Baldespinako markesa aintzindariaren(1) agintari nagusiaren agindupean ipini ebazanak.

Zornotzako egiune onek, sei illabeteko bakea ekarri eban Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudalozteetan, eta urrezko denbora karlistai, gaztearen gertaera ta gudarako tresneriak ondo prestutzeko, edozein eratara borrokan urten barik lenengo tentaldian egin eben lez.

Gaiñera I Amadeoren gobernuan sortzen ziran arazoen eragozpenetatik, ostera ekarten dituz Frantzian atzerrituta egon ziran gudal nagusi ta agintari liberalak, gudako zelaietan borrokatzeko.

Eta era orreitan asi ziran osotuten karlistaren aurkako gudalozteak Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan.

Or amaitu zan, edestilariak, bigarren borroka izango zenik ez dabena onartzen, eta emendik aurrera ostera asten dira karlistak antolatzen, espainitarren ondoriozko eztaibada ori askeneko borrokan erabakitzeko.

Aldi onetako edestilari geienak, espainitar aberri edo nazioa esaten dautse oraiñ 195 urtetik ona, espainia lez laterritutako Erdi Ugarte oneri, bera baiño millaka urte zarragoak diran beste izkuntz ta erriak kontuan artu barik.

Jakin leike baiña, ze aberriaren gandik berbetan gabiltz ?. Laterriarena ?. katolikoena ?. Espainitarrena ?.

A la berezkotasunez eta bai ta jendekuntza lez jaioak diran Euskaldun, Katalan, eta Galiziarenak ?. Onek direlako jaioaren izena zentzuz eta eskubidez, eroan leikenak bakarrik.

Espainitar zaleak, nundik nora daukie baimena, "Laterritasuna", (egoera mugatzen dauan itzak), eta "katolikotasuna" (euren alderdikidetasunean batzangotzeko dan itza), bai batak eta besteak, zentzunik ez daukiezanak, jaiotasunezkoak adierazteko itz bi oiek: "bereztasunaren azturazko itzak "euren esangurearen mugatzeko daukan zentzuzko egitik, aldentzeko ?".

Ez da arritzekoa ba, Frankok bere menpearen eritzizko zaletasunean eta eleiztarren laguntzagaz, peninsula onen lurraldea "Nacional Catolicismo laterritasun lez mugatzea", zalantzarik ez egian egon euren sasijaintasunagaz, Goiko Jainkoak gaiezko mundu oneri oiñarritu Eutsoezan Legearen aurka.

2. 42. ***Ondorio labur bat.***

Zati onen amaieran esan dogunagaitik, argi ikusten doguna, kolonigilletasunezko edo menperatzaillezko erri irasle barri oneik, ez zirala joan bake billa, berezko erriakaz batera, gizarteak bizitzeko bear ebezan mozkin ta tresneri guztien kontrola, euren eskuetan gure ebalako.

(1) Aintzindariak = estado mayor militar.

Noren ametsak beteteko ?.

Euren norkeriarenak, zalantza barik.

Leen: IVn gizaldian Nizeako eleiz batzarrean I Konstatino erromatar kaizerra, eta I San Silbestre Aita Santuak, mundu guztia, aberri katolikotasunezko erlijioan batzangotuta bizi gindezan ezarri ondoren, eta Zeruko Jainko ta gizon emakume bitartean, Jainkoaren ordezko Aita Santuaren uts ezintasuna eta kaisarraren agintaritza baliozko solaskide bakar lez ipini ta ziñeskintzatu(1) egin euskuen, "txiztik egin barik" Aita Santuaren agindupean bizi gindezan.

Benetako JAUNGOIKO Iraslea aipatu barik, eta Berak Izadi onen bereztasundutako gai eta gizakiai, ekanduzko arloetan, zor-eskubidearen ardurean biak bizi egiezen, kontuan artu barik, edo Beren agindu guztien gaiñetik, menperatu euskuen.

Zeri, edo nori gurtzeko ?.

Bigarren: leenengoko gauza guzti orreik lortzeko, eta munduko gizarte guztia kontrolpean eukiteko, gizakiak euren berezko zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko sortu bear dan diru edo urrearen jabetasuna, euren kontrolpean ipini dabe, Izadi onen mozkin guztiak lez.

Eta kontrol bi orreik alkartuz, gudaloztearen indarrezko ekintzan artu eben indar guztia, edesti osoan, gaurko denborararte indartsu etorri dana.

Jainkoaren Legeak mundu onetan baiña, gaitasun eta gizakien eskubideetan oiñarri lez sustraituz egonda, ezin da beste gauzarik egin, nortasunaren zor-eskubideko ordezkoan jokatu baiño, mundu guztia ezin dalako beartuzko batzango baten batu, Jainkoaren arrazoizko legetik kanpo, ta bai ulermen bategaz jokatu eskubidearen ordezko jokuan, Beren Legetik kanpo ibili ezkero, edesti guztian ikusten dogu: *"oiñaze, negarra, borroka, eta nekagiro gorrietan sartzen gaituela"* zer dan ez jakiteko.

Daukaguzan laterrietan batzangotu gura gaitue, agertu eben norkerizko nazioaren itz barri *"Sacro Nacional Catolicismo"* orregaz, eta iraun egiten dogu etenbako borroka baten, nortasunaren eskubideak ezin diralako ezkondu, euren norkerizko asmoakaz.

Ez da txarrena ori, aberritar katolikotasunak, Jaungoikuaren legetik kanpo jokatutearren, galdu daualako, ekarri eban latiñezko izkuntzatik asi ta, euki eben siñezmen guztia, berezko erriakaz egiten dauan guztia, Jainkoaren Legetik kanpo egiten dauan egikera orregaz, zikindu baiño besterik ez dabelako egiten, Jaungoikuak Ludi oneri bereztu eutsezan legezko zentzu guztiak.

Bestetik, diruak ezin daualako jabetasunik euki, bereztasunezko giza-eskubideakaz batera joan bear diralako diruen zor-ordeak, ekanduzko ardurak lez, norkeriaren irabazkoiezko griñatsuakin, sasikatoliko asmo orretan ipinita euren siniskera guztiak, Goiko Jaungoikoagan galdu dabe berezko sinismen guztia(2), eta bide orretatik diru guztiak, lau salerosketaren eskuetan geratu diralako, Ludi onetan ordezkatzeko bear dogun diru guztia, ankaz gora ipini dabe.

Orregaitik, argi ikusten doguz oraiñ, diruagaz egiten dabezan izkutuzko aruntz onutzko esku joku orreik, munduko gizarteak guztiz artega ta nora ezean, faziztaren sasikatoliko asmo orreitan batzangotzea onartu degun.

Gaur argi ikusten dogu, asmakizun orreik ezin dirala eroan aurrerantza, baiña begitu zer

(1) Ziñeskintzatu = Dogmatizar. (2) Jaungoikua ta Bereztasunean norkeriaren irabazkoiezko griñatsuki galduta = perdida la fè en el Dios Creador y las leyes de la Naturalización por intereses personalistas y egoismos interesadisimos, poniendo sus creencias interesadas, en ese sacro nacional catolicismo, que les permite robar todo lo que puedan para controlar el Mundo.

egin eben, erdi aroko aldiak atzean itzita, karlistadako gudak amaitu ta lenengo guda nagusiakin, Frankoren anai arteko gudakin eta munduko bigarren guda nagusiarekin, bai ta gaurko zentzunbageko borrokakin.

Iñork ez eben siñestuko aiñ urrun joango zirenik, baiña or dagoz emaitzak.

Zeruko Jainkoarengan siñestuko ote dabe ?.

Ez !!.

Bestela, ez gendun egingo iñungo norkeriaren asmo legerik, Izadiak erperatuta daukazan legeditik atarakoakaz ibili baiño besterik.

2. 43. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratuta.*

Amorebieta edo Zornotzan ospatu zan ongunde edo ta elkargo orrek, arnas apur bat artzeko epea emon eutsen karlistai, ikusi doguzan borrokatan euki eben asiera txarragaitik, bereala asi ziralako atonduten, eta karlista gudariak izkilluz tresnatzen:

-Nafarroan, Peraltatar Serapio.

-Gipuzkoan, Zurbanotar Esteban.

-Bizkaian, Aranatar santiago.

-Eta Araban, Rotaetxetar Pablo arduratuz.

1.872ko urtean Uztaillaren 16an VIIn Karlosek bere erregezko eskubideakaz, argi ezarri eban Frantziko mugatik, karlista guztiai esanda, bera batzangotasunezko konstituzio barri orren aurkakoa zala, eta eurei galdetu barik, ez ebala egingo ezeren aldarrikapenik, 1.869ko urtean Bagillaren 30ean egin eban antzera.

Espainitar karlista batzuen artean, Zeballostar Ermenejildorekin(1) bezela, ez zana on artu, eta edestia bere gogamen alde adierazpenduta idatzi eban antzera: "VIIn Karlosek, zelan apurtuko eban beren aurreko erregeak, Vn Karlos, IIn Felipe, ta Vn Felipek katolikotasunean batzangotuta aberritzeko´en alde egin ebena ?" itanduten eban.

Nik dakitenagaitik, iru errege orreik eta artean egon ziranak, Euskalerria ta Kataluña katolikotasunean aberrituz batzangotzeko ez eban egin ezeren indarrik(2), eurak be nai ta beste nortasunezkoak izan arren, katolikuak izan zirelako, eta errege orreik begirun aundia euki ebelako eurakaz, emoten eutsoen arlo guztietako laguntzagaitik, errege orreik eurekaz bildur edo ondo bizi ziralako(3), era orreitan gauzak ederto joan jakiezan, beti jokatu ebelako alde bakotzak, euki zituzen nortasunezko jabetasunak ondo zainduta.

Euskalerriarena, ardura andiz gaiñera, naita Vn Felipek Kataluñari, 1.700/1.704ko ondorengo gudan Austriako Karlosen alde jokatu ebalako, guda indarrez Foruak kendu arren.

1.872ko urtean Uztaillaren 16ko egun onetan VIIn Karlosek, Kataluñako gudarien borondate onak indartu gurean, katalanaren Foruai ziñez itz emon eutsen, eta bere anai Alfonsok Kataluñako gudal agintari nagusiak, elburu onekaz: *"!!Catalanes !! Por Dios, por la Patria y por el Rey", bere askeneko berbak, ¡Viva la religiòn ! ¡Viva España¡ ¡Vivan los fueros de Cataluña! Eta ¡Viva Carlos VIIn !* aldarrikapendu ebazan.

(1) Zeballostar Hermenegildo = 1.814ko Uztaillaren 13an Sebillan jaio zan. Ordezko koronoel baten semea izan zan. (2) Ez ebelako ezeren indarrik egin = arik eta 1.714ko urtean Vn Feleipek bere "Nueva Planta"ko eritziagaz , guda bidez menperatu arte. (3) Ondo bizi ziralako = porque vivian respetàndose por la colaboración con que trabajaban..

1.872ko urtean Uztaillaren 18an gabeko amaikak ziranean, I Amadeo espainitarren erregea bere emazteagaz doiela, eurak ilteko eraso gogor bat euki eben, Madrilleko Arenal kalean.

1.872ko urtean Dagonillaren 18an VIIn Karlosek, borrokan asi gura eban, gudariek baiña, oraindiño prestakuntza gitxi euki ebelako, gudal nagusiaren batzarretan, prestakuntza orreik lortu arte, itxaropenezko eritziagaz agertzen ziran ezkero, Urrillaren 2an Euskalerriko gudal nagusiaren batzarreko agintaritza kendu eban, eta Dorregaraitar Antonio gudal nagusiaren ardurapean ezarri eban, orokorrezko agintaritza ori.

1.872ko urtean Azaroaren 5ean liberalaren aldetik, euskal lurralde osoaren kapitan gudal nagusia Riberatar Primok, espainitar gudalozteetan, gudarien arau gabea(1), jazargo(2), biurrukeria edo ta menik(3) ezaren lasaikeri ta gordinkeriak(4) ainbesteko neurri aundira eldu ziralako, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutsen espainitar gortekoari, eta oneik arazo orreri bidera urteteko, lenengo borrokan egin eben antzera, gudal nagusiak sarri aldatuagaz konpondu eben, Etxague, Moriones, Pabia, Nobillas, Santxez Breguarekin eta abar.

1.872ko urtean Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen, Gipuzkoako lurraldean.

Bizkaian Baldespinako Markesa, Lizarran Argonz ta Ollo matxinatzen dira, eta Perula karlista gudal nagusia Sesman liberalaren gogozko mutillai izkilluak kenduta, Baltierra, Kaparroso, eta Billafrankan sartzen da.

1.872ko urtean Abenduaren 18rako aukeratu zan eguna, matxintasun barri au ostera azteko, eta oraingoan, Dorregaraitar Antoniok ez ebalako asi gura karlisten guda au, Diaz de Radatar Eustakiok Jorraillan ezeren antolaketa barik, asi eben antzera ez urteteko, oraingoan, ondo prestutako gazteakin urten eban borrokara.

Eta ostera agertu ziran basa gudari talde karlistak: Mundaka ta Bermeo artean, Goiriena Josulagun lekaideak bideratuta; Nafarroan, Ollo, Radika, eta Argonz; Trebiñon, Sobrontar Kandido; Gipuzkoan, Santa Kurtz apaiza eta abar.

Santa Kurtz apaiza eta Soroeta(5) 24 urteko mutil gaztea, mutil gazteak lerrokatuten ibili ziran, euren basa gerlaritza sendotzeko.

1.872ko urtean Abenduaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiak "Bakea ta Foru"aren idazpurua aldarrikatzen dau Bizkaitarrentzat.

1.873ko Urtarrillan Bilboko Foru Aldundiak, mutil gazteak karlisten zirikatuengandik kanpo geratu zitezen, Uri barruan geldi egoteko agindu bat zabaltzen dau, eurak bear ebazanetarako pezeta bat Bizkaiko Jauntzaren diru kutxatik ordainduta.

2. 44. (9). *Arana ta Goiri'tar Sabin'en aita Arana'tar Santiago.*

1.873ko urte onen asieran, Arana ta Ansotegitar Santiago ostera itzuli zan Bilbora, baiña ostera joan zan Baionara, karlistak, ostera matxinatu ziralako, eta gudari gazteak izkilluz, eta gudarako bear ziran tresneriekin, jantzi egin bear ziralako.

2. 45. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.*

(1) Arau-gabea = indisciplina. (2) Jazargo, jazarkeria = oposición, rebelión, indisciplina. (3) Biurkeria edo ta menik-eza = insumisiòn, indocilidad, desobediencia. (4) Lasaikeriak eta gordinkeriak = libertinaje deshonestidad, obscenidad, lujuria. (5) Soroeta, mutil gazte au = Aretxulegiko mendietan il zan 24 urte eukezala.

1.873ko urtean Urtarrillaren 7an VIIn Karlosek, atzerrian egon ziran karlista gudal nagusi guztiari, karlistaren gudalozteak antolatzeko, peninsulan sartzeko agindua emon eutsen, gero Dorregarai gudal nagusitik asi ta, danari eskutitz bat bialduta.

1.873ko urtean Urtarrillaren 7an Moriones liberalak, ez eban onartzen bere gudal agintari nagusiak euren gudalozteetan, sortzen ebazan maltzurrezko jokoakaz, espainitar gortekoak guzur orreik, egiak ziralakoan artzen ebazalako, eta bere gudal nagusi Etxaguetar Rafael kenduta gudalozteen agintaritzatik, berak artu eban gudal zuzendari nagusitasun ori.

1.873ko urtean Urtarrillaren 13an VIIn Karlosek Dorregarairi idatzi eutson eskutitzan esaten eban: "geiegizko lan gogorra izango zala gudarien antolakuntzazko lanak aurrera eroatea, gudal nagusien artean, bekaizkeri, zelata, zalantza, salakuntza, eta murmurikari asko egon zalako, eurok biok jakiten eban lez".

Eta VIIn Karlosek, Lizarraga, Belasko, ta Dorronsorogaz lan egiela eskatzen eutson Dorregarairi, Ollo, Argontz, Perula, Diaz eta Radatar Klaudiogaz alkartzeko, oneik euken benetako sinismenean ezarri zitezen.

Gauza onen bitartez izan ziran gudalozte bietan sortzen ziran egoera larriak, alde bietan bardin sortuta, aurrean euken guda, oso gogorra etorrela usten ebalako.

1.873ko urte onen asieran asi ziran Euskalerriko lau lurraldetan karlisten gudal agintari nagusiak, eukezan talde txiakaz sasi gudan lez, gudariak gudu antolakuntzazko ezarpenean egokitzeko, eukingo ebezan borroka nausieri begira.

Geiago, Lizarraga oraindiño atzerrian antolako lanetan egon zan bitartean, Santa Kurtz apaiza ainbat gudamarru ta trebetasunezko sasi gudatan ibili zan, Gipuzkoa ta Nafarroako liberal gudariak zoratuz.

Asken baten espainitar gortetik, Santa Kurtzen buruagaitik diruzko saria ipini eben, Aretxulegi, ta Aiako atxarteetatik Soroeta gazteagaz alkartuta, Oiartzun, Errenteri, Usurbil, Lizarrako mendietatik, Lasarteko ibarrean eta Astigarragatik egiten ebezanagaitik.

1.873ko urtean Urtarrillaren 19an Bergaran, Lizarraga karlisten gudal nagusia aurkezten da, Moriones ta Primo Ribera liberalen gudal nagusiak euki ebezan indarren aurrean, berak eukazanakaz neurtzeko.

1.873ko urtean Otsaillaren 11n, Saboiatar I Amadeo erregeak, lege batzarreko eta senatore batzar aurrean, ondo idatzitako agiri baten bidez, espainitarren erregetza uztea erabagitzen dau, eta lege etxe bi oneik lenengo errepublikako gobernua sortu edo irasiko eban, egin eben autaldiagaz, 256 autarki, 32ren aurka irabazita.

Pi ta Margal´tar Franzizko bideratu eban gobernu au, eta konstituzioa aldatuz, ezker aldera bideratu eban, peninsula edo beren eritziz espainitar lurralde au, elkarzaletasunezko 15 errialdetan, euren udaleko lurraldeakaz banatzeko itxaropenean, autonomi edo askatasun gitxigaz oraindiño.

1.789ko urtearen ezkeroztik espainitarren betiko gorteak, eta gaurko Zapaterok euskaldun ta katalanarentzat gura dabenagaitik, daukaguzan izaerazko nortasunak ezerezko kontuan artu barik bizi gindezan gure dabe, munduko Uritarrak izan bagiñan lez(1).

1.873ko urtean Otsaillaren 11n aberkide katoliko liberalai, geiago naastu egin jakiezan gauzak, espainitar gortekoak errepublika aldarrikatu ebalako baiezteko 258 bozka edo

(1) Munduaren uritar lez = ciudadanos del mundo. "Zer sa bizi au eurentzat ?". Ori da euren buruak emoten dauan guztia ?.

autarkiekin, 32ren aurka, eta errepublika ori aldarrikatuta be, ez eben zergaitik damu aundirik euki bear, motel jaio zalako jaurbide barri ori.

Gudal nagusi batzuk, XIIn Alfonso gura eben errege lez aldarrikatzea, baiña bakean itzi eben, arik eta bera, jakiturian obeto atondu arte.

2. 46. *Ondorengo oarkizun txiki bat.*

Baten batek esango daust orain, nolako ekanduzko motan edo eritzian egon ziran sinismenduta, orduko liberal politikari aiek, Erdi Ugarte edo peninsula onetan ezarri gure ba eben gaur daukagun menperatzaillearen konstituziozko laterri barri orreik?.

Argi dago espainitar lengo gudal politiko aietan, eta gaur daukaguzenaren artean lez, ez dautsiela balio, Goiko-Jainkoagandik gai-Ludi oneri ipinitako legerik, ez ezer, eurak esaten daben lez "Por el destino en lo Universal" euren naiezko "Nacional Catolico" lapur sakratu ori izan ezik.

Eta begitu noraiño izango dan asmatu eben lapurtza orreri egiten dautsoen gurgintza(1), Jainkoaren Lege gaiñetik, gudarako daukien tresneri-indar guztiakaz, prest dagozelako berezko erri ta giza/semearen aurka erabilten. Nizeatik norkeriz erabagita daukien "aberri katolikoaren sasijainkotasunean batzangotzeko Europa ta Mundu osoa.

2. 47. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.*

1.873ko urtean Otsaillaren 14an Liberalak, eupada edo erronka(2) lez artu eben Santa Kurtzen erasoak, eta Gipuzkoako Tolosaren Aldunditik, bere Agirre ordezkari nagusiak 10.000 pezta agindu ebezan Santa Kurtz arrapau egiten ebanentzat.

Eta Santa Kurtzek, Lizarraga ta beste karlisten gudal nagusi esanetan, ez ebalako egiten, eurak aginduten eutsena baiño, karlistak 20.000 pezta agindu eben Aldundiko arduradun nagusi Agirre ordezkariaren buruagaitik.

1.873an Otsaillaren 14an I Amadeok, espainitarren gobernuan egiten ebazanagaitik, eta beren aurka ainbat euki ebazalako, bertan itzi eutson espainitar errege izateari.

Amadeoren utzitasun onen arrazoia, ez da urriñetik ibili bear aurkitzeko, bere ondoan ezartzen ziran liberal demokratikoen artean egon ziralako etsai amorratu aundienak.

Bestela zelan ezkondu, Amadeo berak euki eben Europaren "erdi-demokraziaren sendimeneko izpi argia", bera errege lez aukeratu ebenak euki eben "menperatzaille osoko sendimenduarekin ?".

Nere ustez, gertakizun orreik ez dabe bear adierazpenik, eritzi bi oiek orio ta ura lez, ez daukielako aukerarik nastekatu edo konpontzeko, egia ta guzurra nastekatu ezin diran lez.

1.873ko urtean Otsaillaren 19an liberalak, euren gudal nagusia kendu ta Manuel Pabia ipini ondoren, onek "Bakea eta Foruak" eskaiñi eutsoezan euskaldunai, karlistak euren laguntzagaz indar asko asi ziralako artzen.

2. 48. *Oarpen txiker bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun:*

(1) Gurgintza = culto, adoración. (3) Eupada edo Erronka lez = como una provocación.

VIIn Karlos, espainiarren erregetzagaitik borrokatzen ebala, "ez Foruen" gaitik.

Guk, borrokatzen genuen "Foruen Askatasunagaitik", baiña atzerako erantzun edo ta igorritako argi(1) bat lez, Karloseri lagunduta.

Gure erriko elburuen sinismenean, banakatuta egon giñan, espainiar gudalozteak euken indarraren aurka bakarrik joateko.

Orregaitik egin zan Euskalerrian eta Kataluñan borroka guztiak, espainitarren guda bakarrik izanda, bide batez biak euren kontrolpean eukinda, menperatu gura ebazalako.

Gure orduko askatasunaren garaipena, edo ta Foru jabetzaren itxaropena, VIIn Karloseri lagunduta euki gendun.

Europatik baiña, sasi-arrazoizko almen guztiak, Euskalerri ta Kataluñaren aurka egon ziran, lurralde nagusi onen "merkantilista, katoliko, liberal menperatzailleak" mundu osoa batzangotu ezinik, Europa erazko zati orretan menperatzea erabagi ebelako.

Berezkotasuna kontuan artu barik, gaur daukaguzan aberri barriko laterrietan egokitzeko erabagitu eben, Jainkoaren Lege ta gizaren eskubide guztien gaiñetik.

IVn gizaldian asmatu eben urrezko txekor ori, danok gura nai ez deguna, gurtu daigun.

Mundu onetan baiña, Jainkoaren Legetik kanpo, almenezko bide guztiak euren mugak daukiez, eta egoera larri orreitan agertzen gara gaur, gure eragilletasunezko bizitz au, lapurrezko bizi baten biurtuta daukagulako.

2. 49. ***Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.***

1.873ko urtean Otsaillaren 19an karlisten basa gerlariak, apaizagaitik bideratu, ta euren kontrolpean euki ondoren, euskal batzarreko antolamenduagaz bultzatuta, Otsaillaren 20an Santestebeneko erritik, 20/30 urte bitarteko gazteen bilketa agindu eben, karlisten guda taldeak, indarrezko itxura apurbat artu egien, eta Eliok karlisten gudal nagusiak, lau euskal lurraldeetan bardiñ egiteko agindu eban.

1.873ko urtean Epaillaren 27ko debora onetan, Euskalerrian ez zan egon aurkako guda gogorrik, Kataluña aldean egon ziralako borroka latzetan, egun oneitan Barzelonaren lurraldean, Bergarako errian egin zan antzera.

1.873ko Jorraillaren asieran, Elio ta Dorregarai karlisten gudal nagusiak, Bizkaitik ibili ziran, mutil gazteak euren guda taldeetan lerrokatu zitezen.

Eta Loraillan, Elio gudal karlista nagusiak, Euskalerriko beste lurraldeetara lerrokatze ori zabalduta, sasi gudako taldeak ugaritu ta gudaloztearen prestakuntz ona artzeko, etsaien indarrak pareko edo gitxiagoak ziranean borrokatzen dira bakarrik, bien bitartez liberalaren aurkaritza, zirikatzeko bakarrik ibilita.

1.873ko urtean Loraillaren 5ean Dorregarai, Baldespinako markesa, Lizarraga, Ollo, eta Radika(2) karlisten gudal nagusiak, Nafarroako Eraul errian egon ziran, eta Nafarroako 1º, 2º, eta 3º taldeak Azpeitiko taldeagaz euki ebezan 2000 gudariekin, Santxez Breguaren liberal gudaloztea menperatu eben.

Eta kendu eutsien kañoia, aldatzen ziran erri guztietatik joan ziran erakusten, andrak kañoi ori, garbitu eta labaindu ondoren, dirdaitsu(3) apaintzen ebena.

(1) Atzerako erantzun edo igorritako argi bat lez = respuesta refleja, o a traves de. (2) Radika = Diaz de Radatar Claudio gudal nagusiaren izen-gaiztoa. (3) Dirdaitsu = Garbito ta labainduz ondoren, dirdaitsu apaintzen ebena = que después de limpiar y alisar lo ponian brillante.

1.873ko urtean Bagillaren 8an Lizarragatar Antonio karlista gudal nagusiak, gudariak Santa Kurtz apaizaren aurka ipinteko, eskutitz bat zabaltzen dau keiñatzaille, eta 9an beste eskutitz bat VIIn Karloseri esaten, berak artu dauazan erabagiak txarto artuta dagozela uste baeben, euken agintaritza bere eskuetan izten ebala, VIIn Karlosek, ez ebena onartu.

1.873ko urtean Bagillaren 13an Lizarragak, Dorronsoro karlista gudal nagusiari be, beste eskutitz bat bialtzen dautso: Santa Kurtzen asierako bizi kondairagaz, Gipuzkoan sortzen ziran eztabaidak errukari zala esaten.

Eta salaketa orreitan Lizarraga berak, Santa Kurtz ezarri ba eban, Santa Kurtzen aurka, eriotzaren zigorra aginduteko zan.

Bitarte orretan, Breguak liberalaren gudal nagusiak, Bizkaiko erri askotik alde eginda bere gudalozteak batzen ibili zan.

1.873ko urtean Lorail/Bagillaren illak eta Uztaillaren lenengo egunak oso mubikorrak izan ziran liberalaren gudalozteetan, Noubilas eta Radolfs Ramonek, Iparralde onen orokorrezko gudal nagusiaren laguntza euki ebelako, a ta guzti karlistak baiña, zoratu ebazan liberalak, emendik eta andik euren atzetik zirikituten ibilita.

1.873ko urtean Bagillaren 6an gaiñera, Kataluñako liberal gudariak euki eben naigabeagaz, espainiar gortekoak ez ebalako dirurik bialtzen gudaloztearen ordainketarako, auek guztiz matxinatuta, gudal nagusiak il ebezalakoen keiñada edo ta zemankuntzakin ibili ziran, gudal nagusiaren agindutik kanpo, eleizetatik mezontziak lapurtzen, andrak, indarrez beartzen, eta Aldundietatik Kataluñako askatasuna eskatzen espainitarrengandik bereiztu edo ta banatzeko.

1.873ko urtean Uztaillaren 9an VIIn Karlosek aginduta, Baldespinako markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, karlisten gudal nagusia joan zan Santa Kurtz apaizarengana, gudu indar eta gudarako euki ebazan tresneri guztiak, Aritxulegiko gaztelua ta bere agindupean egon ziran beste gauza batzuekaz batera emon eiotsezan, eta agiri baten siñatu eben zelan emoten eutsoezan gauza guzti orreik, Santa Kurtz apaiza Frantzira atzerriratuta.

2. 50. ***Karlistaren arteko gertaera oneik:***

Antonio Piralaren "Historia contemporànea" liburuko bigarren atalean 1.843tik XIIn Alfonren eriotzararte, 1.011, 12, 13 ta 14garren orrialdetan aurkituko dozuez.

2. 51. ***Karlisten gudako aria ostera bereskuratuz.***

1.873ko urtean Uztaillaren 16an Eraulen, Dorregarai karlista gudal nagusiak, liberalaren gudalozteari irabazten dautse, eta ekintza onegaitik VIIn Karlosek Dorregarairi, Erauleko markesa izendatu eutson.

1.873ko urtean Uztaillaren 16an VIIn Karlos sartzen da Nafarroara Dantxarineatik, bertan Baldespinako markesa eta Lizarraga gudal nagusiak itxaroten eukezala.

Eta garaipeneko ibilkera orreitan, Zugarramurdi, Baztan, Arizkun, Labayen, Leiza, Lekunberri eta Irurzunetik, karlistak Iruña ondoko Ibero erria berrezkuratu ebenean, bertan geratu ziran, gero Amezkoasetik, Araba ta Trebiño aldera igarota, Urduñatik Bizkaian sartu

ziran, eta Gernikara Dagonillaren 2an eldu ziranean, VIIn Karlosek bertan, gure Foruai ziñez itz emon eutsezan.

Denbora onetan, Gipuzkoan egon ziran basagerlari guztiak, apaizagaitik bideratuta egon ziran, eta Andoaineko apaizak liberalari aurka egin ondoren, 40 gudari Tolosara eroanda atxilotu ebezan.

Uda onetan, Euskalerriko erri geienak jausten dira karlistaren kontrolpean, ostera sortuta, 1.835eko urtean Zumalakarregigaz sortu zana:

-Bilbao eta Portugalete izan ezik, Bizkaiko erri geienak.

-Gipuzko guztia, Tolosa, Donostia eta Irun izan ezik.

-Nafarroa guztia, Iruña, Estella eta ibaiondoko zati bat izan ezik.

-Eta Araba guztia, Gazteiz eta Biazterri(1) karlisten kontrolpean euki ezik, Euskalerri osoa egon zan karlisten agindupean.

-Madrilletik etorten ziran su-gurdiak ez ziran Ebroko Mirandatik aurrera joan 1.876ko urterarte.

1.873-1.876 urte auetan karlistak, euren aldera irabazten ebazan erriak, laster ipinten ebazan gure Foru Aldundiko batzarpean euskal politikako banakaritzan, euren erregezko gobernu antzeko bategaz.

Jaurkintza, nimiño errege(2) antola baten antzera, erregeari ta ministruaren batzari egokitzen jakon, eta Foru Aldundiakaz batera jaurkituta, Euskalerrian auek izan ziran benetako ordezkariak.

Goi Maillàko Errege Batzar izenean Euskalerriko epaikaritza, Elio ta Ezpeleta gudal nagusiak zuzendu eben.

1.873ko Uztaillaren azken onetan Endetxagatar Kastor koronel ordezkoak, Enkarterri ta Menako ibarrekoak matxinatu ebazan, bera gudalozte orren agintari ipinita, eta gudari talde nagusi bat lerrokatzea lortu eban.

1.873ko urtean Dagonillaren 2an, VIIn Karlosek Zornotzatik Gernikara joanda, gure Foruari, ziñez itz emon eutson.

1.873ko urtearen Dagonillan, karlistak Eibarko erriagaz egiten dira, eta izkillu ta izkilluaren tiroi ta tresneri askogaz egin ziran.

2. 52. (10) *Arana eta Goiri'tar Sabin.*

1.873ko urtearen Dagonillan, Arana ta Goiritar Sabinok 8 urte eukezala, bere ama Paskuala, arreba Paulina, Sabino baiño sei urte zarragoa zana, eta Koldobikaekin batera, Ego Euskalerritik iges egin bear izan eben Lapurdira, bere aita Santiago euki eban diruagaz, karlista gudari mutillak izkilluz tresnatzeko ibilita, iges egin bear ebalako.

2. 53. *Karlisten guda ostera berreskuratuz.*

1.873ko urtean jaio eta 1.879ko urtean amaitu zan, "El Correo Vascongado" argitaratu zan aldizkaria, ta Delmas ta Truebak argitaratuko dabe "La Correspondencia Vascongada".

(1) Biazterri = La Guardia erria Arabako Errioxan. (2) Nimiño erregetza = monarquia en miniatura.

1.873ko urtearen Dagonillaren 6an, 1.870ean autatu zan Aldundia ezarri zan barriro.

1.873ko urtean Dagonillaren 9an, karlisten "El Cuartel Real Aldizkaria" argitaratu zan, gudaren barriak emoteko:

-Moralestar Salbador, bere anai Pabloren laguntzagaz, Tolosa, Durango, Oñati edo ta Lizarran astebiko epean argitaratzeko aldizkaria eskaiñi eban, Zaragozako lurraldean Darokatik Aldundiko arduraduna izan zanaren, Gomeztar Balentinen zuzendaritzapean.

1.873ko urtean Dagonillaren 12an Andetxagatar Kastorrek, Bilbo irugarrenez inguratu gure dau, eta 1.836ko urtean sortu zana ez egian gertatu, Portugalete inguratuz, asten dau Bilboko eraso aldia.

1.873ko urtean Dagonillaren 13an Dugiols liberalaren gudal nagusiak, Loma gudal nagusiaren aginduz, bere gogozko mutillakaz eta errian liberalen alde itz emonda egon ziran erritarrekin urtetan dau Oñatitik, andik aurrera, VIIn Karlosen gortea izango zana, Durango, Tolosa, eta Lizarrarekin batera.

1.873ko urtean Dagonillaren 15ean, Lizarraga karlisten gudal nagusiak bere gudariekaz Bergarako errian, 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Esparterok eta Marotok siñatu eben itun edo egiuneko agiririak ango oroikarrian egongo ziralakoan, ezereztu eban au, eta agiriak ez ebazalako aurkitu, beste paper batzuekaz, itxurazko ordezkotza egin eben, agiri areik erre ebezalakoan.

1.873ko urtean Dagonillaren 20an karlistek Bilbotarrai, iturriko ura ebagiten dautsoe.

1.873ko urtean Dagonillaren 22an IIn Isabelek, eukezan legezko almen guztiekaz, bere seme Alfonsoren alderdiko agintari bakarra izendatu eban Del Kastillotar Kanovas, Alfonso semea ta Isabel alabea aurrean direla, bai eta Kanobasek, bere baldintzak ipini ta gero, IIn Isabelek on artu ebana.

1.873ko urtean Dagonillaren 23an espainitarrak, XIIn Alfonso, erregetzat aukeratu eben.

1.873ko urtean Dagonillaren 24an, 20an Bilbo inguratzen asita, ingurutasun ori estutu orduko, atze aldea babestu bear izan eben karlistak, eta orretarako Lizarra, Biazterri, ta Tolosa artu bear izan eben, lenengo borroka gogor baten ostean, Lizarra artuta.

1.873ko urtean Dagonillaren 25ean Liberalek, Lizarra gure dabe ostera berrezkuratu, karlista gudariekin Dikastillon borrokatuta, baiña galtzaille urten eben eta Lizarra Karlistaren eskuetan geratu zan, VIIn Karlos borroka orren ikusle izan zala.

Bien bitartean Biasterin, Zurbanotar Migelek, sasigudaren aurkako beste sasi gerlari talde bat sortarazteko alegiñean egonda, erria be sendotzen asi ziran, karlisten erasoai aurre egiteko.

1.873ko Dagonillaren erditik aurrera, 3garrenez inguratzen dabe karlistak Bilbo, Uri barruan guztiz, 40 kañoiakaz egon ziran 4.000 erritar ta gudarien aurka.

Eta Bilbaoko inguratze ori aurrera eroateko, Belasko karlista gudal nagusiak antolatuta, prestu ebazan karlistaren guda indarrak:

Kontuan artuta, talde bakotxaren gudariak, 800enetik gora izan zirela.

1.- Ipiñatar Juan koronel ordezko aginduan, Arratiko taldea.

2.- Etxebarritar Martinen aginduan, Arratiko taldea.

3.- Altarribatar Ramonen aginduan, Durangoko talde bat.

4.- Gorordotar Sarasolaren agindutara, Markinako taldea.

5.- Seko ta Fontetxatar Joseren agindutara, Bilboko taldea.

6.- Gorordotar Sebastianen agindutara, Mungiako taldea.
7.- Iriartetar Leonen agindutara, Gernikako taldea.
8.- Bernaolatar Kasianoren agindutara, Urduñako taldea.
9, 10enak.- Adetxagatar Kastorren koronel ordezko agindutara, Enkarterriko taldeak.
11.- Bruyeltar Antonio koronel ordezko agindutara, Gaztelar Zid´en eiztariak,
12.- Santxez Naranjotar Telesfororen agindutara, Gaztelar Arlanzoneko eiztariak.
13.- Noriegatar Felixen agindutara, VIIn Karlosen emaztearen Margarita izeneko zaldun taldea.
14.- Garzia Gutierreztar Julian kapitaiñaren agindutara, mendietarako kañoiezko sail edo lerrokada bat.
15.- Jauregitar Gerbasio komandantearen agindutara, tresneri, diru, jantzi ta janariaren banakuntzak egiteko talde bat.

1.873ko urtean Iraillaren 2an Bizkaiko karlistaren Aldundiak laguntza andia bear izan eben, karlistaren gudalozteak diruz, jan-edari, izkilluaren tiroiñak eta gudarako bear ebezan tresneriekaz ornitzeko.

1.873ko urtean Iraillaren 6an gauza orreikaz arduratzeko, batzorde bat aukeratu zan Orueta´tar Markosen agindupean, Basterra´tar pedro, Legarreta´tar Bittor, Egidazu´tar Zezareo, Bernaola´tar Agustin, Martinez´tar Jose, De la Kina´tar Bernardiño, Laskoaga´tar Manuel, eta Sagarduy´tar Antoniok osatzen ebena, gero Zamalloa, Unzaga ta Llonagaz andiagotu ebena.

Eta beste karlista batzar bat be egin zan, gudalozteak bear ebezan gudu tresneriakaz ornitzeko, Zabala, Zugazaga, ***Aranatar Santiago***, Lameu, Epalza, Sollano ta Aldekoa gaitik osotuta geratu zana.

1.873ko urtean Iraillaren 6an espainiar gobernuan Kastelartar Emilio aukeratu eben 133 autarkirekin, Pi ta Margall´tar Franzizkok 67 lortu eben aurka.

Kastelar au, euskaldunen eritzitik begituta, naita berak errepublikanoa zala esan, goitik berako konstituzonalista izan zan, eta orduan naita ez, sasikatolikoen mercantil liberalaren aginduten ebazan arau legearen adostasunean egon zana, bera Askatasunezko Demokrata eta elkar zaletasunaren(1) aldekoa zala aldarrikatu arren.

Nork aitu ?.

Menperatzaille sutsu bat dan espainitar Konstituzioaren aldekoa izanda, naita Aberats Kai edo Puerto Rikon joputasunezko(2) legeak kentzeko agindu gogorra emon arren, Errepublika eta Askatasunezko Demokraziaren zale-itsua dala bera ?.

Zelango gogo edo oldozmena euki eban, euskaldun eta Katalanaren eskubidearekin ?.

Ortik ikusi geinke argi, zelako askatasunaren bizitz itxaropentsu euken erdi ugarte edo peninsula onetan bizi diran erri ezberdiñak, katoliko ta merkantillezko menperatzail oneik eukezan maltzurrezko eta guzurrezko gogamenaren aurka.

1.873ko urtean Iraillaren 9an karlistek, itzaldi batzuk emon ebezan Bergaran, Bizkaitik Piñera, Antuñano eta Saratzu joan da, Gipuzkoaren aldetik, Dorronsoro, Berzosa, Unzeta´tar Manuel, ta Biñuela, eta Arabatik, Barona, Mendieta ta La Guardia.

Nafarroako batzarraren arduradunak esan eben, eurak ezin ebela joan itzaldi orreitara eta

(1) Elkar-zaletasunaren- federalista, o, a favor de cantonalismo, con un poco de libertad autonomica, que es lo que hoy tienen implantado. (2) Puerto Rikon edo Aberatzaren Kaian joputasunezko legeak kentzeko, agindu gogorrak agindu aren = aunque en Puerto Rico mandaron con leyes muy duras abolir la esclavitud.

beste itzaldi batzuk antolatu egiezala eskatuta, Bergaran egin ziran Azaroaren 15ean.

Ekitaldi onen ostetik Azpeitia, Plazenzia, Eibar, Elgoibar, Berako burniola, Araozko Bergatar Romualdoren lerrauts lantegia, eta Bizkaiko gudu lantegiak bizkortu ziran, Beljikara joan eta eukezan tresnerien utsunak erosi, karlisten gudalozteak bear ebenagaz ornitzeko.

Lau lurraldeen Aldundiak eroan eben Karlisten jaurkintzazko lanen ardura nagusia, euren artean baiña, Gipuzkoakoa bereztu bear dogu, bere aurrean egon zan Dorronsorotar Migel kementsua, aipagarrienetarikoa izan zalako.

Andrazkoak be, ez ziran atzean geratzen, alargunduta egon ziran Arrindatar Sebastiana, ta Uzelaytar Petrak 6.000 longain(1) gudal jantziak bear ebezanakaz eta guzti, emon ebezalako euren zarpeletik ordainduta karlista gudarientzat.

1.873ko urtean Iraillaren 13an espainitar gobernuak, Santxez Bregua Iparraldeko liberal gudal nagusiak ezin ebalako ezer egin karlistaren aurka, Moriones ipinten dabe euren gudalozte agintari, eta onek gudariai errepublikaren arimako izpiritu barriagaz biztuta, Gazteizetik Iruñarantza joaten da bere 12.000 gudariekin Urrillaren batean Larraganen sartuta.

1.873ko urtean Iraillaren 13an espainitar gobernukoak, Bregua gudal nagusia kentzen dabe gudaloztearen agintaritzatik, eta Moriones ta Murillotar Domingo Orokietako markesa ipinten dabe, Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztearen agintari.

1.873ko urtean Iraillaren 21ean Moriones liberalak Gazteizetik, agiri bat zabaldu eban zemaika edo larderiaz Euskalerri osorako, euren agintari zaintzaillezko agindupetik kanpo egon ziran udalerri eta lurralde nagusietako apaiz eta alkateak beartzen, euren legezko agindu onegaz:

"Jakiten ebenean liberal gudalozteak euren tokietara doazela, bakotzaren erriko ateetan baiño 300 metru aurrerago kokatuta egon bear zirala arduradunak prest, gudaloztearen agintari aurrean aurkeztu egiezan, euren gudalozteetarako emon bear ebezan mutil gaztearen kopuruak, ia ordainduta eukiten ba ebezan, agiriak".

1.873ko urtean Iraillaen 30ean Durangotik, agindutako agiriak erakusten dauan lez, eta urtearen amaierarako, Kataluñako karlisten guda indarrak ia lurralde guztia euren eskuetan eukinda, ez eben jakin egoera orretatik ezeren onurarik artzen, gudal nagusiak euren arteko etsaikeriakaz geiegi arduratuta egon ziralako.

1.873ko urtean Urrillaren 6an Morionesek, Mañeruko Santa Barbara mendietan aurkezten ziran Ollo, Rada, Mendiri, ta Argonz karlista gudal nagusiekin, egin eban borrokan, bardiñ antzera urten eben, naita liberalak il askoz geiago euki.

1.873ko urtean Urrillaren 6an liberalak, Migel Zurbanogaz aurkako basa gerlarien talde bat atonduten egon ziran bitartean, Biazterriko karlistatik babesteko. Liberalaren gudal nagusiak Lizarra berrezkuratu gure dabe, eta Mañerun Mendiry karlista gudal nagusien agindupean egon ziran guda indarrakin borrokan asita, liberalak ondo astinduta urten eben.

2. 54. (11). *Arana-Goiri Sendia.*

1.873ko urtearen Urrillan Arana ta Goiritar sendia, Baionan kokatu zan, eta Luis ta Sabino Rua de Espagnen dauan San Luis Gonzagaren iraspeneko ikastetxean, gaur Le

(1) 6.000 longain = capas o, capotes para los soldados.

Guitxot izenagaz ezagutzen dana, emon eben izena 1.873/1.874 eta 1.874/1.875 urteko ikasketak, Donibane Loitzunen beteteko, eta azkeneko azterketak Ondarribin egiteko.

2. 55. *Karlisten guda ostera berreskuratuz.*

1873ko urtean Urrillaren 6an liberalak Lizarra artu gurean, galtzaille urten eben.

Azaroaren 7, 8, ta 9ko egunetan, Moriones gudal nagusiak, Lizarra berrezkuratzera joan zan ostera, eroan ebazan 11.000 gudariekin, eta Jurramendin(1) 9.000 karlista gudarien aurka borrokatuta, Morionesek egunduko astiñaldia artuta, alde egin bear izan eban.

-Ille orretan Biazterri karlistek berrezkuratuta, eta beragaz Arabako erri geienak geratu ziranez karlisten kontrolpean, Biazterri ipini eben gudaltegi lez, Errioxaldetik egingo ziran ekitaldiren asiera izan zediñ.

1.873ko urtean Abenduaren 2an Moriones liberal gudal nagusiak, Belabietako borrokan, karlistak Tolosari inguratzeko euken prestaera apurtzen dautsez.

1.873ko urtean eta Abenduaren lenengo egun onetan, Santa Kurtz apaizak egin ebazanak Lizarraren aurka, (Santa Kurtzen bizi kondairan esaten dodazenak), gudari karlistentzat, mendeko eritzitik urten edo ta biozkatzeko gauzak(2) izan ziran.

1.873ko urtean Abenduaren 9an, Moriones ta Loma gudal nagusien gudalozteak bat eginda, Belabietako mendiaren inguruari erasotzeko, eta Tolosan sartzeko prestuten egon zirala, Lizarraga karlistaren gudal nagusiak, bere gudal nagusiakaz, Tolosaren babesa asi zan prestuten Moriones eta Lomaren gudalozteari aurre egiteko.

1.873ko urtean Abenduaren 10ean, Santa Kurtz apaizak, Frantzira joateko bidean egoala Anzuolatik, eskutitz bat bialdu eutson Dorronsoro gudal nagusi karlistari, beren aberkidetza aurkezten, eta Lizarragaren aurka zergaitik egin eban egin ebana adierazteko, egun bat eskatuta berarekin alkar izketa bat eukiteko, arazo orrei, urten bide bat emoteko itxaropenean.

Dorronsororen erantzunda: zelan "agintari lez, aizatu edo bere atzean jarraian ibiliko zala bera arrapatu arte" esanda, eta bide batez aolkua emonda, Frantzira atzerriratu zedin.

1.873ko urtean Abenduaren 21 eta 22ko egunetan, Moriones eta Loma liberal nagusiak, ezereztu ebezan Tolosa ta Gipuzkoako alde ori menperatzeko euki ebezan antolakuntzak, eta Santanderrera joan ziran gudalozteak obeto prestuten.

Karlistak sasoi osoan ostera, indar berritu edo sendotuta, ta Gipuzkoako inguru orreik babesteko antolamenduak eginda, Azpeitian, emankortasun osoan ipini ebezan, lerrotu barri ziran gudari gazteak ikasi egien, kañoi, izkillu ta gudu tresnaren lantegiak, gero Bilbo erasotzera joateko.

2. 56. *Ondorengo oarpen labur bat.*

Argi ikusten da emen be, espainitar liberal gudalozteak, ez ebela iñungo premiñarik euki, Erdi Ugarte au, Europako liberalak agindu eben legedian, eta 1.812an espainitar gudal nagusiak sortu eben Kadizeko konstituzioaren legepean ezarri gindezan asko kostata be.

(1) Jurramendi = Montejurra. (2) Mendeko eritzitik gabetzeko edo ta biozkatzeko = indisciplinarse y desanimarse.

Jakin ebelako, denboraren luzeetara, eurak izango zirala garaille. Karlistak ez ebelako dirurik, ez gazterik, eta ez tresneririk be euki, borroka luze baten jokatzeko.

Sasi asmakizunarentzat, aurrerazko urbil ta urrunera begituz, bear zan indarrezko almen guztia euren eskuetan eukinda eta maltzurtasunez jokatuta, Menperatzaille elburu orreik izan ziran arduratzen ebezanak bakarrik, Europa eta munduko errigizarteak, euren norkerizko asmakerian edo serbitzuan bizi gindezan.

2. 57. ***Karlisten guda ostera berrezkuratuz.***

1.873ko urtearen Dagonillatik, Bilbo inguratuta egon arren, Bilbotarrak bear ebezan janari ta borrokatzeko tresneri guztiak, Portugaleteko bidetik ekarten eutsiezan.

1.873ko urtean Abenduaren 29an baiña, peninsula onen Iparraldean ezin ezik, beste lurralde guztian, gudaren eten antzeko bat sortu zan, eta karlistak euren indar guztiekin Bilbo eskuratzen saiatu ziran.

1.873ko urtean Abenduaren 29an Bilbo babesteko, barruan egon ziran liberal indarrak: 27 gudal nagusi, 260 gudalburu, 40 kañoi, eta 4.826 gudari ta erritar, eta 204 buru zaldi ta mandoen artean osotzen ziran.

Bilbaoko zeaztasun guzti auek aurkitu gura ezkero: Etxebarriatar Marianok idatzi eban "Bilbao ante el bloqueo" 1.873/1.874ko bonbaketaren liburuan aurkituko dozue.

Orretarako karlistek, Ibaizabalean Olabeagatik, Las Arenas eta Portugaleteraiño, liberal gudarien itsas untziren joan etorriko ibilkerak geratzeko, ibaian, kateak zabalduta zarratu eben, eta edateko ura ebagi eutsoenean, Bilbo, guztiz inguratuta geratu zan.

1.873ko urtean Abenduaren 30ean Dorregarai karlista gudal nagusiak, Portugalete asten da inguratzen, bide batez Baldespinako markesak, Zubi Barriren mendiko goi aldia, Santo Domingo, Artxanda, Ollaran, Zorroza, Arnotegi ta Basurtoko mendi barrenetik gudariak zabalduta.

2. 58. ***1.874ko urtean agertutako aldizkariak:***

-"Bizkaiko lurraldearen agintezko aldizkaria".

-"El Eco Bilbaino", Kosme Etxebarrietak eta Laskuraiñek argitaratakoa.

-"Irurac-bat", de la Muela ta Udondo´tar Rikardo bere zuzendari zala.

-Delmas eta Truebak irasitako "La Correspondencia Vascongada".

-"La Guerra" Etxebarrietatar Kosmek eta Laskuraiñek argitara ataratakoak, askeneko aldizkari onek "Noticiero Bilbaino"n aldatuko zana.

-"El Eco de los Voluntarios" Laherran´ek argitaratakua. Bilboko eiztari gudarien aldizkaria izan zana.

-Eta 1.869ko urtean ertsitu ta berriz agertu zan "Euskalduna" aldizkaria.

Emen argi agertzen da ze garrantzidunak izan ziran Bilboko Uri ta beren inguruko erriak.

2. 59. ***Karlisten guda ostera berreskuratuz.***

1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabiak espainitar gudal nagusia matxinatu, eta I errepublika ezereztuta, bitarteko eskubitar jaurkintz barri bat sortu eban, Serranoren agindupean ipini ebana.

1.874ko urtean Urtarrillaren 8an baieztu zana.

1.874ko urtean Urtarrillaren 21ean Portugalete jausten da Andetxaga karlista zarraren eskuetan, 2.000 kañoien lerkaien eztanda igaro edo eutsi ondoren.

1.874ko urtean Urtarrillaren 22an Amos eta Kijadatar Muñiz liberalen gudal nagusia, Dorregarai karlisten gudal nagusiai etsaimendu zan, eta karlistak alde bietatik lerrotuz ta izkilluak aurkeztuta, liberal gudariak lerrotuz aldatu ziran karlista gudarien erditik, errege erakundearen abestiko doñuakin.

Eta Andetxaga geratu zan Portugaleten, Enkarterri ta Nafarroako gudari taldeakaz.

VIIn Karlosek Andetxagari ekintza onegaitik, Dorregarai gudal nagusiaren ordezkoa izenduz gain, zelaiko mariskala be izendatu eban, Patero ta Rada general ordezkoan, Kalderon koronel izendatuta.

2. 60. ***Gogora ekarteko oar txiki bat.***

Eta emen beste geraldi bat egin bear da, itaun au gogora ekarteko:

"Gure Euskal gizarteetan, zergaitik batzuen (asko ezango neuke nik) sendipenetan ezarri zan karlistaren izatasuna, karlistak espainiarrak izan ba ziran ?".

Euskaldunak, gure Foruen legeagaitik borrokatu giñan, Vn, eta VIIn Karloseri laguntza eskeiñita, Foru Legeak, euren erri ta beste atzerriko erritarrentzat, lotsorkotasunezkoak edo adeitsuak izan zitezen.

Argi ikusten da, euskalgizarte arteko geienak, ez ebela euki orren arazoaren barri edo argibiderik, denbora aietako errigizarteetan bearraldi edo ta bizitzeko premiñ andiak egon ziran, agertu barriak ziran Euskal arazo orreik arrazoiz ulermentzeko, eta izatezko arrazoi orreik, ez genduzelako zuzendu, oker ulertukoak sendotu egin jakuzan.

Errigizartearentzat, gudabidez sortzen diran naztezko zurmur edo lokatztutako oiartzunak, indar geiago eukien arrazoiarenak baiño, arrotzak menperatzaillearen lanak egiterakoan, daukien "VENI, VIDI, VINCI" indarkeri guztiagaz beti lez erasotzen ebelako, eta guk erlijiotik asita, bear genduzenak euren kontrolpean egon ziralako, beti kosta izan jaku, bear doguzenak berrezkuratzen.

Eta Menperatzailleak, maltzur-nazte orreik sortzea, ikur lez daukielako, ezjakiñaren arloetan arrapatuta dagozenetatik, beti jausiko dira batzuk baiño geiago lokatz orretan.

Bai eta ainbat diru zaleen artean, naste orreik emoten dauazan maltzurrezko aukera bidetik, norkerira biurtzen diranean, Ekanduzko sinismen arloak ustu egiten dira, gaur gertatzen jakun lez.

Euskaldunak sekula ez gara izan karlistak, gure Baitan oituratutako Nortasunaren zentzuzko zeaztasunak, ori baiño askoz ariñago "Lege Zarrakin" egokitu genduzelako.

2. 61. ***Karlisten guda berreskuratuz.***

1.874ko urtean Otsaillaren 1ean karlistek, Portugalete inguratu eban, eta kañoiaren leerkaiekin erasotzen dabe.

1.874ko urtean Otsailaren 1ean, liberal gudalozteak Morionesen agindutara, Sonsierrako San Bizentetik urtenda, Urizarreko mendikateak(1) ta Biasterriren inguruko erriak, mendetu gure dabez, eta Llorente ta Otxagabia karlista gudal nagusiak, premiazko estura larrian egokituta, Morioneseri iru erritar mezulari bialdu eutsoezan, eurak etsaimentzeko itun baldintzakaz. Morionezek, onartu ebezanak, eta Primo de Ribera gudal nagusia ta Blanko koronela Biasterriko Urian sartuta, karlistek atxilotu ebazan.

1.874ko urtearen Otsaillako 2an Llorente eta Otxagabia karlista gudal nagusiak, Morionesekin egin eben elkargoko itungai bidetik, onek gudariai izkilluak itziazo ta gero, bakotxa bere etxeetara bialdu ebazan.

Erabagi oneik artu ziralako, zalantzazko eztabaida andiak sortu ziran liberal gobernuan, erabagi bigunak artu ziralako karlistekin.

Liberalentzat baiña, denbora aiek ez ziran onak izan, alako erabagizko zigor gogorrak artzeko karlisten aurka, Pabiaren matxinatasun ostetik Madrilleko gobernuan, konpondu ezinezko aukerean ibilita euren arteko zalantza andiak euki ebazalako, errepublika edo elkar zaleko jaurkintza baten ezartzeko gora berak euki ebazalako.

Eta danez gain, Euskalerri, Kataluña ta Galiziagaz, erri iltzaillearenak egiten egonda, Kadizeko konstituzio ori menperatzail eta guzurrezkoa izanez gain, ez ebelako jakin, zelango arautegian ezarri bear ebezan Erdi Ugarte onen lurraldeak, bereztasunezkoaren egia, nabarmengarria dalako.

Orregaitik itanduten dot emen:

"Gure apaiz-lekaide aberkide geienak, espainitar konstituzio menperatzaillearen aurka, beti borrokatu diranak, eta orregaitik katolikotasunezko aberkidearen aurka, gaur arte, konturatu ez, beren erpeak IVn gizaldean, Nizean egin ziran eleiz Aberri-katolikoen batzarretan eukezala. Nabarmeneko osotasunean, Goiko Jaungoikuak Izadi oneri ipini eutsoezan arau-sortaren aurkakoak izanda ?.

Siñezmena, ez da sekula be itsua izan bear, abertzale katolikuak esaten daben antzera, euren menperatzaillezko egarriak asetzeko. "Jaungoikuak, argi itzi ebazalako lege guzti orreik, sortu Eban Izadi onetan, berak daukazan legeakaz, danontzat edo gaia, abere ta gizarentzat, bardiñak diralako".

1.874ko urtean Otsaillaren 12an, karlisten Foru Aldundiak aginduta, Oñatiko ikastetxe nagusia zabaldu ta leneratu egiten da.

1.874ko urtean Otsaillaren 19an, karlisten basa gerlari apaizagaitik eragin ta bideratuta euki ondoren, Bizkaia osoa euki eben euren jabetasunpean, Bilboko Uria izan ezik.

1.874ko urtean Otsaillaen 20an Bilboko Alkate zanak Uragontar Felipek, karlistaren lerkai erasoari aurre egiteko, agiri baten, araudi batzuk aldarrikatzen dauz, Bilbotarrak gertu egon zitezen.

1.874ko urtean Otsaillaren 21eko goizaldian, ainbat andra eta ume urten eben Bilbotik Atxuriko kaletik, lerkaien erasoko inpernutik alde egiteko.

1.874ko urtean Otsaillaren 21ean karlistek Bilbo bonbakatzen asten dira, Pitxon, Kintana, Artagan, Mendiko Etxe, Ollargan, eta Santa Monikan euki ebazan kañoiekaz.

Somorrostroko bidea, Rada, Andetxaga, Ollo ta Eliok babestuten eban.

(1) Urizarreko mendikatek = Sierra de Peñacerrada.

1.874ko urtean Otsaillaren 22an Portugalete etsaimenduta(1) eta Desierto ta Lutxanako babes lekuak karlistek eskuratuta, Bilbo bakartu(2) egiten dabe, eta Gernika, Durango, Markina, ta Mungiako taldeakaz inguratu eben.

1.874ko urtean Otsaillaren 22tik aurrera, karlistak Bilbaoko Criaren aurka, geratu bako bonba erasoan asten dira.

1.874ko urtean Otsaillaren 24an Moriones espainiar gudal nagusia Somorrostrotik agertzen da beren errepublikano gudalozteakaz eta karlistak prestatzen asten dira aurre egiteko.

1.874ko urtean Otsaillaren 25ean, Ollo, Rada, Endetxagatar Kastor, eta Elio gudal nagusi karlistak, Bizkaian batuta eukezan gogozko mutillak, Aragon, Nafarroa, eta Gipuzkoako, gudu taldeakaz zabalduz, atondu ziran Morioneseri aurre egiteko, eta ikaragarrizko astiñ ederrak emon eutsezan karlistek errepublikako gudalozteari, urrengo egunean zelaiko gudan ikusi ebenagaitik.

Morionesek, Lamindano, Enkarterrietan eta Menako ibarretan artu ebazan jipoi bidez, itsasoz, Santanderrera joaten da.

Borroka au, Somorrostron egin zan lenengo borroka izan zan.

1.874ko urtean Otsaillaren 26an Morionesek ezin ebalako karlisten aurka, eta Madrilleko gobernuan arritasuna sortu ebalako, onek espainitar gortekoai, gudari geiago eskatu eutsezanean, gudal agintari nagusi bat geiago be eskatu eutsoen, gudaloztearen aginduagaz arduratu zedin, Madrilleko gortekoak, Serranotar Franzizko dorreko dukea bialduta.

1.874ko urtean Otsaillaren 28an karlistek, Bilbaon jasankor(3) ibili ziranai, agindu bat bialdu eutsen etsaimendu zitezen, eta Kastillo errepublikako gudal nagusiak, Bilboko Urian agintari nagusia izan zanak, ezetza emon ondoren, bonbaketaren erasoa aurrera egin eban.

1.874ko urtean Otsaillaren 28an VIIn Karlosek, Zeballos karlista gudal nagusiari idatzi eutson eskutitzan, auze esaten eutson: *"gogozko gudari ta Gipuzko lurralde osoan, Santa Kurtz apaizari Frantzitik sartzen zanean laguntzen eutsoenai, saltzaille edo judas lakoak artzeko esaten eutson, eta kontu andian euki egiezala, tiroz ilteko artzen ebanean".*

Zeballosek, Zabalatar Ladislao bialdu eban Santa Kurtz apaizarengana, erabagi oneikaz oartu zedin.

*Santa Kurtz abadeak ostera, Zabalatar Ladislao gudal nagusia bere erantzunagaz Zeballosengana bialduta: "**berak ez ebala ezer egingo ziurtza emon eutson**" eta VIIn Karlosen parkamena berriro eskatzen ebala esaten eutson.*

Zeballostar Ermenejildok baiña, Santa Kurtz apaizarekin ez ebalako ezeren usterik euki, oso zelatuta euki eban Ziburreko Madame Duport egon zan etxean.

1.874ko urtean Epaillaren 3 eta 4garrenengo egunetan, Bilbao ta Begoñaren aurkako bonba erasoak geiagotu egiten dira, eta bilbotarrek, 1.836ko urtean euki eben eraso bardiñ antzerakoan aurkeztuta, erantzun bardiña emon eben.

1.874ko urtean Epaillaren 5ean, karlisten kañoi taldeak lerrauts edo bolborarik gabe aurkezten ziran, eta Bilbo barruan egon ziran karlistekin eukiten ebezan sarriko ukiketa bat eginda jakin eben, liberalak zelan etxe baten ostonduta euki ebezan 304 ontzi lerrauts beterik, eta talde karlista bat gabaz Bilbon sartuta, bolboraren ontzi guztiekaz egin ziran.

(1) Etsaimendu = rendirse. (2) Bakartu = aislar. (3) Jasankor = paciente, sufrido, resistente.

1.874ko urtean Epaillaren 5ean karlistek borroka gogor baten bidez Tolosa, liberal eskuetatik berrezkuratuta, VIIn Karlos sartu zan Urian garaitzaille, karlistek Gipuzko lurralde osoa eskuratuta, Donosti ta Irun izan ezik.

1.874ko urtean Epaillaren 12an Serrano ta Domingeztar Franzizko Torreko dukea, espainitar errepublikako lendakaria zana, eta Moriones ta Murillotar Domingo, Orokietako Markesari ikusten jakie somorrostrotik agertzen, 30.000 gudariekin.

1.874ko urtean Epaillaren 17an espainitar Serrano lendakaria, Sopuertan asten da kañoi bidez, karlistei erasotzen.

1.874ko urtean Epaillaren 18 ta 19ko egunetan karlistek, Begoña ta Bilbo gogor astintzen dabe kañoiakaz, ia etsaimendu edo menpekotu egiten ba ziran, baiña alperrik izan zan.

Ordurako karlistek, Begoñako Ama Birjiña, Santos Juanes edo Justo ta Pastor´eko baselizan egon zan lekutik, Zornotzako karmeldarren lekaidetxera eroan eben babesteko, berton guda amaitu eta Begoñako Santutegia konponduarte egoteko itxaropenagaz.

1.874ko urtean Epaillaren 19an gudalozte liberalak 20 itsasontziekin, Portugalete ta Algortatik eroaten ebezan gudariak porturatu gura ebazan, baiña itsasoaren denboraldi txarra eta karlisten bonba eraso bidez, alde egin bear izan eben andik.

1.874ko urtean Epaillaren 22an, Santa Kurtz apaiza Ziburren bizi zan Madame Duporten etxetik urten ebanean, karlistek atxilotu eban eta Baionara eroan eben espetxean sartzeko.

1.874ko urtean Epaillaren 24ko egunean Serrano Torreko dukeak, Somorrostroko San Juan kalean ipini eban bere gudaltegia, eta eukezan 48 taldeakin, bertatik asten da antolatzen karlistari egin bear eutsen erasoa.

1.874ko urtean Epaillaren 25eko goizean, Serrano gudal nagusiren kañoiak asi ziran lerkaiekin erasotzen, karlisten babes lekuak.

1.874ko urtean Epaillaren 27an asten dira aurkako borrokak, eta karlistaren aldetik 2.000 il, liberalaren aldetik 4.000 il eta Primo de Ribera ta Lomas liberalaren gudal nagusiak zauritu ondoren, liberalak atzeratu izan bear ebezan euren gudariak, bezperan euki ebazan babes lekuetara.

1.874ko urtean Epaillaren 28an, goizetik asten dira erasotzen liberalak, eukezan kañoi guztiekin, gero gudariekin, eta naita ariñagoko egunean lez, ain gogor ta ainbeste guda indar gogorrakin borrokatuta be. Ez eben euki ezeren almenik karlistek menperatzeko, eta 29ko egunetan borrokaren eten bateko antz baten geratu ebazan erasoak, ilda eta zauritutako gudariak, ikaragarrizko ixiltasun baten, borrokaren zelaitik kentzeko.

Karlistek, Somorrostroko odol jariozko borroka onetan geratu ebezan espainitar gudalozteak bigarrenez, eta ez ziralako egon olangoko beste borroka bat egiteko prest, Elio, Dorregarai, Mendiritar Torkuato, Ollo, Orbetar Juan Baldespinako Markesa, Lizarraga, Andetxaga, Martinez de Belasko, Larramendi, Benabides gudal nagusiak, eta Rada, Oliber, Berriz, Zaratiegi, Yoldi, Zalduendo, Albarez, Lerga eta Aizpurua koronel ordezkoak, VIIn Karlosen agindupean batzartu ziran.

Andetxaga, Elio ta Berriz gudal nagusiak esaten ebena, ontzat artzen eben an egon ziran geienak, eta lenengo gudan Zumalakarregigaz sortu zan antzera, Ollo ta beste gudal nagusi gitxi baiño izan ezik, gure ez arren, Bilboko ingurutasuna aurrera eroatea erabagi zan.

Eta datorren borroka onetan, 1.835eko urtean Zumalakarregigaz gertatu zan antzeko bat gertatu zan, ikusiko dogun lez, oso kaltegarria izan zana karlistentzat.

1.874ko urtean Epaillaren 29ko egun orren arratsaldean liberalak, ostera asten dira bonbaketetan, eta liberalak ikusita, Safuentes erri aurretik, Elio, Dorregarai, Ollo, Radika, Escudero, eta beste karlista gudal nagusi batzuk, euren gudu lekua ikusten egon zirala, kañoiezko leergaillu bat bota eutsen, eta Ollo, Radika, Torrezilla, ta Eskudero larri zauritu ebazan.

VIIn Karlosek, gertakizun ori ikusi ondoren, Ollo San Salbador del Ballera eroan eben, baiña berton il zan, eta egun bi barru Diaz de Radatar Klaudio (Radika) ta ¿ Eskudero ? be, 31n il ziran.

1.874ko urtean Epaillaren 31n, karlisten Baldespinako markesa Bizkaiko gudal nagusiak, keiñada edo meatxuzko aldarrikapen luze bat egin eutsen Bilbotarrei, euren aldera aldatu zitezen, baiña aldarrikapen luze bat lez geratu zan bakarrik.

1.874ko urtean Epaillaren 31n "Cuartel Real" karlista aldizkariak, beren esanakin, liberalak zirikiten dauz, eta liberal aldetik gogoratzen asten dira, ia karlistakaz askeneko egiune edo itzarmenean, ez ba eben parkamen larregi ibili.

1.874ko Jorraillaren 3an Serrano liberalak, ariñautik euren gortekoai laguntza eskatuta, auek gudari ta tresneri naikoa bialdu eutzen 3n gudalozte gorputz bat egiteko, Gutierrez de la Kontxatar Manuelen agindutara, eta Iparraldeko liberal gudaloztearen gudal nagusia izan zedin.

1.874ko urtean Jorraillaren 1ean karlistek, eraso txiki bat baiño ez eutsoen egin Bilbori kañoien leergailluekaz.

Epaillaren 31ko idazt egunagaz egiten dabena baiña, Baldespina Markesaren aldarrikapen bat bialtzea da, "Cuartel Real" aldizkari karlistatik Bilbaon ezagutu egien, zeintzuk ziran euren garaipenak eta asmo politikuak.

Itxaropentsu agertu ziran karlistek ekintza orregaz, ia bilbotarrak, euren alde kokatzen ba ziran, Bilbokoak baiña, eskutitz gogor bategaz erantzun eutsen, ta urrengo egunetan ugaritu ziran bien aldetik eskutitz bitarteko erasoak.

1.874ko urtean Jorraillaren 6an, Kontxa liberalen gudal nagusiak, baietza emon eutsen espainitar gobernukoai, peninsula onen iparraldeko gudaloztearen agintaritzan, bera ezarriko zala erantsunda. Baiña danak ez eben gura Kontxa gudal nagusia agintari nagusi lez, eta eztabaida gogorrak sortu ziran espainitarren gobernuan, liberal agintaritza ia ezereztu arte, euren artean naita balio andibako gizonak izanda be, esku luze ta euren eragipeneko gizonak ipini gurean ibili ziralako.

1.874ko urtean Jorraillaren 6an, lasaitasunezko egun batzuen ostean karlistek, ostera erasotzen dabe Bilbo, kañoiezko lerkailluekaz, eta karlisten belarrietara barri batzuk eltzen dira esaten, *liberalak Alemaniatik 14 kañoi "Krupp"(1) ekarrita eukiezala, berarizko(2) Aleman gudariakaz bideratuta, borrokan asteko.*

1.874ko urtean Jorrailaren 12an karlisten, Elio, Dorregarai, Mendiri, Larramendi eta beste gudal nagusi batzuk, San Salbador del Ballen batzartzen dira VIIn Karlosen agindupean, eta egon ziran guda tokian irauteko erabagi zan, arik eta liberal gudalozteak erasotzen asi arte.

2. 62. *1.874ko zati onen oarpena.*

(1) Krupp Kañoiak = cañones Krupp. Familia alemana de grandes industriales, cuyo primer elemente Friedrich (nacido en Essen el año 1.787 y muerto en Essen el año 1.826) fundò su primera empresa de aceros Krupp en Essen, en la que continuaron sus descendientes. Muy famosos en la fabricación de armamento pesado durante las dos guerras hasta hoy. (2) Berarizko = especial, singular.

Emen argiago ikusten da, borroka onetan ez zirala izan espainitar katoliko erlijioaren aberkide liberalak bakarrik, Europakoen aberats ta liberal katoliko erlijioaren aolku bidez, egon zalako gudal konstituziozko erabagi ori, eta ez eutsoen ardura andirik emoten, guda ori luze edo laburra izan zedin, eurak euken indar, diru eta gauza guztien kontrolagaz, jakin ebelako garaipendun urtengo ebela.

Europaren aberkide katoliko liberaltasunaren ardurak, menpeko araudiaren ezarpenak izan ziran, eurak asmatzen eben sasijainkotasunezko andikerian bizi gindezan.

Eta katolikotasunezko menperatzail arauditasun ori da gaur, osoan daukaguna, argi erakusten dabelako, mundu onen gizatasunari gaurko lez, lapurkerizko ekintzak egiten dautsezanean, maltzurrezko arauditasun orren sare arteko txeberan danok arrapatuta gagozelako.

Eta oartu gindezan, menpetasunezko eritzi orreri esker, zelako antolakuntzazko ezarpenean gagozan gaur egokituta, kontuan artu bear dogu, katoliko liberal orreik 1.879ko urtearen ezkeroztik, sekula ez dabela izan gura, nai Jaungoiko irasleak legeztukoa izanda be, gizaren gai-bereztundutzeko antolakuntza, begirunezko kontuan euki.

Errigizarteko antolakuntzan "Arbaso, Aiton Amon Guraso, Izkuntz, Sendi, Sendiaren Aitorle, Aita, Ama, seme alabak, Auzune, Erri, Aberri" ta abar, errenkuraz(1), zeetasunezko leian zaindu bear diran itz sakratuak dira orreik, menperatzailleak, euren naikerian ibiltea gure dabelako, salda, zuku edo saltsa orretatik, eurak irabazle urteteko.

Begitu bestela P.P.koak, Rouko Barela espainitar eleizako lendakari ta epaiketetan lagun dabizenak, zer eta noren jaungoiko begira dabiz, egiten dabezanakaz.

Atzo, Epaillaren 11n, Madrillen egin eban lez, A.V.T.koak euren taldeko biurtuta, Madrilleko tximist gurdiaren istripuan sortu ziranak, gaur zortzi urte geroago zeaztasun guztiagaz epaituta egon arren, ostera E.T.A.ri leporatu gurean, aur-galtzeko legearekin, eta beste legeak, Frankoren denboretara atzeratuazoteko dabizen alegiñetan eta abar.

Ostera gure dabe menperatasunaren katoliko fede zaindietara itzuli gindezen, eurak diruzko edo "urrezko zekor sasijainkoari gurtzeko".

Espainitar orrentzat, JAUNGOIKORIK ba ote da ?.

Europako gizarteak erne egon bearko dabe, espainitarrak benetan, beste gauza bat direlako.

2. 63. ***Karlisten guda ostera berreskuratuz.***

1.874ko urtean Jorraillaren 21ean karlistak, Euskalerriko lau lurraldeetan, auta edo 18tik 35 urteraiñoko gaztearen bilketa egin eben, gualozteak gazteakin indartzeko.

1.874ko urtean Jorraillaren 25eko egunean, Euskalerriaren Ego aldeko 4 merindadekoak Azpeititik, VIIn Karloseri eskatu eutsen, eurak artuko ebezala ardurak, gudak bear ebazan diruak, ariñago batu ta banatzeko, Urrillaren 15etik asiko zana.

1.874ko urtean Jorraillaren 27an Kontxa liberal gudu nagusiak, eraso gogor bat egiten dautse karlistari, baiña oneik eutsi eutsen ekiñaldi orreri.

1.874ko urtean Jorraillaren 28ko eguerdian Kontxa liberalaren gudal nagusiak 30 kañoiakaz, Talledo(2) erriaren aurka zabaltzen dabez euren lerkaiezko bonbaketak. Gero,

(1) Errenkuraz = escrupulosamente, perturbadamente. (2) Talledo = menditxo baten dagon meatokiko erritxoa, Kastroren ondean eta Otañesetik urbil.

15.000 gudariekin erasotzeko.

Karlistek, atzerantza egin bearrean aurkitu ziran, eta geiago, Muñekazen galdu eben borrokan, Andetxaga´tar Kastor karlisten gudal nagusia bertan il ebelako, eta Dorregarai karlista gudal nagusia beste agintariekaz batzartuta, Durangora joatea erabagitzen dabe.

2. 64. (12) *Arana´tar Santiago, Sabino´ren aita.*

Aranatar Santiago izan zan, karlistek euki eben ondamendi onen aitortzaille.

Eta Aranatar Santiago ikusita, zelan gudariak izkilluak lurrera botata, negar baten, "Judaskeria egin eutsoela" aldarrikatzen ebela, Santiago oso larri gaixotu zan.

2. 65. *Karlisten guda, ostera berreskuratuz.*

1.874ko urtean Jorraillaren 28/29 ta 30eko egunetan karlistek, ostera erasotzen dabe Bilbo lerkaiekaz.

Bilbon, gozeagaz larrituta, saleros-baltzetan, ildako katu bat 30/40 erleko, ta arratoiak pezta batean saltzen ziran.

1.874ko urtean Jorraillaren 30ean, Sopuertako ezker aldea, Kontxa liberalaren gudal nagusien eskuetan geratzen da.

Emendik aurrera, karlista gudal nagusi batzuen osotasunezko ustea, etsipentzen(1) asten da.

1.874ko urtean Loraillaren 1ean, Bilbori egiten eutsoen erasoa gogortzen da, Kontxa liberalaren gudalozteak inguratzeko erasoan agertuta baiña, Elio karlista gudal nagusia orrezkero ez eban euki gogorik, Bilbaoko toki areik geiago erasotzen, eta karlista gudal nagusiak batzartuta, VIIn Karlosen eritzien gaiñetik, edo ta bera ez zalako bertan egon, atzeratzeko erabakia artu eben.

Eta benetako atzerakada emon bear dabe Asuaraiño, San Salbador ibarretik, Retuerto, Zornotza, ta Burtzeñatik aldatuta, Durangon indar guztiekaz alkartzeko.

Eta or, botaten dira askeneko lerkai bi Bilbaoren aurka, urrego Loraillaren 2ko egunean liberalaren gudalozteak Serrano gudal nagusiaren agindutara, Bilbon sartuta.

125 egun izan ziran Bilbo inguratuta egon zala, eta 5.369 kañoiezko leerkai, 1.307 tiroiñ, 107 granada, eta metrallazko leerkai bi izan ziran Bilbora bota zirenak, bertan egon ziranak eraso gogor orreri, ausartasun aundiz eutsita.

1.874ko urtean Loraillaren 2an, Bilbotarrak, kañoiezko 21 lerkai bota ebezan aixeetara euren askatzea ospatuz, ta egun berean, goizeko 11etan arratsaldeko 2bietan Portugaletetik etorrita sartu ziran Kontxa liberal nagusien gudalozteak Bilbora. Eta arratsaldeko 4retatik aurrera, omenaldi aundia egin eutsen, Etxague, Martinez Kanpos ta Reyesen gudalozteai.

1.874ko urtean Loraillaren 2an Bilboko askatasunak ez eban gura esan, guda amaitu zala, karlistak, erabidez atzeratu zirala baiño, Galdakao ta Durango bitartera, euki eben 70.000 gudari baiño geiago eta tresneri guztiarekin.

1.874ko urtean Loraillaren 3an Bilbotik atzeraka, Zornotzan batu ziran karlisten indarrak, guztiz etsipenduta eta gogo barik.

(1) Etsipentzen asten da = desmoralizarse.

1.874ko urtean Loraillaren 13an VIIn Karlosek, Elio gudal nagusia kendu gura eban bere agintaritzatik, Mendiri gudal nagusiari deituta baiña, onen aolkuagaz, Dorregarai ipini eban Gudalozte guztiaren agintaritzan, Elio gudal nagusia, gudako ministroa izendatuz.

1.874ko urtean Loraillaren 14an oraindiño iraun egiten eban karlisten atzerakada, eta Mendiri gudal nagusia 26an, Lizarran txokoratzen da, talde nagusi bi, Nafartar 7 talde, Arabatar talde 2, eta Giputz talde 2gaz osotzen zana.

1.874ko urtean Loraillaren 15ean Kontxa liberal nagusia Gasteizerantza joan zanean, Mendiri karlisten gudal nagusia Billarrealerantza aldatu zan.

Ainbat oarpeneko gauzak esan eutsoezan Kontxa liberal nagusiari espainitar gorteko agintariak, Durangon karlistaren gudalozteak egon ziranean, ez ebezalako erasotu.

Kontxak, ondo baiño obeto jakin eban baiña, karlistek ondo atonduta egon zirala Durangoen inguruetan.

1.874ko urtean Loraillaren 28an VIIn Karlosek, bere anai, Borbon ta Austriatar Alfonso, katalanen gudal nagusi izendatuta Solsonatik, Tristan ta Asistar Franzizko gudal nagusiari idazten dautse eskutitz bat oartuazoten, Kataluniako gudalozteak atondu egiezela espainitar izatasunean, katalanak euren Foru-Lege bidez, Kataluniako Aberriaren Askatasuna lortu gure ebelako, eta kontu andian euki egiezala gauza orreik.

Eta atonduketa orreik dirala ta, Borrell sendagille, Andreu koronela, eta koronel ordezko gazte bat bota ebezan karlisten gudalozteetatik, auek Frantzian atzerriratuta.

1.874ko urtearen Bagillako illean, lendik be gogorrak izan ba ziran be, karlista ta liberalaren gualozteak dirala ta, oso gogorrak biurtu jakien eguneroko egoerak Kataluniako erritarrai.

Alde bietatik, diru, janari, ta euren gudalozteko gaztearen eskaera bidez, gazte orrein bizitza gero ta estuagoa biurtu zalako alde batetik, eta bestetik, diru ta janariaren ezean, gudako araubideen orekak zaintzeko, zigor aundiekaz galazotu egin bear izaten ebazalako.

Eta baita, karlista ta liberalaren arteko odoljariozko borrokak, oso latzak izaten ziralako.

1.874ko Bagillan, Kontxa liberalaren gudal nagusien eritziz, Bilboko guda amaituta egoala ta, Lizarrarantza joan zan bere gudalozteakaz, Ebroren lur bideko Miranda ta Tudela bitartean ezarrita, bertatik, karlistak Lizarra euken Uri sakratu ori, beren 50.000 gudari ta 80 kañoiekaz, kentzeko itxaropenean.

1.874ko urtean Bagillaren 25, 26, eta 27ko egunetan egin eban Kontxa gudal nagusiak borroka odoltsu ori Abarzuzaren aurrean dago Muru mendian, 50.000 gudari ta 80 kañoiekin, karlisten 25 gudari talde ta 3 kañoien aurka.

Eta Bagillaren 27an, Gutierrez de la Kontxa´tar Manuel liberalaren gudal nagusiak, geratzen ziran karlisten indarrak zeitzuk ziran jakin gurean ondoratuta, lar urreratu zalako, oneik izkilluen zupiñ aldi bategaz il eban, eta liberal indarrak atzeraka, alde egin bear izan eben andik.

Espainitar errepublikako 22 gudari il ebezan tiroka karlistek, liberalaren atzerakadan, Abarzuzako erritxoa erre egin ebalako ordaiñez. Itzelezko eztabaida sortu ebana, ez bakarrik liberalen gudalozteetan, bai karlisten gudalozteetan bardin, Europako erri guztietan esaten zalako: ez zala eskubiderik egon, karlistek Abarzuzan egin ebezan fusilamenduak egiteko.

Karlistek uts galanta egin eben borroka onetan, ez ziralako konturatu, Gutierrez de la Kontxa´tar Manuel espaindar gudal nagusia il ebela, euren gudalozte aundi ori ezereztuteko eta guda irabasteko.

-Liberalak, Nafarroako ekintza onetan uts andia be eginda, karlistaren Irun eta Iruñako inguratzeak, ez ebalako euki garaipenik.

1.874ko Uztaillaren azkenetan, Belazkotar Fernando karlisten gudal nagusiak, aginduten eban arratiko taldea 400 gazte gudariakaz, Akosta espainitar gudal nagusiaren gudalozte aundiari astindu ederra emon ondoren, auek ibaizabalaren errekako eskuiñ aldetik euki ebazan gudari taldearen ingurura aldatu bear izan ebezan bere indarrak.

1.874ko urtean Uztaillaren 31n Bergarako aztetxeari, Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara izendatu eben, Manterolatar Bizente izanda beren lenengo zuzendaria.

1.874ko urtean Dagonillaren 14an Bitores Benito karlista sarjentuak, beste 10 gudariekin, Ebroren Mirandako geltokian, suburdiñeko ibilgaillu bategaz egin ziran, eta urrutiko idazkiñatik bialtzeko mezuaren aria, ibil gailluari lotuta, Zenizerorarte joan ziran 39 kilometruetan urrut idaz gaillu orren serbitzua ezereztuta, inguru areitan egon ziran 14.000 liberal gudarien aurrean.

2. 66. ***Karlisten gudak, Kataluñako ekitaldietan.***

1.874ko urtean karlistek eta liberalak Dagonill ta Iraillaren ille artean, egin ebezan gudak Puigzerdan´en Uriagaz geratzeko, eta liberalak garaipendu ondoren, Uria babesteko agintaritzan egon zan Moleratar Andres guda jaurlaria xingolatu eban lenengo. Eta gero, Lopeztar Domingez liberalaren gudal nagusiak, dedu-domiñ andi bat egitea agindu eban, alde batetik Uriaren armarria, eta beste aldetik: "A los defensores de Puigcerdà la Patria reconocida Agosto y Septiembre de 1.874", eskaiñita egon zana.

Espainitar aberri-asmo orrek baiña, euki eban aita-amarik ba ?.

Asmo ori ezinezkoa da, Izadiko bizi onek, daukazan legearen aurkakoa dalako.

Kataluniako karlistek emendik aurrera, naita borroka aundi, latzak, ta ugariak irabazi arren, maldaberan asi ziran, bertokoakaz ez ebelako gudaloztearen pizkortzerik, espainitar liberalak Europako liberal konstituzionalistaren bidetik, euki eben beste.

A ta guzti, karlistak ustetsu edo itxaropentsu agertzen ziran ainbesteko gairaipen bidetik, eta geiago euren belarrietara Bilbo jausi zala zabaldu zanean, Ekandu maillan asko beratuta, eurak egiten ebazan festatan erakusten eban lez.

Eta nai eta euren itxuran ustetsu agertu gura baeben be, euren barneko egizko baitak, beste susmo bat aurkezten eutsen, azkeneko kondairetan agertuko dana.

1.874ko urtean Dagonillaren 2an ostera joan ziran karlistek Teruel arrapatzera, baiña liberalek oartuta, aldendu ebazan karlistak.

1.874ko urtean Iraillaren 11n VIIn Karlosek, Kuenkako Uria arrapatu eben eguna ospatzeko, oroigarrizko domiña bat agindu eban egitea.

1.874ko urtean Iraillaren 12an, Markotar Manuelek karlisten gudal nagusiak, Bagilla eta Uztaillaren illetan Tudela ta Kuenka´ko Uriak artzen joan ziranean, zelako gauzak gertatu ziran esan eutsozan VIIn Karloseri, berak ez egian onartu Billalain, eta beste gudal nagusien maltxur kondairak.

Kataluniako karlistak, Borbon eta Austriatar Alfonsoren agindupean egonda, garaipen aundiak lortu gura ebazan, lenengo Teruel askatu gura izanda, liberalen eskuetatik.

Uztaillaren 3an Borbontar Alfonsok, Markotar Manuelen agindupean bialdu ebazan gudalozteak, Terueleko jauregia artzeko.

Asi ziran Teruel erasotzen, gudal nagusien artean baiña, Billalain gudal nagusiagaz sortu zan bezala, beren erara ibilten zalako, kidetasunezko atondukeran saldukeria egiten ibili ba ziran lez agertzen ziran, eta ez zalako agertzen iñungo alkarrezko ulertzarik, Teruel eta gero Kuenka be, liberalen eskuetan geratu ziranean, karlista gudal nagusien artean bekaizgo, batak besteari erruak leporatzen, maltzurkerizko guzurkeri zikiñetan asi ziran.

Baita, zelan Uztaillaren 15ean, Kuenkako erri barruan sartu ziranean, an gudariak egin ebena, ez eukalako iñungo zuriketa edo ta karlista gudarien garbitasunezko barkamenik, ekanduzko giza-bide arloetan be, zinkin geratu ziran.

Eta karlistek euren garaipen ugariekaz, gogoratuarren gorantza joan zirela, ez eukien zeregiñik, Madrilleko konstituzioaren gobernukoak, etenbako laguntza euki ebelako guda tresneri gauzatan, Europako konstituzionalistaren aldetik.

1.874ko urte amaieran, ez zan egokitasunezkoa edo zoriontsua izan karlisten egoera, Erdiugarte onen Ekialdeko lurraldeetan.

a) Erdiugarte onen erdiko lurraldearen borrokak, guztiz amaitu ziranean, liberalen gudalozteak, karlisten gudalozteak baiño indartsuagoak izan ziralako, peninsula onen Ipar aldeko borroketan garaipentzeko.

b) Eta karlisten atzerakadan, Kataluña liberalen aldetik gudari talde aundi bigaz indartuta, auek egin ebezan azkeneko borrokak, indartsu ta ugariagoak izan ziralako.

2. 67. *Karlisten gudak, Euskalerriko ekitaldietan.*

1.874ko urtean karlistek, Bilbon porrot egin eta apur bat buru makur egonda, Abarzuzako garaipenak ostera bizkortu ebazan, eta Iruña, Gazteiz ta Donostiko Uri nagusiai erasotzea erabagita, Iruñari Dagonillaren askeneko egunetatik aurrera, ardura geiagorekin inguratu eben, bera izan zalako gudari gitxien euki ebazanak 2.000 gudariekin.

1.874ko urte onetan espainitar gortekoak ikusita, zelako aurrerakuntzak egiten ebezan karlistek, ondo prestautako 8.000 gudari bialdu eutsoezan Moriones gudal nagusiari.

1.874ko urtean Urrillaren 2an, karlistek Motrikun, ainbat izkillu, eta tiroiñak itsasontzitik lurreratu ebezan, Krupp galda-altzairuaren(1) 8 lodieran 6 kañoi, eurentzat 400 leerkaillu, 1.000 ler-ziri(2), 1.000 frictore ?, 4.000 Berdan-izkillu, 2.500 su-izkillu eta 270.000 tiroiñ.

2. 68. (13) *Merindadearen arduradunak.*

1.874ko urtean Urrillaren 15ean karlisten guda arloko ardura, Euskalerriaren Ego aldeko lau merindadearen arduratan ezarri zan, batzar onen arduradunak: "Nobia ta Zalzedotar Alejo, Basozabaltar Juan, Praderatar Gregorio, Garrotar Jose, Ingunzatar Tomas, eta Aranatar Santiago" izan ziran.

(1) Krupp galda altzairuzko = acero fundido.

1.874ko urtearen Urrillan Praderatar Gregorio, Arana ta Ansotegitar Santiagoren garazkidea(2) zanari, egiten dautsoe Bizkaiko lantegiaren zuzendari nagusi.

2. 69. *Karlisten Euskalerriko ekitaldiak berreskuratuta.*

1.874ko urtean Urrillaren 24an, VIIn karlosen errege agindu bategaz, Oñatiko ikastetxe nagusia "Errege ta Aita Santuaren" izena ipintzen dautsoe, Ego Euskalerriko lau lurraldearen ikastetxe nagusia lez izendatuta.

Denbora onetan karlistek, gogaituta egon ziran Beobiako zubian 30 mikelete ta muga zaiñekaz egon zan gaztelutxoakin, eta bera erasotzera joan ziran egiñeko gurdi bategaz, ainbat esku lerkai ta arroliogaz, liberal babestoki ori, erre ta ezereztuteko asmorekin.

Baiña porrot andia euki eben, karlistek gurdiaren azpitik ankak agiri agirian eroaten ebezalako, eta liberalak anka aiek ikusita, tiroka asi jakiezan, karlistek inguruerdiko itzulia eginda, andik alde egin bear izanda.

Eta 1.874ko urtean Urrillaren 31n, Baldespinako markesa, Karudel, eta Lopeztar Manuel gudal nagusi karlistak, Alemaniako gudal nagusiaren agindupean joan ziran, Iruneko erritik liberalak botateko, Santiago, Txoritokieta, ta San Martzial mendi ingurutik, Zeballosen agindupean kañoi batzuk ipinita, erasoan ziranai laguntzeko.

1.874ko urtearen Azaroen asieran karlistek, Biazterri galtzen dabe betiko.

1.874ko urtean Azaroaren 3an karlistek, euren gudariak Bilbaon, Sopelanako mendian eta abar, egiten ebezenagaitik emoten ebazan barriak, garaipenduzkoak izaten ziran geien.

1.874ko urtean Azaroaren 4an karlistak Biazterri betiko galduta, Irungo Uria inguratu eben, eta VIIn Karlosen urteguna ospatzeko, Irun erasotzen asten dira.

1.874ko urtean Azaroaren 11n Serna liberalaren gudal nagusia oartuta Iruneko ingurutasun orregaz, Logroño, Ebroko Mirandan, Zenizero, ta Bribieskan bananduta euki ebazan gudariak batu ebazan, eta karlistek, Serna liberala gudalozte andi orregaz etorrela jakin ebenean, Zeballos gudal nagusi ta Karudel koronelak al izan eben edozein eratara altzau bear izan eben, Iruneri egiten eutsoen ingurutasun ori.

1.874ko urtean Azillaren 12an Karlista gudal nagusiak asarre iges orreik egiteagaitik, batzartu ziran, eta Diaz de Zeballostar Ermenejildo ta Karudel karlista gudal nagusiai leporatu ondoren uts orren erru guztiak, salatu ebazan.

Lizarran egin ziran, euren aurkako epaiketa orreik, eta 1.875eko jorraillaren 29an aske itxi ebazan ezeren errurik bage, ostera eurak aginduten eben lekuetan ipinita.

Guda oneik baiña, diruaren kontuan ba eukezan euren arazo batzuk, eta liberalak ez ebelako euki ogi zati bat euren gudariai agora emoteko, ostera be Donostira atzeratu bear izan ebezan guda indar orreik, euren babes lekura.

A ta guzti karlistek ez ziran izan gai, Iruneko inguruan euki ebezan babes edo ta eraso tokiak ostera berrezkuratzeko.

1.874ko urtean Azaroaren 30etik aurrera, Euskalerri ta Errioxako karlisten gudal nagusi lez izendatuta egon zan Mendiritar Torkuato karlistari, botako eutsoezan erru guztiak, Iruñako ingurutasuna liberal gudalozteak apurtu ebelako.

(1) Leer-ziri = espoleta. (2) Garazkidea = socio.

1.874ko urtean Abenduaren 8an Mendiri karlista gudal nagusiak, liberalak, euskal gudari ta erritar karlisten aldekoari egiten eutsoezan mendekuagaitik(1), guda aldarrikatu eban Euskalerriaren lurralde osorako, mendeku orreik gero alde bietatik ugarituta.

1.874ko urtean Abenduaren 16an VIIn Karlos Oñatin egon zan, mailla nagusiko ikastetxea, lanera zabaldu zanean.

1.874ko urtean Abenduaren 24an VIIn Karlosek, Orduñako guda taldeak begiztatu egiten egoala, barri bat agertu jakon Zornotzatik esaten, liberal gudalozteak Larraskitun eta Arraizen egindako erasoari, erantzun ona emon eutsoela, eta atzeratu egin bear izan ebezala, euren guda indarrak.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez Kanpos eta Daban liberal gudal nagusiak Sagunton euki ebezan gudari talde bi, eskuadroi batzuk, eta kañoi talde gitxi baten aurrean, XIIn Alfonso izendatzen dabe espainitarren jaurgo barri edo konstituzioaren errege lez, eta emen amaitu jakozan VIIn Karloseri, 1.868ko urtearen ezkeroztik aurrera, espainitar lurraldeetatik zear asi ebezan bere errege eskubidearen zabalkuntzak.

Ezer ez eutson balio VIIn Karloseri, Morentinetik, eleizako ondasun bidez aberastu ziranai beren alde egineko aldarrikapenagaz, oneik euren aberastasunak babesteko, geiago gure ebelako XIIn Alfonsoren zuzenbide edo 1.812ko konstituzioaren lege barri bidetik joatea, berenagandik baiño.

2. 70. *Karlistek euki ebezan indarrak denbora onetan, olan zenbatu leikez.*

-1.874ko Abenduan Gipuzkoak, Zeballostar Ermenejildo gudal nagusi agindupean, 9 talde gudari(2), eta zaldun talde bat(3).

-1.874ko urtearen Abenduan Araban, Albareztar Rafael gudal nagusiaren agindupean, 6 gudari talde eta zaldun talde bat.

-1.874ko urtearen Abenduan Bizkaiak, 10 gudari talde eta zaldun talde bat.

-1.875eko urtearen Urtarrillan Nafarroan, Perula gudal nagusiaren agindupean, 200 zaldi.

-Eta beste gauza batzuen artean, 12/150 arteko gudari, berarizko ainbat talde basa gerlari artean mezuak banatzeko, sare arte edo zelatako(4) erasotan ez jausteko, berri edo argibideak arrapetan, eta zaintzari lez ibilteko.

-Nafarroako erregetzaren Aldundiak irasitako "Nafarroako Zaintzaleak".

-Lenengo gudaren gudari zarrak, eta atzean joaten ziranak irasitako "Talde Sakratua".

-VII Karlosen lagun taldeagaz peninsula onen beste lurraldekoaren gogozko gudariak, eta Bizkaitarrakaz batera joaten zan "Zuzentzaille edo Gidarien taldea".

-Gaztelako gudaloztea 6 taldeagaz osotuta egon zana.

-Rioja, Asturias, eta Aragoiren zaldunezko taldeak: Gaztelatarrak 3 talde, Kantabroak 1, Aragoikoak 1, Asturiarrak 1, Errioxakoak 1, eta beste bat, VIIn Karlosek lagungo zaintzari lez eroaten eban "Arlabaneko Usares" esaten eutsen talde bat.

2. 71. *Gudarako tresneri lantegiak:*

-Urdaxeko kartutxoaren lantegia.

(1) Mendekuagaitik = tirria, espiritu de venganza. (2) 9 talde gudari = 9 batallones. (3) Zaldun talde bat = 1 batallòn de caballeria. (4) Sare-arte edo zelatako = trampa.

-Lizarrako kañoitegia.
-Azpeitia, Bera, Desierto eta Arteagako kañoien galda edo burdiñolak.
-Plazentzia, Eibar eta Elgoibarreko izkillu ta gudu tresnerien lantegiak.
-Etxaguen, Araoz, Aramaiona, Bera , eta Riezuko errauts edo auts lantegiak.
-Legariako tresnamendua.
-Amurrioko jos-bakan edo ilbaintzeko(1) langintza.
-Guda asi barri ta aurrerantzean, ustiatu edo berunezko(2) mamia atara(3) egiten eben Baranbioko beraun meaztegia.

2. 72. *Gudarien ikasketarako:*

-Oñatin egon zan gudarien ikastetxea.
-Azpeitian, egon zan kañoilari ikastetxea.
-Eta Bergaran egon zan injenieritzaren ikastetxea.
1.874ko urtean Abenduaren 29an "El Cuartel Real"aren aldizkariak, Serrano liberal agintari nagusiak Abenduaren 8an argitaratu ebenetik, olan zenbakitzen dauz Erdiugarte edo peninsula onen Iparraldean, liberalak euki ebazan gudu indarrak:
-Orokorrezko Kapitan gudal nagusi bat.
-Orokorrezko Kapitain ordezko lau.
-Guda zelaiko 10 mariskal.
-23 koronel ordezkoak.
-Gudaloztearen buruzpidedun(4) bat.
-Osasunbidearen ikertzaille bat.
-Orokorrezko entzulari bat.
-Gudarien kapellau ordezko bat.
-Oiñezko 88 gudari taldeak.
-Zaldunezko 8 talde nagusiak.
-Kañoiezko 13 andana(5).
-Mendiko kañoiaren 5 andana.
-Eta, erriko mutillaren(6) gain, txapel gorri(7), muga zaiñak(8), ta gogozko mutillak(9).

2. 73. *Onen oarpen laburra.*

Orregaitik, aldakuntza au ikusi ondoren, eta leiak geienetan galtzaillezkoak izan arren, liberalei ez eutsen ardura andirik emoten, denborarekin eukiten ebezan luzetasunezko aldiak, eta gitxiago aberri katolikotasunezko kiserraren alde ilten ziran gudariai, euren ustez Zerutik, dan gustia parkatuta euki ebelako, nai astakeri aundienak egin arren..

Europaren laguntzagaz gaiñera, denbora guztia euki ebelako, arrazoi ta zentzunezko erri baten eskubideko alegiñak utsean izteko, gudari, tresneri ta denboreagaz ez ebelako ezeren eztukuntzarik euki.

(1) Jos-bakan edo ilbaintzeko = embastar, o, hilbanar. (2) Beruna = plomo. (3) Berunezko mamia = mineral del plomo. (4) Gudaloztearen buruzpidedun = intendente, o, administrador del ejèrcito. (5) Andana = fila de cañones. (6) Erico mutillak =guardia civil. (7) Txapel gorri = Arabazo Foru-gudal zaiñak. (8) Muga zaiñak = carabineros. (9) Gogozko mutillak = voluntarios.

Zertarako baiña: *"I Konstantino, I Silvestre, ta Kordubako Osio gotzai menperatzailleen asmoak beteta, Goiko Jaungoiku Irasleen bereztasundutako Legeak betetan diralako ?.*

Zer uste dabe menperatzaille baragarri orreik, Goiko Jaungikua, belarri luze baten antzekoa, edo asto bat dala ?.

Izadi onetan agertzen ba gara, ez da edozer gauzatarako, ekanduz ondo zaindtuta, BERAK bereztutako legeak beteteko baizik.

Orregaitik dira Izadi onen edestiko denbora guztiak, "bardiñak", gure gizatasunezko zeregiñaren zor-eskubideen ordaiñezko-arduratan, Bere Legeak, BAITAZKO-EKANDUZ betetea eta ordaintzea dalako.

Europako eta espainitar liberalarenak batez be, ardura bakarra, dirua da, "Por el destino Catòlico en lo Universal"en aitzakia ipinita, eta Erdiugarte ontan, batzuen "Nacional Catolicismo"aren laterritasuna izanda, Jainkoak berezko erriari emoneko legezko eskubideak kontuan artu barik, euren norkerizko eritzian, diruaren Urrezko-Txekorren sasi-jainkotasunez bizi gindezan da. Nortzuk ? = EURAK ¡!.

2. 74. ***Karlisten guda ostera berreskuratuz.***

1.874ko urtean Abenduko 29an, Martinez Kanpostar Arsenio liberalen gudal nagusia, errepublikako gobernuaren aurka, eta Saguntoko Urian matxinatuta, IIn Isabel erregiñaren semea XIIn Alfonso Borboia, espainitarren errege lez aldarrikatzen dau.

Eta VIIn Karloseri, XIIn Alfonso errege izendatutako ekintza onegaz, 1.868ko urtetik asita, Morentineko lekutik gogoz egiten ebazan aldarrikapenak, eleizaren ondasunakaz aberastu ziran jauntxoak bere errege izateko eritzira ekarteko, amaitu jakozan.

Euren arteko bidetik espainitarren lurralde osoan aiñ zabaltasunezko atsegintasun andiak lortu ebezanetik, auek aurrera ta euren buruari begira, XIIn Alfonso erregetzaren menpeko edo gordetzailletasunezko legedira aldatu ziran, euren diruzko altxorrak bete euki ezkero, *bost ajola arduratzen eutsielako, Jaungoiko edo ta diabruen Ekanduzko arrazoiak izaten ba ziran be.*

1.874ko urtean Abenduaren 30ean IIn Isabelen semea XIIn Alfonso, espainitarren errege lez aukeratzen dabe Europatik aginduta, onek, 1.810/1.812ko urte artean Kadizen gudal nagusiak agertu eben menpetasunezko jaurgo edo konstituzio barri ori, ontzat artu ebalako, gobernuaren lenengo agintari lez, "Kanobas del Kastillotar Antonio" izendatuta.

1.875eko Urtarrillaren 1ean espainitar liberal gortekoak XIIn Alfonso errege izendatzen dabe.

2. 75. ***Onen oar laburra.***

Emen argiago ikusten da, XIIn Alfonsoren alde erregetzazko aldarrikapenagaz, zelan 1.812ko urtean Kadizen agertu eben merkantilista ta menperatzailletasunezko fazizta lege orrein bidez, Kanobasek, sendotu egiten dauela peninsula onetan gaur daukagun menpeko laterri au, Europa guztian ezarri gure zalako katolikotasunaren batzangotasuna.

Atzo ikusi neban telebistan, zelan 1.812ko konstituzioaren liburu agiria erabilten eben ondo zainduta, juduen "Itun-Kutxa" izan bazan lez, Madrilleko ez dakit nungo kaletan kamioi batera igoten.

Zelango aukerarekin geratu ziran Berezko erritarren eskubideak ?.

Alango menperatzailletasunezko guda-indar ta maltzurrezko guzurraren aurrean Berezko errigizarteak, zeozer egiteko aukerean geratuko ote ziran ?.

Europako jakituri geiena, edo ta indar geiena, euren eskuetan euki ebenetik ez beintzat, andiki orreik bidebagekeri orregaz, adoz egon ziralako.

Gaiñera, emen esan bear dana, beste gauza bat da:

*Euren barneko baitaren aurkakoa izanda "**Jakin aundiko gizon eta emakume** guztiak, ez zirala egon menperatzail edo zapal-batzangotasunezko eritzi orren alde, sasikatoliko erlijiozko laguntza maltzur orregaz baiña, okerreko bide orreitan geienak batu zirala, bai".*

*Ez ziran oartzen nungo lokatzarteetan sartzen ziran, eta "**Diruaren Arauzko Serbitzura** ipini euskun danori", **batzuk**, ondo edo ta sasijainko lez, bizi zitezen.*

Gaur geiegian egiztuta dago, peninsula onetan daukagun menperatzailetasunezko laterri au, berezko arrazoiaren legetik kanpo egonaz gaiñ, ez dabela balio bere barruan gaudenai jaurkitzeko,demokraziaren zentzua aurka eukinez gaiñ, nortasunaren izatasunezko arduratan ez garelako bardiñak, ta lapurtza aundi orreik, batzuen artean bakarrik eilekezan gauza dalako, nai ta, lapurtzaren zentzua dan guztiko agirian agertu arren, lapurtza aundi orreik, beartasunean sartzen gaituelako.

Orregaitik: 1.793 urte geroago, fazizta eritzi barri ori agertu zan okerrezko toki ber beran gagoz, bizitzaren errakuntza zuzendu, edo ta arteztutea gura ba da.

Gaur gagozan larritasunezko egoera bardiñean, aurrera egingo ete dogu ?.

Ori egiten ba da, sinistu ezin leiken beste astokeri aundi bat egingo da, gero ta lokatzarte aundiagora sartzen gaituelako.

2. 76. ***Karlisten guda ostera berreskuratuz.***

1.875eko urtearen sarreran, Bizkaiko jaurerrriak eukezan 189.954 biztanletik, 66.608 baiño ez eben jakin idazten ta irakurten, 12.746 irakurri bakarrik, eta Bilboko 15.000 jakin eben irakurri ta idazten biztanleak kentzen badautzasuz, Bizkaiko lurraldean, 125.642 eskola bagekoak geratzen ziran orduko denboran.

1.874ko urtean Otsaillaren 12an, VIIn Karlos errege naiaren aginduagaz, Oñatiren Goi Maillako Ikastetxea zabaldu zanean, Karlistaren lurraldeko gaztearen irakaspenak, erri guztietako eskoletatik gain, Urduñako Ikastetxean, Tolosako Prantzizkotarren Lekaretxean, eta 1.874ko urtean Uztaillaren 31tik aurrera, Bergarako "Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara" Manterolatar Bizenteren zuzendaritzapean, euki ebazan.

Eta 1.874ko urtean Urrillaren 24an VIIn Karlos berak, Oñatiko goi maillako ikastetxea, "Real y Pontificia" lez izendatu eban, lau euskal lurraldearentzat.

Karlos bera, egon zan bertan, ikas-aldiak zabaldu ziranean.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, espainitarren gudalozteak matxinatu ziranean, I Errepublikea ezereztu ondoren, Borboiak, ostera berreskuratzen dabez euren erregetzazko eskubideak, XIIn Alfonso espainitarren errege lez aldarrikatu ebenean. Nai ta iñork konturatu ez ala jakiñaren gaiñetik, lege orreik, maltzur eta guzurrezko legeak zirala, menperatzaillearen naikerizko legeak ziralako.

1.875eko urtean Urtarrillaren 1ean Martinez Kanpostar Arseniok Saguntotik, XIIn Alfonso errege izendatzeko alde egin eban aldarrikapenagaz, Lizarraga karlisten gudal nagusia Txelbako gudaltegian egoala, jakitun geratu zan, zelan XIIn Alfonso izendatuko eben errege.

Eta gogoratuz, liberalaren gudalozteetan eritzizko zalantza sakon orreitan sartuta, eztabaida gogorretan asiko zirela, Guadalajara artzera bialdu ebezan Gamundi ta Boet karlista gudal nagusiak.

Eta Belasko ta Kukala, Balentziaren aurreko errekaren ingurura, liberal gudalozteai orko bideak zarratzeko, eta bera Ballesekin Aranjuez artzera joan ziran, XIIn Alfonso Madrillen sartu orduko, su-gurdiaren ibilbideak apurtzeko asmoagaz.

Lizarragaren oldozmen onegaz, baleiteke liberalaren guda indarrak euki ebezan arazoakaz, Uri nagusiaren babesera joanda, Uri barruetan geratuko zirala.

Baiña Belasko ta Kukala karlistaren gudal nagusiak, ezin eben apurtu Binarozeko liberal gudariak aurkeztu eutsen erantzunagaz. Eta Gamundi ta Boetek be ez ebelako ezerik egin gaisotu ziralako, Lizarraga bera oraindiño baikor egon arren, Ballez bialduta Aranjuez ta Molina artu egien, onek ez eban lortu ezer.

1.875eko urtearen lenegoetan karlistak Baionatik, "La Cruzada Española" aldizkaria agertzen dabe.

1.875eko urtean Urtarrillaren 6an, "Diario de San Sebastian"ek, Benigno de Morazatar Mateo, Gazteizeko Lege Gizona ta Arabako Foru Aldundiaren aolkularia, Bizkaiko gizartearen jaurlari edo agintari(1) egin ebela ekarten aban.

1.875eko urtean Urtarrillaren 8an, "El Noticiero Bilbaino" agertzen da Logroñon jaiota, Etxebarria ta Torrestar Manuel Tomasen zuzendaritzapean, 1.936ko urtean "El Pueblo Vasco"gaz alkartuko zana eta Frankoren guda ostean 1.938ko urtean "El Correo Español El Pueblo Vasko"ren izenagaz gaur arte urtengo dauana.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an, "Noticiero Bilbaino" aldizkariak, albiste au ekarri eban: "frantzezak Baionako euskal lurretatik, zelan atxilotu eben apaiz euskaldun bat, eta peninsulara bota ebela, espainiarrakaz euken egiune edo itzarmena beteteko".

1.875eko urtean Urtarrillaren 10ean VIIn Karlosek urtarrillaren 6an, "Cuartel Real" aldizkariaren bidez, espainitarrari idatzi eutsen "bere santutasunezko agindua", gudakin aurera eginda bete egingo dauela, esanez.

1.875eko urtean Urtarrillaren 14an, XIIn Alfonso 18 urte eukezala eltzen da Madrillera errege lez, Atotxako su-burdiaren geltokira, ezkil-errepika(2), kañoien leerkai, zupiñ aldi, ta txaloketa ugari artean, ongi etorria emoteko.

Ez zan onartu karlisten aldetik XIIn Alfonso espainiarren errege lez izendatzea, eta karlisten izparringietan, XIIn Alfonso erregeen arteko berdingarrietan beti agertzen eben: "El mocete", "El niño rey", "Alfonsito el chico" ta txantxako izen orreikaz, eta karlistek Lakarreko garaipena lortu ebenean, ta XIIn Alfonso atxilotzeko arriskuan euki ebenetik "El fujitivo de Lakar"eko izenagaz deitu eutsoen.

1.875eko urtean Urtarrillaren 14an karlisten gudalozteak, Berriz koronelak bideratuta, Balmasedan sartzen dira, liberalak bietako urartetik, Billasanaraiño, maillaka(3) kokatuta egon zirala.

(1) Jaurlari edo agintari = gobernador. (2) Ezkil-errepika = repique de campanas. (3) Maillaka = escalonadamente.

1.875eko urtean Urtarrillaren 15ean, Nafarroako erregetzaren Aldundiko ordezkari Itzarbe´tar Geronimo, Gipuzkoako Aldundian orokorrezko arduraduna Dorronsortar Migel, Arabako Aldundiaren orokorrezko arduraduna Mendietatar Franzizko Mª, eta Bizkaitar jauntzazko Aldundiaren orokorrezko arduradunak Urkizatar Fausto, eta Piñeratar Pedro Mªk, agiri bat aldarrikatu eben *"Euskal-Naparrarentzat"*(1), katolikotasunaren gora beran esaten dodanagaitik arrazoia emoten daustena:

2. 77. ***Oarkuntza.***

*Zelan izan leike, sasikatolikotasunezko erlijio aldetik: "**Gure bizitz fisiko onen Ekandu** arloetan, arrazoi bardiña emon, Menperatzaille eta Menperatuta geratzen diranai ?".*

Eleiza katolikoa era baten, edestiko borroka guztien ostetik naita beti ezeren lotsa barik menperatzaillearen alde egon, bereztasunezko legean bizi direnai menperatu ta gero, sekula ez dautsolako esan arrazoirik ez daukienik, arrazoiaren eretxi edo uste orreitan beti, maltzurtasunez jokatu daualako.

*Geiago, "**jakinda**", emen sortzen dan lez, alderdikerizko norkerietan zapaltzaille dabiltzanai, ta Jainko legean berezko nortasunean, zapaltzaille orrein ekintzari aurka egiten dautsen artean:*

Bata, maltzurtasunaren sasi-asmalaria dala.

Eta bestea, Jainkoaren Legebidea zaintzen dabela, gure arimaren gai-giza bereztuta daukagun eskubidetik.

*Gure adimenean, eta epaiketazko almen bidetik artu bear doguzan erabagiak: "**bardiñak** ote dira GUZURRA ta EGIA ?.*

*Argi dago, emen zeozerrek, ustel usaiñ andia daukela, edesti guztian, sare arteko txebera orren ekintza izan dalako Euskalerriaren zabaltasunezko "**Jendekuntzari**" **murriztuazo egin** dautsoena, gaur gagozan lurralde txiki onetan geratu arte.*

Kadizeko espainiar jaurgo aldeko Norkeri orren sasikatoliko ta sasimerkantilista asmatzailleak, naita PPko, Sozialista, edo ta Errepublika zaleak izan arren, gaur daukien norkerizko oldozmenagaz ez dira egokituko, arik eta Euskalerria ezereztuarte, 1.812ko konstituzio maltzur orrek barruan daukana, menperatzailleak asmatutako lege araudi sorta dalako.

Noz konturatuko dira, konstituzio ori eurena dala, eta ez gurea, gurera gudaloztearen indarragaz sartu gure izan dabelako, edesti guztian ?.

Nork emoten dautsie jabetasun ori, egin dabena, maltzur, eta gudalozteko indarraren lapurtzagaz egin ba dabe ?. Argi dago, erlijio edo sasikatolikotasunetik agertzen jakien lapurrezko jabetasunetik dala.

Euskaldunak gure izatasunean, Jainkoaren Legeari begira, eta gizartean oiturazko entseguka(2) Paleolítico-Neolitikotik gure Europako Mendebal onetan jokatutearren beti, eldu giñan daukagun demokrazi aundira. Orregaitik Norkerizko guzur ta menperatzaille asmatzail orreik, batzangotasunezko eritzian daukien aurkari aundiena "EUSKALERRIA" izanda beti, eta nik esango neuke, bakarra izan dala, Europako Mendebal onetan ez ziralako egon euskaldunak baiño.

(1) Euskaldunak Nafarroatik banatzen, Naparrak Euskaldunak ez ba ziran lez. (Historia General del Señorio de Bizkaia lenengo liburuan, (1.870-1.876), 303,4,5 eta 306ko orrialdietan datorrena. (2) Entsegu = ensayo, prueba, tentativa. Entseguka = empíricamente.

Ortik agertzen jakuz euskaldunai zitalezko erasoak aldi guztietatik, katolikotasunezko erlijio ori, bereztasunezko demokraziaren aurka asmatuta dagoelako.

Euskaldunak orregaitik "ulertu" bear dogu, "elburu" bakar bateri begira ipini bear doguzala, daukaguzan bereztasunaren arrazoizko indar guztiak.

Eta naita menperatzailleak kaizar eritziekin beartuz(1), euskal nortasunezko izatasun gorpua zatitu egin bada be, eta euskaldunak daukaguzan alderdiekaz jokatu bearrean aurkitu arren, gure artean kontu andian euki bear doguz, JAUNGOIKO ta GIZONAREN aurrean guk nortasunezko leen ardura lez, ez daukagula beste arrazoirik: "EUSKEREA ta EUSKALERRIAK" daukana baiño.

Mundu au danon ardurazkoa izanda, batzango baten ulermenera eldu bear bagara, gaiak eta gaitutako gizak daukan eskubidearen bidetik eldu bear gara.

Ala.., Mundu fisiko onetan alango egun baten, lapurkerian asi gintzazalako, ta norberkeri orregaitik menderatuta, "Bizitzazko Legeetan biurtuko ote doguz lapurtza orreik ?".

Beste alde batetik begituta, ez dira galdu bear, erantzuteko aurkezten jakuzan aukereak, legunean agertu jakun antzera, espainitar gortetan Rajoik birriten Iñaki Antiguedaderi esan eutsonean: "beragaz ez eukala, iñungo zorrik".

Zelako erantzuna ote da ori: "Espainitarrak, euskal izatasunezko bizitzaren arloan, euskalerria menperatuta eukiteagaitik, euskaldunekin zor aundienak edo ta guztiak eukiten dabezanean ?". A la bera ez da espainitarra ?.

Espainitar gorteko batzarraren aretoan egun orreitan, eta batzarraren lendakarien aotik, arro esanda entzun ginduzen: "200 urte dira jaurpidetzen asi zirala kadizeko jaurgoarekin, gudalozte, polizia ta guardia zibillaren laguntzagaz".

Ez ebena esaten, lenengo egunaren arazoak, gaurko arazoak dirala, Euskaldun, Katalan ta Galleguak askatasunezko erriak izanda, ez dogulako onartzen iñungo maltzurrezko menpetasun zikiñik, Berezkotasun onetan gaituta egonda, daukaguzan askatasunaren arrazoizko araudien kanpotik, ez dogulako maltzur eta guzurrezko legerik onartzen.

Teresa Santuak esaten eban: "Jainkoa, lapiko artean ebillela". Eta egia da, Goiko Jaungoikuaren egia ontzat artzen ba dogu, Beren Legeakaz topo egin dogulako.

2. 78. ***Karlisten guda ostera berreskuratuz.***

1.875eko urtean Urtarrillaren 17an Bilboko Urrikalmendu Etxean(3), txarriaren zozketa egin zan, eta 1.831tik eskero, jarraian etorten jakuna da.

1.875eko urtean Urtarrillaren 21ean Bilbaoko aldizkari "El Noticiero Bilbaino", Salamanka ta Negretetar Manuel liberalaren gudal nagusiak, Urtarrillaren 18an XIIn Alfonso erregearen alde aldarrikatu ebena agertzen da, eta argi itxi eban Erromako eleiza katolikoen aberkuntza, eurakaz egoala.

1.875eko urtean Urtarrillaren 22an Del Kastilloko Kanobasek, XIIn Alfonsoren aoz Nafartar Peralta Uritik, aldarrikapen bat egiten dau: "Foruak zainduko zirala, izkilluak lurreratu egiten ba ziran". Euskaldunen artean ez zana onartu.

2. 79. (14) ***Arana ta goiri´tar Sabino.***

(1) Zesar´en = "VINI, VIDI, VINCI". (3) Bilboko urrikalmendu etxean txarriaren zozketa egin zan = se celebrò la rifa del cerdo en la Casa de la Misericordia de Bilbao.

1.875-1.876 urte arteko ikasketak, Donibane Loitzunen betetan dauz, azken azterketak Ondarribin osotuaz.

1.876ko urtean, Sabino'k amaika urte eukezala, Bilboratu egiten da, eta 1.876ko ikastaroa Orduñako Josu-Lagunen lekaidetxean azten dau.

2. 80. *Karlisten guda berriz berreskuratuz.*

1.875eko urtean Urtarrillaren 24an XIIn Alfonsok, bere gudal nagusi guztiak batzartu ebazan, eta gud-antze(1) bat antolatu ondoren, bakotza bere aukeratuko lekutik, euki ebezan gudalozte andiekaz zabaldu ziran, guda amaitzeko itxaropenean.

1.875eko urtean Otsaillaren 2an Dorregarai karlista nagusiak, Lizarra babesteko, Karraskalen eta inguratuta euki eben Iruñako bidean ipini ebazan ondo antolatuta bere gudari indarrak, baiña Mendiri'ren agindu txar baten bidez, Eskinzako erritxoa babes barik itzi eban, eta liberalak Lorka ta Lakarren sartuta, Moriones liberalaren gudal nagusiak bere 35.000 gudariekin, Iruña eskuratu eban.

1.875eko urtean Otsaillaren 3an Karlistek, ostera berrezkuratzen dabe Lakar, XIIn Alfonso espainitarren errege barria bertan egoala, karlisten gudariak atxilotzeko arrizkuan.

Mendirik baiña, ez eban kendu euken miña, karlisten gudal nagusiak biotz ondoko gogorkerian artzen ebelako, Karraskalen, berak egin eban atzerakadagaitik.

Eta emendik aurrera bekaizkeri asko agertuko ebezan karlisten gudal nagusiak Mendiriren aurka, eurak lez, ez zalako izan antziñako gudal nagusia.

1.875eko urtean Otsaillaren 5ean Mendiri, karlista gudal nagusiak beragaitik esaten ebezanagaitik asarre, eskutitz bat bialdu eutson VIIn Karloseri bere ardurazko agintetik, itziera eskatzen.

Denbora onetan, Donosti eta Gazteiz inguratuta dagoz, bai Bilbo erasotuta be, eta emen asten dirala esan leike, karlisten alegiñak okertzen, lenengo gudan sortu zan lez.

1.875eko urte onen asieran Del Kastillotar Kanobasek, ongune batera eldu gura eban VIIn Karlosekin:

Bere erregetzazko eskubideak ostera berrezkuratu egiezan, bere alaba Elvira XIIn Alfosorekin ezkonduta.

Lau euskal lurraldearen Foru eskubideak, euskal jabetasunean zainduta, guda au ez bazan gertatu lez, eta abar.

Guzur ustel bat bakarrik izan zana, euskaldunen Foru Legeak, 1.810/1.812ko urtetan irasi ebezan menperatzeko legeakaz kendu egin ebazalako, ez 1.872an egon ziranakaz, naita lege guzti orreik, gauza bardiñak izan.

Eta guzti au argitzen da, XIIn Alfonsoren agintaritzapean, euren legezko agirien VIn atalean ekarten ebanagaz:

"MAS EL GOBIERNO NO SE CONSIDERARÁ OBLIGADO A GUARDAR NINGÚN GENERO DE CONSIDERACIONES A AQUELLA O AQUELLAS DE LAS INDICADAS PROVINCIAS(2) QUE NO SE SOMETAN A LA AUTORIDAD DEL REY ALFONSO XII DENTRO DEL PLAZO MARCADO EN EL ART. VI".

(1) Gud-antze = estratejia militar. (2) Lurraldekoak guk ?. Gu, Euskal ABERRITARRAK GARA. Y no provincia de facinerosos nacional katolicistas.

Eta "Gaceta de Madrid"en agertzen zanetik, illabeteko epean beteteko aginduagaz, argi ikusita, eskeintza ori espainitar gobernuaren keiñadura gogor bat bakarrik izan zala.

VIIn Karlosek ez eban onartu, eta aurrera egin eban beren leiarekin.

1.875eko urtean Otsaillaren 7an XIIn Alfonsok, galdu eban Lakarreko borroka, eta arrisku aundian egonda karlisten eskuetan jausteko, Madrillera joan zan gudaloztearen babes.

Orren ostean Iruñan sartuta, Euskelarriko lurraldeen borroka latzari, Bagillararteko eten antzeko bat egin jakon.

Denbora onetan XIIn Alfonsoren gudalozteak, 778.782 oiñezko gudari, 1.651 zaldi, eta 92 kañoi euki ebezan.

Karlistak alderantziz 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldi, eta 79 kañoi.

1.875eko urtean Otsaillaren 7an Suizaren Elkartasunezko aolkularitzaren aldetik, onartu zan XIIn Alfonso gaztearen erregetza, Italiako errege ta Aita Santuak ipini ebezan aurretiko baldintzarekin.

Argi ikusten da emen, noregaz izan zan adiskide Batikano ori.

1875eko urtean Epaillaren 3an liberalak, gudari geiago bialtzen dabez Bilbora.

Epaillaren 3an karlistak, Portugalete inguratu gure dabe.

Epaillaren 3an ziurtu egiten da karlisten aldetik, Parisen prantzes andiki batzuekin batzar bat euki dabela, Prantzezak amaitu gure dabelako guda au.

1.875eko urtean Epaillaren 5ean karlistek, Santa Marinako inguruak sendotu ebazan.

1.875eko urtean Epaillaren 11n Kabrera, lenengo gudan karlisten gudal nagusia zanak, beste gudal nagusi batzukaz batera, XIIn Alfonsori euren onespena emon arren, VIIn Karlosek ez eban gura guda amaituterik, eta aurrera egin eban leiarekin.

1.875eko urtean Epaillaren 12an Makanaztar Isidorok, Bizkaiko liberalaren orokorrezko gudal nagusiak, bere guda indarrakin Bilbotik urten da, Serantes mendi andiaren jabe egin zala eta Zierbanako mendi ganean kokatuta dagozela aldarrikatu eban.

Liberalak, Santurtze, Portugalete ta Sestao arrapatu gure dabez, bigarren Jibraltar antzeko babes toki bat egiteko.

1.875eko urtean Epaillaren 14an borrokan eten bat egiten dabe, alde bietatik baituta daukiezan gudarien ordain edo aldaketak egiteko.

1.875eko urtean Epaillaren 17an Gazeta aldizkarian agertuta eta Notiziero Bilbainoren aldizkariagaitik adierazi edo argituta, Arbolatxako borrokan karlisten aldetik:

-77 il eta 240 zaurituak egon zirala esaten eban.

-Liberalaren aldetik, 4 agintari ta 12 gudari illak.

-Aldundiko zaintzale aldetik 5 agintari ta 52 gudari zaurituak.

-Saboyako taldetik, il bat eta 16 zaurituak.

-Albuerako taldetik, agintari bat ta 3 gudari il, eta 38 zaurituak.

-Kañoilari taldekotik il bat eta 6 zaurituak.

-Eta Abrilleko mendian egon ziran Zamorako lurraldeen gudari taldekotik, 6 zaurituak.

1.875eko urtean Epaillaren 17ko egun onetan be, Gazetilla aldizkariak, gizon emakume artean oituratu ziran baikuntzak(1) argitzen dauz.

1.875eko urtean Epaillaren 20an VIIn Karlos Durangora eldu zan, gudalozteak ikusita gero, Balmasedara joateko.

(1) Oituratu ziran baikuntzak = moda que apareció de secuestrar personas y cosas.

1.875eko urtearen Epaillatik, Kesadak bideratzen ebazan liberal gudalozteak Martineztar Kanposekin batera, jende ta gudariak erakarteko politikagaz asi ziran, baiña politika orregaz aurrera egiteko, liberalaren sasigudan ibilten ziran Karrikalutxi, Lakalletar Tirso "Ziraukiko Anka Motzak" eta abar, egiten ebazan sarrazkiak geratu bear ziran, baita ta, berak arrapetan ebazan gudariakin eta errikoakaz egiten ebazanak, be bai.

1.875eko urtean Epaillaren 23an liberalaren indarrak, 78.782 oiñezko gudariak, 1.651 zaldun eta 92 kañoi euki ebazan.

Eta karlistek alderantziz 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldun, 794 mando, eta 79 kañoi.

1.875eko urtean Jorraillaren 4an Madrilletik agertutako barriak: "Kanpostar Martinezek Kataluñan, karlistek Oloten euki eben erritoki sendoenetariko bat artu ebala, eta Erdi Ugarte onen Iparralde osoa bizkortu gure ebala, esaten eban".

1.875eko urtean Jorraillaren 6an VIIn Karlosek, Gaztela indarrez artzeko euki ebazan gogoak alboratuta, Durangotik urtenda, Balmasedara joan zan, bertan Elio eta Mogrobejo gudal nagusiakin alkartzeko, eta inguru ori sendotzeko.

2. 81. *Arabaren galduera.*

1.875eko urtean Jorraillaren 7an aldizkari bidetik esaten zan, karlisten inguruan entzuten zala: "borroka au amaitu bear zala, agintariek esan orreik, kontuan artu barik".

Egia baiña, Balmaseda menderatzen eban San Seberino mendia, karlistek indartzen egon zirala zan.

1.875eko urtean Lorailaren 13an karlistek Getari artu gura eben, eta gogor asi ziran erasotzen.

Karlistek 12terdiko 15 kañoi, eta 7terdiko 8 kañoiekin asi ziran erasotzen, baiña leen itsas-ontziren leergai erantzunekaz, eta eurak euki eben kemenezko gogortasunagaz aurka eginda karlisten erasoari, ekintza gogor orretan egon ziran 1.876ko urtean Urtarrillaren 26ko egunerarte.

Euren lepoetan 340 bonba ta 4.276 granadaren eztanda artu bear izanda, eta janariren ezean, erriak euki ebezan 900 biztanletik, 1.876ko Urtarrillan, 150ean geratu ziran, Getari, Marine itsas koronelak, bere gudariekaz ontzitik lurreratu ondoren, askatu arte.

1.875eko urtean Bagillarterako denbora onetan, Primo de Ribera liberalaren gudal nagusiak, denbora pasa bat izan balitz bezala, Ziraukiko San Kristobalen baselizatik, Zirauki, Artaza, eta Billatuerta bonbakatzen ibili zan, bide batez Etxauriko ibarrean egon ziran erriak eskuratzeko, arik eta bere egitarauan antolatuta euki eben Lizarrari eraso egiten asi arte.

Eta Perula karlista gudal nagusiak beste aldetik, Iruñako Kriaren, Mesede kale ingurutik, itzelezko kalteak egin ebazan San Kristobaleko gaztelutik bonbaketeagaz.

1.875eko urtean Bagillaren 6an, ille onen baretasunean, garrantzizko borroka bat egon zan Trebiñoko Zumelza errian, liberalak, Perularen zaldunezko taldearen aurka, Perulak atzera egitea bear izanda.

1.875eko urtean Bagillaren 15ean Liberalaren gudalozteak urtetan dabe Ebroko Mirandatik, karlistek Gazteizeri egiten eutsen ingurutasuna apurtzeko, ta Tuyoko Kontxatan euki eben borroka bidetik, liberalak Gazteizen sartzen dira.

Eta emendik asiko dira liberal gudalozteak, Euskalerriko beste toki batzuetara zabaltzen, gudaren amaiera lasterragotzeko.

2. 82. (15) *Arana Goiri´tarren sendi ta anaiak.*

1.875eko urtean Aranatarrak, Baionan egon zirala, Maiatzeko-Bagillaren egun bitarteko Pazkoan Sabinok, lenengo Jaun Artzea egin eban, Donibane Loitzuneko eleiz nagusian.

1.875eko Lorail onetan, Arana-Goiritar sendia, Ziburrera joaten da.

Eta Urrillan, Donibane Loitzunera(1), artean Arana ta Goiritar Luisek, apaiz karlista baten irakatsiak ikasten, eta Sabino, Laudioko Oruetak, karlisten Arratiko lenengo taldean bigarren agintaria izan zanak, Loitzunen igeslarientzako zabalduta euken eskolan ikastera joanda.

2. 83. *Karlisten guda ostera oratuta.*

1.875eko urtean Uztaillaren 1ean VIIn Karlosek, Mendiri gudal nagusia kentzen dau Iparraldeko lur osoaren agintaritzatik, eta berak artzen dau agintaritza orren ardurea, bere bigarren lez Perula gudal nagusia izendatuta, eta Mendiri oiñezko gudarien antolako lanetan ipinita, Mendiri berak itzi eban lan ori Uztaillaren 5ean.

1.875eko urtean Uztaillaren 3an Dorregarai karlista gudal nagusia, peninsula edo Erdiugarte onen erdi inguruan Lezena del Zizen borrokan ibili zan, eta bere izena erdi saltzaille lez ibilten eban lez, Ebro ibaia aldatu eben Segre mendi gaiñera joanda, bitartean liberalak Kantabiejako gaztelua berrezkuratuta.

Eta ekintza onegaz amaitu ziran Erdiugarte onen, erdiko lurraldearen borrokak, Kataluñako guda indarrak, beste gudari talde andi bigaz sendotu ondoren, Iparraldeko borrokak gogortuta.

1.875eko urtearen erditik aurrera, gure Foru Legeakaz ez ebena ezeren artu emonik euki, karlisten Zigorrezko Legediagaz zuzendu zan.

Orregaitik VIIn Karlosek Oñatin, dirua egin eta bidai-txartelako sillu edo zigiluak(2) ataratea agindu eban, andiki edo jaun izenak emon, eta abar.

Eta gure Foru Aldundikoak izan ziran benetako jaurtzaileak, euregandik kanpo ez zalako al izango karlisten gudako antolakuntzarik, eta gitxiago gudarik, izkillu, janari ta gudariak jazteko guztiekin, eurengandik kanpo ez zalako egon arduradunik.

Ainbat aldizkari agertu ziran, bakoitza egokitzen jakon lekuan datorrena.

1.875eko urtean Uztaillaren 5ean VIIn Karlosek gure Foruai ziñez itza emon eutsezan berriz, eta bi egun barru, Billafrankan Gipuzkokoari.

1.875eko urtean Uztaillaren 7an Kesadatar Jenaro, XIIn Alfonso errege liberalaren gudal nagusi barriak, Perula karlista gudal nagusiari atzeratuazota, beartu egiten dautso Nanklares eta Subijana bitartean babesten.

1.875eko urtean, tranbideko gurdiak tximist-indar edo argi indarragaz ibili egiezan, goi aldetik ipini eutsoezan zirgak(3), tximist indarra, tranbideko eragitailuagaz gardaiñatzeko(4).

(1) Donibane Loitzun = San Juan de Luz. (2) Zigiluak = posta-kutxako seilluak. (3) Zirga = el trole de los tranvías. (4) Gardaiñatzeko = para conectar la corriente de los cables aereos, al motor del tranvía.

2. 84. *Azkeneko oarra.*

Lekurik ez daukalako, emen amaitu bear dodaz atal onen idaz lanak, gero XIn atalean, karlisten gudakin eta Arana ta Goiri´tar sendiagaz aurrera egiteko.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan, 2.018ko urtean Uztaillaren 6an.

EUSKALERRIEN EDESTIKO XIn. ATALA

AURKIBIDEA.

I. ZATIAN.

GAIAK		*ORRIA*
1. 1.	Aurki bidea.....	996 - 998
1. 2.	10n atalean ikusi genduna.....	999 - 1002
1. 3.	11n ataleko sarreraren aurkezpena.....	1002 -1002
1. 4.	Leen, 1.869ko urtetik, IIn Isabelen erbesteratzea gogoratuko dogu, eta bai ta emendik aurrera ibili ziran gudal agintari nagusi batzuk aurkeztuko doguz, jakin degun, zelako antzezlariak ibili ziran, azkeneko karlisten guda onetan.....	1002 -1003
1. 5.	IIn Isabelen erbesteratzea.....	1003 -1003
1. 6.	Prin eta Prats´tar Juan jenerala.....	1003 -1004
1. 7.	1.834-1.840ko urte bitartean, Prin´en leen karlistadaren guda.....	1004 -1004
1. 8.	Prin, politikaren arloan.....	1004 -1006
1. 9.	"La Jamanzia" edo ertsaldia.....	1006 -1008
1. 10.	Prin, Kataluñako irabazkien, edo mozkiñen babes, ostera diputadua.....	1008 -1009
1. 11.	Prin, Turkia ta Aurrerakoien urte biak.....	1009 -1010
1. 12.	1.857-1.862 urte bitartean, Prin, "Liberalaren Bilketako" inguruan.....	1010 -1010
1. 13.	Marrokos´eko guda, "Kastillejoseko Gizandia".....	1010 -1011
1. 14.	Mexiko´tik ibillaldia, eta Liberal Batuen artu emanaren apurketa.....	1011 -1013
1. 15.	1.863-1.868ko urte artean, azpikaritzaren ekintza, eta Aurrerakoi Alderdia.....	1013 -1015
1. 16.	1.868-1.870eko urte bitartean, "La Gloriosa"ren matxintasuna...	1015 -1016
1. 17.	Kuba.....	1016 -1017
1. 18.	Prin, erregearen billa: I Amadeo.....	1017 -1018
1. 19.	Madrillen, Prin´eri egin eutsoen gaziztakeria.....	1018 -1018
1. 20.	O´Donnell´tar Leopoldo.....	1018 -1019
1. 21.	O´Donnell´tar Leopoldo eta karlisten guda.....	1019 -1019
1. 22.	O´Donnell´en erbezteratzea, eta matxintasuna.....	1019 -1020
1. 23.	O´Donell´en Laterriaren aurkako matxintasuna, ta lendakaritza..	1020 -1021
1. 24.	1.865-1.866ko urte bitartean, O´Donnell´en azken jaurpena.....	1021 -1021
1. 25.	1.867ko urtean, O´Donnell´en eriotza.....	1021 -1021
1. 26.	Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonio, euskal karlisten gudal nagusia.	1021 -1023
1. 27.	Dominguera ta Dorregarai´tar Antonio, karlisten "judas" gudal nagusia.....	1023 -1024

1. 28. Saballs eta Massot´tar, karlisten "judas" gudal nagusia.....1024 -1025
1. 29. Ziraukiko, "La Kalle ta Yabar´tar Tirso, "Urgun" edo
"El cojo de Zirauki". Liberalak euken iltzaille madarikatua.....1025 -1026
1. 30. Martinez ta Kanpos´tar Arsenio, Liberalaren gudal nagusia.....1026 -1027
1. 31. Gudalarien aldarrikapena eta Borboi leiñuaren lengoratze
edo berregintza.....1027 -1029
1. 32. Kesada ta Bizente´tar Jenaro, espainitar liberalaren aldetik.....1029 -1030
1. 33. Espainitarren askatasunezko guda.....1030 -1031
1. 34. Kesada, VIIn Fernando erregearen denboran.....1031 -1031
1. 35. Kesada, karlisten leenengo gudan.....1031 -1031
1. 36. Perula ta de la Parra´tar Jose, karlisten gudal nagusia.....1032 -1033
1. 37. Mendiri ta Koleratar Torcuato, karlisten gudal nagusia.....1033 -1033
1. 38. Borboi´tar XIIn Alfonso, espainitarren errege.....1033 -1034
1. 39. IIn Isabel´en erregetzatik kentzea eta XIIn Alfonsoren
ikas bideak.....1034 -1035
1. 40. XIIn Alfonso, errege al izatera.....1035 -1037
1. 41. XIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba-semeak.....1037 -1037
1. 42. Kanobas ta Jauregi´tar Antonio.....1037 -1041
1. 43. Kanobas eta jauregi´tar Antonioren ilketa.....1041 -1041
1. 44. Mateo ta Sagasta´tar Práxedes.....1041 -1043
1. 45. Sagasta denboran, sei urteko aldi demokratikoa deitu zana.....1043 -1043
1. 46. 1.874ko urtean, Borboien erregetza berriztea.....1043 -1044
2. Euskalerriaren kondaira ostera oratuta.....1044 -1044
2. 1. 11n atal onetan, Euskalerriko edestiaren autueta,
edaste, edo kondaira.....1044 -1047
2. 2. Ekintza onen oartxo bat.....1047 -1049
2. 3. Karlisten, bigarren edo irugarrengo gudaren amaiera.....1049 -1054
2. 4. (16) Sabino.....1054 -1056
2. 5. (17) Sabino.....1056 -1056
2. 6. (18) Arana´tar Santiago, Sabino´ren aita.....1056 -1057
2. 7. Euskalerriaren diru kontuak, espainitar Sakratuzko katoliko
aberkide zapaltzailleakaz.....1057 -1060
2. 8. (19) Arana ta Goiri´tar Koldobika.....1060 -1060
2. 9. (20) Arana ta Goiri´tar Koldobika, Sabino, eta Juan.....1060 -1071
2. 10. (21) Arana ta Goiri´tar Sabinoren buruz, aipamen batzuk.....1071 -1073
2. 11. (22) Sabino, Abertzale bezela.....1073 -1073
2. 12. (23) Oar txiki bat emen.....1074 -1075
2. 13. (24) Sabino´ren Abertzaletasunari ostera ebatuz.....1075 -1078
2. 14. (25) Oar txiki bat emen.....1078 -1079
2. 15. (26) Sabino, Kristau bezela.....1079 -1081
2. 16. (27) Arana ta Goiri´tar Sabino´ren Nortasuna eta Nafarroa.....1081 -1086
2. 17. (28) Arana ta Goiri´tar Sabino Gizon bezela.....1087 -1088
2. 18. (29) Arana ta Goiri´tar Sabino, Erri-Gizon bezela.....1088 -1093

10garreneko atalaren antzera, oar txiki bat emen:

Atal onetan izki-etzan edo (kurtziban) idazten diran zatiak, nire eritzi edo neure oarkizunak izango dira.

Eta izki-etzan eta baltz idazten direnak, ataltxoen izen-buru, eta Arana ta Goiri´tar Sabinoren sendiari egokitzen jakozenak izango dira, Sabinoren bizitza eta beren sendiaren kontakizunak, gure dauanak, errez batu egiezan.

1.2. *10n atalean ikusi genduna.*

10n ataleko sarreraren aurkezpenean esan gendun, XVIII, XIX eta XXn gizaldietara elduta, Euskaldunentzat bere askatasunezko demokrazien gora beran, garrantzi aundiko gizaldiak direla, or, beartu egiten dozkuelako euren amaibako gudalozteen zemankutza, ta Europako konstituzionalisten laguntzagaz, espainitar konstituzioaren menpetasunezko eritziagaz atara eben espainitar garnet-agiria, gure euskal nortasunarena izan balitz bezela eroan degun, euskal borondatearen, guztiz aurkakoa dana.

Eta eurak, Goiko Jaungoikuaren agindua izan balitz lez, katolikotasunaren sakratuzko aberkuntzan batzangotzeko siñiskai edo ziñeskintzatutako izen buru orregaz, maltzur eta guzurrezko fazizta eritzi orren aurrean, buruak makurtu dagiguzen.

Ikusten dogu be, IIn Isabelen erregiñatik, bere zori gaiztoko jaurkintzagaitik asi ta, euki zituzen karlistaren guda gogor bigaz, bera erregetzatik kendu arte, eta espainitarrak nai jaurriko gauzatan oso txarto ibili arren, Europako jaurgotiar edo konstituzionaliztaren laguntzagaz, beti joan direla sarreraren maltzurrezko guzurratik asita, guzur geiagoagaz okerrak zuzentzen, guzur aundiagoetan sartzen gaituna. Eta egiaren arloetan, aiñ utsun aundia eginda, guzurragaz samaraiño egokituta, ur-laster edo urbiziaren aurka lez, guzur arteko igerian gabiltz.

Bai ikusi gendun be, espainitarren liburuetatik artukoai, emon geuntzezan erantsunak.

Eta 1.841eko urtetik 1.875eko urteraiño, gure euskal gordetzailleak egin ebezan dirutza aundiakaz, zelan diru orregaz, Euskalerriaren lantegi ta langintzazko tresnerien iraulketa egingo ebela, bigarren karlista gudatik aurrera.

1.841eko urtean Boluetako Santa Ana; 1.854ko urtean Ibarra ta Lagundia; 1.882ko urtean "Bilbaoko laba nagusietan, burdiñezko lantegi ta galtzairuzko lantegietan biurtu zirenak"(1). 1.878ko urtean "Etxebarria S.A. 1.892ko urtean "La Basconia". 1.882ko urtean "La Vizcaya". 1.890 "Iberia´ko Lagundia". Eta 1.902ko urtean askeneko irurak, "Bizkaiako Laba Nagusietan"(2) biurtuko zirenak.

1.844-1.860ko urte bitartean, karlisten bigarren guda esan eutsoenai, ikusi gendun.

1.862ko urtean Dagonillaren 25ean zelan jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, ta ortik aurrera, beltx, izki makur, eta zenbaki bereziakaz marratuz, Sabinoren sendi ta beren edesti orreitan antzezlari garrantzidunezkoa lez, egokitzen dan lekuan ezartzen asi, beren edestia batu gura dauanentzat, errezago izan zedin.

Espainitar erregetzan, Saboyako I Amadeoren ibil laburra ikusten dogu, eta beragaz, aldatzen asi ziran antzezlari jaurgotiar menperatzaille orreik, ta askatasunezko demokrazi izena ikurra lez artu arren, demokrazien aurkakoa egin ebela Frankoraiño egin eben guztia, eta Frankoren ostean bardiñ, euren guzurretik kanpo, ez daukielako ezeren almenik.

VIIn Karlos ikusten dogu be, bere erregenai alegiñetan, 1.874ko zati onen oarperaiño, beren sinisbeteko eritzi onetara elduz:

Argiago ikusten dogula, espainitar zaletasunezko borrokan, ez zirala izan espainitar katoliko erlijioaren aberkide liberalak bakarrik, IVn gizaldian Nizean, Mundu osorako

(1)Altos Hornos y fábricas de acero y hierro de Bilbao. (2) Eta 1.902ko urtean askeneko iru lantegiak Bizkaiako Laba Nagusietan biurtuko zirenak = las tres últimas fábricas se convertirian en los Altos Hornos De Vizkaia, al mismo tiempo con la aparición de plutocracia (aberats.nausitza).

artu ziran erabagiakaz, Ludi au katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko, Europakoen aberats ta liberal katoliko erlijioaren aolku bidez, egon zalako jaurgotiar edo gudal konstituzioaren erabagi ori, eta ez eutsoen ardura andirik emoten, guda ori luze edo laburra izan zedin, eurak euken indar, diru eta gauza guztien kontrolagaz, jakin ebelako garaipendun urtengo ebela.

Europako liberaltasunen aberkide katoliko ardurak, menpeko araudiaren ezarpenetan egokitzea izan zan, eurak asmatzen eben sasijainkotasunezko andikerian bizi gindezan.

Eta katolikotasunezko menperatzail arauditasun ori da gaur, txebera edo sare-arte oso baten antzera, gaiñetik daukaguna, argi erakusten dautsoezelako mundu onen gizatasunari, gaur lez, menpetasunaren lapurkerizko ekintza orreik egiteko, maltzurrezko arauditasun orren sare arteko txeberan danok arrapatuta gagozelako, dala.

Eta konturatu gindezan, menpetasunezko eritzi orreri esker, zelako antolakuntzazko ezarpenean gagozan gaur egokituta, kontuan artu bear dogu, katoliko liberal orreik 1.879ko urtearen ezkeroztik, askatasunerako iraultzak izan arren, beti, lengo Erromatar Godo-Lege katolikoetara itzuli zirala, eta sekula ez dabela izan gura, naita Jaungoikuak bereztasunean legeztatuakoa izanda be, gizaren bereztasunezko antolakuntza orreik, lotsa edo begirunezko kontuan euki.

*Errigizarteko antolakuntzan: "**Arbaso, Amon**, Aiton, Guraso, Izkuntz, Sendi, Sendiaren Aitorle, Aita, Ama, seme alabak, Auzune, Erri, Aberri" ta abarrezko itzak, errenkuraz(1) edo zeetasunezko leian zaindu bear diran itz sakratuak dirala orreik, menperatzailleak, euren naikerian ibiltea gure dabelako, salda, zuku edo saltsa orretatik, eurak geien urrupatu, edo irabazle urteteko.*

Begitu bestela P.P.koak, Rouko Barela espainitar eleizako lendakari, eta epaiketetan lagun dabizenak, zer eta noren jaungoiko errigizarteen begira dabiz, egiten dabezanakaz.

*Atzo, Epaillaren 11n, Madrillen egin eban lez, "**Ikarabidezko Illen Lagundia**" edo gazteleraz, "A.V.T.koak" liberalaren katolikotasunera edo liberalaren talde lez biurtuta, Madrilleko tximist gurdiaren istripuan sortu ziranak, gaur zortzi urte geroago eta zeaztasun guztiagaz epaituta egon arren, ostera E.T.A.ri leporatu gurean dabizela, bai aur-galtzeko legearekin, eta beste legeakin egiten dabezanakaz, fede-zain, inkizizio edo Frankoren denboretara atzeratuazoteko alegiñetan dabizelako eta abar.*

*Ostera gure dabe menperatasunaren katoliko fede zaindietara itzuli gindezen, eurak diruzko edo "**urrezko zekor sasijainkoari gurtzeko**".*

Espainitar orrentzat, eta Europako katolikoarentzat, JAUN-GOIKORIK ba ote da ?.

Europako gizarteak erne egon bearko leukie, espainitarrak benetan, euren ari edo antzekoak izanda be, beste gauza bat direlako.

Orregaitik itandu egiten dogu:

*Zelan izan leike, sasikatolikotasunezko erlijio aldetik: "**Gure bizitz fisiko onen Ekandu** arloetan, arrazoi bardiña emon, Menperatzaille edo ta Menperatuta dabiltzanai ?".*

Eleiza katolikoa era baten, edestiko borroka guztien ostetik, naita beti ezeren lotsa barik menperatzaillearen alde egon, bereztasunezko legean bizi direnai menperatu ta gero, zergaitik sekula ez dautso esan oneri, arrazoian dagozela edo ta, ez daukenik ?.

(1) Errenkuraz = queja, remordimiento, inquietud, desasosiego, escrúpulo, etc.

Arrazoiaren eretxi edo uste orreitan beti, maltzurtasunez jokatu dau eleiza katolikuak. Ez da izango, berak daukala orren errua IVn gizalditik, Nizeako batzarraren ezkeroztik ?.

Geiago, "jakinda", emen sortzen dan lez, alderdikerizko norkerietan zapaltzaille dabiltzanai, eta Jainko legean berezko nortasunean, zapaltzaille orrein ekintzari aurka egiten dautsen artean:

Bata, maltzurtasunaren sasiasmalaria dala.

Eta bestea, Jainkoaren Legebidea zaintzen dabena, gure arimaren gai-giza bereztuta daukagun eskubidetik.

Gure adimenean, eta epaiketazko almen bidetik, artu bear doguzan erabagiak: "bardiñak ote dira GUZURRA ta EGIA ?.

Argi dago, emen zeozerrek, ustel usaiñ andia daukela, edesti guztian, sare arteko txebera orren ekintza izan dalako Euskalerriaren zabaltasunezko Jendekuntzari, murriztu egin dautsoena, gaur gagozan lurralde txiki onetan geratu arte.

Kadizeko espainiar jaurgo aldeko Norkeri orren sasikatoliko ta sasimerkantilista asmatzailleak, naita PPko, Sozialista, edo ta Errepublika zaleak izan arren, ez dira egokituko arik ta Euskalerria ezereztuarte, 1.812ko konstituzio maltzur orrek barruan daukana, menperatzailleak asmatutako lege araudi sorta dalako.

Noz konturatuko dira, jaurgotiar(1) edo konstituzio ori, gurea ez dala, eurena baiño, eta, gurera gudaloztearen indarragaz sartu gure izan dabelako edesti guztian ?.

Nork emoten dautsie jabetasun ori, egin dabena, maltzur, eta gudalozteko indarraren lapurtzagaz egin ba dabe ?.

Argi dago, erlijio edo sasikatolikotasunetik agertzen jakiela lapurrezko jabetasun ori.

Eta Euskaldunak, gure izatasunezko azturan Jainkoaren Legeari begira, eta errigizarte arloan oiturazko entseguka(2) jokatutearren beti Paleolitiko-Neolitikotik, eldu giñela Europako Mendebal onetan daukagun demokrazi aundira.

Orregaitik, Norkerizko guzur ta menperatzaille asmatzail orreik, batzangotasunezko eritzian daukien aurkari aundiena "EUSKALERRIA" izanda beti, eta nik esango neuke, bakarra izan dala. Europako Mendebal onetan, ez ziralako egon euskaldunak baiño besterik ainbat milla urtetan.

Ortizik agertzen jakuz zitalez, aldi guztiko erasoak euskaldunai, katolikotasunezko erlijio ori, demokraziaren aurka asmatuta dagoelako.

Euskaldunak, orregaitik "ulertu" bear dogu, "elburu" bakar bateri begira ipini bear doguzala, daukaguzan bereztasunaren arrazoizko indar guztiak.

Eta naita menperatzailleak kaizar eritziekin beartuz, euskal nortasunezko izatasun gorpua zatitu egin bada be, eta euskaldunak daukaguzan alderdiekaz jokatu bearrean aurkitu arren, JAUNGOIKO ta GIZONAREN aurrean, gure artean kontu andian euki bear dogula nortasunezko leen ardura lez, ez daukagula beste arrazoirik: "EUSKEREA ta EUSKALERRIAK" daukana baiño.

Mundu au danon ardurazkoa izanda, eta batzango baten ulermenera eldu bear bagarela, gaiak eta gaitutako gizak daukan eskubidearen bidetik eldu bear garela.

Ala..., Mundu fisiko onetan, alango egun baten, lapurkerietan asi gintzazalako, eta norberkeri orregaitik menderatuta, "Bizitzako Legetan biurtuko ote doguz, lapurtzak ?".

(1) Jaurgotiar = adicto a la constitución imperialista española. (2) Entseguka = empíricamente, investigación empirica. Entsegu = ensayo, prueba experiencia.

Beste alde batetik begituta, ez dira galdu bear, erantzuteko aurkezten jakuzan aukerak, legunean agertu jakun antzera, espainitar gortetan Rajoik birriten Iñaki Antiguedaderi esan eutsonean: "beragaz ez eukala, iñungo zorrik".

Zelako erantzuna ote da ori: "espainitarrak Eta Europarrak, euskal izatasunezko bizitzaren arloan, Euskalerria menperatuta eukiteagaitik, euskaldunekin zor aundienak edo ta guztiak eukiten dabezanean ?".

Espainitar gorteko batzarraren aretoan egun orreitako jaurgoitiarrak, eta gobernuko lendakarien aotik, arro esanda entzun ginduzen: "200 urte dira jaurpidetzen asi zirala Kadizeko jaurgoarekin, gudalozte, polizia ta guardia zibillaren laguntzagaz".

Ez ebena esaten, lenengo egunaren arazoak, gaurko arazoak dirala, Euskaldun, Katalan ta Galleguak askatasunezko erriak izanda, ez dogulako onartzen iñungo maltzurrezko menpetasun zikiñik. Berezkotasun onetan gaituta egonda, daukagun arrazoizko araudien kanpotik, ez dogulako maltzur eta guzurrezko legerik onartzen.

Teresa katoliku Santuak esaten eban: "Jainkoa, lapiko artean ebillela".

Eta egia da, Goiko Jaungoikuaren egia ontzat artzen ba dogu, Beren Legeakaz topo egin dogulako.

Araba´ren galduera be ikusi gendun, eta 1.875eko urtean Uztaillaren 7an, Kesada´tar Jenaro´raiño eldu giñan, gu, 11n atal onetan bertatik asteko.

1.3. *11n ataleko sarreraren aurkezpena.*

1.875eko urtean Uztaillaren 7an ikusi gendun, zelan Kesadatar Jenaro, XIIn Alfonso errege liberalaren gudal nagusi barriak, Perula karlista gudal nagusiari atzeratuazota, beartu egiten dautsola Nanklares eta Subijana bitartean babesten.

Baiña Kesadak, jakin eban lez, zelan karlistek Gazteiz ostera inguratuta eukiela, Trebiño ta Zumeltzutik Gazteizera bideratzen da.

Tello liberal gudal nagusia geratu zan Kesadaren atzerakadea, gudalaneko babesean(1), eta karlistekin aurkituta, auek atzerantza egin bear izan eben, karlistek, Gazteiz betiko, eta Arabako lurralde geiena galduta.

1. 4. ***Leen, 1.869ko urtetik, IIn Isabelen erbesteratzea gogoratuko dogu, eta bai ta amendik aurrera ibili ziran gudal agintari nagusi batzuk aurkeztuko doguz, jakin degun, zelako antzezlariak ibili ziran, azkeneko karlisten guda onetan.***

-IIn Isabelen erbesteratzea.
-Prin ta Prats´tar Juan jenerala.
-O´Donnell´tar Leopoldo.
-Lizarraga, karlisten gudal nagusia.
-Dorregarai, espaintar liberalen gudal nagusia.
-Masot eta Saballs´tar Franzizko, karlisten judas gudal nagusia.
-Ziraukiko La Kalle´tar Tirso "Urgun" edo "El cojo de Zirauki", liberalaren iltzaille *madarikatua.*

(1) Kesadaren atzerakadako gudalanen babesean = que el general Tello quedò en defender la retirada de Quesada.

--Martinez´tar Kanpos, liberalen gudal nagusia.
-Kesada bizente Jenaro, liberalen aldetik.
-Perula karlisten gudal nagusia.
-Mendiri ta Korrea´tar Torkuato karlisten gudal nagusia.
-Borboi´tar XIIn Alfonso, espainitarren errege.

1.5. *IIn Isabelen erbesteratzea.*

1.862ko urtetik aurrera IIn Isabelek ez eban jakin gura Aurrerakoiezko alderdiagaz ezer, eta eginkizun orrek Prin´eri, matxintasunezko bidera bota eban, sutsuzko etsai biurtuta Borboien aurka.

1.866ko urtean Prin´ek egin eban gudarien matxintasuna, iltasunezko zigorrean kokatu eutson. Alperrik baiña, ortik aurrera, errien-ospe ta maitasunak beragaz egon ziralako.

Prin´ek Lisboatik aldarrikatu eban: "Bera, Aberriaren gudaria zala. Orregaitik, beraren bidetik aurkezten dot nere bizitza, bera aurkezten dan joputzazko aukeratatik askatzeko".

1.868ko emaitza, agertu zan matxintasuna zan, IIn Isabel´i Donostian egoala, oporrezko egoeratik, Frantziko etzerritasunera bialdu eutsona.

1.870eko urtean IIn Isabelek, XIIn Alfonso, bere semeen eskuetan itzi ebazan eukezan erregiñaren eskubideak, Gaztelako Kanobaseri aginduta, espainitar erregeen ondorengo berrizketak edo konponketak egiezan.

1.868-1.874ko seigarren matxintasunezko jaurkintz ugarien ostean lortu zana, XIIn Alfonso erregeen ezar lekuan ezartzeagaz.

1.876ko urtean agertu zan erdiugarte onetan IIn Isabel, politika arloetan sartu ez egian, zainpe andi bategaz.

1.878ko urtean baiña, Kanovas´ekin euki ebazan eritzitasunezko kirri-marrak edo beste eritzibateko izan zirelagaitik, IIn Isabel Perisera atzerriratu zan betiko.

1.878ko urtean il zan IIn Isabelen ama. 1.885eko urtean bere seme XIIn Alfonso il zan. 1.902ko urtean il zan bere senarra, eta eukezan ia maitale guztieien ostean, 1.904ko urtean il zan IIn Isabel.

1.6. *Prin ta Prats´tar Juan jenerala.*

1.875eko urte onetan, nai Prin espainitar gudal nagusi au ilda egon arren, daukon garantziagaitik, berton aipatu bear dogu, leenengo errepublikea, jakiteko nundik nora gatozan.

Reus´eko kondea, Kastillejos´eko markesa, eta Brutx´eko konde-ordearen izen buruak euki ebazan Prin´ek.

Espainitar gobernuko ministro batzordearen lendakari izatera be, elduta.

Bere gudal bizitzan, karlisten leen gudan ibilita, Afrikako gudan be egon zan, eta 1.868ko iraultzan, gudal nagusitasunezko maillan, antzezlari nagusi baten biurtu zan, bera izanda, Saboyako I Amadeo ekarri ebena espainitarren errege izateko, eta bereala il eben.

1.814ko urtean Abenduaren 6an, Reus´en jaio zan Prin, bere aita Prin ta Estape´tar Pablo agiri idazlea, Kataluñaren askatasunezko gudan kapitaiña izanda, eta urte batzuk

geroago leenengo karlistaren gudan, IIn Isabeleko tiralarien batalloi taldekoa izan zana, eta bere ama, Prats ta Bilanoba´tar Teresa bidez.

1.7. *1.834-1.840ko urte bitartean, Prin´en leen karlisten guda.*

1.834ko urtean eta bere aitaren eskutik, 19 urte eukezala lerrotu zan, IIn Isabelen liberal gudalozteetan.

1.834ko urtean Dagonillaren 7an euki eban leen gudako ekintza, Llaude ta Kamins´tar Manuel, Kataluñako liberal gudalozteen, orokorrezko gudal kapitain nagusien aginduan.

Prin´ek, ez eban militarren oiturazko jakituririk euki, eta gitxiago, zaldunezko senditik etorkizunezko agerpenik, eta orrein eragipenik euki ezik, lenengo be maillatik asi bearra euki eban.

Denbora gitxi barru, agintari eben, eta ortik aurrera errez igon ebazan gorarteko maillak.

1.835eko urtean Dagonillaren 2an, ta karlisten aurka egin ebanagaitik, teniente egin eban.

1.838ko urtean kapitain egin eben, eta Serradell´eko San Migelen karlistaren aurka egin ebanagaitik, leen maillako San Fernandoren ereñuztatuko gurutzeagaz xingolatu eben, eta komandante agintari egin eban.

Ortik aurrera, eta Ager´en egin ebanagaitik, komandanteen gaiñetik, agintari nagusi(1), egin eben, eta Solsona-Kastellbell egin ebanagaitik, bai ta gero ibili zan borrokatan, ostera San Fernandoren ereñuztatuko beste gurutz bat emon ondoren, koronel maillakoa egin eben.

Karlisten leenengo guda amaitu zanean eta 26 urte euki ebazanean, bere izena aipatua izan zan gudarien artean.

1.8. *Prin, politikako arloan.*

1.836ko urtean, San Idelfonso Jai-etxean matxinatu ziran gudal nagusiak, Borbon´tar Maria Kristina, IIn Isabelen ama beartu eban, 1.812ko konstituzioaren jaurpidea, ostera aldarrikatu egien, eta ori izan zan espainitar gudal nagusiak agertu eben matxintasuna, liberalaren aldetik. Aurrerantzean, aberkide katolikoen laterrizko politika orreik eroateko.

Eta 1.840ko urtean matxintasun au, liberal eta aurrerakoienezko alderdietan bananduz, Kalatraba´tar Jose Maria, eta Albarez ta Mendizabal´tar Juanengaitik bideratuta egon zan aurrerakoien taldean, lerrokatu zan Prin ta Prats´tar Juan au.

1.841-1.856ko urte bitarteak izan ziran bere politikazko lanak, liberalaren aurrerakoi lerrotan jokatuz.

1.841eko urtean aurkeztu zan diputadu lez Tarragonako lurraldean, eta lortu be, eukan diputaduen ezar lekua.

Karlisten guda amaituta, nai beste batzuri aginduzko lan postuetatik kendu ba ebazan be, berari, gudalozteen artean euken oiartzunagaitik, gudalozteko koronelaren maillakoa izatea on artu eban, eta Andaluziako muga-zain edo xixpadunen(2) bigarren ikuslearen

(1) Agintari nagusi = mayor. (2) Muga-zain edo Xixpadunen = carabinero.



Prin ta Prats´tar Juan jeneralaren irudia.

ordegotzarako izendatu eben.

Andaluziako lanpostu onetan egon zanean, Narbaez´tar Ramon´ek, Maria Kristina ostera errege ordearen lekuan ezarri gura eban, eta bideak moztu eutsoezan Narbaez´eri, Jibraltarretik espainitar lurraldetan sartzea. Bai O´Donnell´eri be Iruñan sartzea, ostera itzuli bear izanda Frantziko atzerrira.

Espartero ta beren gobernuagaz asarratu zan Prin, Ingelesari ez eutsielako ezarten zerga nagusirik oial arloetan, Kataluñako oialgintzaren ondamena zalako.

Bartzelonan, askatasunaren matxintasuna agertu zanean, eta Esparterok egin eban bonba erasoakaz, or banandu ziran betirako gudal nagusi bi orreik.

Emen esan eban Esparterok, Kataluña, 50 urteko epeetan, bonbakatu egin bear zala, euren nortasunez euki ebazan askatasunezko eskubideak, aienatu jakiezen.

1.842ko urtean Azaroaren 20an, Madrilleko gorteetan Prin´ek, Bartzelonari emon eutsoen arrera edo jardunbide okerragaitik, aurkari agertu zan, eta Esparteroren bildur Paris´era atzerritu zan.

Esparterok, Prin baztartu ebenean, Reus´eko konde eta Brutx´eko markesaren izen buruak ipini eutsoezan.

Prin´en kondaira berezi bat:

Reuseko erritarrak esaten dabe, akar edo larderiatu(1) egin ebala Prin, euren artera urduritasuna ta atxikidura edo ertsaldiak(2) eroan ebalako, ta berak, ziurtu ebazan erritarrak, an bertan, berari zalatu eutsoen lekuan, oroit-arri aundi bat ipiniko ebela, bera zaldi gaiñean dala.

Egian biurtu zana, zabalgune edo enparantza ori, Prinen enparantza deitzen dalako, erdi erdian, bere zaldi gaiñeko irudi ederra dala.

Prin Bartzelonan egoala, "Espainitar Guda-Mail"en(3) ordego bategaz alkartu zan, aurrerakoiezko alderdiaren katalanen aldetik, beste ainbeste asarre artuz.

Madrillera joan zan Prin, baiña burudun edo zentzunezko alderdikoak, Balentzian lurreratu ziran, eta ariñeketa baten Madrillera joan ziran

Prin baiño egun bat ariñago eldu zan Madrillera Narbaez gudal nagusia, eta gudal nagusien ordezkoa izendatuz(4), bere agindupean ipini eben Madrillaren orrokorrezko kapitaintza.

A ta guzti Serrano gudal nagusiak, koronel baiño mailla bat geiago dekon brigadier maillagaz izendatu eban Prin, Bartzelonan, gudaren sakela(5) eroan ebalako.

1.9. *"La jamanzia" edo ertsaldia(6).*

Esparterok espainiatik iges egin ebanean, Kataluñan sortu zan erdiko batzarragaz ez zan pozik geratu, laterrien jaurkintzan, txikerra izan zalako egin zan aldaketea.

Berak gizartearen demokraziarentzako lortu gura ebezan berrikuntzat, begirune edo lotsagizun aundiagoak eskatzen ebazalako, ta gauza orreik izan ziran errukariak, erregeen ordezkaritzariagaz euken jaurkintzazko arduretatik atarateko.

(1) Prin, akar edo larderiatu egiten ebala = represiòn, reprimenda, increpar, regañar, castigar, intimidar, amenazar. (2) Atxikidura edo ertsaldia = inhesiòn, represiòn, presiòn, urgencia, aprieto. Urduritasuna eta atxikidura edo ertsaldia ta odota eroan ebalako = le reprendieron, porque no les llevò otra cosa que agitación, represiòn y sangre. (3) Espainitar Guda-Mail = Orden Militar Española. (4) Gudal Nagusien ordezkoa izendatu = le nombraron teniente general. (5) Gudako sakela = cartera de la guerra. (6) La Jamancia edo ertsaldia = instancia, presiòn, premura.

1.843ko urtean orregaitik Madrilleko gobernuan egon ziran aurrerakoi ta zentzudunezko elkartearen artean, Prin Bartzelonako jaurlari izendatzea zan euren elburua, Dagonillaren erdian Bartzelonan,"La Jamanzia"ren izenagaz sortu zan matxintasun gogorragaz, amaitu egien.

Prin´ek, erritarren aurka kokatuta, alde egin bear izan eban Uritik, berak antolatzeko euken gudaloztea bien bitartez, Sabadell, Gerona, Figeraz, eta Reuseko jazargo edo mantxino orreikaz alkartu zalako. Eurakaz batera, Zaragoza be matxinatuta.

1.843ko Urrilla-Azaroko illen bitartean Prin´ek, ikaragarrizko ingurutasun bat egin eutson Bartzelonari, menperatu edo etsaimendu zan arte. Eta urrengo illetan Prin´ek, banan banan joan zan eskuratzen matxinatu ziran uriak, arik eta Jerona, Figeraz ta Reus 1.844ko urteko asieratan etsaimendu arte.

Prin´ek, Bartzelonan izan zan, esan oneik bota zituzenean: " Il Kutxa, edo Jeneralaren gerria". Eta Serrano gudal nagusiak, jeneralaren gerrikoa ipini eutson asken baten.

Ikaragarrizko eta odoljariozko sarraskintzagaz etsaimendu ebazan Prin´ek bere aberriko katalanak, nai ta berak, ordain aundiak ordezkatu bear izan andik aurrera, bere erriaren nazka, gorroto ta ikusi-eziñ aundiak artu ebazalako.

Prin´ek denbora gitxi barru, Madrillera joan zan, eta gobernukoak Zeutara bialdu eutsoen agintari nagusi lez, berak ez ebana onartu, eta atzerrira joan zan.

Prin, Parisetik Madrillera joan zanean, Narbaez il gura eban azpikeriz, "trabukodun" alkarte bategaz bat eginda egoalako, eta Narbaez´ek zalatu eutsonean, barkatu ba eutson azpikerizko Joko orreitan ibilteagaitik, Prin, sei urterako zigortu eben Marianas´eko ugarteetara bialduz, azpikerietan ibilikoa lez.

Ezijara baztertu eben, emendik, atzerrira joanda.

1.847ko urtean, Narbaez´ek, erregiñaren senarragaz eztabaida aundiak euki ebazalako, itzi ebazan, gobernuagaz euki ebazan ardureak, eta Isturitzen jaurri labur baten ostean, Patxeko´tar Joakin Franzizkorekin osotu eban jaurkintzagaz, barkamena emon ebalako atzerrian egon ziranentzat, Prin ostera itzuli zan espainitar lurraldera.

Eta Prin´en laguna izan zan Kordoba´tar Fernandez gudako ministruak, Prin Madrilletik urrun eukitearren, Aberats-Kaien(1) orokorrezko kapitaiña izendatu eban.

Aberats-Kaiara eldu zanean, ez dirurik, ez ezer barik eldu zan, laster bete ebazanak baiña, erregearen-ordego lez, maltzur ta gogor jokatuz. Abila´tar Jose Iñazio "Arranoa"ren izena euki ebanagaz erakusten dauan lez, espetxetik atara ondoren, ostera atrapauta tiroz ilda, berari berbea emon ondoren, ez ebalako alde egin ostu eutson zaldiagaz.

1.848ko urtean, Frantziaren ardurapean egon zan Martinikako ugartean, jopu, ustarpeko edo menpeko gizartea(2) matxinatu zan, joputzatik askatzea eskatzen ebalako(3).

Askatasunezko barri orreik, bolbora, sutats edo lerrautsak sua artu balitz bezela zabaldu ziran, eta Prin´ek, menpeko baltz orrentzat artu ebazan neurriak oso gogorrak izan ziran, azal-baltza euken gizonen, aurkari amorratua izan zalako.

1.848ko urtearen Uztaillako 2an, Aberats-Kai onduan eta Saint-Kroizeko ugartean, Dinamarkako Danes´en ardurapean egon ziran joputasunezkoak matxinatu ziran, Prin´ek, bere gudalozteak bialduta matxintasun orreik ezereztuteko, eta gogorrak izan zirelako egin

(1) Aberatz kaia = Puerto Rico. (2) Yopu, ustarpeko edo menpeko gizartea = esclavos. (3) Joputasun edo joputzatik askatzea eskatzen ebalako = que pedian la abolición inmediata de la esclavitud.

ebazan aurkari orreik, Aberats-Kaian egon ziran Ingeles ordezkariak, euren jaurlariei esan eutsoen, 40 gizaki baltz il ebazala.

Prin´ek, berak egin ebazanak zuzendu edo legeztuteko aitzakiakaz: egin ebazanak, Aberats-Kaia Martinikako kutsapenetik(1) babestearren egin ebazala esan eban, eta Dinamarkako Danes orreik, Dannebroj´eko(2) Eraikeraren xingolagaz xingolatu eban.

1.848ko urtearen Iraillan baiña, eldu zan Aberats-Kaiara askatasunezko kutsapen ori, eta baltzen artean tiros egineko ilketa asko, ta besteai 100 zartada(3) emoteko zigortuagaz, amaitu ziran azukretegiko matxintasunak.

Ez zan izango azkeneko matxintasuna sortuko zanai, gerazi egin bear izan ebena.

1.848ko urtean sortu ziran askatasunezko arazoak ziran, Prin bere errege ordezko agintaritzatik kendu ebenak, eta ostera itzuli bear izan eban Ugarterdi onetara.

1.10. *Prin, Kataluñako irabazkien, edo mozkiñen babes, ostera diputadua.*

Prin, Kataluñako lurralde ezberdiñ batzuengandik agertuko zan diputadu, eta Bitx´eko lurraldeagaitik aukeratuta, gorteak ezereztu egin zira lez, geroago egingo ziran auteskundeai itxaron bear izan eutson.

1.851ko Loraillaren 31n egin ziran auteskunde orreik, eta Prin, Bitx´eko lurraldearen gaitik ostera aukeratuta, Madrilleko jaurkintzalariei urduritasuna sartu jakien, eta berriz, Aberats-Kai´aren orokorrezko kapitaiñ gudal nagusi izatea agindu eutsoen lez, berak onartu eban eskeintza ori, nai ta gero, auteskundearen ostean, Aberats-Kai orren gudal nagusitasun ori, Madrilleko jaurkintzazkoak maltzurtasunez ezereztu.

Joko zikiñ orregaz, Prin lanbide barik geratu zan.

Eta Prin´ek, lanpostu barik geratu zan lez, aurrerakoi diputadu batek, erri-alde biko diputaduen ezar-lekua lortu ebazanak, Barzelonako ezar-lekua itzi eutson berari, ordegozko lanak egiezan.

Bartzelonan ez eban euki maitasunezko zaletasunik Prin´ek, eta erriari eskeiñi eutson itz emonda: "bere utsegiteak zuzenduz, bera izango zala liberalkeriaren aurrerazaleetan leena, katalanen eskubideak zainduko ebazanak, eta batez be diru kontuetan".

Erriak, sinistu eban Prin´ek eskeiñi eutsoena, eta bera ortik aurrera aukeratua izanez gaiñ, bere zentzun aundiko itzaldiakaz, Madrilleko gobernuari, Kataluñagaz egiten ebazan okerkeriai, bide guztiak sarratu eutsoezan.

Eta katalanaren ikurra aurrera eroaten buruzagi biurtuz, Kataluñan bakarrik egoan langintzagaz arduratu zan, Madrilleko gobernuari saleros-aukerean edo saleroskeraren askatasunagaitik egiten ebazanak zalatuz. 1.851ko urtean eta Azaroko illean, diputaduen biltzarrean egin eban lez, esan onekaz:

¿...será que se les guarda rencor [a los catalanes] por el mismo movimiento centralista?. Si esto fuera así, ciertamente que mi suposición honraría poco al Gobierno, porque, en primer lugar, debíais haber sido más generosos con aquellos valientes que, después de todo, no hicieron más que exigir el cumplimiento de una palabra que se les había dado en momentos de peligro, por un poder que vosotros habíais reconocido. (...)

(1) Aberats-Kaia, Martinikako kutsapenetik babesteo egin ebala = Que èl hizo lo que hizo, para proteger Puerto Riko del contagio de libertad que podia provenir de isla Martinica. (2) Dannebroj Eraikiaren xingolagaz xingolatu eban = le condecoraron con medalla de la Orden de Dannebroj. (3) Zartada = latigazos.

¿Hasta cuando hemos de ser tratados como esclavos... somos, o no somos españoles?.

Brabo ta Murillo´tar Juanek, gorteak edo lege-biltzarrak ezereztu egin ebazanean, eta agintaritzazko jaurkintzagaz jaurritu, gudal nagusi batzuk asi ziran artegatzen, eta Prin bada-ezpadako zalantzan euki ebalako, atzerrira bialdu eben.

Prin Frantzian egoala, auteskundeak egon ziran Erdiugarte onetan, eta bost egun ariñago, auteskunde orreitara joan egian baietza emon eutselako Prin´eri, ostera urten eban Bartzelonagaitik aukeratuta.

1.853ko urtean baiña, ezereztu eben lege-biltzar ori, eta Prin ostera atzerriratu zan Frantzira.

1. 11. ***Prin, Turkia eta aurrekoien urte biak.***

Prin, Parisen egoala, Mexika´tar neska batégaz asi zan ezkontzeko bideak apaintzen, nai bere amaren ezetza euki arren, eta gauzak olan zirela, Krimeako guda asi zan.

Prin´ek, Lersundi ta Ormaetxetar Franzizko jeneralaren baimenagaz lortu eban gudarako arduradun nagusi edo batzarraren gudal nagusi izatea, gudalozteak egiten ebazan mugi aldiak, eta politikazko zeregiñen argitasunak, jakin-arazira emoteko.

1.853ko urtean, Konstatinoplan lurreratu zan Prin, eta leen ikusi ebena, Tutrakako ugartearen erasoa izan zan, berak, zelan atondu bear zira kañoiezko illarak aginduta.

1.854ko urtean Frantzira itzuli zan, ostera baiña joan zan Turkiako guda lekura.

Eta mairu-erregeak, Medijidie´ko xingolagaz jantzi eutson, omen edo ospeko aizto(1) eder batégaz batera.

Prin, Routstxouk´en egoala jakin eban, espainitarren arteko politika arloan, aurrerakoi liberalak irabazi ebela "Bikalbarada" deitu zan alegiñekin, ta bereala etorri zan Erdiugarte onetara.

O´Donnell eta Esparterok baiña, elkar aditu ziran espainitarren lurraldea jaurritzeko, eta biok ados egonda, Prin jaurri ortatik kanpo euki bear ebela asmatu ondoren, Prin, araudi batzarraren(2) gorteetarako egingo ziran auteskundeetan aurkeztu zan.

1.854ko urtean Azillaren 8an egingo ziran autapenetan aurkeztu zan Prin, naita berak ulertuta euki, demokratak, errepublikano ta sozialistakin osotzen ziran taldeak, gorantza joan ziran taldeak zirala, eta euren taldeetatik onena artuz, nai gorteetarako aukeratua izan arren, eta beren liberalezko aurrerakoien eritziekaz alkartuz, ez zan gauza aundirik izan, Kastelar´tar Emilioren(3) aurka ezer egiteko.

Eta askenean, bere diputaduaren ezar lekua itzi ondoren, Granadaren orokorrezko kapitaiñ nagusitza artu eban, Melillagaz batera, kabilako bereberrak, sarri egiten ebazan erasotzezko alegiñak ezereztuteko.

1.856ko urtean Prin´ek, kabilako bereber orreik ezereztu ebazan Kabrerizazeko borrokan, eta orokorrezko kapitaiñaren nagusitza, general nagusiaren ordezko maillagaz izendatu eben(4).

Denbora gitzi barru, O´Donnell´ek igongo eban gobernuaren nagusitzara Esparteroren

(1) Omen edo ospeko aizto eder bat = Aizto = cuchillo largo en euskera, cuchillo largo o espada para las celebraciones. De ahí le biene el nombre y su razòn de ser al estoque = aiztoa edo aiztokada. (2) Araudi batzarraren = cortes constituyentes. (3) Kastelar´tar Emilio = 1.832ko urtean jaioa ETA 1.899ko urtean il. (4) Orokorrezko kapitain jeneralaren ordezkoa = teniente general.

ordez, eta nai ta Madoztar Paskualek, bideratu ebezan Laterriko Gudalozteak, Esparterori lagundu, indar auek, menperatuta geratu ziran, eta ezereztu ondoren, Prin kendu eben Granadaren orokorrezko kapitaintzatik.

O´Donnell, denbora gitzi barru kendu eben jaurkintzatik, eta IIn Isabelek, Narbaez´eri deitu eutson, eleizaren ondasunak askatzeko legea(1) kendukoen itxaropenagaz. Alan egin ebena.

1.12. *1.857-1.862ko urte bitartean, Prin, "Liberalen Bilketako" inguruan.*

1.857ko urtean Urtarrillako 11-12ren arteko gauan Prin´ek, Bartzelona, Balentzia eta Zaragozako matxinatuari laguntza emon eutzelakoan Narbaez´eko gobernuaren aurka, zalatu ta baitu eben.

Atzeratu egin zan guda-auzitegi au, aurrerago egin bear ziran auteskundeetarako, eta Prinek, aukerarik ez egian euki auteskunde orretan aurkezteko, auteskunde oiek egin baiño ariñago, sei illebeteko gazteluen-zigorra agindu eutsoen.

Alikanten bete eban zigor ori, eta gazteluan baiño, kalean bete eban zigorra, alde ez egingo eban berbea emon ondoren.

Eta bere alde politikazko zabalkunderik egin ez arren, bere Reus´eko lurraldeagaitik aukeratuta geratu zan.

Ez eutsoen itzi bere diputaduko ezar-lekuan ezartzen, eta sei illabeteko zigor ori bete ebenean, gobernukoak baimena emon eutsoen Frantziko Bitxi´ra joan zedin.

1.858ko urtean, Narbaez kendu eben gobernuko agintaritzatik, eta O´Donnell, bera sortutako "Liberalen Batzangoa"kin igon eban gobernuen agintaritzara. Prin, beragaz joan zan, bere aurrerakoiezko alderdia, aldi baterako itzi ondoren.

Mexikoren askatasuna lortu zan ezkeroztik, gauza batzuk geratu ziran konpondu barik espainitarrekin, arazo aietan espaintar batzuk ilda.

Prin gudaren aurka agertu zan, eta zalatu eutsoen, bera, Agüero ta Gonzalez´tar Franzizkagaz ezkonduta, au Berakurtzeko Benito Juarezen gobernuko leen ministru zan Etxebarrien senide zalako.

1.13. *Marrokos´eko guda, eta "Kastillejoseko Gizandia"(2).*

Espainitarren gobernuak, arazoen artean euki eban korapillotutako edo ulergaitzezko gauzaren artean, Zeuta ta Melillako Uriak erasotzen ebazan Kabilak ziran, eta onen artean Anyera´rena, Zeutan ainbat eraso egin ebazanak.

O´Donnell´ek, atzerriko etsai baten billa ibili zan, espainitarren gobernuko arazoak ostonduteko, eta Marrokos´eko arazo onekaz baliatu zan.

1.859ko urtean Urrillaren 22an, nai ta Marrokoseko Mairu erregeagaz ados egon arren, espainitarrak euren arrazoizko gora beratan, begitu ta garbitu ondoren, edo ta erabagi baten adoztasunera eltzeko, O´Donnell´ek, guda aurkeztu eutson Marrokoseko Mairu erregeari.

O´Donnellek, ez eutson deitu ta gitxiago jakin arazian ipini Prineri, baiña O´Donnellek

(1) Eleizaren ondasunak askatzeko legea = ley de desamortización de los bienes de la iglesia. (2) kastillejos eta Kastillejoseko Gizandia = Valle de la costa de Marruecos, entre Tetuan y Ceuta, y "Heroe de Castillejos".

jakinda oso galbidetsu zala, Madrillen aiñ oiartzun aundiko gudal nagusia izan zana kanporatuta iztea, gudalozte-ordearen gudal nagusi izendatu eban, beste lau gorpuzko gudalozteen agintaritza, beste gudal nagusi batzuri emonda.

Guda au O´Donnell´ek, bere "Liberal Batasuna"ren alderdiko ospea aundiagotzeko ibili eban, ta orregaitik aurkeztu eban guda au, Marrokosekoak Zeuta ta Melillan egin eutsoezan lotsa gaiztoko edo laidagarrikeriaren(1) konponketak egiteko, errigizarteak on artu ebena, eta Kataluñatik, Bartzelonaren lurraldeko Aldundiak ordaindu eben gogozko gudari talde bat bialdu eban, "Almogarabe Barriak" lez esagutu ziranak.

Prin´ek, jakin eban zelan eskertu katalanek bialdu eutsoen laguntza, 15 urte ariñago, "Jamanziagaz" zikinduta geratu jakozanak, garbitzeko.

Eta 1.860ko urtearen Otsaillako asieran, gogozko katalan orreik Marrokosen lurreratu ziranean, Prin´ek, illabete ariñako artu eben bigarren gudaloztearen agintaritza indartu egien. Euren sarreran Prin´ek, Katalanes berba eutsoen, eurei gogoratzen aberriaren arrokerizko taldea zirala.

Eta Prin´ek, katalan gogozko mutil oneikaz lortuko eban Tetuan menperatzea, ta beren izenaren entzute aundiena.

Prin´ek, al eben guztia emon eban borroka orreitan, nai ta mauritarrak baiño gitxiago izan. Eta alan sortu ziran Kastillejos ta Wad Ras´eko borrokak, izen orreik gero, bere Reus´eko Uriaren kaleetan ipinita.

Prin´ek, Marrokosen egin ebazan sarraskeriak oso gogorrak izan bear ziran, gauza onek gertatu ta urte asko geroago, umiak ikaratzeko "Prin dator" esanda ikaratzen ebazalako.

Prin bera izan zan "Negron Lur muturra"(2) irabazi ebana, eta Tetuaneko borrokan, berak artu eban Muley Abbas´en etzauntza edo kanpaldia.

1.860ko urtean Jorraillaren 26an bakeak sinatu ziran ostean, Prin ostera itzultzenda Erdiugarte onetara, eta Alikanten lurreratuz, Madrilleraiño joan zan erritarren goraldiakaz.

1.860ko urtearen Iraillan, ondo oldozmendu ta antonduta euki eban egitamuagaz, Jorrailletik lau illabete barrura eldu zan Prin Kataluñara. Artean bere gogozko gudalozte katalanak onartuak izanda, Kataluñako lurralde guztian.

Parisen eta Bitxi´ko urastegian, denbora emon eta gero sartu zan Kataluñara Prin, bere etsaien aipamenak uts itzi ondoren, eta ibilaldi ori bere aldeko erri-autarki(3) baten biurtu ostean, bere izen eta izatasunak, gizaldi orren erritar-begiko aundienean biurtuta.

1.860ko urtean Urrillan 14an Reus, bera jaio zan errian amaitu zan ibilaldi ospetsu ori, eta Madrillera joan zanean, argi geratu zan, bera izan zala aundiena gudal nagusien artean, IIn Isabelek, leen maillako Kastillejos´eko markesadoa emonda, bai gobernukoak be: Injineru-Gorpuaren Leen Zuzendari lez izendatu ebelako.

1. 14. *Mexiko´tik ibillaldia, eta Liberal Batuen artu emonaren apurketa.*

1.861eko urtean Frantzia eta Bretaña Aundikoak, gudalozte bat bialdu eben Mexikora, Juarez´tar Benito txarto ta gogor jaurkitzen ebazalako erritarren aitzakiagaz, bere aginte maillatik kentzeko, bai ta atzerriko erriekaz ebagi egin ebazalako zor ebazan ordainketak.

(1) Lotsa gaiztoko edo laidagarrikeriaren = desvergonzado, inverecundo, impùdico, deskarado, ignominia, deshonrra, etc. (2) Negron lur muturrean = Cabo Negron. (3) Bere aldeko erri-autarki baten biurtu zana = covirtiendo su paseo por tierras katalanas eun plesbicito hacia su persona, que de un plumazo barriò a sus adversarios.

O´donnell be joan zan ekitaldi ontara, 20 urte ariñago koloniak euki eben askatasunezko zukarraldiekaz, berak euki eban eragipena, galdu ebalako.

Prin aukeratu eben espainitar gorpuaren bidelari lez, berak ondo artu ebena, eta bere emaztearen diru geienak amaituz, argi ikusi ebalako, euken diru-larritasunak, or amaituko zirela.

Orregaitik Mexikora elduaz batera, Ingelesarekin alkartu zan, Frantzez guda zaleen aurka, oneik Austriako Maximiliano ipini gure ebalako Mexiko errege lez.

Prin´ek orretarako, Juarezek euki eban diru zaiña, Gonzalez eta Etxebarria´tar Jose´gana jo egin bear izan eban, leen, bere emaztearen Agüero Gonzalez elkargoaren kide izan zalako, eta bigarren, bere emazteak euki eban diruen iturria zalako.

1.861eko urtean, eztabaidako arazo onen iturburua, Juarezek, espainitarrak onartuta euken Miramon´en gobernua kendu, eta espainitar gobernuaren ordezkoa be kendu ta euki ebazan zorren ordainketak atzeratu ebazalako agertu zan.

Frantzia ta Ingalaterra be ikututa geratuz, ezeri itxaron barik, Tanpiko ta Berakurtz´eko muga-erriakaz geratu ziran, diru orrekin, eurai zor eutsezanak eskuratzeko.

Eta 1.861eko urtearen Urrillan espainitarrak gero, Londres´eko ongunde bidez, eurekin alkartu ziran.

Ongunde onen erabagiagaz, aske edo Mexikarren eskuetan geratzen ziran Mexiko´ko lurraldeak.

Prin´ek, almen guztiak eskuratuz, Abanarantza urten eban, eta bertan egoala jakin eban, espainitar gudalozteak urtenda, Berakurtz ta Ulua´tar San Juanen erriak artu ebazala(1).

1.862ko urtean eldu zan Prin Berakurtzera, berari itxaron ez egiteagaitk, esan eutsoezan aitzakiak onartu ta gero.

Osasungaitzezko goiti-egille baltz´eko lurretan karpapetu ziran espainitar gudalozteak, eta gudarien artean gaisotu eta ondamena edo ikaragarrizko triskantza egin ondoren, Orizabako(2) lurraldeetan karpapetzea eskatu eutsoen Juarez´eri, eta onek ez eutsoelako jaramonik egiten, illabete batzuk ondoren Prin´ek, senide arteko zan Gonzalez ta Etxebarria´tar Jose Ministruarengana joan zan, eta onek baimena emonda, Oriazako lurretan karpapetu ziran.

Eta Prin´en gudalozteak Orizaban, Kordoba ta Tehuakanen kokatuta asi ziran, ongunde orren alkarrizketak, Bakartasunezko(3) ugartean bete ebazan agiriak, izenpetuak ziran arte.

Erabagita euken denbora onetan IIIn Napoleonek México, Maximiliano artxidukearen, Kaisertzagaz, kaisar Jaurkintza baten biurtzea, eta mezu bat bialdu eutson Prineri laguntza eskatzen, Mexikon, pakezko antolamendu bat ezarri egien.

1.862ko urtean Jorraillaren 15ean, Bakartasunezko ugartean egin zan ongundeen alkarrizketetan, Frantzezak, euren laguntza eskaiñi eutsoen Juarez´en aurkariai, eta Prin salatu eben, bera gura ebela, Mexiko´ren kaisar barri orren agintaritzan ezarri.

Prin´ek bere gudalozteak baztertuz, gezurtatu egin ebazan salatu orreik, eta bardiñ egin eben Ingelezak.

Maximiliamoen agintaritzaren aurka egon zan IIn Isabel erregiñak, Prineri emon eutson

(1) Itxuraz, Kuba´ko orokorrezko kapitaiñ zana Serranoren aginduz uste da. (2) Orizaba = Berakurtzen Puebla´ko ekialdean dauan sumendien lurraldeak dira. Bertokoak, Citlaltepetl (edo Izarren Mendia esaten eutsoen), sumendi albo baten, eleiza edo jauretxe bat egon zalako, bere txuntxurretik, ibar guztitik ikusten zan sua botaten ebana. (3) Bakartasunezko = firma de los tratados preliminaren de la Soledad, en la Soledad, una de las dos grandes islas del grupo de las Manvinas, separada de la gran Malvina por el estrecho de San Carlos, en élla está Stanley la capital del grupo.

arrazoia, espainitar gobernuaren eritziaren aurka, auek, IIIn Napoleon pozik eukitea gura ebalako.

Prin, Abanara joan zan eta ortik Laterri Batuetara, bertan, Potomak´eko gudaloztearen gudal agintari nagusia izan zan Klellan Mk´egaz(1) egoteko.

Prin, Ipar-Ameriketako batasunen aldekoa zan, eta Estatu Batuetara joan zanea, York Barria eta Filadelfia ikusi ondoren, Wasington´era joan zan, Linkoln´egaz egoteko.

Espainitarren lurraldera itzulita, eta Mexikotik bere gudalozteak baztertu ebazalako, gobernuaren Liberal Batuko´en talde bietik, aburupen edo azterketa gogorrak(2) artu bear izan ebazan, eta O´Donnell´ek ia bost urtetan dangilizka eroan eban gobernua, edo amaituten egon zalako, Prin´ek, bere Aurrekoiezko Liberal alderdiaren lanera aldatu zan. Andik denbora gitxi barru, O´Donnell´en gobernua kanporatuta.

1.15. *1.863-68ko urte artean, azpikaritzaren ekintza, ta Aurrerakoi Alderdia.*

Ez zan erreza Prin´ek, Aurrerakoiezko Liberalen alderdira ostera itzultzea, beko edo oiñarrizko kideen ixil-keiñu edo ixilkeria, andia zalako.

Eta Madoz´tar Paskual´ek, Kataluña osoan izen aundia eukelako, eta orregaitik arazo orren giltza izanda, berak emon eutson laguntza.

1.863ko urtearen Epaillako illean, Olozaga´tar Salustianoren etxean egin eben Aurrerakoiezko Liberal agintariak batzar bat, eta Prin berton egonda, O´Donnell´egaz leen euki eban artu emona, ta beragaz zelan, bere gudalozteakaz Mexikora egin ebalako joan aldiagaitik(3), apurtu ebazala euki zituzen artu emon orreik, adierazpendu eban.

Eta 1.863ko urtean Loraillaren 4an, Prin bera, zelan zan lengo Aurrerakoiezko kide sutsua argibidetzeko, Narbaez Jenerala burudunezko(4) taldearen gidari izan zanaren aurka, eskua sartu ebanean argitu zan. Madrillen ortik aurrera, Kataluñako oial-lantegien babesa artuz.

Narbaezen gorteko burudun edo neurrikarien aldekoak(5), murriztu egin bear zirala politikazko ekintzak erabagitu ebenean(6), Aurrerakoiezkoak euki eben eritzia gogortu eben, lengo jaurkintzaren alde egon ziranen aurka, eta Narbaezen taldekoak Azaroko auteskunderako bakarkeria, izkutapen edo atzerakuntza egitea erabagi eben(7), Prin´en Aurrerakoiezko ordezkariak, agerkera barik geratu zitezen, auteskunde orretan.

1.863ko urtean Prin berak agertu eban, IIn Isabel erregiñari aurkeztu eiotzen erabagi ori. IIn Isabel erregiñak, urte orretan jaio zan, Prin´en alabaren ama orde edo amabitziaren ordeak bete ebazan.

Eta Aurrerakoiezko alderdiak, lenengoetan esan ba eben, bakarkeria edo atzerakada ori, ez zala lenauko era-bidetik urtetea. 1.864ko urtearen udabarrian Aurrerakoiezko taldeakoak Prin´ek bideratuz, jazarrezko(8) erara aldatu ziran, berak gudalozteetan euki eban izena ta lagunari esker.

1.864ko urtean Bagillaren 6rako antolatu zan matxintasuna. Ez zan gertatu ezer baiña, salaketa egon zalako.

(1) Klellan Mk = McClrllan. (2) Aburupen edo azterkatu gogorrak = que recibiò duras reprimendas por medio de los de la Uniòn Liberal que conformaban el gobierno. (3) Mexikora Joan aldiagaz = expedición a Mexico. (4) Burudunezkoak = moderantistas. (5) Neurrien aldekoak = moderados. (6) Murriztu bear zala politikazko ekintza = auteskundeetara autarkien jabeak bakarrik joan zitezen. (7) Izkutapen, bakarkeria edo atzerakuntza egitea erabagi zan = tomaron la decisión de practicar una selección o Retraimiento para las elecciones, y evitar asi, que los progresistas se presentasen a las votaciones. (8) Jazarrezko erara aldatu ziran = se pasaron a la via insurreccional.

Illabete bi barru be, galdu zan beste matxintasunezko aukera bat, Saboyako gudari taldearen koronela atzeratu zalako.

Espainitarren gobernuak, gauza oneik ikusi ondoren, Prineri deitu ta atzerrira joan zedin eskatu eutsoen, eta berak ez ebalako gura, Obiedo´ra bialdu eben, nai ta denbora gitxirako izan, Narbaezen gobernu barrien, barkamenaren(1) aginduz.

1.864ko urtearen amaieran egin ziran auteskundeak, porrot egin eben, aurrerakoiak baitu edo boikot egin eutsoelako.

1.865eko urtean Jorraillaren 10ean, espainitar gobernuak, gogortu ebazan berak artzen ebazan erabagiak, eta mendeku edo ordaiñak asi zan egiten, San Daniel´en Gauan 12 il eta 50 zaurituekaz amaitu zana. Prin´ek ortik aurrera, matxinatzeko eukereak topetan asita.

Prin´ek Balentzian egin eban matxintasuna, porrot egin eban, eta Frantzira atzerriratu zan, gero Iruñatik agertu zan porrotak eginez, lagun askok, ukamen edo alde egin eutselako.

Frantzira ostera atzerriratuta, Balentziarantza urten eban itsasontziz, berton beste matxinada bat antolatzen egon zalako, matxinatuak ostera be atzerantza eginda.

Espainitarren gobernukoak Prin´eri, etsai aundienetarikoa lez artuta, erregiñaren aurrean aurkeztu zedin agindu eutsen, bera baiña, Paris´en egonda, ez eutsoen jaramonik egin. IIn Isabelek orduan, Narbaez´en jaurkintza amaitzea erabagi eban, eta O´Donnell´eri deitu, espainitarren gobernua jaurri egien.

O´Donnell´ek, espainitar gobernuko agintaritzan berriz ipinita, Prin´en aurka egon ziran zemankuntza guztiak kendu ebazan, eta Prin ostera itzultzenda Erdiugarte onetara, ez bere saio edo, matxintasunezko alegiñetan aurrera egin barik.

1.866ko urtearen Urtarrillan Prin´ek, Salbanesaren Billarejoko jazarraldi edo gudarien matxinada bideratu eban, porrot egin ebana, gauza askoren artean, liberalaren batu zale Serrano gudal nagusiak, lortu ebalako, Madrilleko beste gudaltegiak ez zitezen matxintasun orregaz alkartu.

1.866ko urtean Urtarrillaren 20an Prin´ek, Mantxa eta Toledoko mendietatik, espainitar gudariak atzetik inguratzeko alegiñean eukezala, eta erdi galduta ibili ondoren, lortu eban Portugaleko muga aldatzea. Eta denbora gitxi barru, Portugaletik kanporatuz, Londresetik Parisera aldatuko zan.

Prinek bere Aurrerakoiezko lagunakaz ikusita, guda bidez ainbeste porrot eginda, eurak olan ezin leikela aurrera egin, errigizarteko laguntzaren billa aldatu ebazan politikazko antolaketak.

Ekintza orregaz, eurak, errepublikanuak izan arren, Demokrazien alderdiagaz alkartu bear zirala esangura ebalako.

1.866ko urtean Bagillaren 21ean asita, Bagillaren 22ko gauan amaitu zan leen matxin saioa, Madrilleko San Jil gudaltegiaren, sarjentuen laguntzagaz kontrola artuta.

Beste erbezteko erritarren laguntza be euki ebana, batez be, Kataluñakoa, eta gobernuko gudarien aldetik ertsaldi(2) oso gogorra eginda, porrot egin ebana, 60 gudal nagusi eta 66 sarjentu ta lerro buruak(3) tiroz ilda, amaitu zana.

Espainitar gobernuaren lendakaritzarako aukeratuta egon zan Prin´ek, ez eban urten Frantzitik, eta denbora gitxi barru frantzezak, Suizara bialdu eben.

(1) Parkamena agindu ebalako = porque dictò una amnistìa. (2) Ertsaldi gogorra = represiòn dura o sangrienta. (3) lerro buru = cabo.

1.866ko urtearen Dagonillan Prin´ek Ostenden(1), batzar bat egiteko agindu eban, bere lendakaritzapean Aurrerakoi ta Demokratakin batzorde bat antolatuz.

1.867ko urtearen Dagonillarako, beste matxintasun bat egitea antolatu zan, erritarrak kontuan artuta.

1.867ko urtean Dagonillan urten eban Prin´ek Bruselasetik, eta 15ean Tarragonara eldu zan, andik Balentziara joateko.

1.867ko urtean Dagonillaren 15ean urten eban Prin´ek Bruselasetik, eta itsaso bidez Tarragonara elduta, Balentziara joan zan.

1.867ko urtean Dagonillaren 22an oraindiño, matxintasun orrek ez eban eztandarik egin, eta Marsellan lurreratu ondoren, 22ko egun orreitan, espainitarren lurraldean sartzeko itxaropenean, Kataluñako mugatik bideak aukeratzeko ibili arren, ez zan eldu, Kataluña ta Aragoian borrokak egon arren, Madrilleko gobernuak, ondo kontrolatuta euki ebazalako aukera guztiak. Ortik denbora gitxi barru, Jinebrara joan zan.

1.867ko urtean Iraillaren 4rako amaitu zan matxintasun ori, eta Prin´ek beren agerkeragaz, nai aukerea euki arren, gudaltegiak matxinatzeko ados egon ziran lez, Prin bera ez zan agertu, eta matxintasun orrek porrot egin eban.

Gauza asko esan dira Prin´en egikeragaitik, baiña danoen artean baleiteke, Fradera´tar Josep M. edestilariak esaten aduana urbillago egotea: Prin´ek, ez ebalako gura, errigizarte batek bideratu egian, matxin zaleko Jaurkintz bat.

Gaiñera, demokratak azpi-suge edo saltzaille lez agertu ziran, eta Prin´ek Pariseko ixil-jokoaren batzarrean(2), Ruiz ta Zorrilla´tar Manuelen agotik, bere adierazpenak emon bear ebazan.

1.867ko urtean Frantziko Biarritzen egoala il zan O´Donnell´tar Leopoldo, eta Dorreko I Dukea zan Serrano gudal nagusia egin eben Liberal Batuaren lendakari.

1.868ko urtean Jorraillaren 23an, birikerien gaitzaldiagaz il zan Narváez, eta bere ondorengo Gonzalez ta Brabo´tar Luisek egin ebazan zentzungabekeriagaitik, ainbat gudal nagusi ta be-maillakoak aldatu ziran Liberal Batuaren alderdira, euren artean Zabala, ta Topete´tar Juan Bautista almirantea.

Topete almirante jaun onek, erregiña, semeagaitk aldatu gura eban, onen jaurkintza Montpensierreko dukeak bideratu egien, Prinen aolkotuz baiña, aurrerakoiezkoak onartu ba eben, onek ezetza emon eutson.

Prin´ek a ta guzti, IIIn Napoleonen erdikotasuna lortu eban espainitarren barruko gobernuen arazoetan, eta Bitxi´ra aldatu bear izan eban, ortik Londresera joanda.

Atzerriratzean, atsekabetuz egon ziran gudal nagusien arteko arremanak, adoxtasunduta egon ziran, eta matxintasuna erabagita.

1. 16. *1.868-1.870eko urte bitartean "La Gloriosa"ren matxintasuna.*

1.868ko urtean Iraillaren 12an, Buenabentura lurriñ-ontzian(3) urten eban Prin´ek Londresetik, Londreseko atzerritasunean egon ziran bere lagunak, Bark´tar jaunen antzera,

(1) Ostende = Beljikako Uria, Flandeseko Mendebalean aduana = itsas kaia ta Iparreko Itsasoan urastegiak daukazenak. 1.583ko urtean Oranjeko Gillermogaitik arresizko-uri biurtuta (fortificada), 1.604ko urtean espaintarrak, Beljikako lurraldean, Olandarren asken Uria artu ebena. (2) Paris´eko ixil-jokoaren batzarrean = en la reuniòn del centro conspirativo de Paris. (3) Lurriñ-ontzian = barco que funciona con la fuerza del vapor.

morroi lez mozorrotuta. Jibraltarrera eldu ziranean, Adelaida izena euken zirgatzaille edo atoi-ontzira(1) igon eben, Kadiz´eko itsas-kaian egon ziran beste itsas-gudariekin batera, gero Zaragozako injiman(2) edo gudarako izan zan itsas-ontzira igoteko.

1.868ko urtean Iraillaren 17an, egin zan gudarien matxintasun orren(3) aldarrikapena.

1.868ko urtean Iraillaren 18an, guda itsas-ontziren gudariak matxinatuta, eta 19ko egunean lurraldekoak, Prin, lurreratu zan, eta gorakako txalo artean artu eben.

Batzar bat egin zan, Batu Zale, Aurrerakoi, ta Demokratakin berdiñezko aukerean antolatuta, Topete´en lendakaritzapean ipini ebena.

Eta Prin´ek, Lurrarteko itsasoaren itsas-bazterretik joanda, itsaserri edo Uri nagusiak matxinatu zitezen:

1.868ko urtean Iraillaren 23an Malaga matxinatzea lortu eban.

1.868ko urtean Iraillaren 25ean Almeria.

1.868ko urtean Iraillaren 26an Kartajena.

1.868ko urtean Urrillaren 2an Balentzia.

Eta 1.868ko urtean Urrillaren 3an Bartzelona, txalo aundien artean artu ebena.

1.868ko urtean Urrillaren 1eko egun inguruan, Uri orrein ondoan eta Figeraseko Urian: Pierrad´tar Blas; Klabe´tar Anselmo; Orense´tar Jose Maria; eta Rossell´tar Marianok, errepublikea aldarrikatu eben, eta 1eko egun orretan Baldritx gudal nagusia, Bartzelonan sartu zan.

Prin´ek, koroa bat eroan eban bere buruko txapelean, eta erritarrak kendu egiala koroi ori beren txapeletik aldarrikatu eutsoenean, Prin´ek katalanes, auxe erantzun eutsoen: "Catalans, voleu córrer massa; no correu tant que podrìeu ensopegar"(4).

Asken baten Prin´ek, kendu eban txapela burutik, eta txapeletik euken koroi orren kendueran, katalanari au aldarrikatu eutsoen: "Borboiak Bera ¡!".

Prin Bartzelonatik, Reus´era joan zan, eta ortik Madrillera, ararte iñoiz, ikusi ez zan sarrera aundia eginda.

Urrengo egunean eta sortu zan bitarteko gobernuaren eskutik, Laterriaren paper-zorroa(5) emon eutsoen, bera gobernu orren epaillea izan zedin.

1.869ko urtearen auteskundeetan, Aurrekoiak, zentzunezko Demokratakin batera, 160 diputadu lortu eben; Liberal Batu zaleak 65; Errepublikanuek 60; eta karlistek 30.

Prin´ek orrela, Aurrerakoiezko buruzagi, aintzindari edo agintari lez geratu zan.

Gobernuaren buruzagi izateak, bere baimena bear izan eban, eta konstituzioa baieztu zan, Prin berak onartu ebelako erregetzaren erea, espainitar barrien lurraldea jaurkitzeko.

Serrano gudal nagusia errege ordezkoa izendatu ebenean, Prin´ek, bere etsai aundiena baztartu eban.

Serranok bere aldetik, Prin izendatu eban gobernuko lendakari lez, eta Prin´ek bulego orretan ez zan bakarrik geratu lendakaritzagaz, gudarako paper-zorroa(6) be berentzat artu ebalako, Aurrerakoiezko ta Batu Zaleko ministruak bardin antzean izendatuz.

1. 17. *Kuba.*

(1) Zirgatzaille edo atoi-ontzira = remolcador. (2) Injiman = buque grande. (3) Gudarien matxinada = pronunciamiento revolucionario del ejèrcito.(4) "Catalans, voleu còrrer massa,no correu tant que podrìeu ensopegar" = "Lar ariñ egitea gura dozue Katalanak; ez ariñeketa larregi egin, beaztopatu edo muturkatu egingo zarelako". "Catalanes, quereis correr demasiado; no corrais tanto que podiais tropezaros". (5) Laterriaren bakezko paperraren zorroa = cartera del ministerio de justicia. (6) Gudarako paper-zorroa = cartera de la guerra.

Prin´ek, Kuba´ren aberritasunezko askatasuna aurreratu eban, kubako erritarrak alan eskatzen ba eben orokorrezko auteskunde baten. Kubatarren abertzaleentzat parkamena, eta ordain-bide bat espainitarrentzat, Estatu Batuen laguntasunezko bermedunagaz(1) eskatuta.

Aurkezpen onenetarikoa zan, espainitar diru etxearen arazo guztiak konpondu egiezen, Prin´ek eskaiñi eutsoena. Sekula baiña, ez eban aurrera egin.

Alderantziz, Estatu Batueri, Kuba saltzeko eskeintza agertu zanean, Prin agertu zan aurrez aurre, eta zalantza barik, auxe esan eban: "Kubako ugartea ez da saltzen. Bere salduera espainitarrentzat, aipu-galtze edo ospe ona-galtzea(2) lez izan leikelako". "espainitarrai, irabazi egiten jakielako aipuen-galkera barik".

1. 18. *Prin, erregearen billa: I Amadeo(3).*

Aurrerakoiezko taldekoak, Portugaleko Koburgo´tar Fernando, I Luis erregeen aita billa, ibili ziran alde batetik.

Eta Liberal Batu zaleak bestetik, Montpensierreko dukearen billa.

Koburgo´tar Fernandoren aukerea porrot egin eban, morgan-ezkontza(4) eukelako ares-antzerkiko abeslari(5) bategaz, baita Portugaleko Printze Erregeak, ez ebalako gura portugal eta espainitarren alkartasunik.

Serrano ta Topetek aukeratu eben Montpensierreko erregenai au, porrot egin eban, Prin aurkari urtenda, Montpensierren ezetza eskatuz gaiñ, Borboitar leiñu guztien kanporatzea eskatu ebelako.

Prin´ek, Italiako IIn Bitor Manuelen seme, Aostako dukea, eta Hohenzollern Sigmarinjen´tar Leopoldori eskaiñi eutsen espainitarren koroia, eskeintza ori, biok alboratu egin ebena.

Orduan Prin´ek, Italiako erregearen loba Jenobako dukeari eskaiñi eutsen espainitar errege koroi ori, Topete´en baldintza onegaz: Montpensierren alaba bategaz ezkontzen bazan. Erregearen aukera ori, Kortesetan autatu zan, Jenobako dukeak 128 bozka edo autarki atarata, 52ren aurka. Jenobako duke orrek baiña, uko egin eutson espainitarren erregezko aukera orreri.

Prin´ek, Garaipenaren Dukeari eskeiñi eutson espainitar koroi ori, jakinda ez ebala onartuko, sortu zan lez.

Prin´ek, maltzurrezko kakalastau onetan errege aukeratzeko, lege bat atara eban, geienaren iritzia izan zedin auteskunde orreitan.

Eta Hohenzollern´eri eskaiñi eutsoen ostera espainitarren erregetza, berak baldintza onegaz onartuta, bozka edo autarki guztitik, irua ataraten ba eban.

Atara eban iru zatiko kopuru ori, oker bat baiña egin eben, baietz ori, gorteen ateak, iltzatu ostean eldu zalako.

Eta nazio edo erri arteko aurkaritzazkoak, jakin ebenean Prusia´tar erregeen naitasun ori, gorantza joan zala, IIIn Napoleones, Hohenzollern´tar aolkatu eban, uko egin egiotzen

(1) Laterri-Batuen Bermetasunagaz = garantizando, acreditado, o con cooparticipaciòn de las Estados Unidos para la garantia de esa intermediación. (2) Aipu-galtze, edo ospe galtzea lez izan leikelako = perder la buena fama o reputaciòn que desarrola una naciòn (aunque no sea, o nunca pueda ser naciòn de derecho, ni tampoco ningun dictador haya tenido nunca buena reputaciòn, (3) I Amadeo = Prim, Serrano y Topete subastan la corona española, revista La Flaca (1.869). (4) Morgan-ezkontza = casamiento morganàtico. Que sucede, cuando un miembro de familia real se casa con alguien de rango inferior. (5) Ares-antzerkiko abeslaria = cantante de òpera.

erregenai orreri.

Olan sortu zana. Ez zan naikoa baiña, urren sortu zan Franko-Prusiatar guda geratzeko.

Prin´ek au ikusi ondoren, Aostako duke I Amadeori eskaiñi eutson koroi ori, eta onek, errien arteko baietza, baldintza lez ipini ondoren, onartu eban espainitar errege izatea.

1.870eko urtean Azillaren 26an, egin ziran auteskundeetan, aukeratu eben I Amadeo 191 autarkien nagusitasunagaz.


Eta 1.870eko urtean Azaroaren 27an urten eban I Amadeo erdiugarte ontarantza, Prin, Madrillen gaiztakeriz il eben egunean.

1. 19. *Madrillen Prin´eri, egin eutsoen gaiztakeria.*

1.870eko urtean Azaroaren 30ean, gaiztakeria euki eban iru egun geroago il zan Prin, 56 urte eukazala.

Bere gorpua Madrillen, Atotxako Gizon Andikien Iletxe edo Arrillobian lurperatu eban, gero 1.971ko urtean, bere erriaren Reus´eko illobian lurperatuz.

1. 20. *O´Donnell´tar Leopoldo.*



O´Donnell´tar Leopoldo´ren irudia.

1.809ko urtean Urtarrillaren 12an Tenerife´ko Gurutz Santu´ko Urian jaio zan Joris eta O´Donnell´tar Leopoldo, liberalaren gudal nagusi au.

Eta 1.867ko urtean Azillaren 5ean, Euskalerriaren Iparraldeko Biarritz´en il, 58 urte eukezala. Erregeen Salesa´tarren lekaime etxean illobiratuta dago.

Espainitarren Aundia Tetuaneko I Dukea lez; Luzenako I Kondea; eta Aliaga´ko I konde ordea´ren izen buruak euki ebazan.

1.856ko urtean eta Esparteroren urte biko Aurrerakoien gobernu ostetik, Ministru Batzarraren buru izan zan, 1.858-1.863ko urte bitartean lez, eta baita 1.865-1.866ko urte bitartean, IIn Isabelen erregetzan lez.

XVIn gizalditik sortutako Irlandaren O´Donnell´tar Kalbagh leñuetatik, eta antziñatik guda zale lez etorten ziran Anethan eta O´Donnell´tar Karlos, al-osokerizko sinismenaren sutsua zana, eta Kasabiella ta Joris´tar Josefa´ren seme txikerrena izan zan.

O´Donnell´tar Leopoldo onek, eta bere guda-sendi tradizio-zaleko lez, Alejandro Kaisar oiñezko gudari taldean lerrokatu zan teniente ordego lez.

1. 21. *O´Donnell´tar Leopoldo eta Karlisten guda.*

1.833ko urtean eta VIIn Fernando il zanean, sortu zan leenengo karlisten guda, IIn Isabelen alde egon ziran Isabelinoak, eta bere osaba, Borboi´tar Vn Karlos Mª Isidro´ren karlisten artean.

Eta O´Donnell´tar Leopoldo´en aita eta anaiak, karlistaren aldean euki arren, bera, IIn Isabelen aldean lerrotu zan, kapitaiñezko maillagaz.

1.837ko urtean Ekaiñararte, berak gudari lez egin ebenagaitik, leenengo koronel egin eben, eta gero, koronel baiño mailla geiagokoa izan zan, brigadier maillara igon eben, urte onetan Zelaiko Mariskala egin arte.

1.839ko urtean O´Donnell, Aragon, Balentzia, ta Murtziako Orokorrezko Kapitaiña izendatu eben. Eta Kabrera´tar karlista nagusiari irabazi ondoren, del Zid´eko Luzena´ren kondea izendatuz, Orokorrezko Kapitaiñ nagusiaren ordezkoa izatera igon eban.

1. 22. *O´Donnell´en erbezteratzea eta matxinada.*

1.840ko urtearen Iraillan O´Donnell´ek, Aurrerakoien matxinada ostean, IIn Isabelen ama Borbon ta Bi Siziliako´tar Maria Kristina bere errege ordegotzatik kendu ebenean, bere sinismen apalagaitik, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.841eko urtean O´Donnell´ek, Leon de Diegok liberalen gudal nagusiak egin eban azpikeri, edo ixilezko-jokoan egon zan, Esparterok eroaten eban erregezko ordearen aurka.

1.841eko urtean Urrillaren 7an, O´Donnell´ek ekintza onetan egoala, Iruñako gudaltegia matxinatu egiala agindu eutsoen. Madrillen baiña, Errege-Jauregia erasotzeko porrot egin eban lez, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.844ko urtean, Narbaez agintaritzazko aulkian egon zala, O´Donnell´i, Abanako Orokorrezko Kapitaiña izendatu eban, eta berton egon zan 1.848ko urterarte.

Eta Erdiugarte onatara etorri zanean, senatore izendatuaz gaiñ, Toledon egon zan oiñezko gudarien ikastetxera bialdu eben, orokorrezko zuzendari lez.

1.853ko urtetik aurrera, politikaren arloagaitk arduratu zan, eta 1.854ko urtearen Ekainan, oiñezko gudarien talde bategaz, eta Dulze gudal nagusiagaz batera, gobernuaren aurka matxinatu ziran.

Gobernuak, Blaser gudal nagusia bialdu eban euren aurka, eta Bikalbaron(1) aurkeztuta gudalozte bi orreik, itxurazko borroka bat eginda(2), guda buru nagusi bi orreik atzeratu ziran, eta itxaroten geratu ostean, Uztaillaren 7an, Jauregui ta Kastillo´tar Antoniok Manzanareseko deia argitaratu ebanean, ia gudalozte osoa beragaz geratu zan.

Matxintasunezko garaipen onegaz Esparteroi, Ministru Batzarraren lendakari izendatu

(1)Bikalbaro = Vicalvaro. (2) Bikalbarada´ren izenagaz ezagutu zana

eban, eta O´Donnell, gudako ministru zorroaren zeregiñetan(1) ipini eban.

1. 23. *O´Donell´en Laterriaren aurkako matxintasuna, eta lendakaritzak.*

Esapainitarren gorte barri onegaz, Liberalaren Batasunezko beste politikazko alderdi bat sortuko zan, zentzuzko eta aurrerakoiezko alderdiakaz bat eginda.

Eta Laterrien matxintasunagaz, 1.856-1.857ko urte bi onetan, Aurrerakoien lendakaritza sortuko zan.

1.854ko urtearen matxintasunagaz asi zan Aurrekaoiezko jaurkintza, Espartero, ministruen batzarrezko lendakari zala, eta O´Donnell´ek emon eban matxintasunagaz amaitu zana.

1.855eko urtean Uztaillako 20tik Dagonillaren 2ko egunerarte, Itsasoko ministrua tituludunen orde, edo onek aldegite edo urrundutzean.

1.856ko urtean Jorraillaren 9tik Loraillaren 16rarte Itsas ministrua tituludunaren orde.

1.856ko urtean Uztaillaren 14tik Uztaillaren 17rarte, Laterriaren ministrua tituludunen orde.

1.856ko urtearen Uztaillan O´Donnell´ek, Ingelesaren Madrilleko Ordezkaritzatik, Frantzia ta Ingalaterraren laguntzagaz, egin eban matxintasunagaz, bera ipini eben, Ministru Batzarraren lendakari lez.

1.857ko urtearen Urrillararte iraungo eban O´Donnell´ek Ministru Batzar orren lendakaritzan, Narbaezek ipini eben arte.

1.858-1.863ko lendakaritzaren urte artean, eta 1.858ko urtearen Uztaillatik azten dira O´Donnellentzat, lendakaritzazko aginduak.

1.859ko urtean Dagonillaren 4tik, Dagonillaren 31rarte Itsas ministrua tituludunen orde.

1.859ko urtean Iraillaren 14tik, Urrillaren 5erarte Laterriko ministrua tituludunaren orde.

1.859ko urtean Urrillaren 22an Marrokos´eri aurkezten dautso guda, eta 1.860ko urtearen Otsaillan, gudaloztearen agintaritzan ipini ondoren, Tetuan menperatzen dauanean, Wad-Ras´eko ongundea ospatzen dau, Afrikako espainitarren agintaritza finkatu ostean, Zeutarako lurraldea zabaldu ebena.

O´Donnell´eri garaipen onegaitik, Tetuan´eko dukea lez izendatzea balio eutson, gaiñean, espainitarren izen aunditasunagaz edertu eutsena.

1.860ko urtean Dagonillaren 5etik, Dagonillaren 30erarte Laterriaren ministrua ipini eben, tituludunaren orde.

1.861eko urtean Uztaillaren 13tik, Iraillaren 7rarte Laterriko ministrua, tituludunaren orde.

1.861eko urtean Urrillaren 20tik, 1.862ko urtean Otsaillako 6rarte, Laterrien ministrua, tituludunen ordez.

1.862ko urtean Uztaillaren14tik Dagonillako 30erarte itsas-ministrua, tituludunen orde.

1.862ko urtean Dagonillaren 3tik, Iraillaren 2rarte Laterriaren ministruko tituludunen orde.

(1) Gudako Paper zorroen zeregiñetan = en los quehaceres que la cartera del ministerio de la gerra le exigian.

1.862ko urtean Madrrilleko errege-ordezkaritzatik(1) eta IIn Isabelen baimenarekin, Bealdeko Ameriketara bialdu ebazan jakintsu bidegille talde bat(2), gudarako lau itsas-ontzi aundiekin zainduta, Hernández-Pinzon ta Albareztar Luis Almirante Ordearen agindura(3). Leenengo Itsas-ontzi andi bi auek, Biur-gailluakin bultzatutako itsas ontzi aundiak ziranak, "Garaipen" eta "Erabakitzea" deitzen ziran(4). Eta biur-gailluakin be ibiltzen ziran ontzi-azkar "Irabaslea"(5), eta "Kobadongako Ama Birjiña" deitzen ziranak, masta edo tantai biko itsasoztzi mee azkarragaitik(6) lagunduta bialdu ebazan.

Oiturazkoa izaten zan orduko denboratan, itsas-ontzien indarra erakustea, aukera ontan baiña, gaiñezko edo geikerian egoana, eta arrokeri orrek ekarri eban 1.864-1.883ko guda Amerikarren Bealdekoakaz, nai ta 1.871ko urtean amaitu arren.

1.863ko urtean Urtarrillaren 17tik Otsaillaren 9rarte Itsas-ministrua, tituludunaren orde.

1.863ko urtearen Epaillararte jaurkitu eban O´Donnell´ek espainitarren gobernua, arik eta burudun edo zentzunezko(7) alderdikoen bultzakadagaitik, berak itzi, eta bere agintaritza Mirafloreseko markesak artu arte.

1. 24. *1.865-1.866ko urte bitartean, O´Donnell´en azken jaurpena.*

1.865eko urtearen Uztaillako 2ko egunetik, Dagonillaren 27rarte, itsas-osteko leen ministrua izan zan, tituludunen aldegite edo urrundutzean.

1.866ko urtean Urtarrillaren 4tik Urtarrillaren 24rarte, Itsas-Ministrua, tituludunen orde.

1. 25. *1.867ko urtean. O´Donnell´en eriotza.*

O´Donnellen jaurbidetik bereztu leikezan gauzak, su-gurdientzako trenbideen ugaritzea. Marrokos´eko guda, espainitarrai ainbeste balio eutsona. 1.855eko urtean, Kastelar´tar Emilioren uztean, ikaslarien jazarraldiari egin eutson odoljariozko ertsaldi edo atxikidura, "San Danielen gaba deitu zana", eta O´Donnell´eri Gobernuaren Lendakaritza ta Gudarako Ministru izatea balio eutsona.

1.866ko urtearen Bagillako 22an, San Jil´eko gudaltegian sortu zan matxintasunagaitik, O´Donnell´ek IIn Isabelegaz asarre, bere agintari guztiak itzi ebazan, eta Biarritzera joan zan.

1.867ko urtean Azillako 5ean, Biarritzen egoala il zan O´Donnell jauna.

1.870eko urterarte O´Donnell´en gorpua, Madrilleko Atotxaren eleizan illobiratu eben, arik eta 1.870eko urtean, Salesas´eko lekaimeetxean dagon Santa Barbara eleizan ostera, bere azur-kondarrak, Suñol´tar Jeronimok, pizkundeko era barrian egin eban, Karrarako arbizi edo atxurdiñeko jaun-illarri(8) eder baten illobiratu arte.

1. 26. *Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonio, euskal karlisten gudal nagusia.*

1.817ko urtean Urtarrillaren 22an, Iruñako Urian jaio zan Lizarraga ta Eskiroz´tar

(1) Madrilleko Ordezkaritzatik = Desde la embajada de Madrid. (2) Jakintsu bidegille talde bat = cuerpo expadiccionario de sabios. (3) Lau itsas-ontzi aundi = cuatro barcos de guerra. A las òrdenes del Vicealmirante Luis Hernández-Pinzòn Alvarez = descendiente directo de los hermanos Pinzon que viajaron con Cristobal Colon. (4) Injiman edo itsas-ontzi bikiak = Injiman o barcos grandes. Biur-gailluakin bultzatutako Itsas-ontzi bikiak = fragatas gemelas propulsadas por hèlices, que se llamaban "Triunfo" y "Resoluciòn". (5) Biur-gailluakin ibiltzen zan korbet-ontzi "Irabaslea" deitzen zana = La corbeta ligera movida por Hèlice llamada"Vencedora". (6) Eta "Kobadongako Ama Birjiña" deitzen zan masta edo tantai biko itsas-ontzi mee ta azkarragaitik babestuz = Y protegida por la goleta "Virgen de Covadonga". Goleta = buque fino y ligero, de bordas poco elevadas y dos mástiles. (7) Burudun edo zentzunezko alderdikoak = partido de los moderados. (8) Suñol´tar Jeronimok Pizkundeko era barrian egin eban Karrarako arbizi edo atxurdiñeko jaun-illarri eder baten illobiratu arte = depositados sus restos en un mausoleo de estilo neo-rrenacentista construido por Jerònimo Suñol en mármol de Carrara.

Antonio euskal karlista gudal nagusi au.

Eta 17 urte oraindiño bete barik eukazanean, gogozko mutil lez lerrotu zan Nafarroako karlisten gudaloztetan.

1.835eko urtean eta Zumalakarregiren gudalozteetan, taldearen aurreko gidari edo ikusle lez ibilita, agintari lez izendatu eban, eta Vn Karlosen guda taldetik asi ta Barbastro ta Ueskako borroketan ibili ondoren, Orista´ko borrokan il-bizian zauritu eben, eta Gergeen gudaldian geratzen ziranakaz zokoratu zan.



Lizarraga eta Eskiroz´tar Antonio´en irudia.

Kapitain ordearen agintaritzazko maillan amaitu eban bere karlisten leenengo guda, Bergarako ongundeagaz bat eginda, eta liberal´en gudalozteetan lerrotu zan kapitain ordegoaren(1) agintari maillagaz. Leenengo, Printzearen taldean lerrotuko zan, eta gero beste taldeetan kapitaiñ egin arte, bere jardunbide zintzoagaitik.

1.854ko urtean Sebillan aurkezten zan denboran, O´Donnell agertu zan, Zaindari zelaietetan matxinatu ziran gudariekaz, Lizarraga´tar Antoniok, ezetza emon ondoren O´Donnell´ek egin eutson gudarien eskaerari, gudari ikasteko gudaritegikoak aurre egin eutsoen O´Donnellen taldeari, arik eta Orokorrezko kapitaiñak, O´Donnell´en serbitzura, ipini egiezala bere gudariak, agindu arte.

O´Donnellek be saritu eban Lizarraga, bere taldean kapitain lez lerrotuta, berari egin eutson aurkaritza, zentzun aundikoa zalako.

1.866ko urtean Bagillaren 22an Madrilleko odoljarioaren borrokatan eta Arapileseko eiztarien komandanteen agintaritza eukanean, danen aurretik ibili zan, eta ortik aurrera Narváez ta Pezuela´tar gudal nagusien uste osoa lortu ebanean, aurrera begira euki zituzen ekintzatan, danetatik nabarmenduko zan.

1.868ko urtean eta koronel ordezkoa zala, IIn Isabelen aurkako matxintasuna arrapau eban, Txeste´ko kondea ararte printzerriaren Orokorrezko Kapitaiña zana, Bartzelonako batzarrak kendu eban agintaritzazko leku ortatik, eta Lizarraga be kenduta euken agintari lekutik, zar-sarira baztertu eben.

1.872ko urtean, Lizarraga´tar Antoniok orduan, bere karlisten sinismena aldarrikatu eban, eta VIIn Karlosek, Errioxako general izendatuta, Nafarroako gudaltegietara aldatu zan, Errioxako errigizarteak VIIn Karlosen alde matxinatu zitezen.

1.872ko urtean Jorraillaren19an joan zan Errioxarantza Karasa´ren gudalozteak bere

(1) Kapitain ordego = teniente.

agidupean ipinita, eta borroka batzuk egin ebazan.

1.872ko urtean Abenduaren 21eko egunerarte, Zornotza edo Amorebietako ongundeen eta matxinadaren porrot´en ostean, Lizarraga Frantzira aldatu zan, eta VIIn Karlosek Gipuzkoaren orokorrezko agintari nagusi izendatu ondoren, Erdiugarte onetan ostera sartu zan 7 gudariakaz bakarrik, eta bereala antolatu ebazan Azpeitiako Eiztariren taldea ta beste batzuk, urte ta egun onetan Gipuztarrai aldarrikatuta, matxinatu egiezen.

1.873ko urtean Jorraillaren 12an Morales del Rio bideratzen eban taldea, Lizarragaren gudalozteen aurka joan zan, eta Tolosaraiño atzeratu egin bear izan eben liberal gudalozte orreik.

1.873ko urtean Jorraillaren 13ko urrengo egunean baiña liberalak, Lizarragaren aurka agertu ziran Abalzizketako erri inguruan, eta Lizarragak alde egin bear izan eban.

Lizarragak andik egun batzura, Nafarroako Abarzuzara joan zan bere taldeagaz, Dorregarai karlisten gudal nagusiagaz alkartzeko, eta biak alkartuz Eraul´eko mendietan, ezereztu egin eben liberal gudalozte orreik. VIIn Karlosek Lizarragari ekintza orregaitik, merezimendu aundiko gudal gutzeagaz xingolatu eban.

1.873ko urtearen Uztaillan Lizarragak, VIIn Karloseri lagundu eutson Erdiugarte ontara etorri zanean, Etxarri Aranaz´eraiño lagunduta karlisten gudalozteakaz bat egiteko.

1.873ko urtean Dagonillaren 15ean Lizarraga, garrantzi aundiko ta gitxi ezagutzen dan ekitalde bat egin eban Gipuzkoaren Orokorrezko Gudal Agintari lez, Karmengo Ama Birjiñaren gudari taldea, Garaipeneko gudari taldea, eta Blanka erregiñaren taldeak euren agintariakaz Bergaran batuta, Espartero ta Marotok egin eben saldukerizko lekuan batu ziran, ta Lizarraga gudari batzukin, an egoan oroit-arria baztartu ondoren, azpian Espartero ta Marotok sinatuz ipini eben agiria erre egin eben, bere errauts ondarrak lau aizeetara zabalduta, 1.839ko urtean an sortu ziran guztiak ezereztuteko esangureagaz.

Eta orren ostean idatzi eben agiria, iru gudaloztearen agintari eta erbezteko ordezkari guztiak sinatu eben.

1.874ko urtean, ta Aragoiko orokor jenerala egin ondoren, almogabares´akaz(1) batera, Somorrostro ta Abantoko San Pedroren ekitaldietan be egon zan, VIIn Karlosen aintzindaritzen(2) agintaritzagaz, eta Kataluñaren orokorrezko kapitain lez.

Kataluñaren orokorrezko kaipaiñ izendatu eben Sabals gudal nagusiaren agindutara egon zanean, Kanpostar Martinezek liberalaren gudal nagusiak, Urgel´eko Seo´n inguratu eban, eta Lizarraga borroka gogor baten ostean, menperatuta geratu zan lez, or galdu eben karlistak euki eben gudal nagusi aundienetariko bat, gudako atxilopean ipini ebelako.

1.875eko urtean Lizarragak, VIIn Karloseri lagundu eutson atzerrira.

Eta 1.877ko urtean Abenduaren 7an, Erroman il zan, gure Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonio au.

1.27. *Dominguera ta Dorregaraitar Antonio, karlisten "judas" gudal nagusia.*

1.823ko urtean Uztaillaren 11n, Zeutan jaio zan Dominguera ta Dorregaraitar Antonio.

(1) Almogabares´akaz = palabra que deriva del arabe almogàvar. Soldado de una tropa escogida que hacìa estragos en las fuerzas enemigas. Tambièn denominaban asì a los soldados Catalanes, que tomaron parte activa en la conquista de Grecia, durante el perìodo de la expansión mediterranea Aragonesa. (2) Aintzindaritza = jefe del estado mayor de Karlos VII.

Eta 1.882ko urtean Epaillaren 21ean, Zaragozan il.

1.835eko urtean eta 12 urte euki zituzenean lerrotu zan karlistaren taldeetan, eta 1.839ko urtean Bergarako ongundearen ostean, liberalaren gudalozteetan lerrotuko zan.

1.868ko urtean eta Iraillako illean egin zan IIn Isabelen aurkako matxinada ostean, ostera karlisten gudalozteetan lerrotuko zan.

1.873ko urtean Nafar eta Euskalerriren orokorrezko kapitaiñ izendatu ebenean, Jurramendiren(1) garaipeneko borroketan ibili zan.

Eta 1.874ko urtean, Muro Mendi´ren garaipeneko borroketan be.

1.874-1.875eko urtetan, erdiko(2) karlisten gudal agintari nagusia izan zan.

1.875eko urte erdi inguruan, Jauregiko Kanobasegaz egin eban ongundean, sinatu eban agiria, borroka barik egiteko beren erdiko gudaloztearen atzerakada izenpetu eban.

Bilaseka ta Mogas´tar Jose lege gizonak egin eben, ekintza orren artekaritza, 25.000 frankoren orde, eta karlisten agintari maillak ta xingolak, liberalen gudaloztean onartzea, gudari guztiak bereala liberalaren gudaloztetan lerrokatzeko.

Ekintza oneri "Erdiaren Saldukeria" deitu eutsoen, naita bere denboran argitu ez. Onen saldukerizko arrazoiakaz. Kukala gudal nagusia zalatu eben, eta guda-auzitegian epaituz, errugabeko lez askatu eban.

1. 28. *Saballs eta Massot´tar Franzizko, karlisten "judas" gudal nagusia.*

1.817ko urtean Jeronako La Pera errian jaio zan, 1.886ko urtean Niza´ko Urian il da.

Karlisten leenengo gudaren kapitaiña izan zan Vn Karlosen aginduan, 1.840ko urtean ta guda ostean, Frantzira atzerriratuz.

1.842ko urtean, ostera itzultzen da karlisten alde borrokatzeko bigarren gudan, eta karlistek artu eben astiñaldiagaz, Nizara joanda, Modenako gudalozteetan lerrokatu zan.



Saballs eta Massot´tar Franzizko
Karlisten "judas" gudal nagusia.

1.848ko urtean ostera itzultzen da Kataluñaren alde borrokatzeko Billafrankaren

(1) Jurramendiko = Montejurra. (2) Erdiko = Maestrazgo.

bakeraño, eta gero Batikanoko Laterriaren gudaloztetan lerrokatuko zan, auek ezereztu arte.

1.870eko urtean karlisten guda berriz biztuta, VIIn Karlosek, Kataluñako gudalozteen agintaritza emon eutson.

Karlisten irugarren borrokan, eta Estartuz´tar Josep´en agintaritzapean, arrigarrizko gauzak egin ebazan bere gudari taldeagaz, beste katalan gudarientzat ikaspidea izan zana.

VIIn Karlosen anaia Kataluñako ordezkari izan zan Alfonso Karloseri aurkarituz, lortu eban bere gudaloztearen agintaritzan irautea.

Eta 1.874ko Alpens´eko borrokan garaipena lortuz, VIIn Karlosek Alpeseko markesaren andiki izena ipini eutson.

1.874ko urtean Jeronako inguruan, Olot erria artu eban, eta 1.875eko urtean VIIn Karlosek, Kataluñako orokorrezko kapitaiña izendatu eban.

1.875eko urtean, Seo de Urjel inguratu eta artuta eukela, galdu ebalako, saltzaille lez zalatu eben eta espetxeratuta, 1.876ko urtean askatu eben, eta Frantziko Niza´ra joan zan betirako.

1. 29. *Ziraukiko La Kalle ta Yabar´tar Tirso, "Urgun" edo "El cojo de Zirauki", Liberalak euken iltzaille madarikatua.*

Ziraukiko "urguna"(1), Nafar liberalak euki eben sasi-gudaria(2), 1.845eko urtean Urtarrillaren 28an Ziraukin jaioa, eta 1.920 urtean Urtarrillaren 31n Baltierran il zana.

1.873ko urtean Uztaillaren 13an karlistek, Ziraukiko errian egin eben ilketazko sarraskitik, bizirik geratu ziran 24ko giza semeetatik, bera izan zan aren arteko bat.

Nafar Aldundiko liberalen zaindarizko mutilletan sartu zan, eta karlisten bigarren gudatean, etenbageko ekintza egin eban karlistaren sasi-gudari taldeen aurka.

1.874ko urtean Abenduaren 26ko egunean Mendiri karlisten gudal nagusiak, espainitar gudal nagusi Moriones´eri(3) bialtzen dautson eskutitzan ikusten da, zelan:

"Me consta de una manera positiva que por la contraguerrilla de Tirso Lacalle fueron fusilados, cerca de Murillo el Cuende, el día 28 del pasado noviembre, a los tres días de haber sido hechos prisioneros, los soldados del Ejército Real Remigio Saso y Javier Resa, el primero natural de Santacara, perteneciente al séptimo batallón de Navarra, y el segundo, de la ciudad de Calahorra, de una de las partidas volantes, y tengo por cierto que el fusilamiento se llevó a cabo de orden o con aquiescencia de V., por cuanto el jefe de la fuerza, luego de haber hecho la aprehensión, pasó a V. una comunicación sobre el asunto. En vista de la gravedad de este suceso sin precedentes, puesto que no ha sido hijo de un arrebato de cólera, explicable, aunque no disculpable, sino de un frío y premeditado ensañamiento, creo necesario dirigirme a V. para manifestarle que si en breve término no me da una explicación satisfactoria de dichos fusilamientos, fusilaré yo de los prisioneros que existen en nuestros depósitos dos por cada uno de los fusilados...".

(1) Urgun = cojo. (2) Sasi-gudaria = guerrillero sanguinario de los liberales. (3) Moriones = Moriones eta Murillo´tar Domingo Orokietako markesa eta liberalaren gudal nagusia. Leatxen jaio zan eta Madrillen il. Maeztrazgo edo zaldungoko gudan, eta Esparteroren agindupean egoala igon eban kapitaiñ ordezkora. 1.849ko urtean bere eritzi politiko liberalagaitik alde egin bear izan eban. Eta 1.868ko urtearen Iraillan brigadako jeneraltasunera igon eben, zelaiko mariskala ta Nafarroako orokorrezko kapitaiña egin eben. 1.872ko urtean karlistak menperatu ebazan Orokietako zelaietan, Orokietako markesa eginda. 1.877-1.880urte bitartean Filipinaseko orokorrezko kapitaiñ izan zan.

1.875eko urtean Epaillaren 29an, Ziraukiko "Urgun" orrek, inguratuta euki ebazan karlistei eta euren bizitzak begirunez artuko ebazalakoen eskeintzagaz, etsaimendu jakozan, eta Unx´eko San Martiñ´era eroanda, bertan il ebazan tiros, zortzi karlista orreik.

Urte onen Urtarrillan, beste ainbeste il ebazan Larragan eta Argako Mirandan, Lopez eta Goikoatxea´tar Jose liberalak aukera onetan, Mendirin itza lortuta, liberal geiagorik ez ebala ilgo.

1.875eko urtean Jorraillaren 7an Mendiri karlisten jeneralak, Lakalle´tar urgun ori emon eutsela eskatu eutsoen liberalai, eta jaramonik ez eutsoelako egin, Mendirik 8 liberal gudari artu baituen pillotik, eta Lizarran, tiros il ebazan.

Ziraukiko urgun onek, zaldunezko kapitain lez amaitu eban guda, eta Filipinasera joan zan urte bi bertan eginda.

1.893ko urtean eta bialdu eutsoen leku ezberdiñetatik ibili ondoren, Baltierran geratu zan bizitzen.

1.917ko urtean, liberalakin egon zan Tafallako batzarrean.

1. 30. *Martinez ta Kanpos´tar Arsenio, liberalen gudal nagusia.*

1.831ko urtean Abenduaren 14an Segobiako Urian jaio zan, eta 1.900eko urtean Iraillaren 23an Zarautz´en il.

1.852ko urtean gudalozteen aintzindaritzan sartu eban(1).

1.859-1.860ko urteetan, Afrikako gudan egon zan, baita 1.862ko urtean Mexikoren aurka be, eta espainitar ta frantzezarekin, bietan Prin´tar Juan´en agindutara.

1.868ko urtean, IIn Isabel kendu eben erregetzatik, eta Kubara bialdu eben, 10 urteko guda asi barri egoala.

1.871ko urtean eta iru urte geroago, Erdiugarte onetara itzuli zan ostera Brigadier gudal nagusien maillagaz(2), borrokatan euken irabazpideagaitik(3).



1.878ko urtean Kubaren orokorrezko jaurlaria. Martinez ta Kanpos´tar Arsenioren irudia.

(1) Gudalozteen aintzintaritzan sartu eutsoen = Estado mayor del ejèrcito. (2) Brigadier = General de Brigada, Contralmirante, guarda marina que cuida del orden de su secciòn. (3) Irabazpideagaitik = por mèritos de guerra.

Erdiugarte onetara eldu zanean, Kataluñara bialdu eben gudaloztearen talde bategaz, karlisten aurka borrokatzeko.

1.873ko urtean Salmeron ta Alonso´tar Nikolas´ek(1), gobernuen barkameneko ta zuzeneragilleko ministruak(2), Almansa eta Balentziako lurraldeak meperatu egiezen agindu utson. Errez, lortu ebena.

1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabiatar Manuelek, laterri-matxinatuagaz(3) gorteak ezereztu ebazan, eta urbil geratu zan 1´go errepublikaren amaiera.

1.31. *Gudalarien aldarrikapena, eta Borboi leiñuaren lengoratze edo berregintza.*

Kanpos´tar Martinezek, espainitarren erregetzan ostera, Borboiak ezarri zitezen alde egoan, Jauregi´tar Kanobas´ek alderantziz baiña, gura ez ebena, politikaren bakezko ekitaldi bategaz, espainitarren lurraldea, alosokerizko erregatasun baten berriz biurtzea zan.

1.874ko urtean Abenduaren 29an espainitar gobernukoak, susmo txarrean euki eban Kanpos´tar Martinez ori, eta atzerriratzea erabagi eben.

Kanpos´tar Martinezek oartuta baiña, ta Balentziako Alfonsinoak ezkatzen eutsoelako, Abilara doielakoan, Saguntora joan zan artez, bertan bere aldarrikapena egiteko.

Bitartean baiña, Ramirez de Arellano ta Laban´tar Luis orokorrezko kapitaiñaren ordezkoak, bere Segorbeko gudaloztearen zati bategaz bertora joan zan.



Kanpos´tar Martinezen irudia.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, gudari orreikaz lauki bat eginda, Kanpos´tar Martinez´ek eurari begira, IIn Isabelen seme XIIn Alfonso aldarrikatu eban espainitarren errege lez. Serrano, orduko denboran gobernuko leen ministrua izanda, Kanpos´tar

(1) Salmeron eta Alonso´tar nicolás = 1.838ko urtean Almeriako Alhaman jaioa, eta 1.908ko urtean Frantziko Pau´n il zana. Espainitar Krausismo eritziaren arduradun aundienetarikoa izan zana. 1.871-1.873eko urte artean, 1.886ko urtean, eta 1.893-1.907ko urte artean diputadua zana. 1.873ko urtean Barkameneko eta Zuzen Eragillea = ministro de Gracia y Justicia. Bera izanda eleiza ta laterriaren banaketa baieztu ebena. Pi eta Margal´ek gobernua itzi ebenean, berak artu eban agintaritza, itzi egin bear ebena, berak ez ebelako gura eriotzezko izenpetzerik sinatu. Pabia´k emon eban laterrizko matxintasunagaz eta XIIn Alfonso errege egin ebenean, atzerriratu zan, eta ez zan itzuli ostera 1.884ko urterarte. Ortik ona asko idatzita garrantzizko ikas-gaietan. (2) Barkamen eta Zuzen eragilleko ministruak = ministro de gracia y justicia. (3) Laterri matxintasunagaz = golpe de estado.

Martinez´ek egin eban aldarrikapenari, ez eutson ezer esan, eta XIIn Alfonso geratu zan errege lez.

XIIn Alfonso Erdiugarte onetara eldu zanean, karlisten aurka Kataluña ta Nafarroan borrokatzen egon ziran gudalozteak ipini eutsoezan bere agindutara.

Eta 1.875eko urtearen Epaillan, Kataluñan karlisten Uri nagusia izan zan Olot Uria menperatu eban, ta geroago Seo de Urjel inguraturik Dagonillaren illean menperatu eban.

1.875eko Azillaren 19an, egon ziran aurkaritzak menperatu ondoren, karlisten matxintasunak, ezereztuta geratu ziran. Bereala Nafarroako lurraldeetara joanda, geratzen ziran karlistak menperatzeko.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an, XIIn Alfonso Iruñan sartu zan, eta guda amaituta gero, Kanpos´tar Martinez Orokorrezko Kapitaña egin eben.

1.876ko urtearen ateskundetan Erregetxe edo Gorteko diputadua egin eben Saguntoren erri alde edo lurraldeagaitik, nai ta Azillan diputadutza bertan itzi, Kastañon´tar Eduardok artu egian.

1.876ko urte onetan Kubara bialtzen dabe, Orokorrezko Kapitaiñen aginduagaz, zortzi urtetik ona borrokatzen egin ziran gudalozteak bere aginduan ezartzeko.

Ango 20.000 gudariakaz, Kubako Santiagon eta Las Billaseko matxinatuak menperatu ebazan.

Gero, oartu ondoren borroka aiek luzeak zirala, eta alde biak oso makal egon zirala, batera ugarteko giza semeak larritasunezko aukerean egokituz, Kanpos´tar Martinez´ek, politikasko arloetan bera, gibel edo eroapeneko eritzikoa izanda, matxino aiekin alkar-ikuste batzuk antolatu ebazan.

Eta orduan, orokorrezko barkamena agindu eban lez, borrokak izten ebazanai, geienak asi ziran eukezan izkilluak bertan izten.

1.878ko urtean Otsaillaren 7an, Kanpos´tar Martinez´ek, matxinatuen agintari izan zan Garzia ta Gonzalez´tar Bizentegaz, ostonduko alkar izketa bat euki eban, eta izkilluak izteko zelako baldintzakin izando zala erakutsi ondoren.

1.878ko urtean Otsaillaren 10ean Zajon´eko bakea sinatu eben, eta 10 urteko borrokari amaiera emon eutsoen, Kubako gobernuari eukera geiago emonda, eta joputza edo etsaimendeak kendu edo ezereztu ondoren(1).

1.879ko urtean Kanpos´tar Martinez itzuli zan Erdiugarte ontara.


Eta 1.879ko urtean Epaillaren 7an Kanpos´tar Martinez´ek beren baliotasunagaitik senatore izanda, Jauregi´tar Kanobas´ek aginduta, Ministruen Aolkularitzaren Lendakaritza, ta gudaren ministeritza artu eban liberalaren aldetik.

1.879ko urtean Abenduaren 9an Kanobasek, kendu eban agintarizko leku orretatik, eta konturatu zanean, Jauregi´tar Kanobas´en aldetik, panpiña bat lez erabilitakoa izan zala, bere liberal alderdi edo Kanobasen alderdia itzi, ta Sagastaren liberal alderdira aldatu zan.

1.881-1.883ko urte bitartean Gudarako Ministrua izan zan Sagastaren gobernuan, eta agindu orretan egoala, "orokorrezko gudarien ikastetxeko" sorraldiakaz(2) arduratu zan.

Eta 1.882ko urtean Otsaillaren 20an, XIIn Alfonso erregea eta Kanpostar Martinez´ek siñatuta, sorraldiko´en agindu bat argitaratu zan, zelan Toledoko Gazteluaren Ikastetxea irasten zala.

(1) Joputza edo etsaimendetasuna ezereztuta = abolición de la esclavitud. (2) Sorraldiakaz = creaciones de academias militares.



Kanpos´tar Martinez´eri, Kataluñan egineko gaiztakeria.

1, 990eko urtetik, Melillan egon ziran espainitarren gudalozteak, eta Rif´eko leiñuen arteko borrokak nabaritasunean, ugaritzen joan ziran.

1.990eko urtean Urrillaren 2an, Uriaren kanpo aldetik ta Uria babesteko, atxilotutako gizonak lanean egiten egon ziran gaztelua, bai ta eurak zaintzen egon ziran espainitar gudariak, il ebazan.

1.893ko urtean Iraillaren 24an Kanpos ta Martinez´tar Isidrok Kataluñako Orokorrezko Kapitaiñ egoala, ta Bartzelonan Merzez´eko jaietan, gudarien lerro-aldia(1) ikusten, Pallastar Paulino legebagekoak(2), gaiztakeri(3) gogor bat egin eutson, zauri txikerrakin bakarrik urtenda.

1.893ko urtean Urrillaren 27 eta 28ko egunerarte, mauritarrak egiten ebazan erasoak ugaritzen joan ziran, arik eta egun onetan "goiko auntz borda" edo "goiko aunztegiko" gazteluari(4) eraso gogor bat egin arte. Berton, Garzia ta Margallo´tar Juan talde burua(5), Melillako guda jaurlaria, bere gudari askorekin il ebelako, gobernuak, bereala antolatu eban 20.000ko gudari talde bat, Kanpos ta Martinez´tar Isidroren aginduan bialdu ebena.

Gudaren beldur I Hassan mairu erregeak(6), bere anaia bialdu eban gudalozte sendo bategaz, Rif´eko gizeli edo leiñuak, kontrolpean ezartzeko.

1.894ko urtean Epaillaren 5ean, Kanpos ta Martineztar Isidrok I Hassan mairu erregeagaz, bakezko agiri bat sinatu eban, guda borrokari, amaiera emoteko.

1.895eko urtean, eta Kubako guda ostera barriztuta, Kanpos ta Martinez´tar Isidro bialdu eben Kubako ugartera Jaurlari lez, aukera onetan baiña, bakezko alegiñak ez eban emon ondore onik, eta ez ebalako gogortasunezko erasorik egin matxinatuei, 1.876ko urtean aldatu eban Weyler´tar Baleriano jeneralagaitik, ostera Erdiugarte onetara itzulita.

1.896ko urtean Urtarrillaren 19an argitaratu eban Madrilleko Gazeta aldizkariak, zelan Itsas Gudako Aolkularitzaren lendakari izendatzen ebala. Eta illabete bat barruan, itzi eban lan ori.

1.900eko urtean Iraillaren 23an, Zarautzen il zan Kanpos´tar Martinez au.

1.32. *Kesada ta Bizente´tar Jenaro, espainitar liberalen aldetik.*

1.782ko urtean Iraillaren 19an, La Abanan jaio zan Jenaro ta Kesada´tar Bizente Momkayoko markesa, eta 1.836ko urtean Dagonillaren 15ean, Madrilleko Iparraldean dauan Ortaleza(7) erritxoan il zan espainitar gudal agintari nagusi au.

Jaen´en jaiotako Nepomuzeno ta Kesada´tar Juan Nikaraguako jaurlariaren, eta La

(1) Lerro-aldi = desfile. (2) Legebagekoa = anarquista. (3) Gaiztakeria = atentado. (4) Goiko "Aunztegiko gazteluari = fuerte de las cabrerizas altas. (5) Talde burua = general de divisiòn. (6) Mairu erregeak = el sultan. (7) Oraleza = Hortaleza.

Abanan jaiotako Arango ta Kastillo´tar Josefaren semea zan.

1.782ko urtean Urrillaren 3an La Abanako Santo Kustodio Angeruaren eleizan bateatu eben, bere aitak aurreratik erabagita, Bizente bere semea, gudari izango zala.

1.794ko urtean lerrotu zan, Kuba´ren oiñez taldeko 3garrengo txanbergan(1), 1.796ko urteraiño bertan egonda. Urte onetan erregeak Kadete izendatuta, Errege-Zaintzaren



Kesada ta Bizente´tar Jenaro´ren Irudia

ikastegian(2) sartu eban, gudarako bear ziran jakintzak ikasteko.

1. 33. *Espainitarren Askatasunezko guda.*

1.808ko urtean eldu zan Madrillera Kesada´tar Bizente au, eta Baloien Zaintzarizko(3) aldean lerrotuta, Madrilleko Loraillaren 2an Napoleonen aurka sortutako espainitarren matxintasunean be, egon zan.

Madrilletik alde eginda, Badajos´en babestu ziran gudalariakaz alkartu zan, eta bertan asi zan gudalozte bat antolatzen, Napoleonen aurka borrokatzeko.

Koronel ordezkoa izendatu eben, eta bera ipini eben Plasenziako gogozko leen txanbergako gudari taldearen agintari.

Geroago, Baloi zaintzarien laugarreneko txanbergaren agintari ipinita.

1.808ko urtean Azillaren 10ean Estremaduraren gudalozteko talde au, Zar-Gaztelara aldatu zan borrokatzen, eta bertako Gramonal borrokan, 11 biderrez zauritu ondoren, Frantziko Dijon´en espetxeratu eben frantzezak.

Frantziako espetxe ortatik, bi aldiz iges egiteko alegiñak egin ondoren, lortu eban askenean Kataluñara iges egitea, eta itsas ontzi baten Kadiz´era joan zan.

(1) Txanberga = batallòn. (2) Errege Zaintzaren ikastegia = nagusitasunezko semeen gudal-ikastetxea, ikasketa orren bidez, gudal agintarira agoten ebenak, be maillako lerroaren gaiñetik. (3) Baloien Zaintzarizko = Guardia Valona.

Kadiz´eko gudalozteetan lerrokatu zan, eta ez eutsoen emon, berak uste eban general brigadierren mailla egokitzen jakona, eta gitziago, iñungo borroketara bialdu, arik eta Santanderreko guda-jaurlari ta politikuak, izendatu eben arte.

1. 34. *Kesada, VIIn Fernando erregearen denboran.*

VIIn Fernando, ostera ezarri zanean bere errege aulkian, brigadier maillako jenerala egin eben, bai ta xingola batzuk emon be, berak eukineko zauri ta espetxetasunagaitik.

1.812ko konstituzioaren aurka egoteagaitik, kendu eben bere lan guztietatik, eta Frantzira atzerriratu zan.

Frantzian egoala, erregeen alosokerizko aldeko taldean sartu zan, eta Nafarroako gudaloztearen orokorrezko kapitaiña izendatu eben, frantzezaren gudalozteakaz sartu zanean.

VIIn Fernando bere errege aulkia berrezkuratu ebanean, Kesada, Granada, Balentzia, Murtzia eta Gipuzkoara bialdu eben ostean, 1.825eko urtean, Andaluziaren orokorrezko kapitaiña izendatu eban, garaipen asko eta aundiak lortuta konstituziozko gudaloztearen aurka, eta baita bideetatik ibilten ziran lapurraren aurka.

1.831ko urtean, Madrillen ipini eutsoen guda bulego bat, erregeen zaintzarako bear zan gudalozteen agintari nagusia izendatuta, eta bai ta oiñezko lerro ta oiñezko azkar gudarien taldeak bertotik bideratzeko.

VIIn Fernando il zanean, IIn Isabelen inguruan egon ziran politika ta aolkularitzazko ministruak, karlisten alde egongo zalakoan, euren zalantzak euki ebezalako Kesadagaitik, gortetik urruntzeko, Andaluziko orokorrezko kapitaiña izendatu eben.

Kesada, atzerritasun bat lez artu ondoren, asarre geratu zan ministruen erabagi orregaitik,

1.35. *Kesada, karlisten leenengo gudan.*

Zea ta Bermudez´tar Franzizkoren gobernuko kideai, bere gizalege ta zintzotasunak ezagutzera emon ondoren, beraganatu ebazan, eta Zaar-Gaztelaren orokorrezko kapitaiña izendatu eban, Balladolizetik bideratzeko.

Eta Merinotar Jeronimok egin ebazan karlisten sasigudak geratu ebazalako, Gaztelako izen burua ipini gura eutsoen, berak, Monkayoko markesaren izen burua artuta.

1.834ko urteen Urtarrillan, Nafarroako erregeen ordezkoa izendatu eban, Iparraldeko gudaloztearen agintaritzagaz. Agintaritz orretan ipinita, arazo aundiak sortu jakozan Zumalakaregiren gudalozteak euken indarrakin, eta Jorraillan Zumalakarregik, gudal jarraigo bat(1) atrapau eutson, eta baita Iruña inguratu be. Liberalaren aldizkariak, Kesadari bota eutsoen erru guztiak, eta Bagillako illean kendu eben agintaritz orretatik.

1.836ko urtearen Dagonillan, San Ildenfonso Jai-etxe edo eguras-etxean sortu ziran matxintasunetik, alde gura izan eban Madrilleko Iparraldean, Ortalezako errian euki ebazan lagun batzuen etxera, eta andik ibili zan jende-parrasta(2) bategaitik, IIn Isabelen bular-eskol(3) ibilte eben zaldunezko gudariak(4) baiño ariñago ikusi ebelako, berto il eban.

(1) Gudal jarraigo bat = convoy militar. (2) Jende-parrasta = turbamulta, multitud de gente en aptitud desordenada. (3) Bular-eskol = coraza. Eta bular eskol ori eroaten eben zaldunak = coraceros. (4) IIn Isabelen, bular-eskol ibilte eben zaldunezko gudariak baiño ariñago ikusi ebelako = Y como fuè visto por la turbamulta, antes que los coraceros de la reina Isabel II, alli mismo fuè muerto.

1. 36. *Perula ta de la Parra´tar Jose, karlisten gudal nagusia.*

1.830ean, Nafarroaren Iruñako lurraldean, Sesmako erritxoan jaio zan gure Perula ta de la Parra´tar Jose, ta 1.881eko urtean Pontebedrako lurraldean, Tuy´ko eleiz barrutiko lurraldean dagon Mondariz erritxoan il zan, karlisten gudal nagusi au.

1.855eko urtean zaldunezko kapitaiña izan zan, Burgoseko lurraldearen burdiñezko(1) taldeagaz, ta Vn Karlosen ikurrari goian eutsi eutsoeneko bat izanda, atxilotu eben, Kubara bialduta zigortuz, zortzi urtetan, espainitar be maillako soldadu lez ibili zedin.

1.858ko urtean ta parkamen baten bidez, Erdiugarte onetara etorri zan, eta Marrokosen guda sortu zanean, gogozko zaldunen gudari lez lerrotuta, Euskal gudaloztearen edo Tertzioen agintari lez amaitu eban.

Rapitako matxintasunean, kapitain lez izendatu eban Montemolineko kondeak, eta porrot egin ondoren, Korellara etorri zan baratari(2) edo agirien idazle lez.

1.868ko urtean eguras-etxearen edo jai-etxearen matxintasunean, IIn Isabeleri eskeiñi eutson bere laguntasuna atzerrira joateko. Paris´era elduta baiña, Borbon´tar Karlosen agindutara ipini zan, Bebey´eko(3) batzarrera joanda, eta baita 1.872ko urtearen Udabarrian karlistak egin eben joan-aldi edo gud-aldian(4).

Ez eban gura, Zornotza edo Amorebietako ongundepean ezarri, ta ostera atzerriratu zan.

1.872ko urtean Abenduaren 21ean etorri zan ostera Erdiugarte ontara, Ollo brigadierren agindupean, eta iru egun barru 50 gogozko mutil gudariekin, Sesma bere erria, liberalaren babes toki lez egoana, menderatu eban

1.873ko urtearen Otsaillako asieran, Bizkaia ta Arabatik, gud-aldi bat egin eban.

1.873ko urtean Otsaillako illea amaitu barik, Nafar zaldunezko talde bat antolatu eban.

Beste sarrera gogor bat be egin eban Logroño, Burgos eta Arabatik, itzulkeran gudari bat galdu bage, naita bere atzetik liberal gudalozte sendoak euki arren.

1.874ko urtearen Bagillan, general ordego maillara edo brigadier maillara igon eben, Lizarraren artueran, Alloko borrokan, eta Somorrostroko ekiñaldietan egin ebenagaitik.

Kalagorri edo Kalagurriko borrokatan, 100 liberal gudari atxilotu ebazan, eta 300 izkillutik gora arrapau. Ta Karraskaleko borrokan gudalarien gurutz aundiagaz xingolatuz, Lakar´eko borrokan egin ebenagaitik, Zelaiko Mariskalaren gerrikoa ipini eutsoen.

1.875eko urtearen Uztaillan eta gauza guzti oneik egin ondoren, opor aldi bat emon eutsoen bere gaitzaldiagaitik, ortik urtenda, karlisten Iparraldeko gudaloztearen agintari nagusi lez ipinita.

1.875eko urtearen Uztaillan eta agintaritza ori artu eben urrengoko egunean, Trebiñoko borrokea galdu eban.

1.875eko urtearen Dagonillan, Miraballeseko-Orikain´eko borrokan, ostera menderatu eban Kesada´tar Jenarok, eta bere utziera aurkeztuta VIIn Karloseri, onek onartu eutson bere erabagi ori, utziera orregaz batera, Nafartarren orokorrezko komandant-etxeko agintari izendatuta.

1.876ko urtean Urtarrillaren 30ean, Mañeruko Santa Barbaratik bota ebazan liberal gudalozteak, asken baten Frantzira atzerriratuz.

(1) Burgoseko Burdiñezko taldea = la partida de los Hierros que en Burgos sostenía la bandera de don Carlos. (2) Baratari = Notario. (3) Bebey edo Vevey = Suizan, Vaud edo Baud´eko erri-aldeko lurraldean eta Jinebrako ur-geldi inguruan dauan erritxoa da, txokolatezko arloetan aiñ jakintsu ta aberatsa dana. (4) Gud-aldiak = expediciones militares que se hacian para atraer a su bando las simpatias de los pueblos.

Asken denboratan, eta Mañerun egin ebazan mugimenduagaitik, saltzaille lez artu eban. Egia baiña, Abanara joanda dirua lortzeko, il zanean, ez ebala euki txakur-txiki bat bera esanda be.

1. 37. *Mendiri ta Kolera´tar Torcuato, karlisten gudal nagusia.*

1.813ko urtean, Allo´ko errian jaio zan gure Mendiri ta Kolera´tar Torcuato Abarzuzako konde au.

Eta 1.884ko urtean, Tudelan il.

1.833ko urtean oraindiño 20 urte egin barik, karlisten gudalozteko kapitain izendatu eben, berak lenengo karlisten gudan Zumalakarregiren agindutara erakutsi eban kemenezko indar eta zentzun aundiz egin ebazanagaitik.

Karlisten leenengo guda amaitu zanean, Frantzira atzerriratu zan, eta Bergaran egin eben saldukerizko besarkada ostean, ostera etorri zan Erdiugarte onetara, liberalen gudalozteetan lerrokatzeko koronel orde edo teniente koronelen agintaritzazko maillagaz.

1.845eko urtean Uztaillaren 17an, Larragaren San Migeleko eleizan ezkondu zan, Arriazu ta de la Kruz-Andorra´tar Juanagaz, lur-jabe ta gudalari karlista izan zan de Paula ta Arriazu ta Walpole´tar Franzizkoren alaba zanagaz. XVIIIn gizaldian eta amaren bidetik, Robert Walpole politikoa eta, Orford´eko 1° kondearen zuzeneko sendikoa zana.

Mendiri´tar Torkuatok, karlisten bigarren guda amaitu zanean , Frantzira atzerriratu zan koronel gudari maillagaz.

Eta urte batzuen ostean, ostera etorri zan Erdiugarte onetara.

1.873ko urtean aske geratu zan liberalen gudalozteetatik eta ostera asi zan karlisten gudalozteetan lerrokatzeko.

1.874ko urtean Abarzuza ondoan dagon Muru mendian menderatuko ebazan, liberalak euki ebazan gudalozteak, eta VIIn Karlosek ekintza auegandik, Abarzuzako markesado eta kondetzagaz omendatuko eban.

1.875eko urtean, Kataluñako komandant agintaria izendatuz, gudal nagusi guztien gaiñetik geratuko zan karlistaren irugarreneko guda onetan.

Agintari onetan egoala baiña, zalantzan geratuko zan bere gizalegetasuna, eta berak ez eban euki beste zeregiñik, Frantzira atzerriratzea baiño.

1.876ko urtean, Karlisten guda amaitu zanean, ostera etorri zan Erdiugarte ontara, eta liberalaren gudalozteetan lerrokatu zan ostera general de brigada bezela.

1. 38. *Borbon´tar XIIn Alfonso espainitarren errege.*

1.857ko urtean Azaroaren 28an jaio zan Madrilleko erregearen jauretxean, XIIn Alfonso espainiarren ustez "Paketzaille" izen-goitiagaz esagutuko zana.

Eta 1.885eko urtean Azaroaren 25ean, Madrilleko Pardoan il.

1.874ko urtetik-1.885eko urte bitartean espainitarren errege izan zan.

Bere benetako aita, 1.866ko urtean Madrilleko San Gil gudaltegian azpikeriz, tiros il eben Puigmolto´tar Enrike, guda injinieruen koronela zana.

IIn Isabel erregiñaren eta Asis´eko Borboi´tar Franzizkoren semea izan zan agirietan,



XIIn Alfonso´ren irudia, bere armarria eta bere izenpeko zirriborroa.

naita bere aita, Puigmolto´tar Enrike, injiniero´en kapitaiña izan arren, edo beste ainbateko bat, edestilariak esaten dauen lez.

Beren erregetzagaz, 1go errepubikari amaiera emon eutson, eta berritzailletasunezko(1) aldiari, asiera.

XIIn Alfonso 27 urtegaz, bularretako gaitzaldiagaz il zanean, bere il gerozko seme, XIIIn Alfonso igon eban erregetzazko aulkira, bere amama Maria Kristinaren errege ordegotzan. XIIn Alfonso oneri, Asturiaseko Printzearen izen burua ipini eutsoenean, lau arreba euki zituzen:

1.851-1.931ko urte bitartean bizi zan Isabel, Girgentiko kondesa izan zana.

1.861-1.879ko urte bitartean bizi zana, errege alaba lez.

1.862.1.946ko urte bitartean bizi zan Bakezko Maria(2) Babierako Printzea lez.

1.864-1.958ko urte bitartean bizi zan Maria Eulalia, Gallierako dukesa lez bizi zana.

XIIn Alfonsoren irakasle artean: Sesto'ko dukea, eta IIn Isabelek IXn Pio aita santuari galdetu ondoren, Burgos´eko gongotzain edo artx-apezpikua aurkitzen ziran.

1. 39. *IIn Isabel erregetzatik kentzea, ta XIIn Alfonsoren ikas bideak.*

1.868ko urtearen Aintzagarrizko edo Ospagarrizko iraultzagaz(3) XIIn Alfonso ume bat zala, kendu eben bere ama Isabel erregetzazko zeregiñetatik, Frantzira erbesterazota.

IIn Isabel eta bere senar Asis´eko Franzizko, Parisen, bizitzeko bananduta bizi ba ziran, bere amak, Europatik zabaltzeko euken aukera ori XIIn Alfonsorentzat, oso aberasgarria izan zan, Frantzez, Austria, ta Ingalaterrak euki ebezan arauak politikako arloetan esagutu ebazalako. Eta bera izan zalako Asturiaseko Printze guztitik, atzerriko mail andiko ikastexe ta gudalarien ikasteetxetan ikasten ibili zana.

XIIn Alfonso leen, Paris´eko Stanislas ikastetxean sartu eben.

(1)Berritzailletasunezko aldiari asiera emon = su reinado diò fin a la 1ª repùblica y comienzo a època de la restauración. (2) Bakezko Maria = Maria de la Paz.
(3) Aintzagarrizko edo Ospagarrizko Iraultza = Revoluciòn de la Gloriosa´lez esagutu zana.

1.869ko urtean Iraillaren 29an, XIIn Alfonso´ren senidetasuna, aldi baterako beintzat, Jinebrara aldatu zan, XIIn Alfonsok ikastaro edo ikas-aldi bereziak artu arren, erriko Jakitun Batzarretara(1) be joanda.

XIIn Alfonsoren urrengo ikasketak beteteko, Bienako Teresiana Errege ta Kaisarrezko Jakitunen Batzar ikastetxera joan zan.

Askenean, Ingalaterrako Sandhurst Guda-ikastetxera eroanda, erri orretan Ingeles´tarren batzangotasunezko konstituzioaren legeak esagutuko ebazan.

Denbora onetan, IIn Isabelek euki zituzen diru estutasunak jakiten dira, XIIn Alfonsok, bere ikas tokietatik eskutitz, amarekin euki ebazan kontakizunen bidetik.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean IIn Isabelek Paris´en sinatu eban agiriakaz, bere seme XIIn Alfonsoren eskuetan itzi ebazan erregetzazko ardura guztiak, espainitarrek, legezko errege lez artu egien.

Espainitarren artean bitartez, jaurkintz ezberdiñak aldatu ziran:

1.868-1.870eko urte bitartean aldi baterako sortu zan jaurkintza(2).

1.870-1873ko urte bitartean, I Amadeo´ren demokrazizko jaurkintza.

Eta 1.873-1.874ko urte bitartean, I Errepublikea.

1.874ko urtearen Urtarrilan ezereztu zan I Errepublika au, eta bizia euki eban, arik eta Pabia gudal nagusiak, Laterrien aurkako matxinada egin arte, bigarren aldia zabaldu egin ebana, sortuko ziran jaurkintz baragarriarentzat.

Sei urteko epe aldi demokratiko oneitan ?, XIIn Alfonsoren gorteko eskubideak, Jauretxe ta Kanobas´tar Antoniogaitik bideratuta egon ziran.

1. 40. *XIIn Alfonso, errege al izatera.*

1.874ko urtean Abenduaren 1eko egunean XIIn Alfonsok, Ingalaterraren Egoaldeko Sandhurst(3) erritxoan, Ingelesak sortutako gudari ikastetxetik, eta XIIn Alfonso bertan ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen aurkezpenean, au esaten eutsoen: "Bera, katolikoa, espainitarra, konstituzio barriaren aldekoa, liberala, eta espainitarrai serbitzeko gogoz beteta, egoan gizona zala".

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez ta Kanpos´tar Arseniok Balentziako Saguntotik, XIIn Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztu egin zan erregetzazko jaurkintza Erdiugarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gaiñetik. Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari, eta Sagasta, gobernuaren jaurlari.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, gobernuaren agintarizko agiri bategaz, Ordezko Ministeritza ezarri zan espainitarren lurraldean, XIIn Alfonso etorriarte edo adiñ neurrira elduarte, Kanobasek, lendakari lez jaurritu zedin.

1.875eko urtearen Urtarrillan eldu zan XIIn Alfonso Erdiugarte onetara, eta errege lez aldarrikatu eben espainitar gorteen aurrean.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an XIIn Alfonsok, Kanobas izendatu eban Ministruen Aolkularitzazko batzordearen lendakari, bai ta beste ministruen lanpostuak be.

(1) Jakitun Batzarrera = Academia Pùblica de esa ciudad Cantonal. (2) Aldi baterako sortu zan jaurkintza = gobierno provisional. (3) Sandhurst = Ingalaterraren Egoaldean, Berkshire´ko errian dagoena, 1.802ko urtean Ingelesak sortu eben gudarien ikasetxetik, XIIn Alfonsok, bertatik ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen bere aurkezpena errege lez.

Bere erregetza geien, espainitar errege leiñuen sendotzea, ta konstituzioaren ezarpena gogortu edo ta finkatzea zan, sei urtetan guzurrez betetako estabaidakaz eta matxinatuzko zalantzan, ain txarto geratu ziranak.

Orren ekintzagaitik "Pakegillaren" guzurrezko izena irabazi eban. Eta guzurrean zaldikatuta gagozelako 325eko urtetik edo Nizeako eleiz-kaisar batzarretik ona, ekintza guztiak, guda indarrez edo izkillu bidez egin bear izan dira, "guzurra, egi lez, ezin leikelako aurkeztu edo biurtu".

1.875eko urtean Otsaillaren 13an XIIn Alfonso errege lez egoalako, beste agintaritzazko agiri bategaz, ararte egon zan Ordezko Ministeritza kendu zan, ez XIIn Alfonso egon zalako bakarrik, geienetan, ezin ebelako bakez eroan, ezeren zentzunezko agindurik.

325eko urtetik, Katolikotasunezko aberriaren kaisertzazko guzurrean ezarrita, eta dan guztia katolikotasunezko aberkidetzaren guzurragaz zikindu zalako egia asieratik, gauza bat bera esanda be, ez zan oldoztu bakearen edo berezko arrazoiaren eritziekin edesti guztian. Guzurrak, guzurrezko zentzuakaz bakarrik alkartu bear ziralako, eta bereztasunaren legez, guzurra oiñarrietatik asten dalako okertzen, kanpoko alegiñ orreik egitan biurtzeko, zentzun edo ta zuzentasunezko bidera eroateko alegiñetan, borrokak baiño besterik ez dabe sortzen. "Guzurrak", "Egitan" biurtu gura ezkero.

Jakiña da, edo bereztasunezko legea izateagaitik, argi agertzen jaku: "Bolbora edo lerrautsa, piztutako poxpollo bategaz zorro baten sartu ezkero" eztanda egiten dauala, egia ta guzurra, benetako aurkariak diralako.

1.876ko urtean onartu eben espainitarrak konstituzio barri ori, karlisten borroka be urte orretan amaituta. VIIn Karlos bera egon zan azken borroka orren porrota ikusten.

Euskal-Nafar, Katalan eta Galleguen foruak be murriztu ebazan, errigizarte oiek guztiz minduta itziz. Kubako ugartean Zanjon´eko ongundeagaz, bake antzeko bat lortuko eben, ez ebena balio ezer, kubatarrak, laster lortu ebelako euren askatasuna.

1.878-1.879ko urtetan XIIn Alfonsori, legearen etsaiezkoak edo legebagekoak(1) be, gaiztakeri bi egin eutsoezan, min barik urtenda.

1.883ko urtean XIIn Alfonsok, Beljika, Austria, Alemania ta Frantzira joan zan agintezko ikuste bat egitera.

Eta Alemanian, Alsaziako gudari-zaintzako taldearen oorezko koronelaren izenagaz jantzi gura eben, Alfonsok onartu ebana, eta Frantzezari irabazitako lurraldea izan zan lez, oso asarre agertu ziran oneik Alfonsorekin. Parisera joan zanean, ondo baiño obeto erakutsi eutsoena.

1.885eko urtean Alemanak, eurentzat gura ebazan, Itsas-Nausian, espainitarrenak ziran Karolinako ugarteak, eta bion artean borrokan egiteko prest agertuta, urte onetan egin eben espainitar-Aleman ongundeko batzarrean, jabetasuna espainitarren alde geratu arren, Karolinaseko ugarteetan espainitarren aldetik, Alemandarrak gudarako gura eben itsas-kai bat eraikiteko eskubidea galdu eben, bai ta, alemaniaren alde geratu ziran Marsall´eko ugarteak.

1.885eko urte orretan, beazun edo gibel-ur beltz´eko izurri edo elderria(1) zabaldu zan

(1) Legebagekoak edo lege-etsaiezkoak = Àcratas, anarquistas. (2) Beazun edo gibel-ur beltz´eko izurri edo elderria = epidemia de còlera.

Balentziatik, Erdiugarte onen erdirantza zabaltzen asi zana, eta XIIn Alfonso Aranjuezera eldu zanean, gaixoak ikusi gura ebazala esan eban, ta Jauregiko Kanobasek espainitarren gobernuko leen ministruak, Alfonsok euken kutsapenaren arriskuagaitik, ezetza emon arren, XIIn Alfonso iñori jamonik egin barik joan zan gaixo orreik ikustera.

Bertara eldu zanean, eta zaindarizko gudariak sartu zitezen, erregeak, jauregiaren ateak zabaldu egiezala agindu eban.

Eta guzti orreik egin ostean, gaixoak ikustera joan zan, auek lasaitasunean ezar gurean, laguntzak banatuaz batera.

Kanobasen gobernukoak, jakin ebenean erregeak egin ebenagaz, bereala bialdu ebazan orokorrezko kapitaiña, zuzentasunerako ministrua, eta gizartearen jaurlaria, erregea ostera barkamen eskatuz, ostera Madrillera eroan egien. Madrilleko erritarak ori jakin ebenan, bidera urten eutsoen, eta zaldiak gurdiaren lotutasunetik askatuz, eurak eroan eben zalgurdi ori erregeen jauregirarte.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIn Alfonso gaitzepelezko(1) gaixotasunagaz.

1. 41. *XIIn Alfonsoren ezkontza,eta euki zituzen alaba-semeak.*

Birritan ezkondu zan XIIn Alfonso au:

1.878ko urtean Urtarrillaren 23an Maria de las Mercedes de Orleáns, Montpensier´eko dukeen alaba zanagaz, bost illabete barru, sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana(2).

Eta 1.879ko urtean Azillaren 29an Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristinagaz, Austriako Kaisar I Frantzizko Jose´ren bigarren lengusiñagaz.

Iru alaba-seme euki ebazan onegaz:

1.880 jaio ta 1.904ko urtean il zan Merzedes´eko Maria, Asturiaseko printzea zana, espainitar erregearen alaba izateagaitik, eta Bi Sisiliako Borbon´tar Karlosekin (1.870-1.949) ezkondu zana.

1.882ko urtean jaio ta 1.912ko urtean il zan, Maria Teresa, espainitar erregearen alaba. Babierako Fernandogaz ezkondu zana.

1.886ko urtean jaio ta 1.941eko urtean, XIIn Alfonso il da gero jaio zan semea, gero, XIIIn Alfonsoren izenagaz errege izango zana, eta Battenberg´eko Bitoria Eujeniagaz ezkonduko zana.

XIIn Alfonsok, beste seme bi be euki zituzen, Sanz´tar Elena abeslariagaz:

1.880ko urtean jaio ta 1.970ko urtean il zan Alfonso.

Eta 1.880ko urtean jaio ta 1.922ko urtean il zan Fernando.

XIIn Alfonsoren emazte Maria Kristina, 1.902ko urterarte izango zan, XIIIn Alfonso, bere semearen errege ordea.

1. 42. *Kanobas ta Jauregui ´tar Antonio(3).*

1.828ko urtean Otsaillaren 8an, Malagan jaio zan Kanobas ta Jauregi´tar Antonio au, eta 1.897ko urtean Dagonillaren 8an Gipuzkoako Mondragoian il.

(1) Gaitzepelzko gaixotasuna = tuberculosis. (2) Sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana = que murió de tifus = sukar-beltz, o de tuberculosis: gaitzepel. (3) Jáuregui ta Kanobas´tar Antonio = Antonio Cànovas del Castillo.

Kanobas ta Jauregui´tar Antonio au, Kanobas eta Gartzia, Alikanteko Oriuelan jaio zan maisua, eta Jauregiko ta Estebanez´tar Juanaren semea zan.

Juana ama, Jauregiko Juan Jose´en alaba zan, eta Estebanez ta Kalderon´tar Serafín, mauritar idazlearen kuxin edo arreba-lengusiña(1).

Kanobasen ikasketak, aldizkari berrien idazkari lez joan ziran, 17 urte eukezala, "La Joven Malaga"ko aldizkaria bideratzen ebala, 1.845eko urtean, 14 zenbakiraiño argituz.

1.849ko urtean eta beste aladizkari artean, berak Madrilleko astekari "La Patria"ren aldizkarian, antzerketa´ren irizt-emaille, irizte edo irizpidetu egiten ebazan, 1.850eko urtean, bere zuzentasuna artuz.

1.850eko urtean Kanobas´ek, edesti arloan: "Espainitar Edestiaren Maldabera" idatzi eban, bide batez, bere politikako ikasketak artuz, "La Patria"ren zuzendari izan zan Patxeko´tar Joakin Franzizkoren eskutik, onek O´Donnell´en taldean, Ministru batzar edo aolkularitzan, lendakaria izanda.

"La Patria" aldizkariaren zuzendari izan zan Patxeko´tar Joakin Franzizkoren eskutik politikan sartuta, 1.854ko urtean egin zan iraultzaren sortzaillea izanez gaiñ, berak idatzi eban, "Manzanareseko Aldarrikapenaren" agiri ori.

Eta 1.854ko urtean idaz egille lez, edestiaren buruz argitaratu eban, "Espainitarren Maldaberako Edestia"gaz.

Edestilari ta espainitar politikoa zan, eta espainitarren politiko nagusiena XIXko gizaldiaren askeneko erdi zatian.

Bai ta XIIn Alfonsok euki eben aolkularitzazko babesle aundiena, berrikuntzaren politikan, aundiena izan da.

1.854ko urtean Liberal Batuaren kide izanda, konstituziozko auteskunteetan, Malaga aldetik aukeratu eben, eta O´Donnell kendu ebenean, Kadiz´eko erritarren gobernari edo jaurlari egin eben. Berak sortutako, gordetzaille alderdiaren aundikoenean biurtuko zan, eta sei bider izan zan espainitarren gobernuko leen ministrua, Práxedes Mateo Sagaztagaz ministeritza ori aldatuz, biok konstituzioaren espainitar aldekoak izanda, itxurazko eskuin ezkerrezko aurkaritzaren ekintza ori, bion artean ezarri ta eroan ebelako.

Ez Euskalerri, Kataluña ta Galleguarentzat, onen eskubide guztiak zapaldu ebazalako, bai espainitarrentzat baiña, katolikotasunezko aberkuntzaren erlijiozko ta gudalozteen laguntzagaz, kadizeko konstituzioa ezarri dagian alde, geien egin ebana izan zalako.

1.864ko urtean egin eben Kanobas gobernuaren ministrua.


Eta 1.865eko urtean IIn Isabelen erregetzazko denboran, itsas-andi edo itsas-osteko ministrua, leen errepublikea aldarrikatu orduko.

1.868ko matxintasunean, eta Borboien erregetzazko amaieran, Kanobas arduratu zan, IIn Isabelen seme, XIIn Alfonsoren itzulkera edo etorkizunagaz.

1.874ko urtean Kanobasek, Martinez Kanposek egin eban Saguntoko aldarrikapen ostean, eta XIIn Alfonsoren aldarrikapena errege lez, berrikuntzaren arauak antolatu ebazan, bera Sandhurst´eko Aldarrikapenaren egille izanda.

Kanobasek aurreko jaurkintzapenerako, antzoki bat oldoztu eban alderdi bientzako, jauntzupean egiten ebazan maltzurrezko auteskundeakaz, aukera egon dagian Alberdi biren

(1) Kuxin edo arreba-lengusiña = prima hermana de.

1.872ko urtean Kanobaseri atara eutsoen argazkia, eta 1.896ko urtearen oleo margozkia, senatóre-batzarrean dagoena.

jaurkintzak aldizkatu egiezan, bata bestearen aldizketetan, denborak egon zitezen, sortzen ziran gogorrezko tankera orreik lasaitzeko.

Eta orrela eldu zan Kanobas XIIn Alfonsoren erregetzan, zazpi biderrez espainitarren Ministruen Aolkularitzazko lendakari izatera. Katolikuen eskomatarrakaz be, ongundean alkar ibili bear izanda, indar geien euki ebalako.

1.876ko urtean bakeak lortu naian, eta Alonso ta Martineztar Manuelek idatzi eban konstituzioa, Kanobasen, agindupean baieztu zan.

Eta bake ori lortu zan, jaurkintzako arloan, Alderdi ezberdin bi orreik aldizkatu egin ziralako, espainitar jaurkintzaren biltzarrari, irudizko antz demokratiko bat emoteko, erregea buru zala(1).

Dan guzti ori, guzurrezkoa izan zana, espainitarrak ez ziralako onen erdiugarteko erri bakarrak, Euskalerria, Kataluña ta Galizia lakoak bezela, guztiz menpeko joputzan euki dabezelako gaurko egunerarte.

1.876ko urtean Uztaillan 21ean, Jauregui ta Kanobastar Antoniok, lege bat atara eban Euskalerriarentzat, beste lurraldeak lez, diruz ordaindu bear ebazala "urteko sariak", eta "gudalozteentzat mutillak" emon bear ebala. Gure Foru Legeak ezereztu egiten ebena.

1.876ko urtean asi ta 1.899ko urte artean, Bizkaiaren burdiñezko meaztegitan12.000 langilleek, 6.495.000 tonelada atara ebazan, 1.900eko urtetik beratzen asi zana, burdiñ ona amaituten joan zalako.

1.878ko urtean Kanobasek, auteskunde mugatuak agindu ebezanetik, ez eban 1.890eko urterarte zabaldu gizon guztien autarkia, arik eta 1.875ko urtean Jobellar´en lendakari aginduan, eta 1.879ko urtean, Martinez Kanpos´en lendakaritzan, berak bear eben denboratan luzatuz, 1.881eko urtean Sagaztak, bere agintaritzara igon arte.

Kanobas, "Ligas" deitzen ziran estukuntzazko alkartekoen kide izan zan, erbesteko kolonigilletan joputasunaren aldekoak ziranak(2).

1.880ko urtean orrez gaiñ, edo ta lege-kentzaille oien estukuntzazko bultzatien bidetik, espainitar gobernuak, joputasunezkoen askatasuna sinatu bear izan eban. Gero Kubarantza zabaldu zana.

(1) Erregea buru zala = principio de la monarquia parlamentaria. (2) Joputasunaren aldekoak ziranak = partidarios de la esclavitud.

Bere egindupean baieztu zan 1.876ko konstituzioa, eta alegin guztiak egin ebazan, ezker eskumaren aldaketazko politika ori, baketsua izan zedin, demokrazizko itxura antzeko bat emonda, euren joko politikoari(1).

1.885eko urtean eta Pardoko ongundeagaz sendotu zan, euren Joko político ori, XIIn Alfonsoren ilketagaz ez zitezen ostera lengo estabaideetan agertu.

Kanobasen gobernu orreik, aberats edo dirutsuaren azkera edo azalduragaz(2) egon ziran ikututa, salerosketaren legetasunean, Kubaren askatasunezko gudagaz, eta langille ta lege-bagekoakaz(3) euki ebazan gero ta aundiagoko eztabaidarekin, 1.897ko urtean bere seigarren aginduzko aldian, Angiolillo´tar Mitxelek, Mondragoiko Zeztoan il eban arte.

Eta Kanobismoaren eritziari deitzen jako: Kanobasek politika maillan sartu gura eban Ingelesaren matxintasun bageko demokraziari.

Onek, politikaren alderdi biko jaurkintzaren aldikaritzan sinisten eban, bere bata bestearen jaurkintz ezberdiñean, erregearen zentzudun begipeko neurrian jokatu egien.

Kanobasek, espainitarren artean bere eritzizko politikea ezartzeko, beste Alderdi eskumatar katolikuekaz bezela iztundu edo itz emon bear izan eban.


1.885eko urtean, alderdikeri bi orrein legeagaz, Kanobasen Liberal alderdia sortu zan, eta onek lortu be ongunde bidez, Sagaztaren Alderdi liberalagaz, jaurkintzan aldikatzea.

Eta espainitar polikako liberalaren arteko maillan, ta gizon maltzurren artean gaur egunean gogoratzen bada, bera izan zalako maltzurrezko guzur aundi ta lodienak erabilten ebazanak da, orduko eskubidearen zapaltasunezko guzurrak, ondoen egokitzen ebazalako, beti eleiz katoliko ta gudaloztearen laguntzagaz.

Kanobas´en laguntasunezko(4) ministrua izan zan Orobio ta Etxagüe´tar Manuel´ek, bere "Orobio aginduagaz", askatasunezko maisutza edo irakasletza kendu(5) eban: erkijiozko sinismen arloetan, "ziñezkintzaren aurka jokatzen zanean"(6). Kanobas´entzat, Astokeri galanta izan zana, Elizalde ta Perez-Grueso´tar Maria Dolores´ek esaten dauan lez.

1.886ko urtean Urrillaren 7rarte iraun ebena, Joputzaillen ugazabak euren alkartezko zaindaritzak(8) ezereztu arte.

Gorputz eguneko eleiz biran, lege-gabekoak(9) egin eben gaiztakeriagaz, lege-bagekoak, sozialistak eta elkargo zaleak espetxeratu ebaza Montjuitx´eko gazteluan, danak gogorrean oñazkatu(10) ebazanak.



Kanobas´en ilketa Mondragoiren Santa Agedako urastegian.

(1) Erdiugarte onen errigizarteak, gudaloztearen indarragaz ondo menperatuta gero. (2) Azalduragaz = cubrirse de corteza, demostrar, dar a entender, taracear, incrustar, editar publicar etc. (3) Lege-bagekoakaz = anarquistas, àcratas. (4)Laguntasunezko ministrua = ministro de fomento. (5) Askatasunezko maisutza edo irakasletza kendu eban = suprimiò la libertad de càtedra. (6) Ziñeskintzaren aurka jokatzen zanean = si en el àrea religioso, se atentaba contra los dogmatismos o sistema dogmàtico de la fe o creencia catòlica. (7) Joputzaillen ugazabak euki ebazan Alkartezko zaindaritzak ezereztu arte = asta que los propietarios de esclavos, deshicieron sus patronatos. (8) Lege-gabekoagaitik euki eban gaiztakeragaz = con el atentado que tuvo el dia del corpus por parte de los anarquistas. (9) Danak gogortasunez oiñazkatuak izan zirenak = que fueron torturados sin piedad. (10) Danak gogorrean oñazkatguta = que fueron tremendamente torturados.

1.896ko urtean Iraillaren 3an, Kanobasek aurrera begira, lege bat atara eban lege-bageen aurka, atzerako gaiztakeriak be arrapetan ebazanak, danak atzerrira bialtzeko.

1. 43. *Kanobas eta Jauregi´tar Antonio´ren ilketa.*

1.897ko urtean Dagonillaren 8an, Angiolillo´tar Mitxel lege-gabeak il eban Kanobas, Santa Agedako urastegian, "Il Popolo" aldizkariaren barri-emaillearen idazpuruagaz sinatuz egoana Santa Agedako urastegiren liburuan.

Angiolilloaren esanetan, Bartzelonaren Gorputz eguneko gaiztakerien ostean atrapau ebazan lege-gabe asko, gogor oiñazkatuta il ebezalakoen ordea zala adierazpendu eban.

Mateo ta Sagazta´tar Praxedes´ek, Kanobas´en irudia gogoratzen egoala: "Antonio Jauna il ondoren, beste politiko guztien artean ikatu geinke, edo gure artean "ikez" berba egin geinke.

1.901eko urtean XIIIn Alfonsok, de Osma ta Zabalatar Joakina, Antonioren alarguna, Kanobas del Kastilloko dukesa izendatu eban.

Antonio´ren anaia Emilioren semeak, "Kaulak"en izenagaz esagutu zan Antonio argazkilaria be aipatu eben, bai ta Kanobas del Kastillo ta Ballejo´tar Jesus politiko eta auzi-gizona, Jaramako Parakuellosen il ebena.

1.975eko urtean Malagako Udaletxeak, oroitzarri aundi bat egin eutsoen Antonio´ri, eta 2.009ko urtean Udaleko batzar gela aundian xafla bat, Antonioren oroimenez.

Fraga´tar Manuelek, irasi eban Kanobas del Kastilloren iraspena PP´ko lendakaria izan zanean, gordetzailleen politikazko ameslari onena lez bezala, eta demokraziagaz bardinduz, erregetzaren demokrazizko biltzarragaz bateratu edo parekatuz, zeregiñ asko euki ebana Kanobas´en ilketatik, 1.997ko urtean 100 urte bete zituzenean.

2.002ko urtean Azilla´ren 11n, eta Aznar´tar Jose Mª PP´ko lendakaria izan zanean "FAES"en sartu ebena.

Ezilei sinistu gaurko eguneko EUROPA´ren DEMOKRAZIETAN, zelan pillotu leikezan indarrezko politiketan edo ta, gudalozteen keiñadakin, ainbeste lotsagabekeriaren maltzurkerizko GUZUR.

Ez gara konturaten, baiña: "guzur artean igeri gabiltza". Eta gaiñera, "uariñ, urlaster edo ta urbiziaren aurka"(1), "amiltegia noz agertuko dan zain".

1. 44. *Mateo ta Sagasta´tar Praxedes.*

1.825eko urtean, Logroñoko lurraldean, Kameros´eko Torrezillan jaiotako gizona daukagu emen. Sagasta ta Diaz´tar Klemente, eta Eskolar´tar Esperantzak euki eben iru semeetatik bat, Mateo ta Sagasta´tar Praxedes izan zana.

Eta 1.903ko urtean Urtarrillaren 5ean Madrilleko bere etxean il zana.

Fisika Jakintzan, Berezko edo Natur-Jakintzan, edo ta Jakintz Zeatzetako, Erregearen Ikastetxeko kide izan zan.

Kamajuaniren Zaldunezko Taldeen koronela izan zan, eta Aberriko Gudari Taldean, injinieruen batalloi taldearen komandante agintaria.

(1) Eta gaiñera: Uariñ, ur-laster, edo ta Urbiziaren aurka = contra corriente.

Sagasta, aurrekoiezko argin-beltz edo masoia izan zan, eta askeneko edo erakunde onek euki zituen 33ko maillara eldu zan(1).

Logroñoko seme-biotzekoa, eta Ueska ta Malagako seme-ordea izan zan.

1.848ko urtearen Loraillan, eta Narbaez liberal gordetzaillea, gobernutik botateko egin ziran matxinadatan, garrantzi aundia eukan Sagasta politikan sartzeko, Kalbo ta Asensio´tar Pedrorekin lortu eban adiskidetasunaren bidez, ortik aurrera, biak aukeratuak izan ziralako, araudi-batzarrean lege-nagusiak egiteko, Sagasta Zamora aldetik eta Kalbo ta Asensio´tar Pedro, Balladolizen aldetik.

1.849ko urtean Mateo ta Sagasta´tar Praxedes´ek, Madrilleko Bideen Injinieritzazko Eskolatik, Bideen Injinieritza, ur-aska ta Kaien Injinieritzan(2) tituludun zan, eta Zamorako Erri-lana´ren agintaritzatik, Zamora Orenseko bidea egitea agindu eutsoen, Padornelo ta la Kanda´ko tokietatik.

1.852ko urtean, Erdiugarte onen Iparraldeko Balladoliz ta Burgos´artean 121 km. eukazan trenbidea agindu eutsoen egitea.

1.854ko urtean asi zan Sagasta au, politika arloan, Erri-Lanakaz arduratu ebenean, eta an emon eutsoen Matxintasunezko Batzarraren lendakaritza. Urte orretan, Araudi-Batzarretan diputadu izateko aukeratu eban.



Mateo ta Sagasta´tar Praxedes´en irudia.

1.857ko urtean eta 32urte eukazala, irasitako barria zan Erri-Lanen Laguntzaillearen

(1) Mason isatea edo Masonkeria = Ingalaterra ta Eskoziaren Erdi-mendeko, Anaitasunezko langillerietatik sortu zan izkutuzko alkarte bat zan, eta batez be, zuritzaille edo igeltxeruen eta egilleetako artetik sortuz, gaur Izadi guztitik zabalduta dagoena. Ez dauka erriarteko antolamendurik, erriarteko alkarteak bananduta antolatzen diralako, eta ikusten dan lez ez daukielako aurrerantzerako begiramenik. Bere barruan sartzeko baldintzak: Leen gizona izatea da; Jaungoiko Egille´engan **"Izadi onen Etxagin edo Eraikille Nagusi lez" sinistea bigarren; eta elkarteguztiko kideai, orokortasunaren laguntzaille izatea** ezeren aitzaki barik. Egiten daben guztiarentzat, ekanduzko ekimena eskatzen dautse guztiei, eta legeen agindupekoa ta laguntza edo erruki-sarizkoarena izatea. Kide izangura dabenentzat, ainbat ekanduzko ta fisikoren neurri aldiak eukiten dabez. Arauzko egikeran egin bear diran Izkutuzko eta korapillotuzko batzarrak egiten dabez, igeltzeruen gandik artutako, **"ari baten muturrean, berunaren astuntasunezko gauza bategaz lotuta, guk nai doguna erakar indarraren marraduran** ipinteko" (plomada), "eskairu"(escuadra), "gain edo galga" (nivel), "bi-orratzeko gaillua" (compàs), "amantala edo mantala" (mandil), "maillua" (martillo) eta abar. Euren batzar lekuak, (logias) edo masoi-etxe edo masoien lantegiak izaten dira, eta batzar oneik ospatzen diran lekuak, "masoi-batzar" (tenida), eta ospatzeko gela nagusia **"Jauretxe edo Eleiza"(templo)**. (2) Madrilleko Bideen Injinieritzazko Eskolatik, Bideen Injinieritza, ur-askaren eta Kaien Injinieritzan tituluduna zan = que era titulado en injieneria de caminos puerto y canales, por la escuela de ingenieros de caminos de Madrid.

Ikasketarako(1), injieneritzazko irakasle izendatu eban, bederatzi urtetan Topografia ta egilletasunaren arloko ikasketak emonda.

1.857ko urtean Sagasta, La Iberia aldizkarian sartu zan Kalbo´tar Pedro lendakarien eskutik, Pedro bera il zanean, Sagastak Pedroren alargunari eukezan garazki-agiri edo azioak erosita, berak "La Iberia" aldizkari orren zuzentasuna eroateko.

1.858ko urtean, zuzendari nagusien ordezkoa izendatu eben, ikasketaren ta politikazko arloak batera diputadu lez eroateko, 1.863ko urterarte.

1.865eko urtearen ezkeroztik, Prin gudal nagusiagaz batera, matxintasunak antolatzen ibili zan.

1.866ko urtean San Jil´eko gudaltegiaren matxintasunean, Prin´egaz batera ibili zan, IIn Isabel bere erregezko ezar lekutik kentzeko, eta atrapauta epaitu ondoren, iltera zigortu ebenean, Frantzira atzerriratu bear izan eban.

1.868 urtean eta IIn Isabelen aurkako gudari, edo ta sarjentuen "La Gloriosa"ko matxinada ondoren, ostera itzuli arte, eta itzuli ta gero, leen, Kadizeko jaurpidetzagaz arduratu eben, ta Serranoren bein-beiñeko jaurkintzan, jaurpideko ministeritza(2) eroan eban. Emendik aurrerantzean politikako arloan bakarrik ibilita.

1. 45. *Sagastaren denboran, sei urteko aldi demokratikoa deitu zana.*

1.868ko urtean IIn Isabel bere erregezko ezar lekutik kentzen dabenean, emoten jako asiera, demokraziaren sei urteko aldia, deituko zanari.

Serranoren beiñ-beiñeko jaurkintzan, Laterrien gobernuko leen ministrua izendatu eben.

1.871ko urtearen Abenduan, eta Prin il eben ostean, Saboyako I Amadeoren jaurbidean, Konstituzionalaren alderdiko kide egiten dabe, ta Ministruen Aolkularitzazko batzarraren lendakari izendatu.

Eta 1.872ko urtearen Otsaillararte egoten da konstituziozko alderdiaren lendakari lez, Zorrillak bere ertzeko alderdiagaz, egiten eban jaurpideen aurka.

1.874ko urtearen Iraillatik, urte onen azkenerarte egon zan ministru, aolkularitzaren batzarreko lendakari lez Serranoren jaurpidetzan, Borboi leiñua berrezkuratu baiño, ille batzuk ariñago.

1. 46. *1.874ko urtean, Borboien erregetza barriztea.*

1.874ko urtean Borboien erregetza, ostera berrezkuratu zan XIIn Alfonsogaz.

1.880ko urtean Sagastak, Liberalen alderdia irasiko eban, Kanobas ta Jauregi´tar gordetzailleen alderdiagaz txandaka, gaur PP ta PSOE´k egiten daben antzera, alderdi bien jaurkintza lortuko ebena XIXn gizalditik XXn gizartearen leen aldiraiño iraunda. Denbora onetan Sagastak, bost biderrez arduratuko zan, gobernuaren lendakaritzagaz.

1.881-1.883ko urtearen artean Sagastak, ertsaldi edo atxikidurazko legeak argitaratu ebazan Errien arteko espainitar Erri-Langillearen aurka.

1.885eko Urtarrillan Sagasta´k, masoitasunetik alde egiteko erabagiten dau.

(1) Irasitako barria zan Erri-Lanen Laguntzaille eskolaren, injieneritzazko irakasle izendatu eben = le nombraron profesor ingeniero de la recien creada Escuela de Ayudantes de obras Pùblicas. (2) Jaurpideko ministeritza = ministerio de la gobernación.

1.885eko urtean Otsaillaren 18an San Sebastianeko eleizan ezkondu zan, 1.828ko urtean Abenduaren 27an jaio zan Medinaren Ur-gabeko(1) errian Bidal ta Errerotar Anjela Juanagáz, seme bat eta alaba bat eukinda: Mateo-Sagasta ta Bidal´tar Jose, eta Mateo-Sagasta ta Bidal´tar Bitoria Esperanza.

1.885eko urtean Azillaren 24an XIIn Alfonso il zorian egoala, Sagasta liberalaren alderdiko lendakari lez, eta Gazteluko Kanobas´ek gordetzaillearen alderdiko lendakari lez, Pardo´ko ongundea deitukozan agiria sinatu eben, Maria Kristina XIIIn Alfonsogaz aurdun egoala, onen ondorengotasuna balio dagian, XIIn Alfonso il da, XIIIn Alfonso erregea izan zedin.

Sagastak, beste lege batzuk be sinatu ebazan Pardo´ko ongunde onetan: ziñegotziak erabagitzeko gaitasuna; erri-legezko ezkontza, eta beste liberalezko lege batzuk. Bai ta beste erabagi batzuk be, alderdi biak, jaurpidetzan aldikatu egiezen. Kanobas´en aldetik, baldintzazko gai au ipinita: "1.876ko konstituzioaren baldintzak, onartzen ba ziran".

1.885eko urterarte izan zan Sagasta, espainitar lurraren Ekialdeko Masoitarren Jaun Nagusi, arik eta urte onetan masoitarren taldetik alde egiteko oldozten asi.

1.885eko urtean Azillaren 27an Sagastak, beste gobernu bat osotu eban, ongunde orreitan erabagi zan lez, 1.909ko urterarte iraun ebena, nai ta erabagi ori, 1.881eko urtetik egon, edo Sagasta lenengoz igon ebenetik jaurpidearen lendakaritzara, ta berrezkuntzaren aldia asi ebenetik.

1.892ko urtean Sagastak ostera, eta gobernuko lendakaritza artu ondoren, Katalanaren arazoa, Melillako guda, eta Kubako guda´ri, aurre emon bear izan eutsezan.

Eta 1.894ko urtean Azillaren 14an, beren sinismenaren eta erregetzaren sinismeneko babesean, diputaduen batzar nagusian aldarrikatu eban, bere masoi kidetasunetik alde egiten ebala.

1.895eko urtean uko edo itzi eban espainitarren gobernua.

1.897ko urtean Otsaillaren 3an il zan Sagaztaren emaztea, Lorentzo ta Jose deunaren ortu santuan illobiratu ebena.

1.898ko urtean, ta 1.897-1.899ko urte bitartean goernuaren lendakaria izanda, espainitar eta Estatu Batuen artean, Kubako guda deitu zan borrokari, aurre emon bear izan eutson, ta Kuba, Aberats(2) Kai, Filipinas ta Guan´eko kolonizazioak galdu ziranean, Sagasta berak artu eban orren errukaritza.

A ta guzti, 1.901eko urtean ostera ipini eben gobernuaren lendakari lez, 1.902ko urtean gaixorik baiña, itzi bear izan eban gobernu orren lendakaritza ori.

1.903ko urtean Urtarrillaren 5ean, eta 77 urte eukazanean il zan Madrilleko San Jeronimoko Bidekaren 53ko zenbakian eukan bere etxean, birikerien gaixotasunagaz, eta Madrilleko Andiki Gizon´en illetxe edo arrillobian illobiratu eban.

Berak eta bere borondatez aginduta, ez eban gura andikien izen bururik edo olangorik ezer, eta diru barik, eskale edo beardun bat lez il zan.

2. *Euskalerriaren Edestiari ostera oratuz.*

2.1. *11n Atal onetan, Euskalerriko edestien autueta, edaste edo kondaira.*

(1) Medinaren Ur-gabeko errian = en el pueblo de Medina de Rioseco. (2) Aberats Kai = Puerto Rico.

Kalte geiago be sortuko jakiezan karlistari emendik aurrera:

"Mendiri ta Perularen arteko eztabaidarekin".

"Kabrera ta beste gudal nagusiak egin eben saiskerigaitik"(1).

"Espainiar erregetzazko barrizkuntzarekin VIIn Karloseri egin eutsoen kalteagaz".

"Ziraukiko Lakalletar Tirso, "Urgun"(2) liberalen iltzaileak egiten ebazanagaitik, eta Mendiri gudal nagusi karlistak, egiten ebazan mendekuen bidetik, Europa osoan eukezan oiartzunezko garrantziakaz:

"Karlista gudal nagusiak, gero ta geiago indar barik aurkezten ziran bidetik, peninsula onen erdiko eta sortaldeko lurraldeetatatik euki ebazan berakadak, euskal etxekoak kikildu, edo ta biozkatu egiten ebazan".

"Liberalak, Iruñako bidea garbi gura eben: "karlistai lagundu, edo ta salatzen ez ebenak egiten, Nafartar erritarrai diru-zigor galantakaz, nekazariai abereak kendu, eta mendiko zugaitz guztiak ebagiz gain, soloko mozkin guztiak erre egiteko.

"Eta atzerrira ainbat euskal seme bialduz, euren legeakaz baserri ta erritarrai euken guztia kendu ondoren, baserri geienak erre egiten ebazan, eta zigor aundiko erregarri, ta bai ta diru zigorraren gaiñetik, erritarrak lerrotu egiten ebazan ostean, eurak esaten ebenak lerroetatik atara ta tiroz il egiten abazan, eta besteak, etxetik kanporatuz gain, euren ameriketako kolonietara atzerriratu egiten ebazan, yopu(3) lez bialduta".

Oso latza izan bear zan egin ebena, gure baserritarrentzat.

"Eta gaiñera egiten ebena, katolikotasunean aberkidetzeko erlijioak emoten eutsoen jabetasunezko eskubideagaz egiten eban. Goiko Jaungoikuak danori emonda, eurak be daukien BAITA, katolikoarena izan balitz bezela, arrazoia eukiko ba-leukien lez, egiten dabezelako gauza orreik".

"Ba, kontuan euki: Goiko Jaungoikuak, Bere Irasletasunezko Zerutik, gure ekanduzko ardurapean ipini ebanean Izadiaren sorraldi au, batera, gai-bereztu Eutsozanean guk erabidez ibili bear doguzan lege guztiak, euren amiltegia erakutziz, zai daukaguzela".

1.875eko urtean Uztaillaren 27an Lizarraga, Dorregarai eta Saballs karlisten gudal nagusiak, artegatuta egon ziran, Martinez Kanpos espainiar liberalaren gudal nagusiak Kataluñan, karlisten garrantzizko tokia izan zan Seo de Urjel bere Eleiz Nagusi ta eukezan iru gazteluakin, artu gurean egoalako.

Eta VIIn Karloseri itanduta zer egin bear eben, onek, erria babestu egiela eukezan guda indar guztiekaz agindu eutsoen, eta Lizarragaren arduratan Seo de Urjelen babesa geratuz, antolatu ta sendotzen asi zan bere ingurua, Dorregarai eta Saballs´en guda indarrari denbora emonda euren gudalozteak antolatu egiezen, gero berari laguntzeko.

1.875eko urtean Uztaillaren 29an karlistek, Gipuzkoaren giltza izan zan Arabako Billarrealen, Arlaban ondoan txokoratuta egon ziran lekutik, babeseko borroka andia egin ondoren, alde egin bear izan eban.

1.875eko urtean Dagonillaren 1erako asi zan Martinez Kanpos liberalaren gudal nagusia, Kataluñaren Leridako lurraldean, Seo de Urjel inguratzen, eraso oneri karlistek, erantzun oso gogorrak eginda.

Eta urrengo egunetako borrokak, lar gogorrak izanda, Kastelluri, liberalaren eskuetan

(1) Saiskeria = traición. (2) "Urgun", "Urgunak" = cojo, el cojo, "El Cojo de Zirauki". (3) Yopu lez bialduta = enviados como esclavos.

geratuta, etenbako igesaldiak egon ziran egunero karlisten lerroetatik, liberalaren lerroetara, Lizarragari arazo asko sortuz.

Gaiñera karlistentzat, edateko uraren ornitzeak(1) moztuta geratu ziran, eta baleiteke, urak errekatik artzea oso arrizkukoa biurtu jakiela, eukezan babes lekuetan atxilotu lez geratu ziralako, leergaillu ta tiroiñ gitxigaz.

Kataluñako borroka orreitan, lendabizikoa da emen jakitea, leergailluaren ezean, karlisten egoerea, oso larria izan bear zala, liberalak botaten ebezan leergailluen suziri edo leer-ziriak(2) arrapatu, ta liberalai ostera botateko, karlisten agintariak, euren gudariai aginduta, erriel-biko ordaiñ truke.

1.875eko urtean Dagonillaren 2an, Albareztar Rafael karlista gudal nagusiak, Aroko erria artu gura eban, Ebro ibaian geratu ebazan liberalak baiña, ta La Bastidatik aurreruntz, joan ezinean geratu zan Rafael.

1.875eko urtean Dagonillaren 26an Lizarragak sinatu eban, Seo de Urjel´aren menpeko itun edo elkargoa.

1.875eko urtean Iraillaren 5erako, Kataluña eta peninsula onen erdiko lurraldeetan guda amaituta egon zan, eta izkilluak liberalaren eskuetan ez ebenak itxi gura, Dorregarai karlista gudal nagusiagaz, Nafarroako lurraldeetara bideratu ziran.

Eta itzelezko edurtzaren artetik, karlistek ta liberalak, Euskalerriko Nafar lurraldeetara, bideratzen dira euren guda tresneri guztiekaz, espainitar liberalen gudalozteak, jaurpidearen leen ministrua izan zan, Jobellar gudal nagusiak bideratuta.

Mogimendu guzti onen bidetik, espainitar gudu indarrak, gudalozte bitan antolatzen dira, eskuin aldekoak Martinez Kanpos gudal nagusiak bideratzen ebena, bere zeregiñ bakarra, Nafarroako luraldeak menperatzea zana, eta ezker aldeko gudaloztea Kesada gudal nagusiaren agindupean, Gipuzkoa ta Bizkaiaren lurraldeak menperatzeko.

Bien arteko gudalozte onein indar kopurua, 120.000 gudariena izan zan.

Eskumako gudaloztea ostera, bi taldetan banatzen dabe, bata, Blanko gudal nagusiak bideratzen ebena, eta bestea Riberatar primok bideratzen ebena.

Ezker aldekoa, Loma, Moriones, eta Etxebarriaren agindupean banandu egin ebezanak.

Karlisten aldetik botaten eban edurtzeagaz, belañu edo ur-laiño eta egoten ziran lei beltzakaz, euren lurraren senidetasunezko beroan, lur ebagi edo lubakitan babestuta(3), ez eben euki 33.000 gudari baiño besterik, eta orreik be, euki ba-zituzen.

Liberalak, karlistek gudarako euki eben antolamendu makal orregaz eta politikaren arloetako egoera txarragaitik, ekanduzko lotsean edo begirunezko arloan ezeri begitu barik, ikaragarrizko erasoak egiten eutsezan gure politiku, Foru ta Euskalerriaren jaurkintzazko antolamenduan ibilten ziranai.

Eta nai euskaldun lurraldeko errigizartearen eritzi ezberdin artean, eskuma edo liberalak izan, edo ta eskuma ezker aldeko karlista izan ziran guztiei, espainitar guda agintari maltzur orreik, euskaldunak espainitar biurtzeko alegiñ gogorretan ibili ziran, eta euskaldunak zigortu gurean ibilita, euskaldun guztiak, zorro baten batera sartzen alegintzen ziralako, errigizarteak euki eben izatasunezko ezberdintasunaren gaiñetik, euskaldunak

(1) Ornitzeak = aportación, abastecimiento, acciòn de suministrar. (2) Su-ziri edo Eskuko granadak edo su-ziriko leer gailluak = cohetes con carga explosiva o algo parecido a las granadas de mano. (3) Lur-ebagi edo Lubakitan babestuta = protegidos en las trincheras, fosas, o zanjas.

liberal guda agintari orreri, nai Foralista, karlista edo ta liberal izan arren, beti erantzun eutsoen, "eurak, euskaldunak zirala".

1.875eko urtean Iraillaren 9an Kesadatar Jenaro, espainitar gobernuaren ordezkoa zanak, Lopez de Goikoetxeari idazten dautso: Karlisten egoera oso larria zala, ta gudarako tresneri ezean egon ziran lez, aurrera egiela eraso gogorrean.

Eta VIIn Karlosek, Dorregarai, Olibar, Saballs, Morera, Mendiri eta Sangarreneko Baroia auzipetu egiten dauz, borrokatan ainbeste porrot egiteagaitik.

1.875eko urtean Urrillaren 10ean, Martorelltar Juan, liberalaren koronel ordezko agindupean egoanak, Lunbierreko Napar erria erasotu eban, eta naita liberalak ainbat aurkako ekintza egin garrantzizko lekua izan zalako, errigaiñean dagon mendiko Trinidade baselisa ta erriagaz geratu ziran karlistak.

Martorellen Liberalak, naita gero, Reina gudal nagusiaren laguntzagaz garrantzizko tokia izan zalako erasotzen ekin, Perula karlisten gudal nagusia agertuta, itzelezko astiñaldia emon eutsen liberalai, Lunbier inguratzen dabezan, Ripodas, Domeño, eta Arbonieseko mendi guztiak artuta, Perula karlisten gudal nagusiari ekintza orregaitik 40.000 erleko saria emon eutsoen, San Fernandoren dedudomiñagaz(1) xingolatu.

Urrengoko illean liberalak berrezkuratu ebena.

2. 2. ***Ekintza onen oartxo bat.***

Argi ikusten dogu emen ostera, karlistak, euren espainitar lur legearen, ta erreiñuaren *jabetasunagaitik borrokatzen ba zirala, Euskaldun, Katalan, eta Galiziarrak, euren demokrazizko Lur ta Foru Legeagaitik borrokatzen zirala.*

Eta borrokan liberalak baiño geiago izan arren, liberalak Europaren laguntzagaz, lasai ibilten zirala, euren garaipenak ez ziralako borroka sutsuetatik agertuko, karlistek gudarako *bear eben tresneri ta gudarien bir-lengoratzearen andameneko(2) bidetik baiño, liberalak* gura eben tresneri ta gizontza geiago euki ebelako.

Erabagi orreik izan ziran Europaren liberal menperatzailleak, edo katolikotasunean batzangotzeko aberkoi konstituzionalistak artu ebena, Europako errigizarteak Jainkoaren Lege bidez euki eben eskubide guztien gaiñetik.

Eta katoliko liberal orreik, JAINKOA Ludi oneri erperatu Eutsozan Lege guztiak basterreratu ebenetik, lapurketan asteko, gaur porrot andiak egiten asi dira eurak ipini ebezan "Diruzko Araubideak", lapurretazko ordezkaritza baten ezin dalako iñungo lege berezirik bitartean sartu, menperatzaillearenak izan ezik.

Orregaitik JAUNGOIKUA, Berak irasitako Ludi oneri, Bere legeakaz erperatuta bereztu Euskun lez, ez dau lekurik izten beste jainko batentzat, eta or ibilten gara mustur ta buruak apurtzen, alperreko alegiñ orreitan.

Begitu mundu onetan non dagon, edo zerekin dagon irasita "gezurrezko jainkoa" edo "Urrezko Zekor" ori.

Dirua ba, ez ote da gure ardurazko ordezkaritzan, Ekanduzko irudiaaren serbitzurako, tresneri bat ?.

(1) San Fernandoren dedu-domiñagaz xingolatuta = condecorado con la medalla de San Fernando. (2) Ondamenetik baiño = sino que de la ruina por falta de recursos materiales y hombres.

Begitu non geratzen dira gizon/emakume batzuen "De la Misiòn de España en lo Universal".

Zelango agindua da ori, edo ta "nork aginduta".

Ain menperatuta geratu ote dira euren Arimako Baitan: "Gure arteko eginkizunetan eta jainkoaren legeari begira: "lotsagizuna, lotsati izan, adeitasuna, begirunea edo ta gizonen larderiak" zer diran ez jakiteko ?.

Egoera oneitan ez da esaten ba: *"ITZALI ARGIA, ETA GUAZEN EMENDIK".*

1.875eko urtean Urrillaren 17an Kesada liberalaren gudal nagusia Madrilletik etorrita, gudaloztearen agintaritza ostera artzeko, karlistek, Payuetan ibili ziran egiten gaztelua artu ta 14 gudari atxilotu ebezan, eta Labastida artuta, Toloño ta Urizarreko mendietatik zabaldu ziran, Urizaarreko bizkar gaiñean, San Leon´eko gaztelua artuta.

Perulak jakin ebenean Urizarreko alderdi ura galdu zala, ia galdutzat emon eban Arabako lurraldea, nai ta gero, ainbat denborako ekintza gogorrak egin.

1.875eko urtean Azaroaren 16an VIIn Karlosek, Tristani´tar Rafael karlisten gudal nagusiari, Kataluñaren aginduteko almen guztiak emonda, onek Boixeko Kastelfolliten euki eben orokorrezko gudaltegitik, katalan gudari guztiari aldarrikapen sutsu bategaz, ostera dei eutsen, borrokan asteko.

Eta Tristanegaz batera, bardiñ egin bear izan eben Toledo ta Erregearen Urian(1) edo peninsula onen erdian, Marko, Segarra, Boet, Gamundi ta Kukala karlista gudal nagusiakaz.

1.875eko Azaroaren 19an Martinez Kanpos liberalaren gudal nagusiaren aldetik, amaitu lez emoten dau Kataluniako guda, atxilotuta egon ziran karlistak aske ipinita, naita karlisten gudal nagusi batzuk, borrokeagaz aurrera gura egin, Kastells Frantzira joanda.

1.875eko urtean Azaroaren 24an karlistek, San Kristobaleko gaztelua galtzen dabe, eta liberalak bota egin ebazalako, Iruñako ingurutasunak indarra galtzen asita, karlistek, Orikain, Alzuza, ta Miraballes, Iruñaren inguruko mendietatik, Iruña bonbaz erasotu eben.

Araba galduta, Nafarroak ez eban euki etorkizun obeagorik, eta Belaskotar Ladislao Arabako Aldundiaren orokorrezko arduradunak, itxaropen ori ikusita, Foruen ezereztutea gura eban baztartu, eta karlisten gudal nagusi batzuekin ibili zan alegiñak egiten, karlisten lerroetan gudariak matxinatu egiezen, baiña 1.838ko urtean Muñagorriri sortu jakon antzera, alperrikoak biurtu ziran Ladislaoren alegiñak.

1.875eko urtean Azaroaren 26an karlistek Mutrikun, London itxasontzitik lurreratu zituzen 3.000.0000 tiroiñ, 100.000 azta edo libera berun, eta 50.000 gatzerre libera edo gatzuker(2).

1.875ean Abenduaren 31n karlistek:

Orokorrezko Kapitain jeneral bat.

Orokorrezko Kapitan jeneral ordezko bi.

7 zelaiko mariskal.

35 jeneral ordezkoak.

(1) Erregearen Urian = Ciudad Real. (2) Gatzerre edo gatzuker = salitre.

62 koronel.
92 koronel ordezko.
2.063 komandante-alferez bitartekoak.
2.137 sarjentu.
Eta guztiz 32.976 gudari euki zituzen.
1.769 zaldi.
680 mando.
80 mendiko kañoiak.
Eta 29 enparantzaren zelaiko kañoi,danak ezberdiñak ziranak euren izaerako neurrian.
Onek izan ziran karlistek euki ebezan gizon-tresneriak, ta onekin aurre egin ebenakaz, gitxiendiz, eurak baiño lau bider aundiagoko indarrak ziranai.

2. 3. *Karlistadaren bigarren edo irugarrengo gudaren amaiera.*

1.875ko urtearen Abenduan Perulak, porrot egin eban karlisten gaudal nagusi lez, eta Mendiri ta Dorregarai atzerriratu egiten dauz azpikerizko saldukeria(1) egitea gaitik, eta Alfonso bere anaia izendatzen dau, karlisten gudal nagusi lez.

1.875eko urtean Abenduaren 22an VIIn Karlosek, Segarratar Tomas karlista gudal nagusiari agintzen dautso Kataluña, Toledo, ta Erregearen Uriko zaletasunak ostera berrezkuratu egiezan, karlistaren alde.

Eta 1.875eko urtean Abenduaren 27an, espainitarren zigortasunezko keiñadaren bidetik etorten zan sarraskiko olatuetatik alde egiteko, edo ta oldozten zan ondamenaren aurka, Gazteizen, Liberal Fuerista Batzar bat sortu zan, Bizkaitik Uribetar Eusebio, Gipuzkoatik Jaunsorotar Domingo, eta Arabatik Urigoitiatar Serafin ipinita ordezkari nagusi lez.

Erakunde onen eginkizuna, etorten zan liberal gudaloztearen zarraskiko olatu edo ondamenari, karlisten indarrak inguratu gurean, sasi-gudako ekintzakaz aurre egitea zan mendi ta itsas baztarretan, eurak euki eben indar ta eragipen guztiagaz.

1.876ko urtearen Urtarrilla osoan karlistek, ezin eutsoen eutsi liberalen gudalozteko indarrari, eta gitxiago, eurak ekarten eben antolamendu barriakaz, geienetan, karlistak garaille urten arren, denbora orreitan ez ebelako indar naikorik euki, eurak baiño lau bider geiago ziran gudari ta gudako trenerietan.

1.876ko urtean Urtarrillaren 19an, Jobellar liberalaren gudal nagusiak, 200.000 gudari euki ebazan bere agindupean, XIIn Alfonso Madrilleko gortetik urtenda, Zaragozatik Tudelara joan zanean Iparraldeko liberal gudari indarrak bideratzeko, Peraltan 40.000 gudariai, ikustaldia eginda.

1.876ko urtean Urtarrillaren 21ean Morionesek, Donosti askatzeko Getarin lurreratuta, Garate mendiaren goi aldia menderatu eban, eta Mendizorrotzeko zulogunetara eldu zanean bere gudariakaz, karlistak gogor zigortuta, uxatu edo aizatu egin ebezan.

Eta karlistek, Donosti leergailluekin bonbaketan iraunda, alango leergaillu bategaz Bizkarrondo ta Ureñatar Indalezio ("BILINTX") olerkari andia zana, il eben.

Borroka au izango zan Gipuzkoaren lurraldeetan, karlisten askeneko garaipena.

Martinez Kanposek Elizondotik, ia ezin eban aurrera egin karlistek egin eutsen jazargo

(1) Azpikerizko saldukeria = alta traiciòn.

edo mukertasunagaitik(1), eta karlisten geiago ezin eginaren ondorengo bidetik, asiko zan karlistek euki ebezan gudaloztearen ondamen edo ezereztasuna.

1.876ko urtean Urtarrillaren 28an espainitar liberalen gudalozteak, karlisten indarrak itsas baztarrean txokoratzeko asmoagaz, erasotzen azten dira, eta liberalak Balmaseda artu eban.

Martinez Kanposek, Riberatar Primo´ri aolkatuta, Lizarra artu egien, bera, Baztanetik Donostira joaten da, karlistek, Uria bonbakaz etsaimentzeko Aiako mendikateetatik Igeldo mendiraño lerrotuta euki ebazan kañoi illadakaz, ia apurtzen ba ebazan.

Kesada liberal nagusia bere aldetik, Bizkaiko Ego aldearen Otxandiotik, eta Urkiolako bidea artuz, Durangora joateko itxaropenean asten da, eta Loma gudal nagusia bitartean, Kadaguako bidetik, Bilborantza joaten da.

Antolakuntza oneikaz, azken borroka amorratuak asten dira, eta benetan odoljariozko borrokak izan zirela, ibarretatik zear azkeneko etxe, toki, edo lur zatiak babesten, il edo ta biziaren itxaropenezko borrokak izan zirelako.

1.876ko urtean Urtarrillaren 30ean Riberatar Primo liberalaren gudal nagusiak, Oteizako Santa Barbararen gaztelua artu eban.

1.876ko urtearen Urtarrilla onetan Perula ta Montoya, karlisten gudal nagusi oneik euren artean berbetan, galdutzat emoten eban guda, Montoyak Perulari erantzunda: "guda ez bazan amaituten, barne edo baitazko pekatu andiak izango zirela, ortik aurrera botako ziran odoltanta bakotzaren izurpenak".

1.876ko urtean Otsaillaren 1ean Kesada liberalaren gudal nagusia, Bilbon sartzen da.

1.876ko urtean Otsaillren 1ean XIIn Alfonsok ikusita, euren liberal indarrak azkar ibili zirala Bizkaitik, naita karlista eurak be gudaloztearen antolaketatan ibili, urrutidazkiñ bidez, liberalaren gudal nagusiari esaten dautso, ia ez bazan ordua izan, bera, gudalozteen aurrean joateko, gudarien biotzak berotzeko eta arnas ori emonda Otsaillaren lenengo 15 egunetan gudaren amaiera lortzeko.

Eta Kesadak, oraindiño ez zala une egokiena, erantzun eutson.

1.876ko Urtarrilla ta Otsaillaren ille bi onein borrokak, oso latzak izan ziran, alde bietatik il asko egon ziralako, batez be, liberalaren aldetik, eta euskaldunak geienetan garaille urten arren, argi ikusten zan, liberal indarrak, zapatzaillezko azken alegiñetan ibili zirala.

1.876ko urtean Otsaillaren 5ean liberalak, Durango ta Zornotzan sartzen dira, eta Karasa karlisten gudal nagusiak, Muniketasera joanda, Etxebarriri, Zugaztietatik urten egiela Gernika, Murgia, ta Arratiko guda taldeakaz, Abadiñora joateko agindu eutson, gabeko ordu batetan urtenda bete egin ebana, Kabero liberalaren gudal nagusia euren atzean ibili zalako.

Ziria(2) liberalaren gudari taldea, Zornotzan egon ziran karlistei, tirokaldi gogor bat egin eutsoen, eta karlistek jakinda liberalak Berrizen egon zirala, albo bietan dagozan Gaztelumendi ta Santa Kurtz mendietara joanda, gabeko zortzirakarte ibili ziran borrokan, liberalaren aldetik ia 200 eroriak, zauritu ta illaren artean eukinda, karlistek gero Elorriora joanda, Karasa karlisten gudal nagusiagaz alkartzeko.

(1) Jazargo edo mukertasunagaitik = resistencia, por la resistencia que le ofrecieron los carlistas. (2) Ziria = la brigada ciria.

Zornotzako borroka orretan, Floran koronela eta Peirona koronel ordezkoen liberalaren indarretatik: 28 gudari il, 13 gudal agintari zaurituak, eta 142 gudari zaurituak egon ziran.

1.876ko urtean Otsaillako 10ean Bizkaiko karlistek de Grande ta Gonzaleztar Leonzio gaztea izendatu eben gudaloztearen agintari nagusi lez, eta 11n, bere indarrakaz, Elorrio, Elgeta, Mondragon, Bergara, Mallabia ta Zalduako erriekaz jabetu zan, Eskiagaren Markiñako taldea, Gipuzkoan egoala, bertako gudal nagusiaren agindupean.

1.876ko urtean Otsaillaren 13an Kesada liberalaren gudal nagusiak, Elgeta artzen dau, gudalosteak Bergara, Izua eta Azkoititik, Eibar, Plasensia, eta Ermun sartuta, izkilluaren lantegiakaz jabetzeko, Araba ta Bizkaian egon ziran karlisten gudalozteak, arrizku aundian geratuz, Gipuzkoa ta Nafarroako gudaloztekaz bananduta geratu zitezen.

Une onetan Bizkaitar karlistak, ia lurralde osoa galduta euki eben, euren lerroetatik ainbat gudarien igeslari eukinda, liberalak, iñurriek bezala, inguru guztietatik zabalduta egon ziralako.

1.876ko urtean Otsaillaren 15ean, espainiarren jaurgo edo konstituzio barria aldarrikatu zan, 1.931garren urteraiño iraungo ebana.

1.876ko urtean Otsaillaren 17an karlistak atzeraka asita, Riberatar Primo liberalaren gudal nagusiak, Lizarra artu gura dau, eta Jurramendi artu ebanean, bereala Oteiza, Mañeruko Santa Barbara mendia, ta Artazugaz jabetuta, Lizarraren jabetasuna bereala artuko eban.

1.876ko urtean Otsaillaren 17an, karlisten gudal nagusiak Beasaiñen batuta, barriz antolatu gure dabez eukezan indarrak, eta ez ziralako bat etorri, edo ta elkar aditu, espainitar parkamena gura ez ebenakaz batera, orokorrezko atzerakadan asi ziran.

1.876ko urtean Otsailla 19an Riberatar Primo liberalaren gudal nagusiak, Jurramendi ta bere inguruak menperatuta euki ondoren, Lizarra be artu eban, Berruetetar Franzizko, Zorrillatar Justo, Saldiastar Florenzio, Garzia Errerostar Migel, Barandiarantar Jose Antonio, Ibarluzeatar Bentura, ta Dankauestar Matiasek siñatuta, etsaimenduen agiria.

Egun onetan XIIn Alfonso arro arro, Donostian sartu zan.

1.876ko urtean Otsaillaren 19an Larunbe gudal nagusiak, Atxuriko(1) mendietan geratzen ziran karlistekin, ekin eutson borrokan il arte. Eta urrengo 20garren egunean agertu zan askenez "El Cuartel Real" karlisten aldizkaria.

1.876ko urtean Otsaillaren 22an XIIn Alfonso espainitarren erregeak, Donostian egin eban bere sarrera, 24an Tolosara itzulita.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an Lizarra, karlisten irudi edo karlista gudarien itxurapenezko irudizkoa zalako, espainitarren liberal gudalozteak erasota, odolkerizko(2) sarraski gogorrenak egin eutsoezan, eta geiagorik ez eutsen egin, ezin ebelako.

Karlistek euki eben etsaimende orrein bitartez: VIIn Karlos, 26an Burgetera, eta 27an Balkarlos´etik igesean Tolosara joaten da, baiña Uri au be, eraso gogor baten bidez inguratuta, ta urrengo egunean etsaimentzeko egon zalako, bertan sartu ezinik, Baztaneko ibarrera joan zan, eta gero Frantzira iges egin eban, ostera itzuliko zalaren ezkeintzagaz.

Diru etxeak, 16 milloi erleko kopurua emon eutsoen, Bilbo babesten egon ziran liberal gudaloztekoari, ezeren irabazki edo ordea barik.

(1) Atxuri = "peña plata". (2) Odolkeri = ensañamiento, encarnizamiento. Sarraski = estrago, destrucción, carniceria, degollina.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean, Bizkaian, oraindiño irauten eban borrokea karlisten porrota sortu arte, eta beragaz gure Foruen ezereztasuna.

Oraiñarteko bitarte labur onetan, gauza bi ikusten doguz emen, bata: Konstituzioaren jaurgo ori, noiz nola edo ta euren naierara ibili ebela egokitzen, arrazoidun biurtzeko, eta gure gaurko egunetan, eurak orduko denboretan egiten ebena, legezkoa zala esateko.

Baiña, nun edo zelan egongo ote ziran besteak, jaurgo ori arrazoizkoa biurtzeko ?.

Guzurra, beti izando da guzurra, nai EGI´etan biurtzen ibili.

Guzurra, Egiagaz naastuteko: Ura ta Orioa lez dira.

Orrela izanda, izkilluaren indarkeriak, arrazoizkoak ote dira ?.

Bestea: Lizarra, karlisten eskutik kendu ebenean, amaitu zan bigarren edo irugarrengo karlisten guda, espainitarren XIIn Alfonso erregea, garaitsuki Donostin sartuta.

1.876ko urtean Otsaillaren 28an VIIn Karlosek, Balkarlosen, gudaloztearen 10.000 gudariei ikustaldia egin eta gero, Nafarroako Arnegitik aldatzen dauz Auñamendiko mugak ostera itzultzearen aldarrikapeneko itxaropenagaz, Gaztelako 6 talde, Asturias eta Kantaurikoak 4 talde, Balentziako 3 talde, eta zaintzale zaldun talde bategaz, Plasenziako 6 kañoi-sail, Usarezak eta bidearen erakusleakaz joan zan Frantziko euskal lurretara Arnegiko zubitik.

Eta Nafartar gudari taldeak, Orbaizeta eta Burgetetik aldatzen dabez mugako mendiak.

Egun orretan XIIn Alfonso espainitarren erregea, Iruñako Urian sartzen da bigarrenez.

1.876ko urtean Epaillaren 1ean VIIn Karlosek Baionatik, eskutitz bat bialdu eutson Segarratar Tomaseri, esaten: ezereztu egiezala ostera borrokan asteko asmoak, Kataluñan egin ebazan antola guztiak, aurrerantzean ez zalako egon ezeren etorkizunik Erdiugarte onetan, Iparraldeko gudalozteak etsaimendu ziralako.

Eta Segarratar Tomasek itzarmenduta eukezan gudariekin, Frantzira aldatu zan.

Ekintza onegaz, amaitu ziran beste aurkako guda guztiak.

Eta VIIn Karlosek amaitzeko, eskutitz bi bialdu ebazan, bat, espainitar erritarrai, ta bestea, beren gudariai.

1.876ko urtean Epaillaren 2an Lapoblaziñoko gaztelua, jeneral ordezko Araoz´ek etsaimendu zanean, bere bost gudal agintari, 76 gudari, 8ko kañoi bat, osagille bat eta apaizakin, amaitu ziran karlisten izena eroaten ebezanak espainitarren ondoriozko guda onetan, edo ta amaitu bear izan eban.

XIIn Alfonso Iruñatik asita, Gares, Lizarra, Los Arkos, eta Logroñotik Gazteizera joan zan, eta Durangotik Bilbaora txalo ugari artean.

1.876an Epaillaren 13an XIIn Alfonso Bilbotik Portugaletera joan zan, eta inguru ori ikusita gero, Somorrostron aldarrikapen gogor bat egin eban gure foruen aurka, gudalozte irabazleari berba onek esanda:

"Fundada por vuestro heroìsmo la unidad constitucional de España, hasta las màs remotas generaciones llegaràn los frutos y las bendiciones de vuestra victòria".

Berak: "conquistar la paz" egin ebala esaten eban, baiña zelan lortuko ote eban bakerik, ezpata indartsu ori, eragin gogorrakaz, gure Foru edo gure demokrazizko legeen buruak ebagitzeko baiño, ez ba eban ibili ?.

Or ez zan agertzen bakerik, bildurra baiño, berezko errigizarteak denbora bear izanda ostera eskubidearen arrazoiak euren lekuetan ezartzeko, edestiak erakusten dauskun lez.

Europan, bakeak lortu gura izan ezkero, eskubidearen arrazoiak banandu bear dira euren nortasunezko lekuetan, eta gai-mundu onetan batzango batera eldu bear bagara, bertan bizi garen ardurazkoa dalako, ez bakarrik bakotzaren eskubideak ondo zainduta ulermen orreitara eldu bear gara, bai Izadi onek bereztuta daukan gai´arenak be, beste biderik ez dagoelako, ondo antolatuz, zentzu aundian eta bakez bizi gindezan, Goiko Jaungoiko Iraslearen Lege guztiak ondo ordezkatuz.

XIIn Alfonso Somorrostrotik Madrillerantza joan zanean, gauza baragarri batzuk sortu ziran bidean, eta geien Santanderretik aldatu zanean, oneik konturatu barik, edo ta konturatuta, baiña barregarrizko ekintza zikin baten:

Andrak bulerretan, aterkiñetan, umien jantzietan, eta abar.

Musikari edo soiñu-jotzailleak euren tresneri edo ereskiñetan.

Gizonak kapela, ginbail edo ta txapel eta lebitetan.

Poxpollo ontzietan.

Nai aizagalluetan(1).

Txakurrak eztarri edo ta lepoko, ustai edo lepustaietan.

Ormatan, etxeetan, eskegitako ikurriñetan, kaleko argietan, dendako ateetan ta erakus tokietan.

Baita ikusi leiken leku guztietan, ipinten eben iragarki au: "ABAJO LOS FUEROS".

Lotsagabekerizko zomorroen(2) jai bat izan zana, "Euskalerriaren Legezko Izatasunari eta bere seme-alabari" bortizko indarrean eta ain gorrotozko berotasunekin, ezinbesteko amurrua erakutsita.

Eta alderantziz, Foruen alde jokatzen ebanai edo ta Foruen babesean zeozer erakusten ebanai, zigor andi ostean, oial txabola baten sartu eta jende gabeko basamortuetara bialdu, bere izatasunezko aberriaren alde urten edo ta beren izena aldarrikatzen ebelako.

Alango amurrua erakutsi eben liberalaren alde jokatzen ebenak.

Eta gaur ?.

Ikusten dogunagaitik, ez da agertzen besterik, naita mozorrotu barik egin da be.

Ala, eurak legez ezin dabena lortu, gu, euren jabetasunezkoak lez agertu gindezan, azagariak egiten dauan antzera, lotsati lez esanda, lortuko ote dabe ?.

Dana dala, espainitarren gobernuak gaur lez, ta euren demokrazizko legearekin(?), eurak alperrak izanez gain, edo egiari bildur direzala, ez dabe, eta ez eben izten ezer egin edo ta gure, Foruen alde ezer esaten.

Bai alderantziz saritu, gure Foruko Legearen aurka ezeren lotsabarik jokatzen ebenai.

Zer ote da ori: Amurrua ?, Gorrotoa ?, Gaizki nai ?, Bekaizti izatea ?.

1.876ko urtean Jorraillaren 6an espainiar gortekoak, XIIn Alfonsok Somorrostron esan eban guztia onartu eban, ta Kastillotar Kanobasek gure euskal Foru Aldundiko arduradunai Madrillera deituta, agiriko aldarrikapen bategaz, au esan eutsen: "Eurak guda au, ariñauko izaeraren legezko antzera, eskubide, edo ta elkarpide barik irabazi ebela"

Esan orrekaz argi itzita, guda irabazi ezkero, eurak izan zirela eskubide guztiaren jabe.

Alan ote da ?. Nungo Jaungoikuan ziñezten dabe ?.

Jangoikuak, Mundu onetan bakez bizi gindezan, oiñarrituta daukazan Legeen gaiñetik, gudako legearen era orreitan ordezkatu bear ba genduzan zor-eskubidearen eginkizunak,

(1) Aizagalluak = abanico, ventilador, eta abar. (2) Zomorroen jai bat = fiesta de disfraces, mascarada, etc.

gudak eta borrokak, etenbakoak izango ziran, oraiñarte izan eta diran lez, menperatzeko baimen edo ta gudarako eskubide orreik, danorenak izan ezkero.

Orregaitik mundu onetako gizon/emakumeak, ez daukagu eskubiderik iñungo legerik agertzeko, Jainkoak ipinita daukazan Legeak ardura andiz, eta gogo onenean bereztuta, egipidetzea baiño besterik.

Begitu ba, zelango aldea dagon, eurak esangura dabenetik, egin bear doguzan egizko egipideraiño.

1.876ko urtearen Loraillan espainiar gobernukoak, euskal erriko arduradunai deitzen dautsee, 1etik 15era Madrillen batzar baten alkartu zitezen. Bitartean, peninsula onen beste lurraldetatik, Sebilla izan ezik, gure Foru Legeak ezereztuteko eskatzen egon zirala.

Eta Kanobasek, euskal ordezkariai entzulearen antzerkikoak egin ondore, beren ixilpeko maltzurtasunean gorde ebazanak agertuko ebazan euskaldunen aurka, bere asken aginduko eritzi lez.

1.876ko urtearen Bagilla ta Uztaillaren Aldundiko batzarretan, alegiñ aundiak agin ziran gure Foruen alde, ta naita Benigno de Moraza ta Ruiz de Garibaitar Mateo, Arabako legegizon andia(1), legearen almen guztiak iru etenbako egunetan izildu barik argitzen egon arren, ez eban ezertarako balio, espainitarren belarriak zipoztu edo itxita egon ziralako, gero eurak gura ebena egiteko.

Eta ori ote da espainitarren legezko ordezkaritza ?.

Ori, fazizta zapaltzaillearen legea da !!.

Orregaitik, askeneko 200 urtetik Eskubidearen arlo onetan daukaguzan arazoak, sekula ez diralako argitu, betiko arazoak dira daukaguzenak, or emon gura izan dabelako asken aiztokadea, erdimendearen 325eko urtean Nizean asi eben, Mundu onetako Euskal Izkuntz eta Euskerazko Gizarteak lez euken Nortasunezko Eragipenari, katolikotasunaren aberkidetasunezko batzangoan biurtzeko, latiñetuz, kolonizatuta bizi gindezan. "Zertarako edo zeren asmo ?. Ori, Izadi onen legeari begira, alperrezko ke-utsa izanez gaiñetik, FAZIZMO UTSA DA.

Bai eta, gaurko era-berritu onetan "*Nacional Catolicismo Imperial*"aren elburu lez eukinda Jainkoaren Legeen gaiñetik, gauza orreik, euren norkeriaren menperatasunezko buru asmatzail gogorretatik kentzeko alegiñik, ez dabelako sekula egin.

Goiko, edo danon JAUNGOIKUARI begira dagozela esaten dabe ?.

Guzur aundiagorik, zekula ez dot entzun.

"Orregaitik, bide orretatik ez dira, ta izango dira be, gai, berez daukaguzan gizaren eskubideko jabetasunak ardura aundiz ordezkatzeko".

Eta berau bakarrik ikusita, ez da arritzekoa gaur, Irasitako Izadi onen gaiezko ta gizaren lege guztiak ankaz gora eukin da, Europa ta munduan sortzen dana.

2. 4. (16) *SABINO.*

1.876ko urtearen Udan Sabinok, muga aldatu bear izan eban, ikasketaren amaierako, azterketak egin bear izan ebazalako, Ondarribiako maisuarekin.

(1) Moraza Ruiz de Garibai'tar Mateo Benigno = 1.817-1.878ko urte bitartean bizi zana. Araba ta Euskalerriko Foruen aldeko zaindari sutsua izan zana. 1.841eko urtean, Gazteizko Udalaren idazkari izendatu eben. Eta 1.848an Arabako errialdearen aolkulari. 1.852ko urtean eta Ortiz de Zarate karlistarekin, "Vindicación de los ataques de los Fueros de las provincias vascongadas" idatzi ebana. 1.869ko urtean, Madrilgo gorterako diputadu autatu eben. 1.876ko urtean itzaldi gartsuak egin ebezanak gure Foruen alde Madrilgo gorteetan. Idaz lan eta itzaldi asko idatzi ta atondu ebazanak.

1.876ko Urrillan Arana´tar Sabino Baionatik, Ondarribira eroan eben, erriaren eskolako maisuagaz, lenengo ikasketaren azterketak egiteko.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean espainiarren gortekoak, gure Foruak ezereztuten ebezan legeak ontzat artu ebezan, eta maltzurrezko erabidez euskaldunak sinistu daiguzan eurak esaten ebezan guzurrak: Eurak emoneko Lege Berezi edo ta Faborezko Legeak zirala, ausartu ziran esaten, aldarrikapen onegaz:

"Los deberes que la constituciòn polìtica ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, de contribuir en proporciòn de sus haberes a los gastos del estado, se extenderàn como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las provincias de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba, del mismo modo que los demàs de la naciòn".

"Euskaldunak nundik nora begituta, ote gara espainitarrak ?".

Eta urte ta egun onetan ipini euskuen Euskaldunai, espainitar asmatutako aberritasunari naita-naiezko gudaritza edo soldauzka, Euskaldunak espainitar biurtu gurean.

1.876ko urtean Dagonillako 5an Begoñako Ama Birjiña, Santa Monikako lekaidetxeko eleizan gordeta egon zan lekutik, bere Begoñaren Santutegiko ezar lekura ekarri eben ostera, eleizbira eder bat eginda.

1.876ko urtean Urrillaren 17 ta 18ko egunetan Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako Aldundiaren ordezkariak, Gasteizen batzartuta, lege orrein ezarpenaren aurkako jazargo gogorrenean agertuta, itzi edo uko egin eutsoen euren Aldundiko ordezkotzari.

Ekintza onen ondorioz, Fueristen alderditar barri bat agertu zan, Sagarminagatar Fidel, Bizkaiko Aldundiaren orokorrezko arduraduna, berak beste Foruko arduradunakaz batera zuzentzen ebenagaz, ez ebalako onartzen menperatzail agintasunik.

Sagarminagak, bere "Bizkaiko Edestiaren Oroimen"eko idaz lanetan esaten dau:

"Bizkaiko Jauntza" bera erandu ta zuzentzeko, jabetasunezko Laterri bat-zala".

"Gure Askatasunak ez diralako iñorgandik emonekuak edo ta artutakoak".

"Gure Bereztasunaren azturazko eskubidetik, Euskal Berekiko askatasunak zirala, gure jabetasunaren asiera edo ta jaioterriaren sorburuko ondorioa ekarten daualako".

Gure aldeko baten batek esaten dau: "Europako menperatzailleen aldia olan amaituta, oraingo edestian sartuta gagoz, gure erriaren izaerazko legetxean edo ta nortasunezko jabetzaren legebideak berrezkuratzeko".

Lenengo au jakinda:

Menperatzaillearen aldia amaitu ote da ?.

Ez !!.

Baiña jakiñean gagoz: "gure Nortasunezko Euskal bizitzaren ardurak, Demokraziz ordezkatzea gura badoguz, euren menpeko eragipenetik urten bear dogula". Jaungoikuak Gai-Bizi oneri, Bereztu Eutsoezan legeakaz guztiz arduratuz.

Euskaldunen artean, ordua da: "Euskalerriak, beti danik eta bere Arbasoak lortu eben Demokraziaren Lege Zarrezko Batzarretatik antolatzen berriz astea, gure arbasoak lortu eben Euskal Batza Demokratikoaren antzera, guk ere lortu degun, eurengandik artuta oraindiño, Barne Barnean Baituta daukaguzalako "Askatasunaren Demokrazizko Lege Zaar eder orreik".

Batez be, ORDUA ELDU DALAKO !!.

Aurrerantzean gure nortasunezko euskal-seme izatearen etenbako lan eta gogoekin Aita-Amak edo ta Arbasoen irakatsiak Jaun Goikuari begira eurak lez, Askatasun ta Euskaldun Demokrazizko ordezkoaren eragipen bidetik mundura zabaltzeko.

2. 5. (17) ***Sabino.***

1.876ko urte onen Urrillako illean, Sabinok 11 urte eukezala, Arana Goiri sendia, betirako aldatzen da Abandora, Koldobika eta Sabino anai biak Orduñako Josu lagunen ikastetxera joanda, euren ikasketak egiten 1.881eko urterarte.

Arana ta Goiritar Koldobika eta bere anai Sabinoren itaunak, euren aita Santiagori, eta baita gudariak esaten ebenai begira.

ZERGAITIK AITA ?:

Arana ta Ansotegitar Santiago aitak:

Neure seme laztanak, ni enintzen matxinatu VIIn Karlosegaitik, gure erlijio eta Bizkaiko edo euskal Foruengaitik baiño.

Arana ta Goiritar Koldobikak esanda, gudari karlistak esaten ebena:

Santa Kurtz apaizak guri, sekula ez euskun erakutsi ¡ Gora VIIn Dn. Karlos ! esaten.

Guri: "Gora Erlijioa eta Foruak" aldarrikatzen baiño, ez euskuelako irakatsi.

Eta olan izan zan, "erlijioa" izan zalako elburuaren ardatza, gauza guztien gaiñetik, naita Foruak ezereztuten ba ziran be.

Ain sakontasunezko sinismen sendokoa izan zalako, euskal gizartearena.

Europako liberalak baiña, beste gaiezko eginkizun bat gura eben orokorrezko gizarteentzat: sasi-katoliko ta sasi-merkantilismoaren eritziz asmatutako batzango elburuen serbitzura zana, Jainkoak ipinitako Lege guztien gaiñetik.

Ikaragarrizko amiltegi larrira ekarri dozkuna danori: "Bizitzaren gizako eskubideak, ekanduzko zeregiñ maltzur bidetik egipideratuta ekarri doguzelako".

1.879ko urtean, Frantziko iraultzaren bitartez artu ziran eskubide guztien kanpoko erabagi oneik, eta ez dago beste konpon biderik, bereztasunaren oiturazko bideak berrezkuratzea baiño, bestela Jainkoaren Legeak, aurkezten dauskun amiltegi orren arazo aundi ori, bertan dago.

Noz konturatuko ote gara, mundu onetako ordezkaritzaren arduradunezko jokua, ez dala txantxetakoa ?:

"Sasi-arrokeriaren maltzur ta guzurrezko jokutik aldendu bear doguz gure ekintzak".

"Ez, guk esaten dogulako".

"Bereztasunaren aurrean, okerrak izanez gaiñ, ezin diralako, edo, ez daukielako egokirozko lekurik zeaztuteko, ez zentzu andi, orekazko eginkizunetatik aurrera egiteko, jaungoikuak beren borondatean, alango legeakin gai bereztuta daukalako bizi au".

1.876ko urtetik 1.879ko Azaroaren 4rarte iraun eban euskal jaurkintzaren debekatasuna konstituzioaren legezko baimenean.

2. 6. (18) ***Arana´tar Santiago, Sabinoren aita.***

1.876an Abenduaren 23an, Atxatar Mª Jesus, Aranatar Santiagoren amagiñarreba il zalako, Santiago itzuli zan egon zan atzerri lekutik, eta ez zan geiago erbestera joan edo atzerriratu.

1.876ko urtean espainitarren errepublikako lenengo lendakaria izan zanak, "Las Nacionalidades" idatzi eban liburuan esaten eban:

"En España la cuestiòn de los vascos es mucho màs grave que en Francia. No los une a los demàs pueblos de la penìnsula, ni la raza, ni la lengua, ni el carácter, ni las costumbres, ni las leyes".

"No siguen el movimiento polìtiko del resto de la naciòn. Vencidos, se les ha arrebatado con los fueros la exenciòn del servicio militar y de los tributos.

¿Son por eso màs españoles ?.

Es indudablemente el resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe.

A poco que se combine aquì los distintos criterios para la teoria de las nacionalidades, tengo para mi que se habrà de estar por la independencia de los vascos.

¿La consentiria España ?.

¿Se està seguro, escribe en otro pasaje de su libro "Las Nacionalidades" que esas y otras provincias no vuelvan a levantar pendones por sus antiguos fueros ?.

En mi opiniòn duerme el fuego bajo la ceniza".

2.7. ***Euskalerriaren diru kontuak, espainitar Sakratuzko Katoliko Aberkide zapaltzailleakaz***(1).

1.876ko urtean Otsaillaren 15ean, espainitarren konstituzio barri edo jaurgoa aldarrikatzen dabe, 1.931ko urteraiño iraun ebana.

Argi ikusten da emen, ainbeste bider barriztu egin bearrean ibili ba zirala konstituzio ori, euren kaisar legezko aginduaren itxuran aldarrikatzeko, egiaren aldetik ez ebala euki bere barnean, zentzuzko arrazoien izpiripez: "Bereztasunezko egiaren guztiz aurkakoa izanda, guzurrezko sorta-arau ori zartzeko, ia danok zoratu arte ibili ziralako".

"Bai, eta zelan aurkezten gara gaurko egunetan ?".

1.876ko urtean Epaillaren 2an Araban, La Poblaziñoko gaztelua, Araoz´tar liberalen jeneralari etsaimendu zanean, amaitu ziran karlistek euki eben askatasunezko azken tokia.

1.876ko urtearen Loraillan espainiar gobernukoak, erriko arduradunai deitzen dautsee, 1etik 15era Madrillen batzar bat egiteko. Bitartean, peninsula onen beste lurraldeetatik, Sebilla izan ezik, gure Foru Legeak ezereztuteko eskatzen egon zirala.

Eta Kanobasek, gure ordezkariai entzulearen antzerkikoak eginda, beren ixilpeko ardurapean gorde ebazan, gure aurka azalduko ebazan, asken eritziko aginduak.

1.876ko urtearen Bagilla eta Uztaillaren ille arteko Aldundiaren batzarretan, ainbat alegiñ egin ziran gure Foruen alde, ta naita Moraza Ruiz de Garibaitar Mateo Benigno, Arabako lege gizon andia, legearen almen guztiak iru etenbako egunetan izildu barik argitzen egon arren, ez eban ezertarako balio, espainitarren belarriak zipoztu edo itxi egin ebazalako, gero eurak gura ebena egiteko.

(1) Euskalerrian diru kontuak, Espainitar sakratuzko katoliko aberkide kaisertzak = inicio de nuestro concierto econòmico, impuesto a los vascos por la fuerza de las armas, de nuestros ancestrales enemigos nacional catòlico españoles.

1.876ko urtean Uztaillaren 21ean, eta 1.872-1.876ko urte arteko karlisten guda amaitu zanean, baieztu eben espainitarrak lege bat, bere bidez Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoako lurraldekoak, espainitarrak izan ba ziran lez, eurak ipini ebazan zergak ordaindu egin bear ebazala.

Batzartu egin ziranean, arazo aundiak sortu jakiezan baiña, Euskalerriaren lurraldeak, euren Foruko legeen diruak izanda, bai eta auren Batzar-legearen bidezko tresneriak euki ebazalako diru orreik batzeko, gauza orreik ez ziran errezak konpontzen, espainitarrak ez ba eben euren zapaltzaillezko kaisar lege orreik, gudaloztearen indarragaz gure artean ezartzen.

Iru Euskal lurralde orren Foru Batzar arduradunak, espainitar gobernuko Kanobas´egaz, ainbeste bider alperrik ibili ondoren, onek gogorrean astea erabagi eban.

1.877ko urtean Loraillaren 5ean, ezereztu ebazan Euskal Orokorrezko Batzarrak eta Bizkaiko Foru Aldundien arduradunen aginduak.

1.877ko urtean Azaro askenetan eta Abenduko illaren asieran, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiakaz egin ebana.

Bereala baiña, agertu jakien espainitarrai, zelan batu zerga orreik Euskal lurraldeetan, eta Kanobas´en gobernuak sortu ebazan espainitar Diputazio barri orren arduradunakaz berba egin eban, ia zelan sartu euskaldunak, beste lurraldeen legepean "espainitar aberrien orokorrezko ongunde barruan".

1.877ko urtearen Abenduan ta 1.878ko Otsaillaren ille artean, espainitar Diputazio barri orren arduradunaren artean, alkarrezko agindu batera eldu gura izan eban.

Eta 1.878ko Otsaillaren 28an Euskalerriko Foru legeak ezereztuz, XIIn Alfonso erregeak bere agindu bategaz atara eban ongunde orren leenengo agiria, Diputazioak bere aginduz, 8 urteko apean ordainduko ebezala era berezi baten, gobernuak ipinitako diru sariari, zerga orrein bidez.

Ordutik ona: 1.878, 1.887, 1.894, 1.906, 1.925, 1.952, 1.976, 1.981ko urte onetik, kontzertu ori lege lez artzen dabe, Euskaldunakaz ongunde bat egin eta gero, ez zigorrezko agindu lez XIIn Alfonsok egin eben antzera, eta 2.002ko ongunde edo kontzertuak baieztatzen dira, 2.002ko ongundearen urtetik, muga bageko lez artuta kontzertu ori, espainitar eta euskal gobernuak on artu dabena. Konstituzioan be onartu zana, leenengo antolabidean esaten dauan lez: "Edesti Luzeko Foru Lurraldearen Eskubideak" babestu ta begirunez artzen

Diputazioak ongunde orren bidez, espainitarren gobernuari ordaindu bear eutsoezan diruak, espainitar gobernuak oldozten eban zenbateko diru kopurua izango zan berak artu bear ebezanak(1), lurralde bakotzatik izan da, lurralde bakotzak, berentzat bear ebazanak kendu ta gero. Kontu onean artuta, zenbat batzen zan zerga bidez, eta zenbat emon bear jakon gobernuari ongunde orren bidez.

Espainitar gobernuentzat ongunde orren bidez, garrantzi aundieneko gauza euki ebena, zergaren batuetaik kanpo geratzen zala, eta bestetik, Diputazioaren borondatean izten ebala zerga orreik eskuratu a la ez.

Erki Aldun(2) edo lurraldeen diputazioak zerga orreik eskuratu leikiezan aldetik,

(1) Berak artu bear ebazanak = "CUPO" = cuota, parte, que estimaba cobrar el gobierno central porlos impuestos recaudados, después descontar lo que a las provincias les correspondia en sus necesidades. (2) Erki Aldun = diputaciones provinciales.

ordaiñak eurak artu, edo bestela eurak ibili ebazan era orretan orrarte, diruak, janariei, edate, sugarrizko gauzarekin, eta alkooldun edariei diruen sariz-gaiñeko zergak ipinita aurrera egin. Dana dala, ongunde onen balioa 1.886ko urtean Epaillaren 1ean amaitutzat emon bear izan ebana, bost urteko apean barriztuta etorri da, gaur arte.

1.878ko urtean Otsailaren 28an, Euskaldunak zeozegaz lasaitzeko, 8 urtearen epetarako oldoztuta baieztatzen da "Diruaren Antolakuntza" ori, Bizkaiko Aldundien arduran egon zedin, gero 1.887/1.894/1.906, 1.925 urtetan eguneratzeko.

1.878ko urtean Otsaillaren 28ko ongundetik, 1.886ko urteraiño luzatu zan bere balioa, Erki Aldundiak beti ordaindu eutsielako espainitar Laterriaren gobernuko diru zaiñari, ezeren arazorik bage, Erki Aldundikoak izanda, zerga orren arduradunak, eurak Foru denboran euki ebazan arauak zerga orreik eskuratzeko almenakin.

Diru arloaren ministruak ez eben batzen, ongunde orren bitartez ezarri ziran zergak, Euskalerrian, sartzen ebazan diruak egin bear ziran gauzetarako, oso gitzi edo laburrak izan da, diru geienak, Foru edo Erki Aldundiko arduradunak eroaten ebazalako, erriko lurraldeak bear ebezan gauzatan.

Garrantzi aundikoenak izan ziran leenengoetan ongundetu ziran zergak: Lurraldeko zergak, lantegiren zergak, Erregeen eskubideko zergak, zigilu(1) eta jan edateko gauzaren mugako zergak izan ezik.

Bost oiñarrizko zerga onen bidetik joan ziran zabaltzen, urrenes egiten ziran zergako berrikuntzak, ongunde orreri lotuta geratu zitezen, eta bere zuzentasunezko ekintza edo begirunekin, Laterriari ordaindu, itun edo ongunde bidez ordaintzeko geratu bear jakozan diruak, edo ordaintzeko geratzen zan zatia(2), erria ta erritarren bearrezkoak bete ondoren.

1.878ko urtetik 1.937ko urteraiño dauka leenengo epe aldiko bizitza, espainitarrekin sortu zan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru aldundiak dirua batzeko kontuaren gora berak, eta itun edo ongunde bat egin gendun eurokaz.

Orregaitik da aiñ garrantzizko gauza Euskalerriarentzat, lenengoetan izkillu edo gudaloztearen indarragaz sartu ba euskuen lan ori, diruak gure eskuetan ibiliz, jakin gendulako gure Foru tresneri bat bezela erabilten, euren eritzi edo borondatearen aurka.

Orregaitik damutzen dira gaurko denboretan, eurak gurí bereztasun edo faborezko lege bat bezala emon euskuelakoan. Egia baiña, gudako izkilluekin beartu genduzala da.

Orduan, zer ote da, Laterriari ordaindu bear dautzagun diruaren zati ori ?:

-Euskalerriak, Laterriari ordaindu bear dauazan diruak, berari jaurkintzeko ez jakozan emon arduragaitik da. Adibidez: espainitar laterriaren babesagaitik, gudalozteagaitik, atzerritar arduragaitik, edo erregeari emon bear jakozan diruen arduragaitik, espetxe, eta orokorrezko zar-sari, beste gauza artean. Orduan, espainitar lurralde guztiak daukie zergazko diru kontuen gora beran, ongundezko erabagi ori.

Bai, diruaren ongunde ori beste erako antola edo bigaz bizi dalako. Bata: Nafarroa berak Laterriagaz daukan ongunde bereziekin. Eta bestea: beste lurraldeak daukien L. O.F.C.A. edo espainitar Askatasuneko Lurraldeak, euren diru arduratan daukien Legeen Gaitasunekin.

Gaur, gure Uriarte'tar Pedro Luisek eroaten dau "Ongundezko Erkidetasun" orren(3)

(1) Zigilu (zijilu ?) = timbre, sello de correos. (2) Ordaintzeko geratzen zan zatia, erria ta erritarren bearrezkoas bete ondoren. (3) Uriarte'tar Pedro Luis dala,Ongundearen Erkidetasuna eroaten dauana = Que hoy es Pedro Luis Uriarte quien lleva esa Comunidad del Concierto.

elkartea, erritarren artean aztu barik, jakin edo ta ulermendu dagigun, zer dan gure askatasunarentzat ongunde ori tresneri lez. Eta ezkertu bear dautzaguz, bere euskaldun aberkidezko alegiñagaitik.

2.001-2.013ko urte bitartean Eustat´en(1) txeetasunetik, espainitar gobernuak 15.026 milloi euro gitxiago emon edo igorri(2) dauz Euskadin, zergaren orokorrezko ordaintzatik artu dabezanetik baiño.

2. 8. (19) *Arana ta Goiri´tar Koldobika.*

1.879ko urtean Aranatar Koldobika, batxillerrezko laugarren ikas-mailla eskuratu eban, eta beren gurasoak, Pontebredako Laguardiara bialdu eben Josu lagunaren ikastetxera etxegillearen ikasketak beteteko.

1.879ko urtean Nozedaltar Kandidok, VIIn Karlosen ordezkoa zanak, ostera antolatu eban karlisten alderdikidetasuna, katoliko izatasun lez, euren alde egon ziran aldizkarien laguntzarekin.

Aldizkari oneik eraso gogorretan ibili ziralako, Pidaltar Alejandrok beste karlistaren eritziak bideratzen ebezanak, "Katoliko Batasunaren" alderdi barrien izenakin leia gogorrak euki ondoren, Kanobas del Kastilloren euslari edo gordetzailleakaz(3) alkartu ziran, emendik aurrera karlisten eritziak naste aundiagoetan sartuta, "Tradizio-Zale edo Lengo Zaleen Elkartasunean" biurtu zana.

2. 9. (20) *Arana ta Goiri´tar Koldobika, Sabino, eta Juan.*

1.880-1.881eko ikas-urtea bete eban bakarrik, Aranatar Koldobikak, Pontebredako Laguardian, ez zalako egon maixu-biderik, eta Madrillera joan bear izan eban bere etxegillearen ikasketetan aurrera egiteko.

1.881eko Bagillan Aranatar Sabino, Urduñako ikasketak amaituz egoala gaisotu zan, il zorian geratu arte, bizitzaren askeneko Sakramentuak ille orren 16ko Gorputz egunean artuta. A ta guzti: 19an física arloaren azterketak bete ebazan; 20an fisiología eta osasunbideko arloak azterkatu ebazan; eta 21 ta 22ko gauerditik aurrera, biztuten asita, askeneko azterketak ogean egin ebazan. Eta 1.881eko urtean Bagillaren 30ean artu eban, Batxillergoko jabetasunen agiria. Baiña ez eban indar asko euki aurrera egiteko, eta Abandoko etxera joanda, urte bitan egon zan ezer ikasi barik, arik eta indarrak berrezkuratu arte.

1.881eko urtean Abandon egon zan Pi eta Margall´tar Franzizkok aitatu eban, 17urte eukezan gazte baten bulerrean egoan askatasunaren sua:

"ARANA TA GOIRITAR SABINO" IZAN ZAN GAZTE AU.

1.882ko urtean Koldobika Galiziaren Laguardiako ikasketatik etorrita egoala, ez dakigu iñork noren bidetik(4), Euskalerriaren egoera politikoagaitik arduratuta, jakin eban zein zan Euskalerriaren egizko arazoa, eta Sabino 17 urtegaz oraindiño bere osasuna berrezkuratzeko eriondoko aldian ogean egoala, Luisek jakin ebezanak,

(1) EUSTAT = Instituto Vasco de Estadistica. (2) Igorri = invertir, gastar dinero en Euskadi. (3) Euslari edo gordetzailleakaz = conservador, liberal conservador. Godetzaillea = conservadores de derechas. (4) Naita susmoa, Bartzelonan egon ziran denboran, Kataluñara erbesteratuta egon zan Urduñako apaiz batenak izan. Baiña Tolosako Garmendia anai urgazle edo laguntzaillearen esanak artzen ba doguz, Koldobika, Galiziako La Guardian bere eskutik abertzaletu egin zala onartu bear dogu.

Sabinoren ezauntzan ipini ebazan, eta egun bereinkatu orretan onek, ziñez itz emon eutson, bera indar guztiekin arduratuko zala "EUSKALERRIAREN ARAZOAGAZ, ETA EZ ZALA GELDITUKO, ARIK ETA ARAZOAREN AZKENEKO ARRAZOIAK JAKIN ARTE.

1.882ko urtean Euskalerriaren zorigaitzezko gora beragaitik, Arana ta Goiri'tar Sabino bere anai Luisekin Albiako lorategian alkartuta, auxe esan eutson Sabino'k Koldobika'ri: "Yo no conocia aùn bien nuestra Patria, pero tù encauzaste mi inteligencia con tu palabra. Finalmente te dije lo pensarè, te lo prometo".

Sabinok, egun orreitan eta Koldobikaren aotik jakin eban: "Bizkaia, Euskalerri osoa lez, ez zala espainitarren lurralde bat, ez nortasunaren izatezko bidetik ezer, ez bereztasunaren, ez eritzizko bidetik eta gitxiago edestiaren aldetik, eta berba oneik esan ebazan":

"BEREINKATUA IZAN DAITELA NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA, ETA BETIRAKO ESKER ONAK, ERBESTETASUNEZKO LAIÑU BALTZETATIK ATARA NINDUANAI".

Bat, izan ziran anai biak ortik aurrera Euskalerriaren arazoetan, Luisek bere anai Sabinok euken ulertze aundiagoari, beti erkidetuta lagundu eutsolako argibidezko arazoetan agertzen ziranak.

1.882ko urtean Dagonillaren 11n, 1.851ko Epaillaren 30ean jaio zan Arana ta Goiritar Juan, euren irugarrenengo anaia il jakien, etxeko sendi guztiaren miñ edo oiñaze andienagaz, bere aita Santiago ta Paskuala amak, itxaropen aundiak euki ebezalako, beren itsas ontziaren egille izateko ikasketakaz.

1.883ko urtean Bagillaren 24an euren aita, Aranatar Santiago, karlistek, gudan uts egin ebenetik, oso minduta gaisotu zan, eta Euskalerria espainitarrengandik menperatuz geratu zanean, geiegizko larritasunean sartuta, San Juan egun onetan, gabeko 11etan il jakien.

1.883ko urtean amak, Koldobika ta Sabino Bartzelonara eroan ebazan, Eraman Ona(1), Lege jakintza(2), eta Elertia(3) ikasteko, bai bitartean Arturo Kanpionek atara berri eban "Gramática Baskongada"rekin euskerea ikasi be, len gaisorik egon zanean "Ban Eys" olandarraren iztegi ta gramatikarekin egin eban lez.

1.884ko urtean, Sabinok 19 urte eukezala, saio bat egin eban, euskerea, legez idazteko gora berarengaitik.

1.885eko urtean Sabinok 20 urte eukezala, eta naizta 1.888ko urtean argitara emona izan, "Gramática Elemental del Euskera Bizkaino", 200 orrialdekoa osotu eban.

1.886ko urtean Sabinok, ainbat politika arloko idaz lan edo artikulu idatzi ebazan, euskaldunen enda edo leiñuaren gora beragaitik. Eta idazki oneik, ez ziran argitaratu iñungo aldizkarietan, adibidez: "Noticiero Bilbaino, La Uniòn Vasco Navarra, eta Euskal-Errian", Unamunotar Migelek "Noticiario Bilbaino" idazten ebazanen aurka ziralako. Unamunok euskaldunen izakereagaitk idazten ebazanak, ergeltasunez idazten ebalako.

1.886ko urtean Uztaillaren 15ean Sabinok bere idaz lan "Basco edo Vasco" argitaratu eban "Vizkaia`ko" albistarian, Unamunok idatzi eban eritzi baten aurka.

(1) Eraman-ona = Filosofia. (2) Lege Jakintza = abogacia. (3) Elertia = humanidades, letras humanas, o, literatura.

1.887ko urtean. Euskerazko Itz-Sorkun edo Itz-Etorkiren(1) 21 orriko liburutxo bat idatzi eban.

1.888ko urtean, 38 orri euki ebazan, Euskera zaleen liburutxoa, idatzi eban.

1.888ko urtean Jorraillaren 7an Sabinok Bartzelonan, 1.886ko urtean Unamunoren aurkako ez ziran argitaratu idazkiak, emen argitaratzen dauz, edesti politikoan idazten dauazan 14 orri eukan leen liburuzko alea idatzita, Euskalerriaren ikerketa bat egiñez.

1.888ko urtean Otsaillaren 11n, gabeko 4retan il zan Goiri ta Atxatar Paskuala, Sabin ta Koldobikaren ama, eta ortik aurrera Sabinok 23 urte eukezala, ez ebazan legezko ikasketak aurrera eroan nai, aita ta amaren esanak bertan utziaz.

Beren gogapenak alde batetik sendagillarenak izan ziralako, eta beste aldetik, euskerea ikasten biotz guztiagaz ibili zalako.

1.888ko urtearen Uztaillan Bilbora etorri ziran Koldobika ta Sabin anai biok, eta ortik aurrera il arte, ikaragarrizko lana egin euskun lumaz ta mingaiñez.

1.888ko urtean Epaillaren 4an espainitarrak, Euskalerriko meategiren Foru legeak ezereztuteko gogoak eukinda, XVIIn legezko atalean leen idazpuruko araudian agertu ebena, txantxa edo izeka lez, auxe esaten eban: "Que no se saque vena para reinos extraños".

1.889ko urtean Edesti politikoaren, 24 orriko bigarren liburutxoa idatzi eban.

1.890eko urtean Sabino´k esaten dau: bere anai Koldobikari Madrilleko bidai baten egoala, Kantabro(1) batek ikusita, papar egala baten Foruaren ezaugarri bat eroala, itaundu au eutsola: "Pues mira, eso es lo que no entiendo bien. Si los vizcaínos sois españoles y vuestra Patria es España, no sè como quereis gozar de unos fueros que los demàs españoles no tienen y eludir obligaciones que a todos los españoles deben comprender por igual ante la Patria comùn. Gozando de los fueros no servis en el ejèrcito español, ni contribuis con dinero al tesoro de la patria. No sois buenos españoles...."Admitiendo como gran verdad lo manifestado por el santanderino, Luis se cuestionò si era español o sòlo Vizcaíno, considerando que su opciòn era la segunda".

1.892ko urtean, euskerazko paper orrien, 24 orriko liburutxoa.

1.892ko urtean, 141eko orri eukan liburua, "Bizkaia beren Askatasunagaitik". Lau Aberriko Zoriontasunezko borrokak ekarten ebanak, Arrigorriaga 888ko urtean Padurako guda, Gordexola eta Otxandio 1.355ko urtean, eta 1.470eko urtean Mungian egin ziran borrokak aipatuz.

1.893ko urtean Garagarrillaren 3an Sabinok, Larrazabalen emoneko bere garrantzi aundienetarako itzaldia. Larrazabaleko Ziñezpena lez ezagutzen dana.

Eta Itsas ontizien egille zan De La Sota´tar Ramonegaitik asita, Sabino bakarrik itzi eben bere lagun guztiak alde eginda, Giard´tar Teofilo izan ezik.

1.893ko urtean, 16 orri eukazan liburua "Larrazabaleko Aldarrikapena" argitaratu eban. Emen esan eban berak: "Bere aberriagaitik alboratu ebazala, aita eta amak agindu eutsoezan ikasketak".

1.893ko urtean Garagarrillaren 6an, Bizkaitarra aldizkaria argitaratzen dau, 12 zenbakiraiño eldu zana.

(1) Kantabroak = Bizkaitar Euskaldunak ziralako, Enkarterriko Kastro Urdialesekoak be egon ziran 1.452ko urtean Foruak idatzi ziranen batzar orreitan, bai ta 1.526ko urtean ostera zuzendu egin ziranean be, orregaitik daukie euren ikurriña, Gernikako Arbolaren irudiagaz edertuta.

1.893ko urtean Uztaillaren 31n Abertzaleen bizitasuna, politiku biurtu zan, Bizkaian jaiota.

1.893ko urtean, Gernikako Sanrrokada.

1.893ko urtean Dagonillaren 16an, espainitar diru zain ministruak, Napar Foruen diruak bir-aztertu edo ta ikusi gura ebazan, Napartar eritziaren aurka.

Eta itzaldi onen bidez Gernikan, San Roke egunean omenaldi bat ospatu zan "orfeón Pamplones"en buruz, leenengo eta goizetik Gernikako Arbolari omenaldi bat egin ondoren, eguerdian, bazkari eder bat egin eben, Fuerista, karlista, Bizkaitarrak, eta Unio´ko Katalanisten artean.

Gernikako liberalaren "Gernikako Alkarte" ta "Tradizio zaleen Alkarteko balkoitik" espainitarren ikurriñak egon ziran dindilizka.

Gero bazkaltzen egon ziranean, "Abajo la preponderancia de Castilla" eta "Viva la autonomia de las regiones" entzun ziran, karlista batzuk aurka urtenda.

Asarre orretan "Muera España" entzun zan, eta fuerista ta karlistak alde egin eben bazkal toki orretatik.

Arratzalderuntz euskal aberkide batzuk, liberaltarren begira tokian egon ziran espainitar ikurriñak, erre egin ebazan, "Muera España" ta "Viva Euskeria Independiente" aldarrikatuz.

Gertakizun au, euskal abertzalearen, leen oiartzun lez agertzen da.

1.893-1.898ko urte bitartean Sabinok, bere bilbakuntza bidetik, aukera batzuk aipatzen dauz ustebageko karlistaren oiñarritik asi ta Bizkaitar askatasuneraiño, "Jaungoicoa eta Foruac" "Jaun-Goikua eta Lagi Zarragaitik" aldatuz. Kondaira legez, Larrazabalaren politikako agiritik agertzen dala, uste da.

1.894ko urtean Otsaillaren 18an Kastejonen ainbat lagunekin "Gamazada" ospatu zan. Eta euren artean ainbat Sabinoren lagunak egon ziran Borgoñako ikurriñaren antzekoa zan, San Andres´en Gurutz Gorria, azpian oiñarri lez margo zuriagaz, Irujo ta Aranzadi´tar Juanak, Sabin eta Koldobika Arana anaiak egin eben zirri-borrotik artuta, egin eban ikurriñagaz.

Ikurriñ orren ostean eta izki gorriekaz idatzita, "Jaungoikua eta Lagi Zarrakin", Bizkaitarrak euren anai Napartarrai agurtzen ebazala. Orrez gaiñ Bizkaitarrak, Aritz´en orriak eroaten ebazan bulerrean, oiñarri lez margo zurien gaiñean korapillotutako oial gorri batekaz edertuta, biotzaren aldean eroaten ebazala.

Gamazada onen erantzun lez, errigizartea alkartuta Nafarroan egin zan erakustaldi edo agertaldi aundienean, asi ziran euren arrazoiak aldarrikatzen eta izenpetasunak batzen, 120.000 izenpe denbora gitzian batuta. Orregaitik Espainitar Gamazo ministrua kendu eben bere aginduzko lekutik, eta erritarren eskaerak aurrera egin eben.

1.894ko urtean Uztaillaren 14an Sabinok, "Euskaldun Batzokija" sortu eban. Eta urrengo egunean, emen, leenengoz goratu zan gure ikurriña. Bizkaiko ikurriñaren gorri margoaz oiñarri lez, San Andres gurutze edo beso-zabal orlegi margoan eukezala, Gernikako Arbolaren irudiz, eta Gurutz zuriaren margoagaz, Kristautasun sinismena erakusten.

1.894ko urtean Uztaillaren 15ean Ikurriña goratu zanean, Begoñako baselizan Meza Santua ospatu zan, ta Batzokira joanda, batzar nagusi bat ospatu zan, Sabino Lendakari lez aukeratuta. Egun onetan sortzen da "Euskaldun Batzokija".

Amaitu ziranean batzorde orren zeregiñak, txistulari elkarte bat urten eban begira tokira, an egon zan jendetza nabarmendu ebana(1), euren ustez, Bilbaoko eres-taldeen joaldi bat itxaroten ebelako.

Jaialdia, gaberaiño luzatu zan, eta gaur egun, Inazio Deunaren egunean ospatzen da egun ori.

Ez zan amaitu bakez jai-aldia, auzoko batek, espainitar gobernari edo agintariai salatu eutsolako, zarata asko egitearren. Eta gobernariak zigor lez 500 pestagaz beartu ebazan, abestu, txistua jo, eta solairu baten ankakaz zarata asko ataraten zalako.

Jai-aldia salatu ebanari Sabinok, Bizkaitarren aldizkarian, lotsagarritu eban, eta au mindu ta asarre, ostera salatu eban. Eta salatasunezko ekintza oneik izan ziran Sabino leenengoz baitu edo espetxera eroan ebana.

1.894ko urtean, Azaroko illean Sabinok, zazpi bazkide botaten dauz alkartetik, beste ainbeste urtenda, urtea amaitu baiño len.

1.895eko urtean Otsaillaren 3an Euskeldun Batzokijan Azkue´tar Resurrezion Mª´ari omenaldia egin eutsoen, "Vizcaitik Bizkaira"´ko antzerkia egin ebalako, eta aurreko egunaren 2an leen aldiz emon ebenagaitik.

1.895eko urtean 50 asierako sortzaille bazkideetatik, 30 urten eben, geienak botakuak izan zirenak.

Eta urte orretan, araudiak aldatuten dabez, ordurako 120 bazkide izanda. Araudietan ipinten dabe: Euskaldun Batzokijak ez daukola zer ikusirik Baserritarra aldizkariagaz, izparrangi politikua izan zalako, eta Euskal Batzokija, jostagarrirako bakarrik.

1.895eko urtean Otsaillaren 17an, espainitar gobernukoak 200 pestagaz zigortu eben Euskeldun Batzokija, 20 pertsuna baiño geiago egon zirelako antzerkiaren ekitaldian, eurengandik baimena eskatu barik.

1.895eko urtean Epaillaren 16an Euskal Batzokiaren Alkartea batuta, ez eben onartu Azkuen omenaldirako, karlistek egin eben asmo agertzea, lenago artu ebazan diru zigorrak naikoak izan zirelako gogoz azetzeko. Bai euskal katoliko taldea ta Euskalerri elkarteak, omenaldi orren antolatzaille ziranak, Tradizio edo Antziñatarrezko zaleak, espainitar lez artu ebazalako.

1.895eko urtean Epaillaren 19an, Bermeoko Aketxe Balandra itsas-ontzian edo euki eban masta-bakarrean, Euskal Ikurriña ipini zan leenengoz. Eta au izan zan, Ikurriñea leenengoz ipinten zana Euskal Batzokitik kanpo.

1.895eko urtean Jorraillaren 21ean, Euskeldun Batzokikoak alkartuta erabagi eben, ez aurkeztea urbil egon ziran auteskundetan.

1.895eko urtean Jorraillaren 24an, 25 zenbakiko Bizkaitarra aldikaria agertzen da, espainitar fiskalak salatu ebena, agirietan, "ellos y nosotros" eta "La bandera española"ren aurka idatzita etorten zalako. Espainitar gobernariak 500 pestako zigorra ipinita Sabinori. Ostera baiña, itzuli eutsona, salatu ori epaiketara eroanda egon zalako. Asken baten , dana geratu zan, ezerezean.

(1) Nabarmendu ebana = se destacò, distinguirse.

1.895eko urtean Jorraillaren 26an, Euskal Batzokiaren Batzar barria aukeratzen da, eta onartzen dira askeneko araudiaren legeak. Arana ta Goiri tar Sabino eta Llodio´tar Ziriako aukeratu ziran barriro, lendakari ta lendakari ordezko lez.

1.895eko urtean Uztaillaren 31ko San Inazio egunean, Euskal Batzokijan erabagiten da, Lenengo E.B.B.rra Euskadi Buru Batzar lez, Sabino´ren lendakaritzapean, eta Koldobikaren lendakari ordetzaren arduradunetan.

1.895eko urtean Dagonillaren 2an, Sabino salatu eben Bizkaitarra aldizkariaren lendakari lez. Aldizkariak idatzita ekarten ebazalako espainitarren aurkako agiri batzuk, adibidez: Jaunsoro´tar Anjel´ek "Abolición y Reconquista", "Neu" eta "Vengan Escobas", Aranzadi´tar Engraziok idatzi ebazanak "Basa Jaun" ez-izen aurrealdeagaz.

1.895eko urtean Dagonillaren 28an Sabino´ri, Soltura´tar Filomenoren aurka idatzitakoagaitik, Euskal Batzokija salatu ta gertakizun auek Bizkaitarra aldizkarian agertzen ebazalako, 11 illabete ta egun batera zigortuta bialdu eben Larrinagako espetxera.

1.895eko urtean Iraillaren 5ean, eta Aranzadi´tar Engraziok idatzi eban "La invasión Maketa en Gipuzkoa" agiri bategaitik Basa-Jaun´en izen ordeagaz: Erri´tar Gobernari ta Gudarako gobernarien salaketak(1) euki ebazan.

1.895eko urtean Iraillaren 12an, agiri orregaitik, Madrilleko gobernuaren aginduz, sarratu eben "Euskal Batzokija", zuzendariakek, ez ebalako zaintzen alkartea, eukezan araudiekaz: "Zer su Cìrculo perenne de rebelión, y un peligro para la naciòn" beste salaketaren artean.

1.895eko urtean Iraillaren 13an, Batzorde osoa baitu edo espetxeratu eben espainitar agintariak, Sabino aurrean dala, ta onek danari barkatuz. Eta Sabino, "Baso-Jaun"en guzur izena ez esatearren, 1.896ko Urtarrillaren erdi ingururarte espetxean euki eben.

1.895eko urtean Iraillaren 25ean Sabinok, bakarrik geratzen da espetxean, bestien diru zergak ordainduta, Euskeldun Batzokikoak zirenak, askatu ebezalako.

1.895eko urtean Urrillaren 8an Sabinori, Soltura´tar Filomenoren aurka euki eban zigorra amaitu jakon. Ez eban espetxetik urten baiña, matxintasunaren salaketa euki ebalako.

1.895eko urtearen Azillan, espainitarren gobernuak, ezereztu egin eben aldizkari "Bizkaitarra".

Sabinok Bizkaitarrarekin, EZILKORTASUNA(2) irabazi eban. Aldizkari onekin geiago izan zalako, espainitar laterri ta Kanobas del Kastillo baiño, eurak eta euren buruak garaitu eziñekoak zirelako euren ustez. Eta Eusko Alberdi Jeltzalea andik aurrera, orren ekintzagaitik, BIZKAITARRA deitu zan.

1.895eko urtean Euskerazko abizenaren, "Itz-sorkundearen ongundea" 128 orriko liburutxoa argitaratu eban.

1.896ko urtean, "Bizkaitar Euskerazko Idazkeraren Irakaspenak", 306ko orri daukan liburua agertu eban.

1.896ko Urtarrillaren 13an, Sabinoren zigorra amaitu zan, eta epailleak ontzat artu eban 5.000 pstako Sabinoren diru zigorra kentzea, ta egun orretan, arratsaldeko 2bietan

(1) Erri ta Gudako salaketak euki ebazan = tuvo dos procesos Civil y Militar. (2) Ezilkortasuna irabazi eban = que con el periòdico BIZKAITRRA ganò la eternidad, o lo que es su igual "la inmortalidad".

askatu eban.

1.896ko urtean Urtarrillaren 26an, Sabinoren askatasunagaitik, jai bat antolatzea erabagi eben Txatxarramendi ugartean, guarda zibillen zainpean, ta maia bereinkatzeko altzau ziranean, Guarda-zibil orreik, fusilamendu keiñuak egin eutsoezan mai inguruan egon ziranai. Erki jaurlari edo guda jaurlari orrek, Kanobasen agindua euki ebalako, zeozer esaten ba eben espainitarren aurka, danak bertan afusilatzeko.

1.896ko urtean Azaroaren 18an Sabino, epaille guztien baimenarekin askatu eben, espainitarrak salatuta euken, Baserritarra izparrangian "abolición y Reconquista" y " ¡Vengan Escobas!"eko idaz lanakin, matxinatzeko alegiñak egin ebazalako zigorpetik.

1.896ko urtean Sabinok, "Aldian eroateko Egutegia" 48 orri eukan Takoa argitaratu eban.

Bai ta 1.896ko urte onetan Arana´tar anaiak, leenengo Euskal Argitaldariko Etxea irasi be (1): "Bizkaya´ren Edestija ta Izkera-Pizkundia"ren izen buruak euki zituzenak.

1.897ko urtean Urtarrillaren 17an B.B.B. barria aukeratu zan, eta Sabino ta Luis aukeratu ebazan lendakari eta lendakari orde lez.

1.897ko urtean Otsaillaren 20an, "Euskal ta Nafar Foruak, eta Karlisten Alderdia", idaz orriak argitaratzen dabe Bizkaitar abertzaleak, karlistarekin euki ebazan ezberdineko eritziak argitzen. 27 orriak bete ebazanak. Karlista alderdiari ikaragarrizko zartada emonaz: Bizkaian 10.000 eta Gipuzkoan 5.000 ale eginda, Euskadik Ego aldean daukazan lau lurraldeetan bananduz.

1.897ko urtean Epaillaren 31n, izen buru ta gai bardiñegaz argitaratzen dabe beste "Orri" bat, karlista eritzikoaren artean zabaltzeko. Baserritarren artean oiartzun aundiena euki ebana.

1.897ko urtean Loraillaren 2an, bigarren "Baserritarra" asteroko aldizkaria argitaratzen dabe, Guiard´tar Teofilok bideratu ebena 3.000 izparrangiko kopuruan zabaldu zana. 18 ale ezberdiñ argitu ziran. Eta espainitarrak Dagonillan, ertzitu edo sarratu egin ebena.

Arantzadik diño: 1.897ko urtean Uztaillaren 11n eta 11n zenbakian, iru orri aldeko idaz-lan bat argitaratu ebanagaz, "Eraso Aldiaren Ondorioak"(2), naikoa izan zala Baserritarra aldizkaria betikoratzeko(3), ararte argitaratu ziran idaz-lan guztiak, politikaren-esaerako arloa baiño, eskoz geiago izan zalako.

Eta emen, Koldobikak Aranzadi´tar Ingartziri idatzi eutson eskuritzan, esaten ebana:

-"Aberri au atzerritarragaitik zapalduta dagoana".

-"Aberri au, gaur egun ibili bear dan lez, zartada garbian izartu dagian".

-"Bere lo-aldi, abereen antzeko lo-aldia dalako"(4), "berezkoa dala ezin leike ezan, gaisoa baiño".

Pizkunde egunean Euskalerrian, Fuerista Egunkaria, espainitarren tradizio zale izan zanari, izena aldatzea lortu eben, eta "Jaungoikua ta Lege Zarra"ren izena ipini eutsoen nabarmenduko iragarkiakaz(5). Egunkari barri orrek, Kubako gerra dala-ta, eriotza bear zituenak, espainitar gogoak jazar-arazi(6) ebelako. 20 egun bakarrik iraun eban, bere bide barrian ipini zanetik aurrera.

(1) Euskal Argitaldariko Etxea irasi be, Bizkaya´ren Edestia ta Izkera-Pizkundiaren izenak euki zituzenak = crearon una editorial para el renacimiento de la lengua e historia de Bizkaia. (2) Eraso Aldiaren Ondorioak = efectos de la invasión. (3) Betikoratzeko = inmortalizar. (4) Aberearen lo-aldi = brutal. (5) Ipini eutsoen nabarmenduko iragartkiakaz = destacados caracteres. (6) Jazar-arazi = soliviantar.

1.897ko urtean Dagonillaren 8an, Euskeldun Batzokiaren kideengaitik, elkartea ezereztuten dabe, bost egun ariñago espainitar epailleak zarratzeko ipini eutsoezan ertzapeneko edo silluzko loturak, kendu ebezalako.

1.897ko urtean Dagonillaren 29an, Bizkatarra aldizkariaren asken zenbakia agertzen da, espainitar agintariak salatu ebelako, Sabinok idatzi eban "Catalanismo" eta Belaustegigoitia´tar Federikok "Nuestras Ideas", Federiko, espetxean sartuta.

1.897ko urtean Urrillaren 31n Gipuzkoako Donostin "Fuerista" aldizkaria argitaratu eben, ordurarte Gipuzkoako zintzoak edo integristen tresneri zanak, agerkai bat argituz izen buru lez, "Nuestra Bandera", alegiñ guztiagaz, laguntza emon gure ebelako Euskal Aberkidetasunari "Jaun Goikua eta Lege Zarra"ren izenean.

1.897ko urtean Abenduaren 29an, Bizkaiko Buru Batzarrak = B.B.B., onartzen dau "El Fuerista"ren aberkidetasuna.

1.897ko urtean, "Umiaren lenengo aizkidia" 80 orri daukan liburutxoa argitaratu eban.

1.898ko urtean Jorraillaren 24an, eta espainitarrak Amerikako Estatu Batueri guda aurkeztu eutselako, Arana ta Goiri´tar anaiak Bilbon euki eben etxea arrikatu egiten dabe.

1.898ko urtean Loraillaren 8an De La Sota´tar Ramonek bere lagunakaz, kontrolatuz eukan Euskalerria elkartea, "Euskalduna" aldizkari bidez, azterkatu edo gaitz-etsi egiten dabe, alkarteak espainitarren alde zabaldu eban diru batzeko arpidetzari, espainitarren gudako kalteak ordaintzeko. Ekintza onek, sotistak asarratu ebazan, eta Sabino´ren taldera aldatu ziran.

1.898ko urtean Loraillaren 10ean, "El Fuerista" aldizkaria, askeneko alea argitaratu eban, ariñauko egunean Gipuzkoa, guda-legepean dagoela zabaldu egin ebelako.

1.898ko urtean Uztaillaren 28an, 1.895eko urtean Iraillaren 16an espainitarrak "Euskeldun Batzokyjaren" buru zirenaren aurka, matxinatuak zirenaren salaketagaz euki ebezanak, ezereztu ebazan salaketa orreik eta aske itzi ebazan.

1.898ko urtean Iraillaren 11n Sabino, Bizkaiko probintziaren diputadu aukeratu eban Bilbaoko erri-aldetik, 4.545eko bozka edo autarkiekin. Auteskunde leialdeko igaro-aldi guztian, Sabinoren diputadu gaitasunak, Sotaren laguntasuna euki eban bere "Euskalduna" izparrangiagaz.

1.898ko urtean Azaroaren 24an Sabinok diputadu lez, egigai bat aurkeztu eban, Ego-Euskalerriaren lau lurraldekaz osotuta egongo zan "Eusko Lurraldearen Aolkularitza" deituko zana(1).

1.898ko urtean "Leenengo Egutegi-tako Bizkaitarra" 365eko orri eukazanak.

1.899ko urtean Jorraillaren 23an Sabino ta Luisek "Euskal Gune" edo alkartea irasi eben, "Euskal Batzokijak" euki eben abertzaletasunezko eritzi zarratua baiño, zabalagoa izan zedin, eta beren legeak ezarri ostean zabalduta, "Euskeldun Batzokija", "Euskalerria ta Alkartasunaren leen kide zarrak, beste kide barriekaz batu ebazan, Arriaga´tar Emilianoren lendakaritzapean.

1.899ko urtean Jorraillaren 30ean Sabinok egin ebazan legediakaz zabaltzen da "Bermioko Batzokija", Goitia´tar Benanzioren lendakaritzapean.

(1)Eusko Lurraldearen Aolkularitza = "Consejo Regional Vasco".

1.899ko urtean Loraillaren 14an, Erri-Udalaren auteskundeak ospatzen dira, Eusko Alderdi Jeltzalearen leen zinegotziak aukeratuta: Bilbotik 5, Bermiotik beste 5, beste batzuk Arteagan, eta Mundakan, Eusko Alberdi Jeltzalearen leenengo alkatea.

1.899ko urtean Bagillaren 4an, leen "Pais Vasco" eta gero "El Correo Vasco" deituko zan leenengo egunkaria agertzen da. 103 aldizkari argitaratu ebazanak.

Sabinok aldizkari oneri buruz esaten eban: "Abertzalea izando zala, belarria erakutsi barik baiña".

Ez eban ezertxo be balio beragaz ipinitako ardura guztiak, espainitarren gobernuak orko urteko Iraillan ain zuzen, sarratu egiten dabelako. Bere ala eta 1.901eko urtean, beste aldizkari bat argitaratu eban"Euzkadi"ren izena euki ebena.

1.899ko urtean Iraillaren 6an Arana ta Goiri´tar Koldobika, Paulina eta Sabinok "Sabin Etxea" erosi eben. Denbora gitzi barru zaldu egingo zana, Arana ta Goiri´tarrak Euskalerriko abertzaletasunarentzat bear ebazan diruakaz ordaintzeko.

1.899ko urtean Iraillaren 12an espainitarrak eta batez be, Le Bielleuse´tar Silbela leen ministrua bere gobernuagaz guztiz arduratuta, Udaleko auteskundeetan Bizkaiko euskal abertzaletasunak, atara ebazan emaitzarekin, Euskalerriko abertzaletasunaren aurka atara eban agindu gogor bat, agindu orregaz, Bilbaoko "Euskal Alkartea" ta, "Orfeón Euskeria", Bermion "Batzokija", Barakaldoko "Euskalduna Alkartea", "Correo Vasco" Iraillaren 15ean azkeneko zenbakia atara ebana, eta "Euskalduna" astekaria zarratu ebazalako.

Euren bidez Bizkaiak bear ebezan konstituziozko baikuntzak edo babesak, ezereztuten ebazanak.

1.900eko urtean Otsaillaren 2an Sabino, 25 urte eukezan Atxikallende´tar Nikole´kin ezkontzen da. Eta Lourdeseko eztai-bialdian Sabino 35 urte eukezala, gaizki gaisotu zan.

Adi-erazi merezitakoa da emen, berari egin eutsezan gaitz-etsiak(1), eta berak egin eban babesa Bizkaitar seme-xeegaitik(2).

1.900eko urtean Jorraillaren 13an Arana ta Goiri´tar Luis, Iparraldera joan zan bizitzen, euskal zeregin guztiak, yeregin edo itzi ondoren. Eta urte onetan "Sabin Etxea" saldu ebenean, Sabino. Sukarrietara aldatu zan.

1.900eko urtearen Uztaillako azkenetan, Bizkaiko erki-jaurlariak(3) Iraillan, ertzitu edo sarratzeko agindu ebazan elkarte ta Batzokijak, ostera zabaltzeko baimena emon eban, "Euskalduna" astekaria be agertuz.

1.901eko urtean Urtarrillaren 10ean, B.B.B.ko zuzendaritza berriztu egiten da, Sabino ostera lendakari lez aukeratuta, eta leenengoz, Zabala´tar Anjel, lendakari orde lez.

1.901eko urtearen Epaillan, "Euzkadi" politikaren arloko barriakaz, edo ta kultur maillakoan, jakintza, arte eder, ta izki´ren gaiakaz osotzen zan, iru illabeteko aldizkotasunean agertuko zan albistaria, irasi zan.

Irakas-bide bat asmatu, eta Baserritarra´ren idaz-lan oberenak batu ta argitaratu be, ebazan. Lau aldizkari atara ebazan.

1.901eko urtean Urrillaren 27an, "La Patria"ren asteroko aldizkariaren leenengo

(1) Gaitz-etsiak = criticas, censuras. (2) Seme-xeegaitik = pueblo llano. (3)Bizkaiko erki-jaurlaria = gobernador civil de Bizkaia.

zenbakia agertu zan. Sabino izan zan bere laguntzaillea, arik eta gaisotasunak itzi eutson arte.

Bertatik emongo dauz bere asken mezuak abertzaletasunari, bai ta bertatik, danak agurtu be.

Eta nai berak neka-ezin egimenagaz, Euskerea desagertu ditekenaren estutasuna sartzen jako, eta izkuntzagaz batera, enda-lez, erri-lez.

1.901eko urtean eta larritasun au agertzen jakonean, Arantzaditar Ingartzi´ri idazten dautson eskutitzan: "Olan asten naizenean burua erabiltzen, Euskerean, ta nai endaren arloan argi ikusten dot, gurea ba-joakula, asi dan gizaldi au amaitu orduko.

Aukera bakarra, diruan dago, eta au ez da aurkitzen.

Sabinoren buruz, eskutitz onetan ikusten dogu: Ez zala ameslari bat. Ondo baiño obeto ezagutzen ebazalako, erri ezberdiñak euki ebazan il-biziko arazo larriak, bai ta bere erriaren izkuntzazko etorkisunaren bizitza be.

Orregaitik Sabinok, etorkisunagaitik arduratuta, Ego aldeko lau lurraldearen idazkera bateratu gura dauz.

1.901eko urtearen Azillan, euskal gazteentzako "Eusko Gaztedi" alkartea sortu zan, gero eta bere bidetik, Bilbaoko "Juventud Vasca"ko alkartea sortuko ebena.

1.901eko urtean Azillaren 10ean, Udalaren auteskundeak ospatzen dira ostera, Bilbon Eusko Alberdi Jeltzaleko alderditik 6 zinegotzi geiago atarata, ta eurekaz 11raiño eldu ziranak. Bermion iru geiago atara ebazan, eurokaz 8 zinegotzi izanda.

1.901-1.903ko urte bitartean, "Aberri"ko astekaria, 88 ale atara zituzen, eta 1.903ko urtean, 6 zenbaki.

1.902ko urtean Loraillaren 2an, espainitar aberkidearen aldetik, urtero, Bilbori egin eutsoen azkeneko ingurutasunaren askatasuna ospatzen zan agerkundetik(1), gudari mordo bat urten eta "Centro Vasco"n sartu ziranean, arrapau eben guztia apurtu eban.

1.902ko urtean Loraillaren 25ean Sabinok, idatz mezu bat bialdu eutson bere lagun eta kide Grijalba´tar Pedro´ri, urrutizkin bidez, Estatu Batuetako lendakari izan zan Rooselbet Theodoro´ri zoriontasunezko mezu ori bialdu dagion, Kubako askatasunaren alde emon eban laguntzagaitik. Urrutizkiñeko idazlarien gaillutik(2) ez zan bialdu ezerezetako mezurik, eta urrengo egunean Sabino salatu eben.

1.902ko urtean Loraillaren 30ean, eta 25eko egunean Sabinok Urrutizkiñeko mezu orregaitik euki eban salaketaren bidez, Larrinagako espetxean sartu eben egun onetan. Azaroaren 8an, askatu arte.

1.902ko urtean Bagillaren 18an erki-jaurlariak Bilbon, Eusko Alberdi Jeltzalearen alde egon ziran Udaleko zinegotziak kendu ebazan uren lekutik, amairu egun ariñago, on etorriko mezua bialdu eutzelako, Argentinako izena eukan Injiman(3) itsasontziko komandante Faustino(4) agintariai, Bilbora etorri zalako.

1.902ko urtean Bagillaren 22an, izenpe barik agertu zan "Grave y transcendental" idaz lana, "La Patria" aldizkarian, Sabinok idatzi eban.

Bertan esanda, zelako eten bageko eraso aldi gogorrak, egiten eutsoezan espainitar

(1) Agerkundetik =de la manifestación. (2) Urrutizkiñiko gallua = telégrafo. (3) Injiman = buque grande llamado Argentina. (4) 1.811-1.888urte artean bizi zana.

gobernuak, euskal abertzaletasunari, eta batez be, berak oraingoan irasi gure eban, askatasunbageko Alberdi barriari. Askenez, bertan itzi eban montio barri orren asmoari.

1.902ko urtean Urrillaren 14an espainitar gobernuko ministruaren aolkularitzak, jaramonik ez egitea erabagi eben, euren espainiako lendakari Sagasta ta Praxedes´tar Mateori, 9.000 izenpeakaz euskaldunak, aurkeztu eutsoen eskariari, Sabino askatu dagian eskatzen ebena, "Addison"(1) gaitzaldi larriagaz gaiso egon zalako.

1.902ko urtean Azillaren 8an amaitu jakozan Sabinori, salaketatik eukezan zigorrak, Amerikako Estatu Batuaren lendakariari bialdutako zorioneko mezua Kubaren askatasunari lagundu eutsolako, guztiz aske urten da.

Espainitar Diputaduen lendakaria zan Moret´tar Sejismundok esan da: "Serà màs gallardo que muera en la carcel; ademàs la tranquilidad de España, bien vale la vida de un hombre".

1.902ko urtean Azillaren 20an Sabino bada ezbadan, eta gaitzari aurrea artzeko, fiskalak epailleari egin eutson ostera, Sabino atzera epaitzeko, eta onek zer zan jakin orduko, Luzaidetik muga aldatu eban, bere lagun miña Oiartzun´tar Prantzizko´rekin, Frantzian kokatzeko.

Sabino, erria desagertzeko arriskuan egoalako, gogoetari agertzen da, ta espainitartu gure dau berak irasitako Eusko Alberdi Jeltzalea, ia orko bidetik al bazan Euskerea eta erriaren indarra sendotzea. Nai ta berak espainitarrakaz, ezer jakin gura ez arren.

Asmo orren gogapena izkutuan eukinaz, alderdikideai berak ainbat bider eskatuta, euren uste-osoa, berari emon arte.

Zoritxarrez, oso gitxi baiño ez eutsoen ulertzen. Eta ez eban eskatzen besterik, gaur garana baiño, nai ta espainitarren konstituzioa onartu ez arren.

Kanobasek, arrazoia euki eban, Sabinok urriñ ikusten ebala esanaz.

Orduko denboratan Sabinok ikusten ebalako nire ustez, espataren arrazoia amaitu bear zala noz edo noz. Begitu or bestela, Frankok indarraren askeneko alegiñak egin eta gero, gaur argi geratzen dana, "arrazoiaren egiak, egi bidetik arrazoitu egin bear dirala", Goiko-Jaungoikuak bereztutako legeak, alan eskatzen dabelako.

1.902ko urtean Abenduaren 1ean, "Irrintzi" izparagiaren agerkera sortzen da Buenos Airesen, Ameriketan, leenengo Euskal izparrangi abertzalea izango zana.

1.903ko urtearen Urtarrillan Sabino, oso txarto egoalako berak euken gaisoagaz, ostera Sukarrietara itzultzen da.

1.903ko urtean Otsaillaren 13an, Euskao Alberdi Jeltzaleak Urkijotar Jase Mariagaz, erabagi batera eltzen da, urrengo auteskundeetan Urkijori bultzatzeko, gorteetako diputadua izan zedin.

1.903ko urtearen Epaillan Sabinori, Bizkaitar diputaduaren agintaritza amaitzen jako, eta Txalbod´tar Pedro aukeratu eben Bilbaoko lurraldetik, Zabala´tar Anjel, Gotzon edo Aingeruk, Gernikako lurraldeagaitik urten da.

1.903ko urtearen Jorraillan "Libe" eres-antzerkiko liburutxoa argitaratzen dau.

1.903ko urtean Jorraillren 26an, Urkijo´tar Jose Mari, Bilbotik urten eban diputadu Euskal Jeltzaleko Alderdiaren laguntzarekin.

(1) Addison´eko gaisoa = enfermedad que lleva el nombre del mèdico Addison Thomas descubridor de esa enfemedad, concerniente al estudio de la tuberculosis de las càpsulas suprarrenales, que se caracteriza, por un color bronceado de la piel.

1.903ko urtean Dagonillaren 14an, Ondarrun irasten da, abertzaletasunezko "Euskal Lagun Arteko" taldea.

1.903ko urtean Iraillaren 30ean Sabinok, oso gaisorik egoalako, Euskal Alderdiaren Lendakaritza izten dau, eta Zabala´tar Anjel aukeratzen dabe lendakari lez.

1.903ko urtean Azillaren 8an Eusko Alberdi Jeltzalekoak, 5 zinegotzi ataraten dabe Bilbaoko lurraldetik.

1.903ko urtean Azaroaren 25ean, Sukarrietan goizeko seirak zirala, Arana ta Goiri´tar Sabino il zan 38 urte eukazala.

Sabino ilda gero, beren lanak Bizkaiko diputadu bidetik, eta bai olerkien bidetik, ainbat lan argitaratu ziran, "Sabino de Arana Goiri´ren Osotasunezko lanetan"(1).

2. 10. (21) *Arana ta Goiri´tar Sabinoren buruz, aipamen batzuk.*

Euskalerria, oso zaarra da, gaztea be, bere beti berriko demokraziaren askatasunezko etorkizunean.

Baiña burutapen edo gogamen(2) guztien antzera, nai edestiko etorkizunean guk gaur agertzeko, nai gure garaiko denboraren ondorengoarentzat, gure betiko lege zaarrak Goiko Jaungoikuari begira bete bear doguz, daukagun berezko edo milla urte askoren obekuntzan lortutako baita Euskal Nortasun lez, argi ta garbi agertu zedin, Munduko beste Nortasunen aurrean.

Erri zaarra izateagaitik, oitura edo ekanduaren arloetako neurrian, oso zuur edo zentzun aundiagaz ibili bear izan eben gure arbasoak, adibidez: izaeraren itxuran; Nortasunaren izkuntzan, beste Nortasunen aurrean izateko daukien eragipenezko indarra erakusteko; bai indarrean be, bestien erasoetatik babesteko; eta Jaungoikuaren billa, errigizartearen berezko ardurak ondo beteaz.

Guazan begitzen baiña, edesti aldetik zer gertatu jakun, ain makal agertzeko, askeneko denboraldi oneitan.

Omo Sapiens Afrikatik zabaldu zanetik, batzuk Eguzkiko Ekialderantza zabaldu ziran eta, Eufrates ta Tigris´eko ibai bitartean kokatu ziran. Beste batzuk alderantziz, Europako Mendebalaren izoztutako lurraldeetara.

Guk, Europako Mendebalean lortu gendun daukagun Euskal Nortasuna milla urte askoren denboratan, Eskoziatik Kadizeraiño, eta Atlant Itsasotik Alemaniaren lurraldetaraiño zabalduz.

On Joxe Miel Barandiaranek esaten eban, K.a.30.000-20.000 urte, eurak sortutako euskerea, izkuntzaren izen-buru lez artuta, Nortasundu zirala Euskaldunak, orduan gaurko giza lez agertuz, euren batzar demokratikoaren bidez.

Iñork, ez zan etorri geiago, Europako Mendebal onetara, eukan giroa, gogorra izan zalako, arik eta K.a. 2.000 urte, Ekialdetik Sargonidas menperatzaillezko jaurgo zaleak, bizitza larritasunean ipinita, Keltiarrak alderrai, Alemaniako lurraldera etorri arte.

Keltiarrak, ez ziran zabaltzen asi, K.a. 800 urte arte, Franko keltiar leñuak Normandipean kokatuz, eta zabaldu ziran neurrian, onartuak izan ziran, eurak ekarri

(1) "Sabino de Arana Goiri" osotasunezko lanetan = "Sabino de Arana Goiri" "Obras Completas". (2) Burutapen edo gogamen = intuición, objeto, juicio, concepto, idea.

ebelako burdiña, nekazariak goldatzeko bear eben tresneria, eta bai ta gurpil edo burdin-txirrika, guk baiño 3.000 urte aurreratuta egon ziralako.

Denbora ontararte Europako Mendebal onetan, Eskoziatik Kadizeraiño, eta Atlant Itsasotik Alemaniaraiño, ez ziran egon, Euskaldunak baiño beste nortasunezko leiñurik.

Arik eta K.a. 753ko urtearen ariñautik, itsasoari begira, Italian kokatuta egon ziran Etruskoak, Lur-Arteko Itxasotatik zabaltzen ebazan merkantillezko Uriak babesteko, euren gudalozteak antolatu arte, K.a. 500 urte baiña, gudalozte orreik euren erromatar kaisartzaren asmoakin asi ziran, eta etrusko eurak be, menperatu ebazan.

Europa osoa menperatu eben erromatarrak, eta nai ta I Konstantinogaz, erromatar kaisertza zabalkera aundienean egon, maldabera aundienean ikusi eban I Konstantinok erroma ori, eta Kristauen I Silvestre Aita Santu eta Kordobako Osio gotzaiñagaz alkartuz, Mundu osoa, katolikotasun aberritasunean batzangotzea erabagi eben, ekintza ori aurrera eroateko asmatu ebazan lege guztiak, danak ziñeskintzatuzko(1) aginduagaz ezarrita.

K.o. 409ko urtean, Godoak, menperatu eben erromatarren kaisertza, eta Leovigildo arrianoen erlijiokoak, bere seme Ermenegildo katolikua il ondoren, berak esan eutson beste seme Rekaredori, katolikotasuna besarkatu egiela, ta K.o. 587ko urtean arrianoren erlijioa bastartu ondoren eta katolikotasuna besarkatuz, Toledoko Uria, godoen kaisar toki lez artuta, 589ko IIIn eleiz batzarraren urtetik asi ziran eleiz katolikoen kaisarrezko batzarretan, katolikotasunezko erlijioa, itsutasunen sinismenera bideratu ebena gaurko denboretaraño.

711ko urtean agertu ziran mauritarrak, eta asmo guzti orreik, pikutara joan ziran 1.492ko urterarte. Bitartean, katolikotasunezko erlijiaren gora beragaitik, euskal lurrak naastuten asita, katoliko orrein(2) legea, danean ezarri gura ebelako.

Eta katolikotasunaren aberkuntzazko fazizta orren zabalkeraren neurriz, asi giñan Euskaldunak, baitatuz euki gendun demokrazi eder eta sendoagaz, "Nortasunezko Il Larrian".

Il-bizi orretan gagozala, Frantzian, 1.879ko urtearen iraultza sortu zan, errigizarteak ezin ebelako itsutasunezko lege orreikaz, ez atzera ez aurrera egin, eta legeak bereztasunezko lekura eroan barik, Europa eta Mundu guztiko erriak nastekatu ebazan "Laterri" barriak(3) sortuz, eta gogortuta euren sasi-jainkoaren izenean, menpetasunezko giza arlo orreik, gure erria il zori-zorian geratu arte.

Il bizi orreitan gagozela, euskal seme guztien artean, bat agertu jakun indartsu, biotz guztiagaz esaten ebena: "Ez da egia ori", "Euskadi dalako Euskaldunen Aberria".

Eta Euskaldunen artean, dan pare-bageko seme ta gizon onegaz, mintzatuko gara orain emen:

Leen: *Abertzale bezela.*
Bigarren: *Kristau lez.*
Irugarren: *Sabino´ren Nortasuna ta Nafarroa.*

(1) Danak Ziñezkintzatuzko aginduaz ezarrita = todos estigmatizados o obligados con o por mandato o imperastivo dogmàtico. (2) Katoliko orrein legea = orduko denboratan eta 325ean Nizearen eleiz Batzarretik, dan guztiak geratu giñan katolikotasunezko aberkidetasunaren menpean, nai ta euskaldunak gure Lege Zaarrakaz aurrera egin danoren aurka, Euskaldunaren askatasunezko demokrazia euki dabelako Europako Mendebal onetan bakarrik aurkari, gaurko lurralde txikerrean kokatu arte. Eta ortze gagoz gaur: "azagaria, beti danik ollotoki barruan sartuta daukagula", ez dogulako gure artean Goiko Jainkoaren gurketatik iñor, nai ta "katolikotasunaren aberkidekidetasunezko tzekor ori, urrezkoa izan arren. (3) Laterri barriak = estados de nuevo cuño, carentes de toda ètica natural o concerniente a èsta naturalización.

Laugarren: Erri gizon bezela, Euskaldun legez.
Bostgarren: Erri gizon bezela.

2. 11. (22) Sabino, Abertzale bezela.

Emen abertzaletasuna aipatzen dot, karlistasunezko izena alboratuz, gaur egunean oraindiño dagozan zalantzak, andiak diralako estabaida onen gora beran, batzuk orain be, argitu barik daukielako zer dan karlistea, edo ta Euskal abertzale izatea.

Zalantza orreik alde batetik, jakintzaren utsun aundiak diralako. Eta bestetik, gure etsaiak uts orren jakiñean, jakinduriz(1), eten barik ziri posoitsuak sartzen dozkuelako, gure arteko zalantzaren suak, iraun egin dagiezan, ezeren gel-erazle barik.

Urten bearra daukagu orko zillotik, len bait len. Eta bide ori argitzeko, zer obe jakitea baiño: Fueristak zergaitik garan, eta karlistakin zergaitik izan giñan. Orregaitik, noiz arte Furistak, eta zenbat denboran karlistak.

Foruen ekandua(2), bakarrik esan gura dabena: "Erri baten etorkizunetik, azturan edo ta jendekuntz lez, datozan Demokrazizko Zor-Ordezkaritzaren Oitura Zaarrak, bere Nortasunaren ardurakoak direla, bera dalako bere jendekuntzaren arduradun bakarra, edo Jabea.

Orregaitik, "Erria Bera dala Tituludun, edo Foru izen buru orren esanguraren jabea. Bere Ekanduzko Zor-Ordezkaritzaren ardurak diralako.

Eta Nortasunaren eskubideak ikusita, erreza dalako jakitea, zergaitik ez garan, ez espainitarrik, ez espainitar karlistarik.

1.700eko urtean V. Felipe´k, espainitarren erregetza borroka bidez artu ebenetik aurrera, gureak ia eginda egon ziran erri lez, ez gendulako jakin: "euren gudalozteko indarrak nola menperatu", eta "euren zapaltzaillezko arau legeak gure aurka, zelan alboratu".

Nai ta gure erriak borrokaren bidez batzuetan, eta jakituriz besteetan, alegiñ asko egin arren, ikuspen baltzak argitzen ziran 1.823ko urtearen eskeroztik.

1.830eko urtean eta VIIn Fernando il zorian geratu zanetik, moztu eutsoezan bere anai Vn Karlos Maria Isidro´ri errege izateko eukazan eskubideak, bere alaba IIn Isabeleri zabalduta bidea, erregiña izateko.

1.832ko urtean Vn Karlos Maria Isidro, VIIn Fernandoren anaiak, bakezko bide guztiak amaituta, guda aurkeztu eutson bere koiñata ta bere loba IIn Isabel´eri.

Eta guk, gure Foru Legearen larritasuna ikusi ondoren, laguntza eskatu geuntson Vn Karlos Maria Isidro, VIIn Fernandoren espainitar erregeen anaiari, euren Laterritutako espainitar jaurgo ta lege barrien eritziekin, gure Foru Legeak zapaldu egiten ebazalako, euren morroiak izateko alegiñakin.

Or amaitzen ziran gure karlisten izateak, karlistak eta Isabelinoak, espainitarrak izan zirelako.

Gu Euskaldunak alderantziz, ezer ikusirik ez daukagunak katoliko aberkide batzango zaleekin, edo espainitar fazizta menperatzailleekin.

(1) Jakinduriz = sabiamente. (2) Foruen ekandua = moral, costumbre o conciencia de un pueblo a regirse a si mismo, como responsabilidad de sus propios actos en su crecimiento cultural.

2. 12. (23). **Oar txiki bat emen.**

325eko urtean Nizeako Batzarrean Kristauak, ziñezkintzatutako katolikotasunen aberkuntzara aldatu ziranean, Europaren ta Mundu osoaren goitik berako erlijio orretan batzangotzeko, 1.789ko urteraiño edo Frantziaren iraultzaraiño eldu zan, zentzunezko jaurkintzaren ezin geiagoan, Europa osoko gizartearen jaurkintzazko burdi ori ezinean, zurruburru(1) edo ta karraxkako(2) zaratarekin asi zalako.

Eta ainbeste borroka ta il ondoren, lengo eritzi ori aurrera eroateko, kaisarrezko zapaltzailletasun legeekin aurrera egin eben, Europa ta Mundu osoa lurralde andietan laterrituta, Jaungoiko Irasleak gai oneri ipini eutsoezan Lege guztiaren aurka, eta espainitarrak gudaloztearen izkilluak ezeren lotsa edo begirun barik ibilita.

1.693ko onen erdi-mendeko urtetan ibili dira espata ta gudaloztearen indar guztiagaz, Sasi-jainkoaren ordezko lez izan gurean, eta gaur, baragarri lez agertu arren, bardiñ gure dabe aurrera egin.

Zer egiteko eta noiz arte?.

Beti ibili dira kaizar katoliko aberkide aueak, menperatzailetasunezko eritzi ta tresneriekin gaur arte, Jaungoikuaren bereztasunezko bideak zeintzuk diran, iñork konturatu edo asmatu ez egiezan.

Orregaitik egiten dot itaun au Sabinoren buruz: "Konturatuko, edo jakingo eban gure Sabino´k, katolikotasunaren aberkidetzazko gora beran zeozer, gu Euskal Aberritarrak izanda, "Eusko Alderdi Jeltzalea" espainitarren erakunde artean, ain sinis bete betean, beste Alberdi bat bezala irasteko ?.

Nizean, Mundu au batzangotuta bideratzeko artu zan Katolikotasunean aberkidetzeko erabagia, Erroma-Godo´tar kaisertzazko erakundearen, ainbeste gogortasunezkoa izan zan, eta Frantzian porrot egin zanetik eta gero, Europa ta Mundua Laterritzeko artu zan erabagia, oso gogorra ta guzur aundikoa izan bear zan, erri guztiak, gudaloztearen indarrakaz, beartu ziralako.

Argi dago, asieratik indarragaz almenduta egon ziranak, bizitz au euren eritzira bideratzeko, Frantziko iraultzaren ostetik be, bardin bardiñ egin ebela, eta kostako jakula, bere zetzunezko bidera eroaten, menperatzailletasunezko indarrean zaldikatutako oituran dagoezalako.

Bizitzeko daukagun Mundu onen jaurkintzazko antolamendua, lapurkeriaren eritzizkoa bada, edo ta Jaungoikuak ipinitako legearen aurkakoa izanda baiña, guzur edo okerrezko antolaren ekintzagaitik, guztiz ankaz gora daukagu, ia alango denbora baten, Berak, naikoa dala esan arte, guzur artean igeri gabizelako, ta urbizi edo ur lasterren aurka gaiñera.

Jakintsu orreik, nik uste dot konturatuko direla, edo ta kontuan jausi bearko leukiela, "bereztasunezko legearen aurka egiteak, bere zigorra daukala", argi ikusten dalako, Mundu onetan betirako, ez dala ezer.

Zalantza aundiak daukadazelako, bere lekura eldu baiño ariñago, itaun au egiten dot.

(1) Zurruburru = ruido confuso. (2) Karraxka´ko = ruido estridente.

Sabinoren bizitza Euskalerriko edestiaren jarraiagaz edo lojikagaz batera erakusteko: Sabino lez, edo alangoko gizonak, derriorrean jakin bear ebela, katolikotasunaren aberkidetasunezko guzur aundi au zelangoa zan, eta ez ba ebela argitzen, kalteak, aundiagoak izango zirelako, zala.

XVIII gizaldetan, eurak izan diralako, Mundu onen kontrola eroan egin dabenak.

Bai ta orain be, Munduko indar aundiak eukin arren, ekarten dabezan asmo zar eta betiko guzurrak, urriñetik ikusten doguz gero ta argiago, nundik nora, eta zelan betiko zapaltzaillezko asmoakin etorten dirala.

2. 13. (24). *Sabino´ren Abertzaletasunari ostera ebatuz.*

1.808ko urtean Napoleonen aginduko asken denborak zirala, aberri barri bateko espainitar zaleak, eleiz katolikoen agindu edo aolku bidetik, Baionan egin eben gorteko batzarrean asi ziran asmatzen, jaurpide barri bat egin bear zala, Europa osoa Laterrizko aberritasunaren jaurkintzatan biurtzeko, bai ta Erdiugarte onentzat, Portugal izan ezik.

1.810eko urtean Iraillaren 24an, gobernuaren orokorrezko batzarren deia zabaldu zan, Leongo(1) ugartean ospatuko zan batzarrerako. Eta askatasunezko(2) batzar político orreik 1.810eko Abenduaren ospatuz, erregearen aldeko diputadu oneik aukeratu ziran: Gutierrez de Huerta, Pèrez, Valiente, Cañedo, Rodríguez de la Bàrcena, Rich, Jáuregui, Mendiola. Eta liberalaren aldetik: Muñoz Torrero, Argüelles, Espiga y Gadea, Oliveros, Perez de Castro, y Fernandez de Leiba. Bai ta, alderdi bageko Morales diputadua.

1.811ko urtean Dagonillaren 18an, orokorrezko batzarretan egin ziran legeak, irakurri ebezan aukeratuko diputadu oneik, jaurgo barri orren leenengo zati biak, eta laugarren ta askeneko zatia, Abenduaren 26an irakurrita.

1.811ko urtean Dagonillaren 25ean asi ziran lege barri orrein onartzeko burrukaldi edo eztabaidak, 1.812ko urtean Urtarrillaren 23an amaituta konstituzio edo jaurgo barri orren legeak, Euskal-Katalan eta Galiziako aberrien gaiñetik edo eurak kontuan artu barik egin ziranak, danak naastuz zorro baten sartzeko.

1.812ko urtean Epaillaren 8an menperatzailletasunezko jaurgo barri orren legeak, diputaduagaitik izenpetu ta argitaratzeko, VIIn Fernando erregeen agindu, eritzi ta borondatearen aurka, itz-aurre onekaz ezagutzara emon eben:

"Goiko Jaungoikuaren esker onagaitik VIIn Don Fernando errege, eta espainitar erregearen konstituzio onegaz, erregearen zaindaria urrun-aldi edo espetxean egoteagaitik, Orokorrezko eta oiz besteko gorteak izendatu ondoren, ikusi ta ulertzen dozuen guztiak jakin bear dozue: ".....".

1.812ko urtean Epaillaren 18an diputaduak izenpetu, eta 1.812ko urtean Epaillaren 19an diputadu ta erregearen ordezko orreik, ziñez itz emon eutsoen jaurgo edo konstituzio barri orreri.

1.814ko urtean VIIn Fernandok ezereztu ebena.

1.820ko urtean VIIn Fernando berak, ostera onartu bear izan ebena.

(1) Leon´go Ugartea = Erdiugarte onen Ego-Mendebalean dagozan Ugarte bi dira: Kadiz eta Fernando Santuarena, areazko lurrekin bat eginda dagozenak, eta Pietro actuaren itsas-besangarekin zubi bi daukazela. (2) Askatasunezko batzarrak = nuevas juntas por la independencia de los españoles, del acoso napoleònico francès.

1.823ko urtean VIIn Fernando erregeen osotasunezko agintea ostera berrezkuratuz konstituziori ostera ezereztu ebena.

1.823ko urte orretan VIIn Fernandok, konstituziori ostera ziñatzera beartu eutsoenean, amaituta geratuko jakozan beste alegiñik egitea.

Eta 1.836-1.837ko urte bitartean, ostera azten dira bitarteko eztabaidakin, arik eta 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, azpikerizko besarkada zikin baten bidez, konstituzio barri ori legeztu eben, Euskalerri, Kataluña ta Galiziarentzat au esaten ebena: "Se confirman los fueros de las provincias vaskongadas y Navarra". Atzean eta urren, bezte geigarri bat ipiniaz: "Sin perjuicio constitucional de la monarquia".

Lege onekaz, debekatu egiten euskulako, gure erriak nortasun aldetik euki ebazan eskubide osoak, gure Jaun Zuzentzailleak aukeratu edo autatzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an Bergarako besarkada zikin bategaz amaitu zana, Vn Karlos Frantzira erbezteratu zanean.

1.872-1.876ko urte bitartean egin zan bigarren karlistada, eta galdu zanetik karlisten bigarren aukera au, euskaldunak ez gendun zergaitik eroan karlisten izenik, eta gitziago arrazoirik.

"Sabinok, 11 urte euki ebazan denbora onetan".

Zori txarrez baiña, ainbat iraun eben karlisten eta erreketearen izenezko bidetik, eta batzuk Palanjista biurturik, bezteak or dabiz Madrilletik aginduta, zer diran jakin barik.

Jaurgo edo konstituzio barri orren bidez, espainitarrak edo ta espainitar karlistak, erregetzazko erakundea euki eben alosokerizko erakunde lez, nai gero Vn Karlos eta VIIn Karlos´ek porrot egin da gero, konstituzionalista barri orreik, alosokerizko agintaritza kenduz, erregetza, biltzarreko edo jaurgo barrien errege biurtu.

Orregaitik zentzuzko arloetan, iñondik begituta be, ez daukan zuzentasunezko arrazoirik, konstituziozko txebera edo sare-arte au ipini euskuen, gizaren eskubide guztien gaiñetik: "La monarkia comprende la suprema soberania polìtica, y por ello representa la unidad constitutiva de España. Pues la monarquia personifica la unidad nacional"

Noren Aberria ?.

Neurea ez, ni Euskalduna nazelako.

Espainitar barri onentzat, sagarrak, madariak, mallukiak, izkuntza guztiak eta abar, bardiñak ote dira ?.

Bai?.

Euren guzurrezko bideetan sartzen gaitue sasijainko asmamen baragarri orreikaz, eta ez-jakiñeko bide orretatik agertzen dira: "illuntasunezko ez-jakiñak, alkar ikusi eziña, borroka latzak eta abar.

Orain, Sabino´ren abertzaletasuna ezagutzeko, l883ko urtera joan bear dogu.

Amak, aitaren aginduak, edo bien arteko aleginak, seme/alabeen ikasketak maila nagusian beteteko; nai, aita urte bat arinago il zan-arren, Bartzelonara eroan zituan Koldobika eta Sabino.

Bartzelonan ikasten dabiltzala eta l888´urterarte, Koldobikak sartu eutson Sabinori abertzaletasunaren indarra. Sabinok orrez gain, baten baino geiagotan, Euskalerriko

leenengo abertzalea Koldobika zala esaten eban; naita onek, beti esan: "aintza oro Sabin´entzat ".

Koldobika, Sabino baino urte bi zarragoa izan zan, eta onek sinist-arazi eutson Sabino´ri: Bizkaia ta Euskalerriak esku-bide osoa euki ebala politika arloan, euskal erriaren jabetasun osoa eskatzeko; l839´an gerla osteko legezapaltzailleak esaten ebana, gu "espainiako errikoak garela" ezereztuaz.

Sabinok, oldozmen ori gogoan erabilita, sakon aztertuaz, eta Euskalerriko edestia, bai esku-bideak be ondo jakiñaz ziñ egiten dau: "bere bizitz osoa emongo dauela, Euskalerriaren eskubideak, espainitarren menpetik bir-eskuratu arte".

Eta JAUNGOIKUA´ri: bera izan zan osoa eta euki eben guztia ezkaini eutson. "Eun bider ipiniko neban samia marrauza´ren(1) azpian Euskalerriagaitik, nire izeneko oroimenaren naia erakutsi bage", esanda.

Jakiteko, pare-gabeko abertzale baten buruko mina noraino eltzen zan, artu daigun espetxetik bigaldutako eskutitz au Arantzadi´tar Ingartzi-ri l895´an Iraillako l4an.

Neure biotzeko gogaidea (correligionario): Ispaniako nekaitza gogorragotzen dabil. Kanobas konturatu da, eta Robledo´tar Romerok, lagundu ta kiñatu egiten dau.

Gobernariagaz, bai espainitarrak daukan Euskalerrian fiskalekin be, itz egin dabe, eta esan eutsie: bearrezkoa dala nai ta nai ez BIZKAITAR aldizkaria eta EUSKALDUN BATZOKIJA ezereztutea, kosta ala kosta, eta eurak eskuartean daukien indar guztiekin, neu deuseztutea !

BIZKAITARRA´ren 32´ko zenbakia salatuta; l2´an BATZOKIA sarratuta; eta l3´an batzordea giltzapean baitu ondoren: baztartuta dagoz, ni nauen antzera emen sartu nintzanetik. Danari banan bana, aitorpena eskatu dauzkue. Amar gara.

Uztaillaren 21eko zenbakien orrez gain, gaur birritan auzipetu egin nabe, oingo, bost-garrengo zenbakiagaitik: leenengo, guda-agintariak, eta gero, gizarteko legedun bidez.

Gudako agintarien aldetik, oso illun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, Jainkoa´ren ardurapean itxiten dot ori. Gizarteko-legedunen aldetik, esan leike, betirako gura dabela ni amen egotea, 5.000 pezeta eskatzen dauztielako askatasunagaitik, eta 2.000 pezeta epaiketaren erabakiagaitik; nik, ez daukat diru ori.

Oraiñ arte, ez dautset esan berorri ezer, zein dan gaurko gauza.

Jakin-arazian berori ipintea da, jarraipenean doana: Guda-epaileen aurrean aitortu egin dot, BASO-JAUN´en izena ezin dotela agert-arazi; Donostikoa dala eta bertan bizi dala(2); laguntzailea dala eta orregaitik ez dagoala arpidedunen zerrendan; eta onei, nire anaiak bigaltzen dautsiela aldizkaria, arduraduna bera dalako; eta laguntzailleari neuk bigaltzen dautzietela utsaren ordean, euren zerrendarik euki-gabe. Koldobikak bardin autortu dau, erakutsiaz nire uztez, arpidedun zerrenda.

Adi egon, ze ... : idatz lanen egillea aurkitzen dabiltz, lumatik zakurrak, eizaren astarnak artu egiten dauan antzera; eta loditu egingo direz aurkitzen ba dabe, katamotzak egiten dauan beren arrapetakoakin´en antzera.

Esan leike, emengo Koronelak, BIZKAITARRAren ale bat artu dauela, ta kilikagarri,

(1) Marrauza´ren azpian = debajo de la espada, machete, navajote, etc. (2) Ugerrezko espatien esaera ez daiten Espaniako gudalozte osoari ezarri, ortik egurazten dabiltz gudari-buru batzueri izan ezik.

bai irangarri izenbageko orri bat, guda-jaurlariak. Geure etsai gixatxar, baten batek bigaldu eutsoz.

10ean gabaz gudal buruak, gure elkartea oldartzeko asmoa euki eben. Guda jaurlariak, Bedian egonda bera, gabeko ordu bietan etorri bear zeuen, urrut-idazkintzatik(1) deituta. Orrek arindu eban elkartea´ren itxitura(2).

Baleiteke ona deitzea, orko arpidedun guztiari, euren galdeketak egiteko, egarriz dagozelako, ia nor dan BASO-JAUN ori.

Jainkoagaitik ez ditezela agertu, emengo gudal agintariak oso asarratuta dagozelako; eta goiko aginduak oso gogorrak daukiezelako.

Emen, ez BIZKAITARRA, ez EUSKALDUN BATZOKIJA be, ez dogu arriskuan sartu.

Eriotza emoten badautsie be, Espainolaren, legeen gainetik eta onen gogoen aurka izango da.

Euren asarre aldiak neure ganean botako dabez. Baina uste dot Jainkoa neugaz egongo dala, naikoa eta soberan daukat Beragaz.

Irakurri eiozu eskutitz au Zabalo´ri, eta aolkua emoten dautsut, berarekin batera egin dizuezan itunketak, ia ze egikerak bear diran, Espainol-agintariai, aztarnak gal-erazteko(3).

Batera esan eiozu bere eskutitza artu nabela, eta bera irakurtea gozagarria izan dala neurentzat.

Arineketan idazten dot au. Baztartuta nauan lez, ez da izango erreza eskutitz au bigaltzea.

AGUR !!. *SABIN*

2. 14. (25). *Oar txiki bat emen.*

Lengo denbora guztiak eta gaurkoak ikusten dogun lez, bardin antzekoak dira, gogortasunean izan ezik. Guzurrezko tresneriak erinduz, dana dalako, euskaldunak eta Mundu onek daukazan erri ezberdiñeko nortasunari, bear dauazan jabetasunak ez emotea. Eurak azpikeriz, ostuteko dabiltzan guzurrezko maltzur Joko orreik ostondu ta Munduko giza aurrean SASI-KAIZAR-JAUN-LEZ agertzeko.

Len egin leikien zapaltza ori, espataren indarraz neurtzen zalako arrazoia.

Baina gaur, espata ori, jokoz-kanpo geratu da !, eta AMAREN ta SABINO´renak, seme alperrak izango gara, ez badogu Euskalerriaren askatasuna ondo bideratzen, laster, Euskadiren demokrazizko argi ta egia irabazteko.

Berak, beti esaten eban: Europa, Amerika eta ludi onen erri guztiak ezagutu bear dauzkuela, gaur, etenbako lana erreztu daiten, jabetasunaren billa.

Ori lortzeko gaur, batera joan bear dogu, espatak eta arpeleko indarrak alboratuaz.

Gaur, arrazoia bear dalako ludi ontan askatasuna lortzeko. Eta arrazoia daukagun nortasunagaitik, gurea dalako. Ori da ikusi bear dabena gure inguruko erriak !.

(1) Urrutizkiñatik bialduta = enviado por telégrafo. (2) Elkartearen itxidura = el cierre de la sociedad. (3) Aztarnak galerazteko = hacer perder las pistas.

Begitu bestela Sabino noraiño eldu zan bideak aurkitzeko. Berak esate eban, dirua eskuratu bear dogula, Euskerea egon zan zulotik atarateko, eta orretarako: nekazaritza aberastu, lan-tokiak ugaritu eta abar; ikastolak ugari, jarraian, eta aldun guztiko abiadan ipinteko.

Ez ori bakarrik, zergaitik katolikotasunean aberkidetu, edo bardiña dana, espainitartu gure eban, berak sortutako "Eusko Jeltzaleen Alderdia" euren artean lanean ipinteko Alberdi barri lez ?.

Europa ta Mundu onen giza guztiak, Jaungoikoaren Sorraldiko Legearen aurka, "Judu Erromatar Godo Mercantil Aberri Katolikotasunean Batzangotu gura ebezalako, edo Sabinok jakin arazian euki ebalako, IVn gizaldiko Nizeatik, Izadi onen giza guztientzako, Jaungoikuaren aurkako eritzi orreik ipini gura ebazala, edo bidean gagozela, konturatu zalako ?.

Izadi onen ukatu ezinezko legea da, eraiki bear diran gauza guztiak, euren oiñarritik asita eraiki bear direla, ez dogulako beste almenik. Orregaitik urten bear dogu Sasi Jainkoen asmakerietatik.

Konturatu gaitez ba, Kanobasek esaten eben antzera, Sabinok gaurko egoera ber bera ez ba ebela ikusten, urbil egoala.

Guk gaur eta len be, ez dautsagu baiezko ziñ egin kostituzioari, eta berak be, ez eban egingo. Eta egingo ba eutson, larrialdiko zillotik atara arte izango zan.

Beren eskutitzetatik agertzen dan ulermen bakarra, abertzaletasun oso aberatz bat da.

Eta badauka bai, Sabino zalantzan ipini ebanak, edo ipini eben elkarteak gaurko denboratan: "nai, beren euskerazko arloan, nai beren gogapenengo arloan, nungo parkamena eskatu, lan zakar oiek, egin dabezenak".

Sabino, gure arrigarrizko argian biurtu zan, eta gaur, gure izar nagusia izan bear leuke, norkeri uztelak, etzaien ziri-pozoitzuak, arroztasunetik sartzen jakuzan guzurrezko asmoakin, gurekin ez daukienak zer ikusirik, bastartuaz.

Sabino, etxekoa zan, eta beren senitarteko etxe nagusiagaitik bizitz osoa eman ebana.

Gitxi baino ez direnak eltzen, alangoko lan eta gogomaillako arloetan.

Orregaitik ba, "AINTZA ORO BETI, ARANA ta GOIRI-tar SABIN´entzat".

2. 15. (26). *Arana ta Goiri´tar Sabino, kristau bezela.*

Ez dot uste ezertxo be esan bear danik, Euskalerrian orduko denboratan egon zan kristau giro sakonagaitik, eta Sabinoren senitarte inguruetatik, gitxiago.

Bere bizitzak erakusten dauskuna, fede aundiko gizona zala, bai bere izatean, bai bere ekintzetan.

- Leen: Bere Nortasunagaz, JAINKOA´ri begira dago beti, ortik artzen dauelako beren argitasun osoa.

JAUNGOIKUA Sabino´rentzat, Nortasun osokoa(1), eta BEREN ardurapekoa(2) da.

Begitu daigun bestela, aita Maurok idatzi eban liburutik, Sabinok, zer esaten dauan Larrazabaleko Itzaldian. Ba.., ikusten dogunagaitik itzaldi bat baino geiago, esan bear da, bere oinarrizko kristau fedearen aitortza dala:

(1)Nortasun osokoa = personal. (2)Beren ardurapekoa = providencial.

-"Nere erriarentzat, katolikuntzaren adierazpena egiten dot, bere aojakintza(1), bere izatea gizartean(2) eta politikoa, katolikuak diralako. Nire erriak baiña, katolikuntzari aurka egingo ba leuzkio, uko egingo neban neure abendatik, JAINKO´rik gabe, ez dogulako gura ezer !.

Badago beste atal-bat, Sabino´ren kristautasun fede sakona argitzen dauana; eta onen aitorraldia, monsiñore Pierolak emon eban, orduan Gazteizko gotzaina izan da(3).

Ego Ameriketatik etorritako erlijiozko erkidego talde bat, Gernika inguruan ezarri ziran. Eta gure Erriaren oiturarik ez eben ezagutzen lez; onein gogamenetan uste eben, ondartzara joan leikezala askatasun guztiaz.

Baina askatasun orrek, bertako baserritarren gogaeragaz topo egite eban, eta ez ziren adostasunean egon.

Sabino, baserritarren urduritasunaz arduratu zan, kristau aldizkari baten bidez gertakizun ori zabalduz.

Baina, Gazteizko gotzainak, txizt egin eutson Sabino´ri eskutitz baten bitartez, ez zabaltzeko aldizkaritan galdu-bide orreik: "Ezagutzen dodaz zure katolikotasun garbi ta zuzentasunezkoak, esaten eutson, baina berorreri eskatzen dautsat, aurrerantzean ez ibilteko olako galbiderik".

Sabinok, lotsagizun aundiko eskutitz baten bidez erantzun eutson: "fede aundiko kristaua zala bera, JAUNGOIKOAREN iturburuko zerbitzuan, eta eleizen nagusitzan".

Baina, ez eben ontzat artu, edo naikoa ez zirala beren azalpenak, eta Sabino bera aurreratu zan Gazteizko gotzaintegira, bertan egon ziran guda gizon ta eleiz-gizonen aurrean.

"Bai, esan eutson gotzainak, niregana etorri bear izan eban berorrek; nik artuko nebazalako neurri egokiak, galdubide ori ebagitzeko".

Sabinok, lotsagizun aundiaz entzun eban gotzainaren oarkizuna, ta gotzaibarrutikoen oarpideakaz arduratuko zala andik aurrera esan eutson.

Sabinok urten ebanean, gotzaiak, bertan egon ziran gudal gizon ta eleiz-gizonai esan eutsoen: "Ori da, eleiz-barrutian daukadan kristaurik onena".

Eleiz gizonen artean, Mujika´tar Mateo, Gazteizko gotzaina izango zana egon zan, eta berak esan eutson On Joxe Miel Barandiarani gertakizun orreik.

Sabino gaurkoratu egin bear dogu, katolikotasunezko eritziaren kanpotik, beren oiñarrizko esandakoak eta egindakoak gaurkoak diralako.

JAUNGOIKOA´ri ezkeini eutsolako bere bizitz osoa, eta orrek bakarrik, naikoa esan gura dabela uste dot nik.

Ez da alabearrezko edo ustegabeko gauza, IVn gizalditik eta Nizeako eleiz katoliko batzarrean ziñezkintzatu ziran okerrak, zuzentzen ibili ondoren, ainbesteko lan egin ostean, oraindiño IVn gizaldiko arazoarekin egotea, Jaungoikuaren egira urbildu barik.

Orregaitik, ez da arritzekoa, giro ontan, ezi ta azia lzan dala gure Eusko AIderdi Jeltzalea, Izadi onen Jaungoiko Sortarazleen jarratzaille izateko; orrela jaio zan kristau demokraziaren ekintzetan be, Europan ondo sarturik egonda, egiten ebazan orokorrezko billeratan.

(1) Aojakintza = tradiccion.(2)Bere izatea gizartean = civil. (3) Gizona eta beren Bidea, 46-47-ko orrietan datorrena.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio´ren gobernua, Europako beste gobernuen kide batzukaz be, eta P.N.V.´ren izenagaz, ainbeste billera nagusi egin ebezanak, kristau demokrazizko alderdia sortzeko beste Europar kideekin batera, arik eta katoliko aberkide faziztak, menperatzailletasunezko indarra ta eleiz katolikuaren sakratuzko aberkidetzan batzangotzeko, kurutzadaren alegiñ gogorrak erakutsiz, kanpora bota egin ebezan arte.

Zer esanik ez, azko arduratu zirala kristauzko demokraziari, indar edo arnaza emoten, edestitik txarto eginekoak kentzeko, eta Europa aberastuteko benetako Jaungoikuak emoneko eskubideekin.

Katoliko aberkuntza onen mami aundiko gai au, ikerlarien esku arteko zuzentasunetan dago. Gaur, inoz baino geiago.

Nabaritzen da, gaurkoratu egin bear dala Eusko jator zaleen artean be, ekintza auxe ber bera.

2. 16. (27) *Sabino´ren Nortasuna eta Nafarroa.*

Sabino´lako gizon baten Nortasunagaitik zeozer esateko, asko jakin bear da beren bizitzazko aztura bidetik: ikas bidetik gitxi gora beragoko jakiñaren neurriak, erlijioaren aldetik bere sinismena, erri gizontasuna ta abertzaletasunezko arloetatik bere sinismen ta borondatearen emankortasunak, eta abar. Eta oraiñarte ikusi dogunagaitik, danak goi maillakuak izan dira

Baita argi ta garbi dago, edesti guztiko denboraratan, euskal nortasunaren egi ta askatasunaren demokrazizko maillak, andienetarikoak izanda, eta bere inguruko erri guztiekaz, begirun andiko edertasunezkoak izanda, auzotar guztiekin lotsazko ardura aundienean bizi giñela, arik eta katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko eritzia, kolonizatuko maillan ipinita, erromatar eleiz katolikua gudaloztearen laguntza osoagaz, Europa osoa egitik urrundu eta euren katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzeko, gogor ta zitalez, IVn gizalditik, etenbageko eraso alegiñetan asi arte.

Sabino, 1865eko urtean Urtarrillako 26an jaio zanetik, 1.903ko urtean Azillaren 3an goizeko seiretan il zan arte, ta baita gero be, Euskalerrian bizi-bizi ziran menperatuaren ta kolonizatzeko zigor alegiñak, ta 1839an leen karlistaren gerla galdu egin gendunetik espanitar gudaloztearen aurka, jakin gendulako, espainitar talde biak, gogo beroko itxaropenekin antolatzen ibili zirala alegin aundiakaz 1872-76ko bigarren gerlarako bear ebezanak.

Sabino jaio zanean, Euskalerria il-zoriko larritasunean bete-betean egoan. Aberriko giza barneko uts oso baten.

Begitu noraino izango zan Aberriko giza barne gabeko ori, Sabinoren jaiotzatik eta bere gazte denboran, politika arloan zortzi talde egoteko: Katolikuak iru talde: Karlistak, Integristak eta Fueristak. Monarkiko liberalak talde bi: Gordetzailleak, Fusionistak edo Batzango zaleak. Eta iru errepublika zaleak: Radikala, Federala eta Posibilistak.

Bat bera esanda be, ez zan Euskalduna, danak espainitarrak ziralako.

Sabino, orren giroan asi zan Euskalerriko gazte lez, baina ez bere etxeko sendi lez, beren aitite amama eta guraso aldetik euki zituzen "ERLIJIOA eta FORUEN" elburuak abertzaleak izan ziralako.

Beren aita, guztiz beartuta egon zan karlistai laguntzen, etxerako kalte aundiak ekarri arren.

Ikusten dan lez, etxeko arnasa obiagoa ezin izan, eta or berarentzat ta sendi osoarentzat, erro zintzo ta sakonak, nai kristau lez nai abertzale lez.

Au da aurrez aurre, Sabinok euki eban ikuskizuna, bere jaio eta gazte denboran: Nortasun arloan, bizia emoń bear jakon eremutartutako erriari.

Euskalerriaren burutapenak Sabinori, Euskaltasuna indartzera beartzen dau, aaztu barik, bere irabazpidearen askatasunagaitik Euskeraz berba egitea sarritan, barregarri agertzen bazan be, Euskeraren birbaliotasunezko laguntza onekin indartuteagaz, bere erabilketa garatu edo ugaritzen zala.

Erri orren borondateak mugatzen dauz burutakizun orreik, eta apurka apurka zeazkatzen dauz, beren erakundeen gogoa daukolako eta beren barruko batasuna erakutsi nai daualako.

Gernika da, Erri orren Nortasuna, ondoen ikusten dan lekua agerkerako izatean, bere millaka urte azko daukiezan erakundeetan. Eta Gernikako Arbola da, Euskalerriak daukan Nortasunezko jabetasunenaren leialtasunezko esangurean, bizi biziko dirdiran.

Sabinok on artzen dau, Euskalerrian Euskal il zoriko giza barrena nola dagoan. Barru barruan Sabinok, erri guztiaren zatia izaten dakielako, eta askenerarte gura dau baieztu, beren zerbitzuaren alde esandakoa.

Egizale aundi bat da Sabino, eta onartzen dau dan burutakizuna, bere erria aurkitzen eta azaltzen dan mail buruan, zazpi izatearekin osotuta eta zazpiak bat izendatzen jakonari, eta or azita goratzen dau Euskal sendi guztiaren azalkuntza(1).

Sortzezkoa da oldozmen au, eta Sabinorekin dauka beren asiera. Gai onetan eskua sartu baino arinago, Euskal politika, espainitar izaera baten lan egiten dau, eta orren zentzutik ibiltzen joango da, karlismo tradizio zaleagaz, gutxi gora beran lotuta dagoana.

Lanaren egin era au, guztiz garrantzidunezkoa da, erri txikerraren azkerari balio jakolako. Orregaitik ausartzen naz Latxaga´tar Joxe Mari´ren laguntza euki nebanagaz, "ERRITARGO´en AlTA, SABlNO´ri deitzea"

"Euskalerrirentzat gaur, Sabinoren ardura aundienetakoa da zalantzarik gabe".

"Eta naita naiez berrezkuratu egin bear dogu gaur, Euskalerriaren osasun onerako, Sabinoren bidea".

Eta gerlako aleginak galduta, Sabinoren ardurak, Nortasunaren argiak biztutzea zan, Euskalerriko gizon/emakurneen borondate onakaz, izatasunezko arrazoiaren borroka naguzia irabazteko.

(1) Azalkuntza = explicación, exposición, explanación, exégesis, comentario, desarrollo.

Bartzelonan ikasten egon zanean, eskutu eskutuan Ikasi bear izan ebazan bere erriaren eskubideak zeintzuk eta nolakoak ziran, eta egoerazko aukera orrek bakarrik esaten aduana, "ez gendula jakin gure nortasun aldetik ezertxo be, edo gauza gutxi baino beintzat, gure Euskalerri maite onen eskubidea, Euskaldunen ardurapean edo jabetasunean ezartzeko".

A ta guzti gure Sabinok, eta gure euskalerri maite au, bere il zorian egon zanean: Biotz guztiagaz aldarrikatu eban, "gure espainitar izatea ez zala egia", "EUSKADI ZALAKO EUSKALDUNEN ABERRIA".

Eta au ikusteko, artu daigun beste azkoren artean, l895eko urtean Iraillako l4an Arantzadi´tar Ingartzi´ri idazten dautson eta goian argituta daukagun eskutitzatik zatiau: "Guda´ko agintarien aldetik, oso illun ikusten dot. Ez daukat ardurarik, JAINKOA´ren ardurapean izten dot ori".

Ikusten dogu lez, Sabino bere Nortasun osoarekin egiten ebazan gauza guztiak, JAINKOA´ren izenean egiten ebala, ez daualako ikusten bizitz au, JAINKORIK bage. Eta ortik artzen dauelako indar guztia.

Sabinok, gizon bezela be, erakusten dau beste garrantzizko gauza bat, bere adiskide ta sendiekin agertzen dauan samurtasunagaz, Ingartziri idazten dautson 1.896ko urtean Otsaillaren 7ko eskutitzan:

"Nire arimako lagun mina eta gogaide bikaina".

"Berorrekin, zenbat biderrez gogoratu naz !".

"Nere bizitzako lagun mina, zure orduz kanpoko
aitortua, zenbat gaiztotu nau !".

Eta alderantsiz, eurak euki eben Sabinogaitik arridura. Adibidez, Arriandiagak Arantzadiri 1902ko urtean Agorrillaren 22ko eskutitzan idazten dautson lez:

"Ezin diteke, ain ezin obeko gizatsua, ain abertzale aundia eta ulermen gain gainekoa, Eusko Alderdi Jeltzalearen aita, beren bizitzagaitik berea ondatu dauena ezin bestean", eta abar. "GUZTIZKO ta GARRANTZIDUN"(1), idatz lanaren gora beragaitik.

A , nolako begirune alde bietatik.

Sabino, endakeriaren zalea izan zan?(2)

-XIXgarrengo gizaldian jaioten da endakeria(3).

-Giza iztianren(4) bidetik, eta indar aundiagaz esan bear da.

-Europa guztian endakeria, giza iztiaren ikaskundeko fruitua dalako, eta giza-izti fisikatik geien.

-Eta gizaren nortasunezko berezitasunak asten danean ikasten.

-Erazo-aldi azko bota dabez gure erriaren aurka, gure Euskalerri maite au bizi ez daiten, edo gure erriaren eriotzea gura dabenak, gure lur ontako ondasunak, eurenak izan daitezan, edo eurak kaisar-lez agintzeko.

Nor da or, endakerien zaletasunezkoa ?

Sabino, zekula¡!, iñoiz ez zan bere barnean endakeriaren zaletasunezkoa, beren Aberriaz arduratutakoa baiño. Bakoitzak bere etxearen ardurea zaintzen dauan antzera, eta EUSKAL ABERRIA gure etxe nagusia da!.

(1) Guztizko eta garrantzidun = Grave y transcendental. (2) Sabino, endakerien zalea izan zan ? = era Sabino racista ?. (3) Endakeria = racismo. (4) Giza-Iztia = antropología.

Gainera esan bear da, itz-berri orren asiera edo oinarria, espainitar ta Alamandar kaisal erri auek, euren arrano aundia armarri ta ikurriñetan daukienak, dirala itz orren gurasoak.

Goazen itaunakaz baiña:

Sabinok, inoiz esan eban maketoak bota! egin bear direla?.

-Nik dakidanez, inoiz ez eban esan alakorik:

-Begitu daigun bestela, Larrinagako espetxean, Sabinok, euki eutsen amorrua ta gorrotoa gaztelarrai, Huertas il-tzaillaren gizakian(1).

-Sabinok ez eban bakarrik Huertas biotzez damututa aitortzea lortu, beste abade biren laguntzaz, bai beren ilgarrietatik askatu be.

-Endakerietan dabillen baten-batek, emongo leuke alango laguntzarik?.

Ez dot uzte !.

Baten-batek esan dau Sabinok auxe esan abala!: gu geu izateko, gure artean dagozan beste erribatekoak il egin bear dirala.

-Sekula ez !, ez dau esan alangorik, Sabinok. JAUNGOIKO zale eta Kristau aundia izan zan, bai ta lotsakizun aundikoa zikinkeri orreik esan eta egiteko.

Onek besteok bai, izan ziran gai, eta orretarako egilleak: Hitler, Mussolini, Franco, Milosevik, Indonesia-ko Yusuf Habbie eta abar, euren armarrietan ta ikurriñetan arrano aundiak daukiezanak.

Lotsakizunaz artu bear dira, gure artean bizi diran arrotzak?.

-Bai! benetan, eta begirun aundiagaz gaiñera, JAINKOA´k Bere bereztasundutako Legeakin aginduten dauzkun lez.

Baina, zer egin gure artean, gure etxe barruan, gu ez izateko eraso larrian aurka egiten dauzkunai?.

-Aurka! nai-ta naiez, erasoan datozenai.

Nola?.

Sabinok. beti esan eban, Aberriaren, Nortasunezko giza barrena osatu egin bear dogula erri bat izateko. Eta orretarako ez da bear borrokarik, ardurak zainduz, izatean, arrazoia euki baino bestetik ez.

Or ez dago zalantzarik, Sabinok esaten eban lez, erri bat izan ezkero eta izaera orretan jokatu ezgero, edozein etsaien arrazoiak nun geratzen dira ?.

Nork, gure artean eta arrotzen artean esan dau, Sabino ez dala gaur egunekoa?.

Sabino gaurkoa, eta bai biardamu edo etzikoa, beti izango da. Goiko Jainkoaren betiko oinarriak diralako, berak ibilten ebazanak.

Bestela Jauregi´tar Kanobas´eri itaun, zer gura eban esan, Bizkaiko Aldundiaren ordezkariari esan eutsoen orduan: "Ese, ve mucho y muy lejos".

RH´en gora beran, azaldu bear dana, Euskaldunak sekula ez dogula erabili zertzelada ori endakeri lez.

Guk, beti esan doguna: berezitasun ori, Euskalerrian aundia izateagaitik, eta gure artera etorri diran arrotzak, euren berezitasunak itxi arren, oraindino geien daukana Euskalerria dala. Eta berezitasunezko guztiori, erri bat, bai zarrena be Europan garela, etsaiari esateko. Besterik ez ¡!.

(1) Gizona ta bere bidea, 43 orri-aldian = el hombre y su trayectoria de Aita Mauro, pg, 43

Erri guztiak daukaguzan berezitasunak, jakintzaren ikerketarako dira, Ludi onen gizakiak, derrigorrezko antolamendu berezi bat bear dabelako, ta orren antolamenduzko lotsagizunean zainduz, bakotza edo erri bakotza dancen artean, bakean bizitzeko.

Gaur ez gara bizi orrela, gaur, idaz lan bat artu ta izki guztiak, eskuekaz zirriborrotu ondoren bezela, edo iñork, oiñarrizko idazki orrek zer esan bear dauan, jakin bage eta edozer gauza esanda, bizi garelako.

Begitu orduan, nortzuk dira RH´ko endakerietan eta beste bereizkeriakaz jokatzen dabenak, eta zertarako.

Sabino´k, beti dauka arrazoia, Euskalerriko bizitzaren gora beran berba egiten dauanean. Gaurkoa dalako.

"OR ! ABERTZALETASUNAREN, PARE BAGEKO BIZI BAT".

Badago bitxi bat emen, aita Maurok bikain argitzen dauana. Sabino 19 urte il zanetik zan, bere lagun min bateri egindako alkar ikuste baten bidez.

Onek, berri idazlearen itaunari erantzuten eutson: "Sabino, biotz osokoa izan zala".

Bizkaitar aldizkarian agertutako idatz lan bategaitik, Sabinoren etsaiak esaten eban, maketoak Sabinorentzat, ikus ezinezkoak zirala. Laguntzarik, ez dakiela emon bear inundik inora be, esaten ebala. Eta Euskalerritik, bota egin bear zirala, ta abar.

Jakin al dau berorrek, nolako gizon eta benetako kristaua izan zan Sabino ?

Martxan ipini daigun ba, Sabinok maketoagaitik euki eban gorroto zital ori: Sabino, Larrinagako espetxean egon zanean, beragaz batera maketo bat egon zan, "Huertas" abizen lez euki ebana.

Bere zigorra, eriotzea zan, Lekeitioko euskaldun bat il ebalako, diruen lapurketa gaitik. Biotz gabekoa izan zalako, iñork ezin eban lortu, azkoren alegiña izan arren, espetxeko abadeaz autortzea.

Eta begitu nundik nora agertzen dan Sabino bere ondoan(1), berari erlijiozko egiak irakasten.

Berentzat, etxetik eroandako baskari bereziak maketoari emoten. Ardoa(2). Eta bai ke belarra(3), berarekin denbora guztia berbetan emonda.

Sabinok, beste abade biren laguntzaz, ez eban bakarrik, Huertas biotzez damututa aitortzea lortu, beren barkamena irabazi be bai. Beragaitik, zekula ez ebana egingo.

Sabino´k, Huertas´en biotza, oso osoan irabazi eban, eta begitu noraino izango ziran maketoaren esker onak, beren aitari baiño geiago maite ebala esateko.

Bai Larrinagatik atara ebenean Zeuta edo Melilla´ko espetxera bigaltzeko, Sabinori agurtzerakoan esanda: "igez egiten dodanean Sabino jauna, eta ziur egon zaitez, espetxetik igez egingo dodala, danerako, berorren naierara ipiniko zala".

Andik iru illabete orduko, Ego Ameriketatik idatzi eutson, agindukoa ostera be, berriztatzen.

Gure solas lagunari esan geuntson, gertaldi ori ezagutzen gendula, ainbeste xetasun barik. Eta gertakizun orrek bakarrik erakusten dau, Sabino, biotz oso osokua zala.

Bigarrena Nolako ardurarekin entzuten eutsen gizon jakintsuai. Adibidez: Beren etxeko gurazo, anai/arreba ta senideai.

(1) Sabino = batzuen ustez maketoagaitik gorroto eukena, eta or ikusten dozue bere etsai aundienagaz janari ta ardoa bion artean banatzen. (2) Baskari bakotxagaitik pinterdi bat = pequeña cantidad de vino. (3) Ke belarra = y compartiendo el tabaco.

Olandar ban Eys'en iztegi ta gramatika, Kanpiontar Arturo´ren gramatika baskongadarekin, eta, ikas bidean eukindako maizu guztiakin.

Bere anai Koldobika''ri, Euskalerriko arazoak dirala ta.

Irujotar Daniel''en aolkuari.

Beren denborako Azkue, Unamuno eta kideak zirenai.

Euskalerriko etsai nagusien esanak; Jauregiko Kanobas eta beren mallakuak zirenai ta abar .

Eta dan guzti ori ziurtatzeko, ez da begitu baino bear, jakintzako arlo guztietan, nolako mailla artu eban.

On artzean, nai damu aundia euki arren, beren kideak, bidea moztu egin eben orduan, kable-idazkiren bidez bigaldu eutson mezua Inglaterra´ko erregeari, Afrika´ko gerla amaitzeagaitik. Espetxean eta gaisorik egon zalako, len Roosevelt Amerika´ko lendakariari bigaldu eutson mezua gaitik, ezkerrak emoten, Kuba´ri askatasuna emon eutzelako eta abar.

Sabino, bai sendimen eta bai ulermenean, mailla aundikoa zan, eta orregaitik buru argiaren begi zorrotzekoa. Bere denboran bizi ziran gizon aundiaren aolku-mezuak, eta era ezberdiñean goimallako jakintzaren arloan, ta baita bakotxaren jakite ta izateagaitik, ardura aundiekin, entzun eta aintzakotzat artzen ebazan, egiaren astarnarekin oso zintzoa zalako, ta eskuarte bikaiñakaz lege barruan, goimallako ulermenean jokatzeko.

Gogo aundiko gizona izan zalako, Nola asten ebazan gauzak eta amaitu.

Eta au ziurtatzeko, begitu baino ez da bear, berak egin eban lan guztiari.

Ondo ikusten dan bidetik, argitaratu ebazan aldizkarien bidetik da: espainiako jaurkintzatik debekatuak izaten zirenean be, laster atarako eban beste bat, edo izena aldatuaz, Euskal erritarrai mezua emateko. Arrigarrizko lan bikaina erakusten dausku, arlo onek bakarrik.

Euskeraren arloan bardin: nolako lan bikaina itzi euskun oso gazte azita, ba, ez ebazan euki 20 urte baño: "Bizkaiko Euskeraren Gramatika osotu ebanean, beste lan batzuen artean 1888an argitaratua izan arren.

Emen, iñondik iñora okerrik egin gabe esan leike, bere bizi laburrean baina luzea ekintzan, ez ebala galdu denboraren unetxo bat bera esanda be, nai ikasbidean nai bizitzako ekintzan, ain denbora gutxian, ainbeste goi mallako lan egiteko.

Zuzentasuna bere adizkirekin, edertasun aundikoa izan zan asieratik amaierarte, eta orretarako begitzea baino ez da bear gure gurasoai, nolako maitasuna eta fedea euki eutsoen Sabinori, eta berak egin eban lan guztiari Eusko Alderdi Jeltzalearen bitartez. Nolako fede zintzo ta indartsua !!, guk, apur-bat baino geiago galdu doguna.

Laburpen baten bidez, gizaldi aldetik agertzen jakuzan alderdi argitsuak izar dirdiratsu lez, oneik dira: "Xamurtasun gozoa arremanetan".

"Neurri gabeko ardurak, giza jakintsuen mezuak ezagutzeko. Gauza asiak amaitzen Ikasi".

"Danez gain zuzentasuna, nai adizkidetasunaren beste-aldetik asiak izan".

"Goi mallako lanetan, egindako astarna kementsuak".

"Eta, ori da azken baten, gizon aundien ulermenari neurria artzeko tresnerik onena".

2. 17. (28) *Sabino, Gizon bezela.*

Alango Aberkide eta Nortasun aundiko gizonagaitik berba egiteko, zeozer jakin bear da bere ulertze eta esagutzaren arloetan: sendimen eta samurkoitasunean(1), gaitasun edo trebetasunean(2), ekanduzko oituran edo etikan(3), eta onen balioa gai guztietan, bere bizi denborako garaian.

Nik, irakur eta gizon jakintsuen bidetik beren buruz dakitenagaz, esango neuke: "oarmeneko sendimenean, goi maillakua izan zala; eta ezagutzean edo ta ulermeneko arloan, bardin".

Orreri gaiñeratu ezkero, Euskalerriak Kristautasunezko erlijio arlo sakoenean(4), euki eban sinismen itsu ta sutsua(5), bai ta batera, Nortasunezko izaerean il-biziko egoereagaitik, gudan bete betean sartuta, gure Nortasunezko larritasunak askatasunera bideratzeko, berez agertzen dabe arimako borondate onak aleginduta, alango Nortasun aundi bateko gizonen indarrak, lotuta egon ba ziran lez, garaiaren ekanduzko gora berak, bultzatuz.

"Ulermena", "Trebetasuna", eta bai "Oiturazko edo ta Ekanduzko arloetan", bereztasunaren zentzun andiko zuzentasuna eskatzen dogu. Guzti orreri "Aldi-Ona"(6) gaiñeratuz.

Nik ez dot sinisten "Aldi Ona" edo "Aldi-Txar" orretan. Bai, bereztasunaren ekanduzko ardura onenetan baizik, bizi onetako denbora guztiak, bardiñak diralako, eta edestitik zear, gure ardura bardiñean sartuta gagozelako. "Izadi onek daukazan Berezko legeakin arduratu bear gara, Demokrazizko Askatasunaren ekanduzko ardura onetan lortzen diralako bizitzan, eskubidearen bardiñezko egokitasunak".

Euskalerrian, goi maillako sendi eta ulermen andiko gizon emakume asko euki doguz 1.693ko urteen etorkizunezko edestian, bai ta alper asko be, mundu onetan etsaiekaz alkartuz, ondo bizi al izateko(7), alegiñetan ibilten direnak. Len, urrezko zekorra aipatu dot, eta ez da guzurra, or dagolako.

Arazo guzti onen aurrean, itaun bat agertu jakon Aberriaren gora beran, gure Sabinori: "Jaioko nintzan ni, Zeure Il-Orduban Eltzeko ?.

Laster baiña, beren erantzuna: "Bereinkatua izan daitela, nire Aberria ezagutu neban Eguna, eta betiko esker onak, arroztasunezko illuntasunetik atara nebenai".

Orregaitik bere sinis betea Jaungoikua ta Lege Zarraren bidez: "Gu Euskadirentzat eta Euskadi Goiko Jaungoikoarentzat" "Euskadik bere ekintz osorako, askatasunaren ikurragaz Izadi osoan zabalduz daukan Demokrazizko Nortasuna", "Euskaldun Aberria dalako".

Garbi ta argi ikusten da, Jaungoikuari, eskeiñi eutsela beren bizitz osoa Erri bidetik.

Or, erri baten, bere goiko maitaleak.

Kontuan eukiten dituenak, bizitz au ez dala bakarrik jaio ta eriotzea. Artean, zeozertarako agertu gariela baizik. "Eta joko ori gatx ulertzen da, gure bear bearrezko Demokraziaren arloetako ekintzan, "Ekanduaren neurri oneko ordezkaritzan, jokatu

(1) Oarmen edo sendimen eta samurkoitasunean = sensibilidad, sentimientos y en su calidad de enternecimiento. (2) Gaitasun edo trebetasunean = en su capacidad. (3) Ekanduzko oituran edo etikan = en la costumbre de moralizar nuestros actos de acuerdo a las màs eztrictas leyes de èsta naturalizaciòn. (4) Emen ez dot aipatuko katolikotasunik oraindiño, Kristau eta katolikotasunaren bitarteko zalantzak nire ustez, gero agertzen diralako. (5) Sinismen itsu ta sutsua = fe ciega y fogosa. (6) Aldi ona = suerte. (7) Mundu onetan etsaien aberastasunakaz alkartuz, ondo bizi al izateko = en èste Mundo, arrimados ala riqueza del enemigo para vivir mejor.

ezik".

1.844ko Azaroaren 23an ezkondu ziran Sabino´ren aita, Arana ta Ansotegi´tar Santiago, eta ama, Goiri ta Atxa´tar Paskuala. Zortzi alaba seme euki zituen: bost neska, eta iru mutil. Sabino izan zan danetatik asken jaio zana, eta bera bakarrik, Albia´ko etxe-bizitz ederrean, gaur "Sabin Etxea" deritsona 1.865eko urtean Urtarrillaren 26tik bizi zana.

Jakin degun, Arana ta Goiritar etxearen abertzaletasunezko giroa nolakoa zan, euren seme alabak, ain sakonezko euskal arnasa eukiteko, Sabino´ren arreba Paulinarengana joan gaitezan, ia zer esaten dozkun bere oroimenezko idatz lanetan, iru edo lau gauza artuaz:

"Nire aitak karlisten matxinadarako, asko lagundu eban".

"Denbora gitxi barruan, itzi eban itsas untzien egiteari".

"Bere etxean euki eban ostonduta Uribarri jenerala, arik eta karlisten gudalozteetan, bere agintaritza artu arte".

"Aita joan zan Ingelesen errira izkilluak erostera, eta bere zarpeletik 50.000 ogerleko ipini ebazan karlisten borrokarako".

"Zelan zabaldu zan, sendi osoa atzerrira joan giñela, etxetik urten barik egon giñelako. Egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendun, otoiz egitera leenengo mezatan".

"Aita, Abandoko alkatea zan, Eta Gernikako Batzarretan eskubidedun bertatik".

Ikusten dan lez, etxearen aberkidetasunezko arnasa obiagorik ezin izan, eta or berentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau lez, eta bai abertzale lez.

Goian aipatu doguz bere ikasketako bideak, ama il jakon arte, eta ortik aurrera, ikaragarrizko lana egin euskun, lumaz eta mingaiñez.

Euki eban Sabinok beste arlotxo bat be, maitetasun aundian euki ebana, "Eiza" zan.

1.889ko urtean, eiz-izkillu on bat erosi eban Paris´en, bere arreba Paulinak esaten dauan lez: "Ondo zainduta euki ebana". Eta bere lagun onakaz: Amoroto´ko Matias(1), Gernika´ko Urberuaga´tar Agustin, Lekeitio´ko Guillermo, eta Amoroto´ko beste batekin, askotan joaten zirala neguko denboratan, basurdea´ren eizara.

Paulinak esaten dau: Eizatik etorri ta, bereala deitzen ebala, abere iltzaille baten bateri, basurdearen aragiak baserritarren artean banatzeko.

Paulinak, bere osasun aldetik esaten dau: "Otz aundienakaz be, eta ain goizetik urtenda, otzaldi edo ozberri txikiena(2) be ez ebala artzen".

2. 12 (29) *Sabino Erri-gizon bezela.*

1898ko urtean Bizkaian, ordurarte espainitar zaleak ziran Aldundiko 20 ordezkariak, ezertxo be ez eben egiten Bizkaitarrak euki eben euren izatasunezko larrialdiagaitik.

Eta urte orretan, Aldundi´ak berak ukeratu bear izan ebazan 8 ordezkari: lau Bilbokoak eta beste laurak Bizkaiko lurraldeetatik. Bilboko auteskundeen irabazleentzat iru ordezkari ziran eta bat aurkakoentzat.

Iru urte ariñago sortu eban Eusko Alderdi Jeltzalea Sabino´k, eta Bizkaitar aldizkariaren bitartez, orko autoeskundeetarako abertzal gogo giroa berotzen ibili zan,

(1)Amoroto´ko Matiaz = txakur zaiña. (2) Otzaldi, ozberri, postoma edo bularreko-estutasuna = catarro.

ordua zalako, euskal abertzaletasunaren politikazko inguru begian agertu zedin, Bizkaiko Aldundian, bere ordezkaritza agertuaz.

1898ko urtean Iraillako 11an egin ziran auteskundeak, eta Sabino autarki askorekin aukeratua izan zan.

1898ko urtean Azillaren 3´an osotu zan Aldundiko jaurkintza.

Espainitarren aldekoak, begi bistan beintzat, liberalak ziran, eta aurkakoak karlistak izan bear ziran, baina gero ikusiko dogun lez, ez zan izan olan, danak batera Sabino´ren aurka jokatu ebalako. Danak Espainolak zirelako.

Konturatu gaitez ba, nolako giro edo aukera zitala agertzen zan Sabino´rentzat, ta nolako gizontasuna euki bear izan eban danon aurka egiteko. Ainbesteko urduritasuna euren artean sartzen ebalako(1).

Sabino´k, leenengo egunetik argi itzi gura eban, Aldundi ura, ez zala antzinako Foru aldundi lakoa, arbasoaren jaurkintza, Bizkaikoa ta Bizkaitarrarentzat zalako bakarrik. Eta Madrillekin, ez ebalako zer ikusirik, Aldundi ori, orregaitik ez zala izan, antzinako Bizkaitarren batzar orokorretako oiñordezkoa(2).

Egoera larri ori ikusita, begitu edo jakin bear doguna da: zeintzuk ziran Sabinoren buruko minak.

a) Ego Euskalerrian lau Foru-Aldundiak, ararte, bakotxak Madrillekin euki eben artu emon bakarra, aurrerantzean, lau lurraldeen artean artu emon estuagoak sortuaz, Euskalerriko onura(3) zendotu daiten.

Orretarako 1895eko urtean Azillaren 24an, leenengo batzarra egin zanean Sabinok, lau lurraldeetako aolku batzar bat adierazi eban, lau lurralde bakotxatik ordezkari bat izendatuaz, eta itaun batzar(4) bat lez lan egin dagian, Madrillekin nolako arremanak euki bear zituen, Euskal zaletasuna indartzeko.

Adierazpen ori ez zan autatu, aztertzeko itzi zalako, eta urte bat ta erdi geroago, 1900eko Udabarrian ain zuzen, ez zan onartu(5).

Sabinok, orren anaitasunezko lanarekin, argi dago Euskalerriak, Euskal Aberriaren itxura artu dagian gura ebala. Eta eurak konturatu zirala be bai, nozki !.

b) Lan bidetik: Aldundiak, norgeiagora atara egiten eban lana, ordain bardinean, Bizkaian jaiotako gurasoen erriko semeen diranentzat, gura eban izan daitela.

Zaintza bidetik: Miñoiak, 1839ko urtea baino arinago, Foruzain ziranak, gudalozteen aginpetik askatuta gura ebazan. Alde batetik, Miñoien agintariak espainitar agintariak zirelako. Eta bestetik, Euskalerriko lurraldeakaitik ordainduta egon ba ziran be, Madrilleko gobernuaren, bai erki jaurlari eta guda jaurlarien aginduagaz bakarrik betetan ebazalako euren ardurak.

Sabinok, espainitarren agindupetik kendu gura ebazan Miñoiak, eta Aldundiaren agindupean ipini, baina ez eben ontzat artu.

Iru urte geroago, Aldundiko lendakariak adierazpen bera egin eban, eta onartua izan zan, nai ta denbora gutxirako izan, ostera be, espainitar gudaloztepean ipini ebelako.

Sabinok, espainitarren gudaloztearen menpetik askatu gura eban Euskalerria. Baina laster ipinten eben osterabe espatea, Euskalerriaren buru gainean.

(1) Gizona eta Beren Bidea 71 orrialdean. (2) Bizkaitar Batzarraren orokorrezko oiñordea = heredero. (3)Euskalerriko anura zendotu daiten = fortalecer el interes. (4) Itaun Batzar lez = junta consultiva. (5) Gizona eta Beren Bidea 72-73 orrialdean datorrena.

d) Omenaldi aldetik Sabinok, erizpen(1) gogorrak egiten ebazan Bizkaiko Aldundian, diru asko ordaintzen zalako omenaldietan. Etorten ziran espainitar agintariai, errege alabai, Emilio Kastelarren omenaldirako, ta abar, diru larregi bialtzen ebalako Bizkaiko Aldundiak Madrillera.

Laterriaren ogipekoak zirenai emen eta an, ainbeste diru ordainduaz gure menperatzaillaren aintzarako.

Batera, ardura larregi geratzen zalako laguntzarik bage Bizkaiko nekazaritzarentzat, arrantzaleai, bai Baseleizatan eta abar, bear bearrezkoak zirenak, Bizkaiko erritarren buruzpiderako(2).

Sabinok, erizpen gogorrak egiten ebazan, ez goian esan dogunagaitik bakarrik, bai garrantzizko arduraren aurka egiten zanagaitik, beste ardurabako edo berak alan deitzen eutsoenari beintzat: "gaiztotzaileko akasdun apainkerietan ordaintzen zanari" Antzerki, zezen tokiak, eta abar(3).

Danak arritu egiten ziran, Sabino berbetan asten zanean: inork ezin eutsolako beren lojikazko arrazoiari geiago egin, benetako egizale ta oso jakintsua izan zalako.

Sabino, Aldundiko lanetan ordezkari lez eta danon aurka bakarrik esan leike: unetxo baten be, ez ebala galduko beren ozkarbitasuna, egiten eban lana, sakona ta eten bako aundia izan zalako, eta orretarako aita Maurok daukaz batuta(4).

Kazetariak esandakoak, Sabinok sortutako "El Correo Vasko" aldizkaritik, Sabinoren ekintza gogorretan:

"Arana jaunak, lendakaritzari berbea eskatzen dautso " MINDU EZINAZ".

"Arana jaunak, LASAITASUN GUZTIAZ ESATEN DAU.....".

"Arana jaunak, BETIKO BARATASUNAZ....."

"Arana jaunak, BARETASUN GUZTIAZ.....".

Eta Sabinoren erizpen gogorrenetako baten, Emilio Kastelarrek, Bizkaiko lurraldeko AlTA izendatu gure ebenean Bizkaiko Aldundi aldetik, "El Correo Vaskok" esaten ebala:

"BEREN BERBA EGITEA, GOZOA IZAN ZALA"

Orregaitik, len errikoen ikus entzun lekua utsirik egoten bazan, Sabinogaz gero ta beteago agertzen zan. Eta nolako sendimenarekin entzuten eban erriko ikus entzuleak jakiteko, badago bai erakuskin bat: 1899ko urtean Uztaillako 2´an asita, Eulalia errege alabak Euskalerritik egin eban jostaketako ibilbidea, eta Bizkaiko Aldundiak egin eutson koipatsu adiguriagaitik.

1899ko urtean Uztaillako 12an Sabinok, eskutiz bat idatzi eutson Aldundiko Lendakariari. Eskutitz au, aldizkarietan agertu zan, eta orregaitik Aldundiko Lendakariak, neurriz gaineko batzar bat agindu eben.

Sabinok, beren txanda amaitu ebenean, "Kruzeño jaunaren esanak, beren lekuan itxita", entzuten egon ziran ikusleak batera esan eben "Oso Ondo !"(5) eta Aldundiko Lendakariak "ikus-entzuleak, danok kanpora !!"(6).

e) Zergaitik gure eban Eusko Alderdi Jeltzalea askatasun osokoa elburu lez izan da,

(1) Omenaldi aldetik Sabinok, erizpen gogorrak egiten ebazan = que Sabino hacia duras críticas al apartado de los homenajes. (2) Buruzpiderako = economia. (3) Antzerki, zezen tokiak eta abar = gastos en el teatro, corridas de toros y lujos de esa magnituz, para derrochar dineros que no eran suyos, sino vascos. (4) Aita Mauro´ren Gizona eta Beren Bidea 75-91 orri aldean. (5) Oso ondo = muy bien. (6) Eta espainitar Aldundiko lendakariak IKUS ENTZULEAK, DANOK KANPORA ¡¡ = "desalojen el salón de público !!".

espainitarren menpeko biurtzea ? .

Sabinorentzat mirari aundia zan, gure erria nola eldu dan gaur arte bizirik.

Euskalerriaren il zoriko larritasunak alegintzen dautso Sabinori, bizitzaren joko onetan, ikaragarrizko mailla politikako arloetan erakustea, esku izanda, axa edo enbido aundi ori joteko. Eusko Alderdi Jeltzalea, espainitarren jokuan sartuta biurtzeko.

Nik uste dot, iñoz egia izan badala, katolikotasunezko oldozmen ori ezagutzen asi zala, emen asi bearko leukela katolikoaren aberkidetasunean batzangotzeko gogo ori ezagutzen.

Laugarren gizaldiaren asieratik idatzita dagoelako, zelan dan Mundu osoarentzat katolikotasunezko aberkuntz ori, ta bere lana ez dalako egun bateko fruitua, bere etenbageko azterkuntza ori ondo auznartutako gogamenean beteteko baiño.

Euskalerri ta berezko erri guztiak ortik aurrera, Nortasun barik izten dabezelako, katolikotasunaren aberrikotasunezko asmakizun orrek.

"A la orduan, oraindiño egoan sinismen itsuagaitik izango ote zan?. Baliteke ori be izatea, baiña ni neuk, nere zalantzak dauka-daz.

Eta ori ikusteko, artu daigun aita Maurok idatzitako, "Erritargoen AlTA" bigarren liburutik eta 378 orrialdetik, Arantzaditar Igartziri esaten dautsozenakaz.

1901ko urtean Urtarrillako 5an idazten dautson eskutitzetik, garrantzi aundienetako lerroak idazten dautsoz, ausnartze sakon oneik azaltzeko.

Sabinok ikusten dauelako emen, aberkideen itxitasunaren alako bat, edo abertzaleen artean biotz galdu edo kikiltasun antzeko bat: "Gogoratzen asten nazenean onetaz, edo endaren gora beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi au amaitu orduko".

"Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, ta asarregarria da !"(1).

"Aukera bakarra diruan dago, eta au ez da aurkitzen". Baserritarrak geiegi dakie, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarra ba, lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun arteko ontzigintzari eutsi, langintzako ta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak(2), nekazaritzarako, abel azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz... bizitzan, eskutarteko guztiak legez erritaratuaz(3), Euskereak zeozertarako balio dagian ta naita naiezkoa izan daitela eurakaz, artukizuna eukitea.

JAINKOA Aundia, Aalduna ta Bakarra da zuzendu leikena! Bearrezkoa da, euskerea naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baino.

Bizkaian bear doguzan liburuak be ez daukaguz, azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko oituraren azibidea, bear bearrezkoa dana emakume gaztea, sendi baten ama izateko be. Ai nere laguna !. Au baserriaren barruko bizitzan sartzeko asten danean, nork berak argi ikusten dau, eta gauza bat bakarrik oartzen dau(4): " biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik, " Gure aurrekoak zer egin dabe?

(1)Asarregarria da = es para estar cabreados. (2) Arrantzaleentzako Alkartasunak = asociaciones, compañias, mutualidades etc. (3) Eskutarteko guztiak legez erriratuaz, Euskereak zeozertarako balio dagian = para que nacionalizando las posibilidades que andamos entre manos, el euskera balga para algo. (4) Oartzen dau = experimentar.

Zer egin dau Eleizak ?, elizkideen amak?.

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euskera berberan dago orren ezaugarria.

Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako biderik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baina ardura gitxikoa.

Euskalerria gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik araso aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira.

Alan ba, bera begituten badogu, erri ber bera, esan leike nai ta nai ez, iltzeko bidean dagoela, baina JAINKOA´ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nor berak itauna egiten dau: " izango ote da JAINKOA, gura ez aduana, au desagertzea ?

Emen garbi ikusten dana da: "ez dala amezlari bat. Ankak ondo ezarrita euki ebazala lur gainean. Eta gitxiago zoratuta.

Sabinok, ondo ikusi eta ikasi ebana zan, espainitarrak euki eben espatearen indarren aurka joatea, orma aundi baten aurka buruagaz jotea bezela zala, eta orregaitik asmatzen dau 1901ko urte barruan, Arriandiagak zeatzen dauan lez(1), berari esan eutsola, espetxean lau illabete sartu orduko(2), Sabinok, biribilduta euki ebala espainitar aldaketa ori, gero Arantzadik ziurtu ebana, berari Sabinok idatzi eutson eskutitzetik.

JAINKOAk laguntzen badausku, gizaldi onen asieran ikusiko doguzan barritasunak, aundiak izango dira Aberriarentzat: Alderdiaren zabalkuntza. Bizkaian, bere antolarnendua.

Gipuzkoan eta Nafarroan be, euren antolarnendua. Erri nagusiari mezua emon. Katalanakin, artu emonak sakondu, bion elburuari buruz. Galizian, Aragoin, Balentzian, eta abar, lurraldeen zaletasuna bizkortu, espaini guztian, alkar zaletasun(3) aundi bat sortuaz, bide orretatik edo askatasun bidetik, danagaitik onartua izango dana, Euskalerriaren giza barrena osatu zedin.

1902ko urtean Bagillako 22-an, "La Patria" aldizkari abertzalean, "Guztizko eta Garrantzidun" idatz lana argitaratzen dau. Baina illabete arinago, bere abertzaletasuna erakusten dau, 1902an Orrillako 25ean Rooselvet-eri bialtzen dautson urrutiko idazkitik mezua, zorionak emoten Kubari askatasuna emoteagaitik.

Orregaitik espetxeratua izan zan 1902ko urtean Orrillako 30ean; eta bertatik Ingelesen, Salisburi leenengo mininistruari, zorionak emoten, Boersen aurkako gerla amaitzeagaitik. Bai, argi itxi be, bera espainitarra ez dala, sagar bat, oliarana ez dan antzera.

Sabinok, Euskalerriaren bizitasunean, giza barrena osatuaz, Euskal Nortasuna irabazi gura eban, eta orregaitik, Euskalerria il zoriko larritasun aundi baten egonda, berarentzat ez dauka ardura aundirik, zein era izan bear zan, bere erriak jokatu bear ebena.

Berak, estratejia utsa edo, euskal giza, orokorrezko trebetasun guztiekin jokatu bear ebela uste eban, baekielako egiazko edo gudako borrokaren bidez, ezinezkoa zala: "Bakarrik eskatzen dautsuet, neugaz itxaropentzu zaitezela". "Aberriak, buru ukatze ori eskatzen dauskulako", eskatzen eban, Euskalerriak, alako egoeratik urten dagian,

(1)Espainitarrak ikusten dabelako euren katolikotasunezko aberritasuna, edo aberriaren osotasuna arriskuan dagoala, espataren arrazoia ezartzeko. (2) Gizona eta Beren Bidea 99-100 orrialdian. (3) Alkar zaletasuna = federal, federalismo.

alderdi guztiak ondo eta benetan jokatu ezkero, orretarako argitzen diran arauakaz.

Or dago, zergaitik gure dauan espainolaren jokoan sartu, Euskalerriaren arnasa, biotzeko taupadak eta bizitasuna osatu arte. Ze ...., beragandik aldendu baginan, orren izateagaitik, zer egingo gendun gaur ?.

Egoera bardinak dira, baina len, bera bakarrik izanda, erri guztia eraikitzen ipini eban, eta bide onean osasunaren billa iraun dagian: "guk alper-zamarrak ez doguna egiten ainbeste izanda".

Osatu barik daukagu erria, zati aundi baten beintzat, eta orrek bakarrik, urduritasun apur bat sartu bear leuskuela uste dot, gure giza barrenean.

Eta or !, berak asmatu eban bide barri Joko ortan sartuta gagoz gure nai ez.

Orrek bakarrik esan gura dau: SABINO, EUSKALERRIAREN AITA DALA, eta berezko errien arazo bardinak diran lez, aita Maurori tsizt egiten dautson esanak "ERRITARGO´en AITA" dala dudarik gabe.

-"Sabinok, lau lurraldeko Aldundi artean, arreman estu estuak gura ebazan ezarri, Euskalerriak erri baten itxura artu dagian".

-"Nolako indarraz errotu jakon Abertzaletasuna, Euskalerriari bizitza eta ondasunak ezkeini eta oso osoan emoteko".

-"Sabinok, Bizkaiari eta Bizkaitarrentzat Bizkaiko Aldundian egin eban ulermen aundiko erizpidea(1), Euskalerriarentzat onena gura ebalako zan, eta bide batez, apurka, apurka, Euskaldunen giza barreneko Nortasuna irabazteko".

-"Bera da lendabizi Euskaldun bakotzari esaten dautsona: "EUSKALERRIA, ZURE ABERRIA DA". " EUSKALERRIAREN AITA !! ZALANTZARIK GABE "

"SABINO, ERRI GIZON AUNDIA ta PARE BAGEKO EUSKAL GIZONA izan zan".

(1) Ulermen aundiko erizpidea = criterio, critica, o norma de jucio muy grande.

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.019ko urtean Otsaillaren 8an

EUSKALERRIEN EDESTIKO XIIn ATALA

AURKIBIDEA

1. ZATIAN.

GAIAK **ORRIA**

1. 1. Aurki bidea.....1095 - 1096
1. 2. 11n atalean ikusi genduna.....1097 - 1098
1. 3. 12n ataleko sarreraren aurkezpena XIIn Alfonsogaz asi ta..... 1099 - 1099
1. 4. XIIn Alfonso erregea al izatera.....1099 - 1101
1. 5. XIIn Alfonsoren ezkontza eta euki zituzen alaba-semeak.....1101 - 1102
1. 6. 12n Atalean sartu orduko, Iº Errepublikea gogoratuko dogu.....1102 - 1103
2. Euskalerriko Edestian, 12n ataleko gaiaren asiera.....1103 - 1103
2. 1. XIIIn Alfonsoren bizitza ta erregetza.....1103 - 1105
2. 2. (30) 1.899ko urtean Jorraillaren 23an Bilbon.....1105 - 1107
2. 3. XIIIn Alfonso ostera artuz.....1107 - 1107
2. 4. (31) 1.902ko urtean Loraillaren 25ean.....1107 - 1109
2. 5. XIIIn Alfonso ostera berrezkuratuz.....1109 - 1113
2. 6. (32) Euskal Abertzaletasunaren bizitza ostera ebatuz.....1113 - 1122
2. 7. XIIIn Alfonso´ren bizitza ostera berrezkuratuz, beren atzerritasuna.....1122 - 1123
2. 8. XIIIn Alfonsok, Frankogaz euki eban artu emona.....1123 - 1125
2. 9. XIIIn Alfonsok euki zituzen seme alabak.....1125 - 1127
2. 10. Torres ta Alkala-Zamora´tar Nizeto.....1127 - 1128
2. 11. Batikano´a.....1128 - 1130
2. 12. Batikano´ko edo Aita Santuen edestia.....1130 - 1130
2. 13. Oar txiki bat emen.....1130 - 1131
2. 14. Aita Santuen edestiari ostera ebatuz.....1131 - 1134
2. 15. IIn Errepublikearen aldarrikapena eta bein-beiñeko gobernua....1134 - 1135
2. 16. IIn Errepublikako bein-beingo edo bitarteko jaurbidearen kideak1135 - 1136
2. 17. IIn Errepublikaren Aldarrikapena..... 1136 - 1141
2. 18. Alkala ta Zamora´tar Nizeto 1.931ko urtean.....1141 - 1141
2. 19. Alkala ta Zamora´tar Nizeto, IIn Errepublikako Lendakari..... 1141 - 1141
2. 20. Azaña´tar Manuel´en arazoak.....1141 - 1141
2. 21. Espainitar Konstituzioaren IIn Errepublikea.....1141 - 1143
2. 22. 1.931ko espainitar konstituzioa.....1143 - 1145
2. 23. Laterri orren itxurapenezko ikur edo irudiak.....1145 – 1147
2. 24. (33) Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio.....1147 - 1147
2. 25. (34) Agirre ta Lekube´tar Jose Antoni´ren leen urteak.....1147 - 1148

2. 26. (35) Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio´ren bizitza, Errepublikako garàian.....1148 - 1156
2. 27. (36) Agirre´tar Jose Antonio eta Euskadiren bitarteko jaurkintza IIn Errepublika denboran.....1156 - 1162
2. 28. (37) Euskal Jaurkintzaren, atzerri aldia.....1162 - 1164
2. 29. (38) Oar txiki bat emen.....1164 - 1164
2. 30. (39) Ostera, Euskalerriko jaurkintzaren, atzerri-aldiari ebatuz.....1164 - 1167
2. 31. (40) Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio´ren eriotza.....1167 - 1168
2. 32. (41) Arjentinaren, "Aize Onetaz"´ko aldizkariak, esan ebazanak...1168 - 1179
2. 33. (42) Franko katoliko aberkide´en, menperatzaillezko kaisar gurutz Aldia.....1179 - 1182
2. 34. (43) XIIn Atal onen ondorea, XIIIn atalagaz asiera emoteko.....1182 - 1187

1. 2. ***11n atalean ikusi genduna.***

-Prin eta Prast´tar Juan Jeneralaren bizitzagaz asi giñan Kanobasegaz batera, edestiko 11n zati orretan, berak euki ebalako espainitarren aintzindaritzan garrantzi andiena, arik eta Prasedes´tar Sagasta ta beste politikuak, aurkeztu arte, Prin´en eriotz ostean.

IIn Isabel erregiña ta Borboi´tar guztien aurka matxinatu zan Prin Jenerala, IIn Isabel erbestera bota arte.

Prin, karlisten aurka ikusi ba gendun politikan sartu arte, eta Aurrerakoi alderdia sortu ebanetik, espainitar gobernuaren zeregiñetan sakon sartuta. Bere katalan erriagaz guztiz arduratuta be ikusi gendun, Marrokos, Turkia, Kuba, México, eta espainitarrek orduan euki eben laterri-geografiko guztitik, borrokalari ibili ondoren.

Arik eta 1.870eko urtean, Azaroaren 30ean, euki eban gaiztakeri zitalean, il eben arte.

-O´Donnell´tar Leopoldok be, karlisten alde euki ba ebezan bere senideak, bera, IIn Isabelen gudalozteetan Kapitaiñezko maillagaz lerrotuta ikusi gendun, karlisten aurka.

Bai, Marrokos´eko lurraldeetatik egon ziran matxintasun geienetan, ta gobernuaren erbesterako ministeritzaren lendakari lez. Bai ta lendakarizko ordegotzatan be ainbeste bider, balio aundikoa izanda gaiñera. IIn Isabelegaz euki ebazan gaizkidetasunetik kanpo, garrantzi aundiko gizona zalako bere denboraldian.

Arik eta 1.866ko urtean Bagillaren 22an, San Jil´eko gudaltegian sortu zan matxinada ostean, O´Donnell´ek, Narbaez´eri eukan gobernuko agintaritza emon bearrean agertuz, eta IIn Isabelegaz asarre, Biarritz´era atzerriratu zan arte.

1.870eko urtean eta Biarritzen egoala il zan O´Donnell´tar jaun au.

-Lizarraga ta Ezkiroz´tar Antonio be ikusi gendun, bere gogozko gudaritzatik karlisten gudaloztetan lerrotzen. Denboren irauteagaz, garrantzi aundienetariko nagusitza lortuz. Ta karlisten porrot ostean, VIIn Karloseri atzerrira lagunduz, Erromara bizitzen joan zan arte.

1.877ko urtean Abenduaren 7an, Erroman il zan.

-Saballs ta Massot´tar Franzizko, karlisten "Judas" gudal nagusia be ikusi gendun, bere ausartasun aundiko gauzak egiten, arik eta Frantziko Niza´ra aldatu zan arte.

-Ziraukiko La Kalle ta Yabar´tar Tirso, "Urgun" edo "el cojo de Zirauki", liberalak euki eben iltzaille madarikatu au be, ikusita.

-Martinez ta Kanpos´tar Arsenio, garrantzi aundiko liberalen gudal nagusia be ikusi gendun, zelan lagundu eutson XIIn Alfonsori, bere erregetzazko ezar lekuan ezartzen.

Gudalari aundia zala be, erakutsi eban karlisten aurka. Bai, bereak egiten be Kubatik, orokorrezko kapitain lez.

Beren baliotasunagaitik Kanobasek, Ministruen Aolkularitzazko lendakari izendatu eban, bai ta berak euki eban indarragaz, konturatuta Kanobasen eskuetan panpiña bat ei zala, zelan aldatu zan Sagastaren aldera.

1.900eko urtean Iraillaren 23an, Zarautz´en il zan Martinez ta Kanpos´tar Arsenio au.

-Kesada ta Bizente´tar Jenaro au, espainitar liberalen gudal nagusiekaz batera ibili zala, garrantzi aundiko ekintzak egiten ikusi geuntsozan, 1.794ko urtean Kuba´ren oiñez-taldeko 3garrengo txanberga edo batalloian lerrokatu zanetik.

1.808ko urtean Madrilleko Baloien Zaindaritzazko taldean lerrokatu zan Napoleonen aurka egiteko.

1.812ko urtean Konstituzioaren aurka egoteagaitik, zelan Frantzira atzerriratu bear izan zan.

Bai 1.834ko urtean, liberalak Zumalakarregiren aurka, borroka guztiak galtzen ebazanetik, liberal aldizkariak Kesadari botaten eutsezan erru guztiekaz, zelan alboratu eben bere agintaritzatik.

Eta 1.836ko urtearen Dagonillan, San Idelfonso Jai-etxe edo eguras-etxean sortu ziran matxintasunetik alde eginda. Madrilleko Iparraldetik, Ortalezako errian euki ebazan lagun batzuen etxera joan gura izan eban, eta andik ibili ziran jende-parrasta bategaitik, IIn Isabelen bularrezkol(1) zaldunak baiño ariñago ikusi ebelako, zelan berton il eban.

-XIIn Alfonsoren ikas-bideak, errege al izatea, ezkontza ta euki zituzen semeak be ikusi gendun, gazte il zan arte.

-Kanobas eta Jauregi´tar Antonio´ren bizitza, bere garrantzi aundiko ekintzakaz be ikusi gendun, arik eta 1.828ko urtean Dagonillaren 8an Gipuzkoako Mondragoien dauan Santa Agedako urastegian, lege bageko batek, il eban arte.

-Mateo ta Sagasta´tar Práxedes be, bere maisutasun aundiagaz ikusten dogu.

Gauza guztien artean baiña, Kanobasek, Sagastagaz egiten ebazan jaurkintzaren politikazko ezker-eskumako truke-jokuak, izan ziran batez be barregarrizkoak, alderdi bikoen ekitaldizko aldaketetan ekarri dabena gaurko egunerarte, guzurrari eutsi ezinik.

Eta 1.812ko urtetik asi ta oraiñarte, bereztasunezko giza eskubideen aurka sortu izan diran maltzurkerizko guzur guztiak, guzurragaz asmatutako konstituzio ori egin ebenetik sorturikoak diran lez, nausitzargoko konstituzio orrek, oiñarrietatik guzurrezko konstituzio edo iraspena izate edo ekarteagaitik, danetarako menpea ta guzurra baiño beste arrazoirik ezin izan dabe erabili, guzurra elikatzeko, guzurra bear dabelako.

Euren artean, ta konstituzio orreri nai ta egin bear izan eutsoen aldakuntza ugarietatik, guzurraren legezko arauditasun orreik, zentzunean kokatzeko, ez ebelako iñungo arrazoi ta lekurik euki, ekanduaren egizko legez, bereztasunaren legez, edo zentzumenezko legez ezartzeko Euskaldun, Katalan eta Galleguaren aurka, zapaltzaillearen ekintzak egitera agertu dira beti, eta eurengandik gurentzat, guzurrak egi lez biurtzeko, borrokak ta iltzeko keiñu gogorretan be ibili ba dira, beartuta agertu dira beti, gudaloztearen indarrak ibilten.

Daukien norkeriagaz, eritzi ezberdiñen irudiagaz agertzen jakiezan zentzunbageko gauza ortatik agertzen jakiezelako, euren arteko asarre guztiak, euren artean beti borrokan ibilteaz gaiñ, eta pitin pitinean batak besteari iltzeko keiñu edo meatxatu egin ondoren, atzerrira bialtzen ibili ziran, legezko arau guztiak, bakotzaren azalkera edo adierazpenean, guzurrezko legeakaz ibili izan bear ebazalako, beti ta gaur geiago, daukien nasketa edo naste-borraste orretan agertuz.

Orregaitik argi ikusten doguz, eurak be, bakotzaren eritzizko ulermen ezberdiñean agertzen dirala, eta gudalozteen indarra euren eskuetan eukinda, gatz egiten jakiela, euren artean bakez ibilten be.

Ezkerrak, euren arteko menpearen alegiñatik alde egiteko, atzerritasuna euki ebela, bestela euren artean, danak ilarazi edo euren artean garbituko ziran.

Len, zoralditasun aundia izan zana, nai kanpo aldetik eta Erdiugarte onetan be, ta gaur

(1) Bularrezkol zaldunak = caballeria de los coraceros. Caballeros que llebavaban coraza.

eten barik, guda-bageko borrokan gabizelako ezeren zentzun barik, berezkotasunezkoaren gaiñetik eskubitarrak, Nizeako IVn Gizalditik erabagi ta ziñezkintzatu eben asmoetatik ezer kendu edo damu barik, urrezko-tzekorraren sasijainkoarenak dabizelako egiten, ezeren zentzu barik.

-Karlisten bi edo irugarren gudaren amaiera be agertzen dogu, zeaztasun osoagaz, eta bere artean edo beragaz batera, Arana ta Goiri´tar Sabinoren arrigarrizko bizitza, itz baltz ta izki etzanakaz eginda dagoena, gura dauenak, errezago artu dagian.

1. 3. *12n Ataleko sarreraren aurkezpena, XIIn Alfonsogaz asi ta.*

1.868ko urtearen Aintzagarrizko edo Ospagarrizko iraultzagaz(1), XIIn Alfonso ume bat zala, kendu eben bere ama Isabel erregetzazko zeregiñetatik, Frantzira erbesterazota.

Eta IIn Isabel, bere senar Asis´eko Franzizko´gaz Parisen, bizitzeko bananduta bizi ba ziran be, bere amak, Europa zabaletik ibilteko euken aukera ori, oso aberasgarria agertu jakon XIIn Alfonsori, Frantzez, Austriar, ta Ingalaterrak euki ebezan politikazko arauak, euren arlo edo eritzizko lekuetan esagutu ebazalako. Eta bera izan zalako Asturiaseko Printze guztitik, atzerriko mail andiko ikastexe ta gudari ikastetxeetan ikasten ibili zana.

XIIn Alfonso leen, Paris´eko Stanislas ikastetxean sartu eben.

1.869ko urtean Iraillaren 29an, XIIn Alfonso´ren senidetasuna, aldi baterako beintzat, Jinebrara aldatu zan, eta XIIn Alfonsok ikastaro edo ikas-aldi bereziak artu arren, erriko Jakitun Batzarretara(2) be joan zan.

XIIn Alfonsoren urrengo ikasketak beteteko, Bienako Teresiana Errege ta Kaisarrezko Jakitunen Batzar ikastetxera joan zan.

Askenean, Ingalaterrako Sandhurst Guda-ikastetxean sartuz, erri orretan Ingeles´tarren batzangotasunezko konstituzioaren legeak esagutuko ebazan.

Denbora onetan, IIn Isabelek euki zituzen diru estutasunak jakiten dira, XIIn Alfonsok, bere ikas tokietatik eskutitz, amarekin euki ebazan kontakizunen bidetik.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean IIn Isabelek Paris´en sinatu eban agiriakaz, bere seme XIIn Alfonsoren eskuetan itzi ebazan erregetzazko ardura guztiak, espainitarrek, legezko errege lez artu egien.

Espainitarren arteko bitartean, jaurkintz ezberdiñak aldatu ziran:

1.868-1.870eko urte bitartean, aldi baterako sortu zan jaurkintza(3).

1.870-1873ko urte bitartean, I Amadeo´ren demokrazizko jaurkintza.

Eta 1.873-1.874ko urte bitartean, I Errepublikea.

1.874ko urtearen Urtarrilan ezereztu zan I Errepublika au, eta bizia euki eban, arik eta Pabia gudal nagusiak, Laterrien aurkako matxinada egin arte, bigarren aldia zabaldu egin ebana, sortuko ziran jaurkintz baragarrientzat.

Sei urteko epe aldi demokratiko? oneitan, XIIn Alfonsoren gorteko eskubideak, Jauretxe edo Gaztelu ta Kanobas´tar Antoniogaitik bideratuta egon ziran.

1. 4. *XIIn Alfonso, errege al izatera.*

(1) Aintzagarrizko edo Ospagarrizko Iraultza = Revoluciòn de la Gloriosa´lez esagutu zana. (2) Jakitun Batzarrera = Academia Pùblica de esa ciudad Cantonal.
(3) Aldi baterako sortu zan jaurkintza = gobierno provisional.

1.874ko urtean Abenduaren 1eko egunean XIIn Alfonsok, Ingalaterraren Egoaldeko Sandhurst(1) erritxoan, Ingelesak sortutako gudari ikastetxetik, eta XIIn Alfonso(2) bertan ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen aurkezpenean, au esaten eutsoen: "Bera, katolikoa, espainitarra, konstituzio barriaren aldekoa, liberala, eta espainitarrai serbitzeko gogoz beteta, egoan gizona zala".

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez ta Kanpos´tar Arseniok Balentziako Saguntotik, XIIn Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztu egin zan erregetzazko jaurkintza Erdiugarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gaiñetik. Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari, eta Sagasta, gobernuaren Jaurlari.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, gobernuaren agintarizko agiri bategaz, Ordezko Ministeritza ezarri zan espainitarren lurraldean, XIIn Alfonso etorriarte edo adiñ neurrira elduarte, Kanobasek, lendakari lez zuzendu zedin.

1.875eko urtearen Urtarrillan eldu zan XIIn Alfonso Erdiugarte onetara, eta errege lez aldarrikatu eben espainitar gorteen aurrean.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an XIIn Alfonsok, Kanobas izendatu eban Ministruen Aolkularitzazko Batzordearen Lendakari, bai ta beste ministruen lanpostuak be.

Bere erregetza geien, espainitar errege leiñuen sendotzea, ta konstituzioaren ezarpena gogortu edo ta finkatzea zan, sei urtetan guzurrez betetako estabaidakaz eta matxinatuzko zalantzan, ain txarto geratu ziranak.

Orren ekintzagaitik "Pakegillaren" guzurrezko izena irabazi eban. Eta guzurrean zaldikatuta gagozelako 325eko urtetik edo Nizeako eleiz-kaisar batzarretik ona, ekintza guztiak, guda indarrez edo izkillu bidez egin bear izan dira, "guzurra, egi lez, ezin leikelako aurkeztu edo biurtu".

1.875eko urtean Otsaillaren 13an XIIn Alfonso errege lez egoala, beste agintaritzazko agiriekaz, ararte egon zan Ordezko Ministeritza kendu zan. Ez XIIn Alfonso egon zalako bakarrik, geienetan, ezin ebelako bakez eroan, ezeren zentzunezko agindurik.

325eko urtetik, Katolikotasunezko aberriaren kaisertzazko guzurrean ezarrita, eta dan guztia katolikotasunezko aberkidetzaren guzurragaz, egia zikindu zalako asieratik, gauza bat bera esanda be, ez zan oldoztu bakearen edo berezko arrazoiaren eritziekin edesti guztian.

Guzurrak, guzurrezko zentzuakaz bakarrik alkartu bear ziralako, eta bereztasunaren legez, guzurra oiñarrietatik asten dalako okertzen, kanpoko alegiñ orreik egitan biurtzeko, zentzun edo ta zuzentasunezko bidera eroateko alegiñetan, borrokak baiño besterik ez dabe sortzen. "Guzurrak", "Egitan" biurtu gura ezkero, gaur sortzen dan lez.

Jakiña da, edo bereztasunezko legea izateagaitik, argi agertzen jaku: "Bolbora edo lerrautsa, piztutako poxpollo bategaz zorro baten sartu ezkero" eztanda egiten dauala, egia ta guzurra Izadi onetan, Goiko Jaungoiko Irasleen legeakaz, benetako aurkariak diralako.

1.876ko urtean onartu eben espainitarrak konstituzio barri ori, karlisten borroka amaitu ondoren. VIIn Karlos bera be egon zan, azken borroka orren porrota ikusten.

(1) Sandhurst = Ingalaterraren Egoaldean, Berkshire´ko errian dagoena, 1.802ko urtean Ingelesak sortu eben gudarien ikasetxetik, XIIn Alfonsok, bertatik ikasten egoala, espainitarrai aldarrikatu eutsoen bere aurkezpena errege lez. (2)Berritzailletasunezko aldiari asiera emon = su reinado diò fin a la 1ª repùblica y comienzo a època de la restauración.

Euskal-Nafar, Katalan eta Galleguen foruak be murriztu ebazan, errigizarte oiek guztiz minduta itziz. Kubako ugartean, Zanjon´eko ongundeagaz bake antzeko bat lortuko eben, ez ebena balio ezer, kubatarrak, laster lortu ebelako euren askatasuna.

1.878-1.879ko urtetan XIIn Alfonsori, legearen etsaiezkoak edo legebagekoak(1) be, gaiztakeri bi egin eutsoezan, bera, min barik urtenda.

1.883ko urtean XIIn Alfonsok, Beljika, Austria, Alemania ta Frantzira joan zan agintezko ikuste bat egitera.

Eta Alemanian, Alsaziako gudari-zaintzazko taldearen oorezko koronelaren izenagaz jantzi gura eben, Alfonsok onartu ebana, eta Frantzezari irabazitako lurraldea izan zan lez, oso asarre agertu ziran oneik Alfonsorekin. Parisera joan zanean, ondo baiño obeto erakutsi eutsoena.

1.885eko urtean Alemanak, eurentzat gura ebazan, Itsas-Nausian, espainitarrenak ziran Karolinako ugarteak, eta bion artean borrokan egiteko prest agertuta, urte onetan egin eben espainitar-Aleman ongundeko batzarrean, jabetasuna espainitarren alde geratu arren, Karolinaseko ugarteetan espainitarren aldetik, Alemandarrak gudarako gura eben itsas-kai bat eraikiteko eskubidea galdu eben, bai ta, alemaniaren alde geratu ziran Marsall´eko ugarteak.

1.885eko urte orretan, beazun edo gibel-ur beltz´eko izurri edo elderria(2) zabaldu zan Balentziatik, Erdiugarte onen erdirantza zabaltzen asi zana, eta XIIn Alfonso Aranjuezera eldu zanean, gaixoak ikusi gura ebazala esan eban, eta Jauregiko Kanobasek espainitarren gobernuko leen ministruak, Alfonsok euken kutsapenaren arriskuagaitik, ezetza emon arren, XIIn Alfonso iñori jamonik egin barik joan zan gaixo orreik ikustera.

Bertara eldu zanean, eta zaindarizko gudariak sartu zitezen, erregeak, jauregiaren ateak zabaldu egiezala agindu eban.

Eta guzti orreik egin ostean, gaixoak ikustera joan zan, auek lasaitasunean ezar gurean, laguntzak banatuaz batera.

Kanobasen gobernukoak, jakin ebenean erregeak egin ebenagaz, bereala bialdu ebazan orokorrezko kapitaiña, zuzentasunerako ministrua, eta gizartearen jaurlaria, erregeari ostera barkamena eskatuz Madrillera eroan egien. Madrilleko erritarak ori jakin ebenan, bidera urten eutsoen, eta zaldiak gurdiaren lotutasunetik askatuz, eurak eroan eben zalgurdi ori erregeen jauregirarte.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIn Alfonso gaitzepelezko(3) gaixotasunagaz.

1. 5. *XIIn Alfonsoren ezkontza, eta euki zituzen alaba-semeak.*

Birritan ezkondu zan XIIn Alfonso au:

1.878ko urtean Urtarrillaren 23an Maria de las Mercedes de Orleáns, Montpensier´eko dukeen alaba zanagaz, bost illabete barru, sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana(4).

Eta 1.879ko urtean Azillaren 29an Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristinagaz, I Frantzizko Jose Austriako Kaiserraren bigarren lengusiñagaz.

Eta iru alaba-seme euki ebazan onegaz:

(1) Legebagekoak edo lege-etsaiezkoak = Àcratas, anarquistas. (2) Beazun edo gibel-ur beltz´eko izurri edo elderria = epidemia de còlera. (3) Gaitzepelezko gaixotasuna = tuberculosis. (4) Sukar-beltz edo gaitzepelagaz il zana = que muriò de tifus.

1.880 jaio ta 1.904ko urtean il zan Merzedes´eko Maria, Asturiaseko printzea zana, espainitar erregearen alaba izateagaitik, eta Bi Sisiliako Borbon´tar Karlosekin(1) ezkondu zana.

1.882ko urtean jaio ta 1.912ko urtean il zan, Maria Teresa, espainitar erregearen alaba. Babierako Fernandogaz ezkondu zana.

1.885eko urtean, XIIn Alfonso il da gero, 1.886ko urtean jaio zan semea, gero, XIIIn Alfonsoren izenagaz errege izango zana, eta Battenberg´eko Bitoria Eujeniagaz ezkonduko zana. 1.941eko urtean il zan.

XIIn Alfonsok, beste seme bi be euki ebazan, Sanz´tar Elena abeslariagaz:

1.880ko urtean jaio ta 1.970eko urtean il zan Alfonso.

Eta 1.880ko urtean jaio ta 1.922ko urtean il zan Fernando.

XIIn Alfonsoren emazte Maria Kristina, 1.902ko urterarte izango zan, XIIIn Alfonso, bere semearen errege ordea.

1. 6. *12n atalean sartu orduko, 1´go Errepublikea gogoratuko dogu.*

1.873ko urtean Otsaillaren 11n uko egin eutson Saboyako I´go Amadeok espainitar erregetzari, eta 13an espainitar erregetzatik alde egin eban ordutik, Bagillako illean, erritarrak eskatuta, I´go Errepublikea aldarrikatu zan.

1.874ko urtearen Abenduko 29raiño, edo 11 illabetetan iraun ebana, Saguntoko urian Kanpos´tar Martinez´ek, XIIn Alfonso´ren izena errege lez aldarrikatu eban arte, edo ekintza onegaz, Errepublikako jaurkintza ezereztu zan arte.

1.874ko urtean Abenduaren 29an espainitar gobernukoak, susmo txarrean euki eban Kanpos´tar Martinez ori, eta atzerriratzea erabagi eben.

Kanpos´tar Martinezek oartuta baiña, ta Balentziako Alfonsinoak ezkatzen eutsoelako, Abilara doielakoan, Saguntora joan zan artez, bertan bere aldarrikapena egiteko.

Bitartean baiña, Ramirez de Arellano ta Laban´tar Luis orokorrezko kapitaiñaren ordezkoak, bere Segorbeko gudaloztearen zati batégaz, bertora joan zan.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, gudari orreikaz lauki bat eginda, Kanpos´tar Martinez´ek eurari begira, IIn Isabelen seme XIIn Alfonso aldarrikatu eban espainitarren errege lez.

Serrano gudal nagusia, orduko denboran gobernuko leen ministrua izanda, Kanpos´tar Martinez´ek egin eban aldarrikapenari, ez eutson ezer esan, eta XIIn Alfonso geratu zan Borboien leiñuzko errege lez.

11 illabete oneitan, lau "Errepublikaren Alkarteko Alderdi"ren(2) lendakariak aldatu ziran, espainitar jaurkintzaren agintaritzatik, arik eta 1.974ko urtearen Urtarrillako 3an Pabia´tar Jeneralak matxinatuz, espainitar gobernuagaz egin zan arte.

Serrano ta Domingez´tar Franzizko gudal nagusia izan zan, espainitar Errepublikako konstituzioaren alderdiko jaurkintza orren agintari nagusi lez, jauntxoaren arauzko(3) gogortasunean. Jaurbide orren bizitzazko 11 illabete orreik, iru borroka nagusiekaz mugatuta geratu zana: Karlisten irugarren guda; Erki-Zaleen(4) matxintasuna"; ta Kuba´ren

(1) Bi Sisiliako Borbon´tar Karlos = 1.870eko urtean jaio ta 1.949ko urtean il. (2) Errepublikaren Alkarteko Alderdiaren = Partido Republicano Federal. (3) Jauntxoen arauzko jaurbidea = gobierno dictatorial. (4) Erki-zaleen matxintasuna = Rebelión de las provincias cantorales, que pretendian mayor autonomia. Que no eran cantorales todas èstas regiones, porque Euskadi, Cataluña, y Galicia" son naciones de identidad y personalidad propias, que hoy aùn estàn sin resolver por imperiosidad de los españoles, como es la Ley de los Territoris Històricos L.T.H. de èsta peninsula.

amar urteko gudagaz.

Figeras´tar Estanislaoren I´go Errepublikako ekitaldi au, sei urteko sasi-demokraziaren barrutik, bai ta eztabaida askoren artetik, eta 1.868ko matxintasunetik, 1.870eko urtean jaio zan, I Amadeon jaurbidea, Kanpos´tar Martinez´ek Sagunton egin eban aldarrikapeneraiño iraun ebena.

Aipatzekoa da emen, txalo askoren artean onartu zan Kastelar´tar Emilio´ren izketea: *Señores "con Fernando VII muriò la monarquia tradicional"; "con la fuga de Isabel II, la monarquia parlamentaria"; "y con la renuncia de Don Amadeo I° de Saboya, la monarquia democrática". "Nadie a acabado con ella, ha muerto por sì misma".*

Nadie trae la Repùblica la traen todas las circunstancias, la trae una conjuraciòn de la sociedad, de la naturaleza, y de la historia".

"Señores, saludèmosla como el sol que se levanta por su propia fuerza en el cielo de nuestra patria".

Eta emen itaun aundiena: Noren eskubidetik eukiko ote dabe euren espainitar Aita-Ama, ta Nortasunezko izkuntza: Izkuntza, Euskaldun eta Erromatarren arteko borrokatik, urten eban Gaztelerea edo ganorabageko izkuntz ori ba da(1), ta gurasoen aitortza edo etorrerea, Erromatar-Godoak, I Silbestre aita Santua ta Osio Kordobako gotzaiñagaz asmatu eben Katolikoen Aberkidetzatik agertzen bada ?.

Orko bidetik Aita-Amaren etorreratik "Patria" izan edo eukiteko, ez daukie ezerren arrazoirik, eta orregaitik gitxiago, iñungo eskubiderik.

Euskadi, Kataluña, ta Galleguak, bai alderantziz. Eta uskaldunak barriz, milla urte askoren ziñespidezko aitorreragaz ziurtuz.

Eta jakiteko zelango zorotasunezko ekintzak ekarten dauazan maltzur ta guzurrezko jaurbide batek: "guzurra" "egiz", ezindalako biurtu, Errepublikeak euki eban Figeras´tar Estanislaoren lenengoko lendakariak, ministroaren batzarra ollo-toki baten antzera biurtuta egoanean, esan ebazan berbak aurkeztuko dautsuedaz:

"Señores, ya no aguanto màs. Voy a serles franco: ¡ estoy hasta los cojones de todos nosotros".

Ortik aurrera egin ziran aldaketa guztiak, gobernuarenak eta Pabia´tar Manuelen(2) alegiñak lez, danak izan ziran eurak euki eben guzurrezko legeen kanpotik, zorotasunezko ekintza baten.

1.874ko urtean ta Abenduko 29an dana dala, amaitu ziran Igo Errepublikaren ekimenak.

Martinez ta Kanpos´tar Arseniok, Balentziako Saguntotik, XIIn Alfonsoren alde aldarrikatu ebenean bere eritzia, berriztuta geratu zan erregetzazko jaurkintza Erdiugarte onetan, Euskaldun, Katalan, eta Galleguen aberkideko eskubide guztien gaiñetik.

Egun orreitan, Serrano´tar gudal nagusia izan zan Laterriaren agintari nagusi, eta Sagasta, gobernuaren jaurlari.

2. *Euskalerriaren edestian, XIIIn Ataleko gaia´ren asiera.*

2. 1. *XIIIn Alfonsoren bizitza eta erregetza.*

(1) Gaztelerazko izkuntz baragarriagaz = muchos interesados españolistas, le dan tìtulo de "romance" que quiere decir derivado del latin, en Euskera "Latin Kumea" no queriendo hacer notar que fuè contra el idioma euskèriko su formación forzosa, deforme, o no cultural. (2) Pavia´tar Manuel = Lacy ta Pavìa´tar Manuel = Nacido en Granada el año 1.849, y muerto en Madrid el año de 1.896.

1.885eko urtean Azillaren 25ean eta 27 urte eukezala XIIn Alfonso il zanean, Mateo ta Sagasta´tar Praxedesen gobernua, larri aldi gogor baten sartu zan, erregeen ondorengo gora beran, Absburgoko ta Lorena´tar Maria Kristina erregiñak bere aurgitean, jakin arte mutilla edo neskea izango zan, jaioko zana.

Arazo gogorra izan zan, 1.880ko urtean leen jaio zan Merzedes´tar Maria, neskea izan arren, Asturiaseko printzea izendatuta egoalako.

1.885eko urtean Azillaren 25ean il zan XIIn Alfonso gaitzepeleko gaixotasunagaz, oraindiño, sei illabete eta 13 egun geratuz, XIIIn Alfonso bere semea, jaio zedin.

1.885eko urtetik 1.902ko urteraiño eroan eban bere ama Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristinak, XIIIn Alfonso "El Africano" deituko eutsoen, erregezko ordegotza.

1.886ko urtean Madrillen, Loraillaren 17an jaio zan XIIIn Alfonso "Afrikarra", eta 1.941eko urtearen Otsaillako 28an, Erroman il.

XIIn Alfonso erregearen, il-osteko semea izanda, bere amak eroan eban bateatzen, eta izen oneik ipini eutsozan: "Borbon eta Absburgo Lorenako Alfonso, Leon, Fernando Maria, Jaime, Isidro Paskual, eta Antonio".

Eta 1.886ko urtean Loraillaren 17an XIIIn Alfonso jaio zanean, bereala izendatu eben errege. Europako edestian, beragaz bakarrik izanda alango gauzarik leenengoz egiten zana.

1.888ko urtean espainitarrak argiratu ebezan legeak, lotsabagekerizko txantxa bat bakarrik izan zan Euskaldun, Katalan eta Galleguarentzat, euren barnean euken lapurrezko kaisar asmo maltzurrekin, jakin ebelako, lapurretan ibili zirela guzurrezko ekintzakaz.

Eta edestia ain luzea izanda, iñorentzat ez zan bear izan arritzeko gauzarik, Faziztak euren menperatzailleen ekintzatan, maltzur, guzur eta izkilluaren indar bidez egiten dabelako, egiten daben guztia, besteak, bizi alegiñez edo daukien aberastasun edo mozkin guztiak, eurentzat gure dabezalako.

Beste gauza txar batzuk be, sortu jakuzan euskaldunai ortik aurrera, euskal izaeran, ainbeste milla urtearen azturazko ikas bidetik, gartsu edo oldartsu(1) biurtu giñan lez, edesti guztian antzera, beti al izan garela edozein ekiñaldiko lanbidetik bizitzeko gai, bai ta berori lortzeko edo ta sortzeko be, bear doguzenak egin. Eta erromatar-godo-katoliko-merkantil espainitar aberkide orreik, euki eben maltzurrezko indar ta apaindutako guzur aundiakaz, Mundu osoa eurak kontroletako gai dirala ikusi ebenean, oso osoan joan zirela gure barnean daukaguzan oldozmeneko almen orreik lapurtzera. "Euskal Nortasuna gura eben Lapurtu" batez be. Almen ori, Goiko Jaun Iraslearen eskuetan dago bakarrik, baiña.

Ez dira konturatzen, lapurtza orreik, erri-iltzaillearen eritzizkoarenak direla, Mundu onek Jaungoiko Iraslearen Legebidetik, Lege orreik, eurak, Fazizten ekanduan biurtzen dabezelako, nai ta guk, gura ez arren.

Eta Frankori, bere ospe andiko bost urte egitamuarekin bardin sortu jakon(2): "espainitar Langilleak, prest egon zirela, guk egiten genduzan lanak lapurrezko bidetik eurak egiteko".

Lantegiak euren arrotzezko lurraldetan ipini ebezan, gu beartsutasunean ezartzeko, eta eurak daukien "katolikotasunaren aberkidetzazko" erlijiozko asmo orreitan, Euskaldunak, norkeri orretaz bat egiteko: Zaragoza, Balentzia, Galizia eta Andaluzian ipini ziran lantegi guztiak, azken gaizto edo utsegite andi bat bakarrik euki ebena.

(1) Gartsu edo ta oldartsua = fervoroso, ardiente, devoto, piadoso, emprendedor, entusiasta, decidido, apasionado. Decidido, resuelto, audaz, violento,audaz. (2) Frankoren bost urteko egitamu = los planes quinquenales de Franco.

Eta ez ziran izan gai, aurrerantzean, burni langintza orreik aurrera atarateko.

Baiña Euskalerriarentzat zoritxarrena batez be, gauza guzti oneik, gure arteko abertzale ez ziran jauntxo aberatsarekin edo aberatsak izan guretik agertu zirala da.

1.892ko urtean ez da arritzekoa Somorrostroko idazkariak, bere agiri baten auxe esatea: *"Esta cuenca, que ha contribuido al noventa y uno por ciento de la producciòn total, està acaparada por los ingleses"*.

1.898ko urtean eta Estatu Batuek kolonietako borrokatan eskua sartuz, espainitarrak, Kuba, Aberats-Kaia(1), Filipinas eta Guan´eko ugartearen lurraldeak galdu ebazan.

Eta 1.898ko zori-gaiztoko urtea, deituko jakon ekintza guzti oneri, espainitarren artean.

XIIIn Alfonso espainitarren errege lez, bere jaiotzatik, 1.931ko urtean Jorrailaren 14an IIn Errepublikea aldarrikatu zan arte iraun eban.

XIIIn Alfonsoren errege denboran, lau arazo aundi sortuko ziran, liberal erregetzakaz amaituko ebena:

a). -"Politika arloan, alkarte edo errigizarte askotan, ordezko arduradun barik egon zirala".

b). -"Be maillako erritarren larrialdia, eta batez be nekazarien artean, ezintasunezko egoera larrian sartu zirala".

d). -"Rif´eko borrokak, odol-ixuriaz, ta arazo aundi ta larriakaz agertuko zirala".

e). –Eta espainitar kaisar agindutik, eta bai ta auek egiten ebazan gudalozteen keiñuakaz, Kataluñako aberkideen askatasunetik, agertzen zirala eten bageko arazo larriak.

1.898ko urtean, Ameriketako Estatu Batuaren ondorioz sortu zan politikazko uerdura edo uberduragaz(2), turnisten alderdi liberalai, ez eutsela itzi demokrazian ezartzen, eta bereala bideratu ebazan gauza guztiak Ribera ta Primotar Migelek(3), XIIIn Alfonsok onartu eutsonean, bere jaun-txarrezko gobernua ezarri zedin.

XIIIn Alfonsok, jauntzargoko gobernu onen politikagaz, demokrazizko politika bat gura eban berrezkuratu, político guztiak baiña, lepoa emon eutsoen, Primo ta Ribera´tar Migel´eri, lagundu eutsolako jauntxarrezko gobernu ori ezartzen.

XXgarrenengo gizaldiaren sarreran, ta kolonigilleak batez be, egin ebezan lurraldeko zatiketatik, kolonietako arazoak asi ziran ugaritzen, ta oraingoan, Marrokos´en Iparraldetik, Rif´eko borroka orreitatik iraingarriz(4), ikaragarrizko odoltizko(5) borrokak ekarri ebazan.

2. 2. (30) *1.899ko urtean Jorraillaren 23an Bilbon.*

Euskal-Biltokia zabaltzen da, Sabino ta Luis anai sortzailleak izan da, bilgune orren ibilteko lege ta arauak osotu egingo ebazanak.

Elkarte onegaz Arana´tar anaiak gure ebena, alkarte zabal bat izatea, erriko bazkide artetik kide geiago batzeko, eta alkarte onetara, Euskaldun Batzokiya, Euskalerria, eta Alkartasunezkoak batu ziran.

Bere leenengo lendakaria Arriaga´tar Emiliano izan zan.

(1) Aberats-Kaia = Puerto Rico. (2) Uerdura edo uberdura = turbulencia, turbiedad. Turbulentamente =zalapartan, zarataz, iskanbillaz. Turbulento = zalapartari, burrunbari,erri-nasle, ta abar. (3) Ribera ta Primo´tar Migel = 1.870ean Kadizeko lurraldean Mugado Jerez´en jaioa eta 1.930eko urtean Paris´en ildakoa. Marrokos, Kuba eta Filipinaseko gudaldietan ibili zana; 1.923ko urtean Kataluñako Orokorrezko Kapitaiña izanda, espainitarren jaurkintzagaz jabetu zan eta gudalarien gobernu edo Buru Batzar bat ipini eban; 1.927ko urtean espainitar aberriaren biltzar bat antolatuta; 1.930eko urtean yeregin bear izan eban gobernu ori eta Frantzira atzerriratu zan. (4) Rif´eko borroka orreik iraingarriz = las luchas de Marruekos en el Rif, fueron vituperables, censurables, injuriosas, y afrentosas. (5) Ikaragarriz odoltiak = que fueron tremendamente crueles y sangrientas.

1.899ko urtean Jorraillaren 30ean, Bermeoko Batzokija zabaltzen da, eta beren araudiak, Sabinok osoz antolatu ebazan.

Bermeoko Batzokijak euki eban leenengo lendakaria, Goitia´tar Benancio izan zan.

1.899ko urtean Loraillaren 14an, Udaleko auteskundeak ospatu ziran, eta euskal alderditik Bilbon 5 zinegotzi, beste ainbeste Bermion, eta batzuk geiago Arteagako errian. Mundakan, Euskal abertzaletasunaren leenengo alkatea aukeratu zan.

1.899ko urtean Iraillaren 6an, Arana ta Goiri´tar Luis, Paulina eta Sabinok, gaurko Sabin-Etxea erosten dabe.

Denbora gitzi barru, etxe ori saldu bear dabe, Arana ta Goiri´tar anaien diruzko arazoetatik urteteko.

1.899ko urtean Iraillaren 12an espainitarrak, legezko agiri bat atara eben, Bizkaiko erritarren-eskubideak kentzen ebazanak, Silbela´ren gobernukoak ikaratu egin ziralako, euskaldunak auteskunde orretan, atara ebazan autarkiakin.

Gaur ez da urrun joan bear ori berori ikusteko, katalanakaz be ori egiten dabelako. Eta len esan dogun lez, ez da besterik, "guzurrean zaldikatuta ibilteagaitik, guda indarra eroan bear dabelako".

Ekintza orreik daukaz zuzenean "kaisarrezko Jaun-txargoakaz ibili ez-gero.

Ekintza onekin, Bilbon Euskal-Biltokia, ta Euskeria Abes-batza. Bermion, Batzokija, eta Barakaldon, Euskalduna-Alkartea, zarratu eben. Bai ta "Correo Vasco" izparrangia.

1.899ko urtean Iraillaren 15ean, "Correo Vasco"ren asken alea atara zan. Bai ta asteroko "Euskalduna"ren izparrangia, ertsi edo itzi ebezalako.

1.899ko urtearen Azillan, Arana ta Goiri´tar Luis Euskal Iparraldeko atzerrira joaten da, Sabino, Sukarrietara joanda bizitzen. Sabin-Etxea saldu zan urte onetan.

1.900eko urtean Arana ta Goiri´tar Sabino, Atxikallende´tar Nikole´gaz ezkontzen da.

1.900´eko Jorraillren 13an Luis´ek, E.A.J.´eko Alderdia ta Pizkundiko argitaletxea ukatu egiten dauz, bera Iparraldean bizi zalako.

1.900´eko urtean Uztaillaren amaieran, erki jaurlari edo guda-jaurlariak, joan zan urteko Iraillan ertsitu edo itxi ebazan euskaldun erakunde guztiak, zabaltzeko agindu eban, asteroko "Euskalduna" izparrangia be agertuz.

1.901eko Urtarrillaren 10ean, Bizkai Buru Batzarra´ren lendakaria aukeratzen dabe. Sabino bera urtenda barriro. Eta leenengoz lendakari ordezko lez, Zabala´tar Anjel aukeratzen dabe.

1.901eko urtearen Epaillan, leenengoz agertzen da iru illabeteko Euzkadi aldizkaria.

1.901eko Dagonillaren 23an espainitar erri irakaskintza eta arte ederraren gobernuko ministruak, 1.896ko Epaillaren 6an, Oñate ta Euskal ikastetxe nagusiari emon jakien baimenezko legeak, indargabe geratu zirala esan eben, ta aginte orren ostean, Euskal irakaskintza ortik aurrera eroateko, ikastetxe nagusi barik geratu giñan.

1.901eko urtean Urrillaren 27an, "La Patria" astekaria agertzen da leenengoz.

1.901eko Azillan, "Eusko-Gaztedi" elkartea agertzen da leenengoz, Bilbaoko Gazteen(1) aita edo aurreko erakundea, izango zana.

1.901eko Azillaren 10ean, Udaleko auteskunde barri batzuk ospatzen dira, Bilbon sei zinegotzi geiago atarata, guztiz 11rarte elduta, eta Bermion iru geiagoagaz zortziraiño

(1) Bilbaoko Gazteen aita izando zana = padre de "Juventud Vasca".

eldu zana.

1.901eko urtean Loraillaren 2an, Bilbon ta militarrak, Bibaoren azken ingurutasuna ospatzen ebelako, jantzan ibili ziran ingurutik urtenda, Euskal-Biltokira urreratu ziran, eta barrura sartuz, ikusi eben guztia ipini eben ankaz gora, bai triskantza aundiak egin.

2. 3. *XIIIn Alfonso ostera artuz.*

1.902ko urtean Loraillaren 17an XIIIn Alfonsok, 16 urte bete egin zituzenean, adiñean nagusi lez izendatuta, artu eban espainitar Laterriaren zuzentasunezko agintea.

1.902ko urtean Urtarrillaren 1eko egunean, eta bere eguneroko liburutxoan idazten ebenatik artuta, auxe idatzi eban XIIIn Alfonsok:

En este año me encargaré de las riendas del estado, acto de suma trascendencia tal como están las cosas, porque de mí depende si ha de quedar en España la monarquía borbónica o la república; porque yo me encuentro el país quebrantado por nuestras pasadas guerras, que anhela por un alguien que lo saque de esa situación. La reforma social a favor de las clases necesitadas, el ejército con una organización atrasada a los adelantos modernos, la marina sin barcos, la bandera ultrajada, los gobernadores y alcaldes que no cumplen las leyes, etc. En fin, todos los servicios desorganizados y mal atendidos. Yo puedo ser un rey que se llene de gloria regenerando a la patria, cuyo nombre pase a la Historia como recuerdo imperecedero de su reinado, pero también puedo ser un rey que no gobierne, que sea gobernado por sus ministros y por fin puesto en la frontera. (...) Yo espero reinar en España como Rey justo. Espero al mismo tiempo regenerar la patria y hacerla, si no poderosa, al menos buscada, o sea, que la busquen como aliada. Si Dios quiere para bien de España.

XIIIn Alfonso bere erregetzan, Erdiugarte onen lurralde guztiak ikusten ebazan, bai ta Alemania, Ingalaterra, ta Frantzikoak be, ostera naikoak eginda.

Eta Frantzian, Paris´eko kaleetan ibilita Errepublikako lendakari zan, Loubet´tar Emile´kin, txarkeri edo gaiztakeri gogor bat euki eben, biok ondo edo, zauri barik urten da.

2. 4. (31) *1.902ko urtean Loraillaren 25ean.*

Arana ta Goiri´tar Sabinok idatzita, eskutitz bat bialtzen dautso Grijalba´tar Pedrori, Urrutizkiñatik bialduta, Estatu-Batuen Roosevelt´tar Theodore Lendakaria izan zanari, zorionak emoteko aginduten eutsoena, Kubaren askatasuna lortzeko, emon eban laguntzagaitik.

Grijalbatar Pedrok, Urrutizkiñako arduradunari emon eutson mezu ori. Urrutizkiñ orren arduradunak baiña, sekula be ez eban bialdu mezu ori, eta alderantziz, Sabino salatu eban, andik bost egun barrura, Larrinagako espetxean giltzapetuz.

1.902ko urtean Ekaiñaren 18an, Erki-Jaurlariak Bilbaoko E.A.J.leko zinegotziak kendu ebazan euren ardurazko lanetatik, 13 egun ariñago, injimar(1) itsasontziaren kapitaiñari, ongi etorria emon eutsolako.

(1) Injimar = barco grande, fragata.

1.902ko Bagillaren 22an, Arana´tar Sabinok idatzita, idaz lan bat urten eban La Patria astekarian ezeren izenpe barik: "Grave y Trascendental" izen buruagaz agertu zana. Bertan, euskal abertzaleari espainitar agintariak egiten eutsoezan eraso, guda ta espetxeen keiñu, bai ta, sarri askotako gogorkeriak, ekarten ebanak.

1.902ko urtean Urrillaren 14an, espainitarren aolkularitzazko ministruak, jaramon eginbage itzi eban, Sabino espetxetik atara egien, 9.000 laguntzazko izenpeakaz joan zan euskal abertzaleen eskaria. Illabete batzuk ariñautik "Addison"en gaitzaldiagaz, oso txarto egon zalako.

1.902ko urtean Azillako 8an, espainitar epailleak, Sabinoren aurka egun bat ariñago asi eban epaiketetan, "urrutizkiñatik Laterri Batuetako lendakariari zorionak emon gura eutsoezelako", aske edo ezeren zigor barik itzi eban.

1.902ko urtean Azillaren 20an, Sabino aske itzi ebalako, eta salari-gelakoak(1) beste gora-bide edo jo-bide bat artuko ebelakoan, Sabinok, Luzaidetik muga aldatu eban, frantzezaren lurraldean babesteko.

1.902ko urtean Abenduaren 1ean, Buenos-Aires´en asten da argitaratzen euskal "Irrintzi" aldizkaria. Ameriketako lurraldeetan argitaratzen zan, leenengoa izan zana.

1.903ko urtearen UrtarrillanArana´tar Sabino, ostera etorten da Sukarrietara, oso gaiso egon zalako.

1.903ko urtean Otsaillaren 13an, Eusko-Alderdi-Jeltzalekoak, laguntzazko erabagi batera eldu ziran Urkijo´tar Jose Maria´rekin, onek diputaduen agiria lortu egien.

1.903ko urtearen Epaillan Sabinok, amaitu eban lurraldearen diputadu izateagaz, eta Diputazio barriaren auteskundeetarako, Txalbod´tar Pedro Bilbotik aukeratuko eben, eta Gernikako lurraldetik, Zabala´tar Anjel.

1.903ko urtean Sabinok, askeneko eres-antzerkiko idaz lan "LIBE" argitaratuko eban.

1.903ko urtean Jorraillaren 26an eta E.A.J.leko laguntzarekin, Urkijo´tar Jose Mari urten eban diputadu, Bilbaoko lurraldetik.

1.903ko urtean Dagonillako 14an Ondarrun, "Euskal-Lagun-Artea" ipini eutsoen izen buruagaz zabaldu zan, euskal alkarte barria.

1.903ko urtean Iraillaren 30ean, Arana ta Goiri´tar Sabino oso txarto ibili zalako bere gaisotasunagaz, E.A.J.leko lendaritza izten dau, bere ordez Zabala´tar Anjel ipinita.

1.903ko urtean Azillaren 8ko auteskundeetan E.A.J.koak 5 zinegotzi lortu ebazan Bilboren Udalerako.

1.903ko urtean Azillaren 25ean, eta goizeko seirak zirela il zan Arana ta Goiri´tar Sabino, 38 urte eukazala.

1.904ko urtean Urtarrillaren 3an, Kortes´tar Migelek La Patria astekarian: "¿ Zer dan Abertzaletasuna?", argitu eban idaz lanagaz, 1.839ko urtean Urrillaren 25eko egunean euskaldunai, lepo gaiñean ipini euskuen espainitar konstituziozko legea, kentzeko zala, bai ta ondore, Foru legeak berezkuratzeko be, adierazi eban.

1.904ko urtean Urtarrillaren 10ean Bilbon, "Juventud Vasca"ko elkartea sortzen da.

1.904ko urtean Otsaillaren 14an, "Juventud Vasca"ren bizi edo jolas tokiak zabaltzen dira.

(1) Salari gelakoak beste gora-bide = recurso de apelación de la oficina de la fiscalidad, o del fiscal.

1.904ko urtean Jorraillaren 3an, eta espainitar gobernuaren aurkaritz gogor bategaz, zabaldu zan Donostin "Euskal Bilgunea"(1).

1.904ko urtean Bagilaren 12an E.A.J.ko arduradunak, La Patria astekarian ataraten dabe antolamenduzko idaz lan bat, 10 kidetik gora daukiezan udalak, udalaren ordezko bat aukeratu egien.

1.904ko urtean Iraillaren 21ean: Abadiño, Arrieta, Begoña, Bermeo, Bilbao, Deusto, Durango, Elantxobe, Gautegiz Arteaga, Galdakao, Getxo, Gernika-Lumo, Gorliz, Lekeitio, Muxika, Mundaka, Mungia, Otxandio, Sopuerta, ta Balmasedako "Juventud Vasca"ren bizi edo jolas toki guztietarako, ta Udal edo, erri guzti orren ordezkarien artean, Larrauri´ko Alipio aukeratzen dabe, Bizkaiko Lurraldearen ordezkari nagusi lez.

1.904ko urtean Urrillaren 9an, Donostiko Euskal Bilgunean, Arrasate, Bergara, Deba, Errenteria, eta Donostiaren Udaleko ordezkariak batuta, Aranzadi´tar Engrazio aukeratu eben Gipuzkoako Lurraldearen arduradun nagusi lez.

1.904ko urtean Azillaren 5ean, eta urte onetan E.A.J.ko erakundean amaitu ziralako egin ebazan antolakuntzak, La Patria astekarian argitzen dabe, zelan Pertika´tar Felix aukeratu zan arduradun nagusi lez, sortu zan "Euskal Abertaletasunaren Orokorrezko Agiritegi ta Liburutegien Estapen edo Iraspenerako"(2).

1.905eko urtean Jorraillaren 29an, La Patria astekarian argitaratzen dabe, zelan ortik aurrera, Sabinok Euskalerrirako idatzi eban "Eusko-Abendaren Ereserkia" izango dala Euskal-Aberriareneresi edo ereserkia(3).

1.905eko urtearen Abenduan, eta itzaldi bat emon zalako Andres Deunaren egunean, espainitar gobernukoak, Bilbaoko "Juventud Vasca" alkarteko egoitzaren itxidura agindu eban.

2. 5. *XIIIn Alfonso ostera berrezkuratuz.*

1.906ko urtean eta Jorraillako illean igon eben Battenberg´tar Bitoria Eugenia(4) neskato au erregeen maillara, XIIIn Alfonso´ren ezkontza, morganatikoa(5) ez dagian izan.

1.906ko urtean Loraillaren 7an sinatu ziran ezkontza onen baldintzak.

Eta 1.906ko urtean Loraillaren 31n ezkondu ziran XIIIn Alfonso, eta Battenberg´tar Bitoria Eugenia, Ingalaterrako Battenberj´eko Enrike printzea ta Beatriz printzearen alabea, ta Ingalaterrako VIIn Enrike´en alabaso edo bir-alaba zanagaz.

Egun onetan eta ezkontza ostean, Erregeen Jauregui etxera joan ziranean ezkondu barri oneik, eta Madrilleko kale nagusititik 88 zenbakiaren aurrean egon zirala, lege-bageko(6) Morral´tar Mateo´k, lora-sorta baten barruan, leergaillu bat eukela jaurti eutsoen, Alfonso ta bere emazte Bitoria Eujeniak, zauri barik urten da, naita bere inguruan 28 il eta 100 zaurituak, bai ta erregeen zaindari artean 3 agintari nausi ta 5 gudari il eta 14 ikusle zauritu.

XX gizaldiaren leenengo amarkada bietan, erritarren matxintasun ugari bizi ebazan espainitarren erriak.

(1) Euskal Bilgunea = centro vasco de San Sebastián. (2) Euskal Abertzaletasunaren orokorrezko agiritegi ta liburutegien Estapen edo Iraspenerako = creación de un artxibo-librería para el nacionalismo vasco en general. (3) Ereserkia edo eresia = Himno nacional de Euskadi. (4) Ingalaterrako Battenberg´tar Bitoria Eujeniarekin = Ingalaterrako Battenberj´tar Enrike printzea eta Beatriz printzezaren alaba izan zana. 1.887ko urtean jaioa, eta 1.969ko urtean il. (5) Monargatikoa = matrimonios que se realizaban entre conyuges de distinta clase social, por eso le elevaron a Victoria Eugenia de Battenberg a la categoría de alteza serenìsima. (6) Lege bageko = anarquista, àcrata.

1.909ko urtean, Bartzelonan egin zan aipatuena, "ikaragarrizko astea" lez, esagutuko zana.

Eta, erritarrak asarre bizian egon ziralako Marrokos´eko gudagaz sortzen zanakin, urte orretan, Marrokoseko guda gogortu zalako, larritasun gogorrak sortu ziran Erdiugarte onetan, arazo aundienetariko baten biurtu ondore.

1.911ko urtean joan zan XIIIn Alfonso Melillara, eta ikuste ori egin ostean, senat batzaren lendakaria zan Montero ta Rios´tar Eujeniok, "el Africano"ren izena ipini eutson.

1.914ko urtean eta Munduko Leenengo guda sortu zanean, naita erregeak gobernuko kideai eskatu, euren eritziak iñoren alde kokatu ez zitezen, XIIIn Alfonso´ren etxea, zati bitan bananduta geratu zan, bere ama Absburgo ta Lorena´tar Maria Kristina Austriar lez, erdiko lez ibili ziran aberrien alde egon zalako, eta bere emazte Battenberj´tar Bitoria Eugenia Ingelesa lez, alkartasunezko aberrien aldekoa zalako.

1.917ko urtean sortu zan guda onen arrazoia, Alemaniaren urpeko itsas ontziak aldarrikatu ebenean, urpeko guda egingo ebala mugaketa barik, espainitarren itsas ontziak urperatzeko ezeren begiratze barik.

XIIIn Alfonsok bakeztu ebena, bera "menpetasunezko bulegoen alde" lan egiten egoala, gudaren Alderdi biko arduradunakaz, lortu ebalako "arrotzale edo arrotz maite"aren ikurriñakaz ibilten ziran itsas ontziak(1), begirunez artu egien.

1.921eko urtean, eta txarto edo suster-bako aukerean egin ziran gudaren egitamuzko antola batzuen erruz, "Annual´eko Ondamena" deitu jakonai agertu zan, Melillako gudan, bulegoaren ondamena sortu zalako.

Espainitar erritarrak asarre agertu ziran, 1.917ko urtearen orokorrezko grebatik etorten zan gero ta geiagoko gaitzezte gogorrezko marmarrearen aurka, politikaren orokorrezko berrikuntzak be, zalantza orren azpian ipinita.

"Pikassoren Irixpideak edo Irtenbideakaz" deitu zanakin, asi eben sortutako gauzaren billaketa edo artezkuntzan, goi maillako jaurkintzaren ainbat arduradun arrapatuta geratuz, nai ta agiri ori, sekula argirik ikusi ez.

Erritarrak ta goi maillako arduradun batzuk, erregeari leporatu eutsoen "Annual"eko zorigaitzezko ekintza, ondameneko errudun ziran Berenger´tar Damaso ta Silbestre´tar Fernandez Jenerala, beren lagunak izanez gaiñ, berak ipinita eukazalako.

Erritarren asarrea gorantza joan zan, XIIIn Alfonso Frantziaren ego aldean oporretan egoala, eta porrotaren ezagutza emon eutsoenean: "merkea zala ollaskoaren okelea" esan eban, espainitar gudarien etorkizunari, ezeren aipamen egin barik.

Orregaz batera erregeak, Silbestre´tar Jenerala alegindu eban, Rifeko lurraldetatik sartu, eta al ebezan geienezko lurrak artu zediñ. Onek baiña, edozein lekuetatik edo Melillatik kanpo egin ebazan okerrezko eginkutzakaz, gudaloztearen bizigarriak eta atze aldia babes barik itzi ondoren, dan guztia ondatu eban.

1.923ko urtean, XIIIn Alfonsok egoera larri orren aurrean, oldoztu eban, ia ez bazan obe izan, nausitxargo edo nausitxar aldi bateko jaurkintz bat ipintea.

Eta 1.923ko urtearen Dagonillan XIIIn Alfonso, Maura ministruarengana joan zan, berak, jaurkintza orren gora beran, eritzi bat emon eutsoen. Maura´ministruaren erantzuna,

(1) Arrotzale edo arrotz-maite´aren ikurriñakaz ibilten ziran itsas ontziak, begirunez artu egien = porque logro que respetasen a los barcos que transitaban con banderas hospitalarias.

gauzak egon ziran eran obeto zala gudalezko nausitxargo baten jaurkintza ipintea, izan zan.

1.923ko urtean Iraillaren 13an, eta Erdiugarte onetan egon zan egoera txarrakin, XIII Alfonsoren baimenean, Primo ta Riberatar Migel matxinatu zan, ta gudaleko nagusitxargo jaurkintz bat ipini eban.

Batzuentzat, matxinada onen argibidea, "Pikassoren Auzi agirien"(1) azterketak ikusi edo ezagutu ez egiezan, egin zala esaten eban, erregea bera be, naaste orretan egon zalako, espainitar liberal erregetza, ankaz gora itzi ondoren.

Ribera ta Primo´tar Migelek, leen "Gudalarien Artezpideko Buru-Batzar"(2) bat ipini eban, eta beranduago 1.925eko urtean "Erritarren Artezpideko Buru Batzarra".

1.925eko urtean, eta Artezpideko Buru Batzar orren denboran, Marrokoséko borrokari amaiera emon jakon, gudalozteak, Alhuzemaseko kaian lurreratu ziranean.

Eta 1.927ko urtean, Rif´eko kontrol guztia artu zan, gudal indar orren bidez.

1.929ko urtean, Barcelona, Izadi onen Erakus-Tokian biurtu eben, eta bai ta Sebilla, Amerikako-Iberotar erakus-toki lez, gauzak baiña, okertzen asi jakozan Ribera ta Primo´tar Migel´eri, ikasle, jakitunak, eta kañoidun taldekoak aurka urten ebelako, erakundeen goiko mailletara igoteko atara eban berriztea, ez ebalako onartzen.

1.930eko urtean Urtarrillaren 29an, XIIIn Alfonso erregeak, Migelen berakada au ikusita, kendu eban bere agintaritzazko lekutik, bere ordez Berenger´tar Damaso ipinita.

Eta maldaberan joan bazan, Primo´tar Migel´en jaurkintza, ta "Jauntzargo gogorra" egiteagaitik ezagutu ta jausi bazan be, onena izan zalakoan, edo Berenguer´tar Damasoren "Jauntzargo biguna izateagaitik" ezagutu zana, txarrera egin ebalako jausi zan au be.

1.930eko urtean Ribera ta Primo´tar Migel jauntzargotik(3) kendu ebenean, eta aste batzuk barru il zanetik, XIIIn Alfonsoren edo erregetzaren aurka asi ziran erri ta jauntxuen agerpen txar guztiak, erregea artzen ebelako errudun, Primo´tar Migelen jauntzargo aldi ta Annual´eko porrotagaitik.

1.930eko urte orretan eta Donostin egin eben ongundeagaz, errepublikako alderdi guztiak alkartu ziran erregetzaren aurka.

Batera, Madrilleko lurraldean be, ezereztu ziran Lau-Aizeetako egazkiñaren zelaietetan egon ziran errepublikako gudal nagusien aldarriketak, eta bai ta Jakan, Galan´tar Fermin ta Garzia ta Ernandez´tar Anjelek egin ebazanagaitik, gudalarien auzitegi batek epaitu ostean, tiros il ebazalako.

1.931eko urtean XIIIn Alfonsok, Bautista ta Aznar´tar Juan almirantea izendatu eban Aolkularitzazko Batzarraren Lendakari.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, jakin da auteskundeen emaitzak, beren erregezko agintaritzari uko egin eutsola, erregeak nai ta benetako utziera bat egin barik, agiri bat azaldu eban, esaten ebana:

"No renuncio a ninguno de mis derechos, porque más que míos son depósito acumulado por la Historia, de cuya custodia ha de pedirme un día cuenta rigurosa".

"Hallaría medios sobrados para mantener mis regias prerrogativas, en eficaz forcejeo con quienes las combaten. Pero, resueltamente, quiero apartarme de cuanto sea lanzar a un compatriota contra otro en fratricida guerra civil".

(1) Pikasso´ren Auki-agiria = expediente Picasso. (2) Gudalarien Artezpideko Buru Batzar bat = Directorio Militar. (3) Ribera ta Primo´tar Migel, jauntxargotik kendu ebenean = cuandi quitaron a Migel Primo de Rivera de su dictadura.

Eta 1.931ko urtean Jorraillaren 14an jakin zanean auteskundeen emaitza, Eibarreko Udala izan zan Leen goratu ebena, Errpublikako ikurriñea Erdiugarte onetan, eta XIIIn Alfonso egun orretan, atzerriratu zan.

1.931eko urtean Jorraillaren 14-15 egun arteko gauan, XIIIn Alfonsok, bere Duesenberg lau gurpilleko gurdia(1) artuta, urten eban Marsellarantza, eta an bertan espainitarren guda itsasontzi batera igon ostean, Parisera joan zan.

XIIIn Alfonsok Erdiugarte onen lurraldea atzean itzi ebanean, auxe esan eban:

"Espero que no habré de volver, pues ello sólo significaría que el pueblo español no es próspero ni feliz".

1.931ko urtean Jorraillaren 15eko goiz aldean urten eban bere senditasuna Aranjuezetik.

1.931ko urtean Azillaren 26an gorteetako agindu bategaz, XIIIn Alfonso Judas bezela salatu eban(2):

A todos los que la presente vieren y entendieren, sabed: Que las Cortes Constituyentes, en funciones de Soberanía Nacional, han aprobado el acta acusatoria contra don Alfonso de Borbón y Habsburgo-Lorena, dictando lo siguiente:

«Las Cortes Constituyentes declaran culpable de alta traición, como fórmula jurídica que resume todos los delitos del acta acusatoria, al que fue rey de España, quien, ejercitando los poderes de su magistratura contra la Constitución del Estado, ha cometido la más criminal violación del orden jurídico del país, y, en su consecuencia, el Tribunal soberano de la nación declara solemnemente fuera de la ley a don Alfonso de Borbón y Habsburgo-Lorena. Privado de la paz jurídica, cualquier ciudadano español podrá aprehender su persona si penetrase en territorio nacional.

Don Alfonso de Borbón será degradado de todas sus dignidades, derechos y títulos, que no podrá ostentar ni dentro ni fuera de España, de los cuales el pueblo español, por boca de sus representantes elegidos para votar las nuevas normas del Estado español, le declara decaído, sin que se pueda reivindicarlos jamás ni para él ni para sus sucesores.

De todos los bienes, derechos y acciones de su propiedad que se encuentren en territorio nacional se incautará, en su beneficio, el Estado, que dispondrá del uso conveniente que deba darles.

Esta sentencia, que aprueban las Cortes soberanas Constituyentes, después de publicada por el Gobierno de la República, será impresa y fijada en todos los ayuntamientos de España, y comunicada a los representantes diplomáticos de todos los países, así como a la Sociedad de Naciones».

En ejecución de esta sentencia, el Gobierno dictará las órdenes conducentes a su más exacto cumplimiento, al que coadyuvarán todos los ciudadanos, tribunales y autoridades.

1.931ko urtean Azillaren 26ko lege au, 1.938ko urtean Abenduaren 15ean Frankok ezereztuko eban, atara egin eban bere jauntxargoko legeakin.

(1) Lau gurpillako gurdia = coche. (2) Judas bezela salatu eban = las cortes le acusaron de alta traiciòn.

Eskubidekoa da..., Frankok egin ebana ?.

Nun ote dauz ESKUBIDEAREN ZENTZUAK ?.

Izadi onetan, bizitzaren ekintzan ta zuzentasunezko alegiñetan: "Berezkotasunaren jarrai edo lojikazko aztura bidetik sortzen dira, bakotzaren eta danon eskubideak".

Ala..., nor berak nai dauan gogamenetik ?. Katolikotasunezko ziñezkintzatik adibidez, euren Erroma-Godo´tar aberritasunezko sasi-jainkoak emoten dautsezan jabetasunezko edozein guzur bidetik ?.

2. 6. (32) *Euskal Abertzaletasunaren bizitza ostera ebatuz.*

1.906ko urtean, aita Ibero´tar Ebanjelistak idatzi eban "Ami Vasco", argitaratzen da.

1.906ko urtean Loraillaren 8an, Eusko Abertzale Gaztedien izparrangia izan zan "Aberri" astekariaren, leenengo zenbakia agertzen da.

1.906ko urtean Abenduko 8an Bilbon, E.A.J.koak, bere Euskalerriaren erakundezko aberkide guztientzat ospatu eban batzarrean, E.A.J.´eko erakundearen antolamenduzko agiri bat aldarrikatu eben, bertan gure Foruen berrezkuratzea, eta 1.839ko urtean Urrillako 25ean Maroto ta Espartero´ren artean, Bergarako Bezarkada zikiñ baten ostean, espata bat lez, buru gaiñetan ipini euskuezan, espainitar lege menperatzailleak, kentzea eskatzen ebana.

1.906ko Aberkidetzaren orokorrezko batzar orretan, Zabala´tar Anjel´ek, E.A.J.ko erakundean euki eban orokorrezko ordearen ardurari(1), yeregin edo uztea onartu zan(2). E.A.J.`aren bost arduradunezko batzar bategaitik aldatu ebena: Larrauri´tar Alipio, Aldatar Santiago, Arroyo´tar Antonio, Arriaga´tar Eduardo, ta Larrinagatar Bizente´gaz osotzen zana.

1.906ko urtean Abenduaren 13an, espainitarrakin euki gendun diru-ongundearen bir-azterketako ikusmenean(3), Adoztasun batera eldu ziranean lurraldeko Diputazioak Madrilleko gobernukin, erregezko agiri baten batu ziran zeaztasunezko gora bera oneik.

1.907ko urtean Otsaillaren 22an, Maura´ren espainitar gobernuak, Ibarretxe´tar Gregorio, izendatu eben Bilbaoko Uriaren alkate lez, E.A.J´ko erakundeak, Bilboko Urian euki eban lenengo alkate abertzalean, biurtu zana.

1.907ko urtean Epaillako 19an, berriz zabaldu zan Bilbaoko "Juventud Vasca".

1.907ko urtean Jorraillaren 21ean, E.A.J.ko abertzaleak, lenengoz aurkeztu eben, bere erakundeen kidetasunetik aukeratutako ordezkari bat, espainitar gorteetara joan zedin.

1.907ko urtean Loraillaren 18an, Gipuzkoako E.A.J.aren irakorlako arduradunak, "Gipuzkoarra" aldizkarien, leenengo zenbakia argitaratzen dabe.

1.907ko urtean Iraillaren 1ean, "Circulo de Estudios Vascos" irasi edo sortzen dabe.

1.907ko urtearen Abenduan, "Centro Vasco de Vitoria" irasten dabe.

1.908ko urtean Jorraillako 20koaren "Berpizteguneko Pizkundean"(4) Zumarragan, 32ko udalaren arduradun batu ziran, eta Gipuzkoako beste 8 Udaletxeko ordezkoagaitik

(1) Orokorrezko Ordearen ardurari =cargo que ocupaba co Delegado General. (2) Yeremin edo uztea onartu zan = que se aceptò la dimisiòn de Ajel Zabala como delegado general del partido. (3) Espainitarrekin euki gendun: "Diru-ongundearen bir-azterketa" = Revisiòn del concierto econòmico al que nos forzaron los españoles a ejercitar. (4) Berpizteguneko Pizkundea = Pascua de resurrección".

aukeratuz, leen "Gipuzkoako Buru Batzarra" irasi eben, lendakari lez Lardizabal´tar Inazio, lendakari orde lez Rezola´tar Anizeto, ta maikide lez, Zulueta´tar Felipe, Egaña´tar Konrrado, ta Lopez ta Mendizabal´tar Isaak aukeratuz.

1.908ko urtean Bagillaren 8an, Bizkaiaren 37 Udaleko ordezkarien auteskundeko autarkiekaz B.B.B.rra barriztu egiten dabe, "De la Sota ta Llano´tar Ramon aukeratuta lendakari lez.

1.908ko urtean Dagonillaren 4an, Sota ta Llano´tar Ramonek ez ebelako gura B.B.B.rraren lendakaritzarik, beste autezkude bat egin eben, "Arana ta Goiri´tar Koldobika" aukeratuta B.B.B.rraren lendakaritzarako, beste aolkularitzazko maikideen ingurua: Arroyo´tar Antonio, Ortueta´tar Anakleto, De Larrondo´tar Pedro, eta Ormaetxea´tar Juanek osotuz.

1.908ko urtean Urrillaren 18an, Elgoibarren batu eben E.A.J.eko batzarra, leenengo Euskadi Buru Batzarra aukeratzeko, eta berton aukeratu eben eguna E.B.B. barri ori sortzeko, eta bai ta Lurraldearen maillan, E.A.J.aren antolamendu barria egiteko.

1.909ko urtean Urtarrillaren 20an, Mendigozale Bazkunaren erakundeko legeen antolamendua, Euskal Mendigoizale Aberkide guztientzako egin zana.

1.909ko urtean Jorraillaren 28an, Prudentzio Deunaren jai egunean, Gazteiz´eko guztientzat zabaltzen dabe "Centro Vasco de Vitoria".

1.909ko urtean Iraillaren 2an, Evangelista de Ibero´tar Aita il zan.

1.909ko urtean Urrillaren 10ean, Aralarreko mendi puntan eta E.A.J.ren eskutik, San Migel Goi Aingerua izendatzen dabe, E.A.J.aren Urgazle edo Zaindari(1).

1.910eko urtearen Otsaillan, "Euskal Liberalaren Aberkideen Kidegotza" irasi zan, denbora gitzian ezereztu zana, eta 1.911ko urtetik Ulazia´tar Franzizkok "Partido Republicano Nacionalista Vasco"an biurtu ebena. 1.912ko urtean desagertu zan Ulazia´tar Franzizko.

1.910eko urtean Otsaillaren 7an, Kadena ta Eleta´tar Gazteizeko gotzaiñak, euskal umeen urrezko bataiotan, umeari, euskal izenak ipintea debekatzen dau, eta argitaratu ziran Euskal-Abertzaleen idaz lan batzuk be gaitz-etsitu(2).

1.910eko urtean Epaillaren 6an, E.A.J.ekoak, Bilbaoko Euskalduna pelota lekuaren inguruan, erritar batz aundi bat antolatzen dau, biltzar orretan, laikotasunezko eskolaren aurka berba egiteko.

1.910eko urtean Bagillaren 23, 24, eta 25eko egunetarako, Lourdes´eko Santutegira egiten dan leenengo "Euskal Aberriaren Eleiz-Txango"a(3) egiten da.

1.910eko urtean Bagillaren 24an Nafarroan, lenengo Euskal Abertzaleen erakundea zan, "Centro Vasco de Pamplona" irasiten dabe: Irurzun´tar Antonio lendakari ipinita, Garmendia´tar Leopoldo lendakari ordea, Lanpreabe´tar Jose diru-zaiña lez, Aranzadi tar Manuel idazle lez, eta Esparza´tar Serapio, Zubiri´tar Enrike, ta Zalba´tar Josek mai ingurukoak lez.

1.910eko urtearen Iraillan, Bilbao´ko Juventud Vasca´ren ardurapean, "Euskaltzale Bazkuna", Euskerea ikasteko eta Zabaltzeko erakundea aukeratzen dabe.

1.911ko urtean Urtarrillaren 8an Nafarroan, E.A.J.ko abotsa izateko jaioten da

(1) Urgazle edo Zaindari = Patron, amparador o protector. (2) Gaitz-atsitu condenar. (3) Euskal Aberriaren leen Eleiz-Txangoa = la primera peregrinación en nombre da la naciòn basca.

"Napartarra" astekaria.

1.911ko urtearen Uztaillan, Lourdes´eko santutegira egiten da Euskalerriko aberriaren aldeko Bigarren eleiz-txangoa.

1.911ko urtean Uztaillaren 23an, leenengo "Eusko Langilleen Alkartasuna" irasten da(1).

1.911ko urtean, Azillaren 12an Donostian, leenengo euskal zinegotzi biak aukeratzen dira, Udaletxean lan egin dagien.

1.911ko urtean Abenduaren 3an Elgoibarren, E.A.J.aren orokorrezko batzarra egiten da, bere arau sortan, antola barrien aldakuntza batzuk egiteko.

1.911ko urtean Abenduaren 17an, orokorrezko batzarrean egin ziran aldakuntza bidez, Lurralde bakoitzaren aolkularitzak aldatzen dira, berton eta leenengoz: Araba Buru Batzar, eta Napar Buru Batzarrak irasita.

Leenengo Araba Buru Batzarrerako, Garzia ta Freska Tolosana ipini eban lendakari lez, Belaustegoitia´tar Federico, ta Eleizalde ta Biana´tar Luis laguntzaille bezala euki ebazala.

Eta leenengo N.B.B.rreko lendakaritzan, Aranzadi´tar Estanislao ipini eban, maikide lez, Esparza´tar Serapio, Lanpreabe´tar Jose, Amittxis´tar Rafael, ta Urmeneta´tar Ataulfo izanda. Bizkaiko Buru Batzarra, Arana ta Goiri´tar Koldobikak bideratzen eban, eta Gipuzkoako Buru Batzarra, Mayora´tar Josek.

1.912ko urtean Urtarrillaren 12an Araban, leenengoz agertzen da E.A.J.ren abotsa izango zan "Arabarra" aldizkaria.

1.912ko urtean Otsaillaren 4an Bilbaoko "Juventd Vasca"k, oitura zaarrekoak izan ziran Santa Agedako abes-taldeak, berrezkuratzen dabez.

1.912ko urtean Epaillaren 26an Euskadiko Buru Batzarrararen auteskundeak egiten dira, batzar barriaren eran, eta ostera urten eban Arana ta Goiri´tar Luis lendakari lez.

1.913ko urtean Otsaillaren 1ean, abertzaletasunezko "Euskadi" egunkariaren leen zenbakia ataraten dabe, Euskalerriko aldizkarien artean, garrantzienetarikoan biurtuko zana.

1.913ko urtearen Loraillan Bilbon, Mendigoizaleak alkartuta, euren talde "Aberri" irasi eban , eta beentzat bear ebezan legeakaz antolatzen dabez.

1.914ko urtean Urtarrillaren 1ean, Euskadi aldizkaria eginten zan irarkolan, "La Tarde" atsaldeko egunkaria argitaratzen dabe.

1.914ko urtean Bagillaren 28an Sarajebon, Frantzizko Fernando artxidukea ilten dabe, Munduko leenengo guda sortuko ebena. Euskal abertzaleen arteko zaletasuna, bitan erdibituta geratuz, Alemanaren alde Arana ta Goiri´tar Luis, eta batzarraren beste kideak, alkartuta egon ziran beste errien alde.

1.914ko urtean Abenduko 13an, E.A.J.aren Lurraldeko aolkularitzetan berriztatzea oldozten dabe, eta Arana ta Gori´tar Koldobika, B.B.B.rraren lendakaritzarako aukeratuz, E.B.B.ren lendakaritzan be, berak egin eban aurrera. Giputz Buru Batzarrerako, Mayora´tar Jose ostera aukeratuta, Nafar Buru Batzarrerako, joan zan lege-aldiaren(2) ordezkariak, berriz aukeratuz, aurrera egien.

(1) Leen, euskal abertsaletasunaren elkartea irasten da = se constituye el primer sindicato nacionalista vasco, "Solidaridad de Obreros Vascos (ELA-SOV). (2) Lege-aldirako aukeratukoak = los elegidos la legislatura anterior.

1.914ko urtean Abenduaren 20an Zunarragan, E.A.J.aren orokorrezko batzarra egin zan, araudiko legeak berriztatzeko.

1.915eko urtean, eztabaida batzuk sortu ziran Arana ta Goiri´tar Koldobika E.B.B.rraren laguntzagaz, eta Arantzadi´tar Engrazio´ren artean, Engrazio berak, Euzkadi egunkarian agertu eban: "Aliadòfila" idaz lanagaitik.

1.915eko urtean Epaillaren 14an Urreta´tar Migel´ek, euskal abertzaletasunezko diputaduen artean, Gipuzkoako lege-biltzarraren leenengo diputadua izatea lortu eban.

1.915eko urtearen Azillan, Arana ta Goiri´tar Koldobika eta Bizkaiko espainitar jaurlarien artean, izkutuzko ongunde bat egin eben, Bilboko Udalean, eskumatar edo gordetzailleen alkate bat ipinteko.

1.915eko urtean Abenduaren 19an, eta sortu ziran oneitariko gauza guztietatik, Euskadi Buru Batzarraren iru arduradunak, Arana ta Goiri´tar Koldobika kendu eben bere E.B.B.rraren lendakarizko arduretatik, bai ta Bizkai Buru Batzarretatik be. Eta Bizkai Buru Batzarretik, Amezola´tar Baltasar lendakari ordea, ta De la Torre´tar Mariano diru zaiña, kendu ebazanean euren arduretatik., Bikuña´tar Ramon ipini ebelako, E.B.B.r ta B.B.B.rraren lendakarizko arduretan.

1.916ko urtean Urtarrillaren 5ean, Euzkeldun Batzokijan eta aberkide zaar guztien artean, Arana ta Goiri´tar Koldobikaren alde, banaketa gogorra sortu zan, onek egun ortatik beste "Bizkaitarra" aldizkari barri bat atarata.

1.916ko urtean Jorraillaren 2an, Zornotzako errian ospatu zan E.A.J.ko oi-bageko(1) batzarrean, Arana ta Goiri´tar Koldobika kanporatzen dabe E.A.J.eko erakundetik, eta batzar orretan artu zan Alderdien izen barria: "Euskal Abertzaletasunaren Alderdia" deituko zan.

1.916ko urtearen Bagillan, Suizako Lausanan ospatu zan Aberkidetasunaren Alkartasunezko(2) IIIn batzar nagusian, Euskal Abertzaletasunen Alderdiko(3) ordezkari bat egon zan.

1.916ko urtean Abenduaren 26an, Donostiko Euzko-Etxean batuta, Eusko Abertzal Alderdiak ospatzen dau batzar nagusi bat, bertan, Udalaren araudiak barriztu edo euren zentzuan antola barri batzuk egiteko. Batzar onetan ostera, E.A.J. erakundearen leen izena berrezkuratzen dabe, Eusko Alderdi Batzarraren senera eroanda, eta Euskal Abertzaletasunaren Alderdiko izena, edo C.N.V. kenduz.

1.917ko urtearen Urtarrillan, Sarriatar Jasusek bideratzen dauan "Hermes" jakin-mail, jendekuntz, edo kulturazko aldizkaria, argitzen dabe.

1.917ko urtean Epaillaren 11n, Bilbon ospatu ziran Bizkaiko Lurraldearen autaldeetan, euskal abertzaleak lortu eben nagusitasuna, eta De la Sota ta Aburto´tar Ramon abertzalea ipini eban Bizkaiko diputazioaren lendakari lez, arik eta 1.919ko urtean itzi arte.

1.917ko urtean Jorraillako 29an, Lurraldeko BBB, GBB, ta NBB barriak aukeratzen dabez: Bizkaiko Buru Batzarraren aldetik Renteria´tar Gregori lendakari lez aukeratuta; Giputz Buru Batza´rraren aldetik, Zaldua´tar Silverio, eta Napar Buru Batza´rretik Aranzadi´tar Estanislao.

(1) Oi-bageko = junta extraordinaria. (2) Aberkideko Alkartasunen = Unión de Nacionalidades. (3) Euskal Abertzaletasunaren Alkartekoa = C.N.V. o, Comunión Nacionalista Vasca. Que siendo lo mismo, se diferencia del E.A.J.ko alderdikideetatik, porque se define entre los afines a la identidad de Euskadi en plena libertad, y la C.N.V., o los pertenecientes a ese concepto cerrado impositivo de comunión, "O comulgas conmigo, o te reviento" para proteger al partido.

1.917ko urtean Loraillaren 1ean Bizkaiko diputazioa, leenengo Euskal konstituzio edo Foru-Lege barriakaz antolatzen dabe, De la Sota ta Aburto´tar Ramonek bideratuta.

1.917ko urtean Uztaillako 10ean, Euskal Diputazioko arduradunak, Euskal Lurralde guztian eta Euskalerriaren askatasuna lortu naian, Foruen alde asten dira eten-bageko lan egiten.

1.917ko urtean Uztaillaren 16an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioaren ordezkariak, Gazteiz´en batzartzen dira, Euskalerriarentzat askatasun geiago lortzeko itxaropenagaz.

1.917ko urtean Azillaren 11ko auteskundeetan leenengoz, iru zinegotzi abertzal aukeratzen dabez Iruñako Udaleentzat.

1.917ko urtearen Abenduan, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaiko diputazioak, autonomi geiago, edo askatasun geiagoko egitarau bat aurkezten dabe Madrilleko gobernuan.

1.918ko urtean Urtarrillaren 2an, Bilboko Udalaren zinegotzi guztiagaitik aukeratuz, leenengoz ipinten dabe Euskal-Abertzaletasunezko alkate bat Udalaren agintaritzan, Arana ta Mendibil´tar Mario´gaz.

1.918ko urtean Iraillaren 1ean, XIIIn Alfonsok Oñatin, Euskal Ikaskuntzazko Batzar berezia zabaltzen dau, Iraillaren 8´rarte iraungo dauena, eta bertan irasi edo sortuko zan, gero Eusko-Ikaskuntza deituko zan erakundea.

1.919ko urtean Jorraillaren 15ean, Maura itzultzen danean ostera espainitarren gobernura baiña, 1.817ko urtean Foruen askatasunerako egin ziran lan guztiak ezereztu ebazan.

1.819ko urtean Bagillaren 16an Bilbon, "Juventudes Vascas", bigarrenez ertsi edo itxi egiten dabe espainitarren aginduz.

1.819ko urtean Abenduaren 7 ta 8ko egunetan "Juventudes Vascas"en leenengo batzarra egiten da, berton "Eusko Gaztediko Elkartasuna" sortuz(1).

1.920ko urtean Otsaillaren 20an Gazteizeko Udalean, arduradun lez lan egiteko, leenengo Euskal zinegotzi abertzaleak aukeratzen dira.

1.920ko urtean Epaillaren 7an, B.B.B.´rra berrizten dabe, Rotaetxe´tar Inaziok bideratuko ebena, arduradun nagusi lez.

1.920ko urtean Jorraillaren 18tik 23´ra Euskadi aldizkarian, Nafarroako Euskal Abertzaletasunaren Alkartekoa(2) zan Aranzadi´tar Manuelek, espainitar gortean bota eban itzaldia "Bereztzailletasunen"(3) aurka argitaratzen dau, EBBrrak lagunduta, adoz egon zalako irakaskuntza orregaz.

1.920ko urtean Uztaillaren 18an Iruñan, Euskal Ikaskuntzaren elkartekoak ospatzen dabe euren bigarren orokorrezko batzarra, ikaskuntza ta errigizartearen arteko arreman ta diruaren gora berak, ikertzeko.

1.920ko urtean Urrillaren 30ean "Juventudes Vascas"en, IIn batzar nagusien asiera.

1.921eko urtean Jorraillaren 3an, Mendigoizale Alkartearen antolakuntza.

1.921eko urtean Uztaillaren 23an, Bilbaoko "Juventudes Vascas"eko erakundean, aurrez bideratzen ibili ziran Euskal Abertzaletasunaren edo erkidegoko Alderdikoak(4),

(1) Eusko Gaztedien Elkartasuna = Federación de Juventudes Vascas. (2) Nafarroako Abertzaletasunaren Elkartekoa = Comunión Nacionalista Vasca de Navarra (CNV). (3) Bereztzaillearen aurka = en contra del separatismo. (4) Bilbaoko Juventudes Vascas´eko erakundean, bideratzen aurrez ibili ziran Euskal Abertzaletasunaren edo erkidegoko Alderdikoak bideratzen ibili ziranak, kanpora botateko = expulsión de los dirigentes de Comunión Nacionalista Vasca, de la direcciòn de Juventudes Vascas.

kanpora botatea.

1.921eko urtean Iraillaren 4an, Bilbaon eta "Eusko Abertzal Gaztedien Elkarte"ko(1) bizi edo Jolas tokian batzartuta, Eusko Abertzale Gaztediaren erakundea, berriz antolatzen da.

1.922ko urtearen Jorraillan, Eusko Gaztedi Jeltzaleen Elkartea(2) sortzen dabe.

1.922ko urtean Jorraillaren 10ean, "Emakunde Abertzale Batza"ko(3) Elkartearen erakundea, arautu ostean, sortzen da.

1.922ko urtean Loraillaren 7an, "Emakume Abertzale Batza"ren kideak, leenengo batzarra egiten dabe.

1.922ko urtean Loraillaren 13an, "Eusko Gaztedi Elkartea"koak euren "Irrintzi" aldizkariaren leenengo zenbakia ataraten dabe.

1.922ko urtean Iraillaren 10ean, "Euzko Ikaskintza"koak, IIIn batzar nagusia ospatzen dabe, ikasgai, ta mintzoeraren gaiakaz.

1.922ko urtean Urrillaren 1ean, E.A.J.'ekoak Zornotzako errian batzartuta, eta bertan Alderdiko antolamenduaren buruz, egin ziran aldaketaren emaitzak baieztu, ta aldarrikatu.

1.923ko urtean Epaillaren 4an Iruñan ataraten dabe, "La Voz de Navarra" egunkarien leen zenbakia.

1.923ko urtean Loraillaren 11n, Leenengoz agertzen da "Aberri" egunkari lez.

1.923ko urtean Iraillaren 11n, Bartzelonan Gallegu, Katalan , eta Euskal abertzaleak batzartuz, "Irukotearen Elkargoa" izenpetzen dabe.

1.923ko urtean Iraillaren 13an, Primo ta Ribera'tar Migel'ek, bere kaisertzazko jauntxargoan ezartzen dau, espainitarren jaurkintza.

1.923ko urtean Iraillaren 18an, erregearen agiri bategaz "espainitar aberriaren ziurtasuna ta batasunagaitik, egiten diran gaiztakeri edo okerkeriaren aurka" atara ebazan zigorrakin, leenengo E.A.J. ta Aberri egunkariak, lege-bagekerian itzi ebazan.

1.923ko urtean Urrillaren 3an, Diario Vasco agertzen da, Aberri egunkariaren ordez.

1.923ko urtean Urrillaren 28an, Primo ta Riberatar Migelen kaisertzazko nagusi edo jauntxargoak, E.A.J.ko bilgune edo batzoki guztiak ertsi edo itzi egiten dauz.

1.923ko urtearen Azillan, "Diario Vasco" ezereztu edo debekatu egiten dabe.

1.924ko urtean Epaillako 13an, Euskal Abertzale Alkarteko(4) Giputz Buru Batzarrak, agiri bat agertzen dau bakantzaillearen(5) aurka, eta espainitarren ta Euskalerriaren bir-sortze edo berriztuaren alde.

1.924ko urtean Epaillaren 30ean, "Lenago II"'en mendigoizaleak, Orduñako mendietan eta "Fraillearen mendi Puntan" batez be, Euskal Ikurriña bat ipinten dabe.

1.924ko urtean Epaillaren 31n Bilboko Euzkadi etxe-argitaraldien aldetik, Excelsior jolas egunkaria, argitaratzen dabe.

1.925eko urtean Urtarrillaren 8an, E.A.J.ekoak, Katalan Aberkideak eta C.N.T.koak Paris'en batzartuz, ongunde bat izenpetu eben, Primo ta Ribera'tar Migelen kaisertza ezereztu edo kanporatzeko.

(1) Euskal Gaztedi Elkarteko bizi edo jolas tokian = en los locales de que la sociedad de la Juventud Vasca tiene en Bilbao. (2) Eusko Gaztedi Jeltzaleen Elkartea sortzen dabe = se crean Las Juventudes de Comunión Nacionalista Vasca. (3) Emakunde Abertzale Batza = organización de mujeres nacionalistas vascas. (4) Euskal Abertzaleen alkartea = Comunión Nacionalista Vasca. (5) Bakantzaillearen aurka ta espainitar ta Euskalerriarren bir-sortze edo berriztuen alde = comunicado del Euskadi Buru Btzar de la comunión nacionalista vasca, por la que rechazaba el separatismo y abogaba por reverdecer o regenerar españa y el pais vasco.

1.925ko urtean Loraillaren 3an, E.A.J.ko bazkideak alkartuta, Gallastegi´tar Elias´en ezkonbagetasunai agurra emoteagaitik, atzerriratu egin bear izan eben au.

1.925eko urtean Bagillaren 9an espainitarrak, erregeen agiri bategaz, diruen aldeko laugarren itunpeneko garbitasun ta barriztasuna(1) eskatzen dabe, urte ta egun onekaz.

1.925eko urtean Iraillaren 3an, Gallastegi´tar Elias baitu egiten dabe, ta atzerriratu ondoren, "Euskadiren Askatasunezko Erakundearen Batzordea" sortzen dau(2), eta Frantzitik Ameriketara joanda, Mexikon, "Patria Vasca" aldizkaria argitaratu eban (1.928-1.930)ko urte bitartean.

1.926ko urtearen Jorrail-Bagillako illen artean, Ortueta´tar Anakletok bideratzen eban euskal Izparrangiren aolkularitzazko banaketa(3) %´etik 55eko nagusitasunagaz, Aranzadi´tar Engrazio kendu egiten dabe bere Euskadiren eratzaillezko(4) zuzendarien arduratik. Ortik aurrera Ortueta ta Arantzadien artean eztabaida asko sortuz, Bilbaoko Euskal Abertzal Alkartearen kontrolagaitik(5).

1.926ko urtearen Bagillan mendigoizaleak, garrantzi aundiko billera, Basagoitin egin ebena.

1.926ko urtean Uztaillaren 25ean, Euskal Ikaskuntzakoak, Gazteizen egin eben laugarren Batzar nagusigaz asten dira, norabideko zuzentasun ta bizibideko ikasketaren ardurakaz.

1.927ko urtean Iraillaren 4an eta Euskaltzaleak antolatuz, Arrasaten egiten da lenengo "Euskal Eguna".

1.928ko urtean Bagillaren 24an, Gazteizera eldu zan Mujika´tar Mateo euskaldun Gotzaiña, gotzai barruti onetan, leen euskalduna izango zana Araban, Gipuzkoan eta Bizkaiko lurraldeetan, eleiz ardurak eroateko.

1.929ko urtearen Urtarrillan, "Euskerea" albistearen, leenengo zenbakia argitaraten da, Pizkundia euskal irarkolaren bidetik.

1.929ko urtean Bagillaren 7an, Alemaniaren atzerrietarako izan zan leen ministru Stresemann Gustab´ek(6), itzaldi bat emon eban Donostin, eta beren esanagaitik "Aberritarrak"(7) itxaropentsu agertuz, oar-idazti edo argibide askoko liburu bat bialdu eutsoen Stresemann Gustab´eri, Euskal Aberritarrak.

1.929ko urtearen Dagonillan, askatasunezko Abertzale Apraiz´tar Odonek, Jinebran egin zan Batzar aundira joan zan ikusle lez, Europako Aberritarrak, Vn Biltzar nagusia ospatzen ebalako.

1.929ko urtean Iraillaren 21ean Andoain´en, "Euskal Aur Eguna" ospatzen da.

1.929ko urtean Urrillaren 12 ta 13ko egunetan, Eibar´en ospatu zan ELA-SOV´ko leenengo Batzar Nagusia.

1.926ko urtean Azaroaren 26an Ortuetak, ez eutson emon gura Euskai Buru Batzarrekoai, berak Euskal Abertzaletasunezko Alderdi izenean eukezan izparragien lantegiko azio edo garazki-agiriak(8).

(1) Laugarrenengo diruen itunpeneko garbitasuna ta berriztasuna = cuarta revisiòn y renovación del concierto econòmico. (2) Euskadiren Askatasunezko erakundearen Batzordea sortzen dau = que crea el comitè pro liberación nacional vasca. (3) Banaketa = administraciòn. (4) Eraentzaillezko = gerencia. (5) Ortueta ta Aranzadiren artean eztabaida asko, Bilbaoko Euskal Abertzaleen Alkartearen kontrolagaitik = muchas desavenencias entre Ortueta y Aranzadi por el control de la prensa de Comunión Nacionalista Vasca de Bilbao. (6) Alemaniaren atzerrirako izan zan leen ministru Stresemann´tar Gustab´ek = Gustav Estreseman ministro de exteriores Aleman, nacido el año 1.878 en Berlin, y muerto tambien en Berlin el año 1.929, Nobel de la Paz, ademàs de un prolongado curriculun. (7) Aberritarrak = los llamados Aberrianos. (8) Euskal Abertzaletasunezko Elkarte izenean eukezan azio edo garazki-agiriak = que no queria darle al EBB las acionen que de los talleres de las publicaciones de prensa en nombre de C.N.V. o, Comunión Nacionalista Vasca èl tenia.

1.930eko urtean Urtarrillaren 28an, Ribera ta Primo´tar Migel´ek(1) yeregin edo utzi eban espainatarren jaurkintza, Frantzira atzerriaratu bear izanda.

1.930eko urtean Otsaillaren 25ean, artu-emoneko garazketak asten dira E.A.J.ko ta Euskal Abertzaletasunezko Alkarteen artean(2), ostera bat izateko.

1.930eko urtearen Jorraillan Euskal abertzaleak, sarraldia eskatzen dabe, Europako Aberkideen batzarretarako.

1.930eko urtean Bagillaren 1ean Donostin, argitaratzen asten da El Dia egunkaria.

1.930eko urtean Bagillaren 15ean, Bilbaoko "Juventud Vasca" berriz zabaltzen dabe.

1.930eko urtean Bagillaren 15ean, Ortuetak kontrolatzen dauan Euzkadi egunkaria bere Euskal Abertzaletasunaren aurrerakoi kideakaz batera(3), ikerraldi edo ta azterpen bat egitea erabagiten dabe, bealdeko aberkideen eritzia ezagutzeko, eta batzar bat irasi edo ipini, Abertzale araukundea zelan dagoen, berriz azterkatzeko.

1.930ko urtean Dagonillako 17an, IIn Errepublikaren aldeko Alderdi guztien ordezkoak batu ondoren, Donostiko ongundea izenpetzen da. Ongunde onen izenpetzean ez zan egon iñungo Euskal Abertzaletasunik.

1.930eko urtean Dagonillaren 31n, Eusko Ikaskuntzak, bere Vn Biltzar nagusia ospatzen dau Bergaran, euskal erritarren lanezko gora beran.

1.930eko urtean Urrillaren 26an, Euzkadi aldizkariaren bidez, egin zan ikerraldi edo galdeketatik, aukeratu ziran 20 batzar-kideak, Sabinoren legetik kanpo, egin zan egitarau abertzale bat onartu eben, Euskal Aberritar Elkartekoak(4) baztertu ebena.

1.930eko urtean Azillaren 16an, Bergaran eta Euskalerriko Abertzaletasuna batuz, Eusko Alderditar Jeltzalekoak, eta Euskal Abertzaletasunaren Alkartekoak, adizkidetu ziran, ortik aurrera, Euskal Alderdi Jeltzaleko (E.A.J.) izenagaz aurrera egiteko asmotan.

1.930eko urtean Azillaren 30eko San Andres egunean, Euskal Abertzaletasunezko Egikuntzaren alderdia aldarrikatzen da(5).

1.931ko urtearen Urtarrilla ta Jorraillaren bitartean, gogor borrokatu ziran E.A.J. ta Euskal Abertzaletasunaren Eginkizunezko(6) taldeak, Bilbaoko irarkola edo aldizkarien controla eukiteagaitik.

1.931ko urtean Jorraillaren 7an, E.A.J.eko arduradun batek, lapurketan edo Euskal Abertzaletasunezko egilleai ostu egin eutsoezelako garazkien agiri batzuk, Bilbaoko izparrangiak argitarateko ardura edo nagusitasuna, E.A.J.leen eskuetan geratzen da.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, eta Jorraillaren 12an Udalaren auteskundeetan, XIIIn Alfonsoren aldekoak artu eben astaiñaldiagaz, 14ko egun ontan IIn Errepublikea aldarrikatzen da.

1.931ko urtean Jorraillaren 14 ontan, Mundaka, Bermio, Elorrio ta Getxo´ko alkatea zan Agirre ta Lakube´tar Jose Antonioren ausartasunagaitik, Katalanaren gertakizunari begituz "Euskal Errepublikea aldarrikatu eben, espainitarren Errepublikeagaz elkarzaletasunean elkartuta egon zana. Erdiugarte(7) onetan leen ipini eban Errepublikaren

(1) Ribera ta Primo´tar Migel Lizarra edo Estellako markesa = 1.870eko urtean Jerez´eko Mugan jaioa, eta 1.930eko urtean Paris´en ilda. Ribera ta Primo´tar Jose Antonioren aita. (2) Artu-emoneko garazketak asten dirala Eusko.Alderdi.Jeltzalearen eta Euskal Abertzaletasunezko Alkartekoen artean ostera bat izateko = comienzan las negociaciones para la reunificación del PNV y CNV. (3) Ortuetak bere aurrerakoiezko Euskal Abertzaletasunaren aurrekoi kideakaz batera = Ortueta con los comunionistas o con los de la comuniòn nacional reformista vasca a la vez. (4) Euskal Abertzaletasunezko Elkartea = Comunión Nacionalista Vasca. (5) Euskal Abertzaletasunezko Ekintzaren Alderdia, aldarrikatzen da = se proclama el nuevo partido de A.N. V.. (6) Euskal Abertzaletasunezko Egilleakaz = Acciòn Nacionalista Vasca. (7) Erdiugarte onetan = en èsta península.

ikurriña, Eibarko Udaletxea zan.

1.931ko urtean Jorraillaren 17an espainitar gudalozteak, debekatu eben indarrez, goian esan doguzan Udaleko bidez deituta, ta Gernikako errian batu ostean, "Euskal Errepublikea aldarrikatzeko, egingo eben batzar nagusia, bai ta elkar-zaletasunez(1), espainitarren Errepublikeagaz batera joateko, antolatuta egon zan montio edo egitarau guztia".

1.931ko urtean Jorraillaren 21ean, Madrilleko gobernuak, Euskalerriaren lurraldeko diputazioak kendu egiten dauz, eta lurralde bakotzetan, arduradunezko kudeatzailleak ipini ebazan.

1.931ko urtearen Jorraillako 23an, Jorraillaren 18an idatzita Euskalerri osoarentzat, EBB´rraren agiri bat agertzen da Euzkadi egunkarian, berton, zelan E.A.J.lekoak: "Askatasunaren Buruzagigo Aginpide Osoa, eskatzen ebena" Euzkadi osoarentzat.

Eta bai ta Donostin: Euskaldunak, Galizia, ta Katalanakaz egin zan ongundeko emaitzak, bakotzak bere konstituzioak idatzi egiezan, onartzea agindu be, "Euskal Errepublika bateko Jaurkintzan ezarriz gero, euskal nortasunezko lau lurraldeak, Frantziko iru lurraldeakaz batera, Euskal Aberri bat lez, espaintar Alkar-zaleko(2) Errepublikeagaz batera joateko. Eta Europa ta Izadi edo Mundu oso onen giza guztia, atsekabetuaren egarriz(3), "Askatasunaren Demokrazizko Zeregiñak" eskatzen dauan guztia, lortzeko.

1.931ko urtean Loraillaren 6an, E.A.J.ko leen batzar nagusian, Nortasun bageko alderdikerietan ibilteagaitik sortu ziran gauza baragarri guztiak alboratzeko, danok alkartuta, E.B.B. barri bat aukeratzea erabagi eben.

1.931ko urtean Loraillaren 8an, Euskadiren Udaleko alkate guztiak batuta, Eusko Ikaskuntzari eskatu eutsoen, Euskal sort-arau bat egin dagian.

1.931ko urtean Loraillaren 24an, Bizkaiko Mendigoizeleen elkartea, Elorrion batu zan, euki zituzen arauak barrizteko.

1.931ko urtean Loraillaren 27an, Nafarroako diputazioan, Euzkadiren Bealdeko lau Lurraldearen Alkateak batu ziran, danen indarrak batzeko, Euzkadiren buruz egin bear ebezan sort-arau edo araudiak osotzeko.

Orretarako, Euzkadiko Alkateen artean etenbageko batzorde bat sortu eben, Nafarro aldetik Sanguesako Alkatea, Bizkaitik Getxo´ko Alkate Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, Gipuzkoa aldetik Azpeitiko Alkatea, eta Araba aldetik, Llodioko Alkateakin osotzen zana.

1.931ko urtean Loraillaren 31n, Eusko Ikaskuntzaren etenbageko batzordeak, onartu eban Eusko Ikaskuntzak egin eben sort-arauen egitaraua, Alkateen etenbageko-batzordeari egun onetan emon eutsoena.

1.931ko urtean Bagillaren 4an, Emakume Abertzaleko Batzarraren, berriztatzea.

1.931ko urtean Bagillaren 7an, E.A.J.aren batzar nagusiak, Euskal Ikaskuntzaren sort-araudi edo estatutoaren egitamuzko agirian, zentzaldi edo obekuntzazko lege bat sartzen dau, Euskalerria bereiztu ta gorde egiten ebana, eleiz katolikoen arremanetatik.

1.931ko urtean Bagillaren 14an Nafarroako Lizarran(4), Euzkadiko Udalen Alkartea

(1) Elkar zaletasunez, espaintarren errepublikeagaz joateko = para ir en federacòn (confederados) con la republica española. (2) Espainitar Alkar-zaleko = para ir con los federalistas españoles republicanos. (3) Atzekabetuaren egarriz = la angustia, la congoja, la afligida sed de los angustiados. (4) Nafarroako Lizarra = Estella, o lo que en adelante se llamò el estatuto de Estella.

batzartuz, eta 20 zuzenketa inguru egin ondoren, onartu eben Eusko Ikaskuntzak egin eban sort-araudien egitaraua, ortik aurrera, Lizarrako Araudi lez ezagutuko zana.

1.931ko urtean Bagillaren 28an, Euskal autonomi edo Askatasunaren alde egon ziranak, aurkariko aurre lez antza baten, ezkertien aurka agertuz, garaipen aundi bat lortu eben konstituzioaren gorteetarako ospatu ziran auteskundeetan, 24 diputadutik, 15 Euskal diputadu lortuta.

1.931ko urtean Uztaillaren 5ean, Lizarrako Estatutoaren alde egon ziran diputaduak, "Eusko-Nafar Txiki Talde" bat lez, aurkeztuko ziran Donostin. Gitxienez, egin-bear ziran: "Erlijiozko sinismenaren babesak; Euskal Foru guztien Berrezkuratzea. Eta bai ta batez be, politikako arloan babes gitxien eginda be, Euskal Sort-Araudi edo estatutoaren babesa, danoen ardura nagusi lez" egiteko.

1.931ko urtean Dagonillaren 21ean, espainitarren gobernuko Errepublikeak, debekatu egiten dauz, E.A.J.aren aldizkarien agerketak.

1.931ko urtean Iraillaren 25ean, espainitarren Lege-Biltzarrak, bere konstituziozko leenengo lege-gaia onartuz, eta "Espainitar Errepublikeak, Laterri osagarri bat osotzen dabela" esan ezkero, bakarrik esangura ebela, "Lizarrako Euskal araudi edo Estatutoa", euren espainitar legez kanpo geratzen zala zan.

1.931ko urtean Urrillaren 14an, Euskal-Nafar txiki talde ori, espainitarren Lege-Biltzarretik alde egiten dau, euren konstituzioa idatzi ebenean, erlijioari emon eutsoen zentzuzko eritzien gora beragaitik.

1.931ko urtean Abenduaren 8an, Azaña´ren gobernuak, Euskal Sort-Araudiagaitik arduratuta, beste egitarau bat antolatzen dau, Euskal-Araudi orreik, adox egon egiezan espainitarren konstituzioagaz, Euskal Batzordekoai leentasuna emonda, eritzizko antola orretan.

1.931ko urtean Abenduaren 9an, espainitarren Errepublikako konstituzioa onartzeko egin zan batzarrean, E.A.J.lekoen iñungo arduradun barik egin zan.

Eta 1.931ko urtean Abenduaren 10ean, E.A.J.lekoº diputaduak, Alkala-Zamora´ren alde bota eben euren autarkia, Errepublikako Lendakari izan zedin.

2. 7. *XIIIn Alfonsoren bizitza ostera berrezkuratuz, beren atzerritasuna.*

1.931ko urtearen Jorraillako 13an, eta erregetza edo errepublikaren arteko erri-autarki edo Udalen auteskundeen ostean, XIIIn Alfonsok galduta, atzerriratu zan.

XIIIn Alfonso atzerriratu zanean, Europako Uri ezberdiñetatik ibili zan apainkeri aundiko ostatuetatik bizitzen, ariñagotik, Suiza ta Ingelesaren banketxetatik, zabaldu ta atondu ebazalako, artu al ebezan diru guztiak.

Denbora gitzi barru, banandu egin zan, bere Ingalaterrako Battenberj´tar Bitoria Eujenia emazteagandik.

Bere atzerritasunetik, eta espainitar Aurrerakuntzazko errege zale amurratueri emon eutsoen laguntzaz gaiñ, Jil eta Robles´tar Jose Mariak, Europako Mendebalaren zalea zana, eta "Espainitarren Buru-Jabezko Eskumatar Elkartasunezko"(1) taldea bideratzen ebanagaz,

(1) Espainitarren buru-jabe ziran eskumatar elkartasunagaz, edo, C.E.D.A. = Confederaciòn Española de Derechas Autònomas de Jose Maria Gil Robles.

euki ebazan artu emonagaitik, gudaren alegiñezko eritzietatik aldenduta ibili zan, bere monarkiko taldekoari, CEDA´ren alegiñetan ibilten lagundu eutsona, ekanduzko arloetan ezeren arazorik euki bage. Mugak ipinita baiña, bere Alfonsino taldeen azibide, aztura edo azkortzeari.

1.934ko urtean XIIIn Alfonsok, Mussolini´tar Benitori eskatu eutson laguntza, matxinada bat egiteko, euren espainitar lurraldeak ostera, erregetzazko eritzian ezartzeko.

Eta eskatzen eutsoen laguntza lortuta, Italiako fazizta gobernu orrek: 1.500.000 pesta, 200 metrailgailluak(1), su-izkillu(2), eta eskuko lerkai-gailluak(3), eskeiñi eutsezan XIIIn Alfonsori. XIIIn Alfonso bera "Leen orduko gudaria zala"(4) ezanda, eta bere aldetik, Barrera´tar Jenerala, ta euren ustez, espainitar aurrekoiezko alderdiak ziran erregetzaren taldeek: Tradizio zale, Antziñatar, edo Lengo zaleen alkartekoak(5), alde sinatu eban Mussolini´ren zor-agiri ori.

Bere azkeneko urteak, Erromako Urian egin zituzen, eta Borboi´tar Alfonso Karlos´eri San Jaimeko dukea, ta Karlisten ondorengotasunezkoa izanda, I Alfonso Karlosen izenakin il zanean, 1.936ko urtean karlisten eskubideak, eta Frantziko Borboi lege-zaletasunak emon eutsoezan, ortik aurrera, espainitar XIIIn Alfonso izanda, bai Nafarroa ta Frantziko I Alfonsoren izenak artuta.

Espainiako guda asi zanean, Frankogaz oso osoan egoan, bera "Falajearen, leen orduko gudari-sail zalako" esanda.

1.936ko urtean Uztaillaren 30ean XIIIn Alfonsok, baimena emon eutson bere seme Borbon´tar Juan´eri, espainitarren aurkako matxinatuen lurraldera joan zediñ.

2. 8. *XIIIn Alfonsok, Franko´gaz euki eban artu emona.*

XIIIn Alfonsok Frankogaz euki eban artu emona, oso zabala ta ugaria zan, eta artu emon orren zeaztasunetan, ondo argibidetuta dagoen gauza da.

XIIIn Alfonsok, Franko, Marrokos´eko borrokatan euki ebazan garaipenetik ezagutu eban. Eta bide orretatik, erregearen begikoa edo kuttuna izan arte.

1.923ko urtearen Urtarrillan, gudako dedu domiña(6) emon eutsoen, Legeen-Etxeko andizki izenagaz batera(7), eta XIIIn Alfonso, bera izan zan Frankoren ezkontzako aita bitxi, Losada jeneralak, erregearen ordekoak eginda.

Franko, bera izan zan, erregeagaz eztaibadaikatu egin ebana, Marrokosetik alde egitekoaren antolakuntza.

1.925eko urtean, Ribera ta Primotar Migelek Marrokosera joan zanean, an zer gertatzen zan ikustera, erregeak Migeleri, emondako eskutitz bat, erlijiozko domiña bategaz batera bialdu eutson Franko´ri.

Eskutitz orrek, olan amaitzen eban bere mezua: "Ya sabes lo mucho que te quiere y te aprecia tu afectísimo amigo que te abraza, Alfonso XIII".

1.925eko urtean Euskaldunak eroaten eben euren diruzko antolakuntzak, 25 urterako epean oldozmenduta egon ziran, 1.937an Frankok baiña, "ezereztuteko aginduaren" agiri

(1) Metralgailluak = ametralladoras. (2) Su-izkillu = fusilez. (3) Eskuko lerkai-gailluak = bombas de mano. (4) Leen edo asierako gudaria zala = falangista. (5) Tradizio zale, Antziñatar, edo Luengo zaleen alkartekoak = carlistas. (6) Dedu domiña = condecoración militar. (7) Legeen-Etxeko andizki izenagaz batera = al mismo tiempo que le concedieron el nombre de "gentilhombre de la càmara".



El Presidente del Gobierno, Miguel Primo de Rivera con el rey Alfonso XIII.

bategaz, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundiaren almen orreik kendu ebazan.

1.928ko urtean Urtarrillaren 4an XIIIn Alfonso erregeak, sortarazi barri egin zan "Orokorrezko Gudarien Ikastetxeen" zuzendari, izendatu eban. Franko berak, Zaragozan egin ziran auteskundetan, erregearen alde emon eban bere bozka edo autamena.

1.931ko urtearen Jorraillan eta erregetza edo errepublikaren arteko erri-autarki edo Udalen auteskundeen ostean, XIIIn Alfonsok galduta, atzerriratu zan.

1.937ko urtean Jorraillaren 4an baiña, Frankok, erdeiñuzko(1) eskutiz bat idatzi eutson XIIIn Alfonso erregeari, nai ta erregeak oraindiño denbora gitxi barru, Frankoren alderdikoentzat 1.000.000 pesta emon, eskutitz bat bitartez: "gitxi egiten ebala erregetzaren berrezkuntzagaitik" esan da.

Frankok argi itzi eban, erregeak andik aurrera, ez ebala erregegezko ardurarik artuko, utsegite asko euki ebazalako.

1.936ko guda amaitu zanean, erregeak, erregetzarik ez zalako berrezkuratzen, auxe esan eban: "emon doguzan oinkada bakotzean Frankok, guzurtu eta judaskeri utsa baiño besterik ez naute egin".

1.938ko urtean Abenduaren 15ean Frankok, 1.931ko urtean Azaroaren 26an espainitar gortekoak XIIIn Alfonsori ipini eutsoen saldukeri edo judaskeriaren zigorra(2), kendu eutson.

1.941eko urtean Urtarrillaren 15ean XIIIn Alfonso erregeak, Erregeen Etxeko jabetzari itzi eutson, bere seme Juan´en alde, bere beste seme biak, uko egin ebalako, errege izateko

(1) Frankok, Erdeiñuzko eskutitz bat idatzi eutsola XIIIn Alfonsori = que Franco le escribiò una carta desdeñosa, despectiva, o de sentido peyorativo al rey Alfonso XIII. (2) Saldukeri edo judaskeriaren zigorra = que franco le quitò la acusaciòn que sobre Alfonso XIII pesaba por su gobierno impuesta, de alta traiciòn.

maillan euki ebazan eskubideari.

1.941eko urtean Otsaillaren 28an, eta Erromako Ostatu Nagusian egoala il zan XIIIn Alfonso erregea, biotzeko miñagaz(1).

Italiako Erroma Urian dagon, "espainitarren Monserrat´eko Santa Mariaren eleizan" illobiratu eban.

Eta 1.980ko urtean Urtarrillaren 19an bere ezurrezko kondar edo ondarrak, Eskorialeko lekaidetxean dagozan erregezko illobi artean lurperatu eben, bere billoba dan I Juan Karlos erregeak aginduta.

1.975eko urtean Franko il zanean, I Juan Karlos izendatu eben errege. 1.947ko urtearen legeak, Laterriaren ondorengotasunerako aginten dauan lez.

Eta 1.977ko urtean XIIIn Alfonsoren seme Juan´ek, errege izateko eukezan eskubideari uko egin eutson, bere seme I Juan Karlos´en alde.

1.978ko urtearen eta espainitarren jaurpideak(2), bere erregearen ondoriozko legeetan eta bere 57ko lege gaiak esaten dauan lez, berrezkuratu ziran lenauko erregearen ondorengoak, Juanek legez egin ebelako, bere erregezko eskubide orreri uko egiteagaz.

Argi ikusten da emen, Europako eskumatar eritzi guztia batuta egon zala Batikanoko abertzal katolikotasunagaz batera, baita Italiako Mussolini ta Alemaniako Hitler´egaz be.

Bi auek, aztu barik. Aita Santuen aldetik Europa osoan, eleizaren Kaisar domiña(3) ori ematerakoan, Gudalozteakaz, indar geiago eukiten ebanari emoten eutsela.

Dana dala, 325eko urtean Nizean artu zan: "Erromatar-Godo-kaisar-Merkantillezko legea, Katolikotasunaren erlijioan Aberkidetzeko, Munduko giza guztia, eritzi bategaz Batzangotuta eukiteko zala" erabagi orren bidetik.

Orregaitik irasi eben "Kaisar aginduetarako, Urrezko Txekor ori", euren sasijainko katolikuan, mozorrotutako izenagaz.

Munduko gizatasunak ortze dauka zotitxarrez, gaur Jaurpidetzeko daukan erea, eta bizi bizirik, leenengo egun lez, bereztasunezkoaren aurkako kolonigille auek, munduko giza joputasunezko menpetasunean eukiteko.

Eta eurak ondo bizi ezkero, ez dautzielako ardura aundirik emoten, zirkiñ txikerrena be ez dabe egiten, Mundu onen izatasuneko garbitasuna bear dauan erean eukiteko, ezer.

Nai ta Goiko Jaun Iraslearen Lege Gustiak aurkari euki arren, ez daukie berezko legeetara joateko gogorik.

Euskalerriko edesti onetan argi ta garbi ikusiko doguna, amaierazko atalean ondorio lez, uka-ezin edo gerzurta-eziñezkoak izango direlako, aurkeztuko doguzan argi aundiko egiak, edesti au biribiltzeko

2. 9. *XIIIn Alfonsok euki zituzen seme alabak.*

Zazpi alaba-semeak euki ebazan ezkontza onek:

-Asturias´eko printzea *Alfonso, Pio, Kristino, Eduardo*, 1.907ko urtean jaioa eta 1.938ko urtean il. Hemofilikoa jaio zan(4), eta IIn Errepublika aldarrikatu zanetik urte bi

(1) Biotzeko miñagaz = angina de pecho. (2) Espainitarren jaurpideak = constitución española. (3)Eleizako Aita Santuak jantziten ebazan "Kaisar Domiñakin" = que era el papa quien imbestia a los reyes màs fuertes, o con los ejèrcitos màs furetes con la insignia del imperialismo. (4) Hemofílico = enfermedad que se caracteriza por la tendencia a sangrar intensa y anormalmente, por la incapacidad de la sangre a coagularse. Es hereditaria y se transmite por parte de la madre, afectando sòlo a los hijos varones. Rokafort eta Altuzarra´tar Marta Estherregaz ezkondu zan bigarrenez, eta ezkontza bietan seme alabarik euki bage il zan.

beranduago 1.933ko urtean, eukan gaitzaldiagaitik erregetzari uko egin eutson, San Pedro eta Robato´tar Edelmira kubaneagaz ezkontzeko. Kobadongako kondearen izen burua euki ebanak.

-*Jaime, Leopoldo, Isabelino, Enrike,* 1.908ko urtean, gor jaio zana, 1.933ko urtean bere aita amak galazo eutson erregetzari uko egitea, Segobiako dukearen izen burua artuta. Bere aitaren aldeko eskubideak artu ebazan frantzezaren erregetzarako (1.941-1.975). Ortik, Anjou´ko dukearen izenagaz ezagutu zan. Danpier´tar Emanuelagaz ezkondu zan, seme alabak eukinda, eta Manuelagaz banaduta, Tiedemann´tar Txarlotte Luise Augustegaz ezkondu zan, eta onekin ez eban euki seme alabarik.

-*Beatriz, Isabel, Federika, Alfonsa, Eugenia,* 1.909 eta 2.002 urte bitartean bizi zana. Zibitella Zezi´ko printzean biurtu zan, Torlonia´tar Alessandro´gaz ezkondu zanean, eta amaren aldetik: Lekio´tar Alessandro ta Luxenburgo´ko Sibila´ren amama izan zan.

-*Fernando,* ilda jaio zana.

-*Maria. Kristina, Teresa, Alejandra,* 1.911 eta 1.996ko urte bitartean bizi zana. Marone Zinzano´tar Enriko Eugenio Antonio, Marone Zinzanoko kondeagaz ezkondu zana. Seme alabak euki zituzen.

-*Juan, Karlos,Teresa, Silvestre, Alfonso,* 1.913 eta 1.993ko urte bitartean bizi zana. Bartzelonako kondea, eta 1.941eko urtetik espainitar erregetzaren ondorengoa, 1.977ko urterarte, arik eta bere eskubideak, bere seme (1.938) I Karlos, ordurako 1.975-2.014ko urte bitartean espainitarren errege zanari, emon eutsoza arte. Borbon ta Orleans´eko Maria de las Merzedesegaz ezkondu zan, lau alaba semeak eukinda: 1.936ko urtean Pilar; 1.939ko urtean Margarita; eta 1.941 eta 1.956ko urte bitartean bizi zan Alfonso.

-*Gonzalo, Manuel, Maria, Bernardo,* 1.914 eta 1.934ko urte bitartean bizi zana. Hemofilikoa jaio zan, eta seme alababage il zan.

Ezkontza kanpotik:

-Goi maillako frantzez, Gaufridy eta Dortan´tar Melanie´kin: *Lebeke eta Bilmorin´tar Rojer euki eban,* 1.905eko urtetik 1.980ko urteraiño bizi zana.

-Espainitar antzezlari Ruiz Moragas´tar Karmen´ekin, seme bi euki ebazan, iñoiz ez ebezanak semeentzat artu: 1.925eko urtetik 1.965eko urteraiño bizi zan Ruiz ta Moragaz´tar Maria Teresa; eta 1.929ko urtetik 2.016ko urteraiño bizi zan Ruiz ta Moragaz´tar Leandro Alfonso, 2003ko urtean Loraillaren 21ean, espainitar auzitegi edo epaikuntza aldetik, baimendua izan zana Borbon abizena eroaten (Borbon ta Ruiz´tar Leandro Alfonso).

-XIIIn Alfonsok, beste neska bi be euki zituzen, etxean irasle lez euki ebazan andariño bigaz: lenengoena ez zala ezagutzen esaten dabe, ostonduz, Madrilleko lekaime etxe baten sartu ebelako.

-Bestea: Milan ta Leongo Kiñonestar Juana Alfonsa (Lenengo abizena ume ordearena izanda, bere aita Milan´eko dukea zalako), eta bigarrena, Frantzian egon zan espainitar ordezkoagaitik.

1.916 ta 2.005eko urte artean bizi zan Noon´tar Beatriz Irlandako nanny au. Ingalaterrako Beatriz izan zan bere amagiñerraba, printzeak Erdiugarte ontara ekarrikoa.

Karly Simon´ek: nor-bere bizitzaren langintzazko abeslaritzaren autobiografía edo agerpenetan esaten dau: beren amaren aldetik euki eban amama Txibie, XIIIn Alfonsoren sasiko alaba zala, ustez. Bere bizitzaren azkuntzazko edestia, Ingalaterrako lekaime etxe baten eginda.

1. 10. *Torres eta Alkala-Zamora´tar Nizeto´ren bizitza.*

1.877ko urtean Uztaillaren 6an, Kordobako lurraldearen Priego´ko erritxoan jaio zan, Alkala-Zamora ta Torres´tar Nizeto au, eta 1.949ko urtean Otsaillaren 18an Arjentinaren Buenos Aireseko Urian il.

Espainitar Politikua eta lege-jakintzaren zuzentasunezko bidetik bizi zana, XIIIn Alfonso eregearen gobernuetan, ainbat ministeritzazko arduraduna be, eta IIn Errepublikan bitarteko edo aldirako lendakaritzaren agintaritza eroan ostean, 1.931-1.936ko urte bitartean, IIn Errepublikako lendakaritza zuzendu ebena.

Karakuel ta Alkala-Zamota´tar Manuel, eta Gaztelu ta Torres´tar Franzizkaren semea zan, euki zituzen beste alaba seme Manuel eta Pilar, anai arrebarekin.

Eta bai ta erdiugarte onen, Kordobako lurraldean Priegoko errian jaio ziran Garzia ta Alkala-Zamora´tar Gregorio, ta Serrano ta Karakuel´tar Maria de Santa Engrazia´ren billoba izan zan, ta oneik euki zituzen 11 seme alabaren loba, alde batetik. Bestetik: Jaen´eko lurraldearen Alkaudeteko errian jaio ziran Torres´tar Juan Manuel eta bere emazte, Gaztelu´tar Maria del Rosario´ren billoba.

1.900eko urtean, bera baiño iru urte gazteago izan zan, Bidaburu ta Gaztelu´tar Garbikunde edo Purifikazionegaz ezkondu zan, zazpi ume eukin da.

1.881-1.894ko urte bitartean diputadu ta senatore zan Karakuel ta Alkala-Zamora´tar Gregorioren loba izan zan.

Granadako Ikastetxe Nagusian dauka oroimenezko burni-xafla bat, bere abizen ta izenakaz gogoratzen, zelan aldatu zan Ikastetxe Nagusi orretatik, bere goi maillako ikasketak egiten.

1.887-1.891ko urte bitartean, batxillerra´ren ikasketak bete zituzen Kabra Errege´ko ikastetxean.

17 urtegaz, lizentzi-mailla lortu eban lege-jakintzazko eskubidearen arloetan, Granadako Ikastetxe Nagusian, eta 22 urte euki zituzenean, Laterriaren Aolkularitzazko batzarraren Idazkaritza.

40 urte euki zituenerako, ospe aundiko gizona eginda egoan, eta Prieto ta Garzia´tar Manuel, Aluzemako Markesaren gobernuan, Laguntasunezko Ministeritzaren arloko ordezkaritza, eroan eban.

Berak, beti aldarrikatu edo esan eban, erregetzazko liberalaren aldekoa zala, gaztetatik liberalaren alderdian lerrokatuta, Moret´tar Segismundo ta Praxedestar Mateo Sagaztagaz batera, bideratzen eben alderdia.

1.917ko urtean kontuan artuta baiña, espainitar lurraldeetan denbora aietan, arazo aundiak euki ebazala, janarien ugaritasunezko mozkiña lortzen, eta Munduaren 1° borroka nagusiaren bidez, ertsitu edo sarratu egiten zirala janari bideak, gobernu ura ez ebala luzero iraungo, eta urte bat bete orduko, amaitu jakon euki eban agintaritza.

XIIIn Alfonsoren konstituziozko asken gobernuan be egon zan, gudako ministeritzaren zorroagaz.

Alkala-Zamora´tar Nizetok, ainbat lan-postu ezberdin ibili ebazan, gobernu ezberdiñeko ministeritzatik, eta 1.905eko urtean La Karolina´ren taldeko diputadua egin eben ordutik aurrera, mintzalari edo izlari aundi bezela be, agertuko zan.

Denbora luzean, Romanones kondearen liberal alderdian egonda, gobernuaren idazkaritzazko arduradun ordezkoa be, izan zan.

Eta Kanalejas´tar Josek, Erdiugarte onen lurraldeentzat, edestiko erri ezberdiñakin(1) eta lurralde ezberdiñakaz egon ziran erri-batzarren(2) arazoak konpontzeko, aurkeztu eban egitamuzko batzarretan be egon zan. Asken baten Garzia ta Prieto´tar Manuel´en Liberal Alderdi Demokratikoan lerrokatzeko. Ortik aurrera Laguntasunezko ta gudako zorroakaz(3) lan egiteko.

1.923ko urtean Loraillaren 23an, espainitarren orokorrezko batzarrak batu ziranean, batzarraren biribil edo obo-erdia, 22 alderdi ezberdiñakin osotuta egoan: Demokratak; Liberalak; Ezkertiarrak; Lurra lantzen eben Liberalak; Eraberri-Zaleak(4); Nizeto´en Aldekoak; Gordetzailleak; Zierbistak; Mauristak; Erki-Zale edo Erri-aldeko Zaleak(5); Errepublikaren aldekoak; Sozialismu edo Gizartekeriaren aldekoak(6); Erregeen aldeko Batu zaleak(7); Errege Zaleak; Euskaldun Abertzaleak; Katalan Abertzaleak; Bizkaiko Erregearen Alkartasunezko alderditarrak; Karlisten lengo zale edo Antziñ-zaletasunezkoak; Katolikoak; Saleroslearen ezberdiñ motakuak; Nekazariak; Osotasunezko zaleak(8); eta abar. Iñork, ezin ebena zuzendu.

1.923ko urtearen Iraillan Ribera ta Primo´tar Migelek, espainitar Laterriaren aurka matxinatuta, lege edo aginduak zuzentasunean ikertzeko, gudalarien batzar bat(9) sortu eban.

Erritar asko poztu ziran Migelek artu eban erabagiagaz, Alkala-Zamorak baiña, bere politikazko eritzia aldatzen joanda, Ribera ta Primo´tar Migelek irasi eban jaurpidearen guztiz aurkakoa agertu eban, eta bai ta XIIIn Alfonso erregearena be, kaisar aginte ori ipinteko, baietza edo laguntza aundia emon eutsolako.

1.930eko urtean Jorrailaren 13an, guzur eta zalantzak, aberatsak zirala espainitar gobernu orreitan, Ribera ta Primo´tar Migelek, bere lanpostuari itzi eutsoenerako, XIIIn Alfonsok, 1.876ko urtearen konstituzioa ipini bear zala ibiltearen aginduagaz, Berenger´tar Damaso gudal nagusia ipini eban gobernuaren lendakari.

Alkala-Zamoratar Nizetok, Balentziako Apolo agertoki edo antzokian, bere solasaldi edo itzaldi ospatsuena emonda, erregetzari bere baietza ta laguntza guztiak kendu eutson, eta Frantzesak euki eben irugarren errepublikako antzeko bat ipinteko ibili zan, erdiko giza-mail, eta jakintsuak(10) euken indarragaz bideratu egien.

2. 11. *Batikano´a.*

(1) Edestiko erri ezberdiñakin = distintas naciones històricamente que comprende la peninsula, con el sempiterno problema de la L.T.H. (2) Erri Batzarraren arazoak = y los problemas de las comunidades. (3) Laguntasunezko ta gudako zorroakaz = para trabajar en adelante con las carteras ministeriales de fomento y guerra. (4) Eraberri-Zaleak = reformistas. (5) Erki-Zale edo Erriaren-Aldeko Zaleak = regionalistas. (6) Sozialismu edo Gizartekeriaren aldekoak = socialistas. (7) Erregeen aldeko Batu Zaleak = Unionistas monàrquicos. (8) Osotasunezko Zaleak eta Askatasunezkoak = integristas e independientes. (9) Lege edo aginduak Zuzentasunean arteztzeko, gudalarien batzar bat sortu eban = que para gobernar creò un directorio Militar. (10)Erdiko giza-mail ta Jakintsuak bideratu egien = para que los dirijiesen los intelectos y gentes de la clase media.

Batikano, mendiari edo Batikano´ko Jauregiari dagokiona esaten jako, eta batikanista, Batikanok eroaten dauan politikaren zale, edo Batikanok eroaten dauan politikaren aldekoa danari. Eta Europan dagozan sei Laterri txikien artean, dagoen Laterri aberkide(1) bat, eta txikerrena, bera da.

Batikano, Erromaren lurraldean kokatuta dago, beren 0´44km2 edo 44 ektarearekin, eta gitzi gora beragoko 800 bistanlegaz.

Eta maltzurrez ta menpetasunezko guzurrean eginda dagoan, barregarrizko, edo Urrezko Tzekorra gurtzeko dan Batikanoaren Laterri katoliko Aberkide otoiz toki onek, edo bereztasunaren aurka eginda dagoan gauza onek, Itsasoa ikusibageko 4 km´ko luzeran daukaz, bere mugak.

Tiber ibaiaren eskuma aldean, Trastebere auzunean, Batikanoko mendizka eta bere inguru gaiñean kokatuta dago. Eta Batikanoko mendi ta etxearen kanpo, Erromako 13 etxe jauregi, bere jauntzapean kokatuta dagoz, daukazan irabazbidetan, besteen menpe kanpotik edo mugapekoan(2) bizi dirala.

Euren artean: Letraneko San Juan, erritik kanpo(3) dauan San Pablo, Aundieneko Andre dena Maria´ren(4) eleiz nagusia, Gregoriana`ren Ikastetxe nagusia, Barberini´ko eguras-etxea, eta udarako dan Gandolfoko Jauretxea(5).

Eta Batikano´ren barruan, San Pedro eleiz nagusia; Sixtina-Otoiz tokia; Batikanoko Liburutegia; erakus-toki batzuk, euren artean xixel edo tailugintzaren erakus-tokia(6); Margo-Erakus tokia(7); Gaurko Eder-Lanentzako erakus tokia(8); Jendekuntzarako toki batzuk; eta 1.970ko urtean Pier Luiji Nerbi´k, VIn Paulo´rentzat egin eban entzuteko gela aundia(9).

San Pedro´ren Eleiz Nagusien asiera, San Anakleto Aita Santuak, San Pedro´ren illobi gaiñean otoiz-toki bat egitea agindu ebanean asten da.

I Konstantino, Erromatarren Eki aldeko, eta Ego aldeko Kaisar nagusiak, eleiz nagusi bat egitea agindu eban, K.o. 324ko urtean amaitu zana. Eta ortik 12 gizaldi barru, erre ta ezereztu egin zana.

Vn Nicolás Aita santuak, beste Eleiz Nagusi bat agindu eban egitea, 1.626ko urtean amaitu zana, eta VIIIn Urbanok sagaratu(10) egin ebena. 187ko metro daukaz luzetara eta 1357`15metro zabalean, goialdean 137´50m. daukaz, ta goil-erdiak 42´45m. begiz-begi(11).

Bramante eraikille edo etxegilleak antolatu eban argintza onen egitaraua(12), eta IIn Julio Aita Santuak baieztu.

Sanzio edo Urbino´tar Rafael(13) izan zan urrengo egillea, bere Giokondo ta Sangalloko Giuliano´tar Fray ikasle edo etxegillezko lagunekin. Gero Peruzzi´tar Baldassare Sangallo´tar Antonio, eta 1.547ko urtean Migel Anjel, goil-erdia pizkundeko itxuran egin ebena(14).

100urte beranduago Maderno´tar Karlok emon eutson Erromako eleiz nagusi orreri

(1) Laterri Aberkide = estado naciòn. (2) Besteen menpe kanpotik edo mugapekoan bizi dirala = que gozan de extraterritorialidad, convertida por no sé què inventos privilegiados en estado-naciòn. Esto ez, como si el estado, que quiere decir "sujeto a cambios" **fueran el padre y la madre de todo ese invento.** ¿ Donde està la Naturalización legal del Derecho, impresa por El Creador a èsta Naturalización ?. (3) Extramuros = San Pablo Extramuros. (4) Aundienetako Andre dena Maria = Santa Maria la Mayor. (5) Gandolfoko Jauretxea = el palacio de verano de Castel Gandolfo para el veraneo del papa. (6) Tailigintzaren Erakus tokia = Museo de la escultura. (7) Margoen-Erakus tokia = pinacoteca o museo de pintura. (8) Gaurko Eder-Lanentzako erakus-tokia = Galeria de arte moderno. (9) Eta Luiji Nerbik, VIn Paulorentzatt egin eban entzuteko gela aundia = La sala de audiencias que Luigi Nervi hizo para Pablo VI en 1.970. (10) VIIIn Urbanok sagaratu ebena = que lo consagrò Urbano VIII. (11) Begiz-begi = diametralmente. (12) Bramante etxegilleak antolatu eban argintza onen egitaraua = que fuè Bramante el arquitecto quien proyectò la construcciòn de èste edificio. (13) 1.483ko urtean Sanzio edo Urbino´tar Rafael etxegille ta margolari aundia = Italiako Urbino´n, edo Italiako Pèsaro lurraldean Urbinoko Urian jaioa eta 1.520ko urtean Erroman il. (14) Batikano´ren Goil-erdia, pizkundeko itxuran egin ebena = que hizo la cùpula del Vaticano al estilo renancentista.

latiñezko gurutz antzekoa.

Sixtina´ko otoiz-tokia, luzeran 40m, zabaleran 15m, eta 18m goi aldian daukanak, IVn Sixtok, edo Bazio Pintelerik aginduta egin zan.

1.512ko urtean Azillaren 1ean, IIn Julio aita Santuak, zabal-aldi aundiagoa emon eutson, eleizaren-sapaia(1), iztuku berrian margoztu egiazan Testamendu zaarrezko ta Asken-Epaiketazko irudiak Migel Anjeleri aginduta, eta IIIn Paulok eskatuta, altararen ormak iztuku margoan, 6 urteko apean amaituta, 1.541eko urtean Abenduaren 25ean zabaldu zana.

Batikanoko Uriak, esar lekua dauko bere barruan, eleiz katolikuaren egoitza lez, eta izen bi orreik batzuk edo jende guztiak, bardiñak diralakoan erabilten ba dabe, lenengoa Uri ta lurraldeari dagokion lez aipatu bear da, besteak, eleizak bideratzen dauan eraikitze edo erlijio katolikuen eraspena lez ibili bear diralako, beragan daukolako beren epaiketazko nortasuna, erriarteko eskubide lez.

Batikanoaren politikazko antolakuntza, goitik berako aginduan eginda dago, erregearen orokorrezko al-osokerian ta kaisertzazko eran, Aita Santua, goiko agintaritzan ezarrita.

Europan, erregeen azkeneko al-osokeritasuna ta Jaungoikuaren-Aginte lez(2), geratzen dan kaisar-agintari bakarra izan da.

2. 12. ***Batikano´ko, edo Aita Santuen edestia.***

Kristo il zan urtetik, edo kristautasunezko alditan sartu gintzazan utsezko asieratik, San Pedro il zaneraiño, onek 67 urte bete ebazanakaz. Aita Santuen edestian sartuta, guri arduratzen jakuna, 325eko urterarte I San Silbestreen denboraraiño, 35 Aita Santu aldatu zirala, eta 756ko urtean, eleizaren jakineko edestian IIn Estebanegaz asi orduko, beste 67 Aita Santu aldatu zirala.

2. 13. ***Oar txiki bat emen.***

Gauza baten bat orregaitik, oker dago emen, ondo dakigulako, Arrianoren denborea 325eko urtean amaitu bazan, eta 325eko urtean I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak, Kordubako Osorio gotzaiña, ta Bito ta Bizente abadearekin Nizeako eleiz batzar nagusian, zelan Mundu osorako sortu ta siñezkatu eben, guri Jaungoikuak egindako gauza lez beti esanda: "iru sasijainkoen katolikotasunezko aberkidetza, Zezareako Eusebiok antolatu eban siñizbideko kredoagaz ikur lez, Munduko gizaki guztiak erabili egien".

381eko urtearen baiño ariñago, eta Damaso Aita Santuaren denboran, Konstantinoplako leen eleiz batzarra egin zanean, eleiz barnean ebatuta egon ziran ziñauskeriak kentzeko, Nizean, "Ispiritu Santuaren jainkotasuna" ziñezkintzatu ta baieztu bazan, emen, kendu gura eutsoen. Ez ebelako onartzen, uso-ar orrek, jainkotasunezko egazkerietan ibili zedin.

431ko urtean Efesoko eleiz batzarrean, Zelestino Aita Santuaren denboran, Nestorio gaitz-etsi gura eben, onek ez ebalako onartu gura Kristoren Jaungoikotasuna. Orren ostean

(1)Eleizaren-sapaia iztuku berrian margoztu egian = mandando después a Migel Anjel, que pintara la bòveda al fresco. (2) Jaungoikuaren Aginte lez, eta erregeen azkeneko al-osokerizko agintaritza geratzen dana = que en Europa son la ùltima Teocracia, y absolutismos reales que como heredad del medioevo quedan.

Kristoren ama Jaungoikuaren ama lez izendatu eben.

451ko urtean Erromatar Marziano kaiserrak, I Leon Aita Santuagaz, Kaledoniako eleiz batzarrera deituz, berton Nestorio ta Eutikeseri, birao´ko(1) madarikatasuna ipini gurean, edo eleizatik eskomunikatzeko agintea baieztu eben, Kristoren jainkotasuna ta gizatazunak, jainkotasun bitan baieztu egin ebazalako, Alejandriako Dioskoro´ren monofisismoen(2) aurka.

Eta emen ikusten da argi ta garbi, eleiz katolikua ez dagola eginda Goiko Jainkoagaitik, Urak, ez dauelako Bere Arauditasuna, izkilluaren indarragaz ezartzen, Igo Konstatino ta Igo Silvestre Aita Santua, Osorio gotzaiña ta Bito ta Bizentek, eskomunikazioakaz egin eben antzera.

553ko urtean, Justiniano eta Bijilio Aita Santuak deituta, Konstantinoplan egin zan bigarren eleiz batzarrean, Greziako Orijenes´ek bere lanetan, Aita Santu eritzien ustez egin ebazan akatzak, ta nestorianoren iru txatalak zigortu edo gaitz-etsitzeko, batu zan.

680-681eko urtetan IVn Konstantinok deituta, Konstantinoplan egingo zan irugarren eleiz batzarra, San Agaton ta IIn Leon Aita Santuak, mai ori bideratuz, monotelitasek(3) edo Jesusen borondatean, jainkotasunezko borondate bat bakarrik egoala oldozten ebenak, gaitz-etsitzeko(4).

Batzar asko egon dira eleiz katolikuaren bizitzan, baiña aaztu gure dabela esan leike, katolikotasunaren aberkidetza bidez, sortu edo ezarri ziran astokerizko ziñezkintza guzti orreik, leenengo urte orreitan.

2. 14. *Aita Santuen edestiari ostera ebatuz.*

756ko urtean eta IIn Estebanegaz asten gara, Aita Santuari dagokion edesti onegaz.

1.798, frantzezaren gudalozteak, VIn Pio Aita Santua baitu edo atxilopetu egiten dabe.

1.846ko urtean Bagillaren 16an, IXn Pio Aita Santua aukeratzen dabe Erromako Aita Santu lez.

1.848ko urtean Azillaren 24an, IXn Pio Aita Santuak, Italiako aberkidetasunaren aurka egoteagaitik, abade mozorruta, alde egin bear izan eban Batikanotik, Italiako aberkideak, bere atzetik euki ebazalako atrapau gurean.

1.850eko urtean Jorraillaren 12rarte ez zan IXn Pio Aita Santua, bere atzerritasunetik ostera agertuko, Erromako Batikanon, Aita Santuen eseri lekuan ezartzeko. Oraindiño be, Erdiugarte orreitan bizi ziranak, Italiaren lurraldeari aberritasunezko batzangotasun bat emoteko ametsean, edo, nortasunaren aberkidetza barri baten itxuran emongo eutsoen itxaropenagaz egon zirenaren, amorratuzko etsai aundi bat biurtuz egoalako.

1.854ko urtean Abenduaren 8an, Jesus´en amagaitik aldarrikatu eben: "sortzezko pekatu barik jaio zala", eta orregaitik errubagea zala, edo ta sortzez garbia zala, Jaungoikuaren ama izendatuz. Bai ta bide batez, Aita Santuaren "uts-ezintasuna"(5).

1.859ko urtea, urrengo urteagaz, oso garrantzi aundiko urteak izango ziran Italiako aberkideentzat, Frantzezaren laguntzagaz, Austriari aurkezten dautsolako guda, Milan´eko Uria menpean artuta, Toskanako dukerriaz batera.

(1) Birao = voto, juramento, maldición, imprecación, anatema, etc. (2) Monofisismoa edo gauza bien izateagaz, bat izatea = que en la enseñanza dogmàtica del catolicismo, no existen en Cristo dos personas diferentes divina y humana, sino humana y divina a la vez. (3) Monotelitas o corrientes doctrinales que no admitian en Cristo màs que una ùnica voluntad divina. (4) Gaitz-etsitzeko = para condenar. (5) Uts-ezintasuna = infalibilidad del Papa.

1.860ko urtean Garibaldi ta bere gudariak euren arkondara gorriekin, Bi-Siziliako Borboien erregetza menperatu eben, Piamontesak, joan zan urtean gud-antzeko bat eginda.

Eta Garibaldi, apaizaren aurkako amorratu lez, Aita Santua atara gura eban Erromatik, bere esan ospatsuagaz: "Erroma a la IL".

IIn Biktor Manuel´ek alderantziz, eta Garibaldi geratzeko aitzakiagaz, bere gudalozteak, Aita Santuaren lurraldeetara bialdu ebazan.

1.860ko urtean IIn Biktor Manuel Italiako erregeak, Aita Santuen Laterriak artzen dauz menpean, eta Erromako etxea ta itsas ingurua bakarrik itzi eutson IXn Pio Aita Santuari.

1.860ko urtean Bagillaren 20an IXn Pio Aita Santuak, bere amurru guztiagaz exkomunikatu edo eleizatik kanporatu eban IIn Biktor Manuel, gero "Qui nuper" eskutitz(1) gogorra agertuz, Italiako gobernu barriaren aldekoentzak bideratuta egoana.

1.861eko urtean Epaillaren 17an, IIn Biktor Manuel egin eben Italiako errege.

1.866ko urtean IIn Biktor Manuel´ek, Beneziagaz jabetu zan.

1.866ko urtean Italiako gobernu barriak uste dau, ordua zala Italiako lurraldeak batzeko aberkidetasunezko nortasunaren jaurpide bategaz zuzentzeko, eta Aita Santuari eskeiñi eutson, Batikanokoagaz batera, Sant´Anjelo, ta Tiber ibai inguruan agindu egiala bakarrik, erregearen al-osotasunezko eran.

IXn Pio Aita Santuak, oso aserre baztertu eban eskeintza ori, bere ustez, aldiko almena(2), bearrezkoa zalako, arimaren almenak arazo barik bideratu edo zuzeneko bidetan ezartzeko.

1.870eko urtean Azaroko 20an Italiako errege IIn Biktor Manuelek, Franko-Prusianoren gudan, garaipena lortuz, eta Frantzezaren gudalozteak Erromatik alde egin ebenean, Erroma artzen dau, Italiako erreiñuaren Uri nagusi barri lez izendatuz, IXn Pio Aita Santuaren ezetz aundienagaz, gobernu barri orren kideak, Aita Santuaren jabetzazkoa zan Kirinaleko jauretxea gura ebelako, Italiaren lendakarizko egoitza lez.

Emen batu ziran leen aldiz Italiako lurrak erri bat bezela.

K.a. 753ko urtetik Italian egon ziran Etruskoen bidetik, gudalozteak antolatuz euren saleros tokiak babesteko, eta gero gudalozte orreik, Etrusco-eurak menperatu ondoren Erromatar kaisertzazko gudalozteen menpean eukiteko, agertu jakien Godoakaz, Italiako lurraldeak beste kaisertzazko eritzi barri baten itxuran, edo nortasunezko naasketa baten biurtu zan, Europako erregeentzat, bakotzaren jabetasunezko(3) bitxi bat izan zan arte biurtu ebena, bat edo besteen garaipeneko jabetzaren agindupean bizi egiezan. Erromatarrezko kaisar eritzien gudalozte orreik, Erdiugarte orren lurraldeetan bizi ziran errigizartearen nortasunak, ezereztu edo zirriborrotu egin ebazalako.

Dana dala, argi dago, Aita Santuak ez ebala onartzen, bera baiño gorago edo beren gaiñetik eukitea aldiko almenik, katolikotasunaren aberkidezko erlijio bidetik, almen zuzena eukelako, edo bere ustez, Jaungoikuak emonagaitik eukelako.

Aita Santuak, IXn Pio´tik asita, ezin eben ulertu Italiako Erdiugarte ori erri bat lez, euren ziñeskintzatuaren katolikotasunezko aberkidetzagaz naikoa euki ebalako.

Orregaitik ez eben Italiako lurralde ori sekula be, erregezko, edo Laterri(4) lez onartu, berton lenengotik egon ziran erri-leiñuakaz, IIn Biktor Manuelen atxilotu lez geratuta, Aita

(1) Eskutitz gogorra agertuz = encíclica. (2) Aldiko almena = poder temporal. (3) Europako erregeen jabetasunezkoa = Italia estaba dividida en multiples trozos,teniendo como propietarios, a todos los reyes de Europa. (4) Laterri = estado naciòn.

Santuaren izango zan Erromako Laterria, Italiako Laterriaren barruan geratzen zalako, eta Italiar orreik, Italia ta Erromako lurralde orreik, euren Aberri ta Uri nagusi lez gure ebazalako, ez Batikanoko Laterri lez.

1.870eko urtean dana dala, IXn Pio Aita Santuak, ez eban gura Batikanoko giltzak IIn Biktor Manueleri emon, eta Italiako gobernuak baikuntzazko lege bat atarata(1), IXn Pio Aita Santuaren agintaritza, errege baten agintaritza lez geratzen zan, nai ta Batikanoko Laterria, Italiaren menpeko Laterri lez geratu(2). Arik eta 1.929ko urtean Mussolinigaz, Batikanoko lurralde ori, askatasunezko Laterri bat lez geratu zan arte.

1.878ko urtean il zan IXn Pio Aita Santua Erroman, atxiloen damu edo sendimenagaz.

1.917ko urtean XVn Benediktok, Munduko guda Nagusia urtenda egoanentzat, bakezko egitamu bat aurkeztu eban, eta Europaren erri arteko guztitik, iñork, ez eutson jaramonik egin.

IXn Pio Aita Santuaren bizia Aita Santu lez, luzeena izan zan katolikotasunezko eleiz onetan, 1.846ko urtetik, 1.878ko urterarte iraun ebalako.

1.929ko urtean Otsaillako 11n, XIn Pio Aita Santuen denboran, Letraneko ongundearen izketak edo elkarpideak ospatu ziran, 1.870eko urtean franko-prusianoko gudan, Italiako errege IIn Biktor Manuel´ek erromako lurraldeari kendu eutsoezan lur bidez, sortu zan eskubideko eztabaidari, azkena emon edo bakez amaitu zedin.

Gasparri´tar Pietrok Batikanoaren aldetik sinatu eban ongunde ori, eta Italiako erregeen aldetik, Kaisertzazko almenakin leenengo ministrua izendatuta egon zan Mussolini´tar Benito faziztea, eleizaren lurralde txiker orreri, Laterrizko aberkidetza emoteko(3). 44 eunareako edo lau ektareako Lurralde orren leen Jaurlaria(4). Diruen ardurazko arloetan, goitsu edo jakintsua izan zan Kamillo´tar Serafín zan.

1.937ko urtean, XIn Piok, *"Mit Brennnder Sorge"*ko enziklikea edo idazkai luze bat argitaratu eban, gizartekeriaren aberkidetzari(5) aurre egiteko, *(nik, ez dotena sinisten)*, ariñautik Frankok, Erdiugarte onetara, Italia ta Alemaniatik ekarri ebazan izkillu ta guda tresneri guztiak, bereinkatu ebazalako, beren Aberkide-Katoliku Gurutzada sakratuagaz, irabazi egien. Edestitik zear, Gudalozte indartsuenak eukiten ebazan erregeari, emoten eutsoelako Kaisar Katolikuen domiña aundi ori, Izadi onen giza guztia, katolikotasunaren aberkuntzan batzangotzeko.

Alderantziz: "Gizartekerizko Aberkidetzari bideak zabaldu ondoren, Europa guztiko lurraldeak, bai ta Batikanoen lurraldeak be laterrituz gaiñ, aberkidetu egin ebazan, nortasunaren edozelango izen ta izkuntz baragarri bat emonda", "Milla urteko azkuntzan lortu ziran Jendekuntzazko(6) benetako aberkidetzak, ezereztu gurean, edo alboratu naian".

Kosta egingo jakiena, Euskalerrian milla urte askotan, jendekuntz bidetik, Jaungoiko

(1) Baikuntzaren lege bat = que publicò una "Ley de Garantias". (2) Batikanoko Laterria, Italiako Laterri lez geratu = Que el estado naciòn Vaticano quedaba sin ningun poder, inmerso en el estado naciòn Italiano. (3) Laterrien aberkidetza emoteko = para dar a los estados pontificios, la categoría de ESTADO-NACIÒN. Sabrian estos dos, algo sobre lo quew es el derecho de las naciones, o aquien le deba concernir ?. (4) Lurralde orren leen jaurlaria = Diruaren biltzaille aundia zan Camilo Serafín izan zan leenengo jaurlari edo agintaria. (5) Gizartekeriaren aberkidetzari aurre egiteko = para hacerle frente a los nacional socialismo. Cosa que estimo incorrecta o falsa, porque para entonces ya habia entrado Franco en èsta península, con su cruzada nacional-catòlico socialista, cosa que contradice totalmente al Papa Pio XI, que bendijo los armamentos que Franco trajo aquì. Donde tienen una equivocación diametral, puesto que los nacionalismos que se fabrican artificialmente, no son como a los nacidos fisica y culturalmente se les llama, pues los primeros son fruto de colonialismos esclavizadores caprichosos, que nada tienen que ver, con los "nacimientos-fisico-kultural-naturales", pues son estos los que tienen el derecho inequivoco, a ser considerados COMO NACIONES, en el orden natural de èsta creación naturalizada. (6) Milla urteen azkuntzan lortu ziran Jendekuntzazko aberkidetasunari, bide guztiak moztuta ezeren LOTSA-BARIK" = cerrando toda posibilidad èticа a todas las verdaderas naciones culturales. Que son las ùnicas que tienen verdadero derecho a ser NACIONES, porque son los verdaderamente nacidos en èsta Naturalización, naturalizada para el ejercicio moral de la Humanidad por el Dios-Creador.

Irasleari begira eginda dagoelako, bere nortasunaren Askatasunezko sen demokratiko ederra lortu ebena. Eta ori ez da kentzen aiñ errez.

1.939ko urtean il zan XIn Pio Aita Santua, eta bere ordez, XIIn Pio ezarri zan San Pedroren aulkian. Eta Munduko IIn Guda asi zanean, XIIn Pio Aita Santuak Batikanoa, Alderdi edo aldera-bageko lez aldarrikatu ebanean, Batikanoren lurpeko artzuloak atzurkatu ebazan, ia San Pedroren illobia berton egon bazan edo ez, bien bitartean eskumatar faziztakaz jokatuz.

1.958ko urtean il zan XIIn Pio Aita Santua, eta bere ordez XXIIIn Juan izendatu eban.

1.962ko urtean XXIIIn Juanek, Batikanoko II Elei-Batzar nagusia egiteko agindu eban.

1.963ko urtean il zan XXIIIn Juan Aita Santua, eta IVn Paulo ipini eban bere ordez.

1.965eko urtean VIn Paulok Batikanoko IIn Batzar Nagusiak bukatutzat emon ebazan.

1.978ko urtea, iru Aita Santuen urtea zana: Dagonillaren 6an VIn Paulo il; eta bere ordez I Paulo ipini eben, 33 egun barru il zana, Aita Santu lez 1.978ko urtean Dagonillaren 26´tik, Iraillaren 28raiño ordezkatu ebena. Azken baten eta 1.978ko urtean Urrillako 16an Poloniako IIn Juan Aita Santua aukeratuta.

1.981eko urtean, IIn Juan Paulo Aita Santuak, XXIIIn Juan Aita Santuak Batikanoko IIn eleiz-batzarrean egin eban guztia, ezereztu eban. San Pedroko enparantzan, euki eban txarkeri edo gaztakeritik, gitzigaitik bizirik urten da.

2.001eko urtean Otsaillaren 11n IIn Juan Paulo Aita Santuak, oiñarrizko legea baieztatu eban Batikanoko Uri edo Laterrientzat.

2.005eko urtean IIn Juan Paulo Aita Santua ilten da, eta bere ordez XVIn Benedicto Aita Santua ipinten dabe.

2.013ko urtean IIn Juan Paulo Aita Santuari ordezkatu eutson XVIn Benedikto Aita Santuak, 2.013ko urtean egin zan Batzar Nagusia ospatu ebenean, uko egin eutson Aita Santu izateari, ta bere ordez Bergolio´tar Jorje Mario aukeratu eben Franzizkoren izenakin.

2.013ko urtean Batikanoko Laterria, San Jose ta Goi Angeruko Migel Sagaratu´ari eskeiñi eutsoen.

2. 15. *IIn Errepublikaren aldarrikapena eta bein-beiñeko gobernua(1).*

Leenengo Errepublikeak, bizi laburra euki eban espainitarren artean, 1873ko urtetik 1.874ko urteraiño iraun ebalako bakarrik, oraindiño, gudako ta eskumatar menperatzail indarrak, aundiagoak izan zirelako.

1.930eko urtean Dagonillaren 17an Montaner ta Maura´tar Antonio(2) ta Migelek, euren Eskuma´tar Liberal Alderdi eta Errepublikatar gordetzaillearen izenean, urte ta egun onetan Donostian ospatu zan ongundeko batzarrean egon ziran, erregezko agintaritza kendu ondore, errepublikaren eritzizko jaurkintzan ezartzeko.

Ongunde orren erabagi bidez, Errepublikaren eritziko batzar bat sortu zan, Erdiugarte onen giza, euren espainitar konstituziozko Errepublikaren eritzi barri orrekin bideratzeko.

1.930ko urtean Abenduaren 12an Jaka´ko gudaltegian edo gudari-etxean, Galan, ta Ernandez´tar Garzia kapitaiñak matxinatu ziran, Errepublikaren jaurkintzazko eritzia

(1) Beiñ beiñeko gobernua = gobierno de transición, provisional. (2) Maura ta Montaner´tar Antonio = 1.853ko urtean jaio zan Mallorkako Palman, eta 1.925eko urtean Madrilleko lurraldearen Torrelodoneseko Urian il. Espainitar politiku ospatsua izan zana.

aldarrikatzeko.

Ueskara bideratu ziran matxinatu orreik, ta gobernuaren gudalozteak geratu ebazanean, epaitu ostean, tiros il ebazan.

Madrilleko Lau Aizetako egazkin-zelaian, Frantzizko Franko´ren anaia, Franko´tar Ramon, eta Keipo de Llano´tar Gonzalo matxinatu ziran.

Erregeen jauregia, bombas jo edo bonbakatu gura eben, gudal matxinoak, aldarrikatu zitezen. Franko´tar Ramonek baiña, Sabatini´ko baratz edo lorategietan, ume batzuk olgetan egon zirala ta, ez eban bonbarik bota.

Eta naikoa zan bonba orreik ez botatea, beste gudal nagusi matxinatuak geldi egon zitezen. Eta egazkiñ-zelai ori gobernuaren gudalozteakaz inguratuz geratuta, an egon ziran gudal nagusiak egazkiñez, Portugalera alde egin eben.

A ta guzti, gobernuko indarragaitik inguratuta egon ziran matxinatuak, Errepublikako gidari edo zuzentzailleak, ta batzordeko batzuk, euren artean Alkala-Zamora´tar Nizeto(1) egoala, an geratzen ziranak, arrapau ebazan.

1.931ko urtearen Epaillan, Erritarren aurrean egin ziran epaiketazko emaitzak, sei illabete ta egun bateko zigorrakaz urten eban, gero, baldintzapeko askatasunekaz ordaindu ebena.

2. 16. *IIn Errepublikako bein-beingo edo bitarteko Jaurbidearen kideak.*

Espainitarren IIn Errepublika demokratikoa deitzen jako, XIIIn Alfonsok euki eban erregetzazko jaurkintzaren ordez, 1.931ko urtean Jorraillaren 14an sortu ta aldarrikatu zanetik, 1.939ko urtean Jorraillaren 1ean, Frankok ekarri euskun anai arteko guda, edo katolikoen aberkidetzazko gurutzada sakratua asi zanetik, amaitu zaneraiño denborari.

Guda ostean, Frankok ipini eban kaisertzazko agintaritzapean bizi bear izanda, ia 40 urtetan.

1.931ko urtearen Otsaillan XIIIn Alfonso erregeak, Berenguer´ek bere jaurbideari utziazo egin eutson ostetik, Aznar ta Kabañas´tar Juan Bautistari agindu eutson, jaurkintz barri bat antolatu egiela.

1.931ko urtean Otsaillaren 18an, erregetzaren guztiko eritziaren ministruakaz osotuta egon zan gobernu barri bat aurkeztu zan.

Askodun edo askotariko eritziakaz egindako gobernu orrek, berak bakarrik agertu eban, XIIIn Alfonso erregeen eziña, zuzenbide bat aurkitzeko, bai ta gaiñera erregeen izaerak euki ebazan arazoak, asko ziran, orekaz konpontzeko.

1.931ko urtearen Jorrail-Abenduko bein-beingo jaurkintzan, eta 1.931ko konstituzioa aldarrikatu zanetik, jaurkitzazko antolaketetan asi ziran, IIn Errepublikeari bideak zabaltzeko, eta orretarako, bakezko 1.931-1.936ko urte bitarteak, iru ekiñalditan ikertzen dabe.

1.931-1.933ko urte bitarteko len ekitaldian, IIn Errepublikako bein-beingo edo bitarteko

(1) Alkala ta Zamora´tar Nizeto = 1.877ko urtean Kordubako Priego´ko urian jaio zan, eta 1.949ko urtean buenos Aires´en il. 1.917ko urtean, gobernuaren laguntzaillezko ministrua izan zan (fomento). 1.922ko urtean gudarako leen ministrua. 1.930ko urtean Primo de Riberak euki eban politikaren aurkakoa izan da, Matxinatuko batzarraren lendakaria izan zan, 1.931ko urtean XIIIn Alfonsoren erregetza kendu ebena. 1.931ko urtean, bitarteko gobernuaren lendakari izan zan. Eta 1.931ko urte ortako Jorraillaren 14an IIn Errepublikaren Lendakari lez izendatu ebena. 1.936ko urtearen Jorraillan kendu eben gobernuko lendakaritzatik, eta bere borondatez atzerritu zan, izkuntzaren jakitunen batzarrekoa be izan zan eta abar.

Jaurbidearen kideak: Albornoz´tar Albaro; Alkala-Zamora´tar Nizeto; Maura´tar Migel; Largo Kaballero´tar Franzizko; De Los Rios´tar Fernando; ta Lerroux´tar Alejandro izan ziran, espainitarren erriak bear ebazan politikuak, berrikuntza orreik egiteko.

1.933-1.935eko bigarren ekitaldi onetan, urte bi baltzak deitu eutsoezan urte bi onen bitarteai. Errepublikaren ertzeko alderdikoa zan Lerrouxtar Alejandro ipini eben gobernuen gidari, Lege-Biltzar bidetik "Espainitar Askatasunezko Eskubitar Alkarteagaitik" (CEDA) lagunduta(1) egoana, lenengo urte bietan sortu ziran akatsak, konpontzeko itxaropenean.

Urte bi onetan sortuko ziran garrantzienetariko akats gogorrenak, 1.934ko matxinadan esagutuko zan lez, Asturiaseko socialista ta lege-bagekoak(2) sortu ebena, ta erritarren Matxintasun gogorrenean biurtuta, gobernukoak, gudalozteen indarragaz bakeztu ebena.

Irugarren azterketako ekitaldi onetan: 1.936ko urtean egin ziran auteskundeakaz argitzen da, ezker aldearen batasuneko erritarrak(3) lortu eben garaipenakaz.

Bost illabetetan bakarrik erria jaurri edo zuzendu ebena, Uztaillaren 17 ta 18ko egunetan Franko´k, anai arteko guda, (*Euskaldunentzat, atzerritarren guda zana)*, edo "sakratuzko gurutzada santu" lez: "Katolikotasunaren Aberkidetzazko(4) gizartekerian batzangotzeko izenegaz, guda madarikatu ta zitala ekarri euskulako.

2. 17. *IIn Errepublikaren Aldarrikapena.*

1.930eko urtearen Urtarrillan Primo de Ribera´tar Migelek, uko egin eutsoenean bere jaurkintzari, XIIIn Alfonsok, bere aukerazko almen guztiak ipini ebazan abiadan, bere erregetzaren eritzizko taldeak, len euki eban eragipenezko sendotasuna lortu egien. Nai ta erregetzaren aldeko taldeak oso makal ibili arren.

XIIIn Alfonsok orretarako, Berenger ta Fuste´tar Damaso(5) ipini eban gobernuaren leen ministru lez. Onek baiña, ez eban euki indar geiagorik, espainitarrak lengo konstituzioaren arauetara eroateko.

1.931ko urtearen Otsaillan XIIIn Alfonsok, Berenger kendu eban "bere makal edo bigunezko jauntzar jaurbide(6) lekutik", eta Liberal alderdiaren aurretik ibili zan Alba´ri(7) eskeiñi eutson gobernu orren lendakaritza. Eta onek ez ebalako artu gura zeregiñ ori, Santzez ta Gerra´tar Joseri(8) eskeiñita, au Madrilleko "Jarraibidearen espetxera"(9) joan zan, berton egon ziran Jakako matxinatuengana, eta eurei eskaiñi eutsoezan ministeritzaren zorroak(10).

Asken baten XIIIn Alfonso erregeak, Bautista ta Aznar´tar Juan amiral´ari eskaiñi eutson espainitarren gobernuaren lendakaritza, eta liberal ta gordetzaille alderdien gudal

(1) Lege Biltzarretik "Espainitarren Askatasunezko Eskubitar Alkarteagaitik" lagunduta =Ayudados desde el parlamento por la "Confederación Española de Derechas Autònomas" (CEDA). (2) Asturiaseko Gizartekerizkoak edo Sosialistak eta lege bagekoak = Socialistas de Asturias y los àcratas o los de sin ley. (3) Ezker aldeko erri-batasunaren garaipenak = los triunfos del frente popular. Frantzian sortu ziran leenengoz, "Frente-Popular" onen ekintzazko eritzi au. 1.936ko urtean espainitarren lurraldean. Eta 1.937ko urtean, Txilen askenez. (4) Sakratuzko izenakin lez: "Gizartekeriaren katolikotasunezko Aberkidetzagaz" = que en el nombre de una gran cruzada, nos traian el establecimiento definitivo del "Nacional Socialismo Católico" como directamente ordenada por Dios, o el dios que ellos profesan, que ha durado hasta hoy, con grandìsimos y gravisimos problemas sociales de identidad irresolutos. (5) Berenger ta Fuste´tar Damaso jenerala eta Xauen´tar kondea = 1.873ko urtean Suban jaioa, eta 1.953ko urtean Madrillen il. (6) Bere makal edo bigunezko jauntzar jaurbide = que le quitò de la dictadura blanda que estaba ejerciendo. (7) Alba´tar Santiago = 1872ko urtean Zamoran jaioa, eta 1.949ko urtean Donostin ildakoa. Gordetzailleakaz egon zan leenengo, gero 1.905eko urtean Liberalen alderdira aldatu zana, ortik aurrera: 1.906ko urtean Itsasoko ministeritza; 1.912-1.915ko urtetan erriaren diru kontuetan; 1.912-1.917ko urtetan Irakaspeneko ministeritza; 1.917-1.918ko urtetan Laterriaren ministeritzan. Ribera´tar Primoren denboran, Frantzian egon zan atzerriratuta, eta au jausi zanean espainitarren jaurkintza eskeiñi eutson XIIIn Alfonsok, eta ez eban artu-gura zregiñ ori. (8) Santzez ta Gerra´tar Jose = 1.859ko urtean Kordobako lurraldearen Kabra errian jaio zana, eta 1.935ean Madrillen ildakoa. (9) Madrillen, Jarraibideko espetxean = carcel Modelo de Madrid. (10) Ministeritzaren zorroak = carteras ministeriales.

zar guztiak sartu ebezan gobernu orreitan, adibidez: Romanotes kondea; Garzia ta Prieto´tar Manuel; Maura ta Gamazo´tar Gabriel; Maura´tar Antonioren semea; eta Bugalla´tar Gabino.

Gobernu onek, egutegi barri bat aurkeztuta: 1.931ko urtean Jorraillaren 12an ospatuko ziran Udalaren auteskundeak. Eta gero Araudi-Batzarraren auteskundeak.

1.931ko urtean Jorraillako 12an ospatu ziran auteskundeetan, emaitza auek agertu ziran: 22.150 zinegotzi, erregetzaren betiko alderdien taldekoentzat, eta 5.875 ziñegotzi, errepublikakoaren ezberdin mota edo eritziko taldeentzat. 52.000 ziñegotzaren ezar lekuak, autatubageko jabe barik geratuz.

Eta nai ta erregeen aldeko zinegotziak, erepublikaren aldekoenak baiño askoz geiago izan, errepublikanuak, 50eko Lurraldetik, 41eko Uri nagusietan, irabazle urten eben.

Madrilleko zinegotzi artean, errepublikanuak, erregearenak baiño iru bider geiago atara eben. Eta Bartzelonan lau bider geiago.

Geroagoko ikerketak baiña 19.035 zinegotzi erregearen gobernuko eritzien alde, 39.568 zinegotzi Errepublikanoak, 15.198 zinegotzi, Tradizio zaleek, osotasunezko karlistentzat, Euskal Abertzaleak, Askatasunezkoentzat, ta abarrezko zaleentzat. Azken auek, ezin ebela ziurtasunezko erakundez mail baten lerrotuta agertu

Eta auteskunde orreik, zein, noren alde egon ziran, edo erregetzaren aldekoak zenbat ziran jakiteko, izan-gaitasun orregaz orokorrezko auteskundeen legeak aldatzeko ospatu ba ziran auteskunde orreik, errepublikako alderdikide guztiak, erri-autarki lez artu eben, bereala IIn Errepublikaren jaurbideak ezartzeko.

Oyos´eko(1) markesak auteskunde onen gora beran: "garrantzi aundiko errien albisteak, Uri nagusiarenak beste txarragoak zirela esan eban.

Eta auteskunde onen emaitza, erregezko eritziaren aurka agertu bazan, erri ta Urietan autarki-bozka, faltsotu edo naastekatu barik egon zalako zan. Eta orrek, bakarrik esangura ebena, XIIIn Alfonso Prin´en jaurbideari larregi ondoratu zalako, guztiz aipubage edo euki eban azkeneko izen-onenagaz be, guztiz ondatuta geratu zala.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Aznar ta Kabañas´tar Juan Bautista(2) gorteko batzarrean aurkeztu zanean, ministruen batzarra ospatzeko, ta berri-idazleak itandu eutsoenean: "Ministro, hay crisis de gobierno ?".

Aznar-Kabañasek erantzun eban:

"¿ Que si hay crisis de gobierno ?. ¿Qué màs crisis desean ustedes, que la de un pais que se acuesta monarquico y se levanta republicano ?.

Gobernuaren batzarrean de la Zierba ta Peñafiel´tar Juan, laguntzaillezko ministeritza eroaten ebenak, mukertasunezko(3) edo agertzen egon zan askatasunezko eritziari itxaroten, gogorrean eutsi(4) egin bear eutsoela gobernuari esaten eban: *"Hay que construir un gobierno de fuerza, implantar la censura y resistir"* esaten ebalako indar guztiagaz.

Zeri eutsi bear eutsoen eurak, euki eben almenezko indar guztiagaz ?.

Edo ta, erritarren bearkuntzak jaurkitu barik, zeri egon ziran jaurkintzen ?.

Argi dago, okerrezko gauza aundi bat dagoela emen, jaurpide orreik, berekotasunaren

(1) Oyos´eko markesak = Marquès de Hoyos. (2) Aznar ta Kabañas´tar Juan Bautista = Juan Bautista Cabañas Aznar = 1.860ko urtean Kadiz´en jaioa, eta 1.933ko urtean il zana. Espainitarren gobernuan, Berenger Jeneralari ordezkatu eutsona. (3) mukertasunezko = resistencia, insumisiòn, desobediencia. (4) Eutsi = retener, reprimir, que debian sostenerse en sus tèsis, hacerles frente.

aurka egiteko, euren erritarren aurka egiñez gain, berton eta eskubide bardiñakaz dagozan erri ezberdiñaren aurka egiten ebelako.

Nekez ulertzen direnak dira: Goiko Jaungoiko Iraslearen Legeen aurka, ain gogor egiten ba dabe.

Araujo ta Bugallal´tar Gabino kondea(1), ta Garzia ta Prieto´tar Manuel(2) Aluzemako markesaren antzekoak, laguntzen eben, konstituzio barri orrein guzurrezko eritziak. Baten batek emonda, eurak ekarten ebelako Erromatarren kaisar katoliko abertzaletasun menpean batzangotzeko agindua. Nizeako 325eko urtetik, Europa ta Mundua jaurkitzeko gaur arte beintzat, menperatzailletasunaren bide edo erea dalako, danok eritzi orren azpian artalde lez egon gindezan.

Figeroa ta Torre Albaro´tar, edo Romanones´eko kondeak bideratzen ebazanak beste ministruak, dana galduta egoala oldozten ibili ziranen aurka.

Geiago, Lurraldeen orokorrezko gudal kapitaiñak urrutizkiñatik bialtzen ebazan erantzunak, Berenger´tar Damasok ariñautik ta urrutizkin bidez, erantzuteko bialdu eutsen itaun eta aolkuak, aurrera egien: *"con el curso que les imponga la suprena voluntad nacional"*.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Leoneko Saagun, Gipuzkoako Eibar, eta Ueska´ren Jaka´ko Uriak izan ziran, gobernuak baieztu orduko egun bat ariñago, Errepublikaren ikurriña goratu ebenak.

Gero Errepublikako gobernuak, "Uri Andikien Izenakaz" saritu egingo ebazanak.

1.931eko urtean Jorraillren 14an Sanjurjo(3) gudal nagusia, guardia zibillaren zuzendari zala, Maura´tar Migel´en etxera joan zan, berton, Frantziko erbestera joan ez ziranakaz berba egiteko: Alkalaza-Mora´tar Nizeto, Largo ta Kaballero´tar Franzizko, de los Rios ta Urrutia´tar Fernando(4), Kasares ta Kiroga´tar Santiago(5), eta Albornoz´tar Albaro de(6) Errepublikako zaleen guztiekaz.

Sanjurjo, Maura´tar Migelen etxera sartuaz, Maura´ren aurrean artez geratu ondoren, gudalarien kilimusia eginda(7), *"a las òrdenes de usted señor ministro"*, esan eutson.

XIIIn Alfonsok bere aldetik, Alkala Zamora´tar Nizeto´ren antziñako laguna izan zana Romanones´eko kondeari eskatu eutson, beragana joan zedin, "Matxinatu Batzararren" lendakari lez, bere ta beren senditasunezkoai, ia bide bat baiezten ba eutsoen atzerrira bakez joateko.

Marañon´tar Gregorio(8), XIIIn Alfonso erregearen sendiko osagillea izan zana, eta gero errepublikako alderdira aldatu zanen etxean, eguerdiko ordu baterdiak zirala egin zan batzar ori.

Romanones kondeak, aldaketazko gobernu bat ipintea eskaiñi eutson Alkala Zamoratar Nizetori, bai ta XIIIn Alfonsok gobernu orren utziera egitea Asturiaseko printzearen alde.

(1) Araujo ta Bugallal´tar Gabino, Bugallal´eko kondea = 1.861eko urtean Galiziaren Pontebedrako luraldearen Puente-Areas´eko erritxoan jaioa, eta 1.933ko urtean Paris´en ildakoa. (2) Garzia´ta Prieto´tar Manuel = marquès de Alhucema. (3) Sanjurjo ta Jakanell´tar Jose = 1.872ko urtean Zaragozan jaioa, eta 1.936ko urtean Lisboa inguruan ilda, Marrokos´eko gudaldian Gurugu ta Laratxeko mendiak artugurean ibilita, eta il osteko Ereñustutako Gurutzearen domiña artuta. 1.932ko urtean, gusadia zibilaren zuzendari izan zanean, Errepublikaren aurka matxinatu zan eta espetxeratu ondoren Iltera zigortuz, betiko espetxeagaitik ordezkatu eutsoen, eta 1.934ko urtean askatu eben Portugalera joanda, 1.936ko urtean Frankoren ondora etorteko zanean, egazkiña jausi eta berton il zan Sanjurjo ori. (4) De los Rios ta Urrutia´tar Fernando = 1.879ko urtean Abenduaren 8an Malagako Ronda Urian jaioa, eta 1.949ko urtean Loraillaren 31n Nueba York´en il zana. (5) Kasares ta Kiroga´tar Santiago = 1.884ko urtean Koruñan jaiotakua da, eta 1.950eko urtean Paris´en il da. Errepublikea sortzeko matximatu guztietan ibilikoa zana. (6) Albornoz´tar Albaro de = 1.879ko urtean Asturias´eko Luarkan jaioa, eta 1.954ko urtean Maxiko´n il. Lege gizon, Idazle, ta espainitarren politikua zana. (7) Gudalarien kalamusia = el gesto que represeta el saludo militar. (8) Marañon ta Posadilla´tar Gregorio = 1.887ko urtean Madrillen jaioa, eta 1.960ko urtean Ladrillen il. Espainitar Politiku, Osagille, ta idazle izan zana.



1.931ko urtean Jorraillaren 12an egin ziran Udalen auteskundeak

Alkala Zamora´tar Nizetok baiña, *"Antes de que se ponga el Sol"* espainitar lurraldetik urten egiela eskatu eban. Romanones´eri oarkizun au egin be: *Si antes del anochecer no se ha proclamado la repùblica, la violencia del pueblo puede provocar la catàstrofe".*

1.931ko urtean Jorraillaren 14ko egunean urten eban erregea bere sendiagaz atzerrira.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, goizeko seiterdietan aldarrikatu zan IIn Errepublikako Jaurkintza. Erregea, Kartajenako kaian itsasontzia artuta, eta bere senidetasuna su-burdia artuz Frantzira atzerriratu ziran.

1.931ko urtean Jorraillako 14an, Eibar izan zan goizeko seiterdietan leena, Errepublikako ikurriña goratu ebena. Gero arratsaldean, beste Uriak goralduta: Balenzia, Bartzelona ta Madrillekoak artean zirala, euren auteskundeetan nagusitaun aundiak lortu ebazalako.

Eibarko idazle Etxebarria´tar Toribiok, alan idatzi eban IIn Errepublikako aldarriketa bere liburu "Ibil aldia Oraitzapeneko Erritik"(1):

...y antes de las seis de la mañana habíase congregado el pueblo en la plaza que se iba a llamar de la República, y los concejales electos del domingo, por su parte, habiéndose presentado en la Casa Consistorial con la intención de hacer valer su investidura desde aquel instante, se constituyeron en sesión solemne, acordando por unanimidad proclamar la República. Acto seguido fue izada la bandera tricolor en el balcón central del ayuntamiento, y Juan de los Toyos dio cuenta desde él al pueblo congregado, que a partir de aquella hora los españoles estábamos viviendo en República.

1.931ko urtean Jorraillaren 16ko egunean, XIIIn Alfonso eta Migel Maura´ren anaia Maura´tar dukeak idatzita, agiri au argitaratu egin zan, 17n egunean, ABC izparringi edo aldizkariaren leenengo orrialdian, bitarteko gobernuaren oarpen bategaz batera urten ebena:

"Las elecciones celebradas el domingo me revelan claramente que no tengo hoy el amor de mi pueblo. Mi conciencia me dice que ese desvío no será definitivo, porque

(1) Ibil aldia, oroitzapeneko erritik = viage por el pais de los recuerdos.

procuré siempre servir a España, puesto el único afán en el interés público hasta en las más críticas coyunturas. Un Rey puede equivocarse, y sin duda erré yo alguna vez; pero sé bien que nuestra patria se mostró en todo tiempo generosa ante las culpas sin malicia.

Soy el rey de todos los españoles, y también un español. Hallaría medios sobrados para mantener mis regias prerrogativas, en eficaz forcejeo con quienes las combaten. Pero, resueltamente, quiero apartarme de cuanto sea lanzar a un compatriota contra otro en fratricida guerra civil. No renuncio a ninguno de mis derechos, porque más que míos son depósito acumulado por la Historia, de cuya custodia ha de pedirme un día cuenta rigurosa.

Espero a conocer la auténtica y adecuada expresión de la conciencia colectiva, y mientras habla la nación suspendo deliberadamente el ejercicio del Poder Real y me aparto de España, reconociéndola así como única señora de sus destinos.

También ahora creo cumplir el deber que me dicta mi amor a la patria. Pido a Dios que tan hondo como yo lo sientan y lo cumplan los demás españoles(1).

XIIIn Alfonsok, odolkeririk ez daiten sortu, bere ministruaren aurka agertuz, atzerriratu egin zan, Alkala-Zamora´tar Nizetok Errepublikako jaurkintzaren lendakariak askeneko deia egin eutsoenean.

XIIIn Alfonso espainitarren lurraldea itzi eban, erregearen ondorezko agirietan ezeren uzte(2) egin-bage, eta Paris´era joan zan, gero Erromako Urian bizitza eroanda, il zan-arte.

Alkala-Zamora´tar Nizetok, erritarren ta orduan Sanjurjo´tar Josek bideratzen eban guardia zibillaren laguntza euki eban, eta gobernu bitartekoen Lendakari lez geratu zan.

Alkala-Zamoratar Nizeto ta Maura´tar Antoniok, ordu orreitan, gordetzailleen-aberats egoera baieztu egiten eban, beste era bateko politikagaz batera, euki eben bitarteko gobernu orretan.

1.931ko urtean Jorraillaren 15ean, San Sebastian edo Donostiko Ongundean erperatuta egoan, Errepublikaren bitarteko gobernu barri ori, egitamu bat aurkeztuta:

-Nekazarirentzat, berrizte bat aurkezten ebana.

-Erlijiozko sinismen eta gurketak, askatasunean izten ebazala.

-Ondasunaren Jabetzazko lege barriak, begitu egingo ebazala.

-Kaisar gobernuarekin laguntzaille lez, ibili ziranarekin begituko ebazala.

-Bakotzaren eta alkartasunezko erakundeetan, gero ta geiagoko askatasunetan, aurrera egitea, eta abar.

Alkala-Zamora´tar Nizetoren gobernu orrek, egikeraren agindutara aldatu zan orduan, aurre egin bear izan eutson Kataluñan aldarrikatu zan Katalanaren Errepublikeari, eta urte orren Loraillan, eleiz katolikuaren aurka urten eben alegiñari be. Bai ta, lege-etsaien(3) arazoari, lenengo ordutik aldarrikatu ebelako: "Eurak ez doiezala Errepublikarekin", beren aurka eginda, egiten ebazan alegiñ guztiak.

1.941eko urtearen Urtarrillan itzi ebazan XIIIn Alfonsok, bere erregetzaren titulu orreik, irugarren semeen alde.

1.941eko urtean Otsaillaren 28an Erroman il zan XIIIn Alfonso au.

(1) Celebraciones de la proclamación de la Segunda República Española en Barcelona. Extraído el año 1.931 de los archivos federales de Alemania. (2) Erregeen ondorengo Agiri´etan ezeren Uzte egin bage = sin hacer ninguna clase de abdicación en la carta de sucesiòn real. (3) Etsaien legea = leyes de los àcratas, anarquistas y libertarios.

2. 18. *Alcalá-Zamora´tar Nizeto 1931´ko urtean.*

Azaña´tar Manuel´ek bideratzen eban errepublikako gobernua, ezker aldera asi zan eritzitzen, 1.931ko urtean, idatzi ziran konstituzio barrietan, argi geratu zana. Ekaiñaren 28rako auteskunde barriak egiteko aginduz.

Bai gogortu be, eleiz katolikuaren aurka sartu ziran, Gordetzaille, Errepublikarrak, gizartekeriaren aldekoak edo sozialistak, ertzeko zaleak, eta abar.

1.931ko urtean Urrillaren 14an asken baten, Alala-Zamora´tar Nizeto eta Maura´k, utzi edo alde egin eben, gobernu ortatik.

2. 19. *Alkala-Zamora´tar Nizeto, IIn Errepublikako lendakari.*

Sozialistak eta Azaña´ren(1) aldekoak beldur, Alkala-Zamora´tar Nizetok Errepublikaren aurka, ikustaldi, edo bir-azterketa(2) bat egingo ba-eutson, edo ta aipu-galtze edo izen-galtze(3) alako bat egian, Errepublikaren lendakaritza agindu eutsoen berari.

Eta 1.931ko urtean Abenduaren 2an, Errepublikako lendakaritzarako autatu eben Alkala-Zamora´tar Nizeto´ren aurkezpen bakarrarekin, 1.931ko urtean Abenduaren 11n jantzi eben, Errepublikaren lendakaritzagaz.

Alkala-Zamoraren eritzian, berregintzaren(4) ostetik, Borboien aurka sortu ziran talde barri guztiak, espainitarren gobernuan euki egien ordezko ezar lekuak, egin ziran.

Zabaltasun onen egikera, goitik beragoko antolamenduzko agintaritza bat bear eban, legeak baldintza barri batzukin jantzita egon ziranak ostopo egiten, bakez kentzeko, edo alboratzeko Lege-Biltzarrean.

2. 20. *Azaña´tar Manuel´en arazoak.*

Orduko gobernuaren arremanak, gora bera andikoak ziran.

1.931ko urtean, Azaña´tar Manuel´ek, Alkala-Zamorari, idatzi ziran konstituziozko legeak, berak ontzat artuta baiezteko aurkeztu eutsozanean, izenpetu egiezan. Adibidez: Batzarraren Legeak baieztatzea; edo bere bardiña izan zana "ikasbideak erritarren artean ezartzea"(5); bai ta "konstituziozko legeak bermatu edo baikuntzatu egiten ebazan epaitegi edo Auzi-etxearen legeak"(6) baieztu egiazala eskatzen eutzan.

Alkala-Zamorak, nai ta ausartu ez arren, lege orreik ezerezean izten, ez eutson izenpetzeko baietzik askenerarte emon. Aurkariak, Alkala-Zamora´ri: "luzakari, iraunkor, edo ta alper lez" salatuta.

Geroago, eta gobernuaren berrikuntza bategaitik, eztabaidako ezberdintasun orreik agertu ziran ostera, eta Azaña´tar Manuel´ek bere gobernuaren kideakaz, uko egin eutson bere ardurazko jaurkintzari.

2. 21. *Espainitar konstituzioaren IIn Errepublikea.*

(1) Azaña´tar Manuel = 1.880ko urtean Henareseko Alkalan jaioa eta 1.940 urtean Frantziko lurraldearen Montauban´en ilda. Bera izan zan matxinatuen batzarrekotik Errepublikako mogimendua ibilten ipini ebena. (2) Errepublikaren aurka, ikustaldi edo bir-azterketetan asi dagian = miedo de los socialistas y Azañistas, a que Alkala-Zamora comenzase en plan revisionista contra la Repùbica. (3) Aipu galtze edo Izen galtze = campaña de desprestigio. (4) Beregintzaren ostetik = después de la restauración. (5) Ikasbideak erritarren artean ezartzea = secularizar la enseñanza. (6) Konstituziozko legeak bermatu edo baikuntzatu egiten ebazan Auzi-Etxearen legeak, baieztu egiazala eskatzen eutzan = que aprobase las leyes constitucionales que presentaba la Ley del Tribunal de garantias constitucionales.

Espainitar IIn Errepublikararte, eta baita gaur arte be, alperrik egin dira ainbeste jaurkintzazko ekintz, ta gobernu ezberdiñaren ikerketazko saio barri, demokraziaren antzeko bat lortu naian.

Ezinezkoa dalako: Zor-eskubideko ardura baten, Demokraziaren billa, ekanduz jokatzea bakeak lortzen. Egiaren ordez, ta inguru guztietatik josita, maltzur ta guzurraren ugaritzak, dan guztia, korapillotu egiten bada be.

Orregaitik, alperrezkoak dira, aurreruntz egiten diran alegiñ guzti orreik, demokraziaren ekanduz jokatzeko, beti zikintzen diralako, jaurkintzan bear diran, edo diteken aukera guztiak. Eta gudaloztearen indarrezko almen bakar bategaz bakarrik al izan dira edesti guztian, maltzur ta guzurrezko burdi ori, aurrera eroateko. Ez dira gai izan, egiz jokatzeko, eta gitziago, 325eko urtetik erperatuta daukaguzan oker guztiak, beren sorburutik egiztu edo garbitzeko. Eta deitu ba jakon IIn Errepublikea, 1.873-1.874ko urte bitartean, lenengoa egin zanetik, berezkatzeko da.

1.931ko urtean Jorraillaren 14tik, XIIIn Alfonsoren jaurbideak baztartuz, 1.939ko urtean Jorraillaren 1´erarte iraun eban, edo, erritarren arteko guda amaitu zan arte.

1.931ko urtearen Jorraillatik, Abenduaren 31ko egunerarte iraun eben, bein beiñeko edo bitarteko(1) gobernua, eta denbora orretan, 1.931ko konstituzioa baieztu zanetik, IIn errepublikako edestian sartzen gara, 1.931-1.936ko urte bitartean, "bakez" iraun ebena.

Iru ikerketagaz aztertzen dabe edestilariak, IIn Errepublikako aldi ori:

-Lenengoa, "1.931-1.933ko urte bitartean, Azaña´tar Manuelek, errepublikatar eta sozialistakaz jaurritu ebena, espainitar eritzizko aberri barri ori, zar-berritu gurean".

-Bigarrena: "1.933-1.935eko urte bitartean, ezker zaleen aldetik, bi-urteko jaurkintz baltz deituko zana. Lerroux´tar Alejandrok, bere errepublikar ertzeko alderdiagaz, Lege Biltzarretik, katoliko aberritar eskuma´koen aurka, CEDA´rengoagaitik(2) lagunduta egon ziranak, lenengo urte biko legeak, ezereztuten ibili ziralako.

Urte-bi onetan sortu zan, lege-bageko(3) ta sozialistaren garrantzi aundiko matxinada, Asturiaseko lurraldeetan. Erritarren matxinadan biurtu zana, eta gobernukoak, gudalozteen indarragaz bakeztu bear izan ebena.

Irugarrena: 1.936ko urtearen orokorrezko auteskundeagaitik ezker-zaleak, garaipen aundiak lortuz, marratuta dagoana, eta ortik aurrera "Erritarren-Aurrea edo ta Aurkaritza"(4) deituta, bost illabetetan bakarrik jaurkituko ebena, 1.936ko urtean Uztaillaren 17-18ko egun artean, gudaloztearen zati batzuk matxinatu zirelako, Mola, Franko, Keipo de Llano, Hitler, Mussolini ta abarren agindu ta laguntzagaz, espainitarren Erritar-Guda deituko zana, sortuz.

1.936-1.939ko urte bitartean iru jaurbide aldatu ziran:

-Leen, "Ezkertar-errepublikano Jiral ta Pereira´tar Josek(5), 1.936ko urtearen Uztaillatik, Iraillararte iraun ebena, eun-askoko mota ezberdiñaren batzarregaitik bideratuta egon zana,

-Bigarren, Largo ta Kaballero tar Franzizkok(6) "Orokorrezko Langilleen Batasunagaz"(7)

(1)Bein beiñeko gobernua, edo bitarteko gobernua = gobierno provisional. (2) CEDA = Confederación Española de Derechas Autònomas. (3) Legee-bageko = elemento sin ley, anarquista, libertario, o, àcrata. (4) Erritarren-Aurrea edo Aurkaritza = Frente Popular. (5) Josè Giral y Pereira = 1.879ko urtean Kuba´ko Santiagon jaioa, eta 1.962ko urtean Mexikon il. Madrilleko Ikastetxe Nagusiaren zuzendari izan zan. Lege-Biltzarreko diputadua. 1.931ko urtean Itsasoako ministrua. 1.936ko urtean Aolkularitzaren lendakaria eta 1:936ko urte orren iru illa betetan Gobernuaren lendakari, eta Errepublikako lendakaria gobernuaren atzerritasunean, ta abar (6) Largo ta Kaballero´tar Franzizko = 1.869ko urtean Madrillen jaioa, eta 1.946ko urtean Paris´en il zana. Presidente del partido Socialista Obrero. Secretario de la Uniòn General de Trabajadores. Entre los años 1.931-1.9 Ministro del trabajo durante la segunda Republica. Entre los años 1.936-1.937 ministro de la guerra. En 1939 se refugiò en Francia. Internado en Alemania por los soldados nacis, volviò a Francia en 1.945. Sus restos mortales fueron trasladados a Madrid en el año 1.978. (7) Orokorrezko Langilleen Batasunagaz = Uniòn General de Trabajadores U.G.T.


eta "Langitzazko Aberkideen Elkarteagaz"(1), matxintasuna sortu eben artean, bideratzen ebana.

Eta irugarren jaurbidea: Loraillaren ekitaldi ostean, Largo ta Kaballero´tar Franzizko jaurkintzatik kendu ebenean, Negrintar Juanek(2) bideratu ebena, arik ta 1.939ko epaillaren 28an, Kasado ta Lopez´tar Segismundo(3) koronelak, espainitar Laterrien aurka emon eban matxintasunagaz, Errepublikako gudariak etsaimendu ziran arte, urte ta egun onetan sinatu zana. Espainitar barri orren zuzentasuna ordutik aurrera, Franko izan da bideratu ebena, nausitzar edo jauntzar-aldiko jaurbidez.

Erepublikaren zuzendariak ortik aurrera, atzerrian iraun eben, errpublikaren ta erritar errepublikanuen arazoak konpontzeko. Bai ta Munduko bigarren guda nagusia asi zanetik, ia eltzen bazan aukera bat errira ostera etorteko. Gauzak baiña, alderantzizkoak biurtu ziran, eta euren bizitzazko arazoak, gogortu egin ziran ezin-besterarte.

2. 22. *1.931ko espainitar Konstituzioa.*

1.931ren espainitar konstituzioa, eta 1.931ko konstituzioan, erlijiozko eztabaidaren galdeketak.



Bigarren Errepublikako leen gobernua. Ezkerretik eskumara ezarrita dagozenak: Lerrux´tar Alejandro, Azaña´tar Manuel, eta Alkala Zamora´tar Nizeto. Gero ta lerrotasun barik: Albornoz´tar Albaro, Maura´tar Migel, Largo Kaballero´tar Franzizko, ETA Rios´tar Fernando.

IIn Errepublikako konstituzioaren ataria, gobernuko agiri baten.

(1) Langintzazko Aberkidearen Elkartasunagaz = Confederación Nacional del Trabajo (CNT). (2) Negrin´tar Juan, Madrilleko ikastetxe Nagusian , fisiolojia´ren maixua izanez gain, osagille ta politikua be izan zana = 1.891ko urtean Kanariaseko Palmatan jaio zana , eta 1.956ko urtean Parisen il. (3) Kasado ta Lopez´tar Segismundo = 1.893ko urtean eta Segobiako lurraldean, Nava de la Asunción erritxoan jaio zan, eta 1.968ko urtean, Madrillen il. Berak kendu eban Negrin bere jaurkintzazko lekutik.

Principios fundamentales de la Constitución de 1931:

-Principio de igualdad de los españoles ante la ley, al proclamar a España como «una república de trabajadores de toda clase».

-Principio de laicidad, por el que se iba más allá de la mera separación entre la Iglesia y el Estado para adentrarse en un ámbito de total eliminación de la religión de la vida política. Reconocimiento, asimismo, del matrimonio civil y el divorcio.

-El principio de elección y movilidad de todos los cargos públicos, incluido el jefe de Estado.

-El principio de unicameralidad, que suponía la eliminación de una segunda Cámara aristocrática o de estamentos privilegiados y por el cual el poder legislativo sería ejercido por una sola Cámara.

-Se preveía la posibilidad de la realización de una expropiación forzosa de cualquier tipo de propiedad, a cambio de una indemnización, para utilización social, así como la posibilidad de nacionalizar los servicios públicos.

-Amplia declaración de derechos y libertades. Concedía el voto desde los 23 años con sufragio universal (también femenino desde las elecciones de 1933).

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, Alkalaza Mora´tar Nizetok artu eban bitarteko gobernu orren jaurkintza, arik eta 1.931ko urtean Urrillaren 14an Nizetok ikusita, zelango eritzien ulermenagaz artu eben konstituziozko 26 atala espainitarren Laterrizko laikotasunean(1), gobernuari beren uztea aurkeztu arte(2), gobernuko gudal agintari nagusiak, Azaña´tar Manuelengaitik ordezkatu ebena.

1.931ko urtean Abenduaren 10ean, Alkala-Zamora´tar Nizeto urten eban aukeratuta egon ziran auteskunde bitartez, 410eko diputaduen kopurutik, 362 autarki Alkala Zamora´rentzat izan zirelako. Gobernuko diputaduen batzarrak 446 diputadu euki ebazan.

1.936ko urtean Jorraillaren 7rarte egon zan Alkala-Zamora, gobernuaren lege-etxeko agindutara, arik eta erritarren batzarrekuak(3), kendu eban arte, bat bakarrik egiteko almena eukin, eta bere agintasunean, bi bider ospatu ebazalako auteskunde orreik. Bere ordez Azaña´tar Manuel ipinita.

1.931ko urtean Bagillaren 28an araudi-batzarretarako(4) ospatu ziran auteskundeak, Abenduaren 9an ospatuko zan konstituziozko araudi legeen gora berak, baiezteko zan.

Errepublikako konstituzio orreik, aurrerakuntza aundia esangura eban, gizaren eskubide arloetan, espainitarren demokrazizko bidean, arautu bear ziran legeen antolaketarako.

Gizaren eskubide asko onartu ziralako ortik aurrera, adibidez: "Araudiaren 10eko kopurutik, 3 zati, giza bakotzaren eta erritar eskubidearen alde idatzi ziralako; 1.933ko urtean eta 23 urtetik gora euki ebezan erritar neska-mutilleentzat, zabaldu egin ziralako auteskundeen gora beran euki ebazan eskubideak, nai autesmeneko(5) ta aukeragaiezkoen(6) autarkiko arloetan, erritarrak, diputaduen gorte edo batzarra deitzen zan gela bateko lege-biltzarragaz(7) baliotuz.

(1) Laikotasuna = laicidad o, doctrina que defiende la independencia del hombre o de la sociedad, de toda influencia eclesiàstica, o religiosa. (2) Beren uztea aurkeztu arte = Presentar su dimisiòn. (3) Erritarren Batzarrekuak = frente popular. Bi bider, ospatu ebazalako auteskundeak. (4) Araudi Batzarretarako = elecciones constituyentes. (5) Autesnebeko bozka = voto activo, facultad de votar. (6) Aukeragarri edo Aukeragaiezko bozka edo autarkia = voto pasivo. (7) Gela bateko lege-biltzarrean = unicameral, o, parlamento que solo tiene una càmara.

Laterriaren lendakaria gaiñera, orokorrezko auteskundeetan aukeratzen ziran artekari edo antolatzailleak aukeratzen eban.

Argi ikusten da emen, ezerezko begirun barik, azturaz, lur ta Goiko Jaunari begira sortu ta jendekuntzatu egin ziran errien eskubideak, pikutara bota zirela. Egin zan aldaketa guztia, kaisar menperatzail Erroma-Godo´tar Katoliko aberkide menpean batzangotzeko bidez, eta Izadi au, mozkingintza lez artuz, bere emaitzak diruketetan biurtzeko.

Errez ikusi leike, leenengo denborakin betetan zirela bakarrik Jaungoikuak Izadi oneri ipinitako legeak.

Euskaldunen artean beintzak, ikusten dogun lez, edo ta Euskaldunakaz batera, beste berezko erriak bakarrik eldu zirela, "Izkuntzaren bidez", Euskal Nortasunaren egizko Baita´gaz Nor-izatera, bakotzaren bere izen-bereziakaz. Bai ta, arrigarrizko "Batzar demokratikoak" lortzen be.

Arik eta Eki-aldetik ariñago, ta Mendebal onetan erromatarretatik ta gero 325eko urtean Nizeako Erroma´tar-Godo-Kristau eleizaren batzarretatik, asmatu ziran maltzurkerizko guzurrak, eta dogma-arauz ziñeskintzatuta, katolikoen atsegiñezko aberri baratz edo ta parabisuan bizitzeko, diruaren arloak al-geien eukiten eban sebitzura ipinita, katolikotasunezko parabisu ori kontrolean eukiteko, eten bageko borrokan etorri garela gaur arte, Euskalerriko edesti onen zeazkuntzak erakusten dauan lez.

Zergaitik ?.

Ez garelako izan gai, Jaungoikuak Izadi oneri ipinitako legeak agirian ipinteko, eta geiago gure izan dogulako, geure legeak atara Jaungoikorenarekin ibili baiño.

Or agertzen jaku, Jaungoikua alboratzen dauan urrezko-tzekorra.

Jaungoikuaren Legeekin edestiko denbora guztiak, bardiñak dira, asieratik guk, bizitza onetarako daukaguzan aginduzko denborak amaitu arte.

Erreza da konturatzea, Izadi au, bere Sortzailleagaitik legeztuta egonda, guk, ez dogula ezeren almenik, lege barriak atarateko, Izadiak daukazenak betetea baiño, eta orregaitik dirala denbora guztiak bardiñak, gure zeregin guztietan egiten doguzenak, Izadiak daukan legeen ekanduz beteteko, demokraziaren ardurazko zor-eskubideen ordezkoak, bakez eta Jaungoikuaren Legeak agintzen dabezan erean beteteko.

Eginkizun orreitan ez zan bearko L.T.H.´rik, begirun aundiagaz begitu genduzelako, bakotzari, zor izan jakona.

2. 23. *Laterri barri orren itxurapenezko ikur edo irudiak*(1)

Errepublikako ikurriñaren more edo ubel(2) margoa, erritarren margoa izanez gain, liberalak ta aurrerakoiezko taldeak edestitik ekarten eben margo politikua da, eta 1.820-1.823ko iru urte arteko ezkeroztik geien, XVIn gizaldiko denboretatik, Austria´tar I Karlos kaisar katolikuen aurka matxinatu ziralako Gaztelarrak, ubel margo orregaz, Flandesetik ekarten ebazan gizonak, Gaztelatarrak alboratu ondore sartzen ebazako espainitarren gobernuan.

Orregaitik dator Gaztelako Komuneroen ubel margotik, euren ikurriñazko eragipenetik etorten dalako.

(1) Laterri barri orren itxurapenezko ikur edo irudiak = nueva simbologia del recien nacido estado Español. (2) More edo ubel margoa = el color morado de la bandera republicana.

1.931ko urtean Jorraillaren 12ko auteskundeetatik dana dala, erritarren artean, onartu zan margoa da.

Eta 1.931 Jorraillaren 27an, iru kolore "gorri, ori, ubel" margoakaz osotuta geratu zan Errepublikako ikurriñea, beste Laterri eskumatar menperatzailleetatik ezberdintzeko edo Berezkatzeko.

Ikurriñaren gora beraren eztaibadako bigarren lege-gaian: "ikurriñak, zut-oial, eta gud-oialarentzat" egon zan agindua, zear edo etzaneko(1) luzetan ta iru margoko itxuran egon bear zirala atonduta" esaten eban.

Goialdean gorria, erdi aldean oria eta be aldean, more edo ubel margoaz, erdiko ori margoan, espainitar armarria daukela(2).

1.869-1.870eko urte bitarteko errepublikaren gobernuak(3), atara ebazan bost peztako diru txanponetan, espainitar armarri ori atze aldean irarrita ekarten ebala.

Guzti au, 1.931ko konstituzioaren leenengo lege-gaian baieztu zan. Eta ubel margo ori Gaztelar Komunero matxinatuen oroimenez artuta, Errepublikaren ikur lez ipini zan.

Gobernuko agindu orretan, argitu egin zan, zelan Gaztelarrak, Aragoitarrai sartu eutsoela margo ori, eta "ikurriñori gaur tolestatu(4) egiten da, XIXn gizaldi erdian, espainitar aberriko ikurra lez artu zanen antzera.

Zer egin eben espainitarrak, maltzur ta guzurrezko ikurriñ ori aurrera eroateagaz ?.

Bakeak urrundu, gaur, ikur orregaz zer sortzen dan ikusita.

IIn Errepublikako ikurriñ orretatik, margo bi baieztuz gain, irugarren margo orrek esan gura dauana: Erdiugarte onek bere barne sakonean, Nortasunezko izatasunean daukazan ezberdineko arazoak konpontzeko, bera dala bakezko ikurra, bere demokrazi bidez, bakotzari berea emonda, ezberdintasunezko izatasun orreitan, konpondu leikezelako dagozan arazoak, bakotza NOR ta bere ARDURAKAZ bakez bizi izan, almenezkoa dalako danon artean, alkartasunezko antolamendu poli bat egitea.

1.820ko urterarte joan egin bear da, 1.934ko urtean peztaren 25 erleko txanponaren etorkizuna argitzeko, Riego jeneralak, San Juan´eko Buruetatik(5) Kadiz´eko konstituzioa aldarrikatu ebenean, VIIn Fernandori, iru urteko arnasa emon eutselako bere orokorrezko jaurkintzagaz aurrera egiteko.

Denbora auetan, Erdiugarte onetan, eta Omosapiensetik sortuta bizi ziran danoentzat, euskaldun, katalan eta gallegoen ezberdintasuna kontuan euki barik, aberriko gudalozteen serbitzua irasi eben, Gaztela ta Leoneko mora edo ubel margozko ikurrakaz. Denbora gitzi iraun ebena, urte orren barruan aldatu zalako gorri ori margora, erdiko ori margoan, konstituzioaren izen burua irarri eutsoelako.

1.823ko urtean eta Frantziren laguntzagaz VIIn Fernando ostera agertu zanean, kendu eban aberriko gudaloztearen serbitzu ori, lenauko orokorrezko legeak ostera ipinita.

1.843ko urtean Urrillaren 13an, IIn Isabel erregetzan egoala, bateratu zan leenengoz, espainitar laterriaren ikurra.

Gobernu orren aginduagaz, bateratu egin ebazan ikurrak, iru margotik gorri ta ori´ra, iru margoan euki zituzen guda-taldeko gudariai, iru margoko lepokoak(6) ipinten itzi eutselako,

(1)Zear edo etzaneko iru margo luzeetan egon bear zirala atonduta = que las tres bandas de distinto kolor, deben ser horizontales. (2) Erdiko ori margoan, espainitarren armarria daukela = en la mitad y sobre el color amarillo el escudo de España. (3) Bitartearen gobernuak = gobierno provisional. (4) Tolestatu = doblar, plega. (5) San Juan Buruetan = Cabezas de San Juan. (6) Iru margoko lepokoak ipinita ikurriñaren ertzetik= corbatas o cordones de tres colores colgando del extremo de la bandera nacional rojo-gualda-roja.

ikurriñaren kanpo aldeko ertzetik. Eta ori izan da aurrerakuntzazko etorkizunetik, agertu zan Errepublikako ikurriñean, iru margoen edestia.

1.868-1.871ko urtean, bitarteko gobernu orrek, IIn Isabel erbesteratu egin ebenetik, aldatu eben erregetzazko armarri ori, Koroia ormakoagaitik aldatuz, eta eskusoi edo atze aldean(1) Borboi ta Ajou´tar euki eben armarriaren ikurra kenduta.

2. 24. (33) *Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio.*

2. 25. (34) *Jose Antonioren leen urteak.*

1.904ko urtean Epaillaren 6an, Bilbaoko Zazpi kaleen erdian, Gurutze kaleko 4-6 zenbakietan, Joan Santuen eleiz ondoan jaio zan, gure Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, bateatu be, bertan egingo ebena.

1.960ko urtean Epaillaren 22an, Paris´en biotzeko miñagaz il zan, 56 urte eukezala.

Leen aztura edo ezkuntzazko ikasketak, Bilbaoko Enperantza Barrian egon zan, Euskal Erriko ikastolan bete ebazan.

Bigarren aztura edo ezkuntzazko ikasketak, Urduñako Josu-Lagunen ikastexean asi zituzen, eta amaitu ebazanean ikasketa orreik, Deustuko Ikastexe Nagusira joan zan, legeen zuzentasuna, edo, Lege-jakintzaren ikasketak osotzeko.

1.920ko urtean Jose Antoniok 16 urte eukezala, aita il jakon, eta bere senditasuna Algortara aldatu zen. Amar arreba-anai arterekin, bera zan nagusia, eta jabetzaren edo aitaren ardurazko ekintz orreitan emon eban, bere baitak emoten eutson zuzenezko aolku osoa, beste anai-arrebak adiñekoak izan arte.

1.921eko urtean E.A.J.eko erakundean sartu zan, E.G.I. gaztediaren lendakari izendatuta, gero zinegotzi ta alkatezko arduraduna izan da.

Zuzenbide edo Lege-Gizonen ikasketak amaitu ebazanean, bere senditasunak euki eben kokolo(2), izen bageko, edo izen-gordeko baltzua(3) zan, Bilbo´tar-Txokolategintzan asi zan, aolkularitzazko lanean. Bere jakintasun ta egilletasuna, argi ta garbi erakutsita.

Geroago, beste lau txokolategille bazkideekin alkartu, ta Bilbo´tar-Txokolategintza sortu eben: Zurikaldai´tar Martina; La Dulzura; Karakas; ta Agirretar Txokolategintzak alkartuz. Bakotzak %´etik, 25na garazkien agiriak euki zituzenak(4).

Agirre´tar Jose Antonio adiñetara eldu zanean, lantegiko aolkulari izendatu eben, eta bere anai Juan Mari, andik lau urtera. Lantegi orren zeregiñetan arduratu zan Jose Antonio une-oro, eta 1.933ko urtean eraginkortasunez eskua artu eban, lantegiak bear ebazan aldaketa teknikoetan lan egiteko aolkulari legez.

1.810-1.903ko urte bitartean bizi zan XIIIn Leon Aita Santuak, eta 1.891ko urtean Mundu osoaren gotzaiñarentzat bialtzeko, auek, Erri-Gizarte katoliko guztien artean zabaldu egien, atara eban "Rerum Novarun" eskutitza´ren(5) jarraille izan zan Jose Antonio, bere aolkuzko mezuagaz, berrikuntza oneik sartu gurean ibilita. Lantegi guztietan: osagille edo sendagille bat ipintea; Ordainduzko-Oporrak; Errigizarteen

(1) En castellano escusòn = Atze aldea edo ikurriñaren atze aldea. (2) Kokolo, kokote edo Bilbo´tar-Txokolategintzan = fàbrica de chocolaten Bilbqainos. (3) Izen-bageko edo izen-gordeko baltzua = Sociedad Anònima. (4) 25na Garazki agiriak = que cada uno de los cuatro socios tenia un 25% de las acciones del capital en bolsa. (5)Eskutitza = Enciclica.

langilleentzako Etxe-bizitzak; Lantokietako garazki-agirien(1) zati bat, langilleen artean banatzea, zar sariak ordaintzeko, diruen gordailluak irastea(2), ta abar.

Gudaritzaren "Larderialdia"(3) bete bear izan eban.

Eta gudari´ko denboraldi ori amaitu ondoren, bere zuzenketazko lanetan asi zan.

Esteban Bilbao´ren bulegoan asi zan laguntzaille lez. Eta beragaz iru urte egin ondoren, bere kabuz lan egiteko kezka edo griña sartu jakon, eta bere bulegoa Iturbide kaleko 2n zenbakian zabaldu eban, Berreteaga´tar Antonio bere lagunarekin batera.

Eta espainitar Ribera ta Primo´tar Migelen jauntzargopean egoala, lan ta politikako ardurakaz kezkatu(4) zan.

Agirre´tar Jose Antonio E.A.J.ko taldean sartu zanetik, argi erakutsi eban berak, eta alderdiko kideak ikusi be, euken abertzaletasunezko maitasunez gain, zelango eskua eukan, arlo orretan lan egiteko.

Asieran baiña, E.A.J.aren Alberdi bi joetara, jokatu bear izan eban: Aberri ta Euskal Abertzaletasunezko Elkartearen(5) artean.

Agirrek, ez eban on artzen jeltzalearen zatiketa bi orreik, Euskalerria egoalako danon gaiñetik, eta ama erriak, ez ebelako bear iñungo eritzizko zatiketarik, Aberria lortu gura ez-kero, edo berrezkuratzeko alegiñetan.

1.930eko urtean, joera edo eritzi bi orreik bat egin eben, aurrerako, zatiketa edo beste talde bat sortuz, Eusko Abertzal Ekintzaren izenagaz(6), katolikotasunezko kidetasunetik kanpo egon zana(7), gizartearen izaera sendikoa ta Errepublikaren zale izan zalako.

Agirre´tar Jose Antoniok bere barne edo baitan, E.A.J.ekoa senditzen zan, ta alan iraun eban bere bizitz osoan, Euzko Gaztediko kideentzat ta Euzkadi egunkarietan argitaratzeko idaz lan guztiak, berritzaille ta alkartzearen zale agertuz.

1.930eko urtean, Ribera ta Primo´tar Migelen nagusi-tzargo edo jauntzargoa amaitu zanean, ibili aldi politikoetan, bide barri asko zabaldu ziran Erdiugarte onen lurraldean, Jose Antonioren politikari, aukera berri asko ta garrantzitsuak ekarrita.

1.932ko urtean Getxon egin zan batzarrean, endakerizko zentzunetik kanpo agertu zan, bere askatasunaren demokrazizko eritziaren antzera, Euskal Erritik kanpo jaiotakoak, alderdian sartzea ikus-arazi edo eskaiñi(8) eban orduan.

2. 26. (35) *Jose Antonioren Bizitza, Errepublikako garaiarekin batera.*

Jose Antonio, Juan Mari anaiarekin, lantokiaren zuzendaria izan zan, lan-tokiko batzordearen langillekaz, adostasunezko arautegi bat ezarri ebenak, aolkularitzazko banakuntzaren aldetik onartu ebena, ta abar. Agirre´tar Jose Antoniok, bestelako aurrera pausoak emon ebazan lantegiak zuzendu edo kudeatzeko be, langilleak bide batez, artu egien, danon alegiñetik irabazten zan zatia.

(1) Lantokietako garazki-agirien zati bat langilleen artean banatzea = hacer partìcipes a los obrreros de una parte de las acciones de la empresa. (2) Diruen gordailluak irastea, zar zaritza ordaintzeko = crear depòsitos de dinero, para abonar el retiro de los obreros. (3) Espainitarren gudaritzazko larderia bete bear izan eban = que debiò de cumplir, la imposición de los españoles, a que los vascos cumplamos su servicio militar, bajo fuertes sanciones. Larderia = bramuras, bravatas, gallear, intimidar, sojuzgar, sufrir rigorez de esclavitud etc. (4) Politikako ardurakaz kezkatu = intranquilidad, preocupaciòn por las cuestiones politicas. (5) Alderdi bien joetara, jokatu bear izan ebala: "Aberri" ta Euskal Abertzaletasunezko Alkartearen artean = que tuvo que jugar a dos bandos: "Aberri", o su omònimo E.A.J. o PNV, y Comunión Nacionalista Vasca. (6) Ortik aurrera Eusko Abertzal Ekintzaren izenagaz, beste talde bat sortuz = que aunque se unieron Aberri y Comuniòn Nacionalista Vasca, surgiò otro partido con el nombre Acciòn Nacionalista Vasca. (7) Katolikotasunezko kidetasunetik kanpo egon zana = no confesional, o fuera de la influencia catòlica. (8) Euskal erritik kanpo jaiotakuak, Alderdian sartzea ikus-arazi edo eskaiñi eban antzera = como propuso en la junta, de que en el partido, tambien podian participar los nacidos fuera del pais.

Eusko Jaurlaritzaren lendakaria eta Euskalerriaren leenengo gobernuko babesaren Aolkularia, espainitarren gudan izango zan, aldi orretan, Euskal Gudarostea irasita, espainitarren Errepublikeaz batera borrokatzeko.

1.929ko urteen Denbora auetan, Bilbaoko Athletik Klub taldeko jokalaria be izan zan, bere zuzenbideko lanetan be asita.

1.930eko urtetan, Ribera ta Primo´tar Migel menperatzail edo kaisartzaille sutsuaren azkeneko denboratan, eta Bizkaiko Gazte Katolikoen aldetik, lendakari ibili ondoren, E.A.J.aren kide egin zan, Leizaola´tar Jesus Mari burukidearen eskutik.

1.930eko Urtarrillaren 28an, yeregi edo utziera egin eutson Ribera ta Primo´tar Migelek, euken jaurkintzazko adurari.

1.930eko urtean Otsaillaren 25ean, E.A.J. edo Eusko Alderdi Jeltzalea ta C.N.V. edo Euskal Abertzaletasun Alkarteen artean asten dira alkarrizketak, ostera lengo E.A.J.eko zentzunean batzeko.

1.930eko urtearen Jorraillan, Euskalerriko aberritarrak, Europako Aberritarren biltzarrean sartzea eskatzen dabe.

1.930eko urtean Bagillaren 1ean Donostin, "El Dia" aldizkaria asten da argitaratzen.

1.930ko urtean Bagillaren 15ean Bilbon, "Juventud Vasca" berriz zabaltzen dabe.

1.930eko urtean Bagillako 15ean, Ortuetak, Euskal Abertzaleen Alkartearekin kontrolatzen eban "Euzkadi" egunkariagaz, euskal erritarren arteko inkesta edo ikerraldi bat egitea erabagiten dabe, jakiteko, zeintzuk ziran euren borondatezko baitan, Euskal Aberritasunak euki ebazan akatsak, batzar bat orretarako irasita, oker orreik bereala konpontzeko.

1.930eko urtean Dagonillaren 17an, espainitarren aldeko IIn Errepublikaren alde egon ziran alderdi guztien baimenez, Donostiko ongundea izenpetzen da, batzar ortara, iñungo Euskal Aberkidetasunik egon bage.

1.930eko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, Eusko Ikaskuntzaren bostgarren biltzar nagusia egiten da, antzezko lanaren buruz, euskal erritar trebetasunak erakusteko.

1.930eko urtean Urrillaren 26an, Euzkadi aldizkariagaz egin zan ikerraldi edo inkestatik, 20 kideko batzordekoagaz aukeratu zana, Sabinoren eritziekin ez eben euki antzezkorik be. Aberritasunezko egitamuagaz bat onartu zana, ta egun berean, Euskal Abertzeletasunezko Alkarteak (C.N.V.) baztertu ebana.

1.930eko urtean Azillaren 16an Bergaran, Eusko Alderdi Jeltzalekoak eta Euskal Aberkide Elkartekoak (C.N.V) batzartzen dira, eta ostera talde biekaz bat egin ondoren, Eusko Alderdiaren Jeltzaletasunagaz egin eben aurrera.

1.930eko urtean Azillaren 30ean, ta Andres Deunaren egunean, "Eusko Abertzalezko Ekintza"ren alderdia sortzen dabe, Andres Deunaren agiria aldarrikatuta.

1.931ko urtearen Urtarrill-Jorraillezko ille artean, oso eztabaida gogorra sortu zan E.A.J.le ta Eusko Abertzaletasunaren Alkarte artean, Bilbaoko aldizkarien kontrola eukiteagaitik.

1.931ko urtean Jorraillaren 7an, E.A.J.eko kide batek, diruen garazkien-agiri batzuk ostu ebazalako, Euskal Aberkidetasun agerkaiak, E.A.J.leen eskuetan edo kontrolpean

(1) C.N.V = o, comuniòn nacionalista vasca. (2) Eusko Abertzaleen Ekintza = Acción Nacionalista Vasca. (A.N.V.)

geratzen dira.

1.931ko urtean Jorraillaren 13an, Udal auteskundeak egin ziran espainitar lurrean, Errepublikanoak irabazita, ta urrengo egunean Espainitar Errepublikea aldarrikatu.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an, Eibarko erria izango zan leenengo erria, IIn Errepublikako ikurriñea goratu ebena goizeko leen orduetan.

27 urte eukazan gure Agirre´tar Jose Antoniok auteskunde orreitan, eta autagai izateko aukeratu eban lez, Getxoko alkate izendatuta, erakundeetako ordezkari lez, jardunbide politikoaren bideakaz bete betean arduratu zan.

1.931ko urtean Jorraillaren 14an Eibarren, espainitarren Errepublikeari begituz, Euskadiko Errepublikea be aldarrikatu zan. Batera Euskal Errientzako autonomi edo askatasun geiago eskatuz, arrigarrizko alegiñak eginda.

Urte artatik, eta biotz guztiagaz egin ziran alegiñak, ez ziran izan naikoak gure Esukalerriko Askatasunaren elburua lortzeko.

Gaiñera, nai ta oldozmen bidez gauzak lortzeko almena erakutsi, edo ta aurkeztu ziran zentzun aundiko elkartasunak be, ez eben balio.

Eta antolamendu orretan joan zan Euskalerriko Alkateen mugimenduekin, Araudia(1) edo estatutoa eratzen.

Alkateen mogimendu orrek, Eusko Ikaskuntzari eskatu eutson, askatasunezko autonomi edo askatasunezko arauditasunaren egitamu edo zirriborro bat idatzi egien, Alkateen alkarte urak eta Euskaltzaindiak, ondo jakin ebelako lan orren ezean, egiten zan guztia, eremu baten ereitea lez izando zala, alperreko ekintza ori, Euskalerri osora zabalduz.

Eusko Ikaskuntzazko kide izan zan Landaburu´tar Franzizko Jabier´ek, Arabatarren izenean idatzi eban arauditasunezko montio ori, Euskalerriaren askatasunerako.

Eta ori billa, Alkatezko mogimenduen batzorde iraunkor bat irasi eben: Azpeitia, Laudio, Nafarroako Zangoza, ta Getxoko alkateagaz, Ego-Euskalerriaren guztira zabaltzeko asmotan.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio bera izan zan bat, eraginkortasun guztiekin lan egin ebena, Ego-Euskalerriaren askatasunezko araudi orren alde.

1.931ko Ekaiñaren 14an amaitu zan, Lizarrako Euskal Araudi orren aldeko ekintza.

Ego-Euskalerrien 427 Udalak egon ziran mogimendu orreitan, lau Uri buru nagusiak izan ezik.

1.931ko urtean ta Errepublikea agertu ondoren 27urte eukazala, Getxoko zinegotzi ta alkatea autu eben, orduko Udal-Auteskundeetan.

1.931ko urtean Ekaiñako 28an, espainitar gorte konstituzionalen buruz egin ziran auteskunde auek, eta Agirre, abertzal, karlista eta monarkikoakaz, danak Lizarrako euskal araudi edo estatutoaren aldekoak ziranakaz alkartuz, aurkeztu eben autagai zerrendagaz, Agirre bera, Bizkai ta Naparren aldetik, espainitar gorteetarako aldun diputadua izendatzen dabe, Madrillen, bere jakiturien ulertzagaz, laster erakutsita, berbetan eukan trebetasuna, Euskal Araudi edo Estatutuaren alde.

Bai ta lanean etenbageko egilletasun trebe ta garbia be. Gero 1.932ko urtean, ta 1.936ko urtean, Bizkaitik aldun diputadu izendatu ebena.

(1) Euskalerriko Araudia = estatuto de Guernica.

Agirre, Bizkai ta Nafarroako zerrendan joateagaz, bata edo besteari uko egin bear izan eutson, eta Nafar garaikoa eldu eban.

1.931eko urtean Iraillaren 22an, Lizarran onartu zan euskal Araudia edo Estatutoa, Euskalerriko 420 alkatearen babesean, Madrilleko gorteetan aurkeztu zan.

Ez eban sarrera edo artu onik euki espainitarren artean, euki ebazan baldintzaren artean, Batikanoren arremanetik, espainitarren Errepublikako gobernua, kanpoan geratzen zalako.

Konstituzioa idatzi ta onartzea izan zan, auteskunde onen ostean agertzen zan elburu nagusia.

Madrillen, egon ziran diputadueri, zeregiñ aundiak emon eutsoezelako, Lizarrako estatutoen egitamu asmo onek. Ontzat artu bazan be, aldaketak egin bear eutsoezelako.

1.932ko urtean Urtarrillaren 31n, Euskalerriko udaletxeak, euskal lau lurraldeko Uri nagusietan batzartuta, laurentzat araudi bakar bat sortu egien ald, aldarrikatu ziran.

1.932ko urtea eta urte onen Urtarrillaren 31ko egun onetan, espainitarren aldetik Josu Lagunak erbestu edo ezereztu orduko, E.A.J.ko elkartea, egin eutsoen omenaldira joan zan erakunde lez.

1.932ko urtean Epaillaren 19an, Mendigoixale astekariko albistearen leen zenbakia argitaratzen da.

1.932ko urtean Epaillaren 21ean, euskal kundeatzalle(1) arduradunak, Estatuto edo Euskal Araudiaren eredu edo egitamua argitu edo aldarrikatzen dabe.

1.932ko urtean Epaillaren 27an(2), Bilbaon ospatzen da leenengo Aberri Eguna, edo Euskal Aberkidetasunaren eguna.

1.932ko urtean Bagillaren 19an Iruñako Urian, kudeatzaille arduradunak egin eben estatuto edo Euskal Arauditasuna, Alkatearen batzarrean aurkezten dabe, euren eritzia emon egien.

Onartu zana: Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoako Alkatearen borondatean. Nafarroan baiña, baztartua izan zana karlisten autamen gutzigaitik, eta ostera batzartuz, onartu zan, Napartar Udaletxeen autamen batzuk aldatuz.

1.932ko urtean Bagillaren 22an, E.A.J.koak aurrera egiten dabe estatuto edo Euskal Araudiagaz, Araba, Bizkaia, ta Gipuztarrai dagokionagaz.

1.932ko urtean Bagillaren 29an, Europako aberri ezberdiñaren biltzar nagusia ospatu zan, ta bertan egon zan E.A.J.koak bialduta, Izaurieta'tar Jose Mari ordezkaria.

1.932ko urtean Uztaillaren 2an E.A.J.lekoak, Euskalerriko Aberkidetasunen gaiagaz, zabalkunde berezi bateri asiera emon eutson, Araba ta Nafarroako lurraldetatik, ia abertzaletasuna bizkortzen bazan.

1.932ko urtean Uztaillaren 17an, lliburu(3) bat zabaldu eben E.A.J.learen aurka, bere barruan: "Judaìsmo-Nacionalismo-Comunismo" ekarten ebena.

1.932ko urtearen Dagonillako illean Gernikan, Euskal Ikaslearen Biltzar Nagusia egiten dabe.

1.932ko urtean Dagonillaren 10ean Sebillan, Sanjurjok bideratzen eban eskumatar gudalariakaz, matxinada bat egiten dabe, Euskal abertzaleak guztiz aurka, urten da.

(1) Kundeatzaille arduradunak = los gestores responsables. Kudeatzaille = gestionador, negociador. (2) 1.932ko urtean Epaillaren 27an = Domingo de Resurrección, edo Berpiztueraren Domekea. (3) Lliburu = librito, libreta, librejo, folleto.

1.932ko urtean Iraillaren 9an, espainitarren gorteak, ontzat artzen dabe Kataluñako Araudia(1).

1.932ko urtean Iraillaren 14an, gizartekeri edo sozialismuagaz lotuta egon ziran gazteak, Bilboko "Juventud Vasca"ren bizi edo ta jolas tokian sartu ziran, eta aurkitu eben guztia, ankaz gora ipini ondoren, bertoko gazte abertzaleak espetxeratu ebazan.

1.932ko urtean Iraillaren 15ean Donostin, Kataluñako Araudia izenpetzen dabe.

1.932ko urtean Iraillaren 17an, Bilboko "Juventd Vasca"ren tokia, sozialistak eraso edo oldartu egin eben ostean, sozialistak zigortu barik, Euskal gazte abertzaleak baitu ebazan espainitar arduradunak, oneik beste gazte abertzaleen laguntasunagaz, leenengo gose-greba eginda.

1.932ko urtean Iraillaren 17an, leenengo Euskal Abertzaleen astekari "Jagi-Jagi" agertu zan.

1.933ko urtean Urtarrillaren 29an Tolosan, E.A.J.aren Batzar Nagusia ospatu zan, berton, Alderdiaren zeregiña berritu, ta antolakuntza barri baten egokitzeko.

1.933ko urtean Jorraillaren 16an Donostin, "Euzkadi Europa"ren izen buruagaz, bigarren "Aberri Eguna" ospatzen da, jende samalda edo askorekin.

1.933ko urtean Jorraillako 23an Euskal-Iparrean, abertzaletasunezko leen mugialdi izango zan "Euskualerri-Zaleen Biltzarra" irasi eben, Euskal Iparreko aberkideak.

1.933ko urtean Jorraillaren 29an Gazteizen, ELA/STV´ek(2), bere IIn Biltzar Nagusia ospatzen dau, Arabar sindikatuko edo Elkartasunezkoak euki eben izena "Sindicato de Trabajadores Vascos" izenagaitik aldatuz.

Batera, Utretx´en ospatzen zan "Confederación Sindical e Internacional Cristiana"n sartzea eskatuz.

1.933ko urtean Loraillaren 1ean, ELA´ren Biltzar Nagusia amaitu zan, Robles´tar Manuel aukeratuta, Elkartearen lendakari lez.

1.933ko urtean Uztaillaren 8an ezkondu zan gure Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, bere emazte, Aketxe ta Zabala´tar Mari Karmen´ekin, Begoñako eleiz nagusian.

Urte onetan eta politika arloan, uko egin bear izan eutson Getxoko alkatetzari, Euskal Araudi edo estatutoaren aldeko diputadu lanak artu bear izan ebazalako.

1.933ko urtean Uztaillaren 13an, Bizkaiko erki-jaurlari edo espainitar ordezko agintariak, E.A.J.eko B.B.B. atxilotzea aginduten dau, politikan egon zan nekaitzezko oldarkeri edo bortiztasunezko denboraleagaitik, abertzaletasunaren aurka.

1.933ko urtean Uztaillaren 25ean eta IIn Errepublikako denboran, Euskaldun, Katalan, eta Galleguak, "Konpostelako Ongundea" izenpetu eben, eurak bereztu ziran sorterriko aberrietan, buru-jabetasunagaz jaurkitzeko(3). Bertan, "Galeuzka" alkarteari asiera emonda.

1.933ko urtean Dagonillaren 6an, egitamu barri bat artu bear izan eban, Nafarroako aldia kanporatu ebena, eta iru Lurraldeetan egin zan erreferenduan amaitu zan ekintza ori. Autarki geiena Euskal aldera lortuz.

Gazteizen, Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoako Udal ordearen batzar bat sortu eben, Kudeatzailleak egin bear izan ebezan Euskal Araudien antolamenduak baieztatzeko.

(1) Kataluñako Araudia = estatuto Catalàn. (2) E.L.A./S.O.V. = Eusko Langillen Alkartasuna/Solidaridad de los Trabajadores Vascos. 1.933ko urtean E.L.A./S.T.V.´gaitik aldatu zana. (3) Euren Buru-Jabetasunagaz Jaurkitzeko = Para gobernar ellos, como les corresponde autonómicamente.

1.933ko Azillaren 5ean erri-autarkian(1) ta abailgarri(2), Gipuzkoa ta Bizkaian, Euskal Araudia onartzen da, nai ta Araban, ez ainbeste berotasunezko-gogoarekin, ostera, karlisten aurkaritzagaitik.

1.933ko urtean Azillaren 19an, gorteetako auteskundeak ospatzen dira, espainitar lurraldeetan, eskuintarrak irabazita.

E.A.J.leak baiña, bere garaipen aundiena lortu eban auteskunde onetan Araba, Bizkaia, ta Gipuzkoan, 459.000 autarki euki ebazalako beren alde, 14.000 autarkien aurka, nai ta Araban, %´etik 50 lortu ez, Euskadin alderdi aundienetan biurtuz gain, agiri erdiak baiño geiago, beraganatu ebazalako. Agirre, E.A.J.aren zerrendan aurkeztu zen.

Nai ta Errepublikako gorteen ezereztasuna, auteskundeak ospatzeko, eta ertzezko gobernuaren zalantzagaz, bai ta karlisten aurkaritzarekin, Araba Euskadiko araudi edo Estatutoan sartzeagaitik, lagundu ebela estatuto ori inguratzen, guda asita egoan 1.936ko urtean Urrillaren 1terarte.

1.933ko urtean Abenduaren 21n, espainitar gorteetan aurkezten da Euskal Araudia, eta eurak eskubitar geiago eukinda, atzera botaten dabe, gure eskubideko jaurkintza.

1.934ko urtean Jorraillaren 1ean Gazteiz´en, irugarren Aberri Eguna ospatzen da.

1.934ko urtean Jorraillaren 5ean, espainitar gorteak, atzera bota ebezan E.A.J.leak aurkeztu eutsoezan asmoak, Araba, Euskal Araudietan beste lurraldeakaz bat agertu zedin, eta orrarte nekagarri ibili ba ziran alegiñ orreik, Lege-Biltzarreko legegintz-aldia amaitu arte iraun ebezan.

1.934ko urtean Loraillaren 5ean, "Jagi Jagi" astekaria agertzen da, bere bigarren aldia asita, nai bigarren aldi au E.A.J.learen antolamenduzko kanpotik ibili arren.

1.934ko urtean Loraillaren 6an Donostin, eta Euskaltzaleagaitik eraginda, leenengo "Euskal Antzerki Eguna" ospatzen da.

1.934ko urtean Loraillaren 25ean, larritasun edo gaitz-aldi gogorrak egon ziran Nafarroaren E.A.J.leko batzarrean, Doxandabarantz´tar Jesus lendakaria, bere aginduteko arduratik kanpora bialtzeko, Aberriko Batzarretatik be, kanpo geratu zana.

1.934ko urtean Bagillako 9an Konstituziozko Baikuntzaren Auzitegiak, bere indarren gaieztasuna edo bere indargabetasuna agertu eban, Kataluñako Lege-Biltzarrean, erritarren eskubideko legeak epaitu edo erabakitzekotan.

Eta 1.934ko urtean Bagillaren 12an espainitarren Lege Biltzarretik, asarre aldendu ziran, E.A.J.eko ta Z.E.ER.ko(3) euskal katalanen txiker taldeak, Konstituziozko Auzitegiak Bagillaren 9an, Baikuntzaren azalkerak argitaratu ebazanagaitik.

1.934ko urtean Uztaillaren 5ean Bilbon, Batzartu egin ziran Euskalerriko Udalaren arduradunak, Madrilleko espanitar gortekoak, eurekaz antolatu ziran zergak, itunez kanpo batu gura ebazalako. Euskalerriko lurraldeetan, bein-beiñeko edo bitarteko batzar bat eraikitea erabagita, arik eta orokorrezko batzar bat lortu arte, gure "Itunpeko-Ordainketa"(4) orreik, babesteko.

1.934ko urtean Dagonillaren 12an, espainitarren indarrak Euskalerriko Udaletxeak artuz, zerga gora beran batzorde orreik, itunpeko erabagi barik ez ebelako gura ezer

(1) Erri autarkian = en plebiscito. (2) Eta abailgarri = y de forma abrumadora. (3) Z.E.Err. = Katalan Ezkertien Errepublikea. (4)Itunpeko ordainketa orreik babesteko = en defensa de nuestros conciertos econòmicos.

egin, ainbat alkate ta zinegotzi baitu ta espetxeratu ebazan.

1.934ko urtean Dagonillako 26an Gazteizen, Eusko-Ikasleen IIIn Batzar Nagusia ospatu zan.

1.934ko urtean Iraillaren 2an Zumarragan, eta espainitarren erriko indarkeriagaz erasotuta, Lege-Biltzarreko ta Udaleko arduradunakaz osotuz, orokorrezko batzar bat egin eben, eta batzar ori amaitu ondoren, danoen ardurak bertan iztea erabagi zan.

1.934ko urtean Iraillaren 7an, ezkertiar eta abertzaletasunezko udalak, danoen yeregi edo utziera aurkeztu eben, ain gogorra izan zalako espainitarrek erabilten eban aurkako erri-indarra, Udaletxeko mogimenduaren aurka.

1.934ko urtean Urrillaren 5ean, espainitar Laterri osoan azten da, aste oso baten iraungo eban matxintasuneko gose greba aundi bat, Euskadin, Bizkaia ta Gipuzkoaren lantegiko langilleak, onartu ebena. E.A.J.le ta E.L.A.tasunezko arduradunak, ez ziranak joan mogimendu orregaz, nai ta erabagi orregaz be, espainitar jaurkintzaren aldeko zigorrak bardin artu.

1.934ko urtean Azillaren 6an, E.A.J.learen diputaduak, ostera joan ziran gorteetako batzarretara, Urrillaren 1ean Lerroux´tar Alejandro(1), Zedaren ertzeko jaurkintzazko lendakariari, euren baietzezko autarkia emoteko(2).

1.935eko urtean Bagillaren 30eko egunean Iruñan, laugarren Euskal Aberri Eguna ospatzen da, espainitar gobernuak aste bi ariñago, debekatuta euki eben gaiñetik.

1.935eko urtean Dagonillaren 4an Leioako Ondiz´en, eta E.L.A./S.T.V.en kabuz, kidetasun edo Lankidetasunezko 1´nengo eguna ospatzen da.

1.935eko urte onetan jaioko zan Jose Antonio ta Zabala´tar Mari Karmen´en leen alaba Aintzane. Eta Urte onetan argitaratu eban: "Entre la Libertad y la Revoluciòn". Bai ta "La verdad de un Lustro en el Pais Vasco".

1.935ko urtean Azillaren 3an, Euskalerriaren Mendigoizal Aberritarren Elkartze edo Bateratzearen Arautegia onartzen da.

1.935eko urtean Abenduaren 5ean espainitar gorteetan, eztabaida oso gogorra sortu eben E.A.J.aren diputaduak, Kalbo Sotelokin.

1.936ko urtean Urtarrillako 26an, E.A.J.leko ordezkari batzuk, Erromako Aita Santu Katolikuarengana joan ziran, eta ez eutsoen onartu bakarrik egin, ateak be, ez eutsolako zabaldu, ta atezain egon zanak, atzetik eta maltzurtasunez, bide okerretik dabiltzela esan.

Argi da, 325eko urtean Nizean artu zan erabagitzetik, XIn Pio Aita Santua, Franko, Adolf Hitler, Mussolini ta Europaren fazizta talde gogorrenakaz batera ibili zala, fazizten gurutzada sakratuzko ekintz amorratu orretan. Mundu osoaren giza, katoliko sinismenean biurtuta, agintaritzape bakar, ta gogor baten menpe, batzangotzeko.

1.936ko urtean Otsaillaren 16an, Laterriaren orokorrezko auteskundeak ospatzen dira, autarki geiena, ezkerraldeko erritarrak eroan ebena, gero erritar-aurkaritz baten alkartzeko.

(1) Lerroux´tar Alejandro lege-Gizona = 1.843ko urtean, Kordobako Las Ramblasetan jaioa, eta 1.949ko urtean Madrillen il. 1.901eko urtetik, ainbat bide izan zan diputadu. 1.926ko urtean eta Alonso ta Salmeron´tar Nikolasegaz batera, "Errepublikako Batasuna", "Ertzeko Alderdia", ta "Errepublikearen Alkartasuna" irasi ebazan. "El Pais" aldizkaria bideratu eban, eta "Matxintasunezk" aldizkaria irasi. 1.930eko urtean matxintasunezko batzarraren kide izan zan. 1.931ko urtean, Laterriko ministrua, egon zan bitarteko gobernuan. Eta 1.933-1.934ko urtetan, lau biderrez leen ministrua Aolkularitzazko ministerioan. 1.936ko urtean, Franko sartu zanean Erdiugarte onetan bere gudalozteakaz, Portugalera atzerriratu zan 1.947ko urtean ostera etorriarte. (2) Zedan ertzeko jaurkintzari euren baietzezko autarkia emoteko = para darle el voto a gobiernos parecidos al de la CEDA española, la agrupaciòn de Derechas Autònomas, creada en Madrid el año de 1.933, por la fusiòn de acciòn popular y la derecha regional Valenciana, cuyo màximo dirigente fuè J. Mª Gil-Robles, de ideología Catòlico conservadora.

1.936ko urtean Epaillaren 1ean, Laterriaren orokorrezko auteskundeen bigarren aldia ospatzen da, eta espainitarren artean antzeko emaitza lortu ondoren, E.A.J.leak, obetu eban leenengo auteskundearen autarkia.

1.936ko urtean Jorraillaren 7an, E.A.J.leko diputaduak, Alkala Zamora espainitar Errepublikako lendakaritzatik kalera botateko, autarkia emon eban.

1.936ko urtean Jorraillaren 15ean, euskal diputadu batzuk, espainitarren lege Biltzarrean aurkezten dabe, Euskalerriko errien autarki bidez(1) onartuko zan sort-arau edo estatutoaren egitarauzko zirriborroa.

1.936ko urtean Jorraillaren 16an, espainitarren gorteetan, estatutoaren edo araudien batzar barri bat irasten dabe, eta ostera zabaltzen da Euskal araudi edo estatutoaren aurkibidea, Araba sartuta alkarrizketa orreitan. Eta bide auek zabalduz, zelan E.A.J.eko arduradunak, "Erritar-Aukaritza"ren(2) ondora aurreratu egiten da, Euskal Araudi edo Estatutoa onartu edo baiezteko.

1.936ko urtean Loraillaren 10ean, E.A.J.leko arduradunak, Azaña'tar Manuel'en alde emon eban euren autarkia, Errepublikako lendakaria izan zedin.

1.936ko urtean Loraillaren 12an, espainitar gobernuaren Lege Biltzarrak, onartu eban 1.933ko urtean Euskaldunak, errien-autarki bidez, Araba, Euskal lurralde bezela, Euskal estatuto edo araudipean ezartzea.



1.936ko urtean Urrillaren 7an, Agirre ta Lekube'tar Jose Antonio, Euskadiko lendakari lez zin egiten. 1.960ko urtean bera il arte izango zana.

1.936ko urtean Uztaillaren 17an, Afrikatik asten da gudalarien matxintasuna,

(1) Euskalerriko autarki bidez = plebistizado por el pueblo. (2) Erritar aurkaritza = frente popular.

espainitarren erri autarkiagaz, aukeratutako IIn Errepublikaren aurka.

Eta 1.936ko urtean Uztaillaren 18ko eguna aurrerantza doiela, Erdiugarte onen gudaltegi batzuk, asten dira matxinatzen.

1.936ko urtean Uztaillaren 19ko egunean, E.B.B.rraren eritzizko aldetik, Euzkadi aldizkarian egertzen da adierazpen edo aldarrikapen bat, eurak, matxinatuko gudalarien aurka agertuz, eta IIn Errepublikako gobernuagaz egon zirala esaten.

1.936ko urtean Uztaillaren 22ko egunean Frankistak, Otxadio´ren aurka egiten dabe leenengo bonbaketa, nai ta Otxandion, ezeren gudalozteko tresneri, ez gudaririk egon. Erritarren aurka egin ebelako, egin eben guztia.

1.934ko urtean Dagonillaren 8an, Euskal arduradunak, "Eusko Gudarostea" sortzen dabe, Azpeitiko Loyolaren Santutegiko Jesusen Apaiz-gudari etxetik, Euskalerriaren E.A.J.leko mutil ta eldu, bai ta zale guztiari deituta, Euskal-Gudarozte ori irasteko.

1.936ko urte erdirantza, Afrikako militarrak Franko, Mola ta Keipo de Llano Jeneralak buru zirela, Errepublikaren aurka matxinatzen asteko zurmurruak, gero ta aundiagoak ziran.

1.936ko urtean Dagonillaren 12an Bilbon, batzar bat irasten da, Bizkaiko lurraldea babesteko.

1.936ko Iraillaren 5ean Frankoren fazizta gudalozteak, Irungo Uria artzen dabe, IIn Errepublikeagaz egon ziran euskal erriak, inguratuz itzita.

1.936ko urtean Iraillaren 13an, Frankoren matxin zaleak, Donostin sartu, ta artu egiten dabe Uria.

1.936ko urtean Iraillaren 26an, Irujo ta Ollo´tar Manuel biurtu zan egun onetan, E.A.J.leko garrantzi aundieneko kidetasunean, Largo Kaballerok osotuko eban espainitarren gobernuan, zuzentasunezko ministrua izendatu ebalako.

2. 27. (36) Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio eta Euskadiren bitarteko Jaurkintza IIn Errepublika denboran.

1.936ko urtean Urrillaren 1ean, onartzen dabe espainitar Lege Biltzarrekoak, Euskalerriaren autonomi, Euskal Araudi, edo ta estatutoa.

Eta espainitar Lege Biltzar orreitan, Prietro´tar Indalezio leendakari lez eta Agirre´tar Jose Antonio idazkari izanda, Frankoren gudalozteak oraindiño, menperatu ez eben Euskadiko Udalaren ordezkoakin, Agirre´tar Jose Antonio aukeratu eben, Euskadiko lendakari izan zedin.

1.936ko urtean Urrillako 6an, Azaña´tar Manuel espainitarren IIn Errepublikako lendakariak, Euskal Estatutoa onartzen eban agiria izenpetu eban, 1.936ko urtean Iraillaren 26an, Irujo ta Ollo´tar Manuel Largo Kaballerok osotuko eban espainitarren gobernuan, zuzentasunezko ministrua lez izendatzeko onartu zalako.

1.936ko Urriaren 7an egin ziran auteskundeak Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako zinegotziakaz, Eusko Jaurlaritzaren lendakaria aukeratzeko, eta Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio aukeratu eben lendakari izan zedin, 32 urte eukezala.

1.936ko urtean Urrillaren 7ko arratsaldea zan, orduko Araba, Gipuzkoa ta Nafarroa, Franko faziztaren etsaipean egonda, bai ta Bizkaitarrai zemaika egon zirala, Euskal

gudarozteak Bizkai´ko muga mugetan, eta Euskalerrien ordezkariak Gernikan, Euskaldunentzat gure betiko agurgarrizko Uri Sakratuan batuta, Bizkaitar Lurraldeko Jaurlariaren begipean, Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, Zugatz sainduaren kerizpean apal eta Zutunik: Euzko lege ta ekanduak osorik, eta zintzoro jagongo ebazala, zinez itz emon eban, berba onekaz:

"Yangoikua´ren aurrian apalik,
Euzko lurganian zutunik,
Asaben gomutaz,
Gernika´ko Zuaizpian,
Neure agindua ondo betetzia
Zin dagit"(1).

Agirrek, taldeen gobernu edo talde guztien jaurkintz oso bat sortu eban, berton Eusko Abertzale, Gizarteko edo Sozialistak, Komunistak, eta Errepublikako aldetik egon ziran taldeekaz osotuta. Euren artean, naibage edo asarre naikoakin iraun ebena illabete batzuetan, arik eta Bilbo jausi zan arte.

1.936ko urtean, Euskal Jaurlaritzaren leen sailburuak.

-Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio.....= Lendakaria, ta Guda babeserako Aolkulari nagusia, E.A.J.eko aldetik.

-Leizaola´tar Jose Mari.....= Lendakari ordea, zuzen-zaiña(2), eta Jendekuntzazko arduraduna, E.A.J.leko aldetik.

-Monzon´tar Telesforo.....= Errizaintza, E.A.J.leko aldetik.

-De la Torre´tar Eliodoro.....= Ogasuna(3), E.A.J.ko aldetik.

-Aznar´tar Santiago.....= Lanbidea, PSOEn aldetik.

-De los Toyos´tar Juan.....= Lana´ren Aolkularia, ta Aurre Ikuspen, Emangarri edo Komunikazioa, PSOE´ren aldetik. 1.943ko urtean utzi eutson ardura orreri.

-Grazia´tar Juan.....= Errigizarteko Laguntzaren Aolkulari, PSOE´en aldetik. 1.941eko urtean il zan.

-Aldasoro´tar Ramon Maria .....= Merkataritza ta Ornikuntzaren(4) Aolkularitza, Errepublikako Ezker aldetik.

-Astigarribia´tar Juan.....= Erri Lanen Aolkulari, EPKA-PCE´en aldetik. 1.937ko urtean itzi eutson lan oneri.

-Espinosa´tar Alfredo.....= Osasuna(5), Errepublikako Batasunaren aldetik. 1.937ko urtean, Frankistak tiros il ebena.

-Nardiz´tar Gonzalo.....= Nekazaritza ta Arrantzaren Aolkularia, Euskal Abertzale Ekintza´ren aldetik (A.N.V.)(6).

Jaurkintza onen elburua, beti izan da "JAUNGOIKUA eta LAGI-ZARRA". Bai ta Euskalerriarena be. Jaungoiko ta Lege Zarragaz egin gendulako gure

(1)"Humilde ante Dios,/ en piè sobre la Tierra Vasca, / en recuerdo de los antepasados, / bajo el Árbol de Guernica, / ante los representantes del pueblo juro desempeñar fielmente mi cargo". (2) Zuzen zaiña = justicia. (3) Ogasuna = diruen arduraduna (ministro de hacienda). (4) Merkataritza edo ta ornikuntza = ministerio de comercio y abastecimiento. (5) Espinosa´tar Alfredo = sanidad-unión Republicana, Fusilado por Franco en 1.937. (6) Euskal Abertzale Ekintza = Acción Nacionalista Vasca.

aztura guztia, ainbeste milla urtetan.

Orregaitik emen, itaun gogor bat agertzen jaku: "Zergaitik beti, GOIKO-JAUN Sortzaillea aipatzen dogu, kristau katoliku aberkideen gaiñetik ?.

Sasi-jainko menperatzailletatik urruntzeko ?.

Euskaldunak uste dot nik, beti jakin dogula, katoliko asmo orreitan egon dala, sasijainkoaren Urrezko Txekor ori, Nizeako katolikotasun ori 325eko urtean sortu orduko, milla urte asko aurretik euki dogulako benetako JAUNGOIKUAGAZ artu-emon berezia, eta gure baitazko sinismenetik ez dalako agertzen ta gitziago sinisten menperatzail ekintzarik, or agertzen dalako berez, katolikotasunen kaisar menpetza.

Olantzek aukeratu eben Agirre´tar Jose Antonio Lendakari, Gernikako Euskal Lege Biltzarraren etxe sainduan, E.A.J.lekoak, Zuzenbide(1), Babesaren zuzentasuna(2), Jendekuntz(3), Jaurkintza ta Diru Zaiñen arloak eroan dagiezan.

Beste arloak, Errien Aurkaritasuna(4), Sozialistak, Errepublikako Ezker aldekoak, Euskal Abertzaletasunen Ekintzakoak(5), ta Komunisten Alderdikoak eroan ebezanak, Z.N.T.koak(6) izan ezik, E.A.J.ekoak kanpoan itzi ebazalako.

Alegiñ onetan, guda izanda ardura aundikoena, Jose Antoniok eroan eban ardurazko lan geiena. Eta bereala igarri zan Agirre´ren lana, euskal gudaloztearen zeregiñak tinkotu edo gogortu egin ziralako, 1.937ko urtearen Epailleraiño.

1.936ko urtearen Urrillatik 1.937ko urtearen Bagillaraiño, Agirre´ren jaurkintzak ezerezetik asita, edestian idatziz ta zuzenean aipatuz, dana izatera aldatu zalako Aberri lez.

Euskadi, leenengoz aipatzen ebelako Aberrien artean, Nortasunezkoa lez, nai ta Milla urte askoko edestitik, katolikotasunaren inguruko faziztak, edestiaren 1.693ko urte asken onetan, gura ez izan arren.

1.936ko urtean Urrillako 13an, katolikotasunezko gurutzadaren faziztak, Mujika´tar Mateo Gazteizko gotzaiña erbestera bialdu ondoren, au Erromara joaten da.

1.936ko urtean Urrillaren 19an eta Eusko Jaurlaritzak onartu ondoren, "IKurriña ta Euskadiko armarriak" artzen dira agintari danez(7).

1.936ko urtean Urrillaren 26an, Eusko Jaurlaritzaren agiri baten bidez, Euskadiko lurraldean egon ziran gudalozte guztiak, Euskal Jaurlaritzaren Babespeko agindupean geratu zitezen, agindu eban Agirrek.

1.936ko urtean Azillaren 7an, Euskal Ikastetxe Nagusia irasi zan.

1.936ko urtean Azillaren 30ean, Euskal gudalozteak, Billarreal asten dira erasotzen, odol jariozko borroka zital baten ostean, porrot egin ebana.

1.937ko urtean Epaillaren 31n asi ziran Euskalerriren aurkako erasoak Frankoren egazkiñ bidez,

Goering Alemanak be, berari egin eutsoen Nuremberg´eko epaiketetan, ezeren eragozpen barik esanda: "Euskadi, frogapeneko saio-aldi bat izan zala eurentzat", gero Munduko bigarren gudan, eurak ezeren arazo barik ibilteko, erasozko gauza orreitan ikasi ebezanak.

(1) Zuzenbide = Justicia. (2) Babesaren Zuzentasuna = defensa. (3) Jendekuntz = cultura. (4) Errien Aurkaritasuna = frente popular. (5) Euskal Abertzaletasunaren Ekintzak = Acciòn Nacionalista Vasca. (6) Z.N.T. = C.N.T. (7) Como consta en el "Diario Oficial de Pais Vasco". Bilbao 1.936-1.937.

1.937ko urtearen Loraillarte egon ziran Euskalerriko 40.000 gudariak, Jose Antonioren agindupean, 90 batalloietan bananduta. 100.000raiño eldu ziranak.

Dirua, ta muga-txartelak atara ebazan, bai ta gudarako Auzi-etxe, Lurraldeko Erritar Auzitegiaren laguntzagaz, zuzenbideak antolatu, ta parkamen arloak ugarituz batera, Ikastetxe Nagusiak be zabaldu(1) ebazan.

Eta Irun jausi zanean, gure euskal gobernu barriak Frantziagaz, ez ebalako euki artu-emonik, ta Eusko Jaurlaritza bakar bakarrik egoan lez, espainitar Errepublikako beste erri guztietatik, Eusko Gudarozte, eta Eusko Itsas-gudarozte bat be irasi bear izan ebazan, Mola general faziztaren gudalozteari aurre egiteko.

Oso esagunak dira, Agirre´tar Jose Antoniok, Prieto´tar Indalecio ta Azaña´tar Manuel´eri egin eutsoezan etsimenduzko(2) deiak, egazkiñ ta kañoiak bialtzeko. Ezeren erantzun barik geratuta.

Euskal Abertzaleakaz egindako Eusko Gudaroztearen batalloi taldeak, ez ziran nastu, beste alderdien elkarte edo sindicato ta soldauzkarekin, Agirre´tar Jose Antonioren, zuzenezko agintaritzapean egon ziralako, gizarte edo erriaren bakeak sendotu ta aurrera egiteko bear ziran antolakuntzak prestuteko. Eta orduan egon ziran guardia-zibillak ta erasoko-guardiak antolatu ziran bezela, Ertzañako beste zain talde bat be sortu zan, nai bere sorreran, "Euskadiko Guda Zaintza"ren(3) izena euki .

A ta guzti, Euskalerria ez zan gai, espainitar gudalozteai, eta gitziago Alemanaren egazkiñai aurre egiteko.

Eta nai ta laguntza eskatzen ibili arren Europa guztitik, Katoliotasun fazizteak Europa ta Mundu onetako gordetzaille fazizta katolikuakaz antolatu ondoren, erabagita euki ebelako berezko errieri, Nortasunezko askatasunik ez emoten, alan agertu zalako, Munduko IIn Guda Nagusia amaitu zanean, nai ta 1.946ko urtean, Munduko gizaren eskubideak babestu egin bear zirela, izenpetu arren.

1.937ko urtean Loraillaren 22an, Sabino´ren illobiko lurrak kenduz, bere ezurtz ondarrak Sukarrietatik kenduta, Portugaletera lenengo eta gero, Txepetx itsasontzian Baionara eroan ebazan.

1.937ko urtearen Bagillan, Euskadik egindako Burdiñezko Gerrikoa apurtzen dabe Frankoren gudalozteak. Beren egille izan zan Goikoetxea´tar Alejandrok, saldukeria edo salatu ondoren, nundik apurtu Leiken burdiñezko gerriko ori.

Eta Agirrek ille orreitan, nai ta bere jaurkintza Kataluñara eroateko ibili, bertotik borrokan iraunteko, Truzioz´era eroaten dau bere jaurlaritza, Santanderrerantza joan orduko. Bbien bitartez Ajuriagerra´tar Juanek italiar gudalozteakaz Santoñan ongunde bat egin, Eusko gudarozteak eurei etsaimendetzeko. Frankok ez ebena onartu.

1.937ko urtean Bagillaren 19an eta Durango ta Gernika jausi ondoren, Bilbon sartu ziran Frankoren gudalozteak, eta Uztaillaren amaieran, Ego-Euskalerriko lurralde guztiak, Frankok ekarri ebazan gudaloztepean geratu ziran, Agirre Parisera aldatuz. Eta Dagonillan Agirre, Bartzelonan kokatzen da.

Franko Bilbon sartu ta lau egun barru, espainitarrak guri len, gudalozteen indarrean zerga-diruen gora beran galazota, Bizkai ta Giputzak euki gendun ongundea(4) zerga

(1) Ikastetxe Nagusiak zabaldu = apertura de las Universidades. (2) Etsimenduzko deiak = llamadas de desesperaciòn. (3) Euskadiko Guda Zaiña = Policia Militar de Euskadi, fuè el primer nombre que tuvo la Ertzaintza. (4) Euskal Giputz ta Bizkaitarrak, espainitarrakaz euki gendun ongundea = pacto con los españoles, respecto al concierto econòmico.

diru orreik batzeko, kendu euskun zigor lez, Frankoren aurka borrokatu gintzazalako.

Nai ta Arabatarren zerga-diruen ongundea(1) ta Nafartarrakaz euki eben egiune edo kidetasuna(2) baieztu.

Zer uste ote eban Franko orrek, bai ta bere sinesbidetik gaur dabizenentzat ?. Euren alperkeri, ezerezkeria edo ezdeuskeria guk bete egin bear dogula, gurentzat, mesede aundi edo eskubide berezia izandako lez ?. Nortzuk ote dira, urrezko-txekorraren sasijainko orreik ?.

Ez gara euskaldunak iñoren, menpe, etsaimende, joputza, edo joputzazko alegiñetan ibili leikezanak, bakotzak iñoren lepotik ibili barik, bereak ordaindu ta artu egin bear dabezalako. Eta ori da Ikasi bear dabena Munduko katoliko fazizta aberkide orreik,

Jaungoikuaren aurrera, billuzik eta EKANDUZ zer egin doguzan gauzakin, aurkeztu bear garelako.

Orregaitik, guzurraren asmatzailleentzat, buruz bera ibiltea bardiña da, eta alan daukagu Mundu au, Jaungoikuak ipinitako Legeen aurka gabiltzalako. Ekanduz: "Ezin dalako, oker aundiagoagaz ibili".

Ego-Euskalerriko aurkaritza amaitu zanean, euskaldunak Santoña inguruan batu ziran, eta Aita Santik esaten eban lez: "agertu ziran Italiarrai etsaimenduta, auek, ez ebela ezeren eragozpenik euki, berton giltzari inguru-erdi emonda, danak morroilope edo giltzapekoetan biurtzeko(3).

Bitartean Euskal milizianoak, sozialistak ta lege-bagekoak edo anarkistak, Santander ta Asturiasetik, 1.937ko urtearen Urrirarte, borrokan ekin eutsoen.



Agirre´tar Jose Antonio bere lendakaritzazko bulegoan, Paris´eko Merzeau kaleko 11n zenbakian dagoana.

(1) Arabatarren zerga-diruen ongundea = concierto econòmico con los alaveses. (2) Nafarroagaz euki eben egiune edo kidetasuna = convenio de Nafarroa. (3) Italiarrak, danak morroilope edo giltzapeak biurtzeko. = que los italianos no tuvieron màs difilcutad, que dar una vuelta a la llave para convertir a todos en prisioneros.

1.937ko urtean Bagillaren 24an, eta Espinosa´tar Alfredo egazkiñez Toulusetik Santanderrera etorrela, egazkiñaren kapitaiñak saldukeria egin eutson ta Frankoren eskuetan itzi ebanen orduan, egun onetan tiros il eben 33urte eukezala.

1.937ko urtean Bagillaren 24an Ajuriagerra´tar Juanek, Italiar Manzini Jeneralari etsaimendu eutsoezan Euskal gudalozteak izkillu, ta guda tresneri guztieakaz, danon bizitza lotsean artu egien armamentu orren truke.

Italiarrak ez eben bete ziñatu eben ongunde ori, eta Jaurlaritzaren etzerritasuna beartuz, Agirrek, alde egin bear izan eban Santaderretik Miarritzerantza Negus egazkiñean, beragaz Monzon ta de la Torre´tar Eliodoro joanda.

1.937ko urterarte Bilbaoko Txokolatearen izenbageko baltzu(1) lantegia, bigarrena izan zan, Erdiugarte onen Txokolatezko lantegi artean.

Eta Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, futbolari izanez gain, futbolaren Euskal Aberritarren artean Bereiztutakoen sustatzaille aundiena(2) izan zan, bere Euskal gobernuen kideakaz batera, gudako aurreen beartasunerako egin zana, Europa, Rusia, ta Ameriketa guztitik dantzaldiko abestiekaz batera jokatuz, dirua batzen ibili ziranak umeen babeserako.

Espainitarren gudan sartuta egon zirala Agirre´tar Jose Antoniok, Euskal Gudarostearen buruzagitza artu eban bere gain, eta Euskal Araudia edo Estatutoaren askatasun, edo ta Araba, Gipuzkoa ta Bizkaiaren autonomiak emoten eutsoezan ardurapean egon zan, bere agintaritza guztian.

Eta gudaren porrota ostean, atzerritasunezko bidea artu bear izan eban, eukezan lendakarien ardureagaz aurrera egiteko, Paris´eko Marzeau´ko kalean, 11n zenbakian.



Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio Eusko Jaurlaritzaren lendakari.

(1) Txokolatearen izenbageko baltzu = Sociedad Anònima de la empresa Chocolates Bilbainos (Txokolates Txobil). (2) Euskal Aberritarren artean bereiztatukoen Sustatzaille aundiena izan zan = que Agirre fuè el mayor atizador. Cabecilla o fan de la selección de EUZKADI de futbol.

Bigarren Munduko guda amaitu zanean, Amerikarrak, uko egin eutsoen, erdiugarte onen zentzuzko demokraziari, bai ta Mundu onen bereztasunezkoakaz euki ebazan zorrai be, nai ta Truman´ek ao zabalik aldarrikatu, Mundu onen giza eskubideak ortik aurrera, gizadiak eukazan eskubideekaz arduratu bear giñela, esan arren.

Eta dan guztia, Franko faziztak, Amerikarrakin egin eban ongunde bitartez, auek Errusiagaz euki eben guda otsagaz, euren guda-egazkiñak ta guda Ontziak, Rotan eta Torrejon´en kokatzeko.

Frankoren nausitzargo edo jauntzargopean geratu arren, Agirrek orrez gain, Europako batasunaren sortzailleen urbil egonez, Europako erriak batzeko asierazko oldozmenetan be egon zan, kristautasunezko demokrazia sortzen be laguntzeko, eta Europako aundien artean kide izanda, ardura aundiko esku artu eban.

Juaristi´tar Patxi Gizarte-Izti´ak(1) beragaitik esaten dau:

Gaur egun arte iraun dauan mirespena ta begirunea, Agirre ta Lekube´tar Jose Antonioren buruz, aurkari politikoen artean, berak adostasunaren alkarrizketak eragiteko, euki eben trebetasun berezia izan da. Mundu osoarekin, alkartasunaren jardule(2) zalako, ta kristau ta abertzaletasunaren zentzunezko buru bidetik, gizarte naiz jendekuntzazko(3) arloetan, aurrerakoiezko ta egizko asmo ederrak bultzatu ebazalako.

2. 28. (37) *Euskalerriko Jaurkintzaren, atzerri-aldia.*

Franko´k, Euskalerria menperatu ebanean, Eusko Jaurlaritzaren arduradun batzuk Bartzelonara joan ziran, Kataluñako Jeneralitat eta Konpanys´en Lendakaritzapean, atzerritarrezko gobernu bat irasteko.

Guda bitartean eta Errepublikarrak euren espainitar batu zaletasunagaz, Eusko Jaurlaritzari ez eutzelako jaramonik egiten, bai ta armamentuaren gora beran be, ez eutselako laguntzarik emoten, espainitar Errepublikarrak, urrundu egin ziran Eusko Jaurlaritzatik.

1.939ko urtearen lenengoetan, Bartzelona ta Errepublikako gudalozteak, Frankoren gudaloztepean geratu ondoren, Agirre Lendakaria, bere Jaurkintzaren arduradunakaz, atzerrira joan zan, Benezuelaren diplomazizko lagun bidez, Euskal jaurkintza aurrera eroateko, 1.960ko urtean, Agirre il zan arte iraun ebana.

Jose Antonio erbezteratu egin zanetik, buru belarri egin eban lan, Euskalerri ta Mundu osoaren askatasunezko eskubideen alde, Paris´eko Marzeauko kalean 11n zenbakitik.

Egitamu nagusi bi´en alde, borrokatu egin bear izan eban leen Jose Antoniok: millaka atzerritu ziran beartasunaren alde, eta Estatu Batu kideekaz, auek, Frankoren aurka borrokatuko ziran itxaropenean. Eta bear al eban guztia egin eban, Europaren Berezko erriaren alde, Europatar Berezkoaren Erri-demokratikoak, barriz sortu egiezen.

1.939ko urtean Alemanak, Polonia artu ebenean guda indarrez, eta Erresuma(4)

(1) Juaristi´tar Patxi Gizarte-Iztiak = Patxi Juaristi el Sociòlogo, suele decir por èl. (2) Jardule zalako = actuante, ejercitador. (3) Gizarte naiz Jendekuntzazko arloetan = social o kultural. Jendekuntzazko = kultural. (4) Errasuma edo Erresuma = Reino, monarquia. vàstago que dan los àrboles desde el piè o la raiz. Puntal de las bandas del tejado, tornapunta. Hueco entre las vigas de la techunbre.

Batuak Frantziagaz batera, Alemaniari guda azaleratu edo agertu egin eutsoenean, asi zan, Munduko IIn Guda Nagusia.

1.940 urterarte iraungo eban Jose Antoniok, Pariseko gobernuagaz, ortik aurrera ieslari ibili bear izan ebalako.

1.940ko urtearen Loraillan, Alemanak Frantzia erasotu ebenean, Agirre, Beljikako La Panne erritxoan egoan, bere arreba Enkarna ta Asporosa´tar Zesareo´agaz(1).

Agirre´tar Jose Antonio, La Panne´ko erritik, Bruselasera joan zan, eta an alemanetatik ostentzeko edo izkutatzeko lekurik ez, eta ieskari ibili bear izan eban Aleman naziengandik.

Alako baten eta Frantzian egoala, Kataluñako Orokorraren lendakari izan zan Konpanis´tar Luis baitu, edo atrapau eben Aleman naziak, eta Frankori bialduta, onek bereala Montjuïk´eko mendian fusilatu edo tiros il eban. Une orretan Jose Antonio bera be, Franko Jeneralaren eriotzezko zigor-pean egon zala.

Bruselasen Jose Antoniok, Franzizko Jabier Josu lagunen ikastetxean artu eban babesa, andik Su-gurdian Amberesera joateko.

Amberesen, Panamako Guardia Jaen Kontsularen laguntza euki eban, onek, Albarez Lastra´tar Jose Andres Panama lege-gizon aberatsaren izenpeko ibil-bide edo muga-txartela emon eutson, kaletik agiri orregaz ibilteko.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, Ameriketara joan gura eban leen bait leen. Baiña, itxaron bear izan eban.

Jestapok, bere anaia atxilotu eban Anberesen.

Alemanak, Frantziko lurraldea menperatu ebenean, Agirretar Jose Antonio, beartuta agertu zan Beljika ta Berliñen ostonduta ibilten, arik eta muga-txartel bat aurkeztuarte, Alemaniako lurraldetik urteteko.

1.940ko urtean Uztaillaren 11n, bien bitartean Londresetik ostonduta ibili zan Ollo ta Irujo´tar Manuel´ek, Euskalerriko Abertzaletasunaren ardurak artu ebazan, Euskadiko Aberritasunaren Aolkularitza(2) irasita. 1.936ko urtean Errepublikako gorteetan, egin zan Askatasunezko Euskal Arauditasuna, guztiz baztertu ondoren.

Irujo bere aldetik, Ingalaterrako lurraldetik ostonduta ibili zan, de Gaulle´en laguntza topetan. Bera bitartean asmatzen egonda Euskalerriko Errepublikearen egitaraua onartu egien, eta IIn Munduko guda amaitzen zanean, alkartutako gudariak irabasita, gure Euskalerri maite au, "Aberri" lez ezagun ezartzeko, Europa ta Mundu onen mapa edo mapagintza guztietan agertu zedin.

Eta 1.941eko urtean ustekabe baten, nazi´en Uri buruko Berliñera joatea erabagi eban, eta an egon zan bizitzen lau illabetetan, Reitx´eko kantzelaritzatik(3) urbil. Bere Senidetasuna, Lobainan egon eban, denbora orreitan.

Alan, 1.941eko urtean Loraillaren 17an, Euskal Aberritarren Aolkularitza(CNE), Frantziaren Askatasunezko Aolkularitzarekin, ongunde bat sinatu eban, euskal gudarien talde bat, euren gudarako agintariekaz, Askatasunezko Frantzitarrakin alkartuko zirela, nai ta 1.942ko urtearen Loraillan, Ingelesaren zirikitasunezko premiñakaz de Gaulle´ri, ongunde ori apurtzera beartu.

(1) Asporosa´tar Zesareo au, Alemaniaren bonbaketetan ilten ikusi ebena. (2) Euskadiko Aberritasunaren Aolkularitza sortu eban = creando el Consejo Nacional de Euskadi (CNE). (3) Reitx´eko Kantzilleritzatik urbil = que viviò cerca de la Cancilleria del IIIr Reich.

Ingelesaren gobernuak, ez eutson Irujo'ren Euskal Aberritasunari ezerezetan lagundu bakarrik, Europako kaisar-menperatzaille katolikoen artean, ta gertaera onetan, Ingelesak Frankogaz euki eben bakezko itzarmena, apurtzen zalako aitzakiz.

Beste aldetik Ingeles orreik, alegin bizi biziak ipini ebazalako atzerritar guztiko aldizkarietan agertu zedin: Euskalerrientzat izan zan Askatasunezko montio orrek, Hitler'en laguntza euki ebala, esaten. Bai ta, Euskal Askatasunezko egitarau edo montio orren zirri-borroak(1), atzerrituta egon ziran Errepublikako espainitar guztien artean, aserraldi gogorrak sortu ebazanak.

1.941eko urtean Loraillaren 20an, bera ta bere sinideentzat Suediar baimena(2) artu ta 1.941eko urtean Loraillaren 23an Suesiaruntz joan ziran itsasontzi batean, eta Trelleborg'era eldu ziranean Goteborg'erako bidea artu eben.

1.941eko urtean Uztaillaren 31n, ez zan erreza Rio de Janeiroko txartela lortzen, eta Basholm merkantil ontzia artu, ta Amerikaruntz urten eban.

1.941eko urtean Dagonillaren 27an, Brasil'dik Uruguaira joan zan, eta Agirre'tar Jose Antonio oraindiño bere guzurrezko izen abizenakaz ta Eusko Jaurlaritzaren izenean Aize Onetako(3) Rio de Janeirora eldu zanean, an illabete batzuk eginda Brasil, Uruguay ta Benezuelako ingurutan, beste mugi aldi bat agertu jakon.

Ameriketako Estatu Batuak Munduko IIn Guda nagusian sartu ziranean, Jose Antonio Aize Onetatik New Yorkera joan zan, eta berton onartuta, bere euskal politika ta benetako izen abizenakaz, Kolunbiako Ikastetxe Nagusian, irakasleen lanak egin ebazan, gure Euskalerriaren edestia ta bere jendekuntzazko arlo zabalak erakutsi edo irakatsiagaz, argitzeko. 1.946ko urterarte iraun ebena.

2. 29. (38). *Oar txiki bat emen.*

Argi ikusten da emen, Ingeles orreik, bai ta gaurkoak be, eta Europa ta Ameriketako kolonizatzaille Erromatar-Godo-Merkantil-katolikoen gurutzada sakratuagaz dabizenak orain be(4), jakin bearko leukiela: "Mundu onetara, ez garela agertzen dirua irabaztera, gure artean aundiak izateko". "Gure bizitzako ekintzak, Izadiak daukazan Goiko-Jainkoen Legeakaz, Ekanduzko adostasunean eragitea baiño". Ori bakarrik geratzen dalako agirian, danon Baitak, alegintzen dauskunagaitik.

2. 30. (39). *Ostera, Euskalerriko Jaurkintzaren, atzerri-aldiari ebatuz.*

1.941eko urtearen azkenetan Agirre'tar Jose Antonio, Arjentinara eldu zanean, eta Euskalerriko Abertzaletasuna bere agindura ostera artu ebanean, almen bage edo ezerezean itzi ebazan, Irujok, Ingelesen artean ibilten eban askatasunezko alegiñak, eta ortik aurrera E.A.J.koak, Frankoren aurkako edozein erakundeetan sartzeko, oneik, Euskalerriaren Askatasunezko eskubideak onartu bear izan ebazan.

1.942ko urtean, auek ziran Agirre'tar Jose Antonio'ren elburuak: Eusko Jaurlaritza

(1) Euskal Aberritasunaren Aolkularitza = Euskal Askatasunezko egitarau edo montio orren zirri-borroa = pasando a la vez a toda la prensa Americana y Europea, el borrador del proyecto, o borrador del programa donde se exponia el artikulado de la repatriaciòn o nacionalizaciòn de Euskadi. (2) Suesiar baimena = Bisa o bisado para circular par Suecia. (3) Aize Onetako = Buenos Aires. (4) Gaur egun Ingelesari ikusten jekien lez, euren Kaisar Aundiaren kanpo, ez dabelako ezeren demokrazirik gura.

ostera berrezkuratzea; ta gudarako alkartuta edo batera joan ziran erriekin euki ebazan arremanak, sendotzea.

1.942ko Loraillean, "De Guernika a Nueva York pasando por Berlin" argitaratu eban Jose Antoniok bere liburu ederra, gero "Historia del pais vasco" idazten asi zan, baiña ez zana amaitu, nai ta 520 orri alderaiño iraun, bere idaz-gailluakin idatzita.

1.942ko Uda azkenetan, Ego Ameriketatik zear ibili zan, eta Euskal bizi toki ugari ikuskatuz, danetan orduko Euskadi ta georoko Euskadiren gora beran itzaldi asko emon ebazan. Erriarteko bazter guztietara eroan gura izan ebena, Euskaldunen aotsa entzun egien.

Orrela, 1.943ko urtean Azillaren 20an, Mexikon irasi zan "Espainitar Askatasunezko Elkartea(1) (J.E.L)", E.A.J.lekoak ez ziran egon, Euskadiren berezko eskubiderik, ez zalako onartu.

Aste gitxi barru, E.A.J.lekoak, agertu eben azalpen edo adierazte bat JEL´aren(2) aurka, E.A.J.ekoak, Eusko Abertzaletasunaren Ekintzazkoak(3), Lurraldeko Alkartekoak, eta eurak izena ipinitako Sozialistaren batzordekoak(4), izenpetu ebena.

Euskalerriko agintariak erbestean, urrun egon ziran, euren eskubideko eskaerak lortzeko.

Euskaldun indarrakin IIn Munduko guda onetan, Frankoren aurka egiteko, Ameriketako FBI´gaz artu emon sakonak euki bagenduzan be, Estatu Batuetako erritarrakaz ez gindezan asarratu, gure taldeetatik euki genduzan komunistak be kanporatu genduzan.

A ta guzti, Estatu Batuaren jaurkintzazko agintari orreik Otzezko-Guda orretan, Errusiaren aurka egiteko, Franko eurentzat, onuratsuago zala ikusi eban.

1.945eko urtean Kaliforniako San Franzizkon, Estatu Batuak sortzeko leen batzarrean be egon zan, Jose Antonio, berezko Erriartean eta Munduko IIn gudarako Erri-Batuakaz, itxaropen aundiak euki ebazalako.

Agirre´tar Jose Antonio lendakariak, New York eta Paris´eko Jaurlaritzaren, leentasunezko jomuga edo elburu bat euki eban, atzerrian bizi ziran euskaldunak, bein eta berriz ikusita, Ameriketako lurraldearen errialde guztietan egon ziran euskaldunak sakabanaturik, mugi-aldian ipinteagaz, eurak antolatzeko bear ebazan ekintza guztietan.

Baikor beti, berak be gogoan agertu edo bete ezin ebazan elburu guztientzat, esaldi ospatsu bat euki ebalako: "Datorren urtean, Etxera".

1.946ko urtean, Frantziko Parisera joan zan, Eusko Jaurlaritza ostera berrezkuratuz.

Agirre Franzian egoala, Kristau-Demokraziaren eritzizkoa zan "Euskal lagunaren Erriarteko Elkartasuna" sortzen be, eskua artu eban, ia 50.000 kide izatera eldu zan erakundeak, euren artean Berdier´tar Jean, Paris´eko artx-apezpiku ta Griffin´tar kardinalak, bai ta Mauriak´tar François, ta Maritain´tar Jakkes politikari bezelakoak, bai idazle, antzelari, jakin-zale ta abar.

Haya´ko batzarrean be egon zan, Europako buruzagi edo aintzindariak, Europa alkartu(5) ta batu bat eraikitekoen antolakuntzan egon zirela.

(1) Espainitar Askatasunezko Elkartea = (JEL) edo Junta Española de Liberaciòn. (2) JEL = Junta Española de Liberaciòn. (3) Euskao Abertzaletasunaren Ekintzazkoak = Acciòn Nacionalista Vasca. (4) Euskadiko Sozialistaren Batzordekoak = comitè socialista de Euskadi. (5) Europa alkartu ta batu bat eraikiteko = que tomò parte en el congreso de la Haya, donde se decidia la construcciòn de una Europa unida federalmente.

1.947 ta 1.951ko urteetan, Agirren gobernuak, Euskalerrian sortu ziran, orokorrezko ta langilleen samaldako grebak, antolatu ebazan.

1.949ko urtean, Jose Antonioren laguna zan De Gasperi´tar Alzide, ta Winston Txurtxill´ekin, au Bruselaseko Europar batzar orretan mai buru zala, Agirrek, oorezko lendakari orde lez, esku artu eban.

1.951ko urte ostean eta langille greba orreik ikusita, Frantziko gobernuak, Paris´en Marzeau´ko etorbidean 11ko zenbakiagaz egon zan euskal gobernuaren egoitza ertsi edo itxi eban, bere giltzak, Franko kaisar faziztaren ordezkoariai emonda.

Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio lendakariak denbora oneitan, antolakuntz barri bat gura eban Europako Lurralde onentzat, berak, bizitzaren zuzentasuna, bake, igaropen, ta baikortzan oiñarrituta egon bear zana, eta olan jaio zan aurrerako Europaren, Kristau Demokrazia, gaur egun, "Mundu au Nizeatik, Katolikotasunezko Aberritar Gordetzaille ta Batu zale Faziztaren eskuetan dagoena.

1.954ko urtean, Frantziako Mitterrand´tar François barruko ministruak, Euskadiko Irratiaren zeregiñak debekatzen dauz.

Eusko Jaurlaritza bere atzerritasunean, urrun aurkezten zan, bere aberritasunezko eskubideak lortzeko. Batikanoren katolikotasunezko aberritasunekin, gordetzaille fazizta oneik Europaren diru edo merkantil kontuetan alkartuta egonez gain, bizitzeko gauza guzti oneik kontrolpean eukinda aurrera egiteko, katoliko gordetzaille oneik, erabagi gogorrenean euki ebazalako kaisar egitarau orreik. Eta bardin izan zan, gure, askatasunezko demokraziren itxaropenean, F.B.I eta zentzunezko antz eukiten eban gauza guztietan sartuta egon arren.

Arik eta guzurrezko mozorroaren arpegikoa kendu, ta guzurrezko Laterri-Aberrien erabagiak artu arte, gaur Europan daukaguzan guzurrezko Laterri(1) zikiñ onekaz. Jaungoikuak Izadi onetan Berezkatu Ebazan Lege guztiaren aurka. Munduko gauza guztiak ankaz gora ipinteko gaur lez.

1.955eko urtean guzurra biribiltzeko, katoliko aberritar ta gurutzadazko frankista menperatzaill zale oneik "Estatu Batuen Antolakuntzan" sartu ebazanean, an ondatu ebezan gure gobernuaren zeregin guztiak, "LAPUR BIURTU EBELAKO EUROPA", bai ta Mundu osoaren ekintza.

Euskaldunok "Estatu Batuetako Antolakuntza" orretan euki gendun ordezkari bakarra, Amurrioko Galindez´tar Jesus gizon aundia izan zan(2), arik eta 1.956ko? urtean, Trujillok il eban arte.

1.955eko urtean Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio, ostera joan zan Ameriketako euskaldunak ikustera, euskal indarrezko gogo ta kemenak ostera biztuteko.

1.956ko urtean Iraillaren 23tik aurrera, Urrillaren 1eraiño, Jose Antonio ta bere kideen gogoak beteteko, Euskalerria berezko erri guztien artean, ezagun izen dagian, "Leen Euskal Mundko Batzar Nagusia" egin eben "Palais D´Orsaben"ean.

Jose Antonio lendakariak, leenengo ekintzatan berbea artu ebenean, Euskal Jaurlaritzaren 20 urteakaz mintzatu zan, 1 bere lur maite onetan, eta beste 19 urteak, atzerrian egin ebazanagaitik.

(1) Laterri = Estados Europeos. (2) Galindo´tar Jesus = 1.915eko urtean Amurrion jaio zana, eta 1.956ko urtean ?, Trujillo ta Molina´tar Leonodas Rafael, 1.930urtetatik 1.961eko urterarte Dominikako errepublikaren kaiserra zanak, itsasontzi baten galdarean erreta il ebana. que circundaba la política..


Euskaldunak euki zituzen akats, garaipen eta porrotak argitzeko azaldu ebazan berbak onartu ziran, bai ta gogorrena: Franko bere katolikotasunaren aberrikuntzazko menperatzailletasunagaz, "Errien-Arteko Antolakuntzan" sartzeko, baimena emon eutsonean. Ortik aurrera Jose Antonio, ikasia, galendua, ta guztiz etsipenduta(1) bizi zan.

Batzar Nagusi orretan, euskal alderdi politiku, langilleen elkartasunak, ta Jendekuntzazko arloen ordezkariak baztartu ondoren, lau gaiaren inguruan antolatu zan Batzar Nagusi ori: Politikaz, Gizarte ta diruen buruzpideagaz, Jendekuntzagaz, eta Aisialdiagaz(2) edo denbora orreik emoten eben erreztasuna oldozmen orreik aurrera eroateko.

Biltzarraren ondorioz, Euskal Jendekuntzaren(3) Aldekoen E.K.A´ren(4) batzarra sortu zan.

Talde ark Euskal Jendekuntza indartzeko inguruan, ta Euskerea babesean ezartzeko, eraginkorrezko egitarau bat landutea, euki eban leentasunaren ardurazko maillan, eta batzorde ortarako aukeratu ziran arduradunak: Barandiaran´tar Jose Migel, Leizaola´tar Jesus Maria, Solaun´tar Josu, Monzon´tar Telesforo, Nardiz´tar Gonzalo diru zaiña lez, eta Zaitiegi´tar Jokin Lendakari lez.

2. 31. (40) *Agirre ta Lekube´tar Jose Antonioren eriotza.*




Agirre ta Lekube´tar Jose Antonioren Argitasunezko Juan Deunaren(5) eleizkizunetan, Leizaola´tar Jesus Mari berba batzuk esaten. 1.960ko urtean Epaillaren 22an.

(1) Ortik aurrera Jose Antonio, ikasia, galendua, ta guztiz etsipenduta bizi zan = que a partir de entonces Jose Antonio viviò totalmente desengañado, por tanta mentira. (2) Aisi = bienestar, comodidad, libertad, ociosidad. (3) Euskal Jendekuntza = civilizaciòn, Kultura vasca. (4) E.K.A. = Euskal Kulturaren Aldekuak. (5) Argitasunezko Juan Deuna = San Juan de Luz en Francia.

1.960ko urtean Epaillaren 22an, gauza guzti oneik emoten eutsoezan estukuntzaren bidetik, bularreko min edo anjina batek jota, 56 urte eukazala, il zan gure Agirre´tar Jose Antonio Euskal Lendakaria, gure Euskalerri maite onen kalte aundirako.

Laster jakin eben Mundu onen Askatasunezko Demokrata guztiak, zelan il jakun gizon aundi au. Nai ta berau ez daiten sortu, Frankok ipini ebazan ostopo ta debekatu



Argitasunezko Juan Deunaren eleizkizunetara joan zan jendea.

ebazan gauza guztien gaiñetik. 1.976ko urtean, Franko il zan arte.

1.979ko urtean, Leizaola´tar Jesus Maria, Euskal Jaurlaritzaren Lendakari ordeak, ostera aldatu zan Ego Euskalerrira, ta espainitarren Errepublika denboran Agirre ta Lekube´tar Jose Antonio´gaz, Errepublikako baietzean eraiki ziran legezko Euskal Jaurlaritzazko eskubideak, Euskal Araudi edo Askatasunezko Estatuaren legez, ostera Euskalerriaren Lendakaritza aukeratuz, Garaikoetxea´tar Karlos´eri aldatu eutsoezan euskal lege bide orreik, onek aurrera egian euskaldunaren demokrazizko askatasunen zentzuagaz, Euskaldunen Jaurkintza ostera askatasunezko bideetan ezarriz.

1.936ko urtean Jose Antonik esan eban lez: "Faziztak ezereztuarte, Euskal Abertzaletasuna bere lekuan egongo dala".

Eta eritzi edo berba oneik izan ziran, "Aize Onetatik, edo bai ta Ameriketako lurraldeetaik", Euskalerri ta Jose Antonio´gaitik esan ziran gauzak. Gazteleraz argituko dodazenak euren esanetan, arrast bat beera esanda be, ez aldatzeko.


2. 32. (41) *Arjentinaren, "Aize Oneta"ko aldizkariak, esan ebazanak.*

Un 20 de marzo de 1960, falleció en París el Lehendakari José Antonio Aguirre Lekube, fue el primer presidente de los vascos, quién continuó ostentando el cargo, en un duro y penoso exilio, tanto para él, como para miles de vascos.

En Argentina la presencia vasca fue siempre importante, y testimonio de ello son los casi 90 centros vascos que hoy están plantados como verdaderos robles, a lo largo y lo ancho del país. En tal sentido, Aguirre visitó la Argentina, en más de una oportunidad, con el fin de tomar contacto con sus paisanos, y alentarlos a seguir luchando por los derechos de la nación vasca.

Ante el fallecimiento de José Antonio Aguirre ocurrido el 20 de marzo de 1960, y con la seguridad de que entre sus lectores había muchos vascos, hijos y nietos de vascos, los periódicos más importantes de Buenos Aires, con un alcance nacional, como lo eran en ese momento, los diarios La Prensa y La Nación, seguramente dedicarán un espacio en sus páginas, para recordar a este ilustre político vasco.

Por lo antes expuesto, la tarea, consistirá en investigar en estos periódicos de la ciudad de Buenos Aires, con el fin de apreciar como informaron a sus lectores, sobre la muerte del Lehendakari Aguirre. En este sentido, el Diario La Nación de Buenos Aires titula: "Ha fallecido José Antonio Aguirre".



Nota ilustrada, con una foto del Lehendakari Vasco, para agregar a continuación el siguiente recordatorio biografico-político:

"El bardo Iparraguirre, el juglar de la vetusta raza, cuyo origen se pierde en la noche de los tiempos, pidió al venerable roble que expandiera sus frutos por el mundo. Y los vascos, los hijos y los nietos de El Kano, proyectaron su nobleza por todos los rumbos oceánicos, dándole a su tierra forjada en el yunque pirenaico, vitalizada por los golpes de la galerna del mar embravecido, la alcurnia de la universalidad. Es difícil hallar un rincón en el orbe donde no haya un vasco, bien plantado con profunda raigambre y feraz fructificación, todos fieles al mandato inscripto en piedra en el frontis de la casona solariega: "Ni tiranos, ni esclavos". A esos vascos habló después de 1939, cuando el epílogo adverso de la tragedia ibérica, lo obligó a dejar su tierra, José Antonio de Aguirre. Y esos vascos lo rodeaban, lo aclamaban, lo seguían, como pudimos comprobarlo aquí en la Argentina, en 1941 y en 1955, en sus conferencias y en sus actos de encendida fe en el idealismo de la estirpe, resumido en el lema que aúna al misticismo, con el

ancestral amor a la justicia "Juangoikoa eta Lege Zarra", (Dios y las viejas leyes). ¿Qué decía ese hombre de no alta pero gallarda planta, pronunciado mentón y encendida mirada y firmes ademanes, que rubricaban la elocuencia del verbo?, hablaba de historia, de derecho de las peregrinaciones en el exilio, tras la guerra fraterna, en la que él y los suyos (legiones de vascos), decidieron permanecer junto a los poderes legítimamente constituidos. La historia de Euskalherria cobrará singular relieve en la gesta de Roncesvalles, en las luchas seculares siempre en defensa del derecho y el honor, de las viejas y eternas leyes, del derecho de las gentes, que resplandecía como una antorcha iluminadora de invencibles verdades, en la evolución del padre Vitoria. En sus palabras de fogoso orador, hecho a la polémica desde que dirigió las juventudes católicas, de Vizcaya, su provincia de su nacimiento, en 1904, había pasión de místico de sus ideales, pero no rencores Amor al árbol y a la libertad pecho y conciencia al aire, respeto mutuo, trabajo, paz bajo el manto inmenso del perdón de Dios". Unos lo situaron en la izquierda, otros en la derecha. Combatían los del frente opuesto su posición junto a los sectores republicanos y desde algunos de estos, antes de estallar la tragedia —Waldo Frank— en "España virgen" dice que en el suelo ibérico "la paz es el conflicto estratificado", se lo señalaba como a un representante de las fuerzas reaccionarias. El fuego quemó vidas pero no espíritus. Y José Antonio Aguirre, doctor en leyes, obtuvo el título en la Universidad Jesuita de Deusto. Industrial, y en su fábrica familiar, fue la primera en que se implantó en España el salario familiar y la pensión a la vejez. Alcalde de Getxo a los 27 años de edad, elegido presidente del Gobierno vasco, cinco años más tarde, en el año 1936 sé autodefinió así: "Si por derecha, se entiende en el orden social, la oposición a los avances legítimos, llegando incluso a la transformación del régimen presente, incluso hasta donde no vais, vosotros en el orden económico, si por eso se entiende derecha, somos de izquierda.

Hora bien, si por izquierda se entiende ir contra la familia, contra los sagrados principios de la Iglesia Católica, cuyas normas nosotros profesamos, entonces somos de derecha". Los claros ríos de Euskalherria, zigzaguean, unas veces hacia la izquierda y otras hacia la derecha, como todos los ríos, y, al igual que sus hermanos de la hidrografía universal, nunca vuelven hacia atrás.

Como un río fue a para José Antonio Aguirre al mar de las pasiones, en la guerra ibérica, en la segunda conflagración mundial, que lo sorprendió en Bélgica y en Berlín donde vivió oculto, perseguido por el nazismo, meses de angustia sin perder la serenidad, ni la fe en sus ideales, hasta llegar a Nueva York, en riesgosa aventura que despistó a la Gestapo. Allí en Estados Unidos, dictó clases en la Universidad de Columbia. Luego liberada Francia, retornó a París a la sede del Gobierno Vasco en el exilio. En la capital de Francia iniciaba sus viajes, sus peregrinaciones por el mundo, al encuentro de los vascos universales que lo aclamaban y hoy lo lloran, porque se ha desgajado una vigorosa rama del árbol venerado, en el que los varones de la noble raza juraban fidelidad al lema "Juangoikoa eta Lege Zarra", sabedores de que la tradición manda y que la virtud es una necesidad más que un deber. Los vascos universales, acongojados por la muerte de uno de los varones de Gernika, seguramente sentirán la tentación de parafrasear a Lugones en el

canto a Pedro de Embeita, el poeta popular de Euskalherria, y al sustituir los nombres dirán así: "José Antonio Aguirre, el vasco ¡viva la libertad!"

Seguidamente el periódico realiza el anuncio formal de la lamentable pérdida: París 22:

"José Antonio de Aguirre, Presidente del Gobierno vasco en el exilio, falleció hoy de una afección cardiaca, en su residencia de esta capital, el extinto contaba con 56 años".

Ese mismo día, el diario La Prensa, y publica una semblanza sobre los momentos más trascendentes de la vida del líder de los vascos, bajo el título: "José Antonio Aguirre Lekube falleció en París"

Y en la reseña sobre su personalidad se destaca:

"José Antonio Aguirre, presidente del gobierno vasco en el exilio falleció hoy en esta capital a causa de una angina de pecho, tenía 56 años.

Aguirre fue elegido presidente por los partidos políticos del país vasco, cuando el gobierno republicano dio a éste su autonomía, poco después de estallar la guerra civil, en 1936.

De todos los discípulos de Sabino Arana y Goiri, José Antonio Aguirre Lekube fue, sin duda alguna, el que más se destacó en su lucha por la autonomía de su patria.

Merced a sus condiciones intelectuales y a su personalidad Aguirre fue desde su juventud un hombre llamado a cargos directivos de su pueblo.

Estudió y se formó con los padres jesuitas, en la Universidad de Deusto. Militó en las juventudes católicas, donde tuvo su primera experiencia como polemizador y profundizó la doctrina social de la iglesia, poco difundida en esa época. Más tarde, se doctoró en leyes y participó ella vida clandestina del Partido Nacionalista Vasco y en Solidaridad Obrera.

Miembro de una familia adinerada, dueño de algunas empresas el joven nacionalista estudió a fondo los problemas sociales en especial los relacionados con el trabajo e introdujo cambios que hicieron su nombre más conocido en la región.

En las elecciones municipales de 1931, cuando fue abatida la monarquía, Aguirre salió electo concejal y más tarde alcalde. Un tiempo después el Partido Nacionalista Vasco, lo envió como diputado con otros cuatro compañeros a las Cortes Constituyentes.

En esa época de su vida, José Antonio Aguirre aparece ante toda España como un político brillante a pesar de su corta edad. Su sentido de la responsabilidad y del orden le distingue entre las acciones extremas de derechas e izquierdas.

Su firme oposición a medidas de ciertos sectores republicanos izquierdistas le colocaban entre los derechistas reaccionarios, estos a su vez repudian su acción cuando introduce en la cámara proyectos tachados de comunistas.

En realidad, Aguirre había sido el primero que en la península había establecido, en sus propias empresas, el salario familiar, las pensiones a la vejez, la participación en las ganancias y otras medidas semejantes.

Marcharemos hacia nuevas formas sociales, explicaría más adelante en el "Mensaje de Gernika a las Americas" publicado en los Estados Unidos, "No es posible ignorarlo ni cerrar los ojos a la realidad. No cabe sino aceptar el hecho y si es posible, como a mi juicio debe ser, incorporarse a él con decidido empeño, porque obedece a un proceso humano basado en una inconmovible justicia".

Y el mismo mensaje al referirse al comunismo, habla de un avance en un sentido social, que implica, naturalmente un retroceso del marxismo.

Iniciada la guerra civil, los diputados vascos logran que sea promulgado el estatuto por el cual se reconoce la independencia de Euskadi, dentro del sistema federativo.

José Antonio de Aguirre y Lekube es proclamado bajo el árbol de Gernika primer presidente vasco, a los 31 años de edad.

La guerra civil hace que este dirigente joven un guerrero. Estalla cuando él está en París e inmediatamente se traslada a Bilbao y encabeza, como ministro de guerra y Comandante en Jefe del Ejército, la lucha contra el invasor.

Su acción en ese terreno también es sobresaliente. Recorre continuamente las puertas de Durango, los muros acribillados de Begoña, las trincheras de Labarregue. Todos los frentes amenazados. Impulsa la defensa y su acción se traduce en el "Cinturón de Hierro de Bilbao", defendido por simples pelotaris y gudaris, hombres del pueblo que luchan sin ceder. A pesar de todo, la resistencia se agota frente al poder enemigo y las tropas italianas entran en la ciudad.

Aguirre y su gabinete van a Francia por el Cantábrico debido al cerco de que eran objeto y cruzando los Pirineos, establecen el gobierno en Barcelona, donde dirigen las acciones hasta que la derrota es definitiva.

Terminada la contienda viene el éxodo general. Aguirre marcha al exilio con miles de compatriotas "llenos de esperanza en la libertad que mañana nos deparará".

Una vez en Francia, Aguirre se verá perseguido, junto a otros dirigentes, por la Gestapo, que trabaja en combinación con los servicios policiales y la falange española.

Muchos de ellos son apresados en las ciudades francesas. Companys, Presidente de Cataluña, es llevado a España y torturado. Después lo fusilan.

Aguirre hace los planes para viajar a América y le es imposible partir. El éxodo continúa. En compañía de un grupo de sacerdotes y otros compatriotas cruza la frontera a Bélgica.

Cuando llegan se encuentran con que la frontera ha sido cerrada. Sin documentos en tierra extraña, Aguirre conduce a su esposa y sus dos hijos de dos y tres añosa un refugio seguro. El se esconde en un convento de donde sale para emprender, con un diplomático americano, un viaje a donde ni la propia policía nazi pueda buscarlo: Berlín.

Tiempo después, sale y llega a Suecia, donde en compañía de su familia, se embarca para América, la tierra de la liberta.

Estuvo en Uruguay y en la Argentina, donde fue recibido en 1941, por las máximas autoridades, "en representación de un pueblo pequeño pero de alma grande que derramó generosamente su sangre porque no tenía entrañas de siervo".

En América siguió la lucha de su causa. Escribió varias obras, entre ellas, "Entre la libertad y la revolución", una "Historia Vasca" a pedido de la Universidad de Columbia,

donde fue profesor más tarde, y "De Gernika a Nueva Yorkpasando por Berlín" , relato de una odisea en los países por donde atravesó el exilio.

Hasta el día de su muerte ejerció la Presidencia del Gobierno Vasco en el exilio.[10]

Nuevamente el diario La Prensa de Buenos Aires, se hace eco en sus páginas sobre la Muerte de José Antonio de Aguirre, a partir de un cable fechado en la ciudad de París, al cual titula: Gran consternación ha causado la muerte de José Antonio Aguirre (París).

"El Presidente de la República Autónoma Vasca de la República Española, José Antonio de Aguirre, que falleció anoche en su domicilio de París, a consecuencia de una angina de pecho, reposará en tierra vasca, para lo cual, sus restos serán trasladados a la ciudad francesa de san Juan de Luz, en los bajos Pirineos.

La muerte del presidente de Aguirre causó consternación general. La oficina de Prensa de Euskadi interrumpió su servicio de información para dedicar el número de hoy de su boletín informativo, a "la memoria del vasco esclarecido" que fue primer Presidente del Gobierno Autónomo de Euzkadi.

El cadáver del Presidente será expuesto en la capilla ardiente, en la delegación de Euzkadi, en el distrito de Passy, pasado mañana, vienes a la noche y el sábado a las 11,30 se realizarán los funerales en la Iglesia parroquial de Saint Pierre du Gros Caillu.

El domicilio de la delegación del Gobierno Vasco, cerró todas las persianas e izó la bandera vasca a media asta. En las oficinas del Gobierno vasco se reciben centenares de telegramas de pésame de todo el mundo, particularmente de los vascos residentes en América latina.

El vicepresidente del Gobierno Vasco en el exilio, Richard Leizaola, recibe también innumerables llamadas telefónicas de diplomáticos, ministros, políticos y amigos del ex difunto, para expresar su condolencia.

Leizaola explicó que de Aguirre había tenido un acceso de gripe y guardaba cama desde antes de ayer lunes. En la mañana de ayer tuvo un primer ataque de angina de pecho y su esposa llamó al médico, pero el paciente se agravó y dejó desistir a las 6 de la tarde, después de haber recibido los auxilios del canónico Onaindia.

El importante diario francés, Le Monde publica hoy una larga necrología que termina así "Demócrata intransigente, católico fiel, nacionalista racionado, de Aguirre dejará a todos los que le han conocido el recuerdote un hombre lúcido y sincero, totalmente consagrado a lo vasco.[11]

Una última noticia referida a la muerte de Aguirre es la publicada también por el diario La Prensa de Buenos Aires, que lleva por título simplemente: Francia.

En dicho despacho informativo se comenta que:

"Cruzaron la frontera 3.000 vascos para asistir a los funerales de Aguirre.

Tres mil vascos procedentes de España cruzaron la frontera por Endaya para asistir al entierro de José Antonio Aguirre en San Juan de Luz.

La comitiva fúnebre habría venido desde París por carretera. El cadáver fue velado toda la noche en casa de un amigo, Miguel de Monzón, por la familia y miembros de varias asociaciones vascas.

La misa de réquiem fue celebrada en la Iglesia San Juan Bautista, por el padre Lekube, primo carnal del difunto, cuyo elogio necrológico, fue hecho por el obispo de la diócesis.

Al entierro además de los vascos que habían llegado de España, asistieron también, numerosos vasos que viven en Francia, el alcalde de San Juan de Luz y otras personalidades.

"El bardo Iparraguirre, el juglar de la vetusta raza, cuyo origen se pierde en la noche de los tiempos, pidió al venerable roble que expandiera sus frutos por el mundo. Y los vascos, los hijos y los nietos de El Kano, proyectaron su nobleza por todos los rumbos oceánicos, dándole a su tierra forjada en el yunque pirenaico, vitalizada por los golpes de la galerna del mar embravecido, la alcurnia de la universalidad. Es difícil hallar un rincón en el orbe donde no haya un vasco, bien plantado con profunda raigambre y feraz fructificación, todos fieles al mandato inscripto en piedra en el frontis de la casona solariega: "Ni tiranos, ni esclavos". A esos vascos habló después de 1939, cuando el epílogo adverso de la tragedia ibérica, lo obligó a dejar su tierra, José Antonio de Aguirre. Y esos vascos lo rodeaban, lo aclamaban, lo seguían, como pudimos comprobarlo aquí en la Argentina, en 1941 y en 1955, en sus conferencias y en sus actos de encendida fe en el idealismo de la estirpe, resumido en el lema que aúna al misticismo, con el ancestral amor a la justicia "Juangoikoa eta Lege Zarra", (Dios y las viejas leyes). ¿Qué decía ese hombre de no alta pero gallarda planta, pronunciado mentón y encendida mirada y firmes ademanes, que rubricaban la elocuencia del verbo?, hablaba de historia, de derecho de las peregrinaciones en el exilio, tras la guerra fraterna, en la que él y los suyos (legiones de vascos), decidieron permanecer junto a los poderes legítimamente constituidos. La historia de Euskalherria cobrará singular relieve en la gesta de Roncesvalles, en las luchas seculares siempre en defensa del derecho y el honor, de las viejas y eternas leyes, del derecho de las gentes, que resplandecía como una antorcha iluminadora de invencibles verdades, en la evolución del padre Vitoria. En sus palabras de fogoso orador, hecho a la polémica desde que dirigió las juventudes católicas, de Vizcaya, su provincia de su nacimiento, en 1904, había pasión de místico de sus ideales, pero no rencores Amor al árbol y a la libertad pecho y conciencia al aire, respeto mutuo, trabajo, paz bajo el manto inmenso del perdón de Dios". Unos lo situaron en la izquierda, otros en la derecha. Combatían los del frente opuesto su posición junto a los sectores republicanos y desde algunos de estos, antes de estallar la tragedia —Waldo Frank— en "España virgen" dice que en el suelo ibérico "la paz es el conflicto estratificado", se lo señalaba como a un representante de las fuerzas reaccionarias. El fuego quemó vidas pero no espíritus. Y José Antonio Aguirre, doctor en leyes, obtuvo el título en la Universidad Jesuita de Deusto. Industrial, y en su fábrica familiar, fue la primera en que se implantó en España el salario familiar y la pensión a la vejez. Alcalde de Getxo a los 27 años de edad, elegido presidente del Gobierno vasco, cinco años más tarde, en el año 1936 sé

autodefinió así: "Si por derecha, se entiende en el orden social, la oposición a los avances legítimos, llegando incluso a la transformación del régimen presente, incluso hasta donde no vais, vosotros en el orden económico, si por eso se entiende derecha, somos de izquierda.

Hora bien, si por izquierda se entiende ir contra la familia, contra los sagrados principios de la Iglesia Católica, cuyas normas nosotros profesamos, entonces somos de derecha". Los claros ríos de Euskalherria, zigzaguean, unas veces hacia la izquierda y otras hacia la derecha, como todos los ríos, y, al igual que sus hermanos de la hidrografía universal, nunca vuelven hacia atrás.

Como un río fue a para José Antonio Aguirre al mar de las pasiones, en la guerra ibérica, en la segunda conflagración mundial, que lo sorprendió en Bélgica y en Berlín donde vivió oculto, perseguido por el nazismo, meses de angustia sin perder la serenidad, ni la fe en sus ideales, hasta llegar a Nueva York, en riesgosa aventura que despistó a la Gestapo. Allí en Estados Unidos, dictó clases en la Universidad de Columbia. Luego liberada Francia, retornó a París a la sede del Gobierno Vasco en el exilio. En la capital de Francia iniciaba sus viajes, sus peregrinaciones por el mundo, al encuentro de los vascos universales que lo aclamaban y hoy lo lloran, porque se ha desgajado una vigorosa rama del árbol venerado, en el que los varones de la noble raza juraban fidelidad al lema "Juangoikoa eta Lege Zarra", sabedores de que la tradición manda y que la virtud es una necesidad más que un deber. Los vascos universales, acongojados por la muerte de uno de

los varones de Gernika, seguramente sentirán la tentación de parafrasear a Lugones en el canto a Pedro de Embeita, el poeta popular de Euskalherria, y al sustituir los nombres dirán así: "José Antonio Aguirre, el vasco ¡viva la libertad!"

Seguidamente el periódico realiza el anuncio formal de la lamentable pérdida: París 22: *"José Antonio de Aguirre, Presidente del Gobierno vasco en el exilio, falleció hoy de una afección cardiaca, en su residencia de esta capital, el extinto contaba con 56 años".*[2]

Ese mismo día, el diario La Prensa, y publica una semblanza sobre los momentos más trascendentes de la vida del líder de los vascos, bajo el título: "José Antonio Aguirre Lekube falleció en París"

Y en la reseña sobre su personalidad se destaca:

"José Antonio Aguirre, presidente del gobierno vasco en el exilio falleció hoy en esta capital a causa de una angina de pecho, tenía 56 años.

Aguirre fue elegido presidente por los partidos políticos del país vasco, cuando el gobierno republicano dio a éste su autonomía, poco después de estallar la guerra civil, en 1936.

De todos los discípulos de Sabino Arana y Goiri, José Antonio Aguirre Lekube fue, sin duda alguna, el que más se destacó en su lucha por la autonomía de su patria.

Merced a sus condiciones intelectuales y a su personalidad Aguirre fue desde su juventud un hombre llamado a cargos directivos de su pueblo.

Estudió y se formó con los padres jesuitas, en la Universidad de Deusto. Militó en las juventudes católicas, donde tuvo su primera experiencia como polemizador y profundizó la doctrina social de la iglesia, poco difundida en esa época. Más tarde, se doctoró en leyes y participó ella vida clandestina del Partido Nacionalista Vasco y en Solidaridad Obrera.

Miembro de una familia adinerada, dueño de algunas empresas el joven nacionalista estudió a fondo los problemas sociales en especial los relacionados con el trabajo e introdujo cambios que hicieron su nombre más conocido en la región.

En las elecciones municipales de 1931, cuando fue abatida la monarquía, Aguirre salió electo concejal y más tarde alcalde. Un tiempo después el Partido Nacionalista Vasco, lo envió como diputado con otros cuatro compañeros a las Cortes Constituyentes.

En esa época de su vida, José Antonio Aguirre aparece ante toda España como un político brillante a pesar de su corta edad. Su sentido de la responsabilidad y del orden le distingue entre las acciones extremas de derechas e izquierdas.

Su firme oposición a medidas de ciertos sectores republicanos izquierdistas le colocaban entre los derechistas reaccionarios, estos a su vez repudian su acción cuando introduce en la cámara proyectos tachados de comunistas.

En realidad, Aguirre había sido el primero que en la península había establecido, en sus propias empresas, el salario familiar, las pensiones a la vejez, la participación en las ganancias y otras medidas semejantes.

Marcharemos hacia nuevas formas sociales, explicaría más adelante en el "Mensaje de Gernika a las Americas" publicado en los Estados Unidos, "No es posible ignorarlo ni cerrar los ojos a la realidad. No cabe sino aceptar el hecho y si es posible, como a mi juicio debe ser, incorporarse a él con decidido empeño, porque obedece a un proceso humano basado en una inconmovible justicia".

Y el mismo mensaje al referirse al comunismo, habla de un avance en un sentido social, que implica, naturalmente un retroceso del marxismo.

Iniciada la guerra civil, los diputados vascos logran que sea promulgado el estatuto por el cual se reconoce la independencia de Euskadi, dentro del sistema federativo.

José Antonio de Aguirre y Lekube es proclamado bajo el árbol de Gernika primer presidente vasco, a los 31 años de edad.

La guerra civil hace que este dirigente joven un guerrero. Estalla cuando él está en París e inmediatamente se traslada a Bilbao y encabeza, como ministro de guerra y Comandante en Jefe del Ejército, la lucha contra el invasor.

Su acción en ese terreno también es sobresaliente. Recorre continuamente las puertas de Durango, los muros acribillados de Begoña, las trincheras de Labarregue. Todos los frentes amenazados. Impulsa la defensa y su acción se traduce en el "Cinturón de Hierro de Bilbao", defendido por simples pelotaris y gudaris, hombres del pueblo que luchan sin ceder. A pesar de todo, la resistencia se agota frente al poder enemigo y las tropas italianas entran en la ciudad.

Aguirre y su gabinete van a Francia por el Cantábrico debido al cerco de que eran objeto y cruzando los Pirineos, establecen el gobierno en Barcelona, donde dirigen las acciones hasta que la derrota es definitiva.

Terminada la contienda viene el éxodo general. Aguirre marcha al exilio con miles de compatriotas "llenos de esperanza en la libertad que mañana nos deparará".

Una vez en Francia, Aguirre se verá perseguido, junto a otros dirigentes, por la Gestapo, que trabaja en combinación con los servicios policiales y la falange española.

Muchos de ellos son apresados en las ciudades francesas. Companys, Presidente de Cataluña, es llevado a España y torturado. Después lo fusilan.

Aguirre hace los planes para viajar a América y le es imposible partir. El éxodo continúa. En compañía de un grupo de sacerdotes y otros compatriotas cruza la frontera a Bélgica.

Cuando llegan se encuentran con que la frontera ha sido cerrada. Sin documentos en tierra extraña, Aguirre conduce a su esposa y sus dos hijos de dos y tres años a un refugio seguro. El se esconde en un convento de donde sale para emprender, con un diplomático americano, un viaje a donde ni la propia policía nazi pueda buscarlo: Berlín.

Tiempo después, sale y llega a Suecia, donde en compañía de su familia, se embarca para América, la tierra de la libertad.

Estuvo en Uruguay y en la Argentina, donde fue recibido en 1941, por las máximas autoridades, "en representación de un pueblo pequeño pero de alma grande que derramó generosamente su sangre porque no tenía entrañas de siervo".

En América siguió la lucha de su causa. Escribió varias obras, entre ellas, "Entre la libertad y la revolución", una "Historia Vasca" a, pedido de la Universidad de Columbia, donde fue profesor más tarde, y "De Gernika a Nueva York pasando por Berlín" , relato de una odisea en los países por donde atravesó el exilio.

Hasta el día de su muerte ejerció la Presidencia del Gobierno Vasco en el exilio.

Nuevamente el diario La Prensa de Buenos Aires, se hace eco en sus páginas sobre la Muerte de José Antonio de Aguirre, a partir de un cable *fechado en la ciudad de París, al cual titula: Gran consternación ha causado la muerte de José Antonio Aguirre (París).*

"El Presidente de la República Autónoma Vasca de la República Española, José Antonio de Aguirre, que falleció anoche en su domicilio de París, a consecuencia de una angina de pecho, reposará en tierra vasca, para lo cual, sus restos serán trasladados a la ciudad francesa de San Juan de Luz, en los bajos Pirineos.

La muerte del presidente de Aguirre causó consternación general. La oficina de Prensa de Euskadi interrumpió su servicio de información para dedicar el número de hoy de su boletín informativo, a "la memoria del vasco esclarecido" que fue primer Presidente del Gobierno Autónomo de Euzkadi.

El cadáver del Presidente será expuesto en la capilla ardiente, en la delegación de Euzkadi, en el distrito de Passy, pasado mañana, viernes a la noche y el sábado a las 11,30 se realizarán los funerales en la Iglesia parroquial de Saint Pierre du Gros Caillu.

El domicilio de la delegación del Gobierno Vasco, cerró todas las persianas e izó la bandera vasca a media asta. En las oficinas del Gobierno vasco se reciben centenares de telegramas de pésame de todo el mundo, particularmente de los vascos residentes en América latina.

El vicepresidente del Gobierno Vasco en el exilio, Richard Leizaola, recibe también innumerables llamadas telefónicas de diplomáticos, ministros, políticos y amigos del ex difunto, para expresar su condolencia.

Leizaola explicó que de Aguirre había tenido un acceso de gripe y guardaba cama desde antes de ayer lunes. En la mañana de ayer tuvo un primer ataque de angina de pecho y su esposa llamó al médico, pero el paciente se agravó y dejó desistir a las 6 de la tarde, después de haber recibido los auxilios del canónico Onaindia.

El importante diario francés, Le Monde publica hoy una larga necrología que termina así "Demócrata intransigente, católico fiel, nacionalista racionado, de Aguirre dejará a todos los que le han conocido el recuerdo de un hombre lúcido y sincero, totalmente consagrado a lo vasco.

Una última noticia referida a la muerte de Agirre es la publicada también por el diario La Prensa de Buenos Aires, que lleva por título simplemente: Francia.

En dicho despacho informativo se comenta que:

"Cruzaron la frontera 3.000 vascos para asistir a los funerales de Aguirre. Tres mil vascos procedentes de España cruzaron la frontera por Endaya para asistir al entierro de José Antonio Aguirre en San Juan de Luz

La comitiva fúnebre habría venido desde París por carretera. El cadáver fue velado toda la noche en casa de un amigo, Miguel de Monzón, por la familia y miembros de varias asociaciones vascas.

La misa de réquiem fue celebrada en la Iglesia San Juan Bautista, por el padre Lekube, primo carnal del difunto, cuyo elogio necrológico, fue hecho por el obispo de la diócesis.

Al entierro además de los vascos que habían llegado de España, asistieron también, numerosos vascos que viven en Francia, el alcalde de San Juan de Luz y otras personalidades.

Consideraciones Finales

La muerte de José Antonio Agirre, no pasó desapercibida en la prensa de Buenos Aires. En tal sentido, los tradicionales diarios La Prensa y La Nación, en los días posteriores al luctuoso hecho, reflejan en sus páginas, una especie de biografía personal y política del dirigente nacionalista vasco, resaltando tanto las cualidades personales y políticas de Aguirre, como las amarguras y sinsabores sufridas, por quién luchó incansablemente por lograr consolidar los derechos soberanos de la nación vasca.

Más allá de algunas particularidades en los textos publicados por los diarios argentinos, que darían motivo para polemizar largamente, es importante rescatar, otros conceptos, que caracterizan acabadamente a la etnia vasca, como por ejemplo, cuando el periodista los denomina "vascos hijos y nietos de Elkano", o cuando se refiere a la "universalidad del vasco".

Otra importante definición que se desprende de los textos publicados, es cuando se hace referencia a los vascos, afirmando que estos, no son "ni tiranos ni esclavos", como

así también, al caracterizar a Aguirre como: "católico, abogado, político, y un industrial convencido y adelantado para la época, a partir de la implementación de beneficios sociales con destino a sus trabajadores.

Aguirre ha visitado a sus paisanos en la diáspora, muchos de ellos exiliados, luego del triunfo franquista, y en una de sus alocuciones afirmó: "Vengo en representación de un pueblo pequeño, pero de alma grande, que derramó generosamente su sangre, porque no tenía entrañas de siervo".

Aguirre a muerto, y afirman los estudiosos de la política contemporánea vasca, que José Antonio, fue el Lehendakari más querido y amado por su pueblo. Lo que seguramente no han muerto son sus ideas y enseñanzas. En este sentido, quiera Dios, que sus herederos políticos, continúen manteniendo encendida, la llama del destino de independencia de la nación vasca.

2. 33. (42). ***Franko katoliko aberkide´en, menperatzaillezko kaisar gurutz aldia.***

1.937ko urtean Loraillaren 17´tik 1.939ko urtean Epaillaren 31rarte iraun eban Negrin ta Lopez´tar Juan´en(1) agintaritza espainitarren Errepublikako gobernuan, gero, atzerrira aldatu bear izanda.

1.936ko urtean Iraillaren 29´tik, Euskaldun, Katalan, Galizia, ta Espainitarren lur onetan, Franko ta bere katolikotasun gurutzada sakratuen kaisar faziztea geratuko zan garaille, Erdiugarte onetako lurraldeetan egon zan odolkoiezko guda iraingarritik, eta demokrazizko askatasunean, itxaropen gitzi geratu jakuzan, orduan espetxe ta tirozko eriotzetik bizi geratzen ziranentzat, eta bai ta gero jaioko giñanekoentzat. Jai aldi baten bizi ziran Hitler, Mussolini, ta Franko katoliko fazizta´tar aberkideak denboraldi orreitan, Munduko IIn Guda Nagusiari asiera emonda.

1.945eko urtean Loraillaren 7an, Reims´eko Alemanen etsaimendu edo menperatzeko sinatu zan agiriagaz, eta 6 urtearen ilketazko guda edo sarrazkiko guda orretatik urten gendunean, sinistu edo uste gendun, Franko faziztea, bereala kenduko ebela Erdiugarte onen agintaritzatik, Askatasunezko Demokrazieruntz, joan esketiño. Ostera baiña, eta ainbat millaka bider aukera onetan sortu zan antzera, sinezmeneko bideak berriz aldatu ziran Erromatar merkantil katolikotasunezko aberkidetzaren sinismenera, 325eko urtean Nizeako batzararrean artu zan erabagi gogor orregaz, Munduko giza kontrolatu eukinez gain, gordetzaillezko aberastasunezkoentzat, sasi-jainkotasunetan lez bizitzea irudikatu egiten jakielako.

1.873ko urtean Bagillaren 8rarte, laguntza barik eta kaisar lez jaurkitu eban Frankok erdiugarte onen lurralde au, espainitar katoliko aberkideak izatera danok beartuta(2), iñoren ta iñungo eskubiderik kontuan artu bage.

(1) Negrin ta Lopez´tar Juan = 1.891eko urtean, Kanariaseko Las Palmas´en jaio zan, eta 1.956ko urtean Paris´en il zana. Fisiolojiako ikasketak emoten ebazan Madrilleko Urian irakasle Nagusi lez. 1.929ko urtean sartu zan Sozialista Langilleen alderdian, 1.931ko urtean Konstituziozko gorteetan, diputadu izanda. 1.936ko urtean, Largo Kaballeroren gobernuan, diru kontuen ministroa izan zan. 1.937ko urtean gobernuaren lendakari ta guda babeseko ministrua. Guda amaituta Frantzira atzerriratu zana, eta Frantzia, Ingalaterra ta Maxiko´tik ibili zan, atzerritu zan espainitar Errepublikako gobernuagaz. (2) Espainitar katoliko aberkideak izatera danok beartuta = que gobernò con una dictadura fèrrean, como si todos fuèsemos españoles, sin tener en cuenta, personalidades nacionales muy milenarias antes que la invenciòn española, como en el fondo, e històricamente nos quieren hacer creer.

1.973ko urtean Bagillaren 8an, Karrero ta Blanko´tar Luis(1) artu eban bere ordezko lez jaurkintzaren arduratan, Abenduaren 20rarte iraun ebana.

1.973ko urtean Abenduaren 20tik, 1.973ko urtean Abenduaren 29ko egunerarte, Fernandez ta Miranda´tar Torkuato(2), izendatu eben gobernuaren lendakari.

1.973ko urtearen Abenduko 29tik, 1.976ko urtean Uztaillaren 1eraiño, Arias eta Nabarro´tar Karlos(3) izendatu eben, arik eta Franko 1.975eko urtean Azaroaren 20an ilda, bera 1.976ko urtearen Uztaillaren 1ean, lan orreri yaregi edo uztea erabagi eban arte.

Oso ospatsu egin zan, bai erritarrak ospatu be, beren negar berezia, Franko il zanean.

1.977ko urtean Bagillaren 15ean, Franko il ta Arias Nabarroren yeregi edo gobernuaren uztea amaitu zanean, bai ta Suarez aukeratu zanean lendakari lez, asi ziran erdiugarte onetan, leen auteskunde demokratikoak ?, Frankoren gurutzadazko guda santuaren kaisar katolikolikotasunakaz amaitu gura izan zan, baiña urriñetik jota be ez ziran amaitu, gero ikusiko doguzenakaz.

1.976ko urtean Uztaillaren 1etik, 1.976ko urtean Uztaillaren 3raiño, Santiago ta Diaz de Mendibil´tar Fernando ipini eben Jaurlaritzaren Leen Ministru falajista ta gudal nagusi(4) Jenerala, egun bi bakarrik eginda.

Artu ziran leenengo neurrietatik, politikaren berritzea zan, Frankoren erakundeak apurtzeko eta Komunisten Alderdia onartzeko.

1.976ko urtean Uztaillaren 3tik-1.981eko urtean Otsaillaren 25erarte, Suarez eta

(1) Karrero ta Blanko´tar Luis = 1.903ko urtean Santoñan jaioa, eta 1.973ko urtean Madrillen, E.T.A. gaiztakeriz (atentado) il ebana. Itsas, ta politikari gizona zan. Itsasontzi Ikastegian egin ebazan bere ikasketak, urpeko itsasontzietan bereizkunduta. Marrokos´eko gudan egon zan. Eta 1.935eko urtean Madrilleko Itsasontzien guda eskolako irakasle izendatu eban. 1.936-1.939ko Erdiugarte onetako gudan, buru belarri egon zan sartuta Franko edo fazizten alde, Itsasontziko gudaren gobernuan aintzindari (jefe, caudillo, promotor, administrador, mayordomo, etc) nagusia izanda. 1.940ko urtean Lendakariaren bigarren ordezkoa ta gobernuaren aolkulari nagusia. 1.943ko urtean gorteen lendakaritzaren bigarren ordekoa. 1.951eko urtean, Jaurkintzazko lendakaritzaren bigarren ordeakoa. 1.957ko urtean amiral-ordezko maillara igon eban. 1.963ko urtean amiral ordekoa izendatuta. 1.966ko urtean, amiral agindutara. 1.967ko urtetik 1.973ko urterarte lan egin eban gobernuaren bigarren lendakari lez, eta ortik 1.973ko urtean Abenduaren 20rarte, edo E.T.A.k il eben arte izan zan bobernuaren lendakari.

(2) Fernandez ta Miranda´tar Torkuato = 1.915eko urtean Jijon´eko Urian jaio zan gizon au, eta 1.980ko urtean Bagillaren 19an londres´en il. Ikakasle ta politikako gizona. Politikako eskubidearen maixu edo irakasle nagusia zan. Obiedo ta Madrilleko Ikastetxe Nagusietan. 1.954-1.956ko urte bitartean, Erdiko Ikasketaren orokorrezko zuzendari nagusia. Eta 1.962-1.966ko urte bitartean, Ikastetxe Nagusiaren orokorrezko zuzendari nagusia. 1.969-1.973ko urte bitartean, falanjeko mogimenduaren orokorrezko zuzendaria. 1.973ko urtean Bagillan, gobernuaren ordezkaria, eta Karrero ta Blanko´tar Luis il ebenean, gobernuko lendakari ordezkoetan, arik eta 1.973ko urtean Abenduaren 29an Arias Nabarro lendakari izendatu arte, 1.975-1.977ko urte bitartean, gorteko ta erregetzaren aolkularitzan lendakari izan zan, 1.977ko urtean Duke izendatu eben, eta 1.977-1.978ko urte bitartean, erregeak egindako senatore.

(3) Arias eta Nabarro´tar Karlos = 1.908ko urtean jaio zan Madrillen, eta 1.989urtean Azaroaren 27an Madrillen il. 1.944 y 1.957ko urte artean, Leon, Tenerife, ta Nafarroako erritarren Erki-Jaurlari (gobernador civil) izan zan. 1.957-1.965eko urte bitartean, Erritarren Ziurtasunezko edo babesaren orokorrezko zuzendaria (director General de la Seguridad Social). 1.965-1.973ko urte bitartean, Madrilleko Alkatea. 1.973ko urtean, Gobernu edo Jaurpidearen Ministrua. Eta 1.973ko Abenduan, Jaurkintzaren lendakaria. 1.975eko urtean I Karlos erregeagaitik ostera baieztuta Jaurkintzazko Lendakaritzan, Frankoren il osteko, erregeen gobernua egiteko agindu eutzon. 1.976ko urtean Uztaillan itzi edo yeregin eutson lan orreri.

(4) Santiago ta Diaz de Mendibil´tar Fernando = 1.910eko urtean Uztaillaren 23an, Madrillen jaio zan Santiago ta Diaz de Mendibil, eta 1.994ko Azaroko 6an Madrillen il zan, F.E.T.ko ta J.O.N.S.eko palanjista au. 1.936-1.939ko urte bitartean, Franko´ren edo gurutzada sakratuzkoen katoliko aberritar faziztaren alde borrokatu zan. 1.971ko urtean Epaillaren 4an, Perez de Lerma´tar Jose Maria Sajara´ko jaurlaria´ri aldatu eutson bere lan postuan, 1.070eko urtean Zemblako matxinatuak bakezteko.1.973ko urtean Otsaillaren 20an, Frankoren eskutik lortu eban Sajaraurientzat askatasunezko egoera bat legearen agintaritzan, len Yemaa´ren galdeketazko-batzar agintea izan zanetik. Santiago Jeneralak berak esan eutson batzar orren lendakari zan Khtri Ould Daid Ould Joumanien´eri, baiña 1.974ko urtean Jorraillaren 24rarte ez zan beteko jabetasunaren-askatasunezko estatuto ori edo Sajara´ren barruko aginte ori, Santiago bere lan postuetatik kenduta Gomez ta Salazar´tar Federiko ipini arte lan postu orretan. Santiako bera, espainitarren CESEDEN edo espainitar lurraldeen babeserako, goi maillako ikasketaren batzarrean. 1.975eko urtean, Arias Nabarroren erregetzazko leen Jaurkintzak, bereala artu eban gizon au, guda babesaren arduratan ipinteko. 1.976ko urtean Uztaillaren 1ean, gobernuko lendakari ipini eban, 1.976ko urtean Uztaillaren 3rarte iraun ebena, arik eta Suarez´tar Adolfo, espainitarren erregezko Jaurkintzan, lendakari izendatu arte. Eta 1.976ko urtean, bera, babesaren leendakari ordea izendatu ebenean, laster asi zan Suarezen gobernuak langilleen alkarteakin asi zan erabagiak azterkatzen, edo ta euren aurka gogor aldarrikatzen.1.976ko urtean Iraillaren 8an Suarez´tar Adolfok, bere Izarrezko Egitamua aurkeztu eutsoezan gudalozteko agintari nagusieri, Santiago bera batzar orretan egonda, politika arloak berrizteko. Santiago berak egun batzuk geroago ta guztiz asarre edo suminduta, Suarez´tar Alfonrekin egonda, berari esan eutson, ez egiala onartu Langilleen Alkarteak. Orren alkarrizketazko ostean Santiagok, bere lanpostueri yeregi edo uztea erabagi eban. Gutierrez´tar Mellado ipinita, eta Mellado onek zalatu eban "Elefante Zuri" lez. 1.881eko urtean Otsaillaren 8an, 23ko matxinadaren aurretik, Santiago ta Diaz de Mendibil´tar Santiago Kapitan Jeneralaren ordezkoak, "El Alcazar" aldizkarian "Situaciòn Critica", idaz lan bat aurkeztu eban, erregeak egun batzuk ariñago Euskalerriko Lege Biltzarrean egon ziranean, Herri Batasunekoen aldetik artu ebazan "Txistu edu Uukaldia´gaitik (sibidos y abucheos), bai ta E.T.A.k egiten ebazan ildakoagaitik, (nai ta eurak egiten ebazanak esan ez), Alderdi Politikoen ordezkaritzak, guztiz eztabaidatu egiten ebanak.

Gonzalez´tar Adolfo(1) izan zan espainitarren lendakari.

Bere merezimendu aundiena, Demokraziruntz emon ziran oinkadazko aldaketak, bakez egitea zan, oso gogorrak ziralako atxilotuen kaleratzea ta Komunistaren alderdia onartzea.

1.977ko urtean, orduan Komunisten buruzagi edo aintzindari nagusia zan Kamatxo´tar Martzeliño Politikuak esaten eban, "Mirari aundi bat zala, espainitarren artean sortu zana, azkeneko urte onetan".

1.978ko urtearen Joarraillan amaitu ziran konstituziozko arautegien atalak. Eta 1.978ko urtean Loraillaren 5ean asi ziran konstituziozko araudien atalak onartzen, danoen arteko adostasunean egokitzeko. Nai ta konstituziozko araudi orren atalen azterketak, Abril ta Martorel´tar Fernandok ostoduan eroan.

Oraindiño ikusten dodaz Irujo ta Ollo´tar Manuel E.A.J.eko ordezkaria, Ajuriagerra ta Otxandiano´tar Juan, E.A.J.ko ordezkaria, ta Olarra ta Ugartemendia´tar Juan Alianza Popularreko kidea izan zanak, gela baten batera.

Euskal aberkideak pozik egon ziran, konstituzio orrek, euskaldunak, onartzen ebazalako euskal aberkide lez. Batera baiña, U.C.D.ko Abril ta Martorell´tar Fernando sartu zan gela orretan, eta pozik ta onartua izan zan euskaldunagaitik, arik eta Abril ta Martorell´tar Fernandok: "Pero todo, dentro de la konstituciòn española" esan arte. Irujo ta Ollo´tar Manuelek: "Ya la hemos jodido" esanda.

A.P.eko Olarra ta Ugartemendia´tar Luis egon zan Irujo´ren ostean, eta: " Mire, mire Don Manuel, aquì parece que hay una salida" esan eutson. Manuel´ek "Ven aquì chaval, muestrame donde està èsa salida", erantzunda

1.978ko urtearen Abenduaren 6an espainitar konstituziori onartuta ta Suarez´tar Adolfogaitik bideratuta, lan asko egin zan, urte orren konstituzioa onartzeagaz, nai ta Euskaldunak onartu ez konstituzio ori, guk ez giñelako espainitarren semerik izan, Euskaldunenak baiño.

Eta ekintza onen lan bikaiñagaz, Frankisten kaisar agindua ezereztutea balio ebalako, bai Frankisteen gorteak ezereztu, ta goitik berako elkarte edo sindikatoak kendu, Erritarren Antolakuntzazko epaitegi, ta Palanjisten mogimenduak ezereztu, Itsas-gudal, Aize-gudal eta lurreko gudal nagusien ezezkoak alderdigabetu edo erdiratu, aurkako alderdiak politikazko jokuan sartzeko espainitar Komunisteen Alderdiagaz batera, konstituziozko baietz aundi batera eltzeko asmoan.

1.978ko urtean Abenduaren 27an, erregeak onartu eban konstituzi ori, eta 1.978ko urtean Abenduaren 29an espainitar estatuaren aldizkarian agertu zan.

1.979ko urtean Laterri ta Udalaren auteskundeetan, U.C.D.ko Suarez´ek irabazi ebazan.

1.980ko urtean, Suarez´en ausartasun onek, Fernandez ta Miranda´tar Torkuato ta erregearen adizkidetasunetik urrundu egin eutson.

Arik eta 1.981eko urtearen Urtarrillan Suarez´tar Adolfok, bere lendakarizko ardurai

(1) Suarez ta Gonzalez´tar Adolfo = 1.932ko urtean Abila´ko lurraldearen Zebreros´eko erritxoan jaio zan, eta 2.014ko urtean Epaillaren 23an Madrillen il. Zuzenbidearen Lege-Maisua izanda, 1.967ko urtean Abila´ren aldetik, gorte-aldun egin eben. 1.969-1.973ko urte bitartean, espainitar Irrati ta Telebistaren orokorrezko zuzendari nagusi izendatu eban. 1.975eko urtean, idazkaritzaren bigarren ordezkari. 1.975-1.976ko urte artean, Falanjeko mobimenduaren orokorrezko idazkaria (secretario general) egin eban. 1.976ko urtean espainitar aberriaren aolkulari. 1.976ko urte onen Bagillan, I Karlos erregeak, politika maillan, elkarteen kide izateko askatasuna agindu eban. Eta 1.976ko urtearen Uztailla orretan, espainitar Jaurkintzaren lendakaria egin eben Suarez´tar Alfonso onek, bereala transisiozko bideakaz asi zan, Demokraziaruntz urratzeko bideakin. 1.976ko urtearen Abenduko erri-eritziagaz (referendun) espainitarrek onartu ebena, Euskaldunak izan ezik, erri-eritzi orretara ez giñelako juan gura, gure konstituzioa ez zalako izan, eta aldakuntzaren bideak zabalduta, bai ta 1.977ko urtean, Komunistaren Alderdia legeztuz. 1.977ko urtean Bagillaren 15ean Demokraziaren Erdiko Batasunaren (U.C.D.) lendakaria zan, eta alderdi orregaz lortu eban leena izatea egin ziran auteskundeetan. Gobernuaren lendakaria izanda, Lege-Biltzarraren ezar leku bat lortuta. 1.977ko Epaillaren 1eko auteskundeetan be, nagusitasuna lortu eban, ta ostera egin eben Gobernuaren Lendakari.

yeregi edo uztea erabagitu eban arte.

1.981eko urtean Otsaillaren 25etik, 1.982ko urtean Abenduaren 1eraiño, Kalbo Sotelo´tar Leopoldo(1) izan zan espainitarren lendakari.

1.982ko urtean Abenduaren 1etik, 1.996ko urtean Loraillaren 4raiño, Gonzalez ta Markez´tar Felipe izan zan espainitarren leendakari.

1.996ko urtean Loraillaren 4tik, 2.004ko urtean Jorraillaren 17raiño. Aznar ta Lopez´tar Jose Maria. Izan zan espainitarren leendakari.

2.004ko urtean Jorraillaren 17tik, 2.011ko urtean Abenduaren 21eraiño, Rodrigez ta Zapatero´tar Jose Luis izan zan espainitarren leendakari.

2.011ko urtean Abenduaren 21etik, 2.018ko urtean Bagillaren 1eraiño, Rajoi ta Brey´tar Mariano izan zan espainitarren lendakari.

2.018-2.019ko urte artean ta Bagillaren 2tik, Santxez ta Perez-Kastejon´tar Pedro izen gura dau espainitarren lendakari. Bai ?.

2. 34. (43) *XIIn Atal onen ondorea, XIIIn atalagaz asiera emoteko.*

Nabari ikusi dogu, espainitarren guda-jaurlariren alegiñak, oso gogorrak zirela, sartu gura euskuen guzurrak eleizako gurutzadaren izenean, eziñak izan ziralako ekarten eben guzur ta maltzurrezko alegiñakin.

Orregaitik ikusi ta berdinkatu egin bear dogu, aurkeztzen dodazan berba bigaz gitxienez, bereztasun onek daukazan Jaungoikuaren Legezko erakuskiñakin, konturatu egin gaitezen, Mundu onek daukazan legeakaz ezin dogula edozelan jokatu, Jaungoiko Sortzaille´aren Legezko aginduak diralako.

Bai ta gero XIIIn Atalean oiñarrizteko Bere Legeen zentzunagaz.

a) Zertarako egiten dodazan oarkuntza oneik.
b) Frantzian zergaitik egin zan iraultza, eta zertarako.
d) Zelango lege-mota izan zan 1.812ko Epaillen 19an Kadizen atara eben espainiar gudal nagusiak, gaur egunean, K.o. 325ean Nizeako batzarraren urtetik, pekatu bardiñagaz egoteko ?.
e) Europa ta mundu guztian, orduan menpeko legearekin artu ziran erabagiak zelango eragipenak daukiez gaurko legezko araudietan.

a) ***Lenengo oarkuntzaren asmoa, berezko Nortasunaren bereiztasunak ondo ulertzea da, kontuan euki, ta jakin dagiguzan, bakotzaren eskubideak, zeintzuk, zertarako, eta zergaitik geratu bear direzan euren lekuetan bananduta:***

A-1) Nortasunaren zentzuzko izatasuna:

Bereztasun onetan naita naiez jaiota, eta bizitzeko bear doguzenak jakin gurean,

(1) Kalbo Sotelo´tar Leopldo = 1.926ko urtean Uztaillaren 13an Madrillen jaio zan, ta 2.008ko urtean Loraillaren 3an Madrillen be il. 1.975-1.976ko urte bitartean salersketaren (comercio) ministrua egin eben. 1.976ko urtearen Uztaillatik, 1.977ko urtearen Jorraillararte erriko lanaren agintaritza. 1.978ko urtearen Otsaillatik Europako Komunitatearen artu-emonetan. Eta 1.981eko urtearen Otsaillaren 25etik, 1.982ko urtean Abenduaren 1 erarte espainitarren lendakari.

azter bideko azi ta eziko azturan oituratu bidez, bizi onen egizko zergaitiak lortzen doguz gure baitazko eritziaren ulermenarentzat.
Eta gure artean oitura orretan erkidetzeko sortzen dogun izkuntzarekin, inguratzen dan, berezko egi bat izanez gaiñ, Nortasunari emoten dautson, bereiztasunezko egia da.
Errigizarte guztiak, JAUNGOIKUAK mundu oneri asieratik ipini eutsezan lege bardiñekaz, baliotu bear izan dira beti, asieratik danontzat lege bardiñak diralako daukaguzenak.
Eta eurei, iñoren almenean ezerezko aldakuntza txikienarik egiteko be, euki barik, gure irazale edo sortarazleen ezintasunetik, asmatzailleen almena bakarrik eukinda, ez garelako iñor, Beren legerik edo ta legeetan, ikutu edo sudurrak sartzeko.
Ori da Euskalerriaren egia Ludi onetan, mundu au beste errigizarte batzuekaz, daukezan beste ulermeneko baitakin osotzen dauana.
Eta leiñu bakotzaren, azkuntzazko oikuntzan lan eginda, ezberdiñetako izatasunean agertu arren, ori ote da arrazoia, batak bestea menperatzeko, edo ta, bata bestea baiño politagoa dalakoan, ganorabako baten eritzi ta indarrez besteak menperatzeko ?.
Baita beste alde batetik begituta, baten batek, bere etorkizunezko il-zoria kontuan artu bage, arro, edo ta berak sasijainko indar asko eukiten dalakuan, besteak menperatu, edo errigizarteak berak gura dauan eran nastekatzeko, almenak ote dituz ?. Nork emonekuak ?.

A-2) ***Nortasunaren izatasunezko ABERRIAK, ta Norkeriz asmatutako aberkuntzak:***

Goian ikusi dogu, Nortasunaren zentzuzko izatasunak, leiñu berezkoaren oikuntzazko azkeratik osotzen dirala Erritarren Aberriak. Erkidetzeko sortu eben izkuntz bidetik, berak emoten dautson berezko izena Nortasun lez, artzen dabelako.
Eta orreik dira, Mundu onek, Jainkoak Bereztasundu Eben Lege bidetik, erakusten dabezan izaerak, bai ta danok bizitzarako, bear doguzan ditekenakaz baliotzeko.
Asken baten, beste gorengo mailla baten erkidetu ***(ez batzangotu)*** bear direnak, Jainkoak sortutako Ludi onen gai au, danoren ardurazkoa biurtu euskulako.
Eta gai mundu onen ordezkaritzazko bizi ekintzagaitik, beartuta sortzen jakuzan gauza guztien antola, ta lan guztien garbitasunezko bidetik, bear dabezan *"Orekak", danoren ordezko ardurakaz zaindu bearrean aurkitzen garelako da.*

Aberriak ote dira baiña, Norkerizko asmokin, gizarte ezberdiñekaz sortzen diran batzangotasunak ?:

Batutako errigizarte orreitan, euren baimenik bage eginda badagoz, ez dira ezer. Edo ta beste erabatera esanda, Jainkoak ipinitako Legearen aurka, batzuen norkeri bidetik eta arrazoibako indarrakaz egiten diran batzagotasunak, sekula

ez dira izango Aberriak, gauza orreik ez daukielako berezko edo Jaungoikuaren Legeen zentzurik.

Bestela begitu dezagun zer esaten dauan ***J. Kasaresek espainiar erregeen ikastetxekoak:***

Lugar, ciudad o pais en que se ha nacido.

Este mismo pais con sus habitantes, tradiciones, costumbres etc., en cuanto es objeto de cariño por parte de los naturales de èl.

Eta nik gaiñeratuta: "Cariño que como es obvio, procede de la familia protectora en directiva educacional padre-madre, casa, vecindad local, Provincial y Nacional, en la relaciòn lógica de comprensiòn religioso idiomàtica en la que los naturales se desenvuelven en esa tierras que comprenden su circunscripciòn".

Euskalduntasunaren nortasunezko aberria:

Aberria Euskeraz baiña, aita-ama gurasoaren ondorengotasunetik agertzen jakuna baiño, gauza andiago bat da, errien sinismena dalako.

Jaungoikuak mundu au irasi, eta Berak oiñarrituta, erperatu eutsoezan legezko araudiaren zentzu orreik, Euskaldunak, Paleolitiko ezkeroztik ekarri dabezalako askatasunezko Lege orreik, ondo ulertu ta zeaztuta, Euskal jendekuntza lez. Euskaldunak, milla urte askotako epean ekarri dabezalako askatasunezko eskubide demokratiko itxuran, euren baitan sinismenduz irarrita, Nortasunaren irudizko-eritzi orreik.

Orregaitik Euskaldunak, euren baitak euskereagaz irarrita ekarten dabenak, ez jakie ikusten ondo-zaindutako erri ta giza ederraren itxurazko irudi bat lez, bakarrik, mundu fisiko oneitan bere leiñuzko gai gizaren bereiziak, ondorengoz naita ez, beti BARRIZTUTA ekarri bear diralako, ke ta auts biurtu ez zitezen.

Bizi bizian oituratuta ekarten dabenazanak eten bako ziñezkintza baten, eta sekula iltzen ez diran zentzuan.

Jaungoikuaren Legeekin ulermendu ebezanak diralako, ondorengo baita lez, laga edo antola ederrean izten dabezanak euren urrengo jendekuntzazko gizadiari.

Gaur arteko euskaldunak, Omo Sapiens´en asierazko aztutan ikasi genduzanak, askatasunaren demokrazizko edesti guztiaren aitortza lez ekarten dabe.

Orregaitik Euskerea be, azturaren sortzezko izkuntza izan da, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz bat bezela, maitasun guztiagaz erkidetzeko, egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibili degun tresneria bakarrik, Jaungoikuaren Legeagaz, ondo alkar aurkeztu ta berdinkatuta, argibidetu zalako zentzun aundiz.

Bera biurtu gendun AMA, euskal izatasuna, bear dan zentzunezko lekuetatik, maitasun guztiagaz bideratzeko.

Euskereak daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunak.

Eta ez da txantxetako jokoan ibili bear dan gauza bat, Euskaldunak edesti guztian, Jainkoari eskaiñi eutsoen eguneroko AITORGILETASUNA dalako.

Norkeri bitartez sortutako Aberriak.

Edestian, argi ikusten diran gauzak dira, norkerizko menperatzailleak euren asmoetan dabizen erri ezberdiñeko gizarteak menperatu ondoren, batzangotu gure dabezanak, ta sasijainkotasunaren garaipenak lortzeko egiten dabezan bearkuntzazko naastekatasunetik sortzen diralako izkuntz barri baragarriak, erromatarren menpeko ekintzagaitik ainbat latiñ kume sortu ziran antzera.
Latiña bera be, asmatu ta egindako izkuntza bat izan da, ez da erri baten azturan edo ta lanezko oikuntzatik sortzen dan jenkuntzazko izkuntzalakoa.

Daukan orekatasunean, berezko erri maitasunagaz eginda dagoela, erakusten daualako bigarren onek, eta leenengoak, menpekotasunaren kirrinkako abesti baten datorrena da, itzak euren ezberdintasunaren esangureko naste bidetik, osagarritasunezko zentzua galduta ekarten dabelako.

Orregaitik: Euskerea, euskaldunaren izkuntza da.
Baiña: "Gaztelera, espainiar izkuntza ote da ?".
Zer dira: Nafarroa-Aragon bitarteko Katalan, edo ta Bable izkuntzak?.
Laterriak: "Aberriak ote dira ?".
Espainiar menperatzailleak gure daben: "Nacional Catolicismo" ori, Aberria ote da ?.

Menperatzaille oneik, nungo sasijaungoikuari gurka ote dabiltz ?.

Nora juango ote dira ainbeste nasteekin, gero espainitar katolikotasunaren guzurrezko aberrirekin aurrerantza joan ezkero ?.

Gai Mundu onen biribiltasun antzera, "guzurra"ri gaur, egitik geratzen jakon bitarteagaitik, biribiltzeko ?.

Ludi onetan Jaungoikuaren Legetik kanpo, iñork ezin dau bere legerik ezarri, gizakiren almenean ez daualako ezerezetik ezer sortzeko gaitasunik, eta bere asmakizunezko eskumendea, ez dabelako emoten ainbesterako.

Almen guztia daukagu, gaia, gure esku artean ibilteko, baiña JAUNGOIKUAK ipini eutsazan baldintzarekin. Eta emaitza orreik, BEREZTASUNEAN jokatuta bakarrik lortzen dira.

b) Frantzian zergaitik egin zan iraultza eta zertarako:

Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzazko oinkada barri bat emon bear jakon: erlijios, diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lantegi gintzak, ordezkaritzaren arduratan ibili bear genduzan gauza guzti orreik, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebazalako.

d) Zelango lege-mota izan zan 1.812an Epaillaren 19an Kadizen atara eben espainiar gudal nagusiak:

Zapaltzaillea zalantzarik bage.
Europaren etorkizunerako, orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Errigizarteak daukazan eskubideak, Munduko eta Europaren jendekuntzan alango aurrerazko oinkadak emon ezkero, bera osotzen dabezan ordezko egille guztien eskubideak, neurri bardiñean zainduta aurrera egin bear ebelako.

Ez ziran gai-gizaren eskubideko neurri orreik kontuan artu, liberalismoaren jaurkintz asmoak, ekarten eban guda indarrezko bizkortasunagaz, eskubide guztien gaiñetik ezarri zalako.

1.823garren urte onen askenetan VIIn Fernando, espainiar gudalburu jaurgozaleak beartuta, espainiar konstituzio barriari ziñez itz eman bear eutson ***"sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquia"*** esaten ebana, eta gero ***"sin detrimento de la unidad constitucional española"*** biurtuko zana.

VIIn Fernando ortik aurrera, ez eban inkiziziorik barriz ezarri. Erregearen betiko antola bideak berrezkuratzeko, bertan itzita.

Eta gudal agintariak beartuta, erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik atara ebezan lege guztiak, batzangotasunezko jaurgo aldera urbiltzeko izan ziran, Euskaldun, Katalan eta Galiziarren baimenik bage, edo txarragoa dana, guda indarrarekin, euren eskubideak zapalduz gaiñean ezarrita, batzangotasunezko kaizar katoliko lege orreitan urtu gindezan.

Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan orren azpitik, edo Nun egongo ote zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusi ori ?.

Erroman nai ta nai ez ¡!.

Europaren erlijio-merkantillezko arazo orregaz, IIn Isabel eta Vn Karlosen espainitar anai arteko ondoriozko guda orreik, eragipenarik euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkiagaz zer ikusirik, ondorio ori aitzaki bat baiño besterik ez zalako izan.

Erregearen irudiak, ez eben ezeren artekari, epaille edo ta bitarteko indarrik euki ortik aurrera, ostondutako katoliko indar aundi orreik, panpiñezko irudietan biurtu ebazalako.

e) ***Europa ta mundu guztian, orduan artu ziran erabagiak, zelango eragipenak daukiez gaurko legezko araudietan.***

Gudal nagusiaren gudu indarraren erasoakaz, menperatzailletasunezko diru merkantil legedi orreik, maltzur ta lapurrezko araubide lez ezarri ziranetik, eskubidebageko, ta goitik berako agintaritzan daukagun antolamendu guztiari, usteldu dautsola.

Edo ta mundu onetan, baten bat arrituko ote jaku, lapurtzazko legedietatik, lapurrezko emaitzak, agertzen diralako ?.

Munduan, Europa osoan, eta espainitar lurraldean batez be, lapurrezko asmakizun onegaz, JAINKOAREN Araudizko Legetik kanpo kokatuta, ankaz gora daukaguz, Izadi onek Bereztasundutako almen guztiak, JAUNGOIKUAK Legez oiñarritu ebazan eskubide guztiak, ankaz gora daukaguzelako.

Euskaldun, Katalan, ta Galiziarrak, antolamendu au da arrazoiz, eta arrazoi guztiagaz, batera erabili bear doguna, Europa eta munduan Jainkoak ezarritako berezko legearen zaletasunezkoak diranekaz batera.

Euskalerria, eta munduan bereztasunezko Jaungoikoaren Legean jaio diran erriko aberriak, ez dabelako merezi, edestitik zear, katoliko, eta beste erligio faziztak egiten dautsena.

Erlijioa (religare), Jaungoikuaren Legean edo gaiak daukan legeagaz erkidetu bear dogu !!.

Sekula ez, guk !! asmatutako legeakin.

Euskalerriko seme-alabak, or alkartu bear gara ezeren aitzaki barik, berezko askatasunaren eskubideak lortu gure ba doguz.

Atutxa´tar Paul

Zornotza 2.019an Uztaillaren 15ean

EUSKALERRIKO EDESTIAREN ONDORIOA, XIIIn. ATAL A

AURKIBIDEA.

I. ZATIAN.

1. 1. Aurki bidea .....1188 - 1190
1. 2. Euskalerriko edesti onen ondorioa.....1191 - 1191
1. 3. Eskertu bear dodazanak.....1191 - 1192
1. 4. Benetan eskertu bear dodazanak baiña.....1192 - 1192
1. 5. Euskerazaintza ta Euskerazale erakundearen kanpotik, Nire lagun baten eritzia.....1192 - 1193
1. 6. Euskalerriko edesti au osotzeko, badaukadaz, zor dodazanak be, Deustuko Ikastetxe Nagusien liburutegi ta liburuen bidetik, artu dodazan argibideak eskertzeko, baita orrez gaiñ.....1193 - 1194

2n ZATIAN.

2. 1. Europa sortzen..... 1194 - 1194
2. 2. Omosapiensen zabalkuntza.....1194 - 1195
2. 3. Barandiaran´tar On Joxe Miel´ek esaten aduana, eta Euskerea.....1195 - 1196
2. 4. Iberoak dirala ta.....1196 - 1197
2. 5. Leenengo zati onen Ondorioa.....1197 - 1197
2. 6. Gizartean, Ekanduz ibili bear direzan legeak.....1197 - 1197
2. 7. Euskerazko izkuntza.....1197 - 1197

3n *ZATIAN.*

3. 1. Atlant-Itsasotik Alemaniaraiño, ta Eskoziatik Kadiz edo Ispalizeko euskal lur bitartean, euki genduzen leenengo atzerri edo erri alderraien sarrerak.....1198 - 1199
3. 2. Erromatarren zabalkuntza.....1199 - 1199
3. 3. Kristautasuna.....1199 - 1200
3. 4. Gaurko aldi barri asieratik, kristautasuna sortuz, katolikotasuna irasi ondoren, gertatu zana gaurko egunerarte.....1200 - 1202
3. 5. Oar txiki bat emen.....1202 - 1203
3. 6. Godo´en aria, ostera artuta.....1203 - 1208

4n ZATIAN.

4. 1. Euskal Iparraldean Akitaniako Dukaterria, Bazkoniako Dukaterria,

Gazkuñako Dukaterria, Banu Kasitarrak, Karlomajno, Iruñako erregetza, Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza, Arabako Anaidi edo Elkarteak eta Gipuzkoako Batzarrak.....1208 - 1208
4. 2. Euskal Iparraldean, Akitaniako Dukaterria.....1208 - 1212
4. 3. Euskal Iparraldean Bazkoniako Dukaterria.....1212 - 1218
4. 4. Euskal Iparraldean Gaskuñako Dukaterria.....1218 - 1219
4. 5. Banu Kasitarrak.....1219 - 1220
4. 6. Euskalerriaren aurkezpena, orduko denboratan.....1220 - 1221
4. 7. Pipino ta bere seme Karlomajnok, Aita Santurekin euki zituzen arremanak.....1221 - 1223
4. 8. Euskalerriko ego aldean mauritarrekin Nafarroako erregetza ta Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzak.....1223 - 1224
4. 9. Nafarroako erregetzaren sorkuntza.....1224 - 1225
4.10. Asturias eta Leongo IIIn Alfonsoren alegiñak, euskaldunak Menpetzeko. Euskalerriko erantzunean, Bizkaiko Jaunen sorkuntza agertu ebena.....1225 - 1226
4.11. Bizkaitar Jauntzaren sorkuntza.....1226 - 1226
4. 12. Bizkaiko Jauntza sortarazteko gertatu zana.....1226 - 1228
4. 13. Izadi onek daukazan legeak, eta gizaren seme-alabak erabili bear dabezenak, Euskalerriko edestiaren 1go atalean ikusi genduzan.....1228 - 1231
4. 14. Izadi onen giza seme-alabak, erabili bear doguzan legeak.....1231 - 1231
4. 15. Euskaldunak erabilten genduzan lege demokratikoak, Bizkaiko Jauntzarenak, eredu edo ulerpide lez ipinita.....1231 - 1232
4. 16. Bizkaiko Jauntzaren legeen gaiak.....1232 - 1233
4. 17. Eta zeintzuk izan ziran, Asturias, Leon, Gaztela eta Frantziako Franko erregearen katoliko arauetatik, Euskalerrientzako sortu ziran arazoak, eta gero Europako erregetegi guztietatik ?.....1233 - 1235

5. ZATIAN.

5. 1. Goazen ikustera, atal bakotzean begituta, katolikotasunezko erlijio orrek Euskalerrientzat ekarri dauazan akatzak, askatasunezko demokrazian bizi gindezan.....1235 - 1235
5. 2. VIn Santso Garzez Jakintsua.....1235 - 1239
5. 3. Emen, gogarketa labur bat egin bear dogu.....1239 - 1240
5. 4. Oar txiki bat emen.....1240 - 1240
5. 5. VIIn Santso Azkarra edo Aundia.....1241 - 1241
5. 6. Nafarroako erreiñua, VIIn Santso Indartsuaren denboran.....1241 - 1244
5. 7. TXANPAIÑAKO ERREGE-LEIÑUA..... 1244 - 1244
5. 8. Nafarroako I Teobaldo eta Txanpañako IVn Bertsolaria Frantziren Troyeseko urian jaio zan 1.201eko urtean eta 1.253ko urtean Uztaillaren 8an Iruñako urian il. Bertan, Iruñako eleiz nagusian dago illobiratuta.....1244 - 1248

5. 9. I Blanka, Nafar erregiña.....1249 - 1251
5. 10. Nafar erregetzaren aria ostera artuta, Aragoiko errege IIn Juan Maltzur Aindiaren ekintzak.....1251 - 1252
5. 11. Nafartarren, anai arteko guda.....1252 - 1253
5. 12. Aragoiko jaurkintza.....1253 - 1256
5. 13. Oar labur baten bidez, emen ikusten doguna.....1256 - 1257
5. 14. Nafartarren Bianako printzea lez, IVn Karlosen kondaira.....1257 - 1261
5. 15. 25n Jauna Bizkaiko Jauntzan.....1261 - 1263
5. 16. Taket-arteko ondorio labur-bat, Bizkaiko Jauntza onetan.....1263 - 1263
5. 17. Nafar erregen arira ostera artuta, Nafarroako I Leonor.....1263 - 1264
5. 18. Nafar erregearen aria ostera artuta, Foix´tar leiñuan, I Franzizko Febo edo Ferboren izenagaz ezagutu zan Nafar erregea.....1264 - 1265
5. 19. Nafarroako erregetzan Foix´ko I Kataliñ erregiña.....1265 - 1273
5. 20. Oarpen labur bat.....1273 - 1274
5. 21. 1.789´ko Frantziaren iraultza.....1274 - 1276
5. 22. Karlisten iru gudak.....1276 - 1282
5. 23. Frankok egin ebazan alegiñak, Europa osoa, katoliko aberkide Izenean batzangotzeko, bere katolikotasunaren sakratuzko gurutzada Santuaren gudakaz.....1282 - 1283
5. 24. Europa eta Mundu guztian, o0rduan artu ziran erabagiak, zelango eragipenak eukiko ebazan gaurko lege araudietan.....1283 - 1284
5. 25. Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santi´ri emon bear neutsen erantsuna...1284 - 1285
5. 26. Lagun baten eritzia, Euskalerriko Edesti onen, ondorio bidez.....1286 - 1286
5. 27. Bearrezko oar txiki bat.....1286 - 1287

1. ZATIA N.

1. 2. *Euskalerriko edesti onen ondorioa.*

Franko bera, nai eleiz katoliko aberkidetzaren, edo ta orduan gaurko lez, Mundu edo Europan aginduten eben diruzale faziztaren aurrean, meza lagun bat baiño bakar bakarrik izan ez arren.

Menperatzaillezko erri irasle, edo katoliko aberkide kolonigilleak, Franko, ipini eben buru, Espainitarren erritarrak aukeratu eben Errepublikako gobernuaren aurka, IVn gizalditik agertuta egoan katoliko aberkidetzaren gurutzada santu ta sakratuzko eten bageko borroka ortan, Euskaldun, Katalan ta Galleguak erri ezberdiñekoak izan arren, borroka ortan sartuz, eta Agirre ta Lekube´tar Jose Antoniori egin geuntson azalezko ikutu bategaz, amaitu gendun, Euskalerriaren edestiko 12n atala, edesti luze oneri amaiera emonda.

Orain, goazan edesti oneri, lepazaillu edo beltxargak(1), euren bizitzaren azkeneko abesti edo oiu egiten dauanean antzera, goi aldeko puntan, askeneko kinda ipinten, al izan doten baitaren zentzuz, ta egizko maitetasun guztiagaz idatzi doten, Euskalerriko edesti onen ondorengotasunagaz (2).

1. 3. *Eskertu bear dodazanak.*

Leen eskertu bear dodazenak, nigaz benetako artu emon estu ta sakonak euki dabezanai, erakunde ta lagun lez, dira.

Euskerazaintza eta Euskerazaleen erakundeen bidez: niri, gazteleraz eta euskeraz idazteko bidean alegindu egin eusten, Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santi karmeldarra; Olazar ta Uribe´tar Martin apaiza; Zubikarai ta Bedialauneta´tar Augustin idazle aundia; Arrinda´tar Anes(Anastasio) apaiza, Solozabal ta Solozabal´tar Paulin apaiza; San Sebastián ta Zubillaga´tar Jose Mari, Josu Lagunen apaiza (Latxaga); Latiegi ta Eraso´tar Bizente apaiza; Azurza´tar Jose Joakin, lur-jakintzan maisu, eta Irrati ta tele-mezuaren ikasketak eginekua zana; Zatarain´tar Ambrosio; Oñatibia´tar Manu albaiterea eta bere anai Dunixi osagillea; Zubiri´tar Sabin eta Iñaki anai jakintsuak; Egileor´tar Jon; Bilbao´tar Jon Erramun; Akesolo ta Olibares´tar Aita Lino karmeldarra; Gaztañaga´tar Jesús apaiza; Murua´tar Jose Mari; Arzelus´tar Amale; Uriarte ta Euba´tar Ana; eta oraingo egunetan bizirik dagozan Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio, Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki, Fernandez ta Ruiz de Eskide´tar Karmele, eta abar.

Danez gain baiña, Onaindia´tar Aita Santi, ta Olazar´tar Martiñekin, alkarrizketa bidez eukiten nebazan arreman estutik, agertu ziran euskerazko ardurak izan ziran.

Onaindia´tar Aita Santik, oldozmen auek itanduten ebazan gure artean: "Eleiza Katolikuak, ainbeste zor euki Euskalerriaren seme alabakaz, leen, bere erdia baiño geiago, Josu Lagunen lekaidetza sortu ebenagaitik, San Iñasiori zor eutsolako,". "Eta beste erdia, Aita Bitoriak asmatu eban atzerritako Aberrien Eskubideagaitik". Bai ta, ainbeste zor, Euskalerritik, ainbat millakada lekaide, apaiz, ta lekaime mixiolari bialdu ziranagaitik". "Gaiñera, Erria bera, ainbesteko sinismen sendokoa izan, beti otoiz bizi zalako denbora onetan", "bai ta iñori,

(1) Lepazaillu edo beltxarga = cisne. (2) Bere bizitzaren azkeneko abesti edo oiu lez, azkeneko kinda ipinten Euskalerriko ondorengotasunari = como el último canto del cisne, poner la ginda a èste corolario històrico.

zekula ezeren kalte egin barik, beren demokrazizko zor-eskubidearen ardurak, ondo zaintzen ebazalako".

Zergaitik ¡!, ainbeste "ETSAI ta GORROTO, gure Euskalerri maite oneri ?".

Aita Santik egiten eban itaun oneri, neuk emon neutson erantzuna, Euskalerriko edesti bera, ikertzeko artu naban ardureagaz, gure alkar ekintzazko lanaren bidez.

1.996ko urtean Otsaillaren 11n, Gazteiz´en il jakun gure Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santi maitea, eta Uribe ta Olazar´tar Martiñegaz asi nintzan, berak idaz lanen zuzentasunak egiteko ardurean, geratuta.

2.008ko urtean Iraillaren 20an il jakun Olazar ta Uribe´tar Martin be, eta ortik ona, Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio Klaretarra, gaur daukazan 97 urtekin eroaten dauz idazkerearen zuzenketa oneik, Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki, ta Fernandez ta Ruiz de Eskide´tar Karmeleen laguntzagaz.

Irurak arrituten ziran, eta dira, nik aurkezten dautsodazan argibideakaz, eta kosta egiten jakie sinisten gauza orreik, nai, ain nabaritasunezkoak izan arren.

A ta guzti, danak onartzen dabe nik egiten dodan lan au, eta gezurtatu eziñezkoak diran lez aurkezten dodazan argibideak, ontzat emoten dabez.

Badaukat, Euskalerriaren orokorrezko apaiz, lekaide lekaime abertzaleak eskertzeko be, eurak izan diralako katolikotasunezko aberkideai aurre gogorra egin dautsena: Meza Santua euskeratzen; gotzai bertokoak ekarten aleginduz; gure umeari euskal izenak ipinita, atzerriko erroma ta godo´tar izen madarikatuetatik urruntzeko(1); ta batez be, Euskalerria, espainitarren katoliko aberkidetzaren kolonizazio ortatik urten egian, lan asko egiten ibili diranai, asken inguruan biribilduta emongo dotena.

1. 4. *Benetan eskertu bear dodazanak baiña.*

Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren erakundezko kide direzan: Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio klaretarra, Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki, ta Fernandez ta Ruiz de Eskide´tar Karmele dira.

Auek izan diralako: aurkezpen batzuen ta zuzentasun guztien egille, irudi, iragarki ta zabaltasunaren, aspergaitz ta nekegaitz-bageko arduradun ta lagun miñak.

Milla asko esker ZUEI, LAGUN MAITEOK.

1. 5. *Euskerazaintza ta Euskerazale erakundearen kanpotik, nire lagun aundi baten eritzia.*

Lan onen eritzi bat eukiteko, nire lagun aundi bat dan Garate´tar Felipe karmeldarrengana joan nintzan, eta onek irakurri ta gero, asken orrialdeako be aldian, auxe ipini eban:

-Alegin ikaragarria egingo dozula argi dago.

-Dana, ez da izango dogma, edo sinesgai onartzeko tesia, "baiña ordago bat da", dana eskuz jokatzen ibili dirinei.

(1) ¡ Ez dira madarikatuak Erroma ta Godo´tar izen orreik! = Bai biurtzen dira madarikatuak baiña, euskal izen abizenak kolonizaziozko ekintzan, aienatzen edo ezereztutean alegintzen diranean, ta neurri orreitan izango dira madarikatuak, berezkotasunezko arrazoiaren aurka dabizelako. Ainbeste urtean gaiñera.

Beren erantzuna artu ondoren, atari onen aurkezpena, berari emotea erabagi neban, eta au da berak erantzun ebana:

-Asierako denboratik gaurkorarte jorratzen dauz kondai-ikertzaille Paulok, gizakiaren sorrera, zabalkuntza, antolakuntza, ugaritzea munduan..., eta zelan, senditasuna, izkuntza, legeak, erlijioa, dana loturik, Euskalerriko euskaldunak aberri batekoak lez senditzen ziran.

-"Jaiotzatik doguzan lege berezkoak dira artu bear doguzenak, arrazoitasunezko arimak izateko. Egilleak, bereiztutako legeen orokortasunetik, artzen ba dituguz".

Bai, baita naiz greziar izan, naiz kretiak, naiz kaukasotar, naiz bereber, naiz keltiar, naiz feniziar, zoritxarrez munduko jauntxo biurtuta gizadietan zear, ez dago iñor besteen menperatzaille izateko, eskubide daukanik.

-Gure izkuntza zarrean sinistu ta biziz, euskaldunak, gizartearen sostengu eta eredutzat artu al izan dira, bideak eta joan etorriak eginez munduko lurralde, itsaso, ibai, basamortu, mendi zein aranetan ibiliaz.

-Edestiaren kritika onen bidez, alegin onegaz Paulok, ziurrezko barri ugari ezarri dauz, eta "ainbeste gerizpe aundiak" gerizpetik argitara eroan, baita astindua emon, ain ziurtzat bota diran okerreko egi maltzurrezko batsuei.

Bejon deizula. Zure lagun batek.

1. 6. *Euskalerriko edesti au osotzeko, badaukadaz, zor dodazanak be, Deustuko Ikastetxe Nagusien liburutegi, ta liburuen bidetik artu dodazan argibideak eskertzeko, baita orrez gaiñ.*

-Lasa ta Apalategi´tar Jose trinitarioaren: ***"El pueblo Vasco, democracia y testigo de Europa"´.***

-Idoate ta Bera´tar Gregorio Biotzaren taldeko lekaidea: ***"Navarra y las Cruzadas"*** idatzi eban liburutik.

-Zubiaga eta Legarreta Felix´en: ***Origen del Vascuence.***

-Beragaz egonda, Gazteleraz emon eustazan ***Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo***. Eta euskeraz idatzita daukan: ***Euskara ermeneutika*** liburuetatik artuta.

-Liburu oneik Internetetik atarateko daukan elbidea:

http://www.todoebook.com/Erroteta/

-Arrindatar Anastasioren ***magia y religiòn primitiva de los vascos.***

-Arturo Kanpionen ***Navarra en su vida històrica.***

-Ugaldetar Martinen: ***sìntesis de la historia del pueblo vasco. Eta iru liburutan idatzi eban: nueva sìntesis de la historia del pueblo vasco.***

-Auñamendiren edestiko liburu-bildumatik.

-Gran Diccionario Enciclopèdico Ilustrado ***Selecciones Del Readers Digest.***

-Nuñez ta Astraintar Luisen: ***El Euskera Arcaico*** (extensiòn y parentescos) liburutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.

-Euzkadi Online: ***la primitiva lengua de los antiguos europeos***. Interneteko elbidea: ***email@Euzka-diOnline.com-***

-TOPONOMIA VASCA EN EUROPA
-Prehistoria, de la Universidad Nacional de Educaciòn.
-Anastasio Arrindaren: ***los vascos de la magia al animismo***. Eta ***los vascos de la caida de Roma al cristianismo***.
-Santso el Sabio´ren liburutegitik, Deustuko ta Euskalerriko Ikastexe Nagusietatik, ainbat milla datu ataratekoak.
-Barandiarantar on-Joxemielen ***Euskal-Kulturaren Aitalen***, baita bere lan kopurutik artuta daukazanak.
-Latiegitar Bizentek: ***Euskal Kristautasunaren Sorkuntzatik asita, daukazan bederatzi liburuetatik***.
-Europan, genetika bidez egin diran ikerketatik, ikusi genduzan be, Wennemanntar Teo, germaniar ele-jakintzaren maixua, Fostertar Peter, Kanbridgesko ikastetxe nagusian genetika´ren irakaslea, eta Ameltar Elisabeth berrien idazleak, euren azterraldi sakonetik, zelan esaten dabela: Euskaldunak ta Euskerea dirala, Europatar arbaso edo Aiton Amonak.
-Euskal Liburuetatik, eta baita lendik, idazten nebazanak argitzeko, ainbat liburuetatik artu dodazenagaitik.

2n ZATIAN.

2. 1. *Europa sortzen.*

Goazan ba, idatzita daukaguzan 12 atal edo liburuzka onetatik, Euskalerriaren menpeari ondorengo lez, garrantzienetariko erantzuna emoten, al dogun zeaztasunezko argibideakaz adierazteko.

Argibide zabal bat emon gendun Europa sortzeko, leenengo atalean, eta azalkera labur bat eginda, berau geratzen jaku:

K.a. orain 500.000 urte inguru, Europako lurraldetara sartu ziran lenengo Neardentalak egin eutsoen, eurak izan ziralako bakarrik geratu ziranak, ***Wurm*** deritxon azkeneko izotz-aldi ostetik.

2. 2. *Omosapiensen zabalkuntza:*

Omosapienseko giza, 30.000 urte sortu zanetik, 150.000-10.000 gorengo Paleolitikoaren asken denborak, edo Arri Aroko aldiak ziren izotza urtzerakoan, Afrikatik urtenda, Asia ta Europara zabaltzen asi zan, euskerazko leen izkuntz, edo len-ereduzko euskereakin, eta oiñarrizko oitura bardin batégaz, Atlant-Itsasotik Ekialdeko Indiaraiño.

Kontuan euki bear da, denboraren aldi guztietako zeregiñ oneik, nai azturazko bizitz onetan, ditekezen izakizunetan, aurrerakuntza aundiak euki arren, denbora guztiak, bardiñak dirala, Giza seme/alaben bizitzazko edesti guztiko ekintzan, beti, ekanduzko zeregiñ bardiñetan sartuta gagozelako. Eta besterik ez dalako agertzen, ori esan leike dala, Jaungoikuaren agindua. Bai ta, gizaren aztura-bideko aurrerakuntza, biur edo zurgu-biribil lakoa izan dala(1) beti, nai lenengoetan eta ikasteko azturaren bideak, neurri estu-estu batekoak izan arren.

(1) Zurgu biribil-lakoa izan = crecimiento, en forma de bucle o espiral en el abance diario vital, sin que nunca fuera diametralmenete estàtico, o sin avance en la lògica empirica, porque siempre se avanza aunque poco en principio, con la eliminación de las posibilidades practicadas.

Izadi onen ezaguntzan ibilita lenengo alditan, olako neurria al izan giñelako bakarrik emoten, kiribil edo zurgu-biribillezko aurrerakuntz orreri.

Geroagoko diketezenaren arloan sartu ondoren, eta oinkada neurrian, gero ta azkartasun geiagoagaz zabaltzen joanda, gaurko egunetan, erreztasun aundiz aundiagotu egiten doguz, diketezenaren arlo(1) orreik. Nai ta, gure jakituri ta ekintzak, leen aldiko asierakoak izan arren, gure jakintzazko bilbakuntza(2), ekanduzko lanean amaitzen dalako.

2. 3. *Barandiaran´tar On-Joxe Miel´ek esaten dauana, eta Euskerea.*

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da, eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 15.000-10.000 urtearen inguruarte.

18.000-15.000 urteko aldi onetan esaten dau On-Jose Mielek, Euskaldunak artu ebela gaur daukan giza-itxura, edo Kromañoien itxuratik, gaurko Euskal-Nortasunaren itxurara aldatu giñela, Paleolitiko Neolitiko bitartean edo mesolitiko aldi onetan, euren alegiñezko batzarkidetasunaren egizko bidetik, askatasunezko demokraziaren zentzu aundiena lortu ondoren.

Kontuan artu bearda, denbora onetan, edo ta milla urte askotan beintzat, K.a. 2.000 urterarte, ekialdeko Sargonidasen menperatzaillezko alegiñetik iges eginda, Keltiar leiñuak alderrai, Alemaniako ekialdean agertu arte, iñor ez zala agertu emengo lurraldetatik, eta Eskoziatik Kadizeraiño, ta Atlant Itsasotik Alemaniaren Ekialderaiño emen, ez zirala egon besterik, euskaldunak baiño. Ariñauko eta geroagoko urte kopuru orreitan, euren Baita barnean lortuta, Euskaltasunak daukan Askatasunezko Demokraziaren zentzun edo ulermen aundi au.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten, eta bera agertu zanean, aurreko Neandertalak euren artean ezereztuta, sortu zan giza mota au, izan zala, Asia ta Europatik zabaldu zan gizartea, bere leen Euskerazko izkuntz azturan, gaur arte.

On-Joxe Miel´en esanetan, euskaldunak, bertoko perretxikoen antzera, beti bizi dirala emen, euren ikertzaillezko emaitzak alan agertzen dabelako.

Ikusi genduzan be, Wennemanntar Teo, germanitar ele-jakintzaren maixua, Fostertar Peter, Kanbridgesko ikastetxe nagusian, genetika´ren irakaslea, eta Ameltar Elisabeth berrien idazleak, euren azterraldi sakonetik, zelan esaten ebela: Euskaldunak eta Euskerea zirala, Europatarren arbaso edo Aiton-Amonak.

Bai eta Zubiaga ta Legarretatar Felixek, esaten euskuna, bere argitaratutako liburuan ***Origen y desarrollo del lenguaje***(3) 49n orrialdian, Euskerearen buruz: "Munduko gizartetan, mintzoeraren jaioera, eta beren azalkuntza, oituraren azkerazko edestian esanda, munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala, bere neurri guztietan".

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu, eta ipuin legez, adierazi ezkero, edesti ta edesti-aurre onena dala, ***"Erromako kaisar menperatzail-merkantilista, ta katoliko aberkidetzan kolonizatuz batzangotzeko, dabizen norkerizkoen aurka"***. Berezko gizatasunagaitik iñoz azaldu, esan, edo ta edatsi(4) ez dan benetako edestia dalako.

(1) Milloikada asko alboratu egin doguzalako diketezan arloetan = por los muchos miles de millones de posibilidades que hemos desechado en el campo de esas mismas posibilidades. (2) Bilbakuntza = evolución, en èste caso vital sapiente. (3) Según el vascuence. (4) Azaldu, esan, edo edatsi = describir, decir, contar, narrar, explicar.

Maixutasunezko lan ederra benetan Zubiaga ta Legarreta´tar Felix´ek egin dauana, euskaldun guztiak, eta batez be jakitunak, irakurri bear leukiena, gure euskal askatasunezko demokraziaren sinismenean sendotu gaitezen, eta Europan erakutsi, bera dala orain be, asieraren ***izarrezko*** argibide onena, izadi onen giza, zentzutasunezko ***orubean***(1) eseri edo kokatu daiten.

Orregaitik, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan, Izkin bakarreraiño eltzea, eredu nagusiren ozenezko(2) iturria argitzea da. Eta Euskerea, izkin bakarreraiño eldu al dalako, orain ezin da esan, alderatzailleak(3) esaten daben antzera, ***Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.***

Baita mintzoeraren oguzpeneko(4) jaiokeran, bera dala berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik, eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan, ***izkuntz bakarra da.***

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño, obeto ezagutzen dau beren jatorrizko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartzezko itzaren antolakuntzan, eta entzutezko abotsetan, irudi lez, irarrita daukazelako.

Oso zabal ta argi itzi gendun 1go atal onetan, Euskaldunak, euki genduzan Askatasunezko Nortasun Demokratikoak, eta Aita Henao Cejador´tar Julio, ta Luzuriaga´lakoak, Euskerea ta erlijioagaitik esaten dabena: "Euskaldunak nai ta sorgiñkeriakaz ibili arren, beti izan garela monoteismu edo jainko bakar baten eritxikoak, leenengo atalean ezauntzara emoten dogun lez, bigarren atal edo aurrera joan gaitezan, Euskalerriaren ondoriozko edesti onetan.

2. 4. *Iberoak dirala ta.*

Neolitiko Mesolitiko denborak, edo askeneko arrilanduen legunketako(5) aldiak, K.a. 10.000 urtetik 5.000 urterarte izan ziranetik, gero Eneolitiko edo menast(6) aldiko denboran sartzeko, aldaketa aundiko denborak izan ziran:

-Eiztariak izatetik, artzain izatera aldatu giñelako.

-Landarearen mozkiñak batzeagaitik, lurgintza edo nekazaritzara aldatuta.

-Xautzaille izatetik(7), egille izatera aldatuta.

Euskaldunak, asieraren urbilletàtik, beti egon gara euskerean jendekuntzatuta, edo gaimundu onetara jaio gintzazanetik, aurrera bai beintzat.

Eta aurrera edo azturazko Jendekuntzaren zurgu-biribil edo bukle orreitan sartuz, beti joan gara, Jaungoikuak bereztu Ebazan Lege´en eskaerari, bear eben bereztasunezko erantzunak emoten. Azterkatu ondoren, beti jakin gendulako erantzun ederrena emoten, gero ta gure Nortasunezko Baita, nabari sendotzen joanaz.

Izen oneik, estal-itz(8) edo esateko era baten, ibero orren agerkera ez zan izan, euskaldunak egin genduzan aldaketak baiño besterik. 1´go atalean, argi datorrena.

Eta 4.500-2.000 urte bitartean, sortu ziran orduko gizartearen aldaketa aundienak, berotasunezko eguraldiak agertu ziranean sortu ziralako.

(1) Orubean emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo. (2) Ozenezko = sonoro. (3) Alderatzailleak= comparatistas. (4) Oguzpeneko mintzoera = pronunciaciòn articulada. (5)Legunketako aldiak = tiempos de la piedra pulida. (6) Eneolitiko edo menast dembora = perteneciente al periodo prehistòrico de transiciòn, entre la edad de piedra y la del bronce. (7) Xautzaille izatetik, egille izatera aldatuta = de ser expendedor, o, gastadores, que pasaron a ser autores, o, componedores. (8) Estal-itz = disimulo, eufemismo.

Eguraldien berotasunezko aldaketa oneikaz, eizaren oitura apur bat bastartuz, basauntzaren eziketetan, ta arri-landuen bidetik, etxegintz ta erriak sortzen asi ziran, bai, bei, txerri, ardi, zaldi, ta basauntzaren eziketara(1) aldatu, artzainketan edo abere zaintzan asi ziranean, domu bidean(2) oso osoan sartu ziralako.

2. 5. *Leenengo zati bi onen Ondorioa.*

30.000-18.000 urte bitarteko leenengo denbora auek izan ziran, leen ikasteko maillakuak, lurreko legeari begituta, eta konturatu ondoren, goian, Zeruko edo Jaungoiko Sortzaille edo Iraslearen agindupean egon giñela.

2. 6. *Gizartean, Ekanduz ibili bear direzan legeak.*

Urte askoren bidez, bereala konturatu ziran, euren eskuetan ez zala egon, iraslearen almenik edo sortzailletasunik, eta ezin gendula gure kontutik, iñungo legerik atara, lege orreik, nor-beren eritziz sortuz, norkerizkoak biurtuta agertzen diralako.

Orregaitik, eta danon bardintasunagaitik, egin bear zan guztia, Ekanduz, edo danon zor eskubidearen zentzuan, bereztasunak daukazan legezko artekaritzarekin egin bear genduzela egin bearrezko trukeak konturatu ziran, eta orrela bideratu ebezan euren egin bear guztiak, zaintzailletasunaren batzartasunezko bidetik, eta batzarrezko bide orretatik, berez agertu ziran, Askatasunezko Demokrazi aundi baten.

2. 7. *Euskerazko Izkuntza.*

K.a.18.000 urte, K.a. 2.000 urteraiño, oraindiño azturazko bide estutik, eta aurrera begituteko, diketezanak ezagutu ondoren alboratuz, Euskaldunen euskerazko mintxoera, jendekuntzazko arloetan sartu gendun.

EUSKEREA, Nortasun ta izen buru lez artu gendun, eta bai ta egiten zan guztia, erindu, garbitu ta gardenduaz(3), danok dekun Baitan irarritu gendulako, era orretan edertu gendun, sinistu ezin dan lekuraiño, guk daukagun euskal izaera, zor-eskubideen bidetik ibili bear genduzan ekintzak, Askatasunezko Demokraziaren mailla aundira eroanda, euskerearen Jendekuntz aundi baten ezarri gintzazalako.

Eta aberkidetasun orreri esker lortu gendun, etsaieri aurre egitea, baita gero, gure denboran, erlijio katoliko aberkideen ziñezkitzatuko eritziagaz, gurutzada sakratu ta santu lez agertuko jakun katoliko mamutzarrari aurre egitea, euren kolonizaziozko ta zitalezko kaisar asmakuntzetatik bizirik urten gendulako. Oraindiño, ez dira konturatu, katolikotasunean aberkidetzeko "Urrezko Tzekor" ori, ez dala, guk bear dogun benetako jaungoikua, eurak asmatuz, diruan mozorrotutako sasi-jainko bat bakarrik dalako.

Egizko JAUNGOIKUA goian, daukagulako zain.

Oraiñ, guazan ikustera, noz azten diran menperatzailletasunak sortzen, eta zer gertatu zan Euskalerriagaz.

3. ZATIAN.

(1) Etxegintz ta basauntzaren eziketara, aldatu zirela = tiempos en que pasaron a ser constructores de casas, y domadores de animales salvajes. (2) Domu bidean oso osoan sartuta = metidos totalmente en el precio, o valor de las cosas para el intercambio. (3) Erindu, garbitu ta gardenduaz = refinar.

3. 1. ***Atlant Itsasotik Alemaniaraiño, ta Eskoziatik Kadiz edo Ispaliseko(1) ibaiaren euskal lurralde bitartean, euki genduzan leen atzerri edo erri alderraien sarrerak.***

Ondoriozko lan au, luzatu ez egitearren, eta XIIIn atal onetan sartu zedin, Asia, ta Ejiptoko edestiak, baita Greziaren edestiko ikutu txiki bat izan ezik, alboratu bear doguz.

Leen, ondo idatzita dagozelako Euskalerriko edestian neure ustez, ta bigarren, nai ta berriz jakiteko gogoen egarriaz geratzen bagara, beti daukagulako gure esku, idatzitako edestia.

Europaren Ekialdetik Mendebalerantza alderrai etorri zitezen, edo agertu ziran giza leiñuei, emon bear dautsagu leentasuna.

-K.a. 500.000 urtetan 50.000 urterarte Neandertalak, eta gero Omosapiens edo Euskaldun biurtu ziranen ostetik, ez zalako iñork agertu ainbeste milla urte ostean, K.a. 2.000n urtean, Keltiarrak Alemaniako ekialdean agertu arte. Eta auek, bigarrenak izanez gain, ez ziralako zabaltzen asi K.a. 800 urterarte. Epe aldi luze ortan, artu emon ona euki eben, Euskal giza leiñuakaz, aurrerakuntza aundiak ekarri ebazalako. Euren indarrezko edertasun aundiena, K.a. 4n gizaldian lortuz.

K.a. 600eko urtetan zabaltze ori amaitu ebanean, franko leiñukoak, Loira gañean ta Normandiako bitartean kokatuta geratu ziran betiko, ortik bideratuta euren zabalkuntza, franko leiñu lez Auñamendiko mendiketararte.

-K.a. 1.250eko urtean, Fenizioak agertu ziran Itsas bazterretatik zabalkuntza aundiz, euren sal-erosketakaz, euskaldunen artean ez ebena kalterik egin, ta bai artu emon ona, Anibal´eri laguntzeko, K.a. 218ko urtean Tarrako´tik(2) Erromaren aurka joan zanean.

-Edestilariak, Euskaldunakin berdinkatu(3) egiten dabez Etruskoak, iñork ez jakin arren nundik nora agertu ziran. Ondo argituta dagoena bere atalean.

Dana dala, K.a. 1.100´eko urtetatik Etruskoak, ondo ezarrita egon ziran Arno ta Tiber ibai artean.

K.a.753ko urtean eta euren salerosketarako, eraikiten ebazan uriak, lapurretatik babesteko, Ramnes, Tizioak eta Luzereakaz alkartuta Espartarren itxuran, gudalozte bat antolatzea erabagi eben, gero Palatino ta bezte mendiakaz kokatuta, Roma-Kuadrata deituko zana.

Ez ziran, erabagi orregaz bakarrik geratu, salerosketetan danoen artean aituteko, Grezitar izkitegi edo iztegiagaz, Latiñ izkuntza sortu ebelako.

K.a.VIIIn gizaldi erditik onantza Etruskoak, euren zabalkuntza erabagi eben, eta eurak sortu eben Erromatar gudalozte orreitan, gizaldi bateko agintaritza euki eben.

Etruskoak, Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia, ta Korzikako ugartea menderatuta euki arren, Paleolitiko-Neolitiko alditan lortutako demokraziak, eta orduko Uri nagusiak euki ebezan oiturazko bereiztasun demokratikoak, ez eutsen izten batzango edo batasun batera eltzen, eta K.a.VIn gizaldean Erromatar gudalozte orreik, menperatzaillezko indarra artu, ta Etrusko eurak menderatu ondoren, euren Errepublikazko itxuran sortuz asi ziran Erromatar gudalozteen gorputza artzen, menperatzail biurtu ebena, Europa, Ekialde ta Afrikako Uri nagusiekaz geratzeko.

-Ispalis edo Erromatar Betikako lurraldeetan, gero mauritarren menpe bidetik Andaluzian biurtuko zanean, beti danik bizi ziran Tarteso, Turt edo Turdetano, Turdulo eta abarrezko euskal leiñuak, Erromatar gudalozteak agertuz, dan guzti orreik menperatu arte.

(1) Ispalis ibaia = rio Gudalquibir da. S, Zta lez esan eskero, ur-lastera esangura daualako euskeraz, eta pal, errekeak sortzen dabezan zelaikada edo Ibarrak. (2) Tarrako = Tarragona. (3) Euskaldunakin berdinkatu = que los historiadores, comparaban a los Etruscos con los vascos.

Greziako Estrabon, edestilari ta geografo edo lurrak bere neurrietako jarkeran margoztu egiten eban gizonak Erromatarren serbitzura, ango bistanleagaitik esaten eban: "Iberotarren artean, jakitun aundienetariko lez euki ebezala Tarteso, Turdulo, edo Turdetano oneik, euren salerosketako "garu" janari, ta eguneroko lanetan ibili ondoren, idazkera ezagutuaz gain, 6.000 urte baiño lenagotik gogora etorten jakiezan lege ta kondairak, itz-neurtuko bertsoetan abestuten ebezala, euren artean aurkari (emen gure gaurko bertsolariak), edo nor geiagoka lez, eta bai ta keltiarren agerkeratik, aurrerakuntza aundia artuta egon zirala. Bere atalean, ondo zeaztuta dagoena".

3. 2. *Erromatarren zabalkuntza.*

K.a. 510eko urterarte Tarkino´tar Luzio "Arroputza", Etruskoen asken errege izan zanari, bere erregezko ezar lekutik kentzeko, K.a. 510-509ko urte bitartean, Junio ta Bruto´tar Luzio, eta Tarkino ta Kolatino´tar Luzio matxinatu ziran, eta Tarkino "Arroputz" ori, bere erregetzatik kendu ondoren, Errepublikako jaurkintza ipini eben. Jaurkintz ori, aundiki edo Erri-Gurasoen eskuetan geratu zana, senatore batzar lez.

Kartajinesaren edo Fenizioaren aurka, amaitu ezinezko guda punikoetan asi ziran.

Leena, K.a. 264-241 urte artean amaitu zana, Erromatarrak, Sizilia, Zerdeña ta, Korzegaz geratuz, Iliria, Galia Zisalpina eta Erdiugarte edo peninsula onetara zabalduta.

K.a. 149-146ko urte bitartean Kartago menperatzen dabe, eta Kristo il ebenetik, nai goi aldian egon arren, euren maldabera asi zan.

Erromatarren lana, oso gogorra izanda, euren gudalozteakin euken kaizertza, Mundu onen goialdian eukiteko, eta ezagutu ziran gizarte guztiak Erromatar biurtzeko, etenbageko alegiñ gogorretan ibili bear ziran lez danen aurka, Mundu onen errigizarteak, euren bereztasunaren azturazko ibil bidean, lortu ebazan jendekuntzaren ekanduzko oitura ta izkuntza ederrak, ispillu apurtu baten zatietan begituta lez, milla baragarrizko latin-kume edo erromantzezko latin-kumezko zatietan agertu jakuzan jendekuntz orreik, beragaz, errien ekanduzko oitura ta nortasunezko zentzuaren arloetan, berakada aundi bat eginda, eta ortik asi giñan naita nai ez, guzur aundi baten gaiñean zaldikatuta ibilten.

Ta Erromatar eurak be, neurri orretan joan ziran, kaisar zentzua galtzen, IVn gizaldiko asieran, Kristoren eriotza sortu ebenetik, bizitz onen ekintza guztiak, beretasunezko legean zuzendu barik, edo berezko legeen Ekanduzko eran antolatu edo zuzendu bearrean, egizko zentzu guzti orreik, norkerizko guzurraren gaiñean zaldikatuta ezarri ebazalako.

3. 3. *Kristautasuna.*

Kristo ilda gero, sortu zan Kristautasunezko eritzia, Goiko JAINKO baten eritzian ezarri gurean, gorantza joan zana etenbage.

Bere irakaskintza: Jainkoagandik etorri ta gure giza anaiekaz euki bear gendun ardura aundiko begirunea; Errigizarte artean alkar artu emonetatik euki bear zan ardura aundi ta garbitasunezko zintzotasuna; Errukizko sariakin bizitzea; Bai ta edozein gauzatarako laguntzak; Eta zor edo eskubideko zor-ordaiñak, egiaren ekandu aundiko ardurean egindako irakaskintzakaz bizi bear zala bizitz au esanez, Jesusek, bere berezkotasunaren zentzuzko oldozmenetik, alan egokitzen ebazalako eritzi orreik, artu eban ospe aundi ori.

Gero euren arteko batzuk, Jesús, Jaungoiko bat lez artu gurean ibilita, geienak, Munduko giza guztiaren antzera, Jaungoikoaren seme lez artzen eban, Kristautasuna erlijio lez, Arriano gotzaiaren eritzi ortan ezarrita.

Erromatarrak, arraiñaren sinezmenekoak artu ebazan errukari nagusi lez Kristo il orduko, eta ainbat sarraski euren artean eginda, gero Kristo ostean, oneik errukari artuz, makiña bat kristau eskegi ziran, erromatar gurutzetan.

Kristo il ebenetik leenengo urte onetan 325eko urteraiño, Arrianoren erabagi ortan egoala kristau sinismena, eta Erromatarren asmo eritzi ta menpetasuna, nai bere aunditasunean egon arren, maldaberan egoan ezin beste, eta urten bide baten bat aurkitzen ibili ondoren, I Konstantinok, erabagi gogor bat artu eban, eta I Silvestre Aita Santuagaz alkartuz, Mundu osoa katoliko aberkidetzan kolonizatzeko, erlijiozko katoliko eritzi barri bat sortu eben, Munduko giza guztia erlijio orreitan batzangotzeko.

3. 4. *Gaurko Aldi barri asieratik, Kristautasuna sortuz, ta Katolikotasuna irasi ondoren, gaurko egunerarte gertatu zana.*

Argi dago, kolonizatzail asmatzaille jauntxar ugari egon zirala denbora aietan, mundu onen Eki alde ta Mendebaleko errigizarteak, euren menpeko batzangotasunaren sasinaieran zuzentzeko. Eta 325eko urte onetan, Jesus jainkotu gure ebanen artean, bai ta I Konstantino Erromatar kaisertzagaz, Mundu osoa, Erromatar biurtu naian ibili zan, I Silvestre Aita Santua, ta Osio Kordobako gotzaiñaren laguntzagaz.

Dojma araus edo ziñeskintzazko erlijio baten, kaisar agintaritzapean gura ebenak, eta emen sortu eben katoliko aberkidetzagaz, lortu eben guztiz, Goiko Jaun Irasleak, Izadi oneri ipini eutsozan legeditik urruntzea, ezin besterarte.

Eta Munduko gizarte guztia, guzur aundi baten gaiñean zaldikatuta ipini euskulako, judu, mauritar, kristau-katoliko aberkidezko erlijio orretatik urten ezinik geratu giñan.

Ni arrituta geratzen naz, gizon areik, nai Aita Santu edo kaiserra izan arren, nundik atara eben baimena, Goiko-Jaun edo ta JAUNGOIKUA, euren ebaketazko maira jatsi, ta burua iru zatitan banandu ondoren, irurak, bakotza bere aldetik, jainkoen izenakin jantziz ipinita, aita-seme ta ar-usoan biurtzeko. Errigizarteak, naasi, astoratu, edo Jaungoikuaren aztarnak galdu egiezan(1) egin ez arren, euren esanetan.

Kristo il zanetik, erromatarrak, kristauen atzean iltzeko ibili egon arren, lasai ta bakez bizi ziran oneik, Arrianoren eritzian ezarrita, arik eta I Konstantinok, K.o. 325eko urtean, Erromatar Mendebal ta Ekialdeko kaisertzak lotu arte.

I Konstantinoren jaurkintza ezagutzen zan mundu onetan, Asia Txikerraren Eufrates´eko ibaitik, Atlant itsasoraiño, eta Afrikako Sajaratik, Eskoziaraiño mugatzen zan.

Oartuta egon zan I Konstantino baiña, bereztasunaren aurka asmatutako Erromatar Kaisertza ori, ezin ebala aurrera eroan, berari surkaiztu edo eutsiteko, beti ta etenbageko gudalozteak bear ziralako, eta oldozmendu ondoren, Erromatar Kaisertza ori, Kristau erlijioagaz alkartzea erabagi eban, Mundu osorako, katolikotasunezko aberkidetza irasiz.

K.o.325eko Loraillaren 20rako I Konstantinok, I Silbestre Aita Santuarekin alkartuta eta

(1)Edo Errigizarteak naasi, astoratu, edo Jaungoikuaren aztarnak galdu egiezan egin zana = que se hizo para despistar las creencias de los pueblos, o, para despistarles en las creencias del DIOS CREADOR por lo menos, y asi opacar la visiòn que debiamos tener por las leyes naturales, que ellos querian desapareciesen, para imponer sus preferidas leyes y vivir como dioses.

Osio Kordobako gotzaiña eta San Atanasioren aolkularitzagaz, Asia Txikerraren Bitiniako lurraldean, eta Marmarako itsasondoan dauan Nizea(1) urian, I Eleiz Batzar Nagusia batzeko agindu eban.

I Silbestre Aita Santua gaiso edo zarra zalako, ez zan juan eleiz batzar orreitara, eta ordez, Kordobako Osio gotzaiña bialdu eban, Biktor eta Binzentius apaizak beragaz, maikide buru izateko, orduan ezagutzen zan mundu osoaren 300 gotzai batutakoen aurrean.

Osio Kordubako gotzaiñ ori, Aita Santuaren ezean, antzerki orren antzezlari aundienetariko bat, biurtuko zan.

Konstantino`k, Arrianoren ikaspidetza baztartuz ta ziñauskerira gaitz etsiratu(2) ondoren, Arrio eskomunikatu eben, onek, bere lagun Nikomediako Eusebioren ondora iges eginda, I Konstantinok, aukeratu eben Katoliko aberkidetza, siniskizunezko aitortzan(3) biurtu ebalako.

Noren eskubidetik ?.

Len ikusi dogu, zer gertatzen dan, guk irasitako legeakaz, Jaungoikuaren Bereztasundutako Legeditik artzen ez ba dira, Norkerizkoak biurtzen diralako(4).

Eta I Konstantino onek aurrerantzerako, Iru baldintza oneik ezarri eutsoezan Mundu guztiko giza´ri:

a) .-***"Mundu guztia, kaisarjaun baten azpian egotea".***

b) .-"Judu Katolikotasunezko erlijioa, mundu osoarentzat izan dedilla".

d) .-"Ta Latiña, jendekuntzaren gaillu lez(5), Munduko erritarte guztiarentzat, betirako oiñarriturik".

325eko Loraillaren 20tik Bagillaren 19rarte, Kredoa ezarri eben sinismeneko ikur lez Mundu osoaren katoliko guztientzat, edo ta naita nai ez, Munduko giza guztientzat.

Eta 325eko urtean Uztaillaren 25ean amaitu ziran, Nizeako batzarraren eginkizunak.

330`eko urtean Konstantinok, Bizanzio izan zanari, Konstantinoplaren izena ipini eutson, Europa ta Asiaren erdian egoalako, eta batera, Mendebaleko ta Ekialdeko Kaisartzaren bitartean egon zalako.

Ez eben kontuan artu, erabagi orren ondorio bidetik, 395`eko urtean, Mendebal eta Ekialdeko kaisertzak, betirako bananduko zirala.

334-335eko urte bitartean I Konstantinok, Arrio´ri deitu eutson ostera, Konstantinoplara joan zedin, bertan, Arrio gotzaiñak euki eban eskomunikazio edo eleizatik kanpora botateko agindu ori, beren gaiñetik kentzeko.

Ez zan Konstantinoplara eldu baiña, 336ko urtean Nikomediara eldu zanean il zalako, eta ortik aurrera, Arrianotar jarratzailleak asko ugarituta, amaitubageko borrokak euki zituzen, I Konstantinoren ondorengo batzuk, Arrianismoaren jarratzaille biurtu zirelako.

337ko urtean il zan I Konstantino.

Eta 340ko urtean, IIn Konstantino kaisar aulkira igonda, bere anai Konstantegaz asi zan borrokan, Konstantek, Italian euki ebazan jabetzak, menperatu ebazalako berentzat.

Alderantziz sortu zan baiña, Konstantek borroka orretan, IIn Konstantino il ebalako.

I Konstantinoren irugarren seme, Flabio Julio Konstante oneri, aitak kaisertza iru zatitan banandu ebenetik, Afrika, Iliria ta Italiako jaurkintza emon eutson.

(1) Nizea = Asia Txikereko Frisia lurraldean eta Marmarako itsas ondoan egoan Uria. (2) Siniskizunezko aitortzan biurtu eban = que lo convirtiò en creencia de fè sacramental, o, dogma sacramental de fè. (3) Gizonak irasi eban aberri katolikoak = que los nacionak catolicismos que el hombre creò, estan fuera de todo contexto natural, y por tanto divino, o, de Dios Creador, siendo totalmente personalistas dichas creaciones. (5) Jendekuntzaren gaillu lez = que al latin, lo convirtieron en vehiculo transportador de la civilizaciòn, o idioma comùn para todo el Mundo.

Eta bere lengusu Dalmazio il zanean, euki zituzen gudalozteak menperatu ondoren, Mazedonia eta Greziagaz geratu zan, baita IIn Konstantino anaia be, Akileyan il ebanean, Galias´eko lurraldeakaz geratu, eta Arriano irakaspidetzaren aurka agertuz, San Atanasio, bere aberkide katoliko lekuan ostera kokatu eban, IIn Konstazio(1) anaiak euki eban eritziaren aurka.

350ko urtean Flabio Julio Konstante onek baiña, Majenzioren keiñaduratik erdi ugarte onetara iges ibili zanean, Magenzioren gizon iltzailleak il eben.

IIn Konstanziok baiña, ekialde ta mendebaleko kaisertzagaz jabe geratu zanean, Arrianismoa berrezkuratu eban, eta Kordobako Osio gotzaiña ta Erromako aita santuari, ziñez itz emon bear izan eutson, bai ta izenpetu be, eurak, Arrianoren irakaskintzazkoak zirela.

381eko urterarte iraun ebezan borroka oneik, Konstantinoplako eleiz batzarrean, Arrianoren irakaspidetza menperatuta geratu zan arte, Teodosiok, Nizeako katolikotasunen ikurra dan Kredo edo sinisbideko otoitza ezarrita.

Menperatu esaten dot, erromatarrak 409ko urtean ezereztu edo aienatu ziranean, Godoak izan ziralako, Arrianismo orregaz, aurrera egin ebenak.

Konstantinoplako eleiz batzar onetan, beste arrigarrizko gauza bat be egin zan, Arnas Saindu edo ta Izpiritu Saindu, edo uso-ar ori, Jaungoiko ta Kristoren maillazko neurrira igotea erabagi zanean, Irukoitz Deunaren irakaspidetza ezartzeko.

Irukoteko irakaspidetza onen aurka egon zan Arrio gotzaiña, eta bearrezkoa aurkeztu jakien, katolikotasuna baztartzea, katolikuen kolonizaziozko ziñeskintza orreik, ez egiezan aurrera eroan.

3. 5. *Oar txiki bat emen.*

Katholiko, latiñaren bidez datorren itza da, Itz Grekoak: ***kata norantza*** esan gura duana, ta ***olos, dana*** edo ***dan guztiak alde batetik joan zitezen*** esangura dauanagaz.

Itz-bi orreik alkartu ebazanean Katolikotasunezko aberkidetzaren itza agertu zedin, Kristautasun osoa, katolikotasunaren aberkidetzara ***alderdikidetu*** eben, sakratuzko egi bakarrezkoa izan balitz bezala.

Eta Kristautasunari kalte geiago egin-nai ez arren, urrengo urtean, Jaungoikoaren eta mundu onetako gizartearen bitartean, Erromako Eleiz Kaisartua ipini eben ordezko lez, eta or asi ziran, mugabageko sasijainkotasunaren irudimenean, sinis egi orreikaz gora ta bera, dan guztia, kolonizazioaren aberkidetzazko alegiñekin korapillotuten.

Eurak, betirako izan ba ziran agintari lez, edo sasijainko lez, dan guztia, Goiko Jaungoiko Irasleak, bereztu ebazan askatasunezko legearen aurka ezarri eben, Munduko giza guztia edo errigizarteak, katolikoaren aberkidetzan batzangotu naian.

Emen andiena egin zana baiña, ez zan bakarrik, Munduko gizari kendu jakon berezko Nortasunaren Eskubideko Aberritasuna, bakoitza, Goiko Jaun Iraslearen aginduz, gure eginkizun guztietarako, Baitagaz ekarten dogun berezko legeen ordezkaritzazko ardurea, kendu egin euskulako, Munduko giza-semeak, orren ardura barik itzi ondoren, eurak, usta

(1) IIn Konstazio = I Konstantino aundiaren semea, 317ko urtetik, 361eko urteraiño bizi zana.

edo zartailluen(1) zigorragaz, Munduko errigizarteak joputasunez(2) beartzeko ?.

3. 6. *Godo´en aria ostera artuta.*

347ko urtean, Teodosio aundia igon eban Erromatar kaisertzara, eta 395ko urtean il zanean, Ekialdeko Kaisartza, bere seme Arkadiori, eta Mendebalekoa beste seme Onoriori emonda, Ekialde ta Mendebaleko kaisartza oso ori, betirako bananduta geratuko zan.

Godoak denbora orreitan, Unoren ekintzagaitik bananduta ibili ziran, Ego Mendebalean, Bisigodoaren izenagaz, eta Ostrogodoen izenagaz, Ekialdean esagututa.

Ostrogodoak, Unoakaitik menperatuta geratu ziran Danubio ibaiaren inguruetan, eta bisigodoai mendebalde ta egoalderuntz bultzatuta, 409ko urtean Alarikok, Erroma saskildu eban, eta 476ko urtean Odroakok, Mendebaleko Erromatar kaisertza ezereztu egin eban.

1.453ko urtetan, Erromatar Ekialdeko kaisertzak, Turkoak ezereztu arte iraun eban, eta ortik aurrera Europako kaisertzaren funtsezko zentzuak, Eleiza katolikuaren eskuetan bakarrik geratu ziran, naita, Europaren berezko errigizarteak euren errege, jaun, edo ta kaiserrak euki arren, katolikotasuna aolkulari nagusi lez, danoen gaiñetik ipini eben.

Edestilari batzuk, Aita Santua buru zala, katolikotasun orren aolkularitza bakarrik eroaten ebala esaten dabe, baiña egia, beste gauzabat da, erlijio bidez eta danean sartuz, eurak goitik bera agintzen ebala edesti guztian ikusiko doguz, argitsuzko gizon orreik, alan ikusi ez arren.

IIn Teodosio aztu barik, Arkadioren semea izan zanak, I Konstantinok bere asierazko kaisertzatik agertu ebazan erismeneko lege edo idatzitako lege guztiak, batu, ta Justinianoren lege bildumagaz osotu ebela. Eta ***Teodosioren lege-sorta deituko ziren lege orreikaz***, oraiñarte jaurkitzen dauskue, ta ezeren lotsarik bage.

438ko urtean IIn Teodosiok ekialdean, eta IIIn Balentinianok mendebalean, batera argitu ebezan lege orreik, ekialdean Justinianoren lege sortagaitik, eta mendebalean godoen bardiñ antzeko legeagaitik aldatu arte.

438ko urtean Ermeriko sueboren erregea, ainbesteko borrokakaz gogaituta, bere seme Rekilari´ai emon eutsezan erregetzaren ondorengotasunak, eta beragaz lortu eben sueboak, euren zabaltasun aundiena.

441eko urtean Rekila Sueboen erregea, kristau-katolikotasunera aldatu zan, eta lurralde batzuk erromatarrei kenduta, Sebilla aukeratu eban bere uri nagusi lez.

446ko urtean Rekilak, bere indarrezko zabaltasunean, Portugaleko Bragan euki eban bere uri nagusia, Lusitaniako Meridara aldatu eban, eta erromatar Bito gudal nagusia menperatu eban, onek euren zabaltasun ori, geratu gura ebelako.

448ko urtean il zan Rekila au, eta bere ondorengo lez, bere seme Rekiariok igon eban Sueboaren erregetzazko aulkira, eta I Teodorikoren alabagaz ezkonduta, katolikotasuna besarkatu eban bere erlijio lez.

453ko urtean Rekiariok, erromatarrekin sinatu ebezanean bakeak, Kartajinesari kendu eutsoezan lurraldeak, euroi emon eutsoezan.

456ko urtearen Urrillan baiña, Rekiaro damutu egin zan kartajineseko lurraldeak, erromatarrei emoteagaz, eta ostera, eurak erasotzea erabagi eban.

(1) Usta edo zartailluen = fusta, azote, palo para azotar. (2) Joputasunez = como esclavo.

456ko urtearen Urrillako 22an, erdi ugarte onetan Sueboek, egindako triskantzak geiegizkoak zirala ta, IIn Teodorikoren bisigodoak sartu ziran erdian, eta Astorgaren Uri ondoan, aldatzen dan Orbigo ibai inguruan, Rekiarioren sueboak menperatu ondoren, euren arrapaka atzetik joanda, Braga Uri nagusia saskildu eben, Rekiario bera be ilda.

Agiulfok artu eban Sueboen erregetzazko agintaritza, eta lapurkerizko bideetan sartuta, ainbat indarkeriaren oldarkeriak egin ebazan, euren anai arteko guda sortu arte.

Urrengo urteetan, eta erregetzazko aulkian ezarri naian, ainbat borroka egin ebezan euren artean, bisigodoak be artean zirala, eta Remismundo sueboen errege lez aukeratuta, lortu eban erregetza ori alkartzea, erdi ugarte onen mendebaleko iparraldean, arrianismoaren erlijioa besarkatuz.

466ko urtean Sueboaren artean, siñesgabe ta priszilianistas, edo Prisziliano ziñausle aitzindarien(1) jarraitzailleak izan ziran geien, arik eta, Remismundo sueboaren erregeak, bisigodoen errege IIn Teodorikori eskatuta, onek, Arian´tar Ajax mixiolaria bialdu arte, ortik aurrera, arrianismoren jarraitzaille biurtu ebazalako.

481eko urtetik 511ko urteraiño ikusten dogu, 481eko urtean ildako Txilderiko erregearen seme, Klodobeo(2) frankoen erregea, katolikotasunera biurtu zala. Eta Euskalerriarentzat Frantziko Iparraldetik, leen euki genduzen frankoen erasoak asi jakuzan.

469-558ko urte bitartearen, zeaztasunezko argibidearen eza, aundia dago, Teodemundo erregearen izena bakarrik aurkituta.

559ko urtean Karriariko erregeak, oso makal euken seme bategaitik, katolikotasunezko eritzia sartu eban berriz Suebo errian(3), Tourseko San Martiñeri eskatuz osasundu daiten, eta San Martiñen ezurrezko ondar batzuk ekarri egien agindu eban, bere semea osatzeko.

559ko urtean Sebillako gotzaia Isidoro Santuak(4) esaten dau, Dumio gotzaiaren eragipenez, Teodomiro(5) sueboaren erregea izan zala lenengo errege katolikua, 561eko urtean, eleiz batzar nagusia batu ebena, eta bere bizitzaren askeneko urtetan, Leobijildoren(6) eraso gogorrenak artu ebazanak.

Vn gizaldiko amaieran eta VIn gizaldiko asieraren arteko urteetan, anglosajoiaren erasoagaitik, eta Britaniatik iges etorri ziralako keltiarrak, Eo ibai eta Ferroleko kresal ibai artean, Luzenzeko(7) lurraldeetan asi ziran sartzen.

Keltiar oneik, Luzenze edo Lugoko lurraldean, Britonia edo Pastorizako errian dagon euren Bretoñako Santa Mariaren elizako lurretan antolatu ziran, euren bizitzak, aurrera eroateko.

Eta Sueboen erregetzagaz, euren artu emona ezagutzen dogu, Mailok keltiar gotzaia 561 eta 572ko urtetan, Bragako leen eta IIn eleiz batzar nagusietan egon zalako.

560ko urtean Teodomiro sueboen erregeak, katolikotasunean ondo jabetuta egon zanean, lekaidetxe batzuk sortarazi ebazan, euren artean, Portugaleko Braga ondoan dauan Dumiuneko(8) lekaretxea, ta bertakoa izanda ***"Sueboaren bidali edo apostolua"***, Bragako San

(1) Priszialinistas edo Prisziliano-ziñausle-aitzindarien (jefe superior, director, conductor, guia, adalid) jarratzailleak = seguidores de Prisciliano el apòstata = renegado, hereje, prevaricador, perjuro, infractor deun juramento. (2) Klodobeo = 466-511 urte bitartean bizi zana eta 481-511 urte bitartean Frankoen errege. Txilderikoren semea zan, Klotilde printzeagaz ezkondu zanean, katoliko biurtu ebana, 486ko urtean Frantziaren lurralde Soissons erromatarren aurka garaille urten ebana, gero Loira ibaitik gora dauan Britania edo Armonikako lurraldeak menperatu ebenak eta IIn Alarikori irabazita il ondoren Akitaniako lurraldeak bereganatuta, Frantziko erregetzaren sortzaillea izan zana. (3) Tourseko Gregorio Santuak esaten dauan lez. (4) Sebillako San Isidoro gotzaia = 560ko urtean Kartajenan jaio ta 636ko urtean Sebillan il. (5) Teodomiro erregea = 570eko urtean il zana, eta baleiteke Tourseko Gregoriok esaten dauan Karriariko (559) erregea dala. (6) Leovijildo bisigodoaren erregea = 586ko urtean Toledon il zan, 568-573 urte artean bere anai Liubagaz errege izan zana, eta bakarrik 573-586ko urte bitartean. San Ermenejildo ta I Rekaredoren aita eta ispaniako-godoaren erregetza sortu ebena. 572ko urtean Kordoba kendu eutsen erromatarrei, eta Orense sueboari. Bere seme Ermenejildo il eban katolikotasunetik ez ebalako arrianismora aldatu, eta gero berak limurtu eban bere beste seme I Rekaredo, katolikotasunera aldatu dagian, ortik kanpo gatz izan zalako erdi-ugarte onen kaisertzaik osotu. (7) Luzenzeneko lurraldeetan = tierras de Lugo. (8) Dumiuneko lekaretxea = el convento de Domiun al lado de Braga en Portugal.

Martin gotzai ospatsuaren ez-izenagaz ezagutzen zana, Suebo guztien antzera, Panonia edo Germaniako Dazia, Mesia, Iliria ta Norikako lurraldetatik etorritakoa zalako.

561eko urtean Teodomiro erregeak, Bragako I Eleiz-Batzar Nagusiak ospatu ebazan, Priszialinismoaren ekanduzko arauak argitzeko, ta euren bizitzak arrianismora bideratzeko.

567ko urtean Teodomiro erregea Dumiun lekaretxeko apaiz-buru zala, erregetzaren gotzai guztiak asi ziran bere izena aldarrikatzen, eta alan izendatu eben Bragako uri nagusiaren gotzai lez.

569ko urtean, Teodomiro sueboen erregeak arrianismoa bideratu gurean, Lugoko IIn Eleiz Batzar Nagusiak ospatu ebazan.

570ko urtean Leobijildo bisigodoaren erregeak, Sueboen aurka asi zan.

572-574ko urtetan Leobijildok, Dueroko ibarrak erasotu ebazan, Sueboak iparralderuntz bultzatuta. Batera, Miro erregeak, Bragako IIn Eleiz Batzarrak ospatu ebazan, erabagi artean, eleiz geiago eraikitzea aginduz.

Ortik argitzen da, zelan bisigodoen izenagaz dagozan eleiz asko, Sueboak egindakoak direla.

575eko urtean bisigodoen errege Leobijildoren gudalozteak, Orenseko mendikateetatik, suebo erregearen ardurazko lurraldeetan sartzen asi ziran, eta ango Araukonaren edo Arejenesaren(1) mendietan, Aspidius izena euki eban sueboen gudal nagusiak, Miro´ren sendi osoa menperatuz, Miro Sueboen erregeak(2), bakeak siñatu ebazan Leobijildorekin.

Eta 576ko urtean, Aspidius jauntxo ori, askatzeko borrokan asi ziran leiñuak geratuz, bakea eskaiñi eutson Leobijildo bisigodoaren erregeari(3), eta Uelba ta Jaen bitartean dagozan, Morena edo Mariana mendikateetan, mendebaleko Orospedaren leiñuen nekazariak matxinatu ziralako, 577ko urtean Leobijildok, sueboakaz siñatu ebazan bakeak, Miro sueboaren erregea bere gudalozteakaz, bisigodoen menpe geratzeko baldintzagaz, siñatu ebazan.

578ko urtean Miro sueboen erregeak, Leobijildo aitaren aurka ibili zan seme Ermenejildori laguntzeko, Sebillara joan zan Leobijildo bisigodoaren aurka.

Leobijildok baiña, Mirok eukezan gudalozteak inguratu ebazan, eta Miro sueboen erregea menperatuta, Leobijildori lagundu eutson Sebillako uria artzen, Ermenejildoren aurka.

583ko urtean Sueboen Miro erregeak, Leobijildo bisigodo erregearen seme Ermenejildo katolikuari lagundu eutson berriz, bere aitaren aurka, eta Leobijildo aitak, Ermenejildo semea atxilotu ostean, eukezan erregetzazko ondorengo guztiak kendu eutsozan.

583ko urtean Miro il edo erregetzaren aulkitik kanporatuta, Eboriko bere semea egin eben sueboen errege, Leobijildogaz bakeak siñatuta.

584ko urtean Eboriko sueboen erregeari, bere koñatu Andekak(4) kendu eutson errege aulkitik, eta Andekak, Eboriko, lekaidetxe baten sartuta, Eborikoren arrebeagaz ezkonduta egon zanetik, Eborikoren emazte Sisegutia andreagaz ezkontzera aldatu zan.

585eko urtean Leobijildo bisigodoen erregeak, Frantziren Borgoñako lurraldean, Borgoñesakin euki eban borrokan, bere seme I Rekaredoren arduratan itzita, bera Suebo erregetzaren aurkako erasora joan zan.

(1) Araukoiak edo arenjenesen giza-leiñuak emon eutsoen izena mendi arei. (2) Miro = ¿?-583ko urte bitartean bizi zana eta Sueboaren errege lez 570-583 urte bitartean, arik eta Sebillan, Ermenejildo, Leobijildo semesaren aurka ibilita Sebillan il zan arte. Tourseko Gregorio Santuak esaten dau, Miro erregea bere Galiziako luraldeetara joan zala eta bertan il. (3) Leovigildo bisigodoaren errege = I Rekaredo ta Ermenejildoaren aita. (4) Andeka = gero Suebo´en errege izango zana.

586ko urtean Leobijildok, Sueboen erreiñua erraustu ta menperatu ondoren, Andeka erregea arrapatu eban, eta apaiztuteko koroi eran(1) ulia moztuta, Bejako Pax Julia lekaretxera bialdu eban, errege al izateko, geiagoko aukera guztiak kenduz.

Leobijildok bide batez, Borgoñako Gontran itsaslariak, salerosketarako euki ebazan itsasontzi guztiak, urperatu ebazan, eta Sueboak euki ebazan lurrak eta altxorrezko diruketa guztiak, bisigodoaren eskuetara aldatuz, sueboen erreiñua, bisigodoaren lurralde bat izatera aldatu zan, Toledoko Bisigodoaren kaisertzazko menpe.

Teodomiro sueboen erregea, bere aita Miro errege denboran, sueboak katoliko erlijioara aldatuta euki ebazalako, Leobijildo bisigodoaren erregeak, arrianismoaren eritzia ezarri eban bisigodo ta sueboen erlijio lez, eta ainbat arriano gotzai, zabaldu ziran sueboen lurraldeetan.

586ko urtearen Jorraillako 13an Leobijildok, bere seme Ermenegildo, Austrasiako Sigerto erregearen alaba Ingundagaz ezkonduta, eta San Leandroren eragipenetik, katolikotuta egon zalako, Leobijildo aitak, arrianismoren eritzira aldatu egiezala beren sinismenak agindu eutson Ermenejildori, eta onek ez ebalako aldaketa orreik egin gura, aitak, bere erregetzazko ondorengo eskubidetik kenduaz, Ermenejildo ainbat denboran aurkarituta egon zan aitagaz.

Aitak, semeagaz euki eban azkeneko borrokatan, semea menperatuz eta atxilotu ostean, onek ez ebelako arriano gotzaiaren eskuetatik Jaunarik artu gura, aitak, semearen lepoa moztuteko agindu eban. Ermenejildo santuaren eguna, Jorraillaren 13an ospatzen da.

586ko urte orretan eta bisigodoaren erregetzazko Toledoko urian il zan Leobijildo erregea, bere ondorengo lez, I Rekaredo bisigot kaisertzazko aulki orreitara igonda.

587ko urtean baiña, 586ko urtean Leobijildo ilteko egon zanean, eta bere seme Ermenejildo katolikua il ondoren, bisigodoaren kaisertza aurrera eroateko, bere arrianoren erlijiozko eritzitik aldatu egin bear zala konturatu zan, eta bere beste seme I Rekaredori limurkeriz, buruan sartu eutson, katolikotasunetik kanpo, gatz izango zala bisigodoaren kaisertza aurrera eroatea, eta I Rekaredok aita il ostetik 587ko urte onetan, Arranismoa baztartuz, Toledoko IIIn eleiz batzar nagusiak batu ebazan ospatzeko, eta ospakizun orreitan arrianismoa sustraikatuz, katolikotasuna bisigodotar erlijio lez ezarri eban, sueboaren arriano gotzai erdiak(2), katolikotasunera aldatuta, danoen edo arriano ta katolikotasunaren arteko bizitza, alkar eta bakez eroanda aurrerantzean.

Sueboek matxinatuta, zaldizko, mazal edo gizatsu(3) izan zan Malariko jauna izendatu eben errege. An egon ziran bisigodoak baiña, laster bakeztu eben matxintasun ori, eta or amaitu ziran Sueboen erregetzazko aldiak.

Alango, aldakorrezko ta aukeraren egokierazko patxara, edo ta irabazkor bizibidean, lenengoetaik zaldikatuta egon ba ziran, Goiko Jaun Iraslearengaitik berbetan gabiltz ?. Ala..., Norkeriz irasitako sasi-jaunezko erlijioagaitik ?.

Eta Bisigodoak, Euskalerriko Akitanian, Tolosako erregetzan ta erdiugarte onetan, ondo ikertu ba genduzan be, goazan azken ukia emoten.

710, 711ko urtean il zan Bitiza, edo Rodrigok, Toledoko bisigodoaren erregetzagaz egin zanean, Bitiza il ebala zaldun batzuen laguntzagaz esaten dabe. Ta emen asten da bisigodoaren askeneko aldia, emendik aurrera, mauritarrak artzen dabelako erdiugarte

(1) Koroi eran ebagi ulea = tonsurar, o, corte de pelo al estilp godo, dejando una cenefa de pelo entre las dos orejas. (2) Sueboen Arriano gotzai erdiak. (Lau gotzai esaten dabe aldatu zirala Arrianismotik katolikotasunera) = la mitad de los obispos arrianos Suevos se pasaron al katolicismo. (3) Zaldiko Mazal edo gizatsu = caballero noble, instruido.

onetan aitzindarizko(1) txanda.

711ko urtean, Rodrigo jaunak, IIn Ajila izango zan urrengo erregea baiño geiago zalakoan, zaldun(2) batzuen laguntzarekin, Bitizaren seme Ajila´i lapurtu eutson erregetza, eta ajila bere lagunakaz alkartuta, anaiarteko guda sortu ebala diñoe, Mauritarren sarrera erreztu ebana.

Edestiko kondairak baiña: Erregeak, Zeutako gobernari edo guda jaurlari Julian kondearen alaba Florinda(3), bortxatu egin ebala esaten dau, eta onek, gaztelua Mauritarren eskuetan itxi ebala, gero IIn Ajilagaz batera, Mauritarrai laguntzeko, erdi ugarte oneitan sartu zitezen.

711ko urtean Uztaillaren 19an, Tarik Ibn Ziyad`en Mauritarrak, Rodrigo jaun godoaren gudalozteak ezereztu ebazan, Medina Sidoniaren inguruko, Guadalete ibai ondoan.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbateko ibai inguruan egin zala borroka ori, eta kondairak Guadaleteko ibai inguruan.

Dana dala, Kadizeko lurraldean dagoz biak, leenengoa, auntzen mendietatik jaio eta beren urak Atlant Itsasora botaten dabezanak, eta bigarrena, Mugado Jerezen ondotik joan ta bere urak, Kadizeko urgolkoan botaten dabena.

325eko urtean, ez zan aienatu Nizean norkeriz, irasi eben katoliko aberkidetzaren sasi-jainkotasuna, Godoak Aienatu egin ziralako ortik aurrera, baiña Mundu edo Ludi onen giza guztiarentzat, katolikotasunaren kolonizaziozko erlijioa geratu jakun, Batikanoko ardurean geratu zalako yaureskeri, idol-gurkeri edo diruaren urregorrizko tzekorra gurtzeko ortik aurrera.

325eko urtean I Konstantino Nizeako batzarrean, eta 589ko urtean I Rekaredoren, IIIn eleiz batzar ezkeroztik, Toledotik bideratuta batu ziran godo legebilduma orreikaz, 711ko urtean mauritarren garaipenaren ostetik, Pelayo jaun godoa esaten dabe, Asturiasera eroan ebazala gauza guzti orreik, guzur utsa dana.

Alan esan leike gure dabela izan daiten, Pelayok baiña, ez eban euki denbora ta gitxiago indarrik, erregetza ori antolatzeko, erromatar katolikotasuna ez bazan egon zaiñ, nundik artu ostera ari ori , Mundua, katolikotasun aberkidetzan batzangotzeko.

718ko urtean erromatar-godoak moruen aurka porrot eginda, Asturiaseko Europa deritson mendikateetan, Dobra ta Kareseko erreka bitartean dauan Kobadongako gudan, agertuko jakiezan aukera barriak errigizartearen batu zale menperatzailleai, katoliko aberkidetzaren eritzizko kaizertzan ostera jaurkitzen asteko, erdi ugarte onetan.

-Eta aukera ori agertuko jakien, Pelayok(4) 10.000 asturiarrekin, Alkama mauritarrak bideratzen ebazan 20.000 gudariai irabazita ?. Erromatar katoliko menperatzail eritzizkoak, Obiedon sortuko zan Asturiaseko erregetza barri orregaz asiko zan.

-I Alfonso erregearen bidez, peninsula edo erdiugarte onetan ezarrita, Erroma ta Godo´tar katolikotasunezko legeen bilduma orreik, 768ko urtetik aurrera Asturiasen asita, Karlomajno ta Aita Santuaren laguntzagaz, Europatik zabaltzen joango ziran.

737ko urtean il zan Pelayo, eta urrengo errege, bere suin I Alfonso katolikua izanda, or asten da ostera be, katolikotasunaren batzangotasunezko menperatzail ari ori, indarra artzen.

Emen ondo baiño obeto esan leike, katolikotasunezko erlijioa aita santu guztiekaz, beti

(1) Aitzindaritza = guionage, oficio de guia, adalid. (2) Zaldun = nobles. (3) Alaba Florinda = "La Caba" deitzen eutsienari. (4) Ez dakit, Pelayoren kondaira au egitan sartu ba leike, denbora aietan eleiz katolikuaren apaiz ta lekaideak, goitik berako jaurlari edo agintarian eroaten ebazalako kondairaren gauza guzti orreik, nai aginduz ta bai idatziz, olako kondairak argitaratuaz, aztertzaillei aztarnak galerazteko, iñork ez jakin egien, eurak zirala benetako antzezlariak katolikotasunezko antzokiaren, antzerki onetan.

egon dala zabalkuntza orren zain, danen gaiñetik.

Eta argi ikusten jakie, iñondik iñora ez dabela aipatu gura, euskal jendekuntzazkoak K.a. egin eben demokraziaren aldeko lana, ta K.o. katolikotasunaren alde mauritarren aurka, nai ta eurena baiño aundiagoa izan arren.

"Zergaitik" ?.

Franko frantziar leiñuak, ta Asturiasen aldiko erregeek ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolkuzko aginduz bideratuta, ez eben eukingo iñungo errukirik, Jaungoikuak bereztu ebazan legeen aurka joateko, eta ez berezko ta sinismen aundiko kristau erri, bai zintzoen izkuntz ta aberriak sarraskitzeko, nai erri iltzaillezkoetan(1) biurtu arren, Jainkoaren ordezkotzan ezarri ziralako, euren urrezko-tzekorraren sasijainko orregaz.

Nundik nora ezkondu ote leikez, Goiko Jaungoiko Iraslearen Legeak, Judu, Kristau, ta kolonitzailleen Aberri katolikotasunezko eritziakin, Irasleen Legeak, bear daben ekanduz ?.

Guzurra, egiagaz berdinduta !: "GATZ".

Gure arimak ez dira gizatzen, mundu onetan ***joputzaren morroi*** izateko, ***nor*** izateko baizik.

Eta egunen baten danok batzangotzen ba gara, danon borondatezko sinisteak alan eskatzen daualako izango da. Gauza orreik, egiten doguzan gauza guzti on bezela, gizakiren berezko eskubideak ondo zaindu ta obeto ordezkatuta gero, berez agertzen diralako ondorio on lez:

"Ludi onen giza, Jaungoikuak, gai-giza oneri bereztu eutsozan askatasunezko legeakaz, nortasunaren zentzu aundienetariko ulermenean ordezkatuta jokatu ezkero, berez lortzen dira, benetako edo zentzu aundienetariko alkarrezko edertasunak".

4n ZATIAN

4. 1. *Iparraldean Akitaniako dukerria, Baskoniako dukerria, Gaskuñako dukerria, Banu Kasitarrak, Karlomajno, Iruñako erregetzaren sortzea, Asturias ta Leongo III Alfonsoren alegiñak euskaldunak menperatzeko, Bizkaiko Jauntzaren sorkuntza, Arabatar Anaidi Elkarteak(2), ta Gipuzkoako Batzarrak.*

K.o. 711ko urtean mauritarrak, euren indar guztiagaz agertu ziranean, erdiugarte onek eukezan berezko errigizarteari, arnaz edo atseden aldi bat emon eutsoen, bakotzaren jaurkintzazko Legeakaz antolatu egiezen euren ardurazko giza ta lurraldeak, eta alan egin eben Ego ta Iparreko Euskalerriaren lurraldeak: Frankoen aurka, Akitaniako konderriak antolatuz; Nafartarrak, euren erregetza sortarazi; Bizkaitarrak be euren Jauntza sortarazita; Arabarrak, eurak eukezan Anaidi Elkarteakaz; ta Gipuzkoako lurraldekoak be, euren euskal Batzarrakaz aurrera eginda.

4. 2. *Euskal Iparraldean, Akitaniako Dukerria.*

Euskalerria, bere Atlant Itsasotik Alemaniaren azkeneraiño, ta Eskoziatik Kadizerañoko osotasunetik, Erromatarren menpean agertu giñanean, Erromatar menperatzailleak euren

(1) Nai ta, Erri iltzaillezkoetan biurtu arren = que les importaba un comino el convertirse en genocidas de los pueblos naturales. (2) Arabarrak, Anaidi Elkarteakaz = los Alaveses con sus cofradías.

politikaren antolamendurako, Frantziko Galia esaten eutsonari, lau lurraldeetan banandu ebenean, Akitania, banaketa orren zati bat da.

Eta euren jaurkintzazko zeregiñean, Narbona, Autx, ta Daxeko lurraldeak osotzen ebazanak, Frantziko egomendebaleko lurraldeakaz Bizkaiko itsasgolkoa, Lur-Arteko itsasoa, ta erdiko mendi-taldetik Loira ibairarte besarkatzen eban.

Bere lurraldea, Loira ibaitik, Zebenes mendi kateak, Auñamendiak eta Gaskuña edo Bizkaiko itsas-golkoagaitik mugatuta egon zana da.

409-418ko urte bitartearen inguruan baiña, Bisigodoak egon ziran zabal zabalik Akitaniako lurraldeetan(1), alkar zaletasun antzeko baten.

Eta 476ko urtean, Erromatar kaizar sakratu ori, godoak menperatu ebenean, Dalmazian(2) oraindiño, Nepotetar Juliok, 480ko urterarte iraun eban.

477ko urte onetan Akitaniako erregetza zati bitan banatzen da, Akitania ta Gazkuña, gero Guyena deituko zirenak, 1.058ko urtean, biak alkartuta.

Eta bisigodoak euren kaizertza zabaldu naian, erdi ugarte onetara be etorri ziran.

486ko urtean Siagrio Godoaren jabetasunean, eta Klodobeoren (3) agindutara, egon ziran frankoak, Loira ibaitik asi, ta goragoko galiaren iparraldeko lurraldeak menperatu ebazan.

Eta Siagriok bere burua babestu naian, Tolosara iges joanda, IIn Alarikok arrapau eban, eta Klodobeori eskuratuta, onek il ondoren, Frantziko lurralde guztiagaz geratu ziran bisigodo ta frankoak auzo lez´eko jabetasunean.

507ko urte onetan, Mendebaleko erromatarren kaisertza ezereztu zanean, Frantziaren erdi aldeko egoaldea, Gaskuña ta Septimaniagaz batera, Tolosako bisigodoen erregetzan egokitu ziran, arik eta Klodobeok, Gundebaldo borgoñatarrakaz alkartuta, Boille, Poitiers ondoan egindako borroka nagusian, IIn Alarikori irabazi arte. Berau be, bertan ilda.

Eta 508ko urtean Teodoriko ostrogodoa, Gundebaldori Narbonanko errian egin zan borrokan irabazita, frankoak ta ostrogodoak geratu ziran garaille, ostrogodoak Septimaniako lurraldeakaz geratu ziralako.

Euskaldunak, borroka orren bidez, Akitania(4) ta Nobenpopulania Auñamendietaraiñoko lurraldearen jabetasuna galdu eben, frankoak eta gero ostrogodoen menpe geratu zanean.

Ostrogodoak erromatarren antzera, lurralde guztietatik ibili ziran euren norkerizko guda indarrarekin, berezko erritarren legeak kontuan artu bage, errigizarteak euren borroketarako peoi lez ibili, ta baita zergak, ordaintzeko baiño besterik, ez ebalako gura.

Emen kontuan artu bear da, merobinjioaren erregetza sendotzen asi zanean, Akitania, Neustria, eta Burgundia edo Austrasiaren erregetzaraiño egokituta egon zala, beti dukeen bidetik zuzentzen ebena.

574ko urtetik asita, Nafarroa, Aragoi eta Kataluñako euskaldunak lenengo, eta Bizkaitar, Arabar eta Kiputzak gero, Auñamendiko kateetatik zabalduz, zirikitu ta oztu egiten eutsela godoai, lapurketa orreik egin ondoren, euren gorde tokietara ostera joanda.

Eta 582ko urtean Bisigodoak, erdiugarte onen euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, Euskaldunak, aberri bat lez batera egon giñelako, iparraldetik, euskaldun asko etorri ziran, godoari aurre egiteko.

587ko urtearen ostetik, Astrobaldo dukea ibili zan euskaldunak menperatu naian, ta ezinda,

(1) Nobenpopulania ta Akitania sekundan. (2) Dalmazia = Yugoslabia. (3) Klodobeo 481-511 urte bitartean frankoen erregea izan zanaren emazte Klotildek, katolikotasunera aldatu zan. (4) Akitaniako Dukerria, kontuan euki bear da, Ebroko ibairaño zala.

erabagi batera eldu zan, Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: ***euskaldunek, zergak ordaindu egiezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, euskal legeekaz jaurrituko ebela.***

602ko urtean, Austriako IIn Teudoberto eta borgoñako IIn Teodorikok, euskaldunen aurka joan ziran, eta beartu ebazan euskaldunak, eurak agindutako kondea on artu egien.

629ko urtean I Karibertok, 631ko urtean bere anai-orde I Dagobertogaz sinatu eban alkargo bat, Neustria Akitaniako erregetza barria izan egian.

Neustria edo Akitaniako lurralde orreik, Gaskuña eta bere osaba Brodulforen Tolosako lurraldeak be besarkatu egiten ebazala, Brodulfo osaba ori, Dagobertok il ebelako bere seme Txilderikok errege izan zedin, au be, illabete gitxi ondoren il eben.

Bertrandok, Txilderikoren beste semea menperatu ondoren, I Dagobertoren esanetara ipini zan, merobinjioen erregetza, jaun eta jabe izan zalako, eta bere ezagutza, Akitaniako duke lez aurkeztu zan Boggiosekin batera, biok merobinjioarekin senidetu ondore, Akitania edo Gaskuñako zaldunak izan zirelako.

635ko urtean I Dagobertok(1), frankoen osotasunezko erregetza euki eban bere agindutara, eta Boggiok zirikituta, euskaldunen eraso gogorrenak artu ebazan. Boggio onek, Akitania eta Gaskuñako erregetzaren atzean ibilita askenean, lortu eban berak gura ebana, naita dukearen izenagaz izan.

638ko ta 639ko urte bitartean I Dagoberto il ondoren, eta agertu ziran merobinjioen errege alperrakin, Boggiok, askatasun naikoa lortu eban eukitea, merobinjioen erregetzatik.

675ko urtean IIn Txilderiko il zanetik, urte bi beranduago uste dabe batzuk, sortu zala Akitaniako dukerria, ondo jakin barik, erregetza edo dukaterri lez, jaio bazan.

715eko urtean eta Felix ta Luporen jaurkintza ostean, I Luporen seme Odon Aundiak Neustria eta Austrasiaren arteko gudakin baliotuz, Akitania, frankoen erregetzatik kanpo, askatasunezko erregetza zala aldarrikatu eban, eta bera izendatu eben errege.

718ko urtean, Neustriako IIn Txilperiko, eta bere etxezain(2) Rejenfridok, on artu eben Odon Aundiaren erregetza, eurei laguntzeko baldin bategaz baiña, Austrasiako etxezain Marteltar Karlosegaz borrokatzen ziranean.

719ko urtean eta Marteltar Karlosen aurkako Soissons´eneko borroka ostean, Odon Aundiak, bakeak eginda Marteltar Karlosekin, IIn Txilderikori emon eutsoezan, ararte bere ardurapean euki ebazan altxor guztiak.

720ko urtean Odon Aundiak ortik aurrera, erdiugarte onetatik Frantzian sartuz, ta Septimania, Narbona, ta Akitaniako lurraldeak menperatuta euki, bai Tolosa inguratu ondoren, Frantziko lurraldeetan sartu zan, Mauritarren aurka joan bear izan eban borroka egiten.

721eko urtean Bagillaren 9an Odonek, As-Samh ibn Malik al Jawlani al Andaluseko jaurlariaren aurka Tolosako borrokan, ustegabeko eraso gogor bat jo eban, eta mauritarrak menperatu ebazan.

IIIn Gregorio Aita Santu katolikuak, garaipen ori ospatzeko, Odon berari bialdu eutsoezan atsegiñezko sari batzuk, baita frankoaren erregetzatik kanpo, bere euskal askatasunezko legean ezarri zedin baimena.

Argi ikusten da emen, nork euki eban, orduko Mundu ezaugarriaren kontrola, Aita

(1) I Dagoberto = 600-638ko urte bitartean bizi zana, IIn Klotario´ren semea, eta bere ondorengoa, 623ko urtean Austraziako erregetza artu ebena. 629ko urtean, Borgoña ta Neustriaren erregetzak be artu ebazan, frankoen erregetza osoa, esku baten egotea lortuz. (2) Etxe-zain = senecal o mayordomo.

Santuak, antolatzen egiten eben guztia, goitik berako agindu gogor baten, erregeen gaiñetik kontrolatzen ebalako, nai ta demokraziaren askatasunezko Euskaldunak, euren aberriko Batzar nagusien antolakuntzak euki arren.

Orregaitik egon giñan euskaldunak, Nizean irasi zan katolikotasunezko aberkide lokatz orretatik, urten ezinean, guztiz zikinduta, eurak, Munduko jabedun lez ibilten ziralako, eta ori da espaitanitarrei geratzen jakiena, euren ustez sasi-jainko katoliko ori, jainko irasle lez ipini ebelako. Eta egia ortik, urrun dago.

726ko urtean, Odonek, berak il eban Anbasa ibn Suhaym al-Kalbi, al Andaluzeko Jaurlari barria, borroka orreik bideratzen egoala.

731ko urtean, Marteltar Karlosek, IIIn Gregorio Aita Santuak, Odon´ek euki eban Akitaniako agintea legeztuteko aurka egonda, Akitania erasotu eban, eta Odon´ek jaramon egin barik, Abd Allah al-Gafiq emirrak edo mauritar printzeak, Gaskuña erasotzen egoalako, bertora joan zan laguntzera.

732ko urtean, mauritarrak, garaipen aundi bat lortu eben Garonako borrokan.

Odonek, aukera auek eukinda, lenengoetan, mauritarrarekin alkartzea gura eban, moruek baiña, eleiz katolikuaren aurka egiten ebazanak ikusita, Marteltar Karlosekin(1) alkartu zan, eta Poitiersen lortu eben euren garaipen aundiena, biok alkar jokatzeagaitik.

735eko urtean Odonek, baztartu egin zan lekaidetxe baten sartuta, euki ebazan ardurak, bere seme Unaldoren eskuetan itzi ondoren.

741eko urtean Marteltar Karlos ilda, Unaldok, ostera aldarrikatu eban bere askatasuna, eta Babierako I Idilon ta bere seme Grifonekin alkartuta, aurrera egin eban frankotarren aurka.

744ko urtean Pipino eta Karlomajnok, Unaldori beartu eutsoen, bere seme Gaiferoren eskuetan itzi egien, Akitaniaren dukerriko jaurkintza.

768ko urtean Gaiferok baiña, bere aita Unaldo lez, euskal eritzikoa izanda, askatasunezko gizona izan zalako, IIIn Pipino "Laburra" joan jakon Akitaniara erasoan, askatasun orreik kendu naian, eta Burdeos menperatu ondoren, Gaiferoren ama, arreba, ta lobak baituz, Gaitero be il eban urte orretan.

Gaifero il ostean, bere seme IIn Unaldo ipini eben Akitaniako duke lez, eta eritziz, bere aita lez, euskal askatasunaren aritzikoa zalako, IIIn Pipino laburraren(2) seme Karloman(3) ta Karlomajnoren erasoagaitik menperatuta geratu zan, Karlomajno, Akitaniaren mendebal eta ekialdeko errege lez izendatuta.

IIn Unaldo, bere amaren aldetik Baskoniako dukerriaren kondea zala, IIn Lope aitonaren babesera joan zan.

769ko urtean Karlomajnok baiña, beartu eban IIn Lope, bere illoba IIn Unaldo, ta emaztea, berarengana eroatea, beren menpetasunezko begirunean eukiteko baitu lez.

Menpetasunezko begirune ori egin da gero, IIn Unaldoren Torsone lengusuari, Baskoniako dukerria, Akitaniko egoaldea, ta Septimaniako zati baten Tolosako konde edo arduradunezko agintari izatekoaren truke emon eutsoezan.

(1) Marteltar Karlos = 689-741eko urte artean bizi zana eta Karlomajnoren aitite. 732ko urtean Poitiers´en Odonekin batera garaipena lortue bena mauritarren aurka. (2) IIIn Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karloman ta Karlomajnoren aita, 741-751 urte bitatean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIn Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak ostera igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabalduta, eta /68ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzen semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (3) Karloman = 751-771eko urte bitartean bizi zana, IIIn Pipion Laburraren semea, eta Probenza, Septimania, Borgoña, Alsazia eta Akitania erdiare arduraduna izan zana.

Iñork ez daki Torsone zelan il zan, eta ondorengo bage aienatu zan lez, Akitaniako lurralde orreik, ostera karolinjioaren eskuetara aldatu ziran.

781eko urtean, Karlomajnoren jaurripean egon ziran lurralde guzti orreik, arik eta urte onetan, bere seme Ludobiko Pio(1) Akitaniako errege izendatuta iru urte bakarrik euki ebazanean, Torsote, Tolosako kondea ipini eban Karlomajnok, bere semearen lenengo errege orde lez, eta au Baskoniako Adelrikok baitu ebenean, errege ordezkotzatik kenduta, bigarren Tolosako konde barria aukeratuz, I Guillermo ipini eban errege orde lez, Dukeen izenakaz. I Gillermo onek, ainbat borroka eginda euskaldun eta mauritarren aurka.

793ko urtean I Abd al Rahmanen seme, Kordobako printze edo agintari nagusi I Hisham´ek, gudalozte aundi bi batu ebazan, eta iparreko kristauen aurka joanda, Asturias eta Akitania erasotu ebazan, Narbona ondoan, Tolosako I Gillermok menperatuta.

801eko urtean baiña, I Gillermo erasotzera aldatuz, Barzelonaren askatasunean be kide izan zan Narbonako Ademarogaz, eta 803ko urtean Erdiugarte onen mugaldeko(2) jaurlaria izatera eldu zan, Narbona askatu ondoren.

814ko urtean Ludobiko Pio kaiserrak, Akitaniako erregetza emon eutson bere seme I Pipinori.

817ko urtean I Pipino, Akitaniako errege izendatu eben, eta Baskoniako Garziatar dukea bera ilda, 818ko urtean IIIn Lope, beren ondorengoari agindu eutson, on artu egiala Akitaniako nagusitasuna, Baskoniaren gaiñetik.

819ko urtean Baskoniako dukeak ez ebelako onartzen menpetasun ori, I Pipinok erasotu eta menderatu ondoren, bere aolkulari ta Tolosako konde izan zan Berenguer Jakintsuari, gero Berenger kaiserraren osaba izango zanari emon eutson Baskoniako jaurkintza.

830eko urtean I Pipino, bere aita Ludovico Pio´ren aurka matxinatu zan, bere anai I Lotario ta Luis Germanikoagaz, bai Neustria ta gaskoien laguntzagaz, eta Paris´erantza joanda, Konpiegnen aurkituta bere aitagaz, aitak menderatu eta arrapau eban, baiña ez eban balio ezer matxintasun ori, iru anaien arteko borroka asi zalako.

834ko urtean azken baten eta borroka ugari ostean, Ludovico Pio aita, ipini eban ostera be kaisertzazko aulkian, eta Pipino ostera itzuli zan Akitaniako errege lez.

838ko urtean Azaroaren 13an Ludovico Piok, Babierako Judit bigarren emazteagaz euki eben Karlos Soilla semea, ondorengotu eban frantziko kaisertzaren aulkira.

4. 3. *Euskal Iparraldean Baskoniako Dukerria.*

Or agertuko zan lenengoz bere gorteagaz euskal askatasunaren Bazkoniako Dukerria, merobinjoren erregetzatik aginduta.

418ko urtean bisigodoak, Erromakin elkargotuta ezarri ziran Baskoniako lurralde orreitan.

507ko urtetik aurrera eta merrobijioakaz guda indarrez neurtuta, bisigodo orreik alde egin bear izan eben, I Klodobeok Bouilleko borrokan, ondo astindu ebazalako.

511ko urtean eta I Klodobeo il ostean merobinjioak, lurralde orreik euren antolamendu

(1) I Luis Errukitsua edo Ludobiko Pio = 778-840ko urte bitartean bizi zana, 3 urtegaz 781-814ko urte bitartean Akitaniako erregea, 812ko urtean Iruñara etorri zan euskaldunak astintzen, baiña uts egin eban, eta 814-840ko urte bitartean, Jermania ta Erromako kaisar Santu edo Sakratuko kaiserra, bere seme Lotario, Pipino eta Jermaniako Luisegaz borrokatu zan, bere bigarren ezkontzako seme Karlos Soillaren erregetzazko eskubideak babestuteko, eta askenean eta urte asko guda-bidez, bere erregetza banandu bear izan eban Lotario ta Karlos Soillaren artean. (2) Erdiugarte onen edo Ispaniako mugaldearen jaurlaria = gobernador de la marca Hipánica. Marca = distrito fronterizo

bidez, Neustria eta Austrasiaren zuzenezko jabetasunpean ipini ebazan, beste lurraldeak konde, duke, erriguraso eta zuzendariakin jaurkitzen zirala, merobinjioak, banandutako agintaritzan jaurkitzen eban lez.

581eko urtean Benanzioren kondairak esaten dabe, Txilperiko frankoagaz ta Burdeoseko Galatorio agintariaren bidetik, Baskoniako konderriak, guda-eraso asko eukiten ebala.

587ko urtean bestaldetik baiña, Tourseko Gregoriok aipatu egiten dauzanez, Austrobaldo dukeak, eraman bear izan ebazala eraso guzti orreik bakarrik.

Dana dala, orduko leiñu barri orrein menpetasunezko egarri bidetik, euskaldunak, eraso asko ta aundi eroan bear izan ebela, bai ta, euren baitan ere, Euskalerriaren askatasunezko eritzi demokratikoakaz oituratuta, euken euskal nortasunezko izatasuna babesten ebalako.

660ko urtean Felix, Akitania ta Baskoniako konderriaren dukea, Toulouseko errigurasoa izendatu eban, Neustria eta Austrasiako merobinjioaren erregetzatik urrunduta.

602-626ko urtetan, IIn Teodoriko ta IIn Teodoberto erregetzan, Baskoniako dukaterriaren mugaldea irasi gura eben, ango lurraldeak obeto jaurkitzeko. Jenial galo erromatar dukea ipini eben ardura orretan lenengo dukea lez, eta ortik aurrera, aukera barri bat agertu jakien iparraldeko euskaldunai, euskal nortasunaren izaerazko oituran bizitzeko.

626ko urtean, Genial kondea il zanean, euskaldunak, matxinatu ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629ko urtean baiña, I Dagoberto agertu zanean, frankoaren agintaritza sendotu zan lurralde guztian.

635eko urtean euskaldunak, frankotarren agintaritzari aurka egin eutsoen denboraldi baten, eta I Dagobertok etenbageko ekitaldi aundi bat asi eban euskaldunen aurka, auek erabat menperatuz.

Lenengoetako borroka auek, Garona ibai inguruan egin ziran, baiña laster zabaldu ziran, Auñamendiko mendikaterarte.

Eta 638ko urtean I Dagoberto il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, frankotarrai ezereztu jakien Augustoren mugetara itzultzea, Eurikoren erreiñua ostera osotzeko.

Baskoniako dukerria, indartzen joan zan, euskal erritarrak feudoan eta geien gotzaintegian finkatu ziran bitartean, eta denbora gitxian euskal dukerriko agintaritzaren erabagiak, orduko frankotarren errege alperraren gaiñetik, jaurkitzen ebezan.

Eginkizun oneik, Akitaniako andimandien eta euskal erritarren artean, ezin obetoko ulermenean ezarrita egon ziran, eta euskaldunentzak, laster emongo ebazan emaitza onak.

Ebrinok, frankotarren erregetzazko etxe zaiñak, gorteko denbora onen larri aldian, Felixeri emon eutsozan Euskalerriko uri guztien nausitasuna, Auñamendirarte.

Felixek baiña, frankotarren alde jokatu barik, Baskoniako Dukerriaren alde jokatu eban, euskaldunen politika indartzeko.

Eta gero ikusiko dogun lez, Felixen ondorengoa Lupus(1) izango zanak, aurreratuko ebazan eginkizun oneik, frankotarren aurka zuzen borrokatu, ta Wanba bisigodo erregearen aurka, Septimaniako(2) iraultzari lagunduta.

660-670eko urte artean, gauzak olan zirala, Toulouseko erreiñu zarra bizkortzen asi zan, eta Akitaniako Felix dukearen ondorengoa, I Otsoa edo "Lupus"(3) euskalduna izango zan,

(1) Lupus = Otsoa. (2) Septimaniako lurraldea = Erromatarrak: Rodano ibaia, Auñamendiak eta itsasoaren bitartean dagoan lurraldeari esaten eutsen. Eta Frankoak, Garona ta Rodano ibaien bitartean eta Auñamendi ta Zebenez mendi kateen arteko lurraldeari, Galia gotikaren izenagaz esaten eutsena. (3) Lupus edo otso oneik, Aragoiko Jaka edo Jakakoak ziran.

Baskoniaren dukerriko jaurkintzaren buru, 673-710eko urte bitartean.

700eko amarkadan, Eudon aundia izan zan Baskoniako agintaria.

Ondoren eta 710-735eko urte bitartean, Eudon Aundia izango zan Baskoniako dukerriaren agintaria.

711ko urtean, Muzaren mauritarrak Tariken agindutara, Kadizetik erdi ugarte onetan sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eban.

714ko urtean Eudon Saldubara(1) eldu, ta menperatu eban.

Salduba ta Logroño arteko eremu zabal baten buruzagi nagusia izan zan Kasio, eta bere ibar orreitan kokatuz, geratu ziran kasiotarrak ondorengo lez.

Kasio kondea, bisigodotarren errege leiñukoa zan, eta 714ko urtean bere lurraldearen aginteari eustearren musulman biurtuta, kalifaren serbitzura aldatu zan, ortik artuta Banu Kasiren(2) izena, garrantzi aundikoa izango zana nafartarren erregetza sortzeko.

718ko urtean Akitaniako lurraldea, Eudon Aundiaren jabetasunezkoa izanda, euskal eragipenekoa izan zan, iparraldetik Loira ibairaño, ego aldetik, Ebro ibairaño, ta mendebaleko kantabriatik, Auñamendiren ekialdeko Jirona, Lleidako Aran ibarrerarte, eta lurralde orreitan geratu zan laterrituta(3).

Orduko denboretan, Eudonen printzerri au, Galia guztiko eredu lez geratu zan, Austrasia(4) ta Neustriaren(5) arteko borrokatan, antolatzaille edo artekaritzaren(6) lanak al egiteko, bakarra izan zalako.

Eudoni, askatasunaren eragipeneko artekarizko ekintza orreik, eskerron(7), onespeneko(8), ta errege(9) izenak balio eutsozan.

718-721eko urte bitartean Eudonen jaurkintzan, Baskoniako dukerriak, bere askatasunezko aldi aundiena euki eban, erasoan ibili ziran mauritarrak be menperatuz, arik eta Karkasonako borrokararte.

Berak baiña, euskaldunaren laguntzagaz lortutako askatasunak, sendotzen joan zan, eta bere ondorengo Unaldo ta Gaiferosek, Marteltar Karlos karolinjioen aurka borroka gogorrak egin arren, aurrera eroan ebazan.


734ko urtean I Otsoa edo Lupusek, Banba(10) bisigodoari urten eutson bidera, au Baskonian sartuta, euskaldunai laguntzen eutsolako Septimaniako bisigodo matxinatuak zigortzen.

Urte onetan Banba, Iruñan sartu zan, euskaldunak ata guzti baiña, askatasun aundiak asi ziran lortzen, bisigodo ta merobinjioarengandik.

741eko urtean, Marteltar Karlos il zanean, euskaldunak alperrik asi ziran frankotarrak euki eben agintaritzaren aurka, 768ko urtean euskal dukaterrian, Unaldoren urrengo Waifre(11) zanak aurre eginda, IIIn Pipino Martelen semeak, il ebalako.

Martelen seme IIIn Pipino laburra, Karlomajnoren aita eta orain Frankotarren erregeak, IIn Otsoari, Akitaniako euskal jabetasunagaitik, eta askatasunaren truke, berak euskaldunen artean aukeratzen ebazan esku aundiko zaldunak, beragaz baituran(12) lez eroatea beartu eutson, ta bere semea baitura orreitan sartzen zan lez, zigor ori izan zan, IIn Otso edo Lupok

(1) Salduba edo Sakusta = Zaragozak euki eban euskal izena. (2) Banu Kasitarrak = baleiteke, euskaldunak izatea. (3) Dentro del estado franco, el estado vasco. (4) Austrasia-ko lurraldea = Klodobeo-k eraiki eban ekialdeko erregetza, eta Frantzia-ren eki alde, Alemaniako mendebal eta Olandako lurraldeakaz osotzen zan. (5) Neustria-ren lurraldea = Merobijioaren denboran sotu zan erregearen lurraldea, eta ipar-mendebaleko Loira ibai, Mosa ibai, ta Bretañako lurraldeakaz osotzen zana. (6) Antolatzaille edo Artekari = arbitro. (7) Eskerron = gratitud, reconocimiento. (8) Onespena = aprecio, buena acogida, aplauso. (9) Regnun = reino. (10) Wanba. (11) Waifre = Wafarius. (12) Baituran = en rehenes.



710-740ko urte bitartean, Baskoniako Dukaterria Odon Aundiaren agindupean (gorriz margoztuta)

I Eudonen askeneko semeak, Frankotarrari ordaindu bear izan eutsena.

Politika arloan ta nor geiagoko leia onetan, jatorrizkoak ziran erregetzazko leiñu bi onen arremanak, oneik eroan ebazan, Akitaniakoa: I Eudon, I Unaldo, Waifre eta IIn Unaldok. Eta karolinjiotarrena: Karlos Martel, Pipino laburra, eta Karlomagno izan ziran.

760ko urtean Pipino Laburra errege egin eben orduan, agertu zan askatasun orren erantzuna, Pipino Gaiferosen aurka etorri zalako, Akitani ta Baskoniako dukaterriak euki eben askatasuna menperatzen.

10 urtearen odoljariozko gudak izan ziran Pipinok egin ebazanak, Gaifero, Akitani ta Baskoniako dukea menperatzen, Erromako katolikotasunaren aberkidetzagaitik lagunduta.

Euskaldunak eta Frankoak, kidetasunean jokatzen eben geienetan, baiña oneik menpeko asmakuntzazkoak ziran lez, beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen alde agertzen ziranean.

Frankotarrak, mauritarrak dirala ta, artu emon aundia euki eben Baskoniako Dukerriagaz, Karlo Majnok, ardura aundia euki ebalako mauritarrak bere erreiñutik kanpo egon zitezen.

Bide batez, Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

Eta euskaldunak bitartez, erdi ugarte onen iparraldeko Emirrekin, lan edo gudarako kidetu egiten zan, auek Kordobako Kalifaren aurka matxinatxen ziranean.

768ko urtean Pipino il zanean, Akitania eta Baskoniako dukea IIn Unaldok, Karloman eta Karlomajno, IIIn Pipinoren semeak, ez ebazan onartzen karlolinjioaren erregetzazko ondore lez, eta oneik bereala asi ziran gudalozteak antolatzen, IIn Unaldoren aurka.

769ko urtean Karloman ta Karlomajnok, Akitaniako dukeari irabazita, ta frankoak, Garona ibai ingurura joanda, euren ordezko talde bat bialdu eutsen gudaren keiñadakaz, Akitaniako dukeak izan ziran: Baskoniako IIn Lope, I Santxo, Zentollo, Jimeno eta Garziari jarraian, oneik eskuratzea eskatzen eutsoelako, babestutako baitan euki eben Akitaniako duke sendia, euren ordez ezarri egiezen Akitaniako agintean.

Eginkizun orregaz, Pipino´tar karolinjioaren katolikozko leiñu lapurren seme biak, onartu egiezen, frankotarren errege lez.

671ko urtetik 781eko urtera Baskoniako Dukerria, frankoen agintzatik aske bizi zan, eta

bera izan zan lenengoz, euskaldun guztiak, politikaren arloetan alkartuko ebazanak.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran, batera baiña, beste zoritxarreko gauza sortu jakon gure izkuntzari.

Euskerea makaldu zala, gitxi erromatartuta egon ziran euskaldunen artean.

Geien erromartuta egon ziranen artean, ***Gaskon*** latinkumea agertu zan, ortik aurrera gaskoien erritarrak izendatuta.

Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz, XII-XIIIn gizalditik aurrera, Araneko ibarreraiño.

Dana dala, Baskoniako Dukerria Frantzian, zabaltasun aundia artzen joan zan, eta bere lurraldea, gaur Gaskuña lez ezagutzen dan lurraldea osotzen eban.

Akitaniarentzat, keiñadura gogorra izan zan mauritarrena, erdiugarte onen lur guztiagaz jabetu ziralako.

778ko urtearen Dagonillako 15ean Karlomajnok, Auñamendiak igaro ebazan, ta egiten egoan bidea Saldubara eltzeko, Iruñari ikutu eutson, eukezan ormak botata. Itzuli zan orduan be, bardin eginda.

Salduba edo Sarakustako arresiormatara eldu zanean baiña, I Abderramanek, Soliman Ibn al Arabi mauritarrai, Kordubako emirra izan egian aleginduz, onek Karlomajnori emon eutson laguntzazko berbeagaz damutu ondoren, Karlomajno berari egin eutson eraso aldi gogor ori, beren aurka agertuz.

Eta baita Frantziko lurraldeetan, sajoiak matxinatu ziralako, Karlomajnok, Soliman Ibn al Arabi naita arrapatu arren, mendeko oldozmenetik, aldetu bear izan eban, eta Frantzira joaten egoala, Orreagan(1), euki ebazan itxaroten Iruñako euskal minduak, eta Karlomajnoren gudalozteari emon eutsoen astiñaldiekin, ikaragarrizko zarraskintza egin eutsoen eroan eban gudalozte orretan.

1.090eko urtean agertuko zan, Roldan betikotu egingo eban gudu eresia, 1.624ko urtean, Balbuenak(2), Orreagako "El Bernardo ta Garaipena" idatzi eban 40.000 itz neurtu edo bertsutakoakaz.

Emen askatu eban Soliman Ibn al Arabi ori.

Urte orretan Karlomajnok, Orreagan ikusi ebanagaz, Baskoniako IIn Unaldoren beldur, ta Burdeosaren lurralderako, konde barri bat izendatu ondoren, Unaldo bera, jokoz kanpo geratu zan, eta bien arteko eztabaidak asi ziranean, Karlomajnok, IIn Unaldo katoliko aberkidetzaren ziñauskerian, edo ta fedea ukatzean sartuta egon zala aitzakiarekin, il eban.

IIn Unaldok, bere seme Akisgranen, Karlomajnoren semeagaz batera ikasten egon zan, eta I Santxo onartuta, euskaldunaren lurraldeko duke lez izendatu eban.

Karlomajnok, Euskaldunak askotan matxinatzen ziralako arduratuta, Asturiaseko IIn Alfonso nasgabea(3) esaten eutsoen erregeagaz alkartu zan, onek baiña, ego aldeko mauritarrakaz, bere premiñtasunak euki ebazan lez, ez eutson laguntzarik emon.

Frantziko katolikoen aberkidetasunezko eleiz orrek, berezko errigizartearen eskubideak kontuan artu gabe, alegin asko egin ebazan Frantziako erregetzan batzangotu zitezen euskal

(1) Orreagan = Roncesvalles. (2) Balbuena = 1.568-1627ko urte bitartean bizi zana. Baldepeñasen jaio zan eta Aberats-Kaian il (Puerto Rico). Erdi-ugarte onetan bizi zan adiñetan eldutasunera eldu zan arte, gero Mexikoko Nueva españan bizi zan. Jamaikako Abate ta 1.619ko urtean Aberats-Kaiako gotzaia izan zan, eta emen egon zala 1.625eko urtean Olandarrak erasoan sartuta eta Uria saskildu ondoren bere ainbat elerti-lanak galduta. 1.604ko urtean "Mexikoren Aunditasuna", 1.607ko urtean, "Urrezko Gizaldia Erifleko Basartetan". Eta 1.624ko urtean "Orreagako el Bernardo edo Garaipena" 40.000 oitz-neurtu edo bertsuakaz. (3) IIn Alfonso Nasgabea = Alfonso II el Casto. = 759-842ko urte bitartean bizi zana, 791-842ko urte bitartean Asturias eta Leongo erregea, bere jaurkintzako jauregia Obiedon eukena eta bere erregetzan aurkitu eben Santiago Santuaren arnabar edo arbiziko arrillobi aundia.

lurralde ta errigizarteak, eta neurri orreitan ugaritu ziren euskaldunen matxinadak Akitaniako lurraldetan.

Aita Santu guztiak, euren katoliko joko orretan sartuta, beti ibili ziran euren arteko errege



indartsuena aukeratzen, kaizar sakratuaren inperatore edo domiña aundi ori eroan egien agintari nagusi lez, Hitler´en aginduraiño.

Zer gertatuko zan..., Hitler´ek irabazi ba eban ?.

781eko urtean Karlomajnok, Baskoniako dukerriagaz ibili zan gora ta bera, bere ondorengo seme Ludobiko Pioren eskuetan izteko Akitaniako erregetza. Euskaldunak baiña, aurre egin eutsoen, Burdeoseko Fezensak eta Toulousen egon ziran karolinjioaren ordezkoeri.

Danak baiña, azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik mendeko bide okerretan sartzen ziralako, berezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

Eta Adalriko, IIn Lope Baskoniako dukearen semeak Toulous erasotuta, Torson karolinjio dukea atxilotu eta gero, aske itzi eban, eta Karlomajnok, askatasun ori Baskoniako dukearen aldetik berentzat lotsagarrizkoa zalakoan, Torson kendu eban kondetzazko arduratik eta bere giroko Gelloneko Gillermo ipini eban.

790eko urtean Gelloneko Gillermo onek, euskaldunak menperatu ebazan.

800 urteko gabonetan Karlomajno, Erromako Pedro Santuaren eleizan, IIIn Leon Aita Santuak, erromatar katolikotasunezko aberkide kaizar sakratuaren Augusto kaizerra izendatu ebenetik, itzuli zanean, Akitaniako euskaldunak matxinatuta egon ziran.

801eko urtean Gelloneko Gillermok, menperatuta euki ebazan euskaldunak, beartu ebazan, Bartzelona, eurakaz menperatzen joatea.

812ko urtean Karlomagnok, geiegi zirikituta leku guztietako euskaldunak matxinatxen ziralako, Iruña menperatzeko alegiñetan asi zan.

814ko urtean Karlomajno il zanean, I Pipino Akitaniako erregeak(1) bialduta, nun agertzen dan, IIIn Pipino laburrak ainbat urte ariñago baitu(2) eban Santxo Otsoa, IIn Otsoaren semea.

Nobenpopulania zarreko(3) euskaldunak, Santxo Otsoak zuzenduta egon ziran. Gero, bere seme nagusia Aznar Santso, eta au Akitaniako errege I Pipinok il ebenean, 836ko urtean bere anai Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

(1) I Pipino = I Luis errukitsua edo el piadoso, edo, Ludovico Pio kaiserraren (778-840) bigarren semea. (2) Baitu = apresar, o coger en rehenes. (3) Nobenpopulaniako euskaldunak = vascos de una de las 17 provincias en que los romanos dividieron la Galia, porque comprendia una parte de Aquitania.

Santxo Mitarra, Nafarroa eta Aragoiko goi aldean ibili zan bere aitagaz, guda ta politikako zeregiñetan, trebetasun aundiak lortuta.

817ko urtean, euskal matxintasun orreik indarra artzen asita, gorantza joan ziran, eta ainbat duke kendu eta ipini ondoren, Orreagako bigarren borroka nagusiaren antolamendua baiño besterik ez zan bear, Nafarroako erregetza sortu zedin.

824ko urtean Ludobiko Piok, gudalozte indartzu bat bialdu eban euskaldunen aurka, Garona eta Ebro ibaiaren bitarteko lurraldeak menperatu gura ebazalako. Euskaldunak baiña, Ludobiko Piok ekarri ebazan gudalozte orreri aurre egiteko, Aristatar Eneko Nafarroako errege izendatuz aurre eginda, or bitartean jaio zan, alde bietako euskal Nafar erregetza, leenengo aldiz, 852ko urterarte iraun ebena, arik eta Eneko zendu zan arte.

836ko urterate iraun eben, ainbeste ugaritu ziran matxintasun orreik, frankoak, karolinjioen katoliko aberkidetzaren kolonizazio ta menperatzaillezko feudoaren lege barri orreikaz, lokaztu egin ziralako, eta ortik aurrera esaten dabe edestilari batzuk, Auñamendiaren alde bietako euskaldunak, banandu gintzazala, naita egia ez izan arren, Euskalduak aurrera egin gendulako gure aberritasunezko sendimentuagaz alkartuta, arik eta VIIn Santso Azkarra ia il zan arte, eta geroko al izan dogun bizi guztian gaur arte.

Euskaldunak, aberritasunezko sendi on bat lez, nortasunezko arreman sendo ta sakonak euki doguzelako beti.

Aldebietako euskaldunak baiña, jendekuntz edo menperatzailletasunezko kolonizazioaren era ezberdiñ bi aurrean agertu gintzazala, bai.

Jendekuntzaren bidetik begituta, oso ezberdiñak izan ziralako sinismenean beti, frankotar leiñu, eta Asturias-Leon-Gaztela artean egon direzan zentzuzko eritziak, espainitar ta frantzeztarren aldekoak, euren katolikotasunezko jainkoak agindatukoa lez daukiezelako eritzi orreik, nai biak, euskaldunen aurkako kolonizazio orreitan, bardin jokatu arren.

Euskaldunak, naikoa euki gendun "Goiko Jaungoikuarekin".

Espainitarrak izango ote dira, katolikotasunaren aberritasunezko jendekuntzaren jabedun orreik ?. Aita-Ama edo gurasoak, nun ete daukiezan baiña, itandu bear antza.

838ko urtean I Pipinok, Santxo Mitarrari borrokara beartu eutson, eta onek Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eronada, Pipinoren gudalozteak ezereztu ebazan.

Karlomajnoren nagusikeritik, 68 urte geroago Euskaldunak, ostera jabetu ziran euren lurralde osoakaz.

Frankoaren errege I Luis errukitsuak, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztu eban. 840ko urtean bera il zanean baiña, Frantziako kaizertza bere iru semeen artean banandu eban, eta mendebaleko lurraldea Akitaniagaz batera, Karlos buru soillen(1) ardurapean geratu zan.

Euskalerria, naita gero murriztuta geratu, beti danik izanda Euskaldunen Aberria.

853ko urterarte, anai arteko ondorengo gudatik urten ezinik, ibili zan IIn Pipino, Santxo Santxezen Baskoniako dukearen babespera joan arte. Onek bien bitartez baiña, Karlos Soillari umajea egitea erabagi eban, eta umaje ori izan zan askenekoa Euskal duke batek egingo eutsona, karolinjio errege bateri.

4. 4. *Gaskuñako Dukaterria.*

Gaskuñaren itza, ***Baskoniako*** euskal itza, latinkume frantzezak ***Gaskogne*** itzan biurtu

(1) Karlos buru-soilla = karlos el calvo, 823-877ko urte artean bizi zana.

Gaskuñako Dukaterria



Adur-ibai-ibarraren beko kokamenean sortu zan Gaskuñako Dukaterria.

ebenetik da, lurralde orreitan, euskaldunak baiño besterik ez ziralako egon.

Lurralde au, Frantziko egomendebalean, Garona ta Aude ibai inguruak, Auñamendiak eta Atlant Itsasotik mugatuta dagoena da, eta nai Paleolítico Neolitiko aldietatik euskaldun lurrak izan arren, euskerea ta euskaldunen oitura, Baiona inguruan bakarrik geratzen eida.

Erromatarrak deitu eutsoen lenengo Akitaniako izenagaz, gero euren antolaketarako Nobenpopulaniaren izena ipinita.

601eko urtean bisigodo ta frankoek menperatuta, sortu ziran Gaskuña ta Baskoniako dukaterriak, 1.058ko urterarte, Akitaniako dukerriaren menpe egon ziranak.

Gero XII-XVn gizaldi bitartean, ingelesaren menpean egon ziranak, arik eta Nafarroa ta Frantziko IVn Enrrike errege euskaldunak, Frantziako koroara aldatu arte.

781eko urtean sortu eban Karlomajnok Gaskuñako Dukaterria, Akitaniako lurraldeetan, eta bere seme Ludobiko Piok, bere aita Karlomajnok aginduta, Gaskuñako dukaterria artu ebanean, Baskoniako dukaterriaren legepean artu eban, laster kontuan jausita, Euskalerriaren oitura, askatasunezko oitura zala.

785eko urtean Karlomajnok, Ludovico Pio´ri Paderboneko jaurkitegira deitu eutsonean, au, euskal oituran aurkeztu zan bere aitaren aurrean: Praka luzeakaz, oiñetan zaldia zirikatzeko burdiñezko orkatx´ekin, eta eskuan aiztamakilla eroan ebala.

Konderri au, Auñamendien alde biko, Adur ibaiaren ibarrean, ta Baionako uriaren inguruan sortu zan. Betidanik, euskal sinismenean ondo zainduta egon ziralako, ta ondo arremanduta egon diralako gaur be, euskal izatasunean, zeozer baiño geiago geratzen jakie.

1.032ko Urrillaren 4an il zan Garziatar Santxo seme barik, eta Iruñako erregetza, bere jaurkintzagaz alkartu gura izan ebalako, Akitaniako duke ta Poitierseko konde Guillermo Aundiaren seme, Eudes´eri emon eutson ardura ori.

1.033ko urtean artu eban Eudesek Gaskuñako jaurkintza.

1.063ko urtean VIIIn Gillermok batu eban batzarrean, gaskoi konderria, Akitaniako dukaterriagaz bat egiteko erabagitu zan.

Gero, Akitaniako Leonor, Ingalaterrako Plantagenet´tar Enrrikegaz ezkondu zanean, Ingalaterrako feudo-jaunen morroitasunera aldatu zan.

4. 5. ***Banu Kasitarrak.***

713ko urtetik aurrera, Banu Qasi, Banu Kasi, Beni Kasi edo Banu Musaren senidetasuna, euskal edo bisigodoaren zaldunezko Kasio kondearen senidetasunetik datorrena da, Tudela, Tarazona, Zaldunen Ejea ta Najerako lurraldearen inguruetatik agintzen ebana.

714ko urtean mauritarren agerkera sortuz, Islam´era aldatu zana, Omeyatarren zergapeko edo morroi biurtuta. Ortik agertu ziran, Banu Kasi, edo, Kasioren seme alabak.

734ko urtean asi ziran Banu Kasi ta euskaldunen arteko arremanak, euren artean be senidatzen, eta batek edo besteak zeozer bear ebenean, an agertzen ziran alde bietakoak, laguntzeko prest.

784ko urtean eta euren arteko ezkontza orreitatik, Onneka´tar nafarra, nafar Jimeneztar Iñigorekin ezkonduta egon zan, eta bien artean Iruñako euskal erregea izango zan Jimeneztar Iñigoren gurasoak izanda, Jimeneztar Iñigo aita il zanean eta bere emazte Onneka alargundu, Musa ibn Fortunegaz eskondu zan, orko ezkontza bidetik Musa ibn Musa jaiota, Jimeneztar Iñigoren ugaz anai edo anai ordea izan zana, eta gero I Musaren izenakin, Saldubako jaurlari aundi lez ezagutuko zana.

851ko urtean Albeldako borrokan I Musak, katolikoak menperatu ebazan.

852ko urterarte, goi aldeko muga, borroka ugarikoa izaten zan franko ta mauritarren artean, eta eztabaida ugari orreitan, Banu Kasiren sendia sendotu egin zan lez, I Mohamed emirrak, Musa ibn Musa izendatu eban, lenengo Tudela, ta geroago Saldubako jaurlari lez I Musaren izenarekin, eta euren senditasuna indartzeko, Arista tar Iñigoren alaba, I Musagaz ezkondu eben.

852ko urte onetan, Tudela ta Saldubako lurraldeak jaurkituz gain, Kalatayuz eta Daroka, Kalamotxaraiñoko lurraldeak jaurkitu ebazan, gero goialdeko mugalde guztia jaurkituta.

Ueskan be, artu emon aundia euki eban, eta bere seme Lope ibn Musa, Toledoko jaurlari lez ipini eban.

862ko urtean I Musa il zanetik, bere semeak, Korduba edo Kurtubako Omeyaren aurka matxinatu ondoren, euren aurka asi ziran Tuyibieserik lagunduta, Xn gizaldian, Banu Kasiren jaurkintza lortuz.

4. 6. *Euskalerriaren aurkezpena, orduko denboratan.*

Euskalerriko edesti onetan eta Nafarroako erregetzaren sorkuntza baiño len, euskal askatasunezko demokraziaren eragipenez geratzen ziran lurraldeak, baita Euskalerriak euken ingurutasuna aurkeztuko dautsuet, adibidez, euskal lur lez Auñamendiren alde bateko iparrean, Akitania, Baskonia, ta Gaskuñako dukaterriak. Eta ego aldean: lau euskal lurraldeak Aragoiko lurraldeakaz osotzen zana.

Frantziko euskal lurraren gaiñetik, frankoak, ta erdiugarte onen Ipar-Mendebalean, barri sortu edo jaiotako Asturiaseko erregetza, edo ta ego alde guztian azkenez, sartutako mauritar indartsuekin inguratuta geratu giñan.

Au da jakin bear doguna zentzuz, zelango larritasunean aurkezten zan gure Euskalerri maite au, jakin degun.

Euskal askatasunezko demokraziaren sinismenekuak, zergaitik agertu gintzazan beartuta, jaurkintzazko antolakuntz barriak egiten, demokraziaren askatasunezko erri maite au, aurrera gura ba gendun eroan.

Bi izan ziran garrantzi aundienetarikoak, berezko errigizarteetan, menpeko kalte andi auek sortuko ebezanak baiña, bata: "Nizean 325eko urtean, ariñautik asmatu, ta, eleiz batzar nagusi orretan Mundu osorako erabagi zan, ***katolikotasunaren aberkidetzazko erlijioa, Kaisar agintaritzan ziñeskintzatuta***. Eta bigarrena: Jaungoiko Sortzailleen lege bidetik, Izadi onetan eta azturaz, bereztasunduta sortu ziran errigizarte guztien gaiñetik egin ebala.

Eta gure erdiugarte onetan, Ebro ibaitik, Kadizeraiño zabaldu ziran mauritarrak, 622ko Uztaillaren 16ko egunean Arabia Saudiko erdiugartean ta itsas-gorri ondoan, Hèyaz´erriaren Meka´ko(1) uri nagusian, Maomaren buruz edo izenean, mundu osorako sortu edo irasi eben euren Islam´en ziñeskintzatutako erlijioagaz, (katolikotasunen anai-lengusua dana), Mundu au, katoliko ta islam´eko erlijioaren ekanduagaz bideratzeko.

Katolikotasuna iparraldetik: 325eko urtean Nizean irasi eben ziñezkintzagaz, munduan egin dan lapurketa aundiena egin jakon, kristautasunaren ariñautik etorten zan errigizarteko eraman onari, edo ta ekanduz egin zan eritzizko sinismenari.

Bai Kristautasuna sortuz, Goiko Jaungoiko Sortzaillea gurtzeko Jesus´en irakaspidetzagaz, berak, berezko sinismenagaz ekarten eban ekandu, edo Europa ta munduan sortu zan kristau barrien sinismeneko zentzuari.

Katolikotasunaren kaiserrezko aberkidetzan batzangotzeko´en, asmakizunezko ziñeskintza orregaz beartuta, Jainkoaren eskutik, mundu onetara kudeatzaille edo egipidearen arduragaz jaioten garan guztioi, kendu egin euskuelako, berez ekarten doguzan kudeatzailletasunaren ardurazko egipide orreik, Munduko giza guztia bereztasunezko bidetik atarata, katoliko aberkidetzan kolonizatuz, euren morroi biurtzeko.

Katolikotasunezko eritzi ori, Euskalerriak baituta daukan askatasunezko Ekandu Demokratikoaren aurkakoa da, onek milla urte askotan, ondo baiño obeto azturaz baituta daukazalako, askatasunezko demokrazien zentzu orreik.

Ezin da, berezkotasunaren jendekuntzan lortu dan askatasunaren demokrazizko eritzia, morroitasunarenagaz zorro baten batera ekarri, euren agerpena, borroka utza dalako ekarriko dabena, eta alan sortu izan da edestiko asken 2.000 urte onetan.

Eta mauritarren Islam´tarrakaz ego aldetik: katoliko aberkideekin sortzen dan bardiñ antzeko bat sortzen jakulako. Katoliko ta Koran´eko liburuetan ziñeskintzatuko arau guzti orreik, Jaungoikuak bereztasundutako legearen aurkakoak direlako, bai ta Euskalerriak Jaungoikuari begira lortu ebazan Askatasun osoko Demokraziaren legeen aurkakoak be.

Euskalerria, bere askatasunezko demokrazian bien artean, ogitarteko bat lez, larri estututa geratu zalako, ziñeskintz menperatzail bien aurka bultzatzeko premiñan agertuz, berari egokitzen jakon eukal lur zabalean nasai agertzeko.

Beste erregetza asko sortuko ziran, Menperatzaillearen kolonizaziozko zatiketetan, eta Lapurrezko mamutzar aundi bi orrein aurkako bultzakada orreitan, Euskalerriari ta bizi onen bereztasunezko egiari, miñ asko egingo eutsenak, baiña ez daukenak ardura aundirik, euskal askatasunezko demokraziaren izatasuna, aldoten garbi ta argi guztiagaz alegindu nazelako aurkezten, edesti onen kondairan, emoten doguzan oinkadakaz.

4. 7. *Pipino ta bere seme Karlomajnok Aita Santuakin euki ebazan arremanak.*

Labur esateko:

(1) Meka edo Meca = lugar que atrae, por ser centro de una actividad determinada, o, donde esa actividad determinada tiene un mayor o mejor cultivo.

720ko urtean Mauritarrek, Auñamendietatik igarota, Toulouseri eraso eutsoen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, Abinessa, erdi-ugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra zanaren alabeagaz ezkondu zan.

Abd-el-Raman-ek baiña, Abinessa baztartuta eta Auñamendietatik aldatuz, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauz´en, ikaragarrizko zarraskiak egin eta gero, Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732ko urtean Karlos Martelek, Eudeseri laguntzen joan zan, eta Abd al Raman mauritarra Poitiersen geratu ta borroka galduta, betiko Auñamendien Egoaldera, joan bear izan eban.

Eudon Aundiak, iñolako nagusitasunik ez eban onartzen frankotarren aldetik, eta 735ean Karlos Martel Euskalerrian sartu ondoren, Eudon il eban. Eudon´en urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, eta onek, zintzotasunezko ziñ-itza emon bear izan eutson frankotarrai.

741eko urtean Karlos Martel il zanean, euskaldunak, alperrik asi ziran frankotarrak euki eben agintaritzaren aurka, 768ko urtean euskal Dukaterrian Unaldoren urrengo Waifre zanak, Frankotarrai aurre eginda, IIIn Pipinok Martelen semea il ebalako.

Martelen seme IIIn Pipino laburra, Karlo Magnoren aita eta orain Frankotarren erregeak, IIn Otsoari, Akitaniako euskal jabetasuna ta askatasunaren truke, berak euskaldunen artean aukeratzen ebazan esku aundiko zaldunak beragaz baituran lez eroatea beartu eutson, eta bera baituz eroatea izan zan, IIn Otso edo Lupok, I Eudonen askeneko semeak, Frankotarrari ordaindu bear izan eutsezan ordeak, Akitaniaren askatasunagaitik.

Jatorrizkoak ziran erregetzazko leiñu bi onen artean, politika arloan nor geiago izateko leian. Akitaniakoak: I Eudon, I Unaldo, Waifre ta IIn Unaldo ziran. Eta karolinjiotarrenak: Karlos Martel, Pipino laburra, eta Karlo Magno izan ziran.

760-768 urte artean IIIn Pipino laburrak erabagiko eban norgeiagotasun ori, 9 urte luzetan araubideko gudaldia eroan ebenagaz, garaille urten ebalako.

Euskaldunak eta Frankoak, kidetasunean jokatzen eben geienetan, baiña oneik menpeko asmakuntzazkoak ziran lez, beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen alde, agertzen ziranean.

Frankotarrak, mauritarrak dirala ta, artu emon aundia euki eben Baskoniako Dukerriagaz, Karlo Magnok, ardura aundia euki ebalako mauritarrak, bere erreiñutik kanpo egon zitezen.

Bide batez Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

Eta bitartez, erdi ugarte onen iparraldeko Emirrekin lan edo gudarako kidetu egiten zan, auek Kordobako Kalifaren aurka matxinatxen ziranean.

778ko urtean Karlo Magnoren gudalozte aundia, Roldan bere zaldun bioztoi aipagarrien agindutara, Salduba mauritarrengandik askatzera joan zan, eta eziñean, Iruñatik etxerantza aldatu zanean, Iruña erraustu eban.

Eta 778ko urtean Dagonillaren 15ean, Karlo Magnoren gudalozteak Auñamendietatik aldatzen doiezala, euskaldunak Orreagan itxaroten egonda, ikaragarrizko zarraskintza egin eutsen ekarri eben gudalozte orretan, Roldan, bera be, bertan ilda.

Gero, 1.090eko urtean Roldan´en abestiagaz betikotu egingo zana. Frantziko elerti lanen artean aundienetarikoa dalako.

Euskaldunak askotan matxinatzen ziralako Karlo Magno arduratuta, Asturiaseko IIn Alfonso nasgabea esaten eutsoen erregeagaz alkartu zan, baiña onek, ego aldeko mauritarrakaz bere premiñtasunak euki ebazan lez, ez eutson laguntzarik emon.

Katolikotasunezko eleizak, berezko errigizartearen eskubideak kontuan artu gabe, alegin asko egin ebazan Frantziako erregetzan batzangotu zitezen lurralde ta erritar orreik, eta neurri orreitan ugaritu ziren euskaldunen matxinadak Akitaniako lurraldeetan.

Aita Santu guztiak, katoliko joko orretan sartuta, beti ibili ziran euren arteko errege indartsuena aukeratzen, kaizar sakratuaren inperatore edo agintari izendatzeko.

Danak baiña, azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik, mendeko bide okerretan sartzen ziralako, berezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

Karlo Magno 800n urteko Gabonetan, Erromako Pedro Santuaren eleizatik ibilita, IIIn Leon Aita Santuak, erromatar kaizar sakratuaren Augusto-kaizerra izendatu ebenetik itzuli zanean, Akitaniako euskaldunak matxinatuta egon ziran.

814ko urtean Karlo Magno il zanean, I Pipino Akitaniako erregeak bialduta, agertzen da, IIIn Pipinok 30 urte ariñago baitu eban, Santxo Otsoa, IIn Otsoa´ren semea.

Santxo Otsoak zuzenduta egon ziran Euskaldunak, nobenpopulaniako lurralde zarretan. Gero, bere seme nagusia Aznar Santso, eta au I Pipinok il ebenean, 836ko urtean, bere anai Santxo Mitarrak artu eban euskal jaurkintzaren ardurea.

Santxo Mitarra, Nafarroa eta Aragoiko goi aldean ibili zan bere aitagaz, guda ta politikazko zeregiñetan trebetasun aundiak lortuta.

838ko urtean I Pipinok, Santxo Mitarrari borrokara beartu eutson, eta onek Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda, ezereztu ebazan Pipinoren gudalozteak.

Karlo Magnoren nagusikeritik 68 urte geroago, Euskaldunak, ostera jabetu ziran euren lurralde osoakaz.

Frankoaren errege I Luis errukitsuak, Santxo Mitarraren jaurkintza baieztu eban, 840an bera il zanean baiña, Frantziako kaizertza bere iru semeen artean banandu eban, eta mendebaleko lurraldea Akitaniagaz batera, Karlos buru soillaren ardurapean geratu zan.

Euskalerria, naita gero murriztuta geratu, beti danik izanda, Euskaldunen Aberria.

4. 8. *Euskalerriko ego aldean mauritarrekin Nafarroako erregetza ta Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzak.*

Erromatarren aurretik, Godotarren denbora ostetik, eta bai arrezkeroztik be, Akitania ta Nafarroako edestiak bardiñak izan dira, gure erria edo euskal lurraldeko gizarte guztia, beti alkartzen zalako Auñamendikateko babesean, izkuntz, sinismen ta oitura batekoak izanagaz.

Ori izan ote zan, orduan ulertzen zan euskal erresuma edo batzangotasuna, gaur "Aberria"ren izenagaz ezagutzen doguna ?.

Arrigarria da gaur euskaldunak espainitarren aotik entzun bear doguzenak, adibidez: "Aberrien zaletasunezkoak garela" diñoenean.

Gu ez gara "Aberri zaleak", gu Euskaldun jaioak gara, mundu onek, Jainkoagandik daukan bereztasunezko legean jaioak garelako, ta beren ondorioz "Eusko Abertzal Jendekoak".

Ez dira konturatzen, mundu fisiko onek daukazan aurretiko ezaupideak, ezin dirala nor beren naikerira aldatu, Izadi onek, Jaungoikuarengaitik daukazan legeak, ***"alda ezin, edo kendu eziñezkoak izaten ba dira".***

Euren izatasunean, norkerien asmoak baiño besterik ez daukie, eta Euskaldunak, izaeran "Nortasunezko Jaiotasuna".

Norkerizko lanean dabizen alegiñak dira ekintza orreik: "Egiari, guzurra dala esan, eta guzur utsari, benetako egia dala". Eta or, jarraitzen dabe.

Gaurko bizitzari, txoriaren begirakada bat emonda, ez da gaur sortzen dana ?.

4. 9. *Nafarroako erregetzaren sorkuntza.*

Goian ikusi dogu, zelan 800garren urtean, III Leon Aita Santuak Karlomagnori deituta, au Erromara joan zala, eta bertan, Iparraldeko itsasotik, Italiako Garellano ibaitik, Ebroko ibairaño, eta Mendebaleko Atlant Itsasotik Ekialdearen Boemiarañoko Erromatar Kaisalerri Sakratuaren Inperator, edo Augusto Kaizar Jaun, Erromako San Pedro Eleizan koroatu ebala.

Emen, kaizartzazko lengo ariari irauntasuna ostera emonda, erromatar Kaisal Erriaren agindupean batu gintzazala, esaten da.

Euskaldunak baiña, erromatar kaisal´erri orrek esaten dauan lez, Karlomagnoren menpean egon ote giñan ?.

III Leon Aita Santu ta Karlomagnoren irudimenetan bai, baiña egia non ?.

Guzti au, baleiteke Kristautasunaren zabalkuntza, katolikotasun alderdikeritik finkatu edo gogortasunean babesteko izatea.

Zergaitik naspildu baiña, gudaren eritzizko indarrak, JAUNGOIKUANGAN euki bear dogun sinismenagaz ?.

Argi dago, Kaisar ta Aita Santuaren katolikotasunezko aberkidetzaren aginpean batzangotu gindezan, egin ebala naskeri ori, Jainkoak ipini ebazan berezko lege ta errigizarte guztien eskubide gaiñetik ezarrita, norkerizko asmakuntz guzti orreikaz.

Euskalerriko Auñamendiak, euren zilbor edo erdi-toki-lez, beti izan dira Euskaldunentzat, babes leku ederrenak.

Baiña gaurko edestian sartu gintzazanetik, gizaren eginkizunezko trebetasunak soiltzen joanda, bearrezkoa agertu jakun, oraingo antolakuntza barri baten kokatzea.

VIII-IXn gizaldi bitartetan agertu jakuzan aukera orreik, 778ko urtean Karlo Magnoren gudalozteak, bere zaldun bioztoi Roldan aipagarrien agindutara, Salduba Mauritar Soliman ibn-al-Arabi-ren menpetasunetik askatzera joanda, eta eziñean, Iruñatik etxerantza aldatu ziranean, Napar Uria erraustu ebenean lenengoz.

778ko Dagonillaren 15ean Karlomagnoren gudalozteak Auñamendietatik zear igarotzen egon ziranean, Euskaldunak ostonduta, Orreagan itxaron eutsoen, eta ikaragarrizko zarraskintza egin eben gudalozte orreitan, Roldan bera be, ilda.

Eta 814ko urtean Karlomagno il ostean, bere seme Ludobiko Piok 824an, ostera bialdu ebazan beren gudalozteak Nafartarren aurka, Euskaldunak, guztiz ezereztu ebazanak.

714ko urtearen aldi onetan, kontuan artu bear da, Kalifaren zerbitzura aldatu zala Akitaniako Kasio kondea, ortik aurrera Euskal sendi au, Banu Qasiren izenagaz ezagutuz, 824ko urtean euren laguntzagaz, Nafarroako Jimenez ta Aristatar Iñigo lenengo Nafar

erregea izendatu gendula, 852ko urtean bera il zan arte iraunda, arik eta bere ondorengokoak Nafar errege barriak izendatu arte.

Argi dago, Euskaldunak denbora onetan, arrizku aundiak euki ebezala, euren izaerazko demokraziaren askatasunekin, beste guztiak katolikotasunaren aberkidetzagaz aleginduta, Auñamendiko alde bietatik erasotzen euskuelako, eta buruzagitzazko sendi aundi bien edo agintaritzazko talde bitik, sortu ziran Iñigo ta Belaskotarrak, biak bata bestearen aurka kokatu ziranak. Iñigotarrak, Banu-Kasi mauritarrakaz senidetuta, eta Belaskotarrak frankotar Karolinjioarekin.

Eleiz katolikuak, euskaldunak Frantziko erregetzagaz alkartu egiezen naita alegin asko egin, Baskoniako dukaterrian, beti agertzen ziran matxinatuta, alegin orren bidez.

Orregaitik Aita Santu guztiak beste aldetik, kaisertzazko domiña aundi bat ibilten eben danbalaka esku artean, errege indartsuenari emonda, Mundu onen errigizarteak indarrez, eleiz katoliko aberkideen alde kolonizatzeko.

Baita erregeen artean be, onenak edo, indarrez almen aundienetarikoak aukeratzeko, eta bata edo besteari indarra emonda, domiña aundi ori euren paparretan eskegita ipini egien, katolikotasun aberkidetzaren kaisar sakratuzko kolonizatzailleak izan egiezan egiten ebazan indarkerizko alegiñ guzti orreik.

Danak baiña, azken gaiztoa euki dabenak, berezko lege ta erriak, kontuan ez eukiteagaitik. Kristoren denboratik, ekarri dogun edesti guztia gaur arte, nardagarri edo utsasgarriko sarraski(1) aundi bat izan dalako. Mundu onen Ekanduzko zentzua ankaz gora ipiniz

4. 10. *Asturias ta Leongo IIIn Alfonsoren alegiñak, euskaldunak menpetzeko. Euskalerriko erantzunean, Bizkaiko Jaunen sorkuntza agertu ebena.*

Gure Euskalerriko batzar nagusiek, Jaungoikuak Izadi au, berezkotu eban legezko atonduan kokatzeko, Paleolítico Neolitiko alditik, azturaz zaldikatuta etorri ziralako euren zeregiñetan, leen aldi orreitan lortu ebezan, askatasunezko batzar demokratikoen nortasunak.

Eta uren barnean baituta geratu ziralako, Izadi onen berezko legeditik artu leikezan ulermen ederrenakaz, orregaitik jabetu ziran amaibako askatasungaz, lortu eben demokrazi ederrarekin.

Bizkaitarrak baiña, Nafartarren antzera, ta euren oituragandik kanpo, jauntzaren ta erregetzaren jaurkintza artu ba eben be, ez eben artu beste euskaldunekaz banatzeko, Paleolitiko Neolítico jendekuntza bidetik, Europa guztian euskal ta griegoen antolakuntzaren antzera, lurraldeko batzar nagusiekin jaurkitzen ziralako, danak sendi batekoak sendituz.

Katoliko aberkidetzaren kolonizaziozko asmo-azterpen, edo egitamuzko saio barri orregaz, nai gure artean betiko oitura demokratiko lez aurrera egin arren, eurak, erlijiozko egi lez, danak itsutu ebazalako, apurka apurka eta denboraz, gu ere, berezko azturaren lege bidetik urten bearrezko alegiñetan asi bear izan gendun eurakaz konpontzeko, eta neurri orreitan asi giñan, norkeriz asmatutako guzur orreitan lokaztu edo zikinduten. Guztiz ez dabena lortu.

Orregaitik, eta erlijioz ta jaurkintzazko leku guztietan, ainbeste erasotatik urteteko, Europaren katolikotasunezko ezarpena ikusi ondoren, bizkaitar lurraldekoek, nafartarrak lez, beartuta agertu ziran beste aukerazko antondu bat sortzen, eta Europaren erri artean erri lez

(1) Nardagarri edi utsasgarriko sarraski aundi bat = totalmente despreciables grandes matanzas.

bizitzeko, errege edo jauntzaren antolamenduan ezartzea erabagi eben.

Joku orreitan, berezko antondu ori izan zan, katolikuak ezereztu edo menperatu gure ebena, munduko lurraldearen errigizarte guztiak, katoliko aberkidetzaren eritzizko agindupean batu zitezen.

Ezinezko asmakizuna da baiña, mundu onetan iñork ez daukalako Jainkoaren ordezkorik, eta gutxiago, Berak, Izadi au berezkatu ta gaimugatu Eutson legearen gaiñetik agintzeko. ***Izadi onen bereztasunezko legeak erakusten dauan lez.***

Euskal askatasunezko demokraziaren eritxikoarentzat, ez zan egon beste aukerarik, ***asmatu eben katolikotasunezko arrano aundi orren indarrezko gerizpea, aundia zalako,*** eta naita euskaldunak, errege jauntzazko antolamendu ori beti, batzar nagusiaren agindupean ezarri: ***Mundu guztirako bideratu zan "griegoen jakintza, Erroma ta Godo kaisartza, Judu legedian, ta Erroma katolikoen sakratuzko baldintzatan*** ezarri bear genduzan naita nai ez, gure errege ta jauntzazko antolamendu barri orreik. Orduko denboratan, iñork ez ebalako aukerarik euki, inguru ortatik urteteko.

Zelan lotu ote leikez baiña: ***Griegoen jakintza, ta Euskalerriak azturaz ta Jaungoikuari begira lortu ebazan askatasunezko demokraziren oiturak, kristau katolikotasunaren kolonizatzailleak norkeriz asmatu eben, katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko, Erromatar Godo kaisar sakratuak daukezan menperatzaillezko legeen baldintzakaz ?.***

Euskal eritzizkoak, len eta gaur alkartzen gara sendi edo aberri bat lez, benetako askatasunaren demokrazian ulermenduta, euskal erritarrak, Goiko Jainkoak berezkotu ebazan legeak daukaguzelako ***elburu.***

4. 11. *Bizkaitar Jauntzaren sorkuntza.*

Durangoko Jauna eta Nafarroako erregearen ordezkoa izan zan Eztegiztar Santxo il zanean, Bizkaitarrak, euren batzar nagusiaren lege jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaintzeko bearkuntzan agertuta, gudal buru ta epaille nagusi bat aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Eta 888ko urtean Paduran Asturiarrakas egin gendun borrokan ta gero Arrigorriaga deituko zan errian, Busturiako gazte batek, borroka orreitan egin ebenagaitik aukeratu eben Bizkaiko leen jaun lez.

Abizenez ***Lope*** euki ebena, eta bere amaren bidetik Eskoziako erregearen bir-seme edo billoba zana(1).

Eztegiztar Santxoren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaiaren leenengo Jauna: ***Jaun Zuriaren izenagaz*** ezagutu zana, arik eta 909ko urtean il zan arte.

4. 12. *Bizkaiko Jauntza sortarazteko gertatu zana.*

838tik 882ko urte bitartean, Asturias eta Leoneko errege IIIn Alfonso(2), borrokalari sutsu, andi, katoliko, edo ta majnoren izen goitikoagaz ezagutu zanak, Moruen eskuetatik beren lurraldeak, Duero ibaiaren beko alderarte berrezkuratuta, ta eukezan jabetasunezko lurraren zabalkuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko antolatzen asi zan.

(1)Kontuan euki bear da Eskoziako Piktoak, euskaldunak zirala. (2) IIIn Alfonso = 838-912´n urte bitartean bizi zana.

Arabatik asi zan IIIn Alfonso, eta Arabarrak euren jaun Elionegaz asarratuta egon ziralako, IIIn Alfonsok, Elion kondea arrapatuta, Araba, borroka barik eskuratu eban.

Gero, gaur baiño askoz aundiagoa izan zan Bizkaia menperatzera etorri zan. Onen lurrak sartaldetik asita, Kantabria, Kastro Urdiales ta Menako ibarrak, sortaldetik, Debako errekeak ureztatu egiten dauazan lurrak, ta eguerdi edo egoaldetik, Aramaiona ta Ayalako ibarrakaz osotzen zala.

Bizkaitarrak aurre egin eutsolako, Alfonsok beren bigarren seme Ordoñori deitu eutson, eta guda indar askogaz, Orduña, Amurrio, ta Luxaondoko(1) bidetik, Bizkaiara sartu zan.

Bizkaitarrak, Durangoko Jaun Eztegiztar Santxoren agindupean ipini ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoñoren gudalosteari Padurariaño sartzen itxita, bertan eta beardan eran astindu ebazan, Alfonsok ekarten ebazan gudalozte indartsu orreik, geiago ez zitezen agertu.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek jakin ebelako Euskaldunak Bizkaiaren Luxaondoko errian dagon "Malato" zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, Ayalako Gorobel menditik goiko mendietara igon ebenean, ***"a salvo somos"*** esan eben, eta orregaitik esaten jako lurralde edo iñoren mugalde orreri, ***tierra salvada***.

Padurako erriari ortik aurrera, ***Arrigorriaga*** deitu eutsoen, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak, odolez margoztuta geratu ziralako.

Borroka orreitan il zan Ordoño, eta beren gorpua Arrigorriagako eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegiztar Santxo be, bertan il zan, eta beren gorpua, Durangoko Tabiran, San Pedroko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888ko urtean San Andres jaia ospatzen dan egunean, Azaroko 30ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkaiko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzea, gure ikurriñarako.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa, Araba, ta Nafarroako erreiñuaz elkargotuta, 1.224n urterarte iraun ebana.

Eta ez espainiarrak esaten daben lez: ***bizkaitarrak askatasuna lortu arte***, nafar, bizkaitar, arabar, gipuzkoar, benafar, lapurditar ta zuberotarren euskal askatasuna, bere izkuntza beste antziñaukoa dalako.

Asturias Leongo Alfonsotar erregea eta frantziko Karlomagnoren artean, ondo baiño obeto konpontzen ziran Aita Santuaren laguntzagaz, Izadi onentzako, eurak euki eben katolikotasunaren sakratuzko aberkidetzan batzangotzeko zaletasunak, bete egiezen.

Eta orregaitik bereiztu egin bear dogu emen ondo baiño obeto: euskaldunak euki gendun askatasunaren demokrazizko jaurkintza, eta espainitar ta frantzezak, euren katolikotasunezko sasijainkotasunean euki dabez goitik berako kaisertutako jaurkintzak, jakin degun, Jainkoak bereztu ebazan legeak, noren aldetik zaintzen diran obeto, danon mesede.

I Silbestre Aita Santua, ta I Konstantinoren aginduz irasi ebazan legeak, Europa ta mundu osoarentzat egin ebazan, eta orduan bizirik ezagutzen ziran, nai berezkoak, edo ta norkeri bidez kolonizatuko erri guztiak, orren arautegipean atrapauta, ta urten ezinik geratu ziran, Europako errigizarteak euren jaurkintzarako antolatu ebazan tresneriak, danak jaio ziralako iru baldintza onen legepean:

(1) Luxaondo = Luyando = donde comenzaban los terrenos de nadie que comprendian esas tierras de la "marca" o fronterizas.

a).- ***Erroma Godo´tar, kaisar sakratuzko legepean.***

b).- ***Norkeriz asmatutako, judu-katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasunean.***

d).- ***Eta Griegoen jakintza apurbategaz, itxuran gabetzeko, katolikotasunezko aberkuntzaren kolonizaziozko maltzurkeri orreik.***

-Leenengo biak, menperatzailletasunezko baldintzak dira, biak diralako Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurkakoak: "nai daukazan legediarenak", "bai Omosapiens gizakiak azturaren oiturazko bidetik, baitu ebazan "Arimarenak".

-Irugarrenak alderantziz, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezko antzerki onetan berez, eskubidetuta daukagun "askatasunezko demokraziaren" antzezlaritzan kokatzen gaitu, mundu onetako gizon emakumeen berdintasunaren "nortasunezko zentzu ederrenean".

Orregaitik euskaldunen Euskerea eta euskal Askatasunezko Demokraziren zentzuak, ez daukie alderdikerietan izan gaitasunik, bere bizitzako azturan, oituratu dauan euskal demokraziaren ulertza baiño, askatasunezko demokraziak ez daukelako alderdikeririk.

Frankoak eta Asturiarrak alderantziz, lenengo bietan sortzen diran lez, kaisertzaren laterrizko lillurkeriaren ametsean, katolikotasunezko batzango baten ezarri gure dausku.

Orain, goazen ikustera, zeintzuk diran Izadi onen legeak, eta zeintzuk izan bear dira jaiotako giza seme/alaba guztiak erabili bear doguzenak.

4. 13. *Izadi onek daukazan legeak, eta gizaren seme/alabak erabili bear dabezanak, Euskalerriko Edestiaren 1go atalean ikusi genduzanak.*

Zelan bere bigarren zatiaren sarreran, oldozmen auekaz azten gendula:

Sinistu eziñezkoa dala, mundu onetako gizartea, jakintzan ain mailla aundikoa izan, eta kontuan artu ez, guretzat asierazko eta gaurko denborak, bardiñak dirala.

Jaungoikoarena izanda, Izadi onen sorraldi onetan ikusten dogu, ludi onek guretzat, ez daukala asiera eta amairerarik, ez eta gitxiago, gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Jaungoikuak, gai-lur-aize-ur oneri sartuta, bere Legeen irakaskintzak aurkezten dauskuzan aurrean, guk, gure bear bearrezko bizitz onetako ekintza bidez, gaia erabilkeraren arloetan, eta gizarteko arremanetan egin geinken guztia, egitarau(1) ta azpiegiturazko(2) antolakizunetan erabili bear doguzan ekanduzko ulermenakaz amaitzen jakula.

Guk ezin dogulako legerik atara, eta gitxiago iñorentzat erabili, ***"gure norkeriaren legeak diralako beti"***, bestearen aurka egiten diranak.

Gaur, espainitarren konstituzioagaz sortzen dana: ez dalako euskal, katalan edo ta galleguarena, euren kostituzioa dalako. Orregaitik erabili bear doguzan legeak, Izadi onek daukazan legeditik atara ta erabili bear doguz, danon arteko legeak izan zitezen

Edo ta, gu irasleak ez garelako, gaia berak daukazan Legeen aurrean, eta gure bizitzaren ezinbeste lanezko aldaketak egiteko, gaia berak, daukazan legeen jardunbide edo jokabidean mugatuz amaitzen jaku, gure lanezko almenetan, Beren ekanduzko alegiñakin ibili gindezan.

Eta errigizarte artearen legeen ekanduzko arremanetan gaur ikusten doguna, gorrotogarria

(1) Egitarau = proyecto, regla, mètodo. (2) Azpiegitura = infraestructura, subestructura, parte inferior, base o cimiento.

ta ikusiaz batera, naska emoten dauan gauza da.

Mundu onetarako ***gizakituak,*** sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egin bear doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuz, ta danontzat bardiñak diran lege orren baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura andiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak, bizi garan serbitzurako, bestela, egiten dogun guztia, orekak leku guztietatik galdu ondoren, oker, ankazgora, zentzubage ta neurrian edozein gauzatan urtengo leukezelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean, gaur gertatzen jakun lez.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak, tresneri lez kontuan artu bear dabezanak gauza guztietarako, eta ekanduzko ardura bardiñak, diruzko zor-eskubidearen arremanetarako, ordezkaritzazko antolaketak, egokitzen dabezenèan.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak(1), orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, mukullu arteko gintzan daukien erakarrezko indarra, gai-lur onen Izadizko irudia osotzeko, eurak osagarritasunezkoak izan daitezen legea da, eta bide batez, gurentzat, erakar, eratorri edo ta askatasunezko indar orreik ulermenduta, gure arteko osagarritasunaren eragilletasunerako, berezko legeen eredu lez, garrantzi aundiko bizi-tresneri bat dala.

Orregaitik, ***Izadi oneitara Jaioten garan guztiak, zorreskubideko arduran bardiñak izanda, ta bear-bearrezko ordezkaritzan jaioten bagara, Ludi onek Jaungoikuagaitik daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean, osagarrizkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, gaiaren antzera, zeregiñ bardiña daukagulako.***

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, azturazko bide orreitan eraikitako izkuntz, etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira, oiñarri lez ipini bear doguzenak, bizitz onetan, askatasunezko antola baten orekan bizi gura ba-dogu.

Gai-gizaren bizitz onentzat ortik aurrera, danon lotsagizunezko ardureak bear doguz, egiten doguzan egitamuak, zentzuz gauzatu gura ba doguz.

Bai eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroateko.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez ***ziurtasun guztiagaz.***

Gaurko politikuak, gai eta gizaren Ekanduzko eskubideak, ez dabezelako egian oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai-giza arloetan, dana agertzen da ankaz gora, nastu zital baten lez.

-Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gosea, gaitzaldi, elde edo izurriteak(2), eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo norkerizko agintari zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorrak erabilita, nai gaiaren

(1) Mukulluak = polvo, àtomos. (2) Elde edo izurriteak = peste, epidemia.

edo ta danon giza-eskubideko ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten-bageko, ta joputzazko edo etsaimendeko menperatzail ekintza baten.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran, ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltsikoak beti berriz beteta eukiteko.

Baiña gaur beste alango borroka bat egiteari, eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurrak eten barik, gero ta indar geiagorekin argira igoten dabe, eta orain 1.695eko urtetan bereztasunaren aurka, Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza-gorputz ori, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen garean lez, argi erakusten jaku:

a) Askatasunezkoak izanez gain, osagarritasunezkoak garala jaioten garan guztiak.

b) Kundeatzaille edo gai onen ekanduaren eragilletasunerako jaioten garela.

d) Gure eragilletasunean orregaitik, gai ta giza guztiaren eskubideak ***kontu aundian artu bear dituguzela, (ezeren aitzaki barik esangura dau orrek)***, banaka, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztasunezko aztura bidetik, izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereizkotasunak, nai banaka edo ta errigizartearen arteko ulermenean, bereiztasun bardiñetan sartuta, danak, bardiñezko zor-eskubidedunak diralako bizitzaren eginkizun guztietan.

Gorputz ta izkuntzetan egoten diran bardiñ-ezak, bakotxa, auzo, leiñu ta errigizarte lez, bakardadean bizi dan toki-inguruak, emoten dautsielako da.

e) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dagolako iñungo izatasunik: "irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan".

Orregaitik, gure zentzunezko alegiñetan, iñorentzat ezeren legerik egin barik, alegiñ guzti orreik, Jainkoak bereztasundutako legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, norkeriaren menpekotasunetan biurtzen diralako.

f) Ala, mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

Zetan ote gabiltz ?:

Jainkoagan, edo ta bere legeetan sinismena sendotzen, ala, sasi-jainkoarenak egiten ?.

Ludi onen sorraldiagaz bear dogunerako, dana dago asmatuta, gure asmakizunetarako bere gai-kopurutik bereiztuta artu bear doguzelako gai-indarrak.

Or dagoelako bear dogun guztia.

Mundu onetara jaiotzen garanean, gure arima gai-gorputzagaz mozorrotuta agertzen da, asmakuntzaren egikerarako bear dauan zentzumen eder eta mirariakaz.

Danak bardiñ ta bearrezko eskubide bardiñakaz jaioten ba-gara: ***bear dogun gauzetarako, zelan erabili bear ote dogu gorputz ori ?.***

Gudan ?.

Ala nortasunean baitazkoak izanda, gaia ta gu, Bere Legeakaz erperatuta egonda, arimaren arrazoizko zentzumenean, ulermen onak alegintzen dauskun lez ?.

Or, ez liteke zalantzarik egon bear.

Beste aukerarik ez dagoelako, argi esan gura dau guzti orrek, ordezkaritzaren ekanduzko bizi batera jaio garala.

Ordezko ardura orreik baiña, zelan erabiltzen doguz ?.

Saiatuko naz, naste-borraste orreik argitzen, oraingo Euskalerriaren edesti onen ardurazko idaz-sail bidetik.

Leen, oso polita dalako, eta bigarren, euskaldunen ardurazko begiak zabaltzeko, oso argigarria dalako.

Asi gindezan ba, Euskalerriko Edesti onen ondoretasunagaz, agertzen diran zeaztasunak, al dogun argi guztiekin aurkeztuten, Euskaldunen arazoak edestitik zear, argi zabalagaz ikusi bear doguzelako.

4. 14. *Izadi onen giza seme/alabak erabili bear doguzan legeak:*

Ordua da ba, konturatu gindezan, gizon/emakumeak, norkerizko giza eritziz egin diran lege guztiak, pikutara bota bear direla.

Eta Goiko Jaungoiko Irasle Berak, Izadi au sortu ta berezkotzeko, irarrita ipini eutsoezan legeditik asita, artu bear doguzela, bear doguzan legeak, danok bardiñak izateko, bere gaiezko-izaeraren lege-bidetik daukaguzelako askatasunezko bideak, gizon/emakume zentzunezkoak izateko.

Danak jaioten gara narru gorri edo ta billoxik, eta kontu aundian euki bear dogu, gure ***Arimak,*** ostera itzultzen dirala ***narru gorri edo ta billoxik Jaungoikoaren aurrera, denbora gutxi barru baten.***

Mundu onetako ***gizakituak,*** sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egin bear doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuz, ta danontzat bardiñak diran lege orren baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Orregaitik, ***Izadi oneitara Jaioten garan guztiak, zorreskubideko arduran bardiñak izanda, ta bear-bearrezko ordezkaritzan jaioten bagara, Ludi onek Jaungoikuagaitik daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari lege bardiñean, osagarrizkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, gaiaren antzera, zeregiñ bardiña daukagulako.***

4. 15. *Euskaldunak erabilten genduzan lege demokratikoak, Bizkaiko Jauntzarenak, eredu edo ulerpide lez ipinita.*

Nafar erregetza eta Bizkaiko jauntzaren sorkuntzara eldu garanean, eldu gara gure azkeneko edestiaren sorkuntzara, emendik aurrera sartzen garelako gure edestiaren askeneko ekiñaldietan.

Eta jakin bear dogunetik kanpo ez daiten ezer geratu, bear diran zatietan bananduko dogu, egarri aundiak daukaguzelako arlo orretan gure Euskalerri maite au askatzeko, gaur ikusten dogunagaitik, satorraren antzera gabizelako arlo auetan, gure erri maite onek daukazan arazoetatik atarateko.

Euskalerriaren Iparraldeko lurraldeak, Ego aldeko lurraldeak lez, euren oitura zarreko Batzar nagusiekin jaurkintzen ziran, ta Nafartarrak, erregetzazko jaurkintza euki arren, erriak agintzen eban, Obanos´eko aitor-seme edo Aitonen-semeak erregeari esaten eutsoen antzera: "ni zure beste" "danok, zu baiño geiago". Bestela begitu Gipuzkoako batzarrak eta Arabako "Anaitegietan", zelan ulertzen direzan eritzizko gauza orreik.

Orregaitik, Bizkaiko Jauntzaren arau bidea argituko dogu bakarrik, gero Gaztela edo katoliko aberkideak daukazanekin berdinkatzeko, jakin degun, zelako sasi-tartean sartu euskuen, katoliko erlijio orregaz.

4. 16. *Bizkaiko Jauntzaren legeen gaiak.*

Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunarekin elkar aditzeko.

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak, artekari lanak egiezen:

a).- Gudal-buru izateko.
b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.
d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorezko lur zabalak, zaindu egiazan.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna, jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik, berea ez zala ezer, bizkaitarrakaz, egin bear eben antolarazia(1), itzalgarriro(2) ezarri dagian, emoten eutsoelako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apur bat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra, errian egoala erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar Nagusia, Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean, eta gudarako gizonen laguntza bear ebenean, gure batzarrak, beartuta geratzen ziran, bere guda taldea, gure mutillakaz osotzen, naita beren gauzatarako izaten zanean, aurretik ordaintzeko antolamenduan beartuta.

Ortik aurrera, erromatarrak Euskalerrian sartu ziranean bezela, gure lurraldeen jabeko jaurkintzak, ta euskal askatasunezko demokraziaren eritziak babesteko, Bizkaiko Jaunak eskatutako gudarien baldintzakin, ta katolikotasunean aberkidetuta batzangotzeko egin zan erlijio orren erruz urten ezinik geratuta, Euskaldunak, beti agertu gara, euskal anaien arteko borroketan beartuta, alde bitan jokatu bear gendulako, euskal lurraldeko jaurkintza, bata edo beste euskaldunen aldebiko eskuetan geratu zedin.

Eta nai errua, orduko Europa edo Munduko kaisar agintari, ta erlijiozko agintari nagusiak euki, euren norkeriz, ipini euskuezan baldintzak, guzurraren zentzuzkoak izanez gaiñ, egi lez ziñezkintzatu egin euskuezalako, Munduko errigizarteak ortik aurrera, zorabiatuta bizi dira beti, arrazoia bere egi lekura eroan ezinik.

Orreik izan dira, ordaindu bear izan doguzan sariak, Jainkoaren legeari begira, Paleolitiko Neolitiko bitartean, lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrak, zentzu aundiz zaintzeko.

Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatuko Jaunak kendu eikiezan, emon jakien jaurkintza lekutik ?.

(1) Antolarazi = arreglar, organizar, arbitrar, conciliar. (2) Itzalgarritasunean = respetablemente, venerablemente.

Euskal batzarrak, almen guztia euken, Jaunak, ziñez ez ba ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak euren agintean, ez ebelako mugarik euki, berea izan zalako jabetasuna.

"Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak, jauna ipini ta kentzeko".

Alan gertatu jakon, IVn Enrike, aalgabe edo ezindunezko(1) Gaztelako erregeari eta abar.

4. 17. *Eta zeintzuk izan ziran Asturias Leon Gaztela ta Frantziako Franko erregearen katoliko arauetatik, Euskalerrientzako sortu ziran arazoak, ta gero Europako erregetegi guztietatik ?.*

325eko urtean, Nizeako batzar nagusia egin ebenetik aurrera, eta Mundu onen gaurko egunerarteko jaurkintzan ekarri dabena, ikusten dogu.

Nizeako batzar berezitik, "Iru jainko´en" izenean agindu zala katolikotasunezko erlijioa, eta artu ta ziñeskintzatu ondoren, Mundu osoa menperatzeko ibili dirala euren asmo ori, baldintza onekaz beteteko:

"Katolikoen aberkidetzazko erlijio bakarrean batzangotu gure ebala Munduko giza guztia".

"Ziñezkintzatuko kredoagaz, katoliko aberkidetzaren erlijioa, ikurra lez baldintzapetuta".

"Latiña, danoen izkuntz bakar lez, Mundu onen osotasunezko gizartarentzat",

"Infernuko beldurretik alde egiteko", aitortzaren kontrolpeko baldintzak ezarrita.

Eta bai ta, euregandik gain, "espataren keiñua", ezarritako baldintza orreik, naikoak izan zitezen, Munduko giza guztia norkeriaren joputzazko baldintza orreikaz menperatuz, euren Erroma-Godotar katolikotasunaren aberkidezko kaiserraren kontrolpean eukiteko.

Norkeriz edo guzurrean ziñeskintzatuko arauetatik ez dalako aldatu ezer, antola guzti orreik, beti izan dira, Aita Santuak ziñezkintzatu ondoren, eta berari jantzi jakon uts-ezintasunezko almenagaz, beren goitik beerako agintaritza ori, ezin besteko gogortasunean agertu daiten.

Errigizarteak ta jaioten garan guztiak, Goiko Jainkoagandik irarrita ekarten doguzan, erantzupideen almenezko ardura guztiak, Aita Santuen eskuetan batuta geratu zitezen, Mundu osoko giza-alaba-semeak, katolikotasunaren aberkideko erlijioan biurtzea gura izanda be, Jaungoikuak Izadi oneri, bereztu Eutsozan legearen guztiz, aurkakoak direnak.

Ortik aurrera, eta edozein agintaritzazko mailla guztietan, bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñ gero ta gogorragoakaz ibili dira beti, eta norkeri orren leenengo pekatua, gaurko pekatu ber bera dan lez, or dabiz IVn gizaldiko Nizearen batzarretik, euren norkerizko guda indar guztiagaz, Europa ta Mundu guztiko errigizarteak, katolikotasunaren aberkidetzazko morroitasunean, batzeko alegiñetan.

Omo-Sapiens ?.

Gaur, norkeri orregaz jokatzen ba dabe, zer ez egingo ote eben, leen katolikotasunezko asieratik, Aragoi ta Nafarroako IIn Juan ta bere seme IIn Fernando katolikuenera eldu

(1) IVn Enrike, aalgabe edo ezindunezko erregea = Enrique IV el impotente.

zanean, euren exkomikuko maltzurkeri ta guzurrakaz, katolikotasunezko aberkidetza ori, Euskal-Nafar ta Euskalerri osoan sartu eziñean ibilita.

Bai ta Frantziko iraultzaren osteko denboratik bardin izanda, Europako gudal ta eleiz agintariak, Europa osoa laterritzeko beti ibili dabezan alegiñakaz ezer ezin eginik, eta Frantziko iraultzaren ostetik, gaur zatika laterritzeko alegiñetan dabizena, berezko erritarrei, eskubidez daukien jabetzatik ezer emon ez egiteko, alegiñakin ?.

Dana ez ote da izango...., berezkotasunari berea emon egin ezgero, Jaungoikuaren Lege-Jokuan sartuta, gaur norkeriz jaurkitzeko daukagun Arauzko Lege bideetatik alde egin bear izanda, batzuen ondo bizitzeak pikutara joaten dirala ?.

Leen adibidez, Kontu aundian artu bear dana, erregeak nai almen aundietan ezarrita egon arren, Aita Santuaren azpitik egon zirela, eta Aita Santu batzuk, larritasunezko aukeran aurkezten zirela erregeen gaiñetik ibiltearren, Gaztelako I Karlosekin´en antzera, au, Aita Santuen atzean ibilita, burua moztuteko alegiñean.

Euren buru gaiñetik, ez ebelako ulertzen, ainbesteko agintasunik, naita Aita Santuak Uts-ezintasunezko almenagaz jantzita egon arren..

Emen daukazue, ori egia dala esateko: Aragoiko errege I Alfonso Gerlariaren borondatean, Aragoiko erregetza, eleizaren agindutara ipini gura ebala, berak, bere asken naian argitu ebenagaz.

1.131ko urte oso baten, inguratuta euki eban Baionako erria, ta urte au menperatuta euki ondoren, euren foruak emon eutsozan.

1.131ko urte onetan eta oraindiño Baiona inguratzen egoala, egin bear izan eban bere azken nai orretan, Jaungoikoaren alde egin ebala, Templarios, Ospitalarios ta Jeruzaleneko Illobi Sakratuaren lekaideak jaurkitu egien Aragoieko erregetza.

Ekintza onegaz bakarrik, baten bat konturatu leike, zelango itsutasuna egongo zan, katolikotasunezko aberkintzan batzangotzeko erlijioagaz.

Eta gaiñera, sinetzi ezin leikena, Jaungoikuaren izenean, noraiñoko sakratu mailletara igoten ebezan, eurak egiten ebazan sarraskitzaillezko triskantza zital orreik. Zarri egiten ebezanak.

Bestela, sinetzi ote leikez, azkenai orreik ?.

Ez da lenengoa, eta ez da izango azkenekoa, gero ikusiko dogun lez.

Orregaitik gaur ulertu leike, ez dala erreza eritzi orretatik urtetea, 2.000 urteko sasi jainkotasunezko joku orreik alboratu egin bear dabezelako, eta danok dakigu, fazizmoaren ERPE sakon orreik, ez direzela errez kentzen, oraindiño ondo ebatuta dagozelako, gizarte irabazkoi arloetan.

Argi ikusten da, euren artean be, ez ebela ziñisten, esku artean ibilten eben, katolikotzan aberkidetzeko, batzangozko eritzi orreik, Mundua, guzurrezko eritzi orregaz jaurkitzen bada, argitasunezko nabaritasunean agertzen dan guztia, gizonen norkeria, edo ta guzur utsaren aurrean agertzen garelako alde guztietatik, gaur ikusten dogun lez.

Asieratik, danak, erlijiozko katolikotasun itsu batera eroan gure naian, eta eziñean, errigizartetan leen: "erlijiozko oldozmen edo eritzi orren baldintzak ziñeskintzatu, ta aitorkuntz sakratuak sartuz gaiñ, gitxi zalakoan, aurrera begira emon ziran urrats edo oinkadak, azterkari edo billaketazko laguntzagaz ziran, eta ezin ebelako eurak gura ebena lortu, inkizizioaren azterketa edo ta fede-zaindiaren zigorrezko bearkuntzan agertu ziran".

Eleiz katoliko aberkide billakari edo susmakari au, zigorkeriaren lotsagabezko espetxelari zale biurtu zanean, errigizarteetan, benetako beldurraren urduritasuna sartu eban, euren ametsezkoa dan ***"Urrezko Tzekorraren"*** siñezkintz itsu ortara bideratzeko.

Bigarren: Gurutzadako ekitaldietan sartuz, orduan katolikoen ustezko lur santuak zirenak babestu edo ta eurakaz jabetzeko, espatakin menperatuz gain, espata orreik, gurutz santuetan biurtu ebazan, Templarios, Arrotzale(1), ta Dominiko lekaideak gudari biurtuz, espatazko gurutzadaren bidez lortzeko, lur santu orreitan, euren aburu edo ustean, katolikoen jabetzak ziranak.

Noraiño elduko zan zoraldi ori, Aragoi ta Nafar errege, I Santxez´tar Alfonso Gudari edo Gerlariak, 1.131ko urte onetan, eta Baiona inguratzen egoala, egin eban bere azken naian, Jaungoikoaren alde egiteko, bere erregetza, Templarios, Arrotz-maite edo Arrotzale ta Jerusaleneko Illobi Sakratuaren aldekoak bideratu egien.

Orain, bostgarren zatian ikusiko doguz, Euskalerriaren aurka ibili ebezan guzurrezko baldintzak: "erregeak igespidera edo ta arroztasunera bialtzeko", "atara ebazan exkomunikatzeko legeak, eleizatik atarateko alegiñ zitalakaz", bai ta "euren milla norkerizko maltzurkeriak", gure euskal Erriaren jabe agertzeko.

5n. ZATIAN.

5. 1. *Goazen ikustera, atal bakotzean begituta, katolikotasunezko erlijio orrek Euskalerriarentzak ekarri dauazan akatzak, askatasunezko demokrazian bizi gindezan.*

Argitu doguz ba, zeintzuk izan diran:

a) "Errigizartearen almenak, legeak atarateko".

b) "Bai ta argi itzi be, Nafar erregetza, Bizkaiko Jauntza, Gipuzkoako Batzarrak, eta Arabako Elkarte edo Anaitegiak, nundik euki eben jaurkintzazko agindu bakarra.

d) "Eta zelango maltzurkeriak ibilten ebazan katoliko aberkide guzurtiak, Munduko Giza, aberkidetasunezko katolikoetan biurtzeko.

Argi geratu da, Nizeako Batzar Nagusi orreitatik, ezin dala ***"egizko erantzunik lortu, legearen leentasun orreik, guzurrean oñarrituta ba dagoz".***

Nafar erregetzatik asiko gara, katoliko aberkide oneik, euren ziñezkintzatuko berun buldak agertuaz batera, Nafar erregetza euranganatzeko, ibili ebazan maltzurrezko guzurrak, agirian itzi dagiguzen.

5. 2. *VIn Santso Garzez Jakintsua.*

VIn Santso Garzez Jakintsua daukagu emen, Jimenatarren leiñukoa, aita Vn Garzia ta Ramireztar Juan, eta ama Margarita L´Aigleren bidetik, 1.130eko urtean jaio ta 1.194ko urtean Ekainaren 27an il. 1.150-1.194 urte bitartean, Nafarroa eta Iruñako errege izan zana.

Bera izan zan Nafarroako lenengo errege, Iruñako erregetzaren izena kendu ebanak, eta Nafarroarena artu.

(1) Arrotzale, edo arrotz-maite´en lekaide = frailes hospitalarios

VI Santso Garzez Jakintsuak, gazte igon eban erregeen aulkira, ta laster ikasi bearren premiñagaz, beste erregeen maltzurkeriak ezereztuten be, Gaztelatar eta Aragoitarren artean ibili ebezan maltzur guzurrak, Nafar erregetza, euren artean banatzeko.

A ta guzti, etenbageko borrokan ibili bear izan eban eurakaz, 1.035eko urtetik Aragoi ta Gaztelarrak IIIn Santso Nafar errege Aundiaren eskutik, konderri lez sortuta, erregetasuna, bereala artu ebelako ondorengotasun orren bidez, eta Erromatar errege katoliko aberkideen joko orregaz, etenbageko leian ibili, Nafar erregetzagaz geratzeko.

Eta Nafarrak len, Asturias, ta Frantziko erregetza, Erromatar katolikoaren aberkidetzagaz bakarrik, euki ba ebazan etsai, Gaztela ta Aragoitarrak, katoliko aberkideen erlijiozko asmakizun orreitan, ondorengo talde lez erregetuta, lau bider aundiagotu egingo jakozan larritasunak, VIn Santsok, erregetegi kaskar bat bakarrik artu ebalako, bere aita Vn Garzia eta Ramireztar Juanen eskutik, beti erasotuta egon zana, franko´tar errege Karlomajno, Asturias-Leon-Gaztelako errege VIIn Alfonso, ta Kataluñako IVn Berengertar Ramonen jokoetatik.

Ortik aurrera maltzurrez eta guda indar guztiagaz, Erromatar kaisertzazko agindupean, eta katolikotasunezko erlijio barri orretan aberkidetuta geratu dagian, batzango zale Aita Santu guztien alegiñak, Euskalerri osoari Nafarroagaz batera, Jainkoaren berezko legeen aztura bidetik lortu ebazan aberritasunezko eskubideak kendu gura eutsozan, eurak asmatu ta ziñeskintzatuta euki eben katolikotasunezko aberrikuntz fazizta orretan, morroi lez nai ta nai ez, eskubidetzeko.

Orregaitik, Vn Garzia Ramireztar Juan, VI Santso Jakintsua eta VIIn Santso Indartsuari, Aita Santuak, ***Rex deitu bearrean, Dux deitzen eutsoen,*** kaiserraren nardetsi edo arbuiozko norkeriagaz.

1.139ko urtean, IIn Inozenziok atara eban "Omne datum optimun" berunezko buldagaz, on artzen da Tenpletarren lekaidetza.

1.140ko urtean Gaztela ta Aragoitar errege auek, Karrioneko alkargoa ospatu ebenetik, Nafarroako erregetza, euren artean banatzea gura eban.

Gaiñera, Aita Santu katolikuak, bere orokorraren jabetasunezko jokua eginda, ta Dux deitu ondoren, ez eutsoen artzen erregeen eritzi lez, Aragoiko eta Nafarroako errege izan zan I Alfonsok bere 1.131ko urtean Baionan idatzitako azkenaiagaz, Nafarroa ta Aragoiko erregetza, Tenple ta Ospitalario lekaideak bideratu egien, Jerusalenengo Illobi Sakratuaren aldekoai emon eutsoelako, nai ta Nafartar erritarrai esker, norkerizko nai orreik, bete ez.

Ekintza onekaz bakarrik, edozein konturatu leike, zelango itsutasuna egon zan katolikotasunaren aberritasunean batzangotzeko erlijioagaz, eta sinetzi ezin leikena, Jaungoikuaren izenean, noraiñoko sakratu mailletara igoten ebezan, egiten ebazan sarraskitzaillezko triskantza orreik.

Bestela, sinetzi ote leikez, azkenai orreik ?.

Ez da lenengoa, eta ez da izango azkenekoa, gero ikusiko dogun lez.

Orregaitik gaur ulertu leike, ez dala erreza, eritzi orretatik urtetea, sasijainkotasunezko 2.000 urteko kaisar jokuak alboratu bear dabezelako, eta danok dakigu, fazizmoaren ERPE sakon orreik, ez direzela errez kentzen, oraindiño ondo ebatuta dagozelako irabazkoiezko arlo orretan.

1.144ko urtean IIn Zelestino Aita Santuak, bere berunezko bulda "Milites Templi"gaz,

apaiz eta lekaide guztiak beartu ebazan, Tenpleko lekaideak babesten.

1.145ko urtean, IIIn Eujenio Aita Santuak, atara eban "Milita Dei" berunezko buldagaz, Tenpleko lekaideen taldea askatu eban apaizen babes edo laguntzatik, euroi, indarra emonda.

1.145eko urte onetan IIIn Eugenio Aita Santuak, atara eban "Quantun praedecessores" beruneko buldagaz, IIn Gurutzada Santura deitu eban.

Ortik aurrera, eta Erromatar kaisertzazko katolikotasunean aberkidetzeko, batzango zale Aita Santu guztiak Euskalerriari, Jainkoaren berezko legeditik, orokorrean jendekuntzatuta daukazan, aberritasunezko eskubide guztiak alboratuz, Nafarroa kendu gura eutsoen, 325eko urtean, eurak asmatu eben katolikotasunezko aberrikuntz fazizta ori, eskubidetzeko.

1.155ko urtean IVn Adriano Aita Santuak bere "Laudabiliter" berunezko buldagaz, Ingalaterrako errege IIn Enrike'k Irlandaren gaiñetik gura eben jabetasuna onartzen dau.

Argi guztiagaz erakusten dauana, Aita Santua zala, orduan ezagutzen zan Mundu oso onetan aginduten ebana, errege guztien gaiñetik.

1.185eko urtean IIIn Urbano Aita Santuak, bere "Post Miserabile" berunezko buldagaz, Gurutz Santuko Gurutzadaren alde ibiliko ziran gudariei, lege bereziakin jantzi ebazan.

1.187ko urtean VIIIn Gregoriok, bere "Audita Tremendi" berunezko buldagaz, IIIn Gurutzada Santura deitu eban.

Eta erregeen aria ostera artuz:

Orregaitik Nafar erregetza, garrantzi ta sendotasunezko arloetan, Gaztelatarren erregetza baiño, aundiagoa izan arren, Aita Santuak, Vn Garzia Ramirez´tar Juan, VI Santso Jakintsua, eta VIIn Santso Indartsuari, nai ta mauritarren aurkako gudan, iñork baiño merezimendu geiago euki, Rex deitu bearrean, Dux deitzen eutsoen, bere nagusitasunezko nardetsi edo arbuiozko norkerian. IIIn Zelestino Aita Santuak 1.194ko urtean Jorraillaren 13ko berun buldan, edo idazkietan agertzen dauan lez.

Edestilari batzuk esaten dabe: Aita Santuak, izenetan egindako alde ori, aukeratu egiten ebazan erregeak, katoliko lege bidez, edo errien bidez bata edo bestea, zer direzanetik ezagutu zitezen zala.

Eurak, goitik berako aginduaren katolikotasunezko lege bidez, Rex deitzen ebazala euren erregeai, eta erriaren bidez aukeratzen ziran erregeai, Dux.

Katoliko aberkidearen joko orretan, Ekintza ori era orretan, ta orretarako egiten ebezala Aita Santu guztiak, eurak be, ez dabe sinisten.

Mundu onetan, agertzen jakuzan txar guztiak, guk erabilten doguzan gauzak, txarto erabilten doguzelako da.

Ez alderantziz, Izadi onek fisika-arauz edo, Jaungoiko bidetik antolatuz edo bereztuta daukazan Lege bidetik egiten ba dira, gure bearrezko ekintzaren mogimendu guztiak, egiten dabezan mugi-aldi txikerrenetik izanda be, ondo urtetan dabelako.

Jaungoikuak Irasi edo bereztu Eban Legeen iturburuetatik egiten diranean, ez dalako txarrik edo ezerezko okerkeririk agertzen. Gauza guztiak, nor berak atondutako eran agertzen diralako.

Eta ordua da ¡!, Jaungoikoak ipinitako legera aldatu gindezan, oraiñarte euki dogun nekaldizko etorkizuna, naikoa izan dalako

1.151ko urtean Urtarrillaren 27an Leon eta Gaztelako errege VIIn Alfonsok, IVn Berengertar Ramonen adizkidetasunera urbildu gurean, Tulideneko elkargoa sinatu eben biak, Nafarroako erreiñua, euren artean banatzeko.

Gauza guzti orreik ikusi, ta katolikotasunezko era bide orretatik, ainbeste etsai gure ingurutik euki genduzelako(1), menpekotasunezko(2) arrizkua be euki gendun, ta ortik iru egun beranduagora, Nafarroako VIn Santsok, Leon ta Gaztelako kaisar, VIIn Alfonsorengana joanda, bere menpekotasuna berriztu eutson, bere alaba zaarrena Blanka, Gaztelako Santxo, VIIn Alfonsoren seme neusiegaz ezkonduta.

1.157ko urtean Bagillaren 2an Nafarroako VIn Santso, Leongo errege VIIn Alfonsoren alaba, Gaztelako Santxagaz ezkondu zan Palenziako Karrion de los Kondezen, sei seme alaba eukinda.

1.157ko urtean beste alkargo bat egin eben, Leon-Gaztelako errege VIIn Alfonso, eta IVn Berengertar Ramonek, VIn Santsoen Nafar erregetza bien artean banatzeko erabagiagaz.

1.157ko urtean Dagonillaren 21ean il zan Leon eta Gaztelako errege VIIn Alfonso, Nafarroako errege, VIn Santsori atseden-aldi bat emonda.

VII Alfonso Gaztelarra il zanean, VIn Santsok berreskuratu ebazan galdutako lurraldeak, barriz galdu ebazan, 10 urteko baitegian(3) itxi bear ebazalako.

Eta Gaztelar ta Aragoitarrak ostera gudatan asi ziranean, berak Arabar eta Gipuztarrakin alkartuta, aurre egin eutsen, orduko denboratan, nai ta Bizkaitarrak euren Jauna euki arren, Euskalerriko sendimendu oso bategaz Nafarroakin, zazpi euskal lurraldeak, batera egon giñelako.

1.157ko urte orreitan eta Azaroaren 11n, bere suin IIIn Santxo egin eben Gaztelako errege, eta Nafarroako VIn Santsok, menpekotasunaren ziñezko itza emon bear izan eutson berari.

1.158ko urtean Dagonillaren 31n, iñork ez eban itxaroten Gaztelako IIIn Santxo ilgo zenik, eta Gaztelako erregetza, bere iru urteko seme bakarraren eskuetan ipini eban.

VIIIn Alfonsoren izenarekin ezagutuko zan errege au, eta errege ordezkoak egiteko, Lara ta Kastroko etxearen artean sortu ziran eztabaidakaz, gaztelako erregetza makal ta lagun ezean aurkeztuta, Nafarroako VIn Santsok, ondo baiño obeto jakin eban, aldi orretatik bere onurak ataraten, IIIn Santxori emon eutson menpetasunezko itzetik, alde egiteko.

1.162ko urtean Dagonillaren 8an il zan Kataluñako IVn Berengertar Ramon, Aragoiko erregetza eta Bartzelonako konderriak bere Petrolina emaztearen eskuetan itzita.

1.162ko urtearen udagoinean, Nafarroako VIn Santsok, Gaztela erasotu eban gudutoki guztietatik, Errioxako zati bat, berentzako artuta.

13 urteko elkargo bat sinatu eban Nafarroako VIn Santso jakintsuak, Aragoiko erregeen ordezkoakaz, eta orregaz sendotu eban ekialdeko muga, Gaztelatarrai erasotzeko.

VIn Santso Jakintsuak, emen aldatzen dau Iruñako erregetzaren izena, Nafarroaren izenagaitik.

Argi dago emen VIn Santso jakintsuak, Nafar izena sendotu bear izan ebela danon aurrean,

(1) Ainbeste etsai gure ingurutik euki genduzelako = tantos enemigos, como el ser solos en demokracia podia crear. Y en verdad que eran muchos, porque nos referimos a toda Europa o mundo entonces conocido. (2) Menpekotasunezko = vasallaje. Se decia en el sistema feudal, del individuo que se colocaba bajo la protecciòn de un señor poderoso, al que le juraba fidelidad, y se obligaba a pagarle un tributo, y ciertas prestaciones y servicios personales. (3) Baitegian = 10 años en depòsito rehen o de garantia para el cumplimiento de ese pacto.

ekintza orrekin, katolikotasunezko eragipenari(1) aurre egiteko.

1.180ko amarkada, baketsua izan zan, Nafarroako VIn Santsok, erriaren, antolazko lanetan egokituz.

1.180ko urte inguruan, Donostia jendezkatu edo bir-erritu eban, Iakako fueroak emonda gain, ongarrizko arauakin jantzita.

1.181eko urtean Gazteiz deritson inguruan, Bitoriako uria eraiki eban, Logroñoren eratorriko fuero ekartsuak emonda.

1.185eko urtean IIIn Urbanok bere "Post Miserabile" berunezko bulda bidetik, gudari gurutzatuak izango ziranetzat, faborezko edo lege bereziakin jantziko ebazan.

1.187ko urtean VIIIn Aita Santu Gregoriok, bere "Audita Tremendi" berun buldagaz, irugarren gurutzadara deitu eban.

1.191ko Uztaillan Nafar Aragoiko erregeak, ostera batzen dira Tarazonako urian, euren adizkidetasuna baiezteko.

1.192ko urtean IIIn Zelestinok(2), bere "Cum universi" berun buldagaz, Eskoziako eleizaren askatasuna aldarrikatzen dau, Eskozia, Aberria zalako, York´eko kardinalak eskatzen eban menpetasunetik kanpo.

1.194ko urtean Bagillaren 27an il zan Nafarroako errege VIn Santso Jakintsu au, eta bere gorpua, Iruñako eleiz nagusian illobiratuta dago.

5. 3. *Emen, gogarketa labur bat egin bear dogu.*

1.150-1.194ko urte artean, VIn Santso Jakintsuaren errege denboran agertzen gara, gure Euskal Nafar Uri nagusi ta izkuntza aunditasun guztiaz "Lingua Nabarrorum", eta Iruñako erreiñuari, "Reino Nabarrorum" izendatzeko bearrean agertu zana.

Nafarroa, berezko euskal erri baten lurraldea izanda baiña, Zergaitik bearrezko aldarrikapen orreik ?.

Ez zan izan bera, bere buruaren jabe ?.

Erlijio katoliko ta bere aberkidetasunezko lateraren bidez, baita euskal-latinkumearen eragipenakaz, Nafarroako gorte edo erregetxean, aolku edo argibide bat, bera esanda be, ez zalako sekula euskaraz idatzi, eta latiñez ez bazan idazten, erromantzezko latinkumean idazten zan, latiñ menperatzaillezko izkuntz ori, katoliko aberkide orretan batzangotzeko irasi ebenetik, aundienetariko ikur bat izan zalako Euskal izkuntzaren aurka.

Itsutasunezko eragipeneraiño euki eban bere baldiñezko arau legedia ziñezkintzatuta, kristau katoliko aberkideen erlijio onek.

Kristoren izenean asmatu zan katolikotasunezko erlijio onek baiña, berezko erlijio lez ezartzeko, Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsozan lege guztien aurkakoa da.

Zelan ezkondu erlijio ori, Munduko gizarteak aberetasunetik asita, gizakume jaio barri guztien baitan, Jaungoiko Iraslearen Legeak ulertzeko, Beragandik barnetuta ekarten ba doguz bear dogun tresneria, Berak, bereztu ebazan lege guzti orreik ulertu ta ikasteko ?.

Eta katoliko aberkuntz onek, premitasun edo larritasunezko leian agertu arren, ez

(1) Katolikotasunezko eragipen aundiari aurre egiteko = para hacer frente a la gran influencia católica. (2) IIIn Zelestino Aita Santua = Erroman jaio zan. 1.191ko urtetik, 1.198ko urteraiño agindu eban. 1.193ko urtean Austriako Leopoldo exkomunikatu eban, Ingalaterrako errege "Biotzezko Leoi´tar Ricardo erregea" atxilotu edo baitu ebalako. Eta Elbako ibai inguruan bizi ziran Teutoiak onartu ebazan erri lez.

zalako ezertarako be atzeratu, aurrerakuntzarako, gero ta neurri gogorragoak artu bear izan eben, "inkisizio edo fede-zaintzaren zigortasunezko suteakaz", "burdiñezko kaiolak", "gurutzada santuekaz", eta "euki ebezan eskomunikaziozko tresneri guztiekaz", Europako gizarte guztiaren edestia, odoljarioz ekarri daualako.

Guzurra ezan leike dala, 325eko urtean, Nizean I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak, kaisertzazko norkeriz, Munduko giza guztia, artalde bat lez bideratu leikeen ulertzan kokatuta egotea.

Eta artalde orreik asarratzen ba ziran, euren asarre orreik bakezteko, naikoa izango zala, artalde orren buruzagiak kenduaz.

Giza ta aberen baitan, irrarituta eukiten ba doguz Jaungoikuen legeak, nungo Jainkoa artzen dabe eurak, sortzaille edo irasle lez ?.

Eurak nai dabena ?.

Ortze dabiz etenik bage, egin eben ziñezkintzazko pekatu edo oker aundi orregaz, aurrez aurre leen egunetik, argitasun guztiagaz daukaguzan, Goiko Jainkoak Agindatuko legearen aurka ezeren lotsabage, eritzizko norberkeri aundi orregaz asi ziralako ezeren damubage leenengo egunetik.

Munduko giza guztien eskubideak zapaltzen dauz, leen ziñezkintzatutako oker orreik, gaur, okerkeri nagusi lez artu bear geunkena, giza ta errigizarte izatearen aurkako oker guztiak, zapaldutako eskubide orretatik, edo errigizarte guztieri kendutako arduretatik agertzen diralako.

A ta guzti be, euskerearen sendokuntza galtzen joan arren, errian baiño, goortetan edo erregeetxetan joan zan geiago galtzen, erregeen eta gortearen jauregi orreitan egon ziralako sartuta, orduko gotzai ta apaiz lekaide katoliko guzti orreik, aolkuzko ta idazkari nagusien ardurakaz.

Orregaitik ez zan galtzen erriaren izkuntza aiñ errez, nai XVIIIko gizalditik aurrera begituz, katolikotasunezko aberkidetzaren eragipenez, edo ta ostondutako agindu orren bidez: euskerea, ebrai, ta mauritarren izkuntzak jendekuntza lez aurrera egien, ezintasunezko zabalkundean ezarri arren.

Argi ikusten da emen, katolikoen norkeriz asmatu zan erlijioaren aberkuntzazko joku ori: "gauza guztiak, euren kontrolpean eukiteko gaillua dala", erlijiozko katolikotasun orrek, katoliko aberkidetzaren kontrolpetik kanpo eurentzat, ez dabelako balio ezer.

Norkeriz asmatutakoak, maltzur ta guzurra bakarrik daukie euren barneko gogo edo elburuan, Munduko giza, katolikotasunezko siniskai orreitan(1) batzea zalako.

Noren Jainkoari begira baiña ?. Guzurra esan leike dala, Iru-millagarren urte onetan, oraindiño, "urre gorrizko tzekor ori" gurtzen egotea, gaurko egunetan, diruaren zentzu ori agertzren dalako, sasijainko lez.

5. 4. *Oar txiki bat emen.*

Emendik aurrera, eta azalkizun edo adierazkizunezko(2) ondorengotasun onetarako artuko dodazan laburtzapen edo argi bideak, soillauak izango dira, XIIIn atal onegaz amaitu gura ezkero saio au.

(1) Siniskai = dojma, articulo de fe. (2) Azalkizun edo adierazkizunezko ondorengotasun onetarako, Artuko dodazan argi bideak, soillauak izango dirala = que los extractos que selecione para el corolario de èsta proposición que pretendo razonar, van a ser más escuetos por razones de espacio.

5. 5. *VIIn Santso Azkarra edo Aundia.*

1.194-1.234ko urte bitartean, Otsaillaren 12rarte daukagu VII Santso Santzez ***Azkarra edo Indartsua,*** Nafarroako errege lez.

1.170eko urtean Jorraillaren 17an, bere aita Nafarroako VIn Santso Jakintsua eta ama Gaztelako Santxaren bidetik, Tudela edo Muzkariren erregetzazko gazteluan jaio zana, eta 1.234ko Jorraillaren 7an Tudela edo Muzkariako gazteluan il. Bere gorpua, Orreagaren ikastetxeko Santa Mariaren eleizan illobiratuta dago.

Bere euskal errigizarteko ingurukoak, VIIn Santso: ***"Indartsuaren"*** izenagaitik ezagutzen ba eben, bere goi-aldeko neurrian, 2,23-2,31metroaren gizon indartsua izan zalako da.

1.195eko urtean VIn Ramon Tolosako kondearen alaba Konstanzagaz ezkondu zan, eta apurtu zan ezkontza ori, seme-alabarik ez ebelako euki.

Alemaniako I Federico ***Bizar-Gorri*** erromatar kaiserraren, alaba Klemenziagaz ezkondu zan bigarrenez, eta onek be ez eutson seme alabarik emon, naita berak ezkontzatik kanpo, seme edo alaba batzuk euki arren.

VIIn Santsok bere errege bizi denboran, aitari itza emonekotik aurrera, Aragoikoakaz euki eban arreman aundiagoa, gaztelarrakaz baiño.

1.196ko urtean eta Erromako Aita Santuaren Kabuz, Agreda ta Tarazona bitartean batzartu ziran Gaztela, Aragoi ta Nafarroako erregeak, erreiñu orreik katolikoen aberkidetzan batzeko alegiñean.

Argi agertzen da emen, katolikotasunaren asmo-gogoak ez ebazala berezko erri ta errigizartearen eskubideak on artzen, edestiko ta bizitzazko kontakizunetan, ezertarako kontuetan ez ebazalako aurkezten edo ta aipatzen, euki ebazan eskubideak beti zapalduta ekarri dabezelako ezeren begirune barik, gaur arte sortzen dan lez.

5. 6. *Nafarroako erreiñua VIIn Santso Indartsuaren denboran.*

1.198ko urtean IIIn Inozenzio bere "Operante Divinae Dispositionis" berunezko buldagaz, Trinitario lekeideen erakundea onartzen dau.

1.199ko urtean Gaztelako VIIIn Alfonsok Araban sartu zan, Gazteiz, Gipuzkoa ta Durango aldea inguratuta.

1.205eko urtean IIIn Inozenziok bere "Etsi non dispaceat"eko bereunezko bulda bidez, Frantzez juduak salatzen dauz.

1.207ko urtean Urrillaren 29an VIIn Santsok, Gaztelarren eraso au geratzeko, almoadetar mauritarren laguntza eskatzen joan zan, berak beste gudu-toki batetik eraso orreik geratzeko. Ez eban lortu mauritarren laguntza, eta Nafarroako erreiñuaren lurralde asko galdu ostean, Guadalajaran sinatu bear izan eban gaztelar erregeagaz, bost urteko gudu-arte bat, Nafarroak ez ebana txartxat artu, nai euskal lurrak galdu arren.

Ortik agertu zan, Araba, Gipuzkoa, Durango aldea ta Bizkaitarrak, Nafarrotik banatzea. Naita, Araba, Gipuzkoa, ta Durango aldekoak Gaztelarrakaz ongundetu arren, euren jaun ta batzar nagusiekaz aurrera egin ebelako, euskal izatasunezko eskubideak ondo babestuz.

1.212ko urterarte Nafarroako VIIn Santsok ta Gaztelako VIIIn Alfonsok euki ebazan aurkako artu emonak, oso gogorrak izan arren, urte onen Nabas de Tolosako borrokan, ondo baiño obeto konpondu ziran.

Nafarroako VIIn Santsok borroka orretan, Miramamolin edo Muhammad An-Nasirren aterpe toki dendan sartu, ta menperatu ebenean, ospe aundia irabazi arren, bere jarduera euskaldun begiakaz ikusita, alperkeri aundi baten ikusten dogu, katoliko aberkidetasunean batzangotzeko asmo bidez, euskaldunaren aurka agertzen zan guztiagaitik, ez ebalako egiten ezer.

Nai ta, kontuan euki bear, VIIn Santso beste errege guztien antzera, katoliko itsu ta sutsua zala, ta itsutasunezko urloi zikin orrein bidetik, ez zala agertzen, katoliko aberkidetzan batzangotzekoaren asmatzailleak, agertzen ebana baiño besterik ezer.

Ekanduzko arloetan, ezertxo ta ezertarako be, ez dauena balio izan gaur ikusten dan lez, naita eurak tinko edo euren lanean aurrera egin danoen kalterako. Asken baten, mundu oneri ta onetan, Jaungoikoak bereztu eutsozan oiñarrizko legedietatik ibili bear garelako.

VIIn Santso Azkarra edo Indartsua, gurutz sakratuaren gudatan ibili zan denboran, ordezko jaurkintzan geratu ziranak, okerkeri galantak egin ebazan Foru Legeen aurka, eta 1.200eko urtean VIIIn Alfonso gaztelarrak, Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak Araba ta Gipuzkoa bereganatu ebazan, auek Nafar erregetzatik, aldenduta.

Bai 1.224ko urtean, Bizkaia be bananduta geratu zan, katoliko aberkideen kolonizaziozko Zesar Erromatarren eritzi "Vini, Vidi, Vinzi"ren esan zitalagaz ibilita, Euskalerria: "Lenengo banatzeko, ta gero menpetzeko alegiñakin", borrokak baiño ez dabelako euki gauza guztieta, gaurko egunerarte, Aita Santu guztien katolikotasunaren kolonikuntzazko alegiñakin.

1.213ko urtean IIIn Inozenziok, bere "Quia Mayor"eko berun buldagaz, laugarren gurutz santurako deitzen dau.

1.216ko urtean IIIn Onorio Aita Santuak bere "Religiosam vitam" beruneko buldagaz, Dominikoen arautegia onartzen dau.

1.218ko urtean IIIn Onorio Aita Santuak, bere "In generali concilio" berun buldagaz, Letraneko IVn Eleiz batzarrean artu ziran erabagiak, bete zitezen agindu eban.

1.219ko urtean IIIn Onorio Aita Santuak, bere "Super speculan" berunezko buldagaz, Pariseko Ikastetxe Nagusiari, debekatu egiten dautso, Erritar Eskubideen(1) ikasketak emotea.

1.223ko urtean IIIn Honoriok, bere "Solet anuere" beruneko buldagaz, Franzizkotarren Araudiak onartzen dauz.

1.226ko urtean IIIn Onoriok, bere "Ut vivendi norma"zko berun buldagaz, Karmeldarren arauak onartzen dauz.

1.231ko urtean IXn Gregoriok, bere "Parens scientiarum" beruneko buldagaz, eta 1.229ko urtean egin zan matxinada ostetik, Pariseko Ikastexe Nagusiaren eskubideak onartzen dauz, bertan, askatasun guztiagaz irakatsi egiezen, emoten ebazan Erritar Eskubideen gai-arloetako ikasketak.

1.231ko urtean Nafarroako VIIn Santso eta Aragoiko I Jaimek Tudelan batzartuta, semekuntzazko(2) alkargo bat sinatu eben, bietatik baten bat iltzen zanean, besteak eskubide osoa eukela erregetza orreitan errege izateko. Ez zana bete, erritarrai esker.

(1) Erritar eskubideen ikasketak = prohibición de la enseñanza sobre el derecho civil. (2) Semekuntzazko = arrogación, adopción de hijos, prohijación.

1.232ko urtean IXn Gregoriok, bere "Ille humani generis'"eko berunezko buldagaz, azterketa, edo fede zaindia, dominikuen eskuetan iztea erabagitzen dau.

1.233ko urtean IXn Gregoriok, bere "Etsi Judaeorun" berunezko buldagaz, gotzain eta gongotzai edo artx-apezpiku'ari eskatzen dautse, kontuz ibili zitezen euren menpeko katolikuak, juduari egiten eutsezan erasoakaz.

1.233ko urtean IXn Gregoriok, bere "Liceo ad capiendos'eko" berunezko buldagaz, "azterketa, billaketa edo fede-zaindia" sortzen dau.

1.234ko urtean IXn Gregoriok, bere "Liber extra edo Corpus luris Canonici" lege sortak batuz, Decretalez'eko" ald-erazle ta baztertzaille(1) berunezko bulda agertu eban.

1.194-1.234ko urte bitartean VII Santso Santzez indartsuagaz, Auñamendiaren berezko Nafartarren erregetza amaitzen da.

Gertakizun onek, amaitzen diran gauzen edertasuna dauka.

Albijensen aurkako gurutzadaren abeslariak ospatzen eban, "Tudelak daukan erregea, iñoiz zaldi gaiñean eseri dan zaldunik onena zala" abestuz.

Eta, Alfonso gaztelarrak Portugesai beren gora berak aipatuz, euren arpegietara gogor esan da: "Zentzun-gabeko alfer-aundiak, beren botoi baten balioan be, ez ebazala onartzen" eurei esan da.

Azken baten, Nafarroako erregetza, txarto amaitu eban, au gurutzadetan ibili zanean, VIII Alfonsok Araba kenduta, Gipuztarrak, Gaztelarren aldera juan jakozelako, eta fueroak ez ebazalako zaintzen, Nafarroan bertan, Fueroak zaintzeko alkarteak sortu ziran, eta bere Ingalaterrako Rikardo koñatua Be-Nafarroara ostera itzuli bazan, Zuberoa gaur Nafarroagaz, biar Frantziagaz eta etsi Ingalaterragaz ibiliko zan, danoen norkerizko liskar bidez.

1.193ko urtetik aurrera Lapurdi, Inglaterrako errege zan Akitaniako Dukeagaz alkartuta egon zan.

Len esan doten lez, Nafartarren etsaiari denbora falta jakien etxeko jabea etxetik urtetan zanean, eurak sartzeko. Eta umekeri ta zikiñezko gauza orreitan ibili ziran edesti guztian III Santso Garzez Aundiaren ostetik ona, katolikotasunezko aberkidetza dala ta.

Nafarroako erregeak, Euskaldun on-bezela, egiaren berba aundikoak izan ziran, euren izatasunezko ekandu bidez, beste gauzarik ez ebalako ulertzen. Eta Katolikotasuna babestearren, ez eben euki lotsa edo errenkurarik euki, Gaztelar ta Aragoitarren etsaiari laguntzeko.

Joko orreitan, Nafar, Aragoi, ta Gaztelarrak, baldintza ezbardiñekaz ibili ziran jokatzen, azkeneko biak maltzurkeriz jokatuta, errezago jolasten ebelako, eginda dauan on guztia eurak artzeko prest egonda, nor-beren gogamenetik ardurazko alegiñean, sort-arazten baiño.

Joko orreitan: "Napar Otso ori, Aundia izan arren, etsai askoren artean, etzun eban".

Eta Nafartar erregetzagaz egin eben okerkeri aundiena, Nai-ta "Nabarra Baskonun" aldarrikatu arren, gorteko agiri guztiak katoliko aberkideen eragipenagaz bultzatuta, Latiñez edo Nafar Aragoiko latin-kumeetan idatzi zirala.

Eta ziñezkintzatu zalako "katolikotasunezko aberkidean batzangotzeko" erlijiozko eritzi orreri esker, gaur be, guzurrezko asieraren ekintzazko leku ber-beran gagoz, Euskal bereztasunaren aurkakotasunean, etsaitasun bardiñen artean inguratuz gagozelako.

Esan leike, dan guztia suntsituarte edo lokatztuarte, ez dirala geratuko.

(1) Ald-erazle ta baztertzaille = exclusivo y excluyente. .

Eta gero zer !.

Beste borroka nagusi bat egin !. Berezko errigizarteak ostera, ekandubageko egoera guzurtietan ezartzeko ?.

Argi ikusten da, zelako sasi-jainkoagaz dabizen jokatzen.

Europa ta Mundu guztian, Euskalerria da izar bakarra oraindik, burua guztiz makurtu barik daukana.

Lortuko dabe ?.

Lenago "MORO" esaten gendun.

Euskalerriak bere gazteen artean, arduradun asko bear dauz, eta ori, jakintzagaz lortzen da.

Jakintz orreitan alegindu bear gara, gure euskal izarraren dirdaira, Mundu guztira zabaltzea gura ba-dogu.

Orretarako baiña: "Euskerea, Euskal Nortasuna, Euskal Ekandua eta Euskal Lurrak" berrezkuratu bear doguz.

VIIn Santso Santzez Indartsu, Aundi edo Azkar errege onegaz amaitzen da, berezko Nafartarren erregetza, ta ortik aurrera, Txanpañako errege etxera aldatzen gara.

5. 7. *TXANPAÑA`ko ERREGE-LEIÑUA.*

5. 8. *Nafarroako I Teobaldo Bertsolaria ta Txanpañako IVn Teobaldo Kondea esaten eutsenai, 1.201eko urtean Frantziren Troyeseko urian jaio zan eta 1.253ko urtean Uztaillaren 8an Iruñako urian il. Bertan, Iruñako eleiz nagusian dago illobiratuta.*

1.234-1.253ko urte bitartean VIIn Santsoren ondorengo lez izan zan Nafarroako errege.

Nafarroako I Teobaldo ***Bertsolarien*** izenagaz ezagutu zanagaz asten da Txanpaiñako errege leiñua, Nafarroako erregetzan.

VIIn Santso Indartsuaren loba izan zan. Nafarroako Blanka eta IIIn Teobaldo Txanpañako kondearen semea, Brie ta Txanpaiñako IVn Teobaldo kondearen izenagaz.

VIIn Santso Indartsuaren azken borondatea, Teobaldo ez ebalako begi-onekaz artzen, Nafarroako erregetza, Aragoiko I Jaimeen eskuetan iztea zan.

Nafartarrak baiña, gogo orreik kontuan eukibage, Santso il zanean illabete geroago Teobaldo deitu eben, eta Iruñako Gotzain Eleizan Foruak zinduz gain, Frantziko gortearen oituran igortzi(1) eban.

I Teobaldok beren erregetzan sendotzeko, Gaztela, Aragoi eta Ingalaterragaz alkargotu zan, bere Nafarroaren jaurkintzarako, Txanpañako gortetik laguntza aundia artuta.

Tenencias edo lurraldearen banaketako jaurkintzan arduratu zan, eta Nafarroako erregetza lau lurraldetan bananduta, lau meriñu edo ibar-jaunen ardurapean ezarri eban Nafar jaurkintza, Nafarroako euskal oiturak batzea aginduz, Orokorrezko Foru liburuan idazteko.

Gaztelako adizkidetasuna lortzeko, IIIn Fernando Santuagaz alkargotu zan, bere alaba Blanka gero X Alfonso Jakintsua izango zanakin ezkontzeko, IIIn Fernando Santuak ezkontza orren truke, Gipuzkoako lurraldeak emonda, bera bizi egingo zan bitartean.

(1) Igortzi = ungir.

IIIn Fernandok, ez eutson emon I Teobaldori Gipuzkoako lurraldea, itsasora berezko irten bide bat eukiteko, onek gura eban lez. Azkenez elkargo ori bertan itzita, urte bat beranduago, I Teobaldok bere alaba Blanka, Bretañako kondeari agindu eutsolako emazte lez.

1.235eko urtean IXn Gregoriok, bere "Devotionis vestrae" berun buldagaz, Mesedeko lekaidearen legedia onartu ta sortu eban.

1.238ko urtean I Teobaldok, Lur Santuaren gurutzeko gudaldi sakratua bideratu eban, eta Tauro mendian betiko ospea lortu ondoren, 1.240ko urtean ostera Nafarroara itzuli zan.

1.239ko urtean IXn Gregoriok, bere "Si vera sunt" berun buldagaz, judutarren "Talmud"(1) liburuen ikusketa edo azterketak, baitutea egin egian agintzen eutsoen espaini ta frantzes´tar eleiz buru nagusiei.

1.246ko urtean I Teobaldori Foruen gora beran eta katolikotasunezko aberkidezko bidetik, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzaiñarekin euki ebezan eskomunikoaren estabaida gogorretan, onek zalantzan ipiniten eutsan Nafar erregetza, VIIn Santsok, eleizaren alde egin eban, naikunde bidetik.

1.247ko urtean IVn Inozenziok, bere "Lachrymabilem" bulda atara eban.

1.250eko urtean lurraldeko eleiz batzar nagusi baten, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzain orrek, exkomunikatu eban I Teobaldo.

IVn Inazenzio Aita Santuak baiña, I Teobaldoren arazo orregaz oartuta, eta Gurutzada Santu ta Sakratuetan onek egin ebenagaz gogoratuz, lege berezi bat agertu eban, bere baimenik gabe, iñork ezin ebala Teobaldo eleizatik kanporatu, esaten ebana.

Emen, beiñ eta berriz ikusi leike ostera be, katolikotasunean batzangotzeko legeakin, gogor ibilten zirala eleiztarrak, bai ta, euren menpe egon ziran guztiak, Europako errege, gotzai ta apezpiku maltzur orreik, erri edo ta errigizarteen nortasunezko desberdintasunak kontuan artubage, jokatzen ebelako. Geroago eta Fernando katolikoarekin, aundigotuta ikusiko doguzan lez.

Onentzat, bardin izan zan, txino, mongola, euskaldun, ruso, alemana, edo edozer gauza izan, katolikotasunaren zorro orreitan sartzeko.

Omosapiens´en Arrazoi bidetik: SINISTU EZ EGITEKOA DANA.

1.252ko urtean IVn Inozensiok, bere "Ad extirpanda"ko berun buldagaz, "estira, kaba, oiñaze, ziper, ta tolakuntzak(2) baieztu egiten daus, fede-ausle edo sinisbageko gizon emekumei egin egiotzezan, eurak jakin gure ebena aitortu egien.

Sarri ibili zan I Teobaldo Txanpaiña ta Nafarroaren arteko bidaiak egiten, eta 1.253ko urtean Uztaillaren 8an, Txanpaiñatik itzulkera baten il zan.

Teobaldo`tarrak, Txanpaiña`ren zelaikadako askatasunezkoak ziran, eta beti begituten eben goitik berako begirunez Franko`tarren politikea, guztiz, al-osokerizko erdira-nai baten zana.

VIIn Santso Indartsuak, ez eban onartzen I Teobaldo erregea, guztiz aurkaldekoa zalako.

Teobaldotarrak zelaikadako sabaltasunezkoeak eta Santxo mendi ta basoak berez emoten dauan askatasunaren usaiñekoa izanda, nai katolikotasunekaz guztiz arduratuta egon arren, oso ezberdiñak izan ziran.

Dana dala, argi dago askatasunezko demokraziaren nortasunean egon zala desberdintasuna. Mendian nor-bera izan bear dalako, eta zelaikadan errezagoa dalako besteen alegiñean

(1) Talmud = codificaciòn del derecho Hebraico, que contiene los preceptos y las doctrinas de la tradición rabìnica. (2) Estira, kaba, oiñaze, ziper, ta tolakuntzak = torturas criminales que se les aplicaba tanto a herejes como de los que no lo fuesen.

jokatzea.

Txanpañ errege leiñua, ez zan Napar erritarren ta buruzagien atsegintasunezko erregea.

Oraiñ eta lekuaren arduragaitik, goazan oinkada luze bat emoten, naita Aita Santuen berun bulda guztiak argitu bear, orko bidetik errezagoau ikusten diralako, katolikoaren aberkidean batzangotzeko alegiñak, gero ta geiagoko premiñak edo estutasunetan ibili zirelako, Goiko Jaungoikuak ipini euskuzan legearen aurka ibilteagaitik.

IIn Teobaldo´ren 1.253-1.270eko gurutzadak atzean itzita, eta IIn Teobaldo seme alaba barik il zalako, bai ta bere anai I Enrike lodia 1.244-1.274ko urte bitartean bizi zanak, zelan bere alaba I Juana, 1.271-1.305eko urte bitartean bizi zanak, 3 urte euki zituzenean artu edo igon bear izan ebala Nafar erregetzara, bere amaren errege-ordegotzan. Arrigarrizko aukerea agertuta gaztelar, aragoitar, eta frantzezari, I Juanagaz ezkonduta, Nafar erregetza euren agindupean jaurkitzeko.

1.254ko urtean IVn Inozenziok, bere "Querentes in agro" berun buldagaz, Oxford´eko Ikastetxe Nagusien gaiñetik ipinten dau, Erromako katolikuen nausigotasunezko erlijioa.

1267ko urtean IVn Klementek, bere "Turbato corde" bereunezko bulda agertu eban.

1.274ko urtean Xn Gregoriok, bere "Ubi Periculum" berunezko bulda atara eban.

1.294ko urtean Vn Zelestinok, bere "Inter santorum solemnia" berun bulda atara eban, Akilako di Collemaggio Santa Mariaren eleiz nagusia ikustera joaten zanari, barkamen osoa emoten eutsona.

1.296ko urtean VIIIn Bonifaziok, bere "Clericis laicos" berun buldagaz, erri jaurkilariai debekatzen eutsoen, apaizen ondasunakaz geratu zitezen.

1.298ko urtean VIIIn Bonifaziok, bere "Sacrodanctae Romanae" berunezko buldagaz, "Liber sextus del Corpus luris Canonici" argitaratu eban, IXn Gregorioren "Decretales"ekaz bat egiteko.

1.299ko urtean VIIIn Bonifaziok, bere "De sepulturas"eko berun buldagaz, debekatu egiten dau, illak zatitu egiezen, eta beste illobi batzuetara eroan egiezan lurperatzen.

1.300eko urtean VIIIn Bonifaziok, bere "Antiquorum habet fida relatio" berunezko buldagaz, 1.300eko urtearen jubileoa ospatzea aginduten dau, barka doai edo Mundu osorako barkamen osoa, aldarrikatzen ebana.

1.301eko urtean VIIIn Bonifacio bere "Ausculta fili" berun buldagaz, arimaren gauzak, gizonaren gauzak baiño gorago ipinten dauz, Frantziko IVn Felipe erregeari aginduta, 1.302ko urtean, Erroman ospatuko zan eleiz batzarrera joan zedin.

1.302ko urtean VIIIn Bonifaziok bere "Unam Santam" berunezko buldagaz, arimaren gauzak, gai-gizaren gauzak baiño gorago ipinten dauz, eleizaren katolikolikotasunezko aberkidetza, danen gaiñetik ipinita.

Lan asko euki eben Aita Santuak euren Berunezko Buldakaz, guzurrean oiñarrituta egon-ezgero, okerkeriak nonai edo ta berez agertzen ziralako.

I Juanaren ama, Artois´eko Blankak baiña, IXn Luisen arreba izan zan, eta Artoiseko I Robertoren alaba lez Frantzirantza begituz, bere leen maillako anai-lengusu IIIn Feliperi eskatu eutson laguntza, onek, bere seme Felipek 16 urte euki zituzenean, eta Gaztelako Xn Alfonso jakintsuaren asmoari aurreratzeko, 11 urte euki eban I Juanagaz ezkontzeko, Gaztelar Xn Alfonso onek, bere semeagaz ezkondu gura ebalako.

Eta ortik artuko eben Frantziko erregeak, Nafar erregeen eskubideak.

1.307ko urtean Vn Klementek, bere "Pastorales praeminentiae" berunezko buldagaz, Tenpeltar lekaideak atxilotzea ta euki zituzen ondasunak kentzea agindu eban.

1.307ko urtean, Jakkes Molai Tenpeltarren buruzagi nagusi onek, nagusitasun aldetik euki ebazan aginte guztiak kendu eutsezan, eta siñausle lez salatuta, atxilotu.

1.308ko urtean Vn Klementek, bere "Regnans in coelis"eko berun buldagaz, Bieene´ko eleiz nagusien batzarrak egin dagiezan agindu eban.

1.309ko urtean, ta ainbat sutzarrezko metatan lenengo txanda baten, tenpeltar lekaide asko erre ebazan.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "Vox in Excelsi" berunezko buldagaz, Tenpeltarren lekaidegotza debekatu eban.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "Ad providan" berunezko buldagaz, Tenpeltar lekaideen ondasunak, arrotzale edo ostatzailezko lekaideai emoten dautsoez.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "considerantes dumdum"eko buldagaz, Tenpeltarren antziñako legediak onartzen dauz, iru maillatan bananduta.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "Nuper in concilium" berunezko bulda atara eban.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "Licet dudum"eko berun bulda atara eban.

1.312ko urtean Vn Klementek, bere "Dudum in generali concilio" bulda atara eban.

1.313ko urtean Vn Klementek, bere "Licet pridem"eko bereunezko bulda atara eban.

1.314ko urtean, naita Aita Santuak, Tenpeltarren lekaidegotza debekatu arren, IVn Felipe Tenpeltarren agintariak, sinist-auzletasunean jauskor edo bir-eroriko lez salatuta, sutan erretzeko agindua emon eban, eta olan berak, tenpeltarrak euki ebezan tresneri edo altzari guztiakaz geratu zan, onibarrezko-ondasunak(1), arrotzalezko-lekaidearen(2) ardurapean ipinita.

1.317ko urtean XXIIn Juan Aita Santuak, bere "Sane considerante" berunezko buldagaz, Toulouzeko gotzai barrutia, gongotzai edo artx-apezpikuaren eleizan biurtu eban.

1.323ko urtean XXIIn Juan´ek, bere "Cum inter nonnullos"eko berunezko buldagaz, frantzizkotarren artean eritzituta egon zan Jesukristoren onbearra edo premiagaitik, katoliku aberkideak, aurkaritzazko alegin gogor bat eginda baztartu eben.

1.336ko urtean XIIn Benediktok, bere "Benedictus deus"eko berun buldagaz, Jaungoikuen adeian ilten ziranak, azkeneko epaiketararte eukiko ebela Jaungoikuaren adeitasun ori, esaten eban.

1.341eko urtean XIIn Benediktok, bere "Gaudeamus det exultamus" 1´go berun buldagaz, onartzen dauz Portugezak, Afrikako itsas-baztarretatik egiten asi ziran Sarraldi edo eraso aldiak.

1.344ko urtean VIn Klementek, bere "Tue devotionis sinceritas"eko berunezko buldagaz, Portugezak, Kanariaseko ugarteari egineko leen Sarraldi edo eraso aldiagaitik, txalotzen dauz.

XVn gizaldi onetaraiño beintzat, ikusten dogu, zelan katolikotasunaren aberkidetzazko legedi orregaz, beti zuzentzen egon bearragaitik, ez daukela Goiko Jaungoiku Legearen zentzunezko izpi, edo ezeren zentzunik be, leen, beti zuzentzen ibili bear ebazalako, eta

(1) Onibarrezko ondasunak = bienes inmobiliarios. (2) Arrotzalezko lekaideak = frailes hospitalarios.

bigarren, Izadi onen lur guztiak, eurenak izan ba ziran artzen ebazalako, bear eben gudu indarrak erabilita.

Nungo Jaungoikoaren baimenakin ?.

Orreik ote dira..., Jaungoiko Irasleak ipini euskuzan legediak ?. Gaur be, olan irauteko.

5. 8. *Oinkada luze bat emonda, goazan Nafarroako IIIn Karlosengana.*

1.380ko urtean Frantziko Vn Karlos il zanean, Frantziko VIn Karlosek askatu eban, Vn Karlosek, baituran(1) euki eban Nafarroako IIIn Karlos.

Oraiñarte be bai, baiña, gaztelarrakaz euki ebazan artu-emonak okertzen asi ziranetik, Nafartarren gortekoak, geiago begituten eben Frantziko gortera, Gaztelatarren gortera baiño, Frantziko gortea jakituriz eta artu/emoneko arremanetan, garbi ta zabalagoak izan zirelako, Aragoiko gortekoen antzera. Nai ta Aragoikoakin borondate onenean egonda, Aragoi ta Nafarroako IIn Juanegaz guztiz okertuz, Napartarren ondamendia agertu.

Eta Nafarroako IIIn Karlos erregeak emendik aurrera, sendotu ta bizkortuko ebazan Nafar izakizunezko almenak, bakean, eder lanetan, eta jaurkintzari, aurrerakuntza aundiak emonda.

Aurrerakuntza onegaz, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrakin bakeztu ebazan artu emonak, eta neurri orreitan euren arteko lankidetasuna be bai, erregeen arteko ezkontzari ta Abiñoneko Aita Santuari lagunduta.

1.388ko urtean Gaztelako errege ta Bizkaiko Jauna zan I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zan IIIn Enrike, Lankasterreko Katalinagaz ezkontzeko ibili zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran lenengo Asturiaseko printzeak edo errege erregiñ gai, Gaztelako erregetza ondore lez jaurkitzeko.

1.402ko urtean Nafarroako IIIn Karlos´ek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortzeko, bere alaba Blanka, Siziliako IIna eta Aragoiko errege izango zan Gizabideko deritson I Martin gazteagaz ezkondu eban.

1.409ko urtean Bartzelonan il zan Nafarroako I Blankaren senarra, "Gizabideko" deritxon Siziliako IIna eta 1.396ko urtean izendatu eben Aragoiko I Martin erregea.

1.415eko urtean IIIn Karlosek, bere alaba Blanka Aragoiko I Martinen alarguna, norekin ezkonduko arazoan aurkeztu zan.

Eta Foix etxekoak, euren alaba Juana il zanen alarguna, IIIn Juaneri aurkeztuta, Aragoiko I Fernandok bere bigarren seme Aragoiko IIn Juan izango zana aurkeztu eutsoen, eta Blanka baiño 12 urte gazteagoa izan arren, Aragoiko I Martin ildakoen, IIn Juan anaiagaz ezkondu zan.

1.423ko Urtarrillaren 20an IIIn Karlosek, I Juan Gaztelakoa, Asturiasen egin eban antzera, Bianako printzerria sortu eban Nafar erregetzaren ondorengotzat, eta beren billoba IVn Karlos izango zan lenengo errege-gaia, Bianako erakunde barri orrek izendatuko ebena.

1.425eko urtean Iraillaren 8an, berak eraiki eban Oliteko gazteluan il zan Nafarroako IIIn Karlos Biotz Andiko errege au, Nafarroako jaurkintzaren alde alegiñ on ta aundiak egin da gero.

(1) Baituran = en rehenes.

5. 9. *I Blanka, Nafar erregiña.*

1.385eko urtean Nafarroan IIIn Karlos Biotz Andiko erregearen bigarren alaba zan, eta bere emazte Trastamarako Leonor, Gaztelako IIn Enrike erregearen arreba zanaren bidetik, Iruñaren Nieba erregetzazko Santa Marian(1) jaiota, Ebreuxeko leiñukoa zan, Nafarroako I Blanka au.

1.401eko urtean il zan Siziliako erreiñuaren jabe izan zan Maria, Aragoiko erregearen seme I Martin gazteagaz ezkonduta egon zana, au Siziliako erreiñuagaz jabe geratuta.

Eta 1.402ko Urtarrillaren 21ean Nafarroako IIIn Karlosek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortu gurean, bere alaba I Blanka, Siziliako IIna eta Aragoiko errege izango zan I Martin "Gizabidekoa" deritxon seme gazteagaz ezkontzea erabagi eban.

1.402ko Azaroaren 9an, Bernardo de Kabrerak bideratzen eban itsas-ontzidiko ontzi baten joaten da I Blanka, Bar´eko Ojerot´en laguntzagaz, Siziliako Ugartera.

Eta 1.402ko urtearen Abenduko 26an, ezkondu ebazan Siziliako Migel Mari lekaideak, Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I Martin gaztea.

1.404ko Urrillaren 22an Bikaria(2) edo erregetzaren ordezkoa izendatzen dabe I Blanka, bere senarraren alde egite, edo ta erregetzatik urruntzerakoan.

1.405eko urtean I Martin Aragoira joaten da aldi baterako eta I Blanka berak jaurkitu eban Sizilia, bere aolkularitzazko ordezkariaren laguntzagaz.

Eta 1.405eko urtean Dagonillako illean I Martin itzuli zanean amaitu ziran I Blankaren errege ordezkoak.

1.406ko urtean Abenduaren 17an euki eben euren lenengo semea, Martiñen izena ipini eutsoenai Aragoiko aita ta aititeri euki eutsoen begirunegaitik. 1.407ko urtean il zana.

1.408ko urtean Dagonillaren 13an I Blanka ostera izendatzen dabe Bikaria edo erregetzaren ordezkoa, bere senar I Martinek, Zerdeñaren Ugarteko erreiñura joateko asmoa euki ebalako, euki eban gudalozte indartsuakaz.

Eta 1.409ko urtean Uztaillako 25ean il zan I Martin au, Kagliariko errian, sukargaitzaren erruz.

1.409ko urtearen Dagonillako 7an, I Blankaren aitagiñerraba Aragoiko I Fernando Arteza edo Antekerakoa deritxonai, on artu eban bere seme I Martin gazteak agindu ebana, eta I Blanka ostera Bikaria izendatu ondoren, aurrera egingo eban Siziliaren erregezko jaurkintz orren ardureagaz.

IIIn Karlos, laster asi zan I Blanka ezkontzeko ardurakin, eta 1.409ko urtea amaitzen egoala, Frantziko Isabelen nebeagaz, Babierako-Ingolstadt´tar Luisekin ezkontzeko asi ebazan atonketak. 1.410eko urteen asieran apurtu ziranak.

1.410eko urtean Loraillaren 31n I Blankaren senarra izan zana, eta Biotz Onekua deritxon I Martin Aragoiko errege izateko zana il zanean, I Blanka bere ordezkotzako erregetzan egiten ebazan zeregiñak ondo egiteagaitik, ta Siziliatarrak Aragoiko jaurkintzatik askatasun geiagoagaz senditzen ziralako, erregearen ordezkotzan iraun egiala gura eben, IIIn Federiko Siziliakoak, bere erregeen ondorengo bat izan zan Peraltako Nikolasekin ezkondu gurean ibilita.

(1) Iruñaren Nieba erregetzazko Santa Marian = Pamplona, Santa Maria la Real de Nieva. (2) Bikaria edo errege ordezkoa = Vicaria, cargo de virrey en la corte.

1.411ko Loraillaren illean, Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebenean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregiñagaitik esan eban: ***"erregiñak Siziliako eztabaidagitik, bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoakaz ez ebelako euki zer ikusirik.***

1.412ko Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, bereganatu eban Siziliako erregetza, XIIIn Aita Santu Beneditoren laguntzagaz, baita Kaspen, eleiz bidez egin ziran antolaketakaz.

1.412ko urtean Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak, koroatu eben Aragoiko I Fernando, Siziliako errege lez.

1.413ko urtean Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena, seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita IIIn Karlosek, bere ondora joateko eskatu eutsonean.

1.416ko urtean Urrillaren 28an Nafarroako errege IIIn Karlosek Oliten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafartarren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak, urrengo erregiña lez.

1.419ko Azaroaren 5ean I Blankaren aukerea ikusita, eta Aragoitar gorteak I Blankagaz arduratzen asita, Nafar gortekoakaz, Aragoiko erregearen seme, Peñafieleko Dukea, Mayorgako Konde, Larako jaun ta geroagò Aragoiko errege izango zan IIn Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.

1.419ko Abenduaren 5ean, ordezkotza bidez ezkondu ziran Oliten.

Eta 1.420ko Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte eukezala, eta IIn Juanek 22.

1.421eko Loraillaren 29an I Blanka(1) ta IIn Juan(2) Peñafielen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko urtean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatuko eben Nafarroaren erregetzazko ondorengoa, I Blanka ama ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVn Karlos, bere besoetako aitak edo aitabitxiak, Aragoiko erregetzaren ondorengo seme eta Nafartarren errege IIn Juan, IVn Karlosen aita, eta Luna´tar Albaro Gaztelako Kondestablea zirala.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege IIIn Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423ko urtean Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, IIIn Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, eta bere billoba IVn Karlos izan zan, erakunde orretan izendatuko zan leen printze edo ondorengo printzea.

1.425eko urtean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege IIIn Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregiña lez.

1.427ko urtean Dagonillaren 9an Nafar erregetzaren gortekoak barriztu eben ondorengo ziñezpena IVn Karlosen alde, Nafar errege izan zedin.

1.434ko urtean IVn Eujeniok, bere "Contra Simoniacae pravitatis reos"eko berun buldagaz, oso gogor zigortzen dauz, simoniko(3) gauzatan sartuta egon ziranai.

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako, eta baleiteke, 38 urtea eukitea 35 baiño. (2)1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaio zan Aragoiko IIn Juan. (3) Simonia = compra venta deliberada de cosas espirituales o temporales inseparablemente anejas a las espirituales y beneficios eclesiásticos.

1.436ko urtean IVn Eujeniok, bere "Dudum cum ad nos"eko berun buldagaz, Gaztelar ta Portugezak, Kanariaseko ugarteagaitik euki eben jabetasunezko eztabaidan, epaille nagusien lanak egin eutsoezan.

1.439ko urtean XXIIn Juanek, bere "Laetantur Coeli" berunezko buldagaz, Mendebal eta Ekialdeko eleizakaz bat egiten dau, Florenzian egin zan Eleiz Batzarren ostean.

1.441eko urtean, Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, bere alaba IIn Blanka Gaztelako IVn enrrikegaz Epaillaren 31n ezkondu ta urrengo egunean.

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko IIn Juan onek, bera baiño 10-12(1) urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, eta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzen jabetasun aundiakaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borroka ugari.

1.429ko Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko IIn Juan. IIn Juan, erregiñaren ezkon-lagun lez.

1.439ko Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregiñak il orduko, bere borondatezko azkenaian idatzitako agirian, eta 1.419ko urtean I Blanka eta IIn Juanen ezkontzarako ipini ziran baldintzak, euren lenengo seme izan zedin errege, bere seme IVn Karloseri eskatzen eutson: ***ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita IIn Juanek esan arte, aitaren eskutik artuko ebazala ta, bere errege ardura orreik. Bere seme IVn Karlos´eri, ondatuko eutsona.***

1.441eko Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, bere alaba IIn Blanka Epaillaren 31n Gaztelako IVn Enrikegaz ezkonduta urrengo egunean, eta Jorraillaren 3an Nafartar gortekoak Segobiako lurraldearen Niebako errian, Erregeko Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, euken lekutik kenduta, Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege illobi askoren antzean.

5. 10. *Nafar erregetzaren aria ostera artuta, Aragoiko errege IIn Juan Maltzur aundiaren ekintzak.*

Gaztelako XIn Alfonsoren sasipeko seme IIn Enrikek, Trastamarako leiñua sortu ebanak, Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan.

1.425-1.479ko urte bitartean Ribagorzako Konde, Peñafieleko Dukea izan zan.

1.420-1.479 urte bitartean Nafarroako errege egin eben.

Eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdeña ta Siziliako errege izan zan.

1.415-1.416ko urte bitartean, bere Aragoiko I Fernando aitak, ordezkotzat ipini eban Sizilia ta Zerdeñako jaurkintzan.

1.419ko urtean ezkondu zan Nafarroako I Blankarekin.

1.425eko urtean IIIn Karlos Nafarroako erregea il zanean, bere alaba I Blanka eta Aragoiko IIn Juan, Nafarroako errege izendatu ebezan.

1.425eko Azaroaren 29an, IIn Juan Ribagorza eta Balentziako kondea izendatu eben.

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.

1.427ko Dagonillaren 9an IIn Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban Iruñako gorteetan ondorengo lez, bere seme nagusi IVn Karlos eta IIn Blanka alabaren aurka, maltzurkeri ta guzur utsez, azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, IIn Juan ***Guzurti Andi*** onek antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaiaren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzearren, Enareseko ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako IIn Juanegaz ezkonduta egon zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Aragoiko IIn Juanek, Gaztelako lurraldeetatik egingo zituzen guda txangoak, baita urrengo urtean Gaztelako IIn Juanen aurka antolatu zan borroka be galduta.

1.435eko urtearen inguru onetan I Blanka jaurkintzen eban bitartean, IIn Juan, arrotz bat bezela bizi zan Nafarroako gauza orreitan, eta zeozer egin naian, bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeari laguntzen asita, Napoleseko erreiñuaren jabetasuna lortzen asi zan, utsegite aundi baten amaitu zana.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez, bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita: ***ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita IIn Juanek esan arte, aitaren eskutik artuko ebazala ta ardura orreik***.

IIn Juanek, bere emazte I Blankaren agindu orregaz, guztiz naspildu ta espetxeratuta euki eban bere seme IVn Karlos, ia bere bizi guztian, benetako Nafar IVn Karlos erregeari, Nafar erregetzazko zeregiñ guztiak debekatuz.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik, IIn Juanek, Leonor bere alaba txikerra, Foixeko Gaston Kondeagaz ezkondu eban, Leonor bere senarragaz Bearnera bizitzen joanda.

1.444ko urtearen Jorraillan ezkondu zan Nafarroako IIn Juan, Gaztelako errege leiñuan, XIn Alfonsogandik etorren Enrikeztar Fradike amirala, eta Ayalatar Marianaren alabeagaz. Aundizale, ospezale ta dana gura eben Enrikez ta Ayalatar Juana orrek, 19 urte euki ebazala.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, IIn Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz, gogortu egingo zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosen errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatzeko alegiñean ibilteko. Nafartarren artean asarre aundiak sortuko ebazanak.

1.445eko urtea baiño ariñautik IIn Juanek, betiko lurraldearen nagusizko jabetasunaren erruz, Gaztelako errege IIn Juan beren lengusu eta onen gudal agintari nagusi(1) Albaro de Lunagaz borrokan, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, eta urte onetan talde biak Olmedon aurrez aurre aurkeztuta, Nafarroako IIn Juanek, Aragoitar gudalozteakaz batera egon arren, astiñaldi gogorra artu bear izan eban, eta borroka orregaz amaitu ziran aragoitarrentzat, gaztelaniako lurraldeakaz euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

5. 11. *Nafartarren, anai-arteko guda.*

1.444ko urtean IVn Karlos, IIn Juan bere aita ezkondu zanetik, eta al eben gogortasun andienean bere aurka asi zanean, Gaztelara joan zan, bere lengusu Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera.

Oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, IIn Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatuz: ***Aitak emoten eutson arrera txar eta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkartuta***, esanda.

Bai, bide batez be oartuazota, zelan bere ugazama edo ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz.

Ostean eta bakarrik egon ziranean, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: ***Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrai laguntzeagaz ?.***

Kondestable jaunaren erantzuna: ***izten dautsagun, 40 urteko anai-guda.***

1.451ko Iraillaren 8an IVn Karlosek eurakaz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, inguratuta euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

Nafarroan, aita-seme auen arteko anai-guda asi ondoren, Nafartar sendiak banatu ziran, euren alderdikidetasunak sortuz, Beamundarrak, IVn karlossen alde kokatu ziralako, ta Agramondarrak, IIn Juanen alde.

1.451ko Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaietan, eta IVn Karlosen gudalozteak astiñaldi andia artuta, IIn Juanek, atxilotu ebazan Beaumotdar Luis Nafartar Kondestablea eta IVn Karlos.

1.452ko urtean Vn Nikolasek, bere "Dum diversas"eko berunezko buldagaz, baimena emoten dautso Vn Alfonso Portugaleko erregeari, Afrikaren Mendebaleko siñez-bageko giza-semeak menperatu edo yopu biurtu(2) egiezan.

1.452ko Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eban Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jaio zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos erritxoan jaio zalako egun orretan, gero Aragoiko IIn Fernando katolikoa izango zana.

Enrikeztar Juana onek, Lizarratik Aragoiko Sosera aldatuta bere seme Fernando katolikua jaioteko egoanean, berak euken amurru aundiena erakutsiko eban emendik aurrera, ordez eukezan seme/alabaren aurka, Leonor txikerrenagaz izan ezik, Aragoiko IIn Fernando katoliku seme ori, Aragoi ta Nafarroako erregea izan zedin.

Eta Juanak, bere senar IIn Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta IIn Blanka bere IIn Juan senarraren seme alaba oneik, erregetzatik alboratu egiezen, 1.455eko urtean IIn Juanek Nafar erregetzaren ondorengotzatik, euren aurka baztartuaren aldarrikapena egin ondoren, azkenez, biak pozoituta ilgo ebazan.

Kondaira onen zeaztasuna, IVn Karlosen bizi kondairan argituko doguna.

Guda au ezan amaituko, arik eta 1.512an IIn Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribiko borrokak irabazita, Nafar askatasunezko lkurrak menperatu arte.

5. 12. *Aragoiko jaurkintza.*

1.454ko urtean IIn Juanen anaia Aragoiko Vn Alfonso, Italia eta Siziliaren egoaldetik jaurkitzen egoala bere erreiñua, IIn Juan izendatu eban Aragoi ta Kataluñako ordezko lez(3).

1.455eko urtean IIn Blanka, bere neba IVn Karlosegaz batera, bere aita IIn Juaneri, Nafar

(1) Ordezko = lugarteniente. (2) YOPU biurtu = el papa le da permiso a los portugueses para esclavizar, o convertir en esclavos, a los habitantes infieles o paganos del Africa Occidental. (3) Ordezko lez = regente.

erregetzan eurak euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezanean, onek, ondorebage biak itzita, Leonor irugarren alaba 30 urte ebazala ondorengo lez izendatu eban, Nafartarren arteko anai-guda biztuta.

1.455eko urtean Vn Nikolasek, bere "Romanus Pontifex"eko berun buldagaz, 1.452ko buldagaz bat egin eta osotzeko, Afrikako lur aundian dago "Bojador" lur muturraren Ego-aldeko giza-seme guztiak menderatu, edo ta yopu biurtu egiezan, agindu eban.

1.456ko urtean IIIn Kalixto'ren, "Inter caetera" berun bulda.

1.458ko Uztaillaren 15ean Aragoiko Vn Alfonso erregea ondorengo barik il da, IIn Juaneri egoki jakon Aragoitarren erregetzazko aulkia.

Eta 1.458ko urtean Uztaillaren 25ean IIn Juanek, naita batera Kataluñako jaurkintza bere seme IVn Karloseri emon bear, bere seme Fernando(1), oraindiño ez zana katolikua, Montblankeko Duke ta Ribagorzako Konde izendatu eban Balagerreko Uriaren jauntzagaz batera. 1.460ko urtean anaien arteko guda sortuko ebena.

1.460ko urtean IIn Piok, bere "Execrabilis" berun bulda argitaratu eban.

1.460ko urtean Katalan gortekoak, Leridako Urian batzartuta, aske itzi egiela bere seme IVn Karlos, eskatu eutsoen IIn Juaneri.

Eta 1.461eko urtean Katalanek, Penedeseko Billafrankaren egiune edo ongundea onartzea beartu eutsoen IIn Juaneri, Kataluñan berari sartzea debekatuz, bertoko agintarien baimenik gabe.

Katalan gortekoak, IVn Karlosen ardurapean itxi eban Kataluñako jaurkintza. Lan ori geien, Kataluñaren orokorrezko edo Generalitateko arduradunak egin ebena, IIn Juan, IVn Karlosen aitak, semearen atzetik ibili zalako beti atxilotu naian.

1.461eko urte berean IIn Juanek, gogo bageko aldarrikapen bat egin bear izan eban, IVn Karlosek, euki ebazan erregetzazko eskubidearen jabetasunak onartzeko.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an il zan IVn Karlos, Enrikeztar Juana, IIn Juanen emazteak pozoituta.

IVn Karlos il ostean Katalanak, aurrera eroan eben, IIn Juaneri, Kataluñan sartzen ez iztea, bertoko arduradunaren baimenik gabe.

1.462ko Otsaillan baiña, IIn Juanek Penedeseko Billafrankaren ituneri jaramon egin barik, Kataluñan sartuta, katalanen anai arteko guda asi eban, remensako payes nekazarien iraultzagaz bateratu zana.

Kataluñako matxintasunaren aurkako borroka orretan IIn Juanek, Aragoi, Balentzia ta Siziliaren zintzotasunak bereganatzea lortu eban.

Katalanek baiña, IIn Juan errege lez ez ebelako ontzat artzen, erbesteratutako bat lez, euki eban.

Kataluñako Jeneralitatearen gudalozteak, Pallarestar Rojerren aginduz, Enrikeztar Juana ta bere seme Fernando, Jeronan egon ziran gazteluan, inguratuta euki ebazan lau illabetetan, arik eta IIn Juan frantzezaren laguntzarekin askatu arte.

XIn Luis frantzezaren laguntzagaitik, erabagi ziran ordaiñak, 200.000 urre-gorrizko otxin edo dolbekoa(2) zan, IIn Juanek urte baten barruan ordaindu bear ebana, eta ordainketa orren bitartean Zerdeña ta Rosellon emon ebazalako baikuntzan, Frantzezaren jabetasunera aldatu ziran, 200.000 dolbeko dirutza ori IIn Juanek, sekula ez ebalako ordaindu.

(1) Fernando el katoliko. (2) Dolbekoa = de doblones de oro.

Guda luze onetan Katalanak, Gaztelako IVn Enrikeri eskeiñi eutsoen Bartzelonako konderria, eta izendatu be bai, Frantzezak baiña, bitartean sartuta, IIn Juanek zor eutsozan ordaiñak eskuratu gura ebazalako, gaztelarrak nai aleginduarren be, ez eben Bartzelonako konderri ori artu.

IIn Juanek denbora oneitan, bere maltzurtasunezko trikimaillu guztieagaz, Nafartar erreiñua bere alaba txiker, Leonorren alde ipinteko ibili zalakoan, bere bigarren ezkontzako seme Fernando katolikoaren eskuetan izteko ibili zan, bere alaba IIn Blanka, erregetzatik zelan aldenduko alegiñetan ibili zalako, baiña denboraren igarotzeak erakutsiko eban, ori be guzur utsa izan zala, azken baten, Leonorren aurka be ibili zalako.

1.462ko urtean Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba txikerra Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargo bat, Leonor, bere urrengo lez izendatuta, eta bere senarra be, ondorengo lez onartu ebana.

Eta gauza orreik, IIn Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez, bereala asi ziran azpikeriz, IIn Blankaren ilketa antolatzen.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik, eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juan, Frantziko XIn Luisekin Aguraiñen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIn Luisen 16 urteko seme txikerra Berri´ko Dukea izan zanaren Karlosegaz ezkondu zedin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, aita asarre, Foixeko IVn Gaston bere suiñen agindupeko Monkada dorrean atxilotzea erabagi eban.

1.462ko Jorraillaren 23an IIn Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak, mendi ostera atxilotuta eroan eban IIn Blanka, eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, IIn Blankak:

Bere Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian, atxilotuta eroaten ebala aldarrikatu eban, bere ordez, Leonor aizta txikerra ta Fernando ugaz-nebaren mesede.

Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi egiezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, euki ebazan eskubideak bere borondatez, Gaztelako errege IVn Enrike, bere lenengo senarra zanaren zainpean iztea zalako.

1.462ko Jorraillaren 30ean, IIn Blanka berak egin ebana.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan, beren seme/alaba IVn Karlos eta IIn Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an, il zan pozoituta IIn Blanka, bere aita IIn Juanen aginduz, Frantziko Orthez errian.

1.463ko urtean eta Kataluñako borroka luze au aurrera doiela, katalanak, IVn Enrikeri egin eutsoen Eskeintza bardiña, Portugaleko Pedro konde ordeari be egin eutsoen, au baiña, urte bi beranduago il zan lez Kalaf´eko borrokan, eta gero Aragoiko errege izango zan IIn Fernando katolikua 13 urte bakarrik euki ebazanaren aurka, porrot eginda, or geratu jakien katalanari aukera ori.

1.468ko Otsaillaren 13an bulerreko min-biziagaz il jakon Enriketa´tar Juana emaztea, Aragoiko IIn Fernando katolikoen ama zanak, Aragoiko-Nafar errege maltzur IIn Juaneri.

1.468ko urtean IIn Juanek, Iruñako gotzaiña Txabarri´tar Nicolás, bere Leonor alabaren aolkulari zana, il eban.

1.469ko urtean Epaillaren 5ean Aragoi ta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, ariñautik il zan IIn Pio

Aita Santuaren bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako lengusutasuna ezereztuteko, ta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridako lurraldean, Zerberako Urian siñatu eben ezkontzazko alkargo orren agiria.

Nafarroako IVn Karlos izan zan, Gaztelako I Isabelek, ezkontzeko euki eben leen senargaia, eta IIn Juan bere aita ta Enrikeztar Juana bere ama ordeak, alegiñ guztiak egingo ebazan Isabelgandik aldentzeko, IVn Karlos pozoituarte.

1.469ko Urrillaren 19an, Balladolizeko Bibero jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu, Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Jeronako Printzea zan, IIn Fernando katolikuagaz.

1.469ko Abenduaren 16an, Lorenako Dukea il jakien katalanari, ta IIn Juanek Bartzelona inguratu ondoren, bakezko ongunde batera eldu ziran alde biak.

1.470 urtean IIn Paulok, bere "Ineffabilis providentia"ko berunezko buldagaz, 25 urteko epean ospatu dagiezen "Adei-urteak"(1) ospatzea agindu eban.

1.472ko Abenduaren 22an, Aragoi ta Nafaroako errege IIn Juan bere zitalkerizko irurogeita amabost urte euki zituzenean, eta ia itsu egon arren, bere seme Fernandoren laguntzarekin, Bartzelonan sartzea lortu eban, eta egin eben ongunde bitartez, danari parkamena emon, ta Kataluñaren Foru ta askatasunari ziñez itz emon ondoren, Kataluñako anai guda luze ori, Predralbeseko elkargo orregaz amaitu zan.

IIn Juanek, bere askenengo borrokakaz, Rosellon ta Zerdeña be berrezkuratu gura ebazan, baiña XIn Luisek ez eutson ezer emon, diru askoren zorrak euki ebazalako beragaz.

IIn Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVeko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarrenetariko erregea izango zana, 1.479ko urtean Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

5. 13. *Oar-labur baten bidez, emen ikusten doguna.*

IIn Juanek bere bigarren emazte Juana Enrikezegaz batera, IVn Karlos ta IIn Blanka euren erregetzazko eskubidetatik aldentzeko, eurok sortu ebela Nafarroako anai arteko guda ikusten dogu, eta trikimaillu guztiak ibilita be, ezinean agertu ziranean, pozoitu ebezala biak, Nafar erregetza, euren azkeneko seme Aragoiko IIn Fernado katolikoaren eskuetan izteko alegiñean.

Bai argi geratu be, Aita Santuak euren berunezko buldatan agertzen eban lez, eurak zirela kaisar katolikotasunezko aberkidetzaren siñezkintzatutako erlijioagaz, Mundu onen giza, katolikotasun aberkidetzazko kolonizazio barri orretan batzangotu leikenak, Mundu onen giza, euren sasi-jainkotasunean batzangotzeko eukin eben almen bakarra, eurak ziralako. Eta Vn Nikolasek bere berunezko "Dum diversas"en aginduko buldagaz erakusten dauan lez, "Afrikako giza semeak "joputasunezkoak(2) biurtu ebezala ezeren lotsa barik", Goiko Jaungoiku Irasleak ipini euskuzan lege guztien aurka.

Euskalerri ta beste berezko erri ta errigizarteak eukiko dabez maitetasunean ?.

Zelan sinistu ori, bizi garan guztiak menpetuz eukiteko, berezko errien iltzaille lez

(1) Adei urteak = año de gracia, de jubileo. (2) Joputasunezkoak biurtu egiezala = convertir a todos los habitantes de Afrika Occidental en esclavos por infieles, por ser ignorantes en la creación de sus idolàtricas y facistoides mentiras..

agertzen diranean ?.

5. 14. *Nafartarren Bianako Printzea lez, IVn Karlosen kondaira.*

1.421eko Loraillaren 29an Balladolizeko lurraldean eta Peñafieleko Urian jaio zan Bianako Printzea izango zan, Nafarroako IVn Karlos errege au.

Bere ama Nafarroako erregiña I Blanka, eta aita, Aragoiko erregetzaren seme txikerrena zanaren, IIn Juanen semea zan.

1.423ko Urtarrillaren 20an IVn Karlosen aitite IIIn Karlosek, bere billoba jaio ta urte bi beranduago, Bianako Printzerria sortu eban iñoren arazo barik, Karlos gaztea, eskubide guztiekaz, Nafarroako errege izan zedin.

Eta barregarria dana, nor eta bere aita, Aragoiko IIn Juan izatea, IVn Karlos bere semeari, erregetzazko bide ta eskubide guztiak, moztu egingo eutsozanak.

Zeozer jakin ote eban IIIn Karlosek ?.

Oliteko erregetzaren jauregian asi ta bere azkuntzaren jakintasunezko arlo guztiak bete ebazan IVn Karlos onek:

Bost izkuntz, elerti ta eder-lanetan trebea, gizabidea, ta eraman onaren arloak zentzu aundiz ikasita bere erregetzaren jaurkintzarako, gudarako eta zaldunezko buruzagitasunean jakintsua izateko, bitartean arraunlari, eizan ta zaldi gaiñean ibilteko ardura andiko ikasketarekin bete ebazanak, gazte paketsu ta jakituna izateko.

Zaletasun aundia euki eban aberezko arloetan, mota askoko abel-baratz aundi bat euki arte, eta soiñu-zale aundia be izan zan, berak bere maniura edo arpa ta kitarreagaz joteko ta joten ebazenentzako, eres zatiak idazten ebazalako.

1.427ko Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak, ostera ziñez itza emon eutsen Bianako printzeari Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

1.439ko Iraillaren 30ean Klebes´tar Ines, Klebeseko I Adolfo Dukearen alaba eta IIIn Felipe Borgoñako Dukearen loba zanarekin ezkondu zan IVn Karlos, 19 urte zituzela.

1.441ean Loraillaren 1ean IVn Karlosen ama I Blanka il zanean, bera geratu zan Nafarroako erregetzaren ondorengo, Bianako Printze lez, eta bere aitite IIIn Karlosek Frantzian irasita, Nemours´eko konderriaren jabetasunagaz.

Zoritxarrez baiña, IVn Karlosen amak, bere azkenaian, baldintzazko aolku bat emoten eutsonagaz Karloseri: ***Erregetzazko izenik ez egiela artu, arik eta aitak, bere bedeinku ta baimena emon gabe,*** IVn Karlosek, erregetzaren ordezkotza bakarrik artu eban.

Amak, gogamen onegaz uste eban, bakeak lortuko zituzela aita ta semearen artean, azken baten eziñ-ikusiaren ta elkartu-eziñezko gorroto-bizi baten geratu zana, bata nortasunaren legez eta bestea norkerizko guzur ta katolikotasunezko aberkidetzaren laguntzagaz, biak sinistu egiten ebazan eskubideetatik, ez ebelako urten gura.

Nafarroako erregiña I Blankagaz ezkonduta, bere bizi-lagun lez bizi zan, Aragoiko I Fernando erregearen seme ta Gaztelako I Juan erregearen billoba, gero Aragoi ta Nafarroako errege izango zan IIn Juan au.

Ia bere gaztetako denbora guztia, Gaztela aldetik borrokan ibili zan, Aragoiko erregeak gaztelanian, ondorengo jabetasunean lur zabal ta ugariak euki ebazalako.

Ez gitxiago Gaztelako gortean euki gura eben eragiteagaitik(1), lenengotan lortu ebana, arik eta Lunatar Albarok, Gaztelako jaurkintzan goi maillako agintaritzara igon arte.

Nafarroako erregiñaren bizi-lagun(2) IIn Juan onek, bere matxinzale edo ta errinaslearen betiko zeregiñekin ibilita, ez eban lortu, leku guztietan gorrotogarri izatea baiño:

a) Gaztelaniako gauza guztietan esku-artzeagaitik, borroka ugari.
b) Aragoien, bere erritar eta lurraldeak guztiz jaramon egin barik euki ebazalako, danak asarre.
d) Kataluñan anai arteko guda luzeak sortzeagaitik.
e) Eta Nafarroako erregetzan, beste biak ordaintzeko, bertako dirutik ordaindu egiten eban lez, eukezan erregekerizko andinaien borroketatik, Nafar anaien arteko guda ugari.

1.447ko urtean, IVn Karlos eta bere aita IIn Juanen artean egon ziran gorrotoak, gogortu egin ziran, baita IIn Juanek, Nafartarren gortekoak asarre bizian ipini be, Gaztelako erregearen sasikumeko adarretik etorten zan Enrikez ta Fernandez de Kordobatar Juanagaz, Kalatayuzen ezkondu zalako, eurei ezer esan gabe.

1.448ko urtean Jorraillaren 6an il jakon IVn Karloseri 27 urte euki zituzela bere Klebestar Ines emaztea, 9 urte ezkonduta gero, ondorengo seme/alaba barik.

Gaiñera Juana onek, bere aita Enriketar Fradike Gaztelako amiralgoren laguntzarekin, bere senarra IIn Juan bakera bideratu barik, eta berari, Fernando katolikuaren izenagaz ezagutuko zan semea emonda, ***kuku txoriak egiten dauan antzera, Nafarroako kabian egoan arrautza bota eta berea ipini gura eban***, bere seme-ordea Nafarroako IVn Karlos errege eskubidekoa, Nafarroako erregetzan "Sarkoi"(3) bat izan bazan lez erabilita.

Juana berak, bultzatu eban bere senar IIn Juan, Nafarroan benetako erregea zanaren IVn Karlosen aurka, bere seme Fernando, gero IIn Fernando katolikua izando zanak, Aragoi ta Nafarroako errege izan zedin.

Dana dala, Europa ta Erdi Ugarte onen erregeentzat, bai ta Ego ta Iparraldeko euskal Nafartarrentzat batez be, ezkontza orren bidez agertu ziranak, oitura edo orekabageko ekanduzkoaren goibeltasunezko denbora ekaiztsuak izan ziran, eta alan sortu zan gero etorriko ziranarekin.

Bianako Printzea IVn Karlos onek, bere aitaren agindutara ipini bazan be, IIn Juan aita onek lege arloetan, berak asmatzen ebazan arrazoiakaz, egitik urriñ ibilten zalako, gaztelar eurak eskeiñi eutsoen IVn Karloseri, IIn Juan bere aita izan arren, Nafarroako erregetzatik bota egian.

Gaztelar oneik baiña, IVn Karloseri argi ikusiazo egiten dautsoe: ***Eurak ez zirala borrokatzen Nafartarren aurka, IIn Juan arrotza, Nafartarren erregetzatik botateko baiño***(4), eta IVn Karlos alegintzen dabe, bere ekanduzko egilletasunaren sorburutik, kendu edo aldendu egiezala, bere aita IIn Juanek euki zituzen lapurrezko asmakizunetik betirako.

1.451ko Iraillaren 8an irurak sinatu eban: IVn Karlos Naparrak, IIn Juan gaztelar erregearen seme Asturiaseko Printzea, ta Albaro de Luna kondestableagaz egin eban itun ori, Aragoiko IIn Juan, Nafarroatik botateko asmoakin.

Eta elkargo orren agiria ziurtzeko, beaumontesen alderdia IVn Karlosen alde kokatuta, eta

(1) Eragiteagaitik edo eragitea = infuencia. (2) Erregiñaren bizi lagun = rey consorte. (3) Sarkoi bat lez = atzerritar bat izan bazan lez. (4) Eurak ez zirala borrokatzen Nafarroaren aurka, bere aita IIn juanen aurka baizik = baten batek ikusten dau ainbateko lekuetatik "El proyectoEspaña ?", bai alderantziz katolikotasunezko aberkidetza, edesti guztian Frantziko Iraultzararte agertzen dan lez.

IVn Karlosek euki zituzen nafartar gudalozteak I Luis Leringo Kondearen agindutara ipinita, IIn Juanek euki zituzen gudalozteakaz borrokatu ziran lenengoz, garrantzi andiko ondorio barik.

IIn Juanek bere agintaritzari indarra emoteko, bere emazte Enrikeztar Juana bialdu eban Lizarrara, gortearen jaurkintza bere seme IVn Karlosekin batera eroan egien, Juana onek baiña, bere agindunaiaren eraso gogorrekin ibilita, beaumontes nafartarren gorroto ta ezin ikusi biziak sortu ebazan bere aurka, eta Nafar ta gaztelatarrak IVn Karloseri esan eutsoen, ordua zala IIn Juan, errege maltzur ori, Nafarroatik atarateko.

Juana inguratu eben Lizarrako jauregian Beaumondarrak, baiña laster askatu bear izan eben ingurutasun ori, IIn Juan bere gudalozteakaz agertu zalako.

1.452ko urtean, Aibarren aurkeztu ziran, gudalozte biak borroka latz baten sartuta, eta IIn Juanek, Aragoi, Frantzez, ta Nafar Agramontesaren laguntzarekin garaipenduta, bere seme IVn Karlos Tafallako gazteluan atxilotu eban, gero, Tudela, Mallen, Monterrey eta Salduba edo Zaragozako gazteluetatik ibili ondoren, 20 illabete egin zituzen atxilotuta azkeneko toki onetan IVn Karlosek.

IVn Karlosek atxilotasunetik urteteko, bere aita IIn Juaneri esan eutson, aurrerantzean berak ez ebala errege titulorik artuko bera ilten zan arte, eta onek aske itxi eban.

1.452ko Epaillaren 10ean jaio zan Aragoiko Fernando, gero katolikoa izango zana.

1.453ko Bagillaren 23ko asken egun arte, ez eban askatuko IIn Juanek, bere seme IVn Karlos euken atxilotasunetik.

IIn Juan erregea gogaituta, bere suin Foixeko Gaztonekin, ordurarte IVn Karlosen alde ibilten zalako, berari deitu ta erabagi onetara eldu ziran, bere seme IVn Karlos, Nafar erregetzaren ondorengotzatik kendu eta Leonor, bere lenengo ezkontzaren alaba txikerrena euken zenar Gaztonekin batera, Nafarroaren erregetzan leen ondorengotzan ezarri.

IVn Karlosek, Lizarran egin eban askeneko alegiña bere aitaren aurka, eta galdu ondoren, Iruña, Paris eta Erroman Aita Santu IIIn Kalixtogaz egonda, Napolesera joan zan, bere maitetasun aundian euken osaba Vn Alfonso Biotz Andikoa esaten eutsoenaren babesera.

1.457ko urtean, eta Aragoiko Vn Alfonso onek, bere loba IVn Karlosegaz lilluratuta, eukezan gizon itxura ta jakintzagaitik, Napoles eta Siziliako ondoengo lez izendatu eban.

1.457ko Epaillan Beaumontdar Juan Nafarroako jaurlariak, Bianako Printzearen izenean, gorteko arduradunak batzartu ebazan Iruñako erregetzan, oneik, IVn Karlos, Nafarroako errege lez aldarrikatuta.

Eta 1.457ko urtean Bagillaren 26an Napoleseko errege Vn Alfonso, IVn Karlosen osaba ta IIn Juanen anai onek, IVn Karlos aldarrikatu eban Aragoi, Balenzia, Mallorka, Zerdeña, Sizilia eta Kataluñako printzerriaren errege lez, bere aita IIn Juanen ostean, Napoleseko erregetza IIn Juanen seme Fernando Kalabriako Dukearentzat itxita.

1.458ko Bagillaren 27an il zan Vn Alfonso Aragoiko erregea, eta IVn Karlosen aita, IIn Juan Aragoiko errege koroatu ebenean, onek bere seme IVn Karloseri Napoles eta Siziliako koroak emon eutsozan, ortik aurrera IVn Karlosentzat, bake aldi guztiak amaituta.

IVn Karlosek, bere osaba ilda, Napolesetik Siziliara aldatu zan, eta an egon zan urte oso baten bitartean, Portugaleko erregeak bere arreba Katalina eskaiñi eutson IIn Juaneri, bere seme IVn Karlosekin ezkontzeko, ez zana aurrera joan.

1.458ko Uztaillaren 15ean IVn Karlosen aita IIn Juanek, Aragoiko erregetza artu eban, bere agintaritzapean jaurkitzeko.

1.459ko urtean IVn Karlosek, 38 urte euki zituzela eta bere aitagaz adizkidetu ondoren, ostera etorten da Nafarroara, eta Beaumont´tar Juanen bidez, alkarrizketak asten dira, IVn Karlos, 9 urte zituzen Gaztelako IVn Enrrike erregearen ugazarrebagaz(1) ezkontzeko, edo gero, Gaztelako I Isabel katolikua izango zanarekin ezkontzeko.

Portugaleko erregeak denbora onetan ia batera, IIn Juaneri eskeiñi eutson bere arreba Katalina, IVn Karlosegaz ezkondu zedin.

1.459ko Uztaillaren 23an IVn Karlosen gogoan, bere aitak emendik aurrera, seme bat lez ondo artuko ebala ta, Siziliatik urten da, Kataluñaren Salouko itsas-portuan lurreratu zan.

IVn Karlos bere aita IIn Juanegaz euken politikazko gauzatan alkar ipinita, Karlosek aitari, Gaztelako 9 urte zituzen Isabelegaz ezkontzeko, berak euki eban egitaraua edo montioa, aurrera eroan egiela eskatu eutson.

1.459ko Dagonillaren 28an IVn Karlos itsasora urtenda, Mallorkara joan ei zan, Palmako Eleiz Nagusiaren ondoan egon zan Almudaina errege jauregian, erritarren poz eta sugurpill pesta bidez kokatuta.

Aitak baiña, Felanitx´eko aitz gaiñean eginda dagoan Santueri ta San Salbador Santutegi bitartean, urbil dagon gazteluan, atxilotuta lez sartu eban.

Eta IVn Karlosek, emen euki eban laguntasunezko andere lez Margalida Kolonegaz, euki zituzen laztakerizko artu emonetik, fruituak agertu ziran, Margalinda aurdun geratu zalako.

1.459ko urtean Urrillaren 28ko eguna baiño ariñago, IVn Karlosek oartu zan Margalinda aurdun geratu zala, ta Mallorkako gotzai ta jaurlariari idatzi utsen eskutitz bat, gertakizun orreikaz arduratu egiezen.

Eta denbora baten barru, IVn Karlos jakin ondoren Mallorkako agintariak bete egin ebezala berak eskatu eutsezan ardurak, eskutitz au idazten dautse: ***Agradecemos mucho lo que fecho haveys en recomendaciòn de MARGARITA, la verdad de la cosa mostrara lo que haveys sentido de ella ser prenyada.***

1.459ko Azaroaren 22an IVn Karlos bere 38 urtegaz, Santueriko gazteluan atxilotuta egon zala, bere aita IIn Juaneri eskutitz baten bitartez parkamena eskatu eutson. Onek, barkamen ori, emonda.

1.460ko Epaillaren 20an IVn Karlos, bere aita IIn Juanegaz, Bartzelonan alkartu zan.

1.460ko Epaillaren 28an IIn Juan, Baldonzellako lekaidetxean, Bartzelonako aolkulari nagusiagaitik onartuta, Epaillaren 31n Bartzelonan sartu zan agintari lez.

IVn Karlos Loraillean, Igualadan alkartu zan bere aita ta amaordeagaz, eta ostera aurkeztu eutson bere aitari, berak, Gaztelako Isabelekin ezkondu gure ebala.

1.460ko Bagillan, IVn Karlos eta Margalindaren seme Kolontar Kristobal jaio zan(2).

Eta 1.460ko Abenduaren 2an IIn Juan, bere seme IVn Karlosegaz Leridan egon ondoren, oartu zanean, Beaumontdar Juanek eroaten ebazala I Isabel ta IVn Karlosen ezkontzazko gora berak, Gaztelako IVn Enrikegaz euki zituzen elkarrizketatik, arrigarrizko aldaketa aundiak sortuko ziran.

IIn Juan ta Enrrikeztar bere emazteak, Gaztelako I Isabel, bere 7 urteko Fernando

(1) Ugazarreba = hermanastra. (1) Bere benetako edestia = Euskalerriko edesti onegaz daukazue,/e-mail: aeuskerazaintza(arroba)gmail.com www.euskerazaintza.0rg. Bere izen burua: "Kolon´tar Kristobal, Nafaroako errege IVn Karlosen semea ote zan ?.

semeagaz ezkondu gura ebalako, eroaldi gogor bat emon baeutsen lez, IIn Juanek, bere seme IVn Karlos atxilotu egien agindu eban, eta lenengo Lerida, Aitona, Fraga, Zaragoza ta askenez Mirabent ta Morellako espetxetatik ibili ebanean, txorakeri onen ondore, Kataluña ta Nafarroako erritar guztiak, IVn Karlosen alde matxinatu ziran.

IIn Juanek orrez gain, ez eban IVn Karlos semea askatuterik gura, arik eta onek, Aragoi ta Nafar erregezko izen-buruak ukatu arte.

1.461eko Otsaillaren 8an Kataluña osoa matxinatuta, eta matxinatuak IIn Juan ta bere emazte Juanaren atzetik ibilita, larri aldendu ziran oneik, matxintasunen eskuetan atrapauta geratu ez zitezen.

1.461eko Otsaillaren 25ean IIn Juan bildurrez, IVn Karlos aske itzi eban, erritarren poz aundiagaz.

Beaumontdarrak IIn Juan erregetzaren aurka matxinatuta, eta IIn Juanek Frantziko XIn Luiseri beti lez laguntza eskatuz, IIn Juanen zorrak 200.000 urre-gorrizko otxin edo dolbaraiño igon ebelako, Frantziko XIn Luisek, Rosellon ta Zerdeñagaz geratu zan, zorraren baitura lez.

1.461eko Epaillaren 12an IVn Karlos Bartzelonara eldu zanean, erritarrak, goratzezko ongi etorri andi bategaz artu eben, eta elburu bat lez geratu zan, katalan ta baita beaumontar Naparrentzat, IIn Juan errege lez baztertzea, Rosellon eta Zerdeña, diruaren baituran itxi eutsozelako Frantziko errege XIn Luiseri, aitzakituz.

1.461eko Bagillaren 21ean IVn Karlos, Penedeseko Billafrankan egin zan elkargoagaz, ta IIn Juanen seme nagusia izanda, Aragoi ta Kataluñan matxinatutako erritarrengandik ondorengo errege lez artu eban, eta Kataluñaren betiko ordezko lez sinatu eban.

I Isabelekin ezkontzeko alegiñetan IVn Karlosek, Gaztelako errege IVn Enrike Isabelen neba orde edo ugaznebagaz asi ebazan alkarrizketak ostera, baiña IIn Juan bitartean sartuta, ezereztu ebazan ongune guzti orreik.

5. 15. *25n Jauna, Bizkaiko Jauntzan.*

1.469ko Urrillaren 9an, Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II Fernando Balladolizen ezkondu ziran.

1.473ko Iraillaren 15ean Bizkaitarrak, Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II Fernandori, eskutitz bat bialdu eutsen esanez: ***"IV Enrrikeren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, eurei emoneko itzakaz, maltzurrezko jokoan ibiltezan gizonarekin".***

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatzeko: "Lenago danak ilko zirala, ta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agindupetik kanpo geratu baiño len".

1.473ko Urrillaren 14an, IVn Enrrike il orduko, I Isabelek eskutitz bat emon eutsen Bizkaitarrai, Bizkaiko Foru Legearen askatasunak baieztatzen ebana.

1.474ko Abenduaren 12an, IV Enrrikeren il otoizketak egin ziran.

1.474ko Abenduaren 13an, Fernando Aragoien egoala eta Isabel Segobiara joanda, gortearen aginduz, bertan izendatu eben Gaztelako erregiña.

1.474ko urtean IVn Sixtok, bere "Regimini"ko berun buldagaz, eleiz-izlarien lekaideai emon eutsoen askatasun osoa, eurak irasi ebezan eliz nagusiekaz arduratu zitezen.

Eta 1.475eko urtean Portugal eta Frantziaren aurka egin ebezan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak, beti lez, Isabel ta Fernandori, edo bardiña dana, euren Jaunkotasunari laguntzen.

1.475eko Iraillaren 20an Burgosetik Fernandok, irain ordeko(1) agiri bat bialdu eutsoen Bizkaitarrai, IV Enrrikek ***Judasen***(2) izenagaz zelakotu ebazalako.

Eta emendik aurrera, ori ta merezimendu geiago daukezelako Bizkaitarrek, Fernando ta Isabelek, bialdu ebazan eskutitzetan, agiri, norberaren agiri, lege berezi, ta albalaeko(3) idazkiaren elburuetan, ***Muy Noble è Muy Leal Condado*** ipini egiala agindu eben. Fernandok au esanda urrengo egunean, Bilboko Iribildua, ***Muy Noble y Muy Leal*** izendatuta.

1.475ko Uztaillaren 7an, errege katolikoak Tordesillasetik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik kanpoko serbitzura joan bear izan ebenean, Foruak agintzen eban lez egin bear ebela. Au da, gudariak erritik urten orduko, diruz ordainduak izan zitezela.

1.475ko Uztaillaren 27an errege katolikoak beste agindu bat emon eben Tordesillasetik: "Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren gudari serbitzuak, lurrean egitera beartu, Foru Legeak debekatu egiten ebalako".

1.476ko Uztaillaren 20an Fernando, Bilbaora etorri zan Forua´i ziñez itza emoteko Isabelen ordez, eta Bilbaoko atean ziñ eginda, Larrabetzuko San Emeterio eta Zeledonen ziñ egiteko Eleizara joan ziran, ziñezpen orreik emoteko.

1.476ko Uztaillaren 30ean Gernikara elduta, Bizkaitarrak, Antiguako Santa Mariaren eleizan egon zirala, Fueroak ziñ egiazala eskatu eutsoen, eta Fernandok, orretarako etorri zala erantzun ondoren, ***erregiñagaitik be, ziñ egiten ebala, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fueroak autsi, ezereztu edo oinkatuko euskaldunai,*** esan eban.

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zan lez, Fernando, Gernikako Zuaiztpean dagon arrizko alkian ezarrita, beren eskuak muinkatzera emon ebazan.

Eta askenez, Bermion ziñ egin eban.

1.476ko Iraillaren 25ean Fernandok, agindu bat emon eban, ***Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorragaitik.***

-Euskal berbea, egizko aintzakotzat euki ebalako ?.

-Gaur, Orejatar Martzeliñok be, bardin esaten dau.

1.478ko urtean IVn Sixtok, beren "Exigit sincerae devotionis"eko berunezko buldagaz, Fernando ta Isabel Gaztelako errege katolikueri, baimena emoten dautsoe, inkisizio edo fede-zaindia irasi egien euren erregetzan.

1.481eko urtean IVn Sixtok, bere "Aeterni regis"eko berunezko buldagaz, Alkazobaseko (Tratado de Alcaçovas) ongundea baieztatzen dau.

1.483an Iraillaren 5ean, Isabel be Bilbora etorri zan, eta Tenderiako ateetan Foruei ziñ emon eutsen.

1.483ko Iraillaren 8an Isabelek, Portugaletera joanda, Otxoa Ortiz de Montellanoren etxean, gure Foruak ostera zindu ebazan.

1.483ko Iraillaren 16an Larrabetzuko San Emeterio ta Zeledonioren eleizan be bai.

Eta Iraillaren 17an, Euskaldunentzat Saindua dan Gernikako Zuaitzpean.

Durangora joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermu Iribilduaren Foru Legeai be ziñ emonda, orrein erritarren bost giltzak artu ostean, Durangoko Santa Maria Eleizan amaitu eban ziñ egite ori.

Emendik aurrera eta 1.526an idatzitako Foru Lege barriaren IIn gaiak alan eskatu, Bizkaira ez ziran etorri Gaztelako erregerik ziñ egitera, goian esan dodan lez, eskutitz bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernikako Batzarrean irakurrita baiezten zana.

1.484ko urtean VIIIn Inozensiok, bere "Summis desiderantes"eko berun buldagaz, Rin ibaiaren ibarrean, euren ustez egoan ziñauskeria ta sorginkeriak, indarrez bear bada kendu egin bear zirela agindu eban.

1.486ko urtean VIIIn Inozensiok, bere "Ortodoxae fidei"ren berunezko buldagaz, egingo ziran lekaide lekaimetxe ta eleiz barri guztien aurkezpeneko eskubide osoa emoten dautsoe errege katolikueri, bai ta beste onaurki txiki ta nagusi guztiakin, laster Granada menpetuko zan, edo moruen erregetzazko lurralde ortan agertuko ziran mozkiñakaz.

1.504ko Azaroaren 26an, 53 urte ebazala, Medina del Kanpon il zan I Isabel.

Eta Bizkaian bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernikan, Juana eta Feliperen jauntza baieztu zan.

5. 16. *Taket-arteko ondorio labur-bat, Bizkaiko Jauntza onetan.*

Naita denbora borrokatsuak izan, Isabelen Andre Jauntzan ikusten dogu, bata bestearen beartasunean eta itzarmen bidez, gure Foru Legeak indartu egin zirala, Bizkaitarrak eta errege Jaunak, zentzun andiko leialtasunean jokatu ebelako.

Denbora iltzaille oneitan, Euskaldunak itzarmenekoak beti lez izan ziran, ta ikusi dogun lez, Gaztelar erregeak euren larritasunagaitik, Bizkaitarren arremanakaz, oartuta egon zirala.

Gaztelar erregeak gure Jaun lez, lurretik laguntza aundia euki ebalako, eta ez gitxiago mariñel ta itsasontzi egilletasunean, euskaldunak, oso trebeak izanda, leialtasun aundia erakutsi eutsolako Absburgotar Austriako errege guzti oneri, III Karlos be, artean dala.

Emendik aurrera baiña, bolbora edo lerrauts-gintzaren obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoi gintzagaz, Gaztelar erregeak gero ta indar geiagoagaz aurkeztuta, agintaritzazko al-osokeri osora arrotzen asi ziran.

Eta bide batez 325eko urtean Nizean erlijio lez asmatu zan, katoliko aberkidetzaren azpikeriz, ziñeskintzatuta etorten ziran mendetasunezko arauakaz, Europako erregeak al osokerira bideratu ta indartu ebazan, eta itzarmeneko ekandutik, urruntzen joanda, berezko edo jabedunezko erriak, gero ta ardura gitxiagoa euki eban eurentzat, erlijio orren elburua, katolikoen aberkidetza zalako, Mundu onen erri guztiak, era ortan batzangotu zitezen.

Eta orregaz batera, Gaztelako gorteak maltzur eta zitalkeri gogorrenean asita, itzarmenaren zentzunezko aztarnak naastuten asi ziran, naita euskaldunakaz oraindiño, emoneko ziñ-itzak, begirun aundiagaz zaindu.

5. 17. *Nafar erregeen aria ostera artuta, Nafarroako I Leonor.*

Nafarroako I Leonor, Ebrox eta Trastamarako leiñutik etorrena zan, Nafarroako I Blanka erregiña, ta Aragoiko errege seme IIn Juan bitartez, ezkontza orren laugarren alabea izanda.

1.426ko urtean Otsaillaren 2an jaioa, Oliteko errege jauregian.

I Leonor erregiña egin eta amabost egun barru, Tuteran il zan, eta beren azken naian: ***Bere anai IV Karlos Bianako Printzearen eskubideko jabe bideak eskatu ebazan bere ondorengotasunentzat, Nafarroako erregetza, bere seme Frantzisko Feboren arduran itzita. Eta laguntzaren billa joan bear baeben aolkuagaz, Frantziako erregetzara joan zitezela, esan eutsoen.***

1.479ko urtean Urtarrillaren 1ean il zan Aragoiko ta Nafar IIn Juan errege maltzurra.

1.479ko Urtarrillaren 28ko urtean I Ldeonor, Tudelan izendatu eben Nafar erregiña lez.

Eta 1.479ko urtean Otsaillaren 12an il zan I Leonor.

5. 18. *Nafar erregearen aria ostera artuta, Foix'tar leiñuan, I Frantzisko Febo edo Feboren izenagaz ezagutu zan Nafar erregea.*

Pabeko gazteluan iraun eban I Franzisko Feboren bizitza, bere arbaso IIIn Karlos Biotz Aundiko, ta IVn Karlos jakintsuaren Bianako printzeen antzera, musika, izkuntz, apainkeria, guda zaldun, eta antzez-lanaren zaletasuna erakusten.

Nafarroako I Leonor erregiñaren billoba zan, eta 1.479ko urtean I Leonor il zan orduan, errege egin eben, Bianako Printze lez.

Foixeko Gaston kondea, eta Frantziko XIn Luis erregearen arreba, Madalenaren semea zan.

1.469ko urtean jaio eta 1.483 urteko Urtarrillaren 29an Paben pozoituta il ebena.

1.472-1.483ko urte bitartean, Foix, ta Bigorreko kondea, ta Bearneko bizkondea izan zan.

Eta 1.479-1.483ko urte bitartean, I Frantzisko Febo Bianako printze au izendatu eben Nafarroako errege, Agramontdarren laguntzagaz.

Beaumontdarrak une onetan, Aragoiko IIn Fernando katolikuen alde kokatuta egon ziran. IIn Fernandok Nafar mugan, Aragoi ta Gaztelar gudalozteak zain ipinita, frantzezak, sartu ez zitezen Nafar erregetzan. Maltzur zikin baten aitzakia bakarrik zana.

1.479ko urtetik 1.481eko urte artean, Feboren erregetzazko denbora onetan, Beaumont ta Agramontdarren arteko gudak, gogortu egin ziran ezin geiagoan.

Febok, 12 urte bakarrik eukinda, bere ama Frantziko Madalenak artu bear izan eban agintaritza, erregearen-ordezko lez, ondo eroan ebana.

Madalena, Zaragozan egin eban berba IIn Fernandogaz, onek itxura baten, laguntzeko prest egoala emoten ebalako.

1.479ko Iraillaren 17an Alkarrizketa orren ondorioz, Aoizko bake-une edo gudu arteko alkargoa sortu zan, eta Madalena poztasun aundiz ta arazo guztiak konpondu egin ziralakoan, alan esan eutsen Nafartarrai.

Egia baiña, IIn Fernandok, azpi-jokoan ibili zala zan.

Orregaitik garai onetatik emen aitatu bear dana:

a) Europa ta ezagutzen zan orduko mundua, laterrizko antolamenduaren katolikotasunean aberrituz batzangotzeko, eleizako erlijioaren gogo edo sendimendutik etorri arren, erdiugarte onen ezberdiñeko errigizarteetan ez zala egon alango oldozkeririk zan.

b) 1.480ko Urrillaren 18an, olan erakusten daualako Rodrigez de Almella, Kartajenako Kalonjeak, bere katoliko aberritasunaren aldeko idazketan, berezko erri ezberdiñen bizitzak, katoliko aberkuntzaren kolonizazio ortan ezarri gura dauazanean:

Gaztelako erregeak, eskubidea daukela Nafar erregetza beraganatzeko, Araba, Gipuzkoa ta Gaskuñako Lurraldeak artean dirala" aldarrikatzen dauanean.

Eta katolikotasunezko erlijio onek, ezin ebalako lortu Mundu osoaren katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzea, ondore lez asi zan agertzen, Europa ta ugarterdi onetan, frantzez, Alaman, spain ta abar sasiaberrietan laterritzekoaren, ametsezko oldozmen orreik.

Naita gaur oraidiñokarren, Galicia, Katalan eta Euskaldunak ortze ibili, askatasunaren on arrazoizko aukereak noz agertzen jakuzan, katolikotasunaren aberri fazizta orren txeberatik alde egiteko.

Denbora aietan, Europaren iñungo gizarte arloetan ez ziran ulertzen, berezko errigizarteen aurka egiten ziranak, bereztasunaren aurkakoak izanda, iñork ez ebelako aituten eta euki, adibidez: espainian, Ingalaterran, Italia, frantzia, ta alamanian, katolikotasunean laterrituz, aberritzeko iñungo sendimenturik, katoliko aberkidearen erlijioak, nastezko eritziaren oldozmenetan ekarten ebazalako eginkizun guzti orreik, gero indarrean ezartzeko.

5. 19. *Nafarroako erregetzan, Foix´eko I Kataliñ erregiña.*

Nafarroako I Kataliñ, Foixeko Gaston Bianako printzea ta Madalena, Frantziko XIn Luis arrebaren alaba txikerrena izan zan.

Foixeko I Kataliñ au, bere anai I Franzisko Feboren ondorengoa zan, Nafar erregetzan.

1.483ko urtean bere anai Febus´tar Frantzisko gazte ilda, bera egin eben erregiña 5 urte eukezala.

1.483-1.492ko urte bitartean borrokatu bear izan eban Kataliñ onek, bere ama Madalenaren laguntzagaz, bere osaba Foixeko Juanen aurka, Nafar erregetzaren jabetasunagaitik.

Nafar anaien arteko guda luzea sortu ebena, Beaumontdar eta Agramontdarrak, bata bestearen aurka bideratuz.

Foixeko Juan, Kataliñaren osaba onek, Nafar ondorengotasunean bigarrena izanda, bera errege izateko, Aragoiko erregetzaren Salikako legea ezarri gura eban.

Orduko ekaiztsu ta naastezko denboratan, eta Juanek eukiko ebazan norkerizko alegiñ guztien gaiñetik, Nafar erregetza au babesteko arrazoia baiño, beso indartsuak bear zirala zan. Nafar erregetzaren aurka, norkerizko lapurketa oneik egiteko, bor-borrean asi ziralako emendik aurrera Aragoiko IIn Fernando katolikuaren aldetik.

1.483ko urtean, Beaumontdarrak Aragoiko IIn Fernandori eskatu eutsoen, Nafarroako erregetza Aragoiko erregetzagaz bat egiala, baiña Fernandok bere emazte Isabelegaz, euren seme Fernando Asturiaseko printzea, Katalinagaz eskondu gurean, beste ezkutuzko bidetik egin gura eben ezkontza ori.

Katalinaren ama, Madalenak baiña, atzeratu ebazan katolikuaren asmoak, printzearen gazteasuna aitatuta.

Joko orretan egon zirala, XIn Luis Frantziko erregea be sartzen zan.

Gaztelako errege izango zan batek, Foix, eta Burdeoseko laterriakaz beren aurka jabetuta, Tolosako ateetan kokatzen zalako. Orregaitik bera be sartu zan beste eskontza batzuk eskaiñita, eskontza ori ezereztuteko.

Baita, katolikuak euren meatxu gogorrakin, egiten ebazan alegiñ ugariak, Asturiaseko Printzea, Nafar errege aulkian ezarri zedin.

Aurrera joanda, 1.495eko urtean il zan Katalinaren ama Madalena.

1.504ko urtean, eta Madalena, Kataliñ Nafar erregiñaren alaba, Ibarreko Medinan, Aragoiko IIn Fernandok baituta eukela il zanean, Nafar errege eta Leringo kondearen artean, borroka geiago biztu ziran, 1.504-1.508ko urte bitartean iraun ebena.

Nafarroa atsekabetzen eben gaxotasunak, larritasunezko maillara igonda, ezinezkoak biurtu jakien Nafar erregeari, agertzen zan ondamenari eusteko, eta ez zan izango txikerrena, alderdikeriaren norkerizko zaleak igon eben lekutik beratzeko, indar aundieneko al izate edo eskumena bear zalako, ain gogorkerizko norkeri gizonen artean, emakume bat, erregetzaren aulkira igoteko.

1.504ko Zemendiaren 26an Isabel katolikea il zanean, onek beren azkenaiak-zaintzeko, Zisneros izendatu eban, Aragoiko IIn Fernando ta Vna gaztelarren artean zanak ondo ikusita, Gaztelako jaurkintza bere alaba Juana ta Juanaren senar Austriako I Feliperen eskuetan itzi bearko ebala, eta Gaztelako gorteak, ori berori ikusita, bere Aragoiko erreiñura bigaldu eben IIn Fernando.

Gaztelako gortekoak, ez eben jakin zer egin eben, ez ziralako konturatu, zelangoak izango ziran IIn Fernandoren asarreak. IIn Fernando, laster asi zalako alegintzen, Gaztelako errege oneik, zelan baztertu.

Batetik, eta bestetik, Frantziako errege XIIn Luisek, Felipe artxidukearen al izan edo bera izan zanagaitik, bekaitz euki ebalako, biak alkartu ziran. Eta baita biak batzartu be, Bloiseko elkargoa ospatzeko, bertan, Aragoiko IIn Fernando bigarrenez, Foixeko Germanagaz ezkonu zedin onartu ebalako Frantziko errege XIIn Luisek.

Denbora oneitan, Frantziko errege XIIn. Luisek, ondo egiten eban berba, beren lengusu Beaumonteko Luis Leringo kondea, edo Nafarroako kondestableari buruz.

Egia baiña, Leringo konde Luis onek, beren obekuntzagaitik itz ustelekoa izanda, bardiñ konpontzen zala, Frantziko, naiz Gaztelako erregeakaz, Nafar erregetzaren aurka jokatzeko.

1.505eko urtean Urrillaren 19an, Foixeko Jermanak 18 urte eukezala eta IIn Fernandok 53 urte, ezkondu ziran ordezko legean.

Ezkontza onen bidetik, II Fernandoren emazte Jermanari, Napoleseko ondorengotasuna emon eutson Frantziko erregeak, eta Fernandori Jerusaleneko errege izena. Jermana ilten zanean, ostera itzuli bear ebena Frantziko erregetzara.

Ezkontza onek, larritu ebazan ezinbesterarte Gaztelako gortekoak, eta geiago, 1.509ko urtean Jermana bere emazteak, bigarren seme Juan emon eutsonean.

IIn Fernando katolikoen seme Juan au, jaiotzatik ordu gitxira ez bazan il, Aragoiko errege izendatuko eben, IIn Fernandok bere alaba I Juana eta bere senar I Felipe Ederrari, Aragoiko erregetzaren ondorengotasunezko bideak, moztu egingo eutsoezanak.

1.506ko Bagillaren 27an II Fernandok, Gaztelako erreiñua ezinezkoa zala beragabe bideratzea ikusi ondoren, bere suin Felipe Ederragaz Billafafilan batzartuta, alkargo au sinatu eben: ***I Felipe ederraren emazte Juana Gaztelako erregiña, bere zorotasunezko gaixotasunagaitik, erregetzazko zeregiñetatik alboratzea.***

Denbora onetan, IIn Fernando katolikuaren izar eta indarrak itxura baten berantza joan ziralako, bere eragipenez, Frantziko errege XIIn Luisek, gero ta jokabide txarragoan artzen ebazan Nafarroako erregeak.

1.506ko Agorrillaren 27an, I Kataliñ Nafar erregiña bere senar Albriteko Juanegaz, Balladolizgo Dueroko Tudelan, Gaztelako Juana ta Felipe-Ederragaz batzartuta, barneko adiskidetasun ta bakearen itun bat sinatu eben. Nafarroako erregeentzat ain ongarri izan zana, Gaztela, Inglaterra ta Erromako Aita Santuaren adiskidetasunera urbiltzen ebazalako.

Fernandok, sekula ez eutsen parkatuko Nafar erregeai, berari ezetza emonda, beren lepo gañetik Gaztelar erregeakaz egindako itun ori.

Eta naiz, IIn Fernandoren maltzurrezko gaiztotasuna danak jakin arren, baita berak euki ebazan maltzurtasunezko asmoak izkutatzeko, Napolesera joanda, nork susmatuko eban: 1.506ko Iraillaren 25ean, ur otz apur bat edanda (esaten dabe), I Felipe-Ederra ilgo zala, eta ***Juana zoratuta, Gaztelako antzoki zabalean, Fernando katolikua agertuko zala ostera, antzezlari nagusi lez ?.***

I Juanaren senar Felipe Eder onek, ur apur bat edanda il, eta Juana zoratuta egoalako, Gaztelako aberrikoiari ikaragarrizko urduritasuna sartu jakien, IIn Fernandok zer egingo ote ebanagaz bildur.

Eta Germana ta bai semea il ziranean, Gaztelarrak ikusi eben guztiagaz, bada ezbadan, Fernandori deitu eutsoen, euren erregetzaren ordezkotzagaz arduratu zedin.

Eta emen, garrantzi aundiko galdera bat agertzen jaku: ***Gaztelarrak Zergaitik ez eutsoen Zizneroz kardinalari deitu ?. Naiz ta Zisnerosek erregeen ordezko ori, denbora apur baten eroan ?.***

Bildurra galanta alde batetik, ta bestetik, argi ikusten dalako, orduko denboran, espaina elburuko izenaren edo aberri'en, izpirik, edo ezeren eritzirik ez zala egon, arik eta Napoleonen osterarte, gudal nagusiak, katoliko aberkidearen aginduz, 1.810eko konstituzioagaz asita, 1.823ko urtean VIIn Fernandori siñatuazo, ta bere al-osokeritik beratu edo jetxi ondoren, konstituzioaren serbitzu edo morrokerian ipini arte

I Felipe Eder erregea il da, frantzez eta gaztelarren artean gudaren keiñadura sortu zan, eta Fernandok orren egoeraren unetxoa gozatu eban, len Juana ta Felipek egin eutsoen narga, urruin, edo muziñagaz, naparrak zigortzeko.

1.506ko urtean Iraillaren 25ean pozoituta il eben I Felipe Ederra, ta Gaztelako gorteak, Zisneros izendatu eben, erregetzaren orokorrezko jaurlari nagusi.

1.506ko urte onetan, Fernando katolikuak indarrez barriztuta, bere maltzurrezko alegin bidez, Nafarroan anai arteko guda biztu eban.

1.506ko urte onetan Gaztelako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, euskaldunak emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

Euskal Bizkaitarrai, ez eutsiela sartzen itzi Gaztelako gorteetan, berba auek esanda: ***"PORQUE (ERAN O) SON GENTES, DE ESTADO SEPARADO".***

Esan orreik eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunek egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebazan Jaun erregeekin bakarrik egiten ebala, eta ez Gaztelako gorteakin, gu nortasunezko erri bat izanda, gure batzarrak Gaztelako erregea, akuratu edo alokatu egiten gendulako, epaikaritzazko zeregiñak, artekaritzazko lanean itzalez, bideratu egiezen.

Eta gure jauntza aldi orretan Gaztelako erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, Gaztelako gortearen eragipenetik kanpo.

1.507ko urtean Urtarrillaren 23an, Zisnerosek, Napolesen egoan IIn Fernandori deitu eutson etorteko, eta IIn Fernandok, Gaztelako erregetzaren orokorrezko billakari ta fede-zain izendatu ebanean, Fernandok, berentzat ekarten eban Kardinalaren txapela emon eutson.

1.507ko Dagonillaren 21ean IIn Fernando, Gaztelan sartu zan, eta berton berari egineko irainak, bai Dueroko Tudelaren itunagaz gogoratuta, Nafar erregearen aurkako alegiñetan asi zan.

1.508ko urtean IIn. Julio Aita Santuak, Nafarroako erregeak eskomunikatu edo eleizatik kanpora atara ebazan, Iruñako gotzaintasun eta Tudelako dekangoaren gora beragaitik.

1.508ko Bagillan, IIn. Beaumontdar Luis Leringo kondeak, 1.506ko urtean Fernandoren alegiñagaz Nafarroaren aurka asi eben guda, eta onek babes gabe itzi ebalako, guda, beren aurka asi zan itzultzen, Lerinetik asi eta leialtasunean euki ebazan gazteluak, Nafartar eskuetan asi ziralako geratzen.

1.508ko Zemendiaren 16an, Beaumontdar IIn Luis Leringo kondea il zan, eta bere seme Beaumonttar IIIn. Luis izan zan, Nafartar erregetzaren aurka, Albako dukearen gudaldia bideratu ebana.

1.508ko Abenduaren 10ean, Alemaniako I Maximiliano, Frantziako XIIn Luis, IIn Julio Aita Santua eta IIn Fernando katolikoak, Kanbritzen, Beneziaren aurkako alkartasuna sinatzen egon zirala, XIIn Luis eta I Maxilianok, beste kidegotasunezko itun bat sinatu eben.

Maximilianok, estu aldien gaiñetik, bakearen zabaltasunezko obari edo ongarri guztiak gura ebazala Nafar erregeentzako, ta naita Frantziko XIIn Luis erregearen aurkakoa izan, alkargo orreri idazkun berezi bat bialdu eutson: ***Sinaduraren ostetik eta urte bateko epean, Nafarroako erregeari ezin jakiela kalterik egin, ez Frantziko errege bidetik, ez Foixtar Gazton Numerseko dukearen aldetik.***

Eta Alemaniako kaisarren arreba Margaritari esker, Nafar erregeen Kataliñ eta Juanen izenak, sartuta geratu ziran alkartasun orreitan.

1.509ko urtean, Juan erregeak Nafarroatik kanpo euki ebazan jabetzak, Bearneko lege biltzarrean batu ebazan.

1.509ko urtean, Fernando Nafarroako zeregiñetan asi zan sartzen, eta erabagita eukela esan leike, beren erara, Nafarroagaz geratzeko.

1.509ko Uztaillaren 28an, Fernandok Balladolizetik, Beaumot´dar IIIn Luis Nafarroako kondestableari idazten dautson eskutitzan diñotso: ***Nafarroa, guda bidetik menperatzeko, berak esango eutsela, noz eta zelan egin.***

1.509ko Abenduaren 20an eta 1.510eko urtean sinatu zan Bloiseko alkargoaren bidez, Austriatar Maximilianok alde batetik, Nafar erregeak Juan eta Katalina babesten ebanak, eta bestetik IIn Fernando katolikua, eta biltzar orreitan Gaztelako jaurkintzaren ardurak argituz, Juan eta Katalina Nafar erregeak izendatuak izatea lortu eban Maximilianok.

Gaztelan, erregeakaz sortzen zanagaitik, eleiza ta Europako erregeak, erregeen arazo orreik argitu eta erabagitzeko biltzartzen ziran: ***Europako erregetzaren iraspenak indartsu iraun egiazan.***

1.510eko Urtarrillaren 7an ostera agertu jakiezan Nafarroako erregei albiste txarrak. XIIn Luisen aldetik, Tolosako Lege Biltzarraren aginduz, Bearneko bizkonderriaren jauntza, Luiseri emon bear eutsoelako.

XIIn Luis, Nafar erregearen aurkako jokoan, Lege Biltzar erabagien ondoan ibilita, Juanen zerbitzari batzuen ondasunakaz geratu zan, Foixeko Gaztoneri bost gazteluen ardura emonda.

Erabagi ori ez zan aurrera joan, Fernando katolikoa eta IIn. Julio Aita Santuak, asarratuta agertu ziralako.

1.510eko Urtarrillaren 21ean Iruñako gorte ta Bearnekoak illabete bat beranduago, bost ordezkoak bialduta, euren laguntza ta leialtasuna emon eutsoen urte biko alkartasunaren eskeintzagaz, Nafarroako erregeari.

Eta Nafartarren erreiñua babesteko zeozer gertatzen bazan: ***Orokorrezko abizenak, dei adarrera deitu egiezala***.

Eta olan iraun ziran gauzak, 1.511ko urterarte emengo aldetik.

1.510eko urtean, IIn Julio Aita Santua, XIIn Luisegaz guztiz asarratuta, Nafar erregeai, exkomunikatu edo eleizatik kanpoko zigorra kendu eutsoen, Iruñako gotzai zeregiñetan, Juanen anaia, Albret´eko Amaniel kardinala ezarrita.

Ekanduzko oso denbora korapillotzuak ziran oneik, Aita Santuaren agindu gora-beran, Europako errege eta eleizako nagusi batzuk, ainbeste guzurrarekin, beti naaztuta ibili ziralako, gero ta txarrago joan zana.

1.414-1.418 Konstanza eta 1.431-1.445 Basileako Eleiz Batzarretatik, zabaltzen ta indarra artzen asi zan, ***Aita Santuaren agintaritzaren gaiñetik Eleiz Batzarra zala bakarrik nagusi***. Erregeak ondo ikusten ebena, euren naikerietan, sarri aurkezten ziralako Aita Santuaren zeaztasun ta zuzentasunakaz.

1.511ko Bagillan, Katalina eta Juan Nafarroako erregeak, uste eben, eurak erdikotasun edo alderdigabean kokatuta egon zirala, naita euren babesle edo laguntzaille Maximiliano, Alemaniako erregeak, 1.508ko urtean Trenton IIn. Julio Aita Santuagaitik kaisar Jauna aukeratua izan zanak, alegin asko egin, Aita Santuaren alderdian kokatu zitezen.

Naita eurak, beti baieztuz edo ta ziñeztuta esaten ebena, eurak sekula ez zirala alboratu IIn. Julio Aita Santuaren aginpidetik. ***Zergaitik, Nafar erregetzatik kendu gure ori ?.***

1.512ko urtean, Letraneko Vn Eleiz Batzarrean asita, IIn. Julio Aita Santua izan zan eritzi orrein aurka urten ebana, eta 1.517ko urtean Xn Leonek, guda-indar bidez izan zan, Pisako sasibatzar eta gogamentxar orreikaz amaitu ebana.

IIn Fernando katolikua bere maltzur ta guzurrezko ekintzagaz izan zan bakarrik, Nafar erregeak, zalantzan ipinten ebazanak, egiaren aurrean.

Ez bakarrik Nafarroa berentzat gura ebalako, beren ametsaren asmogogoak, Lurrarteko itsasoaren inguru gustiaz batera, Konstantinoplarren jabetasuna gura ebalako.

Begitu nun geratzen ziran, gaurko espainitar katoliko aberkidearen ametsak, IIn Fernandoren guzurrezko irakatsiak, egi lez ezarri gura ba dabe.

1.512ko urtean IIn Fernandori miñ asko egiten eutsonak, Nafar erregearen Enrike semea Bianako Printzea lez, Frantziko errege, XIIn Luisen alabeagaz ezkontzeko ibili zala, eta ortik atara ebazan bere arrazoiak, Albako dukea Nafarroaren aurka bialtzeko.

1.512ko Epaillan IIn Fernando katolikoak bere maltzur bidetik, Frantziako errege XIIn. Luiseri guda aurkeztu eutson, eta Nafar erregearentzat, ia ezinezkoa biurtu zan alderdi bagetasunean agertzea.

Alde batetik, Nafarroaren zaintza, gaztelatarren alkartasunean aolkatzen ebalako.

Bestetik, Foix eta Bearneko laterriaren zaintzak, Frantziaren adiskidetasuna aolkatzen ebalako.

Eziñ eben ezelango mugialdirik egin, IIn Fernando adi egon zalako, XIIn Luisegaz alkargoen baten bat egite ba eben, berak eleiza aldetik euken aukereagaz, Nafar erregeak, bereizkerizale ta eskomunikatuaren marran ezartzeko, zain egoalako.

IIn Fernandok orren bitartean, Nafar ordezko mezulariakaz, Burgos, Erromako Gotzai, ta Auzitegikoei, eziñ egin ziran guzurrezko adierazpenak egiten ibili zan.

IIn Fernandok, Nafar erregearen aurka ausnartzen eban maltzurrezko jokoa, euren seme Bianako printzea, zelan bere baituran eukitea zan, bere bir-alabeagaz eskontzeko, Frantziko gudalozteari, Auñamendi ta Bearneko bideak ebagitekoaren aitzakiagaz.

Bera Frantzira aldatzeko maltzurkeri uts ori, Gipuzkoako bideetatik aske ibilteko zan.

Baita, IIn Fernandok, Frantziko bidearen ziurtasuna eukiteko, eta Nafarroan be, bere gudalozte Santuak aske ibili zitezen, gudu antzezko gazteluak(1) bere agindupera eskatzen ebazan.

1.512ko Uztaillaren 3an, IIn Fernandok, Nafarroako erregeak aulkitik botateko euki eban amarrukeria, berak Saldubako(2) Uriari idatzitako eskutitzan agertzen dau:

-Frantziko erregeak, bereizkeri bidez, zatitu egin dau Eleizaren batasuna, katolikoen aberkide bizitza artegarazita.

-Aita Santuak laguntza eskatzen dausku, etsai indarrak bere ingurutik aldentzeko.

-Erromako Aulkiak, Gurutzada orretarako, Barkamen osoa bialtzen dausku.

-Mezularien bidetik oartuta geratu gara, zelan alkargotu egin diran Nafar erregeak gure aurka, Frantzesari gure lurraldeetan sartzen izteko, ta gure erreiñu ta jauntzazko lurraldeetatik eurak gura nai duena artzeko.

Eraso aldi ori, zuzengabekoa izan zalako, eta oraindiño ez ziralako agertu eskerniatutako Buldak(3), Fernando basakerizko otso itxuratik, azeri emeen maltzur itxurara aldatu zan, zentzunezko gizon emakumearen giza barrenak iruzurtu edo atzipetu(4) naian.

Orretarako, Bloiseko itun edo alkargo baten agiria, beren erara aldatuta agertu eban, Frantzia ta Nafar erregeen artean alkargotuta egon zirala esaten ebanak, Nafar erregearen alde, Gaztela ta Aragoiko menpetasuna lortzeko.

1.512ko Uztaillaren 17an, Nafar Mariskala Burgosen egoala urdurik, erregeari esaten eutson: ***Fernandok lar eskatzen ebala, eta Orokorrezko <u>Abizen deiadarrera</u> dei egiala, gudalozteak prest egon zitezen.***

Artu emon orreik IIn Fernandok, Mariskalai egindako erantzunagaz amaitu ziran: ***Berak, indarrez artuko ebala, zuek borondatez emoten ez dozuena.***

1.512ko Uztaillaren 21ean, Albako dukearen gudaloztea, IIIn Luis Leringo kondeak bideratzen eban, 1.000 gudari gizon, 2.500 zaldi, 6.000 oinkari eta 20 kañoiakaz osotuta

(1) Gudu-antzezko gazteluak = castillos estratègicos. (2) Salduba = Zaragoza. (3) Fernando izan zan eleizaren bareizkeri edo alderdikeri orreik sort-arazi ebazanak. Eta Nafar-erregearen aurka egiteko, ez eban ezeren lotsarik euki Aita Santua'ren bulda'k eskerniatzeko. (4) Atzipetu = engañar, embaucar, trampear, seducir engañosamente.

egon zanez gaiñ, aurreko lerroan Giputzak, Arabarrak eta artean nafar zaltzailleak zirala, Burundako ibarretik mugak apurtuz, Etxarri Aranazen gau egin eben.

1.512ko Uztaillaren 22an Uarte Arakilen egin eben gaua Nafartarrak. Eta Uarte Arakil babesteko egon ziran Erronkal gudari apurrak, Ozkiarteko aizpitartera aldatu ziran.

Sartzailleak, Aizkorbeko lepotik inguratuta alderatu eben arrizku ori, gau orretan, Iruñaren aurrean, karpapeetan lo eginda.

Nafarroako I Juan erregeak, Tuterari 500 gudari eskatuta, Katalina erregiñari, Bianako printzea eta beste seme alabakaz batera, Bearnera aldatu zitezela agindu eutson.

Eta iges egite ori, ain bizkorra izan zalako, Frantzisko semea, bero ta nekearen larritasunagaz il jakien.

1.512ko Uztaillaren 23an Iruñatik, Nafar erregeak exkomunikuaren pekatua egin ebela ta, azpiko jokoaren zurmurruak zabaltzen asi ziralako, gau orreitan I Juanek, alde eban.

1.512ko Uztaillaren 24ko gauan Muskari(1) inguruan, Gonzalo Mirafuentesen agindupean egon ziran Nafar gudalozteak, Tafallara aldatu ziran, ta Gonzalo au oartuta, erregeak Iruñatik alde egin ebela, Lunbierrera aldatu zan aginduaren itxaropenean.

1.512ko Uztaillaren 25ean, Gaztelar gudal nagusi, Toledoko Fradike Albako dukeak, Arga ibaia aldatu ta beren gudalozteak, eraso egiteko prest zabaldu ebazan, eta Uriaren ziñezko gizonak aurreratuta, Iruñako giltzak emon eutsozan.

Berak, Gaztela ta Aragoiko erregeen izenean giltzak artuz: ***Oiturak ta oiarauak, begirunez gordeko ebazala ziñ eban.***

1.512ko urtearen Uztailla azkenetan, IIn Julio Aita Santuak, bere "Pastor Ille Caelestis" beruneko buldagaz, Aragoiko IIn Fernando katolikua alegintzen dau, Katalina ta bere senar Juan erregeak, kendu egiezan euren Nafar erregetzazko ezar lekuetatik.

1.513ko urtean Otsaillaren 18an IIn Juliok, bere "Exigit Contumacium" berunezko buldagaz, Katalin eta Juan Nafar erregeak eskomunikatu edo eleizatik kanpora bialtzen dauz, katolikotasunezko erlijioagaitik eztabaidatan ibili zirelako. Guzurra zana, goian esan dogun lez.

1.513ko urtean Epaillaren 23an Iruñako Urian, eta Nafar gorteko batzarra, Beaumontdarrakaz bakarrik osotuz, IIn Fernandok Foruari ziñ egin ondoren: ***"eutsi egingo ebala Nafartarren jaurkintza guztia,*** esan ostean, ***Nafarroako errege izendatu eben".***

-1.515eko urtean Tudelan sinatu zan alkargoarekin, nafarroako erregeari andik aurrera, jaurkintzazko bideak moztu eutsoezan.

-1.515eko urte orretan, IIn Fernandok Burgosen, Gaztelako gorteak batuta, eta iñungo Nafar ordezkaririk bage, Gaztelako erregetzagaz alkartu eban Nafarroako erregetza.

Eta emendik aurrera, Kataliñ eta Juanek egin ebezan alegin guztiak alperrezkoak ziran, arik eta euren seme Enrikek 1.530eko urtean, errege lez jaurkitzen egonda Benafarrako lurraldeak, Gaztelako I Karlosentzat, Auñamendiko basoak gatz izanda jaurkitzea, muga lez, bertan itzi ebazan.

1.516ko Urtarrillaren 23an Fernando katolikua il zan, eta espainitarrak ortik aurrerako Nafartarren menpekotasunak, Zizneros kardinalak zuzentzen ebazanai zor dautsez, ***baita gaurko espain katoliko aberkide gurutzatu santu oneri be***, Euskalerriaren menpekotasuna.

(1) Muskaria = Tudela.

Kanpionek emen, garrantzi aundiko gauza bi argituten dauz, Nafarroa, Aragoiko IIn Fernando katolikuak menperatu ebala, beren aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz azaleratuta.

Eta Nafarroaren egizko menperatzaillea, ez zala Albako dukea izan, IIn. Julio Aita Santua baizik.

Goian aipatu dogun lez, Fernandok bere lapurketaz gaiñ, oraindiño lotsa edo ***begirunezko baita*** apur bat eukela ziurtzeko, esan bear dogu:

Fernandok, nai ta gudak emoten dauan txar edo okerrezko eskubideakaz ezarri ba eben beren ekintza nafartarrakin, Done Fransizko Xabierren aitari, Nafar erregezko legearen aldekoa gorputz ta arima guztiagaz izan zanari, egizko zentzudun lez, agintaritzan eskubide aundikoa zalako, euki eban aolkularitzazko aginpidearen errege-lanari, lotsa edo begirunez, il arte itzi eutsola.

Ala, erlijio katolikuaren aldekoa izanda, egon zan ziñezmeneko itsutasunagaz baliatuz?.

Ekintza oneik ikusi ezketiño, zeozer geiago esaten dau, berezko erri menpeen gora berako oneik, erregeak baiño aginte geiagoa euki eben lekutik, agertzen zirala eritzizko aginduok.

Ortik aurrera, Gaztelako gorte ta erregeak ondo baiño obeto zaindu eben Iruñako gotzaiñ eta eleizaren agintaritzazko lekaide/me etxeetan Naparrik ez zitezela sartu, edo ta errege aulkietan Nafar-semerik ez egian ezarri. Nafartar erregetzaren irudia galtzen joan daiten, eta espaindar aberrikuntz katolikoaren irudia goratu ta dirdaitu, Euskerearen izkuntza ezereztuz, euskal aberritasunaren nortasuna, katolikotasunezko aberrikoi biurtu ***dagian.***

Gaurko Laterriak eleizagaz daukien ***eleiz-itunak,*** ber-berori erakusten dabelako, berezko erriak diruz eta gudaloztez kontrolatuta eukinez gaiñ, Laterrien aginduz ipinteko, Erromatar katoliko aberkideen Batikanoak aginduten eutsoezan gotzaiak ipini, gure euskal lurraldeetan, Euskal susmo edo ta Euskal nortasunezko ulermen edo eritziren izpirik ez dagian geratu.

1.516ko urtean Urtarrillaren 23an Fernando ilda, Nafarroako erregeak, ostera be agertu ziran gudarako leiatsu, baiña aurrean Jimenez de Ziznerostar Frantzizko, Toledoko kardinal nagusia, fedezain(2) aundiena, eta orain errege-ordea zanak agertu jakien, eta atzera egin bear eben Nafarroako erregeak.

Zisnerosek, koronel Billalbarekin Nafarroako gaztelu, eleiza ta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat nafar ilda ta ereineko lurrak kiskildu ondoren.

-Triskantza au eginda, Villalba koronelak Zisneroseri idatzi eutson: ***Navarra està tan baja de fantasia, despuès de que vuestra señoria reverendìsima mandò derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza sobre ellos .***

1.516ko Epaillaren 7an I Karlosen errege aolkulariak, berari esaten eutsoen, Nafarroako erregetza ostera emon edo itzuli egiola berezko erregeari.

Aragoiko Alfonso(3) Zaldubako gongotzain edo artx-apezpikuak baiña, bere ugazanai I Karloseri eskatu eutson: ***Nafarroako jabetzari eutsi dagiola, euren laterriaren babeserako bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako.***

1.517ko urtearen Iraillan Zisnerosek bidera urtenda, Gaztelako erregetzan Igoa ta Alemaniako erregetzan Vna izan zan Karlos onartzera joan zan.

1.517ko urtean Azaroko 8an, Zisnerosek ez eban ikusi baiña, Roa, bideko errian il zalako

(1) Donemiliagako Kukullan nik ilusita. (2) Fedezain = inquisidor.

81 urte eukezala.

1.518ko urtean IIn Enrikek Montpelierren, ostera saiatu zan Gaztelako I Karlosekin Nafarroaren Ego-aldea askatzen, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

Nafartarrak, ostera aupatu ziran borrokarako, Noainen 1.521eko urtean Bagillaren 30ean guztiz apurtuta geratu ziranak.

-Andik aurrera, espainaren Igo Karlos, Alemaniako Vn ta Nafarroako IVn errege izango zanaren eskuetan geratu zan dana.

-Onek, Beenafarroakoak bertan itzi edo ukatu ebazan, eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratzea lortu eban.

Emen argi ikusten dana, erregeak elkargokoak izan arren, azpikeriko joko baten bidez, erriberezien suntsitutasuna gura ebela, baiña erri guztiak iltea lortu ezin leikezelako, alkargoan iraun gendun Austriatarren erregetzaldi guztian.

-Denboraldi orreitan, euskal gizon emakume askori, apur apurka Madrilleko jauregiaren lorio-bideetan euskal izatasuna zatika jausten jakiela, ***nortasuna galtzen asi ziran, batzuentzat atsegiñezko jokoa izan zalako.***

1.517ko Otsaillan Nafarroako Kataliña, Mont-de-Marsangoko Urian il zanean, berak euki zituzen amalau seme-alabetatik, sei bizirik egon ziran.

Nafar erregeak, gazteak ziranean, Madalena amamak betetan ebazan erregeen-ordezkoak, erregearen aita Albret`eko Alano baiña, jaurkintzagaz jabetu zanean, gauzak txarrera okertu ziran. ***Ez zan gizon ona, diru-zale, andi-nai, arroputz eta aldakorra izan zalako.***

5. 20. *Oarpen labur bat.*

Begitu zenbat bearrezko etenak egin bear izan doguzan Ludi edo Europako edesti onetan, Goiko Jaunak ipini euskuzan berezko legeetara bideratu gindezan, eta beti artu doguz Erromatar Merkantil Katolikotasunaren urrezko zekorra gurtzeko bideak.

Orregaitik, Euskaldunen artean beintzat, beti zaindu doguz, Goiko Jaunaren agindutako bidetik, dirdai agertzen jakuzan Bereztutako Legeak, eta eurekin lortu, askatasunezko demokraziaren baitak.

Norkeriz ezarri ziranak baiña, jaramon egin barik, or baztertu edo pikutara bota ebezan errigizartearen eskubideak, erregearen artekaritzak eta bizitzeko bear doguzan izangaitasunezko demokraziaren zentzu on guztiak, erregearen al-osokerira ta katolikotasunezko batzangotasunera bideratzeko.

Emen gagoz euskaldunak, gure arbasoak lortu eben demokrazizko baitari eutsiten, demokrazi ortan ikusten dogulako Jaungoikuaren Lege Bidea, eta konturaten garelako bide orreri eusteko jaio giñela, Goiko Jaunarengan ziñesten dogulako.

Europa osoaren errigizartea dago norkerien legez ezeren ardura barik, 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean ziñezkintzatutako legeakaz, arduraren zentzutik atara euskuelako, sortu ebazan sasi-legezko-agindu orreikaz, euren agindutara bizi gaitezen.

Ez ote da ordua konturatuteko, bereztasunaren borroka orretatik urten egin bear dogula, Europa ta Mundu onetako errigizarte guztiak, Jaungoikuak bakotzari emoten dauskuzan ordekaritzazko ardureak, askatasunezko demokraziz bete dagiguzan ?.

Ez dakik, gure artean eta Txinatik agertu jakun, ikusmenerako aibeste milla geikuntza bear dauazan begi aurrekoakin be ez dana ikusten, ***"Koronabirus"*** au, ez bada Jaungoikuaren oarkizun bat, Berak ipini ebazan lege kanpotik ibili ezgero, ezaziak nonai agertzen diralako.

Konturatuten gara ba..., gure almen edo eskuetan ez dagoela iñungo irasletasunik ?.

6. 21. ***1.789ko Frantziaren Iraultza.***
7.



Orduko Frantzez Aberri Batzarra

Frantziko iraultza, errigizartearen jaurkintzarako bear ziran lege ta tresnerizko izan gaitasunak, euren almenezko asken mugaraiño eldu ziralako asi zan, errigizartearen bizitza, politikazko arazo andi baten biurtuz.

Eta norkeriaren sasijainkotasunean asmatu ziran katolikotasunaren aberritasunezko Erromatar kaisar batzango lege orreik beste aldetik, euren gogorkerizko aurrerakuntzan, Jaungoikua Berak Izadi oneri betiko bereztu eutsoezan legeen aurka, muga gogorrak aurkituta, zentzunbagekerian agertu ziran.

Orduko Europaren Mendebal onetako errigizarteak, bizi ziran al-osokerizko guzurretik egira aldatu gure naian, aurrera begituz ibili bear eben azkuntzazko bidea, erakundeen zentzuzko jaurkintz demokratiko, eta bakotzaren egizko ordezkaritzaren arduraz gaiñ, askatasun ta zuzentasunezko argi geiagoko ekintzak eskatzen ebazanetik agertzen ziran.

Norkerizkoaren katolikotasunezko abertzaletasun ori baiña, bere kolonizazioko batzango lanetan, errigizarteak euren kontrolpean eukiteko bidetik, ugertutako tresneri zar bat bezala agertu arren, katolikotasun batzangozko ameskeri orreitan aurrera egin eban, Jaungoikuak bereztasundutako gai oneri, ipini eutsoezan lege guztiaren aurka.

Eta artu emoneko ordezkaritzari buruz, bizitzarako bear ziran arlo guztiko jaurkintzak, zentzunezko askatasun geiago eskatzen ebalako, Frantziko lurralde guztia, errigizarteen eta jaurkintzazko edo politikazko arlo orreik, arazo aundi baten biurtu ziran.

Katolikotasunezko aberkideen erlijioan Batzangotzeko eleiztar orreik be konturatu ziran, eta bildurraren itzurazko atzerakada edo oinkada bat emon arren, emendik aurrera, ta euren aolkularitzazko aintzindaritza iñork ikusi ez dagian, euren norkerizko legeakin zirriborrotu egin ebezan ekanduzko aztar bide guztiak.

Errigizartearen esanetan sarri entzun da, "Kamaleoiaren aldaketetan ezarri zirala".

Guzurrezkoa zalako itzurazko aldaketa ori, Frantzia gaur deitzen dan lurraldea, Frantzi katolikoa lez laterrituz, giza ta berezko errigizartearen eskubideen gaiñetik ezarri ziran jaurkintzazko baldintz barri orreikaz.

Eleiz katoliko ori be, bereztasunaren aurkako Laterritasun orreri arrazoia emoteko, bera be 1.929ko urtean laterritu zan, eta Mussoliniren eskutik gaiñera, euren agintaritzazko politikan, len ostonduteko esan doguzan atzerakadazko oinkada orreik, guzurrezkoak zirala, ziurtuko ba ziran bildur.

Vn Felipegaz asi ziran okertzen, eleizagaz jaurkintzazko arloetan euki zituzen artu emonak, eta VIn Fernandogaz, guztiz apurtu.

"Zekula be, ez dana sortu", katolikotasun aberkuntzazko eleiz ori, maltzurtasun aundiz, beti egon dalako, bere Faziztaren aldekoakaz.

Eta geroagoko espainolaren jaurkintzan edo politikazko arloetan ikusiko dogu, katolikotasunaren guzurrezko abertzaletasun ori argiago, adibidez:

"Europaren arazoa izanda politikazko arlo orreik, nork ote emon eutsoen baimena espainol gudal nagusi aiei, erregeen agindu gaiñetik, Balentzian lenengo, eta gero Kadizetik, konstituziozko agiri orreik atara, ta 1.823ko urtean VIIn Fernando erregeari indarraren keiñuz sinatuazo ostetik, erdiugarte onen berezko erritarrai, gudaloztearen ekintzazko keiñuz, euskaldunak, katalanak eta galleguak katoliko-espainol laterritzeko ?.

Konturatu gaitez: orduko erregearen alosokerizko agintaritzaren gaiñetik ez zala egon iñor, Nizeako Erromatar kaisertza ta Kristau'tar eleizaren elkarteetik, Aita Santu ta beren aolkularitza izan ezik.

"Itxuraz beintzat, dan guztia, norkeriaren maltzurtasuna baiño besterik ez dalako izan, azpian benetako guzurra ta joko zikin bat baiño, ez egoteagaitik".

Orregaitik, errege-lege orrein gaiñetik, gudal agintari aiei, nork emon eutsoen baimen ori jakiteko, ez da joan bear urrun.

Mundu onentzako, "Romano Godo mercantil Sacro-Santa-Cruzada-Nacional-Catòlico" lege orreik erabili dabezelako beti, 325eko urtean Nizearen eleiz batzarrean asi ziranetik.

Eta ez gaitezan aztu, 1.936ko urtean eleiz katolikoak eta Frankok euren espainol Katoliko Aberkidetzan Batzangotzeko, gurutzadezko Guda Sakratuen ikurragaz, indarrez zer egin euskun, euren lapurkerizko eta fazizta kontrolpean eukiteko, gaur ikusten dogun lez.

Oinkada luze bat emonda ta txori baten laburpeneko ikusiaz batera esan bear dot, Frantziko iraultzak, nai ta 50.000 gorako gizon-emakume buruak moztu arren, ez ebela balio ezer, ta ezertarako be.

Jaurkintzazko aldaketa guztiak egin ondoren, eta atzerauko legeen artean berrikuntza larregi eginda, Napoleonek, bere kañoiaren irudiz ta orrek euki eben garaipeneko eragipenagaz agertuz, lenengo ***"Kontsul"*** edo urte betearen denboran, Frantziko lurraldearen agintari nagusitza emon ba eutsoen be, bigarrenez, bere bizi guztirako emon egin eutsoela ikusten dogu, baita beren ondorengotasunerako be.

Orokorrezko aginte orren bidetik, berak, berentzat gure eban al-osokerizko kaisertza baten ezartzeko, ostera berrezkuratu egin bear izan ebazan XVIn Luisek euki ebazan alosokerizko lege guztiak, ta eurokin, Munduko gizadia ostera eroan, 325eko Nizearen kolonizatzaillezko katoliko aberkidetzaren erlijioan batzangotu gura euskuen lekura.

Eta Jaungoikuak Izadi oneri bereztu eutsozan lege guztien aurkako bidetik, giza bidearen oarrez edo azturaz bereztu ziran errigizarteko eskubideen aurka, norkerizko legeen artean ezarri euskuen ostera.

Napoleonek, erdiugarte onetan egin ebazan guda ekintzak alboratuz, goazen, ia zer sortu zan, bai ta zertarako sortu ziran leenengo, bigarren eta irugarrengo karlistaren gudak, eta zer izan zan Frankok egin ebana Katolikotasunezko aberkidetzaren sakratuzko gurutzadaren borrokagaz, Hitler´ek Europa ta Mundu osoa menpetzeko´en, Ego alde edo atze aldea babeztuz, ostera mundu osorako, katolikotasunezko aberkidetza lortu naian ibilita.

5. 22. ***Karlisten iru gudak.***

Lenengo borrkari, 1.833-1.839ko urte bitarteko karlisten leen gudari ikus arin bat eginda, eta bigarren guda edo 1.840-1.872ko urte artean egin zan gudari ikutu barik itzi ondoren, 1.872-1.876ko irugarren edo ta askeneko karlisten gudan egin ziran saldukeriak gogora ekarriaz, betiko katolikotasunaren aberkidetzan kolonizatuta geratu gindezan, Franko´ren santu ta sakratuzko gurutzadaren guda alegiñak, gaiñetik begituta, eta Europa ta Mundu onetarako artu ziran erabagiari erantzun labur bat egin ondoren, Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santiri emon bear dautzazan adierazpenakaz amaituko dogu.

-Leenengo karlistadaren guda.

-Bigarren guda, or izten dogu, gudaloztearen zapaltasuna aipatuz.

-Eta 1.872-1.876ko urte arteko irugarren guda onetako <u>saldukeri</u> galantak ikusten doguz, X ta XIgarengo Euskalerriko Edestiaren ataletako lekuan agertzen dauan lez.

-Franko´ren alegiñak, espainitar katoliko aberkide izenean batzangotzeko, egin eban sakratuzko gurutzada santuaren gudagaz.

-Europa ta mundu guztian, orduan artu ziran erabagiak, zelango eragipenak eukiko ebazan gaurko legezko araudietan.

-Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santiri emon bear dautsoten erantzuna, biok artu gendun erabagi bidetik.

-Euskaldunak, espainolaren ondorengo guda orretan egoteko, leen jakin bear doguna, gudalozteen agintari aundiak, Napoleonen guda ostetik, eta Erdiugarte onen lurra espainitarren laterrizko izenean, katolikotasunezko aberkidetzaren erlijiño sakratuan batzeko, Euskaldun, Katalan eta Galleguak, kontuan artu bage egin ebela, arik eta 1.810eko konstituzioagaz asi ziranetik, ta 1.823ko urtean, katoliko aberkidetzan batzangotzeko konstituzioaren aldeko gudal nagusiak, VIIn Fernando, agertu eben konstituziozko legepean sartu ebenean, or amaitu zirela, erdiugarte onen lurraldeetan, berezko errigizarteak Foru legearen jendekuntz ta nortasunezko izatazunekin, euki ebezan eskubideko askatasunak, guda indarrez menperatu <u>ebazanean</u>.

Noren eskubideakin baiña ?. Nork, emon eutsoen eskubide ori?.

VIIn Fernando il zanean, Euskaldunen aukerea Foruak berrezkuratzeko, espainitar VIIn Karlos Maria Isidrorekin agertu jakun, eta guk lagundu egingo geuntsola IIn Isabelen aurkako erregeen ondoriozko borroka ortan, gure Foru-Legeak babestuaren truke.

Ez ebena balio ezer, saldukeri galantakaz amaitu zalako karlisten leenengo ekitaldi au, Marotok, karlisten bost general nagusi, Lizarrako Puy´ren baseleiza ostean il ondoren.

Sortu zana.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok àntolatzen asi ziran 1.839ko urtean, Bergaran ospatuko ziran egiunezko alkarrizketak.

1.839ko urtean Otsaillaren 17an, Maroto Lizarran sartu zan bere gudalozteakaz, eta gaba orretan, Garzia gudal karlista nagusia arrapau eban, Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra ta Uriz intendentziako arduradun karlista gudal nagusiak, Esparterogaz eukiko ebazan izketaldi orrein aurkakoak ziralako, eta gudalozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz, bostak tiroz ilteko agindua emon eban.

Marotok, Vn Karloseri bere maltzurrezko jokoa ostonduteko, ez eutson esan ezer, zelan ilketa orreik egiten joan zala, bestela, epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori agirian geratuko zala jakin ebalako, eta gudal nagusiak aske itxiz gain, bere lagun aundia zan Esparterogaz saldukeriz, espainitarren alde ibili ziran egiten bakezko alegiñak, utsean geratuz, bere bizia be dangilizka geratzen zala, kontuan artu bear izan eban.

Orregaitik, eta Vn Karlosen bigunkeriaren aurrean jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta liseko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergè, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedican este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I. P.".

1.839ko urtean Otsaillaren 20an Marotok eskutitz bat bialdu eutson Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak, beren erara onartu egiezan.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean, Vn Karlosek, azpi-suge edo saltzaille bat zala asarre salatuta, Maroto kendu eban bere agintaritzatik. Maroto baiña, egoeraren nausia zan, eta Vn Karlos ez zan gauza izan, Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Vn Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran gudal nagusiak, Frantzira erbesteratzea egin bear izan eben, ta ortik aurrera, euren arteko zalantzak, gogortzen asi ziran.

1.839ko urtean Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora beran, ezer aitatu barik.

1.839ko urtean Epaillaren 3an Marotok, ostera salatzen dauz erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, bertan be eukezan bere aurka asita, egon ziran gudal nagusiak.

Gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zan.

1.839ko urtean Jorraillaren 17tik Loraillaren 13ko egun bitartean Kantabrian, Ramaleseko borroka.

Maroto izan zan karlista gudaloztearen agintari, eta Liberal gudaloztearena, Espartero.

Liberalaren indarrak bikoiztu egiten ebazan gaiñetik karlistarena, eta laukotu egingo ziran, Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, Guardaminoko gaztelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok borrokan asi orduko, etsaimentzeko agindu eutsonean.

1.839ko urtean Jorraillaren 27an karlistentzat ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok, aurkako alegin aundi barik itzi eutsezan liberalai.

Gero gogor borrokatu ziran euren gazteluak zaintzeko, baiña atzeratu bear izan eben karlistek kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839ko urtean Loraillaren 8an Esparterok goizetik, Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko lenengo orduetan barrura sartuta. Berton egon ziranak baiña, sua emon eta iges eginda, utzirik egon ziranak.

1.839ko urtean Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaiaren Karrantzako ibarrean euken aurkako mugatik, alde egin eben.

Gudari karlistak bitartean, saldukeria egon zala asi ziran gogoratzen, eta gaur badakigu egia zala gudari karlistak susmatzen ebana.

A ta guzti borroka gogorra egin eben, alde bietatik 2.000 illak egon ziralako, baiña karlistentzat borroka au asko esan gura eban, Guriezon kañoitegiko labak galdu ziralako, eta Kantabriako bideak moztu eutsoezelako.

1.839ko urtean Loraillaren 13an Guardaminoko gaztelua inguratuta geratu zan, ta Marotok, bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu eutsen gaztelua, eukezan guda tresneri guztiagaz, ta liberalak arrapau ebezan gudariak, karlisten aldera bialdu ebazan, baldintza onekin: Gudari aiek, ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak, beste ainbeste gudariekin truke egin arte.

Karlistek, Gordejuelan galdu ebezan Molinarreko gaztelu eta Guriezoko kañoigintzak.

Espainako gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik ***"Garaipeneko Dukea"*** (1) izendatu eban.

1.839an Loraillaren 19an Muñagorrik Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen da denboraldi baten.

1.839an Loraillaren 22an Marotok, antolaketetan asi zan, Frantziako gobernuak, gudalozte bien artean, artekaritzazko ardurak artu egiazan, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesen billa asi zan, eta Uztaillaren 20an Lord Hay´ekin lortu eban artekaritza ori.

1.839an Loraillaren 29an Esparterok bere gudalozte aundiekaz, Balmasedan sartzen da.

Argi dago, emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek baiña, bere gudalozteetan indar aundia eukela ikusita eta ainbeste urte borrokazko

alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebazan bere barnean.

1.839an Bagillaren 28an, Luis Felipe erregearen izenean, Soult Frantzez mariskala ipini eben artekari lez, Vn Karlos eta bere emazte Beirako Dukesa Espainako erregetzari ukatuta, eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, Espainako kondea ta Kabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Beste txatal bat be euki eban agiri onek, Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba IIn Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkonduta Espainako errege zitezen, Euskalerriko Foru Legeak 1.830eko urte aurretik euki ebazan jabetasunak beti lez itxi, eta gudari karlistai euren maillakin, Espainako gudalozteetan lerrokatzeko, almena emoten ebana.

Elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez eben euki aurrerakuntzarik, Espartero lenengo eta Espainako gortekoak Euskalerriaren menpetasun atzean ibili ziralako.

Eta egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik alan gertatu zan, indarkeriaren keiñuagaz eta guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerria menperatu ebalako.

Gaurko Euskaldunak, gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori da, Europaren aurpegian egia aurkeztuta argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Marotok, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren kapitaiñagaz berba egiten dau, Diego de Leon karlista gudal nagusiak Elliot´en ituna apurtu ebala aitzakiarekin, gudalozte bien artean Ingelesaren bitartekoa billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dau, karlistai atzeratuazota.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko elkarrizketa, onek Esparterori aurkeztuta Marotoren adierazpenak.

Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok: "espainitar jaurkintzan aurkeztu ta gero", esan eutson. Eta espainitar gortekoen erantsuna: Karlosen gudalozteak, Isabelen ama Kristinaren aginpean geratzen ba ziran, erantzun da.

Alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziran, eta Bera, Lezaka ta Urdaxen, Marotoren aurka matxinatu ziran.

1.839ko urtean Dagonillaren 19an Vn Karlos bera be salduta aurkezten zan lez, Maroto bere agintaritzan be legeztu egiten dau.

1.839ko urtean Dagonillaren 22an Espartero Durangon sartzen da, eta alkarizketak azten dira, alde bietako gudal nagusien artean.

1.839ko urtean Dagonillaren 24an Maroto, liberalaren gudal nagusi Zabalagaz alkartzen da, Esparterorekin berba egin gura ebala. Eta Marotok, bere gudal nagusiekaz berba eginda, Vn Karloseri esan eutson, zelako asmoak euki ebazan.

1.839ko urtean Dagonillaren 25ean, Elgetan, errien agintari ta gudal nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai lenengo gazteleraz eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko, berba egin ebanean, Marotok gudariai keiñua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkero, Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an Abadiñoko San Antolin baselizaren izketaldian, euki eben lenengo ikuste Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura, Maroto izan ezik.

Agiri onen zentzuak, Foruen baieztatzea, ta espainitarren aberriko legeakaz adoztasunean etorten ba ziran: ***"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia"*** esan gura eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta, Marotok, parkamena eskatu eutson Vn Karloseri, ta gudaloztean prestakuntza agindu eban kristino gudaloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen gudal nagusiak, ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan, gudaren amaiera.

1.839ko urtean Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimenik gabe, de la Torretar Simon gudal nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n, Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan bost batalloi gaztelar, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebala eskeinduta.

Baitzezko berba orrekaz, gure ***"Foru Lege"*** edo ***"Lege Zarrak"*** espainitar gortekoaren naikerizko borondatean geratu ziran, eta Espartero bera izan zan lenengoa, bere espateagaz Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839ko urtean Iraillaren 3an Bizkaiko Aldundia, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zan, Aretxabala gudal nagusiaz Foruaren gora beran berba egiteko,

1.839ko urtean Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz, Poblaziñoko errian errendatu edo etsaimendu zan, Bergarako egiune derrigorrez onartuta.

1.839ko urtean Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egiten dau, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezen, garaitzaille gudal nagusi ***"Garaipenaren Dukea"***, espainitar jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak, euren legean babestu edo eraberritzeko geratu zan.

1.839ko urtean Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dau, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Arabatar ta Napar gudariekin, Auñamendiko mugatik, Frantzira aldatu zan.

1.839ko urtean Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, Gebaratarren gaztelua errendatu edo etsaimendu zanean, amaitu zan Euskalerri ta karlistaren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Eta Katalanak izan ziran, Karlosen ikurra borrokan eroan ebena, 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

1.839ko urtearen Urrillan, Euskalerria gudariz beteta itzi ondoren, Espartero 44.000 gudarigaz, Zaldubara joan zan, bere gudaltegia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako "Foru Legeak" bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: ***"Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia".*** Eta beren bigarren idazkunean, gure ***"Foruak, Espainako erreiñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta"*** esaten ebana.

-Bigarren guda, or izten dogu, gudaloztearen zapaltasuna aipatuz.

1.840ko urtean Urrillaren 12an Esparterok, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, Espainako jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Foru Legeko zauriak, zabaltzen asiko ziran.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espaintarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik, Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure ***"Foru Pasaia"***, ezereztuten dau, Euskalerria, espainitarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841eko urtean Dagonillaren 16an espainiako jaurkintzak, Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839ko urtean Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeren jaramonik egin barik, lotsagarrizko ***"Ley Paccionada"*** ezarri eutsoen nafartarrai.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa, eta Araba Esparteroren aurka, O´Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen, Muñagorri be ilda, bere goiko kondairan esan doten lez, eta Espartero garaipenduta, ez eban galdu, aurkeztu jakon aukera ori, ***1.841eko urtearen Urtarrillako 29an, gure Foru Legeak*** ezereztuteko.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera be artu eben kristino gudalozteetan, gudal buru nagusi lez, eta Marotoren etxeko kondea izendatu ondoren dirutza aundiakaz batera, Txilen bizi dagian, etxe-bizitz eder bat be emon eutsoen.

Maroto ta Isern´tar Rafael, ta Espartero´tar Baldomeroren, katolikotasun aberkidetzazko aolku aldetik, ta geien karlisten gudal nagusi Zumalakarregi il ebenetik, argi aundiagoaz ikusten dira, batez be, maltzurtasun aundiz egon ziran saldukerizko jokuak, eta argiena, Zumalakarregik Vn Karloseri eskeiñi eutsoenean, Madril arrapetan joateko, Bilbo inguratzera joan barik. Zumalakarregik argi euki ebalako, Madril arrapau egingo ebala, eta beragaz borrokaren garaipena.

Nungo aolkularitza artuko ote eban Vn Karlos´ek ?.

Katoliko aberkideen eleiztarrak, or egon ba ziran alderdi biekaz bete betean, euren TE-DEUM ugari ta euki eben siñespen itsu orregaz bata bestien kontuetan sartuz egonda katoliko aberkidetzak ezartzeko, eurak gura eben, katolikuzko aolku aotik baiño.

5. 23. d) .- Eta 1.872-1.876ko urte arteko irugarren guda onetako saldukeri galantak ikusten doguz, XIIIn Euskalerriko Edesti onek, bere lekuan agertzen dauan lez.

1.872-1.876ko urte bitartean egin zan irugarren edo bigarren guda nagusi ori, Italiako Saboya´tar Bitor Manuelen seme, Saboya´ko Amadeo, espainitar errege aulkian ipini eben orduan, Borbon´tar VIIn Karlos Mariak, Vn Karlos Maria Isidroren loba zanak, erregezko ezar leku ori eskatu eutsoenean.

Eta borroka au, Martinez Kanpos gudal nagusiak, urte bi ariñago XIIn Alfonso errege aulkian ipini ebanak, Borboien leiñua, espainitar aginte bidean ipinita, Lizarra artu ebanean amaitu zan.

Ostean artu ziran erabagiak Euskalerriaren aurka, gogorrenetarikoak izanda be, ez ziran amaitu, arik eta Frankok, katolikotasunezko aberkidetzaren erlijiozko gurutzada sakratu ta santua egin arte, ortik aurrera eta eziñ-ukatuko garaipena lortu ebenean, txarragoa izan

zalako, onek katolikotasunezko aberkidetzaren jaurkintz fazizta ori, Erroma-Godo´tar goitik beragoko kaisar zigorrezko agintaritza gogor baten ezarri euskulako.

5. 23. e).- ***Franko´k egin ebazan alegiñak, Europa osoa, katoliko aberkide izenean batzangotzeko, bere katolikotasunaren sakratuzko gurutzada santuaren gudakaz.***

Franko´ren borroka ta Munduko IIn guda, borroka bat baiño besterik ez zan izan.

Eta Frankoren borroka, IIn Munduko guda baiño ariñago egin bazan, ez zan gud antzeko(1) bat baiño besterik, Hitler´ek IIn guda asterakoan, bere lepoak babestuta eukiteko espainitar ta italiarrakaz.

1.936ko urtearen Otsaillan, Kanarias´era bialdu eutsoen Franko´ri gudu-jaurlari nagusi lez, eta bost illabete beranduago Marrokosera aldatu zan egazkiñez, espainiako Errepublikaren aurka, matxinatuta egon ziran gudalozteen aurrean ipinteko. Eta espainitar babeseko ministruen elkarteak, izen aundien artean kokatzeko: "laterrien buruzagi edo nagusia izendatuz gaiñ, aize, lur, eta itsasoen gudal nagusi" be izendatu eben.

1.939ko urtearen Jorraillean, Frankori, Europako IIn gudan ez zana sartuko, laterrien alderdibageko(1) gizona izendatu eban.

Guzur utsa izan zana, Franko´ren katoliko aberkide orreik, Euskal, Katalan, gaillegu erritar abertzaleen atzean ibili ziralako, arrapetan ebazan guztiak, alemanaren guda-biltzeko(2) il tokietara bialtzeko alegiñean.

Bai ta, itsasora jausten ziran RAF´eko egazkiñen gidariak, auek be, guda-biltzeko il-tokietara bialtzen ebazalako, edo ta ainbat tiros il ebazan lez, alemanen serbitzura ibilita.

Azkenerarte ibili zan orrela, bai ta gero ta gaur be, guda amaitu ostean, Alemaniatik atzerritu ziran agintari guztiak ostonduteko.

Katolikotasunezko aberkidetzaren alosokerian batzangotzeko alegiñean jokatu ezkero, Euskalerriko edestian ikusi dogun lez, berez, agertzen dira eriogilletasunezko(3) eritzi edo lojikazko arloetan, aurkako oldozmen naskagarri, edo nardagarriak.

"Berezko jendekuntza baten jaiokoak, oitura ta izkuntz batekoen sendimenduzkoak izanda, arduran be bardiñezko edo, Goiko Jaungoikuen legezko azturazkoak senditzen dira.

Eta ortik agertzen jakie, sasi-jainko katoliko aberkidetzan batzangotzeko, norkerizko erri-irasle edo kolonigille faziztai, aurkaritzazko iltzaillearen amorrutasunezko izatasun ori.

Argi ikusten da, katoliko aberkide fazizta orreik, aurkakoak izanda, euren norkerizko asmakeriaren kanpo direzan guztiak, gorroto aundian eukinez gaiñera, euren urrezko zekorraren alde biurtu daitezen gura dabela, ezeren begirun bage. Eta 325eko urtean Nizeatik, katoliko aberkuntz ori, eutsi ezinik etenbageko borrokan etorri ondoren, Franko, Hitler, ta beste kolonizatzaillearen aldeko andinaiak ebatu eutsoen, gurutzada santu ta sakratuzko ikurra lez, eritzizko zikinkeri guzti orreri.

Bai ta gero be IIn guda amaituta, ostondu ebazalako al ebazan aleman guztiak, espainiko ta ispanameriketako laterri zabaletan, aaztu barik, Euskalerri, Katalunya ta Galiziako lan tokietatik ostendutakoak.

"KoronaBirus" au, ez da izango, Jaungoiko, edo Berak Izadi oneri sustraitu Eutsoezan,

(1) Gudan ez zana sartuko, edo Laterrien alderdibageko gizona izendatu eben = al que denominaron como "no beligerante", o, hombre neutral, o no adicto a nación dominante ninguna. (2) Guda-biltzeko tokietara = campos de concentración. (3) Eriogilletasunagaz = facinerismo, o, fazismo.

legeen ingurutik agertutako oarkizun bat, konturatu gindezan, guzurra oiñarrituz, txarto edo lapurketetan, geiegian sartuta geudela esateko ?. Begitu zelan daukaguzen Izadi onen aize, lur eta urak. "Txarrago, ezin leikelako egin ¡!".

Dana dala, katolikotasunaren aberkidetasuna aurrera eroateko, eta berezko jendekuntzan jaio ziran erriak aienatu edo suntsitu egiezan, or euki doguz 325eko urtetik 1.970eko urteen amarkadararte, etenbage, apaizak erritarrai atze aldea emoten mesak emoterakoan, eleizako gauza guztiak ez jakin gendun latiñezko otoizketetan, eta bai ta gure seme alabaren izenak, Erromatar Godo atzerritarren santoraleko izenak ipinten eta abar.

Kolonizazioaren edo menperatzaillezko ekintza guzti orreik, ez ba dira faziztaren indarkeriak, berezkotasunez jaiotako erriaren aurka, baten batek esangura daust, zer ote direzan ?.

5. 24. f) .- ***Europa ta mundu guztian, orduan artu ziran erabagiak, zelango eragipenak eukiko ebazan gaurko legezko araudietan.***

Jaungoikuak, Izadi au Beren Legeakin bereztu ebanetik, eta bereztasun orren bidetik sortuko ziran Errigizarteen jendekuntzari. Gudal nagusi edo gudu indarraren erasoakaz sortu ziran kolonizazioaren mendeko edo joputasunezko errigizarte guztiak, euren kontrolpean eukiteko, maltzur ta lapurrezko araubideak sortu ebazan, daukaguzan diru-merkantil legedi orreik euren alde ipinteko, eta egi lez ezarri ziranetik, eskubidebagea nun-nain agertuz, daukagun goitik berako agintaritzaren antolamendu guztia, maltzurrezko guzur orrekin ustelduta agertzen jakula ikusten dogu.

Edo ta, gaurko mundu onetan, baten bat arrituko ote jaku, guzurra edo lapurtzazko legedietatik, lapurrezko emaitzak agertzen diranean ?.

Munduan, Europa osoan, eta espainitar lurraldean, lapurrezko asmakizun onegaz batez be, Jaungoikuaren Araudizko Legetik kanpo kokatuz gaiñ, ankaz gora ipini doguz, Jaungoikuak Izadi au, Legez Bereztu eban almen guztietan, baita gizadiak bere baitan oiñarrituz daukazan zor-eskubideen ardura guztiak.

Izadi onetan, nungo giza-semeari eskatulei jakoz, berak jaiotzatik daukezan ardurak zaindu dagiezala, Aita Santuak Nizean ziñezkintzatuz, bere uts-ezintasun bidetik, kendu ba eutsezan ardura guzti orreik ?.

Euskaldun, Katalan, eta Galiziarrak antolamendu au da arrazoiz, eta arrazoi guztiagaz, batera erasotu bear doguna, Europa eta munduan Jainkoak ezarritako berezko legearen zaletasunezkoak diranekin batera:

EUSKALERRIA, ETA MUNDU ONETAN, JAUNGOIKOAK BEREZTU EBAN LEGEAN JAIO DIRAN ERRIGIZARTEKO ABERRIAK, EZ DABELAKO MEREZI, EDESTITIK ZEAR, KATOLIKO EDO BESTE ERLIGIO FAZIZTAK EGITEN DAUTSENA, SASIJAINKO BATEN IZENEAN.

ERLIJIOA(1), JAINKOAREN LEGEPEAN EDO GAIAK DAUKAN LEGEAKAZ ERKIDETZEKOA DA !!.

SEKULA EZ, GUK ASMATUTAKO LEGEAKIN !!.

(1) Erlijioa = religare.

EUSKALERRIKO SEME-ALABAK, OR ALKARTU BEAR GARA EZEREN AITZAKI BARIK, BEREZKOTASUNAREN ASKATASUNA LORTU GURE BA-DOGU.

5. 25. g).- ***Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santiri emon bear dautsoten erantzuna, Biok, artu gendun erabagi bidetik.***

1.979ko urte inguruan, beragaz asi nintzenean berebil gurdiko morroitasun lez, eta beragaz jakintzazko bideetatik asi ta ibili, itaun aundi bat agertu jakun biori, zital.

Aita Santi Onaindiaren itauna.

Zergaitik Euskalerriari: "bere sakontasunezko sinismenean, Kristau edo Katoliko eleizak, Inazio euskaldun Deunari, ia bera dan erdia zor dautsela, beste erdia Bitoria´tar Frantzizko euskaldunari, bere "errien arteko eskubideakin", ta gaiñera ainbeste millaka ta millaka euskal mixiolari lekaide, lekaime ta apaiz bialdutako atzerrira, bai beste ainbeste errirako, ta etxeko senitartean goi-goizetik, ta eguerdiko otoizketak, illuntzetan, agurtza edo errosarioagaz amaitzeko, izan bada bere zintzo ta bakezko erri-bizitza, "nundik nora agertzen jakoz ainbeste aurkari edo etsai... ?.

Nire erantsuna:

Gu euskaldunok, Kristo aurreko milla urte askotatik, Goiko Jaungoikuaren sinismenean bizi gara beti, eta gure bizitzazko azturan, Berak bialtzen dauskun baitaren esanagaz, zuzentasun guztiagaz gure batzarretan jokatuz, Bere berezko lege artean jokatuz alegiñ orrekin "Askatasunezko Demokrazi" aundi baten aurkitu gintzazan, gaur gure baitan orain be, bizi bizi eroaten doguna.

Eta 325eko urtean Nizean, lortu gendun Demokrazizko askatasun orren aurka, norkeriz, bereztasunaren aurkaritzazko katolikoaren aberkidetasun ori ziñezkatu ebelako, or gabiltz 1.695eko urtetan, odoljariozko borrokaldien sarrasketakaz, Goiko Jaunaren egizko legeak zelan ezarri.

Lar eraman onekua izan bear dau, gure Goiko Jaun ori, Bera ta Bere legeakaz, ainbeste denboran maltzurtasunez jokatuta, Berak bereztu ebazan araudi bidez, "koronabirus" au bakarrik botateko.

Gaur sortu jakunagaz, adi ibili geinkez, aurrerantzean egiten doguzenakaz, Jaungoikua edo Berak ipini euskuzan araudizko legeak, ez dabelako txantxa geiagorik artzen, eta aurrera begira, Beren Legeakaz ardura ta zentzun aundiagaz jokatu ezik, ezazi´ak, nun nai agertu leikezelako.

Onaindia ta Bazeta´tar Aita Santiri erantzuna.

Aita Santi maitea: zoritxarrez, 325eko urtean Nizearen eleiz Batzar Nagusietatik daukaguz, etsaiezko eritzi guzti orreik "gure Etxe-barruan sarturik, gugaz bizitzen". "Eta okerrezko eritzi orreik aurrerantza eroanda, okerrezko sasijainkotasuna gurtzen".

ZER EGIÑ...?.

Mundu onen jakin nagusietako erakundezkoak, kontuan artu bear leukez bereala, Jaungoiko Irasleak, Izadi au bereztuteko, ipini euskuzan legeakaz jokatu bear dogula, Bere aginduz, guk bizitzeko bear doguzen guztiak, berton ipini euskuzelako, janarizko gailur au, legeztu ondore.

Ondore labur bat Izadi edo Mundu onen jakintsuari.

-Itauna:

Mundu onetako Jaungoikuaren aurrean, nor ote dauka eskubiderik, jaiotako elburua, ikurra lez eroan dagian ?.

-Erantzuna:

Jaungoikuaren Ludi onetan, bi dira eskubide bakardun lez eroan leikezanak jaiotako izen orreik, ezeren zalantza barik : "fisika, edo giza-legez jaioten diranak" bai ta "giza legezko jendekuntzan jaioten diranak".

Bi orren aurkako, edo daukien eskubidetik kanpo norkerizko kolonigilletasunak edo menpetasunak sortu ezkero, urrezko tzekorraren sasijainkotasunak sortzeko bakarrik balio dabe, eta zentzu orreitan jokatu ezkero, askatasunezko irten bide guztiak amaituten diralako, lapurtzan ibilteko bakar bakarrik balio dabe.

ZELAN-KONPONDU, ARRAZOIZKO-LOKAZTI-ONEN ARAZO-ORREIK ?.

ZOR/ESKUBIDEEN ORDEZKARITZA, BEREZTASUNAREN LEGEZKO ARAUBIDEAK EZARRIZ, GIZA SEME GUZTIAK, EUREN ESKUBIDEKO ARDURAK BETE DAGIEZEN, BEREZTASUNAREN ZOR-ESKUBIDEKO ZENTZU ORREKAZ.

Egiaren garbitasun ta argitasunean ezartzea da, nire idaz lan onen amairu ataletan aurkezten doten alegiña, eta mozkin edo fruitu naikoa izango litzake neurentzat, Euskalerri maite onentzat bear doguzan ekanduzko argitasunari, zeozertan laguntzen badautso.

5. 26. i) *Zarate ta Belar´tar Felipe neure karmeldar lagunari be eskatu neutson: ia ze eritzi emoten eutson lan oneri, eta emen bere erantzuna:*

"Antziñatik, Bibliako liburu sakratuan idatzita dagozen berbak onek dira: "Orain Nire itza entzuten eta nire alkartasuna zaintzen badozue, neure-neureak izango zaree, erri guztien artean, lur osoa neurea dalako" (Urteera, 19,5).

Onek daukan deiari zelan erantzun eta jaramonik egin, aurrean daukagu, orain: "Erri guztiak, ao batez, auxe erantzun eban: Jaunak esan dauan guztia egingo dogu" (Urteera, 19,8).

Zuk, Pablo, egiazko lege sakratuaren abotsari erantzuna zelan emoten dan, emoten izan dan, erakutsi deuskuzu edesti lan bikaiñaren bidez.

Zelan datorren gizakion biotzetara lege zaarraren zarata edo burrundada. Baiña zein gauza zaila ari bidea emoten eta argiz erakusten !.

Zure ekintza zaila eta beste aldetik txalogarria izan da. Nondik nora ibilita iluntasunezko mamu eta piztiak aideratu dozuz !.

Batek baino geiago arrigarritutako ondorioak atarako dauz.

Argitasun priztada oneek egunsenti barri baten aldera eroan gagizala, eta zuri besarkada aundi bategaz, on deizula beti.

Lagun bat.

Milla ezker, irakurle maite !!.

JAUNGOIKUAK EZ DAUTSO GIZARI EZER EZAN, AURREAN ARGI IPINI BAIÑO, BERAK BEAR DAUAZAN GUZTIAK, BIZI LABUR ONETAN ZENTZUZ ETA BERE LEGEEN EKANDUZ JOKATZEKO.

Bearrezko oar txiki bat:

Neure adizkide maite Egurrola´tar Iñakigaz berbetan egon nintzanean, zelan gure euskal anaitegi talde batek, Gernikako Arbolagaitik, Abendako Ereserkija aldatzearen gora beragoko adierazketetan ibili zirala esan eustan, eta nik esan neutson: Sabin eta Koldobika´ Arana´tarrak, Bizkaitar elburuaren oiturazko eritziak, beti danik euki ebazala "JAUN-GOIKUA" ta "FORUA´kin". Eurak, "JAUNGOIKUA ta LAGIZARRA"gaitik aldatu ebena.

Eta Euskalerriak daukan milla urte askoren zentzuan ipinteko, ez da ikutu txiki bat baiño besterik egitea, Goiko Jainko Sortzaillearen zentzuan ezartzeko aldaketa au.

Adibidez:

Gora ta gora Euskadi !
Aintza ta aintza
Bere goiko Jaun Onari !
Areitz bat Bizkaian da
Zar, sendo, zindo
Bera ta bere lagia lakua.
Areitz ganian "DOGUZ"
"(EUSKAL) FORU-LEGEAK"(gure Lagizarrak)
Beti gure goi-buru.
Abeztu gora Euzkadi !
Aintza ta aintza
Bere goiko Jaun onari !

SABINO:

Sabino gauza guztien gaiñetik, argitasun aundikua izanez, Goiko Jaungoikua ta Lagi-Zarraren sinismenekua zan oso, Euskal Aberkide guztiak, biotzez artu genduna.
Goazan ba, gauzak berak emon euskun ulermeneko argitasun aundienean izten, ondo baiño obeto eginda dagozelako.

Sabinok orduko denboratan, ez eukan beste biderik, K.o. 325eko urtean norkeri aundiakin Nizean, I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak sortu eben kaisertzazko menperatzail ta kolonizatzaillezko Katoliko Aberkidetzaren erlijioagaz bat izatea baiño, orren eritzien kanpotik, iñork ez ebelako bizitzaren aukera ta izatasunik euki.
Eta batez be, IZADI ONEN MILLA ASKOKO EDESTIAN, BEREZKOTASUNEAN JENDEKUNTZATU ZIRAN NORTASUN AUNDIKO ERRIAK, EUREN AURKA IPINI EBELAKO ZAPATZAILLEZKO TRESNERI GUZTI ORREIK, KATOLIKORASUNAREN ABERRITASUNA ZIÑESKINTZATU EBENETIK.

Oarkizun txiki bat:

Irasitako Izadi onetan, nork eroan leuke eskubide osoagaz "JAIOTZAZKO IZEN BURUA ?.

Jaungoikua Bere Irasitako Izadi onetan gizakirentzat, ardatz nagusi bigaz agertzen jaku, Berak ipini euskuzan oñarrizko lege artean:
a) "Jaiotako guztien eskubide oso ta bardiñaz.
b) "Gure jaiokerea, ze jendekuntza motan jaioten daneko eskubide osoagaz.

Au da:

a) Guztien, jaio fisikoaren eskubide oso ta bardiñagaz.

b) gure askotasun edo ugaritasunean, ezberdintasunezko jendekuntz guztietan jaio geinken eskubide osoa euki degun.

Zertarako edo zergaitik?: Berak, Bere Izadi au irasitakoan ipini euskuzelako, lege baldintza orreik, atondu edo antolatu gindezan, ardura nagusi lez.

Bestela, begitu baiño besterik ez daukagu Izadi oneri konturatuteko:

a) Guk ez daukagula irasteko ezeren al-izate edo almenik, guk bear dogunentzarako daukaguzan izan-gaitasun guztietatik, gaia eran aldatu bakar bakarrik egin geunkelako.

b) Orregaitik gure eginkisunetan, bizi denbora guztiak, bardiñak direla esan bear dogu, daukagun egin bear nagusi ta bakarra, Bere Legeak ekanduz erabiltea bakarrik daukagulako.

Erreza bear bada ez ?.

Or dagoz ba, guk egin bear doguzenerako "MIRARI" guztiak.

Orregaitik, Berarengandik, ez daukagu beste ardurazko eginkizunik, agindu ori dalako naikoa, gure al-izatezko bizi oneitan, ZOR/ESKUBIDEAREN zorkaritzazko ardura guztiak, ekanduz bete dagiguzen.

Ortik kanpo jokatu ezgero, ikusten dogun lez, gauza guztiak lokaztu egiten dira guzur edo guzurrezkoak biurtzen diralako, ta gaurko "Korona-Birus"en antzera, epokeria edo ezaziak gaurko lez, ugaritasun guztiagaz agertzen jakuz, ORDAINDU BEAR DIREZAN DIRU MOLTZUAK, GURE ZARPEL edo POLTZILLUETAN GORDE EGITEN DOGUZELAKO.

Dirua, guk atara gendun, ordainketetan, berdintzak lortzeko bakar bakarrik ipini gendulako.

¡¡ Ez diru orreik gure zarpeletan gordetzeko, DIRUA GIZARTE ARTEAN, GIZA GORPUTZEKO ODOLAK DAUKAN EGIN BEARRA EDO ARDUREA DAUKOLAKO.

Zer sortu da oraiñarte ?:

Leen, asierazko denboratan Europako gizan, asko kostata lortu ziran benetako demokrazian, Etruskoak, gudalozteak irazi ebezala euren salerosketak zain ipinteko, eta gudalozte orreik matxinatuz, erromatar nortasunezko gorputza artu ebenetik, I Konstantino Aundi ta Aita Santu I Silbestreraiño eldu ziranarte, erromatar orreik, euren menperatzail erri-irasle edo kolonizazioak lortzeko, VENI VIDI VINZI asmatu eben elburuagaz ibilita, Jaungoikuaren Legedi guztia albora edo baztertu ebela, ta zatitu ondoren, euren legeetan biurtzeko, Jaungoikuaren Legeen kanpotik asmatutako sasilege orreik, guzurrezkoak edo almenik ez daukan gizak eginekoak diran lez, bizitza onen izate guztia, guzur utz baten biurtu jakula.

Gaiñera, I Konstantino ta I Silvestre Aita Santuak Kaisartza Kristau erlijioagaz batu edo alkartuta ta ipini eutzezan erromatar legezko baldintzak ziñezkintzatuz, guzurrean guztiz lokaztuta gagoz urten edo asnasa artu ezinik.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.020 urtean Jorraillaren 15ean

Lan onek daukazan Alda txiki oneik: Zornotzan 2.021´eko urtean Loraillaren 13´an